31.4.4.6. Zein-erlatiboaren oinarritzko balio semantikoa eta erlatibo moldeen arteko desberdintasunen neutralizazioa .....	1374
31.4.5. Bait-erlatiboak .....	1376
31.4.5.1. Bait-erlatiboaren ezaugarriak .....	1376
31.4.5.2. Erresunptiboaren forma (agerikoa edo ez-agerikoa) .....	1377
31.4.5.3. Bait-erlatiboetako izen sintagma erlatibatuen kasu markak eta postposizioak .....	1378
31.4.5.4. Bait-erlatibo konplexuak .....	1378
31.4.5.5. Aposizio motak .....	1379
31.4.5.6. Bait-perpausen anbiguotasuna .....	1379
31.4.5.7. Bait-perpausetako izenordain batek aurrekari gisa perpaus bat duenean .....	1380
31.4.6. Korrelazioz eraturiko perpaus erlatiboak .....	1381
31.4.6.1. Korrelaziozko perpausak: aurkezpena .....	1381
31.4.6.2. Korrelaziozko perpausen egitura .....	1381

31.4.6.3. Korrelaziozko perpausen balioa .....	1383
31.4.6.4. Izenordain korrelatu aurrekariaren forma.....	1384
31.4.6.5. Korrelaziozko izenordain anaforikoaren forma.....	1385
31.4.6.6. <i>Ere</i> eta <i>eta</i> korrelaziozko perpaus erlatiboetan.....	1387
31.4.6.7. Korrelaziozko erlatiboak mendeko perpaus bateko osagai	1387
31.4.6.8. Korrelaziozko perpaus erlatiboaren tokia.....	1388
31.4.7. Aurrekaririk gabeko galdera izenordaina duten erlatiboak.....	1389
31.5. Perpaus erlatibo jokaturgabeak .....	1390
31.5.1. Sarrera.....	1390
31.5.2. Perpaus erlatibo jokaturgabe arruntak .....	1391
31.5.2.1. Perpaus erlatibo jokaturgabe arrunten aldaerak.....	1391
31.5.2.2. Zenbait ezaugarri, perpaus erlatibo arrunt guztiei dagoz- kienak .....	1394
31.5.2.3. Perpaus erlatibo jokaturgabeen ezaugarri bereziak .....	1397
31.5.3. Korrelaziozko perpaus erlatibo jokaturgabeak .....	1400
31.5.4. Galderazko izenordaina daukaten perpaus erlatibo jokaturgabeak	1401
<b>32. KONPARAZIO PERPAUSAK .....</b>	<b>1407</b>
32.0. Sarrera.....	1408
32.1. Ohiko ereduko konparazio perpausak.....	1408
32.1.1. Konparazio perpausen egitekoa eta motak .....	1408
32.1.2. Konparazio egituraren osagaiak .....	1412
32.1.2.1. Konparazio terminoa, gaia eta morfema .....	1412
32.1.2.2. Konparazioaren terminoak .....	1413
32.1.2.3. Konparazio gaia edo ardatza .....	1414
32.1.2.4. Konparazio terminoak osagai bat baino gehiago.....	1416
32.1.2.5. Konparazio morfemak .....	1417
32.1.2.6. Osagaiak isilik .....	1418
32.1.2.7. Juntaturara irekiak .....	1419
32.1.3. Konparazio perpausen egitura sintaktikoa.....	1420
32.1.3.1. Konparazio sintagmak sinpleak edo konplexuak .....	1420
32.1.3.2. Sintagmak isildurik.....	1422
32.1.3.3. Konparazio perpausak beste bat mendeen.....	1423
32.1.3.4. Zer isiltzen den .....	1425
32.1.3.5. <i>-n</i> eta <i>-na</i> menderagailuak .....	1427



32.2. Berdintasunezko konparazioa .....	1430
32.2.1. Maila alderatzen duten berdintasunezko perpausak .....	1430
32.2.1.1. <i>Bezain</i> morfema.....	1430
32.2.1.2. <i>Bezain</i> morfemaren ezkerreko osagaia.....	1431
32.2.1.3. Bestelako kasu batzuk .....	1433
32.2.2. Zenbatekoa alderatzen duten berdintasunezko perpausak .....	1436
32.2.2.1. Berdintasunezko morfemak .....	1436
32.2.2.2. Konparazioaren beste xehetasun batzuk.....	1438
32.3. Desberdintasunezko konparazio perpausak .....	1441
32.3.1. Maila alderatzen duten desberdintasunezko perpausak .....	1441
32.3.1.1. Morfema .....	1441
32.3.1.2. Beste konparazio mota batzuk.....	1445
32.3.2. Zenbatekoa alderatzen duten desberdintasunezko perpausak .	1450
32.3.2.1. Morfema eta kokapena .....	1450
32.3.2.2. Zenbatekoa adierazten dutenak .....	1452
32.3.3. Adiera superlatiboko konparazioak .....	1456
32.4. Parekotasunezko konparazio perpausak .....	1457
32.4.1. <i>Bezala/legez</i> morfemekin eginiko parekotasunezko perpausak ...	1457
32.4.2. <i>Bezalako/legezko</i> formekin eginiko parekotasunezko perpausak	1462
32.4.3. <i>Bezala/legez</i> morfemak alderaketaz bestelako erabileretan ....	1464
32.5. Eredu erromanikoko konparazio perpausak. Egitura eta motak .....	1469
32.6. [ <i>Hain ... nola</i> ] gisako alderaketa.....	1471
32.6.1. Alderaketaren osagaiak eta egitura .....	1471
32.6.2. Mailaren alderaketa .....	1472
32.6.3. Zenbatekoaren alderaketa .....	1473
32.7. [ <i>Hainbat ... zenbat</i> ] gisako korrelazioak.....	1474
32.7.1. Mailaren alderaketa .....	1474
32.7.2. Zenbatekoaren alderaketa .....	1475
32.8. Konparazio proportzionala eta progresiboa .....	1476
32.8.1. Konparazio proportzionala .....	1476
32.8.2. Konparazio progresiboa.....	1478
32.9. Parekotasunezko korrelazioak .....	1480
32.10. Egitura superlatiboak eta gehiegizkoa adierazten dutenak .....	1482
32.10.1. Egitura superlatiboak .....	1482
32.10.1.1. Zer alderatzen duten superlatiboek.....	1482

32.10.1.2. Egitura superlatiboa izenarekin eta adjektiboarekin.....	1483
32.10.1.3. Zenbatekoarekin .....	1487
32.10.1.4. Konplementu mugatzailea .....	1489
32.10.2. Gehiegizkoa adierazten duten egiturak.....	1492
<b>33. ONDORIO PERPAUSAK.....</b>	<b>1497</b>
33.1. Ondoriozko perpausen egitekoa.....	1497
33.1.1. Bi gertakari .....	1497
33.1.2. Ondoriozkoak eta kausazkoak .....	1498
33.2. Ondoriozko perpausen egiturak eta morfemak .....	1499
33.2.1. Bi osagaien zeregina .....	1499
33.2.2. <i>-(e)la</i> menderagailua, eta subjuntiboa ere.....	1501
33.3. Ondorio perpaus mendekoak .....	1502
33.4. Ondorio perpaus alboratuak.....	1505
<b>34. BALDINTZAZKO PERPAUSAK.....</b>	<b>1509</b>
34.1. Sarrera.....	1510
34.2. Menderagailuak .....	1511
34.3. Baldintzazko perpausak zer diren .....	1515
34.3.1. <i>Baldintza</i> kontzeptua, definigaitza.....	1515
34.3.2. Baldintza eta kausa .....	1516
34.3.3. Baldintza eta hipotesia.....	1517
34.3.4. Aldiberekotasuna .....	1519
34.3.5. Solas jokoak eta inferentzia bidezko erabilerak .....	1521
34.4. Baldintzazko perpausen nolakotasuna.....	1526
34.5. <i>Ba-</i> aurritzia duten baldintzazko perpausak.....	1530
34.5.1. Menderagailu nagusi bat.....	1530
34.5.2. Alegialdiko baldintzazko perpausak: baldintza irrealak .....	1532
34.5.2.1. Aspektu oposizioak baldintza irrealetan.....	1532
34.5.2.2. Aspektu burutua duten alegialdiko baldintzazko perpausak ( <i>etorri balitz, ekarri balu</i> ) .....	1533
34.5.2.3. Aspektu burutua ez duten baldintzazko perpausak.....	1535
34.5.3. Alegialdia ez dakarten baldintzazko perpausak: baldintza irrealak.....	1540

34.5.4. Laburtuz.....	1545
34.6. <i>Non (eta) ez... -n</i> .....	1546
34.7. <i>-tuz gero</i> .....	1547
34.8. <i>-tu ezik</i> .....	1551
34.9. <i>-tu ezean</i> .....	1553
34.10. <i>-t(z)ekotan!-t(z)ekotz</i> .....	1554
34.11. <i>-t(z)ez gero</i> .....	1557
34.12. <i>-t(z)era(t)</i> .....	1558
34.13. <i>-tuenean</i> .....	1558
34.14. <i>Zer + ADITZOINA + ere (zer (nahi) gerta (ere), zer hel ere)</i> .....	1559
<b>35. DENBORAZKO PERPAUSAK (I)</b> .....	1561
35.1. <i>Sarrera</i> .....	1561
35.2. <i>Perpauaz besteko osagarri adberbialak</i> .....	1563
35.2.1. <i>Formak eta motak</i> .....	1563
35.2.2. <i>Kokapena adierazten duten osagarri adberbialak</i> .....	1566
35.2.3. <i>Aldiberekotasuna adierazten duten osagarri adberbialak</i> .....	1569
35.2.4. <i>Aurrekotasuna adierazten duten osagarri adberbialak</i> .....	1573
35.2.5. <i>Ondokotasuna adierazten duten osagarri adberbialak</i> .....	1578
35.2.6. <i>Bestelako adierazpenak dituzten osagarri adberbialak</i> .....	1582
35.2.7. <i>Iraupena adierazten duten osagarri adberbialak</i> .....	1584
35.2.8. <i>Iraupenaren adierazpen kuantitatiboa adierazten duten osagarri adberbialak</i> .....	1584
35.2.9. <i>Hasierako muga adierazten duten osagarri adberbialak</i> .....	1589
35.2.10. <i>Hondarreko muga adierazten duten osagarri adberbialak</i> .....	1591
35.2.11. <i>Bi mugak adierazten dituzten osagarri adberbialak</i> .....	1592
35.2.12. <i>Maiztasuna adierazten duten osagarri adberbialak</i> .....	1593
35.2.13. <i>Fasea adierazten duten osagarri adberbialak</i> .....	1596
<b>36. DENBORAZKO PERPAUSAK (II)</b> .....	1601
36.1. <i>Oinarrian perpaua duten osagarri adberbialak ('Denborazko perpauak')</i> .....	1602
36.2. <i>Izaera, formak eta motak</i> .....	1602
36.2.1. <i>Postposizioak eta denboraren adierazpena</i> .....	1603

36.2.2. Egitura hauen ezaugarriak .....	1603
36.2.3. Gertakari bi aipatzen dira .....	1606
36.3. Kokapenezko perpausak: Aldiberekotasuna .....	1609
36.4. Aldiberekotasunaren adierazpen orokorra .....	1610
36.4.1. Aldiberekotasuna adierazten duten morfemak: <i>-nean</i> .....	1610
36.4.2. <i>-nean</i> morfemaren bestelako adiera batzuk .....	1614
36.4.3. <i>-tzean</i> morfema .....	1615
36.4.4. <i>-tzerakoan</i> , <i>-tu(k)eran</i> , <i>-tzearekin</i> eta <i>-larik</i> .....	1616
36.4.5. <i>Noiz ere ... bait-</i> egitura .....	1620
36.5. Aldiberekotasun estua .....	1623
36.5.1. Aldiberekotasuna seinatzeko zenbait bide: <i>-neko</i> forma .....	1623
36.5.2. <i>-tzerako</i> , <i>...orduko</i> , <i>...batera</i> , <i>bezain laster</i> eta beste batzuk ...	1624
36.5.3. <i>-tu eta berehala</i> gisako formak .....	1626
36.6. Aldiberekotasun zehatza .....	1628
36.6.1. Aldiberekotasun zehatza seinatzeko duten formak .....	1628
36.6.2. <i>-no</i> , <i>... bitartean</i> , <i>-n artean</i> , <i>-tu ahala</i> , <i>-tu arau</i> .....	1629
36.7. Kokapenezko perpausak: aurrekotasuna eta ondokotasuna .....	1633
36.7.1. Aurrekotasuna eta ondokotasuna adierazten duten formak .....	1633
36.7.2. Aurrekotasuna adierazten duten formak .....	1635
36.7.3. Ondokotasuna adierazten duten formak .....	1639
36.8. Iraupeneko gertakarien muga adierazten duten perpausak .....	1645
36.9. Hasierako muga adierazten duten formak .....	1647
36.10. Hondarreko muga adierazten duten formak.....	1649
36.11. Maiztasuna ere adierazten duten kokapenezko perpausak.....	1652
<b>37. HELBURUZKO PERPAUSAK</b> .....	<b>1655</b>
37.1. Sarrera. Zer diren. Harremanak kausalekin eta ondoriozkoekin .....	1655
37.2. Helburuzko perpausak: formak eta motak .....	1660
37.2.1. Formak .....	1660
37.2.2. Motak .....	1663
37.3. Subjuntiboarekin eginiko helburuzko perpausak.....	1664
37.3.1. Subjuntibo soilarekin eginak .....	1664
37.3.2. Subjuntiboa postposizioarekin edo aurretiko partikularekin ...	1667
37.3.3. Helburuzkoen hurbileko subjuntibozko perpausak .....	1675

37.4. -tzeko formarekin eginiko helburuzko perpausak.....	1675
37.4.1. -tzeko soila .....	1675
37.4.2. «-tzeko + postposizioa» egiturako formak.....	1678
37.4.3. Helburua eta ezinbesteko baldintza .....	1680
37.4.4. -tzeko formarekin eginiko helburuzkoen bestelako perpausak mota batzuk.....	1681
37.5. -tzeagatik eta -tzearren formekin eginiko helburuzko perpausak....	1686
37.5.1. -tzeagatik eta -tzearren formak, kausazko eta helburuzko .....	1686
37.5.2. Helburuzko -tzeagatik forma .....	1687
37.5.3. Helburuzko -tzearren forma .....	1688
37.5.4. Esateagatik esan gisako esaldiak .....	1690
37.6. -tze aldera formarekin eginiko helburuzko perpausak .....	1690
37.6.1. Aldaerak eta adierak .....	1690
37.6.2. Erabilera.....	1691
37.6.3. Esate aldera esan gisako esaldiak .....	1692
37.6.4. Trukearen adierazpidea.....	1692
37.6.5. -tze aldera, helburuzkoen bestelakoetan: zertarako- eta zertara-osagarri .....	1693
37.7. -tzeera formako osagarriak eta helburuzko perpausak .....	1693
<b>38. KAUSAZKO PERPAUSAK .....</b>	<b>1697</b>
38.1. Sarrera: kausa, ondorioa, helburua .....	1697
38.1.1. Kausa-ondorioaren adierazpenak .....	1697
38.1.2. Kausazko perpausak eta helburuzkoak.....	1698
38.1.3. Kausa adierazten duten egiturak eta hura iradokitzen dutenak	1699
38.1.4. Kausa adierazten duten formak .....	1700
38.2. Kausazko perpausak: motak eta formak .....	1703
38.2.1. Predikatuaren barneko osagai direnak, kausalak .....	1703
38.2.2. Predikatuaren kanpoko osagai direnak, azalpenezkoak .....	1704
38.2.3. Kausalak eta azalpenezkoak .....	1708
38.2.4. Formak.....	1708
38.3. -lako(tz), kausala.....	1710
38.4. -tzeagatik eta -tzearren, kausalak .....	1716
38.5. Bait-, kausala eta azalpenezkoa .....	1720
38.6. Zeren...-n eta zeren...bait-, kausalak eta azalpenezkoak .....	1724

38.7. -eta enklitikoa, azalpenezkoa.....	1731
38.8. -nez gero, azalpenezkoa .....	1736
38.9. Nola... {bait-; -n}, zelan...-n azalpenezkoak .....	1739
<b>39. KONTZESIO PERPAUSAK .....</b>	<b>1741</b>
39.1. Sarrera.....	1742
39.1.1. Kontzesio perpausak zer diren.....	1742
39.1.2. Bestelako egitura batzuekiko antzekotasuna .....	1746
39.1.3. Aurkaritzako diskurtso markatzaileak eta kontzesio perpausak	1746
39.1.4. Aurkaritzako juntadura .....	1748
39.1.5. Beste egitura hurbileko batzuk .....	1750
39.1.5.1. Baldintza perpausak .....	1750
39.1.5.2. Beste zenbait adberbio perpaus (-ela(rik), -tuta, -turik...).	1751
39.2. Kontzesio perpausen ezaugarriak .....	1752
39.2.1. Kontzesiozko egituretako menderagailuen inbentarioa eta adibideak.....	1753
39.2.2. Kontzesio perpausen funtzioa, kokagunea eta barne hurrenkera .	1754
39.2.3. Ere kontzesio perpausetan eta diskurtso markatzaile aurkaritzakoetan .....	1756
39.2.3.1. Ere kontzesio perpausetan .....	1756
39.2.3.2. Ere diskurtso markatzaile aurkaritzakoetan .....	1758
39.2.4. Aurkaritza diskurtso markatzaileak kontzesio perpausen indargarri .....	1759
39.2.5. Aditzaren elipsia .....	1760
39.2.6. Zer aditz motarekin osa daitezkeen kontzesio perpausak .....	1760
39.2.7. Kontzesio gailuen metatzea .....	1761
39.3. Kontzesio egiturak .....	1762
39.3.1. Nahiz markaren bidez eratutako egiturak .....	1763
39.3.2. Arren postposizioaren bidez eratutako egiturak .....	1769
39.3.3. -gatik postposizioaren bidez eratuak .....	1772
39.3.4. Baina enklitikoaren bidez eratuak .....	1775
39.3.5. -tuta ere / -turik ere / -tu gabe ere / -tu ezik ere .....	1779
39.3.6. (Baldin) ba-... ere, -tuz gero ere: baldintzakoetan oinarrituak .....	1781

39.3.7. - <i>ela/-elarik</i> + <i>ere</i> .....	1784
39.3.8. Galdetzailea + <i>ere</i> + <i>bait/-en</i> .....	1788
39.3.9. Banakaritza egiturak .....	1790
39.3.10. Perpaus erlatiboan oinarrituak: <i>datorrena datorrela</i> .....	1792
39.3.11. <i>Edo-galdetzailea/galdetzailea-nahi</i> + - <i>ela/-en/-elarik</i> + ( <i>ere</i> ) .....	1794
39.3.12. Kontzesioa adieraz dezaketen beste zenbait egitura .....	1796
39.3.12.1. <i>Ez delakoan ere / Ez idurian ere</i> .....	1797
39.3.12.2. <i>Bait-</i> .....	1798
39.3.12.3. - <i>eta</i> .....	1799
39.3.12.4. - <i>ela(rik)</i> .....	1800
39.3.12.5. - <i>elako</i> .....	1800
<b>40. MODUZKO PERPAUSAK</b> .....	1801
40.1. Sarrera .....	1801
40.2. Modua eta beste nozio batzuk .....	1803
40.3. Barneko eta kanpoko moduzkoak .....	1807
40.4. Barneko moduzko perpausak .....	1808
40.4.1. Adjuntu funtzioa dutenak .....	1808
40.4.2. Erabilera predikatiboa dutenak .....	1808
40.5. Kanpoko moduzko perpausak .....	1816
40.6. Menderagailuak eta osaera .....	1819
40.7. - <i>turik</i> eta - <i>tuta</i> .....	1822
40.7.1. - <i>turik</i> .....	1822
40.7.2. - <i>tuta</i> .....	1824
40.8. - <i>tua(k)</i> .....	1825
40.9. - <i>tuz</i> (- <i>tuaz</i> ) .....	1828
40.10. - <i>tu</i> + postposizioa .....	1834
40.11. Aditz izena oinarri dutenak .....	1841
40.12. Aditzoina oinarri dutenak .....	1844
40.13. - <i>ela</i> eta - <i>elarik</i> .....	1845
40.14. - <i>en moduan</i> , - <i>en eran</i> , - <i>en arau</i> , - <i>en gisa</i> , - <i>en antz</i> , - <i>en molde</i> .....	1849
40.15. Konparaziozkoak (- <i>en bezala</i> / - <i>en legez</i> ) .....	1851
40.16. Galdetzaile batekin hornituriko mendeko perpausak .....	1852
40.17. - <i>enez</i> .....	1853

<b>41. HITZ ORDENA: INFORMAZIO EGITURA .....</b>	<b>1855</b>
41.1. Sintagma barneko hitz ordena eta perpaus barneko hitz ordena.....	1855
41.2. Ordena neutroa (kanonikoa) / ordena markatua .....	1859
41.3. Ordena kanonikoa eta testu-generoak.....	1863
41.4. Ordena markatua: Galdegaia .....	1867
41.4.1. Perpauseko informazio berria .....	1867
41.4.2. Galdegaia nola nabarmendu .....	1871
41.4.3. Kokagunea .....	1874
41.4.4. Galdegai gehitua .....	1881
41.5. Periferia guneak. Mintzagaia: mintzagai aurreratua / mintzagai atzeratua .....	1882
41.5.1. Mintzagai motak .....	1882
41.5.2. Mintzagai isildua .....	1884
41.5.3. Mintzagai aurreratua.....	1884
41.5.4. Bi mintzagai kontraste bidez emanak .....	1888
41.5.5. Mintzagai atzeratua.....	1888
41.5.6. Erdiko mintzagaia.....	1889
41.6. Laburbilduz .....	1890

Eranskina

**DISKURTSO MAILAKO LOTURAK**

<b>42. DISKURTSO MARKATZAILEAK (I): DM MOTAK .....</b>	<b>1895</b>
42.1. Perpausak ez dira uharteak: testu batean josiak agertzen dira .....	1896
42.2. Hizketa, hizkuntza, perpausa eta esaldia .....	1897
42.3. Perpausa, gramatikaren lehengaia.....	1900
42.4. Juntagailuak eta menderagailuak .....	1904
42.5. Juntadura eta menderakuntzaren arteko bereizketa .....	1909
42.6. Juntaduraren egitekoa .....	1911
42.7. Alboratze hutsezko juntadura.....	1911
42.8. Perpausen arteko harremanak .....	1913
42.9. Diskurtso markatzaileak (DMak) eta lokailuak .....	1920
42.10. Diskurtso markatzaileen (DMen) sailkapena.....	1922
42.11. DM: Informazioaren egituratzaileak .....	1922



42.12. DM: Lokailuak.....	1923
42.13. DM: Birformulatzailak.....	1924
42.14. DM: Argumentu operadoreak .....	1925
42.15. DM: Elkarrizketa markatzaileak.....	1925
42.16. Diskurtso markatzaileen kokalekua perpausean .....	1926
42.17. DMen eta juntagailuen arteko harremanak eta bereizkuntzak.....	1927
42.18. Diskurtso markatzaileak: laburbilduz .....	1930
42.19. Emendiozkoak .....	1932
42.19.1. Sarrera.....	1932
42.19.2. <i>Ere</i> .....	1934
42.19.3. <i>Gainera</i> .....	1945
42.19.4. <i>Bestalde/bertzalde</i> .....	1947
42.19.5. <i>Halaber (orobat, berebat)</i> .....	1949
42.19.6. <i>Behintzat (eta segurik)</i> .....	1954
42.19.7. <i>Bederen, bederik, behinik behin</i> .....	1961
42.19.8. <i>Badere</i> .....	1962
42.19.9. <i>Badarik (ere)</i> .....	1963
42.20. Hautakariak .....	1964
42.20.1. Sarrera.....	1964
42.20.2. <i>Bestela/Bertzenaz</i> .....	1965
42.20.3. <i>Osterantzean</i> .....	1969
42.20.4. <i>Gainerantzean</i> .....	1969
42.20.5. <i>Ezpere(n) eta ezpabere</i> .....	1972
42.21. Aurkaritzakoak.....	1974
42.21.1. Zer diren aurkaritzako diskurtso markatzaileak .....	1974
42.21.2. <i>Ordea</i> .....	1976
42.21.3. <i>Berriz</i> .....	1979
42.21.4. <i>Ostera</i> .....	1983
42.21.5. <i>Aldiz</i> .....	1984
42.21.6. <i>Aitzitik</i> .....	1986
42.21.7. <i>Bizkitartean, bitartean, bien bitartean, artean</i> .....	1988
42.21.8. <i>Alta, alabaina, alabadere</i> .....	1990
42.21.9. <i>Dena dela, dena den</i> .....	1993
42.21.10. <i>Hala ere, hala eta guztiz ere</i> .....	1993
42.21.11. <i>Haatik/hargatik, horratik/horregatik</i> .....	1993

42.21.12. <i>Barren</i> .....	1997
42.21.13. <i>Badarik ere</i> .....	1997
42.21.14. Aurkaritza adierazten duten esapideak .....	1998
42.22. Ondoriozkoak .....	1998
42.22.1. Sarrera.....	1998
42.22.2. <i>Beraz eta Bada</i> kide .....	1999
42.22.3. <i>Hortaz</i> .....	2015
42.22.4. <i>Orduan</i> .....	2016
42.22.5. <i>Honenbestez, Horrenbestez, Hainbestez</i> .....	2018
42.22.6. <i>Halatan, Hala</i> .....	2019
42.23. Kausazkoak .....	2020
42.23.1. Sarrera.....	2020
42.23.2. <i>Zeren</i> .....	2021
42.23.3. <i>Zergatik</i> .....	2024
42.23.4. <i>Alabaina</i> .....	2026
42.23.5. <i>Bada</i> .....	2028
42.23.6. <i>Izan ere</i> .....	2032

**43. DISKURTSO MARKATZAILEAK (II): BIRFORMULATZAI-LEAK** ..... 2035

43.1. Testuingurua.....	2036
43.2. Metodologia: EUDIMA corpusa.....	2038
43.3. Birformulatzaiak: aztergaiak.....	2040
43.4. Diskurtso markatzaileak eta birformulatzaiak .....	2043
43.5. Birformulazioa eta birformulatzaiak.....	2046
43.6. Euskarazko birformulatzaielen sailkapena .....	2052
43.7. Birformulatzaiak esplikatibo nagusiak .....	2054
43.7.1. Birformulatzaiak esplikatiboaren balio oinarritzak: azalpena ...	2055
43.7.2. Birformulatzaiak esplikatiboaren balio nagusiak .....	2056
43.7.2.1. Erreferentziak birformulazioa.....	2056
43.7.2.2. Azalpenak birformulazioa.....	2057
43.7.2.3. Definizioak birformulazioa.....	2058
43.7.2.4. Izendapenak birformulazioa .....	2058
43.7.2.5. Inferentziak birformulazioa .....	2059
43.7.2.6. Laburpen taula .....	2060

43.7.3. Birformulazio parafrastikoa.....	2061
43.7.4. Birformulazio partziala eta erabatekoa.....	2061
43.7.5. Sintaxia.....	2063
43.7.6. Birformulatzailen kokagunea.....	2066
43.7.7. Puntuazioa birformulazioan.....	2067
43.7.8. Baliokidetzak birformulatzailleetan.....	2070
43.7.9. Tradizioa, testu mota, erregistroa... ..	2071
43.8. Birformulazio zehaztaileak.....	2071
43.8.1. Birformulatzaille zehaztaileen funtzio aniztasuna.....	2072
43.8.2. Balioak.....	2074
43.8.3. Birformulatzaille zehaztaileen kokagunea.....	2077
43.8.4. Birformulakizunen sintaxia.....	2077
43.8.5. Puntuazioa.....	2078
43.8.6. Tradizioa, testu mota, erregistroa... ..	2078
43.9. Birformulatzaille laburbiltzaileak.....	2079
43.9.1. Birformulatzaille laburbiltzaile hutsak: balioak, kokagunea, sintaxia.....	2080
43.9.2. Birformulatzaille berraztertzaileak.....	2084
43.10. Birformulatzaille urruntzaileak.....	2087
43.10.1. <i>Dena dela, dena den</i> .....	2090
43.10.2. <i>Edonola ere (edozein ere)</i> .....	2093
43.10.3. <i>Edozein kasutan (ere)</i> .....	2094
43.10.4. <i>Edozein modutan (ere)</i> .....	2096
43.10.5. <i>Hala ere</i> esapidearen bi balioak.....	2097
43.10.6. <i>Hala eta guztiz ere</i> esapidearen bi balioak.....	2100
43.10.7. Birformulatzaille urruntzaileak: kokagunea, sintaxia, puntuazioa.....	2101
43.11. Birformulatzaille zuzentzaileak: ( <i>edo</i> ) <i>hobeto/hobeki, are hobeto/hobeki, barkatu, hobeto esanda</i> .....	2102
43.11.1. ( <i>edo</i> ) <i>hobeto/hobeki</i> .....	2103
43.11.2. <i>Are hobeto/hobeki</i> .....	2106
43.11.3. <i>Barkatu, barka</i> .....	2106
43.11.4. <i>Bestela esanda</i> .....	2108
43.11.5. <i>Egia esan (egia esanda...)</i> .....	2109
43.11.6. <i>Hobeto/hobeki esan</i> .....	2110
43.11.7. <i>Zer diot?</i> .....	2111

<b>ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA .....</b>	<b>2113</b>
1. Iturriak .....	2113
1.1. Adibideen iturriak .....	2114
1.2. Sareko baliabideak: corpusak eta hiztegiak .....	2133
1.2.1. Laburdurak .....	2133
1.2.2. Corpusak .....	2134
1.2.3. Hiztegiak .....	2134
2. Bibliografia orokorra .....	2135
2.1. Laburdurak .....	2135
2.2. Bibliografia .....	2137
<b>GAI AURKIBIDEA .....</b>	<b>2181</b>

## Laburdura orokorrak

abs.	=	absolutiboa
ad.	=	aditza
AdbS	=	adberbio sintagma
adib.	=	adibidez
adj.	=	adjektiboa
AdjS	=	adjektibo sintagma
adlat.	=	adlatiboa
anim.	=	animatua
art.	=	artikulua
AS	=	aditz sintagma
bizk.	=	bizkaiera
cf.	=	<i>confer</i>
dat.	=	datiboa
DM	=	diskurtso markatzailea
DS	=	determinatzaile sintagma
e.h.	=	eta hurrengoak
erakus.	=	erakuslea
erg.	=	ergatiboa
etab.	=	eta abar
fr.	=	frantsesa
galdeg.	=	galdegaia
gazt.	=	gaztelania

gen.	=	genitiboa
gip.	=	gipuzkera
Hego.	=	Hegoaldea
HelP	=	helburuzko perpausa
hur.	=	hurrengoak
ines.	=	inesiboa
InflS	=	inflexio sintagma
ing.	=	ingelesa
instr.	=	instrumentala
Ipar.	=	Iparraldea
IS	=	izen sintagma
it.	=	italiera
iz.	=	izena
izond.	=	izenondoa
izord.	=	izenordaina
KK	=	kuantifikatzaile konparatiboa
KonpS	=	konplementazio sintagma
konts.	=	kontsonantea
lat.	=	latina
MaS	=	maila sintagma
mintz.	=	mintzagaia
mug.	=	mugatua
obj.	=	objektua
perts.	=	pertsona
pl.	=	plurala
Pm	=	mendeko perpausa
PNom	=	perpau nominalizatua
prop.	=	propioa
PS	=	postposizio sintagma
sing.	=	singularra
soziat.	=	soziatiboa
subj.	=	subjektua
ZenbS	=	zenbatzaile sintagma

## Zeinuak

- § Kapitulu baten atala edo azpiatala adierazten du.
- # Zeinu hau daraman adibidea berez gramatikala da, baina testuinguru horretan ez da egokia.
- \* Zeinu hau daraman adibidea ez da gramatikala.
- ? Zeinu hau daraman adibidearen gramatikaltasuna zalantzazkoa da.
- Ø Gramatika osagai isildua edo hutsa.
- [...] Aipu batean idatzi gabe utzi den testu zatia.
- { } Zeinuaren barruan ageri diren osagaietatik bat aukeratu behar dela adierazten du.
- ( ) Informazio tartekia ez denean, parentesi barrukoa aukerakoa dela adierazten du.
- ~ Neurri batean bederen pareko direla, edo ezaugarri partekatuak dituzten osagaiak direla adierazten du.
- / Morfemen eta bestelako gramatika unitateen aldaerak bereizten ditu.
- // Serie batzuen artean bereizten du, arruntagoa den koma edo bestelako puntuazio markaren bat ilun samar geratzen denean.
- ≠ Morfemen eta bestelako gramatika unitateen ezberdintasuna adierazten du.
- = Morfemen eta bestelako gramatika unitateen baliokidetasuna adierazten du.
- Implikazioak edo inferentziak markatzen ditu.





4. partea

**PERPAUS ELKARTUAK:  
JUNTADURA ETA MENDERAKUNTZA**

---



## 28. Juntadura

---

- 28.1. **Sarrera: mota bereko osagaien juntadura**; 28.1.1. Maila bereko sintagmak elkartzen dira; 28.1.2. Juntadura mota desberdinak
- 28.2. **Juntagaiak**; 28.2.1. “Modu bereko” juntagaiak; 28.2.2. Auziaren konplexutasuna
- 28.3. **Juntadura eta menderakuntza**; 28.3.1. Elkarketa mota desberdinak; 28.3.2. Irizpideak zehazteko zailtasuna
- 28.4. **Emendiozko juntadura**; 28.4.1. Sarrera; 28.4.2. Zer elementu junta daitezke?; 28.4.3. Aditzarekiko komunztadura; 28.4.4. Juntaduraren irakurketak; 28.4.5. Osagai ezabaketa; 28.4.6. *Eta* juntagailuaren tokia; 28.4.7. Emendiozko esamoldeak; 28.4.8. Banakaritza; 28.4.9. Zenbait esapide
- 28.5. **Juntadura hautakaria**; 28.5.1. Sarrera; 28.5.2. *Edo* juntagailua; 28.5.2.1. Juntagailua eta juntagaiak; 28.5.2.2. Balioak; 28.5.2.3. Ezabaketak; 28.5.2.4. *Edo X edo Y*; 28.5.2.5. *X edo*; 28.5.3. *Edota* juntagailua; 28.5.3.1. Juntagailua eta juntagaiak; 28.5.3.2. Balioak; 28.5.3.3. Ezabaketak; 28.5.3.4. Tokia; 28.5.4. *Ala* juntagailua; 28.5.4.1. Juntagailua eta juntagaiak; 28.5.4.2. Balioak; 28.5.4.3. Ezabaketak; 28.5.4.4. Tokia; 28.5.5. Beste molde batzuk; 28.5.6. Balioak eta juntagailuak: laburpena; 28.5.7. Aditzarekiko komunztadura
- 28.6. **Aurkaritzako juntadura**; 28.6.1. Sarrera; 28.6.2. *Baina* juntagailua; 28.6.2.1. Sarrera; 28.6.2.2. Juntagaiak; 28.6.2.3. Ezabaketak; 28.6.2.4. Tokia; 28.6.2.5. Aurkaritza eta kontzesioa; 28.6.2.6. Zenbait esapide; 28.6.3. *Baizik* eta horren kideen aurkaritza (*ez A, B baizik*); 28.6.3.1. Sarrera; 28.6.3.2. Aurkaritza honen zer-nolakoak; 28.6.3.3. Ezabaketak; 28.6.3.4. *Baizik* juntagailua; 28.6.3.5. *Baino* eta *Ezpada* juntagailuak; 28.6.3.6. *Baina* juntagailua; 28.6.3.7. *Ez baina*; 28.6.3.8. *Baizik* eta *Baino* hitzen erabilera “murriztailea”

28.7. Juntagailuak eta Buru-parametroa

28.8. Juntadura eta osagaitasuna

28.9. Alborakuntza eta aposizioa; 28.9.1. Alborakuntza; 28.9.2. Aposizioa

---

## 28.1. Sarrera: mota bereko osagaien juntadura

### 28.1.1. Maila bereko sintagmak elkartzen dira

**28.1.1a** Aurreko ataletan ikusi den bezala, hizkuntzan gehienetan buru edo ardatz batzuen inguruan biltzen dira elementu desberdinak, buru horien eraginpean, eta nolabait esateko, mendekotasun erlazioekin (ikus 2. kapitulua). Egitura sintaktikoan ere badu horrek eragina. Baina mota bereko osagaiak elkartzeko aukera ere ematen digu hizkuntzak, eta orduan elementu horiek maila berean gelditzen dira. Juntaduraren bidez gauzatzen da aukera hori. Esate baterako, ondorengo adibideetan kategoria bereko elementuak azaltzen zaizkigu elkarturik: izenak (*Josu eta Miren*), adjektiboak (*aktore gazte eta indartsu asko*), determinatzaileak (*hiru edo lau katu*), adberbioak (*ez dakigu ondo edo gaizki aterako den*), aditzak (*arropak garbitu eta lisatu ditut*).

Baina kategoria lexikoak baino handiagoko elementuak ere bil daitezke juntaduraren bidez: perpausak (*Arantxarekin mendira joan naiz eta Josu etxean geratu da*), sintagmak (*Adinekoentzat eta haur txikientzat ondo etorriko da*) edo bestelako osagaiak ere (*Pirinioetako gailur garai eta haran ezkutua maite zituen*) elkar daitezke juntaduraren bidez. Eta esan bezala, era honetan elkartzen diren elementuen artean ez da egiturazko hierarkiarik ezartzen, eta sortzen den baturak elementu bakoitzak perpausuan izango lukeen funtzio sintaktiko bera izaten du.

**28.1.1b** Elkarketa mota honi juntagailuek ematen diote bidea: juntagailuen alde banatan kokatzen dira juntagaiak. Nolanahi ere, juntagailuen definizio positiborik nekez aurkituko dugu gramatiketan. Beti aipatzen da mota bereko elementuak elkartzen dituzten elementuak direla eta juntagaiak egitura sintaktikoan maila berean geratzen direla. Horrez gain, inguruko hizkuntzetan ere distribuzio irizpi-

dea erabili ohi da juntagailuak zedarritzeko unean: A xy B baldin badugu, A eta B mota bereko elementuak izanik, orduan x eta y, biak ezin dira juntagailu izan. Beste hitz batzuetan esateko, bi juntagailu ezin daitezkeela bata bestearen jarraian joan (*Jon etxera joan da eta \*bainalaldiz Mirenek erosketak egingo ditu*): eta eta *baina* biak dira juntagailu, eta ezin dira bata bestearen jarraian joan; *baina aldez* ez da juntagailua, eta orduan, juntagailu baten jarraian joan daiteke.

### 28.1.2. Juntadura mota desberdinak

**28.1.2a** Juntadura mota desberdinak bereizi ohi dira. Juntagailuak esanahi semantiko abstraktua duten elementuak dira, eta erabiltzen den juntagailuaren arabera, juntagaien artean lotura semantiko abstraktu desberdina ezartzen da. Lotura semantiko horien arabera sailkatu ohi dira juntadura mota desberdinak. Batzuetan, bi juntagaien arteko emendio edo gehiketa soila bideratzen da: *Jon afaltzera etorri da eta Josu lanera joan da*. Emendiozko juntadura deitzen zaio horrelakoari, eta *eta* juntagailuaren bidez gauzatu ohi da; eta horrez gain, badira balio bera ematen duten emendiozko esamoldeak ere (*ez ezik, ez ezen, ez eze... (ere), ez... bakarrik*). Beste batzuetan juntagaien artean era bateko edo besteko hautakaritza adierazten da, juntagaien arteko aukera: *mendirira joango naiz edo etxean geratuko naiz*; juntagailu hautakariak *edo, edota* eta *ala* dira. Azkenik, juntagaien artean aurkaritza erlazioa ere ager daiteke (*berandu jaiki naiz, baina ordurako iritsi naiz*); balio hau ematen duen juntagailu nagusia *baina* da, eta aurreko sailetan ez bezala, juntagaiak nahitaez predikatuak izaten dira; horrez gain, aurkaritzako juntaduraren barnean batzuetan galdegaiak jartzen dira kontrastean, *baizik, baino, baina, ezpada...* erabiliz.

**28.1.2b** Hizkuntzan juntagailurik gabe ere elkar daitezke elementuak, maila berean bata bestearen jarraian emanez. Alborakuntza deitzen zaio horri: *Isilik dago, ez daki ezer; Oso argia da Miren, asko daki; Beranduegi da, etxera noa*. Adibide hauek berak juntagailua erabiliz ere eman daitezke, baina hizkuntzetan bada aukera bi elementu alboratze hutsez elkartzeko, ageriko juntagailurik gabe. Berezi perpausekin gertatzen da, baina bestelako elementuekin ere bada era honetako elkarketak: *Haurrak, gazteak, helduak, han zeuden*.

Alborakuntzaren egitekoa eta juntadurarena parekoak dira: elementuak maila berean elkartzea. Eta alborakuntzak juntadurak bezalako jokabidea azaltzen du elipsirako aukerei dagokienez, banakaritzari dagokionean, edo baita hikako alokutiboaren onargarritasunari dagokionean ere. Juntagailurik gabeko junta-dura da, hortaz, labur esateko, alborakuntzak gauzatzen duena. Bestalde, etenaren luzerak lagunduko du jakiten edo adieraziko du bi perpaus askeren aurrean gauden, edo alborakuntza dagoen.

**28.1.2c** Alborakuntzaren bidez elkartutako perpausetan, batzuetan lokailuak edo diskurtso markatzaileak agertzen dira: *Gaur eguraldi ona egingo du; bihar, berriz, euria izango omen da*. Baita perpaus-juntaduretan ere: *Gaur eguraldi ona egingo du, eta bihar, berriz, euria izango omen da*. Diskurtso markatzaileek (ikus 42. kapitulua) aurreko perpausarekiko edo atalekiko lotura egiten dute, diskurtso mailan, eta nozio semantiko batzuk bideratzen dituzte: egituratzaileek informazioa egituratzen dute; lokailuek nozio semantiko batzuk bideratzen dituzte (emendioa, ondoriozkotasuna, aurkaritza...); birformulatzaileek aurreko informazioa zehazten dute, beste modu batera azaldu... eta abar. Aurreko adibideetan, esate baterako, aurkaritzako nozioa azaltzen zaigu, *berriz* lokailuaren bidez (§ 42.21.3). Alborakuntzaren edo juntaduraren bidez elkartutako bi perpausen arteko loturaren indargarri modukoak dira lokailuak: bestela ere elkartuta edo elkartu gabe daudekeen perpausen arteko erlazioaren ñabarduraren bat aditzera ematen dute. Ohartzen gara, gainera, ñabardura horiek juntagailuek ematen dituztenen antzekoak direla. Ez da kasualitatea: maila honetako perpaus arteko lotura eta, beraz, esanahi-erlazioak, funtsean mota horietara biltzen baitira. Baina ez dira juntagailuen multzo berean sartu behar, ezaugarri desberdinak baitituzte.

Juntagailuen eta diskurtso markatzaileen arteko lehenengo desberdintasuna distribuzio irizpidetik dator. Juntagailuen eginkizuna juntagaiak elkartzea da. Eta ondorioz, ezin daitezke metatu; ezinezkoa da, adibidez, *eta* eta *baina*, biak, juntagailu izaki, elkarren ondoan perpaus elkartu batean azaltzea: *\*Liburu hau oso atsegina da, eta beste hau, baina, asko lagundu diezazukeena*. Aldiz, *berriz* edo *ordea*, diskurtso markatzaileak, azal daitezke juntagailuei lagunduz: *Liburu hau oso atsegina da, eta beste hau, berriz/ordea, asko lagundu diezazukeena*. Ho-

rrek erakusten digu juntagailuak eta diskurtso markatzaileak elementu mota desberdina direla, eta lagunduko digu elementu bakoitza bere sailean jartzen.

**28.1.2d** Bestalde, juntagailua, juntatzen dituen osagaien artean kokatzen da, bien juntagunean. Egia da bakarren batek (*baizik*-ek, adibidez) bere kokagune berezia izan dezakeela. Baina juntagailuak kokagune jakina izango du beti. Diskurtso markatzaileak (DMak), berriz, askoz mugikorrago dira, eta bigarren perpauseko osagaien artean ibil daitezke. Beraz, DM horiek bigarren perpausarekiko, beren perpausarekiko, atxikimendu argia dute.

Horrez gain, eta lehen ere esan dugu, juntagailuak era oso desberdineko elementuak elkartzeko balia ditzakegu (perpausak, sintagmak eta osagai sintaktikoak, hitzak); baina DMek beti perpausen arteko lotura semantikoa bideratzen dute. Esan nahi baita, DMrik ez dugula aurkituko, adibidez, bi izen sintagmaren artean, edo bi izenen artean.

Azkenik, morfologikoki ere desberdin gertatzen dira. DM askoren aditzondo edo adberbio izaera oso nabarmena gertatzen da: morfologiak gehienetan argiro erakusten du aditzondo baten aurrean gaudela: *aldiz* < *aldi+z*; *beraz* < *bera+z* eta abar. Juntagailuetan nekez aurkituko dugu horrela banatzeko aukerarik edo gardentasunik.

Laburbilduz: juntagailuak eta DMak elementu desberdinak dira. Batzuetan inolako juntagailurik gabe ere ager daiteke DMA, eta bideratzen duen nozio semantikoa izan daiteke juntagailuren batek bideratzen duenaren antzekoa. Baina horrelakoetan ez dago benetako juntadurarik, juntagailuen eta DMen ezaugarriak desberdinak baitira.

## 28.2. Juntagaiak

### 28.2.1. “Modu bereko” juntagaiak

**28.2.1a** Hasieran esan dugu ‘mota bereko’ osagaiak elkartzen direla juntaduraren bidez. Baina hizkuntzak eskaintzen dituen aukera ugariak kontuan iza-

nik, gramatikariak saiatu dira ‘mota bereko’ izatearen nozio hori gehiago zehazten. Juntatutako adibide gehienetan kategoria lexiko bereko elementuak elkartzen dira: izenak, adjektiboak, determinatzaileak, aditzak, adberbioak. Edo mota bereko sintagma edo osagai sintaktikoak. Horrelakoak genituen sarreran emandako adibide guztiak. Hizkuntzak bide horretan aukera handia uzten du. Gainera, euskara hizkuntza eranskaria denez, gerta daiteke, morfema beregainak ez direnen azpian ere zenbait elementu juntatzea: *Herriko neska eta mutilentzat antolatu dute*; *Josu eta Aneren bidez lortu dugu etxea*. Egitura sintaktikoari buruzko xehetasunetan sartu gabe, ikusten da, behintzat, *-entzat* atzizkiak, beregaina ez den morfemak, gutxienez bi izen besarkatzen dituela; berdin, bigarren adibidean, genitiboarekin. Bereziki postposizio atzizkiekin gertatzen da aukera hori. Geroago aztertuko ditugu aukera horren mugak.

**28.2.1b** Beste batzuetan, ordea, aurkitzen ditugu kategoria sintaktiko desberdineko elementuz osatuko juntaturak ere. Adibidez, oso ohikoa da postposizio sintagma bat eta adberbio bat juntatzea: *Gaur edo bihar goizean iritsiko da telebista berria*. Edo adberbioa edo postposizio sintagma eta mendeko perpaus bat: *Triste eta begietan malkoak zituela inguratu zitzaigun Mikel*. Baina horrelakoetan ere funtzio sintaktiko bera izaten dute, eta perpausaren egituren maila berean egoten dira. Badirudi, beraz, ‘mota bereko osagaiak’ junta daitezkeela esaten denean, ‘egitura sintaktikoan maila berean dauden osagaiak, edo funtzio sintaktiko bera duten osagaiak’, ulertu behar dela. Eta ildo horretan, ezinezkoa gertatzen da bi postposizio sintagma elkarrekin juntatzea, bietan postposizio berdina izanik ere, funtzio sintaktiko desberdina badute. Adibidez, *-z* postposizioa duen sintagma bana dago ondorengo bi perpausetan: *Kontu handiz hitz egin genuen / Politikaz hitz egin genuen*. Lehenean ‘nola’ adierazten da; bigarrean hizketaldiaren gaia. Baina biak juntatu nahian hastean, adibide bitxia lortzen da, aditzarekiko harremana, eta funtzio sintaktikoa, desberdina baitute: *??Kontu handiz eta politikaz hitz egin genuen*. Aldiz, funtzio sintaktiko desberdina dutelako, perpaus berean azal daitezke *-z* postposizioa duten aurreko adibideko bi elementuak: *Politikaz kontu handiz hitz egin genuen*.

**28.2.1c** Azkenik, hizkuntzan tarteka aurkitzen dira kategoria eta funtzio sintaktiko desberdineko adibideak ere: *Ez dakit nork eta nondik atera duen kontu*



*hori; Josurekin eta trenez joango naiz oportetara; Gutako inork uste baino janari garestia goa eta jatetxerik dotoreenetan jaten du Peruk.* Baina horrela koetan badirudi juntaduran ohikoena den moldetik urrundu egiten garela, eta enfasia emateko helburuarekin erabiltzen direla. Eta erabiltzeko baldintzak ere bereziak direla: fokalizatutako elementuak dira, intonazio berezia dute, sarritan lehenengo juntagaiaren ondoren etena egiten da ('eta gainera' adierazi nahi izango balitz bezala).

### 28.2.2. Auziaren konplexutasuna

**28.2.2a** Aipatu izan da, egiturako berdintasunaz gain, semantikoki ere homogeneousutasuna azaldu behar dutela juntagaiak, eta horren ondorioz gertatuko litzaiguke *Josune irakaslea eta atsegina da* bezalako bat bitxia: *irakaslea* juntagaiak sailkatu egiten du, *atsegina* juntagaiak berriz nolakotasun bat adierazten du, eta ondorioz, bi elementuak semantikoki izaera desberdinekoak izanik, ez genituzke juntadura egitura berean bilduko. Edo, bildu ahal izateko, eten handia egingo genuke, eta berriro 'eta gainera' bezalako elementu bat ulertzeko joera izango genuke, bi predikazio baleude bezala: 'Miren irakaslea da, (eta gainera) atsegina da'. Autore gehienek diote, ordea, izaera semantikoaren aldetiko desberdintasun horrek egitura sintaktikoan ere baduela isla, eta aurreko bi juntagaiak ez genituzkeela maila berekoak izango. Auzia berez konplexua da, eta gai honen inguruan egin diren proposamenetan ez dugu hemen sakonduko. Baina berdin gertatuko litzateke, adibidez, zenbait izenlagunekin: Bigarren Mundu Gerraz ari garelarik, *nazien eta judutarren hilketak* bezalakoak ezin izango genituzke juntatu, batzuk hiltzailatzat eta besteak hildakotzat hartuta.

Eta antzeko zerbait gertatzen da, kategoriaren aldetik parekoak izan arren, nozio desberdinak adierazten dituzten aditz sintagmako elementuak ditugunean ere: *Askotan eta presa handiz deitzen du Jonek; Askotan eta ezustean azaltzen da Jon; Sarri eta ezkutuka ikusten dut Ane epaitegiaren inguruan.* Hauetan ere badirudi juntaduraren ohiko moldetik urrundu egiten garela, bi juntagaien arteko etena handixeagoa dela, eta lehen esan bezala, bi perpaus edo bi aditz sintagma elkartzen direla, bi predikazio daudela. Eta berriro, en-

fasia, fokalizazioa... ditugula tarteko. Ohart gaitzen, bestalde, esanahiaren aldetik ez direla juntadura gabekoen pareko. Ez da berdina *Askotan eta presa handiz deitzen du Jonek*, juntadurarekin, edo *Askotan presa handiz deitzen du Jonek*, juntadurarik gabe. Bigarrenean, gerta daiteke Jonek hain sarri ez deitzea, baina deitzen duen gehienetan presa handiz deitzea. Lehen adibidean, ostera, garbi dago Jonek sarri deitzen duela; aditza bi aldiz ulertuko balitz bezala da: ‘askotan (deitzen du) eta presa handiz deitzen du’. Era honetako ar- tean, denbora eta lekua adierazten dituztenak juntatzen dira errazena.

**28.2.2b** Bestalde, hizkuntzan sintaktikoki edo semantikoki izaera desberdinekoak diren juntagaiak elkarturik azaltzen direnean, hiztunak juntadura egitura horri ‘zentzua emateko’ egoerak eta interpretazioak bilatzen ditu, juntagaiak gutxieneko harreman edo lotura bat behar baitute. Horrela gertatzen da, adibidez, izaera desberdineko perpausak juntatzen ditugunean. Bi perpaus juntatu ahal izateko, elkarrekin gutxieneko harremana edo ‘gai komuna’ behar izaten dute; eta lotura hori, sarritan, erreferentziakidetasunaren bidez, predikatuen izaeraren parekotasunarekin, aditzaren denborarekin, eta abar azaleratzen da. Horrela, *euria ari du* eta *Shakespeare ingelesa zen* perpausek ez dirudi zerikusirik dutenik, eta nekez azalduko dira juntaturik: bi perpaus juntatzen ditugunean, espero dugu badagoela egoera bat biak juntatzea esplikatzen duena, bien arteko lotura egingo duena. Gutxieneko lotura hori, ordea, ezin da gramatikaren barnean definitu. Begira, adibidez, ondorengo bi perpaus hauei: *Gaur Jon liburutegian ikasten ari da / Urtegia ez da egingo*. Hemen ere, aurrekoan bezala, elkarrekin loturarik ez duten perpausak ditugula esango genuke. Baina egoeraren batean posible izan daiteke biak juntatzea. Adibidez, pentsa dezagun Jon urtegiaren aurka zegoela, eta azken urteetan, ikasketak utzita, urtegiaren aurka- ko kanpainan aritu dela buru belarri; eta azkenean urtegiaren proiektua bertan behera uztea lortu dela, eta Jon aurreko bizimodura itzuli dela, aldi luze baten ondoren. Prozesu horren guztiaren amaieraren berri emateko esan daiteke *Gaur Jon liburutegian ikasten ari da eta urtegia ez da egingo*.

**28.2.2c** Azkenik, mota bereko elementuak juntatzeko aukerari dagokionez, morfologiak ere jartzen du bere baldintza: hitz beregainak izan behar dute juntagailuaren bidez elkartzen direnak; atzizkiak edo aurrizkiak ez dira junta-

tzen, oro har. Eta juntadura-egituren baldintza horrek desberdintasunak eragiten ditu euskara bezalako hizkuntza eransle postposiziodun baten eta inguruko erdaren artean. Haietan preposizioak izaten dira, eta hitz beregain modura azaltzen dira; orduan, batzuetan juntaturik ager daitezke: *con o sin tu permiso; vivía por y para él; avec ou sans permission; with or without permission*. Euskaraz, ordea, ez da horrelakorik: \**Josurentzat eta gatik bizi da; Josurentzat eta Josugatik bizi da*. Euskaraz ez dira atzizkiak juntatzen; hitz beregainak juntatzen dira. Eta hitz beregainen artean ere, ez da zilegi adizki laguntzaileak elkarrekin juntatzea: \**etorriko naiz eta zara; etorriko naiz eta etorriko zara*.

### 28.3. Juntadura eta menderakuntza

#### 28.3.1. Elkarketa mota desberdinak

**28.3.1a** Juntaduraren bidez perpausak ere elkartzen direla esan dugu; eta esan dugu horrelakoetan gramatika egituraren aldetik perpaus biak maila berean daudela, perpaus bata ez dagoela bestearen mende. Baina hizkuntzan gertatzen da, halaber, bi perpaus elkartzea, eta biak maila berean ez egotea: menderakuntzaren aurrean egongo ginateke, eta mendekotzat jotzen den perpausak beste edozein sintagmak perpaus nagusiaren barnean beteko lukeen zeregina beteko luke (ikus 29. kapitulua).

Gehienetan ez da arazo handirik izaten bi elkarketa-mota hauek desberdintzeko, baina badira zalantza eragin dezaketen kasu batzuk. Juntadura eta menderakuntza desberdintzen dituzten ezaugarriei begiratuz, ondorengoak aipatu beharko genituzke:

**28.3.1b** Morfologia. Perpaus juntatuetan juntagailuak agertuko zaizkigu, hitz beregainak (*eta, baina, edo...*); aldiz, menderakuntzan adizkiari itsatsitako atzizkiak (*-en, -ela* eta hauetatik eratorriak: *-enez, -enik, -enez gero, -elako(z) ...*) nahiz aurrizkiak (*ba-, bait-*); eta elkartzen diren bi perpausetako batean aditz jokatu gabea badugu, aditzoinaren, partizipioaren (*-tu (izan)a, -tuz, -turik, -tu ondoren...*) nahiz aditz izenaren (*-(t(z)ea, -(t(z)en, -(t(z)era, -(t(z)eko...*)

gainean eraikia, orduan ere menderakuntza izango da. Desberdintasun morfologiko honen arabera egin ohi da juntaduraren eta menderakuntzaren arteko bereizketa.

Nolanahi ere, batzuetan *eta* juntagailuak aditzari itsatsitako atzizkien jokaera duela pentsa liteke ondorengoak bezalako perpausetan: *Goazen dantzara, azkeneko eguna da-eta* (adizki jokatuarekin); *Goitik behera bustita iritsi zen* (adizki jokatu gabekoarekin). Morfologiari dagokionez, *eta* azaltzen zaigu; baina euskaraz *eta*-k juntaduratik menderakuntzarako pausoa eman berri delako seinale izango lirateke egitura horiek.

**28.3.1c** Adizki alokutiboak. Euskarazko tradizioan mendeko perpausetan ez da adizki alokutiborik erabili; juntatutako perpausetan bai, ordea. Mendeko perpaus bat alokutibo eran jartzen saiatzen bagara gramatikala ez den emaitza lortuko dugu. Hau da, *Miren berandu etorri dun* perpausa zuzena da; baina perpaus bera nagusiago den beste baten barnean txertaturik agertzen bada, orduan alokutiboa erabiltzerik ez dago: \**Miren berandu etorri dunala uste dinat / Miren berandu etorri dela uste dinat*. (Hala ere, esan behar da gaurko zenbait euskaldunen hizkeran lege honen indarra aski ahuldua aurkitzen dela, forma alokutiboak nonahi sartzen baitituzte). Perpaus juntatuetan, berriz, zilegi da alokutiboak erabiltzea: *Miren berandu etorri dun eta kontzerturik ez dinagu ikusi*<sup>1</sup>.

Baina aurreko irizpidearekin, desberdintasun morfologikoarenarekin, gertatu zaigun bezala, oraingoan ere *-eta* enklitikoaz osatutakoak kontuan izan behar dira: *Utz ezak lana, berandu duk-eta*. *-eta* enklitikoaz osatzen diren perpausetan alokutiboa zilegi da, nahiz eta eskubidea dugun, *-eta* horren enklitikotasunari esker, mendeko kausazko perpaustzat hartzeko.

**28.3.1d** Hitzen hurrenkera. Mendeko perpaussek perpaus nagusiaren barnean gainerako sintagmek edo osagaiek betetzen duten lekua eta zeregina betetzen dutela esan dugu gorago. Ondorioz, mendeko perpaussek gainerako osagaiek

---

<sup>1</sup> Alokutiboaren eta menderakuntzaren gaia sakontasun handiagoz agertzen dira 27. eta 29. kapituluetan.

perpauaren barnean duten mugikortasun bera erakutsiko dute: *Isilik egoteko agindu zion Mirenek Josuri atzo / Mirenek Josuri isilik egoteko agindu zion atzo / Atzo Mirenek Josuri isilik egoteko agindu zion...* Juntaduran, ordea, juntagailuaren bi aldeetara kokatzen dira juntatutako perpauak; egin daitezkeen hurrenkera-aldaketa bakarra —zilegi denean— juntagaien ordena aldatzea da, baina ordena aldaketa horrek esanahi aldaketa ekar dezake berarekin, menderakuntza bidezko perpau elkartuetan ez bezala; ikus, adibidez, ondorengo bien arteko aldea: *Berandu altxa naiz eta sukarra nuela ikusi dut / Sukarra nuela ikusi dut eta berandu altxatu naiz.*

Irizpide honetan ere, aurrekoetan bezala, aurki daitezke mugako adibideak. Adibidez, zenbait hizkeratan, lehenengo juntaia adizki laguntzailerik gabe azaltzen denean, ondorengo bezalako adibideak aurki ditzakegu: *Josu, iaz, lanetik baimena eskatu eta urtebetez Ameriketara joan zen.* Horrelako adibideez aurrerago hitz egingo dugu.

### 28.3.2. Irizpideak zehazteko zailtasuna

**28.3.2a** Esan dugu juntadurak elkartzen dituen elementuak maila berean kokatzen direla eta, aldiz, menderakuntzan elementu bat bestearen azpian egoten dela egitura sintaktikoan. Baina, zertan oinarrizten dira hizkuntzalariak hori esateko? Esan ohi da, juntaduraren bidez elkartutako elementu bi ditugunean, bietakoren bat albo batera uzteko aukera badugula; eta menderakuntza harremana dagoenean, ezinezkoa dela bide hori. Adibidez, *Ane mendira eta hondartzara joaten da oporretan* perpausa baldin badugu, *Ane mendira joaten da oporretan* adibidea onartzeko modukoa da, eta *Ane hondartzara joaten da oporretan* adibidea ere bai; juntadura egiturako elementu bat alboratu ere adibideak egokiak dira. Berdin perpau-juntaduran ere: *Gazteek musika entzuten dute eta adinekoak musean ibiltzen dira* adibidea dugularik, ez da eragozpenik bietako bat albo batera uzteko, eta *Gazteek musika entzuten dute*, edo *Adinekoak musean ibiltzen dira* esateko. Aldiz, perpau-menderakuntza dagoenean, bi perpauetako bat albo batera uzteak zuzenak ez diren emaitzak ekartzen ditu. *Haurrek txinera ikastea nahi izan dut beti* adibidea dugularik,

ezin dugu banatu, alde batetik, *haurrek txinera ikastea*, eta bestetik, *nahi izan dut beti*; zati bakoitza ezin da albo batera utzi; perpaus horiek ezin dira bere kasa azaldu. Berdin *Nongoa naizen galdetu dit poliziak* adibidearekin, edo mota honetako guztiekin.

Baina irizpide honekin ere sortzen dira tarteka deserosotasunak. Adibidez, juntaduraren eta alborakuntzaren eremuan adibide guztiak ez dira goikoak bezain argiak, eta, *Edo lana lortzen dugu, edo autoa saldu beharko dugu* bezalako bat dugularik, ezin dugu juntagaietako bakoitza lehen bezala albo batera utzi: *\*edo lana lortzen dugu*, bera bakarrik, okerra litzateke, eta berdin *\*edo autoa saldu beharko dugu*. Eta menderakuntzaren eremuan, aldiz, mendeko osagai horrek adizki nagusiarekin duen lotura semantikoak eta sintaktikoak eragin argia du elementuak albo batera uzteko aukeran. Menderagailuen bidez biltzen diren perpausen artean, inplikazio eta lotura semantiko askoz handiagoa dago, adibidez, *Josuk ez daki ingelesez hitz egiten* bezalako perpaus osagarri bat dugunean, batzuetan baldintzazkoaren —edo kontzesiozkoaren— eta dagokion perpaus nagusiaren artean izaten dena baino: *Etzi jai ematen badi-date, nahiz eta oraindik ezer ziurrik ez dagoen, lagunekin bazkarira joateko aukera izango duzu*; hori horrela izanik, mendeko perpausa albo batera uztean ez da bi kasuetan ondorio bera izaten gramatikaltasunaren aldetik; baina azpian dagoena adizki nagusiak —edo perpaus nagusiak— menderatuekiko —perpaus osagarria, baldintzazkoa, kontzesiozkoa— duen erlazio semantiko-sintaktikoa da.

**28.3.2b** Gramatikaren barnean perpausa hartu izan da azterketarako unitate-tzat: perpausa zer elementuk osatzen duten, eta elementu horien artean zer erlazio dauden argitzen saiatu dira gramatikariak. Ikuspegi horren barnean aztertu izan dira juntadura edo menderakuntza bezalako erlazioak edo egiturak. Baina azken urte hauetan fenomeno horiek berak diskurtsoaren ikuspegitik aztertzen dituzten lanak ere ugaritu dira.

Eguneroko jardunean, oinarrian, elkarrizketen bidez gauzatzen da hizkuntza. Hitzunen arteko elkarrizketa-txanden bidez eraikitzen da informazioa, eta diskurtsoa. Hizkuntzaren azterketara ikuspegi honetatik hurbildu diren ikertzaileek elkarrizketa-txanda horiek egoera eta faktore desberdinen arabera nola

gauzatzen diren aztertzen dute<sup>2</sup>. Ondorengo puntuetan jartzen da arreta: hiztunen parte-hartzeen artean zer erlazio semantiko eta pragmatiko dauden; diskurtsoak ahozkoan eta idatzian nola garatzen diren; haurren hizkera nola joaten den garatuz eta juntadura eta menderakuntza bezalako baliabideak noiz eta nola bereganatzen diren eta zertarako erabiltzen dituzten; eta abar. Elkarrizketa-txanda horien arteko erlazio pragmatiko eta semantikoei begiraturaz *parataxiaz* eta *hipotaxiaz* hitz egiten da<sup>3</sup>.

**28.3.2c** Hurbilketa honen arabera, perpaus elkartuen oinarrian eta sorreran elkarrizketa-txanda askeak leudeke, gerora txanda edo testu bakarrean —juntagailuak nahiz menderagailuak erabiliz— elkartu direnak. Idazkerak berak ere lagundu omen du prozesu horretan. Idatzizko testua edo diskurtsoa, hein batean, igorle bakarraren ‘elkarrizketa’ izango litzateke. Ahozko ohiko elkarrizketan bi hiztunen artean banatzen zen informazio-fluxua; baina igorle bakarrekin guztia batera eta zatitu gabe ematen da. Adibidez, gure gizartean erraz gerta daiteke norbaitek *bihar hondartzara joango gara* esatea, eta beste norbaitek *ea eguraldi ona duzuen* gaineratzea; bada, elkarrizketa-sekuentzia hau eza gutzen duten hiztunak egoerara aurrera daitezke, eta baldintzazko hipotaxia erabili: *Bihar eguraldi ona egiten badu, hondartzara joango gara*. Era berean, gerta daiteke norbaitek esatea *nire anaia Londresera joango da ikastera*, eta beste norbaitek jarraian gehitzea, *nirea, Erromara*; bi informazioak txanda bakarrean biltzeko emendiozko parataxia erabil dezakegu, eta *Nire anaia Londresera joango da ikastera, eta zurea, Erromara* esan. Oinarritzko erlazio semantiko-pragmatikoak elkarrizketa-txanden artekoak izango lirateke, eta ondoren, txanda edo testu bakarrean ematean, sintaktikoki juntadura edo menderakuntza erabiliz bateratuko genituzke.

Euskaraz oraindik lan gutxi ditugu ikuspegi honetatik abiatuta. Nolanahi ere, munduko hizkuntzei begiratuta, aipatu izan da hiztun ikasien jardunean, edo

<sup>2</sup> Gaiaren ikuspegi orokor baterako, ikus López García 1999.

<sup>3</sup> Gramatika lanetan ere erabili izan dira *parataxi* eta *hipotaxi* terminoak, askotan *juntadura* eta *menderakuntza* hitzen pareko balioarekin. Aipatzen ari garen hurbilketa honetan, parataxia eta hipotaxia oinarrian diskurtsoaren mailako kontzeptuak izango lirateke.

hizkera zainduan, edo idatzian, gehiago erabili izan dela menderakuntza, ikasi gabeko hiztunen artean, edo ahozkoan lagun arteko erregistroan baino. Kontuan izan behar da munduan hizkuntza gehienak oraindik ez direla idazten, eta idatzitari lotutako zenbait funtzio ez dituztela garatuta: horrelako hizkuntzetan menderakuntzak garapen txikiagoa izan ohi du. Berdin gertatzen da haurren hizkeran ere.

## 28.4. Emendiozko juntadura

### 28.4.1. Sarrera

**28.4.1a** Juntadura moten artean semantikoki neutroena edo oinarritzkoena da. Emendiozko juntaduraren bidez elementuak gehitu, berretu, emendatu edo batu egiten dira. Hori da juntagailu hauekin bideratzen den nozio semantikoa. Testuinguru desberdinetan ongi egokitzeak aukera gehiena ematen dituen ere bada. Gramatiketan horrelakoei *kopulatiboak* ere deitu izan zaie, eta izen hori ere ez da desegokia. Baina *kopulatibo* deitzeak lotze edo elkartze funtzioa ipintzen du agerian, eta hori berez juntagailu guztiek egiten dute; juntagailu guztiak dira berez kopulatibo. *Emendiozko* deituraren bidez, berriz, juntadura nolakoa den azpimarratzen du: emendatu edo batu egiten duela. Eta juntadura moten sailkapenaren berri emateko, izen hau erabiliko dugu.

**28.4.1b** *Eta* da zeregin honetarako erabili ohi dugun juntagailu nagusia. Forma hori da nagusia tradizioan, euskalki guztietan; euskara baturako ere *eta* hautatu zen. Iparraldean *eta* da forma bakarra XVIII. mendearen erdi aldera arte; orduan hasi ziren autore bakan batzuk *ta* erabiltzen, baina *eta* askoz ugariagoa da; *ta* bereziki aditz partizipioaren ondoren erabili izan da, juntatutako bi perpausen artean denborazko erlazioa adierazteko. Mendebaldean ere *eta* da nagusia, baina *ta* ere lehenengo testuetatik azaltzen da; baita, nahiz *eta* gutxiago, *da* forma ere, bereziki *-n* eta *-r* ondoren, baina baita *-l*, *-s*, *-z* ondoren ere; eta oro har, *ta* eta *da* forma laburtuak gehiago erabiltzen dira ahozko hizkeran idatzian baino (*estu ta larri iritsi zen; han da hemen bizi da*).



**28.4.1c** Emendiozko juntagailuen bidez perpausak elkartzen direnean, batzuetan, emendatze soilaz haratagoko adierak ere uler daitezke, ziurrenera testuinguruak eta munduaren ezagutzak bideratuta: *Haizeak atea itxi zuen eta zarata handia entzun zen; Triste bizi naiz eta, hilko banintz hobee; Horrelako bat berriro egin, eta lanetik botako zaitut; Ia laurogei urte ditu eta etenik gabe lanean*. Hauetan bi juntagaien artean denbora-aurrekotasuna, kausa, baldintza edo kontzesioa/aurkaritza dagoela uler daiteke. Horrela gertatzen da beste hizkuntza askotan ere: emendioa semantikoki nahiko neutroa da, eta emendiozko juntagailuen bidez bi perpaus elkartzean, gerta daiteke perpaus horiek adierazten dituzten gertaeren edo egoeren artean hiztunak era desberdinetako lotura semantikoak eraikitzea, ziurrenera errealitatean ere hala gertatzen delako. Baina gramatiketan ez dira era honetako irakurketak aztertzen.

**28.4.1d** Emendiozko juntaduraren bidez nahi adina juntagai elkar daitezke (*Jon eta Miren eta Ane...*), baina *eta*-k bi osagai baino gehiago lotzen ditue-nean, azken bien artean bakarrik ipintzeko —esateko nahiz idazteko— joera dugu (*Jon, Miren eta Ane...*), juntagailuaren errepikapenak astundu egiten baitu esaldia. Nolanahi ere, tradizioan aurkitzen dira juntagailua errepikaturik duten adibideak (*Aitaren eta Semearen eta Izpiritu Sainduaren izenean*); batzuetan, juntagai bakoitzari enfasia emateko erabiltzen da: *Jon eta Miren eta Pello, hirurak dira errudunak; Horrelako gogoeta sainduetan eta betiereko oinazeetan eta erran ditugun lanetan bizi eta saildutu zen anitz urtez* (Joanategi). Perpausak lotzen direnean sarriago aurkituko ditugu *eta* juntagailuaren errepikapenak, bereziki herri hizkera kutsuko testuetan: *Igo zen eta sartu zen eta ikusi zuenean heldu zion eta harriaz jo zuen buruan*. Baina tradizio idatzikoetan ere bai: *Esperantza baitut zeruko lorian [...] kredit handiarekin zaudela, eta hortik helduko zatzaizkidala [...], eta arranoak airean doanean bere umetara bezala zuk ere enegana begia edukiko duzula. Eta gero nik ere [...] zure zorte ona erdietsiko dudala, eta orduan guztiez eskerrak errendatuko derauzkitzudala* (Axular). Badirudi, ahozkoa hurbiltzen garenean, gertakari-segida bat eman nahi denean, tartean *eta* juntagailua jartzeak mezuari lotura ematen laguntzen duela. Edo, orokorrean, perpaus batean esaten denaren ondorioz ekintza desberdinak datozenean, eta ekintza bakoitza perpaus luze samar baten bidez adierazi behar denean, sarriago azaltzen zaigula juntagailua errepikaturik.

**28.4.1e** *Eta* juntagailuak maila bereko juntagaiak lotzen ditu, baina esan beharrik ez da, ez direla beti *eta* guztiak maila berekoak perpaus batean: *Liburuetan eta egunkari eta aldizkarietan agertzen da*. Adibideko bigarren *eta*-k ‘egunkari-adizkariak’ elkarrekin juntatzen ditu *eta* sintagma hori da lehen *eta*-ren bidez ‘liburuekin’ juntatzen dena. Perpau-sekin ere izaten dira horrelakoak: *Lehenago batean, esate baterako, harrika egin zidan komentura etorritako mutil koxkor batek, eta ni haserretu eta halaxe mintzatu nintzaion* (Atxaga).

## 28.4.2. Zer elementu junta daitezke?

**28.4.2a** *Eta*-ren bidez perpausak junta daitezke, *eta* oro har, ez dago eragozpenik mota bereko perpausak juntatzeko. Adibidez, adierazpen perpausak (*goiz jaiki da eta lanean ari da; ez du ekarri eta isuna ordaindu beharko du*); galde perpausak (*ikusi al duzu eta eman al diozu?*); aginte perpausak (*zoaz etxera eta sar zaitetz etxean*); harridurazko perpausak (*ze jatorrak diren eta zenbat dakiten!*).

Aldiz, mota desberdineko perpausak juntatu nahi direnean, egoera desberdinak aurkitzen ditugu. Batzuetan ez dago mota desberdineko perpausak juntatzerik: galde perpausa *eta* aginte perpausa (*\*non bizi da? Eta esaiok etortzeko!*); galde perpausa *eta* adierazpen perpausa (*\*hori al da? Eta esango diot*)... Baina beste batzuetan mota desberdinekoak juntatzeko aukera bada. Adibidez, aginte perpausa *eta* adierazpen perpausa juntaturik ager daitezke (*zaude hemen eta ekarriko dizut; ekarriko dizut eta egon zaitetz lasai*); horrelakoetan, zenbaitetan baldintzazko adiera eraikitzen da (*egin hori, eta ikusiko duzu!*), *eta* orduan, juntagaien ordena ezin da libreki aldatu (*\*ikusiko duzu eta egin hori!*). Edo, adierazpen perpausa *eta* harridurazkoa ere elkar daitezke (*loreak ekarri zituen, eta ze politik!*); baina horrelakoetan eten nabarmenagoa egiten da, *eta* badirudi *eta* diskurtso markatzaille modura erabiltzen dela gehiago: mota bateko perpausa emanda, ondoren datarrenak ere aurrekoarekin baduela nolabaiteko harremana adierazi nahiz bezala.

*Eta* azkenik, zenbaitetan hitzunen artean iritzi desberdinak azaltzen dira zuzentasunaz. Adibidez, adierazpen perpausa *eta* galde perpausa —hurrenkera

honetan— direnean: *Berandu etorri da eta ez diozu ezer esan behar? / Ez duzu inoiz ikusi eta ezagutzen duzula?* Nolanahi ere, horrelakoetan gehienetan eten bat dugu, eta horrek gure *eta* hori diskurtso markatzailetzat hartzera eramango gintuzke. Horixe dugu, hain zuzen, ondorengo adibide honetan ere: *Etorri da, eta noiz joango da?*

**28.4.2b** Emendiozko juntaduraren bidez postposizio sintagmak ere junta daitezke. Baita postposizio sintagmak baino txikiagoko elementuak ere: izenak (*Ane eta Miren etorriko dira*), adjektiboak (*euskal itzulpen zahar eta berriak*), izena+adjektiboa multzoa (*irakasle alfer eta ikasle saiatuekin*), izenlaguna+izena multzoa (*herrietako ordezkari eta hirietako alkate guztiak bildu ziren*) eta abar.

Nolanahi ere, batzuetan zalantzak sor daitezke juntagaiak zein diren, edo juntaduraren hedadura zein den. Har dezagun ondorengo adibidea: *Unibertsitateko kargudun eta langile berriek bihar bildu beharko dute*. Berez izen sintagmak ez du mugarik ematen interpretazioaren aldetik: kargudunak unibertsitatekoak izateaz gainera berriak izan daitezke, edo ez, eta langileak, berriz, berriak izateaz gainera, unibertsitatekoak izan daitezke, edo ez. Irakurketa guztiak zilegi dira gramatikaren ikuspuntutik. Horiek horrela, lehenengo etortzen den irakurketa da, bai kargudunak eta bai langileak, biak direla unibertsitatekoak eta berriak.

Alderantziz, demagun adierazi nahi den egoeran unibertsitateko kargudunak (berriak nola zaharrak), eta langile berriak (ez baitezpada unibertsitatekoak, baina testuinguruan emana den erakunde edo toki batekoak) aipatzen direla. Aurreko informazio inpliziturik gabe, goragoko adibidearen irakurketa hori, zilegi izan arren, zail gertatuko da, eta hortaz delako juntabidea ez da egokia izango. Horrelakoetan, argiago da kasu marka bi juntagaietan agerraraztea: *Unibertsitateko kargudunak eta langile berriek bihar bildu beharko dute*; nahiz kasu honetan ere anbiguotasuna ez den kendua (bigarren juntagaian izenlaguna ‘uler’ baitaiteke).

Hemen esandakoek berdin balio dute beste egoera batzuetan ere. Adibidez, izen ardatz bakar bati dagozkion bi adjektibo direnean, adjektiboen zuzeneko juntabidea hobetsiko da kontrako arrazoirik ez bada testuinguruan: *euskaltzale*

*zintzo eta leialari* (nahiz beste bidea ere gramatikaren aldetik zilegi den, eta beharbada testuinguru batzuetan —indarra emateko, adibidez— guztiz baliagarri: *euskaltzale zintzoari eta leialari*). Gauza bera gertatzen da izenlagunekin: *fakultateko eta hiriko kargudunen aldeko hitzak* (beste bidea, gramatikaren aldetik huts gabekoa izanagatik, korapilatsuagoa da: *fakultateko kargudunen eta hirikoen aldeko hitzak*).

**28.4.2c** Beraz, postposizio sintagmak junta daitezke, eta postposizio sintagmen barneko elementuak ere bai. Baina, aukera guztiak zilegi ote dira? Adibidez, molde bat da postposizio sintagma osoak juntatzea (*Lagunez, adiskideez eta lankideez mintzatu ziren*), eta bestea izenak juntatzea (*Lagun, adiskide eta lankideez mintzatu ziren*), horrela ardatz anitzeko sintagma osatuz. Postposizio sintagmak juntatzea beti da zilegi (*Bi euskaldunen eta indio baten istorioa da; Pantxikari eta Mireni eman dizkiet liburuak; Adiskideez eta lankideez mintzatu ziren ...*), eta hori da tradizioan gehiena azaltzen den aukera. Nahitaezkoa da, gainera, bi egoeratan: 1) pertsona izenordainak direnean sintagmaren ardatz (*\*Ni eta zuri eman digute; Niri eta zuri eman digute*), nahiz eta bigarren juntagaian konparazioa dakarten *bezalako, antzeko...* azaltzen denean, izenordain soilak ere junta daitezkeen (*Ni eta ni bezalako askoren iritziz; Ni eta antzeko askoren ahotan...* Mitxelena); 2) ezkerreko juntagaia erakusle baten mugatzen duenean (*\*Gizon hau eta emazteki hark egin dute; Gizon honek eta emazteki hark egin dute*). Bi egoera horietaz landa, ez dago debekurik; eta molde bat edo bestea erabiltzeko joera euskalkien araberakoa da, eta beharbada idazleen araberakoa ere bai: ekialdean postposizio sintagmak juntatzen direla dirudi gehienetan, eta mendebaldean, berriz, ardatz anitzeko izen sintagmen bidea ere, bestearen ondoan, kasik parean, erabiltzen dela, zenbait baldintza betetzen direlarik bederen.

**28.4.2d** Ardatz anitzeko juntagaiak izateko aukerari dagokionez, garbi ikusten da postposizioaren nolakotasunak, zer postposizio erabiltzen den, ez duela debekurik (*Ane eta Peruk egin dute / Ane eta Peruri eman diet / Ane eta Peruren liburuak...*). Aldiz, numeroak eta egiturari dagozkion beste aldagai batzuek badute zerikusia. Horrela, tradizioan garbi ikusten da ardatz anitzeko izen sintagmak pluraleko markekin aurkitzen direla bereziki, eta numeroa sin-

gularra denean, joera nabaria dela postposizio sintagmak juntatzearen alde: *Igande eta festa egunetan, jaun erreterak bere jendea bil dezala, mezarat eta predikurat bezala, bezperetarat ere* (J. P. Arbelbide); *Lehen errierta eta elkar ezin ikusi eta gorrotoa besterik ez zen etxe eta baserrietan bakezko eta kontezko, estimaziozko eta amorezko biziera sartu zen* (G. Arrue). Aurreko adibide hauetan, autore berak pluralean postposizioa bigarren juntagaiaren amaieran bakarrik jartzen du, eta singularrean, bi juntagaiak postposizioarekin azaltzen dira. Azkeneko juntagaia eta ondorengo determinatzailea pluralekoak direnean, ohikoena juntagai guztiak pluralekoak balira bezala ulertzea da; hala ere, Lafittek bere gramatikan ongi seinatu zuenez, ez da nahitaezkoa, eta bestelako adibideak ere aurki daitezke tradizioan: *Jainkoak eginak dira eguzki, ilargi eta izarrak* (Lafitte); *Etxejabeak, [...] gure Patxiko eta lagunei bazkaria ematen die* (Agirre). Nabarmendu behar da, bestalde, ezkerrean bi izenei dagokien izenlaguna azaltzeak postposizio bakarreko juntaketa errazten duela: *Gure bezero eta laguntzaileei oparitu diegu*; eta baita bi izenen eskuinean biei dagokien adjektiboa izateak ere: *Neska ta mutil arduratsuenak hautatu zituen*.

Gutxiago azaltzen dira ardatz anitzeko izen sintagmak singularrean: badirudi postposizio sintagma osoak juntatu behar direla (*Gizonari eta haurrari eman diet*); Euskaltzaindiak \**Gizon eta haurrari eman diet* bezalako adibideak txarizat ematen ditu (ikus 111. araua: “Izen sintagmen arteko juntadura dela eta”). Nolanahi ere, bigarren molde honetako juntabidea ere aurki daiteke tradizioan. Egiturari dagozkion kontuek, edo juntatzen diren izenen nolakotasunak badute hor zerikusia: badira horrelako egiturak errazten dituzten baldintza batzuk. Adibidez, ezkerrean bi juntagaiei dagokien izenlaguna dugunean, edo eskuinean adjektiboa dugunean, egitura hauek errazago azaltzen dira. Bestalde, esanahiz oso hurbil diren izen abstraktuak juntatzen dira maizenik horrelako juntaduretan: *Zein kaltegarria den euren alferkeri ta nagitasuna* (Mogel); *Nagusiaren samurgo eta haserrea* (Lafitte); [...] *Gordeaz geure buruak honen haserre eta burdina odoltsutik* (Mogel). Holako adibideetan nozio abstraktuak adierazten dituzte izen ardatz juntatuek (haien gauzatzeko izen konkretua erabiltzen bada ere: *burdina*, adibidez). Are gehiago, juntatu izenetan bata bestearen adierazle dela ere esan daiteke.

Beste zenbaitetan, sinonimoak ez diren izen konkretuak izanagatik, juntatu diren ardatzak elkarketa moduko bikoteak dira, edo hitz biko esakuntzak: *Zeru eta lurrean zure oldea egin bedi* (Agirre); *Hari eta orratzaz lotu eta josi-rik* (Mogel); [...] *gaztelania eta frantsesez baino* (Mitxelena); *Udaberri eta udan, izan ohi dira onenak* (Labaien).

Juntagaiak izen bereziak direnean ere, bestelako izenekin baino errazago aurki daiteke ardatz anitzeko izen sintagmen juntaketa: *Josu eta Mirenek ez dute horrelakorik onartuko*. Baina jakina, postposizio sintagma juntatuen adibi-deak ere beti dira zilegi: *Josuk eta Mirenek ez dute horrelakorik onartuko*. Batzuetan, gerta daiteke autore berak esaldi berean molde biak erabiltzea: *Giputz aditza erabili dute, esate baterako, Arestik eta Villasantek maiz, Mirande eta Peillenek sarritan* (Mitxelena).

Bada, azkenik, aipatu beharreko beste joera nagusi bat. Zerrendatze bat egiten denean, ondarrean *eta X guztiak*, edo *eta X asko*, edo horrelako esapide bat emanez, maizenik ardatz izenak juntatzen dira: *Honela ongi datorkio ehizari azeriaren izena, oilagor, eper, erbi, oilo, eta gauza askoren ehizan ibili ohi delako* (Mogel); *Gure nekiakaz [...] datoz baba, irar, indirar, garagar, olo, eta jangai guztiak* (Mogel).

Baina, hasieran esan bezala, horrelako kasuetatik kanpo, singularrean aukera guztiz nagusia postposizio sintagmen juntadura da. Gramatiketan aipatu izan da jokabide honen oinarrian determinatzaileen eta izenen izaera semantiko-gramatikala egon daitekeela. Artikuluak eta erakusleak erreferentzia zehatza ezartzeko gaitasuna izango lukete; izenei, ordea, propietate bat ezartzea legokieke. Horrela, *katua* esaten dugunean, bere interpretazioa, nolabait esateko, ‘katua izateko propietatea duen banakoa edo erreferentea’ izango genuke. Juntatzen diren izenen propietateek erreferente bakarra izendatzeko aukera ematen dutenean, errazago erabiliko ditugu singularrean ardatz anitzeko juntadurak: *Alabaren egonezin eta haserre begi bistakoa zen* diogunean, egoera bakar batez ari gaitezke, erreferente bakarrak; *egonezin* eta *haserre* izenen propietateek horretarako aukera ematen baitute. Aldiz, izenen propietateek bi erreferente desberdin izatea behartzen dutenean, askoz nekezago aurkituko

ditugu horrelako egiturak (\**Ordenagailu eta autoa erosi ditut*), determinatzailea singularrekoa baita.

**28.4.2e** Orain arte aipatu ditugun bi juntabideetan, sintagma amaierako mugatzailea+postposizioa multzoak osorik errepikatzen ziren, edo batere ez. Eta hala behar du ia beti, oro har ez baitaitezke bi elementuok (mugatzailea eta postposizio marka) bereiz juntaduran. Hortaz, euskaraz ezkerreko juntagaia ez da izaten kasurik gabeko izen sintagma mugatua: \**Nagusia eta langileei mintzatu zitzaien*; \**Itsasoa eta mendietan ibili naiz*; \**Nagusia eta langileaz mintzatu dira*; \**Planetak eta izarrei begira egon da*. Beraz, bai pluraleko kasuetan, bai singularrekoetan, lehen juntagaiak mugatzaile+postposizio multzo osoarekin agertu behar du (*lagunekin eta senideekin*), edo batere gabe (*lagun eta senideekin*).

**28.4.2f** Postposizio sintagmen kasuan ere aukera desberdinak ditugu. Ohi-koena, zalantzarik gabe, bi juntagaietan postposizioa osorik azaltzea da. Baina genitiboaren gainean eraikitakoetan (norentzat, norengan, norengana...), postposizioa genitiboaren mailan moztu daiteke, eta inoiz horrelako adibideak ere aurkitzen dira: *Piarresen eta Maddalenengatik*; *Auzoaren eta alkatearengana joan nintzen*; *Auzapezaren eta zinegotzientzat*; *Arrazoirik onenak aurkitzen ditu batzuen eta besteentzako* (Mitxelena). Postposizioak sintagma absolutua onartzen badu osagai moduan, joko berak egin daitezke noski: *Zu eta ni baitan*; *Agintariak eta menekoak baitan*; *Maddi eta Piarresgana*; *Aita eta Jainkoagatik*; [...] *biziak, ta hilak gatik Jangoikoari otoitz egitea* (Añibarro).

Gai honekin ari garela, iruzkin berezia merezi du *-en artean* postposizioak. Azken urteetan asko hedatzen ari zaizkigu lehenengo juntagaian mugatzailea bakarrik daramaten adibideak. Horrelakoetan, lehen juntagaian determinatzaile mugatua daramatenak —pluralean nahiz singularrean—, ez dira onargarriak euskara baturako (\**Gurasoak eta ikastolen arteko bilerak*; \**Irakaslea eta ikaslearen arteko harremana*).

Ikus Euskaltzaindiaren 111. araua: “Izen sintagmen arteko juntadura dela eta”, Donibane Lohizunen, 2000ko uztailearen 21ean onartua.

### 28.4.3. Aditzarekiko komunztadura

**28.4.3a** Juntadura egituretan aditzarekiko komunztadura nola gertatzen den ere kontuan izan beharreko puntua da. Numero komunztadurari dagokionez, emendioa batuketatzat edo gehiketatzat hartzen denez, *eta* juntagailuak *nor*, *nori* edo *nork* sintagmak juntatzen dituenean, ohikoena aditzak plural komunztadura hartzea izaten da, erreferentzia pluralekoa baita: *Liburu bat eta aldizkari bat erosi nituen*; *Josunek eta Mirenek deitu didate*; *Zerbitzariari eta nagusiarri barkamena eskatu zien*. Bestalde, numero komunztaduraz gain pertsona komunztadura ere badago aditzean. Alde honetatik, juntagaietako bat lehen pertsonakoa bada, singularra nahiz plurala, sintagma osoa lehen pertsona pluralekoa izango da, eta ondorioz, baita aditzarekiko komunztadura ere: *Zu eta ni joan gara*; *Ni eta Pello etorri gara*; lehenengo pertsonak ‘agintzen’ du. Bigarren eta hirugarren pertsona badaude, berriz, bigarren pertsona pluralekoa izango da komunztadura: *Hi eta Pello etorri zarete*.

**28.4.3b** Numero komunztadurari dagokionez, esan dugu emendiozko juntadurak aditzari plural komunztadura eragiten diola orokorrean. Baina badira singularreko komunztadura eragiten duten zenbait kasu. Juntagaien abstraktutasunak eta erreferentzia zehatza eskaintzeko aukera handiagoak edo txikiagoak badu horretan eragina. Adibidez, perpausak juntatzen ditugunean<sup>4</sup>: *Esan digu beranduegi dela eta ez digula aterik irekiko*; *Ez da zilegi gizon bati erru guztia egozte eta hura gizartetik baztertzea*. Horrelakoak, seguru asko, perpaus izatean abstraktutzat hartzen direlako ez dira komunztaduraren aldetik pluraltzat hartzen. Nolanahi ere, batzuetan, aditz izenak erabiltzean, zenbait predikaturekin pluraleko komunztadura daramaten adibideak ager daitezke: *Gezurra esatea eta egia osoa ez esatea ez dira hain desberdinak*; horrelakoetan ekintza desberdintzat hartzen dira, eta pluraleko komunztadura azaltzen da.

---

<sup>4</sup> Ohart gaitezen perpausak juntatzen ditugunean *baina* aurkaritzako juntagailu "faltsua" ere erabiltzen dugula zenbaitetan, besterik gabe *eta* adierazi nahi duela: *Patxi etxean gelditu da baina Miren zinemara joan da*. Hor ez dago ezinbestean inolako aurkaritzarik (§ 28.6.2).



Singularreko komunztadura izaten da, era berean, kideko sintagma juntatzen direnean. Sarritan juntatutako sintagmek ez dute batuketarik, gehiketarik adierazten, sinonimoak direlako edo oso antzeko esanahia dutelako: *Bere pena eta nahigabeak inoiz konortea galtzen baitzion* (G. Arrue); *Hemen erabili den arreta eta zehaztasuna* (Mitxelena). *Pena* eta *nahigabea* gauza bera izan daitezke; *arreta* eta *zehaztasuna* aipatzen dira, biek hurbileko adiera dute, eta bien artean jokabide bat adierazten dute; hauetan ez dago egiazko emendiorik, eta erreferente bakarra dutela pentsa daiteke.

**28.4.3c** Beste batzuetan sintagma abstraktuak juntatzen dira, eta orduan ere ez da nahitaz pluraleko komunztadura gertatzen: *Askoz geroago sortu zen gogoa eta atsegina, poliki poliki, irakurri ahala* (Mitxelena). Horrelako kasuetan, sintagma abstraktuekin, bi bideak zilegi direla esan daiteke: *Hori egiteko kemena eta adorea behar da/dira*; *Hotzak eta goseak hilko gaitu/gaituzte*. Antzeko zerbait gerta daiteke halako masa zenbakaitz baten aurrean gaudenean ere: singularrekoa izaten da askotan komunztadura: *Bere urre eta zilarra desiratzen zuten guztiak*; *Ardoa eta sagardoa edan zuen*. Baina pluraleko adibideak ere aurkituko ditugu: *Urrea eta zilarra ganbaran gordetzen zituen*; *Ardoa eta sagardoa gustuko zituen*.

Beraz, singularreko edo pluraleko komunztaduraren puntu honetan, sintagmen abstraktutasunak, horrek dakarren zenbakaiztasunak, eta erreferente zehatza izateak edo ez izateak dute zerikusia. Esan liteke, bi mutur bezala ditugula, biak oso argiak. Alde batetik, erreferente zehatza duten sintagmak juntatzen badira, juntadura-egitura plurala izango da aditzarentzat. Horrelakoak dira pertsona izenordainak edo orokorrean izen bizidunak, edo *liburu* eta *aldizkari* bezalako izenak: garbi zehaztutako izateak izendatzen dira, erreferentziadun izenak, eta juntatzean pluraleko erreferentzia eskaintzen diote aditzari komunztadurarako. Beste muturrean berriz, abstraktuak direlako, edo zenbakarri ez direlako, garbi zehaztutako edo bereizitako objektuak izendatzen ez dituzten sintagma, erreferentzia garbirik ez dutenak (*arreta* eta *zehaztasuna*); orduan biek zeharka egoera bera izenda dezakete, eta juntaduratik ateratzen zaigun sintagma ez da plurala izango, singularra baizik. Bi mutur hauen artean halako eremu bat izango genuke, eta hor hiztunaren esku geldituko litzateke, hein handi batean, sintagma singularizat edo pluralizat hartzea.

Horrez gain, badirudi hitz ordenak ere baduela garrantzia. Enumerazioetan, eta bereziki aditza aurrean delarik, komuntadura singularrean egin daiteke, juntagai guztiak singularrekoak direnean: *Zuek badaukazue etxetxo bat, soineko bat, ohe bat, sua eta zopa beroa* (G. Arrue). Jakina, adibide bera pluralean ere ager zitekeen. Baina aditza aurretik joateak, hurrenkera horrek, errazago egiten du pluraleko komuntadurarik eza; intonazioaren aldetik ere, horrelakoetan eten bat egiten dela dirudi.

#### **28.4.4. Juntaduraren irakurketak**

**28.4.4a** Emendiozko juntaduraren barnean irakurketa edo interpretazio desberdinak izan daitezke. Ohikoena banakako irakurketa da: erreferentzia desberdina duten izenak edo izen sintagmak juntatzen direnean, ohikoena da perpau-sean adierazten dena juntagaietako bakoitzari egozte, juntagailuaren bidez bien arteko berreketa adieraziz: *Josu eta Pello ez dira afarira etorri; Aitak ordenagailua eta telefonoa erosi ditu*. Hauetan bi juntagaietako bakoitzari era askean dagokio predikatuan esaten dena: *Josu ez da afarira etorri, eta Pello ez da afarira etorri; ordenagailua eta telefonoa, bi gauza desberdin erosi ditu aitak*. Irakurketa mota honen enfasia eman nahi denean, aukeretako bat da juntagai bakoitzaren aurretik *bai* edo *ez* jartzea (*bai... eta bai...; ez... eta ez...*): *Ez Josu eta ez Pello ez dira afarira etorri; Bai Josu eta bai Pello afarira etorri dira*. Emendiozko esamoldeez edo banakaritzaz mintzatzean sakonduko da gehiago gai honetan.

**28.4.4b** Baina beste predikatu batzuek talde irakurketa eskatzen dute: *Iker eta Mirenek bikote polita egiten dute; Ane eta Koro lagunak dira; Iñaki eta Joseba mendi-gailurrean elkartuko dira*. Hemen ezin da ulertu *Ikerrek bikote polita egiten du* eta *Mirenek bikote polita egiten du*. Horrelako irakurketak bideratzen dituztenen artean egon daitezke aditzak (*elkartu, banandu, batu...*), adjektiboak (*desberdin, antzerako, gertuko...*), izenak (*arerio, lankide, senitarteko...*) nahiz postposizioak (*-en artean*).

**28.4.4c** Juntaduraren beste interpretazio posible bat banakaritza ordenatuarena da, *hurrenez hurren* esapideak bideratzen duenaren modukoa: *Eiderrek,*

*Elenak eta Liernik biologia, ingeniari-tza eta kimika ikasi dute, (hurrenez hurren).* Bi juntadura egitura aurkezten zaizkigu, eta egitura bakoitzeko juntagaiak ordenaren arabera lotuta daude: Eiderrek biologia ikasi du, Elenak ingeniari-tza eta Liernik kimika.

**28.4.4d** Irakurketa hauei dagokienez, ohar-t gaitzen juntadura egiturek —bereziki emendiozkoek, baina gainerakoek ere bai— anbiguotasunerako bidea ematen dutela. Ondorengo per-pausean, adibidez: *Josuk eta Anek atea eta mahaia konpondu dituzte.* Uler daiteke, gutxienez, bien artean gauza biak konpondu dituztela, edo Josuk atea konpondu duela eta Anek mahaia, edo Josuk bere etxean biak eta Anek berean biak. Munduaren eta egoeraren ezagutzak lagunduko digu une bakoitzerako interpretazio egokiena hautatzen.

**28.4.4e** Bestalde, kuantifikazio unibertsalari laguntzeko edo irakurketa hori bideratzeko erabili ohi dira zenbait hitz-bikote berezi: *Biziak eta hilak epaitzera etorriko da; Handi eta txiki, (guztiak) isil-isilik geratu ziren; Gizon eta emakume, (denak) joan ziren berrikuntza hura ikustera; Zahar eta gazte harriturik zeuden.* Bi egitura mota desberdin ditugu berez hemen, baina bietan ere hitz-bikote jakinen bidez kuantifikazio unibertsalaren irakurketa bideratzen da. Lehenengo adibidean bi juntagaiak pluraleko artikuluekin azaltzen zaizkigu; bigarren-ean eta hirugarren-ean izen soilak juntatzen zaizkigu, eta etenarekin bereizita dauden *guztiei* eta *denak* elementuei begira daude. Egin-dako hitz-bikote gutxi batzuk bakarrik agertu ohi dira horrelako egituretan; hitz-bikote horiek, askotan, elkarrekin lotura semantikoa izanik ‘aurkakoak’ bezala dira, eta kuantifikazio unibertsala bideratzen dute.

### 28.4.5. Osagai ezabaketa

**28.4.5a** Juntaduraren bidez postposizio sintagmak edo per-pausak elkartzen direnean, bi juntagaietan berdinak diren elementuak gertatzen zaizkigu sarri-tan: *Donostiako ikasleak eta Bilboko ikasleak bildu dira; Zuk arraina eskatu duzu eta nik haragia eskatu dut.* Horrelakoetan, bi juntagaietan errepikatzen diren hitzak isilean uzteko aukera bada: *Bilboko eta Donostiako ikasleak* (edo

*Bilboko ikasleak eta Donostiakoak) bildu dira; Zuk arraina eskatu duzu, eta nik haragia.*

**28.4.5b** Juntagaiak postposizio sintagmak edo sintagmen barneko osagaiak direnean, errepikatzen den osagaia zein den, aukera bat edo beste izango dugu elementuak isilean uzteko. Honela, izenlagunaz eta izenaz osatutako bi postposizio sintagma juntatzean izenlagunak errepikatzen badira, eskuinekoa bakarrik ezaba daiteke (*Donostiako langileei eta ikasleei*), berez anbiguoak diren egiturak sortuz: *Donostiako* izenlaguna *langileei* bakarrik dagokiola uler daiteke, edo *langileei* eta *ikasleei* dagokiela. Izenlaguna bi juntagaiei dagokielako zalantzarik gabe markatzeko modua izenak juntatzea da, jakina (*Donostiako langile eta ikasleei*). Errepikatzen den osagaia izena denean ere bi aukera ditugu: postposizio sintagmak juntatu izena eskuinekoan ezabatuz (*Donostiako ikasleak eta Bilbokoak*) edo izenlagunak zuzenean juntatu (*Donostiako eta Bilboko ikasleak*). Halakoetan, ez dirudi idazleen artean juntadura modu baten edo bestearen aldeko joera berezirik dagoenik.

Izenaz eta adjektiboaz osatutako sintagmetan, berriz, izenak errepikatzen badira, adjektiboak juntatzeko joera da markatu gabea: *Bulego argi eta lasaiak nahi dituzte guztiek*; postposizio sintagmak juntatzean, hanpadura berezia sortzen da: *Bulego argiak eta lasaiak nahi dituzte guztiek*. Interpretazioei dagokienez, singularrean eta pluralean gauzak ez dira berdin gertatzen. Singularrean, adjektiboak juntatzen direnean (*etxe zahar eta ederra*), etxe bakarraz ari gara; sintagmak juntatzean (*etxe zaharra eta ederra*), ordea, bi interpretazioak dira zilegi: etxe bakarraz ari gaitezke, edo bi etxe desberdinez, bat zaharra eta bestea ederra. Pluraleko juntadura dagoenean, adjektiboan juntadura izan (*bulego argi eta lasaiak*) edo sintagmen juntadura izan (*bulego argiak eta lasaiak*), bi interpretazioak dira zilegi —bi bulego-multzo, edo bulego-multzo bakarra—, baina ohikoena multzo bakarraz ari garela ulertzea da; bi multzoen interpretazioa, batez ere izenondoek kontrako ezaugarriak, bateraezinak, adierazten dituztenean egingo dugu. Horrela, *Sagar heldu eta gozoak dira egokienak* bezalako adibide batean, bi izenondo juntatuz deskribatzen den multzo batez ariko ginazke normalean; *Sagar gozo eta mikatzak nahastu behar dira* esaten denean, berriz, bi multzoz; baina bi multzoen in-

terpretazioa azaldu nahi dugunean, normalena sintagmak juntatzea da (*sagar gozoak eta mikatzak*).

**28.4.5c** Aurreko adibideetan, gehienetan, juntaduretako errepikapenak saihesteko isilean gelditu den elementua izena zen. Baina aukera hori —izenaren elipsia— ez da juntadurarena soilik: hizkuntzaren baliabide orokor bat da. Hitz egiten nahiz idazten dugunean, askotan utzi ohi ditugu isilpean, errepikatu gabe, aldez aurretik, solasaren harian aipatu ditugun osagaiak. Adibidez: *Donostiako ikasleak oso onak direla esan didazu. Zer diozu Bilbokoez?* Hor, isilpean, *ikasle* ardatz izena gelditu da. Horren pareko kasua da juntadura egituretan azaltzen zitzaiguna ere: *Donostiako ikasleak eta Bilbokoak bildu dira*. Gramatikaren ikuspuntutik mota bereko fenomenoak dira, eta juntaduraren ingurune sintaktikoan oso sarri gertatzen da.

**28.4.5d** Orain artean postposizio sintagmetan errepikatzen diren elementuak isilean uzteaz jardun dugu. Baina batzuetan, aurkako kasua gertatzen da: juntagailuaren bi aldeetan elementuak errepikaturik azaltzen dira. Indarra emateko, enfasia emateko helburuarekin egiten dira horrelakoak: *Gure herriaren geroa eta gure herriaren/haren iragana ez daitezke elkarren aurka eman; Josuren bizitza-ibilbidea eta Mirenen bizitza-ibilbidea ezin dira konparatu*.

**28.4.5e** Juntagaiak perpausak direnean ere gerta daitezke errepikapenak, eta postposizio sintagmetan bezala, hemen ere badira alferrikako karga hori saihesteko aukerak. Aukeretako bat aditz osoa —eta/edo beste zenbait osagai— isilean uztea da: *Zuk afarietan ura edaten duzu, eta nik ardoa*; bigarren perpausean *afarietan* eta *edaten dut* ez zaizkigu azaltzen, baina hala ere hiztunak ulertzen ditu. *Hustuketa egiturak* deitu izan zaie horrelakoei gramatike-tan, eta beren ezaugarriak aztertuko ditugu. Bigarren aukera, adizki laguntzailea isilean uztea da: *Etxera joango naiz eta afari ederra prestatuko*. Bigarren perpausean *dut* adizki laguntzailea ez da agertzen. Bateko eta besteko, adibideak hartzen duen itxuraren arabera, era desberdinetako egituren aurrean egon gaitezke, eta ez dago beti argi zer mailatako osagaiak juntatzen diren.

**28.4.5f** Hustuketa egituretan eskuineko juntagaian errepikatu behar liratekeen osagaiak ez dira agerian azaltzen. Inguruko hizkuntzetan ere aztertu dira

horrelako egiturak. Eredu modura, *Ni trenez joaten naiz lanera, eta zu autoz bezalakoak jarri ohi dira*. Eskuineko juntagaian *joaten zara* aditza eta *lanera* postposizio sintagma falta ditugu. Bi perpaus juntatzen dira, eta bigarren juntagaia kontrastez hanpatuak diren osagaietara murrizten da. Gehienetan aditza izaten da isilean uzten dena, edo uzten denetako bat, ezkerreko perpausoko bera delako. Baina aditza ‘bera’ izate hori zertan datzan gehiago zehaztu behar da. Oro har, esan daiteke aditzoin bera behar dugula, eta aspektuak ere gutxienez bera izan behar duela. Pertsona eta numero komunztadura, ostera, desberdina izan daiteke: aurreko adibidean, ezkerreko perpausuan aditza *joaten naiz* da, eta eskuinekoan *joaten zara* izan beharko luke. Ondorengoetan ere, nahitaez, eskuineko perpausoko aditz bera eman behar da ezabatutzat, perpausa ulertuko bada: *Gizonak makila hartu zuen, eta haurrak harria; Zuk Parisera joatea hauta dezakezu eta guk hemen gelditzea*; pertsona aldatzen da, baina eskuineko aditzaren aldi-aspektuak berak dira. Aspektua mantenduz aldia aldatzen saiatzen bagara, berriro ere adibide zuzenak lortzen ditugu: *Nik gaur erosi dut, eta zuk atzo; Zuk atzo hitz egin zenuen, eta nik gaur*; adizki laguntzailearen aldia aldatuko genuke, baina aspektu burutua mantenduko litzateke. Jakina, bigarrean, ‘... nik gaur hitz egin dut’ ulertu behar da, eta ez ‘... nik gaur hitz egingo dut’; azken hau adierazi nahi bada, aditza bere osoan eman behar da eskuineko perpausuan ere.

Baina hustuketa egiturak benetan ulertzeko lehen aipatu dugun nozio batera jo behar dugu: bigarren perpausuan agertzen diren elementuak ‘kontrastez hanpatuak’ daudelako ideiarra; eta beren egitura pragmatikora. Alderdi horretatik, hustuketa egituretan bi mintzagai azaltzen zaizkigu kontrastean, eta kontrastatzen diren bi mintzagai horientzat paralelotasun handiko iruzkinak azaltzen zaizkigu: bigarren perpausoko galdegaiak lehenengo perpausoko galdegaiarekin kontrastea egiten du, eta bi perpausetan berdinak diren elementuak isilean geratzen dira. Askotan, esan bezala, eskuineko perpausuan subjektua eta predikatuko elementu bat (aditza ez dena) aurkitzen ditugu. Baina aukerak ez dira hor amaitzen. Euskarak aditza galdegai modura markatzeko aukera baduenaz, ondorengo bezalako adibideak ager daitezke: *Gure taldeak gehienetan galdu egiten du, eta zuenak irabazi*; kasu honetan, aditza, edo aditzaren zati bat, agerian dugu eskuineko perpausuan, ezkerreko galdegaiarekin kontrastea eginez.

Era berean, mintzagai hanpatua subjektua ez den beste elementuren bat baldin bada, elementu horrek egin beharko du kontrastea eskuineko perpausean, eta subjekturik ez zaigu azalduko: *Niri erloju berri bat oparitu dit amak, eta Josuri jertse eder bat*. Beraz, hustuketa egituretara mintzagai-galdegaien hanpatze eta kontrastetik (eta gainerakoak isilean uztetik) hurbildu behar dugu: askotan gertatuko da kontrastean jartzen direnak subjektua eta aditza ez den elementuren bat izango direla, aditz osoa —eta agian beste osagaien batzuk— isilean utziz; baina hori ez da nahitaezkoa, ez aukera bakarra.

Ildo horretan, nabarmendu beharreko beste puntu bat ezezko perpausetako hustuketarena da. Gramatikarien artean batzuetan esan izan da ezezko perpausetan hustuketa debekatuta dagoela, eta frogatzeko honako hau bezalakoak eman dira: *\*Amak ez ditu mendiko botak erosi, eta arrebak erlojua*. Baina perpaus honen ez-gramatikaltasuna ez dator berez ezezkoetan hustuketa egiten saiatzetik, kontrastea oker egitetik baizik: adibide honetan, ezkerreko perpausetan galdegaia ezeztapena bera da, eta ez du eskuineko perpausetan kontrastea egiteko ageriko elementurik; eskuineko perpausetan baiezkitasuna nabarmenduko bagenu *bai* adberbioa ezarriz (... *eta arrebak erlojua bai*), adibidea onargarria izango litzateke. Egoera izan daiteke, adibidez, norbaiti mendiko botak eta erlojua oparitu nahi zaizkiola, denboraz justu dabiltzala, amak opari bata eta arrebak bestea erosi behar zituztela, baina arrebak bakarrik lortu duela bere helburua, eta perpaus horren bidez amaierako egoeraren berri eman nahi dela: *Amak ez ditu mendiko botak erosi, baina arrebak erlojua bai*. Ildo berean, ezezko perpausa izan arren, ondorengoan hustuketa egin daiteke: *Pellori arraina ez zaio gustatzen, eta Josebari haragia*. Kasu honetan ezkerreko perpausetan galdegaia *arraina* da, eta bigarrenetan *haragia*; orduan, baldintza pragmatikoak betetzen dira, eta ezezko perpausetan ere egin daiteke hustuketa. Jakina, mintzagai-galdegai izate horrek egitura sintaktikoan ere ohiko isla izango luke.

**28.4.5g** Hustuketa egiturekin itxuraren aldetik badute antzekotasuna honako hauek bezalako adibideek: *Jaun erretorak elizan, eta bere lagun adiskide zaharrek hilobiaren aitzinean egin diozkate adioak* (Hiriart-Urruti); *Batak bere arreba eta besteak bere ama negarrez ikusi ditu* (Agirre). Hemen, itxuraz,

ezkerreko juntagaian falta da aditza. Batzuek hauei ‘atzeranzko hustuketa’ deitu izan diete, eta aurrekoen moldekoei ‘aurreranzko hustuketa’, biak pareko fenomenotzat hartuz. Baina segituan ohartzen gara, bai komunztadurari dagokionez, bai intonazioari dagokionez, desberdintasunak badirela bi moldeen artean. Komunztadurari dagokionez, ezkerreko aditza falta denean, eskuineko perpauseko aditzak egitura osoa hartu ohi du kontuan (*Jon Iruñera eta Miren Donostiara joan dira asteburu honetan*), aurreranzko hustuketan ez bezala: *joan dira* aditza bi ‘perpausei’ edo bi juntagaiei dagokie, ez bigarrenari soilik. Intonazio etena ere desberdina da: kontrajartzen den egitura paraleloaren ondoren egiten da etena hemen (*Jon Iruñera eta Miren Donostiara / joan dira asteburu honetan*), eta benetako hustuketa egituretan juntagailuarekin bat egiten du etenak (*Jon Iruñera joan da asteburu honetan / eta Miren Donostiara*). Horiek horrela izanik, ezkerreko juntagaian aditzik ez duten adibide hauetan, badirudi perpaus juntadura (eta elipsia) ez, baizik eta hanpatuak diren osagai batzuen arteko egitura banakaria daukagula. Euskaraz galderetan ere zenbaitetan kausitzen ditugu antzeko hanpadurak: *Nork zer edanen du?* Eta horren erantzuna, izan daiteke, *Josebak sagardoa eta Mirenek ardoa*. Azterketa horri jarraikiz, menturaz egitura hauetan nolabaiteko aposizioan dauden sintagmak ditugu, egitura banakari batean emanak: (*Guk zerbait*), *zuk ardoa eta nik ura, edaten dugu*. Horrela, intonazioaren eta komunztaduraren datuekin ondo etorriko litzateke. Edo baita honakoa bezalako adibideekin ere: *Jon Iruñera eta Miren Donostiara joango dira beren ikasketak amaitzera*; aditz komunztaduraz gain, *beren* plurala hobeki azalduko litzateke. Ildo bereko beste adibide bat: *Josuk botak eta Mirenek zapatilak denda berean erosi zituzten*. Eta baita, argiago ulertuko litzateke paralelotasunaren aldetik duten baldintza es-tua: \**Jon pozik Iruñera eta Miren Donostiara joan dira*; \**Jon Iruñera eta Miren pozik Donostiara joan dira*. Benetako hustuketan eskakizun hori ez da hain zorrotza: *Jon Iruñera joan da, eta Miren poz-pozik Donostiara*.

Egitura banakarian ematen diren aposizio erako sintagmak izango genituzke, bada, aurreko egiturak. Hustuketa egiturak baino askoz urriagoak dira, eta ziurrenera idatzian baino errazago azaltzen dira ahozkoan, intonazioaren laguntza baliatuz. Nolanahi ere, aditzarekiko komunztaduran buruhausteak sortzen dituzte. Subjektuen kasuan, badirudi komunztadurarako bi perpauseta-



koak emendatzen direla, eta pluralekoa izaten dela: *Nik Azpeitian eta Mirenek Bergaran hitz egingo dugu*. Objektu zuzenarekin, badirudi singularreko komunztadura ohikoa dela: *Nik autoa eta zuek bizikleta eramango dugu*. Zehar-objektuarekin ere bai, nahiz eta hemen zalantza batzuk sortzen diren: *Niri dantza eta Peruri aerobic-a gustatzen zaigu*. Komunztaduragai diren sintagmen nolakotasun sintaktiko-semantikoak ere badu zer esana: pertsona ize-nordainek errazago eragiten dute bi juntagaiak kontuan hartzen dituen pluraleko komunztadura.

**28.4.5h** Beste kasu batzuetan, juntatutako perpausetan adizki laguntzailea bakarrik izaten da elipsiz desagerrarazia, ez aditz osoa. Pentsa dezagun ondorengo adibidea dugula: *Manexek liburuei begiratu zien eta azkenean bizpahiru aldizkari erosi zituen*. Gerta daiteke adizki laguntzailearen elipsia eskuineko perpausean gertatzea: *Manexek liburuei begiratu zien eta azkenean bizpahiru aldizkari erosi*; edo ezkerreko perpausean gertatzea: *Manexek liburuei begiratu eta azkenean bizpahiru aldizkari erosi zituen*. Lehenengoaren moldekoak euskararen eremu osoan azaltzen zaizkigu, eta bigarrenekoak mendebaldeko testuetan.

Juntadura egituretan adizki laguntzailea isilean utzi ahal izateko bete beharreko baldintzei dagokienez, nahitaezkoa da aditzaren aldia eta aspektu marka berdinak izatea juntatutako perpausetan. Bestalde, ohikoena bi perpausok subjektu bera izatea da, eta aditzaren iragankortasunari dagokionez ere bat etortzea; baina berez adizki laguntzaileetako bat trantsitiboa eta bestea intrantsitiboa izateak ez du eragozpenik sortzen: *Uxuek lana amaitu zuen eta zinemara abiatu*; *Pilota ikusi eta hamarretarako ohera joan naiz*. Alde horretatik, hutsuketa egiturek askoz paralelotasun handiagoa eskatzen zuten. Gerta daiteke, orobat, bi perpausok subjektu desberdina izatea: *Manexek liburuei begiratu zien eta Maddik bizpahiru aldizkari erosi*.

Lehenengo moldekoetan, adizki laguntzailea eskuineko perpausean desagerrarazten dutenetan, aditzaren aspektu markari dagokionez badira desberdintasunak: ekialdeko testuetan aspektu marka errepikatu egiten da bi perpausetan: *Aro eder horrek pizten zien bihotza eta zalutzen mihia* (J. P. Arbelbide). Mendebaldekoetan gerta daiteke aspektu marka errepikatzea: *Euskaldun*

*herriak [...] kanpotik eratorritakotik hartuko du, eta molde berri horiek euskal folklore bilakatuko* (Mitxelena). Edo partizipio burutuaren forma azaltzea: *Jaungoikoaren gauzetarako nagia, eta atzeratua izan denak, hartuko du bizitza berri bat, ta palagatu Jainkoaren justizia* (Mogel).

Bigarrenaren moldekoak —ezkerreko laguntzailerik gabeak—, esan bezala, mendebaldeko testuetan agertzen dira bereziki, eta orduan ia beti ezkerreko adizki nagusia(k) partizipio burutuaren forman agertzen d(ir)a: *Ardi guztiak jetzi eta zelaira eraman, esne ontziak lepoan hartu eta han izaten naiz laster, zazpietarako bai* (Agirre).

Adizki nagusiak zuzenean juntatzen direnean, berriro azaleratuko zaizkigu ekialdearen eta mendebaldearen arteko desberdintasunak. Ekialdean aspektu marka errepikatuz: *Ez da harritzeko, jaun hura eta bertze zenbait gazterik zahartzen eta hiltzen badira* (Hiriart-Urruti). Mendebaldean lehenengo aditza partizipio burutuaren forman emanez: *Horrelako maitasunak irabazi eta beratuko ez duen gizonik ez da* (Agirre).

Nolanahi ere, perpaus juntaduretako laguntzailearen elipsiari dagokionez bi molde ditugularik, badirudi batzuetan bien erabilera eta ezaugarriak ez direla guztiz parekoak. Adibidez, ezkerreko laguntzailea isilean utzi eta aspektu marka burutua delarik, mendebaldeko tradizioan, bada elipsirako aukera aditz izenkiaz eraturiko perpaus jokatugabeetan: *Larunbatetan jaisten naiz Zabaletara, [...] barruko jantzi garbiak ipini eta tabakorri pixka bat hartzera* (Agirre); *Egun eder argiek, [...], indar handi dute gogamen nahigabetsuak kendu eta hankarik astunenak astintzeko* (Agirre). Eskuineko mendeko perpausetan *hartzera* eta *astintzeko* ditugu, baina ezkerrekoetan partizipio burutuak, *ipini* eta *kendu*. Baina perpaus jokatugabeetako atzizki desagerketa ezkerrean baizik ez daiteke gerta: *Esan zidan goiz jaiki, eta berehala lanera joateko; \*Esan zidan goiz jaikitzeko, eta berehala lanera joan*. Erabide hau ez duten hizkeretan aditzei beren aspektu marka uzten zaie, bai jokatueta, bai jokatugabeetan. Eta oro har, egitura luzee-tan, irakurlearentzat argiago gertatzen da aspektu marka errepikatzen denean.

Bestalde, badirudi juntadurak elkartzen dituen ekintzen irakurketa guztiz simetrikoa lortu nahi denean, ezkerreko perpausko laguntzailearen elipsiarekin

zailtasun handiagoak direla eskuinekoarekin baino. Har dezagun honako adibide hau: *Mikelek Erroman ikasi du eta Pellok Parisen lan egin du sei urtez*. Pentsa dezagun Mikel eta Pello ditugula hizketagai, eta azpimarratu nahi dugula biek ere badutela lotura atzerriarekin, baina haiek egiten dituzten ekin-tzek ez dutela loturarik, guztiz askeak direla. Orduan, errazago izango zaigu eskuineko perpauseko laguntzailearen elipsia (*Mikelek Erroman ikasi du eta Pellok Parisen lan egin sei urtez*), ezkerreko perpausekoarena baino (??*Mikelek Erroman ikasi eta Pellok Parisen lan egin du sei urtez*).

Bada nabarmentzeko azken puntu bat ere. Ezkerreko adizki laguntzailearen elipsia dagoenean, posible da eskuineko perpauseko elementuei buruz bakarrik galderak egitea: *Nor esan duzu [Mikel menditik etorri] eta [\_\_ zuei deika hasi zela]? Alegia, nor galdetzailea izan daiteke ‘zuei deika hasi zen’ perpausaren subjektuari buruzkoa —horregatik jarri dugu perpaus horretan subjektuaren lekuan ‘\_\_’ hutsunea—. Baina ez da gramatikala ezkerreko perpauseko elementuei buruz galdetzea: \**Nor esan duzu [\_\_ menditik etorri] eta [Mikel zuei deika hasi zela]? Honek esan nahiko luke, ezkerreko juntagaiko adizki laguntzailearen elipsia duten adibide hauetan, bi perpausak ez direla guztiz parekoak. Izan ere, juntadura egituren ezaugarri orokorra da (Ross 1967; Williams 1994), galderak egiten hasitakoan, bi juntagaietako funtzio bereko elementuei buruzko galderak izan behar direla: *Nor esan duzu [\_\_ menditik etorri zela] eta [\_\_ zuei deika hasi zela]?; eta subjektu bakarrari buruzko galdera egiten saiatzean, adibide okerra lortzen dela: \**Nor esan duzu [Mikel menditik etorri zela] eta [\_\_ zuei deika hasi zela]?****

Ezaugarri hauek ikusita, nahitaezkoa da *-ta/-da* menderagailu den egituren aipamena egitea. Jakina da *eta* juntagailua, aditz partizipioari itsatsita, *-ta/-da* menderagailu bihurtu dela honako hauek bezalako adibideetan: *Hori esanda, aretorik irten zen; Nagusiak aginduta etorri zen gure dendara*. Semantikoki menderagailu nahiko neutroa da —emendiozko juntagailua bera bezala— eta denbora, modua, baldintza... adierazteko erabiltzen da. Bilakaera horren adierazgarri izango lirateke ezkerreko laguntzailearen elipsia duten adibideek erakusten dituzten ezaugarriak, eta batzuetan ez da erraza gertatzen juntadureta-ko adizki laguntzailearen elipsia non amaitzen den eta menderakuntza non

hasten den zedarritzea. Esan dugu era honetako egituretan irakurketa simetrikoa lortzea zaila gertatzen dela: askotan denbora, kausa edo baldintza adierazten dute. Intonazioaren aldetik eten nabariagoa egiten da, eta batzuetan ondoren galde perpausa (*halakoa utzi eta, non dukegu berzia?*, Etxepare), harridura perpausa (*horrelakoak ikusi eta, beharko harritu!*) edo aginte perpausa (*lanak bukatu eta gogora zaitetz irten aurretik argia itzaltzeaz*) izaten dute. Horrelakoetan zailago gertatzen da isilean utzi den adizki laguntzailea zehazki zein den jakitea. Bestalde, menderakuntzarako Hegoaldean *-ta/-da* enklitiko bihurtu badira, Iparraldeko tradizioan ere aurkitzen dira partizipioaren ondoren *eta* duten adibideak, antzeko erabileran, askotan denbora adierarekin: *Ezen Mazedoniara etorri eta, ez du ukan gure haragiak pausurik batere* (Leizarraga); *Xilintxa hau jo eta, hunarat ekarraraziko ditiat oro berehala* (Barbier); *Oldartze hek egin eta, lehen zegoen eskura bihurtzen da* (Axular). Inoiz aditzoinaren ondotik ere azaltzen da: *Kruzifika ikhus eta orhit adi orduian nola...* (Etxepare).

#### **28.4.6. *Eta* juntagailuaren tokia**

**28.4.6a** Juntagailuak juntagaien artean kokaturik egoten dira. Gramatikariek aztertu izan ohi dute hizkuntza bakoitzean juntagailua zeri loturik doan estuki, lehenengo juntagaiari (bere ondoren ezarriz), edo bigarren juntagaiari (aurretik jarritz). Euskarari dagokionez, gainerako juntagailuekin gertatzen den bezala, *eta*-ren tokia bigarren juntagaiaren aurrekoa da<sup>5</sup>. Zenbaitetan, ordea, juntagai bakarraren ondoren ageri zaigu. Adibidez, bigarren juntagaia zehaztu nahi ez denean: —*Nor ikusi duzu kalean?* — *Amona eta...* Zalantza dugunean nola jarraitu: *Errozu eta ... ez girela eta ... nehundik jiten ahal!* (Lafitte), edo harridura adierazteko: *Nola hazi zaren! Aita adinakoa egin zara eta!*<sup>6</sup>.

---

<sup>5</sup> Gaiaz ikuspegi orokorragoa azaltzen da § 28.7 atalean (“Juntagailuak eta Buruparametroa”).

<sup>6</sup> Juntagailu gehiagorekin ere gertatzen dira antzekoak: bigarren juntagaia azaltzen ez denean, balio eta adierazkortasun desberdineko moldeak eta esapideak osatzen dira.

*Eta* juntagailua lehen perpaus juntagaiari atxikia denean, aldiz, kausa adierazten du askotan: *Bista nekatua omen du, egun osoa paper artean ematen du eta*. Beste batzuetan, berriz, denborazko balioa hartzen du, edo kontzesiozkoa, edo baldintzazkoa... Hona adibideak, hurrenez hurren: *Kruzifika ikhus eta / orhit adi orduian* (Etxepare); *Zuek, beraz, gaiztoak izan-eta, balin badakizue gauza onen ematen haurrei...!* (Duvoisin); *Halakoa utzi eta / non dukegu bertzia* (Etxepare).

Laguntzailerik gabeko aditzari atxikia ere aurki daiteke, kausa, baldintza eta abar adieraziz: *Bere tripako minen berri norbaiti eman nahi eta, Baionako izeba bati igorri zion gutun bat, zer gertatzen zen erraiteko* (X. Arbelbide); *Txirritak jakin ez eta, nire anaiak kopiatu zizkion bertsoak* (A. Zavala); *Hi bezala, sudurretik norbaitek ni ere ereman behar eta, nahiago diat apezek eta gizon zuhurrek eraman nazaten...* (Barbier).

**28.4.6b** *Eta* juntagailuaren tokia dela eta, bada argitu beharreko beste auzi bat ere: *ere* diskurtso markatzailearekin batera erabiltzean sortzen diren molde desberdinei dagokiena —*baita ere, eta...ere bai*, esaterako—. Hona adibide batzuk: *Ateratzen dira Andres eta Malen, eta baita ere haien atzetik Joxe-Mari eta Anttoni* (B. Mokoroa); *Horrelaxekoa duzue kopenhagetarrek, eta Kurlo-wicz'ek, eta baita ere, hizkuntza tipologiari buruz, Jakobson'ek, maiz ahotan hartu duten delako isomorfismoa* (Mitxelena); *Ez da asmo eta burubide txarra: baina ezta erreza ere* (Erkiaga); *Badu euskarak hitz sorbide ugari, baina baita ere huts nabarmen bat bederen aldameneko hizkuntzen ondoan* (Mitxelena). Molde eta adibide horietan guztietan juntagailua dagoen neurrian, honek bere lekua, juntatzen duen osagaiaren burukoa, gorde beharko luke. Hala ere, adibideak ikusirik badirudi *eta*-k bere benetako balioa galdu duela; bestela ezin uler liteke emendiozko juntagailua bi bider errepikatzea —*eta baita ere*—; are gutxiago aurkaritzako juntagailuarekin batera agertzea —*baina baita ere*—. Horrelako egituretan emendiozko juntagailua *bai*-ren indartzaile soil bihurtu dela esan genezake. Hala balitz, *bai ere* esateko modu indartuxeagoa baino ez litzateke *baita ere*. Horixe bera gertatzen da azken batean *edolegota* juntagailu hautakarietan, *baizik/baizik eta* aurkaritzakoetan, *zeren / zerren eta* kausazko lokailuan eta abar.

**28.4.6c** Hala ere, ohart gaitzen *baita* beti aurreko juntagailuaren ondo-ondoan doala (edo buruan, juntagailurik agertzen ez denean); inoiz ez lokailuek ohi duten bezala, perpaus barruan, mintzagai den osagai baten ondoren, edo perpausaren amaieran. Beraz, azken urte hauetan ugalduz joan zaizkigun hauek ezin dira ontzat eman: \**Ikastoletan banatuko dira baitare*; \**Etorriko da baita ere Manu*; \**Ene arrebak baita ere emango dio*; \**Badut nik baita ere horrelako erlojua*; \**Esan diot baita ere joango naizela*; \**Antzerkia ere baita hasi da*; \**Ez gaitu gu ezta ere ezagutzen*; \**Pilotari onak dira*; *txirrindulari trebeak baita*.

#### 28.4.7. Emendiozko esamoldeak

**28.4.7a** Esan bezala, emendioa adierazten duen juntagailua *eta* da. Baina bada beste zenbait diskurtso markatzaile edo elementu emendioari oso lotuak direnak, eta horien aipamena egingo da atal honetan. *Eta* juntagailuari sarriena gehitzen zaion diskurtso markatzailea *ere* da. *Ere* diskurtso markatzaileak ezkerreko osagaiaren erreferentzia zabaltzen du, eta gehienetan mintzagaiei eransten zaie: *Miren Donostiakoa da eta Pello ere gipuzkoarra da*. Askotan aditza edo predikatua berdinak izaten dira juntatzen diren bi perpausetan. Orduan aditza isilean geratzen da, eta bigarren perpausaren baiezotasuna edo ezezotasuna jasotzen duten *bai* edo *ez* elementuak azaltzen zaizkigu, juntagailuarekin eta *ere* diskurtso markatzailearekin konbinazio desberdinak eginez: *Eta... ere bai* (*Miren gipuzkoarra, eta Pello ere bai*); *Eta ... ere ez* (*Miren ez da gipuzkoarra, eta Joxe ere ez*); *Eta bai ... ere* (*Ane oporretara joan da, eta bai Aitor ere*); *Eta ez... ere* (*Ane ez da oporretara joan, eta ez Aitor ere*).

Beste batzuetan *bai* eta *ez* elementuak aurrera eramaten dira: *Bai eta... ere* (*Ane oporretara joan da, bai eta Aitor ere*); *Ez eta... ere* (*Ane ez da oporretara joan, ez eta Aitor ere*). Itxura batean aurrekoen oso parekoak dirudite, baina badituzte desberdintasun batzuk: 1) bi juntagaien arteko etena handiagoa da, eta lehen perpausaren akabuan doinu beherapena egiten dugu; 2) *eta* juntagailua azaltzen zaigu, baina *bai* eta *ez* hitzei atxiki zaie, elkarrekin urtzeraino,

*baita* eta *ezta* formak sortuz. Horiek horrela, ziurrenera juntaduraren esparrutik kanpora izango genituzke, alborakuntza bidez elkartuak. Kontuan izan behar da, gainera, *eta* juntagailuaren ondoren ere azal daitezkeela forma hauek: *Ane oportetara joan da, eta baita Aitor ere; Ane ez da oportetara joan, eta ezta Aitor ere*. Orduan bai, juntaduraren barnean egongo ginateke, eta egitura erredundanteak izango genituzke. Hauek guztiak diskurtso markatzaileen atalean aztertu dira xehetasun handiagoz.

**28.4.7b** Emendiozko esamoldeak (*ez ezik / ez ezen / ez eze / ez bakarrik...*). Baina emendioa adierazten duten edo indartzen duten hizkuntza baliabideen multzoa ez da *ere*, *bai* eta *ez* elementuen konbinazioetara mugatzen: beste esamolde batzuek ere adierazten dute emendioa. Horrelakoak dira, adibidez, lehenengo juntagaian *ez ezik / ez ezen / ez eze* duten egiturak: *Opari mordoa jaso du, gurasoengandik ez ezik, baita izeba-osabengandik ere*, edo lehenengo egituran *ez bakarrik* dutenak: *Ez bakarrik ogia, ura ere behar zuen bidaiariak*. Emendiozko esamolde deitzen ditugu: *emendiozko*, gehikuntza edo berrekuntza adierazten dutelako; eta, bestetik, *esamolde*, berez beregain diren elementu bat baino gehiagoko esapideak direlako. Kontuan izan behar dugu sarri askotan juntagailurik gabe erabiltzen direla: *Gurasoengandik ez ezik, izeba-osabengandik ere opari mordoa jaso du*; horrelakoetan alborakuntza dago berez; eta emendioaren nozioa esamolde hauek bideratzen dute.

Bestalde, aipatu behar da esamolde hauek ez direla emendiozko ohiko diskurtso markatzaileen guztiz parekoak: emendiozko diskurtso markatzaileek perpausak bakarrik lotzen dituzte, eta hauek, aldiz, mintzagaiak lotzen dituzte. Era horretan, neurri batean *ere* diskurtso markatzailearen antzeko direla esan daiteke: hau edozein mailatako osagaiaren eskuinean ezar baitaiteke, mintzagai diren ber, osagai horren erreferentzia mundua zabalduz; haiek, esamoldeek, edozein mailatako perpaus-osagaiak korrelazioan jartzen dituzte.

Esan dugun bezala, emendiozko esamoldeek bi atal izaten dituzte, eta aukera asko agertzen dira, hizkeraren eta idazleen arabera. Hona nagusiak:

Lehenengo osagaia	Bigarren osagaia
Ez ezik	Ere
Ez ezen	Baita ... ere
Ez eze	Ere bai Ø
Ez bakarrik...	Ere
Ez ... bakarrik	Baita ... ere
... bakarrik ez	Ere bai Baizik eta Ezpada

**28.4.7c** Lehenengo osagaien ez ezik / ez ezen / ez eze duten egituretan ez dira perpaus jokatu beregainak elkartzen, baizik bestela ere mintzagai izan daitezkeen perpaus-osagaiak. Esan beharrik ez dago, mintzagaiok mota berekoak izan behar dutela: *Liburu hau ez ezik, beste hori ere baduzu; Euskadin ez ezen, European ere ibili naiz; Ameriketara joan zela ez ezik, handik itzuli dela ere jakin dugu; Irakurri ez ezik, idatzi ere bai*. Baina ez dute nahitaez kategoria edo postposizio bera izan beharrik: *Zuk egin duzun bezala ez ezik, bestela ere egin daiteke; Etxean ez ezen, etxetik kanpo ere zintzo ibili behar da*.

Egitura hauen balioari dagokionez, esan dugu emendioa, gehikuntza dagoela: emendio hori, bigarren zatiko mintzagaiaren ondoan kokatutako *ere* diskurtso markatzaileaz baliatuz, batik bat, egiten da, horrek erreferentzia munda zabalduz, aurreko mintzagaiarekiko baieztapena bigarrenera hedatzen baita. Baina emendioaz gain, esanahiaren aldetiko beste ñabardura bat erantsen diete perpausei lehen zatiko mintzagaiaren ondoren kokatzen diren *ez ezik* eta honen parekoek: lehenengo perpausean baieztatua berrestea, ontzat ematea. Nolabait esateko, *Peru ez ezik Ane ere etorri da* diogunean, adierazten dugu ziurra dela Peru etorri dela, horretaz zalantzarik ez izateko, eta are gehiago, Ane ere etorri dela.



Lehenengo atalerako aukera desberdinak ditugu:

- ez ezik: erabiliena da, eta bi idazkera izan ditu: bereizia —*ez ezik*— eta lotua —*ezezik*—; idazkera bereizia izan da erabiliena, eta *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* ere berezita ematen du. Gipuzkeraz idatzi dutenek, batik bat, erabili izan dute *ez ezik* (*ezezik*): *Han bilduko dira gizonak ez ezik aingeru onak eta gaiztoak ere* (Agirre Asteasukoa); *Pilotara ez ezik beste apustu mota askotara ere zaleak dira txit gipuzkoarrak* (Iztueta).
- ez ezen: aurrekoan bezala, bi idazkera izan ditu: bereizia —*ez ezen*— eta lotua —*ezezen*—, baina bigarrenak erabilera oso urria izan du idazleen artean. Gipuzkerazko testuetan ageri da gehienbat: *Barrukoak ez ezen, kanpoak ere ikaratu ziren* (Lardizabal); *Badakite, zeruetakoari ez ezen, lurreko erresumari ere bortxa egiten zaiola* (Mitxelena).
- ez eze: aurreko beste biek bezala, bi idazkera ditu, eta biak paretsu erabiliak. Bizkaierazko testuetan ageri da gehienbat, nahiz eta Gipuzkoako idazle batzuek ere erabili duten inoiz: *diruak ezeze, zorroa bera ere bai* (F. Bilbao); *Zuek ezeze geuk ere Riktrudisgatik zerbait egingo genuke* (Agirre).

Bigarren atalean mintzagaiaren ondoren ere / baitalezta + ere / ere bai/ez edo Ø aurki ditzakegu. Hona jarraian guztien adibideak, lehenengo atalean ez ezik erabiliz:

- ez ezik, ... ere: Perpausa baiezkkoa denean, *ere/bere(be)* diskurtso markatzailea agertzen da: *Bertsook, gainera, hilarrian ez ezik, egunen batean Oiarzungo herriak, [...], jasoko dion monumentuan ere ederki leudeke* (Mitxelena). Perpausa ezezkoa denean, *ere* diskurtso markatzailea izango dugu, eta *ez* ukatzailea aditzaren aurrean: *Josuk ez ezik, Peruk ere ez ditu lanak amaitu; Aingeru onak ez ezik deabru gaiztoak ere ezin ikusi badu haragi situaren zikinkeria...* (Mendiburu).
- ez ezik, baita (bai eta)... ere: *Ubillos ez ezik, baita Larramendi bera ere, baita Lardizabal eta Agirre Asteasukoa ere* (Mitxelena). *Baita* eta *ere* ager daitezke inoiz bata bestearen segidan, baina oso testu gutxitan ditugu horrelakoak: *F. noski, ontzat hartzekoa da, eta, erdaratikako hitzetan ez ezik —fede, faltsu, etc.—, baita ere bestelakoetan* (Mitxelena).

- *ez ezik, ... ere bai*: *ere* bigarren mintzagaiaren ondoren eta horri atxikia doa beti, eta ondoren *bai* adberbioa eramaten du eta galdegaia da. *Olabideren Itun Zahar eta Berrian ez ezik, azken urteotan egin diren beste zenbait saiotan ere bai* (Mitxelena); *Baketu ez eze, poz adurretan ipini ere bai* (F. Bilbao).
- *ez ezik, ... Ø*: Batzuetan bigarren mintzagaiaren ondoren ez dugu honi atxikiriko elementu jakinik aurkituko: *Italiakoa ez ezik, Ipar-Amerikako zinema behin bederen ispilu bihurtu zaigu* (Mitxelena). *Eta hau egiten badu, ongi ez ezik, atsegin handirekin eginen ditu bere gauzak* (Mendiburu).
- *ez ezik, ezta... ere*: *Izango duten ala ez, ordea, ezin dezaket esan, ez bainaz, profeta ez ezik, ezta igarlea ere*. Hemen ere esanahia ukapenezkoa da: ‘ez naiz ez profeta eta ez igarle ere’.

Hurrenkerari dagokionez, lehenengo atalaz eta bigarren atalaz hitz egin dugu: hori da testuetan ia beti agertzen den hurrenkera. Bestelako adibideak oso bakanak dira, eta autore berarenak: *Gu guztiona da, nerea ez ezik, nahi badugu eta nahi ez badugu* (Mitxelena). ‘x ez ezik’ koma-arte batean, tarteki moduan txertatzen da, harekin erlaziokidetasunean den mintzagaia ezkerrean delarik.

**28.4.7d** *ez bakarrik (soilik)... ere* eta beste zenbait elementuk osatzen dute emendiozko esamoldeen bigarren multzoa. *Ez ezik / ez ezen / ez eze* atalen parekoa, balio eta esanahi berekoa, dugu batzuetan horien ordeztan erabiltzen den beste hau ere, *ez + bakarrik (soilik)* bi adberbio horiek osatzen dutena. Baina bada aurreko moldekoekiko desberdintasun bat: hauek ere mintzagaiak elkar ditzakete (*Ez bakarrik autoa, etxea ere saldu behar izan zuen*), baina aurreko moldekoekin ez bezala, gerta daiteke perpaus osoak elkartzea ere: *Ez dut burruntzia bakarrik eskaintzen, bihotz bat ere eskaintzen dut* (Altzaga); *Ez da bakarrik Hiribarren mintzatu Azkubear: 1935ean, Ikertzaileak ere bere hitza erran zuen “Gure Herria”-n: Jean de Sasiondo (1566-1578)* (Zerbitzari).

Lehenengo atalean *ez* eta *bakarrik* adberbioak erabiltzen dira, betiere unitate bat osatuz eta perpausaren barruan daudela, eta horien hurrenkera hiru eratakoa izan daiteke:

- ez bakarrik... (*ez bakarrik ogia, ...*). Euskalki guztietan erabiltzen da, eta ekialdean ia forma bakarra da. *Ez bakarrik herritik herrira, baina etxetik etxera gaitzeruak desberdinak dira* (Duvoisin); [...] *ez zien jaramonik egiten, ez bakarrik eurei, ezta erromatarren esamesei ere* (Astarloa).
- ez... bakarrik (*ez ogia bakarrik, ...*): *Eta ez gizona bakarrik, baita honekin batean abereak edo animaliak berak ere* (Agirre Asteasukoa). Lehen per-pausean aditza ere ageri bada, bi kasu dira bereiztekoak: aditz forma sintetikoa duena eta analitikoa duena. Aditz forma sintetikoa bada, *ez* partikula ukatzaileak aditzaren aurretik eta horri atxikia joan behar du beti: *Orduan behartasun hori ez da egitezkoa bakarrik, eskubidezkoa ere bada* (Villasante). Aditz forma analitikoa duenean, *ez*-ek bereganatzen du laguntzailea, adizki nagusia esamoldearen ondoren ageri delarik: *Ez dut burruntzia bakarrik eskaintzen; bihotz bat ere eskaintzen dut* (Alzaga). Aditz forma analitiko osoa tartean dela ere erabili izan da inoiz, nahiz lehenengoa den orain maizen erabiltzen den forma: *Ez du ogiak hazten, bakarrik, gizona, baina Jainkoaren ahotik heldu den hitzak* (Larregi).
- ... bakarrik ez (*ogia bakarrik ez, ...*): *Alpeetan bakarrik ez, Himalaian ere ibilia da mendizale hori / ... horretan bakarrik ez da bizkorra, zokor jotzen ere badaki* (Uztapide). Azken adibidean, oso argi ikusten da *bakarrik* eta *ez*, biak ere berez adverbio direla, eta *ez* ukatzailea aditzari loturik doala. Askotan, ordea, *ez* horren ondoren aditzik ez badago, bigarren zati bat eskatzen du; bigarren zati horretan alborakuntza edo juntadura egon daiteke.

Esamolde honen bigarren zatian forma-ugaritasun handia aurkitzen dugu euskalkietan eta autoreetan. *Ez ezik* eta pareko itzuliekin bezalaxe, *ez bakarrik*-ekin —eta beste aldaerekin— *ere* bigarren zatian ere erabil daiteke, eta hau da erabiliena mendebaldeko adibideetan. Azal daitezkeen aukera guztien bilduma egiteko asmorik gabe, erakusgarri modura hona molde nagusi batzuk:

- ez... bakarrik... ere: *Ez dut burruntzia bakarrik eskaintzen; bihotz bat ere eskaintzen dut* (Alzaga); *Hirian bakarrik ez, inguruko herrietan ere badago zer ikusi* (Bitaño).

- *ez bakarrik... baita (bai eta) ere*: Jan zuen Franziskok zeruko janari hartatik eta indarberritu zen, ez ordea gorputzean bakarrik, baita ere ariman (Beobide).
- *ez bakarrik... bai eta... ere*: Etsaiagan aditzera ematen da ez bakarrik deabrua, bai eta beste lagun urkoari bekaturako bidea, oina edo eskandaloa ematen diezan guztiak ere (Agirre Asteasukoa).
- *ez... bakarrik... ere bai*: Esan liteke, [...] Basaburuko gaztedi guztia [...] Atharratzen biltzen dela eta ez gaztedia bakarrik, urteetan ongi umotuak ere bai (Etxaide).
- *ez... bakarrik... Ø*: Ba naski, euskararen bizia, osasuna, iraupena, frantse-saren eta bertze askorena bezala, Jainkoaren eskuetan dira, ba eta gure eskuetan ere; ez geroko bakarrik; orai beretik (Hiriart-Urruti).
- *ez bakarrik... ez eta... ere*: [...] ez zieten jaramonik egiten, ez bakarrik eurei, ezta erromatarren esamesei ere (Astarloa).
- *ez bakarrik... baina ezta... (ere)*: Irugarrenko: eztaijela pekatarijak blasfemadu Jaunaren izen beneragarrija, ez bakarrik euren juramentu, eta birrauakaz, baina ezta euren pekatu eta bizi modu txarragaz (Astarloa); Oneek, ez bakarrik eztauke zer baru egin biarra egiten dabeen egunian; baña ezta egiten eztabenian bere (Astarloa).

Horiez gain, formalki aurkari izan arren emendio balio duen *baina / baizik* juntagailua ere ager daiteke bigarren zatian.

- *ez bakarrik... baina... (ere)*: [...] gure erlisionerat gonbertitua, ez bakarrik izenez, bainan izaitetz, urrats eta sendimendu on guziez (Hiriart-Urruti); Ez bakarrik herritik herrira, bainan etxetik etxera gaitzeruak desberdinak dira (Duvoisin). Ekialdeko erabilera nagusia eta ia bakarra dugu hau, mendebaldeko idazle bakarren batek erabili badu ere.
- *ez... bakarrik... baizik...:* Bekatuaren izenez ez da obrazkoa bakarrik aditzen, baizik gogoz, hitzez, eskuz edo beste edozer gisatan egiten dena (Agirre Asteasukoa); Eta zergatik eskatzen dugu ez bakarrik digula egunorokoa, bai-

*zik egun eman degigula* (Gerriko). Molde hau gipuzkerazko testuetan ageri da, batik bat. *Baizik* erabiliz beste itzuli batzuk ere aurkitzen dira, baina oso bakanak dira horrelako kasuak. Adibidez, *ez... bakarrik baizik... (ere): Ez bere herrikoak bakarrik, baizik Andonerenekoak ere etorri zitzaizkion* (J. A. Irazusta). *Ez bakarrik... baizik eta: Ezagupide horiek xeheki bilatu eta argiki eman nahi ditugu, ez bakarrik elizakoak hartzeko, baizik eta azkenetan daudenen egin beharrak egiteko, nola ordenuak eginarazteko* (Larreko). *Ez... bakarrik, ... baizik: Poliki poliki dihoakio Peru erakusten ez euskara bakarrik, [...], beste gauza asko baizik euskararen bitartez* (Mitzelena).

Azkenik, *baizik*-en kide den *ezpada* bizkaierazko testu bakan batzuetan agertzen da, baina oso erabilera murrizta du horrelako esamoldeetan:

– *ez bakarrik... ezpada (ze): Egiten dabee pekatu mortal dendari, zapatari, errementari, eta beste honelako ofizikoko askok, ez bakarrik gastetan dabe euren irabazi guztija ardao, joko eta beste ekandu zitaletan, ezpada eztabe ardurarik hartu nahi, euren umiai irakasteko euren ofizijua, edo besterenbat* (Astarloa); [...] *bene benetako malko-hari mingotsak isurtzen ditugu, eta ez bakarrik ez dauka lekurik besteen pozak geure barruan, ezpada ze mingostasun barriak emoten deuskuz* (Agirre).

Ohart gaitzen, azkenik, *ez ezik/lezen/eze* eta *ez bakarrik* dituzten esamolde hauen ordez erabili izan direla eta erabil daitezkeela *-z gainera*, *-z gain*, *-z landa* eta antzeko beste postposizio batzuk ere. Baina lehenek mintzagaiak elkartzen dituzte, edo perpausak; postposizioak, aldiz, sintagma bati eransten zaizkio perpaus bakarraren barnean.

#### 28.4.8. Banakaritza

**28.4.8a** Alborakuntzaz nahiz juntagailu bidez elkartzen ditugun osagaien aurrean, osagai bakoitzaren aurrean elementuren bat errepikatzen denean sortzen da balio banakaria: *Bai batzuek eta bai besteek zintzo ordaintzen dituzte zergak*. Beste batzuetan, elementu berak errepikatu ordez, korrelazioan doazen hitz desberdinek osatzen dituzten formulez baliatzen gara (*hala... nola... eta*

abar). Guztietan ere, juntagaiei enfasi berezia ematen zaie. Banakaritza inoiz juntadura-mota bezala aurkeztu izan bada ere, gramatikariek nahiago dute emendioaren balio modura aurkeztu. Juntagaien aurretik errepikaturik azaltzen diren elementuak gehienetan adberbioak izaten baitira, ez juntagailuak: 1) juntagailuekin batera azal daitezke; 2) juntagailu gehienak ez bezala, bi juntagaien aurretik errepikaturik azal daitezke; 3) ezin dituzte perpaus osoak elkar-tu; 4) erabilera berezi honetaz kanpo, ez dute emendiorik adierazten, beste balio batzuetarako erabiltzen dira.

**28.4.8b** Emendiozko juntaduran, *bai* eta *ez* juntagai bakoitzaren aurrean ezarriz lortzen dugu balio banakaria: *Bai Patxik eta bai Anek (ere) lortu dute gidabaimena; Ez Jone eta ez Josu (ere) ez dira bilerara etorri*. Aurreko hauetan bezala, bi osagaien artean *eta* juntagailua ipintzen badugu, emendiozko juntaduraren barnean izango dugu banakaritza (*bai goizean eta bai arratsaldean (ere)*); emendiozko juntagailurik ezean, alborakuntzaren barruan (*bai goizean, bai arratsaldean (ere)*). Balio banakaria duten adibideak erraz aurkitzen dira tradizioan: *Bai soinekotarako eta bai barruko arropetarako, aukera handia etorri zait* (Etxaniz); *Sinesten banauzu, liburu hari itxekiko diozu zure bizitzeko, bai kanpoko, bai barreneko urrats guzien moldatzeko eta neurtzeko* (Pouvreau); *Familiako bizitzan aurkitzen du gizonak bere giro egokia, bai ahalmenak heldutasunera eramateko eta bai bere beharrak erremediatzeko ere* (Villasante). Aurreko adibideetan ikusten den bezala, *ere* erabiltzea aukerakoa da.

**28.4.8c** Juntaduraren esparruan gertatzen den banakaritzari dagokionez, *bai*-rekin bi molde aurkitzen dira: *Bai... eta bai...* (*Bai Jon eta bai Miren oso azkarrak dira*); *Bai... bai eta...* (*Bai Jon bai eta Miren oso azkarrak dira*). Ezezko banakaritza adierazteko, ohikoena, berez ezezkoa den perpaus batean juntagai bakoitzaren aurrean *ez* ezartzea da: *Ez Jon eta ez Miren ez dira oso azkarrak; Ez Jon ez eta Miren ez dira oso azkarrak*. Baina baiezko perpausetan ere inoiz aurkitzen dira *ez* errepikatzen duten egitura banakariak (de Rijk, 2008): *Ez apaizik eta ez mojarik etorri da*.

Banakaritza egiturak ia perpausoko osagai guztiekin era daitezke: *Bai Jonek eta bai Mikelek asko ikasi dute; Bai Itziar eta bai Leire musikazaleak dira; Bai gazteei eta bai adinekoei gustatzen zaie film hori; Bai zuentzat eta bai*

gureztat ondo etorriko da; *Bai mendian eta bai hondartzan gustura ibiltzen naiz; Bai gaur eta bai bihar hemen izango naiz; Ez zituen ez hitzak leundu, ez gorrotoak estali...* Sintagma nagusien barneko elementuekin ere berez ez da eragozpenik, baina gutxiago erabiltzen dira, egiturak astundu bezala egiten baitira: *Bai Jonen eta bai Mirenen alabak gurean izango dira lotan; Bai hirietako eta bai mendietako zuhaitzak aztertu dituzte ikerketa horretan; Bai mutil eta bai neska gazte guztiek hartu beharko dute txerto berria.* Banakaritza erabiltzeak enfasia ematen dio adibideari, eta sintagma nagusien barneko elementuekin zailago gertatzen da. Horrez gain, kontuan izan behar da banakaritza egiturak ezin direla eratu norbanako bat baino gehiagoren partaidetza eskatzen duten predikatuarekin (*bildu, elkartu, osatu, elkarrekin, batera...*): *\*Bai Jon eta bai Ane elkarrekin joan dira; \*Bai Jon eta bai Ane batera datoz; \*Bai Jon eta bai Ane Baionan elkartu ziren...* Banakaritza dagoenean, juntagai bakoitzak bere kasa hartzen du parte aditzak adierazten duen gertaeran edo egoeran, eta orduan, ez da bateragarria predikatu kolektiboekin.

Bestalde, banakaritzan ezin dira perpaus osoak azaldu (*\*Bai Jon lanera berandu iritsi zen eta bai Miren ordua baino lehen irten zen*), aurretik aipatu den egoera bati erantzuteko ez bada. Banakaritza erabiltzen denean, egitura osoa gertaera bakartzat interpretatu ohi da, eta hori egon daiteke banakaritzaren bidez perpaus askeak lotzeko eragozpenaren atzean. Aldiz, mendeko perpausak lot daitezke banakaritzaren bidez: *Izugarri haserretzen zen nagusia, bai langileak lanera berandu iristen zirenean, eta bai norbait ordua baino lehentxeago irteten zenean.*

**28.4.8d** Azkenik, ezezko perpausetako banakaritzan, taxu desberdineko moldeak gerta daitezke. Bi modu ditugu euskaraz, ezezko perpausak *eta*-z baturik lotzeko: 1) *Ez du jan eta ez du edan*; 2) *Ez jan du eta ez edan du*. Lehengo moldea hedatuagoa da bigarrena baino. Aldea honelatsukoa dateke, biak erabiltzen diren hizkeretan. Lehenean, banaka eta bereiz, elkarrekin zerikusirik ez balute bezala hartzen dira bi perpausak, eta banaka eta bereiz ukatzen. Bigarrenean, aldiz, bi perpausen ezezkoa hasieratik ikusi eta korrelatiboki ukatzen dira; eta era horretan, banakaritzara hurbiltzen da. Azken molde honetakoak lirateke honako hauek: *Ez gizonezkoa duzu osoa eta ez emakumezkoa* (M. Atxaga); *Ez-ikasiak ez lehen eta ez orain irakurtzen du* (M. Atxaga).

### 28.4.9. Zenbait esapide

**28.4.9a** *x eta biak* moduko esapideak erabil daitezke, solaskidea (edo solaskidea ez izan arren, solasgai dena) gehi beste norbait adierazteko. Esan bezala, adieraz daiteke ‘x eta ni’ (*Joan ginen Piarres eta biak itzuli bat egitera...*, J. B. Elizanburu), ‘x eta zu’ (*Ane eta biak etorri zineten gau hartan*) edo ‘x eta hura’ (*Beste lagun bat eta biak atzera joan ziren*, Uztapide). ‘x eta ni’ edo ‘x eta zu’ adierazi nahi denean, sarri *x eta biok* moldea erabiltzen da, plural hurbilarekin. Oro har, *x eta biak* Iparraldean ia forma bakarra da; *x eta biok* Hegoaldean gehiago erabiltzen da. Esapidean aipatzen den x izan daiteke pertsona bat baino gehiago ere, eta orduan dagokion zenbatzailearekin erabiltzen da. Hola, *x eta hirurak/hirurok*, adibidez: *Ama, Itziar eta hirurok gelditu ginen etxean* (Garate), edo *x eta laurak/laurok*, esaterako: *Ba, goazen orduan, goazen Teresa eta laurok* (Atxaga), eta berdín *x eta bostak/bostok*, hemen ikusten den gisan: *Eta holaxe ibili ginen azken udan ere, Toby, Frankie, Kent, aitona eta bostok* (Atxaga). Baina ohikoena *x eta biak/biok* da, eta oro har, zenbateko txikietara mugatzen da esapidea. Era honetako esapideetan, zehazki nori buruz ari garen, perpausetik edo testuingurutik ondorioztatzen da. Eta era guztietara, talde irakurketa bideratzen du: banakaritza irakurketarako aukerarik ez du ematen.

Bada kontuan izateko beste puntu bat ere: egitura honetan x juntagaia nola azaltzen den, egitura osoak postposizioak hartzen dituenean. Aurreko adibiderik gehienak absolutibokoak ziren. Pentsa dezagun ergatiboa dugula. Bi aukera izango genituzke: *Josune eta biok egin dugu* nahiz *Josunek eta biok egin dugu*. Biak ere zilegi dira. Izen bereziaren ordez izen arruntak ditugularik, forma osoa erabiltzen da: *Lagunak eta biok egin dugu* / *\*laguna eta biok egin dugu* / *\*lagun eta biok egin dugu*. Berdin datiboarekin ere: *Josune eta bioi eman digute* / *Josuneri eta bioi eman digute* / *lagunari eta bioi eman digute*. Baina postposizioak luzeagoak direnean, izen bereziekin, errazago azaltzen dira *Josune eta biontzat* bezalako moldekoak.

**28.4.9b** *x eta...* erabil daiteke, azken juntagaia edo juntagaiak aipatu gabe utziz, solaskideak informazio hori —edo ‘behar adina’ informazio— eskura-



tzen duela pentsatzen denean: *Zepaik eta handik alde egin zuten* (Uztapide); *Nor bizi da etxe horretan? Pello eta* (Azkue); *Erdararen bidez geure buruok, batzarretan-eta, ederragotu egiten ditugula* (Lizardi). *Eta* juntagailua, horrelakoetan, intonazioari dagokionez aurreko juntagaiari loturik azaltzen da. Aipatu gabe uzten diren juntagaiak askotan bat baino gehiago izaten dira, baina bakarria ere izan daiteke: *Pello-eta (emaztea) datoz afaltzera*. Lehenengo zatiak dagokion postposizioa hartzen du: *Josurentzat eta erosi ditut opariak*. Gehienetan pertsonekin erabiltzen da, baina bestelakoekin ere erabil daiteke: *Lehoiek-eta lehia handia izaten dute elkarren artean*; *Pagoak-eta ez dira errentagarri gertatzen egurzaleentzat*; *Ushuaian-eta izan naiz*.

**28.4.9c** *x eta galdetzailea*. Euskaraz juntadura egituretako bigarren juntagaiari buruzko galderak egin daitezke: *Parisen Eiffel dorrea eta zer ikusi zenuen?*; *Leirek eta nork sinatu zuten idatzia?*; *Iazko bidaiari Chicagon eta non izan zineten?* Ohart gaitezen galdetzailea daraman juntadura egiturak ez duela nahitaez perpausaren hasieran joan beharrik; baina nahitaezkoa da aditzaren aurretik joatea. Aditzarekiko komunztadurari dagokionez, hitz egiten ari denak dituen usteek eta juntaduraren baldintzek erabakitzen dute: *Leirek eta nork sinatu zuten/zenuen/zuen idatzia?* Guztiak izan daitezke zilegi, eta hiztunak eta egoerak erabakitzen dute.

**28.4.9d** *Galdetzailea eta x*. Aldiz, molde honetako juntadurekin ezin da galderarik egin (\**nork eta Leirek sinatu zuten idatzia?*). De Rijkek dio (2008: 845) horren arrazoia, beharbada, izan daitekeela molde honekin galdetzailea ez dagoela aditzaren aurre-aurrean, lehenengo juntagaia baita. Aldiz, *galdetzailea eta x* motako segidekin indar berezia edo enfasia ematen da, harridurazko perpausak osatuz: *Nor eta auzoko Miren aurkitu behar Parisen!*; *Non eta han aurkitu behar Josu!*; *Josu ikusi nuen, non eta Aneto gailurrean!*; *Nork eta Leirek sinatu idatzia!* Batzuetan, harriduraz gain gaitzespen kutsua ere adieraz daiteke. Esapide honen lekukotasunak, oro har, Hegoaldeko xx. mendeko testuetakoak dira. De Rijkek dio (2008: 846), beharbada, horrelako egituren atzean prozesu erretoriko bat dagoela. Esate baterako, *Nondik eta zerral-dotik atera ziren hitz haiek bezalako bat dugularik*, hiztunak lehenengo galdera bat egingo luke (*nondik atera ziren hitz haiek?*), eta jarraian bere bu-

ruari erantzungo lioke (*zerraldotik atera ziren hitz haiek*). *Eta* juntagailuak galdera eta erantzuna lotuko lituzke, eta ondoren, errepikatzen dena isilean geldituko litzateke. *Eta* ondorengo hauek bezalakoak tarteko adibideak lirateke: *Zer egin eta zeruko giltza puskatu zioten aingeru koskorrek San Pedrori!* (F. Mendizabal); *Nor harritu eta errege harritu* (Barbier); *Eta hori noiz gertatuko eta orain gertatzen* (Mitxelena); *Zer kenduko medikuak, eta gozoa*. (Atxaga). Nolanahi ere, ohart gaitezen adibide hauetan aditzaren aspektuaren aldetik molde desberdinak ageri direla; eta lehenengo juntagaian batzuetan aditza azaltzen dela, eta beste batzuetan ez.

**28.4.9e** *eta abar* erabiltzen dugu, enumerazio baten amaieran, aipatutakoez gain, zehaztu gabe utzi arren beste batzuk ere badirela adierazteko: *Mari Gaizto honek izen asko ditu: Anbotoko Señora, Aizkorriko sorgiña, Gaiztoa eta abar* (S. Mitxelena). *Eta abar* honek, jakina, dagokion kasu marka ere har dezake: *Senitartekoei, ezagunei, adiskideei eta abarri deitu zien berria emateko; Jende askorekin hitz egin zuen azokan: aspaldiko eskola lagunekin, auzokoekin eta abarrekin*. Askotan bi puntuen ondorengo enumerazioetan azaltzen da, aurretik aipatutako termino orokorrago bat zehazten hasitakoan, baina esaldiaren barnean ere joan daiteke.

**28.4.9f** Zenbaitetan, *juntagaiak errepikatuz*, enfasia edo ugaritasuna adierazi nahi izaten da: *Pesimistak direnetatik asko eta asko mihiz bakarrik azaltzen dira pesimistak* (Villasante); *Patxik bethe bethe zeukan kolkoa eta jan eta jan zebilen* (Oskillaso); *Egunak eta egunak igaro zituen erotzeko zorian* (Altzaga).

**28.4.9g** *bereak eta bi*. Oso ezagunak dira bigarren juntagaitzat zenbatzailea duten *bereak eta bi*, *bereak eta bost*... esapideak ere: ... *bereak eta bi entzun gabe ez ziren izaten ereti batzuetan* (Agirre); *Diru asko eralgi diat eta bereak eta bost ateratzen saiatu behar nauk* (Etxaide). Hauekin ere nolabaiteko enfasia adierazten da: aurreko adibideetan, ‘handiak entzun beharko dituela’ (kualitate enfasia) edo ‘ahal den etekin gutzia ateratzen saiatu behar duela’ (kantitate enfasia) adierazteko erabiltzen dira.

**28.4.9h** Enfasia emateko beste bide bat, perpausaren barneko elementu bat, perpaus horretatik ‘atera’, eta jarraian *eta* juntagailuaren ondoren ematea da,

zerbait garrantzitsua gaineratuko balitz bezala: *Joni afaria oparitu diote, eta Arzakenean; Bihar bilera du, eta lehendakariarekin; Bihar azterketa dut, eta oso garrantzitsua*. Aurreko adibideak informazioaren aldetik berdin esan zitezkeen *Joni Arzakenean afaria oparitu diote; Bihar lehendakariarekin bilera du; Bihar azterketa garrantzitsua dut*. Baina lehenengo moldearekin enfasia ematen zaio esaten denari edo esaten denaren alderdi bati. Eta neurri batean honen antzekoa izango litzateke ondorengo adibideko moldea ere: *Eclipse edo delako hura ote da hau? Hura eta bera* (Hiriart-Urruti). Bestalde, batez ere Iparraldeko euskalkietakoak diren *izigarria eta eman zion ostiko bat* bezalakoetan ere hanpadura berezia ematen du izenondoaren ondotik doan *eta* horrek.

**28.4.9i** Enfasia emateko beste bide bat, neurri batean aurrekoaren antzekoa, perpaus bereko bi elementuren artean juntagailua txertatzea, nahiz eta bi elementu horiek postposizio desberdina eraman: *Etzetik eta iturrira 500 metroko bidea genuen*.

**28.4.9j** *x eta guzti*. Lehen juntagaia mugagabeen joaten da: *Hezur eta guzti irentsi zuen gerezia; Oinetako eta guzti etzan zen ohe gainean*. Eta esapide osoak predikatu sintagma osatzen du: *Bere erbi txakur eta guzti ere, gure Per-nando gizajoak ez eban erbi aztarrenik ere atera* (San Martin).

**28.4.9k** *x dela eta ez dela*: ‘x-ren ondorioz, x-ren inguruan’ adierazteko erabiltzen da. Normalean hirugarren pertsonakoak izaten dira, singularrean nahiz pluralean: *Hemen ez da aipatu baizik egingo, bada, artikulua dela eta ez dela, zenbait izenen artean sortzen den bereizkuntza* (Mitxelena); *Bazen Eibar al-dian zer esana, kantariak zirela eta ez zirela* (San Martin). Esapide hau laburtuz, *x dela eta* kausazkoa sortu da. Bestalde, juntagailuarekin baiezkkoa eta ezezkoa lotuz esapide gehiago ere badira, orobatasunetik gertuko balioekin (*nahi eta nahi ez...*).

**28.4.9l** *Kirol emaitzak* emateko *hiru eta bi* erako esapideak erabiltzen dira (eta ez *\*hiru-bi* moldekoak, juntagailurik gabe). Horrelakoetan, emendioaren balioa baino gehiago, aurrez aurre dauden bi kopuru azaltzen zaizkigu.

**28.4.9m** Zenbakietan ere erabiltzen da *eta* juntagailua: *hogeita hamabi; ehun eta hogeita hamabi; mila berrehun eta hogeita hamabi; bi mila eta hamazazpi*. Gai honi dagokionez, nabarmendu behar da ez direla euskarazko tradizioaren arabera sortuak *eta*-rik gabeko ondorengo hauen moldekoak: \**Bi mila hamazpian amaitu dut*; \**Mila zazpiehun lasterkari irten ziren*. Zenbaki bakoitzari dagokion tokian *eta* juntagailua ezarri behar da: *Bi mila eta hamazazpian amaitu dut*; *Mila eta zazpiehun lasterkari irten ziren*.

Ikus Euskaltzaindiaren 7. araua: “Zenbakien idazkeraz”, Bilbon, 1994ko urriaren 28an onartua.

**28.4.9n** Adlatiboaren ondoren: *Arratsean etxera eta irriz zagolarik zion...* (Hiriart-Urruti) bezalako adibideak azaltzen dira, adlatiboaren ondoren, aditzik gabe; horrelakoetan, zentzuaren aldetik, *eta* juntagailua bi perpaus lotuz azaltzen da: *Hasi zitzaien, bi belaunak lurrera eta, esaten: [...]* (Mendiburu).

**28.4.9ñ** Aditza + -tzen eta... (*maitatzen eta...* ; *ikusten eta...*): kontzesioa adierazten da erabide honekin. *Gizonarentzat hau baino malur handigorik badea? Ikusten eta ezin eskura maitatzen duen lorea* (Xalbador). Adierazi nahi da, nahiz eta ikusi, ezin duela eskuratu maitatzen duen lorea. Aditz gehiagorekin ere badira horrelako adibideak: *Maitatzen eta urrun bizi behar!*; *Uler-tzen eta ezin adierazi!*

**28.4.9o** Zalantza adierazteko erabili izan da, Iparraldeko testuetan, bigarren juntagaia agerian eman gabe: *Errozu eta... ez girela eta... nehundik jiten ahal* (Lafitte); *Errak, eta... ez dea medikurik hemen kolpatuentzat?* (Saint-Pierre).

**28.4.9p** Azkenik, era guztietako gramatika-hitzetan (juntagailuetan, diskurtso markatzaileetan, menderagailuetan eta abar) aurki daiteke *eta*, bere emendiozko balioa galdurik, indartzaile modura: *harik eta, nahiz eta, baizik eta, edota, zeren eta...* Bai *eta* korrelaziozko esapideetan ere: *zenbat eta... hainbat eta...*; *zenbat eta... orduan eta...*

## 28.5. Juntadura hautakaria

### 28.5.1. Sarrera

**28.5.1a** Juntatzen diren perpausen edo atalen arteko hautaketa, aukera, adierazten da juntagailu hautakariaren bitartez. Hori da balio nagusia. Alde horretatik, emendiozko juntaduratik aldentzen da, han juntagaien batuketa adierazten baitzen.

Juntagailu hautakariak *edo*, *ala* eta *edota* dira. Baina juntagailu horiek guztiak ez dira euskalki guztietan erabiltzen; ezta guztiak testuinguru sintaktiko guztietan balio berarekin ere. Juntagailu bakoitzaren erabilera banan-banan aztertuko dugu hurrengo orrietan. Hala ere, esan dezagun euskaldun batzuentzat *edo* dela juntagailu bakarra, balio eta ingurune sintaktiko guztietan erabiltzen dutena.

**28.5.1b** Euskararen gramatiketan juntadura hautakaria aztertu izan denean, arreta berezia jarri da askotan *edo* eta *ala* juntagailuen erabileran, eta dituzten bereizgarrietan. Latinaren gramatiken tradizioak izan lezake eragina horretan, juntagailu hautakari desberdinen arabera balio desberdinak sumatzen baitziren hizkuntza horretan. Aipatu izan diren bereizketa-irizpide nagusiak ondorengoak izango genituzke, laburbilduz:

- Gramatikari batzuek *ala* juntagailuaren erabilera galde perpausari lotu diote, eta *edo*-rena asertzioari.
- Beste batzuek aukera motaren arabera bereizi dituzte biak: *edo*-k garrantzi gutxiko bereizketak edo aukerak elkartzeko balioko luke, bata zein bestea aukeratu berdintsu zaiola adierazteko; *ala*-k, berriz, aurkakoak direnak juntatzeko.
- Azkenik, Villasantek markatu/markatugabe oposizioa hartzen du bereizgarritzat: *edo* juntagailu markatugabea litzateke; *ala* markatua, aukeretatik bakarra hartu behar dela edo gauzatuko dela adierazteko erabiltzen duguna. Mitxelenak, ordea, *ala* markatugabea, bakarra aukeratzera behartzen ez dena ere izan daitekeela ohartarazi zuen.

**28.5.1c** Gainerako juntagailuak askoz gutxiago aztertu izan dira. Juntagailu bakoitzaren erabilera aztertzean ikusiko dugu zein perpaus motatan erabiltzen diren eta zein esanahi duten. Orduan alderatu ahal izango ditugu hobeto goiko iritzi desberdinak. Juntagailu hautakariak deskribatzeko unean, garrantzi berezia hartzen du juntagaiak galde perpausak diren edo ez, galdegaiak elkartzen dituen edo ez, eta juntadura-egiturak duen balioak. Puntu horietan jarriko dugu arreta berezia. Ikusiko dugu hautaketa edo aukera balioaz gain, orobatasuna eta sinonimia bezalakoak adierazteko ere erabiltzen direla juntagailu hauek.

## **28.5.2. Edo juntagailua**

### **28.5.2.1. Juntagailua eta juntagaiak**

**28.5.2.1a** Oro har, *edo* da hautakaritza adierazteko gehiena erabiltzen den juntagailua; euskaldun batzuentzat forma bakarra da, gainera. Maila guztietako elementuak elkartzen ditu, perpausak nahiz perpausa baino txikiagoko atalak; alde horretatik *eta* emendiozko juntagailuarekin bezalako egoera azaltzen zaigu, eta juntadura gauzatu ahal izateko baldintzak ere —sintaxiari nahiz morfologiari dagozkionak— parekoak dira. Bi osagai baino gehiago ere elkar ditzake *edo* juntagailuak. Deskribapena egiteko unean, adierazpen perpausak eta galde perpausak bereiziko ditugu, puntu horrek bai baitu garrantzia juntagailu hautakarien erabilera argitzeko.

**28.5.2.1b** Mota bereko perpaus beregainak elkartuz azal daiteke *edo* juntagailua: adierazpen perpausak (*Telebista ikusiko dut edo oparitu didaten liburua berria irakurtzen hasiko naiz*), galde perpausak (*Etxean geratuko zara edo zinemara joango zara?*), aginte perpausak (*Amaitu ezazu lan hori edo utz ezazu betiko!*). Aldiz, *edo* juntagailu hautakariarekin harridurazko bi perpaus elkartzeko eragozpenak izango ditugu (*\*Ze atsegina den edo zenbat dakien!*), *eta*-rekin ez bezala (*Ze atsegina den eta zenbat dakien!*).

Emendiozko juntagailuarekin gertatzen zen bezala, *edo*-k ez ditu nahitaez bi adierazpen, galde edo aginte perpaus juntatu behar. Dena dela, mota desberdi-

neko perpausak elkartzeko aukerak emendiozko juntaduran baino askoz urriagoak dira. Juntagaiak izan daitezke aginte perpausa eta adierazpen perpausa (*Joan korrika edo harrapatuko zaitut*); ez, ordea, adierazpen perpausa eta harriidurazkoa (*Loreak ekarri zituen, eta/\*edo ze politik!*), edo adierazpen perpausa eta galde perpausa (*Berandu etorri da, eta/\*edo ez al diozu ezer esan behar?*). Baina gogoratu, azken hauek bezalako adibideetan, *eta* erabiltzen genuenean ere diskurtso markatzaileen zereginera hurbiltzen ginela.

**28.5.2.1c** Adierazpen perpausen barnean, mendeko perpausak elkartzuz ere azaltzen da *edo*, jokatuak nahiz jokatugabeak: *Bizpahiru aldiz ukitua izan den arren, edo, agian, ukitua izan delako, ez dator bat beti bere buruarekin* (Mitxelena); *Ikusten zutenean Zugarramurdiko artalde bat mugaz alde huntara alhatzen, edo soilki mugarat hurbiltzen...* (J. B. Elizanburu). Mendeko perpaus horiek ez dute nahi eta nahi ez sail berekoak izan beharrik: adibidez, Mitxelenaren adibidean, kontzesiozkoa eta kausazkoa juntatzen dira. Oro har, edozein juntadura mota gauzatu ahal izateko bete beharreko baldintza berak bete behar dira hemen ere.

Perpausak baino txikiagoko elementuak elkartzuz, juntagaiak izan daitezke aditz partizipioak (*Kendu edo desegin behar lirateke*), postposizio sintagmak (*Bertakoekin edo kanpokoekin osatuko dugu zerrenda; Zuk edo nik egin beharko dugu*), edo txikiagoko atalak (*bi edo hiru egun; egun goibel edo tristeak; aire edo doinu berriak*). *Eta* emendiozko juntagailuarekin ikusi den bezala, elkartzen diren juntagaiek funtzio sintaktiko bera izan behar dute, eta eskakizun hori betetzen bada, kategoria desberdineko elementuak ere junta daitezke (*Hilketa hura gaiztakeriaz edo bere barnea lasaitzeko egin zezakeen*). Alde horretatik, ez da debeku edo baldintza berezirik, juntagailu hautakarien balio semantikoak ezartzen dituen gain.

**28.5.2.1d** Edo galde perpausetan ere ager daiteke. Batzuetan perpaus beregainak elkartzen dira: *Badakizu, edo jakin nahi duzu nola?* (Agirre Asteasu-koa); *Egia da, edo ez, edo ta nik amets egin ote dut?* (G. Arrue). Mendeko galde perpausak, hau da, zehar-galderak ere elkar daitezke: *Galdetu dit nondik natorren eta zertara etorri naizen*.

Bestelako juntagaiekin, aukera desberdinak izan behar dira kontuan. Batetik, gerta daiteke juntagaiak galdegai ez izatea: *Nola senda dezaket nik erregeren alaba edo bertzerik ere, mirikua ez naizenaz geroztik?* (J. B. Elizanburu); *Zer dauka horrek zer ikusi ezkontzeko edo ezkongai egoteko?* (Agirre). Beste bazuetan, juntagaiak galdegai izango dira. Horien artean bi aukera bereizi behar dira. Batetik, *edo*-k galde hitzak elkartzen dituen kasua: *Noren asmotik edo nondik zaio heldu?* (Xalbador); *Eta nondik edo zergatik eten da Antonigazkoa?* (Agirre). Eta, bestetik, bestelako galdegaiak juntatzen ditueneko: *Nor da gutan dakienik zeinek zaituen maiteenik, zure amattok edo nik?* (Xalbador).

**28.5.2.1e** Sintagmak juntatzean, aukera desberdinak ditugu, aurretik emendiozko juntaduran ere ikusi dugun bezala. Molde bat postposizio sintagma osoak juntatzea da: *Nire desioaz edo nahiaz mintzatu naiz*. Beste moldea, ardatz anitzeko juntadurak: *Nire desio edo nahiaz mintzatu naiz*. Emendiozko juntaduraren atalean luze jardun dugu horretaz, eta hango jokabide nagusi berak aurkitzen ditugu hemen ere. Jarraian labur emango dugu ikuspegi orokorra.

Postposizio sintagmak beti junta daitezke, bai singularreko bai pluraleko direnean; ardatz anitzeko sintagmak ostera pluralekoetan aurki daitezke batik bat (*gure desio edo nahiez ez da inor arduratzen*), baina hauetan ere postposizio sintagmak juntatzeko joera nabarmena da (*gure desioez edo nahiez ez da inor arduratzen*).

Jokabide orokorraren salbuespenak zein diren aztertzean, izen sinonimoen juntadura aipatu behar da lehenik. Izan ere, sinonimoen edo oso antzeko esanahia duten izenen artean gertatzen da batik bat ardatz anitzeko sintagmen juntadura, bai singularrean (*oroimen galtze edo amnesiarik gabe*) eta bai pluralean ere (*zure idolo edo jainkoak ez ditut gurtuko*); baina sinonimo izan arren postposizio sintagmak ere elkar daitezke, batez ere erabateko sinonimoak ez, baina oso antzeko kontzeptuak adierazten dituzten sintagmak juntatzen dituenean *edo*-k: *Hauek, enetzat, bertso idazleak edo kantu egileak dira, eta zenbaitek deitzen dituzte olerkariak* (Xalbador). Eta bigarrenik, emendiozko juntaduran bezalaxe, bi juntagaiei dagokien izenlagunen bat, adjektiboren bat edo zenbatzaileraren bat izateak izenen juntadura errazten du.



Bestalde, kontuan izan behar da, emendiozko juntaduran bezala, lehen juntagaiak mugatzaile+postposizio multzo osoarekin agertu behar duela, edo batere gabe, bai pluraleko kasuetan, bai singularrekoetan; oro har ez baitaitezke bi elementuok (mugatzailea eta postposizio marka) bereiz juntaduran.

**28.5.2.1f** Egindako esapideetan ere behin baino gehiagotan aurkituko dugu *edo* juntagailua: *noiz edo behin, noiz edo noiz, inoiz edo berriz, bat edo beste* (zenbaitzaile nahiz izenordain gisa), *nondik edo handik, behin edo behin, gutxi edo gehiago, sast edo sist, zirt edo zart, gaur edo bihar* ('egunen batean, noizbait' esateko), *bihar edo etzi, zer edo zer, behin edo berriz...* Horrelakoetan *edo*-k ez ditu egiazko juntagaiak elkartzen, egitura osoa egindako esapidea baita.

### 28.5.2.2. Balioak

**28.5.2.2a** Juntagailu hautakarien balio nagusia aukera —era batekoa edo bestekoa— adieraztea da. Baina horren alboan sarritan aurkituko ditugu orobatasuna, sinonimia eta beste batzuk, juntagailu gehiagorekin ere ager daitezkeenak. Horretan guztian, badu zeresana zer motatako juntagaiak elkartzen dituen, edo juntagai horiek zer motatako perpausen barnean datozen.

**28.5.2.2b** Adierazpen perpausetan ager daitezke *edo*-ren bidez elkartutako juntagaiak, balio bat baino gehiago adieraziz. Jarraian nolabaiteko sailkapen bat emango dugu, baina askotan ez da erraza izaten, adibidez, orobatasuna ala hiztunak diferentetzat dituen aukerak, zehazki zer adierazi nahi den jakitea.

- Aukera balioa. Zenbaitetan egiazko aukera adierazteko baliatzen dugu *edo*; hau da, bata edo bestea izan behar du: *Hori edo bere burua hiltzea* (Mitxelena); *Bat edo bestea: edo gezurra zioten Apostoluek, edo Juduak hobendunak ziren* (Lapeire).
- Orobatasuna adieraziz. Juntagailuaren bidez elkartzen diren aukeren artean hiztunarentzat ez dagoela desberdintasun handiegirik adierazten da, berdintsu edo orobat zaiola bata edo bestea. Juntagaiak perpaus jokatu gabeak edo perpausa baino txikiagoak diren osagaiak izan ohi dira: *Horren egitea edo*

*norbaiten jo buruan eta botatzea [...] berdintsu zaut eni* (Xalbador); *Zer nahi dela basurdea zen, sanoa edo heria* (Xalbador). Badirudi, gainera, orobatasun balio hau ez dagoela hautakizuna osatzen duten atalak galdegai edo mintzagai izatearen baitan. Adibidez, ondorengoan, *edo*-k elkartzen dituen osagaiak galdegai dira: *Zuen semea izan ditake mediku edo notari Eskualherrian* (Hiriart-Urruti). ‘*Mediku edo notari*’ galdegaitzat hartuko genuke; adierazpen perpausa den neurrian normala da *edo* agertzea; baina aldi berean ‘berdintsu izatea’ adierazten duela dirudi, mediku edo notario edo antzeko beste zerbait; aukeren arteko batzuk besterik ez direla esan nahian bezala. Juntagaiak antonimoak direnean ere bata edo bestea berdintsu zaiola adieraz dezake hiztunak *edo* juntagailua erabiliz: *Egia da hurbildik edo urrundik Piarres Adame ikusten zuena ohartzen zela berehala gauza batez* (J. B. Elizanburu); *Ongi edo gaizki, zuzen edo makur, plazer zaiku hartzea* (Axular); *Eguraldi on edo txar, ortozik edo abarka zulatubakaz dabiltzanak* (Mogel); batzuetan, bi antonimoen bidez ideia edo nozio bakar bat adieraz daiteke: *Komunioaren usutasuna edo bakantasuna zure konfesoreak erregulatuko du* (Baratziart). Ildo berean, nahikoa arrunta da adierazpen perpausuan ekintza bat gertatu edo ez gertatu berdintsu zaigula adierazteko ‘*x edo ez*’ adierazpidea: *Nahi edo ez eraman behar ziozkagu honen begiak* (G. Arrue). *Edo* ‘*gura edo gura ez*’, ‘*gura nahiz gura ez*’, ‘*gura zein gura ez*’, ‘*nahi ala ez*’ bezalakoak. Azkenik, orobatasun balioa atzeman daiteke, baita ere, bigarren juntagaia ‘*horrelako*’, ‘*gisa horretako*’, ‘*nolabait*’, ‘*bestela*’... denean: *Indianoak judioa edo holangoa izan behar eban* (Agirre); *Suertez edo bertzela, ez genuen ikusi arima bat agertzen ez kanpora ez eta ere leihoetara* (J. B. Elizanburu). Badirudi, gainera, *edo* dela horrelakoetan ager daitekeen juntagailu hautakari bakarra.

- Bigarren juntagaia lehenaren aldaera. Zenbaitetan badirudi bigarren juntagaiak lehenean adierazi dena zerbait zehazteko, beste ikuspuntu bat adierazteko... balio duela; lehen aukeraren aldaeratzat edo hartuko genuke bigarre-na: *Bata eta beste, gainera, ezinegonak, edo hobeto esan larriminak, darabiltza* (Mitxelena); *Ez zaio iruditzen legeak ongi jarriak daudenik edo, hobeto esan, ez zaio iruditzen legearen zigorra behar bezala dantzatzen denik* (Mitxelena); *Ametsetan ikusitako gizonak ez dira lurtean bizi, edo ez*

*dira behintzat etortzen gure bila* (Agirre). Horrelakoak adierazteko *edo* juntagailuaren ondoren eta bigarren juntagaiaren aurretik ‘*hobeto esanda*’, ‘*nahi baduzu*’, ‘*bederen*’, ‘*behintzat*’, ‘*berdin dena*’... bezalakoak tartekatzen dira behin baino gehiagotan. Modu berean, balio hau da ageri dena *edo* juntagailuak esanahiaren aldetik diferentzia handiegirik ez duten osagaiak elkartzen dituenean, edo hala adierazi nahi denean: [...] *egun oro, edo sarritan gertatzen zaizkigunetan*... (Agirre Asteasukoa); *Herri hau, beste edozein adinakoa edo hobea da* (Agirre).

- Baldintza. *Bestela*-ren laguntzan ere azaltzen da batzuetan *edo* juntagailua, eta orduan, baldintza kutsua eransten zaio; lehen juntagaien adierazten dena gauzatzen ez bada, bigarrenak adierazten duena gertatuko da: *Jontxuk barkamena eskatu beharko dio jo duen ikaskideari, edo bestela ikastetxearen zigorra jaso beharko du*. Ez da beti beharrezko, gainera, *bestela* azaltzea: *Gurutzefika zezala Jesus, edo, Erromako enperadorek jakinen zituela haren berriak* (Joanategi). Hona beste adibide bat: *joan korrika edo harrapatuko zaitut*. Nabarmendu behar da horrelako adibideek ez dutela esan nahi ‘korrika joaten bazara harrapatuko zaitut’, baldintzazkoen eskema zuzenean aplikatuz izango litzatekeen modura; adierazten dena da ‘korrika joaten ez bazara, harrapatuko zaitut’. Adibide hauen baldintza kutsua ez du *edo* juntagailuak ematen, baizik eta zeharka lortzen den zerbait da: hautakaritza baztertzailerak dago, eta elkartzen diren perpausek agindu-izaera dute; bien baturatik lortzen da baldintzatik gertuko irakurketa. Hautakaritza baztertzaileraren irakurketa hori indartzeko, sarritan, edo bi juntagaien aurrean kokatzen da (*Edo dagokionaren aurrean kexatu, edo betiko isildu*).

Lehen juntagaiak adierazten duenari buruzko balio murriztailea edo baldintzazkoa *edo* juntagailuarena bakarrik dela dirudi eta gainerako juntagailu hautakariak ez dutela lekurik.

Azkenik, nabarmendu behar da, hemen balio nagusiak garbi bereizita eman ditugun arren, askotan ez dela erraza izaten, adibidez, orobatasuna ala hiztunenak diferentzetatik dituen aukerak, zehazki zer adierazi nahi den jakitea. Horrelakoetan ikusten da ongien *edo* juntagailuaren ‘markatugabetasuna’.

**28.5.2.2c** Galde perpausak elkartzen direnean, ‘aukerarena’ izaten da balio nagusia:

- Bi galdera desberdin elkartzeko *edo* da juntagailu hautakari bakarra. Gerta daiteke bi galde perpaus beregain juntatzea (*Trena huts egin duzu edo zer gertatu zaizu hain berandu etortzeko?*) edo bi galde hitz juntatzea (*Ez al diguzu esan behar noiz edo nola joango zaren?*). Modu berean, galde perpausean, galdegai ez diren atalak elkartzeko ere aurkituko dugu (*Zer zerikusi du horrek ezkontuta edo ezkongai egoteko?*).
- Galdera bakarraren bi aukera juntatzeko ere erabiltzen da *edo*; alegia, bi perpaus elkartzen dira, bien artean aukera (galdera) bakarra adierazteko (*Zinemara joango zara edo nahiago duzu etxean gelditzea?*); horrelakoetan *ala* juntagailua ere erabiltzen da. Adibidez, ondorengoan bi juntagailuak azaltzen zaizkigu: *Ez dau inok penseetan, ezkontzia egin bear danian, jazo txaarrekua, ala ona izateko bidia daroian, edo ez* (Frai Bartolome).
- Batzuetan, adierazpen perpausaren ondoren galde perpausa ematen da, tartean *edo* juntagailua delarik, eta bigarren juntagaiak diskurtsoaren harian idazleari sortu zaion zalantza, zehaztapena, gogoeta... adierazteko balioa izaten du: *Mattin izan da ene ardureneko laguna, edo kontrarioa?* (Xalbador); *Bilerara deitu gintuzten, informazioa emateko, edo, beharbada, amore emanarazteko?*

**28.5.2.2d** Sinonimoak elkartuz. Oso sarri erabiltzen da *edo* sinonimoak edo baliokideak izan daitezkeenak elkartzeko. Juntagailu hautakarien artean *edo* bakarrik erabiltzen da balio honetarako. Sinonimia edo baliokidetasuna batzuetan guztizkoa izaten da, baina beste batzuetan ez da hain estua izaten. Adibideak nonahi aurki daitezke, kategoria edo mota askotako juntagaiekin: *Baxenabarrek edo Nafarroa Behereak [...]* (Mitxelena); *Saio euskara edo euskara experimental bat* (Mitxelena); *Zer den grina, edo pasio nagusiena esaten dioguna* (Agirre Asteasukoa); *Aurrez aur ifinten jako betirauna, edo eternidadea* (Añibarro); *Bekatu larri edo mortal* (Agirre Asteasukoa). Askotan bigarren juntagaia lehena hobeto ulertzeko laguntza modura ematen da, edo baita enfasia emateko ere. Gauza edo nozio berari beste era batera deitzen

zaio, eta alde horretatik, esanahiaren aldetik berdintasuna dago, baina bigarren juntagaiak ez du bigarren erreferentzia adierazten —artikulua edo mugatzailea eraman dezakeen arren—, eta komuntadurarako ere singularizat hartzen da. Oro har, sinonimia gehiago erabiltzen da testu idatzietan ahozko jardunean baino. Euskal idazleek behin baino gehiagotan terminoen ulergarritasunaren mesedetan erabili dute, euskalki desberdinetako hitzak emateko, edo erdarazkoaren ondoan euskal hitza emateko: *Bidali edo igorri ziozkaten mandatariak* (Joanategi); *Itzuli zen gibelat edo atzera* (Mendiburu); *Lau Urdiri gomendiozko karta edo guthuna* (Etxeberri Sarakoa).

Sinonimia motako juntadura dugunean, bigarren juntagaiak lehenengotik desberdina den ezaugarriren bat izaten du: batzuetan euskalkia izaten da (*horrela hitz egitea edo mintzatzea*), edo era zabalagoan, hitz desberdina izatea; beste batzuetan erregistro desberdina agertzen da (*felis silvestris catus edo katua*), edo nolabaiteko deskribapen bat edo informazio argigarri bat ematen da: *Enologia edo ardoak egiteko zientzia eta teknika ikasiko du Nahiak*; *Kupoa edo EAEk estatuko administrazioari ordaindu beharreko diru kopurua hitzartu dute*; *askotan edo juntagailuaren aurretik etena eginez*.

Nolanahi ere, nabarmendu behar da bi juntagairen artean baliokidetasuna dagoen guztietan ez dela zilegi izaten *edo* juntagailuaren bidez elkartzea. Adibidez, bigarren juntagaiak edo deskribapenak ematen dituen ezaugarriak ezin badira lehen juntagaikoetatik bereizi, edo ez badakarte berritasunik edo ekarpenik: *\*Aita sainduak edo eliza katolikoaren buruak hitz egin du*; *\*Donostiak edo Gipuzkoako hiriburuak turista asko erakartzen ditu*. Horrelakoetan aposizioetara jotzen da: *Donostiak, Gipuzkoako hiriburuak, turista asko erakartzen ditu*.

**28.5.2.2e** Zenbatzaileak elkartuz. Bi zenbatzaile mugatu elkartzen ditueanean, ‘gutxi gorabehera’ balioa hartzen du *edo*-k. Kopuru zehatzik ez dakigula, baina inguru horretan dabilela adierazten dugu: *Bi edo hiru liburu erosi dituzte*; *Duela hamar edo hamaika urte*. Balio honetarako ere *edo* da erabiltzen den juntagailu hautakari bakarra. Erabilera honek lekukotasun ugari ditu Hegoaldeko testuetan; Iparraldekoetan *bizpahiru*, *hiruzpalau* bezalako lehia du, baina *edo* bidezko zenbatzaile-juntadurak ere azaltzen dira: *Urthean laur*

*edo bortzetan konfesatzen dena* (Axular); *Biga edo hirur bildurik ene izenean* (Leizarraga).

### 28.5.2.3. Ezabaketak

*Eta* juntagailua aztertu dugunean esan dugu emendiozko juntaduran gehiengatant saihestu egiten dela juntagaietan hitz edo elementu berak errepikatzea. Berdin gertatzen da juntadura hautakarian; eta oro har, ia guztian hango jokatibide bera azaltzen da. Gaia ez dugu hemen han adinako sakontasunez azalduko, kasuistika bera juntagailu desberdinekin errepikatzen ez aritzearren.

Juntagaiak postposizio sintagmak direnean, izenak edo izenlagunak errepikatzen badira, gehiengatant ezabatu egingo ditugu eskuineko juntagaian: *Gogo onean edo txarrean etorria* (Mitxelena); *Badoa Rakelen gelara edo estalpera* (Agirre Asteasukoa). Ohart gaitzen, adibide hauetan postposizio sintagma osoak juntatzen direla. Hori da, gainera, joera nagusia *edo*-rekin. Aldiz, *eta*-rekin izenondoan zuzeneko juntadura (*bulego argi eta lasaiak nahi dituzte guztiek*) zen joera markatu gabea, eta sintagmak juntatzen zituen moldearekin (*bulego argiak eta lasaiak nahi dituzte guztiek*) indar berezia adierazten zen.

Juntagaiak perpausak direnean ere emendiozko juntadurako egoera berdinak sortzen dira. Batzuetan aditz osoa —eta beste zenbait elementu— eskas duten egiturak ditugu: hustuketa egiturak azal daitezke (*Uztailean beharbada emaztearekin Indiara joango naiz, edo alabarekin Japoniara*); edo sarritan, juntatzen ditugun bi perpausen artean desberdintasun bakarra *bai* edo *ez* —adierazten den ekintzaren baieztapena eta ukazioa— duten adibideak izango ditugu (*Bihar esango dizut oportetara joango naizen edo ez*), betiere bigarren perpausuan ezeztapena azaltzen dela (*\*Esango dizut ez naizen joango edo bai*). Beste batzuetan adizki laguntzailearen elipsia dugu (*Mendira joango naiz, edo etxean geratuko*), edo perpaus jokatugabeetako ezabaketen kasuistika; hauetan guztietan, emendiozko juntaduraren atalean azaldu ditugun aukera eta molde berak aurkituko ditugu *edo*-rekin ere, hizkera desberdintasunak barne.

28.5.2.4. *Edo X edo Y*

Batzuetan *edo* bi juntagaien aurrean ezartzen da, enfasia emanez. Juntagai horiek edozein kategoriatakoak izan daitezke, edo maila bereko edozein osagai izan daitezke —gogoan izan juntagaiek oro har bete beharreko baldintzez 2. atalean esandakoak—, baina funtzio sintaktiko bera izan behar dute: *Ez dugu ordean guztiek edo bordarik, edo artarldearen erosteko ahalik* (Xalbador); *Ikasi behar dituzu, edo elizara zatozela, edo liburuaz edo bestez baliatzen zarela* (Agirre Asteasukoa); *Ez dira handik ateratzen edo ezkontzeko, edo serora joateko baizik* (Laphitz); *Edo dantzaria haiz, edo ez haiz dantzaria: beste aukerarik ez dago* (Atxaga)<sup>7</sup>. Bi balio nagusi desberdin har ditzakete halako egiturek, eskuinean daraman osagaiaren galdegaitasunaren edo mintzagaitasunaren arabera:

– Aukera adierazten du adierazpen perpausean, galdegaiaren ezkerrean, edo galdegaiaren aposizio diren juntagaien ezkerrean errepikatzen denean: *Harren esana zen, edo padezitu, edo hil* (Gerriko); *Nehor mintzatzen zeikanean, edo disimulatzen zuen, edo zenbait hitz iokolariz [...] ederztatzen duen* (Axular); *Urrunera doana ezkontzera, edo da enganaitu, edo doa engainatzen* (Oihenart); *Edo hilko da biharko, edo hasiko da osatzen* (Kirikiño); *Ahalegin guztiak zuzendu behar dituzue, edo zuen egitasmoa aurrera eramatera, edo ordezko bideragarriak garatzera*. Galde perpauseko galdegaien aurretik ere errepika daiteke: *Nola egingo duzue hobeto, edo lanak banatuz, edo guztiok elkarrekin garatuz?* Baita galde perpaus osoen aurretik ere: *Edo grazia galdu, edo begia galdu? Edo pekatu egin, edo izterra galdu?* (Frai Bartolome).

– Orobatasuna adierazten da beste batzuetan. Bi osagaien artean doanean ere hartzen du balio hau, eta errepikaturik agertzetik sortzen bide da banakaritza ñabardura: *Asko izaten dira ezkonduen artean, edo gurasoen, edo seni-*

<sup>7</sup> Emendioaren baliorako, antzeko enfasia emateko ez da *eta* juntagailua errepikatzen, baizik eta beste zenbait adverbio eta elementu; bereziki, *bai... bai...* moldea erabiltzen da: *Bai Pello bai Miren atzerrian jaiotakoak dira*.

*deen, edo adiskideen erreaguatik, batere gogo bagarik ezkondu zirenak* (Fraibartolome). *Ala, nahiz eta zein* ere aurki daitezke errepikaturik balio honetan.

Nolanahi ere, ez da beti erraza izaten ‘aukera’ edo ‘orobatasuna’ adierazi nahi den zehaztea. Berdin gertatzen zen *edo* bi juntagaien artean kokatzen zenean ere.

Bestalde, perpausen aurrean errepikaturik ere aurki daiteke *edo*, baldintza kutsua hartuz batzuetan: *Edo harrizkoa zara, edo ezin daiteke dei hain amodiotuari ez erantzutea* (G. Arrue). Aukera adieraziz besteetan: *Eta bitarik bat: edo pagetan deust munduak egiten dodana bera gaitik, edo ez* (Añibarro).

#### 28.5.2.5. *X edo*

Juntagai bakarraren ondotik *edo* ematean, bigarren aukera zehaztu gabe uzten da, eta era zabalean ‘gutxi gorabeherakotasuna, zehazgabetasuna, ziurgabetasuna...’ adierazteko erabiltzen da sarri. Antzera gertatzen zen, neurri batean, *eta* emendiozko juntagailuarekin ere. Bereziki Hegoaldeko testuetan azaltzen da. Edozein kategoriatako juntagaien ondoren etor daiteke, eta ahozkoan enklitiko bihurtzen da, aurrekoarekin batera ahoskatuz. Era askotako adibideak aurki daitezke: *Halako masoi usaina edo dariolako* (Mitxelena); *Zertan garen edo jakitera nator* (Agirre); *Zikiro pare bat edo, erretzen dute kanpoan* (Xalbador); *Aita edo itoko zitzaion* (Agirre); *Handik ordu-erdira edo, igaro zen ostalaria etxe aurretik* (Kirikiño); *Nondik zetorren? Jaungoikoak badaki. Azkaindik edo, Saratik edo, bide honek toki askotara jotzen du eta* (Agirre); —*Beraz, beti dabilza itsasoko urak jiran gurpila legez? —Bai edo, eta beste hainbeste jazotzen da eguzkiagaz* (Uriarte); *Itsaspekorik agiri ote zen edo beti itsasora begira* (Oñatibia).

Nabarmendu behar da *partizipioa + edo* ere ager daitekeela, bereziki bizkaierazko testuetan: *Il edo da* (Uriarte); *Gaixotu edo zara zu* (Astarloa); *Geure egiazko irudia atzendu edo zaigu* (Mitxelena). Emendiozko juntagailuarekin horrelakoak ez dira zilegi (\**atzendu eta zaigu*).



Galde perpausetan ere aurkitzen dira halako egiturak: *Zergatik jokatzen duzu horrela? Maite ez nauzulako edo?* Nolabait esatearren, hipotesi moduko galderak egiten dira askotan. Batzuetan, galde perpausarekin batean azaltzen da, bai/ez erako galderetan, indargarri modura, *ala* bezala: *Zer bada, jende handi-mandiak ez al du edaten edo?* (Labaien). *Edo*-ren aurretik etena egiten da horrelakoetan.

### 28.5.3. Edota juntagailua

#### 28.5.3.1. Juntagailua eta juntagaiak

**28.5.3.1a** *Edota* juntagailu hautakariaren osaera gardena da: ‘edo + eta’. Baina juntagailu bakar beregain modura jokatzeko du. Iparraldean jaso diren hiru lekukotasunetan *eta* forma osorik agertzen da; gainerakoetan *ta* forma laburtua, klitikoa, da ageri dena (bereiz, *edo ta*, nahiz elkaturik, *edota*, idatzirik). Ahoskatzerakoan, ohikoena, *eta* enklitiko bihurtzea da, *edo* juntagailuaren arrimura ahoskatuz.

Distribuzioari dagokionez, edo balioei dagokienez, parekotasun handia du *edo*-rekin; baina hura baino askoz gutxiago erabili izan da. xx. mendearen aurretik lekukotasun gutxi daude, eta dauden gehienak Hegoaldekoak dira. xx. mendean Hegoaldeko lekukotasunak bakarrik aurkitzen dira OEHko corpusean. Eta *edo* juntagailuarekiko desberdintasun nagusi bat du: sinonimo edo esanahi bereko atalen artean ez dela azaltzen. Eta zenbatzaileen artean ere ez da agertzen, eta ez dago *X edota* egiturarik.

**28.5.3.1b** Adierazpen perpausetan, perpaus beregainak elkartuz ager daitezke: *Eskua emateko ez du pertza erortzen utziko, edota eskuaren orde ez dio pertza luzatuko* (Orixe). Mendeko perpausak ere elkar ditzake, jokatuak nahiz jokatu gabeak: [...] *gaixo daudelako, edota beren grinak oso moteldurik ez dauzkatelako* (Gaztelu); *Erljio liburuak irakurriz edota errosarioa errezatuz pasatzen zituen orduak*. Perpausa baino txikiagoko kategoriak ere junta daitezke, *edo*-rekin bezala: *Jakintzatik, irakaskuntzatik edo ta erlijiotik hartutako bake-bideak* (Villasante).

**28.5.3.1c** Galde perpausetan ere ager daiteke perpaus beregainak elkartzuz. Batzuetan perpaus bakoitzak bere galdegaia du: *Zer gerta ete zan lurrean, edota zer jazo yakon neskatilleari barruan?* (Erkiaga). Beste batzuetan, aldiz, aukera bakarra osatzen duten galderak juntatzen ditu *edota* juntagailuak: *Karlista zelako idatzi ote zuen Garoa gipuzkeraz edota, alderantziz, Garoa gipuzkeraz idatzi zuelako ote zen karlista?* (Mitxelena). Mendeko galde perpausak —zehargalderak— elkartzuz ere azaltzen da, bakoitzak bere galdegaia duela: *Gure aita ez zen axolatzen nola ari nintzen hazten, edota zein bihozgarbi nintekeen* (Orixe).

Perpausak baino txikiagoko osagaiak elkartzuz ageri denean, aukera bat galdegai ez diren juntagaiak elkartzea da: *Nola dateke, [...], zu hotzak eta goseak edota piztia gaitoen atzapparrek ez hiltzea!* (G. Arrue). Beste aukera, galde sintagmak elkartzea: *Zeren giñoko edota zein esteritako lapurretak egin ete zituan Zorritzok?* (Erkiaga). Azkenik, galde hitz ez diren galdegaiak juntatuz ere aurki daiteke, edo galdegaiari loturiko juntagaiak: *Zer dela onena deritzozue, ni oso oraziui ematea, edo ta bestelaz Jaungoikoaren hitza adiarazteari?* (Beobide).

**28.5.3.1d** Postposizio sintagmak juntatzen direnean, *edota* juntagailuarekin sintagma osoak juntatzea da joera orokorra: *Jakintzatik, irakaskuntzatik edo ta erlijiotik hartutako bake-bideak gizadian nagusiagotzen doaz* (Villasante). Benetan zaila da *edota*-rekin ardatz anitzeko sintagmen juntadura aurkitzea. Adibide askotan *edota*-ren aurretik pausa bat izaten da, eta horrek ere ardatz anitzeko sintagmen juntaduraren aurka egiten du.

### 28.5.3.2. Balioak

**28.5.3.2a** Adierazpen perpausetan *edo* juntagailuak har ditzakeen ia balio guztiak har ditzake *edota*-k, baina ez da erabiltzen sinonimoak edo antzeko izenak elkartzeko; ezta zenbatzaile zehaztuak elkartzeko ere. Honako hauek dira balio nagusiak:

- Aukera balioa: juntatzen diren aukeretatik bakarra gauzatuko dela adierazten du askotan *edota*-k: *Erantzun ere euskalduna naiz edo ta ez naiz euskalduna ta kito* (Azkue).

- Orobatasuna adierazteko: balio hau garbi ikusten den adibideak asko ez diren arren, ondokoetan behintzat *edota*-k orobatasuna adierazten duela dirudi: [...] *bata nahiz bestea edota biak batean, usain egingarri eta sentigarri zirela uste eban Nikanor'ek buru belarri* (Erkiaga); *Egun askotan [...], sekulako erbi mordoa, edota eper-saila etxeratzen ebana* (Erkiaga).
- Lehenaren aldaera da bigarren juntagaia, edo lehen esandakoa zehazteko balio du bigarrenak: *Nik ez dakit nor zaitudan, edota, baldin badakit, zeharbidez dakit* (Mitxelena); *Euskara, uste denez, irla berezia da, edota zehatzago esan, genetikaz berezia* (Mitxelena); *Hilabete osoa jateke pasatzea, edota, jatekotan, eskuera daukaten hartatik jatea* (Berrondo). Edo, nahiko antzekoa, lehen juntagaia beste modu batera esateko, hura azaltzeko: *Haritza zozpela beretarikoa omen, edota, beste nolarebait esan, ezpalak bere egurra dirudi ta egurrak bere ezkurra, edo, [...], nolako zura, halako ezpala* (Zaitegi).
- Lehen juntagaien esan denari baldintza-kutsua emateko, batzuetan, *bestela* diskurtso markatzailearen laguntzaz azaltzen da: *Aska nazazue, edo ta bestela egingo diat nik ez-egitekoren bat gaur hemen* (M. Lekuona).

Nolanahi ere, *edo*-rekin gertatzen den bezala, batzuetan ez da erraza *edota* juntagailuak zein balio hartzen duen ikusten.

**28.5.3.2b** Galde perpausetan, aukeraren balioa da nagusia. Kasu desberdinak aurki ditzakegu:

- Bi galdera desberdin elkartzen ditu *edota* juntagailuak: *Zertako bear yunagu toki oberik, edota zer ibili bearra zeukenagu toki billa irudimenez [...]*? (Orixe). *Edota* da, pare-parekoa duen *edo*-rekin batera, horrelako egituretan ager daitekeen juntagailu bakarra.
- Galdegai diren juntagaiak elkartzen ditu *edota*-k: *Lehenaldi luzea, igarota al zen luze, edota igarotzen ari zela?* (Orixe). Horrelakoetan *ala* juntagailua du lehian.
- Batzuetan, juntagaiak itxuraz adierazpen perpausa eta galde perpausa ditugu: *Izan zaitezte gizonen baino Jaungoikoaren beldurrago; edota nahiago*

*duzue Golo horri obeditu Jaungoikoari baino?* (G. Arrue). Benetan, ordea, lehen perpausetik ondoriozta daitekeen zerbait litzateke bigarren juntagaia. *Ala* juntagailuarekin ere aurkitzen dira horrelako erabilerak.

### 28.5.3.3. Ezabaketak

Batez ere aditz-ezabaketak dira *edota* juntagailuaren adibideetan atzeman daitezkeenak. Ezabaketok —bai aditz osoarenak bai laguntzailearenak ere— eskuineko osagaien egiteko joera ageri da oro har: *Oihalak orrazten ditu orrazi arantzatsuz, edota sutan egosten ardo goxoa indarra gutxitu dakion* (Ibinagabeitia); *Gainera, aurpegia garbitu nahiko zenutela... edo ta dutxa bat hartu* (Labaien). Ezabaketei dagokienez, *eta* nahiz *edo* juntagailuetan ikusi dugun jokabidea agertzen du *edota* juntagailuak ere.

### 28.5.3.4. Tokia

Bi juntagairen artean bakarrik ez, juntagai bakoitzaren aurrean errepikaturik ere aurki daiteke, batzuetan *edo... edota...* bezala, besteetan juntagailu indartua emanik bietan, *edota... edota...* Ondoko adibideetan ‘aukera’ balioa adierazten du errepikaturiko juntagailuak: *Zerura joateko bi bide bakarrak daude; edo pekaturik ez egitea, edo ta penitentzia* (G. Arrue); *Jauna, harriturik nago, ta zerzaz gehiago harritu, nik ez dakit: edo ta zure ontasun, ta pazientiaz, edo ta nire lotsagabeko atrebimentuaz* (Kardaberaz).

## 28.5.4. *Ala* juntagailua

### 28.5.4.1. Juntagailua eta juntagaiak

**28.5.4.1a** Formaren aldetik aldaerarik ez duen juntagailu honek ere maila guztietako atalak elkar ditzake. Juntagailu hautakaria delarik, gramatikariak

saiatu izan dira *edo*-rekin dituen desberdintasunak eta antzekotasunak zedarritzen. Horretarako, lehenik zer perpaus motatan ager daitekeen aztertu behar da, eta zer baliorekin erabili izan den.

**28.5.4.1b** Galde perpausetan sarri agertzen da *ala*. Juntatzen diren atalak perpaus beregainak nahiz mendekoak (zehir-galderak) izan daitezke: *Zinez ote da zure eginbide mina, ala hortan ote da zure atsegina?* (Xalbador); [...] *Jesus Krist elkhiten deia zelutik, ala [...] han ere dago?* (Belapeire); *Ez dakit bertan jaio den ala datorren zerutik* (S. Mitxelena); *Zelan juzgauko dau, laguna deunga dan, ala ona dan?* (Frai Bartolome). Zehir-galderak juntatzen direnean, batzuetan baiezkotasunaren eta ezezkoatasunaren arteko hautua eskaintzen da, eta orduan amaieran *ala ez* erabili ohi da: *Jainkoak badaki sendatuko zaren ala ez* (Hiribarren); *Ez zakiat auzia irabazi duan ala ez, baina hi ez haiz senargai ona Malentxorentzat* (Agirre); *Ez ezazula begira ea liburuaren egi-lea jakinsuna den, ala ez* (Xurio).

Beste batzuetan sintagmak juntatzen ditu, askotan galdegai direnak: *Ametza ala egia da hau?* (Kardaberaz); *Egiguzu prediku bat, xuxen ala makur mintzo zaren jakin dezagun* (Laphitz); *Berehala ikusi behar da ea hura altxarazi duen kausa, barnekoa ala kanpoko den* (Haraneder); *Orain, orde, ez digu axola Cayatte zuzen ala oker dagoen jakiteak* (Mitxelena). Ildo bertsuari, galdetzailen aposizio modura ageri diren atalak elkartzuz ere sarri azaltzen da *ala*: *Zer egin du Donostiak 70 urte hauetan, galdu ala irabazi?* (Mitxelena); *Zer zenuke nahiago? Berehala zerurat joan, ala [...] arimaren galtzeko arriskuan bizi?* (Laphitz); *Zein zaldi da on edo hobea, geldirik eta alferrik bere plazerera dagoena, ala ibiltzen eta manaiatzen dena?* (Axular); *Beriala igarriko dautzu zein markakua dan, Buick ala Chevrolet ala Citroen ala Amilkar ala...* (Kirikiño). Azken adibide honetan, gainera, bi elementu baino gehiago juntatzen dira *ala*-ren bidez.

Baina sintagmen juntadura gauzatzen duenean, zenbaitetan galdegai ez diren elementuak ere agertzen dira juntaturik galde perpausetan: *Gaztek ala zaharrek zer egin behar dute ilunduz geroztik?* (J. P. Arbelbide); *Igandeak ala bestak nola behar dira begiratu?* (J. P. Arbelbide). Batez ere Iparraldeko autoreetan aurkitzen dira halako adibideak; *eta* juntagailuaren pareko balioa agertzen du halakoetan.

**28.5.4.1c** Adierazpen perpausetan ere erabiltzen da *ala*, batez ere Iparraldeko testuetan, baiezko nahiz ezezko perpaus bateko bi osagai edo gehiago elkartzuz. Osagaiok ez dira perpaus jokatuak izaten. Hona adibide batzuk: *Eta gizona gizon da, eta gizalegea gizalege, erdaraz ala euskaraz ari* (Mitxelena); *Hitz batetik ala bertzetik has dezazun solasa, zure eleak beti xuxen adosturen dira* (J. P. Arbelbide); *Handik aitzina han zagon, izan dadiela euri ala ateri, uda ala negu, gau eta egun* (Joanategi); *Uda ala negu, gauaz ala egunaz, edozein tenorez, eriaeren meneko zen, beti* (Barbier); *Nor nahi har dezagun: ez jaun ala ba jaun* (Hiriart-Urruti). Hiriart-Urrutiren adibideetan, esaterako, *ala*-k elkartzen dituen sintagmak askotan mintzagai den osagai baten aposizioan doaz, mugagabeen oro har: *Frantses ala arrotz, jakintsunak hitz bereko dira: bekatu litakela eskuara gal ladin* (Hiriart-Urruti); *Jaun argitu bat, mediku ala bertze, ahalge behar liteke holakorik iresteko...* (Hiriart-Urruti).

Bestalde, ohartzen gara, postposizio sintagmak juntatzen ditugularik, ohikoa sintagma osoak juntatzea dela: *Jende xeheak ez duela bihotzez ala buruz nehoi zorrik* (Hiriart-Urruti). Alde horretatik, aurreko juntagailu hautakarien jokamolde bera agertzen da; eta haietan bezala, adjektibo, erakusle edo zenbaitzaileak egoteak izen-juntaketa errazten du: *Trufa serorez, trufa gizon ala emazte fededunez; trufa otoitzaz* (Hiriart-Urruti).

#### 28.5.4.2. Balioak

**28.5.4.2a** *Ala* juntagailua galde perpausetan erabiltzen denean, elkar baztertzen duten aukerak juntatzen dira: *Hilak ala biziak daude?* (Iturzaeta); *Ez dakit zinemara joango naizen ala etxean geratuko naizen*. Juntagaien artean bat aukeratu behar dela adierazten dugu, eta gainerakoak baztertu. Horrexegatik dira askotan antonimoak *ala*-k elkartzen dituen osagaiak: “bai ala ez”, “pobre ala dirudun”, “bertan jaio den ala datorren zerutik”... Baina berez ez da nahitaezkoa kontrakoak edo antonimoak izatea. Bi osagai baino gehiago elkartzen direnean nabarmentzen da hau argiena. Aurretik eman dugun adibide bat berriro ekarriz: *Beriala igarriko dautzu zein markakua dan, Buick ala Chevrolet ala Citroen ala Amilkar ala...* (Kirikiño). Buick, Chevrolet, eta abar ez dira

kontrakoak, baina marka batekoa izan behar du autoak, eta marka hori zein den aukeratzea da kontua. Hiztunak desberdintzat ditu, beraz, aurkezten dituen aukerak.

**28.5.4.2b** Adierazpen perpausetan, ostera, berdintsu zaizkigun aukeren aurrean gaudela adierazten dugu *ala* juntagailuaren bidez. Horrelakoetan hiztunak ez du desberdintasun handiegirik ikusten aukera baten eta bestearen artean; ez zaio axola bat nahiz bestea hautatu: [...] *eskualdun giristinotasunaz ala jazko haizeaz berdintsu axola dutenak* (Hiriart-Urruti); *Murde ala jaun bardintsu zautzue, ez dea ala?* (Hiriart-Urruti). Orobatasuna adierazten da adibide hauetan, aurretik aztertu ditugun juntagailu hautakariak adierazpen perpausetan genituenean bezala; *berdin(tsu)* hitza azaltzeak ere laguntzen du interpretazio hori izaten. Areago, zenbaitetan multzo bateko talde desberdinak adierazteko-edo balioa duela dirudi, batez ere *guztiak*, *oro*, *noiznahi* eta antzeko sintagmen aposizioan doazenean *ala*-k elkartzen dituen osagaiak: *Aski zen haren ikustea, noiz nahi, astelegun ala igande, bere artalde maitearen erdian* (Hiriart-Urruti).

### 28.5.4.3. Ezabaketak

Juntagaietan errepikatzen diren elementuak ezabatzeko aukerari dagokionez, juntagailu hautakari guztiek antzeko jokabidea dute (ikus *edo* juntagailuari buruz esanak); eta, orokorrean, emendiozko juntaduraren atalean aipatutako joerak gainerako guztietarako baliagarri dira. Baina *ala* juntagailuaren kasuan, bada oso sarri azaltzen den molde bat: ezkerreko perpausa osorik dago, eta galde perpausa da; *ala* juntagailuaren ondoren, ezkerreko galdegaiarekin aukeran jartzen dugun elementua bakarrik daukagu: *Eure burutatik hoa, ala aginduta?* (Kirikiño); *Elizgizonak bakarrik ote dira eliza ala elizgizonak eta beste zenbait?* (Mitxelena); *Galdegiten diogu atxoari etxetiar direnez, ala etxezain, ala etxearen jabe* (J. Etxepare). Baiezkotasun/ezezkotasuna ere izan daiteke galdegai eta aukeragai: *Egia hauek sinesten ote ditut, ala ez?* (Baratzart); *Ez zuen begiratzten [...] baizik irabazi edo atseginen bat emango zion, ala ez* (G. Arrue). Bestalde, bi postposizio sintagma elkartzen direlarik, izena

errepikatzen bada, eskuineko osagaien egiten da ezabaketa: *Hauta dezagun, bada, behin eta betiko zer nahi dugun: euskara garbia ala bizia* (Mitxelena); *Zoin laster asetzen giren solasik arinenez ala pizuenetz* (Hiriart-Urruti).

#### 28.5.4.4. Tokia

**28.5.4.4a** Orain arteko adibideetan, elkartzen dituen osagaien artean aurkitu dugu *ala* juntagailua. Baina juntagai bakoitzaren aurrean kokatua joan daiteke (*ala X, ala Y*) eta galde perpausetan osagai bakarraren ondoren zintzilik ere geratu ohi da (*X ala*), *eta* eta *edo* juntagailuekin gertatzen zen bezalaxe.

**28.5.4.4b** *Ala X, ala Y*. Galde perpausuan, galdegai bakoitzaren aurrean ezar daiteke, aukeraren balioarekin: *Galdegin zioten zein nahi zuten libra ziozoten bietarik, ala Jesus [...] ala Barrabas* (Larregi); [...] *aurtiki zioten zenbait ur burutik behera. Eta ez dakigu ala ustekabeen, ala berariaz* (Axular); [...] *ez dabela jakingo heriotzako ordua artean, ala bekatu mortala ala beniala egin daben* (Frai Bartolome); *Eta beldurraren beldurrez ez zekien zer egin ere: ala ohe azpian ezkutatu ala ate-osteko zuloatik begiratu* (F. Bilbao). Ondorengo adibidean, zehar-galderak dira galdegai: *Ez dakigu orain, ala sakeletik igarri barik atera ote eutsozan ala gizon hark berak, joskinari eman ote eutsozan* (Kirikiño). Batzuetan galdegai diren bi elementu baino gehiago ere ager daitezke: *Ala tiro batez, ala urean, ala gaitzak bet-betan ezagutza kendurik hilen naizen, nihork ezin erran* (Duvoisin); *Egiazko pazientak ez du behatzen norengandik heldu zaion, ala heldu zaion goragokoagandik, ala berdinekoagandik, ala beheragokoagandik, ala prestuagandik, ala gaixtoagandik* (Xurio).

Adierazpen perpausetan ere azaltzen dira molde honetakoak, askotan balio banakaria emanez. Juntagaia, bestalde, edozein kategoriatakoa izan daiteke: [...] *eginbide hori, mendez mende beti errepikatu eta finkatu izan dute ala aita-sainduak ala kontzilioek ala enperadore, errege eta gobernamentu suertez guztiek* (J. P. Arbelbide); *Ala mendietan, ala zelaietan, non-nahi ongi heldu da* (Duvoisin); *Ala jan dezazun, ala edan dezazun, ala besterik zer nahi egin dezazun [...] oro Jainkoaren glorietako egizu* (Uscara libria). Beste batzuetan,



emendiozko juntagailuaren pareko balioa har dezake: *Ala aitorensemek, ala apezek, bai eta apezpikuek berek entsegu franko badarabilte herriko mintzaira zahar ederra xutik atxiki beharrez* (J. P. Arbelbide). Eta balio bera hartzen du, galde perpausetan egon arren, galdegai ez diren juntagaien aurrean ezartzean: *Nondik jali, asko herri ttipi erromesetan, ala mutikoen ala neskatoentzat eskola berezi baten egiteko [...] dirua?* (Hiriart-Urruti). Hauetan guztietan orobatasuna adierazten da, juntagai bat edo bestea izan axola handirik ez duela.

**28.5.4.4c** *X ala*. Aurretik *eta* nahiz *edo* juntagailuekin ikusi dugun bidetik, *X ala* motako egiturak ere badira, baina ingurune sintaktikoen aukera mugatuagoa da<sup>8</sup>. *Ala* juntagailua bai/ez erako galde perpausen ondotik zintzilik uzten dugu batzuetan, batez ere bizkaierazko testuetan. Orduan, aurretik esan denetik, edo dugun informaziotik abiatuz, nolabaiteko ondorio edo hipotesi bat aurkezten da *ala* juntagailua amaieran duen galderaren bidez: *Egun ederra daukazu basorako. Perretxiko bila zoaz ala?* (Kirikiño); *Zer dinostazu? Ez-beharren bat jazo jatzu ala?* (Otxolua); *Zer, zu ere Galilearra zara ala?* (Iraizoz). Aurreko adibideetan, egoera zein den kontuan izanik, hiztunak bere ustez aukera sendoenak liratekeenei buruz galdetzen du ('perretxiko bila joatea'; 'ezbeharren bat gertatu izana'; 'galilearra izatea'), nahiko ziurtzat dituen uste horien zuzentasunaz. Baina beste askotan 'hiztunarentzat aukera okerra, sinesgaitza edo ezustekoa' dela adierazi nahi izaten da, galdera erretorikoen kutsuarekin, enfasia emanaz: *Zer nahi duk ba, putz eginda aberastea ala?* (San Martin); *Zer ba, ama birjina-edo agertu zaizu ala?* (Bitaño); *Gure hizkuntzaren egoera larriak ez zaituzte nahigabetzen ala?* (Mitxelena). Batzuetan *ala* ez da amaieran ezartzen, perpaus barnean aditzaren ondotik baino: *Ez zaituedaze ala zuek be ipuinzale?* (F. Bilbao).

Batzuetan, antzeko balioarekin, *ala* galde perpausaren hasieran agertzen da: *Zertatik sortu da iskanbila hau? Ala demonioak yabiltzubez barruan?* (Otxolua); *Bakotxak bere berri daki; nik neure. Ala nahuzue aitor dezazuetadan*

<sup>8</sup> De Rijckek (2008: 848) aipatzen du, *X ala* motako egituren erabilera-esparru mugatuagoaren atzean juntagailu honen balioa egon daitekeela, *ala*-k gehienetan elkar baztertzen duten bi aukera edo gehiagoren artean hautatzea eskatzen baitu.

*egia?* (Hiriart-Urruti); *Bihar hondartzara joango gara. Ala beti zuk nahi duzuna egin behar dugu?* Horrelakoetan diskurtso markatzaileen moduko erabilerak izango genuke.

### 28.5.5. Beste molde batzuk

**28.5.5a** Juntaduraren atalaren hasieran saiatu gara juntagailuak gainerako elementuetatik —menderagailuak, diskurtso markatzaileak— bereizteko irizpideak ematen. Esan dugu emendioaren, hautakaritzaren edo aurkaritzaren balioak beste molde edo egitura batzuen bidez ere lor daitezkeela: alborakuntza eta diskurtso markatzaileak erabiliz; lotu nahi diren elementuen aurretik adberbioak eta beste zenbait elementu errepikatuz; etab. Gramatiketan, batzuetan, elementu horiek juntagailutzat hartu izan dira. Baina bai EGLUn, bai hemen, bestelako ikuspegia defendatu dugu. Nolanahi ere, juntadura hautakarrira gehiena hurbiltzen diren elementuak azalduko ditugu jarraian.

**28.5.5b** *Nahiz/Zein*. Tradizioan mendebaldeko testuetan agertu izan dira bereziki. Areago, *zein* bizkaierazko testuetan bakarrik aurkitu dugu. *Nahiz*, bizkaierazko testuetan, *nai* aldaeran azaldu ohi da sarri.

Bi elementu hauen izaera aztertzeke unean, bada oso kontuan izan beharreko ezaugarri bat: biak ere ez direla diskurtso markatzaileen laguntzan ageri, baina juntagailuekin batera ager daitezkeela. Ondorengo adibideetan *eta* emendiozko juntagailuarekin eta *edo* hautakariarekin batera azaltzen zaizkigu: *Nahiz ardoa, nahiz ura edo nahiz petrolioia, edozer behar eban egarriak itoko ez baeban* (San Martin); *Nola nahi den dela, begiratu behar da ihardukitzetik eta etsaiaren akometatzetik, nahiz dela etsai hura zure berdin, nahiz handiago, eta nahiz ttipiago* (Axular). Hirugarren atalean (§ 28.3 “Juntadura eta menderakuntza”) emandako irizpideak kontuan hartuz, juntagailuekin batera agertzeak diskurtso markatzaile direlako baieztapenera eramango gintuzke. Alde honetatik, *dela...dela.../ bai...bai...* eta antzeko formulen pareko lirakeke, hauek ere izen sintagma, adizlagun, perpaus jokatu gabe edo mendeko perpaus jokatu gabe aurrean ezartzen direnean banakaritza balioa adierazten baitute.

*Nahiz eta zein* erabiliz elkartzen diren osagaiak perpausa baino kategoria txikiagoak izaten dira oro har: *Beti bizi izan dira asko alperrak [...] euren ez den gauza atrapatetan zuhurrak: basoak nahiz piztiak, harriak nahiz lurrak* (E. Azkue); *Martinek arrazoia eduki zein ez eduki...* (Arrese Beitia); *Eta hitz bategen, ingurukoak gehitzen, gutxitzen nahiz aldatzen bazaitzkie, ezin lehengoan irauten* (Mitxelena). *Ala* juntagailua bezalaxe, aposizioan doazen sintagma absolutu mugagabeak elkartuz ere aurkitzen dira: *Erbi zein koneju, meriendatxo bat eman beharko deustak behintzat gaur adar-jotze honen ordeztan* (F. Bilbao); *Beti agurrik zintzo eta beroena, aberats zein txiro, guztientzat* (F. Bilbao).

Balioari dagokionez, ‘orobatasuna’ adierazten da nagusiki *nahiz* eta *zein* duten egituretan, hiztunari edo idazleari aukera bat edo bestea berdintsu zaiola agertuz: *Urliari nahiz sandiari galdetuaz ez dugu auzi hau garbituko* (Villasante); *Ikusiko duzue zein polito ikasiko deutsuen aita gurea nahiz beste edozein leziño* (F. Bilbao); *Gure aldikoa izan balitz, gure gisako gizona eta idazlea izango genukeen, hobeia nahiz kaxkarragoa, baina antzekoa eta kidea* (Mitxelena); *Baina, gure esanak gora-behera, gazteok bihoaz aurrera, gurekin nahiz gure gainetik* (Lizardi). Balio hau *edoleotalala* juntagailu hautakariak ere hartzen dute, eta batzuetan adibide berean orobatasuna adierazteko juntagailu hautakari horiekin txandaturuz aurki ditzakegu: *Hizkuntza bat edo bestea jakiteak, ongi ala gaizki, hala nahiz honela mintzatzeak, Pygmalion ez da gure artean ezaguna, larru-azaleko koloreak baino gehiago batzen eta bereizten gaitu* (Mitxelena).

Hala ere, batzuetan badirudi ez dela ‘orobatasuna’ adierazten, baizik eta ‘aukera’ baliotik gertuago dagoela: [...] *ez dela berdin, asmatzea batek bere arteko grina edo inklinazio txar karidadearen kontrakoa, zein karidadean huts egitea* (Añibarro). Azken adibide honetan *eta* emendiozkoaren pareko dela esan go genuke.

Postposizio sintagmak elkartzen dituztenean, juntagailu hautakariak bezalako jokaera erakusten dute, eta sintagmak osoak azaltzen zaizkigu gehienetan *nahiz* eta *zein*-ekin: *Ikusbide ederra zegoen zeruan zein lurrean, inguru guztietan* (Etxeita). Ardatz izenak zuzenean juntaturik dituzten adibideak ere agertzen dira tarteka: [...] *behartu ditu azkenean linguistak, hizkuntzalariak,*

*beste jakiteetara, inguruko nahiz urrutikoetara, begiak iraultzera* (Mitxelena). Horrelakoak errazteko baldintzak xehetasun handiagoz azaldu ditugu *eta* emendiozko juntagailuaz aritu garenean, eta juntagailu guztietan errepikatzen dira: pluralekoak izatea; determinatzailezat zenbatzailea edo erakuslea hartzea; bi izenei dagokien izenondo edo izenlagunak edukitzea; eta abar. Hona adibide batzuk: *Gizon nai giza-aldra bakotxak besteakazko artu-emonetan...* (Eguzkitza); *[...] hosto nahiz orbel erorietan lotsati* (Azurmendi); *Mila eta handiak badira ere hemengo haitz zein mendiak* (Arrese Beitia).

Elementu hauek hartzen duten tokiari dagokionez, nahiz eta orain arteko adibideetan *nahiz* eta *zein* elkartzen diren bi osagaien artean kokaturik ikusi ditugun, osagai bakoitzaren aurrean errepikaturik ere ager daitezke, balio banakaria hartuz; eta elkartzen diren osagaiak bi baino gehiago ere izan daitezke. Baina ez dira perpaus askeak izaten, osagai edo elementu txikiagoak izaten dira ‘juntagaiak’: *Nahiz frantsesez, nahiz alemanez, nahiz ingelesez, mundu guztiko liburuetan topetan ditu berak ikasitako berbak* (Oskillaso); *Nahiz txantxetan zoazela, nahiz benetan zoazela, berdin berdin erreko zaitu hango suak* (Astarloa); *Zein bekatu guztia ezkutatu, zein estalgarriekin eskusatu, oro bat da* (Mogel). *Nahiz* eta *zein*-en kidetzaren lekuko, txandaturik ere ager daitezke bata osagai baten eta bestea bigarren osagaiaren aurrean: *Aritx maitea nahiz dela osasunaz, zein gaixo txarretan, nahibagez hondaturik, zein atseginetan* (Etxeita).

Bestalde, juntagailu batzuek —*eta, edo, ala*— bazuten aukera juntagai bakarren ondoren azaltzeko, bigarren juntagairik gabe (*Miren eta etorri dira*), baina *nahiz* eta *zein* ezin dira juntagai bakarren ondoren zintzilik utzi. Ondorengoak bezalakoak ezinezkoak dira: *\*Edozer jango luke, legatza nahiz... / \*Edozer jango luke, legatza zein...*

**28.5.5c** *Ezpa*. Antzinako autore batzuek, hala nola Etxepare, Leizarraga edo Pouvreaux, *ezpa* erabili izan dute juntagailu hautakari bezala, perpausetik beherako atalak juntatuz; gainerakoan badirudi *edo*-ren distribuzio bera duela (bi zenbatzailearen artean edo bi sinonimoren artean koka daiteke; bai eta bi galde hitzen artean ere). Dena den askotan ez da batere garbi ikusten *ezpa* juntagailu hautakari den ala *ezpada*-ren baliokide. Nolanahi den, adibide argi

samarrak iruditzen zaizkigu ondokoak bezalakoak: *Eta lehenik, gauza klaroa da, ezen Iainkoaz ordenatu ezpa manatu etzaikun guzia, gure libertatean dela* (Leizarraga); *Zer axola duzu hau hunelako ezpa horrelako izaitez, edo hura hunela ezpa horrela haritzeaz edo mintzatzetzaz?* (Pouvreau).

### 28.5.6. Balioak eta juntagailuak: laburpena

Hautakaritzaren atalaren hasieran esan dugu, euskararen gramatiketan juntadura hautakaria aztertu izan denean, arreta berezia jarri dela askotan *edo* eta *ala* juntagailuen erabileran, eta dituzten bereizgarrietan. Esan izan direnetako batzuk ere ekarri ditugu. Atalean zehar juntagailu bakoitzaren nondik norakoak xehetasun handi samarrez azaltzen ahalegindu ondoren, honako hau da juntagailu hautakarien eta har ditzaketen balioen ikuspegi orokorra.

**28.5.6a** *Edo* da juntagailu hautakari bakarra:

- bi sinonimo juntatzeko: *garbitasun eta kastidadea*.
- bi zenbatzaile zehaztu juntatzeko, galde perpausetan ez bada: *bi edo hiru liburu*.

**28.5.6b** *Edo* eta *edota*, biak ager daitezke ondorengo ingurune sintaktiko eta balio haueetan:

- Adierazpen perpaus jokatuak elkartzuz. Askotan murriztapen-kutsua (*edo behintzat, edo bederen*) adierazten du juntagailu hautakariak. Orduan bigarren juntagaiak ez du egiaz aukera desberdintasuna adierazten, baizik lehenak adierazten duenaren aldaeratzat edo hartzen da: *Andonik esan du bilerara etorriko dela edoledota bestela txostena bidaliko duela*.
- Adierazpen perpausetan, perpaus jokatugabeak edo sintagmak elkartzuz, ‘aukera’ adierazteko: *Hil edo biziko auzia dela esan digu; Erantzun: euskalduna naiz edota ez naiz euskalduna*. Alde honetatik azken urteotan hedatu den joerak, hau da, bi antonimoren (kontrakoa adierazten duten bi hitzen) artean *ala* juntagailua ezartzeak (*hil ala biziko auzia*), ez du literaturan tradizioirik.

- Galdera desberdinak adierazten dituzten galde perpausak edo bi galde hitz juntatzeko: *Ez al diguzu esan behar noiz edo/edota nola joango zaren?; Tre-na huts egin duzu edo/edota zer arraio gertatu zaizu hain berandu heltzeko?*
- Galde perpausetan, galdegai ez diren juntagaiak elkartzeko: *Zer zerikusi du horrek ezkondata edo/edota ezkongai egoteko?*

**28.5.6c** *Edo eta ala*, biak ager daitezke ondorengo ingurune sintaktiko eta balio hauetan:

- Bi perpaus elkartzen direnean, bien artean aukera (galdera) bakarra adieraziz: *Zinemara joango gara edo/ala nahiago duzu etxean gelditzea?*
- Galde perpausean, galdegai diren atalak elkartzeko: *Zer hartuko duzu, ardoa edo/ala sagardoa?* Bi juntagailuak erabiltzen dituzten euskaldunentzat edo “koine” bat erabiltzen ohituak diren idazleentzat, normalagoa da hala-koetarako *ala* hautatzea. Ohart gaitzen, bestalde, aurreko adibideak ‘aukera’ balioa hartzen duela, juntagai baten edo bestearen arteko aukera adierazten dela (*ardoal/sagardoa*); eta balioa bera da edozein juntagailu (*ala* nahiz *edo*) erabiltzen delarik ere.

**28.5.6d** *Edo eta ala* (batez ere ipar-ekialdean):

- Biak agertzen dira perpaus jokatugabeak eta era guztietako sintagmak (perpaua baino txikiagoak) juntatuz ‘orobatasuna’ adierazteko, juntagaien artean bata zein bestea berdintsu zaigula aditzera emateko: *Hizkuntza bat edo bestea jakiteak, ongi ala gaizki, hala nahiz honela mintzatzeak [...] larru-azaleko koloreak baino gehiago batzen eta bereizten gaitu* (Mitxelena). Eginkizun honetarako *nahiz* eta *zein* ere erabiltzen dira Hegoaldean, baina esan dugu diskurtso markatzaileen ezaugarrietatik gertuago daudela.

### 28.5.7. Aditzarekiko komunztadura

Emendiozko juntadura aztertu dugunean, esan dugu *eta*-k juntagailuen batuketa bideratzen duela aditzarekiko komunztadurari dagokionez. Baina juntagailu

hautakarien ‘oinarrizko balioa’ ez da batuketa edo gehiketa. Juntadura-egiturak kasu bakoitzean bideratzen duen balioak eragin zuzena du aditzarekiko komunztaduran; zehatzago esateko, balio horietako bakoitzak erreferentziak ezartzeko unean duen jokamoldeak du eragina. Juntadura hautakarian aipatu ditugun balioek —aukera, orobatasuna, sinonimia— eragin handiagoa dute erabiltzen den juntagailu hautakariak —*edo, ala, edota*— baino.

Aditzarekiko komunztadurari dagokionez, numero komunztadura eta pertsona komunztadura aipatu ditugu. Sinonimia —estua edo zabalxeagoa— dagoeanean, adibidez, hirugarren pertsonako juntagaiak erabili ohi dira, eta juntagai horiek singularrekoak direnean, aditzarekiko komunztadura ere singularrekoa izan ohi da: *Aurrez aur ifinten jako betirauna, edo eternidadea* (Añibarro); *Karta edo gutuna helarazi didate*. Eta oro har, edozein baliorekin ari garelarik ere, juntadura hautakarian singularreko komunztadura da nagusi hirugarren pertsonarekin: *Jon edo Andoni etorriko da; Mirenek ala Joxepak esan dizu? Aukeraren balioak erraztu egiten du komunztadura hori. Orobatasuna adierazi nahi denean, bide desberdinak aurki daitezke: *Neguak, edo goseak, edo ur eskasiak, apalduko zuen/zuten esploratzaile gazte haien harrotasuna*. Beste batzuetan, juntagailu hautakariaren bidez emendioaren gertuko adierak azaldu nahi direnean, pluraleko adibideak aurkituko ditugu: *Euskal Herria, edo Espainia edo Frantzia edo honelako beste edozer, hitz bat baino gehiago dira* (Mitzelena). Nolanahi ere, gogoan izan ez dela beti erraza izaten adibide bat zehazki zer baliorekin esan nahi izan den jakitea.*

Lehenengo edo bigarren pertsonako juntagaiak azaltzen direnean, ordea, zailantza handiagoak izaten dira: *Zu ala ni joango ????*; *Zuek ala ni joango ????* Tradizioan badira horrelako hautakaritza-juntaduretan plurala azaltzen duten adibideak: *Zeuk ala neuk hasiko dugu erregua?* (Arrese Beitia); *Zuk ala nik nola dakikegu lege batek zer hedadura duen* (J. P. Arbelbide). Baina badira bestelakoak ere. Halakoetan, sintagma singularizat hartzen da eta, pertsona komunztaduraz den bezainbatean, bigarren sintagmak agintzen du: *Zu ala ni joango naiz?*; *Zuek ala ni joango naiz?*; *Orain ez dakit, Jauna, zu edo ni aldatu ote naizen* (Xalbador). Beste aukera bat perpausa bi zatitan banatzea da, komunztadura arazorik sortzen ez duen egitura hautatuz: *Nor joango da, zu*

*ala ni?; Nor joango da, zuek ala ni? Tradizioan ere badira horrelako adibideak: Eztabaida honetan, nork galtzen duela deritzok, hik ala nik? (Zaitegi); Gaur ikusiko nor helduko den hobeki, zu otoitzean ari izanik, ala ni dantzan jostaturik (Barbier). Jakina, perpaus juntadura garbiaren bidez ere egin daitezke horrelako itzuliak: Zu joango zara, ala ni (joango naiz)?*

## 28.6. Aurkaritzako juntadura

### 28.6.1. Sarrera

**28.6.1a** Aurkaritzako juntaduran bi juntagaien arteko nolabaiteko kontraktasuna adierazten da, eta gehiena erabiltzen den juntagailua *baina* da: *Garaiz jaiki naiz, baina berandu iritsi naiz lanera; Uzta ugaria da, baina langileak gutxi dira*. Nolanahi ere, hizkuntzan aurkaritzaren balioa beste molde batzuekin ere lor daiteke. Alborakuntza hutsa bera, esate baterako, nahikoa izan daiteke inoiz horrelako elkarketa bideratzeko: *uzta ugaria da, langileak gutxi*. *Eta* juntagailuak ere —adiera desberdinetara irekia dagoen oinarrizko juntagailua izaki— nolabaiteko aurkaritza adierazten duen juntadura gauzatu dezake: *Uzta ugaria da eta langileak gutxi*. Horrelakoetan, noski, juntaturiko perpausak erakusten duten kontrako esanahiari berari zor zaio aurkaritza balioa, ez alborakuntzari edo *eta* juntagailuari.

Berez eta berariaz aurkaritza adierazten duen *baina* bezalako juntagailu batek eta beste molde hauek duten desberdintasuna argi ikusiko dugu ondorengo adibideekin. Aldera ditzagun ondoko bi perpausak: *Gaztea da, eta langilea; Gaztea da, baina langilea*. *Eta* juntagailua erabiliz gauzatzen den juntadura aski irekia da balioaren aldetik, eta testuinguruaren argitara ulertu beharko da: aurkaritza-kutsua duena izan daiteke, jakina; baina baita emendiozko soila ere, hau da, *gazte* izateari *langile* izatea besterik gabe gehitzen diona; eta are ondoriozkoa ere izan daiteke, hots, *langile* izatea hain zuzen *gazte* izatearen ondorio suposatzen duena. *Baina* daraman perpausa esaten duenak, ordea, berariaz adierazten du aurkaritza; *gazte* eta aldi berean *langile* izatea zaila dela suposatzen bide du eta agerian ipintzen du bere ustea, *baina* erabiliz.



**28.6.1b** Bestalde, gramatikari askok nabarmendu dute aurkaritzak badituela juntaduratik aldentzen duten ezaugarri batzuk. Emendiozko juntaduran eta juntadura hautakarian juntagaiak ordenaz alda daitezke, esanahian eraginik izan gabe: *Jon eta/edo Mikel; Mikel eta/edo Jon*. Perpausak elkartzuz: *Jon etorri da eta Mikel joan da; Mikel joan da eta Jon etorri da*. Emendioan eta hautakaritzan juntagailuak semantikoki neutroagoak dira, oinarrizko balioan ‘gehiketa’ eta ‘aukera’ balioak bideratzen dituzte, eta juntagaiak ‘simetrikoak’ direla esan ohi da<sup>9</sup>. Aurkaritzan, ordea, kontrakotasun balioa dagoelarik, juntagaien ordena aldatzeak eragina du adibide osoaren interpretazioan.

Har dezagun, esaterako, ondorengo bikote hau: *Asko ikasten du, baina ez du irakasgaia gainditzen; Ez du irakasgaia gainditzen, baina asko ikasten du*. Lehenengo adibidean hiztunari gehiago axola zaio azterketako emaitza ikasketaren prozesua baino; nolabait esatearren, ‘asko ikasten du, eta asko ikasiz gaititu beharko litzatekeela pentsatzen dugun arren, ikasle honen kasuan ez da betetzen, eta ez du irakasgaia gainditzen’. Bigarren adibidean, ordea, ikaslearen ahaleginean jartzen du arreta handiagoa igorleak, eta adierazi nahi du, gutxi gorabehera, ‘azterketak gainditzen ez dituzenez, pentsa daiteke ez dela askorik saiatzen, baina kasu honetan, gehienetan gertatu ohi denaren aurka, ez da ez saiatzearen ondorio, ziur bainago ikasleak lan asko egiten duela’.

Antzera gertatzen da adjektiboak juntatzen direnean ere: har ditzagun *polit* eta *garesti* adjektiboak. Zerbait izan daiteke, emendiozko juntadura erabiliz *polita eta garestia*; edo *garestia eta polita*; eta hor ez da desberdintasun handirik. Aurkaritzako juntadura erabiltzean, ordea, delako gauza hori erosteko asmo handiagoa sumatuko diogu *garestia baina polita* dela dioenari, *polita baina garestia* dela esaten duenari baino. Aurkaritzako juntaduran, ezaugarri seman-

<sup>9</sup> Emendiozko juntaduran ere, perpausen ordenak ‘bizitzako ordena’ islatzeko joera du —denbora, gutxienez, eta kausalitatea, zeharka bederen—. Adibidez, ondorengo emendiozko juntaduran, ordena aldatzea ez litzaziguke egokia irudituko: *Jonek familiakoei agur-gutuna idatzi zien eta bere buruaz beste egin zuen / #Jonek bere buruaz beste egin zuen eta familiakoei agur-gutuna idatzi zien*. Baina desberdintasuna ez da, aurkaritzako juntaduran bezala, juntadura-motak berak bideratua.

tiko eta pragmatikoen ondorioz, bigarren juntagaiak ematen du mezu nagusia, eta alde horretatik, ez du gainerako juntadura-motek adinako simetrikotasunik.

Ildo horretan, gramatikari batzuek proposatu izan dute egokiagoa izango litzatekeela juntadura eta menderakuntza bi sail bereizi modura aurkeztu ordez mailakatzearen bidetik joko balitz. Mutur batean emendiozko juntadura eta juntadura hautakaria egongo lirateke. Beste muturrean, aditzarekin lotura handiena duten mendeko perpausak, perpaus osagarriak. Eta tartean, mailaka, gainerako egiturak. Lehenengo muturretik hurbilena aurkaritzako juntadura izango genuke; eta gertu, kontzesiozkoak —antzeko aurkakotasuna adierazten dute— eta baldintzazkoak, bietan ere ‘bi-perpauseko’ egiturak azaltzen baitira, erlazio semantiko/pragmatiko bereziekin. Eta batzuetan hiru hauentzat —aurkaritza, kontzesioa, baldintza— multzo berezi bat ere proposatu izan da. Nolanahi ere, gramatika gehienetan juntaduraren eta menderakuntzaren arteko bereizketari eusten zaio. Eta hemen ere, juntadura eta menderakuntza bereizteko eman ditugun irizpideak tarteko (§ 28.3), aurkaritza juntaduraren barnean sailkatuko dugu.

**28.6.1c** Berariaz aurkaritzakoak diren juntagailuen artean, bi aurkaritza mota aurkituko ditugu:

- Lehen, *baina* juntagailuaren bidez gauzatzen da euskalki guztietan, eta nolabait ere bata bestearen kontrako diren bi juntagai elkartzeko dira: *Etorri da, baina ez da hemen gelditu*. Horrelakoak aipatu ditugu orain arte.
- Bigarren moldea, galdegai bat ezeztatuz eta haren lekuan beste bat baieztatuz gauzatzen da: *Ez da nire nahia, baina/baizik/ezpada zurea; Ez da nire nahia, zurea baizik/baino*. Euskalki diferenteetan juntagailu desberdinez bi-deratzen da: Iparraldean *baina* erabiltzen da eskuarki; Hegoaldean, berriz, *baizik, baino* eta *ezpada* erabiltzen dira nagusiki, azken biak mendebaldean batez ere. Horiek dira behintzat joera nagusiak, aipaturiko mugak guztiz zehatzak ez badira ere.

**28.6.1d** Azkenik, gogoan hartu behar da juntaduraz bestelako egitura batzuetan ere erabiltzen dela inoiz *baina* hitza —menderakuntza gisako egituran edo lokailu gisa, hain zuzen—, eta *baizik* eta *baino* hitzek, bere aldetik, balio murriztailea dutela zenbaitetan.

## 28.6.2. *Baina* juntagailua

### 28.6.2.1. Sarrera

**28.6.2.1a** Aurkaritzako juntagailu nagusia da, eta Euskal Herri osoko idazleek erabili dute. Hizkeraren arabera zenbait aldaera agertzen dira: *bana*, *bainan*, *baia*, *bena*, *baino*... eta horietako batzuetan, palatalizazioaren eraginez, grafia desberdinak ager daitezke; adibidez, *baina*, *baiña*, *baña*.

**28.6.2.1b** Gramatika eta hiztegi gehienetan aditzera ematen denez, nolabait kontrajarriak dauden bi perpaus edo bi sintagma elkartzeko erabili ohi da eskuarki *baina* juntagailua. Bata bestearen ‘aurka’ dauden bi esaldi juntatzeko, alegia. *Baina* aurka egoteak, kasu honetan, ez du esan nahi lehenengo juntagaiak esaten duena bigarrenean ezeztatzea, edo lehenean ezeztatzen dena bigarrenean baieztatzea: aurkaritzako juntadura ez da *A baina ez A* gisako lotura, hori logikaren legeak haustea izango bailitzateke. Aurreko perpausari ez, hark iradoki edo suposaraz dezakeen zerbaiti egiten dio kontra bigarrenak. *A perpausak B iradoki edo suposaraz dezake, baina hala ere kasu honetan ez B gertatu da*: horra, gutxi gorabehera, aurkaritzako elkarketan esaten dena.

**28.6.2.1c** Ikus ditzagun, esate baterako, honako adibide hauek: *Nire erlojua merkea da, baina ona*; *Euria ari du, baina ez naiz bustiko*. Hori esaten duenak honako hau adierazten du gutxi gorabehera: ‘nire erlojua merkea da, bai, baina, hala izanik ere eta erloju merkeak gehienetan txarrak izaten badira ere, nire hau ez da txarra, ona da’; eta ‘euria ari du, bai, baina, hala izanik ere eta euria egiten duenean bustitzeko arriskua badago ere, oraingoan ni ez naiz bustiko’.

Iradokizun-kontu hori areago zehazten ez da erraza, noski. Bistakoa da, edo zer modutan ere, oso zabal hartu beharreko gauza dela. Elkarketaren lehen perpausak suposarazten duenak ez du haren ondorio zuzena izan behar nahitaez; haren inguruan pentsaturiko zerbait ere izan daiteke: *Ni ez naiz zinemara joan, baina laguna bai*. ‘Ni zinemara joan ez izana’k ez du berez eta beti ‘laguna ere joan ez dela’ iradokitzen. Hiztunak *baina* juntagailua aukeratu duenean, ordea, horrela pentsa dezakeen mintzalagunaren usteari aurre egiten dio.

**28.6.2.1d** Iradokizunen kontua guztiz zehaztea erraza ez bada ere, lagungarri modura, ohar batzuk bederen aipa daitezke:

Batzuetan lehen perpausetik nahitaez ateratzen dena ez da iradokizuna, ‘nahitaezko ondorioa’ baizik, eta horrelakorik ezin du bigarren perpausak ezeztatu. Horrelakoetan ez dugu aurkaritzako juntadurarik izango. *Afrikar izatea*-k, esate baterako, *amerikar ez izatea* dakar nahitaez, irakurketa normalean bederen: nahitaezko ondorio baten aurrean egongo ginateke, ez iradokizun baten aurrean. Hortaz, ondorengo perpausa ez genuke zuzena izango: \**Gizon hori afrikarra da, baina amerikarra*. Lehen aipatu dugun \**A baina ez A* izango litzateke.

Beste batzuetan, gerta daitezke ‘iradokizun-itxurarik ez daukatenak’ ere, eta horrelakoek ere ez dute aurkaritzarako biderik ematen: ??*Bihar jai da, baina japoniarrak asiarrak dira*. Izan ere, perpausen esanahiari begira, oso irakurketa bereziren batean ez bada behintzat, *bihar jai izatea*-k ez du inolaz ere *japoniarrak asiarrak ez direnik* iradokitzen; eta adibidea ez zaigu oso onargarria iruditzen. Horrelako aurkaritza-egitura bati zentzua eman ahal izateko interpretazio eta inferentzia berezi samarretara jo beharko genuke; pentsatu beharko genuke: “Bihar jai da, eta normalena jai egunetan lanik ez egitea da, baina asiarrak orokorrean oso langileak dira, batzuetan neurritz kanpo, eta gerta daiteke egoera jakin batean enpresa japoniar horretakoek igandean lan egitea”. Iradokizunetan oso urrun joan beharko genuke, eta hiztunak normalean, iradokizun ‘zaila edo urrunekoa’ duten adibideak ez ditu erabiltzen, ulergarritasunaren mesedetan.

Oro har, arrazoiketa logikoak, kultur ezaguerak edo testuinguruak esango digute zer den bigarren perpausaren ‘aurka’ lehen perpausak iradokitzen duena, edo, zuzenago esanda, zer den bigarren perpausak lehenak suposarazten duenaren aurka iradokitzen duena. Demagun, esate baterako, ondoko perpaus bikote hau: *Berandu da, baina joan egingo naiz*; *Berandu da, baina geratu egingo naiz*. Lehen begiratuan badirudi ezinezkoa dela bi perpaus horiek zuzenak izatea; bietako batek okerra behar duela, alegia. Gauzak poliki ikusita, ordea, biak zuzenak izan daitezkeela ikusiko dugu. Izan ere, testuinguruak agintzen du hor. Eta asmatzen hasten bagara, hainbat testuinguru egoki asma dezakegu,

batarentzat bezala bestearentzat ere. Honako hauek, adibidez: “Berandu da inoren etxera bisitan joateko eta, hortaz, badirudi ez nukeela joan behar, baina larri nabil eta joan egingo naiz, hala ere”. Edo: “Berandu da eta etxera joateko ordua iritsi zait, baina pozik nabil dantzan eta geratu egingo naiz”. Testuinguruak erakusten digu, esan bezala, zer iradokitzen duen lehen perpausak bigarrenaren kontrako egiten duela. Testuinguru hori gabe arraro egingo zaigu askotan perpausa. Edo pentsatuko dugu, aurkaritzako juntadura erabiliz norbaitek zerbait esan duelarik, testuinguruan izango dela kontrakotasun horri bidea emango dion zerbait<sup>10</sup>.

Are gehiago, sarritan aurkakotasuna iradokizunen artekoa da: bigarren perpausak batzuetan ez dio aurrekoaren iradokizunari zuzenean kontra egiten, beste iradokizun baten bitartez baizik. Horixe da, hain zuzen, ondoko adibide honetan gertatzen dena: *Euria ari du, baina badut euritakoa*. Perpaus honen iruzkina hau litzateke: “Euria ari du (eta, beraz, bustitzeko arriskua dut), baina euritakoa dut (eta, hortaz, ez naiz bustiko)”. Irudikapen informala, berriz, beste honako hau:  $[A (\rightarrow C), B (\rightarrow -C) \text{ eta hala ere: } A+B]$ .

Beste adibide bat emango dugu: *Euria ari du, baina Jon zain dut*. Iradokizunen jokia honako hau izan daiteke: “Euria ari duenez, eta bustitzeko arriskua dudanez, normalena etxetik ez irtetea litzateke. Baina Jon zain dut, ez dut egoiki ikusten huts egitea, eta ziurrenera bustiko banaiz ere, etxetik irten egingo naiz”. Aurkaritzaren gaia ‘etxetik irtetea’ da; baina ez da enuntziatuetan azaltzen; iradokitako zerbait da.

<sup>10</sup> Batzuetan, egoeran aurretik ‘esan den’ zerbait zuzentzeko erabiltzen da aurkaritzako juntadura. Ondoko hau, esate baterako, ohiko egoeran galdera ikurraz emango luke batek baino gehiagok: *Erloju hau merkea da, baina txarra*. Izan ere, badirudi merkea izateak txarra izatea iradokitzen duela betiere eta, hortaz, hor ez dagoela *baina*-rentzat lekurik, ez baitago inolako aurkaritzarik. Baina izan daiteke hor ere perpausa zuzena egiten duen ingururik. Demagun bezero batek “erloju on eta merkea” eskatu diola dendariari. Honek bat erakusten dio. Bezeroak erlojua hartu, aztertu eta honela dio: “Erloju merkea da eta, hortaz, badirudi nire eskaria bete dezakeela, baina, bestalde, txarra da eta, beraz, ez du betetzen. Ez dut nahi”. Eskaera edo enuntziatu batetik abiatu da hiztuna; aurrean jarri zaion egoerak ez du eskaera edo enuntziatu hori osoki betetzen; eta hori adierazteko, aurkaritzako juntadura erabiltzen du.

**28.6.2.1e** Horra, beraz, labur esanda, zer den *baina* juntagailuaren bitartez gauzaturiko aurkaritzak egiten duena eta egiten ez duena:

- Ez nahitaez baiezeko perpaus bati beste ezezko bat elkartu.
- Ez, bigarrenik, esaldi bat baieztatu eta ondoren hura bera ezeztatu.
- Ez, hirugarrenik, perpaus baten nahitaezko ondorioa ezeztatu ere (\**Gizon hori afrikarra da, baina amerikarra*), hori ere zerbait aldi berean baieztatzea eta ezeztatzea izango bailitzateke.
- Ez, azkenik, perpaus bat eta honen iradokizunekin zerikusirik ez duen perpaus bat elkartu ere (?*Bihar jai da, baina japoniarrak asiarrak dira*).
- Bai, ordea, perpaus bat eta haren iradokizunari ‘aurka’ egiten dion beste perpaus bat juntatu: *Euria ari du, baina ez naiz bustiko*.
- Bai, orobat, aurkako iradokizunak dituzten perpaus bi juntatu ere: *Euria ari du, baina badut euritakoa; Euria ari du, baina Jon zain dut*.

### 28.6.2.2. Juntagaiak

**28.6.2.2a** Orain arteko adibideetan juntagaiak perpausak izan ditugu. Eta egia da sarri askotan perpaus osoak izaten direla *baina* juntagailuaren bidez elkartzen direnak. Baina perpausa baino txikiagoko elementuak ere elkartu ditzake. Betiere, baldintza batekin: predikatuak elkartzen dituela *baina*-k. Horrela, adjektiboak edo adjektibo sintagmak elkartzeko arazorik ez da izango: *Jaungoiko ttipi baina adoragarria; Leku urrun baina lasaian bizi gara*. Eta esan dugunetik ondorioztatzen da izen sintagmak ezin izango direla juntatu *baina*-ren bidez: \**Aita baina ama etorri da; \*Haragia baina arraina jan dut*. Horretan, emendiozko juntaduratik eta juntadura hautakaritik urrundu egiten da aurkaritzakoa.

Beste batzuetan, juntaduretan gertatzen diren ezabaketen ondorioz, lehen begiradan beharbada perpaus osorik ez da ikusten: *Gaurko egunean kaletarrak ondo bizi dira, baina nekazariak gaizki; Azeri zaharrari ilea joan zaio, baina*

*antza ez*. Baina hauetan ere predikatuak ditugu tarteko: iruzkinak dira juntatzen direnak, juntagai biek mintzagai nagusi bakarra dutelarik; isilean geratu eta bi juntagaietan ulertzen diren elementuak agerian emango bagenitu, perpaus osoen juntadura izango genuke; eta *ez* elementua —eta dagokionean, predikatuaren baiezkotasuna adierazten duen *bai*— aditz sintagmaren ordain izaten dira horrelakoetan. Eta beste molde honetakoak ere aurkitu ditzakegu: *Aita bai, baina ama ere etorri da; Aita ez, baina ama etorri da*. Berriro ere *bai* eta *ez* aditz sintagmaren ordainak dira eta, horrenbestez, predikatua tarteko denez, ez dago eragozpenik aurkaritzako juntadura egiteko. Izan ere, hor elkartzen direnak ez dira subjektuak, bina perpaus oso baizik: *Aita bai (etorri da), baina ama ere etorri da; Aita ez (da etorri), baina ama etorri da*.

**28.6.2.2b** Bada beste ezaugarri bat *etaledolala* juntagailuetatik desberdina: badirudi *baina*-k ez dituela normalean juntagai bi baino gehiago elkartzen. Ondorengoak, adibidez, ez genituzke zuzenak izango: \**Mikel gaixo dago, baina ospitalera eraman dute, baina berehala sendatuko da*; \**Josu gaztea baina langilea baina alaia da*. Lehen adibidea, noski, zuzena izango litzateke aurreko edo ondoko bi perpausak *eta* juntagailuz elkaturik baleude: *Mikel gaixo dago eta ospitalera eraman dute, baina berehala sendatuko da; Mikel gaixo dago, baina ospitalera eraman dute eta berehala sendatuko da*. Baina orduan, hiruna perpaus izan arren, aurkaritza bi multzoren artean gauzatuko litzateke: [*Mikel gaixo dago eta ospitalera eraman dute*], *baina* [*berehala sendatuko da*]; [*Mikel gaixo dago*], *baina* [*ospitalera eraman dute eta berehala sendatuko da*]. Eta horixe da kontua: *baina*-k aurkaritza bakarra gauzatzen duela juntadura bakoitzean eta, hortaz, ez dituela bi juntagai baino gehiago elkartzen.

Zenbaitetan, egia da, badirudi bi juntagai izatearen debeku hori horren guztizkoa ez dela. Ondoko adibidean, esate baterako: *Bera ez dela joango esan du aitak, baina semea bai, baina denbora laburrerako*. Baina adi begiratu, ohartuko gara hor maila desberdineko juntadura dugula. Aurkaritza A (*aita ez da joango*) eta B (*semea joango da*)-ren artekoa da. Ondoren, aurkaritza horretatik ateratzen den ondorioaren kontra (*semea joango da*), bigarren aurkaritza bat dugu, *baina C (baina denbora laburrerako)*.

### 28.6.2.3. Ezabaketak

**28.6.2.3a** Aurkaritzako juntaduran ere askotan izaten dira —emendiozko juntaduran edo juntadura hautakaritan bezala—, ezabaturiko osagaiak, juntadurari esker “berreskuratzen” direnak. Izan ere, enfasiaren zerbitzuan-edo ez bada behintzat, hauxe da juntaduraren joera nagusia: komunak diren osagaiak ez dira juntagai batean baizik ageri. Kasu hauek emendiozko juntaduran aztertu ditugu sakontasun handiagoz, eta oro har, juntadura-mota guztietarako baliagarri da han esandakoa. Nolanahi ere, aurkaritzako juntaduraz ari garelarik, bada oso kontuan izan beharreko puntu bat: esan dugu aurkaritzan predikatuak bakarrik juntatzen direla; eta ondorioz, emendiozko juntaduran era desberdineko sintagmak elkartzean gerta zitezkeen kasuetako asko ez ditugu aurkituko hemen. *Baina*-ren bidez perpausak juntatzean gertatzen diren ezabaketak izango ditugu.

**28.6.2.3b** Asko eta asko, *hustuketa egiturak* deituraren azpian bildu ditugunen moldekoak izango dira: *Zuk garajea utzi duzu autoa, baina nik kalean; Zuk etxean egiten duzu lo baina nik kalean*. Aurreko adibide hauetan, iruzkinaren zatirik handiena berdina dute, eta desberdina den elementua galdegaia da; berdina diren elementuak ez dira bigarren juntagaian azaltzen. Adibiderik gehiengotan aditza eta beste elementuren batzuk ezabatzen dira bigarren juntagaian, baina ez da nahitaezkoa, aditza bera ere izan baitaiteke galdegai: *Aurreko astean irabazi egin genuen, baina aste honetan galdu*. Ezabaketa bigarren juntagaian egiten da eskuarki, eta lehen juntagaian egiten bada, egitura markatuagoa gertatzen da, eta intonazioaren eta zenbait ezaugarriren aldetik desberdintasunak ditu: *Zuk garajea baina nik kalean utzi dut autoa; Zuk etxean baina nik kalean egiten dut lo*. Alde horretatik, emendiozko juntadurako perpaus-ezabaketan ikusi genituen aukera eta debeku berak agertzen dira hemen ere.

Kasu batzuetan iruzkin osoa izaten dute berdina juntagai biek, batak baiezka eta besteak ezezka. *Bai* eta *ez* azaltzen zaizkigu orduan: *Aita garaiz iritsi da, baina ama ez; Aita ez da garaiz iritsi, baina ama bai*. Gerta daiteke bi perpausetan iruzkina baiezkotasunaren edo ezezkotasunaren aldetik berdina izatea, eta orduan *ere* erantsi ohi da: *Aita garaiz iritsi da, baina ama ere bai; Aita ez*



*da garai z iritsi, baina ama ere ez.* Hauetan guztietan emendiozko juntaduran zehaztutako jokamolde eta aukera berak aurkituko ditugu. Kontuan izan behar da *bai* eta *ez* direla hauetan perpausaren galdegai eta iruzkin osoa; baietza eta ezetza berak dira, nolabait esan, hor kontrastatzen direnak.

**28.6.2.3c** Perpausek bestelako galdegaiak dituztenean, ordea, eta hortaz, perpausaren baietza eta ezetza galdegai horien gainean eraikiak daudenean eta haiei dagozkienean, bestelako egitura batzuk sortzen dira, eta *baina* daramatenen aurkaritzatik urrunduz, aurkaritza-mota desberdin bat gauzatzen da; eta ezabaketei dagokienez ere apur bat desberdin jokutzen da. Elkarketaren lehen perpausa baiezkoa baldin bada, honako egitura hau sortzen da: *Goizean etorri da, ez arratsaldean*. Ikusten denez, *goizean* eta *arratsaldean* dira kontrastatzen diren galdegaiak. Eta elkarketaren lehen perpausa ezezkoa denean, berriaz, honako beste egitura hau sortzen da: *Ez da arratsaldean etorri, goizean baizik*. *Arratsaldean* eta *goizean* dira hor ere galdegaiak, eta ezetza, aurrean doalarik, *arratsaldean* galdegaiari dagokio ('etorri dela bai, baina *ez arratsaldean*' esan nahi du elkarketaren lehen perpausak). Molde honek sortzen du *baizik* motako aurkaritza.

#### 28.6.2.4. Tokia

Orain arte emandako adibide guztietan juntagaien artean kokatua ikusi dugu *baina* juntagailua. Eta horixe du, hain zuzen, lekurik ohikoena eta nagusia euskalki guztietan: juntagaien artekoa.

Ez du, ordea, kokagune bakarra. Perpausaren hasieran ager daiteke, lokailu modura (*baina nondik zatoz?*), beste juntagailu batzuekin gertatzen den bezala. Horrez gain, Hegoaldean —eta batez ere Hegoaldeko mendebaldean— bigarren perpausaren barruan eta azkenean ere erabiltzen da inoiz juntagailu hau; baina horrelakoetan ere badirudi lokailu zeregina betetzen duela. Hona zenbait adibide: *Nik neuk errezau egiñagatik bere alboan, ai! Arek baña, barbarik ez deust erantzuten* (Arrese Beitia); *Zein zan baiña gizon ori?* (Agirre); *Eta antxe egoan aritz baten zuloan sartu zan. Buztana ageri baiña! Eta otsoak*

*buztanetik eldu!* (F. Bilbao); *Bein, juañ zan guraso bat bere semeari elgorrixa osatzen ibilli zan medikuarengana kontua pagatzera* —Zerbait merkatuko destazu baña. —Merkatu? Zer dala-ta? (San Martin). Adibide hauetan ez dago benetako perpaus-juntadurarik. Juntatu gabeko perpausetan agertzen da hor *baina*, lokailuek hartu ohi duten kokaleku eta inguru bertsuetan eta zeregin bertsua betez. Hortaz, perpausen arteko lotura semantikoa bideratzen du *baina*-k adibide horietan; elkarketa edo juntadura sintaktikoa gauzatu gabe ordea, junta daitekeen bigarren perpausik ez baitago<sup>11</sup>.

#### 28.6.2.5. Aurkaritza eta kontzesioa

**28.6.2.5a** *Baina* motako aurkaritzaren eta kontzesiozko menderakuntzaren artean parekotasun handiak daude (ikus 39. kapitulua). Elkartzen diren perpausen artean erlazio semantiko eta pragmatiko berdintsua dago —bietan ere kontraste mota bera agertzen da—, eta oso erraza gertatuko zaigu gehienetan aurkaritzako adibideak kontzesiozko perpausen bidez ematea: *Euria ari du, baina kanpora irtengo naiz / Euria ari duen arren, kanpora irtengo naiz; Ezker ona du, baina pilota asko joaten zaizkio zabalera / Nahiz eta ezker ona izan, pilota asko joaten zaizkio zabalera*. Parekotasun hori nabaria izan arren, ezaugarri sintaktikoak kontuan hartuz, aurkaritza juntaduraren barnean sartzen dugu, eta kontzesioa perpaus menderatuen sailean<sup>12</sup> (ikus § 28.3 eta § 28.6.1).

**28.6.2.5b** Balioaren eta kontrastearen aldetiko parekotasunak nabariak diren arren, desberdintasunak aurkituko ditugu aurkaritzaren eta kontzesioaren

---

<sup>11</sup> Ohargarria da beste honako hau ere: *baina* gisa horretan eta perpaus barruan nahiz azkenean gehien erabiltzen duen euskalkia dela, hain zuzen, beste euskalkiek leku horietan ohikoa duten *ordea* diskurso markatzailea erabiltzen ez duena.

<sup>12</sup> Oro har hizkuntzetan aurkaritzako juntadura ‘oinarrizkoagoa’ da kontzesiozko menderakuntza baino: hizkuntza batzuetan lehena bada, *baina* bigarrena ez; edo bigarrena markatzeko formak lehenetik sortuak dira. Hizkuntzaren jabekuntza-prozesuan ere haurrak beranduago eskuratzen omen ditu kontzesiozkoak (Braunwald 1985; Bowerman 1986). Eta oro har, hiztunak gehiago baliatzen dira kontzesioaz idatzian, ahozkoan baino.

informazio-egitura aztertzean. Aurkaritzakoetan bigarren zatia —edo haren iradokizuna— nabarmentzen da, ‘emaitza’ (... *baina kanpora irtengo naiz / ... baina pilota asko joaten zaizkio zabalera*). Kontzesiozkoetan, berriz, erlazioaren ‘jatorriari’ garrantzi handiagoa ematen zaio (*euria ari duen arren... / nahiz eta ezker ona izan...*). *Baina* aurkaritzakoaren ondoren informazio berria ematen da; kontzesiozko menderagailuak besarkatzen duen zatian, bestalde, informazio ezaguna aurkezten zaigu.

Pragmatikaren ikuspuntutik ere komunikazio-estrategia desberdinak erabiltzen ditu hiztunak bi egituretan. Kontzesioaren estrategia hautatzen denean, hiztunak itxuraz egoera bat onartzen du, baina aldi berean aurka egiten dio; aurkaritzaren estrategian, egoera baten edo igorleak zer bait esatearen kontra agertzen da. Kontzesioa eta aurkaritza bideratzen duten markek, elkartzen diren bi perpausen arteko inferentziak abiarazteko edo bertan behera uzteko zeregina izaten dute, eta bi egituretan molde desberdina azaltzen da. Kontzesiozko perpausetan, baliogabetutako aurrekari edo kausa bat aurkezten da, eta kontrakoaren bidera eramaten gaitu kontzesiozko menderagailuak: ‘eskuarki X gertatu ohi da, baina kasu honetan...’. Aurkaritzakoetan berriz, lehenengo juntagaian adierazpen bat egiten da, eta ez da horrelako inferentziarik abiarazten; *baina*-ren ondoren sortzen da aurkakotasuna, eta lehenengo zatiak egiten duen iradokizunari kontra egiten zaio.

**28.6.2.5c** *Baina menderakuntza gisako egituretan* ere erabiltzen da. Eskuarki juntagailu bada ere, batzuetan perpausaren azkenean kokatzen da *baina*, eta kontzesiozkoen pareko balioa hartzen du: *Dana jadetsi eben, kosta jaken baña* (K. Enbeita); *Oien fedea ez da zuzena, baietz uste dute baña* (*Euskal Jokoak*). Azkuek, adibidez, ondorengo adibideari aurkaritzako juntaduraren balioa ematen zion: *Eztakigu norena den, baiña jan zazu*. Aldiz, *baina* azkenean dela, kontzesiozkotzat hartzen zuen: *Jan zazu, eztakigu norena den baiña*. Erabilera hori Bizkaiko eta Gipuzkoako testuetan bakarrik azaltzen da<sup>13</sup>: *Es-*

<sup>13</sup> Aurreko perpausari lotuta ageri da inoiz *baina*, hori bai, Iparraldeko euskalkietan ere, baina perpausak trukatu gabe. Hona, horren lekuko, Etxepareren bertso hauek: *nik eztakit berziak bana ni ari niz bekatu* (Etxepare) // *nik eztakit zer den bana estamendu berri du* (Etxepa-

*kalerik, zarrak gera baina, eztegu inoiz ezagutu* (Azkue); *Bai, amonaxok eka-rriko dizu jostallu eder ederra, zeu bezelako jostallurik iñon eztago baña!* (Agirre).

Erabilera honek *eta*-ren jokabidearentzat eman ohi den oinarri edo arrazoi linguistiko berbera du: *baina*-k ere badu enklitiko bihurtzeko aukera, eta gisa horretan, juntaduratik menderakuntzarako bidean jarriko litzateke. Ikus Xenpelarren bertso ezagun baten zati hau: *Aitak ill ziran baño / semeak oraindaño / legea degu guardatu*. *Baina* aurreko perpausari loturik azaltzen da. Gainera, era horretara lotutako perpausak trukatu ere egin daitezke beren artean, aurrekoa atzera eta atzekoa aurrera pasaz: *Gaixo dago eta, ez da etorri / Ez da etorri, gaixo dago eta; Ez dit idatzi baina, maite nau / Maite nau, ez dit idatzi baina*. Sakontasun handiagoz aztertuko dugu *baina*-ren erabilera hau kontzesiozko perpaus menderatuen atalean.

**28.6.2.5d** Lokailu gisa ere erabil daiteke *baina*. Horrelakoetan ez da zehazki bi perpaus juntatzeko erabiltzen; diskurtsoan aurretik aipatu diren ideia batzuei aurka egiteko erabiltzen da: *Erderaz ipiñi dautsosuez ingitxuak eskakizunaz, eta Erregeak aintzat artu bez.* —*Baiña, ori zelan? Erderaz ez dakie ala?* (Kirikiño). Horrelakoetan, bistan da, *baina*-k ez ditu perpausak elkartzen. Testu mailako lotura bideratzen du, hau da, ondoan duen perpausak aurrekoekin nolako erlazio semantikoa duen adierazi baizik ez du egiten, gramatika juntadura gauzatu gabe. Baliabide honetaz sarri baliatzen gara, aurreko testuarekiko, egoerarekiko edo iradokizunarekiko aurkakotasuna adierazteko: *Baina gauzak ez ziren uste bezala gertatu; Baina, nork utzi du leiho hori irekita?; Ez zaio deus estaltzen, ez da emaitzez amuntzen, ematzen, ez du eskusarik hartzen; baina, nola baita zuzena, hala iujeatuko du* (Pouvreau).

---

re) / *heben hik badukek bana haiek ez nork konsola* (Etxepare). *Baina*, hor, zesuraren (bertso etenaren) aurrean kokatua eta hainbestez lehen perpausaren azkenean eta ez bigarrenaren hasieran ezarria dago, ahoskeran ere aurreko perpausari eta ez ondokoari atxikirik irakurri behar delarik. Hortaz, hor ere menderatzaile gisa erabilia dagoela esan daiteke, beharbada, perpaus trukaketarik ez badago ere.

Bestalde, gogoratu behar da diskurtso markatzaileek perpausean zehar juntagailuek baino mugikortasun handiagoa dutela. Horrela gertatzen da aurkaritzako diskurtso markatzaile batzuekin (*aldiz, ordea...*), bai eta *baina*-rekin ere: perpausean kokagune desberdinetan aurkituko dugu, antzeko balio eta ezaugarri sintaktikoekin. Ikus ondorengo adibideok: *Baina, zer egin duzu? / Zer egin duzu baina?; Zer da baina, hemen egin gura duzuna, zantar lotsabako horrek?* (Otxolua); *Karutxua eritzi zetsan, da gizonak erregutu zetsan: —Zerbait merkatuko destazu baña. —Merkatu? Zer dala-ta?* (San Martin); *Baratzeko loreak belar artetik burua ataraten eben. [...] Baratzeko bazter batean, baina, oraindino negua zen* (J. Altuna). Perpausaren hasieran, tartean nahiz amaieran aurkitzen dugu *baina*, eta guztietan ere aurkaritzako diskurtso markatzailearen balioa du. Intonazioari dagokionez, pausa nabarmen samarra egiten da horrelakoetan, eta irakurlearentzat lagungarri gertatzen da koma bidez bereiztea: *Zerbait merkatuko didazu, baina?; Zer da, baina, hemen egin gura duzuna?*

**28.6.2.5e** Ikusten dugu, bada, egitura-ugaritasun handia dagoela. *Baina* ager daiteke juntagailu modura; hizkera batzuetan ager daiteke menderagailuen ezaugarriekin; eta ager daiteke lokailu zereginean. Kokagune desberdinak ere har ditzake. *Baina* guztietan, funtsean, balio edo kontrakotasun mota bera azaltzen du.

#### 28.6.2.6. Zenbait esapide

Esan dugun bezala, *baina*-k oro har aurkaritza azaltzen du, aurreko juntagaiarekiko, edo aurretik testuan esan denarekiko: espero zitekeenaren, edo espero genuenaren kontrako ideia edo iradokizun bat bideratzeko erabiltzen dugu. *Baina* ideia horretatik abiatuta, eguneroko solasean harridura edo antzekoak adierazteko, edo bide emateko ere erabiltzen da: *Baina, Jon! Etorriko al zara!; Baina baina, nolatan jo duzu zure laguna?; Baina, zu ez al zinen bihar iristekoa?; Baina baina, isil zaitetz behingoz!; Amak esandakoa egin besterik ez zuen, eta guztia ondo joango zen. Baina ez, aurka egin behar!* Guztietan ere espero ez dugun egoera edo ekintzaren bat dago atzean, eta horren aurrean harridura, enfasia, batzuetan gaitzespena... adierazten dugu *baina* darabilten molde horien bidez.

### 28.6.3. Baizik eta horren kideen aurkaritza (ez A, B baizik)

#### 28.6.3.1. Sarrera

Aurkaritza mota hau bideratzen duten juntagailuak bat baino gehiago dira, nahiz ez duten denek ez hedadura ez jokabide berbera. Horra aurkezpen laburra:

- *Baizik*: Hegoaldean erabiltzen da batez ere, bizkaieran izan ezik, eta juntaturiko perpaus edo sintagmaren ondoan nahiz aurrean kokatzen da: *Ez da alaba jaiki, ama baizik / Ez da alaba jaiki, baizik ama.*
- *Baino*: bizkaieraz erabiltzen da, bigarren juntagaiaren ondoan beti: *Ez da alaba jaiki, ama baino.*
- *Ezpada*: Hegoaldean erabiltzen da, bizkaieraz batez ere, bigarren juntagaiaren aurretik: *Ez da alaba jaiki, ezpada ama.*
- *Baina*: aurkaritza mota hau adierazteko ere erabiltzen da *baina*, Iparraldean batez ere: *Ez da alaba jaiki, baina ama.*
- *Ez-baina*: Hegoaldean erabiltzen da, honako egitura honetan: *Alaba ez-baina ama jaiki da.*
- *Ezezik* eta *ez ... ezen* ere erabili izan dira inoiz honelako aurkaritza aditzera emateko.

#### 28.6.3.2. Aurkaritza honen zer-nolakoak

**28.6.3.2a** Aurreko atalean ikusi dugun aurkaritza eta oraingo honetan aztergai duguna ez dira mota berekoak. *Baina*-k, esan bezala, nolabait ere kontra dauden juntagaiak elkartzen ditu; edo zehatzago esateko, bata bestearen kontrako iradokizunak bideratzen dituzten juntagaiak. Orain aztertuko dugun aurkaritza-motan, ordea, *galdegaiaren arteko kontrastea* adierazten da, lehenari ezetza eta bigarrenari baietza ematen zaielarik.

Aurretxoan juntagailuak aurkezteko eman ditugun adibideek (*ez da alaba jaiki, ama baizik*, eta baliokideak) erakusten digute argi nolakoa den hemen gauzatzen den aurkaritza. ‘Jaiki dena’ *nor* den esaten digute perpaus horiek, honako adierazpen hau eginez: *jaiki dena*: [*ez alaba, bai ama*]. Eta horren irudikapena, berriz, honako hau izango litzateke: X: [*ez A, B baizik*], A eta B galdegai direlarik.

**28.6.3.2b** Gauzak argiago ikusiko ditugu, beharbada, aurkaritza-mota biak adibide bana emanez alderatzen baditugu. Demagun, esate baterako, honako bikote hau: *Alaba ez da jaiki, baina ama sukaldean ari da / Ez da alaba jaiki, ama baizik*. Lehenengo adibidean ‘kontrako iradokizuna bidera dezaketen’ perpaus bi juntatzen dira: *alaba jaiki ez dela* adierazten du bata, eta *ama sukaldean ari dela* besteak. Mintzagai biri buruz egindako iruzkinak, edo iruzkin horiek bideratzen dituzten iradokizunak, kontrastatzen dira hor: *alabari* buruz zerbait esaten da, eta *amari* buruz, berriz, horren aurkako beste zerbait. Mintzagai bakarrari eginiko ‘kontrako’ iruzkin bi ere elkar daitezke, noski, gorago esan dugun bezala. Bigarren adibidean, berriz, mintzagai bati zein galdegai dagokion esaten zaigu: *jaikitze* kontu hori *nori* dagokion, alegia, *alabari* ala *amari*. Galdegaiak kontrastatzen dira horrela juntaturiko perpausetan.

**28.6.3.2c** Gauza bera ikus dezakegu are hurbilagoko den bikote honetan ere: *Alaba ez da jaiki, baina ama bai / Ez da alaba jaiki, ama baizik*. Horietako lehenean, berriro ere, bakoitzak bere mintzagaia eta bere iruzkina dituen perpaus bi juntatzen dira: *alaba jaiki ez dela* esaten zaigu batean eta *ama bai, jaiki dela*, bestean. Perpausaren baietza eta ezetza berak dira hor galdegaiak. Ea *alaba jaiki den* eta ea *ama jaiki den* dira, hain zuzen, hor adierazten zaizkigunak. *Alaba* eta *ama* dira mintzagaiak eta bakoitzari buruzko iruzkina egiten du perpaus banatan. Hortaz, *baizik* juntagailuak ez du lekurik hor: *\*alaba... ez da jaiki, baizik ama*.

Bigarren adibidean, ordea, ezetza eta baietza ez dira elkarturiko perpausen galdegaiak. Aitzitik, ezezkoa eta baiezkoa beste galdegai batzuen gainean daude eraikiak eta haiei dagozkie. Jaiki behar dena *alaba ez dela* esaten zaigu hor, *ama dela*. Hura dela pentsa dezake, beharbada, norbaitek, eta haren ustea ‘zuzendu’ egiten du perpausak.

Alderatzen ari garen bi perpaus edo bi aurkaritza-mota hauek honela irudika daitezke. *Baina* motako aurkaritzari dagokionez: [alaba ez da jaiki] *baina* [ama bai, jaiki da]. *Baizik* motako aurkaritza: ez [alaba jaiki da] *baizik* [ama jaiki da]. Azken hau beste era honetara ere irudika daiteke: jaiki dena [ez alaba, *baizik ama*] da. Mintzagaia bakarra da —*jaikitze-kontua*, hain zuzen— eta hari buruz eginiko galdegaia, berriz, konplexua. Horrexegatik esan liteke azken perpaus honetako juntagaiak —bata ezezka eta bestea baiezkak— ez direla bata besteari gehiturikoak, elkarren osagarriak baizik, korrelatiboak banakaritzan bezala. Izan ere, *bai...bai* edo *ez...ez* banakaritzaren ondoan, *ez...baizik* gisakoa daukagu.

**28.6.3.2d** *Baizik* motako juntadura dagoenean, lehenengo ezezko perpausa ematen da, eta ondoren baiezkoa: *Lehiaketa ez du Josuk irabazi, Mirenek baizik*. Alderantzizko ordenarekin ezin dira *baizik/baino/baina...* elementuak azaldu: \**Lehiaketa Mirenek irabazi du, ez Josuk baizik*.

Egia da hemen aztertzen ari garen kontraste mota duten adibideetan —galdegaien kontrastea— berez bi ordenak posible direla: batzuetan baiezkoa doa aurretik, besteetan ezezkoa. Baiezkoa baldin bada aurrean doana, honako alborakuntza hau eratzen da: *Ama jaiki da, ez alaba*. Eta hor ezetza *alaba*-ri dagokionez, kontrastea zehatza da: ‘jaiki dena ama da, ez alaba’. Aurrean doana ezezkoa bada, ordea, *baizik/baino* gisako juntagailua erabiltzen da gehiengotan. Izan ere, segida horretako alborakuntza hutsa ez da ezer euskaraz: \**Ez da alaba jaiki, ama*. Eta *bai* erantsita ere ez da behar bezala gauzatzen aditzera eman nahi den kontrastea: \**Ez da alaba jaiki, bai ama*. Izan ere, perpaus horretako lehen parteak ‘nor ez den jaiki’ adierazten du, eta bigarrenak, ostera, ‘ama jaiki denetz’, kontrastea ezin daitezkeen bi esaldi elkarren albora ekarriz. Kontraste egokia eta zehatza egiteko modu bat aditza errepikatzea izan daiteke, egitura enfatiko hau eraturaz: *Ez da alaba jaiki, ama jaiki da*. Baina gehiengotan, esan bezala, *baizik/baino* gisako juntagailua erabiltzen da: *Ez da alaba jaiki, ama baizik*. Eta horixe da, hain zuzen, atal honetan aztertzen ari garen aurkaritza-motari dagokion egitura.

Garbi dago, hortaz, aurkaritza honetako lehen juntagaia ezezkoa dela beti. Eta formalki ezezkoa gainera, ez baita nahikoa esanahiaren aldetik negatiboa iza-



tea, ondoko adibide hauek erakusten duten bezala: *Ez naiz zurekin joango, Idoiarekin baizik* / \**Zu gabe joango naiz, Idoiarekin baizik*.

**28.6.3.2e** Orain arteko azalpenetan, gauzak erraztearren, sintagma bakar batez osaturiko galdegaiak eman ditugu ia beti. Baina *baizik* motako aurkaritzan sintagma bat baino gehiago ere jar daitezke kontrastean; eta tartean aditza bera ere egon daiteke: *Gutun hori ez dut etxean eskuz idatzi, bulegoan makinaz baizik*; *Haren hautsak ez zituzten itsasora bota, mendian zabaldu baizik*. Galdegai moduan perpaus osoak ere kontrasta daitezke, honako adibide honek erakusten duen bezala: *Jaungoiko Semeak ez du amarik Jaungoiko den aldetik baizikan Jaungoiko Aitagandik bakarrik sortua da* (Inza). Edo hain ezaguna den *Gure Aita* otoitzaren garai bateko bertsioko esaldikoak bezala: *Ez gaitzazu tentazioan erortzen utzi, baizik libra gaitzazu gaitzetik*. Esaldi horretan *tentazioan erortzen utzi* eta *gaitzetik libratu* dira kontrastean ipinitako galdegaiak, (*zuk gu*)... *gaitzazu* delarik bi perpausetako mintzagaia. Honelako perifrasi honek argitu dezake esaldi horretan gauzatzen den kontrastea: *Zuk guri egin behar diguzuna da ez tentazioan erortzen utzi, baizik gaitzetik libratu*.

Beraz, adibide horiek erakusten dutenez, galdegaiak perpaus osoak izanik ere aipaturiko kontrastea berdin gauzatzen da. Argi ikusiko dugu hori bera honako bi perpaus hauek alderatzen baditugu (Hegoaldeko erabileraren arabera, jakina; izan ere, Iparraldean *baina* erabiltzen da perpaus bietan): 1) *Miren ez zen biltzarrera etorri, baina txostena bidali zuen*; 2) *Miren ez zen biltzarrera etorri, baizik txostena bidali zuen*. Desberdintasun bakarra *baina* eta *baizik* elementuak dira; baina bakoitzak adierazten duena eta aurkaritza-mota desberdina da.

Bi adibideetako lehena *baina*-gisako aurkaritzari dagokio. Hortaz, elkarren “kontrako” bi adierazpen ditugu hor: alde batetik, *Miren biltzarrera ez zela etorri* egiazat ematen da (perpausaren ezetza aintzat hartuz, bera baita perpausaren galdegaia), *baina* beste alde batetik —*etorri ez izanak biltzarrak gutzit ahaztu zela iradoki badezake ere*—, *txostena bidali zuela* baieztatzen da.

Bigarren adibidea, berriz, *baizik*-gisako aurkaritzari dagokio. Biltzarraren kontu horretan Mirenek *zer* egin zuen esaten zaigu hor, ‘galdegai’ gisako bi perpaus

kontrastatuz: hura biltzarrera etorri zela usteko du beharbada norbaitek eta ezetz esaten zaio ('biltzarrera etorri zela' ukatu egiten da, ezetza galdegaiari baitagokio, hau da, 'biltzarrera etortzeari'); izan ere, Mirenek egin zuena izan zen, ez *biltzarrera etorri*, baizik *txostena bidali*. Beraz, juntagaia konplexua izan arren, bigarren aurkaritza-mota honi dagokion egitura dugu hor ere: mintzagai bati (*Mirenek egin zuena*) bi galdegaiaren arteko kontrastea eransten zaio, bata ezeztatuz eta bestea baieztatuz. Horrelako egiturarik ez balego, ezin izango litzateke *baizik* juntagailua erabili: \**Miren ez zen biltzarrera etorri, baizik lasai geratu gara*. Perpaus hori okerra da, irakurketa normalean, hor mintzagai bati buruzko galdegaiaren arteko kontrasterik ez baitago. Aldiz, ez dago inolako eragozpenik egitura hori eskatzen duen lehen aurkaritza motari dagokion *baina* juntagailua erabiltzeko: *Miren ez zen biltzarrera etorri, baina lasai geratu gara*.

**28.6.3.2f** Aurkaritza honen egitura funtsean beti bera den arren, honako beste segida markatu hauek ere egin daitezke:

- Egitura perifrastikoa, mintzagaia perpaus erlatibo baten bitartez bereizten duena: *Jaiki dena ez da alaba, ama baizik*.
- Aditza perpausaren lehen buruan duena: *Jaiki da ez alaba, baizik ama*.
- Aditza perpausaren azken buruan duena: *Alaba ez, baizik ama jaiki da*.

### 28.6.3.3. Ezabaketak

**28.6.3.3a** Orain arte aztertu ditugun adibideetan garbi ikusten denez, 'errepikatutako' elementuen ezabaketa bere-berea du aurkaritza mota honek, galdegaia ez beste guztia izaten baita berdina. Juntagaietako bat bestea baino laburragoa izaten da normalean; batean osagai guztiak daude agerian, eta bestean, aldiz, galdegai 'berria' baizik ez: *Mikelek ez du dirua eskatu, baizik lana (eskatu du Mikelek)*. Horixe da *baizik* motako aurkaritzak erakusten duen jorra nagusia. Izan ere, juntadurak berak eskaintzen du isilpean utzitako osagai horiek argitara ekarri eta berreskuratzeko modua. Nolanahi ere, kontrastatzen diren galdegaiaren ezaugarrien arabera, egoera desberdinak aurki ditzakegu.

Kontrastean ipinitako galdegaiak perpausak edo iruzkin osoak badira, ez dugu zer ibili elipsien bila: —*Zergatik bidali zuten bada kongregaziotik Mikela-Inaxi? —Zuek horrela kontatzen dituzue gauzak; ez zuten bidali, baizikan bera atera zen* (B. Mokoroa).

Askotan, ordea, iruzkinaren osagai bat edo beste baizik ez da izaten perpausaren galdegai. Eta horrelakoetan, hain zuzen, galdegai ez den hori guztia, berdina denez, bigarren juntagaian ezabatuta geratzen da. Mota honetako adibide asko eman ditugu dagoeneko: *Ez da aita joango zuregana, baizik ama* (joango da zuregana); *Ez zuen bere izena ematen, bainan alegiazko izen bat* (Hiriart-Urruti).

**28.6.3.3b** Bi adibide horietan aditz bera da lehen perpausaren agerian eta bigarrenean isilpean geratu dena —pertsona, denbora, aspektua eta guzti, alegia—: *joango da* lehenean, *ematen zuen* bigarrenean. Baina ezaugarri batzuk diferenteak izanik ere, ez dirudi elipsirako debeku handirik dagoenik, baldin eta agerian utzitako zatiak ezaugarri horiek berreskuratzeko modua ematen badigu behintzat: *Ez zen erbia, baizik baratxuri zopak* [ziren]; *Ez naiz ni joango, baizik ama* [joango da]; *Ez zen atzo etorri, gaur baizik* [etorri da]. Lehen bi adibideetan aditzari dagokion pertsona aldatu egiten da juntagai batetik bestera: *hura/haiek* lehenean, eta *ni/hura* bigarrenean. Baina, hala ere, ez dago debekurik aditza isilpean uzteko, agerian dagoen galdegaiak aldatu ezaugarria berreskuratzeko modua eskaintzen baitigu. Hirugarren adibidean, berriz, aldia da aldatzen dena (+iragana/-iragana), baina hor ere zuzena gertatzen da elipsia, agerian utzitako galdegaiak —*gaur*— ezaugarri hori berreskuratzen laguntzen baitigu. Baina, aspektua aldatu nahi denean, adibide okerrak sortzen zaizkigu: *\*Ez zen atzo etorri, bihar baizik* [etorriko da]. Adibide horretan, aldia ez ezik aspektua ere aldatu egiten da perpaus batetik bestera, eta horrek galarazten du, itxuraz, elipsia.

**28.6.3.3c** Adizki laguntzailea ere izan daiteke gorderik uzten den osagai bakarra, baina ez nolana. Ondoko adibidean, esate baterako, aditzen egitura argumentala desberdina izanik, ezin da laguntzailean isilpean utzi; *zuten* eta *zen*, biak eman behar dira agerian: —*Zergatik bidali zuten bada kongregaziotik Mikela-Inaxi? —Zuek horrela kontatzen dituzue gauzak; ez zuten bidali,*

*baizikan bera atera zen* (B. Mokoroa). Laguntzailea juntagai bieran bera denean, ordea, isilpean utz daiteke bigarrean, debeku handirik gabe: *Euskaraz guk mintzo landu elertitsu bat egin-nahiak ez du amorrarazten, errukiarazten* [du] *baizik* (Lizardi). Bigarren aditzak, gainera, laguntzailearekin batera aspektu marka ere utz dezake isilpean, bereziki Hegoaldean: *Eskurik esku iraulka erabili arren, ezta inoiz birrintzen hatz artean itsatsi baizik, pikea bezala* (Ibinagabeitia). *Itsatsi* partizipioa neutroa da hor aspektuari dagokionez, hau da, markatu gabea. Lehen perpauseko *birrintzen*-ek ‘luzatzen’ dio bere ezau-garria eta horri esker berreskuratzen dugu isilpeko aditza: (itsas)ten.

#### 28.6.3.4. *Baizik* juntagailua

**28.6.3.4a** Behin eta berriz azaldu dugunez, aurkaritza hau bideratzeko erabiltzen diren juntagailuek ez dute denek jokabide bera. Malguena eta mugikorrena *baizik* da, juntagaiaren aurrean nahiz atzean joan baitaiteke. Tradizioan formarik erabiliena ere *baizik* izan da, baina euskalkiaren eta autorearen arabera beste aldaera batzuk ere aurki ditzakegu: *baizikan, baizi, baiezi, baiezik, baiezila, beizi, beizik, bezi, bezik...* *Baizen* ere erabiltzen da adiera honetan: *Eta ematen ez badute, bihotz gogor badira, ez dira hargatik aberastena-go, pobretzenago baizen* (Axular); *Zertako eta norentzat egin ote nau Jainkoak? Ez bertzerentzat, beretzat baizen...* (Duhalde).

*Baizik* juntagaiaren ondoan ezartzen da eskuarki, hura laburra denean behintzat: *Ez da hori eginkizuna, ezinkizuna baizikan* (Larramendi); *Eta ez da arrotasuna, egia baizik* (Agirre). Aurrean ere joan daiteke, ordea, ondoko bi adibide hauek alderatuz ikus dezakegun bezala: *Berehalaxe erakutsiko dizuet denoi eta ez bat, zazpi baizik* (Etxaide); *Eta bisitatzen zuen ez eliza bat, baizik anitz eliza* (Lizarraga).

**28.6.3.4b** Bigarren juntagaia luzea eta konplexua denean, berriz —aditza eta guzti daramana, esate baterako— haren aurrean kokatzeko joera erakusten du *baizik*-ek: *Ez ziren erlijiosoak oso ezeztatu; baizik eskatu zuten Jaungoikoaren izenean lehorpe bat* (Beobide). Horrelakoetan ez dirudi juntagailuak per-

pausaren ondoan leku har dezakeenik: ? [...]; *Jaungoikoaren izenean lehorpe bat eskatu zuten baizik.*

Juntagaiaren aurrean doanean, esanahiaren aldetik ezer berririk eransten ez dion *eta* gehigarria berretu ohi zaio inoiz juntagailuari, *baizik eta* forma hartuz (*zeren eta, nahiz eta, edota eta* horrelakoetan gertatzen den bezala). Juntagaia luzea eta konplexua denean gertatzen da hori, batez ere: *Baño ez han gelditze-ko, baizik eta tenorez handik etxeratzeko* (Larreko); *Ez legoke Erioarentzat lekurik, baizik eta bizirik izardietara aldatuko lirake zeru garaiena iristeko* (Ibinagabeitia). *Ere* diskurtso markatzailea ere berretzen zaio inoiz: *Lagun ezazu beraz zure laguna, ez dirutan, baizik-ere ordainean* (Duvoisin); *Kantu hok egin dira / ez libertzeko, / baizik ere guziek / esenplu hartzeko* (Bordel).

**28.6.3.4c** *Baizen* forma ere erabili izan da aurkaritza-mota hau aditzera emateko, juntagaiaren ondoan nahiz aurrean: *Ez dut gehiago neuretzat bizi nahi, zuretzat baizen* (Materre); *Baina horien penak, infernukoak bezala betiko ez dira; baizen beren kulpen lohiak garbitu, eta pagatu arteraino* (Kardaberaz).

### 28.6.3.5. *Baino eta Ezpada* juntagailuak

**28.6.3.5a** *Baino* juntagailua Hegoaldean erabiltzen da, bizkaieraz batez ere. Baldintza jakin bat du: juntagaiaren ondoren kokatzen da beti, inoiz ez aurrean: *Eztot gixonakaitik egin, Aberrijagaitik baño* (Lauaxeta); [...] *ez jakon egoki kaltegarri baiño* (Erkiaga). Hortaz, galdegai laburrak kontrastatzen direnean erabiltzen da batez ere *baino* hau. Galdegaiak konplexuak eta luzeak direnean, ordez, nekez agertuko da.

**28.6.3.5b** *Ezpada* juntagailua, berriz —mendebaldean erabilia—, juntagaiaren aurrean kokatzen da beti, azken hau luzea zein motza izan: *Errua ez dauka aitak, ezpada semeak; Gure semea ez da lanera joan, ezpada etxean geratu da*. Gramatikari batzuek okertzat hartu izan dute inoiz *ezpada* hau, erdal itxurakoa eta sasikoa dela esanaz. Iritziak iritzi, ordea, ezin da ukatu aipatu hizkeretan erabiltzen dela eta goiko perpaus horiek bezalakoak zuzentzat dituztela hizkera horietako euskaldunek. Testu zaharragoetan ere ageri da, bigarren jun-

tagaiaren aurrean beti: *Ez jako beliari usua esaten ez bada belia* (Fraibartolome); *Ez beste gauza gaiti, ez bada [...] iraun ezin dabelako* (Fraibartolome); *Neskatxa ez ilda, ezpada lo datza* (Lardizabal).

**28.6.3.5c** Esanahi bertsuko beste egitura bat ere badu bizkaierak, *ba(ga)rik* hitza erabiliz gauzatzen dena, *A barik B...* gisakoa, hain zuzen: *Orreik andra ergelok, bakalduntzat barik bakallutzat artu zaitubez zu* (Otxolua). Ez dirudi, ordea, *barik* juntagailua denik. *Ez* partikulak hartzen duen leku bera hartzen du hor *barik* hitzak, ondotik inolako juntagailurik ez duela. Hortaz, alborakuntzaz eginiko elkarketa dakarkigu gogora egitura horrek: *Alaba ez, ama jaiki da / Alaba barik ama jaiki da; Baserrian ez, kalean bizi da / Baserrian barik kalean bizi da*. Kontuan hartu behar da, izan ere, esanahiaren aldetik antzekoak diren esamoldeek ez dutela zer izan egitura sintaktiko berekoak. Goiko perpausak, hain zuzen, esanahiaren aldetik aurkaritzako juntaduraren antza badute ere, egituraz alborakuntzaren pareko dira. Eta esanahi bertsuko bestelako egitura gehiago ere bada: *Alaba jaiki beharrean ama jaiki da* eta abar.

### 28.6.3.6. *Baina* juntagailua

**28.6.3.6a** *Baizik*-motako aurkaritza deitu dugunerako Iparraldean *baina* juntagailua ere erabiltzen dute: *Ez zuen bere izena ematen, baina alegiazko izen bat* (Hiriart-Urruti); *Hanitzek obeditzen dute, ez amorez, bainan bortxaz* (Xurio). Bibliako pasarte beraren aldaerak konparaturik garbi ikusten da Iparraldean *baina* juntagailuak balio hau izan dezakeela: *Ezta hil neskatxa, baina lo datza* (Leizarraga); *Neskatxa ez ilda, ezpada lo datza* (Lardizabal); *Neskatilla au ez dago ilda, lo baino* (Kerexeta).

**28.6.3.6b** Iparraldean *baina* juntagailuaren bi aurkaritza motak bereizteko arazorik ez da izaten gehiengan. Bereizketa garbia da, noski, bi perpausak baiezkoak direnean edota bigarrena ezezkoa denean. Kasu horietan euskalki guztietako *baina*-ren aurrean gaude. Zalantza sor daiteke lehena ezezkoa eta bigarrena baiezkoa direnean, *baizik*-ek lotzen dituenak izan ohi diren bezala. *Baina* orduan ere, perpausaren egiturak esango digu askotan zein den dago-

kion adiera: ezezkoa galdegai bati dagokionean eta, hortaz, galdegaiak kontrastean ipintzen direnean, bigarren aurkaritza motaren aurrean gaude: *Ez da alaba jaiki, baina ama*. Galdegaia perpausaren ezezkoa bera denean, ordea, lehendabiziko aurkaritza-motaren aurrean egongo gara: *Alaba ez da jaiki, baina ama sukaldean ari da; Alaba ez da jaiki, baina ama bai*.

Zailago gertatuko da bereizketa horri antzematen perpaus osoak kontrastatzen direnean eta, hortaz, iruzkin osoa galdegai izan daitekeenean: *Miren ez zen biltzarrera etorri, baina txostena bidali zuen*. Intonazio kontuetan-edo sartzen ez bagara behintzat, horko *baina* hori Hegoaldeko *baina*-ren zein *baizik*-en pareko izan daiteke. Testu idatzian ez da erraz asmatzen lehen perpausaren galdegaia zein den, “*biltzarrera etorri ez izana*” ala “*biltzarrera etorri ez izana*”. Bestela esanda, “*biltzarrera etorri zela*” ukatzen den ala “*biltzarrera etorri ez zela*” baieztatzen. Lehenbiziko kasuan *baizik*-en pareko izango genuke perpaus horretako *baina*; bigarren kasuan, ez.

Dena den, horrelako kasuetan izan ezik, aski argi antzematen da nolako aurkaritza gauzatzen duen Iparraldeko *baina*-k.

**28.6.3.6c** *Baina* honek hartzen duen lekua ere *bi* juntagaien artekoa da beti: *Ez zuen bere izena ematen, baina alegiazko izen bat* (Hiriart-Urruti); *Hanitzek obeditzen dute, ez amarez, bainan bortxaz* (Xurio); *Zer izanen da bada, ez bat bakarrik, bainan hainbeste milioi kondenatzen direnean?* (Duvoisin).

**28.6.3.6d** Inoiz *baina* horri *bai* partikula eransten zaio ondotik eta, hortaz, lehen begiratuan pentsa liteke ezetza eta baietza berak direla perpausen galdegaiak, hots, ez gaudela *baizik*-en pareko aurkaritzaren aurrean, lehenbiziko *baina*-ri dagokion aurkaritzaren aurrean *baizik*. Ez da horrela izaten, ordea; galdegaia horrelakoetan ez da perpausaren baietza bera: *Ezta niganik heldu hontarzuna, baina bai linkoaganik* (Tartas); *Zeren hori ez baitarozute haragiak eta odolak irakhatsi, bainan bai ene Aita zeruetan denak* (Duvoisin); *Humiltasunak ekarriko zaitu ez lagunarekin zure buruaren neurtzerat; baiñan bai haren ohoratzerat* (Mihura). Perpaus horietan, *bai* partikula gorabehera, kontrastean ipintzen diren galdegaiak ez dira ezetza eta baietza, bestelako osagai batzuk *baizik*: *niganik* eta *linkoaganik*, aurreneko adibidean; *haragia eta*

*odolak* eta *ene Aita zerueta denak*, bigarrenan; eta *lagunarekin zure buruaren neurtzerat* eta *haren ohoratzerat*, azkenean. Beraz, *baizik*-en pareko jarraitzen dute.

Gauza bera ikusten da ondorengo bi perpausak erkatuta: *Ezen ez naiz ethorri iustoen deitzera, baina bekatoren emendamendutara* (Leizarraga); *Ez naiz ezen prestuen deitzera ethorri, baina bai bekhatoreen* (Duvoisin). Beraz, esan beharra da *baina bai* bikotea ere —*bai* partikula galdegaiaren aurrean doalarik— *baizik*-en pareko izan daitekeela Iparraldean, *baina* soila bezala.

### 28.6.3.7. *Ez baina*

**28.6.3.7a** Hegoaldean erabiltzen da. *Ez* partikula lehen juntagaiaren azkenazkenean kokatzen da eta bigarrenari, berriz, *baina* juntagailuak ematen dio hasiera, aditza normalean ondotik datorrela. “Hori ez baina hura [aditza]” egitura sortzen da horrela, *alaba ez baina ama jaiki da* gisakoa —*alaba ez, baizik ama jaiki da* egituraren parekoa—, *baina-k baizik*-en balio bera duelarik.

Jakina, ez da nahastu behar egitura hori lehen aurkaritza-motari dagokion “hori ez baina hura bai” egiturarekin. Goiko adibidean, esaterako, *ama* da galdegaia eta, hortaz, ezin da *ama*-ren eta *jaiki da* aditzaren artean etenik egin —*ama, jaiki da* egin, alegia—, aditzari buruzko baietza izango bailitzateke orduan galdegaia eta aurkaritza ere lehen motakoa izango litzateke: *Alaba ez baina ama jaiki da* (*baizik* motako aurkaritza); *Alaba ez, baina ama, jaiki da* (*baina* motako aurkaritza). Horietako lehena da orain aztertzen ari garena.

**28.6.3.7b** Egitura horretan, gainera, *baina* juntagailua aurrean duen *ez* partikulari atxiki ohi zaio sarri askotan, bien artean batasun gisako bat sortuz. Zenbait idazlek, hain zuzen, lotuta idazten dute: *Osasunaz daudenak ez-baña gaixorik daudenek dute sendagile beharra* (Orixe, Kerexeta, Zugasti); *Mireni buruz ez-baña neure buruaz hutsegin dut* (Txillardegia).

Egitura honek ere *baizik*-en pareko aurkaritza adierazten duela garbi ikusten da ondoko adibideetan: *Haurra hila ez-baña lo dago* (Orixe, Kerexeta, Zugas-



ti); *Nik konta ditzakedan gertaerak ez dira gain gaineko axala baizik, muin gordea estali ez baina ukiaztatzen digun itxura sotila* (Mitxelena).

### 28.6.3.8. *Baizik* eta *Baino* hitzen erabilera “murriztailea”

**28.6.3.8a** Nolabaiteko antza izan dezakeen arren, zuzen-zuzenean aurkaritzako juntadurari ez dagokion beste erabilera bat ere badute bi hitzok; erabilera *murriztailea* deituko dugu, eta ondoko adibideotan ageri da: *Ez dut maite zu baizik/baino; Ez dut zu baizik/baino maite; Zu baizik/baino ez dut maite*.

Lehen begiratuan, hor osagai bakarra dago: *ez* [*A baizik*]. Eta osagai bakarra baldin badago, ezin da, noski, inolako juntadurarik egin. Egitura horrek egiten duena, hortaz, ez da bi osagai juntatu —bigarren osagairik ez baitago—, aditzak adierazten duena aipaturiko elementu bakar horretara mugatu eta murriztu baizik. Horien pareko da, hain zuzen, beste honako hau ere: *Zu besterik ez dut maite*. Garbi ikusten da *baizik*-en erabilera hori zenbakiekin ageri denean ere: *Ez dira bi baizik etorri. Ez... bi baizik* egituraren egitekoa etorri direnen kopurua bira murriztea da.

**28.6.3.8b** Komunztadura, bestalde, *hura*-rekin egiten du sarritan aditzak, sintagmaren lehen osagaia 1. edo 2. pertsonari dagokionean ere: *Zu baizik ez dut maite; ?Zu baizik ez zaitut maite*. Horrelakoetan badirudi *zu baizik* gisako egitura horrek *hura*-ri dagokion beste elementuren bat duela bere baitan, isilpean-edo, eta horrekin egiten duela aditzak komunztadura. Agerian ere ikusten da inoiz delako beste elementu hori: *Ez dut inor maite zu baizik; Ez dut beste inor maite zu baizik; Ez dut besterik maite zu baizik*.

Horregatik esan dugu gorago egitura honek baduela aurkaritzako juntaduraren antza ere; *ez A, B baizik* egituraren antza, alegia. Antz hori ez da guztizkoa, ordea. Aurkaritzako juntaduran kontrastean ipintzen diren elementuak bere eskukoak izaten dira beti, nolabait esateko. Bataren esanahia ez dago nahitaez bestearekiko erreferentzian. Egitura murriztailean, berriz, lehen elementua ezin da bigarrena gabe behar bezala ulertu. Izan ere, lehen perpauseko *inor*, *beste inor* eta *besterik* horiek ez dira guztiz bere eskuko elementuak, bigarre-

nari erreferentzia egiten diotenak baizik: *inor* horrek, esate baterako, ez du berez eta bete-betean *inor* adierazi nahi, *zu ez den inor* baizik. Eta *beste* ere ezin da ulertu bigarren osagaiaren argitan ez bada: *zu ez den besterik*.

Zenbaitetan, hala ere, osagai bikoitz horren lehen elementua falta denean —*inor/ ezer/deus* edo horrelakorik ez dagoenean, alegia—, agerian dagoen elementuarekin ere egin dezake aditzak komunztadura. *Nori* osagaia duen adibidean, esate baterako, badirudi lehen elementua agerian dagoenean harekiko komunztadura egiten dela (*ez diote inori eman, niri baizik*), edo bestela bigarren elementuarekin egingo duela aditzak komunztadura (*niri baizik ez didate eman*).

Bestalde, egitura murriztaile honek ez du debekurik galdetzaileak erabiltzeko: *Zer egin dut nik, ona baizik?*; *Nork egin du hori, nik baizik?* Perpaus hauetan ez dago kontrasterik —‘ez hau, hura baizik’— bi elementuz osaturiko galdera murriztailea baizik: *onaz beste zer?*; *nitaz beste nork?*

**28.6.3.8c** *Baizik*-en aldaera den *baizen* ere erabiltzen da adiera honetan. Eta, orobat, Hegoaldeko *baino* ere: *Zeren ez baitzen, bi urtez baizen, bekatu-rik egin gabe egon* (Axular); *Deboziona ez da Jainkoaren egiazko amodioa bai-zen* (Pouvreau); *Ez dezadan lauda zure gogara dena baizen, ez dezadan preza zuri preziatu zaizunik baizen* (Xurio); *Ez daukat etxe bat baño* (Mogel); *Ez dut gura beste ondasunik, zeu baino* (Frai Bartolome).

## 28.7. Juntagailuak eta Buru-parametroa

**28.7a** Juntagailuak euskaraz bi juntagaien artean kokatu ohi dira: ‘X junt Y’. Hori da juntaduraren molde orokorra. Eta alde horretatik, gramatika honen hasieran euskararen ezaugarriak azaltzeko unean esan dugunetik aldendu egingo litzateke: esan dugu hizkuntzetan sintagmak buru edo ardatz baten inguruan eratzen direla, eta hizkuntzaren arabera, buru hori sintagmaren hasie-  
ran edo azkenean joaten dela. Euskaraz, burua azkenean izan ohi dute sintag-  
mek (ikus § 1.4). Bada, eskema orokor horretatik aldendu egiten da juntadura: batetik, juntagailua bi juntagaien artean dago; bestetik, juntaduraren ondoren osatzen den sintagma, juntatzen dituen elementuen mota berekoa izan ohi da,

eta funtzio sintaktiko bera izan ohi du; juntagailuak ez ditu ez kategoria ez funtzio sintaktikoa ezartzen. Egoera hori nahiko orokorra da hizkuntzetan<sup>14</sup>.

**28.7b** Hori horrela izanik ere, aurreko ataletan ikusi dugu, molde orokorren alboan, euskaraz badela aukera juntagailuak beste toki edo molde batzuetan azaltzeko ere. Beti, adiera edo balio bereziei lotuta; oinarrizko emendiotik, hautakarizatit edo aurkarizatit apur bat urrunduz. Adibideak berriro ekarriko ditugu, gogoratzeko; argibide gehiago juntagailu bakoitzari emandako atalean aurkitu daitezke.

Lehenik, ‘X junt’ moldea genuen. Bigarren junta gaia aipatu gabe utzita balio edo irakurketa desberdin asko lor daitezke. Erabiltzen den juntagailuak eta inguru sintaktikoak dute horretan eragina: *Irenek-eta egin dute; Irenek-edo egingo zuen; Elurra hasi du eta!; Berandu iritsi naiz, istripua izan da-eta; Nora zoaz, hondartzara ala?; Nondik zatoz, museotik edo?; Nik ez al dut esku-biderik, ala?*

Horrez gain, ‘junt X junt Y’ moldea ere aipatu dugu, juntadura hautakarian: *Edo Josuri edo Mireni utziko dizkiot giltzak; Ez zekien zer egin: ala ohe azpian ezkutatu, ala ate-osteko zuloatik begira egon; Ala bertakoek ala kanpo-koek, guztiak gorai patzen dute.* Juntagailuaren eta ingurune sintaktikoaren arabera, orobatasuna adierazteko, junta gaien artean aukeratu beharra argiago markatzeko, banakaritza indartzeko... erabil daiteke. Diskurtso markatzaileak edo beste elementu batzuk errepikatuz ere lortzen dira antzeko irakurketak.

Zenbaitetan ‘junt X’ motako egiturak ere azaltzen dira, juntagailua perpausaren hasieran emanez, baina orduan diskurtso markatzaile modura erabiltzen da juntagailua: *Eta geuk egingo bagenu?; Baina ez diozu ezer esan behar?*

<sup>14</sup> Gramatikariek aipatu ohi dute juntadurak gainerako egitura sintaktikoekin duen desberdintasun hori. Hala ere, egitura sintaktikoari dagokionez, juntadura irudikatzen unean ohiko [X] junt [Y] erabiltzen da eskuarki. Badira, ordea, juntagailua bigarren junta gaiarekin batera biltzea egokiagoa litzatekeela aldarrikatzen dutenak: [X] [junt Y]. Eta ideia horretatik abiatuz, egitura sintaktikoan hierarkia-mota desberdinak proposatu izan dira, hizkuntza eta fenomeno sintaktiko desberdinen berri hobeto eman nahian. Hemen ez dugu gai horretan sakonduko.

Adibide hauetan lotura ez da aurretik datorren juntagai batekin egiten: testu mailako lotura bideratzen da; ondoan datorren perpausak aurrekoekin nolako erlazio semantikoa duen adierazten da, juntadura sintaktikorik adierazi gabe.

**28.7c** Bestalde, euskaraz ia juntagailu guztiak bi juntagaien artean kokatzen dira, baina intonazio-etenari dagokionez, juntagailuak bigarren juntagaiarekin elkartzea da joera nagusia: *Ane / eta Jon*<sup>15</sup>. *Baina* juntagailuarekin are argiago dirudi: *Garaiz esnatu naiz, baina berandu iritsi naiz*.

## 28.8. Juntadura eta osagaitasuna

**28.8a** Hasieran esan dugu juntaduraren bidez mota bereko elementuak elkar-tzen direla. ‘Mota bereko’ izate hori apur bat zehazten saiatu gara, eta funtzio sintaktiko berdina izatearekin lotu dugu. Alegia, ez dela nahitaezkoa junta-gaiak zehazki kategoria berekoak izatea. Adibidez: *Bihar, edo datorren as-tean, edo ahal dudanean pasako naiz zure etxetik*. Hor adberbio bat, postpo-sizio sintagma bat eta denborazko perpaus bat juntatzen dira; kategoriaren aldetik ez dira berdinak; bai, ordea, funtzio sintaktikoaren aldetik. Horretaz zabalago jardun dugu juntagaien azterketa egin dugunean (§ 28.2).

**28.8b** Gramatiketan askotan erabili izan da juntadura osagai sintaktikoak zein diren erabakitzeko irizpidetzat. Adibidez, *Liburu eta aldizkari zahar ho-riek bota itzazu* esaten dugunean, argi ikusten da *liburu* eta *aldizkari* maila bereko elementuak direla, eta *zahar* adjektiboa biei dagokiela: *[[liburu eta al-dizkari] zahar]*. Edo, *Altzari zahar eta liburu garesti horiekin egongela dotore geldituko zaizu* esaten badugu, izena+adjektiboa multzoak elkartzen ditu *eta* juntagailuak, eta ondorioz, esan dezakegu izena eta adjektiboaren artean osa-gai sintaktiko bat egiten dutela: *[[altzari garesti] eta [liburu zahar] horiekin]*.

---

<sup>15</sup> Nolanahi ere, ahozko jardunean *eta* juntagailuak bere aurreko juntagaiaren eragina jasaten du zenbait hizkeratan palatalizazioari edo bokal asimilazioari dagokienez: *hiru te lau / bi te hiru*. Horrez gain, *t*-ren ahosuntzea ere gertatzen da, sudurkari edo albokari baten ondoren: *Miren da Jon etorri dira*.

Alde horretatik, juntadura irizpide baliagarria gertatzen da gramatikariarentzat osagaiak eta egitura sintaktikoak zehazteko unean.

**28.8c** Nolanahi ere, behin baino gehiagotan aipatu izan da irizpide horri bakarrik jarraitzeak erabiltzen zailak diren ondorioetara eraman gaitzakeela. Ikusi, esaterako, honako bi adibide hauek: [*Joxeren liburu eta Mirenen aldizkari*] *berriak* / *Joxeren* [*liburu berri eta aldizkari zahar*]*ak*. Balizko osagaiak banatzeko hesiak geuk jarri ditugu. Osagaiak bereizteko juntadura soilik erabiliz, lehenengo adibidean izenlaguna eta izena bilduko lirateke osagai batean, adjektiboa kanpora utziz; baina bigarren adibidean izena eta adjektiboa bilduko lirateke, izenlaguna kanpora utziz. Kontraesan itxurako emaitzak, beraz.

Horrelako kasuen berri emateko bide batzuk —ezabaketak, kategoria hutsak...— proposatu dira gramatiketan. Horrelakoetara jo ezean, juntadura egituretan kasuistika zabala eta erabiltzen zaila aurki daiteke. Begira diezaiozun ondorengo adibideari: *Joxeren* [*liburu zaharrak eta aldizkari berriak*]. Interpretazioetako batean, izena, izenondoa eta artikulua bilduko litzazkiguke osagai batean, eta *Joxeren* izenlagunak guztia besarkatuko luke. Ildo berari jarraituz, *Herriko* [*elbarriei eta zaharrei*] *laguntzak emango zaizkie* bezalako batean, izena+determinatzailea+marka izango genituzke elkarrekin bilduta, izenlaguna kanpora utziz. Eta gauza bera gerta daiteke izenaren aurretik doazen determinatzaileekin: *Zenbait* [*musikaririk eta idazlek*] *gauzez lan egiten dute*, edo zenbait hitz elkarturen lehenengo zatiarekin: *Giza* [*besoz eta izterrez*] *betea zegoen eltze hura*. Garbi ikusten da, bada, juntadura dagoenean, ‘errepikatutako’ elementuak erraz uzten direla isilean, eta juntaduraren testuinguru sintaktikoak esanahia berreskuratzeke aukera ematen digula.

**28.8d** Batzuetan, intonazio bereziagoz, juntagailuaren alboetan osagai izatea zail duten elementu-segidak ere azaltzen zaizkigu multzokaturik. Adibidez: [*Astegunetan Maulen eta asteburuetan Bilbon*] *aurkituko nauzu*. Adibide honetan ‘askeak eta beregainak’ diren bi elementu azaltzen zaizkigu *eta* juntagailuaren alde banatan. Edo begira EGLU-IV testutik ateratako adibide honi ere: *Txandaturik ager daitezke* [*bata juntagai baten eta bestea bigarren jun-*

*tagaiaren] aurean* (EGLU-IV: 177). Lehen juntagaiko *bata* eta bigarreneko *bestea* subjektuak izango genituzke —eta aditzarekiko komunztadura pluralekoa da—, osagai oso eta askeak; baina *juntagai baten* eta *bigarren juntagaia- ren* izenlagunak, jarraian datorren *aurrean*-en menpean doaz; hau da, intonazioaren bidez subjektuarekin batera bilduko genituzke, eta beren ardatza den izena —eta artikulua eta *-n* marka— bilketa horretatik kanpora geldituko lirajteke. Hizkuntzak eta juntadurak aukera hauek ematen ditu, baina betiere intonazio bereziagoa erabiltzen da.

## 28.9. Alborakuntza eta aposizioa

### 28.9.1. Alborakuntza

**28.9.1a** Gramatikako unitate gorenak dira perpausak, baina badituzte harremanak diskurtso edo testu batean aurretik edo ondoren ageri diren perpausekin; izan ere, perpausak elkarrekin josten ditugu diskurtso koherente bat eratzeko. Kapitulu honetan dagoeneko aipatu ditugun juntaduraz eta menderakuntzaz baliatzen gara horretarako; juntagailuez eta menderagailuez, alegia. Dena den, juntadurak eta menderakuntzak perpaus kategoriako unitateak osatzen dituzte (ikus § 10.2): perpaus konplexuak (perpaus nagusiaz + perpaus menderatuez osatuak) edo perpaus konposatuak (juntaduraz elkarturiko perpaus beregainek osatuak).

Baina perpausen artean gerta daiteke beste mota bateko lotura ere, solas mailakoa, gorago aipatu duguna bezain hertsia ez dena. Izan ere, bata bestearen ondoan dauden perpausen artean ere badira harremanak. Hau da, hain zuzen, orain aipatu nahi dugun lotura: solas mailakoa. *Alborakuntza* (edo *justaposizio*) esaten diogu hizki edo partikula jakin eta berezirik erabili gabe gauzatzen den juntadurari. Izenak berak aski argi adierazten duenez, perpausen alboratze hutsez gauzatzen dena da *alborakuntza*; edo, bestela esanda, juntagailurik gabeko juntadura.

Adibide batekin hobeto ikusiko dugu juntadura / menderakuntza / alborakuntza bereizketa. Har ditzagun bi perpaus hauek: *Beranduegi da* eta *Etxera noa*.

Bi perpaus horien esanahia kontuan hartuta argi ikus dezakegu nolako harreman semantikoa dagoen bien artean. Baina gramatika egitura bat baino gehiago dugu eskura harreman hori adierazteko: juntadura (*Beranduegi da eta etxera noa*); menderakuntza (*Beranduegi denez, etxera noa*); alborakuntza (*Beranduegi da; etxera noa*). Berdin egin dezakegu beste bi perpaus hauekin ere: *Haurra bakarrik geratu da eta Ikaratzen hasi da*. Juntaduraz balia gaitzke (*Haurra bakarrik geratu da eta ikaratzen hasi da*), menderakuntzaz (*Haurra bakarrik geratu denean ikaratzen hasi da; Haurra ikaratzen hasi da, bakarrik geratu baita*) nahiz alborakuntzaz (*Haurra bakarrik geratu da; ikaratzen hasi da*).

**28.9.1b** Diskurtso markatzaile deitzen ditugun elementuek laguntzen dute alborakuntzaz juntatu diren perpausen arteko lotura semantikoa agerian uzten. EGLU-III lanean aztertzen dira horietako batzuk: lokailuak. Solas mailako edo testu mailako lotura gauzatzen duten gramatika baliabideak dira lokailuak; ez dute perpaus elkarketa bideratzen.

Goiko adibide horietan, beranduegi izatearen eta etxera joatearen edo haurra bakarrik geratzearen eta ikaratzen hastearen arteko lotura semantikoa nabarmendu nahi badugu esan dezakegu, adibidez, *Beranduegi da; beraz, etxera noa*. Edo *Beranduegi da; hortaz, etxera noa*. *Haurra bakarrik geratu da; orduan, ikaratzen hasi da*. Azpimarratu ditugun elementuak baliatuz perpausen arteko lotura semantikoa agerian jartzen dugu, baina ez dugu perpausen arteko sintaxi mailako loturarik eragiten.

Nolanahi ere, lokailuak informazioa egituratzeko baliatzen ditugun elementuetako batzuk baino ez dira. Askoz zabalagoa da diskurtso edo testu bateko informazioa egituratzeko eskura dugun diskurtso markatzaileen multzoa (ikus 42. eta 43. kapituluak).

**28.9.1c** Juntadura aztertzean ikusi dugu kategoria bateko baino gehiagoko osagaiak elkar ditzaketela juntagailuek: perpausak (*berandu da eta etxera noa*), postposizio sintagmak (*aitarekin eta amarekin*), adberbioak (*bihar eta etzi*), izenak (*herri eta mendiak*), adjektiboak (*artelan eder eta garestiak*) eta abar (ikus § 28.1.1a).

Menderakuntza hitza ere, ia beti *perpausen* menderakuntzaz ari garela erabili ohi dugun arren, sintagmez ari garela ere berdin erabil dezakegu. Badakigu perpausezkoak ez diren sintagmak ere beste sintagma askotarikoen menderakoak izan daitezkeela. Sintagma bat beste baten mende jartzen dute, beste baten barruan txertatzen dute, *-ko* postposizio sintagmek eta genitibo sintagmek (*Euskal Herriko unibertsitateetako ikasleen kezkak*). Adibide horretan argi ikusten da sintagmen menderakuntza, perpausena bezala, errekursiboa dela: sintagma bat beste baten mendeko egin dezakegu, eta egitura hori hirugarren baten mendeko... *Euskal Herria > Euskal Herriko unibertsitateak > Euskal Herriko unibertsitateetako ikasleak > Euskal Herriko unibertsitateetako ikasleen kezkak*.

Aintzat hartu behar da, beraz, prozedura orokorrak direla bai juntadura eta bai menderakuntza, sintaxiaren maila guztietan gerta baitaiteke osagaiak juntatzea edo bata besteari menderatzea.

**28.9.1d** Alborakuntza ere perpausez harago doan prozedura da, perpausak ez ezik, sintagmak ere albora daitezke eta: *Haurrak, gazteak, helduak, hantzeuden guztiak; Etxean, lanean, tabernetan, edozein lekutan izaten zituen liskarrak*. Ohikoa izaten da horrelako zerrendatze edo enumerazioen edukia gero sintagma bakar batean biltzea. Eman ditugun bi adibideetan *guztiak* eta *edozein lekutan* dira, hurrenez hurren, bata bestearen ondoan eman ditugun sintagmak “biltzen” dituztenak. Beste batzuetan alderantzizkoa gertatzen da: esanahi orokorra, oro-biltzailea duen sintagma ageri da lehenik, eta sintagma horren edukia “aletzen” duten beste sintagma batzuen zerrenda ondoren: *Jende askorekin hitz egin zuen: lankideekin, familiakoekin, auzokoekin, tabernariarekin...*

Kategoria lexikoek ere osa ditzakete horrelako zerrendak. Izenek: *Egile horren liburu, artikulu, kritika, iruzkin, mota guztietako idatziak bildu ditugu; Egile horren mota guztietako idatziak bildu ditugu: liburu, artikulu, kritika, iruzkin eta abar*. Adjektiboek: *Zuri, gorri, berde, beltz, hori, urdin, kolore guztiak erabiltzen zituen marrazki bat egiten zuenean*. Aditzek: *Edozer egingo zuen nahi zuena lortzeko: eskatu, erregutu, agindu, mehatxatu...*



## 28.9.2. Aposizioa

**28.9.2a** Zerrendatze hutsaz bestelako harremana ere gerta daiteke bata bestearen ondoan eman diren bi sintagmaren edo bi izenen artean. Askotan izen sintagma batean adjektiboak betetzen duen zeregina aposizioan doala esan ohi dugun izen batek, edo beste izen sintagma batek betetzen du; hau da, ondoan daraman izenaren zer nolakoa adierazten du. Ikus ditzagun adibide hauek: *Larrañaga irakasleak irakatsi zigun iaz matematika*; *Gasteizen, Arabako hiriburuan, taberna ugari dago*. Adibide horietan *Larrañaga* eta *irakasle* izenen arteko harremana edo *Gasteizen* eta *Arabako hiriburuan* postposizio sintagma, aurreko puntuan eman ditugun adibideetako izen eta sintagmen artekoa ez bezalakoa da. Orain arte ikusi ditugun adibideetan mota semantiko bereko izenak (*liburu, artikulu, iruzkin*), adjektiboak (kolore adjektiboak, eman dugun adibidean) edo aditzak alboratu ditugu, jarri ditugu bata bestearen atzean. Mota semantiko berekoak bai, baina bakoitzak du bere erreferentea, bere esanahia. *Larrañaga irakasleak* adibidean, berriz, izen propioa eta izen arrunta eman ditugu elkarren ondoan; ezingo genuke, beraz *Larrañaga eta irakaslea* edo *Larrañaga nahiz irakaslea* edo *Larrañaga, irakaslea* esan; ez, behintzat, *Larrañaga irakaslea* sintagmaren pareko egitura emateko (besterik da, adibidez, *Larrañaga* izeneko ikaskide batez ari bagara eta, informazio hori ezaguna izanik, esatea *Larrañaga eta irakaslea elkarrekin joaten dira eskolak amaitu ondoren zerbeza bat hartzera*). Guk eman dugun adibidean (*Larrañaga irakasleak irakatsi zigun iaz matematika*), irakasleen artean bakarra izendatzeko baliatzen da *Larrañaga* deitura. Alegia, *irakasle* izenaren modifikatzaile zeregina du *Larrañaga* izen propioak. Bigarren adibidea hartuz gero, erreferente bera dute bi sintagmek: *Gasteiz* eta *Arabako hiriburua*. Horrelako egituretan bigarren sintagmak ezkerrekoa modifikatzen du.

Aposizio esaten zaie mota honetako egiturei, zeinetan izen batek edo izen sintagma batek beste izen bat modifikatzen duen. Garrantzitsua da azpimarratzea “osagarri ez diren modifikatzaileak” direla aposizioetan ageri direnak; ezin dira izan argumentu egituradun izen baten osagarriak (ikus § 12.3.5, § 23.3.2). Berehala aztertuko dugu zer motatako modifikatzaileak diren aposizio egitu-

rak eratzten dituztenak, izenaren (edo izen sintagmaren) osagarri ez diren modifikatzaile asko eta asko izenlagunen bidez ematen baititugu.

Aposizio egiturak, beraz, izenaren mota jakin bateko modifikatzaile ez-osagarriek osatzen dituzten egiturak dira. Modifikatze hori zer motatakoa den, bi aposizio molde bereiziko ditugu: aposizio ez-murrizgarriak / aposizio murrizgarriak.

**28.9.2b** Sintagmatik kanpoko aposizioa: aposizio ez-murrizgarriak. Erreferentzia bera duten bi izen sintagma osatzen dituzte aposizio ez-murrizgarriak. Bigarrenak, aurrekoaren ezaugarri berriren bat adierazten du. Gehiengtan eten bat gertatzen da bi sintagmen artean: koma artean ematen dugu aposizioan doan sintagma. Izen sintagmari, beraz, kanpotik gehitzen zaizkio aposizio ez-murrizgarriak. *Gasteizen, Arabako hiriburuan, taberna ugari dago; Pellok, atzo aipatu nizun lagunak, andregaiia utzi egin du*. Adibide horietan erreferentzia bera dute *Gasteiz* eta *Arabako hiriburua* sintagmek, bai eta *Pello* eta *atzo aipatu nizun laguna* sintagmek ere. Azken batean berdintsu litzateke beste modu honetan ematea: *Gasteizen (eta Gasteiz Arabako hiriburua da) taberna ugari dago; Pellok (eta Pello da atzo aipatu nizun laguna) andregaiia utzi egin du*. Edo diskurtso markatzaile bat ere balia dezakegu bigarren sintagma adierazten duen ezaugarria “lotzeko”: *Piramide hori diseinatu zuenak, faroiaren arkitektoak; Piramide hori diseinatu zuenak, hots, faroiaren arkitektoak; Hautagai batzuei, azterketa gainditu dutenei; Hautagai batzuei, zehazki azterketa gainditu dutenei*. Mota honetakoak dira beste adibide hauek ere: *Barack Obama, AEBko lehen presidente afroamerikarra, Hillary Clintonekin lehiatu zen Alderdi demokrataren hautagai izateko; Lotsagarria da nolako ilarak ikusten diren gaur Everestera, munduko mendirik altuenera igotzeko*. Erlatibozko sintagma adjektibalak ere ager daitezke aposizioan<sup>16</sup> (ikus § 31.4.3.14): *Jende gazte arinen, [zentsuz baino zangoz fidago direnen] ofizioa da dantza* (Axular).

---

<sup>16</sup> Aurrekari duen sintagmaren postposizio atzizki bera errepikatzen den heinean, eman ditugun aposizio ez-murrizgarrien gainerako adibideak bezalakoak dira; hau da, § 28.9.2c puntuan aztertzen diren sintagma adjektibalak ez bezalakoak, horietan aurrekariak absolutiboko sintagma izan behar du eta.

Aposizio ez-murrizgarriek hiru ezaugarri dituzte: a) bigarren sintagma ez da nahitaezkoa; isilik utz daiteke eta, hala ere, perpausa gramatikala izango da<sup>17</sup>: *Gasteizen taberna ugari dago; Lotsagarria da nolako ilarak ikusten diren gaur Everestera igotzeko eta abar.* b) Bata bestearen ondoan joan behar dute, nahitaez, bi sintagmek: *\*Gasteizen taberna ugari dago Arabako hiriburuan; \*Barack Obama Hillary Clintonekin lehiatu zen hautagai izateko lehen presidente afroamerikarra.* c) Aposizio ez-murrizgarrietan bi sintagmek hartu behar dute kasu marka edo postposizio atzizki bera: *Mireni, nire lagun donostiarrari, ez zaio gustatzen inork ñoñostiarra esatea.*

Komunztadurarik gabeko aposizioak leku urriagoa du tradizioan eta, hortaz, ez da gomendatzekoa: *??Nire lagun Ferminek, piano jotzaile trebea, kontzertu asko eman ditu aurten; ??Zure lagunarekin, unibertsitateko irakaslea, mintzatu naiz gaur.* Zenbaitetan perpausaren joskeratik aparteko eranskin edo tarteki aske gisa ematen da bigarren sintagma eta ez sintagma aposatu gisa. Area-go gertatzen da etenak, tartekiak eta horrelakoak maiz samar dituen euskara mintzatuan, jardun egituratuagoa izan ohi duen idatzian baino. Horrelakoetan, jakina, benetako aposiziorik ez dagoenez, ez da komunztadura egiten. Erraza-go onartzen dira horrelakoak, tarteki izaera argia denean: *Gure herriko alka-teak —musikazale amorratua bera— begi onez ikusi du kontzertu gela berria egiteko proiektua; Haren etxean —aski zabala, ene ustez— erraz kabituko gara denok; Datorren larunbatean —hilak zortzi— hasiko da ehiza garaia.*

Ikus honetaz Euskaltzaindiaren 109. araua: “Komunztadura aposizioetan”, Bilbon, 2001eko ekainaren 29an onartua.

<sup>17</sup> Alde horretatik, osagarri ez diren modifikatzaile guztiak bezalakoak dira. Osagarriak dira nahitaez adierazi behar diren bakarrak. Eta, alde horretatik, esan daiteke gehigarriak direla, gehigarria kenduta ere osaturik baitago egitura. Perpausak ere har ditzakete gehigarri batzuk, haren hari nagusitik *aparte*-edo doazenak, eta askotariko osaera izan dezaketenak. Alborakuntzaren ordez beste modu honetan ere eman daiteke: *Haurra —ilunpean bakarrik gertatzearekin— ikarutzen hasi da; Ehiztariei, (zeinak) hiru orduz egonak (baitziren) usoen zain, etsipena nagusitu zitzaizen* (ikus Garzia 2014a, 9. atala).

**28.9.2c** Sintagma adjektibalak aposizio ez-murrizgarrian. Sintagma adjektibalak izen sintagmaren barnean dute oinarritzko lekua, dela ezkerrean (-ko atzizkiaz osatuak daudenak, *material sendoko aldamio*), dela eskuinean (*aldamio on*). Erlatibozko perpausak ere, izen bat modifikatzen baitute, ezkerrean dute ohiko lekua (*ezustekorik emango ez didan aldamioa*). Baina izen sintagmaren barruko modifikatzaile horiek izen sintagmaren *ondotik* ere ager daitezke, hartatik kanpo baina hari dagozkioa: *Aldamio bat [on]a, [material sendoko]a, [luze irauteko]a, [ezustekorik emango ez didan]a*. Bistakoa da izen sintagmaren barnean ere ager zitezkeela: *Ezustekorik emango ez didan luze irauteko aldamio on, material sendoko bat*. Badu antolamendu horrek ezauzgarri bat aipagarria; izan ere, oinarri duen izen sintagmatik kanporatze hutsarekin, honelakoak genituzke berez: *\*aldamio bat [on], [material sendoko], [ezustekorik emango ez didan]*. Bistan da aposizioa determinatzaile-edo baten eske geratzen dela horrela, bere sintagma itxura betea izango badu. Testu zaharretan, partitiboak betetzen zuen eginkizun hori, aurrekari den sintagma zehaztugabeari berez dagokion komuntaduraz: *Aldamio bat [on]ik, [material sendoko]rik, [ezustekorik emango ez didan]ik*. Geroztiko euskaran, artikuluz egiten da komuntadura, eta barra-barra erabiltzen da joskera hori (ikus § 31.4.3.14b): *Aldamio bat [on]a, [material sendoko]a, [ezustekorik emango ez didan]a*. Adjektibo eskuineratu ugari ikus ditzakegu, esaterako, Oxobiren adibide honetan: *Bazen behin bele bat. Bele bat beltza. Pika bezen ohoina, baina zozoa! Hartu zuen gasna bat. Gasna bat gaitza*. Bestetik, bi muga zorrotz ditu sintagma adjektibalak hala *gibeleratzeko* —hots, izen sintagmaren ondotik emateko—. Ikusi ditugun adibideetan gertatzen den bezala, aurrekariak a) absolutiboan egon behar du, b) zehaztugabea izan behar du (ikus § 31.3.2): *\*aldamio batekin, [ezustekorik emango ez didan]a(rekin); \*aldamioa(k), ona(k)*.

**28.9.2d** Absolutiboan, anbiguotasunen bat gerta daiteke inoiz ikusi ditugun aposizio ez-murrizgarri molde horien artean, nahiz ez izan inola ere ohikoa. Hau da, zalantza sor daiteke aposizio ez-murrizgarrian doan egitura izen sintagma ala sintagma adjektibala den. Aposizioaren amaierako artikulua izen sintagma ala sintagma adjektibala *airean* ez uzteko komuntadurara hutsezkoa. *Heldu zen egun bat [denok espero genuena] (egun bat [nola-*

ko(a)?] / halako(a)] / *egun bat* (zein? / hori). Sintagma adjektibalari dagokio *halakoa* irakurketa; izen sintagmari, ostera, *hori*. Baina badira moduak anbiguotasuna hausteko: *Heldu zen egun bat; denok espero genuen hura, hain zuzen / Heldu zen egun bat denok espero genuen gisakoa*.

**28.9.2e** Izen sintagmei dagozkien aposizio ez-murrizgarriak aztertu ditugu aurreko puntuetan; izen sintagmak dira, ikusi ditugun adibideetan, beste izen sintagma bati kanpotik gehitu zaizkionak. Baina, izatez, molde hau berdin da aplikagarri bestelako sintagmekin, funtzio bereko bi sintagmaren arteko erreferentzia errepikatuan baitatza prozedura: *Etzi, ostegunean, dantzaldia izango da plazan; Bete-bete egin naiz (esfortzuaz lehertu, alegia) azkenerako*.

**28.9.2f** Sintagma barneko aposizioak: aposizio murrizgarriak / aposizio kalifikatzailea. Puntu honetan aztertuko ditugun aposizioek hauxe dute ezaugarri nagusi: izen sintagmaren barrukoak izatea. Baina sintagmaren barruko aposizio hori bi motatakoa izan daiteke: murrizgarria (hau da, izenaren erreferentea murrizten duena) edo kalifikatzailea (adjektiboek egin ohi duten bezala, izenaren ezaugarri bat adierazten duena). Aposizio murrizgarrian, izen sintagmako ardatz den izenak *izendapen* bat hartzen du aurretik, izen bereziz nahiz arruntez gauzatua: *Nilo (izeneko) ibaia, Pio XII.a (izena hartutako) aita santua*. Kasu horretan ere, izen ardatza osatzera eta erreferentea identifikatzera datorren *izendapen* hori izen arruntarekiko *aposizioan* doala esaten da; baina, mota horretako egituretan predikazio erlazio inklusiboa da (§ 7.2.8.1). Aposizio *identifikatzaile* mota hori izen sintagmaren barnean gertatzen denez, *barne-aposizio* dela esan daiteke. Mota honetako aposizioak dira *Larrañaga irakaslea; Bilintx liburu-denda; Urola ibaia; Lasa andrea; Loiolako Inazio saildua*. Adibide horietan guztietan, ezkerreko izen propioak zehaztu, murriztu egiten du sintagmako izenaren erreferentea (ikus “Aposizio egiturako elkartuak” § 7.2.8.6).

Leku-denborazko izen berezi batzuekin, *-ko* postposizioa baliatzen da hizkera guztietan, kokapen-baliorik gabe, (izen-izen) aposizio soilaren partez: *martxoko hilaren zazpian, Eibarko hiri argian*. Alegia, *hila*: *martxoa*; *hiria*: *Eibar* izanagatik, ez dugu hor erabiltzen ez #*martxo hiletik* ez ?*Eibar hirira*. Antzeko mekanismoa dugu genitiboaren erabilera batzuekin ere: [droga=arazo / mi-

gratzea=tragedia] → *drogaren arazoa; migratzearen tragedia*. Halakoak ez dira formaz aposizio, baina bai haien kide esanahiz.

Kasuren batean, izenaren eskuinean (ere) joan daiteke izendapena barne aposizioan, ahaidetasun-izen, tratamendu eta gisakoekin bereziki: (*Zure*) *lehengusu Andoni*; *Aitona Markos*; *Maisu Juan*; *Ama birjina/Erregina Maria*. *Jaun* eta *andre* izenaren ezkerrean nahiz eskuinean ager daitezke. Iparraldeko tradizioan ohikoa da ezkerrean ematea: *Jaun erretorea*; *Andre serora*. Ez dirudi debeku gramatikal zorrotzik dagoenik berez eskuineko ordenamendu hori (ere) baliatzeke. Aukera biak ditugunean, zentzu zehaztaile(ago)a har dezake izendapena amaieran emateak: *Andoni(,) zure lehengusua* vs (*zure*) *lehengusu[etatik] Andoni [izenekoa]*. Azken urteotan, hain zuzen ere, aski zabaldu da halako joskerara honelakoetan: *Nazio Batuen Erakundearen idazkari nagusi Ban Ki-moon*. Hala saihesten da beste hurrenkeran gertatu ohi den letra larrizko izen(dapen) arrotzen pilaketa nahasgarria: *Ban Ki-moon Nazio Batuen Erakundearen idazkari nagusia*. Mota honetako aposizioa da beste adibide honetakoa ere; eta, adibide honetan ere, izen berezia ezkerrean nahiz eskuinean eman daiteke: *Unibertsitateko errektoreorde Edurne Mendiluzek aurkeztu du txostena*; *Edurne Mendiluze unibertsitateko errektoreordeak aurkeztu du txostena*.

**28.9.2g** Mugatzaile eta guzti eratuak diren izen bereziek, hala ere —*Antso Azkarra*, *Pernando Amezketarra* eta horrelakoek—, bere horretan gordetzen dute mugatzailea aposizioetan ere: *Antso Azkarra errege ausartari*; *Pernando Amezketarra bertsolari ezagunaren ibilerak*. Zenbatzaile ordinala daramaten izen propioetan, ordea, ohiko joera mugatzailea izen bereziaren ataltzat ez hartzekoa izan da. Hala erakusten du literatura tradizioan nagusi ageri den jokamoldeak, zenbatzaile ordinala izen bereziaren amaieran ematen baita: *Frantziako errege Louis XVI.aren ministro zen hau*; *Famatua izan da, bereziki, aita santu Inozentzio VIII.ak landuriko “Bi ezpaten teoria”*. Hala ere, badirudi gaurko joera bestelakoa dela, hau da, mugatzailea izen bereziaren ataltzat hartzekoa: *Karlos II.a errege suediarra*.

**28.9.2h** Batzuetan ez da hain erraza zein motatako aposizioa den bereiztea. Adibidez, *Garate* izeneko pertsona bat baino gehiago ezagutzen baditugu, *Garate futbolaria* esatean, *Garate* izeneko pertsonen multzoa zehazten edo

murrizten dugu, Garate guztien artean futbolaria dena bereizten da. Ez dago, beraz, alde handirik, ikuspegi honetatik *Garate futbolaria* eta *osaba bertsolaria* sintagmen artean. Morfologiaren barruan aztertzen dira Gramatika honetan *osaba bertsolaria* motakoak (ikus § 7.1.3c). Aposizio murrizgarri (barne aposizio) deitu ditugunak ere Morfologiari eskainitako atalean aztertzen dira, izen elkartuen artean (ikus “Aposizio egiturako hitz elkartuak” § 7.2.8).

**28.9.2i** Bi egitura mota bereiz daitezke aurreko puntuetan ikusi ditugun sintagmaren barruko aposizioetan. Bi izenez osatuak daudenak (Morfologiari eskainitako atalean zehazkiago aztertu ditugunak, § 7.2.8.6) eta egitura konplexuagoa dutenak (*Pernando Amezketarra bertsolari ezaguna*, *Antso Azkarra errege ausarta*). Lehen motakoetan argi ikusten da izendapen balioa (§ 28.9.2g): ibaien, mendien, idazleen, errektoreordeen... artean bakarria izendatzen da. *Antso Azkarra errege ausarta* edo *Pernando Amezketarra bertsolari ezaguna* sintagmak, ostera, konplexuagoak dira; errege edo bertsolari jakin baten izendapenaz gain adjektibo kualifikatzaile bat ere gehitzen da eta, horrenbestez, nekez azter daitezke morfologian; horietan ez dago erlazio inklusiborik. Horrelakoak dira *Stalin agintari krudela* edo *Axular idazle handia* ere.

**28.9.2j** Egitura desberdintasunak gorabehera, sintagma barruko aposizioetan, sintagma bakarria dagoen neurrian, amaieran ematen da artikulua eta egiturazko kasu markak zein postposizio atzizkiak: *Axular idazle handiak*; *Stalin agintari krudelarentzat*; *Mitxelena hizkuntzalari jakintsuarekin*; *Urola ibaitik*; *Axular ikastolara*; *Pentsamenduaren Klasikoak bilduman*.

**28.9.2k** Aposizio egiturako hitz elkartuak aztertzean ikusi bezala (§ 7.2.8.6), bi izen aposizioan ematean morfologiaren eta sintaxiaren mugan gabiltza eta aposizio erlazioa lexikoan ere gerta daiteke. Horixe nabarmendu dute Odriozolak eta Perez Gazteluk ere: “Aposizio deizioa esangura anitzekoa da hizkuntzalari-tzako lanetan. Egitura jakin baten bi osagaien arteko erreferentziakidetasun maila bat da funtsezko ezaugarria, baina, sintaxi- ala morfologia-prozedura batez ari ote garen ere ez dago guztiz garbi” (Odriozola eta Perez Gaztelu 2002: 467).





## 29. Menderakuntza

---

- 29.1. Perpausak konbinazioan
  - 29.2. Menderakuntzaren ezaugarri morfosintaktikoak
  - 29.3. Menderagailuaren eta aditzaren arteko egokitze morfologikoak
  - 29.4. Ohar orokor batzuk
  - 29.5. Formatik abiatzen den sailkapena
  - 29.6. Esanahitik abiatzen den sailkapena
- 

### 29.1. Perpausak konbinazioan

**29.1.1** Hamargarren kapituluan, perpausak zer diren ikusi dugu. Diskurtsoak edo testuak antolatzean perpaus bakunak erabil ditzakegu: *Lehen goan mendira joan ginen; Txakurra haserretu da...* Horietako bakoitzak izango du bere subjektua, aditza eta gainerako osagaiak.

**29.1.2** Askotan, ordea, perpaus bat baino gehiago elkartuko ditugu zerbait adierazteko. Maila bereko perpausak elkartzeari juntadura esaten diogu (ikus § 10.2, eta oro har 28. kapitulua): *Lehen goan mendira joan ginen eta bazter politak ikusi genituen* perpaus elkartua da, bi perpaus juntatuz eratu duguna. ‘Juntadura’ dugu hor.

Baina gerta daiteke perpausetako bat bestearen osagai izatea ere; menderakuntza esaten diogu horri, perpaus bat bestearen ‘mende’ ematen delako. Ondoko adibide hauetan menderakuntza dugu: *Ez dut uste joango naizenik; Ez ahaztu*

*atzo esan nizula; Gizon horrek zerbait badakigun galdetzen du; Kalera irten naizenean ohartu naiz euria ari zuela; Zuk urte osoan irabaz dezakezuna baino gehiago gasta dezaket nik egun bakar batean; Ez bazara ongi sentitzen hobe duzu etxera joatea.*

Adibide horietan, [*joango naizenik*] uste izan aditzaren mende dago. Hala gertatzen da gainerakoetan ere [[*Atzo esan nizula*] *ez duzu ahaztu*], [[*Gizon horrek zerbait badakigun*] *galdetzen du*], eta abar. Areago, perpaus bat baino gehiago ere egon daiteke aditz baten mende: Ohartu naiz [*kalera irten naizenean*] [*euria ari zuela*]. Zertaz ohartu naizen eta noiz ohartu naizen, bi perpausaren bidez dago adierazia.

**29.1.3** Mendeko perpausak, oro har, beste edozein sintagmak perpaus baten barnean beteko lukeen zeregina betetzen du. Eta, menderatze hori, behin eta berriro errepika daiteke: *Ez dut esan badakidala noiz etorriko naizen*. Adibide honetan, *esan* aditzaren mende dago *badakidala* eta honen mende, aldi berean, *noiz etorriko naizen*. Badira, dena den, horrelakoak ez direnak ere; alegia, sintagma baten lekua betetzen ez dutenak, perpaus (nagusi)tik kanpo geratzen direnak: *-(e)nez* (§ 38.2.2, § 40.5), baldintza perpausak (§ 24. kapitulua), ondoriozko perpausak (§ 23. kapitulua)...

**29.1.4** Juntadura juntagailuen bidez gauzatzen da (§ 28. kapitulua): *eta, baina, edo, ala...* Menderakuntza, ostera, ‘menderagailu’en bidez: *-la, -n, bait-, -nez, -nean, -(e)lako, ba-*... Hau da, aditzari itsatsitako atzizkiak nahiz aurrizkiak agertuko zaizkigu perpaus txertatua dugunean. Beraz, euskaraz, menderakuntzaren eta juntaduraren arteko diferentzia sintaktikoa, morfologiazko diferentzia batez azaleratzen da. Aditzak atzizkia edo aurrizkia badarama, perpausa txertatua edo menderatua dela esango dugu.

**29.1.5** Perpausak elkarren artean modu batera edo bestera lotzen direnean, perpaus beregainak sortzen dituzte eta perpaus beregain hauek egitura desberdinak erakusten dituzte: konplexuak (perpaus nagusia + perpaus menderatua(k), menderakuntzaz sortua) edo konposatuak (bi perpaus beregain edo gehiago lotzen direnean) izan daitezke (§ 10.2).

## 29.2. Menderakuntzaren ezaugarri morfosintaktikoak

**29.2.1** Honako hauek dira, EGLU-IV eta EGLU-V liburukietan genioenez, menderakuntzak berekin dakartzan ezaugarri morfosintaktikoak:

Aditz-flexioko markak. Mendeko perpausetako adizki jokatuak atzizkiak hartzen ditu (-*la*, -*n* eta hauetatik eratorriak -*nez*, -*nik*, -*nez gero*, -*lako*, -*larik* eta abar) edo aurrizkiak (*ba-*, *bait-*).

Bestalde, zenbait mendeko perpausetan aditza jokatugabea izan ohi da, ez du, ez denbora, ez pertsona komuntadura-markarik hartzen: *joatea* (*erabaki*, *pentsatu*), *egoteko* (*esan*, *eskatu*), *ibiltzen* (*ikasi*), *idatzi ondoren*, *galduz*... Adizki laguntzailerik gabeko aditz forma izatea ere menderakuntzaren seinale da.

**29.2.2** Hitzen hurrenkera (ikus 41. kapitulua). Mendeko perpausek elkartuan gainerako sintagmek edo osagaiek betetzen duten lekua eta zeregina betetzen dute. Ondorioz, perpaus ez diren gainerako osagaiek perpausaren barruan dute mugikortasuna erakutsiko dute perpaus menderatuek: *Bide berri bat egingo dutela esan du irratiak / Irratiak esan du bide berri bat egingo dutela / Irratiak bide berri bat egingo dutela esan du*; *Txostena amaitzen dudanean joango naiz etxera / Joango naiz etxera txostena amaitzen dudanean / Etxera joango naiz txostena amaitzen dudanean*; *Dirurik ez duela esan arren, beti prest egoten da kanpoan afaltzeko / Beti prest egoten da kanpoan afaltzeko, dirurik ez duela esan arren*. Hori horrela izanik ere, gogoan hartu behar da ‘galdegai/mintzagai’ jokoaren eragina (ikus 41. kapitulua). Bestalde, zenbait perpaus menderatutan (erlatiboetan, adibidez) ordena aski aldagaitza da, menderakuntza mota hau aztertuko dugun kapituluan (ikus 31. kapitulua) ikusiko dugun bezala.

**29.2.3** Adizki alokutiboak (ikus 27. kapitulua). Mendeko perpausek ez dute onartzen adizki alokutiborik (perpaus juntatuek bai, nahiz ez beti): *Miren berandu etorri dun eta ez din hire hitzaldia entzun*; \**Miren berandu etorri dunala uste dinat*.

### 29.3. Menderagailuaren eta aditzaren arteko egokitze morfologikoak

Menderagailuak perpaus osagarriko aditzari lotzen zaizkio, esan bezala, eta horrek egokitze jakin batzuk eragiten ditu adizkietan, lotura gunean. Honako hauek dira egokitzapen nagusiak:

**29.3.1** *-n* eta *-la* menderagailuekin: oinarrizko forma aurkituko dugu, oro har, bokalez amaitzen diren aditz formekin (*dugun, dugula, dakiten, dakitela*). *-e-* epentetikoa eskatzen dute kontsonantez amaitzen diren aditz formek (*nai-zela, naizen; nabilen, nabilela*), eta, bokalez amaitu arren, *-ki* amaierakoek (*dakiela, dakien*) eta *-ke-* dutenek (*lukeela, lukeen; litzatekeela, litzatekeen; daitekeela nahiz daitekeen*). *Izan* aditzarekin, *-a + -eLA, -eN > -eLA, -EN* (*gara > garela, garen; dira > direla, diren*).

Aditz erroekin ere *-ela* egiten da, bokalez amaitzen denean: *dagoela, nagoela, dirauela, duela, dioela* eta abar. Baina erroa *a-z* bukatzen bada, orduan *-la* egiten dugu: *daroaala, daramala* eta abar.

**29.3.2** Aditzaren amaieraren arabera besta egokitzapen batzuk ere gertatzen dira: *-t > -d* bokalaratean (*dakit > dakidala*); *-k > Ø* (*dik > diala*); *-n > -na* (*din > dinala*). *-n* iraganaldiaren marka denean, berriz: *-n > Ø* (*nekien > nekiela, nekien*).

**29.3.3** *Bait-* menderagailuarekin: *bait- + d- → bait-* (*baitu, baititu, baitarama*); *bait- + g- → baik-* (*baikara, baikintuen, baikenekien*); *bait- + z- → baitz-* (*baitzen, baitzuen, baitzatoz*); *bait- + l- → bail-* (*bailuke, bailitzateke, bailiguke*); *bait- + n- → bain-* (*bainai, bainau, bainenbilen*); *bait- + h- → baih-* (*baihaiz, baihator, baihau*).

Ikus Euskaltzaindiaren 2. araua: “*baitu, baikara, bainai*”, Bilbon, 1994ko urriaren 28an onartua.

## 29.4. Ohar orokor batzuk

**29.4.1** Orain arte esandakoaren arabera, badirudi mendeko perpausak beti aditz baten ‘mende’ daudela. Baina egon daitezke bestelako kategorien mende ere: izena (*agurrik egiten ez dizun neska hori harro xamarra da; gauez zurekin biltzen naizelako susmoa hartu dute*), adjektiboa (*etxe hori [garestiegia da] guk erosteko*), predikatu oso bat (*beharrezkoa da norbait zuzendari izenda dezagun*), adberbioa (*berandu da kalera irteteko*).

**29.4.2** Mendeko perpausoko adizkiaren flexio marka kontuan hartuaz, perpaus jokatuak eta jokatugabeak bereiziko ditugu. Lehen motakoek aditz ‘osoa’ izango dute, pertsona komunztadura eta denbora markak dituen (*datorren astean oporrak hartuko ditudala erabaki dut; etxera iristen denean zapatak kendu eta txapinak janzteko ohitura du*); bigarren motakoek ez dute horrelako markarik erakutsiko (*datorren astean oporrak hartzea erabaki du; etxera iristean zapatak kendu eta txapinak janzteko ohitura du*).

**29.4.3** Mendeko perpausen sailkapenari dagokionez, irizpide bat baino gehiago ditugu eskura: irizpide formala, irizpide funtzionala (gramatika funtzioen arabera) eta irizpide semantikoa (esanahiaren arabera).

## 29.5. Formatik abiatzen den sailkapena

**29.5.1** Bigarren irizpidea —adizkiaren flexioa, alegia— iruditzen zaigu denetan argiena eta baliagarriena. Irizpide morfosintaktikoa dela esan dugu. Horrenbestez, irizpide formala da. Esanahiari eta horrelakoei erreferentziarik ez die egiten. Izan ere, badakigu esanahiaren aldetik eduki bera modu askotara eman daitekeela aditzera: perpaus lokabeen bidez, juntadura bidez edo menderakuntza bidez. Esaterako, honako adibide hauek esanahiaren aldetik aski parekoak badira ere, morfosintaxiaren aldetik nahiko desberdinak dira: *Berandu etorriko dela esan dit; Garaiz etortzeko esan dit* (egia da bi perpaus hauen artean badela esanahi desberdintasuna ere: lehena adierazpen hutsa da, bigarrena agindu edo erregua). Baina ez da beti hala izaten, esanahian alde

handi(egi)rik egon ez arren, forma diferentea izan daiteke: *Garaiz etorritz gero, leku ona izango duzu; Garaiz bazatoz, leku ona izango duzu.*

Kontu honen aurrean guk ere bide bat hartu behar eta, jakina, bide seguruen eta fidagarriena, formari so egiten diona da. Horrenbestez, guk ere perpausetan ageri diren elementu formalak izango ditugu kontuan gure lana antolatze-ko orduan. Eta, hain zuzen, lehenbiziko bereizketa gisa honako hau egin daitekeela dirudi: perpaus jokatuak / perpaus jokatugabeak. Hori izan da gure abiapuntua.

**29.5.2** Ohiko gramatiketan, bestelako bereizketak ere egiten dira: osagarriak, erlatiboak, baldintzazkoak, konparatiboak, denborazkoak eta abar, gramatika funtzioen eta eduki semantikoen arteko halako nahaste bat eginenez. Zail da, egia, maila nahaste hauetatik ihes egitea. Ohituak gaude bate-tik, eta eroso xamarrak ere izan daitezke. Horregatik, guk ere perpaus osagarriak, erlatiboak eta abar aipatuko ditugu. Alde honetatik, *-la* atzizkiaz osatzen diren perpaus osagarriak bereiziko ditugu, baina adizki jokatugabez osatutako osagarriak edo erlatiboak ere bereizi beharrean izango gara. Esate baterako, honako hauek formaz hain desberdinak izanda ere, maila batean klase berekotzat har litezke: [*Berandu etorriko dela*] *esan dit*; [*Garaiz etor-tzeko*] *esan dit*.

Formari begiratzuz gero, lehenbiziko adibidean perpaus txertatua adizki jokatuz osatua dago eta *-(e)la* atzizkia darama. Bigarrenean ez bezala, hain zuzen. Baina, gramatika funtzioari begiratzuz gero, biak dira funtzio bereko: bietan mendeko perpausa *esan* aditzaren osagarri dela esango dugu. Hauentzat on da perpaus osagarri edo konpletibo deitura gordetzea. Baina esanahiari so eginez gero, lehenbizikoan perpaus txertatua adierazpen bat da, baina bigarrenean agindu edo erregu bat gertatzen dela esan daiteke. Kasu honetan argi dago formazko desberdintasuna ez ezik, esanahizkoa ere badugula. Hau ez da beti gertatzen, hala ere.

Honako honetan, adibidez, adizkian nabarmen den diferentzia gorabehera, esanahiaren aldetik ez dirudi alde handiegirik dagoenik: *Garaiz etorritz gero, leku ona izango duzu; Garaiz bazatoz, leku ona izango duzu.*

**29.5.3** Maila hauek denak (*forma, gramatika funtzioa eta esanahia*) behar bezala bereiztea beti erraz ez bada ere, komeni da ahalegintzea. Irizpide formala dugu argiena, esan dugunez. Bestelako irizpideetan oinarritutako sailkapenak askoz badaezpadakoagoak dira. Adibidez, erraz da *-nean* amaiera duten perpausak bereiztea eta hauen egitura zein den eta, azkenik, zer nolako esanahia duten ikustea.

*-tzean* gisa amaitzen diren perpaus jokatu gabeen forma ere erraz ikusten da. Perpaus horien osaera ere aski argia da. Hori dela eta, *-nean* eta *-tzean* alde horretatik desberdinak dira hein handi batean, nahiz eta biek azken muturrean inesiboaren *-n* marka daramaten. Formaz duten diferentzia horrek ez du eragozten bi perpaus motek funtsean esanahi bera izatea, denborazkoa alegia. Baina hau da kontua: azterketa egiteko eta aurkezteko orduan, errazago eta argiago gertatzen da formatik abiatzea eta ez esanahitik. Hots: denborazko adberbio perpausak aztertzeari ekin geniezaioke forma desberdineko itzuliak eta egiturak zaku berean sartuz. Hau bide bat litzateke. Beste bide bat da, ordea, gramatika forma desberdinak ongi bereizi lehenbizi eta, azkenean, esanahiari buruzko behar direnak kontatzea. Hau da guk aukeratu dugun bidea aurreko EGLU liburukietan eta hemen ere.

## 29.6. Esanahitik abiatzen den sailkapena

**29.6.1** Mendeko perpausen esparrua ikaragarri zabala da, eta esanahi aldetik askotan forma bera aski polisemikoa da. Testuinguruak bakarrik, ez forma hutsak, azal dezake zein den hiztunak eman nahi dion esanahia: *Txori horrek kantatuz gero, hiru egun barru euria egiten du beti* (denbora); *Egia entzun nahi duzunez gero, egia esango dizut* (kausa); *Dirua lortuz gero, autoa erosiko nuke* (baldintza); *Atzerritarrak ere pertsona direnez gero, pertsonaren eskubide ooren jabe dira* (azalpena), eta abar. Beraz, forma hutsean geratuko bagina nekez izango ginateke gai mendeko perpausen azalpena eta haien arteko bereizketak modu egokian emateko. Baina esanahitik abiatuz gero ere, berehala ikusiko dugu bereizketaren mugak batzuetan aski irristakorrak direla.

**29.6.2** Ondoko kapituluetan esanahian oinarritutako eskema honi segituko diogu, bada, perpaus jokatuak eta jokatugabeak sail berean emanez:

- Osagarriak (30. kapitulua)
- Erlatiboak (31. kapitulua)
- Konparaziozkoak (32. kapitulua)
- Ondoriozkoak (33. kapitulua)
- Baldintzazkoak (34. kapitulua)
- Denborazkoak (35. eta 36. kapituluak)
- Helburuzkoak (37. kapitulua)
- Kausazkoak (38. kapitulua)
- Kontzesiozkoak (39. kapitulua)
- Moduzkoak (40. kapitulua)



## 30. Perpaus osagarriak

---

- 30.1. **Sarrera**; 30.1.1. Konplementazio erlazioa; 30.1.2. Konplementazioaren osagaiak; 30.1.2.1. Elementu gobernatzaileak; 30.1.2.2. Perpaus osagarriak: jokatuak eta jokaturgabeak; 30.1.2.3. Menderagailuak; 30.1.3. Perpaus osagarrien sailkapena
- 30.2. **Perpaus osagarrien ezaugarri orokor batzuk**; 30.2.1. Zertarako erabiltzen ditugun perpaus osagarriak; 30.2.2. Denbora komunztadura perpaus jokatuetan; 30.2.3. Perpaus jokaturgabeetan zer gertatzen den; 30.2.4. Desberdintasunak euskalkien arabera; 30.2.5. Erreferentziakidetasuna eta kontrol egiturak
- 30.3. **Perpaus osagarrien funtzio sintaktikoa**; 30.3.1. Perpaus osagarriak eta egiturazko kasuak; 30.3.2. Perpaus osagarriak eta instrumentala
- 30.4. **Perpaus osagarriek perpaus nagusiaren argumentuen artean duten lekuaz**; 30.4.1. Osagarri-erlazioa; 30.4.2. Predikatuen argumentu sarea
- 30.5. **Hitzen ordena perpaus osagarrietan**; 30.5.1. Perpaus jokatueta; 30.5.2. Perpaus jokaturgabeetan
- 30.6. **Adierazpen perpaus osagarriak**; 30.6.1. Sarrera; 30.6.2. Aditzaren mendeko adierazpen perpaus osagarri jokatuak; 30.6.2.1. *-(e)lla* menderagailua duten adierazpen perpaus osagarri jokatuak; 30.6.2.2. *-(e)na* menderagailua duten adierazpen perpaus osagarri jokatuak; 30.6.2.3. *-(e)nik* menderagailua duten adierazpen perpaus osagarri jokatuak; 30.6.2.4. *-(e)n* menderagailua duten adierazpen perpaus osagarri jokatuak; 30.6.2.5. *Bait-* menderagailua duten adierazpen perpaus osagarri jokatuak; 30.6.2.6. *-(e)larekin* edo beste menderagailu batekin egin daitezkeen adierazpen perpaus osagarri jokatuak; 30.6.3. Aditzaren mendeko adierazpen perpaus osagarri jokaturgabeak; 30.6.3.1. *-tze(a)* eta *-tzerik* perpaus osagarriak; 30.6.3.1.1. *-tzea* perpaus osa-

garriak; 30.6.3.1.2. *Ezin izan + -tzea (ezin egin izatea)*; 30.6.3.1.3. *-tzerik* perpaus osagarriak; 30.6.3.2. *[-tzea + atzizkia]* perpaus osagarriak; 30.6.3.2.1. *Sarrera*; 30.6.3.2.2. *-tzetik* perpaus osagarriak (eta *-tzetik -tzero*); 30.6.3.2.3. *-tzean* perpaus osagarriak; 30.6.3.2.4. *-tzearekin/-tzeagaz* perpaus osagarriak; 30.6.3.2.5. *-tzeaz* perpaus osagarriak; 30.6.3.2.6. *-tzeari* perpaus osagarriak; 30.6.3.2.7. *-tzeak* perpaus osagarriak; 30.6.3.3. *-tzen* perpaus osagarriak; 30.6.3.3.1. Forma eta esanahia; 30.6.3.3.2. Aspektu perifrasiak; 30.6.3.3.3. Kontrola; 30.6.3.3.4. Predikatu gobernatzaileen sailkapen formala; 30.6.3.4. *-tzero(t)* perpaus osagarriak; 30.6.3.5. Perpaus osagarri molde batzuen berezitasunak; 30.6.3.5.1. *-tzen*, *-tzero* eta *-tzeko* alternantziak; 30.6.3.5.2. *-tzea* eta *-tzen* predikatu berarekin; 30.6.3.6. Perpaus osagarri jokatu gabe burutuak (*-tua* nahiz *-tu izana*); 30.6.4. Izenaren mendeko adierazpen perpaus osagarriak: jokatuak eta jokatu gabeak; 30.6.4.1. Adierazpenezko perpaus izenlagunak; 30.6.4.1.1. Adierazpenezko perpaus izenlagun jokatuak; 30.6.4.1.2. Adierazpenezko perpaus izenlagun jokatu gabeak

**30.7. 'Agindua, eskea, erregua' adierako predikatuen osagarriak;** 30.7.1. Perpaus jokatuak; 30.7.1.1. Subjuntibozko forma eta menderagailua; 30.7.1.2. Ezaugarri batzuk; 30.7.2. Perpaus jokatu gabeak; 30.7.2.1. *-tzeko* perpaus osagarriak; 30.7.2.1.1. Subjuntibozko perpausen kideak; 30.7.2.1.2. *-tzea* perpaus osagarriak, ondoan subjuntiboko osagarri jokatu dutenak; 30.7.2.2. *-tzea/-tzeko* alternantzia; 30.7.3. *Nahi, galde, eske, beldur, agindu(a), erregu* eta mota horretako izenen perpaus izenlagunak; 30.7.3.1. Perpaus izenlagun jokatuak; 30.7.3.2. Perpaus izenlagun jokatu gabeak

**30.8. Zehar-galderak;** 30.8.1. Ezaugarri orokorrak; 30.8.2. Zehar-galdera jokatuak; 30.8.2.1. Zehar-galdera orokorrak; 30.8.2.2. Zehar-galdera zatizkoak; 30.8.3. Zehar-galdera jokatu gabezko perpaus osagarriak; 30.8.4. Zehar-galderak izenaren osagarri

---

## 30.1. Sarrera

### 30.1.1. Konplementazio erlazioa

**30.1.1a** Ezaugarri hau dute mendeko perpaus osagarriek: perpaus nagusiko elementuren batekin 'konplementazio erlazioan' daude. Horrek esan nahi du

badela perpaus nagusian osagairen bat mota honetako perpausa eskatzen duena; argumentu egituran osagarria perpaus egiturakoa izatea eskatzen duena (§ 23.3.1). Ikus ditzagun ondoko adibideak: *Etxea saldu duela esan digu Josebak*; *Eskerrak ama etorri den*; *Ez dut uste Bilbora joango naizenik*; *Esan didate noiz izango den azterketa*; *Lan gehiago egin dezagun nahi dute ugazabek*; *Liburu hori liburutegira itzultzeko eskatzen dizut*; *Datorren urtean beste nobela bat idaztea espero dut*; *On da denok zerbait egitea*; *Lanera joatera behartuta zaude*; *Liburutegira etortzen ikusi zaitut*; *Badakit noiz hartu oporrak*; *Horrexek ematen dit barkatuko didazulako ustea*; *Gauetz beste norbaitekin dabilelako susmoa dut*.

Oro har *zer?* galderari erantzuten diote azpimarraturik eman ditugun adibide horietako mendeko perpaus guztiek (edo *zeri?*, *zertan?* kasuren batean). Beste modu batera esanda bada goiko adibideetan *zer* osagai hori hautatzen duen elementuren bat: gehienetan aditza (*esan*, *uste izan*, *nahi izan*, *eskatu*, *espero*, *ikusi*). Baina izan daiteke bestelako predikatu bat ere (*eskerrak*, *behartuta egon*, *on da...*) edo izena (*susmoa*, *ustea*). Aditz, predikatu eta izen horiek *elementu gobernatzaileak* dira eta perpaus osagarriaren eta elementu gobernatzailearen artean ‘osagarri-erlazioa’ dago, ‘konplementazio-erlazioa’.

**30.1.1b** Gobernatzaile bakoitzak, dela aditza, izen sintagma, predikatua edo bestelako gobernatzailea, osagarri mota jakinak eskatzen ditu eta erlazio marka edo menderagailu jakinak. Horregatik dira ez-gramatikalak ondorengo adibideak, osagarria ez delako gobernatzaileak eskatzen duen motakoa: *\*Josebak berandu dela hautsi du* (*hautsi* aditzak izen sintagma egiturako osagarria gobernatzen du); *\*Josebak berandu dela galdetu du* (*galdetu* aditzak mendeko perpausa gobernatzen du, baina *-(e)n* menderagailua duena, zehar-galdera); *\*Josebak nor etorri den uste du* (*uste izanek* adierazpen perpausa gobernatzen du, ez zehar-galdera) eta abar.

**30.1.1c** Menderakuntzaz elkartutako beste perpaus askotan ez dago horrelako ‘konplementazio’ erlaziorik; mendeko perpausak ez dira perpaus nagusiko elementu batek hautatuak. Horrelakoak dira, esaterako, erlatiboak ([*etxea saldu duen*] *gizona Joseba da*) eta perpaus adberbialak edo adjuntuak ([*nahi duzunean*] *etor zaitetzke*; *orain ezin baduzu*, *egingo duzu geroxeago*; *gogor saia-*

tuz *gero*, *lortuko duzu*). Gobernatzailerik baten pean ez dauden perpaus hauei *adjuntu* esaten zaie, sintagmen kasuan bezala.

**30.1.1d** Hala ere, ez da beti erraza perpaus osagarrien eta adjuntuen artean bereiztea, ez da beti argi egoten bi mota horien arteko muga. Ikus ditzagun ondoko bi adibideok: *Liburu hau erostera behartuta gaude*; *Liburu hau erostera etorri naiz*. Lehen adibidean *behartuta egon* predikatuak eskatzen du perpaus osagarria; hor ez da zalantzarik. Bigarrean zalantza egin dezakegu *etorri* aditzak gobernatzen ote duen *liburu hau erostera* perpausa. Baina hor ere pentsa dezakegu hala dela, *etorri* aditzak gehienetan eraman ohi duen elementu baita *zertara* (edo *nora*), erabat eskatzera iristen ez bada ere. Argiagoa da bereizketa beste bi adibide hauen artean: *Liburu hau erosteko esan didate*; *Aitak dirua eman dit liburu hau erosteko*. Lehen perpausaren, mendeko perpaus osagarria dugu; bigarrean, adjuntua (helburuzkoa).

Laburbilduz, elementu batek perpaus egiturako osagarria eskatzen duenean, edota hura eraman ohi duenean, bien arteko erlazioari *konplementazio* esaten diogu.

### 30.1.2. Konplementazioaren osagaiak

Hiru osagai nagusi ditu konplementazioak: ‘elementu gobernatzailea’ —aditza, izen sintagma, predikatua, adjektiboa edo graduatzailea...—, ‘perpaus osagarria’ eta ‘menderagailua’ (perpaus osagarriaren mendekotasuna markatzen duen morfema).

#### 30.1.2.1. Elementu gobernatzaileak

**30.1.2.1a** Gehienetan aditzak izaten dira elementu gobernatzaileak, mendean perpaus jokaturik nahiz jokatu gabekoa hartzen dutenak: *Garaiz etorriko direla esan dute*; *Ez dut uste garaiz etorriko direnik*; *Afaltzeko garaiz iristea espero dut*; *Diru guztia xahutu duen galdetu diot*; *Ez dakit Parisera joateko*

zein ordutako trena hartu; Azterketa bi orduan egiteko agindu digu irakasleak. Beste batzuetan izen sintagma izaten da elementu gobernatzailea: *Aspalditik dut gauzak okertzen ari zaizkiolako susmoa; Zergatik ote dute egia entzuteko beldur hori?*

**30.1.2.1b** Elementu gobernatzailea ISa denean, perpauos osagarria izenlaguna dela pentsa daiteke; eta, hain zuzen ere, *-ko* erlazio atzizkia ageri zaigu eman ditugun bi adibide horietan (§ 21.7.4.2h). Baina *-en* menderagailua ere har dezake IS baten azpiko perpauos osagarriak: *Ezetz esan dio bere diru guztia galduko duen beldurratik*. Gutxiagotan, baina adjektiboa edo graduatzailea ere izan daiteke gobernatzaile: *egiteko zail/neke; erosteko garestiegi*.

**30.1.2.1c** Bestelako predikatu edo predikatu-egiturak ere izan daitezke gobernatzaile: *Horixe joango naizela!; Eskerrak ama etorri dela/den; Beharrezkoa da norbait zuzendari izendatzea; Okerrena da ez direla ezertaz konturatu; Ez dago argi etxea salduko ote duen*. Baita izen baten inguruan eraturako predikatu-egiturak ere: *Sospetxa daukat, ikusitakoak ikusita, ezin dugula ezer onik espero zuzendari berriagandik; Ternuako hegieta galduak zirela etorri zen berria* (J. P. Arbelbide); *Erabakia hartu zuen ordutik aurrera helburu handi-goetara joko zuela beti* (Asisko Frantzisko, Asisko Klara).

**30.1.2.1d** Zenbaitetan badirudi ez dagoela elementu gobernatzailerik: *Aitarren partez, bihar etorriko dela; On degizula!* Egitura desideratiboak eta exhortatiboak (zerbait egiteko eskea, erregua... adierazten dutenak) dira, gehiengotan. Baina horrelako egituretan ere egon badago gobernatzailea, isilpean bada ere. Beraz, perpauos osagarria aurkituko da beti gisa horretako osagarria eskatzen duten gobernatzaileekin.

**30.1.2.1e** Baina konplementazio motaren arabera, askotan “ordain” bat jar daiteke perpauos osagarriaren ordez. *Hori* erakusleak, esaterako, adierazpen perpausak, zehar-galderak edo perpauos izenlagunak ordezka ditzake: *Hori esan digu; Horretaz gogoratu gara; Hori galdetu dute; Horren beldur dira*. *Hala* adberbioa, berriz, adierazpen perpaus batzuen lekuan erabil daiteke: *Hala uste dut; Hala esan dute*. *Baietz* eta *ezetz* erabil daitezke zenbait adierazpen perpaus osagarriren lekuan: *Baietz esan du; Ezetz uste dugu*.

### 30.1.2.2. Perpaus osagarriak: jokatuak eta jokatugabeak

**30.1.2.2a** Perpaus osagarri guztiak ez dira mota berekoak; barnean duten aditzaren arabera, ohartzen gara batzuek aditz jokatua dutela, jokatugabea beste batzuek: *Liburutegira joango naizela agindu diot; Liburutegira joatea gustatzen zait*. Gorago eman ditugu adibide gehiago (§ 30.1.2.1a) eta hor argi ikusten da perpaus jokatuetakoa aditzek agerian dituztela subjektu-objektuen pertsona eta numeroarekiko komunztadura adierazten duten indizeak; jokatugabeetan, aldiz, aditzak ez du horrelako indizerik. Denborazko kategoriak ere falta dira perpaus jokatugabeetakoa aditzetan: *On da guk ere zerbait ematea / On zen guk ere zerbait ematea*. ‘Jokatu’ / ‘jokatugabe’ oposizioaren arabera erabil daitezkeen markak ere aldatu egiten dira: *-(e)la, -(e)n / -tzea, -tzeko, -tzen, -tu...* Aditz jokatuak ere, batzuk subjuntiboak dira; ez-subjuntiboak beste batzuk: *Hobe da denok zerbait egin dezagun / Eskerrak denok zerbait egin (egiten, egingo) dugula!* Aditz jokatu subjuntiboak aspektugabeak dira; denbora adierazten dute, baina aspekturik ez. Aditz jokatugabeak ere aspektugabeak izaten dira gehienetan eta, horrexegatik, trukagarriak gertatzen dira maiz perpaus subjuntiboak eta jokatugabeak: *Poliki ibil dadila esan diote / Poliki ibiltzeko esan diote*.

**30.1.2.2b** Laburbilduz: perpaus jokatu ez-subjuntiboek, pertsona, numero eta aldiari dagozkion indizeak daramatzate aditzean; eta baita aspektu marka ere. Perpaus jokatu subjuntiboek pertsona, numero eta denbora indizeak bai, baina aspektu markarik ez dute aditzean. Perpaus jokatugabeek ez dute horrelako indizerik aditzean. Kontu batean bat datoz perpaus subjuntiboak eta jokatugabeak: mendekoak dira beti, perpaus nagusia isildurik egon daitekeen arren (ez agerian); ez gutxitan, gainera, trukagarriak izaten dira.

### 30.1.2.3. Menderagailuak

**30.1.2.3a** Morfema bat baino gehiago har ditzakete perpaus osagarrietako aditz jokatuak: *-(e)n, -(e)la, ba-* eta *bait-*, baina *-(e)n* eta *-(e)la* dira nagusiak

eta erabilienak. Atzizki hauek batzuetan beste atzizki bat hartzen dute ondokitik: *-(e)na*, *-(e)nik*, *-(e)netz*, *-(e)lako*... Konplementazioan, badirudi nahiko argi dagoela gehien erabiltzen diren bi atzizkien banaketa funtzionala: adierazpen perpausetan *-(e)la* eta zehar-galderetan *-(e)n*. Horixe erakusten dute orain arte ikusi ditugun adibideek eta beste hauek ere: *Iruditzen zait bihar eguraldi ona izango dugula*; *Irakurri dut langileek greba egingo dutela*; *Ez dakite noizko amaituko duen lana*; *Galde iezaiozu zenbat iraungo duen ekitaldiak*. Erregela orokorra hori izan arren, badira salbuespenak, aurrerago ikusiko dugunez (§ 30.6.2.2, § 30.6.2.3). Perpaus osagarri subjuntiboetan ez du balio irizpide horrek *-(e)n* eta *-(e)la* menderagailuen arteko bereizketa egiteko: *Isil zitezela agindu zieten kaleko neska-mutilei*; *Soldadu galiziar asko ere lehorrean gera zitezten agindu zuten agintariek* (Jimenez).

**30.1.2.3b** Perpaus osagarri jokatugetan ere atzizki bat baino gehiago ager daiteke aditzari erantsia. Bi sail nagusitan banatuko ditugu atzizki horiek. Batetik, *-tzea* (*-tze* atzizkia eta *-a* artikulua) eta hori oinarri duten *-tzeak*, *-tzeari*, *-tzeaz*, *-tzearekin/-tzeagaz*, *-tzean*, *-tzetik* (ageriko artikulurik ez duena, *-tik* postposizio sintagmetan gertatzen den bezala balioz mugatu singularrak izan arren: *menditik*). Bestetik, artikulurik gabeko forma finkoak: *-tzen*, *-tzera*, *-tzeko*. Osagarri jokatugetan ere elementu gobernatzaileak —dela aditza, dela izena— erabakiko du zein atzizki hartu behar duen mendeko perpauseko aditzak. Aurrerago banan-banan aztertuko baditugu ere, hona hemen zenbait adibide: *Harritzekoa zen Olatz hain isilik eta pentsakor egotea* (Cano); *Aurpegia estaltzeko ahaleginik ez egiteak gogaitzen ninduen gehien* (Saizarbitoria); *Ez zuela aukera galdu nahi obispoari agur egiteko* (I. Mujika); *Ez naiz ausartu ere egiten hildako egunez pentsatzera* (Larrañaga); *Hanketatik eusteko agindu dio gazteetako bati* (Juanena); *Nire emazteari sinestera, ez omen nintzen nekatu haren titi ikusgarriei so egiteaz* (Epaltza); *Liburu honek salbatu nau nire buruaz beste egitetik* (Linazasoro).

Beste batzuetan, galde hitza barnean duten osagarrietan, partizipio burutua edo aditzoina emanaz eratzen dugu forma jokatugeta: *Gaur ez dakizu zer egin fantasiekin* (Oñederra); *Haurtzarotik gaur arte beti kasu egin zuen, zer erran, zer pentsa, zer nabari, nola ibil, nola joka utzia ez izateko* (Borda).

**30.1.2.3c** Zenbaitetan, ordea, aditz jokatugabea duen perpausaren eta adizki nagusiaren arteko harremana ez da ‘konplementazio’ harremana. Hau da, osagarri-gobernatzaile motako egiturak izan ordez, aditz perifrasiak osatzen dituzte *-tzeroa joan*, *-tzeari utzi*, *-tzetik gelditu*, *-tzen jarraitu* eta horien kidekoek. Bereziki aspektuarekin loturiko nozioak adierazteko baliatzen dira perifrasi-egitura horiek. Esanahiak eta joskerak bereizten ditu egiazko osagarri-gobernatzaile egituretatik.

Esanahiari dagokionez, berezko eduki lexikoa arindu, aldatu, eta laguntzaile moduko balioa hartzen dute orduan perifrasiko aditzek. *Kantatzera noa bertso bat edo bi* perpausean *joan* aditzak galdua du berezko esanahia, ez du adierazten mugimendu fisikoa (*etxera joan / zugana joan*) edo irudizko gogomugimendua, perpaus osagarria hartzen duena (*bizimodua ateratzera noa Parisera*). Azken adibide honetan badago egiazko konplementazio harremana, asmoa aditzera ematen duena, ‘zertara’ joan. *Bertso bat edo bi kantatzera noa* diogunean, ostera, galdurik dago mugimenduaren esanahia; laguntzaile bihurtu da *joan*, nahiz *-tzeroa* forma bera agertu. Geroaldia adieraztea beste funtziorik ez du, (*oraintxe*) *kantatuko d(it)ut bertso bat edo bi* bagenio bezala (§ 26.4). Aurrerago aipatuko ditugu xehetasun handiagoz aspektu-perifrasiak, atzizki bakoitza aztertzean (§ 30.6.3.2.2e, § 30.6.3.2.6, § 30.6.3.3.2, § 30.6.3.4c...).

Perifrasi egituren artean, badira adizki laguntzaile batzuk beren izaeraz beraz eduki semantiko arinekoak direnak. Besteak beste, aspektu nozioak soilik adierazten dituztenak, hala nola *hasi* eta *jarraitu*. *Zertan (usteltzen, kantatzen) hasi* diogunean, *-tzen* perpausak adierazten du dena delako prozesua (*usteldu, kantatu*) eta *hasi* laguntzailea baino ez da, prozesu horren *fasea* adierazten duena (kasu honetan hasierako fasea).

Joskeraren aldetik ere unitate gisa funtzionatzen du perifrasi multzoak. Argi ikusten da hori, esaterako, datibo komunztaduraren marka zein elementuk hartzen duen ikusita. Goiko adibide horretan *nori kantatu* gehitzen badugu, *Kantatzera noakizu bertso bat edo bi* esaten dugu; hots, *joan* aditzak hartzen du *kantaturi* dagokion datiboaren marka. Horrek erakusten du hor *joan* aditzak laguntzailearen zeregina duela, *dizut* laguntzailearen parekoa (*kantatuko dizut* aditzean). Perifrasi ez denak, aldiz, perpaus osagarri bete-betekoak, osagarrian adieraziko luke datiboa: *Zuri bertso bat edo bi kantatzera noa Tolosara*.



Nolanahi ere, egitura jakin bat perifrasi gisa finkatzea gramatikalizazio prozesu bat da, denborarekin garatuz doana, eta perifrasi guztiak ez daude maila berean gramatikalizatuak. Muga bera lausoa gerta daiteke. Adierazpen perpaus osagarri jokatuabeak aztertzean ikusiko ditugu, atzizkiz atzizki, perifrasi balioa izan dezaketenak.

### 30.1.3. Perpaus osagarrien sailkapena

Gobernatzailea zein den, perpaus osagarriaren esanahia zein den, eta perpaus osagarriko aditza nolakoa den kontuan hartuta, honako hauek dira kapitulu honetan aztertuko ditugun perpaus osagarri mota nagusiak:

- a) Aditza gobernatzaile dutenak: adierazpen perpausak / zehar-galderak (galde perpausak) / subjuntiboko osagarriak.
- b) Izena gobernatzaile dutenetan: adierazpen perpausak / zehar-galderak (zantalza, harridura edo galde perpausak) / subjuntibokoak.
- c) Mendeko perpaus osagarriaren aditza nolakoa den kontuan hartuta, beste bi ataletan banatuko ditugu a) eta b) puntuetakoak: mendeko perpaus osagarri jokatuak eta jokatuabeak.

Sailkapen horren arabera aztertuko ditugu, atalez atal, perpaus osagarriak; bakoitza nolakoa den eta zein gobernatzaile motarekin joan ohi den zehazten saiatuko gara. Bana-banako azalpenari ekin aurretik, ordea, modu orokorrean aipatuko ditugu perpaus osagarri jokatuak batetik, eta jokatuabeei bestetik, dagozkien ezaugarri batzuk.

## 30.2. Perpaus osagarrien ezaugarri orokor batzuk

### 30.2.1. Zertarako erabiltzen ditugun perpaus osagarriak

**30.2.1a** Perpaus osagarriak honako hauek adierazteko erabiltzen ditugu, besteak beste: iritziak (*ez dut uste bilerara garaiz iritsiko naizenik*), ezaguerak

(ezagun du gazteak garena; nora joan diren jakin nahi dugu), jarrerak (eskerrak garaiz etorri zaretela; oporretan nora joan erabaki behar dugu), suposizioak (demagun 1990. urtean gaudela), edo nahiak (lasai bizitzea opa dizuet; banean bizi zaitetzen nahi genuke). Baina norbaitek berariaz esan edo nolabait aditzera eman duena aipatzeko ere erabiltzen da baliabide hori, aipamena komunikazio-aditz baten mende ezarrita: *Etxea saldu duela esan digu Josebak; Maisuak esan digu gaur ez dela eskolarik izango; Non bizi garen galdegin digute; Zer nahi dugun garbi esateko erregutu digute; Lanean has gaitetzela esan digute; Erne ibil gaitetzela gomendatu digute.*

**30.2.1b** Goiko adibide horietan zuzenean entzun beharrean zer esan, galde-tu, erregutu, gomendatu... diguten, ‘zehir-aipamena’ darabilgu; eta zehir-estiloak zenbait aldaketa eragiten ditu. Perpaus osagarri jokatueta aldaketak aztertuko ditugu lehenik: a) konplementazio-egitura erabiltzen da; hau da, jatorrizko perpaus lokabeak mendeko bilakatzen dira, dagokien menderagailua hartuz (*etxean geratuko naiz, pentsatu nuen / etxean geratuko nintzela pentsatu nuen; zer nahi duzue? galdetu digu dendariak / zer nahi dugun galdetu digu dendariak; garrasika hasi zitzaigun: isilik, isilik! / garrasika hasi zitzaigun isil gintezela esanaz*). b) Jatorrizko perpausa zehir-estilora pasatzeak egokitze deiktiko bat egitera behartzen du hiztuna; ikuspegi deiktikoa jatorrizko hiztunarena ez, baina hiztun berriarena izango da. Eta horrek aditzaren pertsona eta aldia aldatzea, edo erakusleak aldatzea eskatuko du askotan: *Herrira noa / Herrira zihoala esan zidan; Hemen ondo al nago? / Han ondo zegoen galdetu zidan.*

### 30.2.2. Denbora komunztadura perpaus jokatueta

**30.2.2a** Adizki nagusiaren eta mendekoaren arteko denbora komunztadura ere kontuan hartu behar da perpaus osagarri jokatueta. Izan ere, aditz gobernatzailearekiko erreferentziak erabakitzen du mendeko aditzari zein denbora-forma dagokion. Adizki nagusia iraganean dagoenean, mendekoa haren araberrakoa izango da.

Ez da arazorik sortzen mendeko aditza nagusiaren aurrekoa edo haren aldiberekoa denean: *Pozik ibili zela esan zuen; Pozik zebilela esan zuen*. Hizketa unerako ere iraganak dira horiek eta, beraz, iraganeko formak erabiltzeak ez du berezirik ezer. Baina mendeko aditzak adierazten duena aditz aipatzailea baino geroagokoa denean, iraganaren ‘etorkizuneko’ forma —-*KO* + iraganeko laguntzailea— erabiltzen da normalean, zeinahi ere den hizketa unearekiko erreferentzia: *Joan den astean esan ziguten atzo jai izango zela; Gaur noiz jaikiko ginen galdetu zuen; Orain hemen egongo nintzela esan nizuen*. Hau da, adizki nagusiak erabakitzen du mendekoaren denbora-forma; konpara ditza-gun adibide horietako mendeko perpausetako aditz formak eta, hizketa gunearen arabera, legozkiekeen perpaus lokabeetakoak (azpimarraturik eman ditugu aldaketak): *atzo jai izan zen / jai izango zela; bihar noiz jaikiko zarete? / gaur noiz jaikiko ginen; gero han egongo naiz / orain hemen egongo nintzela*. Orainaldi burutuak ere eragin dezake horrelako komunztadura, iraganekotzat har daitekeelako: *Goizean esan dizut eguerdirako prest izango zenuela autoa eta bete dut hitza*.

**30.2.2b** Kontua hiztunarentzat ere etorkizunekoa baldin bada, aukerakoa izan daiteke denbora-komunztadura egitea: *Etxea salduko zuela esan zidan; Etxea salduko duela esan zidan*. Bitara uler daiteke lehen adibidea: etxea saltzea hiztunarentzat iragana den kontu gisa (dagoeneko etxea saldu du), edo etorkizuneko kontu gisa (salduko zuela esan zuen eta horrela egingo du). Bigarrenak, berriz, etorkizuneko interpretazioa baino ez du onartzen. Argiago ikusten da dioguna denbora erreferentzia zehatza ageri denean: *Etxea datorren urtean salduko zuela esan zidan; Etxea datorren urtean salduko duela esan zidan*.

Mendeko perpausa denbora-aspektuei dagokienez orokorra eta mugagabea denean ere orainaldia erabil daiteke komunztadurako iraganaren lekuan: *Bosnia-koa ikusi baino lehen ere esana nuen nik gerra guztiak txarrak zirela; Bosnia-koa ikusi baino lehen ere esana nuen nik gerra guztiak txarrak direla*.

**30.2.2c** Subjuntiboko osagarriek aspektu markarik ez dutenez, denborari bakarrik dagokio komunztadura. Adizki nagusiaren araberrakoa izaten da mendekoaren denbora ere, orainaldikoa hura orainaldikoa denean eta iragana hura

iragana denean: *Aitak nahi du semea mediku izan dadin; Aitak nahi zuen semea medikua izan zedin*. Adizki nagusia alegiazkoa denean, osagarria ere izan daiteke alegiazkoa (*isil ledin nahi nuke*), baina ez du nahitaez hala izan behar: *Zeren eta ene bizitzari buruzko liburu honek literatur lan bat izan nahi bailuke, konfesione orokor bat baino areago, eta halatan har dezazun nahi nuke* (Irigoién); *Nahi nuke euskalkiak bizi ditén gaur egungo gizartean diren molde berean, jendea mintza dadin bere euskalkietan, bainan pasatzen delarik idazkerara eta pasatzen delarik literaturara, baldin badira ere euskalkietan eginak gehienbat jendea joan dadin euskara batuan idaztera* (Oxandabaratz).

### 30.2.3. Perpaus jokatugabeetan zer gertatzen den

**30.2.3a** Perpaus osagarri jokatugabeek, aldiz, bestelako ezaugarriak izango dituzte. Izan ere, esan dugu adizki jokaturik ez izatean, ezin dituztela adierazi pertsona edo numero komunztadurak, ez eta aspektua edo denbora ere. Hortik datoz, hain zuzen ere, perpaus osagarri jokatugabeen ezaugarriak. Marka horiek guztiak aditzean adierazten ez direnez, behar denean esplizituki markatuko dira subjektua —eta baldin badaude, objektua eta zehar-objektua—: *Harritzen nau haurrek hor hain lasai lo egiteak*.

Dena den, gehienetan ez da agerian uzten zein den mendeko perpausoko subjektua; perpaus nagusiak *proiektatzen* dio menderatuari berea: *Argia itzaltzea ahaztu zaio Mikeli* [Mikelek da itzaliren subjektu aipatugabea]; *Ez dizu kalterik egingo etxea margotzeak* [edonor izan daiteke margoturen subjektua, baina *zuk* dela iradokitzen da besterik adierazi ezean]. Beste batzuetan, testuinguruak lagunduko digu mendeko perpausoko subjektua zein den jakiten: *Etxean geratzea komeni da* [testuinguruak argitu behar du *geldituren* subjektua nor den].

Subjektu huts hori dela eta, aukera-aukerakoak dira perpaus osagarri jokatugabeak adierazpen inpersonalak, generikoak edo subjektu zehaztugabeak egin nahi direnean: *Horregatik erabaki zen etxea ixtea; Aberatsa izateak ez dakar zoriontsu bizitzea; Nola jakin zer egin?*

**30.2.3b** Bestalde, perpaus jokatugabeek denbora markarik ere ez dutenez, denbora hori zehazten ez bada (denbora aditzondoak erabiliaz gehienetan —*atzo, gaur, bihar, lehenago, gero...*—), perpaus nagusiaren arabera interpretatzen da. Interpretazio hori askotarikoa izan daiteke, baina predikatu gehienek badute joesa aski nabarmena, beren semantika dela eta, osagarriaren denbora interpretazio jakin bat behartzeko edo iradokitzeko. Horrek esan nahi du adierazten den denbora ez dela absolutua, perpaus nagusiarekiko erlatiboa baizik: osagarriak adierazten duen egoera perpaus nagusiak adierazten duen egoerarekiko *aurretikoa, aldiberekoa* edo *ondotikoa* izango da. Predikatu askok *ondotiko* interpretazioa behartzen dute, hala nola *ausartu* aditzak (*zerbait egitera, esatera... ausartu*): lehenik ausartzea da eta ondoren zerbait egitea, esatea... Osagarri mota batzuk, hain zuzen ere, beti dute *ondotiko* interpretazioa edo interpretazio *prospektiboa*; halakoak dira *-tzera, -tzeko* atzizkia hartzen dutenak, bai eta zehar-galdera jokatu-tugabeak ere (§ 30.6.3.4, § 30.6.3.5, § 30.7.2, § 30.8.3). Beste predikatu batzuk, ostera, *aurretiko* interpretazioarekin loturik daude ia beti: *esaterako, damutu* edo *barkatu*. Aldez aurretik eginaz edo esanaz edo pentsatuaz... damutzen da norbait. Halakoetan aurkituko dugu, aukera gisa, mendeko aditzaren aldaera burutua: *damutu/barkatu egina (egin izana)*. Zentzumenen bidezko hautemate predikatuetan, berriz, ohikoa izaten da *aldibereko* interpretazioa: *sartzen ikusi*.

#### 30.2.4. Desberdintasunak euskalkien arabera

**30.2.4a** Predikatu bakoitzak, oro har, perpaus osagarri (menderatu) bat bakarrik har dezake esaldi berean. Kontuan hartu behar da, ordea, predikatu berak forma bateko edo besteko osagarria har dezakeela euskalkien arabera: *-tzen/-tzera ausartu, -tzen/-tzera etorri, -(e)n/-(e)la uste izan...* Hau da, nahiko sistematikoa da *-tzen* mendebalde / *-tzera* ekialde banaketa, aurrerago ikusiko dugun bezala (§ 30.6.3.3, § 30.6.3.4); baina *utzi, ausartu, prest izan* edo *saiatu* predikatuek atzizki bakarra gobernatzen dute, euskalkiaren arabera forma bat zein bestea har dezakeena. *Ez zen ausartu argiak itzaltzen/itzaltzera; Prest nintzen aurkariekin mintzatzera/mintzatzeko*. Antzeko bikoteak aurkituko ditugu ‘zertara’ adierazteko orokorra den *-tzera* eta batez ere bizkaierazkoa den

-tzen aukeretan: *Etxera noa telebista ikustera* [orokorra] / *Etxera noa telebista ikusten* (bizk.). Baina hemen ere bietako bat aukeratuko du *joan* aditzak, hizkeraren arabera. Eta beste batzuetan, euskalkia gorabehera, formalki perpaus osagarri bat baino gehiago izan ditzake aukeran gobernatzaile batek: *Badaki norekin elkartu* / *Badaki komeni zaionarekin elkartzen*. Berriro ere, horietatik bakarra goberna dezake perpaus batean.

**30.2.4b** Esaldi berean menderatu osagarri bakarra hautatzeak baditu, hala ere, salbuespenak; gehienak, ugariak hala ere, [-tzea (+kasu marka)] motakoetan aurkitzen ditugu (eta haien aldaera burutueta); hor zilegi dira honelakoak eta maiz aurkitzen dira, gainera: *Ahal izatea omen da nahi izatea*; *Isuna ordaindu izanak ez zizun ekarri zeure buruarekiko bakea egitea*; *Ilea hain sarri tindatzea ez dirudi ona denik hura osasuntsu mantentzeko*. (§ 30.6.3.1, § 30.6.3.2).

### 30.2.5. Erreferentziakidetasuna eta kontrol egiturak

**30.2.5a** Goraxeago esan dugu mendeko perpaus osagarri jokatu gabeek ez dutela gehienetan ageriko subjekturik; perpaus nagusiko elementuren bat izango da gehienetan mendeko perpausoko subjektu *birtual* edo isila: *Eskatu dut hemen lo egitea* [nik lo egin, maizenik, baina beste edozein subjektu izan daiteke; *zuek*, adibidez]; *Ez zaizu komeni galdetzea* [zuk galdetu, maizenik, baina beste edozein subjektu izan daiteke; *epaileak*, adibidez]. Baina mendeko perpausaren subjektua perpaus nagusiak iradokitzen duen hori ez bada, esplizitatu egin beharko da: *Ez zaizu komeni hark galdetzea*. Eta mendeko perpausoko subjektua erreferentziakidea izanik ere, esplizitatu egin beharko da kontraste enfasi hanpatua eman nahi denean: *Ez zaizu komeni ZEUEK/ZERORREK/ZUHARRREK galdetzea* (beste norbaitek baizik).

Perpaus jokatu gabe osagarri batzuetan, bestalde, gerta daiteke subjektuaren erreferentziakidetasuna nahitaezkoa izatea, behartua; hala gertatzen da, beti, -tzen eta -tzera perpausetan: *Gauzak garbi esatera etorri naitz* [nik esan]; *Poliki-poliki erretzen jarri nuen oilaskoa* [oilaskoa erre]; *Ez naitz ausartu galdetzen/galdetzera* [nik galdetu]. Horrelakoetan, hots, menderatuaren subjektu aipatuga-

bea perpauos nagusiak guztiz behartua denean, subjektu hori kontrolatua dela esaten da. Kontrola, bada, erreferentziakidetasun behartua da, beste aukerarik gabekoa. Perpauos nagusiko subjektua (*gauzak garbi esatera etorri naiz* [nik esan]), objektua (*makila ikusi dut akerra jotzen* [makilak jo]), zein zehar-objektua (*isilik egoteko agindu diot* [hari agindu, hura isilik egon]) izan daiteke kontrolatzailea.

**30.2.5b** Dena den, oro har, predikatuen semantikak baldintzatzen du osagarrien erreferentziakidetasun jokoak. Esate baterako, *damutu* eta *harritu* predikatuek antz handia dute, bai oinarritzko sintaxiaren aldetik (*norbait zerbaitez damutu/harritu*) eta bai eremu semantikoari dagokionez ere (erreakzio psikologikoak adierazten dituzte biek). Hala ere, norberak egindakoaz damutzen garenez, kontroladun aditza da *damutu*; baina edozertaz harritu gaitezkeenez, *harritu* aditza ez da kontroladuna (mendeko osagarriko subjektua izan daiteke erreferentziakidea, baina ez nahitaez): *Damutu zara* (\*nik/\*hark) *egia esateaz*; *Harritu zara* (nik/hark) *egia esateaz*.

**30.2.5c** Laburbilduz, erreferentziakidetasuna izan daiteke aukerakoa edo behartua. *Kontrol* esaten zaio erreferentziakidetasun behartuari eta, halakoe-tan, ez da ageri subjektu lexikorik osagarrietan (enfasiz ez bada). Erreferentziakidetasuna aukerakoa denean, esplizituki aipa daiteke osagarriko subjektua (*harritu zara nik egia esateaz*), edo testuinguruak erabaki dezake zein den subjektu birtuala (*aurpegia estaltzeko ahaleginik ez egiteak gogaitzen ninduen gehien*: joko semantikoak iradokitzen du ez dela *nik* izango *egiteak* aditzaren isilpeko subjektua; testuinguru zabalagoak emango liguke aukera subjektu hori zein den jakiteko). Dena den, joera bereziki markatua dute erreferentziakidetasunerako mendeko perpauos osagarri jokatu-gabeek.

### 30.3. Perpauos osagarrien funtzio sintaktikoa

#### 30.3.1. Perpauos osagarriak eta egiturazko kasuak

**30.3.1a** Egiturazko kasuak (§ 18. kapitulua) —ergatiboak, absolutiboak edo datiboak— betetzen dituzten guneak hartzen dituzte, oro har, perpauos

osagarriek. Gehientsuenetan, hala ere, absolutiboak betetzen dituen guneak hartzen dituzte. Horrexegatik izaten dira sarri askotan objektu, “ordezkatzan” duten izena bezala. *Esan, jakin, eskatu, erabaki, irakurri, adierazi* eta era horretako aditzen osagarri direnean, *zer* esan, eskatu, erabaki edo jakiten den adierazten dute: *Soldata igoko digutela entzun dut; Badakit non bizi zareten; Sartzeko eskatu digute; Ebatsitako dirua itzultzea erabaki dute. On degizula* eta gisa horretako perpausek ere objektu funtzioa betetzen dutela pentsa dezakegu, isilpean dagoen aditzen baten objektu (*opa dizut*, esaterako).

**30.3.1b** Bestalde, nekez esan daiteke *berria zabaldu, susmoa izan, erabakia hartu, elea ibili* eta horrelako predikatu egituren osagarriak objektuaren gunea betetzen dutela: *Txirrita hil zela zabaldu zuten berria; Susmoa daukat zure bila dabiltzala; Erabakia hartu dute aurten Parisera joango direla; Elea zebilean oraingo honetan eskuindarrek irabaziko zutela*. Adibide horietako batzuetan betea dago objektuaren gunea (*berria, susmoa* eta *erabakia* dira objektuak lehen hiru adibideetan); *ibili* aditzak, berriz, ez du objektuaren gunerik, eta *elea* DSak betetzen du subjektuaren gunea. Dena dela, ez da zaila ikusten predikatu egitura horiek sakonean *iragarri, susmatu, erabaki* eta *esan* bezalako aditzen pareko direla eta, hortaz, osagarriak sakoneko aditz horien objektu direla nolabait.

**30.3.1c** Beste batzuetan, *izan* aditzarekin eraturiko egitura atributiboetan (*egia izan, agerikoa izan, ziur izan, mesederako izan...*), perpaus osagarriak subjektuaren funtzioa bete dezake: *Egia da partida Lurdesez irabazi duela; Agerikoa da ez garela Perurena bezain indartsu; Ez da ziur nork irabaziko duen; Mesederako da denok bat egitea; Okerrena da ez dugula ezer ikasi; Harritzekoa da zenbat dakien; Bidezkoa da bakoitzari berea ematea*.

**30.3.1d** Subjektu ergatibo ere izan daitezke perpaus osagarri jokatu gabeak, *-teak* perpausak (§ 30.6.3.2.7): *Kezkatu egiten nau gure semeak hain kirol gutxi egiteak*. Zehar-objektuaren funtzioa betetzen dute, berriz, *-teari* perpaussek (§ 30.6.3.2.6): *Beldur diot bakarrik gelditzeari*.



### 30.3.2. **Perpauos osagarriak eta instrumentala**

**30.3.2a** Beste zenbaitetan, *zertaz?* edo *zeren?* galderei erantzuten diete perpauos osagarriek. *Ahaztu, ohartu, konturatu, jabetu, gogoratu* eta horrelako aditzen osagarriek *zertaz?* galderari erantzuten diote (baina, azken batean, aditz horien barne argumentuari dagozkio): *Ohartu zara horren jarreraz? / Ohartu zara haserre etorri dela?; Gogoratzen zara esan beharrekoaz? / Gogoratzen zara zer esan behar duzun? Zeren?* galderari erantzuten diote *beldur izan* bezalako gobernatzaileen osagarriek: *Beldur naiz ez dutela ezer egingo.*

**30.3.2b** Gobernatzailea izena duten perpauosek, azkenik, *izenlagunaren* lekua betetzen dute. Horrelakoak ere izan daitezke jokatuak eta baita jokatugabeak ere: *Nola ez eduki barkatuko didazulako ustea? Berriro elkar ikusiko dugun esperantza ez dut galdu. Euskara ikasteko erabakia hartu dute gure lankideek; Isilik egoteko agindua eman digute.* Maiztasun txikiagoa badute ere, *-tze*ko perpauos jokatugabeen ondoan badira *-tzearen* jokatugabeak ere: *Ulertu nahi nuke uhin eraztunak hartzearen ideia hori* (Sarrionandia).

## 30.4. **Perpauos osagarriek perpauos nagusiaren argumentuen artean duten lekuz**

### 30.4.1. **Osagarri-erlazioa**

**30.4.1a** Perpauos nagusian betetzen duten funtzioaren ikuspegiari beste bat ere gehi diezaiokegu perpauos osagarriak aztertzean. Sarreran esan dugu perpauos nagusiko elementuren batek, gehienetan aditzak edo predikaturen batek, hautatzen dituela mendeko perpauos osagarriak. Hau da, ‘osagarri erlazioa’ dago elementu gobernatzaile horren eta perpauos osagarriaren artean. Horrek, aldi berean, bide ematen digu aztertzeke zer leku duten perpauos osagarriek perpauos nagusiko argumentuen artean.

**30.4.1b** Perpauos osagarria da barne argumentua adierazteko aukera bakarra. Hala gertatzen da, esaterako, *uste izan* aditzarekin: [-*ela*] osagarri jokatu da

barne argumentua, *zer*, adierazteko modu bakarra. Edo *ausartu* aditzarekin: *-tzeral/-tzen* osagarri jokatu gabeak baino ez ditu aukeratu. Gehienetan, ordea, perpausen argumentu sare arruntez baliatzen dira osagarriak: *Ahaztu naiz haizeaz/lagunaz/istripuz*, eta, horren ondoan, *Ahaztu naiz lagunari deitzeaz*. Berdin beste bikote honetan ere: *Menditik dator haizea / Zuk egia erdi hori esatetik dator arazoa*. Azken adibide honetan argi ikusten da perpaus osagarri jokatu gabeak adiera abstraktuago bat ematen diola *etorri* predikatuari, ez hain fisikoa. Eta, bestalde, bi aukera horietako bakarra onartzen du perpausak: *nondik* edo *zertatik*. Ezin ditugu biak metatu: *Zuk egia erdi hori esatetik dator arazoa* (\**zure etxetik*/\**zugandik*).

Beste batzuetan, berriz, bateragarriak dira perpaus osagarria eta postposizio atzizki bereko bestelako argumentua: *Gauzak argitzera nator hona/zugana*. Goraxeago esan bezala, aditz gobernatzailearen argumentu sarea hartu behar dugu kontuan jokabide desberdin hauek ulertzeko. *Ausartu* bezalako gobernatzaile batek perpaus osagarria baino ez du hautatzen. *Etorri* aditzak, ostera, har ditzake perpaus osagarri jokatu gabeak (*zertara*), baina ez du hori aukera bakarra; mugimendu fisikoa adierazteko *nondik* eta *norengana* postposizio sintagma arruntez osa daiteke esaldia. Edo bi batera agertu (*nora*, *zertara*), aurreko adibidean bezala. Baina osagarria hartzen badu, beste esanahi bat gehitzen zaio *etorri* aditzari: gogoaren *mugimendu* irudizkoarena, alegia.

**30.4.1c** Beraz, predikatu gobernatzaileak kasu marka arruntez baliatzen dira beren esanahi espezifiko emateko perpaus osagarriei, baina esanahi espezifiko horrek, aldi berean, predikatu gobernatzailearen adiera uki dezake. Hitz batean, konplementazio erlazioa alde bietarakoa da, eta alde bietan du eragina.

### **30.4.2. Predikatuen argumentu sarea**

**30.4.2a** Aurreko puntuetan esanak kontuan hartuta, predikatu bakoitzak zer argumentu sare eratzen duen jakin beharko genuke eta ikusi sare horretan zer

leku duten perpaus osagarriek. Bistan da gramatika honek ezin duela horrelakorik eskaini. Hiztegiek jaso eta bereizten dituzte predikatu bakoitzaren adierak eta horiei loturiko joskerak. Hala ere, adibide batzuk eman ditzakegu. Gero azalpenetan forma bakoitzeko osagarriak *-(e)la, -(e)n, -(e)nik, -tzen, -tzea* eta abar) zer predikatu motarekin konbinatzen diren azalduko da. Hemen, alderantzizko bidetik, predikatu batzuek zer argumentu sare eratzen duten ikusiko dugu lehenik, eta argumentu horietatik perpaus osagarri zein diren edo izan daitezkeen seinalatuko dugu gero.

**30.4.2b** *Ekarri* predikatuak, esaterako, baditu argumentu osagarri komunztaduradunak (zerbaitek/norbaitek, zerbait/norbait, [zerbaiti/norbaiti]) eta komunztaduragabeak (nondik, nora, [zertara]).

EKARRI predikatuaren argumentu osagarriak		
Komunztaduradunak	EKARRI <i>du</i> [ <i>dio</i> ]	Komunztaduragabeak
zerbaitek/norbaitek		nondik
zerbait/norbait		nora
[zerbaiti/norbaiti]		(zertara)

Horietatik bi aukerakoak dira: zerbaiti/norbaiti, eta zertara. Gainerako argumentuak, agerian zein isilean, ezinbestean lotuak dira *EKARRI* predikatuarekin. Bestalde, *zertara* aukerako argumentua perpaus osagarri jokatugabeez baino ezin da gauzatu: *konpontzera EKARRI*. Sintagmek zein perpaus osagarri jokatugabeek gauza ditzakete beste argumentuak: *haizeak euria EKARRI / bizitzeak hiltzea EKARRI*. Baina, lehen esan bezala predikatuaren beraren esanahia ere modulatu da argumentuen izaeraren arabera: *haurrak liburua EKARRI (etxetik eskolara) / haizeak euria [berekin/ondotik] EKARRI / bizitzeak hiltzea [ondorioz] EKARRI (ekarri = eragin)*.

**30.4.2c** *Erabaki* predikatuak osagarri komunztaduradunak baino ez ditu: zerbaitek/norbaitek, zerbait ERABAKI.

ERABAKI predikatuaren argumentu osagarriak		
Komuntzaduradunak	ERABAKI <i>du</i>	Komuntzaduragabeak
zerbaitek/norbaitek		
zerbait		

Gehienetan biziduna izango da kanpo-argumentua, subjektu posizioan gauzatzen dena. Baina izan daiteke *zerbaitek* ere: *hedabideen jarrerak auzia ERABAKI* nahiz *hedabideek halako jarrera izateak auzia ERABAKI*. Gehien-gehienetan, ordea, *norbaitek zerbait ERABAKI* izaten da joskera eta esanahia, eta *zerbait* hori perpausezkoa, dela jokatua zein jokatugabea: *etxean geratzea / geratuko zarela ERABAKI*.

**30.4.2d** Azken adibide bat ematekotan, azter ditzagun IKUSI predikatuak dituen adieretako batzuk eta horietako bakoitzak duen argumentu sarea: *ikusi* (begiz) / *ikusi* (ohartu) eta *ikusi* (egiaztatu).

IKUSI (begiz) predikatuaren argumentu osagarriak		
Komuntzaduradunak	IKUSI <i>du</i> [ <i>dio</i> ]	Komuntzaduragabeak
norbaitek (begidun batek)		
zerbait/norbait		(zertan)
[zerbaiti/norbaiti]		

IKUSI (ohartu) predikatuaren argumentu osagarriak		
Komuntzaduradunak	IKUSI <i>du</i>	Komuntzaduragabeak
norbaitek (adimendun batek)		
zerbait: [indik. + -LA]		

IKUSI (egiaztatu) predikatuaren argumentu osagarriak		
Komunztaduradunak	IKUSI <i>du</i>	Komunztaduragabeak
norbaitek (adimendun batek)		
zerbait: [indik. + -N] (zehar-galdera jokatua)]		

Adiera bakoitzak du bere joskera perpaus osagarriari dagokienez: *ikusi zaitut erretzen / ikusi dut erre duzula / ikusiko dugu (nork, nola) erretzen duen.*

## 30.5. Hitzen ordena perpaus osagarrietan

### 30.5.1. Perpaus jokatueta

**30.5.1a** IS baten lekua hartzen duten neurrian, aditzaren ezkerrean koka ditzakegu perpaus osagarriak, eta hala egiten dugu askotan: *Tren hau Orion gelditzen dela entzun dut.* Baina, batez ere perpaus osagarria edo predikatu nagusia bera luzeak direnean, ohikoa da aditzaren eskuinean ematea: *Gizon horiek esan didate tren hau Orion gelditzen dela* (§ 41.3f).

Dena den, badira predikatuak perpaus osagarria nahitaez eskuinean eskatzen dutenak: *baizik eta, eskerrak* eta horrelako predikatuen osagarriak, *ezen iragarlea daramatenak* eta *bait-* menderagailua dutenak: *Eskerrak trena Orion gelditzen dela!*; *Oihuka etorri zen, baizik eta etxea sutan zela*; *Esan du ezen bihar lanik ez duela*; *Harrigarria da ez baituzu horrelakorik sekula ikusi*. Bere barnean galde hitza daramaten adierazpen perpaus osagarriak, ostera, predikatuaren ezkerrean eman behar dira: *Nor etorriko dela uste du Pellok?* Aurreraxeago aztertuko ditugu perpaus osagarri mota hauek guztiak banan-banan.

**30.5.1b** Nolanahi ere, ez ditugu mendeko perpausak beti osorik hartzen. Zenbaitetan galdegaiak gainerako osagaietatik bereizi eta adizki nagusiaren aurrera igarotzen da: *Aitak uste dut esan duela hori*; *Mikelek pentsatzen dut*

*irabaziko duela; Zuri esan dute emango dizutela lehen saria. Aditzaren baie-tza baldin bada galdegaia, hura igoko da adizki nagusiaren aurrera: Altubek arrazoi zuela dirudi honetan (Mitxelena). Maiz aurkituko ditugu horrelako egiturak mendeko perpaus osagarriak galde hitza duenean barnean, direla adierazpen perpausak —nor uste du Mirenek etorriko dela? Nork uste duzu irabaziko duela? Nondik esan duzu etorri dela? Nora esan dizute joan behar dugula?—, direla subjuntiboko perpausak —nork nahi duzue irabaz dezan/ irabaztea? Noiz esan diozue etor dadila/etortzeko?—. Zehar-galderetan, oste-ra, ezinezkoa da aurreratze hori; horietan galde hitza, eta galdegaia oro har, mendeko aditzaren aurrean kokatzen da beti: *Esan al dizute noiz etorriko di-ren? (\*noiz esan al dizute etorriko diren?); Galdetu diote Parisa joatekoa den (\*Parisa galdetu diote joatekoa den).**

Beste zenbaitetan, berriz, mintzagaia da adizki nagusiaren aurrean kokatzen dena; eta ez ditu horretan, gainera, galdegaiak dituen debekuak. Adizki nagu-sia batekoa edo bestekoa izan, mintzagaia adizki nagusiaren aurrera igo daite-ke: *Horiek uste dut alemanak direla; Zurekin iruditzen zait asko ikasiko dugu-la; Horrek badakigu lanak ondo egingo dituela; Gaztea nork ez daki ausarta dela?; Hauek ikusi duzue nola dabiltzan.*

**30.5.1c** Perpaus osagarrien barruko ordena ere azter daiteke, ordea, nahiz ezinezkoa izan gai horren gorabehera zehatz guztien berri ematea. Esan daite-ke, edozein modutan, menderagailua daraman adizkia mendeko perpausaren azken buruan ipintzeko joera dagoela idatzizko euskaraz: *Entzun dut [tren hau igandeetan Orion gelditzen dela] / [Tren hau igandeetan Orion gelditzen dela] entzun dut; Jakin nahi dute [autobusa igandeetan zer ordutan izaten den] / [Autobusa igandeetan zer ordutan izaten den] jakin nahi dute.* Dena dela, mendeko perpausaren elementuren bat edo beste aditzaren eskuinera atzera-tzea posible izaten da, ahozko erregistro informaletan batez ere. Hori errazago gertatzen da, gainera, mendeko perpausa aditz gobernatzailearen eskuinean doanean: *Entzun dut [tren hau Orion gelditzen dela igandeetan] / ?[Tren hau Orion gelditzen dela igandeetan] entzun dut; Jakin nahi dute [zer ordutan izaten den autobusa igandeetan] / ?[Zer ordutan izaten den autobusa igan-deetan] jakin nahi dute.*

Ezezko perpaus osagarrietan ohikoa da mendeko adizki jokatua ezkerrean ematea: *Entzun dut tren hau ez dela Orion gelditzen*. Onartzekoak dira, dena den, aditza perpausaren azkenean dutenak ere: *Entzun dut tren hau Orion gelditzen ez dela*. Errazago gertatzen da azken segida hori egitura konplexuagoe-tan, hau da, perpaus osagarria beste mendeko batean txertatua denean: *Tren hau Orion gelditzen ez dela esaten duena oker ari da*.

### 30.5.2. Perpaus jokatugabeetan

**30.5.2a** Perpaus osagarri jokatugabeei dagokienez, *-tzea* eta *-tzeke* molde-koak beren kide jokatuaren antzekoak dira, bai predikatu nagusiaren eskuinean emateko joeraz eta bai perpausaren muga kanonikoa (*-tzea* eta *-tzeke* morfe-mak) gainditzeko aukeraz: *Gaur gurasoekin etxean geratzea* [geratuko dela] *erabaki du*; *Erabaki du gaur gurasoekin etxean geratzea* [geratuko dela]; *Era-baki du etxean geratzea* [geratuko dela] *gaur gurasoekin*. Eta *-tzeke* atzizkia-rekin: *Lagunen aurrean sekretua gordetzeko* [gorde zenezala] *eskatu nizun*; *Eskatu nizun lagun aurrean sekretua gordetzeko* [gorde zenezala]; *Eskatu nizun sekretua gordetzeko* [gorde zenezala] *lagunen aurrean*.

Perpaus osagarria eskuinean emateko joera are nabarmenagoa da [izena / ize-nondoa + aditza] osaerako predikatuen artean: *Noizik behin jatorduetan ardo xorta bat edatea* [edan dezazun] *on(a) duzu*; *On(a) duzu noizik behin jatordue-tan ardo xorta bat edatea* [edan dezazun]; *On(a) duzu noizik behin ardo xorta bat edatea* [edan dezazun] *jatorduetan*.

Hain zuzen ere, hitz hurrenkera horrexek bereizten ditu batzuetan *-tzeke* izen-lagunak bestelakoetatik: [Ontziak erretzeko agindua] [eman] *zuen* / [Agindua eman] *zuen* [ontziak erretzeko].

**30.5.2b** Beste sail bat osatzen dute *-tzen* eta *-tzera* perpaus osagarriek. Ez dute aurrekoek bezain joera nabarmenik predikatu nagusiaren eskuinean agertzeko. Galdegai ez direnean bai, erraz eman daitezke eskuinean; baina, bestela, galde-gaiaren kokagune kanonikoan agertu ohi dira: *Ikusi zaitut, bai, txerri bat erre-tzen* [-galdegai] / *Txerri bat erretzen ikusi zaitut* [+galdegai]. *Zuk behartu nauzu*

*gezurra esatera* [-galdegai] / *Gezurra esatera behartu nauzu* [+galdegai]. Dena den, halako predikatu askok ere joera dute eskuinean emateko informazio berria: *Ausartu naiz egia esatera*. Baina ez da hain naturala perpaus muga kanonikoa gainditzea: ?*Ausartu naiz egia esatera lagunen aurrean*.

**30.5.2c** [-*tzea* + atzizkia] moldekoek (§ 30.6.3.2) atzizki bakoitzaren arabera-ko funtzioa betetzen dute, eta horren arabera ordenatzen dira perpaus nagusia-rekiko. -*tzeaz* moldekoa da eskuin-joera markatuena duena. Eskuin-joskera horretan perpaus muga kanonikoa gainditzea ere askoz zailagoa dute [-*tzea* + atzizkia] moldeko osagarriek; kasuren bat bada, baina oso bakanak dira tradizioan; *Zenbat* [dira] *poztuko lirakenak*, *Pazkorik ez izateaz eriotzako ordurano*? (Agirre Asteasukoa). Gaur egungo prosan aurkitzen dugu inoiz ergatibozkoren bat joskera horretan, baina ez dugu aurkitu halakorik tradizioan: *Ez nau harritzen ikusteak mundua nola doan*. Halakoak adierazteko ohikoena ergatiboa eskatzen ez duen joskeraren bat hautatzea izaten da: *Ez naiz harritzen ikusirik mundua nola doan*; *Ez zait harrigarri gertatzen ikustea mundua nola doan*.

## 30.6. Adierazpen perpaus osagarriak

### 30.6.1. Sarrera

**30.6.1a** Zerbait adierazten dutenei esaten zaie adierazpen perpaus osagarri; perpaus horietan ez da ezer galdetzen, ez eta nahia, agintea edo horrelakorik adierazten ere. Adierazpen perpaus osagarriak izan daitezke jokatuak zein jokatugabeak. Lehen motakoak dira honako hauek: *Laguna etorri dela esan didate*; *Ikusi dugu gazte hori zintzoa dena*; *Ez dut uste jende asko etorriko denik*; *Ikusiko duzue nola primeran ibiliko zareten*; *Domaia da hura ez baita etorriko*. Jokatugabeak dira beste hauek: *Ez diote barkatu egia esatea*; *Damutuko zaizu bihar joatea*; *Etxera itzultzea erabaki du*; *Atarian neskaxa bat ikusi dugu jendeari loreak banatzen*; *Gainera badakizu zure xarma hori esploratzen ere* (Oñederra); *Lehen bezala joaten naiz etxeko lanak egitera eta irakurtzera*; *Ez naiz ausartu ere egiten hildako egunez pentsatzera* (Larrañaga).



**30.6.1b** Elementu kontrolatzaileari dagokionez, aditza izan daiteke adierazpen perpauos osagarrien kontrolatzailea; horrelakoak dira eman berri ditugun adibideak. Baina egon daitezke izen baten mende ere, nahiz ez izan ohikoena. Izenaren mende daude ondoko adierazpen perpauos osagarri jokatuak: *Badira oraindik [lurra zapala den ustea] baztertu ez dutenak*; [*Etsiko dun ustea*] *badu berak ere* (Orixe); [*Euskara Afrikatik datorrelako hipotesia*] *agertu dute batzuek*; [*Berandu dabiltzalako susmoa*] *dut*. Beste adibide hauetan, berriz, perpauos osagarri jokatuak da izenaren mende dagoena: *Alabarengana jiratu, eta ukabila jaso zuen aitak, [alaba jotzeko keinua] eginik* (Lertxundi); [*Euskara ikasteko erabakia*] *hartu du*.

Elementu kontrolatzailea zein den eta mendeko aditza jokatu ala jokatuak den kontuan harturik aztertuko ditugu adierazpen perpauos osagarriak. Dena den, ugarriak ez direnez, sail bakarrean bilduko ditugu izenaren mendeko adierazpen perpauos osagarriak. Beraz, aditzaren mendeko adierazpen perpauos osagarri jokatuak aztertuko ditugu lehenik. Aditzaren mendeko adierazpen perpauos osagarri jokatuak, ondoren. Eta, azkenik, izenaren mendeko adierazpen perpauos osagarriak.

## 30.6.2. Aditzaren mendeko adierazpen perpauos osagarri jokatuak

Menderagailu bat baino gehiago erabil daiteke perpauos mota honetan: *-(e)la* da nagusia, erabilera zabalena duena. Gainerakoek *—e(na)*, *-(e)nik*, *-(e)n* eta *bait-* aurrizkiak— askoz ere leku mugatuagoa dute. Predikatu jakin batzuekin eta euskalki jakin batzuetan baizik ez dira erabiltzen. Menderagailu bakoitzetik abiatuta aztertuko dugu bakoitza zein predikatu motarekin agertzen den eta zein ezaugarri dituen.

### 30.6.2.1. *-(e)la* menderagailua duten adierazpen perpauos osagarri jokatuak

Gogoan izan behar dugu *-(e)la* menderagailua perpauos osagarrietan ez ezik modua, denbora edo horren antzeko zirkunstantziaren bat adierazten duten

perpausetan ere erabiltzen dela. Ez da zaila perpaus mota biak bereiztea. Osagarriak, esan bezala, konplementazio erlazioan daude eta elementu gobernatzaile bat dute perpaus nagusian. Adberbialak, berriz, adjuntuak dira, elementu gobernatzaileak ez dutenak. Bi adibide hauek alderatu baino ez dugu desberdintasunaz jabetzeko: *Lanean ari zela esan ziguten; Lanean ari zela izan zuen ezbeharra*. Lehen adibidean *zer?* galderari erantzuten dio *lanean ari zela* mendeko perpausak, eta *esan* aditzak gobernatzen du. Mendeko perpaus osagarria da, beraz. Bigarrenak, aldiz, *noiz?* adierazten du, eta menderagailuak *-(e)larik* aldaera onartzen du: *Lanean ari zelarik, ezbeharra izan zuen* (§ 36.2.2a, § 36.4.1a, § 36.4.4d).

**30.6.2.1a** Gobernatzaile motak. *-(e)la* perpaus osagarriak predikatu mota batekin baino gehiagorekin ager daitezke, baina ez edozeinekin. Perpaus egiturako osagarria eskatzen duten aditzak izango dira gobernatzaileak, ez bestelakoak. *Zauritu, zatitu* eta *desegin* aditzek, esaterako, ez dute perpaus egiturako osagarriarik onartzen; beraz, ez dira gramatikalak *\*desegin dut ondo bizi zarela, \*zauritu dugu Manuel joan dela* edo *\*zatitu dugu film hori ikusi genuela* perpausak. Zein dira, bada, adierazpen perpaus osagarrietako gobernatzaileak? Multzo zabal batean, ‘esatea’, ‘pentsatzea’, ‘sinestea’, ‘jakitea’, ‘gogoratzea’ adierazten duten predikatuak.

**30.6.2.1b** Honako sail hauek bereiz ditzakegu adierazpen perpaus osagarriak gobernatzen dituzten predikatuen artean:

- a) *Ekintza komunikatibo* bat adierazten dutenak eta perpaus osagarriak, hain zuzen ere, komunikazio horren edukia ematen du aditzera. *Esan, adierazi, azaldu, erantzun, idatzi, jakinarazi, ziurtatu* eta horrelakoak dira perpaus hauetako gobernatzaileak: *Ezertarako gogorik ez zuela adierazi zion Luppek lagunari; Azkena nintzela jakinarazi zidaten; Osabak esan dit barkazioa eskatu behar diola Ursulari* (J. Zabaleta).
- b) Beste predikatu batzuek *iritzia, kezka, ustea, sinesmena, zalantza* eta horrelako gogopenak adierazten dituzte; adibidez: *uste izan, pentsatu, iritzi, iruditu, ziur egon, etsi...* *Uste dute Mikel gaur etorriko dela; Pozik bizi direla dirudi; Ziur nago aurten hobeto ibiliko garela; Beldur naiz hau nue-*

*la azken itzulia* (Xalbador); *Eta horrenbestez etsi zuen biekin bizitzen ikasi beharko zuela* (Alonso). Hauen artean sar daitezke, beharbada, *aitortu* eta *ukatu* bezalakoak ere: *Aitortu behar da lehen okerrago bizi ginela*; *Ezin da ukatu orain hobeto bizi garela*.

- c) Hirugarren azpisail bat osatzen dute *ezaguera*, *jakitea* edo *oharmena* adierazten dutenak: *jakin*, *ezagutu*, *konturatu*, *ohartu*, *ikusi*, *igarri*, *sumatu* eta, beharbada, *gogoratu*, *oroitu*... *Badakit Josebak etxea saldu duela*; *Ezagun du gazteak zaretela*; *Konturatu naiz lagunak joan zaizkizula*; *Berak [...] igarri zion aldi gutxiko bizia zeukala* (Garitaonandia); *Gogoratzen naiz urte hartan zu izan zinela txapelduna*; *Ez ahaztu ni naizela zure lagunik onena*.
- d) Balizko suposizioa adierazten dute *egin*, *eman*, *esan*, eta horrelakoek. Horien inperatiboko formak ere hemen sartzekoak dira: *Demagun 1900. urtean gaudela*; *Egin ezazu loteria tokatu zaizula... zer erosiko zenuke?*; *Esan dezagun denak berdinak garela*.
- e) Harridura perpausok ere sail honetan izan dezakete lekua: *Bai gogorra dela zurekin bizitzea!* *Horixe ez naizela inora joango!*
- f) Beste predikatu batzuek gogo-jarrerak adierazten dituzte, mendeko perpausak adierazten duen gertakariari buruzko gogo-jarrerak: hura *espero izatea*, *erabakitzea*, *hitz ematea*... Hau da, hura adierazte edo jakite hutsa baino zerbait gehiago: *Brusela hiri espantagarria dela ia aho batez erabaki dugu* (Jimenez); *Duda-muda une baten ondoren, trago bakar batean husteko gehitxo geratzen zela deliberatu zuen* (Cano); *Lenengo egunetan Indianoari agindu eutsan bere alde emongo ebala* (Agirre); *Itza ematen dezu betiko utziko dituzula* (Agirre Asteasukoa); *Bañan esperantzetan / natxiok oraindik, / alkar joko degula / nundik edo andik* (Txirrita).

Horietako aditz batzuk adiera horretan ez ezik ezagutza-adieran ere erabiltzen dira inoiz, hala nola, *erabaki* eta *hitzeman* aditzak, ‘pentsatu’ eta ‘ziurtatu’ adierazteko hurrenez hurren: *Erru guztiak inglesenak zirela erabaki zuen* (Aresti); *Auzi erabakia baita [...] esaldi ilun horiek punikoz daudela* (Mitxelena); *Medikuak hitz eman zionean ez zeukala gaitzik* (Mitxelena). Hauek a)

motakoen artean sartzekoak dira, proposizioaren beraren gainean eraikiak baitira, ez gertakariaren gainean.

Gertakariaren gaineko jarrera adierazpen dira, halaber, nolabaiteko balioztatzea dakarten adjektiboak edo *damurik*, *eskerrak* eta horrelako predikatuak: *Okerrena da ez direla ezertaz konturatu*; *Eskerrak ez nintzela oren bat gehiago ari izan edo Baionara joan* (Landart); *Eskerrak bizi honen ondotik hor daukagula bestea* (Xalbador); *Damurik ez direla gaueko argiak oihal busti batzuek bezala* (Hiribarren); *Damurik partida hori ez dugula ikusi iparraldean* (Herria).

Gertakaria dute objektu, hari buruzko denbora erreferentzia ematen duten predikatuek ere: *Badu jadanik 30 urte hau gozatzen duela eta beti pixkor izanez* (Herria); *Egunak ditu hor dela* (Duvoisin); *Hamabost egun dira beren gelan itxita dutela, kartzelan bezala* (Biguri); *Hirugarren aldia da barkamena eskatzen dizudala* (Payá).

Gogo-jarrera adierazten dutenak *bait*-ekin ere egiten dira Iparraldeko euskalkietan (§ 30.6.2.5): *Damurik [...] pondu batzuetan egin den aintzinamendua ez baita egiazkoa* (Lafitte).

Osagarri jokatu gabeen gobernatzaile ere izan daiteke aditz horietako asko: *-tea erabaki / deliberatu*, *-tzen jakin / ikusi...* Aurreraxeago aztertuko ditugu horiek. Zehar-galderak ere goberna ditzakete horietako batzuek: *Gogora hadi zer gertatu zen atzo* (Atxaga).

**30.6.2.1c** Zenbaitetan aditz soila ez, baina predikatu egitura konplexu bat izaten da elementu gobernatzailea: *berria zabaldu*, *notizia etorri*, *agindua eman*, *jakitun egon*, *jakina izan*, *ziur izan*, *beldur izan*, *gogoan izan*, *esperantza izan*, *irudipena izan*, *susmoa izan*, *arrazoi izan*, *etsita egon...* Ikus ditza-gun adibide batzuk: *Egun batez berria zabaldu zen Dachau-ra joan behar genuela* (Etxehandi); *Senarra jakitun zegoen emazteak ez zuela irakurria Jules Verneren liburua* (Zurutuza); *Ziur da jakinaren gainean dagoela Martinekin duen harremanaren alderdi intimoenez* (Saizarbitoria); *Jakina naiz isil-isilean lan egin duela* (Jon Muñoz); *Eta susmoa izan zen norbaitek debekatu ziola Luvinori entziklopedia erakustea* (Elorriaga); *Irudipena izan zuen alaba*

*ez zela besteak bezalakoa* (Zubizarreta). Adibide horietan argi dago predikatu osoa dela gobernatzailea, eta ez izena edo adjektiboa bakarrik. Izan ere, izena balitz gobernatzaile, *-(e)lako* menderagailua hartu beharko luke adierazpen perpaus osagarriak (§ 30.6.4.1).

Konplexuak dira, halaber, *izan* aditzarekin eratzen diren egitura atributiboak: *egia izan, gauza jakina izan, bistan izan, kontua izan...* *Gauza jakina da koloreak deskonposatu egin daitezkeela* (J. Zabaleta); *Bistan da ontziak ez zirela hara joaten* (Iñurrieta); *Kontua da gaztetan zailagoa dela galdutako testu batekin obsesionatzea* (Saizarbitoria).

**30.6.2.1d** Aditz gobernatzailea, guztiz edo partez, isilpean ere gera daiteke: *Hantxe zebilen Fernando, bera zela gelako indartsuena; Negarrez joan zen haurra amagana: mina zuela: Amaren partez, gaur etxean geratuko dela eta ez itxoiteko; Denen aurrean jaiki zen, bera zela erruduna; Badatorrela! Ez naizela hori egiteko gauza? Eta itzuli zen etxea, aldi hartan bederen ongi egin zuela bere mandatua* (Barbier). Adibide horietan guztietan dugu *-(e)la* menderagailua, baina ez ageriko predikatu gobernatzailearik. Ez da zaila, ordea, isilpean *esaten, esanaz, diot* edo horien antzeko aditz bat antzematea. Beste zenbaitetan, berriz, elementu gobernatzailea osoa ez, baina haren zati bat falta da: *Nago [...] adiskideek ez dutela erratearen beharrik* (Hiriart-Urruti); *Daukat Jainkoak Migel zuela mendi hartan zinez deithu* (Oxobi); *Parte har lezaketela daukagu* (Zerbitzari); *Kristiandade gustijan, biar bada, ez dala nago, jentez jente, berba loi geijago esango, euskal errijetan baño* (J. J. Mogel). *Egon* —lehen pertsonan beti— eta *eduki* aditzarekin egiten diren esaldi horietan zerbait falta dela susma daiteke; pentsa daiteke azpian *ustean egon, ustean eduki* edo horrelako zerbait dagoela; eta, beraz, iritzi predikatuak direla.

Balitzko suposizioa bideratzen duen *egin dezagun* eta horrelakoetan ere zerbait isiltzen dela dirudi (*egin ezazu loteria tokatu zaiizula*). Hor ere azpian *kontu egin* edo horrelako predikatu egituraren bat dagoela esan daiteke.

Beste batzuetan aditza falta da: *Harro zihoan, iduri eta bera zela txapelduna; Lasaitu nintzen, nire txanda noizbait izango zela esperoan; Bera ere gogor jo bazuten, seinale ez gintuela saldu* (Atxaga). Horietan *iduri zuelarik, esperoan*

*egonik, seinale zen* edo horrelako zerbait dagoela antzematen da. Beste zenbaitetan, berriz, aditz kopulatiboa falta da (*da, zen..*): *Okerrena, berriz, ez zela inor ezertaz ohartu.*

**30.6.2.1e** Perpau osagarrien gobernatzailea aditz bat edo barnean aditza darman predikatu bat izaten da gehienetan, baina ez beti. Ondoko adibideetan gobernatzailezat ditugu harridura perpausetako *bai* eta *horixe* esklamatiboak, eta *horr*a aurkezlea: *Bai tristea dela horrela bizitzea!*; *Horixe joango naizela!*; *Horra datorrela zure laguna*. Azken mota honetakoak ez dira maiztasun handi-handikoak, sarriago egiten dira-eta galde hitzen baten bitartez, adierazpenezkoak izanik ere: *Horra non guk nahi genuen bezala gertatu den guztia* (§ 30.6.2.4b).

Batez ere ekialdeko euskararen erabiltzen den *baizik eta* ere ondoko osagarriaren gobernatzailea dela esan dezakegu. *Baizik eta* duen perpausa ez da inoiz lokabea, beste perpau baten mendeko gisa erabiltzen baita beti, haren azalpena emanik eta ‘esanaz’ edo horren antzeko zerbait adieraziz. Hona adibide batzuk: *Berak beti ukatu du, baizik-eta besta buru egunez kanpo ez zuela sekulan mokanesik* (Lafitte); *Azkenekoz apezari jarraiki zen delakoa, baizik-eta sorginkeriaren erroak apezan baitan zirela eta hauk [...]* (Zerbitzari); *Amak berehala mezua igorri zion Erregeari, baizik eta, bi haurren orde, bi xakur izan zituela Erreginak* (Barbier).

Horren antzera jokatzeko du *alegia* adizlagunak ere, ekialdean duen erabileran, hau da, ‘itxura eginaz’ edo horren antzeko zerbait adierazten duenean: *Gure Gaxuxak, alegia eztuela deusere entzun, etzituen ere higitu begiak* (Manezaundi); *Alegia Errepublikaren ohoretan dela pesta hori, framazoneriak du hor Euskaldunen libertatea eta erlisioneaz zangoetan dauzkala erakutsi nahi* (Hiriart-Urruti).

Gogoan izan behar da, bestalde, *noski* adizlaguna ezin dela *-(e)la* perpau baten gobernatzaile izan. Perpau lokabeetan erabiltzen da, *-(e)la* erantsi gabe: *Etorriko da, noski; \*Noski etorriko dela.*

**30.6.2.1f** *-(e)la* menderagailuak ondoren izenlagunak egiteko erabili ohi den *-ko* atzizkia baino ez du onartzen, aurrerago izenaren mendeko perpau osagarriak aztertzen ikusiko dugun bezala (§ 30.6.4): *Hegazkina erori zelako berria berehala zabaldu zen*. Gaur egun maiz samar entzun eta irakurtzen

ditugu *-(e)la*-ren ondoren *-en* genitiboa daramaten perpausak: \**Datorren urtean ezkonduko zarela*ren berria hedatu da. Baina azken mota horretako perpausak ez dira gramatikalak.

Ikus Euskaltzaindiaren 116. araua: “*-eLAKO* eta *-(e)n* atzizkiak izenak gobernaturiko perpaus osagarrietan”, Iruñean, 2001eko martxoaren 30ean onartua.

Beraz, *-(e)la* menderagailuak ez du onartzen ondoren *-ko* izenlagun markaz bestelakorik, ez kasu markarik ez eta postposizio atzizkirik. *-(e)la* perpausak izen sintagma ez direnez, ezin dute *-k*, *-i*, *-z* edo *-en* hartu. Ez dira, beraz, onargarriak \**zuk hori esan duzulak harritu nau*, \**zuk hori esan duzulari harri-garri deritzot* edo \**berandu iritsi zarela*z *ohartu naiz*. Azken adibide hori ez da gramatikala, baina instrumentala eskatzen duten zenbait aditzen osagarriak (*ohartu*, *oroitu*, *ahaztu* eta abar) *-(e)la* menderagailu soilarekin joan daitezke: *Berandu dela ohartu naiz*; *Medikuarenera joan behar dudala oroitu naiz oraintxe*. Baina, gehienetan beste itzuli batzuetara jo behar dugu; adizki jokatugabeetara, esaterako: *Zuk hori esateari harri-garri deritzot*; *Zuk hori esateak harritu nau*. Edo, bestela, guk nahi dugun kasu marka edo atzizkia har dezakeen aurrekari batez balia gaitetzke: *Zerak/Honexek harritzen nau: egun guttian ez zarela agertu*; *Honi ere erreparatu behar zaio: gehiago balio duela osasunak aberastasunak baino*; *Horretan biltzen da guttia; askoz gehiago dela ez dakiguna dakiguna baino*. Dena den, baliabide hau berezia da; batez ere ahozko mintzairan erabiltzen ditugu horrelako aurrekariak.

**30.6.2.1g** Zenbait “ordain” erabil daitezke adierazpen perpaus osagarrien lekuan; adibidez, *hori* determinatzailea edo *hala* adberbioa: *Hori entzun dugu*; *Hala esan digute*; *Hori jakin dugu guk*; *Hala jakin dugu guk*. Azpian instrumentala dutenek, berriz, *horretaz* har dezakete perpaus osagarriaren “ordain” gisa: *Horretaz ohartu naiz* ([*etxera joateko ordua dela*] *ohartu naiz* esan ordez).

Ez dirudi, ordea, beti egin daitekeenik horrelako ordezkatzeari. Predikatu egitura batzuekin, esate baterako, ezinezkoa dela ematen du: \**Hori zabaldu da berria* ([*istripu larri bat izan dela*] *zabaldu da berria*). Eta gauza bera harri-

durazko perpaus zenbaitekin: *Horixe joango naizela!* perpausaren ordezt, ezin esan daiteke *\*horixe hori!*

*Baietz* eta *ezetzt* ere izan daitezke perpaus osagarrien ordain, perpausa osorik eman nahi ez dugunean. Sarritan gertatzen da hori, adibidez, elkarrizketan ari garenean, galde-erantzunka: —*Zer esan dizu Peruk, etorriko dela?* —*Baietz esan dit;* —*Uste duzu horiek zerbait egingo dutela?* —*Ezetzt uste dut. Esan, uste izan, iruditu* eta horrelakoek onartzen dituzte “baiezko” edo “ezezko” osagarri horiek. Gorago esan bezala, *noski* adizlagunak *-(e)la* perpausik gobernatu ezin duen heinean, ezta horien ordezt *baietz* edo *ezetzt* ere: *bai, noski!* / *\*noski baietz.*

[*Baietz/ezetzt* + partizipioa] tankerako perpausek, erronka edo apusturen bat egin nahi denean erabiltzen direnek, ez dute ageriko gobernatzailerik (*diot nik* edo horrelakoren bat sumatzen da isilpean, *ezetzt* eta *baietz* horiek gobernatzen): *Ezetzt asmatu zenbat diru dudan!*; *Baietz iritsi zu baino lehen horma hartara!* Alderantzizko ordena ere zilegi da: *Asmatu ezetzt zer dudan eskuan!*; *Gure herriko taldeak irabazi baietz!*

**30.6.2.1h** *Ezen* iragarlea *-(e)la* perpaus osagarrien lehen buruan. Mota hone-tako perpaus osagarriek aukeran dute *ezen* elementu iragarlea hartzea perpau-saren hasiera markatzeko: *ETBk dio [ezen bihar eguraldi ona izango dela].* Iragarle honek erabilera ugaria izan du tradizioan, eta gaur ere ugari ageri da mota guztietako testuetan: *Zeren bainezien ezen Mattinen aurka, ezpatari gisa, beti nintzela galtzeko eta haren azpiko izaiteko* (Irigoien); *Irakurleei behar diegu geure ustez gaztigatu ezen ez dugula bilduma honen egiazkotasu-na bermatzen, eta badugula orobat garrantzizko arrazoirik nobela bat baizik ez dela uste izateko* (Jon Muñoz); *Eta, hala ere, badirudi frogaturik dagoela ezen gure arima sekretuen alderik sekretuenean gu, zuzentzaileok, boluptuo-soak garela* (Alonso); *Gaineratzen zuten ezen, toki gorenean, auspizioz eta aholkuz gehiago egiten dela armaz eta eskuz baino* (X. Amuriza).

Elementu iragarle honek izan ditu beste forma batzuk ere literatura tradizioan: *eze*, *ezi* eta *ze*. *Eze* aldaera bizkaierazko testuetakoa da, batik bat: *Bai, izenak artu ditu, ta esan dau eze bihar dantzán egin beharko dozuela* (Agirre); *Pentsatzen juat eze, onek eibartarrok, ifrañuko Patxi bera baño gorriauk dirala*



(San Martin). *Ezi* Zuberoako testuetan ageri da batez ere: *Jakin ezazü ezi, etsai zaharrak egin ahala oro egiten diala zuri zure hunialako desirküntiaren gal erazitzeke* (Maister). Oro har, xx. mendea baino lehenagoko testuetan ageri dira bai *eze* eta bai *ezi*, nahiz joan den mendean ere aurkituko ditugun adibide batzuk. *Ze*, ostera, bizkaierazko eta gipuzkerazko testu batzuetan ageri da eta aski erabilia da gaur egun ahozkoan, bizkaieraz batez ere: *Batxi: emen diñue ze lengo eguneko esakeran arratsaldian izan ziriala esamiñak* (Azkue); [*Txorriyak*] *esan zidak, ze, egiten ez baditugu bideak ura andikan laster ateratzeko, denbora pasa kantuan asiko dala* (Apaolaza).

**30.6.2.1i** Mendeko osagarriaren aurrekaria perpaus nagusian. Perpaus nagusiaren barruan egon daiteke elementu bat, ondoan datorren osagarriaren abisu ematen duena. Osagarriaren “aurrekariak” dira elementu horiek, elementu anaforikoak, eta ondoan datorren *-(e)la* perpausak ematen die bere esanahia: *zera, hau, honela* eta horrelako elementuez ari gara. Ikus ditzagun adibide batzuk: *Zera bururatu zitzaion: bi gudaloste zirala elkarren aurka zetozenak* (Berrondo); *Bere arazoa zera da, ez dakiela nola bereizi liburuetan irakurritakoa eta bizitzaren errealitatea* (Ezkiaga); *Baina zera gertatzen da: nik ez dudala onartu nahi hiri madarikatu honetako jendearengandik onartu behar den guztia* (Lopez de Arana); *Behean sinatzen duenak hau adierazten du: hamabost urte daramatzala funtzionario lanetan eta, beraz, bosgarren hiruurtakoa aitortu behar zaiola; Beste honako hau ere ez nekien nik: Joachim 1935 urtetik aurrera gogotik aritu zela itsas haraindirako emigrazio-baimena lortu nahian* (J. A. Arrieta). *-(e)la* osagarriekin bakarrik ez, beste batzuekin ere ikusiko ditugu, funtzio bera dutela; zehar-galderen aurrekari, esaterako, honako adibide honetan: *Azken buruan zera jakiteko: zer bilatzen ote nuen bere etxean, zergatik etorri nintzen etorri behar nuela abisatu gabe* (Rey). Edo adierazpen perpaus jokatu gabe baten aurrekari: *Honako hau besterik ez duk mendekua: hi neure etxera itzultzea, gerran den munduan barrena eta minaz beteriko itsasoak zeharkatuz honaino etortzea* (Olarra).

Perpaus osagarriaren luzerak eta konplexutasunak eragina izan dezake horrelako aurrekari bat erabiltzeko: adizki nagusitik urrun geratzen da maiz osagarritasuna adierazten duen *-(e)la* menderagailua, eta, orduan, lagungarri ger-

tatzen dira ondoko perpausa osagarria dela ohartarazten diguten aurrekari horiek; katafora deitzen zaio mekanismo horri.

### 30.6.2.2. *-(e)na* menderagailua duten adierazpen perpaus osagarri jokatuak

**30.6.2.2a** *-(e)na* menderagailua ere har dezakete perpaus osagarri jokatuak, baina gutxitan agertzen da menderagailu hau bizkaieratik kanpo. Eta, bizkaieraren barnean ere, ez da nonahi erabiltzen. Batzuetan proposatu izan da, *-(e)la* eta *-(e)na* erabiltzen duten hizkeretan, aditzaren faktibotasuna dela bi menderagailu horiek bereizten dituen ezaugarria. Hau da, aditz eta predikatu faktiboekin (§ 23.2.2.2j) *-(e)na* erabil daitekeela. Bestela esan, mendeko perpausoko proposizioa egiazkoa denean erabiltzen bide da *-(e)na*. Testuetako adibideek, ordea, ez dute interpretazio horren aldeko frogaz zehatzik eskaintzen. Joera batzuk sumatzen ditugu, gehienez ere.

**30.6.2.2b** Beraz, *-(e)na* menderagailuaren erabilera deskribatzeko, zuhurrena literaturako testuetan zein aditzekin eta predikaturekin erabili den aipatzea da. *Jakin* eta mota horietako aditzak dira *-(e)na* perpausen gobernatzaile: *aditu, airtortu, erakutsi, ezagutu, gogoratu, gomutatu, igarri, ikusi, sinetsi, susmatu: Aren arpegi itun eta itzalean igarri dagike Matxinek, ezbearren bat izan dana* (Erkiaga); *Erakutsi daigun geure berba guztietan, egijaren semiak gariana* (Frai Bartolome); *Erri guztiak eztaki Antoni Errota-gaz ezkonduen zareana?* (Agirre).

*Egia izan, ezagun izan, gezurra izan, itxura ukan, jakina (izan), seguru egon/ izan, zer esanik ez, zalantzarik gabe, bistan egon, horixe eta horien antzeko predikatuak ere erabiltzen da *-(e)na* mendebalde zabalean: *Ezagun dozu askotan izan etzareana bertan* (Agirre); *Ziur egon, ba, orrelaxe gertatu zana* (Zubikarai); *Gizurra don gero Patxiko il dana* (San Martin); *Ez da egia, esate baterako, euskalki dotoreak eta itsusiak daudena* (Zuazo).*

*Eskerrak, lastima, seinale* bezalakoekin ere ager daiteke *-(e)na*: *Eskerrak alakoren batean andra Adelaidak autua eteten ebana* (Erkiaga); [...] *tratu eske guregarana igorri zuenean, seinale trukea interesatu zaiona* (Etxaide).

Adibideetan ikusten den bezala, mendeko adizkiak, hau da, *-(e)na* menderagailua hartzen duenak, perpausaren azkenean joateko joera erakusten du, ondotik osagai bat edo beste izan badezake ere.

### 30.6.2.3. *-(e)nik* menderagailua duten adierazpen perpaus osagarri jokatuak

**30.6.2.3a** Hegoaldean ezezkako perpaus osagarri batzuetan *-enik* menderagailua erabiltzen da (*-en + -ik*): *Hil danik ez det behintzat entzun* (S. Salaberria); *Eztet pentsatzen aiek dutenik gaurko gaztien gaitzikan* (Uztapide). Inoiz galderazko perpausetan ere erabiltzen da, batez ere sakonean ezezkako esanahia duten galdera erretorikoetan: *Nola jakin nezakeen nik [...] European indio gaxo auen erlijioa jakiteko orrelako gutiziarik egongo zenik?* (Villasante).

Ez da pentsatu behar, ordea, ezezko eta galderazko perpaus guztietan erabiltzen denik menderagailu hori. *-(e)na* menderagailuaz esana errepikatu behar dugu hemen ere: joerak, jokabide nagusiak ikus ditzakegu *-(e)nik* eta *-(e)la* menderagailuen artean; baina ezin eman daiteke arau zehatzik. Nolanahi ere, seinala daitezke zenbait bide, ondoren emango ditugunak.

**30.6.2.3b** Predikatuak agintzen du maiz zein den erabili beharreko menderagailua. *-(e)nik* menderagailua eskatzen dute *uste* edo *iritzia* adierazten duten predikatuek: *uste izan, pentsatu, iritzi, iruditu, eman, gogoak eman...* *Ez du ematen hiru baino gehiago direnik* (I. Mendiguren); *Ez dirudi ezer ukitu dutenik* (Zaldua); *Inori ez zitzaion bururatzen onik aterako zirenik* (Navarro); *Eta ez pentsa erraza izango denik* (Atxaga).

Beste predikatu batzuek, ostera, *-(e)la* osagarria izaten dute normalean. Hala-koak dira *ahaztu, duda egin, duda izan, egia izan...* edo denborazko erreferentzia ematen dutenak: *Ez du dudarik egiten aise begiratuko zarela peril horretarik* (Jon Muñoz); *Ez da egia gizakiaren bizitza amaitzean hasten dela bere heriotza* (Sarrionandia); *Ezin duda egin daiteke biltze-lana dela gurean presakakoena* (Mitxelena); *Ez sekula ahaztu emandako hitza sakratua dela* (Montorio).

Eta beste zenbait predikatuk, azkenik —*esan, entzun, ikusi, jakin...*—, menderagailu bat zein bestea erabil dezakete: *Ezin esan dezakegu gizon prestua izan zela* (Aresti); *Ez egidazu esan biotzik ez dodanik* (Gandiaga); *Sekula ez zuela entzun Peter Panek ahuntza zuenik* (Gabiria).

Kontuan izan behar da, edozein modutan, jokabide jakin bat duten predikatuek hura alda dezaketela, bere esanahia ñabartzen edo zehazten duen elementuren bat hartzen dutenean. Esaterako, *jakin* aditzak menderagailu biak hartzen baditu ere, *ez daki asko* predikatuak *-(e)la* eskatzen duela dirudi: *Ez daki asko apaiza ez baina organujole naizela!* (Aristi); *Ez daki asko nerekin etorria dala ta etxean daukagula zai* (Labaien); *Ez daki asko Nikanor-ek, polizi-gizonok orretan emoten dituela euren bizitzako ordu asko* (Erkiaga).

**30.6.2.3c** Normalean *-(e)nik* erabiltzen dituzten predikatuek ere *-(e)la* hartzen dute zenbait inguru eta egituratan:

- a) Perpaus nagusia galderazkoa denean: *Ez zaizu iruditzen gerra ondorengo filologia gehiegi mugatu dela testuetara [...]?* (Mitxelena); *Tuntuna: ez duzu ikusten zure aitona naizela?* (Lertxundi); [...] *Ea ez al zekien Ama Birjinaren hilean zeudela* (Saizarbitoria). Baina, gorago aipatu zalantzen lekuko, aurki ditzakegu bestelako adibideak ere: *Ik ez al dun siñesten begia betzuloan ikara ta dardar dabilenean, begizkoa jaurtitzen duenik?* (Orixe).
- b) Perpaus osagarriak ondotik *besterik* murrizgarria daramanean: *Gudariak ikusi zituztenean, Mateori bera lotzera zetozela besterik etzitzai bururatu lenbizi* (Etxaniz).
- c) *-(e)la* hartuko du mendeko aditzak predikatu nagusia konplexua denean ere; hau da, osagarria gobernatzen duen perpausa, aldi berean, beste perpaus nagusi baten mendeko denean: *Getxok irabaziko zuela uste ez bazenuen, zergatik egin zenuen apustu haren alde?* (baina, *ez nuen uste Getxok irabaziko zuenik*); *Getxok irabaziko zuela uste ez zutenek asmatu zuten*.

**30.6.2.3d** Adibide horiek guztiak ikusita, galdegin behar da zerk agintzen duen predikatu eta egitura bakoitzaren jokabidea den bezalakoa izatea. Badi-rudi ezetzaren esparrua dela hemen joan dagoen auzia; ezetza zeri dagokion, alegia. Horrela, *-(e)nik* daramaten perpausak ezetzaren esparruaren barruan

daudela dirudi; eta *-(e)la* dutenak, berriz, ez. Agerikoa da hori normalean *-(e)nik* eskatzen duten *uste izan, iritzi, iruditu, pentsatu* eta horrelako predikatuak dituzten perpausetan. Horietan, ezetza mendeko aditzari dagokiola esan daiteke eta honen aurrean zuen kokagunetik igo dela adizki nagusiaren aurrea: [*uste ez -(e)la*] → *ez* [*uste -(e)nik*]. Hortaz, esanahi bera dute *ez dut uste etorriko denik* eta *uste dut ez dela etorriko* perpausak; errankideak dira. Eta berdin *ez dirudi diru asko duenik* eta *diru asko ez duela dirudi*.

Bestelako predikatuekin ez da hala gertatzen: *ez du esan etorriko denik* eta *esan du ez dela etorriko* bi gauza dira. Hor ez da gertatu ezetzaren igoerarik eta, beraz, ez dago errankidetasunik. Edozein modutan, horietan ere, *-(e)nik* perpausa ezetzaren esparruan dagoela esan daiteke. Adibide pare honek lagunduko digu esan nahi duguna hobeto azaltzen: *Ez dute esan Mikel etortzekoa denik; Ez dute esan Mikel etortzekoa dela. Mikel etortzekoa da* proposizioa ezetzaren esparruan dago lehen adibidean eta hartatik kanpo, ostera, bigarrean. Bigarren perpausan ezetza *esan* predikatuari baizik ez dagokio. Honako hau izango litzateke, hurrenez hurren, goiko bi adibide horien eskema: <sub>ez</sub>[*esan proposizioa*] / Proposizioa <sub>ez</sub> [*esan*].

Hori horrela dela frogatzeko, nahikoa da perpaus horietan ezezko polaritatea duten *ezer, inor, inoiz, behin ere* eta horrelako elementuek (§ 13.10.7.6a) nolako jokabidea duten aztertzea. Lehen adibidearen osagarrian sar daitezke horrelakoak, ezezkoaren barruan baitago. Bigarrean, berriz, ez: *Ez dute esan inor etortzekoa denik* / \**Ez dute esan inor etortzekoa dela; Ez dute esan ezer galdu dutenik* / \**Ez dute esan ezer galdu dutela; Ez dugu entzun horrelako mirariak behin ere gertatu direnik* / \**Ez dugu entzun horrelako mirariak behin ere gertatu direla*.

#### 30.6.2.4. *-(e)n* menderagailua duten adierazpen perpaus osagarri jokatuak

**30.6.2.4a** Euskalki batzuetan *-(e)n* menderagailua agertzen da *uste izan, beldur izan* edo *badaiteke* bezalako predikatuak gobernatzaile dituzten adieraz-

pen perpaus osagarrietan. Ekialdekoak dira, askotan, horrelako egiturak: *Uste dut gure aldekoa den; Ez dut uste baden inor hori egingo duenik; Nik uste gibelesko atetik joana den* (azken adibide honetan *uste* bakarrik ageri da eta *izan* aditza isilpean geratu da). *Ustez (eta)* ere izan daiteke predikatu gobernatzaile: *Ustez eta toki bat badaukan han, heientzat, beren kabañoak eskuan, irri batean heldu zaizko* (Barbier). Ez dira falta, hala ere, *ustez eta* gobernatzaile izanik *-(e)la* osagarria duten adibideak: *Ustez eta hiltzerat zoala* (Larzabal); *Ustez eta frantsesezko mintzairan bezala eginez, ederkiago mintzo direla eskuaraz* (Lafitte). Iparraldekoak dira ondoko hauek ere: *Badut beldurra giroa oraino okertuko den; Ez ninduten hek aditu: aditu banindute ere, baditake lokartuko ziren berdin* (J. Etxepare).

*Eskerrak* gobernatzaileak *-(e)la* menderagailuko osagarriak izaten ditu gehienetan idatzian: *Eskerrak etxean behintzat ez zela besterik egiten* (Mitxelena); *Eskerrak bizi honen ondotik hor daukagula bestea* (Xalbador). Baina ahozko mintzairan *-(e)n* menderagailua hartzen du maiz, Hegoaldeko euskalkietan ere; idatzian ere hedatzen ari da jokabide hau: *Eskerrak halako batean lo hartu duen!* (Goenkale); *Eskerrak Isidroren semea naizen —hots egin zuen Adriane!* (Atxaga). Joko bera du batez Iparraldekoa den *beharrrik* gobernatzaileak: *Beharrrik joan baino lehen dena erre dugula!* (R. Etxeberri); *Beharrrik etorri zaren, bestenaz itoko nintzen. Damurik* gobernatzaile duen osagarriak berriz, *-(e)la* nahiz *bait-* menderagailuak har ditzake, edo menderagailurik gabe joan: *Damurik ez direla gaueko argiak oihal busti batzuek bezala!* (Hiribarren); *Damurik, Edurne ez zen bakarrik heldu* (Epaltza); *Damurik ez dudan eskura, Probentza aldeko amodio balada zahar edo galaiko portugaldarrik* (Perurena).

**30.6.2.4b** *-(e)n* menderagailua daramaten adierazpen perpaus osagarri batzuek perpausaren buruan elementu iragarle izateko funtzioa duen galde hitz bat daramate: *nola/zelan* edo *horra non...* moduko esapideak. Honako adibide hauetan *nola* edo *zelan* ez dira egiazko galde hitzak, menderakuntza barneko lokailuak dira: *Britainia aldeko folkloreak kontatzen du nola Eguberri inguruko egunotan ateratzen den txantxangorria, urki-txotx bat hartuta* (P. Zabala); *Beste batzuek gogoratzen dute nola Nafarroako erreinuak galdu zuen or-*

*duan bere independentzia* (Xarriton); *Ez zen batere atsegina ikustea nola bere eskoletan beti Nevilleren kontra jarduten zuen* (I. Mendiguren); *Entzun duzu zelan esan duten Peter Pan ez dagoela etxean?* (Gabiria).

Kontakizunetan-eta erabiltzen da maiz egitura hori, *esan*, *kontatu*, *entzun* eta horrelako gobernatzaileekin. Baina baita *ikusi*, *gogoratu*, *jakin* eta “ezagutza” adierazten duten gobernatzaileekin ere. Horrelako adibide ugari aurkituko dugu bai tradizioan eta bai gaur egun ere; baina horren lekuan inoiz entzun edo irakurtzen den *nola ...-(e)la* egiturak ez dirudi aski den adinako onarpena duenik: *?Entzun duzu nola, baserria erre zenean, herriko gazteek jaialdi handi bat antolatu zutela haren alde dirua biltzeko?*

Aurreko horien antzekoak dira *non* ‘iragarlearekin’ (aurkezle baliokoarekin) esaten diren adierazpenak ere, elementu aurkezle bat eta *non* esapidea gobernatzaile dutenak —*hona, horra, hara, begira ... non*—: *Horra bada non, duela lau egun, grina handi batek hartua nagoen* (Jon Muñoz); *Eta bataioa baino lehenago, hara non heldu zen etxera abadea aitaren gutun batekin* (Sarrionandia); *Ikusleen kontzientzia lozorrotuarekin hasi, eta begira non bukatu dugun* (Linazasoro). Beste galde hitz batzuk ere erabil daitezke: *Begira nondik nora h nazkagarri honek baduen zenbait indar* (Mitzelena).

Beste adibide hauetan, berriz, egiazko modu adberbio balioa du *nolak* eta, beraz, zehar-galderak dira mendeko perpausak (ez adierazpenezkoak): *Ez dut gogoratzen nola zuen izena hirugarrenak* (Hernandez Abaitua); *Ez dut gogoratzen nola etorri naizen* (M. Etxebarria). Dena den, ez da beti hain erraza garbi bereiztea noiz den zehar-galdera eta noiz adierazpen perpaus: *Ikusiko duzu nola etorriko den Mikel goizeko ordubietan*. Perpaus hau bi eratara uler daiteke: zehar-galderatzat har daiteke (‘ikusiko duzu nolako itxurarekin etorriko den’), baina baita adierazpenezkotzat ere (‘ikusiko duzu, etorriko da, bai’). Ahozkoan intonazioa izaten da bi irakurketen arteko bereizgarri. Adierazpenezkoetan eten labur bat egin daiteke elementu iragarlearen ondoan, hau aditzetik bereiziz eta “galdegaia” beste bat dela adieraziz. Horretaz gain, bai ahozkoan eta bai idatzian, adierazpenezkoetan aditza elementu iragarletik urrundurik ere eman daiteke, zehar-galderetan baino errazago. Egitura hori dute goraxeago eman ditugun adibide batek baino gehiagok. Horrelakoak dira beste hauek ere: *Ikusiko duzu nola*

*Mikel ordubietan etorriko den; Ikusiko duzu nola Mireni dirua ekartzea ahaztuko zaion; Hona non denak elkarrekin abiatu ziren.* Eta, azkenik, galdegai gu-neko *ba-* baiezkoa ere eraman dezakete adierazpenekoek, adizkia sintetikoa denean, zehar-galderek ez bezala: *Horra non Mikelek baduen autoa erosteko adina diru / \*Ez dakit non baduen Mikelek dirua.*

### 30.6.2.5. *Bait-* menderagailua duten adierazpen perpaus osagarri jokatuak

**30.6.2.5a** Iparraldeko euskaran, perpaus osagarriak gertakari edo egoera bat adierazten duenean, *bait-* ere erabili izan da menderagailu gisa. *Gertatu, heldu, gutitarik egin*, horrelakoak dira, *bait-* menderagailua onartzen dutenak: *Gertatzen da enplegatzen baitira bitartekoak ongien egiteko* (Axular); *Egia soberatua! ene semea* [ateratzaileek erro nagusia dainatzen dutela]; *eta hortarik heldu da landare hainitz hiltzen baita* (Duvoisin); *Gutitarik egin omen du ez baita deus erori* (Hiriart-Urruti).

Gertakari edo egoera baten aurreko jarrera subjektiboa adierazten duten aditzek edo lokuzioek ere gobernatzen dituzte *bait-* perpaus osagarriak: *domaia izan, harrigarri izan, handi izan, bizi izan*, eta abarrek. *Domaia da zonbait pilota galdu baitute bi gazte bipil hauek* (Herria); *Harrigarria da ez baituzu holakorik sekula ikusi; Handia da ez baita eskolarat agertu* (Lafitte). Baina gobernatzailea *esan, uste izan* edo *egia izan* bezalako predikatua bada, ezinezkoa da *bait-* horrela erabiltzea: *\*uste dut / esan didate / egia da* [bakarrik etorriko baita].

**30.6.2.5b** Batzuetan *bait-* perpausa aurretik agertzen den aurrekari batekin erabili da: *Hunek ninduen errabiarazten, den gauzarik argiena ukatuko baitzautzun* (Lafitte). Adibide horretan, kataforikoa da *hunek* erakuslea; ondotik datorren *bait-* perpausak ematen dio bere esanahia *(-e)la* perpausetan ager daitezke horrelako aurrekariak § 30.6.2.1i). *Bait-* perpausaren erabilera hori aurkituko dugu, halaber, zenbait esapidetan —*damurik, beharrik...*— hiztunak damua, poza edo haserrea adierazten duenean: *Eta, damurik ez baitiote*



*beste hoinbeste eginen zure ilobari eta Olhaibiri, beste bi kontseilari usteleri!* (Larzabal); *Damurik, hola konkortua baitzira* (Lafitte); *Beharrik han bainuen ama* (J. Etxepare).

### 30.6.2.6. *-(e)larekin edo beste menderagailu batekin egin daitezkeen adierazpen perpau osagarri jokatuak*

**30.6.2.6a** Adierazpen perpau osagarri jokatuak aztertzean ikusi dugu euskalki batzuek *-(e)la* menderagailua baliatzen dutenean, beste euskalki batzuek *-(e)na* darabiltela (§ 30.6.2.2) edo *-(e)nik* (§ 30.6.2.3). Bitasun bera gertatzen da *-(e)la* eta *-(e)n* menderagailuekin ere goraxeago ikusi bezala: *uste izan* predikatua, esate baterako, *-(e)la* osagarria hartzen du mendebaldean eta *-(e)n*, zenbaitetan, ekialdean. *Eskerrak* predikatua ere *-(e)la* zein *-(e)n* goberna ditzake (§ 30.6.2.4a). *Damurik* adizlagunaren osagarria ere *-(e)la* edo *bait-* menderagailuekin nahiz menderagailurik gabe joan daiteke (§ 30.6.2.4a, § 30.6.2.5): *Damurik ez da zilegi* (Monho).

**30.6.2.6b** *Beldur izan* predikatua ere *-(e)la* zein *-(e)n* osagarriekin ager daiteke: *Beldur izatekoa da horien azken ordua zaila izango dela* (J. M. Lekuona); *Beldur nauk [...] Jainkoa galduko dudan* (Gazteluzar). Nola ulertu behar da, ordea, azken adibide hau? Pentsa daiteke *beldur izan* predikatua hor zehar-galdera gobernatzen duela. Izan ere maiz agertzen dira zehar-galderak *beldur izan* predikatuarekin, *ote* partikulak lagundurik: *Beldur izatekoa da ez ote duen jakinen orain arte jokatu duen paper horretatik urrutiratzen* (Berria).

Azken batean, predikatu jakin batek ez bakarrik goberna ditzake menderagailu mota bat edo bestea hartzen duten adierazpen perpau osagarri jokatuak. Baita, hemendik aurrera ikusiko dugun bezala, adierazpen perpau osagarri jokatuak ere, edo beste mota bateko osagarriak (horiek ere jokatuak zein jokatuak): *-(e)la / -tzea + erabaki* (*trenez joango dela / trenez joatea erabaki du*); *-(e)la / subjuntiboa / -tzeke + esan* (*postrea nik eramango dudala / postrea eraman dezala / eramateko esan diot*); *-(e)la / -tzen / partizipio burutua + jakin* (*badaki ez dela garaiz iritsiko / garaiz iristen / nola iritsi*). Jakina,

‘osagarri-gobernatzaile’ egitura bakoitzak izango ditu bere adiera eta ñabar-dura semantikoak.

### 30.6.3. Aditzaren mendeko adierazpen perpaus osagarri jokatugabeak

Ondoren aztertuko ditugun perpaus osagarri jokatugabe gehienek *-tze* atzizkia oinarri duen formaren bat hartzen dute: *-tzea*, *-tzerik*, *-tzeaz*, *-tzetik*, *-tzearekin*, *-tzen*, *-tzera*... Baina, aurrekoen maiztasunik izan ez arren, badira partizipio burutua oinarri duten osagarri jokatugabeak ere: *-tua*, *-tuaz*, *-tu izana(z)*, *-tuarekin*... Azken hauen adibide dira: *Gero zuzendariak halako pre-sa izatea ez zetorren bat bilera atzeratu izanarekin*; *Gaixorik egon (izan)ak dakar ondorio hori*; *Damu du horrenbeste denbora galdu (izan)a*; *Damu da horrenbeste denbora galdu (izan)az*.

Aldi berean, beste bi sailetan bana daitezke *-tze* oinarri duten osagarri jokatu-gabeak. Batetik, *-tzea* forma mugatzaileduna oinarri dutenak (*-tzea*, eta dago-kion partitibodun *-tzerik*, *-tzeak*, *-tzeaz*, *-tzearekin* eta abar). Bestetik, artikulurik gabeak, *-tzen* eta *-tzera*. Banan-banan aztertuko ditugu ondoren horiek guztiak.

#### 30.6.3.1. *-tze(a)* eta *-tzerik* perpaus osagarriak

##### 30.6.3.1.1. *-tzea* perpaus osagarriak

**30.6.3.1.1a** Formari dagokionez, hemen aztergai dugun *-tze* atzizkia aditz izenei dagokiena da, baina bada beste egitura bat forma bereko *-t(z)e* atzizkiaz baliatzen dena (§ 25.3): *literatura ikusgarriro loratzea / literaturaren loratze ikusgarria*. Bi adibide horietako lehenak darama aditz izena eta aditz joskera (§ 11.5c); bigarrenak, ostera, *-tze* atzizkidun izena eta izen sintagmaren joskera (izenlaguna + izena + adjektiboa). Bigarren adibideko *loratze*, *loraldi* izenaren sinonimotzat har daiteke erraz asko.

Dena den, *-tze* perpausek har ditzakete izenen zenbait ezaugarri. Batik bat, *-(r)en* genitiboa ager daiteke aditz izenarekin ere, batez ere Iparraldeko erabileran: *Zer da bekhatuen kofesatzea, zauriaren edo handitsuaren lehertzea baizen? Eta zer egiten dugu bekhatuaren kofesatzeaz, barrenean estalirik zegoen gaitzaren, eta eritasunaren agertzea baizen?* (Axular). Axularren adibide horietako genitiboak —*konfesatze, lehertze* eta *agertze*— aditz izenen objektuei dagozkie.

Beste adibide hauetan, ostera, subjektutzat hartu beharko genituzke, hurrenez hurren, *Jakesen* eta *kukuen* genitiboak: *Jakesen berriz etortzeak ditu denak nahasi* (Dirassar); *Kukuen kantatzean, euri eta eguzki*. Subjektu intrantsitiboa genitiboan emanik duten adibide gehiago aurki daitezke Padillaren (2013) lanean, guztiak ere Iparraldeko testu zaharretakoak.

Iparraldeko genitiboak ez du eragozten aditz izenaren perpaustasuna gainerako osagaiek (*berriz* aipatu berri dugun adibidean, esaterako) erakusten duten bezala. Dena den adibide horiek bi irakurketa onartzen dituzte: *kukuen* [kantatze] / [kukuen kantatze]; *Jakesen* [berriz etortze] / [Jakesen berriz etortze]. Bi aukera hauetatik lehenean, *-tze* perpausetik kanpo geratzen da genitiboa; bigarrenean, aldiz, *-tze* perpausaren barruan. Genitiboa gehienetan *-tze* perpausaren hasieran ageri da, horregatik dago aukera bi irakurketak egiteko. Inoiz behin, hala ere, *-tze* perpausaren barruan ikus dezakegu subjektuari dagokion genitiboa testu zaharretan: *Madama, hori duçula / ene ocasionia / eta Angletarretic houna / ene jiteco eguitekoua*. (Jean de Paris, 263). Adibide horretan “Ingalaterratik hona ni / nire jite” dugu, *ni / nire* galdegaiari dagokion aditzaren ezkerreko posizioan ageri dela.

Genitiboaz gain izen sintagmen beste ezaugarri batzuk hartzeko aukera ere badute *-tze* perpausek, singularreko erakusleak bereziki: *Ez zaik iruditzen berorika hitz egite hori... gu bezalako bi libertariorentzat...* (I. Mujika); *Ezkondu arte, dena pekatu bai zan, izkutuka ibiltze arek, neurriak galdu ezta ere, ba'zuan bere xaltxa* (Etxaniz); *Bada ala zuk eta nik ere, denboraren galtze hunetzaz, probetxu gabe iragaitera uzteaz, kontu hertsia eman beharko baitiogu Iainkoari* (Axular). Izenlaguna eta erakuslea ere har ditzake: *Horra zure bekatua: betiko sobera berant ibiltze hori, hain justu* (Montoia); *Zer ez dio erranen haren bihotzari*

*zuen ixilik egote horrek* (J. P. Arbelbide). Askoz zailagoa da zenbatzaileak, pluralak edo adjektiboak agertzea (alde batera uzten badugu kuantifikazioarekin loturiko *huts*): *Itxaropena galtze bat, noski* (Villasante); *Begira, zure alaba orri utzi ote diotzkatzun onestidadeaz kanpora diran apaindurak, ezkutariakin ego-teak, suerte on bat izan dezan* (Agirre Asteasukoa); *Zeren aieru hek, itzal gaizka ibiltze hek, baitira frogantzarik asko, gogan behar arazitzeko* (Axular); *Gogorrena: beti arineketan eta presaka ibiltze itogarria* (Montoia); *Ta au zure lanak Jaunari, Jaun beraren onra, ta gloriarako, Jesu-Kristoren merezimentuakin batean eskeintze utsarekin* (Agirre Asteasukoa).

Izen-joskera hau badagokie *-tzea* oinarri duten gainerakoei ere (*-tzeak*, *-tzeari*, *-tzeaz*...); baina ez forma finkoa duten *-tzen*, *-tzera* eta *-tzeko* osagarriei.

**30.6.3.1.1b** *-tzea* perpausak dira perpaus osagarri jokatu gabeen artetik erabilienak, batez ere *-tzea* horri atzizkiren bat gehituz eratzen direnekin alderaturik. Ez da harritzekoa, azken batean, ia perpaus guztietan ageri baita absolutiboa, eta *zer* edo *nor* sintagmaren lekua hartzen baitu *-tzea* perpausak. Gainera, *-tzea* absolutiboa da baliokide jokatuak dituen bakarra: *-(e)la nahiz bait-* adierazpen perpaus osagarriak eta subjuntibozkoak (*-tzekok* ere baditu baliokide subjuntibozkoak, aurrerago ikusiko dugun bezala, § 30.7.2.1). Nolanahi ere, hemen bereziki adierazpen perpaus osagarrien balioko *-tzea* aztertuko dugu eta bere lekuan ondoan subjuntiboko osagarri jokatu duena (§ 30.7.2.2).

Zenbait testuingurutan *-tzea* perpausa beste perpaus osagarri jokatu gabe batzuekin konbina daiteke: *Arma-saltzaile izatea ez da ongi ezkontzen bakezale izatearekin*; *Oraingo gudu hau galtzeak, nik uste, gerra galtzea ekarriko luke*; *Damu izatea ez duzu aski egindako okerrak ahazteko*. Bi *-tzea* perpaus ere konbina daitezke, batek predikatu osagarriaren lekua harturik: *Isilik geratzea, batzuetan, ozen mintzatzea izan daiteke*. *-tzea* bakarra dugunean, askotan predikatu osagarriarena da testuingururik emankorrenetakoa: *Arrosak ureztatzea izan zen egin zuen azkeneko gaua*.

**30.6.3.1.1c** Predikatu gobernatzaileak eta kontrola. Oro har, adierazpen perpausak gobernatzen dituzten predikatuak aurkituko ditugu hemen ere. Predi-

katu horietatik batzuek ez dute kontrolik ezartzen: *adostu, akordatu/hitzartu, alboratu/baztertu, alegatu, amestu, arbuiatu, atzeratu/gibelatu, aukeratu/hautatu, barkatu (du/dio), deitoratu, deliberatu, eskertu, espero izan, ezkondu/uztatu, helburu/jomuga/xede izan, kostatu, lortu, lotsatu, saihestu, salatu, zerikusia izan, ikustekorik ez izan, ziurtatu/bermatu...*

Hona adibide batzuk: *Aski da giltzari eragin eta azeleragailua zanpatzea* (K. Zabala); *Gutxi da berorren panpinari pilotakada bat jotzea* (Biguri); *Joanikotekin hitzartua nuen tratuaren betetzea eta haren aitzinatzea* (Irigoién); *Arauek ekonomian hain garrantzitsua den bateratasuna eta trukagarritasuna lortzea dute helburu* (Heras); *Azkenean lortu nuen hitza kentzea* (Saizarbitoria); *Han posta-zerbitzua ona izatea espero dut* (Olano).

Predikatu hauetatik batek baino gehiagok osagarriak adierazten duen ekintza edo gertaeraren *aurretiko* interpretazioa onartzen dute. Hortaz, *-tzea* osagarriaren ordeaz, partizipio burutua *-tua / -tu izana* ere erraz aurki dezakegu (§ 25.2.4b). Horrelakoak dira *axola izan (zaió), damutu (zaió), deitoratu, eskertu, gaitzetsi, goraipatu/laudatu/goretsi, alegatu, atsekabe izan (zaió), ontzat/bidezkotzat jo* eta abar. Predikatu horietako batzuek hiztunaren iritzijarrera edo gogo-jarrera adierazi arren, *aurretiko* interpretazio horrek ezinezko egiten du ondoan subjuntiboko osagarri jokatuia izatea, subjuntiboak berez burutu gabeko gertaera adierazten baitu.

Beste predikatu gobernatzaille hauek, ostera, kontrola behartzen dute. Honako hauek dira aurki ditzakegun aukerak:

ERABAKI, ebatzi, pentsatu, baztertu (= ez egitea erabaki)

Kontrola subjektuak

*Erabaki* predikatuaren adiera arruntak (subjektu adimenduna eskatzen duenak)<sup>1</sup> nahitaez agintzen du kontrolatua izatea osagarriaren subjektua; alegia,

<sup>1</sup> Ez *Hautespen naturalak erabakitzen du bakoitza modu batekoa edo bestekoa izatea* mota-ko perpausetan ageri den *erabaki* predikatuaren erabilera.

osagarriak adierazten duen gertakariaren subjektua erabakitzailea bera izatea: *Lana uztea erabaki dut* [nik erabaki, nik/\*zuk/\*hark utzi].

AHANTZI/AHAZTU *du/zaio*

Kontrola subjektuak / kontrola datiboak

Mota honetakoak dira ondorengo adibideak: *Ahantzi/ahaztu du botila ixtea; Ahantzi/ahaztu zaio agiria ekartzea*. Predikatu horrek *-tzea* perpausekin antolatzen duen esaldia honela parafrasea daiteke: ‘zerbait egin behar zuen, eta ez du egin’.

Joko bera dute beste hauek ere, hau da, datiboaren edo subjektuaren kontrola: *erraz/zail(a) izan, (begitandu) zai/du. Zaila begitandu zaio minik hartu gabe jauzi egitea* (P. Lizarralde); *Askoz errazago izango du olibondotik sortutakoak beren berezko olibondoan txertatzea* (Elizen arteko Biblia). Baita oroitu, *gogoratu* ere: *Halako batean gogoratu zaio lan horri ekitea*.

DAMUTU *zaio, damu izan*

Kontrola datiboak / kontrola subjektuak

Aurreko egituraren eskema semantiko bera dugu: ‘zerbait egin du, eta ez egitea hobe zuela deritzo’. Baina, kasu honetan, osagarriaren zentzua atzera begirakoa da. Dena delakoa gertatu ondorengoa da damua; *gero* datorren zerbait. Horregatik, testuinguru egokia da aldaera burutua agertzeko: *Damutuko zaio hain joko zikina erabiltzea/erabilia; Damu dut orain orduan gehiago saiatu ez izana*.

BARKATU *du/dio*

Kontrolik ez / kontrola datiboak

Predikatu honekin ere, osagarriak adierazten duen gertakaria aurretikotzat irudikatzen da, eta horregatik da testuinguru egokia aldaera burutuarentzat:

*Barkatuko ahal didazu hain berandu agertzea / agertu izana. Datiboa agertzen bada, kontrola ezartzen du, eta hori da ohikoena. Bestela ez, halako adierazpen generiko bat-edo egiten baita: Inork ez luke barkatuko berarekin horrela portatzea.*

AURPEGIRATU/LEPORATU *dio*

Kontrola datiboak

Beste molde honetan *dio* motako laguntzailea hartzen duten predikatuak ditugu. ‘Zerbaiten erantzukizuna egotzi norbaiti, erantzukizuna norbait horri aurpegira/lepora bota’ adierako predikatu horiek datiboaren kontrola ezartzen dute. *Merkatu beltzean trukean ibiltzea leporatu zioten* (Urrutikoetxea).

BALITEKE, litekeena da

Kontrolik ez

Forma finko horiek *izan / gerta liteke(ena da)* balioko predikatuak dira, *-tzea* perpausak gobernatzen dituztenak. Balio modala dute halako esaldiek: *Litekeena da / baliteke ekitaldia gehiago luzatzea*. Horren baliokideak dira beste esaldi hauek ere: *Ekitaldia gehiago luza daiteke (beharbada); Beharbada, gehiago luzatuko da ekitaldia*.

### 30.6.3.1.2. *Ezin izan + -tzea (ezin egin izatea)*

Hori da *-tzea* perpausekin ezintasuna adierazteko tradizioko moldea: *ezin + dagokion aditzaren partizipio burutua + izatea*. *Baina gainera beste gauza hura ere bazegoen —hari egia ezin esan izatea* (An. Garikano); *Zer daki zer den [...] sei hilabetez senidea ezin ikusi izatea* (Urain). Azken urteetan ordea, beste molde bat nagusitu da: *Ezin + -tzea*. *Lasaigarri bakarra dauka: aitak ezin ikustea egoera honetan* (Urrutikoetxea); *Hark kanpotik ezin ikustea neure baitan zer nolako aldaketak gertatzen ari diren* (Zubizarreta); *Orduan herio-*

*tza zen zu protagonista bihurtzea eta jendeak zutaz gauza txarrak ezin esatea (Urrutikoetxea); Zorigaitz osoa eta perfektua, ordea, ez da besterik, Jainkoa ezin ikustea, ezin maitatzea eta ezin gozatzea baizik, sentsuen betiko gaztigua pairatuz beste gaitz mota guztiekin (Azpilkueta eta Xarriton); Askotan gertatzen zitzaion zerbait kontatu beharra zuenean nondik hasi ezin asmatzea (Saizarbitoria).*

### 30.6.3.1.3. -tzerik perpaus osagarriak

Gorago (§ 30.6.2.3) *-(e)la/-(e)nik* perpaus osagarri jokatuaren arteko bereizkuntzaz esan duguna errepika dezakegu hemen ere *-tzea/-tzerik* banaketaz (hau da, *-tze* + artikulua / *-tze* + partitiboa). Laburbilduz:

- a) Predikatu gobernatzaile askok ez dute aukerarik ematen *-tzerik* perpausik hartzeko. Besteak beste, erreakzio, jarrera zein iritziak adierazten dituzten predikatuak, gertakari espezifiko bati erantzuten dioten neurrian, ez dira ondo ezkontzen partitiboak duen zentzu inespezifikoarekin.
- b) Aukera hori baduten predikatuarekin, Hegoaldekoa baino ez da partitiboaren erabilera (eta Hegoaldean ere, orain dela bi mendetik honakoa).
- c) Ezezko perpausak gobernatutako osagarriari bakarrik dagokie partitibozko aldaera.
- d) Partitiboa ezin da erabili osagarriak adierazten duen gertakaria gauzatutzat edo baieztatutzat jotzen denean; halakoetan, ezezko perpausak adierazten duen ukapenak ez dio-eta eragiten osagarriari.

Forma baten eta bestearen ordainari erreparatzen badiogu, *hori* espezifiko da *-tzea* perpausari dagokiona. *Halakorik* inespezifiko, oster, *-tzerik* perpausarena. *Ez zaiio damutu/ahantziliruditu hori/\*halakorik; Nik ez dut erabaki/espero hori/halakorik; Era berean, zeruko zuen Aitak ez du nahi txiki hauetako inor galtzerik (Elizen arteko Biblia); Ez nuke inolaz ere hitanozkoa galtzerik nahi: are gutiago, halaz guztiz, hitanozkoa ez dena (Mitxelena); Dama atsegina konturatu zen oraindik ez zuela lortu inolako xehetasunik*



*jakiterik bere adiskide minak eginiko aurkikuntzaz* (Morales); *Ahotsa apaldu eta misterioz hitz egiten zuen, beste inork entzuterik nahi ez zukeen sekreturen bat esaten ari balitzaigu bezala* (Aldasoro). Baina osagarriaren proposizioa ukapenetik kanpo geratzen denean, ez dago aukerarik *-tzerik* erabiltzeko: *Ez nuen espero zuek etortzea / #etortzerik* [etorri zineten, eta nik ez nuen hori espero].

Maiztasun handikoa da *-tzerik* honako esamolde hauetan: *ez + izan/egon/ukan/eduki + -tzerik* (*ez dago esaterik, ez dago jakiterik, ez dago sinisterik...*). *Sentitzen zuela etortzerik ez izatea* (Olarra); *Ez zegoela sinisterik baina fardelez erratu zela* (Landa); *Hiru ezteneko koilarea jarri diote, etzaterik izan ez dezan* (An. Garikano); *Ahotsa kenduta baitzegoen, ez zuten telefonozko elkarrizketa entzuterik izan* (Cano).

*-tzerik* perpausak, batez ere aipatu berri dugun esamoldeetan agertzen denak, har dezake beste perpaus osagarri bat. Adierazpen perpausa denean, *-la/-nik* jokia aurkituko dugu berriro ere: *Beraz, ez zegoen esaterik emakume hura gezurretan ari zenik* (Saizarbitoria); *Ez zegoen ukatzerik postalaren testua dotorea zela, ez zuela hitz bat gehitzea ametitzen* (Saizarbitoria); *Arlo batzuetan arazo larriak dituztela ukatzerik ez dagoen arren* (Olarra).

### 30.6.3.2. [-tzea + atzikia] perpaus osagarriak

#### 30.6.3.2.1. Sarrera

Ondoren ikusiko ditugun *-tzen*, *-tzera* edo *-tzeke* perpaus osagarriak ez bezala (mugatzailerik gabeko forma finkoak baitira), hemen aztertuko ditugunak determinatzailedunak dira: *-tzetik* (azalean mugatzailerik ez duena, *etxetik* postposizio sintagman bezalaxe), *-tzean*, *-tzearekin/-tzeagaz*, *-tzeaz*, *-tzeari*, *-tzeak*.

Joskerari dagokionez, bi ezaugarrik bereizten ditu determinatzailedun perpausok determinatzaile gabekoetatik: a) badute nolabaiteko izen-joskera aldagarria, oso murrizta izanik ere: *isilik egote (temati) hori*; aurreko puntuan jar-

dun dugu horretaz (bai eta beste berezitasun aipagarri batzuek ere, hala nola perpaus jokatuak erlazioaz edo *-tzerik* aldaeraz); eta b) badute aditz izenezkoaren aldaera burutu markatu bat, partizipiozkoa: *isilik egon izana [egona]*, aurrerago aztertuko duguna (§ 30.6.3.6).

Dagokion postposizio sintagma hartzen duen lekuaren parekoa beteko du sintaxian ondoren aztertuko dugun perpaus jokatuak horietako bakoitzak. Horregatik ez dira berdinak testuinguru semantikoak eta, neurri batean, predikatu gobernatzaileak. Hau da, *etorri* edo *erori* predikatuek onartzen dute *nondik* postposizio sintagma, baina ez *aberastu* aditzak; molde berean *-TZETIK ETORRI/ERORI*, baina + *-TZETIK ABERASTU*: *etxetik etorri / zaldi gainetik erori / \*etxetik aberastu; laguna bisitatzetik etorri / \*erori / \*aberastu*.

#### 30.6.3.2.2. *-tzetik* perpaus osagarriak (eta *-tzetik -tzera*)

Halako perpausok adierazten duten nozioa, leku edo denborazko kokapen bat izan beharrean (*nondik/noiztik*), gertakari bat da (*zertatik*): *Kalte handiak ohi datoz diru-jokotik / Kalte handiak etorri zaizkio dirua jokatzetik*.

**30.6.3.2.2a** Predikatu gobernatzaileak, jatorriaren nozio horrekin loturikoak izan ohi dira. Zehazki, ‘kausazko zentzua’ dute honako predikatu hauek: *deduzitu, eratorri, etekina/fruitua/zukua atera, etorri, heldu, lortu, ondorioztatu, (ondorioa) atera, pasatu, segitu, sortu...* *Jokozaletasunetik, azkenean, hondamendia etorri zaio; Eta abstinentziaz, neurri bizitzetik, sabel-ederretako izaitetik, eta pairatzetik heldu da debozionea eta saindutasuna* (Axular).

Predikatu gobernatzailearen subjektua gertakari bat ere izan daiteke, eta, beraz, beste osagarri bat aurkitu dezakegu subjektu funtzioan: *Pokerrean zaleztetik, azkenean, diru guztia galtzea etorri zaio*. Adibide honetan ikus dezakegun kausa-ondorio erlazio bertsua aurkitu dezakegu beste esamolde batzuetan ere: *Norbaitek orain zauden atakatik ateratzetik pasatzen da zure etorkizuna. Pasatu* gobernatzaile duen adibide honetan iradokitzen da ataka horretatik ez

ateratzeak etorkizuna zailtzea izango lukeela ondorio. Aurreko adibidean, os-tera, ‘pokerrean zaletzeak’ izan du ondorio subjektuak adierazten duena, ‘diru guztia galtzea’, alegia.

Subjektua ondoriotzat hartzerik ez badago, berriz, kausarekin zerikusirik ez duen *zertatik* adiera izango dugu, nahiz predikatua aurrekoen berdina izan; esaterako, *etorri* adibide honetan: *Hortxe dator osaba haurrak eskolara eramatik.*

**30.6.3.2.2b** Badira beste predikatu batzuk kausazko zentzua onartzen ez dutenak: *abiatu, alboratu, aldaratu, aldendu, askatu, atzeratu/gibelatu, babestu, begiratu, desbideratu, desenkusatu, gerizatu, gorde, ihes egin, itzuli, libratu, libre izan/egon, salbatu, salbuetsi, urrundu (urrun egon)*. Mota horretako predikatuak ditugu ondorengo adibideetan: *Amaia bisitatzetik itzuli zenean, triste ageri zen; Libra gaitzela gerrara eta are soldaduskara joatetik; Bosgarrena: etzabiltzala Jainkoaren itza enzutetik, errosario, bezpera, ta Sakramentuetatik igesi (Agirre Asteasukoa); Inoren bejaren, idijaren edo artuaren desiuari bijotzian leku emon deusana ez dago urrin, era seguruba ta ixilla eduki ezkerro, ardija edo bildotsa, idija edo astua ostuteti (Frai Bartolome); Uste badu gaitz hori saihets dezakeela hausnartzen zuen kaltea ez eginez gorroto duenari, orduan, kalte egitetik begiratu nahiko du (Xarriton); Finean, gero..., salbuetsiko nauzu gainerakoa erratetik; baina atsekabetan nago nehor egon litekeen bezainbat (Jon Muñoz).*

**30.6.3.2.2c** Bai kausa kutsuko osagarrien eta bai bestelakoen predikatu gobernatzaileetatik askok *da* zein *du* jokoa onartzen dute: *atera, babestu, libratu, salbatu... Etekin handia ateratzen dute zakarrontzietako gauzak birziklatzetik; Horrek ez zaitu babestuko jendeak zutaz susmo txarra egitetik.*

**30.6.3.2.2d** Erreferentziakidetasun jokoei dagokienez, *-tzetik* perpau gehienak ez dira kontrolatuak; adibideak ikustea baino ez dago. Ohikoena, jokatu gabe guztietan bezala, erreferentziakidetasunen bat gertatzea da, baina ez, oro har, kontrola. Oso maiz aurkituko dugu adiera generikoa ere: *Gauzak astiro ez pentsatzetik etor daiteke gero luzaro penatzea.*

Hala ere, predikatu jakin batzuekin badago kontrola: *Haurra izatetik hil zen ama*; *Kalean txirula jo eta txanponak eskatzetik bizi/mantentzen da*; *Israeldar gudariak, sarraskia egitetik itzultzean, kanpalekuan gelditu zenaz jabetu ziren* (Elizen arteko Biblia). Subjektuaren kontrola ezartzen dute beste predikatu hauek ere: *askatu/libratu (da)*, *atertu*, *begiratu (da)*. *Milango nor libratzen da bere bikotekidearekin eztabaida sutsu bat izatetik?* (Lertxundi); *Bestalde, eguneroko solasetan gizakien bizioak aipatzetik begiratuko da* (Xarriton).

**30.6.3.2.2e** Kapitulu honen hasieran ‘osagarri jokatu gabe + gobernatzaile’ itxura duten, baina egiaz aspektu-perifراسي baino ez direnez esana kontuan hartuta (§ 30.1.2.3c) *-tzetik gelditu* egitura aspektu-perifراسي hartzekoa dateke prozesu baten amaiera adierazten baitu *gelditu* aditzak; *-tzeari utzi* luke sinonimo hurbila: *Zerua higitzetik geldituren da* (Etxeberri Ziburukoa). Adieraz oso antzekoa denez, inoiz *bukaturen* joskerara asimilatzen da: *Hilabetean gutxienean / ez dira jaten (= jatetik) gelditzen* (A. P. Iturriaga). Perifراسي hauetan badago kontrola: *Arratsalde guztian ez da gelditu astakeriak esatetik*; *Gizona, ahamenik galdu gabe, ez zen athertzen xehetasun emaitetik* (Lafitte).

**30.6.3.2.2f** *-tzetik -tze*ra jokia. Bi predikatu motarekin agertzen da osagarri horiek elkartuz osaturiko joskerak:

- a) ALDE/BIDE HANDIA (IZAN/EGON). A dago mutur batean, B bestean, eta bien arteko desberdintasuna nabarmentzen da: *Ez nuen uste hain handia zenik aldea ezkontzetik ezkontuta bizitzera*; *Gauza txarra nai izateti, egitera, bide andija dago* (Frai Bartolome).
- b) ETORRI, behartu/bortxatu, bideratu, ekarri, igaro/iragan/pasatu, lerratu, makurtu... A abiapuntuan, B amaieran, eta aldaketaren ibilbidea adierazten da: *Bera jaun eta jabe izatetik besteen agindupean egotera behartu dute*; *Ordea halarik ere, etzuen nahi lainkoak, han zegoena, zegoen geldirik: ez traillaizetik alfertzera, eta nagitzera ethor etzedin, eta zein gauza gaixtoa zen, eta den alferkeria, aditzera emaitagatik* (Axular); *Urtxipiarren enpresa informazio hutsa saltzetik informazio horri bertzelako etekina ateratzera lerratzen hasi zenean* (Epaltza).

Bigarren mota horretan, lehen motan ez bezala, ez da nahitaezkoa *-tzetik* perpausa agertzea: *\*Ezin da ukatu badela aldea [egia ez esatetik] gezurra esatera; [Bera jaun eta jabe izatetik] besteen agindupean egotera behartu dute.* Aldiz, *-tzetik* perpausa ezin liteke agertu *-tzera* perpausik gabe halako predikatuekin: *\*Bera jaun eta jabe izatetik [besteen agindupean egotera] behartu dute.* Beraz, esan daiteke *-tzera* perpausen hedatze-aukera bat dugula *-tzetik* perpausa ere agertzea: *zertara* helmugarekin batera, *zertatik* abiaburua ere aipatzen da. Bestalde, bigarren moldeko horietan, kontrola dugu sistematikoki, *-tzera* perpausari dagokien bezala (§ 30.6.3.4).

### 30.6.3.2.3. *-tzean* perpaus osagarriak

Forma horretako perpaus jokatugabeak denborazko balio izaten dute gehiengan (*noiz*). Beste hitz batzuetan esanda, ez dira ohikoak *-tzean* formako perpaus osagarriak, *zertan* adierakoak.

Predikatu gobernatzaileak hiru sailetan bana ditzakegu:

1. OINARRITU, *bermea izan, bermatu, funtsatu, oinarria izan/hartu, oinarritu, sustengatu...* Erreferentziakidetasuna nagusitu ohi den arren, ez da kontrolik halakoetan: *Ikasleekin pazientzia ez galtzean oinarritzen da irakaslearen arrakasta; Halako osagaiak hain moldakorrak izatean du oinarria berrikuntza horrek. Etzan* aditzaren hirugarren pertsona singularreko forma sintetikoak ere sail honetakoak dira: *Ongi bizitzean datza kontual/auzia/gakoa.*
2. FIDATU, *bihotza/esperantza/gogoal/txaropena... eduki / etorkizuna ikusi/izan-ukan/jarri...* Loteriarekin aberastean fidaturik bizi zen; *Esperantza guztia jarria daukat egunen batean bakean bizitzean; Ez dut etorkizunik ikusten besterik gabe lehengo sistemara itzultzean.*
3. ABANTAILA/MEREZIMENDU/ONURA/ZAILTASUN... AURKITU/EGON/IKUSI/IZAN... *Ez dut onurarik/abantailarik ikusten horrela gaxorik egonda luzaro bizitzean; Ongi bizitzen asmatzean dago koska/zailtasuna; Eta alaia izatean bazuen meriturik, herrena baitzen (Garate).*

Beste predikatu batzuk ere aurki ditzakegu, jarduerazkoak ez diren zertan argumentuak ager daitezkeen testuinguruetan: *gutxiago izan, bat etorri... Zertan izan zarete beste eliz elkarteak baino gutxiago, nik zuen kontura bizi nahi ez izatean baizik? (Elizen arteko Biblia); Gauza hau, berez, nabarmen da: izan ere, erraten duenak zuria eta beltza bat datozela, soilki, ez bata ez bestea gorria ez izatean absolutuki baieztatzen du zuria eta beltza ez datozela deuse-tan bat (Xarriton).*

#### 30.6.3.2.4. -tzearekin/-tzeagaz perpaus osagarriak

**30.6.3.2.4a** Jakina da *-(re)kin* eta *-gaz* postposizio atzizkiek aski esanahi desberdinak har ditzaketela; beste horrenbeste gertatzen zaie *-tzearekin* zein *-tzeagaz* perpaus osagarriei ere. Esan beharrik ez da sozietiboak adierazten duen *elkartze* hori gauza abstraktuen elkartzea izango dela perpaus osagarrien kasuan: *Lide Aitorrekin ezkondu; Merke erostea kalitatea zaintzearekin ezkondu*. Adibide horretako *zer-zerekin* eskema berekoak dira halako osagarria hartzen duten beste zenbait predikatu ere: *bateratu, erkatu, kontrajarri, lotu, nahasi, parekatu, uztartu... Hala etsaiari ere egiten derauzkitzun falten barkhatzea, bera bakarrik bere egitez, gaitz da. Ordea iunta ezazu, hargatik zuri lainkoak egiten derautzatzunak barkhatzearekin, eta errax idurituko zaitzu (Axular); Alexandrok [...] Helesponto zeharkatzea Kolonek [...] Atlantikoa zeharkatzearekin parekatzen badugu (I. Mendiguren); Zintzotasuna gizartea eta gizabanakoak diren bezalaxe onartzearekin uztartzen du behin eta berriro (Zapiain).*

Eta predikatu batzuek, berriz, areago dira ‘nor/zer zerekin’ eskemakoak: *ados/akort/konforme izan/egon, alderatu/erkatu, bat etorri, ezkondu/uztartu, zalan-tzak/larazoak izan, zerikusia izan... Txilintxo ados zegoen kapelan bidaiatzearekin, norbaitek kapela eskuan eramanez gero (Gabiria); Bat nator helburu horrekin, jakin, baina ez euskara jaso hori esparru guzti-guztietara zabaldu nahi izatearekin (Zuazo); Horrek [Jonek horrela jokatzek] ez du zerikusirik izan guk erabakia hain azkar hartzearekin. Osagarri diren *-tzearekin* perpausak ez dira kontrolatuak.*

**30.6.3.2.4b** Erabilera batzuetan, *-tzearekin* osagarria oso hurbil dago moduzkoen sailean sartu ditugun perpauos batzuetatik (§ 40.6b, § 40.11a, b): *Egunen batean egoera alderantziz bizitzea gerta zitekeela esan zion Irujok, eta orduan beste hainbeste egitearekin ordainduta sentituko zuela bere burua* (I. Mujika). Baina bada konplementazio-erlazioa, mugatua baita halako soziati-boa har dezaketen predikatuen zerrenda: *konformatu/kontentatu, aski/nahikoa izan...* Adibidez: *Pintatzen zituen baserriak zintzo pintatzearekin konformatu egiten zela* (J. L. Zabala).

**30.6.3.2.4c** Instrumentalaren balioa ere har dezake soziati-boa *akordatu/goratu/oroitu/gomutatu* predikatuekin, nahiz behe mailakotzat jotzen diren horrelako egiturak eta ez diren gomendagarri euskara zaindurako. Subjektuaren kontrola ezartzen dute. *Ez nintzen akordatu gasa ixtearekin/ixteagaz* [= ixteaz / ez zaio akordatu ixtea]. Beste erabilera batean, berriz, *-tzeaz* baino sinonimo egokiagoa gertatzen da, esate baterako, *-tzearen kontuan* postposizio askea: *Orobatsu gertatzen da «barrukoa» edo «barrualdekoa» izatearekin* [= izatearen kontuan]. Alegia, horrekin ari garela, hori harturik hizpide.

*-tzearekin* forma dute denborazkoen eta moduzkoen artean dabiltzan perpauos batzuek ere, baina ez dira osagarriak, ez dago konplementazio erlaziorik mota horietako perpauosetan (ikus 36. eta 40. kapituluak): *Eta berri hunekin, hune-lako gaztigua, ifernuko sua, gaixtoentzat ordenatua zegoela enzutearekin, hain izitu, eta ikharatu ziren, ezen presenteko guztiak, are ziren gaixtoenak ere, ethorri baitzeitzen galdegitera: Zer eginen dugu bada?* (Axular).

### 30.6.3.2.5. *-tzeaz* perpauos osagarriak

**30.6.3.2.5a** *-tzeaz* perpausek, *-tzearekin* eta *-tzetik* perpausek bezala, badute askotan ‘kausa’ zentzua: *aberastu burtsan jokatzeaz*. Euskalkien araberako banaketa izan ohi dute hiru forma hauek. Sarriago aurkituko dugu *-tzeaz* kausa baliokoa ekialdeko euskalkietan, mendebaldeko hizkeretan baino: *Zer axola dizu, zer irabazi dut bekaturik ez egiteaz* (Elizen arteko Biblia); *Victoriarri ez naizela bidaiari ona azaltzen ahalegindu nintzen, edonora joanda*

*ere ez baitut lortzen bertan egoteaz gozatzea (Saizarbitoria); Ez jeus egiteaz beraz ikhasten da gaizki egiten (Etxeberri Sarakoa). Mendebaldean, aldiz, -tzearekin perpausak baliatuko lirateke: Zer irabazten duzu lagunak haserretzearekin?*

Gobernatzailea *etorri* predikatua edo horren sinonimoren bat denean, -tzeaz izango da ekialdeko forma ohikoa, eta -tzetik mendebaldekoa: *Zeren nola herri guztietan ohi baita komunzki zenbait alfer eta iende galdu, eta hek anhitz kalte eta nahasketa egiten baitute, ontasun handia heldu zaika herriari halako heken kentzeaz. Nola lurrari ere heldu baitzaika probetxu iorratzeaz eta belhar gaixtoen atheratzeaz (Axular).*

**30.6.3.2.5b** Aski arruntak dira halako kausa zentzua duten -tzeaz osagarriak: *Poz hartzen dut hain jende bizkorra zaretela ikusteaz; Bear dugu ba eskatu ta eskatu beti, ez aspertu eskatzeaz ta ez berantetsi eskatua (Inza).*

Bai *kaus*a zentzua dutenak eta bai zentzu erreferentzial hutsa dutenak trukagarri dira absolutiboarekin (eta eragiletasuna tartean denean ergatiboarekin ere bai): *Pozten naiz hain jende bizkorra zaretela ikusteaz / Pozgarri zait ikustea hain jende bizkorra zaretela / Pozten nau hain jende bizkorra zaretela ikusteak; Luze mintzatu ziren langabetuen aldeko neurri bereziak hartzeaz / Eztabaidagai erabili zuten langabetuen aldeko neurri bereziak hartzea. Trukagarritasun hori kontuan hartuta, ez da harrizkoa -tzeaz perpausa erabiltzea absolutiboaren lekua beterik dagoenean: *Ea ez duzuen ahazten ate-leihoak ondo ixtea / \*Ea ez zaren ahazten ate-leihoak ondo ixtea (egiletasunik ez) / Ea ez zareten ahazten ate-leihoak ondo ixteaz; Damu dut / damutu zait latina ikasi gabea izatea / \*Damutu naiz latina ikasi gabea izatea / Damutu naiz latina ikasi gabea izateaz; Hauteskundeak aurreratzea aipatu du hitzaldian / \*Hauteskundeak aurreratzea aritu da hitzaldian / Hauteskundeak aurreratzeaz aritu da hitzaldian.**

Halako joskerara biltzen dira predikatu gobernatzaile asko eta asko: *ahantzi/ahaztu, arduratu/kargutu, huts/hogen/bekatu egin, kontu/arta egin, interesatu, mintzatu* (eta sinonimoak, *jardun* eta *ari izan* barne), *oroitu/gogoratu/akordatu, zalantza/duda egin*... Hona adibide batzuk: *Aitzitik haserretzeaz bezala,*



*ez haserretzeaz ere egin diteke bekhatu (Axular); Laburregi mintzatzeaz ere huts egiten da, zeren halako mintzaira baita eskasa, eta eskergabea (Etxeberri Sarakoa); Eguneroko gauzez ahazten hasi zelako: arrainari ura aldatzeaz, adibidez, edo ogia erosteaz (Zaldúa); Arduratuko al zara hura ekartzeaz? (J. Zabaleta).*

**30.6.3.2.5c** Predikatu gobernatzaile askok erreakzio psikologikoa adierazten dute: *ahalketu, amorratu, arduratu/axolatu, arranguratu, asaldatu, asper-tu/gogaitu, atsegin hartu, atsekabetu (atsekabe izan-ukan/hartu), aztoratu, burlatu/trufatu, damutu (damu izan-ukan / hartu), harritu, harrotu, haserretu, lotsa izan, lotsatu, nazkatu, nekatu, poztu (poz hartu), sumindu, tristatu... -tzeaz* perpausak erreakzioaren kausa adierazten du (*-tzeak* ergatiboaren bidez ere eman daiteke kausa): *Horrek harritu nau: zuk hain eskuzabal jokatzek / Horretaz harritu naiz: zuk hain eskuzabal jokatzek; Hori/horren ikusteak eta entzuteak erdiratu dit bihotza / Hori/horren ikustek eta entzuteak daukat bihotza erdiraturik.*

**30.6.3.2.5d** *-tzeaz* perpausak eta aldaera burutua. *-tzeaz* perpausek duten kausa zentzua dela eta, perpaus osagarriaren adierazia predikatu nagusiarenaren *aurretik* irudikatzen da denboran eta logikan. Perpaus nagusiak adierazten duenaren *kausa* da osagarria. Gerta liteke denbora tarte nabarmengarria izatea erreakzioa eragiten/eragin duen gertakaritik erreakzioa gertatu/gertatzen den unera. Eta kontuan harturik *-tzeaz* perpausa (*-tzeak* perpausa bezala) ez dela markatua alde horretatik, beste molde batera jo behar da, baldin eta argi utzi nahi bada gertakari eragilea dagoeneko burutua dela. Horretarako, Iparraldean, *bait-* perpaus jokatu (§ 30.6.2.5) baliatzen da maiz halako predikatuen osagarritzat; hau da, *-tzeaz* perpausen aldaera burututzat: *Harritu naiz hain eskuzabal jokatu baituzu [ez-markatua: jokatzek]; Damutu zen diru guztia xahutu baitzuen [ez-markatua: xahutzek].*

Jokatugabeak ere, ordea, ematen du aukera burututasuna markatzeko euskalki guztietan: *Bai ordea damu hartzen dut, iendek ene baithan eztenaren erraitzek, eta bai batzutan denaren ere agertzek eta banatzek* (Axular); *Eta hala badirudi ezen purgatorioetan daudenek, ez-tutela deusez ere hanbat damu, eta atsekabe izanen, nola denboraren galduaz, gai-zki enpleguaz, eta bere bu-*

*ruen bere borondatez, aphur bat bedere, ez pentsatuaz* (Axular); *Gero, elkarri bostekoa estutu ondoren, akituak, hitzik aurkitu ezinik, banandu egiten ziren, nor bere argudioak hortzen artean oraindik, batak besteei bere usteak ezta-rrian ezin hondoratzeaz damu harturik* (K. Zabala); *Bañan damutu zitzaion prest aski gisa artan jarria* (Iztueta).

Dena dela, aldaera burutuak partizipio burutuaren *forma* hartzen du, baina ez haren esanahi ohikoena. Ondoko adibide bikoteak erakusten du zein den aldea: *Pena hartuko dute denbora galduaz* [= galdutako denboraz] / *Pena hartuko dute denbora(ren) galduaz* [= denbora galdu baitute / dutela eta]. Bigarrena, *-tzeaz* perpausaren aldaera burutu markatua da: *Ez dute axolarik denbora(ren)* [noiz-nahi] *galtzeaz* / *Ez dute axolarik denbora(ren)* [ordurako] *galduaz*.

Partizipio burutuaren bi adiera horien arteko nahasbidea saihesteko, bada burutuaren beste forma bat, ‘partizipio burutua + *izan*’, gaur egungo prosan erabiliena, nahiz tradizioan *izan* erantsi gabeko moldea izan araua: *Ez dute axolarik denbora galdu izanaz*; *Damutu zen Jauna gizakia egin izanaz* (Elizen arteko Biblia); *Harro egongo zara, noski, hain luze hitz egin izanaz*. Baina, esan bezala, *izan* gabekoa da tradizio zaharrekoa: *Orduan heuregiago izanen zare zure ixil egonaz, solhas luzerik eginaz baino* (Pouvreau).

Aldaera burutuaren aukera hori, bestalde, ez da *-tzeaz* perpausen berezitasuna. Beste moldeetan baino ohikoagoa da, baina, berez, aukerakoa da beste *-tzea* nahiz [*-tzea* (+ atzizkia)] perpaus osagarri gehienetan: *Gero zuzendariak halako presa izatea ez zetorren bat bilera atzeratu izanarekin*; *Gaixorik egon izanak dakar ondorio hori*; *Zer egin bihar dau, gaixki esana entzunagaz pekaturik ez egiteko?* (Frai Bartolome); *Makal egonak egiten dau ori* (Kirikiño).

**30.6.3.2.5e** Guztira ere, ez dira adibide gehiegi ageri tradizioan, beste aukera batzuk baitaude lehian: *-tzeak*, *-turik/-tuta*, *bait-*, eta, aski arrunt, *-tzea* soila (-z gabea): *Poztutzen naiz zu ezagutzea* [+ ezagutu (izan)a] (Izeta).

**30.6.3.2.5f** Kontrola. *-tzeaz* perpausak gobernatzen dituzten predikatu askok ez dute kontrolik ezartzen, nahiz erreferentziakidetasuna gerta daitekeen. Beste batzuek, ordea, subjektuaren kontrola ezartzen dute. Mota honetakoak dira *ahantzi/ahaztu*, *oroitu/gomutatu*, *arduratu/axolatu*.

30.6.3.2.6. *-tzeari* perpaus osagarriak

**30.6.3.2.6a** Bost sailetan bana daitezke, esanahia kontuan hartuaz, *-tzeari* osagarrien predikatu gobernatzaile ohikoenak:

- a) EKIN, *atxiki, egon* (Ipar.), *eman, eutsi, heldu, jarraitu, lehiatu, lotu, utzi...*
- b) UKO EGIN, *baietza/ezetza eman, baietz/ezetz esan, muzin/ihes egin...*
- c) DEITU, *esan, izena eman...*
- d) IRITZI, *estimul/beldur/gorroto izan, gustua hartu, garrantzia eman...*
- e) Gainerakoak: BEGIRATU, *begira egon, zer izan...*

EKIN eredukoek aspektu-parafraasiaren tankera dute, ez baitute, erabilera horretan behintzat, eduki lexiko handirik. Horrekin loturik, kontrolatuak ere badira; kontrola subjektuak ezartzen du: *Han ekin diozu [\*ni/\*hura/ZEU] lau hankan ibiltzeari*.

*Uko/muzin/ihes egin* predikatuek ere kontrola ezartzen dute hiztun gehienek erabileran, baina badirudi batzuek ontzat ematen dituztela kontrol zuzenik gabeko esaldiak ere, baldin eta normalean kontrolatzaile denaren *ardurapean* edo bada osagarriaren subjektua: *Uko egin nion haurrak lagunarenean uzteari* [kontrolatua], *?Uko egin nion haurrak lagunarenean geratzeari* [kontrol formalik ez, baina osagarriaren subjektua, kontrolatua litzatekeenaren *ardurapekoa* da]; *\*Haurrak uko egin zion nik hura lagunarenean uzteari*.

*-tzeari* perpausa gobernatzen duten predikatu hauek ez dute kontrolik ezartzen: *etekinal/fruitual/zukua atera, oztopoa(k)/traba(k) jarri*.

**30.6.3.2.6b** *-tzeari* perpausetan datiboa ezin izan daiteke kontrolatzailea, perpaus osagarria bera baitoa datiboan. Datiboaren lekua harturik egote horrek badu beste ondorio bat ere: nekez baino ezin da aplikatu aditz arazleen joskera arrunta (§ 23.2.1.2), batez ere lehen sailekoetan (baina ez haietan bakarrik): *???Lau hankan ibiltzeari ekinarazi digu; \*Erretzeari utziarazi dio; \*Gauetz gidatzeari gorroto izanarazi dizu*. Erabateko ezinik ez dago, ordea: *Kargua hartzeari uko eginarazi zien*.

**30.6.3.2.6c** Predikatu gobernatzaile batzuk joskera bitasuna ageri dute, itxura denez zentzua aldatu gabe (kasu bietan ere kontrola dago): *-TZEARI eman (zaio)<sup>2</sup> / -TZERA eman (da)<sup>3</sup>, -TZEARI jarraitu (dio) / -TZEN jarraitu (du)*. Ez da, bestalde, harritzekoa, aurrerago ikusiko dugunez beste osagarri batzuetan ere ikus daitezkeelako bitasunak (eta hirutasuna ere bai kasuren batean): *-TZEN saiatu / -TZERA saiatu / -ZKEKO saiatu*.

**30.6.3.2.6d** Ez da oso emankorra *-tzeari* perpaus osagarrien jokaera, *-tzeaz* perpausekin alderaturik bederen. Hona gaurko testuetako zenbait adibide: *Gainerakoak, horren berri jakitean, beldur izango dira eta horrelako gaiztakeria egiteari uko egingo diote (Elizen arteko Biblia); Inolako aipamena egiteari ihes egin zioten, bestalde (K. Zabala); Hainbat jira eta buelta eman ostean, alferrikakoa iritzi zion lo egiteari (Morillo); Antzina, estimazio omen zioten hurritzezko ibarbasotxoak egiteari (P. Zabala); Argizarizkoa dut bihotza Walserrek bere adiskidetzat hartu nauenetik, eta inoiz ez bezalako zentzua ikusten diot orain lo egiteari (Lertxundi); Hots-bilkura baten ordeztu beste hots-bilkura ahulago bat egiteari esaten zaio ahultze edo lenitio (Oñederra); Ez hartzea pentsatu zuen, erdi lo baitzegoen, eta egoera hartan gorroto zion hitz egiteari (M. A. Mintegi). Beste hauek, berriz, tradiziokoak dira: *Orain, gogo osoz, bere neurriko euskal nobela bat egiteari lotu nahi bazaio, beldurrik gabe egingo nuke hori ere emango digula (Mixelena); Bainan azkenean jarria zen osoki gurekilakoaren ahalik hobekiena egiteari (Hiriart-Urruti); Itxi daiogun ekatxa zelan amaitu zan esateari (Agirre); Bere eskuz ekin zion landare-zuloak egiteari (Munita); Bada darraiozunean bekatu egiteari, Jangoikoaganik urrinduten zareanean, geienez gaztea zara, sendo, osasundun ta indartsu zagoz (Añibarro); Nola dabilan jakiteari lehiatu gogo naiz, badakialarik arren ez nitakela nehondik hel (J. Etxepare).**

---

<sup>2</sup> *-tzeari eman (dio)* joskera ere ageri da tradizioan, gipuzkeraz behintzat; hau da, *ekinen erregimenera lerraturik: Otzak ikaraz atera zan ibai aldera, ta bertako ur jelatan matazak jo ta garbitzeari eman zion* (Etxaniz).

<sup>3</sup> Oinarrizko bitasun bat islatzen da predikatu honen kasuan; gogoan izan, esaterako, *itsasori begiratu / itsasora begiratu* bikotea.

**30.6.3.2.6e** *-tzeari utzi/laga* egituran egiazko konplementazio erlazioaren orde, aspektu-perifrasia dugu (§ 30.1.2.3c): *Edo edateari eta erretzeari utzi, edo laster hilko haiz* (Jimenez); *Koadrilako bat, Iñaki, aspaldi ikasteari utzi eta gau-eskoletan euskara-irakasle hasitakoa* (X. Mendiguren Elizegi); *Ez zion, ordea, negar egiteari utzi kalera irtendakoan ere* (Lertxundi).

### 30.6.3.2.7. *-tzeak perpaus osagarriak*

**30.6.3.2.7a** Aurreko sailetan aipatu dugunez, ergatibozko perpausak dira kausa adierazteko moldeetariko bat: *Gehiegi erretzeak hondatuko zaitu*. Mota honetako predikatu (konplexu) gobernatzaileak aurkituko ditugu adibideetan: *aberastu, akuilatu/kitzikatu, alaitu/baretu/gogobete/lasaitu/poztu, aitzinatu/aurreratu, aldatu, altxatu, amorratu, amorrua eman, animatu, apaldu, areagotu, arindu, asaldatu, askatu/libratu, aspertu/gogaitu, atzeratu/gibelatu, aztoratu, beldurtu/estutu/ikaratu/izutu/larritu, berretu, denbora eraman, erotu/zoratu, erraztu/zaildu, galdu, harritu, harrotu, indartu, itundu, kalte/mesede egin, lotsatu, min egin, min/pena eman, nahigabea eman, piztu/suspertu, tristatu, tronpatu, zapuztu...* Guztiek behar dute, jakina, *du* (edo *dio*) motakoak *-tzeak* perpausa onartu ahal izateko. *Da/du* alternantzia duten aditzetan ('inkoatibo'/'kausatibo'), ohikoa izaten da *-TZEAK harritu, harrotu, aztoratu, lotsatu... du* / *-TZEAZ harritu, harrotu, aztoratu, lotsatu... da* (§ 30.6.3.2.5c). Hona *-tzeak* perpausen zenbait adibide: *Zuekin ibiltzeak ez dit egin kalte* (Uztapide); *Bere sor-herri Saran galtzeak baino anitzez min gehiago egin zion haren bihotzari, bere Canbo maitean ez nausitzeak* (Hiriart-Urruti); *Ollo bat iltzeak naigabea emango zion* (Anabitarte); *Gauza batek baka-rrik ituntzen nau: zazpi illabete oietan zure eskutitz bat bakarrik ez izateak* (J. A. Irazusta); *Ikaratzen du ikusteak nola zuritzen eta defendatzen duten maitasun kaltegarri hori* (J. M. Lekuona); *Sartzen den bakoitzean hain txikia izateak harritzen du, jostailuzkoa dirudi, lego edo mekano bat bezalakoa da* (Alonso).

Ohart gaitezen irakurketa arazle nabarmena dutela *du* moldeko predikatu horietako batzuk: *aldatu (du), altxatu (du)* edo *amorratu (du)*, esaterako, *aldara-*

zi, *altxarazi* edo *amorraraziren* sinonimotzat har daitezke. Predikatu nagusia-  
ren *aurretiko* irakurketa izan dezake ia beti osagarriak eta, horrenbestez,  
partizipio burutuaren forma ere har dezake atzizkiak: *-tu (izan)ak* (§ 30.6.3.6).

**30.6.3.2.7b** Ondorioa ere perpaus jokatugabea izan daiteke: *Senarrak ezku-  
tuan edateak eragin/ekarri du familiak behea jotzea*. Predikatu jakin batzuk  
espezializaturik daude perpaus egiturako kausaren eta ondorioaren arteko lo-  
tura egiten; predikatuok *du* motakoak dira: (*zerk zer*) *ekarri, eragin, erakarri,  
sortu, -arazi...* *Basoak galtzeak, ordea, giro-aldatzea ekarri die; ta lurrak  
galtzea...* (Munita). Jakina, horrek ez du esan nahi predikatu gobernatzailerik  
hauekin ondorioak beti perpaus egiturakoa izan behar duenik: *Senarraren  
portaerak eragin du familiaren galera; Bakarrik ez ibiltzeak ez du, honelako  
gaietan, onura baizik ekartzen* (Mitxelena); *Erresuma guziek diote elgarri: /  
frantses populua da orai hola jarri: / ume anitz galtzeak du apal-arazi* (M.  
Etxamendi); *Munduaren errankizunak, munduari atsegin egin nahi izateak,  
zertarat ez dezakete erakhar bat-bedera* (Larregi).

*-tzeak* eta *-tzea*, hau da, bai kausa eta bai ondorioa perpausak direnean, adie-  
razpena generikoa izaten da askotan (nahiz ez beti, goraxeagoko adibideak  
erakusten digunez): *Bizitzeak berekin dakar zahartzea*. Adierazpena orokor  
samarra ez denean, bestelako joskerak agertzen dira: *Krisian sartzeak era-  
man/behartu du Patxi etxea merke saltzera / ??Krisian sartzeak eragin du  
Patxik etxea merke saltzea / ???Krisian sartzeak eragin dio Patxiri etxea  
merke saltzea*.

**30.6.3.2.7c** Kausa-ondoriozkoen artean sartzekoak dira predikatu (konple-  
xu) hauek ere: *ongi/gaizki/itsusi eman, ondorio/ordaina izan: Horra, Pello,  
nola abila izateak, batzuetan on bada, bertzetan ez duen ondorio onik* (J. B.  
Elizanburu); *Ez du ondo ematen ikasleei mehatxuka aritzeak* [ondorioa: itxura  
on/txarra].

Beste predikatu batzuk ez dagozkio kausa-ondorio eskemari, hala nola *balio/  
merezimendu izan, adierazi, agindu (du/dio), esan nahi, irudi izan* (predikatu  
osagarriko egitura): *Ez du deus balio usain onez betherik ibiltzeak, eta are  
gutiago berari dagokan baiño soñeko arropa ederragoak erabiltzeak* (Axu-

lar); *Zer adierazi nai du Apostolikoa izateak* (Ubillos); *Ta koroa eder ark, ta alako Santuen artean ura egoteak ori esan nai du* (Kardaberaz).

Predikaturen batek zerk zerekin joskera eskatzen du: *Tripa handia izateak ez du zerikusirik moko-fina izatearekin*. Inoiz, metaforikoa izan daiteke esapidea: *Zeren hala ibiltzeak eztu usan ona* (Axular); *Biziro maite degun norbaiten zorionaren iturribide izateak, norkbere garaikundeak baño atsegin lasaiagoa ta zorion aundiagoa aizatzen dio maiz gizon zintzoaren biotzari* (Barrenso).

**30.6.3.2.7d** *-tzeak* perpausek ez dute kontrolik ezartzen, nahiz erreferentziakidetasuna izan ohikoena, besterik markatu ezean: *Hainbeste erretzeak hondatuko zaitu* [zuk erre, zu hondatu]; *Ingurukoek hainbeste erretzeak hondatuko zaitu*.

**30.6.3.2.7e** Aldaera burutua ere aurki dezakegu, *-tuak / -tu izanak*. Ondorioa gauzatzerako, kausa burutua dela nabarmentzeko baliatzen da: *Lagunak gezurra esan izanak mintzen/mindu nau*; *Lagunak gezurra esateak mintzen/mindu nau*. Esan dezagun, bidenabar, *izateak* formaren aldaera burutua *izanak* dela: *Pobre izateak samintzen zaitu*; *lehenago aberats izanak saminagotzen*; *Orra zer dakarren Jaunaren laguntza bere alde ez izanak* (Lardizabal).

### 30.6.3.3. *-tzen* perpaus osagarriak

#### 30.6.3.3.1. Forma eta esanahia

**30.6.3.3.1a** Formaz berezi samarra da *-tze* atzizkian<sup>4</sup> oinarritutako forma hau gainerakoan aldean, inesiboaren *-n* marka zuzenean lotzen baitzaio aditz

<sup>4</sup> *-n* atzizkia hartzen duen aditz izenaren formari dagokionez, *-te* eta *-tze* orokorrez gainera, badira beste zenbait euskalki-aldaera: *-ite*, *-tute*, *-tzaite*, *-(k)eta*... Baina ez dira oso ugariak gaurko erabilera idatzi estandarrean.

izenari, mugatzailerik gabe<sup>5</sup>, leku izenetan bezala. Badira, gainera, euskalkien arteko desberdintasunak forma honen erabileran. Batetik, bizkaieraren zati handi samar batean *-t(z)en* perpausak erabiltzen dira beste euskalkietan *-tzera* perpausak erabiltzen diren testuinguru batzuetan (mugimenduzko predikatuekin bereziki): *lagunari bisita bat egiten joan da* (bizk.) / *lagunari bisita bat egitera joan da* (orokorra). Bestetik, mendebalde/ekialde banaketa nabari da *-tzen/-tzera* perpaus osagarri mota askotan (gipuzkeraren barruan ere bai askotan): *ausartu/utzi/saiatu... egiten/egitera*. Baina hori joera orokorra baino ez da; gero kasu bakoitza eta erabilera bakoitza ikusi behar da, banaketa ez da beti berdin gertatzen eta.

Esanahiari dagokionez, burutugabetasuna adierazten du *-tzen* perpausak; hau da, prozesu bat bere irautean, ez amaiturik. *Zertan?* galderari dagokio: *lan egiten, baratza lantzen, mintzatzen, zimeltzen, josten, aspertzen...* Prozesuak egile bat izanez gero, *-tzen* perpausak jarduera<sup>6</sup> adieraziko du; hori du ohiko adiera.

**30.6.3.3.1b** Esanahiari erreparatzen badiogu, hiru sailtan bana ditzakegu perpaus osagarri jokaturgabe hauen predikatu gobernatzaileak (Aurreraxeago aipatuko ditugu aspektu-perifraziak osatzen dituztenak: *hasi, jarraitu...*): jarduera predikatuak (*jardun, aritu, ibili...*); jardueren kudeaketari dagozkionak (*jakin, trebatu, ikasi, saiatu, moldatu, asmatu, oldartu, tematu, trebe izan...*); eta hautemate-prozesuak (jarduerak barne): *ikusi, entzun, hauteman, aurkitu...*

Batzuetan gobernatzaile espliziturik gabe agertzen dira *-tzen* perpausak, eta eduki semantiko gutxieneko predikatu gobernatzaile bat ulertzen dugu halakoetan: *Goizian diru kontatzen / tabernarako plantatzen / bazkari ona tokatzen / kaña artuta kopak eranaz / erari fiña jokatzten / egiñik eztet ukatzen / oraiñ ezpañak nekatzen / zardiñ-ezurra txupatzten* (Xenpelar). Oso ohikoa da erabilera eliptiko hori erregistro batzuetan.

---

<sup>5</sup> Aurrerago ikusiko dugunez, mugatu singularra ere aurkitzen dugu predikatu bakan batzuekin, baina beste adiera batean: *Osasuntsu bizitzean datza auzi guztia*.

<sup>6</sup> Zentzu zabal batean darabilgu *jarduera* hitza: ‘nolabaiteko iraupena duen ekintza edo jarduna, jarraitua zein errepikakorra’.



**30.6.3.3.1c** Kontuan izan behar da, bestalde, aditzek adiera bat baino gehiago izan dezaketela; esaterako, *lagundu* aditzak badu erregimen-bitasuna —*du* Iparraldean eta *dio* mendebaldean— eta adiera-bitasuna —‘laguntza eman’ eta ‘konpainia egin’—. ‘Laguntza eman’ adierakoa da *-tzen* osagarria hartzen duena, ez bestea: *Lagunduko dizut etxeko lanak egiten* [laguntza]<sup>7</sup> / *Lagunduko dizut/zaitut etxeraino* [konpainia].

**30.6.3.3.1d** Irudikapenezko predikatuak —*irudikatu*, *marraztu*, *margotu*, *grabatu*, *gogoratu/oroitu* (irudimenean irudikatu)...— eta aurkikuntzazko predikatuak ere —*aurkitu/ediren/ldoro/kausitu*, *atzeman/harrapatu*...— hautematezkoen antzekoak dira. Alegia, atzemate orokor bati dagozkionek osatzen dute saila: ‘norbaitek zerbait/norbait prozesu/jarduera batean atzeman’; ‘norbaitek zerbait/norbait prozesu/jarduera batean ikusi/entzun (begiz/belarriz atzeman)’; ‘norbaitek zerbait/norbait prozesu/jarduera batean irudikatu (euskarri batean atzeman)’. Existentzia-predikatua, edo *ageri izan* ere esanahiz hurbil daude aurkikuntzakoetatik: *Atarian neskabila bat ikusi dugu* / *ageri zen* / *bazen jendeari loreak banatzen*.

**30.6.3.3.1e** Perpaus osagarriko subjektuak, bestalde, ‘egiletasuna’ eskatzen du. Ez dira nahasi behar, ordea, ‘egiletasuna’ (rol semantikoa) eta ergatiboa izatea (funtzio gramatikala). Argi ikusten da aldea hurrengo adibideetan: *Aurten ikasi dugu aberatsengana hurbiltzen*; \**Aurten ikasi dugu erortzen*; *Aurten ikasi dugu nagusia engainatzen*; \**Aurten ikasi dugu hondoa jotzen*. *Hurbildu* eta *engainatu* nahita egiten dira, ‘egile’ bat eskatzen dute. *Erori* eta *hondoa jo*, ostera, nekez egingo ditugu geure borondatez, geuk nahita.

Egilerik gabeko prozesuen eragile denak ere har dezake subjektuaren lekua: *Egosten jarri/utzi ditut babarrunak* [nik jarri/utzi, babarrunak egosi]. Objektua da, beraz, kontrolatzailea *jarri/utzi*<sup>8</sup> (*du*) moldeko predikatuetan; osagarritzat, berriz, prozesuak zein jarduerak adierazten dituzten perpausak hartzen dituzte. Alde horretatik, hautematezkoen egitura bera dute; alde bakarra, erga-

<sup>7</sup> Iparraldean: *Lagunduko zaitut etxeko lanak egitera(t)*.

<sup>8</sup> *Utzi* aditzak baditu beste joko batzuk ere aurrerago ikusiko ditugunak.

tibozko subjektua *hautemailea* izatea kasu batean eta *eragilea* bestean: *Koplak kantatzen entzun ditut bertsolariak*; *Koplak kantatzen jarri ditut bertsolariak*.

Baina *utzi* aditzak egiletasuna garbi markaturik duenean, ez da erabiltzen joskera hori: *Hiltzen utziko zaitu* [*hil*: subjektu jasailea]; *\*Irabazten utziko zaitu* [*irabazi*: subjektu egilea]. Halakoetan, *utzi* predikatuaren *dio* jokia baliatzen da, eta datiboak hartzen du kontrola: *Irabazten utziko dizu*; *Gainezka egiten utzi dio babarrunen lapikoari*. *Utzi* predikatu honen esanahia bera ere bestelakoa da: ‘baimendu, ez galarazi’. Beraz, esan daiteke bi *utzi* ditugula: *utzi*<sub>1</sub> (*du*), oinarrizko zentzua duena, batetik (perpaus osagarrikerik gabeetan ageri dena: *botila erortzen utzi*; edo egilerik gabeko prozesua adierazten duen *babarrunak egosten utzi ditut* modukoetakoa), eta *utzi*<sub>2</sub> (*dio*), ‘ez galarazi’ zentzua duena. *Utzi*<sub>2</sub> horri dagokion joskera eta adiera hori *-tzen* perpausa implizitua den esamoldeetara ere zabaltzen da, erabilera horretan: *Ez digu utzi erabakitzen*; *Utziko al diozu bakean?* [= nahi duena egiten]; *Utzi niri*. Berdin gertatzen da *lagundu* aditzarekin ere: *Lagunduko dizut (hori egiten)*.

**30.6.3.3.1f** Predikatu gobernatzaile gehien-gehienek jarduerazko *zertan* osagarriak baino ez dituzten hartzen, baina batek edo bestek baditu bestelako joskera eta adierak ere: *Jakin/ikasi komeni zaizuna egiten*; *Jakin/ikasi zer komeni zaizun / komeni zaizula*. Antzeko aukera-bitasuna dugu hautematezko batzuetan ere: *Ikusi/entzun sartzen*; *Ikusi sartu den / sartu dela*. Antzeko bitasuna dugu tarteka jokatu gabeen artean ere: *Zaila da dena jakiten/jakitea*; *Ahaztu zaio tangoak kantatzen/kantatzea*. Baina ez da sinonimiarik gertatzen *-tzen* perpausekin eta bestelako osagarriekin antolatutako esaldien artean.

#### 30.6.3.3.2. Aspektu perifrasiak

Ugariak dira *-tzen* osagai duten aspektu perifrasiak (§ 30.1.2.3c).

**30.6.3.3.2a** *-TZEN ari izan* (vs *-TZEN aritu*). Bi aditz ditugu hemen: batetik, *ari(tu)* jarduerazkoa, *jardunen* sinonimoa, subjektu egile bat duena, *-tzen* perpaus osagarriak hartzen dituena, eta, bestetik, *ari (izan)* aspektu perifrasi

bat osatzen duena. Lehenak aspektuaren joko osoa du; bigarrenak, ordea, ez. Hurrenez hurren: *Landarea mozten ari/aritzen/aritu da*; *Landarea zimeltzen ari/\*aritzen/\*aritu da*. Agian egokiena jarduera adieraztekoa ez den *ari (izan)* defektiboa, aspektu perifrasi hustzat jotzea litzateke; hau da, aspektu markatzat hartzea. Jarduera adierako perifrasiat har daiteke *-TZEN ibili* ere: *Oraindik kontrolak jartzen ibiliko dituk, eta bien bitartean, Manuel hemen* (Alberdi).

**30.6.3.3.2b** *-TZEN hasi/jarraitu/segitu, akabatu/amaitu/bukatu* aspektu perifrasiak. *Hasi* eta *jarraitu* predikatuek ere aspektu perifrasiak osatzen dituzte, *ari izanek* baino joskeraz beregaintasun handixeagoa izanik ere: *Zimeltzen hasi/hasten dira loreak*; *Zimeltzen jarraitzen/jarraitu dute loreak*. Baina *Zimeltzen ari (\*izaten, \*izan) dira loreak*. Eduki lexikoa ere *ari izanena* baino bereizgarriagoa da: *Hasi baino ez da (egin) galtzak josten*; *Jarraitu, jarraitu du erortzen, baina geldiago*. Aspektu perifrasiak berdin tratatzen dituzte egiletasunezkoak (§ 30.6.3.3.1e) zein bestelakoak: *Josten/erortzen hasi da*; *Josten/erortzen jarraitzen du*.

*-TZEN hasi* perifrasiaren antonimoa da *-TZEN akabatu/amaitu/bukatu*: *Bukatu du elurra botatzen*; *Atsoak ez zian oraino akabatu erraten, hori da!* (J. B. Elizanburu); *Gauza horiek guztiak egiten amaitu zutenean* (Zaldúa). Baina, jarduera baten amaiera markatzeko adiera horrekin lehian, forma bera hartzen du gertakari kate bateko azkena adieraz dezakeen perifrasiak: *Beste guztien gainetik agintzen bukatu zuen* [azkenean, hori gertatu zen]. *-TZEZ* moldea ere baliatzen da jardueraren amaiera adierazteko: *Irakurtzez bukatu eta Monari begiratu nion* (Rey).

Beste predikatu batzuek ere badituzte aspektu edukiak, hala nola *oldartu* (*hasiren* kideko) eta *tematuk* (*jarraituren* kideko), baina predikatu beregainagoak dira, eta ez dute onartzen egiletasunik gabekorik: *jokatzen/\*lokartzen tematu da*. Halakoak, beraz, nahiz eta aspektu-alderdi hori ere eduki, ezin dira hartu perifrasiat, beren eduki lexikoari eusten baitiote.

**30.6.3.3.2c** *-TZEN joan, egon* perifrasiak. Badira beste perifrasi batzuk ere *-tzen* oinarri dutenak. Horietako bat da *-TZEN joan* gero eta gehiago nagusitzen

ari dena tradizioko *-TUZ joan* perifrasiaren orde: *Galduz doa ohitura hori; Galtzen doa ohitura hori*. Bestalde, *-TZEN joan* forma bera ageri da partiden-eta emaitzarekin lotua dagoen beste esapide honetan: *Bost eta hiru galtzen doa*. Kasu honetan, jakina, ezin da aspektu perifrasiszat hartu.

Ohikoa da *-TZEN egon* aspektu perifrasia ere, *ari izanen* ondoan: *Ardiak zaintzen dago / Ardiak zaintzen ari da*. Nabarmena da, bereziki, *ari izan* erabiltzen ez duten bizkaierazko hizkeretan, non, oro har, *egonen* eta *ibiliren* artean banatzen baitira egoera/jarduera adierak: *Testuaren okerrak zuzentzen dago/dabil. Ari izan* ezagutzen duten hizkeretan, berriz, banaketa hau da tradizioa duena: *negarrez/galdez/oihuka/deika egon* (egoera) / *-tzen ari* (jarduera).

### 30.6.3.3.3. Kontrola

**30.6.3.3.3a** Erreferentziakidetasun-jokoa era batekoa edo bestekoa izan daiteke osagarrietan (§ 30.2.5). *-tzen* perpaus osagarrietan perpaus nagusiak ezartzen dio perpaus osagarriari subjektu *birtuala*; ez da inoiz agertuko beste subjekturik halako osagarrian. Hau da, *-tzen* perpausen subjektua kontrolatua da: *Saiatuko naiz (\*zuk/\*hark/...) ulertzen; Ikas ezazu (\*hura/\*ni/...) ez haserretzen*. Ager daitekeen subjektu bakarra subjektu kontrolatu enfatikoa da: *Saiatuko naiz neuk/neronek/nihaurk/\*nik ulertzen*.

Jakina, perpaus nagusia inbertsonala bada, subjektu generiko edo zehaztugabe bat ulertuko da osagarrian: *Zaila da ikasi nahi ez duenari irakasten; Batek daki, zail da asmatzen zerbitzariak zer darabilen buruan nagusiak kargu hartzen dionean* (Morales). Gehienetan, hala ere, bada kontrolatzaile zehatz bat perpaus nagusian, predikatu mota bakoitzaren arabera ergatiboan, absolutiboan edo datiboan doana: *Zuk<sub>i</sub> ez dakizu [Ø<sub>i</sub>] halakoetan ez haserretzen; Orduan hasi zen Nekane<sub>i</sub> [Ø<sub>i</sub>] halakoak esaten; Hor jarri ditut porruak<sub>i</sub> [Ø<sub>i</sub>] poliki-poliki egosten; Nork erakutsiko dio horri<sub>i</sub> [Ø<sub>i</sub>] bazterrak horrela nahasten?*

**30.6.3.3.3b** Kontrolaren ikuspegitik, bi sail bereiziko ditugu: hautematezkoak *du* motako aditzak dira beti eta objektua da perpaus osagarriaren kontro-

latzailea: *aditu/entzun, hauteman, sentitu, sumatu, atzeman/harrapatu, ekarri, entzun, imajinatu/iruditu, gogoratu/oroitu, irudikatu, trebatu (du), margotu/marraztu...* Predikatu gobernatzaille hauek ageri diren perpauos nagusiko objektua bera da perpauos osagarriko subjektu aipatugabe, birtuala: *Han ikusi zaitut gugana hurbiltzen/begiratzan*. Argi dago adibide horretan *zu (hurbildu)* edo *zuk (begiratu)* direla isilpeko subjektuak, *zu (ikusi)* objektuak behartuak, kontrolatuak. Bigarren sailean bilduko ditugu jarduera predikatuak eta jardueren kudeaketari dagozkionak; *da* zein *du* motakoak izan daitezke eta perpauos nagusiko subjektua da kontrolatzailea: *abil/antzetsu, iaio/trebe izan, bakarra/lehenan/onena/txarrena/baldarrena/trebeena izan, erraz/zail(a) izan (da/zaio), ahalegindu, ausartu (da) mendebaldean, denbora pasatu, moldatu, saiatu, trebatu...* *Dusan Ivkovic entrenatzailea iaioetan iaioena da partida-ren erritmoa kontrolatzen (Berria); Baina bera ere trebea da zoritxarra ekartzan (Elizen arteko Biblia); Ezin badut mundua aldatu, neure burua aldatzen saiatu naiteke bederen (O. Arana).*

Beste predikatu batzuek, aldiz, datiboari esleitzen diote kontrola; besteak beste, aditz arazleek (§ 23.2.1.2): *irakatsi, ahaztu, utzi, lagundu...* *Pianoa jotzen irakatsi dio; Ahaztu zaio pianoa jotzen; Lagunduko dizut etxeko lanak egiten.*

#### 30.6.3.3.4. Predikatu gobernatzailen sailkapen formalak

**30.6.3.3.4a** Hasieran esan dugu *-tzen* perpausek (irauten duen) prozesua (burutugabea) adierazten dutela; hori da oinarrizko esanahia. Prozesu hori, bestalde, izan daiteke berezkoa nahiz egileduna. Berezko prozesuan, prozesu horren eragile bat ere ager daiteke perpauos nagusian. Egiledun prozesua, jarduera edo dirauen ekintza da (psikikoak barne); egilea, perpauos nagusiko subjektua da.

**30.6.3.3.4b** Sailkapen formalago bat ere egin dezakegu, ordea, aurreko guztiak kontuan harturik, eta egiletasun ezaugarria ere sartuz. Predikatu gobernatzaille prototipikoak erabiliko ditugu egitura moten etiketatzat:

1. HASI, ARI IZAN, JARRAITU mota

[+/-egilea]: *josten* / (berez) *egosten*

Kontrola subjektuak

Eremu semantikoa: aspektua (aspektu-perifraasi hutsak dira hala osatuak)

2. ARI(TU)-JARDUN / SAIATU, JARRI *da*, TEMATU, JAKIN-IKASI-ASMATU mota

[+egilea]: *josten* / \*(berez) *egosten*

Kontrola subjektuak

Eremu semantikoa: jarduerak, gogoarenak barne

3. IKUSI-ENTZUN / JARRI-IPINI-PARATU *du*, EDUKI, UTZI/LAGA, TREBATU *du* mota

[+/-egilea]: *josten* / (berez) *egosten*

Kontrola objektuak

Ergatibozko subjektua: hautemailea / eragilea

Eremu semantikoa: jarduera nahiz prozesuak hautematea / abiaraztea (*jarri*), mantentzea (*eduki*) edo ez amaiaraztea (*utzi*).

4. IRAKATSI, LAGA, LAGUNDU, UTZI *dio* mota

[+egilea]: *josten* / \*(berez) *egosten*

Kontrola datiboak

Ergatibozko subjektua: eragilea

Eremu semantikoa: jarduerak eragitea [*ikasi*, norbaiten eraginez] / jarduerak ez galaraztea

30.6.3.4. *-tzera(t) perpaus osagarriak*

**30.6.3.4a** Mota horretako perpaus osagarriek ezaugarri hauek dituzte: formaz adlatiboak dira, baina adierazten duten mugimendua ez da fisikoa baizik gogoarena; alegia, *nora* abstraktu bat. Bestalde, egitura kontrolatuak dira, *-tzen* osagarriak bezalaxe.

*-tzera* perpausen ezaugarriak *-tzen* perpausekin erkatuak. Ezaugarri gehien-gehienetan kide-kidekoak dira bi perpaus mota horiek. Formaren aldetik, biak dira mugatzailerik gabeak: *-tze + -n*, *-tze + -ra*. Esanahiaren aldetik ere ez dago alderik; euskalki aldaerak dira: *Etxera noa telebistan finala ikusten* (bizk.); *Etxera noa telebistan finala ikustera* (orokorra); *Ez utzi galtzera* (ek.); *Ez utzi galtzen* (mend.). Bada, hala ere, bi formen arteko oposizioen bat, *jaten eman / (zerbait) jatera eman* bikotean ikus dezakeguna. Lehenak, *jaten* formak, prozesua bere irautean adierazten du; bigarrenak, *jatera*, mugimendu bat (irudizkoa bederen) osagarriak adierazten duen zer abstraktua (gertakaria) helmuga duena.

Nolanahi ere, esapide finko eta bakanak dira halakoak, eta nekez aurkituko dugu *-tzen/-tzera* oposizio soilaz sistematikoki bereizten den esanahirik: osagarriok gobernatzen dituzten predikatuen arabera izango da esanahia, nahiz hizkera batek *-tzen* eta besteak *-tzera* aukeratu horretarako. Oro har, ekialdeko hizkerek *-tzera* molderako joera handiagoa ageri dute mendebaldekoek baino. Baina bi moldeak ere aurki ditzakegu euskalki berean; gipuzkeraz, esaterako, *-tzera* zein *-tzen* aurkitzen ditugu *saiatu* predikatuarekin (baita *-tzeko* ere): *Saiatzen dira atzgura kentzera*, *baña ezin iritsi dira lepora muturrarekin* (Agirre Asteasukoa); *Begira gurasoa, aurdun ez geratzeko saiatu ote zeran*, *dala edariz*, *dala beste modu itsusiakin* (Agirre Asteasukoa).

**30.6.3.4b** *-TZERA perpausak gobernatzen dituzten predikatuak*. Goraxeago esan bezala, ‘mugimendu’ bat adierazten dute *-tzera* perpausekin antolaturiko esaldiek; mugimendu hori irudizkoa da beti, jakina. Mugimendu horren helmuga ez da leku fisikoa, zerbait abstraktuagoa baizik, gertakari bat, aditzak adierazten duen hori.

Horren arabera, hiru multzo bereiz daitezke: a) mugimendu fisikoa *ere* (*nora*) adieraz dezaketen predikatuak —*etorri/ekarri, joan/eraman, iritsi, lerratu, abiatu, aurreratu, oldartu, makurtu...*—. b) Predikatu espezializatuak —*ausartu/behartu, deliberatu (da/du), bortxatu...*—; itxura batean, gogo-mugimendu bat adierazten dute soilik, eta horregatik ez dute *nora* aukerarik: \**Jauregira ausartu naiz*. c) Bi sailen tartean geratzen dira GONBIDATU ereduak: bigarren sailekoak bezalatsukoak dira esanahi ez-fisikoaren aldetik, baina *nora* argumentuak ere onartzen dituzte: *Jauregira gonbidatu zaitut*. Hala ere, *-tzera* perpausezkoen esanahi bera dute: *Jauregira (etortzera) gonbidatu zaitut*.

Aditz gobernatzailearen jokoa (*da/du*) eta, horrekin loturik, jasaile/egile/eragile jokoa kontuan harturik, honako moldeak bereiz ditzakegu.

1. ETORRI/OLDARTU/MAKURTU/AUSARTU/SAIATU *da* moldea

[+egilea]: *jostera* / \*(berez) *egostera*

Kontrola subjektuak

Eremu semantikoa: gogo-mugimenduak

Gogo-mugimendua mugimendu fisikoarekin batera etor daiteke: *Gurera etorri da lan egitera / egunok pasatzera*. Baina betiere *zerbait egitera*, ez *zerbait gertatzera*: \**Gurera etorri da zahartzera*. Datiboa agertzeak ez du aldatzen kontrola, nahiz beste erreferentziakidetasunen bat gehiago ezar dezakeen: *Giltzak ematera etorri zaió; Agur esatera hurbildu nintzaizun*.

*Da* moldekoak eta subjektuaren kontrola ezartzen dutenak dira beste predikatu hauek ere: *abiatu, ailegatu/heldu/iritsi, altxatu, animatu, apaldu (da), arriskatu, ateral/jalgi/irten, ausartu* (ekialdean), *behartu (da), deliberatu (da), egokitu (da), itzuli, jaitsi, jarri, joan, jolastu (da), kondenatu (da), lehiatu, lerratu/limurtu, ohitu/usatu (da), prest izan/egon, umildu...*



## 2. EKARRI/ERAMAN/BIDALI-IGORRI/BEHARTU/GONBIDATU/DEITU

*du* moldea

[+egilea]

Kontrola objektuak

Ergatibozko subjektua: eragilea

Eremu semantikoa: zerbaitek edo norbaitek eragindako egintza

Joskera horretan ez da lekurik datiboarentzat. Predikatu sorta guztiz mugatu baten kasuan, bada salbuespen bat bederen egiletasunari dagokionez, 2. sail horretan: *Konpontzera ekarri/eraman/bidali ditut bafleak*. Bistan da badela hor egileren bat, baina ez dira, noski, *bafleak*, baizik eta *konpontzailea*. Bestalde, egitura kontrolatua denez, *bafleak* da *konpondu* predikatuaren subjektu isila; eta horrek esanahi pasibo-antzekoa eskatzen du: *bafleak konpondu(ak izan) daitezten*. Baina, egitura pasiboek ez bezala, osagarri zuzena eraman dezakete halakoek: *Lokarriak aldatzera ekarri ditut zapatak*. Inoiz anbiguotasuna gerta daiteke egiletasunezko arruntaren (osagarriaren objektua egile) eta beste molde berezi horrelakoen artean: *Analisiak egitera bidali du aita*. Pragmatikoki erabakitzen da hor ‘aita’ horren papera zein den: berak analisiak egin (egiletasun arrunta) ala berari (norbaitek) analisiak egin (molde berezia).

Molde berekoak dira beste predikatu hauek ere: *akuilatu/kitzikatu, altxatu (du), animatu (du), apaldu (du), atera (du), bortxatu (du), bidali/igorri (du), bultzatu, eman (du, Ipar.), gogatu/limurtu, jaitsi (du), kondenu (du)...*

## 3. -TZERA UTZI moldea

[+/-egilea]

Kontrola objektuak

Sail bat osatuko luke, ekialdeko erabileran, *-tzera utzi* moldeak, berak bakarrik. Izan ere, ekialdean, 2. sailekoen joskera berera biltzen da *utzi* predikatua, baina egiletasunik gabekoak ere hartzen ditu: *Hark ez lituzke utziko horrela jokatzera/usteltzera*. Mendebaldeko erabileran, joskera bana eskatzen dute

egiletasunezkoak eta besteak (§ 30.6.3.3.1e): *Hark ez lieke utziko horrela jokatz-en; Hark ez lituzke utziko horrela usteltzen.*

Hona *-tzera* perpausen zenbait adibide: *Semea ohandotarren etxera joatera eta Karlosi barkazioa eskatzera behartu nahi izan zuen* (Navarro); *Piano-ikasketen egitera igorri nahi izan zintuen* (Montoia); *Hizketan jarraitu zuen Madame Beylek, ni bere museoa bisitatzera gonbidatu izanaren misterioa argituz* (Lertxundi); *Bulego hartara ikerketa bat egitera bidali ninduten* (Olarra); *Galdetzera ausartu nintzen zer zela eta joan nahi zuen Paderbornera* (Ladron Arana); *Bada baldin izanen bada firmetasunik gero, behar da perseberatzera eta firme egoitera enseiatu orai* (Axular); *Lehiatu zen hari bere atsegina seinatzerat: bazakizkien bisita hari zarraizkon obra miragarriak* (Larregi).

**30.6.3.4c** *-TZERA joan*, *-TZERA eman* aditz perifrasiak. Bi aditz perifrasi osatzen dituzte *-TZERA* perpausok: *joan* aditzarekin lehena, *eman* aditzarekin bigarrena.

**30.6.3.4d** Aspektu inkoatiboa (§ 23.2.2.2c, § 23.2.2.2d, § 23.2.2.2f) adierazteko erabiltzen dugu *-TZERA joan* perifrasiak: *Hori esatera zihola, isildu egin zen bat-batean; Horra, desagertzera doa bera ere* (M. Etxebarria). Aski erabilera zabalduta du tradizioan ere, baieztapenetan bederen, eta adizki sintetikoe-kin ere bai: *Kantatutzera nua bistan ikusiya* (Xenpelar); *Zure solasak niri damu egitera dohazi* (Duvoisin); *Bekatu baten egitera zoazinean* (Axular); *Dei egitera nuako Praiskari* (Mogel). Perifrasi honen ondoan baditugu bestelako egiturak ere aspektu ‘inkoatiboa’ adierazteko, hala nola, *-tzeko zorian egon/izan*, *-tzear egon/izan* edo *-tzeko izan*: *Hiltzeko zorian da(go)*; *Erortzear da(go)*; *Oraintxe/laster/laurki jaisteko(a) da*.

Aspektu inkoatiboa adierazten ez duten *-tzera joan* perifrasiak ez dira hain naturalak, perifrasiarik gabeak izaten baitira aukeran: *?Ez noa esatera zer pentsatzen dudan* [ez dut esango zer pentsatzen dudan]; *??Goazen idatzera batuaren emaitzak* [idatz ditzagun batuaren emaitzak]; *???Ahoa zabaltzera joan/joaten denean...*

Ez da zalantza handirik izaten benetako gobernatzaile-osagarri antolaera duen *-TZERA joan* eta bestea, perifrasiak, bereizteko. Lehen kasuan beregaintasuna

dute *zertara* osagarriak eta *joan* aditzak, joskeraz eta esanahiz: *Banoa. Zertara? Lanak egitera*. Perifراسي inkoatiboa denean, ostera, osagaiak ez dute halako beregaintasunik: *Isiltzera noa. \*Banoa. Zertara? Isiltzera*. Bestalde, hitz ordena ere askeagoa dute perifrasiak: ??*Kantatzera nator bertso bat edo bi* [bertso bat edo bi kantatzera nator] / *Kantatzera noa bertso bat edo bi* [kantatuko ditut / kanta ditzadan bertso bat edo bi].

**30.6.3.4e** *-TZERA eman* moldeak esapide berezi batzuk ematen ditu (*jakitera/aditzera/ezagutzera eman*) perifrasiat jo beharrekoak, esaldiak hartzen dituen osagaiak *emani* baitagozkio, eta ez *-tze(ra)* aditz izenari. Esanahiaren aldetik, *jakinarazi*, *adierazi* edo *ezagutarazi* aditzak dira perifrasi horren sinonimo hurbilak. Halakoetan, bada, ez da *perpaus* osagarririk, aditz izenaren bestelako erabilera bat baizik, aditz lokuzio finko bat osatzen duena: *\*[Berlinen ezagutzera] eman du filma / Ezagutzera eman du filma, Berlinen / Berlinen eman du ezagutzera filma*.

### 30.6.3.5. *Perpaus osagarri molde batzuen berezitasunak*

*Perpaus osagarri* jokatugabeen atzizkiak aztertu ditugu, banan-banan. Baina atzizki batzuen eta besteen arteko alternantziak ere gertatzen dira predikatu gobernatzaileen arabera. Lehen ere aipatu dugu nahiko orokorra dela gobernatzaile berekin *-tzen/-tzera* alternantzia: lehena mendebaldekoa, ekialdekoa bigarrena (§ 30.6.3.3.1, § 30.6.3.4a). Orain arte emandako informazioa osatzera datoz hurrengo lerroak.

#### 30.6.3.5.1. *-tzen, tzera eta -tzeko alternantziak*

**30.6.3.5.1a** Badira bai *-tzen* eta bai *-tzera* perpausekin konbinatzen diren predikatu gobernatzaileak: *saiatu, en(t)seiatu, aienatu...* Bereizketa orokorra mendebalde/ekialde dela esan dugu, baina, hizkera bakoitzarena da aukera. Ekialdean: *Nola oraidanik behar dugun, geroko begira egon gabe, ontasunean irautera eta perseberatzera enseiatu* (Axular); *Zein tenplearen profana-*

*tzen ere enseiatu izan baita* (Leizarraga). Gipuzkeraz: *Ta elkar ezagutzera saiatzen ez geralako* (Barriola); *Eta uste onekin kanta, musika, festa eta jostaketan bidez, bere konzienzi galduaren imurtzi eta kezka aienatzera al guziaz saiatzen zan* (G. Arrue). Saiatu predikatua tradizioan *-tzeko* osagarriarekin ere agertzen zen: *Begira gurasoa, aurdun ez geratzeko saiatu ote zeran* (Agirre Asteasukoa).

**30.6.3.5.1b** *-TZERA/-TZEKO* alternantzia du *prest izan/egon* predikatuak: *Adiskide minduarena egiteko prest nengoen* (Epaltza); *Baina zure malurek hunkitu naute, haiek ematzearren zernahi egitera prest egoteko heineraino* (Jon Muñoz). Alternantzia erakusten dute honako predikatu konplexu hauek ere:

*-TZEN/-TZEKO zail(a)/erraz(a) izan*: *Ingelesak eta ipar amerikarrek gustuko duten izen original horietako bat da, eta haien hizkuntza aldrebesetan esaten erraza da* (Zubizarreta); *Sendatzen errazak diren gaitz infekziosoen ondorioz hiltzen dira urtero milioika lagun* (Berria); *Izkribua ez da irakurtzeko zaila* (Arkotxa); *Senarraren trajea saltzeko zaila da* (J. Zabaleta).

*-TZEN/-TZERA/-TZEKO trebe/abil izan*: *Bera zen polizien aurka edozer aurtikitzeko trebeena* (Borda); *Laurehun mila gudari ziren, ezpata erabiltzen trebeak* (Elizen arteko Biblia); *Trebe baino trebeagoa izan da beti hitz berriak sortzeko* (Mitxelena); *Etzen trebe izandu bere etxean Jesus artzera* (Mendiburu).

#### 30.6.3.5.2. *-tzea* eta *-tzen* predikatu berarekin

**30.6.3.5.2a** Predikatu gobernatzaile berarekin aukerakoak direnean, ez dute zentzu bera *-tzea* eta *-tzen* perpausek. Lehenak gertakari bat adierazten du: *Tangoa dantzatzea ahaztu zaio* [tangoa dantzatu behar zuen eta ahaztu egin zaio hori egitea]. Bigarrenak, ostera, jarduera: *Tangoa dantzatzen ahaztu zaio* [lehen bazekien eta orain ez. Ahaztu zaio (ez daki jada) hori egiten].

Bereizkuntza bera dugu, oinarrian, *zail(a)/erraz(a) izan* predikatuarekin ere, nahiz esanahia bestelakoa izan: *Zaila da (bihar/nik/hark) tangoa dantzatzea*

[zaila da hori gertatzea; ez dut uste dantzatuko dudanik]; *Zaila da (jendaurrean) tangoa (ongi) dantzatzea* [zaila da jarduera hori].

**30.6.3.5.2b** Aukerakoa da halako predikatuekin perpaus nagusiaren subjektu bihurtzea jardueraren gaia dena: *Tangoa zail(a) da (ongi) dantzatzen*; *Azkartasuna badegu baño / artzen zaila da neurriya* (Txirrita). Kasu horretan, predikatu osagarri konplexu bat osatzen du [(ongi) dantzatzen zail(a)] sintagma. Hizkera batzuetan, joskera eta adiera berean erabiltzen da *-tze*ko *zail(a)/erraz(a) izan* aldaera: *Berantago eginez, umeak negukotzat heldu dira eta ez dira hazteko hain errex* (Duvoisin).

### 30.6.3.6. Perpaus osagarri jokatu gabe burutuak (-tua nahiz -tu izana)

**30.6.3.6a** Perpaus osagarri jokatu gabeen ezaugarrien artean aipatu dugu aspektu gabeak izatearena eta denbora markarik ere ez izatea. Hala ere, esan dugu predikatu gobernatzaile gehienek badutela joera aski nabarmena, beren semantika dela eta, osagarriaren denbora-interpretazio jakin bat behartzeko edo iradokitzeko. Beste modu batera esanda, osagarrian adierazten den denbora ez da absolutua, perpaus nagusiarekiko erlatiboa baizik. Alegia, osagarriak adierazten duen egoera perpaus nagusiak adierazten duenaren *aurretiko*, *aldiberekoa* edo *ondokoa* izango da. *Aurretiko* interpretazioa bultzatzen duten predikatuen (*damutu*, *barkatu*...) osagarriek, aldaera gisa, mendeko aditzaren aldaera burutua har dezakete: *damutu/barkatu egin (izan)a*.

**30.6.3.6b** Aldaera burutua izango dugu, beraz, aukeran *aurretiko* interpretazioa markatu nahi dugun bakoitzean *-tzea* osagarriekin (eta horretan oinarritzen diren gainerakoekin: *-tzeak*, *-tzeari*, *-tzeaz*, *-tzearekin* eta abar). Aldaera burutua markatzeko tradizioan partizipio burutu gabe soila, artikuluz lagundua, baliatu izan da: *-tua*. *Eta ekusi zuenean, munduko gizonen asmoak eta gogoetak gaitzera beti eta geiago makurtuz zijoazela*, damutu zitzaion *Jaungoikoari gizonak egiñaz* (Mendiburu); *Alako moduan, non, gizona sortua eta egiña Jainkoari damutu zitzaion, zeren mundu guzia gaiztakeria eta bekatuz betea ikusten zuen* (Lardizabal); *Ez du Jaunak ahaztuko aitari on*

*egina*, zeure bekatuen ordainetan hartuko dizu kontuan (Elizen arteko Biblia); Hala ere ez zidan *eskertu* bere borondateari *muzin egina* (Epaltza). Baina indarra hartuz eta nagusituz joan da aldaera burutu ‘indartu’ dei deza-keguna (-tu izana) eta nekez aurkituko dugu gaurko corpusetan partizipio burutu soila: *Ez da, beraz, harritzekoa luzaroan fonologialari gehienentzat ere ezkutatuta egon izana bilakabide ezkutuen existentzia* (Oñederra); *Hunkitu xamar utzi ninduen neuri begira hori esan izanak* (Elosegi); *Eta, ai, nola eskertu nion amari egun haietan ene ondoan egon izana!* (Irigoién); *Bilbotik ez alde egin izanaz damu zen* (Zulaika); *Emazteak are galantago iritziko dio [...] bestea Ingalaterrara hegazkinez joan izanari* (Jimenez); *Ni neu ez nago, esaterako, Le Pen-en aukera faxista aurrera joan izanarekin batere kezkatua* (H. Etxeberria). Partizipio burutu soilak gaur erlatiboazko jokatu-gabeen balioa du (§ 25.2.4a, § 31.5.2.1c): *esana = esan(dako)a, saldua = saldu(tako)a* eta abar.

Nolanahi ere, aldaera burutua aukerakoa da. Ez dago goiko adibide horiek guztiak dagozkien -tze formarekin eman ezinik.

#### 30.6.4. Izenaren mendeko adierazpen perpaus osagarriak: jokatuak eta jokatu-gabeak

Kapitulu honen sarreran esan bezala, izenak ere izan daitezke adierazpen perpaus osagarrien gobernatzaile: *uste, susmo, zurrumurru, esperantza, aitza-kia...* Izena gobernatzaile denean, osagarria haren izenlagun da. Beraz, izenlagunek izan ohi dituzten atzizkietako bat hartzen dute: -(e)n edo -ko, azken hau -(e)la menderagailuari erantsia -(e)lako, § 21.7.4.2h).

##### 30.6.4.1. Perpaus izenlagun adierazpenekoak

Izena gobernatzaile duten adierazpen perpausak aztertuko ditugu ondoren, bai jokatuak zein jokatu-gabeak.

## 30.6.4.1.1. Adierazpenezko perpauos izenlagun jokatuak

**30.6.4.1.1a** *-e(n)* menderagailua hartzen dute sarritan *uste*, *susmo*, *beldur*, *esperantza* eta horrelako izenen mendeko perpauos osagarriek: *Badira oraindik [lurra zapala den ustea] baztertu ez dutenak*; [*Euskara Afrikatik datorren hipotesia*] *defendatu dute batzuek*; *Ez dakit, baliteke oker ibiltzea, baina [hortik joko duen susmoa] daukat* (J. Zabaleta); *Berriro ere [neokolonialismo amerikarra etorriko den beldurra] hautematen da nonahi* (E. Agirre). Izenak gobernatzen dituen adierazpen perpauos osagarrien *-e(n)* menderagailu hau ez da nahasi behar, jakina, erlatibozko egituretakoekin (§ 31.4): *etorriko den susmoa* (osagarria) / *erosi dudan liburua* (erlatiboa).

Erakuslearekin, eta izena isilpean utzita, esapide gisako hauek egiten dira: *Diru asko irabazten duen horrekin harro-harro dabil*; *Seme bakarra den horrekin, nahi duena egiten du*.

**30.6.4.1.1b** Aurreko atalean ikusi ditugun *-e(n)* menderagailua duten adibideetan berdin-berdin ager zitekeen *-(e)lako* menderagailua ere. Menderagailu hau hartzen duten osagarri jokatuak batzuen agerian izaten dute gobernatzen dituen izena; beste batzuetan, ostera, isilpean utz daiteke gobernatzailea.

[*-(e)lako* + izena] egitura agerian dutenak. Mota honetako egituretan, izen gobernatzaileak balio semantiko bat baino gehiago izan ditzake: komunikaziozkoa (*berria*, *zurrumurrua*, *hitza*, *kontua*...), iritizkoa (*ustea*, *susmoa*, *esperantza*, *aitzakia*...), balizkoa (*hipotesia*, *iritzia*...) edo arretazkoa (*kezka*...). Perpauos osagarriak, kasu hauetan, delako berriaren, ustearen, iritziaren edo kez karen edukia zein den ematen du aditzera. Hona adibide batzuk: [*Ondamena gainera datorkiolako beldur*] *da bera ere* (Mitxelena); *Bestalde, badira [...] [botere gorena deuseztatuta gelditzen delako ustea] izan dezaketenak* (Antxustegi); *Bere pisua zenaren leihoak zabalik daude, [nor bait bizi delako seinale]* (Zaldua); *Orain dela 2.000 urte baino lehenagotik izan dira [jendea txingar gorien gainean ibili delako berri fidagarriak]* (Aldasoro). Azken adibide honetan izen gobernatzaileak izenondoa ere hartu du ondotik.

“Ondamena gainera datorkiola” *beldur izan* edo “botere gorenaren deuseztatuta gelditzen dela” *uste izan* egituretako perpaus osagarriari izenlagunen *-ko* marka erantsita eratzten ditugu goiko adibideen parekoak.

Erraz bereizten dira, bestalde, *-(e)lako* adierazpen perpaus osagarriak (izena gobernatzaile dutenak) eta *-(e)lako* kausazko adjuntuak (aditzaren mende daudenak, aditza modifikatzen dutenak): *Berandu dabiltzalako susmoa* (osagarria) / *Berandu dabiltzalako egin die errieta* (adjuntua).

Bereiztekoak dira, halaber, *-(e)lako* izenlagun osagarriak eta forma bereko erlatibo subjektiboak (§ 31.4.3.12). Osagarria konplementazio-erlazioan dago gobernatzen duen izenarekin; erlatiboak, aldiz, ez du horrelako erlazioerik eta, beraz, hemen ikusi ditugun izen gobernatzaileez bestelakoak ere izan ditzake ardatz: *Etsairik ez duelako gizona ez da gizon* (erlatiboazkoa), ‘etsairik ez duela dioen gizona’ edo horren antzeko zerbait adierazten duena.

**30.6.4.1.1c** Izen gobernatzailea isilpean dutenak. Batzuetan ez da ageriko izenik izenlagun osagarrietako *-(e)lako* menderagailuaren ondoren. Baina, izena isilpean utzi arren, mugatzailea gordetzen da: *-(e)lakoa* (nahiz *-(e)lako* + erakuslea) izango dugu orduan menderagailu. *Eroste-agiriaren gastuak ere berak ordainduko zituelakoa entzunik*, *Pliushkinek kontu egin zuen bisitariak ergel okitua behar zuela* (Morales); *Txantxangorrien irudi-arduradunak ukatu egin du [...] txantxangorriek papoan daramaten odol arrastoak txepetxan hilketekin zerikusirik duelakoa* (Joxerra Garzia); *Eta ilargiak [...] oparia berekin ekartzen duelako hori* (P. Zabala); *Nolako txorakeria zen egunero euria ari zuelako hori, guk bistan baikenuen ez zela hala* (X. Mendiguren Elizegi). Ahozkoan erabiltzen dira, batik bat, postposiziodun beste egitura hauek: *Diru asko irabazten duen horrekin*, *harro-harro dabil*; *Seme bakarra delako horrekin*, *nahi duena egiten du*.

Inesiboaren marka ere har dezake *-(e)lako* izenlagun osagarriak. Beraz, inesiboan doan postposizio sintagmatzat hartuko genuke *-(e)lakoan* eta, horrenbestez, adberbialtzat menderagailu hori daramaten osagarriak: *Trafalgar-en nork bere eginbeharra egingo zuelakoen zegoen Ingalaterra* (Mitxelena); *Atzera hizketan hasiko zelakoan egon zen, baina isiltasuna luzatzen ari zela ikusirik*,



*irribarre ilaun batez galdegin zuen* (Zubizarreta); *Segituan, kanpora atera nintzen eskuan argi bat nuela, ni salbatzera abiatuiko jendea izango zela-koan* (Atxaga); *Eguerdiak gertu behar zuelakoan, katedralerantz jo zuen* (Lertxundi).

... *-elako ustean*, ... *-ela uste izanik* eman daitezke goiko adibide horien parafrafitzat. *Egon* aditzarekin agertzen da sarri *-(e)lakoan*, baina ez beti goraxea-goko adibideetan ikusi ahal izan dugunez.

Iparraldeko euskalkietan kausa-edo adierazteko erabiltzen da menderagailu hau: *Bi hitzez esplikatzan dit artzainak bere ardiak bordara eramaiten dituela, goizeko alha eginga delakoan, eta arratsaldeko eguzkia heldu* (Aintziart).

Hemen ere, ez da nahasi behar *-(e)lakoan* izenlagun osagarria oinarri duena, *uste, susmo...* isilpean dituen, eta forma bereko erlatiboa, burua isilpean duena: *Elkar ezagutu, Floridan, Miami Beach delakoan, ezagutu zuten, 1934an* (Jimenez). ‘Miami Beach esaten zaion lekuan’ izan daiteke adibide horren parafrafi egokia.

**30.6.4.1.1d** Erabide okerreko erabilera batzuk. Hemen aztergai izan ditugun *-(e)n* eta *-(e)lako* menderagailuen orde, behin baino gehiagotan aurkitzen ditugu azken urteetako testuetan izenlagun osagarriak adierazteko *-(e)naren*, *-(e)laren* (neurri apalagoan baita *-(e)neko* ere). Okerrak dira forma horiek guztiak izenlagun osagarriak adierazteko: *\*Datorren urtean ezkonduko zarela berria hedatu da*; *\*Hori haserretu delaren seinale da*; *\*Gauzak hobetzen ari direnaren seinale da hori*; *\*Kontratua sinatuko dutenaren hitza eman diote elkarri*; *\*Erraz irabaziko zuteneko ustea zabaldu zen...*

Ikus Euskaltzaindiaren 116. araua: “*-eLAKO* eta *-(e)n* atzizkiak izenak gobernaturiko perpaus osagarrietan”, Iruñean, 2001eko martxoaren 30ean onartua.

Berririo esan, *-(e)n* eta *-(e)lako* (eta honen gainean eraikitakoak) dira izenlagun perpaus osagarriak emateko forma zuzen bakarrak. Horrek ez du esan nahi euskaraz *-(e)naren* zuzena ez denik buru den izena isildurik duten erlatiboz-

koetan: *Esan duzunaren erdia gezurra da* (§ 31.4.3.13). *-(e)neko* menderagai-lua, erabiltzekotan, denbora edo lekua adierazten duten erlatiboetan erabiltzen da: *Hura iritsi zeneko eguna*; *Hura bizi zeneko etxea* (§ 31.4.8.2a).

### 30.6.4.1.2. Adierazpenezko perpaus izenlagun jokatugabeak

**30.6.4.1.2a** Aurreko puntuan landu ditugun perpaus izenlagun jokatuak bezalaxe, izena dute gobernatzaile ondorengo lerroetan aztertuko ditugunak. Perpaus osagarriak izenlagun bihurtzeko hartzen duen markari/atzizkiari erreparatuz bereiziko ditugu *-ko* postposizio atzizkia hartzen dutenak (*-tze*ko perpausak eta aldaera burutua oinarri duten *-tutako* perpausak), eta *-(r)en* izenlagun marka hartzen dutenak (*-tzearen* perpausak).

*-tze*ko perpaus izenlagunak. Izen kategoriako gobernatzailea dute adierazpen perpaus jokatugabe hauek. Formaz, *-tze*a osagarri jokatugabeari *-ko* erantsirik sortzen ditugu horrelako perpausak: *euskara ikastea erabaki dute gure lankideek* > *euskara ikasteko erabakia hartu dute gure lankideek*. *-(e)la* adierazpen perpaus osagarriak ere badituzte ondoan horrelakoek. Ez da erraza, dena den, bereiztea izena den gobernatzailea ala izen hori barnean duen predikatu konplexua: *-tze*ko erabakia / *-tze*ko erabakia hartu. *Etxera lehenbailehen itzultzeko erabakia hartu du*.

*-tze*ko adierazpen perpausen gobernatzaile izan ohi diren izenen artean daude: *arrazoi*, *beldur*, *erabaki*, *iritzi*, *keinu*, *kezka*, *lotsa*, *ohitura*, *uste*, *zantzu...* *Kontra bihurtuko zaio ikasketak uzteko erabakia*; *Ez du bere kontuak agertzeko lotsarik*; *Hain zen nabaria, herriko giroan, gai haren inguruan zerbait esateko beldurra* (Irigoién); *Banuen [Imanolek ezetz esateko beldur pixka bat]*, *uko egingo ote zidan beldurra, baina ez zen halakorik gertatu* (A. Arana); *[Aitaren begiak legortzeko ustian] esan zion: Bai, orrelakuak ez dira beti-beti uste bezain urrikarri izaten* (Beobide); *Arraunak eskuetan zituala, irte-zeko zantzuaren zai zegoen bitartean, odola irakitan zebilkion* (Barrenso). Adibide batzuetan zalantza sortzen da zein den gobernatzailea izen soila ala izena barruan duen predikatua: *lotsa izan*, *beldur(ra) izan*.

-*tzeko* forma bera hartzen dute ondoan subjuntiboko osagarria dutenek ere: *isilik egon gaitzen agindu digute > isilik egoteko agindu digute > isilik egoteko agindua eman digute*. Hiru adibide horietatik lehen biek aditza dute gobernatzaille (subjuntiboko osagarria jokatua izan zein ez); hirugarrenean, aldiz, gobernatzailatzat har daiteke bai *agindua* izen soila, bai *agindua eman* predikatua ere (§ 30.7.2.1) aztertzean Nolanahi ere, bistan da ez direla adierazpen perpaus jokatugabeak, informazio soilaz haragokoa adierazten dutela.

**30.6.4.1.2b** Gainerako genitibo sintagmak bezala, bi balio izan ditzakete *-tzearen* perpausak ere. Batetik, eskuinean daramaten izenaren osagarri argumentalak izan daitezke (§ 18.6): *zeren beldur(ra), zeren behar(ra), zeren arrazoi(a)*... *Gaizki hiltzearen zara beldur, eta ez gaizki bizitzearen* (Axular); *Badiagu hik eta nik elgarren laguntzearen beharra bizitzeko* (J. Etxepare); *Ez baitzitzaidan axola [bere ondoko hotelean ostatu hartzearen arrazoi benetako] asmatzea ere* (Saizarbitoria). Beste modu batera esanda, *-tzea, -tzeak* edo *-tzeari* egiturazko kasuek aditzarekiko betetzen duten rol semantiko bera betetzen dute *-tzearen* perpausak izenarekiko: *-tzeak ematen didan kezka > -tzearen kezka, -tzeak ematen didan lotsa > -tzearen lotsa; -tzea behar dut > -tzearen beharra; -tzeari diodan beldurra > -tzearen beldurra*.

Beste batzuetan perpaus jokatugabeak adierazten duenaren eta izenak adierazten duenaren arteko ekuazioa edo berdintasuna adierazten du [-*tzearen* + izena] sintagmak: *Gogoan geratu zait Gorriak esan didana, eta ulertu nahi nuke [uhin eraztunak hartzearen ideia hori]* (Sarrionandia). Adibide horretan, *uhin eraztunak hartzea da ideia* edo *uhin eraztunak hartzea = ideia* ulertzen dugu. Hala gertatzen da beste adibide honetan ere: *Hitx emaiten badak ene izena ixilduko dukala, errain diat nork igorri zien hemendik Ameriketarat [hire anaiaren hiltzearen berria], agertarazteko “Eskualdunan”* (Manezaundi). Hor, *berria = hire anaiaren hiltzea* irakurtzen dugu.

Askotan, gertatutako zerbait adierazten du *-tzearen* perpausak: *Baina aitak ez zion argitzen [alaba hazita ikustearen pozaz] erdibituko ote zen amaren bihotza, ala kalesako kondenaren penaz* (Lertxundi); [...] *ikaratu zan, ustetik beste mundukuak-edo eldu eutsoela, [txiliña jotiaren zigorbidez]* (Kiri-kiño); *Grazia da Jainkoak gu bere haurtzat hartzearen zigilua, gure noble-*

zia guziz goraren titulua (Jauretxe). Adibide horietan guztietan zentzu perfektiboa hartzen du *-tzearen* izenlagunak, burutua den gertaera bat adierazten baitu.

Zentzu perfektiboa duten heinean, *-tzearen* formaren ondoan aurkituko dugu askotan *-tu (izan)aren* aldaera burutua (§ 25.2.4b): *Pistolaren dirdira hura zen [biktorian parte hartu izanaren] froga* (Sarrionandia); *Egun egokia aukeratu zuen bai, nahiz eta [bide hura lehenago egin izanaren] irudipena eta [une hura lehenago bizi izanaren sentipena] zituen* (Cano); *Atari zaharraren aurrean eskularruak kentzen zituen, giltza bilatu, eta berriro [bere lagunari traizio egin izanaren sentsazioa] izaten zuen* (Olarra); *Orduan ohartu zen ez zuela [aurreko asteetan ikusiaren akordurik] ere* (K. Izagirre); *Beren herria ez dezaten utz hobe baten esperantzaz, / [urrunduaren damu samin hau] heiek ez dezaten jasan* (Xalbador); *Trenez bidaiatu behar ez zuen arren, [joanaren sentimendua], haren hurbiltasuna, astun etorri zitzaizkion gainera* (Olmo).

**30.6.4.1.2c** Adiera perfektiboa dute *-tutako* osagarri jokatugabeek ere. Alde horretatik ikusi berri ditugun balio bereko *-tzearen* eta *-tu izanaren* moldeen pareko dira. Gaurko testuetan nekez aurkituko ditugun arren, badira *-tutako* osagarri jokatugabearen adibideak (*Auspoa* saileko lanetan, esaterako): *Ez nuan berari laguntzera joandako penarik ekarri* (B. Barandiaran); *Seme on baten gisan nai dizut erantzun / ni azitako penik izan ez dezazun* (Lasarte); *Egunen batean ohartuko gera nolako lana egin duen gizon honek. Eta Sendoak horrekin batera saiatutako poza izango du* (Berria); *Txoria baiño alaiago nentorreken, soldaduska bukatutako pozean* (Ataño); *Ura galdutako samintasuna ez zait beñere joango* (Altzaga); *Txapelketaren batean ere entzundako susmoa daukat* (Ataño). Izena dute gobernatzaile gainerako osagarri izenlagunek bezala: *pena, poz, hots, itxura, samintasun, atsekabe, damu, susmo, seinale, marka, froga...* *-tutako* osagarri jokatugabeen baliokide dira *-(e)lako* jokatuak: *Hura galdutako samintasuna = Hura galdu nuelako samintasuna; Lehen ere kontu bera entzundako susmoa dut = Lehen ere kontu bera entzun dudalako susmoa dut*. Molde honen ordeztu, *-tu izanaren* nagusitu da gaurko testuetan.

### 30.7. 'Agindua, eskea, erregua' adierako predikatuen osagarriak

Atal honetan aztertuko ditugun perpaus osagarriak ez dira adierazpenezkoak, ez dute zerbait adierazte hutsa egiten. Nahia, agintea, eskea, erregua, desioa eta antzekoak adierazten dituzte. Gobernatzaileak, beraz, mota batekoak baino gehiagokoak izan daitezke:

- hitzunaren iritzi-jarrera adierazten duten predikatuak: *on da, hobe da, beharrezkoa da, beldur izan, komeni izan...*
- gogo-jarrera adierazten duten predikatuak, *nahia* edo *desira* adierazten dutenak (*nahi izan, opa izan...*), zerbait egiteko *eskaera* edo *erregua* adierazten dutenak, *agindua* edo *debekua* adierazten dutenak;
- zenbaitetan, aipamenak abiarazten dituzten *esan* bezalako aditzak izaten dira gobernatzaile, aginte perpausak mendean hartzen dituztenak: *liburua itzul dezadala esan didate, hitzik esan ez dezagula adierazi digute*;
- agintera ere subjuntibo bilakatzen da, mendeko egiten denean: *poliki ibil gaitzela esan digute*;
- beste zenbaitetan, gobernatzailea isilpean geratzen da edo bestelako aditz baten mendean dagoelarik (*Mikelek deitu zigun, lehenbailehen joan gintezela*) edo perpausari lokabe itxura ematen diolarik (*egun ona izan dezazula!*).

#### 30.7.1. Perpaus jokatuak

##### 30.7.1.1. Subjuntibozko forma eta menderagailua

**30.7.1.1a** Subjuntiboko forma hartzen du erregua, nahia, eskea, agindua... adierako predikatu gobernatzaileen osagarriko aditzak. *-(e)n* edo *-(e)la* izaten dira menderagailuak. *-(e)n* da menderagailu nagusi eta orokorki erabiltzen dena. *-(e)la* predikatu batzuekin baizik ez da erabiltzen. Hegoaldean, *eskaera*

edo *agindua* adierazten duten predikatuekin ageri da batez ere eta baita, inoiz, ez beti, *nahia* adierazten duten predikatu batzuekin ere. Iparraldean, berriz, predikatu gutxirekin erabiltzen da menderagailu hau: *agindua* adierazten duten batzuekin zenbaitetan, ez beti. *-(e)la* erabiltzen da, halaber, euskalki guztietan, mendeko perpausa nagusitik ‘bereiz’ denean edo lokabe itxura duenean: *Horixe nahi dugu, ondo senda dadila; Aitak deitu zigun, joan gintezela lehenbailehen; On degizula!* Berehala ikusiko dugun moduan, subjuntiboko osagarri jokatuak ondoan dituzte *-tzea* nahiz *-tzeko* jokatuak.

**30.7.1.1b** Gobernatzailerik izan daitezkeen predikatu motak eta menderagailuak alderatuz:

- Iritzi-jarrerak adierazten dituzten predikatuek *-(e)n* hartzen dute. Gertakaria modu ebentual edo gertagarrian agertzen dituzten iritzi-perpausek *-(e)n* menderagailua hartu ohi dute. Esan bezala, *da* kopula duten predikatuak izaten dituzte horrelakoek maiz gobernatzailerik: *on da, hobe da, beharrezkoa da, ezinezkoa da, komeni da...* Baina bestelakoak ere izan daitezke, hala nola, *ongi/gaizki iruditu, ongi/gaizki aurkitu, beldur izan, kasu egin* eta abar. *Frantsesek beldur ziren lagunak ethor zakizkon indarka libratzerat* (Lafitte); *Komeni da, oso komeni ere, euskaldun guztion jakin eta zabal ditzagun* (Mitxelena); *Horiek hola, eta gorapenetan gure adimenduaren jorraia ibili ondoan, on da jauts gaiten ere beherapenerat* (Larzábal); *Etorri, berez-edo etorri ohi da, baina, etorritakoan, komeni da eserita harrapa gaitzan* (Joxerra Garzia).
- Nahia edo desira adierako predikatuak + *-(e)n/(-(e)la)*. *Nahia, gura* edo *desira* adierazten duten aditz eta predikatuen osagarriek ere *-(e)n* menderagailua daramate normalean, baina *-(e)la* ere har dezakete, batez ere mendebaldean: *nahi(ago) izan, gura(go) izan, opa izan...* *Neuk ere naiago dot guzurra izan dedin* (Agirre); *Bihotz-bihotzez opa dizut jarraikitasun hori elkarrekikoa izan dadin* (Jon Muñoz); *Eta Eurinomek, hornidura zaintzen zuen emakumeak, hala gerta zedila opa izan zion* (Igerabide); *Deseo diyot izan dezala / lenago ainbat kreditu* (Txirrita). *Ezen* ere ager daiteke mendeko osagarriaren buruan: *Nahi duzu zuk ezen egin behar zenuen deskargua eta egin ezazu zure ondokoak egin dezan* (Axular).

- Eskaera edo galdea adierazten dutenak + *-(e)n/-(e)la*. *Eskaera* eta *galdearen* adierazpenean bana dabilta euskalkiak menderagailuen erabileran. Iparraldean *galdatu* aditza erabili da batez ere (baina ez Iparraldean bakarrik) eta *-(e)n* da menderagailu ohikoena: *Amak galdatu zion Anitari kafesnea prepara zezan* (Landart); *Lagunarte hartan doi-doia sartua nintzela, galdatu zidaten aho batez arren otoi afaltzera joan nendin* (Jon Muñoz). Hegoaldean, berriz, *eskatu* (baita *erregutu* ere) da predikatu ohikoena eta *-(e)la* menderagailua: *Adituen Batzordeak Eusko Jaurlaritzari eskatu dio ziurta dezala D ereduko eskaintza leku guztietan eta maila guztietan eskaintzen dela* (Berria); *Disko batek himno nazionala jotzen zuen, non Jaungoikoari eskatzen zaion bedeinka dezala herri hura eta bertako herritarrak* (E. Mujika). Baina gaurko testuetan *-(e)la galdatu* eta *-(e)n eskatu* ere aurki daitezke: *Hori dela-eta, Zapaterori eskatu dio eragin dezan «gai hau ahal bezain laster konpontzeko»* (Berria); *Aita lanjerretatik begira zezala galdatu behar gauero amarekin batean* (Montoia).

*Utzi* aditzarekin ere *-(e)n* erabiltzen da: *Gero, poliziarri utziko diogu iker dezan eta mutil hori eta bere lagunak epailearen aurrera eraman ditzan* (O. Arana). Baita *gomendatu* predikatuarekin ere, mendeko osagarri jokatua hartzen duenean: *Maiz gomendatzen digute izan gaitezen bihotz onekoak!* (Jon Muñoz); *Horra zergatik gomendatu zioten beren Erregeri ez zedin higa hainbeste eginahal eta xahupidetan Errege Jaun Katolikoa, behargabe okaztatuz, baina halabeharrez, beste bide batzuk bila zitzan ordainetan* (Xarriton).

- ‘Agindua’ edo ‘debekua’ adierazten dutenak + *-(e)n/-(e)la*. Iparraldeko euskalkietan *manatu*, *erabaki*, *gonbidatu*, *debekatu* eta antzeko predikatuen osagarriak *-(e)n* menderagailua hartzen du gehienetan, baina *-(e)la* ere har dezake: *Jainkoak manatu zien mundu guzia jendez bete zezaten/zezatela; Berze kreaturak ere ditut gonbidaturen / ohore eta errespetu eman diezazuten* (Etxeberri Ziburukoa). Hegoaldean *agindu*, *debekatu* eta abarren osagarriek *-(e)la* menderagailua hartu izan dute: *Azkenik agindu eutsan sarri konfesau zedilla* (Uriarte); *Erabakitzen da, [fiatzalleak] ipiñi dezala zaldi, beor, mando edo mando-emea* (Etxegarai). Gaurko testuetan ere bi mende-

ragailuak ikus ditzakegu: *Agindu ezazu egin dezatela urkabe bat, hogeita bost metrokoa, eta bihar goizean eskatu erregeari urka dezatela han Mardoqueo* (J. A. Mujika); *Jainkoak agindu du mendi garai oro eta betidaniko muinoak apal daitezzen, eta sakanak bete* (*Elizen arteko Biblia*); *Erregeak agintzen du askatuak izan daitezela* (Iñurrieta).

*Ezen lokailua ager daiteke subjuntiboko osagarriaren buruan: [...] ama-lauean egiña, esaten ziolarik menazki ezen bere anaia ondraduak idurikatu zitzala eginpide guzti [...]* (Iztueta); *Erran harginari ezen taila dezala spiral bat ene hilarrian, epitafio gisa* (Irigoien).

- Lokabe itxurako subjuntiboek eta gobernatzailetik nolabait bereiz daudenek *-(e)la* menderagailua hartu ohi dute. Argi ikusten da bereizketa ondoko adibide parean, zeinetan bigarrenak daukan osagarria gobernatzailetik “bereiz”: *Hau ere egin dadin / desir dut agian* (Mattin) / *Bertze desirik ez tut egiten:/ zeruan gerta dadila!* (Mattin).

“Bereiz” izate hori modu askotara gerta daiteke: a) adizki nagusia isilpean izanik, osagarriak lokabe itxura duelako: *On degizula!, Jainkoak begira gaitzala!* Exhortazioa edo debekua adierazten duten esaldietan ere *-(e)la* erabiltzen da 2. eta 3. pertsonetan, subjuntiboko formak hautatzen direnean: *Ondo bizi zaitetzela*. Lehen pertsonako formak dira salbuespen horretan: *Nagoen isilik! Ez nadila gehiegi luza!*; b) mendeko perpausa aipamen zuzen gisa hartuta-edo ematen delako: *Esan daigun bada, ostera bere, santu andijagaz beragaz: ez gaizala inok eduki estutzat* (Frai Bartolome); c) mendeko perpausa egitura etenean txertatua delako: *Danok deseo bear deguna da bizi dedilla* (Apaolaza).

### 30.7.1.2. Ezaugarri batzuk

**30.7.1.2a** Adierazpen perpausetan ikusi ditugun ezaugarrietako batzuk ikus ditzakegu subjuntiboko osagarrietan ere: predikatu konplexuak ere izan daitezke gobernatzaile (*erreguka ari natzaio lagun diezadala*), gobernatzailea



isilpean gera daiteke (*haserre agertu zen, utz genezala esku artean genuena*), galde hitza adizki nagusiaren aurrean eman daiteke: [*Nor*] *nahi duzue [etor dadin]?*

Adierazpen perpausek bezala, *ezen* iragarlea izan dezakete lehen buruan: *Nahi dute [ezen denak joan gaitezen]*, nahiz maiztasun handikoak ez izan subjuntiboarekin. *Nahi duzu zuk ezen egin behar zenduen deskargua eta egin eztuzuna zure ondokoak egin dezan* (Axular); *Madrillera baño len, esaten ziolarik ezen ifiñi zitzala Gobernuako Sekretari guztiak lengo oñean* (Iztueta).

Perpaus nagusian aurrekari bat izan dezakete: *Hauxe eskatzen dizut gauzak ondo egin ditzazula; Hau da nahi duguna, zuk irabaz dezazula.*

**30.7.1.2b** *Nahi/gura* eta *behar* predikatu gobernatzaileek ez dute onartzen adizki nagusiko subjektu bera izatea. Erreferentziakidetasun debekua dute: *Ondo bizi zaitezen nahi dut; \*Ondo bizi nadin nahi dut*. Adizki nagusiak eta mendekoak subjektu bera dutenean adizki nagusia mendekoaren modalizatzailerik (aditz modal) bihurtzen dugu: *Ondo bizi nahi dut; Lan hori berak egin behar du* (§ 30.7.2.2d, § 23.4).

**30.7.1.2c** *On degizula! Egun on dizula Jainkoak!* eta gisa horretako esaldietan izan ezik, gaur egun aditz analitikoa erabiltzen da gehienik subjuntiboko osagarrietan: *Bere alboan egon gaitzezela agindu digu; ?Bere alboan gaudela agindu digu.*

## 30.7.2. Perpaus jokatugabeak

Subjuntibo perpausen pareko dira hemen aztertuko ditugun osagarri jokatugabeak: *Sartzeko agindu ziguten = Sar gintezen agindu ziguten; Komeni da irudiei ihes egitea = Komeni da irudiei ihes egin diezaiegun; On da denok zerbait egitea = egin dezagun; Lan gehiago egitea nahi dute gure ugazabek = egin dezagun/dezagula; Erreguka ari zitzaizkion bazkaltzen geratzeko = gera zedilla; Ahal duzun guztia egiteko eskatzen dizugu = egin dezazula; Liburu hori itzultzeko esan dit Josebak = itzul dezadala. Perpaus jokatugabeak hartzen*

duen atzizkiaren arabera, *-tzeko* perpaus osagarriak eta *-tzea* perpaus osagarriak bereiziko ditugu. Osagarri subjuntibo guztiak ordezka daitezke *-tzea* edo *-tzeko* osagarri jokatu gabekin. Jakina, aditz jokatuak ematen duen informazioa galduko da, baina, funtsean, esanahi bera eman daiteke modu batean zein bestean.

Zenbaitetan subjuntiboa erabiltzea maila jasoaren adierazgarri izan daiteke, Hegoaldeko euskalkietan batez ere: *Lehenbailehen sartzeko agindu ziguten / Lehenbailehen sar gintezela agindu ziguten*. Iparraldean, aldiz, nekezago gertatzen da bereizketa hori, subjuntiboaren erabilera aski ohikoa baita.

### 30.7.2.1. *-tzeko* perpaus osagarriak

#### 30.7.2.1.1. Subjuntibozko perpausen kideak

**30.7.2.1.1a** Hemen aztertuko ditugun *-tzeko* osagarriek, subjuntiboko perpausa dute kideko egitura jokatu, *-(e)n* zein *-(e)la* menderagailua hartzen duena: *Bost minutu falta dira trena iristeko / irits dadin [zerta(ra)ko]*; *Oraindik txikiegia zara horretan jarduteko / jardun dezazun [zerta(ra)ko]*; *Etxean gertatzeko / gera zaitetzela [zer] agindu dizute*; *Leihoak ondo itxita uzteko / utz ditzazuela [zer] eskatu dizuegu*. Adibide horietan berehala ikus dezakegu bi balio izan ditzaketela *-tzeko* perpausak: *batzuetan, zer?* galderari erantzuten diote; *beste batzuetan, ostera, zerta(ra)ko?* galderari. Nolanahi ere, *-tzeko* perpausen kasuan, sistematikoa da subjuntiboaren balio kidetasuna. Baina, balio kideak izanik ere, ohikoagoa da subjuntiboko jokatu erreferentziakidetasunezkoak ez direnetan; dena den, erreferentziakidetasunezkoak ere eman daitezke subjuntiboz: *Bost kilometro falta zaizkizue Oriora irits zaitetzten / iristeko*; *Besaulki bat falta dut sala osaturik edukitzeko / eduki dezadan*. Baina ez dira hain naturalak gertatzen.

Predikatu gobernatzailearen arabera da *-tzeko* osagarria molde batekoa edo bestekoa izatea. Ikus dezagun zein diren *zerta(ra)ko* moldeko *-tzeko* gobernatzen duten predikatuak eta zein *zer* moldekoa gobernatzen dutenak. Bide

batez, predikatu batek baino gehiagok kontrola ezartzen duenez (beste batzuek ez; erreferentziakidetasuna bai, baina ez kontrola), predikatu kontrol ezarle bakoitzaren ondoren emango dugu parentesi artean perpaus nagusiko subjektua, objektua ala zehar-objektua (datiboa) den kontrolatzailea: (Ks), (Ko) eta (Kd), hurrenez hurren. Predikatu berak, adieraren arabera edo hartzen duen laguntzailearen arabera, batzuetan ezarriko du kontrola, eta beste batzuetan ez.

**30.7.2.1.1b** *Zerta(ra)ko* moldekoak dira honako gobernatzaile hauen *-tzeko* osagarriak: *ahalegina(k) egin* (Ks), *aidutu/begira/esperoan/zain egon*, *arazoak/zalantzak izan* (Ks), *ardura/arta/kargua izan* (Ks), *arriskuan egon/izan/jarri da* (Ks), *aski/nahikoa/asko gutxi izan (du)*, *asmoa/gogoa izan* (Ks), *aukera/abagunea/egokiera/parada izan/galdu (du, Ks)*, *aukera eman* (Kd), *baimena eman (dio, Kd)*, *baimena eman (du/dio Kd)*, *balio izan*, *behar/nahi izan* (perifrasi modalak ez direnean), *desira/irrika falta izan*, *eginahala egin*, *falta izan (da)*, *falta izan (du, zai)*, *geratu (da)*, *handi/txiki(egi)a izan*, *libre izan/legon* (Ks), *moldatu (da, Ks)*, *ona/txarra izan*, *prest izan/legon* (Ks), *saiatu* (Ks), *trebatu (da, Ks)*, *trebatu (du, Ko)*.

Hona zenbait adibide: *Erantzun hori jaso izanak txarrena pentsatzeko aukera eman zidan noski* (Saizarbitoria); *Kalumniatzaile gisa zigortua izateko arriskuan jartzen du* (Elexpuru); *Eskatzen duzun diru kopurua handiegia da, berme gehiagorik gabe, inori emateko* (Iturbe); *Aldez aurretik trebatu da une jakin batean sor daitezkeen antzeko egoeren aurrean bat-bateko erantzun bat emateko* (Joxerra Garzia, Egaña, Sarasua).

**30.7.2.1.1c** *Zer* moldekoak dira, berriz, gobernatzaile hauen *-tzeko* osagarriak: *agindu (dio, Kd)*, *agindu (du)*, *agindu* ('ordena eman'), *arren/otoitz egin (dio, Kd)*, *erabakia hartu* (Ks), *erregutu (du)*, *erregutu (dio, Kd)*, *esan (dio, Kd, du)*, *eskatu (dio, Kd, du)*, *gomendioa egin (dio, Kd)*, *gomendatu (dio Kd, du)*, *iradoki (dio, Kd)*, *iradoki (du)*, *otoiztu (du, Ko)*...

AGINDU ereduko aditzak dira, oro har, goikoak, *-tzeko* aukeratzen dutenak, bai aditz soilak (*agindu*), bai aditz objektudunak (*agindua eman*, *gomendioa egin*...): *Agindua eman dizu atzera egiteko*; *Atzera egiteko agindu dizu*. *Agin-*

*du* aditzak badu beste adiera bat ere, ‘hitzeman, promes egin’, *-tzea* osagarria hartzen duena: *Opariak ekartztea agindu du*.

Literatura tradizioan bakarrik ez, erraz aurkituko ditugu horrelako adibideak gaurko testuetan ere: *Funtzionarioak itzaroteko erregutu dio* (Gorrotxategi); *Siriarekin bake elkarrizketak hasteko gomendatu diote Ariel Sharon Israelgo gobernuburuari* (Berria); *Aldi berean, Jerusalemgo gotorlekuko eta beste gotorlekuetako gudari-taldeak kentzeko eskatu zion Jonatanek Demetrioni* (Elizzen arteko Biblia); *Barre egin beharrean, iradoki zion halako pasabide bat beretzat egiteko* (Olarra); *Trolebusa edo zalgurdi bat hartzea gomendatzen zioten, baina trolebusak gauza handiegia zirudien, eta zalgurdia garestiegia zen* (Navarro).

**30.7.2.1.1d** Balio bateko zein besteko *-tze*ko perpausen gobernatzaileen kontrol-egitura molde batzuetara ekarriaz, honako sailkapen hau egin daiteke:

ERABAKIA HARTU moldea

Kontrola subjektuak

Molde honetakoak dira goiko predikatu asko eta asko: *ahaleginak egin, zain egon, arazoak izan, ardura izan, arriskuan egon/izan, asmoa/gogoa izan, aukera galdu, moldatu (da), libre izan, saiatu...* Askotan izena osagai duten predikatu konplexuak dira. Adizki laguntzailea, berriz, *da* zein *du* motakoa izan daiteke.

TREBATU *da/du* moldea

Kontrola subjektuak / kontrola objektuak

Molde honetako aditzetan, adizki laguntzailea argumentu bakarrekoa edo bikoia izateak dakar berarekin kontrola subjektuak edo objektuak ezartzea.

OTOIZTU *du* moldea

Kontrola objektuak

Ez dira asko molde honetakoak. Ohikoagoak dira *du/dio* jokoa duten predikatuak; lehenak ez du kontrolik ezartzen, baina bigarrenak datiboaren kontrola ezartzen du.

BAIMENA EMAN *du/dio*  
Kontrolik ez / kontrola datiboak

Molde honetakoak dira: *aukera eman, erregutu, eskatu, gomendatu, iradoki...*

ARREN *egin dio*  
Kontrola datiboak

Molde honetakoak dira [izena+aditza] egiturako predikatu konplexu asko: *gomendioa egin, eskaera egin...*

FALTA IZAN *da/du/zaio*  
Kontrolik ez / kontrola subjektuak / kontrola datiboak

BALIO IZAN moldea  
Kontrolik ez

Ikusi dugunez, predikatu batek baino gehiagok ez du kontrolik ezartzen. Horien artean daude *da* laguntzailea harturik, irakurketa inpersonala dutenak (*falta (izan) da* eta abar).

**30.7.2.1.1e** Kontuan izan behar da, dena den, helburuzko perpaus jokatuga-beetan ere ageri dela *-tzeko* (§ 37.4): *Arrautzak frijitzeko erosi dio zartagina aitari*. Baina behin baino gehiagotan agertzen da ‘zerta(ra)ko’ adierazten duen *-tzeko* perpausa izen baten ezkerrean: *Pastelak egiteko irina behar duzue; Hurbiletik ikusteko betaurrekoak jantzi ditu*. Anbiguoak dira azken bi adibide hauek; bi irakurketa onartzen dituzte. Batetik, ‘zertarako’ behar den irina edo

‘zertarako’ jantzi dituzten betaurrekoak (hau da, helburuzko adjuntu jokatu-gabea). Bestetik, [*pastelak egiteko irina*], [*hurbiletik ikusteko betaurrekoak*]; hau da, zein motatako / nolako irina, zein motatako / nolako betaurrekoak. Adibide horietako [-*tzeko* + izen] egituraren alternatibak izan daitezke beste hauek: *bexamela egiteko irina* edo *urrutitik ikusteko betaurrekoak*. Nolanahi ere, helburuzko adjuntu jokatu-gabeak dira hauek ere, izenaren ‘helburua’ edo ‘funtzioa’ adierazten dutenak. Aditz baten adjuntu izan ordez (*jantzi*, *behar izan*) izen baten adjuntu dira; hori da aldea. Baina horietan ez dago konplementazio erlaziorik, osagarri-gobernatzaile harremanik.

Badira beste esapide asko oinarrian *-tzeko* perpaus izenlagunak dituztenak. Horien artean aipa daitezke *-tzeko adina*, *-tzeko lain*, *-tzeko bezain*, *-tzeko beste...* konparazio esapideak. *-tzeko asmotan* esapidea, berriz, kausazko eta helburuzko perpaus jokatu-gabeetan aztertzekoa da, ‘zerbait egiteko asmoa’ esanahia baitu. Eta izen sintagmako izena isilik utzirik sortu dira baldintzazko kutsua duen *-tzeko* (*Berandu iristeko*, *hobe duzu ez joatea*) eta denborazko kutsua duen *-tzekoan* perpausak (*Hitz elkartzet berrietan*, *eta orobat zaharren artean hautatzekoan*, *bi indar ari zaizkigu beti lanean*, Mitxelena).

### 30.7.2.1.2. *-tzea* perpaus osagarriak, ondoan subjuntiboko osagarri jokatu dutenak

**30.7.2.1.2a** Lehen ere aritu gara *-tzea* perpaus osagarriez (§ 30.6.3.1.1), adierazpen perpaus osagarriak lantzean. Izan ere, zerbait ‘adieraztea’, informazioa ematea da *-tzea* perpaus horien eginkizuna. Eta, horrenbestez, beste predikatu batzuek gobernatzen dituzte perpaus osagarri jokatu-gabe horiek. Hemen, ondoan, baliokide, subjuntiboko osagarri jokatuak dituzten *-tzea* perpausak aztertuko ditugu, ‘agindua, erregua, debekua’... adierazko predikatuen mende daudenak.

**30.7.2.1.2b** Oro har, ‘agindua, eskea, erregua’... adierako predikatuak izango dira mota honetako *-tzea* perpausen gobernatzaileak; zehazki, goraxeago, § 30.7 atalean aipatu ditugun motakoak.

Hiztunaren iritzi-jarrera, balioespena, adierazten duten predikatu konplexuak (predikatu osagarri + *izan* egiturakoak) dira, esaldi asko eta askotan, *-tzea* perpausen gobernatzaile: *ona/txarra/itsusia/astakeria/harritzekoa/barkaezina/pozgarria izan, erraz/zail(a) izan (da)... horrela jokatztea*. Generikotasuna eta inbertsonaltasuna nagusitzen dira horrelako egituretan. Balioespen zentzua dute, orobat, bestelako predikatu gobernatzaile askok: (*ongi/gaizki*) *iruditu, (ondo/gaizki) hartu, komeni izan, merezi izan, atsegin/gorroto/gogoko/higuin izan, gogoko/maite izan, harrigarri/normal/zoragarri/egoki(a) izan/gertatu/iruditu, ontzat/bidezkotzat jo, atsegin/laket/atsekabe izan (zaio/du), gaitzetsi* (eta *etsi* bigarren osagai duten guztiak, oro har), *goraipatu/goretsi/laudatu, miretsi, onartu/onetsi...* *Ez zait ongi iruditzen haurrak hor bakarrik uztea; Ondo hartu al du bera saririk gabe geratztea?; Komeniko litzateke beste bide bat saiatzea; Ez zuen merezi hartan tematzea.*

Predikatu hauetatik batek baino gehiagok osagarriak adierazten duen ekintza edo gertaeraren *aurretiko* interpretazioa onartzen dute. Hortaz, *-tzea* osagarriaren orde, partizipio burutua *-tua / -tu izana* ere erraz aurki dezakegu (§ 30.6.3.6). Horrelakoak dira *axola izan (zaio), damutu (zaio), deitoratu, eskertu, gaitzetsi, goraipatu/laudatu/goretsi, alegatu, atsekabe izan (zaio), ontzat/bidezkotzat jo* eta abar. Predikatu horietako batzuek hiztunaren iritzi-jarrera edo gogo-jarrera adierazi arren, *aurretiko* interpretazio horrek ezinezko egiten du ondoan subjuntiboko osagarri jokaturia izatea, subjuntiboak berez burutu gabeko gertaera adierazten baitu.

**30.7.2.1.2c** Hiztunaren iritzi-jarrera, balioespena adierazten duten egituretan ez da kontrolik eta erreferentziakidetasunik ere ez, askotan. Mota batekoak zein bestekoak izan, honako predikatu hauek ez dute kontrolik ezartzen: *haisu/zilegi/debeku izan (da), aski/nahikoa/asko/gutxi izan (da), baimendu (du), eskatu (du), gomendatu (du), proposatu (du)...* Baina datiboa hartzen badute, osagarri honek ezartzen du kontrola.

DEBEKATU, galarazi, eragotzi, oztopatu, ahalbidetu, baimendu, onartu... *du/dio*  
Kontrolik ez / kontrola datiboak

Predikatu sorta horren oinarrian honelako zerbait dugu: *Ak zerbait egin nahil behar, eta Bk Ari utzi edo ez utzi hori egiten*. Hemen ere *du* moldean ez da kontrolik (predikatu gobernatzailearen subjektuak ez du protagonismorik osagarriak adierazten duen horretan): *Alkateak debekatu du hormetan iragarkiak jartzea*. Datibodun egiturak, *dio* moldeak, berriz, kontrola ezartzen du: *Alkateak galarazi die alderdiei hormetan iragarkiak jartzea; Ez nizuke onartuko hain berandu etortzea; Eskertuko nizuke nirekin argia izatea, hau da, argi eta garbi hitz egitea* (M. A. Mintegi).

Beste predikatu batzuetan ere, *du* motakoak ez izan arren, eskema bera ikusiko dugu: *Zilegi da horrela jokatzeta / Zilegi zaizu/duzu horrela jokatzeta*. Lehen adibidean ez dago kontrolik; bigarrenean, datiboak (*zuri*) edo subjektuak (*zuk*) ezartzen du kontrola. Ohartzekoa da datiboak rol desberdina duela adibide honetan (kontrolatzailea) eta balioespen-predikatuetan (irizlea): *Zilegi zaizu [zuk/\*nik/\*hark] horrela jokatzeta / Jasanezina (iruditzen) zaizu [zuk/nik/hark] horrela jokatzeta*.

ERRAZ(A) *zai/du*

Kontrola datiboak / kontrola subjektuak

Molde honetako predikatuak datiboaren edo subjektuaren kontrola ezartzen dute: *erraz/zail(a) izan (begitandu) zai/du; haizu, zilegi, debeku zai/du. Zaila begitandu zai minik hartu gabe jauzi egitea* (P. Lizarralde); *Askoz errazago izango du olibondotik sortutakoak beren berezko olibondoan txertatzeta (Elizen arteko Biblia)*.

HAIZU *da*

Kontrolik ez (inpersonala)

Beste batzuetan *haizu da, zilegi da, debeku da, erraza da ...* predikatu inpersonala ere aurki dezakegu, kontrolik ezartzen ez duena. *Dirua epetan emategatik ezer kentzea ez da zilegi*.



Ikus ditzagun adibide batzuk: *Munduaren lau bazterretako berriak ere apur bat jakitea on da; laket da* (Hiriart-Urruti); *On da irudimenaren bost zentzumenak lehen eta bigarren kontenplazioetan ezartzea* (P. Altuna); *Jainkoari paperen artean zerbitzatzea on da, baina egun ezpata da papera baino beharrago* (Epaltza); *Baina komeni da irudioi ihes egitea eta maitasunari bide damaiona saihestea eta gogoia beste zer batzuetara itzultzea eta gorputzean pilaturiko humorea edozein gorputzen kontra jaurtitzea* (X. Amuriza).

### 30.7.2.2. *-tzea/-tzeke* alternantzia

**30.7.2.2a** Aurreko puntuetan ikusi dugunez, subjuntibo jokatuaren ondoan batzuetan *-tzeke* osagarri jokatugabea izan dezakegu; beste batzuetan, ostera, *-tzea* osagarria. Baina *-tzeke* osagarriak batzuetan *zer* moldekoak direnez (*zer?* galderari erantzuten diotenez), ez da harritzekoa bi osagarri jokatugabe horien arteko alternantzia gertatzea.

**30.7.2.2b** [aditza + *-TZEA/-TZEKO*] eta [izena+aditza + *-TZEKO*]

Baliokideak dira bai predikatu soila, *erabaki*, eta baita [izen + aditz] predikatu konplexua ere, *erabakia hartu*. Berdin-berdin gertatzen da *gomendatu / gomendioa eman, proposatu / proposamena egin* eta beste hainbatekin ere. Baina osagarrien formari dagokionez, predikatu soilek alternantzia onartzen dute (predikatu konplexuek *-tzeke* baino ez dute hartzen): *Erabakia hartu du hurrei ezer ez esateko; Erabaki du hurrei ezer ez esatea*. Areago, autore berak erabil dezake batzuetan *-tzea* eta beste batzuetan *-tzeke* predikatu berarekin: *Negozioarekikoak egitea eta atsedean hartzea gomendatu zioten* (Zubizarreta) / *Batzuek politikara dedikatzeke gomendatu zioten* (Zubizarreta).

**30.7.2.2c** *-TZEA eskatu* eta *-TZEKO eskatu*

Predikatu honekin sotilagoa da *-tzea/-tzeke* alternantzia: *Gelak lehenago irekitzea eskatu du zuzendariak / Gelak lehenago irekitzeko eskatu die ate-*

*zainei*. Bigarren adibidean datiboak kontrolatzen du *-tzeko* perpausa (horixe da, hain zuzen, prototipoa: ‘norbaitek zerbait egiteko eskatu/galdatu norbaiti’). Lehen adibidean, ostera, ez dago kontrola ezarriko duen datiborik eta guztiz irekia geratzen da, beraz, *irekitze* horren subjektua. Inpertsionalizat hartuko genuke. Baina subjektu esplizitua ere ager daiteke: *Atezainek/irakasleok/zuek gelak lehenago irekitzea eskatu du zuzendariak*. Izan ere, pertsona izan ohi da *eskatu* predikatuaren subjektuaren erreferentea (edo bestelako izakiak, pertsonifikaturik): *Gorputzak/barrenak/bihotzak eskatzen dit horrela jokatzeara*.

Subjektua abstraktua denean, berriz, bestelako esanahia hartzen du *-TZEA eskatu* moldeak: *Atezainen lanorduak aldatzea eskatuko luke horrek* [gelak lehenago irekitzeak]. Datiboa sartzen dugunean ere, kontrola ezarri arren, ez da aldatzen osagarriaren atzizkia: *Atezainen ordutegia aldatzea eskatuko liguke horrek* [hori egiteak].

Beste esamolde honetan ere, datiboduna izan arren, *-tzea* perpausa agertuko da, adierazpen generikoa baita: *Hain jostailu merkeari ezin zaio/diozu eskatu iraunkorra izatea; Halako jendeari nik ez diot eskatzen, noski, eskuzabal izatea*. Gakoa, osagarriaren predikatua egiletasunezkoa ez izatea da. Esanahia egiletasunezkoa bada, joskera prototipikora itzuliko gara (norbaitek norbaiti zerbait egiteko eskatu): *Inork ez zion eskatu, hala ere, eskuzabala izateko*.

Badirudi, beraz, hauxe dela bereizkuntza semantiko eta sintaktikoa: *zerbait gertatzea eskatu / norbaiti zerbait egiteko eskatu*. Bigarren honek egile bat ezartzen du zuzenean, kontrolaren bitartez (*nori eskatu > hark egin*). Egiletasuna, nolana ere, esaldiaren interpretazioaren baitan dago: *Mundu guztiari ezin zaio/diozu eskatu eskuzabala izatea* [ezaugarri hori izatea eskatu] / *Mundu guztiari ezin zaio/diozu eskatu eskuzabala izateko* [horrela jokatzeko eskatu]. *Gosetua, Ninak eskatu zion bere aitari izkina batean kokaturik zegoen “Mac Donald’s” jatetxe batera joatea* (R. Etxeberri) / *Poemak eramateko eskatzen zidan gero eta sarriago maisuak* (Igerabide).

*Galdatu* nahiz *galdegin* aditzekin, berriz, ez da *-tzeko* moldeko osagarria erabili tradizioan. Gaur ere *norbaitek zerbait egitea galdatu / galdegin nor-*

*baiti joskerari eusten diote zenbait autorek: Villepinek Sarkozyren inguruan ikerketak egitea galdegin zion (Sokarros); Silvio Berlusconi lehen ministroari Castellik esandakoagatik barkamena eskatzea galdegin diote (Berria); Herriko auzapezari bertze gutun batean galdatu dio gune guzian ikerketa baten egitea, radioaktibitate baden jakiteko (Herria). Baina EPG corpuseko adibide batek baino gehiagok erakusten dute, batez ere Hegoaldeko testuetan, eskatu predikatuaren eredura jotzen dutela gaur galdatu eta galdeginek ere: bertan behera uzteko galdegin, BBCri barkamena eskatzeko galdegin eta abar. Argia ez pizteko galdatzen zidan Robertek (Montoiia).*

### 30.7.2.2d *-TZEA (nahi/gura izan) eta -TU (nahi/gura izan)*

*Nahi/gura izanen kasuan, predikatu gobernatzailearen subjektua eta perpaus osagarriarena desberdinak direnean -tzea perpausa erabiltzen dugu: Hala ere [zuk/hark/\*nik ekartzea] nahi dut (nik). Baina subjektuak erreferentziakideak direnean, hots, kontrola dagoenean, -tu aukeratuko dugu: Hala ere liburuak ekarri nahi ditut [nik nahi, (nik) ekarri]. Baina azken joskera honetan ez dago perpaus osagarriarik, aditz perifrasi baizik. Gainerako aditz modalen kidekoa da hor nahi izan: -tu nahi/behar/ahallezin izan. Aditz modal horien guztien joskera ez da beti berdina baina guztiak dira perifrasi, aditz bakarra balira bezala jokutzen dira, komunztadura eta guzti (§ 23.4): Liburuak [ekarri nahi] ditut. Beraz, -TU nahi izan perifrasi, erreferentziakidetasuna emateko / -TZEA (nahi izan) osagarri jokaturagabea gainerako erreferentziako subjektuak emateko.*

Salbuespen dira bizkaierazko eta gipuzkerazko hizkera batzuk, -TZEA nahi izan molde bera erabil baitaiteke erreferentziakidetasunezkoetan ere: *Nahi/gura nuke [hark/nik] zu ikustea.*

*Nahi izan bezalatsu antolatzen da nahiago/gurago izan predikatua ere: Nahiago dut zuk ikustea [-tzea perpaus osagarria]; Nahiago dut nik ikusi [-tu nahiago izan aditz perifrasi]. Hobe izan predikatuak, aldiz, bi moldeen arteko zalantza ageri du, are hizkera berean eta hiztun/idazle berarengan: Hobe da/dut hura joatea nire lekuan; Hobe dut (neu) joatea/joan.*

### 30.7.3. *Nahi, galde, eske, beldur, agindu(a), erregu eta mota horretako izenen perpaus izenlagunak*

#### 30.7.3.1. Perpaus izenlagun jokatuak

**30.7.3.1a** Adierazpen perpausekin egin bezala, bi atal bereiziko ditugu hemen ere, perpaus izenlaguna jokatua edo jokatugabea izan.

Subjuntibozko perpaus izenlagun jokatuak. Zehar-galderen kasuan bezala (§ 30.8.4), badirudi subjuntiboko osagarri jokatuak ere ezin dutela izen kategoriako gobernatzailea izan (??*Bazkaria presta dezan eskea*; ??*Ikus gaitzaten nahia*). Izatekotan, izena barnean duen predikatu konplexua izango da gobernatzailea: *Mantsoago ibil gaitezen egin digute eskaria*; *Gaixoak sendo ditzen esperantzan gaude* (M. Etxamendi); *Bakandereak txarrik egin dagixun beldur ete-zara* (Otxolua). Ondorengo adibideetako *beldurrez*, *beldurrak* eta *beldur* ere predikatutzat hartu behar dira (*beldur izanik*, *beldur zirelarik*...); ez dute, beraz, osagarria izenlagun gisa hartzen: *Jaiki-erori zebillela ekusirik, bidean il zekien beldurrak, eman zioten lagun bat* (Mendiburu); *Zai apur bat galdu ez dedin bildurrez, ta urun ederra galduarren ardurarik ez* (Mogel); [...] *barruan erabillen bere [kurutze]a Mañasik, iñok ikusi ezeion beldur* (Agirre).

**30.7.3.1b** Badira, ordea, doi bat bitxiak eta ezohikoak izan arren, subjuntiboko izenlagun jokatua duten adibideak ere: *Hortakotz igorri dautzut jin zaiten galdea* (Larzabal); *Hark Linboetarik altxa zetzan ustean* (Etxeberri Ziburukoa); ('zerbait egin'...) *Jainkoa glorifika dadin desirekin* (Leizarraga). Bitara uler daitezke adibide hauek: 'subj. + izena' / 'subj. + aditz predikatua' (*galdea igorri*, *desiratuz*, *uste izanik*). Baina ezin da guztiz baztertu izenlagun interpretazioa ere.

Ondoko adibide hauetan, azkenik, izenlagunek eraman ohi duten *-ko* atzizkia eta guzti ematen da subjuntiboko osagarria: *Haren diszipuluak obitik gorputza ostu, ta eraman zezaelako bildurrez, ifini zituen obia zaitzeko guardak* (Ubi-Ilos); *Eskritura Santak dio [...] aek utsegiteren bat Jaungoikoaren kontra egin zezaketelako beldurrez, aekgatik Jaungoikoari sakrifizioak ofrezitzen ziozkala* (Gerriko).

### 30.7.3.2. Perpaus izenlagun jokatugabeak

**30.7.3.2a** Osagarri izenlagun jokatugabeak. Aurreko puntuan esan dugunaren haritik, zaila da askotan erabakitzea gobernatzailea izen soila den ala predikatu konplexua. Nolanahi ere, *-tzeko* atzizkia hartuko dute agindua, erregua, kezka, nahia, borondatea, asmoa, gogo... adierazten duten izenek edo halako izenak barnean dituzten predikatu konplexuek.

Horrexegatik, hemen ere sar daitezke *-tzeko* osagarri jokatugabeetan eman ditugun adibide asko eta asko: *Bost minutu falta dira azokak ateak ixteko*; *Datorren astean Parisera joateko asmoa du...* Hemen sar daitezke beste adibide hauek ere: *Hala, haiek hiltzeko agindua eman zien Davidek bere mutilei (Elizen arteko Biblia)*; *Alde batetik, adoptatuak beste ezezko bat jasotzeko beldurra du (Berria)*; *Ezbeharra gertatu zenean ezkontzeko eskaria egin gogo zion (Touyarou)*.

**30.7.3.2b** Oso antzekoak dira *tenorea, garaia, unea izan/heldu...* predikatu konplexuak ere. Osorik har ditzakegu gobernatzailetzat, baina *tenore, garai* edo *une* soilak ere izan daiteke izenlagun osagarria hartzen dutenak: *Milioi eta erdi euskal herritarri baino gehiagori heldu zaie errenta eta ondarea aitortzeko garaia (Berria)*; *Orain hiltzeko tenorea etorri zait (Borda)*; *Eta orain iritsia duk nire galderaren erantzuna zein den jakiteko unea (Olarra)*.

**30.7.3.2c** Zenbait postposizioak ere (*gisan, moduan, eran...*) *-tzeko* osagarria eskatzen duten heinean, eta postposizio horiek izena oinarri duten heinean, uler dezakegu izen horren osagarri dela *-tzeko*: *Bazkaldu berriak ginen, eta [zenbait egunentzat ongi izateko gisan]* (J. B. Elizanburu); *Inguruko guztiek entzuteko eran hitz egin zion; Erromeriara joateko moduan zaude*.

## 30.8. Zehar-galderak

### 30.8.1. Ezaugarri orokorrak

**30.8.1a** Norbaitek egindako galdera, adierazitako zalantza, zuzenean eman orde, aditz gobernatzaile baten azpian jartzen dugunean sortzen den egiturari

esaten zaio zehar-galdera. Hau da, galdera zuzenean egin beharrean, zeharka egiteko baliatzen dugun egiturari. *Non bizi garen galdegin digute* edo *Zer nahi dugun garbi esateko erregutu digute* diogunean, zuzenean entzun beharrean zer galdetu edo erregutu diguten, ‘zehar-aipamena’ darabilgu. Informazio eske dakarte adibide horiek guztiek.

Beste askotan, ordea, zehar-galderen forma izan arren, ez dira egiazko galderak izaten, ez dute informazio eskaririk adierazten: *Ez dit esan* [noiz etorriko den]; *Ez dut erabaki* [nori emango diodan]; *Ez dugu pentsatu* [nora joango garen]. Horrelako zehar-galderetan, beraz, modu zabalago batean ulertu behar da “galdera” kontzeptua. Mota honetakoak dira harridura perpausak ere: *Zein ederki bizi zaren!*

Perpaus nagusia nahi den bezalakoa izan daiteke, baita ezezkoa edo galderazkoa ere: *Ez dit esan zenbatean saldu duen; Inork ba al daki non bizi den?*

**30.8.1b** Galdera zuzenak bezala, zehar-galderak ere orokorrak eta zatizkoak izan daitezke. Orokorrek aukera adierazten dute; hemen sartzekoak dira *ala* eta *edo* juntagailuen bidez eratzen ditugun zehar-galderak: *Ardoa ala txakolina hartuko duten itaundu die zerbitzaria*. Mota honetakoak dira *bailez* galderak ere, azken batean hor ere aukera adierazten da-eta, baiezko erantzunaren edo ezezkoaren artekoa, alegia: *Garaiz iritsiko den (ala ez) galdetu diet*. Zatizkoak, aldiz, galde hitz bat behar dugu mendeko perpausaren, perpausaren atal bati buruz ari baitira, nahiz aurreko puntuan esan bezala, zehar-galderetan askotan ez dagoen egiazko informazio eskerik: *Lana noiz amaituko duten galdegin die igeltseroei; Badakigu kristala nork hautsi duen*.

Kapitulu honen hasieran aipatu dugu nolako egokitze deiktikoak eskatzen dituzten zehar-aipamen horiek, eta baita perpaus osagarrien beste zenbait ezaugarri orokor ere (§ 30.2).

**30.8.1c** Zehar-galdera jokatuetakoa aditzak *-(e)n menderagailua* hartzen du, oro har. Bizkaieraz autore batek baino gehiagok erabili dute *ba-* aurrizkia mota honetako perpausen menderagailu gisa. Eta, aurreraxeago ikusiko dugunez, zehar-galdera orokorretan *-(e)netz* forma ere har dezake menderagailuak.

**30.8.1d** Zehar-galderen gubernatzaileak bi motatakoak izan daitezke: *galdegin* motakoak, egiazko galdera —orokorra zein zatizkoa— adierazten duen mendeko perpaua hartzen dutenak, batetik: *Galdetu diegu arduradunei ea nork eman dien etxea eraiki eta hormak jasotzeko baimena (Elizen arteko Biblia); Norbaitek galdetu izan balio une hartan alemaniar jatorrikoa al zen, ukatu egin izango zuen (Atxaga); [...] guardia bazkaltzera joan zen batez, Bordes-i galdegin nion nola zihoan eta zergatik sartu zuten han (Etxehandi); Bai... zer behar egiten dodan itaundu eustan eta nik basojagolea nazela erantzun neutson (I. Mendiguren). Gubernatzaile hauek ez dute onartzen zehar-galdera beste perpauos osagarririk, ez, behintzat, ‘galdera egin’ adieran: \**Galdetu diot bihar etorriko dela*. Besterik da ‘eskatu’ adiera hartzen dutenean subjuntiboko osagarria ere gobernatu ahal izatea: *Garai z etortzeko galdegin digute*.*

Bestetik, *esan, jakin, ikusi, asmatu, beldur izan, dudatan jarri, gogoratu, gomutatu, kontuak atera, ohartu...* moduko predikatuak ditugu, egiazko galderarik ez dakarten egiturak gobernatzen dituztenak: *Ikusiko dugu nork agintzen duen hemen (Biguri); Inork ez daki non dagoen jakinduria, inork ezin asmatu hura nola bilatu (Elizen arteko Biblia); Esan zuk non elkar gintezkeen eta haraxe joango naiz (Navarro)*. Horrelakoak dira Hegoaldeko *igarri* eta adiera horretako *sumatu* ‘igarri’, nahiz *antzeman* ere: *Denak batera hizketan, berak ez igartzeko zertaz edo norekin ari ziren (An. Garikano); Ene gorputz-ate guztiak miatzen ditut eta ez dut sumatzen nondik sartu diren (Unzurrunzaga); Biraoak gero eta sarriagoak ziren; ezin antzeman zitekeen nork esaten zituen, baina airea urratzen zuten (Morales)*. Predikatu hauek, bestalde, adierazpen perpauos osagarriak ere goberna ditzakete (§ 30.6); hain zuzen ere, predikatu hauek goberna dezakete perpauos osagarri konplexua, bi perpauos osagarri juntatu dituena, bata adierazpen perpauosa eta bestea zehar-galdera: *Esan al diozu noiz etorri den eta, etorri denean, anaiari muturka hasi zaiola?*

Beste predikatu batzuek —*aztertu, begiratu, eztabaidan egon...*— galderazko osagarriak onartzen dituzte, baina adierazpen perpauosik ez: *Eztabaidan dago oraindik ea Aspergerren sindromea haur-autismo klasikoaren aldean erro-errotik desberdina den [...] ala kasu larrienetatik kate bat ote dagoen (Olarra); Goiko leihotik begiratzen diat nor den ikusi eta atea irekiko diodan ala ez erabakitzeko (Lertxundi)*.

Hiztegiak esan behar digu, azken batean zein aditzek edo predikatu egiturak onartzen dituzten zehar-galderak eta zeinek ez.

Harridura adierazteko ere erabil daitezke zehar-galderak: *Ez dakit nola dedan hitz oek esateko biotzik!* (Larramendi); *Ikustekoa da nolako harria jaso duen!*; *Ezin dut sinetsi zein merke saldu digun!* Bistan da horrelako egituretan ez dela ezer galdetzen; harridura azaltzen da, besterik gabe.

Batzuetan adizki nagusia ez dago agerian; isilpean utzi dela pentsatu behar da: *Bata ta bestia ebiltzan nork nori sartu mausa edo tranpia* (Mogel); *Batak eta berzeak dute enplegatzen ahala, / zeñi geldituren zaion biktoria zabala* (Etxeberri Ziburukoa).

**30.8.1e** Zehar-galderek perpaus nagusian zer funtzio betetzen duten aztertze-ko ere predikatu gobernatzailea nolakoa den hartu behar da kontuan. *Du* motako predikatuekin, objektu funtzioa beteko du zehar-galderak; baina *da* edo *zaio* motako aditzekin (*ahaztu, argi egon, garbi egon, gogoratu...*) subjektu funtzioa beteko du: *Ez dago argi nork hil zuen; Ahaztu zaio noiz joan behar duen dentistarengana*. Beste aditz batzuek, ostera, hala nola *gogoratu, konturatu, ohar-tu, oroitu* eta horien antzekoek, *-z* sintagmaren bidez adierazten dute barne argumentua (*zertaz*); eta *egon* oinarri duten zenbait aditz esapidek (*adi egon, erne egon, zain egon...*), *-en* sintagmaren bidez (*zeren*). Beraz, aipatu berri ditugun predikatu hauek gobernatzen dituzten zehar-galderek ere *zertaz* edo *zeren* galderei erantzuten diete: *Ez naiz oroitzen zer esan genion elkarri* (O. Arana); *Ziur nago zain zaudela ea noiz esango dudan hotel batera noala* (Payá).

Laburbilduz, aditzak nolako elementuak gobernatzen dituen, haien araberakoa izango du funtzioa zehar-galderak.

**30.8.1f** Zehar-galderek ez dute ondoren ez artikulurik ez kasu markarik edo postposizio atzizkirik onartzen. Ez dira, beraz, zuzenak azken urteetan nahi baino maizago entzun edo irakurtzen ditugun mota honetako perpausak: *\*Nork esan zuenari ez zion kasurik egin*; *\*Ez naiz kezkatuko zenbat diru dutenaz*; *\*Han zer esaten didatenarekin etorriko naiz zugana*; *\*Ez zen oroitzen zer esan zionaz*; *\*Nora joango denik ezin diezazuket esan*. Erraz eman daitez-



ke adibide horiek adizki nagusia aurrean ezarrita: *Ez zion kasurik egin nork esan zuen; Ez naiz kezkatuko zenbat diru duten; Ez zen oroitzen zer esan zion; Ezin diezazuket esan nora joango den.* Edo zehar-galderaz bestelako egitura bat aukeratuta: *Zer esaten didaten entzun eta etorriko naiz zugana; Ematen didaten erantzunaren arabera hartuko dut erabakia.*

**30.8.1g** Osagaien ordena. Kapitulu honen sarreran ikusi bezala, bi ikuspuntutatik azter dezakegu hurrenkera: batetik, predikatu nagusiaren eta zehar-galderaren artekoa (§ 30.4), eta, bestetik, zehar-galderaren barruko osagaiena (§ 30.5). Lehen ikuspuntuari dagokionez, perpauosaren esanahia batere aldatu gabe, zehar-galderak perpauos nagusiaren aurrean nahiz ondoan azal daitezke: *Esan diet [zer ordutan etorriko naizen] / [Zer ordutan etorriko naizen] esan diet.* Dena den, zehar-galdera zenbat eta luzeago eta konplexuago izan, errazago emango dugu predikatu nagusiaren ondoren (§ 41.3f, § 41.4.3a).

Zehar-galderaren barruko elementuen hurrenkerari dagokionez, gainerako perpauosetan (perpauos lokabeetan) ditugun arau berberak aurkituko ditugu (§ 41.4.3f). Arazo gehiago sor daitezke zati galderetan. Hauetan, aditzaren aurre-aurrean kokatu ohi da galde hitza, hau baita galdegaia: *Galdegin dit [NORI idatzi diodan gaur]; Jakin nahiko nuke [ZENBAT liburu irakurtzen dituzten gaurko jubilatuek]; Oso ondo ikusi zuelako [NOREKIN ari zen]* (J. M. Mendizabal); *Esaiguzu behintzat [ZERTARA zoazten]* (Montorio).

Adierazpen perpauos osagarriak aztertzean esan bezala (§ 30.6), *nola/zelan, horra non* ager daitezke *-(e)n* menderagailua hartzen duen perpauosaren buruan: *Oroitzen zara nola ilaran jarri behar izan zenuen beste ume batzuekin batera* (O. Arana). Horrelako egiturak ez dira zehar-galderak, baizik adierazpen perpauos osagarriak; eta *nola/zelan*, berriz, elementu iragarleak.

### 30.8.2. Zehar-galdera jokatuak

Bi motatakoak izan daitezke zehar-galdera jokatuak: galdera orokorrak eta zati galderak (§ 30.8.1b).

### 30.8.2.1. Zehar-galdera orokorrak

**30.8.2.1a** Galde hitzik ez izatea da zehar-galdera mota hauen ezaugarria. *-(e)n* menderagailua da orokorrena, baina *-(e)netz*<sup>9</sup> ere har dezakete zehar-galdera orokorrek: *Geure buruari galdetu diezaiokegu, bada, ea zientzia gai denetz ezaguera-masa jakin bat gainditzeko* (Juan Garzia); *Nagok, Paxkal, ez dugunetz denek hemendik aitzina burua sobera berotuko eta azkenean galduko* (Landart). Bizkaieraz, zenbait tokitan, *ba-* ere bai: *Eztakit ezkonduko banaz* (Etxeita); [...] *ta osabea ezekien bizi bazan edo ez* (E. Azkue). Euskara estandarrean gaur ohikoa ez izan arren, ahozkoan maiz entzun daitezke horrelako egiturak.

Ikus Euskaltzaindiaren 115. araua: “Zehargaldera orokorretako aditz-atzizkia: *-(E)N* eta *-(E)NETZ*”, Lekeition, 2001eko otsailaren 23an onartua.

**30.8.2.1b** *Ea* partikula erabil daiteke zehar-galderari sarrera emateko edo hura indartzeko. Perpaus nagusiaren eta mendekoaren arteko lotura egiten du; eta badirudi perpausaren luze-laburrarekin ere baduela zerikusia (zenbat eta mendeko galdera orokorra luzeago, orduan eta errazago ager daiteke *ea*). Aukerakoa da, baina aditza isilpean denean, handiagoa da haren beharra: *Galdegiozu (ea) etorriko den; Ea isiltzen zareten!; Eta horren bitartez egin kontsulta Jau-nari ea bizirik aterako naizen gaixoaldi honetatik (Elizen arteko Biblia); Hegoari bai, erreparatuko zioten, bai barrualdetik eta baita mendi inguru eta kostatik ere, ea uso-usainik usnatzen zuten, edo...* (P. Zabala). *Kontua da, zalantza da*, eta horrelakoekin ere, zilegi da *ea* agertzea: *Kontua da ea zeuretzat aski den edo ez* (O. Arana); *Kontua zen ea zer animalia sartu han* (Juan Garzia). Aurreraxeago ikusiko dugunez, zati galderen buruan ere eman daiteke *ea*.

---

<sup>9</sup> Literaturan beste forma batzuk ere ageri dira: *-(e)nentz*, *-(e)nenz*, *-(e)nez*, *-(e)nz*. Baina badirudi forma erabilienak *-(e)nz* eta *-(e)netz* direla. Baina autore zaharrek darabilte bi horietatik lehena; bigarrena da gaur ere erabiltzen dena. *Ordea eztakizu zure baithan hala gerthatuko denz: halako faborerik, eta garaziarik eginen zaitzuntz* (Axular).

Gehienetan, predikatuak informazioa eskatu edo nolabait aurrera begiraten duena izan behar du: *Galdegin dit ea dirua behar dugun; \*Ahaztu zaie ea etxea itxi duten*. Horregatik maiz gobernatzailea aginte adizkia izango da (*esan ieza-dazu, begira ezozu...*) edo xedezko perpaus bat (*jakiteko*): *Esan ea egokitzen zaizun eta, egokitzen bazaizu, kontuan hartuko zaitugu* (J. Zabaleta); “*Kalibe*” *zioten, esaterako, eta ez zen modurik jakiteko ea burdina ulertzen zuten, edo zilarra, edo brontzea* (Juan Garzia). Egia da, hala ere, *galdetu, nahi (izan) eta behar (izan)* direnean gobernatzaile, aditza edozein modutan doalarik ere, *ea* ager daitekeela: *Galdetu zigun ea irakurri genuen Thomas Mooreren poesia, edo Sir Walter Scott eta Lord Lyttonen obrak* (Aldasoro); *Gazteak jakin nahi zuen ea gidaririk behar nuen, edo ea “karro” bat alokatu nahi nuen, edo ea gau zoragarri bat pasatzeko beste edozein gauza behar nuen* (Jon Muñoz).

Baina batzuetan badirudi ez dela beti guztiz hola gertatzen: *Iluntzean Orioli esan nion ea ur bila joango zen, garbitu egin nahi nuela eta* (X. Mendiguren Elizegi); *Eta orduan aitak esan zion ea nahi zuen berarekin joan bere klubera afaltzera* (Iturralde); *Joanesez ez zuen xuxen jakin ea, halako batez, atorra-beso puntarekin edo zerekin, zaindari txarpil haren eskua perekatu zuen ala ez* (Bidegain).

**30.8.2.1c** Galdera lokabeetan ager daitekeen *ote* partikula (§ 23.5.3.5) maiz ageri da zehar-galderetan ere, batez ere *beldur izan, duda izan, eztabaida izan* edo *kontu izan* bezalako predikatuekin; hau da, susmoa edo zalantza, segurtasun eta jakintasun eza adierazten dutenekin. Baina ez da inoiz beharrezko eta ez du oinarritzko esanahia aldatzen. Ñabardura semantiko bat gehitzen du: zalantza edo susmo kutsua ematen du; ez du berak galdera markatzen. *Ez dakit asmatu ote nuen* (Saizarbitoria); *Gogoak eman behar liguke behin edo behin ez ote den harritzeko [...] guri bakarrik jakinduria ematea* (Mitxelena); *Beldur dira ez ote denez eskola hetsia izanen* (Herria).

*Ea*-rekin batera ere erabil daiteke: *Hannak bakarrik eusten beti ere bere zalantzari, ea zuzena ote zen gu ezkontzea, zuzena niretzat* (J. A. Arrieta); *Galda daiteke orain ea Peruren alde ote gauden ala kontra* (Mitxelena); *Eta ausartu nintzen galdetzen ea ezer egitekorik ote zuen arratsaldean, eta ezetz erantzun zidan* (Saizarbitoria).

**30.8.2.1d** *Al* ez da ohikoa zehar-galderetan. *Bai/ez* erako zuzeneko galdere-tan erabiltzen da zenbait euskalkitan; betiere aukerakoa da, nolnahi ere. Bai-na, esan bezala, asko murrizten da zehar-galderetan *al* erabiltzeko aukera. Hiz-tun batzuek onartzen dute zenbaitetan: *Ez al garen isilduko ari dira galdetzen; Zure ezpañetatik nai dizugu entzun / beste Erririk ba al dan, ikusi al dezun / onek aña Jesus maite dunik iñun* (S. Mitxelena). *Ea* partikula buru duten zehar-galderetan ere ikus dezakegu inoiz behin: *Herbertek erantzun ez, ordea, nire galderari, hots, ea oraindik sinesten al zuen zigarro puru alemanaren etorkizunean* (J. A. Arrieta).

**30.8.2.1e** Aditzak adierazten duen ekintza edo gertaeraren baiezkotasuna markatzeko *ba-* aurritzia eransten diogu adizki sintetikoari (§ 41.4.2b): *badator, badaki*. Baldintzetako (*ikusten baduzu*) edo zehar-galderetako (*ez dakit ezkonduko banaiz*) *ba-* ez bezala, baiezkotasuna markatzen duen hau azentu-duna da. Galdegaiguneko *ba-* hori ipin daiteke zehar-galderetan ere aditz sin-tetikoaren aurrean: *Aita Mokoroak badakien ala ez, nik ez dakit* (Mitxelena); *Ikusi behar da ea herri honetako biztanleek euskara salbatzeko borondaterik baduten* (Herria); *Eta, hartara, zinez jakin nahi nuke ba ote dauden Izpiri-tuan bi motatako erabakiak, Irudimenezkoak batzuk, Libreak besteak* (Xarriton). Baina ez da beharrezkoa; adibide horiek gramatikalak izango lirateke *ba-* gabe ere.

**30.8.2.1f** *Ala/edo* juntagailuak aukera galderetan. Galde perpausetan erabil-tzen da, batez ere, *ala* eta galdera ez direnetan *edo*; horrek ez du esan nahi, ordea, *edo* juntagailua erabil ezin daitekeenik galderetan (§ 28.5). Berdin ger-tatzen da mendeko perpausetan ere: galderazkoak ez badira, *edo* erabiliko dugu; galderazkoak badira, *ala* erabil daiteke: *Probatu egin nahi dut, ea nire esanera dabilen ala ez* (Elizen arteko Biblia); *Bietako batek ere ez zekien eu-rekin ala bere buruarekin ari ote zen hizketan* (Epaltza); *Txokok ez zekien bi-zirik ala hilik aterako zen historia honetarik* (Borda). Baina *edo* ere zilegi da zehar-galderetan aukera bat adierazten duten bi osagai juntatzeko, batez ere Hegoaldean: *Ez dakigu ekonomikoa edo kirol zigorra izango den, baina zigorra jarriko digute* (Berria); *Jakin nahi nuke zuek erretzen duzuen edo ez* (Joxerra Garzia).

Goiko adibide horietan *ala* (zein *edo*) juntagailuak ez ditu perpaus osoak juntatzen, agerian behintzat, bi perpaus osagai baizik. Baina perpaus osoak ere ager daitezke *ala-z* juntaturik. Orduan bi perpauseko aditzek eraman behar dute *-(e)n* menderagailua: *Edna begi begira geratuko zaizu ontziaren sabelean, esan diozun ala ez diozun ez dakiela* (Sarrionandia); *Bada, ez dakigu; ez dakigu benetan sinesten ote zioten, ala gezurri mixerable bat zela pentsatzen zuten* (Linazasoro); *Ez omen zuen sekula ziur jakiten zer esaten zen edo zer adierazten, zer galdetzen edo espero izaten zen* (Olarra).

Sarritan, gainera, horrelako perpausek egitura bikoitza izan ohi dute. Lehenik zati galdera bat ematen da eta ondoren zati galdera hori hobeto zehazten da aukera-galdera bat formulatuz: *Aristoteles handiaren obra arretaz irakurri ez duenak baino ez dezake galdetu arrautza ala oiloa, biotan zein izan ote zen aurrena* (Joxerra Garzia); *Jaunak erabaki dezala nork duen arrazoi, nik ala zuk!* (J. A. Mujika); *Jakintsu ala ezjakin eta ergel izan, hausnartzen ari izan nintzen hobea zer ote den* (Elizen arteko Biblia); *Itxura ona edo itxura txarra, ea bietatik zer dakarren egunak* (P. Zabala). Hau, hala ere, zehar-galderetan ez ezik, mendeko ez direnetan ere gertatzen da: *Zerk ematen dizu beldur handiena oraintxe bertan: hiltzeak ala burua galtzeak?* (Berria).

### 30.8.2.2. Zehar-galdera zatizkoak

**30.8.2.2a** Galde hitza daramaten mendeko perpausak dira zehar-galdera zatizkoak. *-(e)n* menderagailua hartzen dute beti zehar-galdera zatizkoetako aditzek: *Ez dakigu non bizi den/\*denetz/\*bada*. Al partikulak ez du hemen lekurik: *\*Ez dakigu non bizi al den*.

Zati galderek badute osagai bat, galde hitza, erreferentzia zehaztugabea duena. Zehar-galdera egiazki galdera denean, ezezagun gisa ematen den osagai hori identifikatzea eskatzen da: *Jaun Marcel, orainokoan isilik izan zaitugu, eta jakin nahi nuke zuk ere zer irizten diozun* (Irigoien); *Zuzenean galdetu zidaten zer herritakoa nintzen* (M. Mujika). Gainerako zehar-galderetan, adizki nagusia nolakoa den, hala interpretatzen da. Gehienetan ez da “ezeza-

gun” horren erreferentziaz *galdetuko* (informazioa eskatuko), baizik, *esan*, *erabaki*, *ikusi* eta abar egingo da: *Berak erabakiko du nork bisitatuko duen etxea eta nork ez* (Olarra); *Iduritzen beste anitz parabisu batean sartuak zirela eta nik ez ikusten non zitekeen enetzat parabisu haren atea* (Dirassar).

**30.8.2.2b** *Ea* eta *ote* partikulak erabil daitezke zati galderetan ere, baina ez dira beharrezkoak (§ 30.8.2.1b): *Hausnar ezazu, beraz, ea zer erantzun behar diodan bidali nauenari* (Elizen arteko Biblia); *Lehen galdera bere buruari egiten dio, ea zein analogia edota konparazio baliatuko dituen* (Unzurrunzaga). Galdegin, *pentsatu*, *eztabaidatu*, *dudan egon*, *gogoetan egon*, *zelatatan egon* eta antzeko predikatuekin maiz aurkituko dugu *ea* zati galderen buruan: *Pentsa daiteke ea zergatik ez diren berehalaxe antigorputzak aktibatzen, urdailean dauden proteina arrotzak suntsitzeko* (Aldasoro); *Nire baitan gogoe-tan nagolarik, ea nolatan dirauten oraiko etxek* (Hiriart-Urruti).

Perpausari ‘zalantza’ edo ‘susmo’ kutsua ematen dioten predikatuekin *ote* ere aurki dezakegu zati galderetan: *Sekula ez da jakiten ahal joan-etorrian dabilen erregea inoiz itzuliko ote den* (Alonso); *Gurago dut guztiak telebistan berdin ikusi eta zein ote den imajinatu, asmatu, denak sasikume berdinak direla jakinda ere* (Gonzalez); *Gehienok ardura bakarra izaten dugu: noiz, nola eta non gertatuko ote den* (Iturbe). Zehar-galdera orokorretan ikusi dugun *ba-baiezkotasuna* markatzekoa ikus dezakegu ondoko adibidean ere (§ 30.8.2.1e): *Etxean inor ba ote den galdetzen du korridoretik* (Olano).

Zehar-galdera orokorretan ere *esan* dugu batzuetan agerian behintzat ez dagoela aditz gobernatzailearik: *Ea zer pasatzen den* (P. Zabala); *Orduan, larri beste bateltxoetan datozenak, ito egin ote den abadea, eta handik tartetxo batera non ateratzen duen hark burua* (Jimenez).

*Ea* buruan duten zati galderetan *ote* ere ager daiteke: *Auzo guztia beldurrak airean zegoen ea noiz egingo ote zuen ez egitekoren bat* (Igerabide); *Eskatu ere bai esan ziezaion ea non ote zen halako lorategia* (Juaristi); *Ezen nire buruari galdetzen bainion ea nola bil ote zezakeen inork bere baitan horiek betetzeko indarra* (Aldasoro).

**30.8.2.2c** Ageriko gobernatzailearik gabeko zati galderak. Maiz erabiltzen ditugu zehar-galderak perpaus nagusirik gabe edo perpaus nagusi hori isilpean dutela. Hiru azpimultzo bereiz daitezke gobernatzailearik gabeko zati galderetan:

- a) *Ea* buru dutenak. Goraxeago eman dugun adibideaz gain —*Ea zer pasatzen den!* (P. Zabala)—, beste hauek ere XXI. mendeko testuetatik hartuak dira: *Gero defentsan ea nola moldatzen naizen* (Berria); *Ea nola doan* (An. Garikano); *Bigarren lehia makilarekin zen, ea nork botatzen zuen makila urrutiago* (Atxaga).
- b) Gauzak zeren arabera diren esaten dutenak. Galde hitza batetik, eta zehar-galderako *-(e)n* adizkia bestetik; horiek dira ageriko osagaiak: *Etorriko al zara? Zertarako den!* Isilik gelditzen den perpaus nagusia askotarikoa izan daiteke: *ikusi egin behar, jakin egin behar, alde handia da, asko esan nahi du...* Esate baterako: *Ikusi egin behar... nola joan behar duen; Jakin egin behar... norentzat den; Ez da berdin... non edukitzeko den; Asko esan nahi du... nork esan duen*. Gehienetan elkarrizketa gisako solasetan erabiltzen dira horrelakoak, baina bestelakoetan ere bai: *Gero ez omen zioate jaramonik egiten... Berak zenbat egiten dien; Ez omen diote asko ordaindu... Zenbat ordu lan egin duen*. Adibide hauek, eta hauen antzeko beste hamaika, bere soilean guztiz egokiak dira gaztelaniazko *depende* edo *según*-en ordainak emateko.
- c) Harridura perpausak ere maiz zehar-galdera itxuran ematen dira, perpaus nagusia isilpean utzirik: *Zenbat dakien horrek! Zein ederra den Aralar!* Horrelako egituretan *ikusi, pentsa* edo horrelako aditzen bat izango litzateke isilpean utzi dugun gobernatzailea.

**30.8.2.2d** Galde hitzak adierazpen perpaus osagarrietan. Galde hitza izan daiteke adierazpenezko perpausen osagai ere perpaus osoa galderazkoa egini: [*Nor naizela*] *uste duzue?* [*Nor*] *uste duzue* [*naizela*]? Beste hitz batzuetan esanda, zuzeneko galderak dira horrelako perpausak eta, horrenbestez, informazio eskaria dakarte beti.

Horrelako egiturak hertsiki makurtzen dira galdegaiaren araura: galde hitza kokatua dagoen sintagma beti aditzaren aurrean aurkituko dugu. Galde hitza

perpauaren osagai zuzena bada, perpauseko aditzaren aurrean kokatuko da (*norekin joan zarete trago batzuk hartzera?*); galde hitz hori izen sintagma baten osagai bada, sintagma osoa kokatuko da aditzaren aurrean (*nolako irakasleak jarri dizkizute aurten?*); eta galde hitz hori mendeko perpau baten barruan aurkitzen bada, perpau osoa jarriko dugu adizki nagusiaren aurre-aurrean (§ 41.4.3): [*Nork ekarriko duela*] *uste du Mirenek?* Bada, ordea, beste estrategia bat ere zilegi dena, zenbait aditzekin behintzat: galde hitza bakarrik ematea adizki nagusiaren aurrean, eta ez mendeko perpau osoa: *Nork uste duzu galdu nahi nauela biziki maite dudan emakume horren aurrean?* (Jon Muñoz). Hain ohikoa ez izan arren, galde hitzaz gain, mendeko perpauseko beste osagaiaren bat ere eman daiteke adizki nagusiaren ezkerrean, mintzagai aurreratu bihurturik: *Maria! Antonio nora esan didazu joan dela, olibondoetara?* (Maia). Perpau osagarri jokatu gabeetan ere zilegi da joko hau: *Jendea zain zagon, Cassandra, noiz pentsatzen dun ateratzea?* (Cano).

Dena dela, aditz guztiek ez dute onartzen barruan galde hitza daraman osagarria. *Uste izan, esan* eta *pentsatu* bezalakoek bai, baina ez *jakin, ahantzi, ikasi* eta *ohartu* bezalakoek.

### 30.8.3. Zehar-galdera jokatu gabezko perpau osagarriak

**30.8.3a** Aditzoinaren edo partizipio burutuaren forma hartzen du zehar-galdera jokatu gabeetako aditzak. Hala ere, balioa ez dagokio egiazko partizipio burutuarenari; ez du amaitutako gertaera edo ekintza bat adierazten. Aldea, beraz, formazkoa baino ez da ekialdeko eta mendebaldeko egituren artekoa: *Zalantzan dira noren alde bozka* / *Zalantzan daude noren alde bozkatu*.

**30.8.3b** Zehazkiago, honako baldintza hauek bete behar ditu zehar-galdera jokatu gabeak:

- Benetako galdera bati dagokiona izatea, eta ez harridurazkoa: *Ez dakizu zer erosi behar duzun!* (nolakoa den erosi behar duzuna, ona/txarra...) / *\*Ez dakizu zer erosi!*



- Subjektua erreferentziakide izatea (kontrolatua): *Ez dakizu (zuk) zer erosi / \*Ez dakizu guk zer erosi.*
- Zati galdera izatea, edo *-tu ala ez* erakoa: *Ezin nuen asmatu nola gerarazi* (O. Arana); *Ez zekien Matilderi galdetu ala ez* (Elorriaga).
- Zentzu prospektiboa izatea: *\*Ez dakizu atzo zer erosi.*

Azken ezaugarri horrek nolabaiteko sinonimia ezartzen du zehar-galdera jokatu-gabeen eta *behar (izan)* modala daramaten baliokide jokatuaren artean: *Badakizu zer erosi / Badakizu zer erosi behar duzun; Orduan erabaki nuen nola jokatu / Orduan erabaki nuen nola jokatu behar nuen.* Beraz, honelako parekotasuna ezar daiteke: galde hitza + aditzoina/partizipioa = galde hitza + partizipioa + *behar* + indikatibozko adizkia + *-n*. Beste batzuetan badirudi ahalerazko balioa dagoela: *Bere burua non ezkutatu ez zekiela; Ezin nuen asmatu nola gerarazi...* Alegia, ‘bere burua non ezkuta zezakeen’, ‘nola geraraz zezakeen’...

**30.8.3c** Horiek horrela, nola edo halako *erabaki behar* baten ingurukoak dira predikatu gobernatzaileak: *asmatu, pentsatu, zalantzan egon; adostu, eztabaidatu, partekatu; garbi eduki; erakutsi, ikasi, irakatsi, jakin; erabaki; agindu, esan...* Hona zenbait adibide: *Profanatua zegoen erre-oparietarako aldaireekin zer egin eztabaidatu zuten* (Elizen arteko Biblia); *Azkenean onartu zuten luze eta sakon hitz egin behar zutela auzi horretaz; gutxienez erabaki behar zuten zer egin, nola jokatu eta nolako neurriak hartu* (Morales); *Bere burua non ezkutatu ez zekiela helmugaratu zen Simoni gizajoa* (Berria); *Zaila zen zer erosi asmatzea, eta tarta besterik ez zizaion bururatzen* (Aldasoro).

Beraz, esan daiteke zehar-galdera jokatu-gabeek ez dutela adierazten jarduera bat, baizik eta jarduera (edo bestelako egiteko) bati buruzko *estrategia* edo; hau da, erabakien kudeaketari dagokion zerbait.

Gerta daiteke ageriko gobernatzailearik ez izatea ere: *Halako ezin egon batean bizi ginen, egon ezinean, nork zer argitara eman, berehala erosi eta etxera eramateko* (Salaburu).

**30.8.3d** Batzuetan partizipioa aurretik ager daiteke, galde hitza bakarrik utziz: *Elizako gauzak artu nai ta etzekien nola* [hartu] (Mendiburu).

Galde hitz bat baino gehiago ere ager daiteke, bestelako zehar-galderetan bezala: *Non zer aldatu zalantzan bazaude, galdetu ta mendi-zaiak esango dizu* (Munita); *Non zer harrapa zebilen jende asko, kanpora ihes egindakoen etxeetara sartzen ziren* (Sarrionandia). Azken adibide honetan ere, *ibili* aditzak perpaus osagarria goberna ezin dezakeenez, *saiatu* edo horrelako predikaturen bat dagoela isilpean pentsatu behar dugu.

**30.8.3e** Predikatu gobernatzailearen subjektua da, oro har, kontrolatzailea, goraxeago esan bezala. *Agindu-esan* eta *irakatsi-erakutsi* dira salbuespen nagusia: eragileak hartzen du hor subjektuaren kasua, eta datiboak ezartzen orduan kontrola. Argi ikusten da aldea honako bikote honetan: *Ikasi zuen nola jokatu* [hark ikasi, hark jokatu] / *Irakatsi nion nola jokatu* [hari irakatsi, hark jokatu].

**30.8.3f** Zehar-galderak eta perpaus erlatiboak. Galde hitza eraman arren, bada zehar-galderatzat ez, baina erlatibotzat hartu behar diren perpausak (§ 31.5.4): *Geratuten da oraindiño zer irakatsi*; *Nork erosi faltako ez luke*; *Peruk badu nork lagundu*. Itxuraz, zehar-galdera jokatugabeek bezala, beste hauek ere partizipio burutua edo aditzoina hartzen dute. Baina gauzak sakonagotik aztertuz gero, berehala ohartzen gara ez direla hain egitura bereko. Har dezagun honako perpaus bikote hau: *Peruk badu* [nork lagundu] / *Peruri ez diote esan* [zer egin]. Bigarren perpausoko *esan* aditzak gobernatzen du [zer egin] osagaia; lehen perpausoko (*ba*)*du* aditzak, ostera, ezin du perpaus osagarririk hartu. Izen sintagmak izaten dira aditz horren osagarri arruntak (*etxea, alaba, gogoa...*). Horrek erakusten digu *aurkituko dut zer egin, ez daukat non lo egin* eta horien antzeko perpausen egitura ez dela *aurkituko dut* [zer egin], *ez daukat* [non lo egin]. Egitura hori zuzena izango litzateke adibide horiek *zer egin?* galderari erantzungo baliote. Baina ez da hala, ez dute honakoa adierazten: ‘ez daukat zer egin’, ‘aurkituko dut zer egin’. Egiazko osagarria izen sintagma bat da, *zer?* galderari erantzuten diona, nahiz isilpean egon; izen sintagma horren erreferentziakidea da mendeko perpausoko *non*. Egitura zuzena, beraz, hauxe genuke: *Ez daukat* [[Ø]<sub>i</sub> [non<sub>i</sub> lo egin]], ‘ez daukat etxerik/ oherik/lekurik non lo egin (dezakedan)’. Ohikoak dira horrelako perpausak

gaurko euskaran ere: *Hark ez du eskurik sartuko, baina badu nork egin lan zikina!* (Goenkale); *Badu norekin kontsolatu* (Atxaga); *Ez dugu non ezkutatu, eta hilda gaudelako plantak egiten ari gara* (Larrañaga).

Aurreko mendeetako testuetan mendeko perpau sak subjuntiboko aditza duela ageri zaizkigu horrelako egiturak, egiaz zehar-galdera ez direnak: *Eztik non bere burua reposa dezan* (Leizarraga); *Ez dago nok egin dagijan penitenzijarik* (Mogel).

Laburbilduz, beraz, badira zehar-galderak gobernatzen dituzten aditzak (*jakin, ikusi, pentsatu, erabaki* eta abar). Eta badira beste aditz gutxi batzuk —*izan, ukan, aurkitu, bilatu*...— [galde hitza + aditzoina / partizipioa] moduan azaleratzen diren erlatiboak onartzen dituztenak. Erlatibo hauen ardatza isilpeko izen bat izango da. Osagarria izen sintagma dela berresten du partizipioa artikulatu eta guzti edo partitiboan emateko aukerak ere: *Izan ere, umeak badu nork zaindua* (Goenkale); *Idazle horiek denek burua hutsa dute, ez dute zer esanik* (Navarro).

Aztertzen ari garen egitura hauetako batzuek, bestalde, bitariko esanahia dute. Aldera ditzagun bi perpau hauek: *Ez dugu zer janik / Ez dugu zer janik beti okela*. Lehenaren parafraasi egokia da *ez dugu jatekorik*. Bigarreanean, ostera, ez dugula beti okela jateko arrazoirik, obligaziorik, adierazten dugu. Hau da, *ez dugu zertan/zergatik* egituraren pareko bilakatzen da. Horregatik ematen ditugu okertzat, edo ez behintzat gomendagarritzat, *zer(tan)* eta *beharrik* pila turik dituzten egiturak: *??Ez duzu zer(tan) haren bila ibili beharrik*. Hona beharra edo obligazioa adierako adibide batzuk: *Ni zerura iganagatik, ez da zuek zer penatu* (Mendiburu); *Eztugu bertzeri zer atxakia emanik, eta ez zer hoben egotzirik, geureak ditugu faltak* (Axular). Perpau nagusia ezezkoa denean gertatzen da maizenik balio hori, baina baiezkoa denean ere gerta daitezke: *Bada/badu zer kezka; Bada/badu zer triste egon*.

Galde hitza + *-tuko* moldeko perpau sak ere erlatibo mota jakin baten tankera dute; ez dira egiaz zehar-galderak: *Zain dago lagunak noiz etorriko / zer gertatuko*. Batzuetan *zain* isilpean dela ere ager daitezke: *Hantxe gelditu dira, zuk noiz deituko*. Moduzkoen itxura hartzen dute orduan.

### 30.8.4. Zehar-galderak izenaren osagarri

**30.8.4a** Baieztapena baino areago, galdera edo zalantza sortzen da auzi honetan: izan al daitezke zehar-galderak —aukera galderak zein zatizkoak— izen baten osagarri? Euskaldun askok nekez onartzen dituzte honako adibide honen parekoak: [*Autoa zenbat ordaindu genuen galdera*] ez zitzaidan oso egokia iruditu. Badira, hala ere, euskaldunak horrelako egiturak emateko arazorik ez dutenak: *Noiz hilko naizen beldurra askotan sentitu dut; Madrilen zenbat aldiz izan naizen galdera hamaika bider egin didate; Zer esango digun kezkak hartu nau*. Baina, berriro esan, esamolde hauen tankerakoak ez dira euskaldun gehienek gogobetekoak. Literaturan ere nekez aurkituko ditugu horrelakoak, oraintsuko autoreetara jotzen ez badugu behintzat. Gainera, testuetan aurki daitezkeenak oso esamolde jakinetan ageri dira: ez zuzenean izen baten osagarri gisa, baizik izen horrek aditz batekin osatzen duen predikatu baten osagarri gisa: *zalantzan jarri, kezkaz bete, susmoa izan/sortu, zalantzan ibili, zalantzaz egon* eta horrelako predikatu egituren osagarri. Ondoko adibide hauek ikusi baino ez dago: *Eta errikoak [...] ikusi zutenean, jarri ziran, Sanson'ez zer esan etzekitela, eta jainkoa gizon antzean, edo gizon utsa ote zan zalantzan* (Lardizabal); *Era onetako jardunean egon ziran arrantzaleak luzaro, euren lagunakaz zer geratu ete zan kezkaz beterik* (Agirre); [...] *bigarren mallako jantokira aldatzen utziko ote zioten galdera egin zuenean* (J. A. Irazusta). Horien tankerakoak dira XXI. mendeko beste bi hauek ere: *Frantzia jendegabetuko ote den beldurra al dago?* (Montorio eta Elexpuru); *Alde egin ote duen susmoa sortu zaizu gero, eta burua itzuli duzu badaezpada ere* (Goikoetxea eta Egiguren); *Banuen Imanolek ezetz esateko beldur pixka bat, uko egingo ote zidan beldurra, baina ez zen halakorik gertatu* (A. Arana).

**30.8.4b** Bi ohar ikusi berri ditugun adibideak direla eta: a) *bai/ez* erakoak dira, gehienetan *ote* partikulak lagundurik ageri direnak; b) sarritan halako eten bat gertatzen da zehar-galderaren eta ustezko ardatz den izenaren artean, gobernatzailea ez baita izena bera, predikatu egitura osoa baizik. Gobernatzailea ez dela izena bera bakarrik frogatzeko, nahikoa da izen horiek zenbait kasu markaz hornitu eta perpausean legokiekeen osagai gisa jartzen saiatzea: ??*Bi-*

*garren mailako jantokira aldatzen utzi zioten galderak zerbaitetarako balio izan zuen.*

Askoz onargarriagoak egiten zaizkigu, ostera, beste hauek, nolabait “erdibituak”: *Galdera egin didate Madrilen zenbat aldiz izan naizen; Beldurra sentitu dut noiz hilko naizen; Kezka handia dut zer esango digun; Ikara sartu zaio gorputzean nola biziko den.* Adibide horiek erakusten dutenez, ez dago eragozpenik zati galderak emateko ere horrelako egitura “erdibituetan”. Hauetan ere, ordea, ustez gobernatzaile den izena absolutiboan ematen da; zailtasunak sortzen dira beste kasu batzuetan emanez gero. Horrexek pentsarazten digu, hain zuzen ere, predikatu konplexuak direla gobernatzaileak, eta ez izen soila (§ 30.6.2.1c, § 30.7.2.1.1d).



## 31. Perpaus erlatiboak

---

31.1. Perpaus erlatiboak izenaren modifikatzaile adjektibalen artean

31.2. Erlatibo motak; 31.2.1. Perpaus erlatibo arruntak: jokatuak (P+-n) eta jokatuga-beak (partizipio+-ta+-ko); 31.2.2. Izenordain erlatiboz eraturiko perpaus aposiziozkoak (zein-+bait-/n); 31.2.3. Korrelaziozko erlatibizatzea: galde hitza (+bait-/n), anafora [Zu nora (baitzoaz/zoazen), hara(xe) (noa) ni]; 31.2.4. Zehargaldera jokatugabeen egitura bereko perpaus erlatibo balioko esapideak

31.3. Zer den interpretazio zehaztailea eta zerk eragiten edo eragozten duen hala-koa; 31.3.1. Sintagma adjektibalak erreferente espezifiko (zehatz eta bakarra) duten izen-ardatzekin: pertsona izenordainak, izen bereziak; 31.3.2. Interpretazio zehaztailea eragiteko gai den IS-konfigurazioa: [(sintagma adjektibal) | (sintagma adjektibal)] + -a(k); 31.3.3. Kasuan kasuko interpretazioa: sintagma adjektibalen semantika eta pragmatika

31.4. Perpaus erlatibo jokatuak; 31.4.1. Zer diren perpaus erlatiboak; 31.4.2. Perpaus erlatiboetan diren mota desberdinak; 31.4.3. Perpaus erlatibo jokatu arruntak; 31.4.3.1. Izen sintagma erlatibatua: perpaus erlatiboan isildua dena; 31.4.3.2. Perpaus erlatiboetako menderagailua; 31.4.3.3. Perpaus erlatiboaren tokia ardatzari buruz; 31.4.3.4. Sintagma erlatibatua perpaus erlatiboaren barneko beste perpaus menderatu batekoa denean; 31.4.3.5. Perpaus erlatiboaren barneko osagaien tokia; 31.4.3.6. Zein diren erlatiba daitezkeen izen sintagma: erlatibatze eskala; 31.4.3.7. Testuinguruaren garrantzia; 31.4.3.8. Erlatibatzea errazteko bideak; 31.4.3.9. Ardatzaren nolokotasuna; 31.4.3.10. Erlatibatzea gertatzen den perpausak zer motatakoak izan daitezkeen; 31.4.3.11. Perpaus erlatiboaren metatzea; 31.4.3.12. Perpaus erlatibo subjektiboak (-lako); 31.4.3.13. Izen ardatza isildurik daukaten per-

paus erlatiboak; 31.4.3.14. Perpaus erlatibo arruntak aposizioan; 31.4.3.15. Ardatz agerikorik gabeko perpaus erlatibo subjektiboak; 31.4.4. *Zein*-erlatiboak. Ezaugarriak; 31.4.4.1. Menderagailuaren forma; 31.4.4.2. Izenordain erlatiboaren forma (*zein/zeina-* eta *non-*); 31.4.4.3. Izenordain erlatiboak hartzen dituen kasu marka nahiz postposizioak; 31.4.4.4. *Zein*-erlatibo konposatu eta konplexuak; 31.4.4.5. *Zein*-erlatiboen tokia aurrekariaren eretzera; 31.4.4.6. *Zein*-erlatiboen oinarritzko balio semantikoa eta erlatibo moldeen arteko desberdintasunen neutralizazioa; 31.4.5. *Bait*-erlatiboak; 31.4.5.1. *Bait*-erlatiboen ezaugarriak; 31.4.5.2. Erresunptiboen forma (agerikoa edo ez-agerikoa); 31.4.5.3. *Bait*-erlatiboetako izen sintagma erlatibatuen kasu markak eta postposizioak; 31.4.5.4. *Bait*-erlatibo konplexuak; 31.4.5.5. Aposizio motak; 31.4.5.6. *Bait*-perpausen anbiguotasuna; 31.4.5.7. *Bait*-perpaseko izenordain batek aurrekari gisa perpaus bat duenean; 31.4.6. Korrelazioz eraturiko perpaus erlatiboak; 31.4.6.1. Korrelaziozko perpausak: aurkezpena; 31.4.6.2. Korrelaziozko perpausen egitura; 31.4.6.3. Korrelaziozko perpausen balioa; 31.4.6.4. Izenordain korrelatu aurrekariaren forma; 31.4.6.5. Korrelaziozko izenordain anaforikoaren forma; 31.4.6.6. *Ere* eta *eta* korrelaziozko perpaus erlatiboetan; 31.4.6.7. Korrelaziozko erlatiboak mendeko perpaus bateko osagai; 31.4.6.8. Korrelaziozko perpaus erlatiboaren tokia; 31.4.7. Aurrekaririk gabeko galdera izenordaina duten erlatiboak

31.5. **Perpaus erlatibo jokatu gabeak**; 31.5.1. Sarrera; 31.5.2. Perpaus erlatibo jokatu gabe arruntak; 31.5.2.1. Perpaus erlatibo jokatu gabe arrunten aldaerak; 31.5.2.2. Zenbait ezaugarri, perpaus erlatibo arrunt guztiei dagozkienak; 31.5.2.3. Perpaus erlatibo jokatu gabeen ezaugarri bereziak; 31.5.3. Korrelaziozko perpaus erlatibo jokatu gabeak; 31.5.4. Galderazko izenordaina daukaten perpaus erlatibo jokatu gabeak

---

## 31.1. Perpaus erlatiboak izenaren modifikatzaile adjektibalen artean

**31.1a** Izen sintagmen ardatz diren izenek hainbat modifikatzaile har dituzakete, formaz askotarikoak baina funtsean eginkizun (adjektibal) bera dutenak (ikus § 14.1a, § 14.1b). Eskuinetik (ondotik), *izenondo* deritzegun



adjektiboak: *trinko*, *gorri*, *zabal*, *pozgarri*, *sarkor*... Ezkerretik (aurretik), berriz, alde batetik, postposizio sintagmazkoak: *gure*, *lagunen*, *aulkiaren* (genitiboazkoak) eta gainerakoak, *-ko* postposiziozkoak, hala nola *etxeko*, *biharko*, *haientzako*, *zurekiko*; eta, bestetik, perpausezkoak, jokatu gabeak (*-ko* postposizioaz eratuak horiek ere: *josteko*, *jositako*) nahiz jokatuak: *josi duzun*.

**31.1b** Beharbada argigarri da zerrenda horren hurrenkera alderantzikatzea, hartara agerian geratzen baita nola jo daitezkeen gainerakoak perpaus jokatuzkoaren aldaera laburragotzat edo:

josi duzun zer bait	(zuk) <u>jositako</u> zer bait
josteko darabilgun/dugun zer bait	<u>josteko</u> zer bait
haientzat ekarri duten zer bait	<u>haientzako</u> zer bait
lagunek duten zer bait	<u>lagunen</u> zer bait
trinko den zer bait	zer bait <u>trinko</u>

## 31.2. Erlatibo motak

### 31.2.1. Perpaus erlatibo arruntak: jokatuak (P+-n) eta jokatugabeak (partizipio+-ta+-ko)

Sintagma adjektibalek, bada, lotura semantiko nabaria dute, azalean zein sakonean, perpaus batekin (proposizio batekin), eta horregatik aitortzen zaie predikazio bat dakartela berekin. Zein bere atalean aztertu ditugu sintagma adjektibal horietatik gehienak: adjektibo edo izenondoak (ikus 14. kapitulua), genitiboa (§ 18.6), postposizio sintagmak (ikus 19. eta 20. kapituluak), *-tzeko* perpaus osagarri (§ 30.7.2.1) nahiz helburuzkoak (§ 37.4). Geratzen zaizkigunak, hala, bi egitura dira nagusiki: gainerakoen oinarri modukotzat jo dugun perpaus jokatuzko sintagma adjektibala (perpaus+-n: *josi duzun*), eta haren bertsio jokatu gabea, partizipioa oinarri duena (partizipio+-ta+-ko: *jositako*).

Horiek ditugu, zenbait aldaerarekin batera, perpaus erlatibo arruntak, hemen bereziki aztergai ditugunak.

### **31.2.2. Izenordain erlatiboz eraturiko perpaus aposiziozkoak (*zein-+bait-/-n*)**

Horiez gainera, badira beste bi egitura perpaus erlatiboen sailean bildu ohi direnak baina, kideetasunak kideetasun, *izenaren modifikatzaile adjektibal* funtzio hori betetzen ez dutenak. Alde batetik, (euskarazko perpaus erlatibo arruntak ez bezala) izenordain erlatiboz eratzen diren aposiziozko perpausak; halakoak, aposizio ez-murrizgarriak dira funtsean (§ 28.9.2b), hau da, sintagmatik kanpoko aposizioak, eta, formalki menderatuak izanik ere, esaldi gehitu baten balio semantiko bera dute: *zure semeari, zeina isilik baitago* (= *zure semeari / hura [zure semea] isilik dago*). Oso urrun dago, bada, halakoen funtzioa eta esanahia, egitura ez ezik, *-n* menderagailuaz osaturiko sintagma adjektibaletatik, nahiz eta testuinguru jakin batzuetan (garbienik, aurrekaria erreferente zehaztugabekoa denean eta absolutiboan dagoenean) oposizio semantikoak neutralizatu: *argitzeko dauden kontu potolo batzuk/asko* = *gauza potolo batzuk/asko(,)* *argitzeko daudenak* = *gauza potolo batzuk/asko, zeinak argitzeko dauden/baitaude*. Halakoei ere leku zabala eskainiko diegu hemen. Ikusiko dugunez, *bait-* menderagailua erabiliz gero, izenordain erlatiborik gabe ere antola daiteke perpaus erlatiboa: *ahots eder bat entzun dut, (zeina) eztitasunez beterik baitzegoen, haren* (= *zeinaren*) *parerik ez baitzen*.

### **31.2.3. Korrelaziozko erlatibizatzea: galdera hitza (*+bait-/-n*), anafora [*Zu nora (baitzoaz/zoazen), hara(xe) (noa) ni*]**

**31.2.3a** Beste alde batetik, bada beste jostera mota bat perpaus erlatibo arruntan *balio semantiko* bera izan dezakeena, baina bestelako egitura ageri duena, bi zatitan banatua; lehenbiziko osagaian, galdera hitz bat baliatzen da

inkognita balioko erreferentetzat, eta bigarrenean, berriz, haren inkognita-erreferentzia bereko anaforz erantzuten: *hark zer [X edo Y] eskaini (baitizu/dizun), huraxe [X edo Y] onartu.*

**31.2.3b** Adibide horretako parentesiak adierazten duen moduan, bertsio jokatua eta jokatugabea ditugu; horretaz gainera, ohikoa da osorik isildurik geratzea adizkia, hala nola esapide gisako askotan: *eguzkia nora, zapiak hara* (erlatibo jokatugabetzat hartuko ditugu horrelakoak). Konparatistek dioskuteenez, oso prozedura zabaldua da hori (*korrelaziozko erlatibatze* delakoa) munduko hizkuntzen artean. Zenbaitek areago ere badiote: egitura horren bilakabidetzat ez ote diren hartzekoak gainerako erlatibo motak; honelatsu, alegia, euskaraz:

zer sari (X) eskaini dizun, sari hori (X)
(sari bat, X) eskaini dizun sari hori (X)
zer sari (X) eskaini baitizu/dizun, sari hori (X)
sari hori (X), zeina (X) hark eskaini baitizu/dizun

**31.2.3c** Perpaus erlatibo jokatugabeetan kausi daitezke korrelaziozko egiturak, bereziki errefrau eta esaeretan: *kea nora, haizea hara.*

#### 31.2.4. Zehar-galdera jokatugabeen egitura bereko perpaus erlatibo balioko esapideak

Adierazpen aditzekin erabiltzen dira zehar-galdera jokatugabeak (§ 30.8.3), adizki nagusiaren denborarekiko aurrera begirakoak, eta beren baitan modalizazio bat daramatenak: *Badakit zer/nori/nola esan (= esan behar diodan, esan diezaiokedan)*. Bada, egitura bereko perpausak erabiltzen dira beste aditz mota batekin erlatiboen balioko eraikuntza batean: *Badaukat zer/nori/nola esan(a)*.

### 31.3. Zer den interpretazio zehaztailea eta zerk eragiten edo eragozten duen halakoa

#### 31.3.1. Sintagma adjektibalak erreferente espezifiko (zehatz eta bakarra) duten izen-ardatzekin: pertsona izenordainak, izen bereziak

**31.3.1a** Izatez erreferente espezifikoa duten izen sintagmei ez dagokie berez modifikatzaile adjektibalik hartzea. Pertsona izenordainen kasuan, (ia) erabatekoa da debeku hori, espezifikotasunaren goren mailan baitaude *ni*, *zu* eta *abar*, pertsona zehatz batzuen erreferentzia ematen die-eta zuzeneko solas-inguruak. Izen berezien kasuan, berriz, gerta daiteke erreferentzia ez izatea nahitaez *bakarra*, hala nola *Joanes*, *Etxeberri* edo *Markina* diogunean. Kasu horretan, aukerakoa da erreferentzia areago zehaztea: *Zabaletako Joanes*, *Sarako Etxeberri*, *Arabako Markina*, *Joanes Etxeberri Sarakoa/Ziburukoa*...

Azken adibidean bezala izen berezia amaieran ez badoa, determinatzailea hartzen du sintagmak, izen sintagma arruntan ereduari (non eta deitura bihurtu ez den: *Peru Leartzako*): *Sarako Etxeberri* / *Etxeberri Sarakoa* / *gure Josune* / *Josune gurea*. Modifikatzaile adjektibala perpausezkoa bada, hots, erlatiboperpau jokatu zein jokatugabea, areagotu egiten da erreferentzia zehazten ari garelako interpretazioa: *Saran jaioa den Etxeberri*... / *Ziburun jaio(tako/riko) Etxeberri*... Bada berez aukera efektu hori arindu edo moteltzeko, perpausa eskuineraturik, baina ez da noski ohikoena gaur egungo euskaran: *Etxeberri Saran jaioa denak*; *Etxeberri Ziburun jaio(tako)ak*.

**31.3.1b** Perpausak adierazten duenaren arabera, eta izen bereziaren zehaztasun-mailaren arabera, zailago edo errazago izango da egitura horrek berezko duen zehazte-esanahi hori bere horretan hartzekoa den ala besterik adierazi *nahi* den, hots, honelakoren bat saihesteko erabili den: *Etxeberri*, *zeina Saran jaio baitzen*,... Izen berezia buruan ez badoa, ez da halako eragozpenik, sintagmaren barneko aposizio modura (§ 28.9.2d) geratzen delarik orduan hura: *Saran jaiotako* [*Joanes Etxeberri*] *idazle hark*; *Saran jaiotako* [*Joanes Etxeberri*] *mediku idazle horrek*; *Saran jaiotako* [*Joanes Etxeberri*] (*mediku*) *idazle bikainak*.

**31.3.1c** Berezi beharra dago, bada, IS arrunten moldeko halako egiturak eta burutzat izen berezi soila dutenak, azken horietan bakarrik gertatzen baita zehazte-interpretazioaren interferentzia. Perpaus erlatiboak izen bereziei —arruntei bezain usu eta aise— lotzen zaizkiela frogatu beharrez, ez dira adibide gisa aintzat hartzekoak segidan beste osagaien bat duten halako sintagmak. Izan ere, perpaus erlatibo baten ondotik doan izen bereziak erakuslea bakarrik har dezake, ez artikulua: *Hau ez da nik miresten nuen Itziar*; *Hau ez da nik miresten nuen Itziar hura*; *Hau ez da nik miresten nuen \*Itziarra*. Joko hori, esan bezala, izenlagun guztiena da: *gure Irene* / *\*gure Irene* / *gure Irene hori* / *Irene gurea*. Hori, egiturari dagokionez; interpretazioari dagokionez, ikus § 31.3.3.

Bestela, bide beretik, antzeko testuinguruetan, pertsona izenordainak berak ere sar daitezke jokoan, gutxi asko, erakusleak baliatuz: *Orain arte izan zaren zu (gazte) hori*. Izan ere, halakoetan, bi kontu berezi ditugu: batetik, *Joxe nahiz ni* bat baino gehiago badirela ondorioztatzen dugu (inferentziaz); bestetik, erreferentzia bera seinatzen dute erakusleak eta perpaus erlatiboak: *hura = nik ezagutu nuen(a) / hori = orain arte izan zaren(a)*.

### **31.3.2. Interpretazio zehaztailea eragiteko gai den IS-konfigurazioa: [(sintagma adjektibal) / (sintagma adjektibal)] + -a(k)**

**31.3.2a** Bidenabar, garrantzi handikoa da artikulua besteko determinatzaileek izen arruntezko ISetan ere duten portaera. Izan ere, *zehaztaile* nahiz *murritzgarri* (*murritztaile* ere erabili da) terminoei zentzu garbi bat emango badiegu, IS osoaren jokoari begiratu beharra dago, eta ez osagai bakoitzari. Argiago esanik, zehaztaile-interpretazioa hartzen duen (edo har dezakeen) konfigurazioa hau da:

[(EZAUGARRI: ekarri dituzun) (EZAUGARRI: ingelesezko) ZEHAZKIZUN: liburu (EZAUGARRI: zahar)] [ZEHAZGAILU: -ak]

**31.3.2b** Horren barnean integratzen dira, gero, askotariko joko semantiko eta pragmatikoak. *Zehazgailu* funtzioa betetzen duena, hots, zehazte-konfigurazioa osatzen —burutzen, *ixten*— duena artikulua determinatua da, esan bezala (hor, pluralekoa: *-ak*). Beste determinatzaile kidekoenek —*batzuk* artikulua indeterminatuak eta *hauek/horiek/haiek* erakusleek— ez dute balio funtzio horretarako. Lehenbizikoaren kasuan, indeterminatu / zehaztugabe izateak ezgaitzen du *batzuk* erreferente espezifiko bat zehazteko: labur geratzen da (*zein liburu?: ?!liburu batzuk*). Erakuslea, berriz, beste muturretik, bera da jada zehaztapena, perpaus erlatiboaren beharrik gabe (*zein liburu?: (liburu) horiek*), arestian izen bereziet ari ginela ikusi dugun moduan: *liburu (zahar) horiek (= ekarri dituzunak)*. Horregatik, ez du zentzurik perpaus erlatiboaren beren (nahiz edozein sintagma adjektibalen) *zehaztailetasunaren* kontuak honelakoetan: *ekarri dituzun (ingelesezko) liburu (zahar) batzuk/horiek*. Izatekotan, sintagma adjektibal multzoen arteko antolaera semantikoaren interpretazio-aukerak ditugu hor auzi: [*ekarri dituzun [[ingelesezko liburu] [zahar]]*]; [*ekarri dituzun [[ingelesezko [liburu zahar]]]*]; [*ekarri dituzun [ingelesezko liburu]] [zahar]*]....

Jakina, *murriztu*, edozein modifikatzailek murrizten du izen arrunt soilaren adiera: (*ingelesezko*) *liburu zahar* sintagma adigai murriztagoa da *liburu* baino, baina ez da kontu orokor hori buruan duguna *zein* galderaren erantzun espezifikoari dagokion zehazteaz ari garenean. IS zehaztaile arrunta beste hau da hor: *ekarri dituzun liburuak (zein liburu?: ekarri dituzunak)*.

### 31.3.3. Kasuan kasuko interpretazioa: sintagma adjektibalen semantika eta pragmatika

**31.3.3a** Esan bezala, gero, semantikak eta pragmatikak aginduko dute. Sintagma adjektibalen artean *nolako* —eta ez *zein*— adiera hartzeko joera nabarrena dutenak, hots, izenondoak, ez dira guztiak berdin integratuko, beren esanahiaren arabera. Adjektibo kalifikatzaile askok interpretazio biak onartuko dituzte: *Auto txikia/gorria erosi dute (zein auto?, nolako autoa?)*. Iritzi-emate eta enfasia nagusitu ahala, nekezago gertatuko da *zein* interpretazioa: *Auto bikaina erosi dute (nolako autoa); ?!Bikaina (dena) aukeratu dute eta ez kax-*

*karra (dena)*. Alegia, egiturazko anbiguotasun kasuetan, perpaus erlatiboak —edozein sintagma adjektibalek— adierazten duen ezaugarria nolakoa, hartara lerratuko da interpretazioa, betiere testuingurua lagun. Eskuarki, ez da nagusituko interpretazio zehaztailea (beste *liburu kuttun* batzuekiko kontrasterik, alegia) honelako batean: *behin eta berriro irakurri ohi ditugun liburu kuttunak* (*kuttunak = behin eta berriro irakurtzen ditugun(ak)*); bai, aldiz, honelakoetan: *goizean etxera ekarri dizkidazun eskola-liburuak*.

Errepika dezagun ez dela halako bereizkuntzarik determinatzailea artikulua ez denean: *behin eta berriro irakurri ohi ditugun liburu kuttun horiek/batzuk; goizean etxera ekarri dizkidazun eskola-liburu batzuk/horiek*.

**31.3.3b** Laburturik, bada: interpretazio zehaztailea IS batzuen konfigurazio jakin oso batean oinarritzen da:

[(EZAUGARRI aipatzen ari garen) ZEHAZKIZUN izen] [ZEHAZGAILU -a(k)]

ISaren osagai diren egiturek (perpaus erlatiboek zein bestelako modifikatzaile adjektibalek) ez dute berez behartzen halakorik; izatekotan, semantikak eta pragmatikak lagundu egiten dute edo eragotzi halako interpretazioa ematen artikuluz determinaturiko IS osoari.

**31.3.3c** Izen berezietara itzulirik, baldin eta halakoekin erabili nahi badira perpaus erlatiboak (bai eta gainerako izenlagunak ere, hots, ezkerretiko sintagma adjektibalak), kontuan hartu behar da noiznahi *aktiba* daitekeela, konfigurazio horretan, interpretazio zehaztailea, gutxien uste denean ere: *euskarak hainbeste zor dion Mitxelena* beste *Mitxelenaren* batekin kontrastean interpreta daiteke, eta, ezaugarri horren murriztean ere, nortaz ari gara: *Luis Mitxelena* hizkuntzalari erreteriarraz ala *Joakin Mitxelena* bertsolari oiartzuarrak? Egia da bestelako joskerak argiagoez ere —*Mitxelena, zeinari hainbeste zor baitio euskarak* nahiz *Mitxelena, euskarak hainbeste zor dion (erreteriar) hizkuntzalari (bikain)a*— ez dutela areago zehazten erreferentea, baina guztiz argi uzten dute *Mitxelena* bat bakarra dugula hizpide, beste inorekiko zehazte-kontrasterik gabe.

**31.3.3d** Izen bereziekin bezalatsuko kontua dugu berez erreferentzia bakarrekotzat jotzen ditugun izen arruntekin ere: *beti ondoan izan dituzun gurasoek*; *hain gogaikarri egiten zaigun garizuman*. Hor interpretazio zehaztailea eragotziko lukeena ez da egitura gramatikala, semantika hutsa baizik: nekez irudika dezakegu hor, esaldiak literalki hori iradoki arren, beste gurasorik edo beste garizumarik. Axularrek ere badu halako bat, ustez bakarra testu guztian: *hanbat kalteren eta damuren haste eta pitzgarri den alfertasuna*. Egitura gramatikala eta semantika eskutik joan daitezten, halakoetan eta bestelakoetan, bada betiere aukera egokirik: *gurasoek, beti ondoan izan baitituzu; garizuman, hain gogaikarri egiten zaigun aldi horretan; alfertasuna, zeina hainbat kalte eta damuren haste eta pitzgarri baita*.

## 31.4. Perpaus erlatibo jokatuak

### 31.4.1. Zer diren perpaus erlatiboak

**31.4.1a** Perpaus erlatiboak funtzio adjektibala duten perpaus menderatuak dira, izenlagunen moduan agertzen ohi direnak (ikus § 14.1b). Haien ezaugarria da barnean badutela izen sintagma bat, erlatiboa osagai gisa hartzen duen izen sintagmaren erreferentzia duena, eta euskaraz komunzki agerian ezin ager daitekeena: *[[Goiz honetan Ø<sub>i</sub> hitz egin dizun] gizonari<sub>i</sub>] eman diot liburua*. Adibide horretan, perpaus erlatiboan isilpean dago *[gizonak]*, *hitz egin* aditzaren subjektua, perpaus nagusiko sintagma datiboaren (*gizonari*) erreferentzia bera duena.

Perpaus horretan, datibozko izen sintagmaren barnean, *goiz honetan hitz egin dizun* perpaus menderatua ageri da, *gizon* izen ardatzaren lagun (modifikatzaile adjektibal), haren ezkerrean: *[[[Goiz honetan hitz egin dizun] gizon]ari] eman diot liburua*.

**31.4.1b** Ikus daitekeen bezala, izenlagunen tokian eta haien zeregina duela dator perpaus menderatua. Modu horretan azaltzea, haatik, ez da aski perpaus erlatiboa izateko, ezen badira perpaus batzuk izenlagun bai baina erlatibo ez direnak (§ 30.6.4). *Goiz honetan hitz egin dizun* perpaus erlatiboa da, zeren, agerian ez



den arren, baita haren barnean izen sintagma bat, erreferentziakide dena datiboan den izen sintagmarekin (*gizon* izanki ardatza). Izan ere, perpaus horretan, denok ulertzen dugu *liburua eman diodan gizona, goiz honetan hitz egin dizun gizon hura bera* dela, perpaus hori bi perpaus hauetaz osatua balitz bezala: A) *Goiz honetan gizon batek hitz egin dizu*; B) *Gizon hari eman diot liburua*. A eta B perpausetan *gizon bera* aipatua da, noski; bestela esanda, haietan diren bi izenek erreferentzia bera dute. B perpausean agertzen den *gizon* izenaren mendeko egin dela A perpausa, eta denbora berean hartan isildurik gelditu dela *gizon* izen ardatza zeukan sintagma. [[*Goiz honetan*  $\emptyset$  *hitz egin dizun*] *gizona* <sub>i</sub> *ri eman diot liburua*]. Datiboaren marka duen izen sintagmaren erreferentzia eta perpaus erlatiboan isildua den izen sintagmarena ( $\emptyset$ ) bera da; *i* indizeak markatzen duena, hain zuzen. Kontuan har bedi, perpaus erlatiboan azaltzen ez den izena ezin ager daitekeela, hots, nahitaez isildua izan behar duela. Beha nolako perpaus moldegaitza ager lekigukeen perpaus erlatiboan isildu behar den izena isilean atxiki ez bage-neza: \**Goiz honetan gizonak hitz egin dizun gizonari emanen diot liburua*.

### 31.4.2. Perpaus erlatiboetan diren mota desberdinak

**31.4.2a** Perpaus erlatibo jokatuak aipatu dugun horren irudikoak dira gutiz gehienetan euskaraz; horregatik *perpaus erlatibo arruntak* direla erranen dugu. Badira, bestalde, beste perpaus erlatibo batzuk, besteetarik franko desberdinak direnak, aposiziozkoak baitira beti. Halakoak dira, adibidez, honako perpaus erlatibo hauek: *Egun ederrak iragan ditugu*, [*zeinez luzaz oroituko baikara*]; *Egun ederrak iragan ditugu*, [*luzaz haietaz oroituko baikara*].

Halako perpausak, gure lanean *zein*-erlatiboak deituko ditugunak, tradizio luze-luzea dute euskal literaturan, nahiz ez diren hain erabiliak egun euskara mintzatuan, eguneroko erregistroan behintzat; bai, ordea, idatzian. Aitzinago ariko gara perpaus horietaz (§ 31.4.4), bai eta Iparraldeko autore modernoek bereziki baliatu izan dituzten eta gure lan honetan *bait*-erlatiboak deituko dugun motakoez. ariko Haien ondotik aztertuko ditugu korrelaziozko perpaus erlatiboak eta aurrekaririk gabeko galdera izenordaina duten beste batzuek haiek ere tradizioa baitute gure literaturan, luzeagoa edo laburragoa: *Nor ere*

*ikusiko baituzu han, hari emaiozu; Ekarriko diot nori ere erranen baituzu; Ez dago nork egin dezan horrelakorik.*

**31.4.2b** Honaino aipatu ditugun perpaus erlatiboak jokatuak ziren. Badira, halere, batzuk jokatuak ez direnak: [*Zuk egindako*] *lana*; *Horrek ere emanen dizu* [*zer pentsa(tu)*]. Perpaus erlatibo jokatuaren ondoren aztertu ditugu horrelako egitura jokatuak. Hona, beraz, kapitulu honetan segituko ditugun azterketa urratsak: Perpaus erlatibo jokatuak: Perpaus erlatibo jokatu arruntak (§ 31.4.3); *Zein*-erlatiboak (§ 31.4.4); *Bait*-erlatiboak (§ 31.4.5); Korrelaziozko erlatiboak (§ 31.4.6). Perpaus erlatibo jokatuak (§ 31.5): Perpaus erlatibo jokatuak arruntak (§ 31.5.2); Korrelaziozko perpaus jokatuak (§ 31.5.3); Galderazko izenordaina daukaten perpaus erlatibo jokatuak (§ 31.5.4).

### **31.4.3. Perpaus erlatibo jokatu arruntak**

Ikusi dugu zer diren perpaus erlatibo arruntak. Orain, perpaus horien egiturari dagozkion beste zenbait ezaugarri ikertuko ditugu, eta, denbora berean, baliatuko dugun hiztegia ere finkatuko dugu.

#### **31.4.3.1. Izen sintagma erlatibatua: perpaus erlatiboan isildua dena**

**31.4.3.1a** Perpaus erlatiboa eraikitzean isildu den elementua ez da izen soil bat, baizik eta izen sintagma bat osoa, harekin batean ezabatu delarik kasu marka ere (ergatiboarena, hasierako gure adibidean). Modu berean, segidako adibide hauetan, izen sintagma ergatiboa eta inesiboa datoz isildurik, hurrenez hurren: [ $\emptyset$  *jo nauen*] *gizona ezagutzen duzu*; *Egun batez* [ $\emptyset$  *sortu nintzen*] *herrira itzuliko naiz*. Hemendik aitzina, izen ardatzarekin erreferentziakide den perpaus erlatiboko izen sintagma isilduari *izen sintagma erlatibatua* erranen diogu. Kontuan har anbiguotasunak ager daitezkeela isiltze horrengatik: *Zer gertatu zaito* [ $\emptyset$   $\emptyset$  *ikusit duen*] *gizonari*?

**31.4.3.1b** Halako perpaus erlatiboaren interpretazioa testuinguruak baizik ezin argi dezake. Izen sintagma erlatibatuari isildurik dagoen sintagma erga-

tiboa badagokio, ulertuko dugu ikuslea dela gizona (*zer gertatu zaio istripua ikusi duen gizonari?* adibidearen pareko egitura genuke orduan). Aldiz, sintagma absolutiboa badagokio, ulertuko dugu beste norbaitek ikusi duen gizona dela (*zer gertatu zaio Jonen ikusi duen gizonari?* egituraren parekoa luke orduan).

### 31.4.3.2. Perpaus erlatiboetako menderagailua

**31.4.3.2a** Perpaus erlatiboak perpaus menderatuak izanik, menderagailua lotu behar zaio haien barneko aditz jokatuari. Menderagailu hori *-(e)n* da beti hemen aurkezten ditugun perpaus erlatibo arruntetan. Beste zenbait perpaus menderatutan ere baliatzen da atzizki hori, hala nola zehar-galderetan; berdinak dira kasu guztietan menderagailua lotzerakoan gertatzen diren egokitzenak (§ 29.3).

**31.4.3.2b** Perpaus erlatibo arrunten berezitasuna da halakoetan azken tokian agertu behar duela menderagailuak nahitaez, eta, beraz, adizki jokatu beti hondarrean behar dutela: [*Inoiz ikustera joaten ez naizen*] *lagunak*. Perpaus erlatiboa *lagun* izen ardatzaren aurrean da, eta aditz jokatu da hartan azken tokian agertzen dena, *-(e)n* menderagailua duela. Ez da hor ezezkako perpausetan usaian kausitzen den ordena, zeren guziz ohiz kanpoko baina horrelako ordena modu horretako perpaus beregainetan: ??*Inoiz ikustera joaten ez naiz*. Perpaus beregainetan bitxia edo ohiz kanpoko den ordena hori, ez soilik ohikoa eta zilegi (beste zenbait perpaus menderatutan gerta daitekeen bezala), baina ezinbestekoa da perpaus erlatiboetan, laguntzen duten izen ardatza agerikoa denean behintzat.

### 31.4.3.3. Perpaus erlatiboaren tokia ardatzari buruz

**31.4.3.3a** Ikusi dugu perpaus erlatibo arruntak izenlagunen moduan agertzen diren perpaus menderatuak direla. Izenlagunak, dakigunaz, ardatzaren ezkerrean ematen ohi dira euskaraz, eta hala agertzen dira komunzki per-

paus erlatibo arruntak ere. [*Inork irakurtzen ez dituen*] *liburuak*. Horrek, haatik, ez du erran nahi ardatz horrek ez dezakeela beste inguratzailerik izan, hala nola izenlagun bat edo zenbatzaile bat: [*Aspaldi irakurri ez nituen*] *euskarazko hiru liburu hartu nituen*. Adibide horretan, *liburu* da perpaus erlatiboa dagokion izen ardatza; erlatiboaren eta ardatzaren artean, *euskarazko* izenlaguna eta *hiru* zenbatzailea agertzen dira. Ardatzak ezkerrean mota desberdineko lagun bat baino gehiago duenean, erlatiboa da komunzki ezkerrean urrunenik izaten dena, hor bezala. Batzuetan halere genitibo edutezkoan den izenlaguna perpaus erlatiboaren ezkerrean agertzen da, testu zahar zenbaitetan bereziki: *Itzuliren naiz* [*neure* [*ilkhi naizen*] *etxe*]*ra* (Leizarraga). Gaur egun ere gertatzen da batzuetan izenlaguna perpaus erlatiboaren ezkerrean agertzen baita, zenbait esapidetan batez ere: [*Harako* [*aipatu nizun*] *gizon*] *hura*.

**31.4.3.3b** Perpaus erlatiboak, beste izenlagunak bezala, ezkerrean izaten ditu izen ardatzak, eta horregatik euskaraz erlatiboak ezkerretik txertatzen direla esaten da, eta ez hurbileko erdaretan bezala eskuinetik. Hargatik, gauza ezaguna da batzuetan izenlagunak ardatzaren eskuinean ere ager daitezkeela, determinatzailearen aurretik, izenondoan tokian. Gauza bera gertatzen da erlatiboekin ere, ondoko adibidean bezala: *Gizon* [*aspaldi ikusi ez nituen*]*ak aurkitu nituen han*. Hor, perpaus erlatiboa ez da aposatua, baizik izen sintagmaren barneko osagarria, izenondoan lekuan doana. Izen ardatzak (*gizon*) ez du, beraz, hondarkirik, sintagmaren bukaeran erlatiboaren ondoren agertzen baita hondarkia (-*ak*). Eskuineko perpaus erlatiboak izenondo baten ondoan eta atzetik beste elementu bat dutela ager daitezke izen sintagmaren barnean: *Gizon gaizto*, [*herrian orok hastio zuten*] *bat*; *Apez eskualdun arrotz* [*gu hainbertze maite gaituen*] *hari*. Halere, izenondoak, eskuinaldeko erlatiboaren atzean ere izan daitezke, nahiz ez den hori haien usaiako tokia: *Holako gezur* [*xutik doatzin*] *izigarriek*.

Badirudi euskalki guzietan erabili direla eskuineko erlatiboak. Gaur egun, ordea, gutiagotan erabiltzen dira, bereziki erdialdeko eta mendebaldeko euskalkietan. *Eztabil zu legez basatzarik basatza oñetako meiakaz, ta bai zaldi* [*berak beste urte ditu*] (*b*)*anian* (Mogel); *Artu egizu beiñ onako trapu* [*ikusleak*

*ekarri dituz]anak* (Mikoleta); *Zeren ezpaititik sinhetsi ene hitz [bere denboran konplituren dirade]nak* (Leizarraga). Eskuineko eta ezkerreko tokiak zilegi izanik, ardatz berak perpaus erlatiboak izan ditzake bi aldeetarik, ezkerrean eta eskuinean: *[Aipatu zenidan] haur gaizto, bihurri, [inork jasan ez dezakeen] hark egin omen du*; *[S. Joanek sardonix deitzen dion] arri [zuri gorritara ematen duan] bat* (Agirre Asteasukoa). Izen berezien eskuinean ere erabil daitezke erlatiboak: *Neskatxa hori aitaso Kinh [ongi ezagutzen duzuen]arena baita, errazue zer gaizki egin dautzuen* (Zerbitzari).

#### 31.4.3.4. Sintagma erlatibatua perpaus erlatiboaren barneko beste perpaus menderatu batekoa denean

**31.4.3.4a** Perpaus erlatiboak menderatuak izanagatik, berek ere barnean perpaus menderatuak izan ditzakete. Zer gertatzen da, beraz, horrelako perpaus batean agertzen bada izen sintagma erlatibatua? Zilegi al da horrelakorik egitea? Bada, bai; bereziki, *-(e)n* menderagailua hartzen duen aditzaren perpaus osagarri bati badagokio perpaus menderatu hori: *[Inoiz [Ø ikustera] joaten ez naizen] lagunak*. Isildurik dagoen izen sintagma erlatibatua adlatiboan den perpaus osagarri jokaturagabea sartua da. Aurreko adibidean perpaus osagarri jokaturagabe batean sartua zen izen sintagma erlatibatua, baina perpaus osagarri hori jokaturagabe ere izan daiteke: *[[Ø laguntza emanen dizula] uste duzun] gizona*; *[[Ø salatuko ote zaituen] beldur zaren] gizona*. Joko hori perpausak horrela metatuz eta barnago joanik errepika daiteke; hots, perpaus osagarriko aditzari dagokion beste perpaus osagarri batekoa ere izan daiteke izen sintagma erlatibatua. Haatik, orduan, gramatikak eskaintzen duen ahal hori ezin baliatuzkoa gertatzen zaie hiztunei, gramatikaren legeak kolpatzen ez diren arren, menderatze segida horretan galtzen baitira: *[[[Ø ikusiko duzula] pentsatzen duzula] erran didazun] gizona*. Usaian, beraz, idazleak ez dira lehenbiziko perpaus osagarria baino barrenago joaten: *[[Gero eginen dugula] diogun] ontasuna* (Axular); *Zeruan deitzen dioten tokian [[badirela] dioten] saildu edo aingeru hetarik bat?* (J. Etxepare). Ikusiko ditugu geroxeago horrelako perpausetan gertatzen diren zenbait komuntadura arazo.

**31.4.3.4b** Berdin erlatibatzen ahal ote dira gobernatzaile baten pean ez dauden mendeko perpaus bateko izen sintagma (perpaus adjuntuak, alegia). Ez hain errazki behintzat. Alabaina, izen sintagma erlatibatua horrelako perpaus adjuntu batean sartua denean, denborazko perpaus batean adibidez, edo baldintzazko batean, edo kausazko batean, erdipurdikoak-edo dira ondorioak, inguru egokietan agertzen ez badira bereziki, dudazkoak edo traketsak, gutiago edo gehiago, norik esan edo entzuten dituen: *?[Ø hil berria baitzen denak arras penatuak ginen] haur gaixo haren ama altxatu zen; ??Badira [Ø eskolan falta direnean haurrak pozten diren] irakasleak.*

Adibide horietan, izen sintagma erlatibatua objektua edo subjektua izanik, ez da erlatibatze eskalari dagokion oztoporik. Hargatik, ikus daitekeen bezala, ondorio hala-holakoak ditu erlatibakuntzak adibideotan, nahiz interpretazio erraza izateko eratuak izan diren. Arrazoa argi da: kausazko perpaus batean eta denborazko batean sartua da sintagma erlatibatua, hitz batez, perpaus adjuntu batean, eta ez perpaus osagarri batean. Ikus kontrastea, berdin, erlatibo jokatu gabe hauetan: *[[telebistan Ø ikusteko] etxean gelditu ginen] filma; [[bart Ø ikustera] joan ginen] filma.* Lehen adibidean, izen sintagma erlatibatua helburuzko perpaus jokatu gabe adjuntu batean sartua da (erlatibatzerik gabe, honelako zerbait izan daiteke perpausa: *Etxean gelditu ginen, filma ikusteko*). Bigarren adibidean, berriz, izen sintagma erlatibatua *joan ginen* aditzaren osagarri den perpaus jokatu gabean sartua da (*Bart filma ikustera joan ginen*). Bi adibideetan perpaus menderatuak formaz berdintsu izanagatik, anitzez naturalago gertatzen da erlatibatzea bigarrean.

#### 31.4.3.5. Perpaus erlatiboen barneko osagaien tokia

Ardatza agerian duten perpaus erlatiboetan aditz jokatu bukaeran agertzen ohi dela ikusi dugu gorago. Horregatik, haien barneko izen sintagma guztiak aditzaren ezkerrean ohi dira: *[goizean kalean ikusi ditudan] haurrak.* Hor, perpaus erlatibotik ateratzen badugu, moldegaizki eratu da *kalean* sintagma: *\*[goizean ikusi ditugun] haurrak kalean.* Geroago ikusiko dugunaz, bestela ageri dira gauzak izen ardatza isildua daukaten sintagmetan (§ 31.4.3.13).

### 31.4.3.6. Zein diren erlatiba daitezkeen izen sintagmak: erlatibatze eskala

**31.4.3.6a** Gorago erran dugun bezala, izen sintagma erlatibatuari dagokion kasu marka ere isildurik gelditzen da perpaus erlatibo arruntetan. Horrenbestez, hiztunek ez dute informaziorik, ez informazio zuzenik behintzat, izen sintagma horrek perpaus erlatiboan duen funtzioaz, edo dagokion kasuaz, eta ingurumen sintaktikoaren eta diskurtsiboaren arabera aurkitu behar dute dena delako funtzio edo kasu marka. Halatan, ez da harritzeko sintagmen eginkizunen araberrako erlatibatze eskala bat agertzen baita euskaraz, beste hizkuntza askotan bezala, izen ardatzaren kasua eta izen sintagma erlatibatuarena desberdinak direnean batez ere, gero ikusiko dugunaz (§ 31.4.3.13).

Kontu horietan gehienetan zirt-edo-zarteko legerik ematerik ez den arren, oro har, esan daiteke eskala horretan hiru maila bereiz daitezkeela, erlatibatze erroz diren sintagmetatik nekezenetaraino: a) egiturazko kasua duten osagarriak, b) egiturazko kasua ez dutenak, c) adjuntuak. Mailakatze horretan, kontuan hartzekoak dira faktore sintaktikoak eta morfologikoak, bai eta semantikoak ere.

**31.4.3.6b** Lehen mailan, errazkienik, arazorik gabe, erlatiba daitezkeen izen sintagmak ditugu: subjektuak eta objektu zuzenak, erran nahi baitu kasu ergatiboa eta absolutiboa dakartenak. Sintagma datiboak doi bat zailago dira erlatibatze, baina halere sail berean ezar daitezke kasu gehienetan. Beraz arazorik gabe erlatiba daitezkeen sintagmak dira absolutiboan, ergatiboan edo datiboan direnak. Ergatiboa: [*Gero idatzi zuen*] *idazlea Urdazubin jaiio zen*. Absolutiboa: [*Bihar mintzatuko den*] *hizlariak jorratuko du gai hori*; [*Erosi duzun*] *liburuak izenburu bitxia du*. Datiboa: [*Liburu bana eskaini diezun*] *lagunak pozik daude*. Predikatu osagarri diren izenak ere modu berean erlatiba daitezke: [*Naizen*] *euskaldun kaxkarrari ez horrelakorik galda!*

**31.4.3.6c** Bigarren mailan, aditzaren argumentu edo osagarriei dagozkien sintagma adberbialak ditugu, solas ingurumen egokietan bereziki aski erroz erlatibatzen direnak, baina testuingururik gabe hiztun anitzi franko bitxi iru-

ditzen zaizkienak. Gutiz gehienetan, izen sintagma hauen kasu markak morfologikoki bakunak edo arinak dira: instrumentala, eta, bizigabeekin, inesiboa, adlatiboa eta ablatiboa. Halakoak, interpretazioaren eraikitzeo aukera eskaintzen duten perpausetan erabiliz gero, aise erabil daitezke izen sintagma erlatibatuetan: *Aurkitu ote dute [akusatu ninduten] krimenaren egilea? Artikulu bat idatzi nahi dut [orain bizi naizen] herriaz*. Sail berean eman daitezke genitiboazko zenbait lokuzioaren osagarriak (*bila ibili, zain egon, galdez egon...*), objektu bati dagozkiolarik: *Azkenean agertu ziren [oihanean bila ibili ginen] haurrak*.

**31.4.3.6d** Hirugarren mailan, erlatibagaitzak diren sintagmak ditugu, esan nahi baitu aditzaren argumentu edo osagarri hurbil bati ez dagozkion sintagma adverbialak, adjuntuak. Halakoak izaten dira, maizenik, postposizio bat barneraturik daukaten marka konplexu edo pisuak: *-ekin, -(en)gan!-(en)ganal!-(en)gandik, -entzat, -engatik*. Salbuespenak salbuespen, halako izen sintagmak, aurrerago aipatu diren ingurumenetarik kanpo, nekez erlatibatzen dira: *\*[Laster joan beharko duzun] lagunek esango dizute* (Laster lagunengana joan beharko duzu); *\*[Laster mendira joan beharko duzun] lagunek esango dizute* (Laster mendira lagunekin joan beharko duzu); *\*[Egia jakin dudan] adiskideari eskerrak bihurtu dizkiot* (Adiskide batenganik jakin nuen egia). Halere, aditzaren argumentu edo osagarri hurbil gisa agertzen direnean, errazkiago egiten ahal dira erlatibatzeak horrelako kasu markak dituzten sintagmekin: *[Goiz honetan hain luzaz solas egin duzun] lagunak kontatu bide dizu hori*; *\*[Goiz honetan gosaldtu duzun] lagunak kontatu bide dizu hori*; *[Konfiantza duzun] norbaiti galdatu behar zenioke*; *\*[Lehenago ere egia jakin zenuen] norbaiti galdatu behar zenioke*.

*Solas egin* aditzak osagarri hurbil bat badu kasu sozietiboa hartzen duena; ez, ordea, *gosaldtu* aditzak. Ondorioz, sintagma sozietiboaren erlatibazioa ez da baldintza beretan egiten bi aditzekin. Halaber *konfiantza izan* lokuzioak badu osagarri bat [+bizidun] ezaugarria duena eta inesiboa eskatzen duena; ondorioz, osagarri horren erlatibazioa ez da hain gogorra nola baita, adibidez, *jakin* aditzarekin ager daitekeen sintagma ablatiboarena (*\*[Lehenago ere egia jakin zenuen] norbaiti*). Sail berean eman daitezke izenlagunak, testuinguru egokie-



tan baizik ez baitaitezke erlatiba arrakastaz: [*Izena ahanzi dudan*] *norbaitek esan dit*; \*[*Etxeraino joan naizen*] *norbaitek esan dit*. Lehen adibidean, *izen* ardatzari dagokion izenlaguna (*haren*) aski errazki erlatibatzen dela. Alderantziz, bigarren adibidean *zail* da, oso, *etxe* ardatzari dagokion izenlagun bera sintagma erlatibatu gisa interpretatzea.

#### 31.4.3.7. Testuinguruaren garrantzia

**31.4.3.7a** Berebiziko garrantzia du solas ingurumenak erlatibazioan. Testuinguru egokirik gabe, gramatikaren aldetik ongi eratuak diren perpaus erlatibo batzuk, halaz guztiz, ilun samar zaizkigu batzuetan: *bazkaldu dugun etxea*; *natorren eliza*; *ahalke naizen liburua*.

**31.4.3.7b** Bizkitartean, guziz jatorrak dira behar bezalako solas ingurumenean baliatzen badira. Hona autore zaharretarik atera zenbait adibide: *Zertako sartzen naiz ni [...] ezin athera naitekeien oihanean* (Axular); *Nekhazalerik baizen ezten herria* (Axular); *Hi aizen lekhua lur saindua duk* (Leizarraga). Idazle modernoagoetan ere kausitzen dira halakoak: *Petirik [...] morroi zegoen ugazabari erantzunik erregarrienak botatzen zizkien* (Etxaide); *Arte hortan, jabe ziren urreak zer eman deien, habil hi!* (J. Etxepare); *Ez baitute erditan deusik, edo bederen zinkurinaz dauden mina ttipienetarik baita* (J. Etxepare); *Zeren Lille-n haizea baizik ez dagoen tren geltoki batean niri itxarroteko kasketa berri bat baitzeraman jantzia* (J. Zabaleta); *Erantzi oineta-koak, zu zauden lekua lur santua baita* (Elizen arteko Biblia).

#### 31.4.3.8. Erlatibatzea errazteko bideak

**31.4.3.8a** Bide bat baino gehiago du euskarak erlatibatzeke zailtasunen gainditzeko, erlatibo arrunten eskema hautsiz bereziki. Halere, erlatibo arrunten eskematik atera gabe ere, izaten da moduren izen sintagma erlatibatuari dagokion kasu edo funtzioa zein den erakusteko.

Baldin izen sintagma erlatibatuari dagokion atzizkia izen ardatzari dagokionarena bada, nabarmenki arintzen da erlatibatzeke nekezia: [*Joseba kalean dabilen*] *neskarekin ezkondu nahi luke Patxik*. Hor, ulertzen da Joseba neska batekin dabilela, eta Patxik neska harekin ezkondu nahi lukeela. Perpaus erlatibatuan, izen sintagma erlatibatuari dagokiona soziationa da, eta hori ez da *ibili* aditzak berez dakarren osagarri hurbil horietarik. Perpausa, halere, ez da ulertzeko zaila, postposizio bera baitakar (kasu paraleloak dira, beste hitzetan) perpaus erlatibatua sarturik dagoen izen sintagmak ere (soziationa: *neskarekin*). Paralelismo horren garrantziari ohartzeko, konpara dezagun aurreko perpausa beste honekin, non ez baitago soziationorik agerian: [*Joseba kalean dabilen*] *neskak ez du senargairik*.

**31.4.3.8b** Izenordain erresunptiboetara jotzea. Konpara ditzagun bi adibide hauek: a) *\*Ez da [bizia eman nezakeen] gizonik*; b) *Ez da [har(en)gatik/bera(ren)gatik bizia eman nezakeen] gizonik*.

Lehen adibideko erlatiboa, perpaus erlatibo arrunten arabera da, baina, soilas ingurumen berezi batean ez bada, ez da ulertzen. Izan ere, izen sintagma erlatibatua ez da aditzaren osagarria, eta hari dagokion postposizioa konplexua da *-(en)gatik*. Kasu paralelismorik ez denaz gero adibidean, neke zaio hiztunari sintagma erlatibatuari bere funtzioaren ematea.

Bigarren adibidean, aldiz, izen sintagma erlatibatuaren lekuan, izenordain esplizitua dator (*har(en)gatik/bera(ren)gatik*). Hiztunak badu oraingoan sintagma erlatibatuaren kasua jakiteko bidea, eta perpausaren interpretazioak ez du dudarik uzten. Hala baliatzen diren izenordainez esaten da funtzio erresunptiboa dutela, eta hizkuntza askotan erabiltzen da halako prozedura. Euskararen literatura tradizioak ez die toki handirik eman horrelako izenordain erresunptiboei. Kontuan har erlatibatzeke modu arrunta nekez balia daitekeela zenbait kasutan, eta erresunptiboa baztertuz gero, arras bestela adierazi behar direla gauzak. Nolanahi ere, ohiko bidea ere erabil daiteke askotan izenlagunak erlatibatzean: *Berau aren atzean ibili zan gizona* (erresunptiboa, Altube) / *Nabarreko erregeek gainean zin egiten ohi zuten zilar-estalgia-rekilako liburu handia* (erresunptiborik ez, J. Etxepare).

**31.4.3.8c** Izen sintagma ergatiboek, absolutiboek edo datiboek aditz komunztadura ekartzen baitute, erlatibatzen direnean ere, haien oihartzuna nabari da perpaus erlatiboan: *ikusi ditugun haurrak*.

Adibide horretan sintagma erlatibatua absolutiboan da. Nahiz isildua den, hari dagokion pluralaren marka ageri du aditzak. Guziz erregularra da jokabide hori, eta oso baliagarria erlatibatzeko zailtasunei aurre egiteko. Konpara ditza-gun guraso berak edo idazle bera izendatzeko balia daitezkeen adibide hauek: *?[Semeak gerlara joanak diren] gurasoak*; *[Semeak gerlara joanak dituzten] gurasoak*.

Lehen adibidean, izen sintagma erlatibatua *seme* izenaren izenlagunari dagokio, eta ez da oso ulerterraza sintagma. Bigarrenean, izen sintagma erlatibatua izen sintagma ergatiboari dagokio, eta guziz naturala da perpaus erlatiboa: *?[Hitz egin dizudan] idazleek* / *[Aipatu dizkizudan] idazleak*. Oso garrantzi handia du puntu honek euskaran. Zenbait kasutan, gainera, numero komunztadurako marka modu irregularrean erabiltzen da izen sintagma erlatibatua aditzean agerrarazteko: *Auzokoak direla esan duzun haurrek* / *Auzokoak direla esan dituzun haurrek*. Lehen adibidea eraikuntza erregularrari darraikio; bigarrena, berriz, ez: *dituzun* aditzean, pluralaren marka sarturik dago, izen sintagma erlatibatuarekin komunztadura eginez.

Komunztadura hori ez da erregularra, *esan* aditzak dakarren perpaus konpletiboan baita izen sintagma erlatibatua. Erlatibaziorik ez balitz, guziz ezinezkoa litzateke komunztadura horren jokaraztea: *\*Auzo herrikoak direla esan dituzu*. Ordea, irregularra izanagatik, ez da zaila kausitzen halako joserakera perpaus erlatibo konplexuetan; besteak beste, sintagma erlatibatua perpaus erlatiboaren barneko perpaus osagarri batean denean: *Hartu al dituzu eramateko esan nizun liburuak?* / *Hartu al dituzu eramateko esan nizkizun liburuak?* Kontuan harturik maiztasun ttipikoa dela eraikuntza hori, hobe litzateke zuhurki jokatzera puntu horretan, eta, erregistro jasoan behintzat, adizki erregularrak baliatzea.

**31.4.3.8d** Izen sintagma erlatibatua leku-denborazko kasu batean denean, zenbait idazlek *-(e)ko* atzizkia lotzen diote perpaus erlatiboari, nolabait sin-

tagma erlatibatuaren funtzioa eta eremu semantikoa seinalatuz. Lekuari edo —batez ere— denborari dagokionean erabiltzen da bereziki jokabide hau; *Zure izanen dela, eta ez eroririk datzaneko lurraren jabearen* (Axular). Gaur egun, mendebaldeko eta erdialdeko idazleek bereziki baliatzen dute jokabide hau: *Bitarte horretan, Cesar, Veronica egon zeneko mahaira zuzendu eta emakumeak hautsontzian utzitako argazkia hartu zuen* (Cano); *Ontzia egin zeneko eguneko argazkia delakoan nago* (Jimenez).

### 31.4.3.9. Ardatzaren nolakotasuna

**31.4.3.9a** Izenordain asko edo gehienak izan daitezke, izenak bezalatsu, perpaus erlatiboan izen sintagmaren ardatz: *ekarri duten hori/horiek/norbaitzuek/zerbait/edozer...* Pertsona izenordainak, aldiz, ez dira arruntean perpaus erlatibo baten ardatz izaten ahal: \*[*Maite zaitudan*] *zuri emanen dizut*. Pertsona izenordainak erlatibatzeke, erakusleak baliatzen dira, pertsona komunztadura atxikiz: *Maite zaitudan (lagun jator) horri emanen dizut; Nire begiz ikusi dudana (lekuko xalo) honek esaten dizut*. Gaur egun, aposizioan erabiltzen dira usuago halakoak, molde honetan: *Zuk, hainbeste gauza dakizun (irakurle fin) horrek, egin behar zenuke*.

Hala ere, testuingururen batean, ez da ezinezkoa pertsona izenordaina ere —izen bereziak bezalatsu— erreferente aukera baten arteko bat-tzat harturik jokatzea (bidenabar, ia izen arrunt bihurturik orduan): *Nitaz, baina zein nitaz? Ni asko ditut eta. [...] Lehengo niaz*. Hor, bestelako izenlagunak ageri dira, baina garbi dago erlatiboak ere berdin lihoazkeela: *Orain arte bizi izan nauten askotariko niez*.

**31.4.3.9b** Hegoaldeko euskalkietan, ahozko mintzairan bereziki, ardatz gisa izenondo bat izanik ere erabiltzen dira erlatiboak. Ohiz kanpoko itzuli markatua da, eredu mailegatu bati jarraikiz, izenondoaren goi maila adierazten duena: *Etxea den garestiarekin, ezin izango dut erosi; Zu zaren argia izanda, ulertu egin behar zenuke*. Beste itzuli bat erabil daiteke gauza bera adierazteko: *Etxea hain garestia izanik...; Zu hain argia izanda...*

### 31.4.3.10. Erlatibatzea gertatzen den perpausak zer motatakoak izan daitezkeen

**31.4.3.10a** Perpaus erlatiboak adierazpenekoak dira beti, baiezkoak edo ezezkoak; ezin izan daitezke galde perpausak, ez eta harridura edo aginte perpausak ere. Halere, zati galderak eraiki daitezke perpaus erlatibo baten osagarri batean oinarriturik: *Nor bizi den etxean sartu da polizia? Noiz ikusi duzun filmaz mintzo zara? Nork eman zizun liburua galdu duzu?* Hiru adibide horietan galdera izenordaina perpaus erlatiboaren barneko osagarri bati dagokio. Hargatik, perpaus erlatiboa bera ez da galderazkoa, perpaus osoa estaltzen baitu galderak. Hots, orokorki izenlagunei dagokien jokabidea kausitzen dugu orduan: *Zenbat etxetako jendeekin mintzatu zara?*

**31.4.3.10b** Gaur egun euskalki gehienetan adizkera sintetikoan ondoan *izan* edo *\*edun* aditz laguntzaileak aurkitzen ditugu perpaus erlatiboetan, bai eta *\*edin* eta *\*ezan* aditz laguntzaileak ere ahalezkoak edo baldintzazko ondoriozkoak direlarik. Halere, mendebaleko euskalkietan (eta bestetan ere lehenago) perpaus erlatiboko adizkera jokaturia *\*edin* edo *\*ezan* izan daiteke ahalezkoa edo baldintzazkoa izan gabe: *Eztio bat ere [gertha dakion] egitekok kalterik eginen batere behaturik ez duenari* (Axular); *[Emakume hari pozgarri ekiozan] berbak esaten* (Erkiaga); *[Entzun dagian]ari dantzan eragiteko txilibitua* (Azkue). Erlatibo subjuntiboak, halere, aski markatuak dira gaurko euskaran, mendebaldeko testuetan ere. Hori besterik izan arren, lehenago erran dugun bezala, ez da arazorik, berriz, perpaus subjuntiboak osagarri direnean haien barneko izen sintagma baten erlatibatzeke; kasu horretan, gaineko aditzak dio erlatiboari abiapuntua ematen, eta bestelakoa da egitura: *[[Lehen baino lehen buka dezazun] nahi nukeen] lana*.

### 31.4.3.11. Perpaus erlatiboen metatzea

**31.4.3.11a** Izen ardatz batek perpaus erlatibo bat baino gehiago har dezake izenlagun gisa. Hori perpaus erlatiboak juntatuz gerta daiteke, noski, beste izenlagunak bezala juntatzen ahal baitira perpaus erlatiboak: *[S. Joaneke Sardonix deitzen dion] arri [zuri gorritara ematen duan] bat* (Agirre Asteasukoa).

Alde bakarrean emanez ere meta daitezke perpaus erlatiboak juntadurarik gabe: [*Orok maite dugun*] [*mesede handiak egin dizkigun*] lagun *batek esan du*.

Halere, aski pisuak gertatzen dira horrelako eraikuntzak, eta gutitan kausitzen dugu, juntadurarik gabe bereziki, bizpahiru perpaus erlatibok baino gehiagok laguntzen duen ardatzik. [*Sortzerik ukan ez duen*] [*ezeztatzerik onets ez dezokegun*], *bere baitharikako* norbeit (J. Etxepare); [*Eskualduna derizana*] [*orok dakiten*] berrikarian (J. Etxepare). Erlatiboak ardatzaren eskuinean direnean ere egin daitezke metatzeak: [...] izei *luze mehar*, [*osto ala adarrak hain usu dituzten*], [*frantsesez cyprès deitzen dituzten*]ak (J. Etxepare).

**31.4.3.11b** Perpaus erlatiboen barneko izen sintagmek berek ere izan ditza-kete erlatiboak beren barnean, modu horretan erlatiboak pilatzen direlarik, hala nola ondoko adibidean: [[*Roland zenaren lagun hoberenatarik zombait ehortziak izan ziren*] *tokiaren gainean eraikirik dagon*] *kapera komentuari* (J. Etxepare); [[*Gainean jartzen zitzaizkion*] *emaztekiak amageitzen zituen*] *harri aipatua* (J. Etxepare).

Haatik, esan beharra dago hemen ere, gramatikak eskaintzen dituen ahalen eta hiztunek egiazki beren jardunbide arruntean dituztenen artean alde handia bada, eta literaturan gutitan aurkitzen direla molde horretan bi erlatibo baino gehiago pilatzen dituzten sintagmak, non ez den hizkuntzaren joko gisa hain zuzen. Halako jokoetarik kanpo gertatzen denean, oso itzuli markatueta kausitzen da: *O! Jesus inozentia!* [[[*Pensa daitezken*] *nekerik andienekin ekarri duzun*] *gurutzian kruzifikaturik arkitzen zaren*] *gure Jaun soberanoa!* (*Calvariotaco Estacioac*). Idazleek, eta itzultzaileek bereziki, gogoan izan behar dituzte perpaus erlatiboan pilatzean gertatzen diren zailtasun horiek, bestelako hizkuntzetan, erlatiboak eskuinetik txertatzen dituztenetan bereziki, ez baitira modu berean antolatzen eta irakurtzen aditzaren ondotik datozenean.

#### 31.4.3.12. Perpaus erlatibo subjektiboak (-lako)

**31.4.3.12a** Ekialdeko zenbait euskalkitan perpaus erlatibo subjektiboak deitu izan diren perpausak ere baliatzen dira. Hona adibide bat (perpaus erlatibo

subjektiboa azpimarratua da): *Ez da egundaino izan, ez eta izanen etsairik gabeko gizonik. Ezen etsairik ez duelako hura ez da gizona. Oilo busti bat da hura (Hiriart-Urruti). Ohiko moduan emanez, honela geldi liteke aurreko adibidea: Etsairik ez duela dioen gizona.*

**31.4.3.12b** Perpaus erlatibo subjektiboetan sintagma erlatibatua adierazpeneko perpaus osagarri batean sartua da, eta horregatik agertzen da *-ela* atzizkia perpaus horri dagokion aditzaren hondarrean. Maizenik, horrelakoetan perpaus osagarria ekarri duen aditza agerian da, eta hari lotzen zaio *-(e)n* menderagailua, gorago ikusi bezala; ordea, aditz hura isiltzen bada, *-ko* lotu behar zaio perpaus osagarriari, ardatzaren izenlagun izan ahal dadin. Hona Hiriart-Urrutiren idatzietan bildu beste adibide bat: *Gure herriaren ikhustera bere begiz; eta bere beharritz aditzera bertze nihon ez delako mintzaira hura*.

### 31.4.3.13. Izen ardatza isildurik daukaten perpaus erlatiboak

**31.4.3.13a** Perpaus erlatiboak izen ardatzik gabe agertzen dira batzuetan, hala nola ondoko adibidean: *Patxiren liburuak, eta [zuk idatzi dituzun]ak, ez zaizkio gustatzen [umorerik ez duen]ari*. Perpaus horretan bi erlatibo dira ardatzik (agerian bederen) ez dutenak beren ondotik. Batean, izen ardatza *liburu* da, baina izen hori aurretik aipatua baita, ezabaturik gelditu da perpaus erlatiboaren ondoren.

**31.4.3.13b** Beste erlatiboaren ondoren, berriz ([*umorerik ez duen*]ari), ez dirudi ingurumenak ekarritako izen ezabaketarik izan den. Ikus dezakegu, beraz, ardatzik eza bi modutan agertzen dela perpaus erlatiboen ondoren; batzuetan, ingurumenak ekartzen du; beste batzuetan, aldiz, ez. Bestalde, perpaus erlatiboak, beste sintagma adjektibalak bezala, predikatu osagarri gisa eta aposizioan ere erabiltzen baitira, behako bat emanen diegu mota horretako ardatzik gabeko erlatiboeri ere.

**31.4.3.13c** Esana dugu perpaus erlatiboak sintagma adjektibalak direla. Sintagma horien ezaugarria da izen baten ez errepikatzeko ardatza ezabatzen denean ere sintagmak osa daitezkeela: *Baionako etxeak ttipiago dira [Bilbo-*

*koak] baino; Haur prestuek nota hobeak dituzte [bihurriek] baino. Adibide horietan, izenlaguna (Bilbokoak) eta izenondoa (bihurriek) ardatzik gabe agertzen zaizkigu; inguruan den izen batek esaten digu zein den ardatz hori: *etxe* eta *haur*, hurrenez hurren. Erlatiboetan ere gauza bera dugu: *Gutxi ikasten duten ikasleek nota txarragoak dituzte [asko ikasten dutenek] baino*. Isildutako izen ardatzari erreferentzia ematen dion izenari *aurrekaria* esanen diogu hemendik goiti. Esan gabe doa, testuinguru zabalagoetan ere gerta daitezke halako isiltzeak, eta aurrekariak ez duela zertan perpaus berean ager: *Istorio tristeak kontatzen dituzten liburuak ez zaizkit gustatzen. Zuk zer diozu izutzeko ipuinak kontatzen dituztenez?* Adibide horretan, ezabaturik dagoen *liburu* izena da *izutzeko ipuinak kontatzen dituztenez* sintagmaren ardatza, aurreko perpausetan dago haren aurrekaria. Halako perpausetan erlatiboari lotzen zaion determinatzailea, artikulua ez ezik, erakuslea edo *bat* edo *batzuk* bezalako bat izan daiteke, bai eta zenbatzaile bat ere: *Nik erosi ditudan bi liburu, eta [[zuk ekarri dituzun] beste hiru] hartu dituzte; Patxiren liburu, eta [[zuk ekarri didazun] hura] ere hartu ditut*. Halako perpaus erlatiboek ez dute gramatikaren aldetik arazorik sortzen, ardatza dutenen ezaugarri berak baitituzte.*

**31.4.3.13d** Aurreko atalean ikusi perpaus erlatiboetan interpretazioa testu ingurumenak ematen zuen, aurrekari bat baitzuen ardatz ezabatuak lehenagotik aipatua. Ardatzik gabe agertzen diren perpaus erlatibo guztiak ez dira halakoak: *Ahal duenak jaten du*. Adibide horretan, ezin esan dezakegu aurrean dagoen edo testuinguruan aipaturik dagoen aurrekari batek gorputz eman diezaiokeela perpaus erlatiboaren ardatz isilduari. Hargatik, ez dugu arazorik perpaus hau ulertzeko, batere solas edo testu ingurumenik gabe ere. Interpretatzerakoan, ingurumen lexikalaren eta sintaktikoaren arabera, ohiko balio eta ezaugarriak ematen zaizkio isildurik dagoen ardatzari, balio *kanoniko* bat. Guk *erlatibo generikoak* esanen diegu gisa horretako izen sintagma bati gorputz ematen dioten perpausari. Halakoek berebiziko garrantzia dute euskaran, maiz eta maiz erabiltzen baititugu. *Dakienak esan beza!*; *A, dakizkizunak banekizki!* Gutiz gehienetan artikuluekin agertzen badira, bestelako determinatzaileak ere onar ditzakete erlatibo generikoek (*bat, batzuk, oro...*): *Dakien batek esan dezala!*; *Izena duen orok ba omen du izana*; *Bizirik utzi zuen orduan, bainan soinekoetaraino zituen guziak ebatsi* (Zerbitzari). Partitiboa ere



maiz erabiltzen da halako erlatiboetan: *Gertatzen ez denik ez da; Zerorrek zure begiz ikusi ez duzunik ez aipa.*

Superlatibo erlatiboa deitu ohi den *-(e)n* atzizki graduatzailea partitiboan den izen sintagma batekin erabiltzen denean, *izan* edo gisako izate-aditza duen perpaus erlatibo batek lagun dezake hura: *(Den) gizonik handiena; Inon den urik handiena itsasoa da.* Batzuetan, zuzenean lotzen zaio partitiboa perpaus erlatiboari, esapide berezia osaturik: *Denik (eta) ederrena.*

Ardatz agerikorik gabeko perpaus erlatibo generikoez badute ardatza agerian dutenek ez duten berezitasun formal bat: artikuluekin agertzen direnean, haien barneko osagaien bat artikuluen eskuinean ager daiteke, haren segidan: [*Andaluztarrak ixil-mixil esan dautsona markiñarrari*] (Agirre); [*Hurreki dena eziten*], *ezta bere mantarra xahurik ieikiten* (Oihenart); *Zuk esan biar etzenduban, ondo azija bazengoz*, [*esan deustazuna aurkez aurke, edo neure musu garbijetan*] (Mogel). Halako joskera, hala ere, ahozko hizketa bizian edo neurtitzen bortxaz ageri da gehienbat, eta ez da gomendagarri oro har.

**31.4.3.13e** Ardatzik gabeko perpaus erlatibo generikoetan are gogorrago gertatzen dira erlatibatze eskalari dagozkion zailtasunak: esan daiteke egiturazko kasuetan doazen sintagmak bereziki erlatiba daitezkeela, eta oroz gainetik subjektuak, objektu zuzenak, eta osagarri datiboak: *Behin ebatsi duenak bitan ebats dezake; Biziko denak ikusiko du; Ikusten dudana mintzo naiz; Sagarrak gustatzen ez zaizkionik ez da. Barka biezadate gezurra erran diedenek.* Beste kasuetan, ordea, erlatibakuntza ezinezkoa da: *\*Bizi naizena ederra da; \*Joaten naizena urrun da.* Gisa horretako aurrekaririk gabeko perpaus adberbial generikorik ez daiteke era. Halako tokizko adizlagunak modu horretan erlatibatzean gertatzen den ezintasunaren gainditzeko, izen generiko bat ematen da ardatz gisa. Toki-kasuetan *leku* hitza erabiltzen da maiz ardatz gisa: *Bada kastitatea begiratu nahi duenak eztu dantzatu ere behar, eta ez [soiñuak diren] lekhura joan* (Axular); [*Arnoa den*] *lekhuan da haragiaren desira desordenatua* (Axular); *Ura da [neke eta pena guziak onaren kutsurik gabe arkitzen diren] lekua* (Agirre Asteasukoa). Gauza bera gertatzen da perpaus adberbiala moduari dagokionean. Ardatzik gabe perpausa gaizki eratua da; ardatz gisa, berriz, kontzeptua adierazten duen izen bat baliatzen da, hala nola

*modu: \*Hitz egiten duzunak harritzen nau; [Hitz egiten duzun] moduak harritzen nau.* Denbora adierazten duten perpausak salbuespen dira alde horretarik izen ardatz agerikorik gabe ere beren balioa hartzen baitute: *Lagunak etorri zirenean gertatu zen.* Hori dela eta, aparte aztertuko ditugu gramatika honetan (ikus 35. eta 36. kapituluak).

**31.4.3.13f** Perpaus erlatiboak, beste sintagma adjektibalak bezalaxe, predikatu osagarri izan daitezke: *Haur horiek [ondoko eskolakoak] dira; Langile hauek [aipatu nizekizunak] dira.* Kontuan har bedi perpaus erlatiboan subjektua (*langile hauek*) nahitaez perpaus erlatiboaren izen sintagma erlatibatuari dagokiola.

Zenbaitetan galdegai baten seinatzeko baliatzen da egitura hori: *Hango mintzaira da hobekienik dakidana; Maddalen da lan hori egin behar lukeena.* Adibide horien pareko lirateke hauek erlatibakuntzarik gabeko direnak: *Maddalenek egin behar luke lan hori / Maddalenek luke lan hori egin behar; Hango mintzaira dakit hobekienik.* Badirudi halako itzulietan markatuago dela erlatibatze eskala. Halere, zailago izanagatik ere haietan izen sintagma erlatibatua kasu adverbial batean izatea, ezin esan predikatu osagarri diren molde horretako erlatiboak alde bat ezin onartuzkoak direla: *Hau da ni bizi naizen etxea; Hango etxea da ni bizi naizena. Hura omen da datorren urtean joango zaren herria / (?)Herri hura omen da datorren urtean joango zarena.*

Izen sintagma subjektua galdera izenordaina denean, predikatu osagarria den perpaus erlatiboa partitiboan joan daiteke: *Nor da [...] zordun eta obligatu ez zaizunik, behartu eta enplegatu ez zaituenik? Eta baliatu ez zaitzanik (Axular); Nor da, eskolarik gabe liburu bat eginen duenik? (J. Etxepare).*

Predikatu osagarriari dagokion subjektua lehen edo bigarren pertsonakoa denean, zilegi da perpaus erlatiboko adizkian araberako komunztadura agerraztea: *Ni naiz lan hori egin behar nukeena; Zu zara zere buruba ezin erremediatu zenezakena; Baña ni naz gizon baketsuba, eruapen andikua, dongaro enzun arren ez dakidana dongaric egiten (Mogel).* Halako komunztadura hau ardatza agerian duten predikatu osagarrietan ere gertatzen ahal da: *Ni naiz zurekin konfesatu naizen emakume ura (Agirre Asteasukoa).*

31.4.3.14. *Perpaus erlatibo arruntak aposizioan*

**31.4.3.14a** Ardatz agerikorik gabeko perpaus erlatiboak aposizioan ere erabil daitezke. Aposizioan diren sintagmek ez ohi dute ageriko ardatzik, baina aurretik aipatua den izen sintagma bati buruz zuzenduak dira, eta, alde horretarik, aurretik kanpoko ardatza badutela esan daiteke. Horregatik horrela (*kanpoko ardatza*) esanen diogu hemen perpaus aposizioaren ezkerrean agertzen den izen sintagmari.

Garrantzi handia dute gisa horretako aposizioeko perpaus erlatiboek, euskaran maiz eta maiz erabiltzen baitituzte idazleek: *Gizon hura, askotan gure aitarekin mintzatzen zena, oso handia zen*. Adibide horretan, aposizioan den perpaus erlatiboak ez du ardatzik, baina ezkerrean den *gizon hura* sintagma kanpoko ardatzari dagokio, eta erreferente bera adierazten dute aurrekariak eta aposizioak (*gizon hura = askotan gure aitarekin mintzatzen zena*). Aposizioan den halako perpaus erlatiboa hurbiletik darraikio kanpoko ardatzari, eta kasu komunztadura jokarazten da orduan bi sintagmen artean (EGLU-I: 312): *Zuhaitz ttipiak, [oraiño errorik eztutenak], ezin athera ditzakezu* (Axular); *Bake handia du konzientzia onak, [Iainkoaren lege sainduari darraikanak]* (Axular); *Zoazte [...] su eternalera, [akhabatuko ez denera]* (Axular). Halako aposizio motan, kasu marka nahiz postposizio bera daramate aurrekariak eta aposizioak. Izenlagunek ere har ditzakete aposiziozko erlatiboak: *Jende gazte arinen, [zentzuz baino zangoz fidago direnen] ofizioa da dantza* (Axular). Zenbaitetan, ahozko euskaran bereziki, absolutiboaren hondarkia ageri da aposiziozko perpaus erlatiboan, kanpoko ardatza beste kasu batean delarik: *Zure lagunarekin mintzatu naiz, [\*hain atsegin dena]*. Jokabide hori, tradizioaren eta erabilera guztiz nagusiaren aurka baitoa, ez da gomendatzekoa.

**31.4.3.14b** Batzuetan, kanpoko ardatza zehaztugabea denean bereziki, eta absolutiboan betiere, aposizioan den perpaus erlatiboa kanpoko ardatzetik bereiz ager daiteke, perpaus matrizearen bukaeran. Horrelakoetan, aditza ager daiteke kanpoko ardatzaren eta perpaus bukaeran den perpaus erlatibo aposizioaren artean. *Gizon batzuk etorri ziren [aspaldi ikusi ez nituenak]*. Adibide

horretan, *gizon batzuk* da kanpoko ardatza, baina aposiziozko erlatiboa ez da haren ondo-ondoan agertzen, baizik eta perpausaren bukaeran, kanpoko ardatzaren ondotik aditza kausitzen delarik. Perpaus horiei *aposiziozko perpaus erlatibo gibeleratuak* erranen diegu hemen. Egitura horretako perpausak aposiziozko perpaus erlatiboak izanki, artikulua hartzen dute hondarkian, edo partitiboa: *Debru franko badela* [saindu itxura hartzen duenik] (J. B. Elizanburu); *Hainbertze lan mota baitauka lurrak*, [begi ala eskuak hain xuxen jarraitzea galdatzen dutenak] (J. Etxepare).

Gaurko euskara mintzatuan, ordea, honako entzuten da zenbaitetan: \**Lagun batzuk etorri ziren* [ez nituela aspaldi ikusi]. Hor, bukaerako perpausa ez da perpaus erlatiboa, baina *-(e)la* perpausa; horrelako erabilerarik ez du atzizki horrek euskal literaturaren tradizioan, eta horregatik gaitzesten dugu. Hala-koen ordez, aposiziozko perpaus erlatiboak erabil daitezke, edota, Iparraldean bezala, *bait-* aurrizkia duten perpausak (§ 31.4.5): *Lagun batzuk etorri ziren*(,) [aspaldi ikusi ez nituenak]; *Lagun batzuk etorri ziren*(,) [(zeinak) ez baintuen aspaldi ikusi].

Perpaus erlatibo gibeleratua ez da erabiltzen ahal absolutiboaz beste kasuetan edo postposizioekin: \**Gizon batek hitz egin zidan ongi ezagutzen duzunak*; \**Gizon bati mintzatu nintzaion ongi ezagutzen duzunari*; \**Etxe batean bizi zen, leihorik ez zuenean*.

**31.4.3.14c** Aurreko lerroaldian adieraziak kontuan hartuz, esan dezakegu kanpoko ardatz batek aposiziozko erlatibo perpaus gibeleratu bat hartzeko, edo absolutiboan edo partitiboan izan behar duela.

Euskara mintzatuan, halere, gertatzen da batzuetan bestelakorik. Orduan, kanpoko ardatzaren eta aposizioaren arteko kasu konkordantzia hautsirik gelditzen da: [*Gizon batekin*] hitz egingen dut [kontu horiek ongi ezagutzen dituen]; [*Herri batera*] heldu nintzen [batere ezagutzen ez *nuena*]. Jokabide hori ez darraio tradizioari, eta ez dugu gomendatzen.

**31.4.3.14d** Aposizioan diren perpaus erlatiboetan, ardatzik gabeko beste perpaus erlatiboetan gertatzen den bezala, gogortzenago dira zailtasunak erla-

tibatze eskalan. Halere, kanpoko ardatzik gabeko perpaus erlatibo generikoei konparatuz, murrizketa ez da hain gogorra: *Ba ote da bazter bat ez naizena izan?* (Villasante); *Ethorriko da denbora (= denbora bat), deabruak laguntzarik eginen ezterakuna* (Axular). Adibideak adibide, aski zail da horrelako erlatibo aposatuen erabiltzea, zenbait hitzuntentzat bereziki. Horregatik menturaz, erresunptiboen (ikus § 31.4.3.8b) baliatzeko joera handiagoa izaten da aposizioan diren erlatiboetan, izen sintagma erlatibatua adizlaguna denean bereziki: *Barkatu zizun bekatu jatorrizko, edo originala, [guziok arekin jayotzen gerana]* (Agirre Asteasukoa). Erresunptiborik gabe ezin ulertuzkoa litzateke perpaus erlatibo aposatua: *\*Barkatu zizun bekatu jatorrizko, edo originala, [guziok jaiotzen gerana]*.

#### 31.4.3.15. Ardatz agerikorik gabeko perpaus erlatibo subjektiboak

Perpaus erlatibo subjektiboak (§ 31.4.3.12) ere ager daitezke ondotik ardatz agerikorik izan gabe: edo ardatz horren erreferentzia testuinguruak emanik, edo kanonikoa izanik. Maizenik *izan* loturazkoa da aditza eta izen sintagma subjektua erlatibatua: *Hila zelakoari laguna heldu zaio* (Zaldubi); *Orzaizen, ez nehon, ez da bat, haren etsai zirelakoetan, gizon agertzeko on denik* (Hiriart-Urruti).

#### 31.4.4. Zein-erlatiboak. Ezaugarriak

**31.4.4a** Ikusi dugun bezala euskarak berezko jokabidea du perpaus erlatiboen eratzeko. Horrek ez du esan nahi, halere, ohiko erabide horretaz landa beste modurik ez dezakeela balia. Hain zuzen, euskal literaturaren hastapenetik beretik, idazleak, euskalki guztietan eta mende guztietan, salbu beharbada Hegoaldean xx. mendean, perpaus erlatibo arrunten ondoan, beste batzuk ere erabili izan dituzte, hauetan aurrekari batekin uztarturiko izenordain erlatiboak agertzen baitira.

Perpaus erlatibo haien ezaugarri nagusiak perpaus arruntekin erkatzen badira hauek dira:

- Galdera izenordain batzuk (*zein, non*) izenordain erlatibo gisa baliatzen dira, perpaus erlatiboaren hastapenean agertzen direla.
- Izenordain erlatiboak aurrekaria badu, perpaus erlatibotik kanpo agertzen dena perpaus erlatiboa postposatua izanik.
- Perpaus erlatiboetako menderagailua *bait-* ere izan daiteke, eta ez *-(e)n* bakarik.

**31.4.4b** Deituraren errazteko, *zein*-erlatiboak deituko ditugu halako perpaus erlatiboak. Hona, bada, *zein*-erlatiboen egitura:

[[<sub>IS</sub> AURREKARIA<sub>k</sub> ]+KASUA] [<sub>P.ERL.</sub> ZEIN<sub>k</sub>+KASUA ... ADITZA-EN edo BAIT- ...]

Har dezagun adibide bat: *Zugarramurdiko artzainek*, [*zeinen nagusiak komentuko fraideak baitziren*], *franzes arthalde hori, inguruan harturik, erematen ziteyan, aitzinean, fraiden komentura* (J. B. Elizanburu). Hor, ergatiboan den izen sintagmaren ondotik, perpaus erlatibo bat dugu, honako ezaugarri hauek dituena:

- Bada izen sintagma bat aurrekari dena: *Zugarramurdiko artzainek*.
- Perpaus erlatiboa aurrekariaren eskuinean dator, hartarik kanpo, eta *zein*-izenordainarekin hasten da. Adizkiak *bait-* menderagailua dakar (*-(e)n* ere balia daiteke haren orde).

**31.4.4c** Anitzek diote perpaus erlatibo horiek erdal eredu bati jarraiki moldatu dituela euskarak, hizkuntza idatzian eta hizkuntza jasoan baliatzeko bereziki. Hala izanik ere, esan daiteke aspaldi beretu izan dutela euskal idazleek erabide hori, euskalki guztietako testu idatzietan aurkitzen baita: *Dantzia*ren *giraak bere guztiak dira ezkererakuak*, [*zein dan, pausu egiteko, ta ibilteko, alde madarikatuba Eskritura Sagraduban*] (Fraibartolome); *Huna Aita-Sainduaren arrasta bat*, [*zoinak eskumikoz joiten baititu, ene nahiaren kontre Lur Sainduan baratzen direnak*] (Laphitz); *Nola ageri baita Ejiptoko Piramide-tan*, [*zein eragin baitzitu en errege Faraonek*] (Axular); *Jesukristok eginiko le-*

*nengo mirarija*, [zeinegaz asi zan mundubari agertuten jaungoiko benetakua zana] (Astarloa); *Izan bedi gure gizaldearentzat Eskual Etxea bigarren ohan-tze bat*, [zointan amaren menetik urrundu gazteek haren mintzoa baitute entzunen] (J. Etxepare); *Leize izugarri bat* [non betikotasun guzian egon bearrak diran oñazez lertzen] (Agirre Asteasukoa); *Azken fina deitzenda gauza deseatu gura*, [zein logratuas geros eztuen yago deseatzan batek] (Lizarraga); *Igaren urthian egin dut, eta ezarri argira, libruato bat euskaraz*, [zoiñen izena baita Ontsa hiltzeko bidia] (Tartas).

**31.4.4d** xx. mendean, bai Hegoaldean, bai eta Iparraldean ere, franko hotz agertu ziren idazle gehienak horrelako erlatiboak buruz, eta guti erabili zituzten. Gramatikari anitzek ere arbuiatu izan dituzte, baizik eta euskarak bere berezko erlatiboak dituela, eta ez dela egoki erdal egitura bati horrela ateen zabaltzea. Baina, euskara batua hedatu eta garatu ahala indar hartu dute berriro ere horrelako egiturek. Aise aurki daitezke mota horretako erlatiboak gaurko unibertsitateko testuetan, *Pentsamenduaren Klasikoen* itzulpenetan, saio-gintzan nahiz literatura lanetan.

#### 31.4.4.1. Menderagailuaren forma

**31.4.4.1a** Perpaus erlatiboak mendeko perpausak dira, eta euskaran nahi-taezkoa da izan dezaten mendeko perpausetako aditz jokatuak menderagailua. Menderagailua bi eratakoa izan daiteke: *-(e)n* atzizkia erabili da mendebaldeko euskalkietan; *bait-* aurrizkia gehienbat, berriz, ekialdekoetan.

**31.4.4.1b** Esan gabe doa *-(e)n* erabiltzen denean menderagailua ez dela azalean ageri iraganeko adizkiekin, *-N* markarekin bat egiten baitu ( $-N + -n = n$ ), baina menderagailu horren bereizgarri orokorra dugu hori, nahasbide eta guzti: *ehiztariak hil zuen / zuen oreina* (orainaldian: *du/duen*). Idazle batzuek “mendebaleko” forma izateari begiratzen baitiote horren gainetik, eta horregatik lehenesten *-(e)n* menderagailua; beste askok, berriz, edozein euskalkitatik ari direla, nahiago dute *bait-* aukeran argiagoa erabiltzea, kontuan harturik, gainera, (*zeren*) *bait-* joskera euskara arrunta dela dagoeneko testuetan.

#### 31.4.4.2. Izenordain erlatiboaren forma (*zein-/zeina-* eta *non-*)

**31.4.4.2a** Izenordain erlatiboak galdera izenordainen bidez eratuak dira. Horretarako, haatik, ezin balia daiteke edozein galdera izenordain baina soil-soilik oinarrian *zein* edo *non* forma dutenak. *Nor* eta *zer* izenordainak, preseski, ez dira erabiltzen aurrekaria duten perpaus erlatiboetan; (korrelatuetan, ordea, bai). \**Orduan agertu zen gizon bat(,) [nori beso ezkerra falta baitzitzaion]; Orduan agertu zen gizon bat(,) [zeini beso ezkerra falta baitzitzaion].*

Izenordain erlatiboak anaforikoak dira, horrek esan nahi baitu gaineko perpausean izan behar dutela erreferentzia ematen dien izen sintagma bat, aurretik agertzen dena, eta hain zuzen *aurrekari* deitzen dena.

**31.4.4.2b** *Zein* izenordain erlatibo gisa erabilia denean bi moldetan agertzen da: edo sintagma mugagabea edo sintagma mugatua eratzen duela. Adibidez, Leizarraga alde batetik eta Haraneder eta Duvoisin beste batetik, ez datoz bat *zein* izenordain erlatiboa erabiltzerakoan. Leizarraga: *Ezta haur Jesus, Josephen semea, zeinen aita eta ama ezagutzen baititugu?* Haraneder: *Ez da hori Jesus, Josephen semea, zeinaren aita eta ama ezagutzen baiditugu?* Duvoisin: *Hori ez da Jesus, Josepen semea, zeinaren ait-amak ezagutzen baititugu?* Leizarragak mugagabean erabiltzen du izenordain erlatiboa (*zeinen*). Aldiz, Haranederrek eta Duvoisinek mugatu singularrean (*zeinaren*).

Ez du ematen formazko desberdintasun horri ezer darraikiola esanahian edo egituran, hots formazko aldaki hutsak dira bi moldeak, autoreen arabera kanbiatzen direnak gehienetan, non ez dituen autore berak bi moldeak erabiltzen. Hala ekialdean (Leizarraga, Oihenart, Tartas, Lopez, Lizarraga...) nola mendebaldean (Frai Bartolome, Añibarro, Astarloa, Mogel...), *zein* forma soila erabili izan da gehienik literaturan. *Zeina(k)*, berriz, xviii. mendetik aitzina nagusitu da bereziki erdialdeko euskalkietan. xvii. mendean, Axularrek eta Materrek *zein* erabiltzen zuten beti, bi formak aurkitzen dira (*zein* eta *zeina(k)*) Etxeberri Ziburukoaren eta Pouvreauren lanetan. Hortik aitzina, alde bat nagusitu da forma artikuluduna Lapurdin (Etxeberri Sarakoa, Larregi, Laphitz, Duvoisin, Elizanburu...). Gipuzkeraz ere erabili izan da aldaera ar-



tikuluduna (Larramendi, Arzak, Antia, Lardizabal...): *Eliz au, zeñari eman zioen gure gurasoak ainbeste urre* (Larramendi); *Bestea zan Akinoan, zeñarekin pakean eta amorio onean bizi zan* (Lardizabal). Leku kasuetan *zeinean* agertzen batzuetan singularrean, baina *zeineko*, *zeinetik* edo *zeinera* nekez kausi daitezke literaturan izenordain erlatibo gisa erabiliak: *Franziskok [...] sendatu zuen beste bat biotzezko miña egiten zizaiona bular gañean jarriaz larru-orri bat, zeñean izkribatu zuen orazio bat* (Antia). Lekuzkoetan, hain zuzen, *non* saileko izenordainak erabiltzen dira gehien-gehienetan: *larru-orri bat(,) non...*

**31.4.4.2c** Perpaus erlatiboaren aurreneko posizioan agertu behar du *zein* izenordainak nahitaez. Perpaus erlatiboko adizkia, berriz (menderagailua dakarrena), haren ondotik (bigarren tokian) ager daiteke, edo urrunago, perpausaren erdian edo bukaeran. Ez da, beraz, perpaus erlatiboko adizkiaren tokiari buruz gramatika lege zorrotzik, eta, euskaran askotan gertatzen den bezala, estilo hautuen arabera erabakitzen da kontu hori. Halere, seinala dezagun oro har halako joera bat badela adizkia izenordain erlatiboaren ondotik emateko. Baina bestelako bideak inola ere ez ditu itotzen joera horrek, Lardizabalen adibidean ikus daitekeen bezala.

**31.4.4.2d** Sintagma mugagabea eraturik ere, *zein* izenordainak, aurrekariak duen *numeroa* atxikitzen du, eta araberan egiten da aditzarekilako komunztadura *perpaus* erlatiboan: *Adiafanotasuna bizitzaren eguerdian da Egiptoko izurri bat, zein baita sortu aitzineko eta hilondoko gauetan haien ubi eta quomodorik egokiena* (Olarra).

Hegoaldeko euskalkietan *zeintzuk* forma erabiltzen da batzuetan aurrekariak edo aurrekariak pluraltasuna badakarte. Hona adibide pare bat Frai Bartolomeren lanetarik: *San Ignacio Loijolakua ta santa Isabel Ungaijaco Erregina, zeintzuk nozbait jokuan, edo beste gauza inozenteetan dibertituten zirian; Musika, ta kanta indezente, ta odolberozailiak gaiti, zeintzuk dirian luxurijaren azogia, ta aragijaren sugarria*.

Gaurko idazleen lanetan ere aurki daitezke horrelako egiturak: *Ibai guztietatik eta lurretik bertatik ere lainoak eta lurrinak sortzen ikusten dugu, zeintzuk*

*arnasa bezala honela gorantz igorriak diren (X. Amuriza); Napumocenok batzuetan bisitatzen zituen tokietako postalekin erantzuten zien gutun luze haiei, zeintzuetan Carlosek zehatz-mehatz azaltzen baitzion, nola ez, enpresa ondo zihoala (Montorio).*

**31.4.4.2e** Esan gabe doa zeina(k) erabiliz gero agerikoa dela numero komunztadura izenordainean berean, eta ezinbestekoa dela, egiturazko kasuetan diren sintagmen kasuan, aditzarekilako numero komunztadura. Aurrekaria identifikatzeko erraztasunaren aldetik, badu abantailatxo bat forma artikuludunak, singularra eta plurala bereizten laguntzen ohi baitu hasieratik izenordain erlatiboak: *Nagusiaren bazkideei, zeinarekin/zeinekin...*; [...] *bi zizpa-kanoinen muthurrak!... zeinek, aithortzen dut, ez baininduten guti izitu, eta, gero, bi gizon bizardun, zeinek gutiago izitu baininduten, batean ezagutu nuelakotz nere anaya* (J. B. Elizanburu). Bestalde, zeina(k) izenordaina erlatiboen eratzeko erabiltzen denean, ongi bereizten dira formalki zein izenordainari dagozkion erabilera desberdinak.

Galderazkoa denean, edo gradu markatzaile denean harridurazko perpausetan, mugagabea da zein; erlatiboa denean, aldiz, artikuluekin ager daiteke: *Badiat beldurra ez dakikan, behar bada, zein abilki yokatu zen behin Sarako yaun hauz'aphez bat, zeinak izena baitzuen Erremundegibehere* (J. B. Elizanburu). Hitz batean, zeina(k) forma izenordain erlatiboari baizik ez dagokio. Egungo erabilera estandarrean, guztiz arrunta da erabilera hori halako erlatiboetara baliatzen diren idazleen artean.

**31.4.4.2f** Zein(a) izenordain erlatiboak aurrekaria behar du. Ez da, beraz, aurrekaririk gabeko zein-erlatiborik.

Zein(a) izenordainak numeroari dagozkion tasunak ditu, baina gutitan agertzen da pertsonari dagozkionak bereturik. Halere ez du iduri ezintasunik baden horretan. Adibidez, Etxeberri Sarakoak bere gramatikan, ni, zeina bainaiz eta gisako formak eskaintzen ditu. Hor, zeina izenordainak lehen pertsona baitu aurrekari, araberako komunztadura du adizkian (naiz). Bere testuetan ere eskaintzen ditu horrelako adibideak: *Zer erranen dut bada nik, [zeinak hartu baitut eskualdunei dagozten materialik loriosena]?*

### 31.4.4.3. Izenordain erlatiboak hartzen dituen kasu marka nahiz postposizioak

**31.4.4.3a** Erlatibo arruntetan izen sintagma erlatibatua ezabatua izanik, eta harekin batean haren atzizkia, deusek ez du agerian erakusten zer funtzio duen sintagma erlatibatu hark perpaus erlatiboan. Izenordain erlatiboa erabilirik, ordea, atzizkia etorriko da ondotik, eta beraz, pentsatzekoa da ez dugula aurkituko halako erlatiboetan erlatibatzeko zailtasun berezirik, ez behintzat sintagma erlatibatuaren funtzioari dagokionik. Hala da: izenordain erlatiboa edozein kasutan ager daiteke *zein*-erlatiboetan (salbu partitiboan). Bestalde, egiturazko kasu batean ez direnean, juntatu ere daitezke izenordainak: *Iainko Aitari, zeinaganik eta zeinez eta zeinenak baitirade gauza guztiak* (Leizarraga).

Hona aurrekoen landa beste zenbait adibide, izenordain erlatiboak duen kasuen arabera aurkeztuak (izenordainaren forma kontuan hartu gabe):

#### 31.4.4.3b Absolutiboa eta ergatiboa

*Zure omena bere eskuetan luke; zeina baita emakume bati gerta dakioken malurarik handiena* (Jon Muñoz); *Ikhas ezak salbatzeko artea, zeina baita gaiñerako zuhurtziaren Andrea* (Etxeberri Ziburukoa).

*Mira zazu zein urrun zaren oraino egiazko karitatetik eta humiltasunetik, zeinak ezpaitaki nihori haserretzen ez gogortzen bere buruaren kontra baizen* (Pouvreau); *Esertzen zelarik kanpoko jarleku luzean, zeinak jauregiko aitzin-pareta baitzuen bizkartoki, erraiten zigun* (Irigoien).

#### 31.4.4.3c Datiboa

*Hiratzea estaltzen da berriz abere azpikoaz, zeinari ematen baitzayo, lehen erran den bezala, menaslora-uretik; eta hola-hola, hiratzea eta ongarrria al-dizkatuz, egiten da samatsa* (Duvoisin); *Barruan halako likore baten azken hondarrak besterik ez zeukan botila bat, zeinari marka bat egin baitzion* (Morales); *Hirugarren erronda hartzen ari zen lagun batekin, zeinari xeheki ari baitzitzaion kontatzen nola erosi zuen otarre bat patata* (K. Zabala).

#### 31.4.4.3d Instrumentala

*Eta halakoak dira hirur bekhatu suerte hauk, zeinetzaz mintzo baikara presenteon (Axular); Hala nola baita gure eskuara, zeinaz halaber duritzen baitzait ausartki erran ditekeela [...] (Etxeberri Sarakoa); Rodako markesa zeritzan gizon batek, zeinetaz esaten baitzen porrot egin zuela urrezko meategiekin eta aberastu egin zela ospitaleekin (Iñurrieta); Mundua erabiltzen duten jainko irrazionalen tenplua, zeinez ez baitakigu deus, gizonaren irudikoak ez dira salbu (Juan Garzia); Urbiaingo herria ere, zeinaz bi hitzen erraiterat obligaturik bainago (Irigoien).*

#### 31.4.4.3e Genitibo edutezkoa (-en)

*Gogo onez hartzen dut grazia*, zeinaren bidez egiten bainaz humillago (Pouvreau); *Irudikapena ideia bat da*, zeinaren bidez Izpirituak gauza bat kontentplätzen baitu presenteko bezala (Xarriton); *Katuak ere*, zeinaren larrua gantzaz lehertzeko zorian baitzegoen, begi horiak biribildu eta aztertu egin zuen mesfidati (K. Zabala).

#### 31.4.4.3f Genitibo lekuzkoa (-ko)

*Zuhaixka zabartu batzuk han-hemen*, zeinetako baten azpian aurkitu bainuen aurreko maizterren bizikleta-ponpa (Aldasoro).

#### 31.4.4.3g Soziatiboa

*Nahi du izan dezagun bakea Jainkoarekin*, zeinarekin izan baikare errekontziliatuak (Duhalde); *Ezagun zuen, halaber*, Oihenart, zeinarekin bizpahiru aldiz mintzatu izan baitzen (Irigoien); *Txokolatetxoan eztainu-xaflak*, zeinekin zilar-bolak egiten baitzituen Misioetara bidaltzeko “Indietako haurtxo bat askatzeko sari” (Juan Garzia).

#### 31.4.4.3h Motibatiboa

*Eta zu zarela iende hetarik*, zeinengatik erraiten baitu Sofonias Profetak... (Axular); *Othoitz egiten drauagu barkatu nahi drauzkiguán gure falták*, zeinagatik hire iugemendura zordun baikara: eta barkamendu hunezaz nahi gaituan herio eternalera obligatuak garen obliganzatik deliuratu eta idoki

(Leizarraga); *Emazkidazu neure emazteak, zeinengatik lan egin baitut, eta neure seme-alabak; eta joan egingo naiz* (J. A. Mujika); *Beste bat beltza, barrutik eztaizuzko xaflaz azpikotua, zeinarengatik 450 pezeta eskatzen zuten* (Saizarbitoria).

#### 31.4.4.3i Inesiboa

*Nahiz denbora hartan ez ziren bide hortan asteen lau arima ibiltzen, ortzirarez salbu, zeinetan baita Doni-Yoaneko merkhatua, fortunak nahi izan zuen, egun eta oren berean, kausi zadin gizon bat* (J. B. Elizanburu); *Bestenaz banagoka zure hizkuntzari, len ere baño obekiago dakust alde oietako Euskaldunen itsumendea, zeñean darasaten, ezjala gure Euskera, gauza andi, mee, goi diranak adirazteko* (Larramendi); *Arimak irudien bidez ezagutzen du, baina ez dauka bitartekorik, zeinetan bere burua ezagut dezan* (J. M. Lekuona); *Paper gorritz estalita zituen hormak, zurezko arasa baten pareraino-edo, zeinean paratu baitzituen hainbat txarro apaingarri, etxean eskuz landutakoak* (Larrañaga).

#### 31.4.4.3j Ablatiboa

*Zeren nolako baita lurra, zeinetarik iragaiten baita ura, halako gerthatzen baita ura ere* (Axular); *Txabola batera eraman zituzten, zeinetatik ihes egin baitzuten, gauzez eta zapatarik gabe* (Gabiria); *Hemen ere badirela pariak, zeinetarik askok yonki edo barbon bihurtuta bukatzen duten, edo zahartu eta etxe-zuloan sartuta ezertarako dirurik gabe* (Atxaga).

#### 31.4.4.3k Adlatiboa

*Biharamunean itsasoaren berze aldetik gelditurik zegoen gendetzeak ikusi duenean ezen berze untzitxorik etzela han bat baizen, zeinetara haren diszipuluak sarthu izan baitziraden, eta etzela sarthu bere diszipuluekin Iesus untzitzora, baina haren diszipuluak berak ioan izan ziradela* (Leizarraga); *Bazirudien igande goizetako gosari haiek, zeinetara ez baitzuen behin ere huts egin, haurtzaroko keinuetara itzularazten zutela* (Irizar).

Leku-denborazko kasuetan zeinean edo zeinetan bezalako formak erabili orde, *non* forma ere enplegatzen ahal da izenordain erlatibo gisa: *Doazala Galileara, non ikusiko naben* (Añibarro); *Jan zen Donapalaiaora, non baitzen*

orduan Nafarroako parlamenta (Axular); *Nola kristale bat, nondik pasatzen den iruzkiaren argia* (Lizarraga); *Egun honi dagokionez adierazi dut Ebanjelioaren parte hura, non esaten baita bekatariak hurbildu zirela gure Jaunarengana* (J. M. Lekuona). Aurrekariak denbora adierazten badu, denborazko balioa ere izan dezake *non* izenordain erlatiboak: *Ez da urtherik, non hor edo hemen zenbait buru galtzen ez baita* (Duvoisin).

#### 31.4.4.4. Zein-erlatibo konposatu eta konplexuak

**31.4.4.4a** Zein-erlatiboak elkarren artean juntagailuen bidez lot daitezke, hala nola Tartasen adibide honetan, non *mode Pernon azken hilaren aitak* aurrekariaren ondoren hiru *zein*-erlatibo ageri baitira *eta* juntagailuaren bidez konposatuak: *Costuma eta karitate eder bat pratikatzen zian bere denboran mode Pernon azken hilaren aitak*, [*zoin hirur Erregeren denboran izan baita, agian Frantzian zen iaunik handiena*] *eta* [*zoiñek, Duc de Candale, Duc de la Valette, eta Cardinal de la Valette bere hirur semen, eta bere personan, ukhen baitu ohore hori non laur cordon blu, kolpu batez bere familian ikusi baititu*] *eta* [*zoin Infanteria Frantzesaren Colonel general, eta Guyenako gobernadore hil izan baita*]. Hona beste adibide bat, Leizarragarren obratik: *Iainkoaren Aingerua, zeinena bainatz ni eta zein zerbitzatzten baitut*. Zenbaitetan, *bait*-erlatibo batekin egiten da juntadura: *Neure adeskidia, igaren urthian egin dut, eta ezarri argira, libruto bat euskaraz, [zoiñen izena baita Onsa hilceco biddia], eta [konprenitzen baititu onsa hiltzeko moyenak]* (Tartas).

Beste zenbaitetan *zein*-erlatiboa bera da konplexua; hots, perpaus erlatiboaren barneko beste mendeko perpaus baten osagarria da izenordaina daraman perpausa. Halakoetan, menderagailua (*bait*-, edo *-(e)n*), goragoko perpausoko adizkiari lotzen zaio, eta izenordain erlatiboa agertzen den mendeko perpausoko adizkiak berezko ezaugarriak atxikitzen ditu: *Etorriko dira haur batzuk, zeinek [esperantza baitut [ixtorio guztia kontatuko digutela]]*.

**31.4.4.4b** Izen sintagma erlatibatua dagoen perpausa perpaus adjuntua deanean, berriz (denborazkoa, moduzkoa...) *zein* izenordaina ez daiteke hartarik

atera, eta perpaus guziak agertu behar du *bait-* menderagailua hartzen duen perpausaren aurrean. *Abaritia duk, zein desiratzten dutelarik batzu erauzi izan baitirade fedeti* (Leizarraga); *Ontasunen gutizia, zeinaz posedituak izanik zenbeit errebelatu izan baidire fedetik* (Haraneder). Hau da, beraz, egitura: [<sub>P</sub> ERL [<sub>P</sub> Adjuntu ZEIN-... <sub>P</sub> Adjuntu]... BAIT-/-(e)n...]. Adibidez: *Kalte guztien gaiñeko kaltea, alferkeriatik heldu den handiena*, [[*zeiñi narraikola*] *erran baitut nik oraiñokoan erran dudan guztia*] (Axular); *Beste gauza asko Isaakek arteraño etzikiakienak* [...], [[*zeintzuek gizon santu ark aditu zituenean*], *Jaunari eskerak eman, eta gero Jakob bere ordeko nagusitzat ezagutu zuen*] (Lardizabal); *Gorthean utzi zuen andrea*, [[*zoinari agradatzeko*] *hainbertze pairatzen baitzuen*] (Laphitz). Azken adibide hau, ordea, ez-gramatikala izango litzateke, izenordaina perpaus adjuntutik aterako bagenu: \**Han utzi zuen andrea, zeinari* [*hainbeste pairatzen baitzuen*] *agradatzeko*.

#### 31.4.4.5. Zein-erlatiboen tokia aurrekariaren ertzer

**31.4.4.5a** *Zein*-erlatiboak postposatuak izaki, aurrekariaren ondoren agertzen dira, aposizioan. Gisa horretan, anitzetan aurrekariaren ondo-ondoan izaten badira, ez da nahitaez beti horrela gertatzen, eta zenbaitetan *zein*-erlatibo perpausaren bukaeran agerturik, aurrekaritik bereiz ager daiteke, hala nola gertatzen baita aposizioan diren erlatibo arrunten kasuan ere.

*Zein*-erlatiboak aposizioan datoz, aurrekariari hurbiletik darraizkiola. Zuzenean segitzen dute aurrekaria, edo, hartarik bereiziak badira, ezinbestekoa delako: aurrekaria izenlaguna delako, haren ondotik postposizio bat badelako edo beste izen sintagma batean sarturik dagoelako: [...] *ortziralez salbu, zeinetan baita Doni-Yoaneko merkhatua* (J. B. Elizanburu). Segidako adibidean, aurrekaria izenlaguna da; izenordain erlatiboa, beraz, ez da agertzen ahal haren ondo-ondoan: *Joseph Mariaren senharra, zeinaganik iayo izan baita Jesus* (Leizarraga).

**31.4.4.5b** Perpaus erlatibo arruntak aposizioan doazenean, perpausaren bukaeran aurkitzen dira maiz, gaineko perpausoko adizkia eta beste tartean dela.

Gauza bera gertatzen da *zein*-erlatiboekin ere. Alde horretarik egitura paraleloa dute ondoko bi adibideek, batean perpaus erlatibo arrunta izan baita aposizioan emana eta gibeleratua, eta bestean, berriz, izenordain erlatiboa duen perpausa: *Goizean liburu bat irakurri dut(,) [biziki gustatu zaidana]*; *Goizean liburu bat irakurri dut(,) [zeina biziki gustatu baitzait]*. Hona beste adibide bat ergatiboazko sintagma ere tartean duena: [...] *ordena asko bere izenteetan ditu Aita Santubak berak, zeintzubetan eragozten jakuen Eleisa-gizonai, ez baka-rrik alako lekubetan dantzan egitia, ez bada baita besteen naasteko dantzia berarijaz ikustia bere* (Fraibartolome).

**31.4.4.5c** *Zein*-erlatiboak, ageriko ardatzik gabeko perpaus erlatiboak bezala predikatu osagarri izan daitezke. Orduan izen sintagma subjektuari dagokio izenordain erlatiboa: *Ezen haur da [zeinez eskribatua baita ...]* (Leizarraga). Baina egitura hau zaharkitua da.

#### 31.4.4.6. *Zein*-erlatiboen oinarritzko balio semantikoa eta erlatibo moldeen arteko desberdintasunen neutralizazioa

**31.4.4.6a** Lehenik erran beharra dugu hemengo erlatiboetan argi direla egitura kontuak: *zein*-erlatiboak beti agertzen dira aurrekaria gorpuzten duen sintagmatik kanpo<sup>1</sup>, aposiziozko perpaus moduan. Alde formal horretarik, kontraste garbia dute *zein*-erlatiboek, aposiziozkoak izanik beti, perpaus erlatibo arruntekin. Oinarritzko semantikan ere, bistakoa da aldea izen sintagmaren kanpoko eta barneko perpaus erlatiboen artean, baina aipatzekoa da badirela kasu batzuk zeinetan desberdintasun hori neutralizaturik geratzen baita. Besteak beste, eta nagusiki, honako bi hauek:

**31.4.4.6b** Mailega diezaiogun Axularri adibide bat, apur bat moldatua: *Leiho (irudiko) batzuk(,) zeinetarik bekatuak ariman sartzen baitira*. Egitura hori,

---

<sup>1</sup> Badira kontrako adibide guti batzuk, Etxeberri Sarakoaren lanetan. Oso leku urria dute gure tradizioan horrelako erlatiboek. Haietan izen aurrekaria ezkerrean agertzen da hondarkirik gabe: *Haran zeina deitzen baita Laburdi (= Lapurdi deitzen den harana)*.



aurrekari zehaztugabeak (*leiho batzuk*) erreferentearen irakurketa inespezifikoa bideratzen duenez, ez da sartzen lehia inolako irakurketa zehaztailerekin. Hori dela eta, neutralizatu egiten dira halakoetan perpaus erlatibo moten arteko desberdintasun semantikoak, eta trukagarri gertatzen dira guztiak: *Leiho (irudiko) batzuk(,)* (*haietatik/handik bekatuak*) *ariman sartzen baitira* = *Leiho (irudiko) batzuk(,)* (*haietatik/handik*) *bekatuak ariman sartzen direnak*; (*Haie-tatik/Handik*) *bekatuak ariman sartzen diren leiho (irudiko) batzuk*.

Jakina da, bestalde, euskaraz artikuluak ez duela beti irakurketa espezifikoa bideratzen: *sotoak ere baditu leihoak* (= *leiho batzuk*); *etorriko da eguna* (= *egun bat*)... Semantika nagusitzen da halakoetan formazko itxuraren gainetik, eta gainerako aurrekari inespezifikoen jokabidea erakusten dute halako sintagmek. Hona Axularren adibidea hitzez hitz: *Zeren hauk dira leihoak eta portaleak(,) zeinetarik bekhatu guztiak [...] arimen barrena sartzen baitira*. Jakina, kasu horretan, badu abantailarik *zein*-erlatiboak, *zeren*, *batetik*, aukera ematen baitu postposizioa zuzenean txertatzeko izenordain erlatiboari, erresunptiboen (ikus § 31.4.3.8b) beharrik gabe, eta, bestetik, interpretazioa ez baita geratzen artikuluak har ditzakeen balioen arteko anbiguotasunen azpiko. Hots, egokiago eta erosoago dirudiela Axularren aukerak beste *batzuk* baino: *leihoak(,) zeinetarik bekatuak ariman sartzen baitira / ?bekatuak ariman sartzen diren leihoak*. Hona halako beste pare bat gure klasikoetatik: *Ethorria zela orena zeinetan gizonaren semeak utziko baitzuen bere burua bere etsaien eskutarat Jainkoari* (Larregi); *Zeren nolako baita lurra zeinetarik iragaiten baita ura, halako gerthatzen da ura ere* (Axular). Eta baita gaurko autoreetatik ere: *Obabako lehen amerikanoak berak idatzitako orri sorta bat, zeinetan fusilatu nahi izan zuteneko gaua kontatzen zuen* (Atxaga); *Nire emaztea, etxe berrira aldatu ginenean, poz-pozik sukaldeko robot berriarekin [...] eta, batez ere, horma osoa okupatzen duen telebista-ordenagailuaren pantailarekin, zeinetatik eraikin osoko domotika kontrolatu ahal baita* (Zaldua).

**31.4.4.6c** Orobat gertatzen da desberdintasunen neutralizazioa determinatzailea erakuslea denean; kasu honetan, ez irakurketa inespezifikoa delako, inondik inora, baizik eta perpaus erlatiboak berak ematen diolako erakusleari erreferentzia. Badu antza mekanismo horrek aurrerago aztergai izango ditu-

gun korrelaziozko antolaerekin (ikus § 31.4.6): *Nola (baita) etxe bat tximinia okerra duena? Bada, hura(xe)/h(art)an(txe)*. Hona adibide batzuk klasikoetatik: *Hau da gerla eder eta miragarri hura(,) zeinetan jakintasunak nahi baitu gizona altxatu eta abantaillatu, hala nola enorantziak nahi baitu aurthiki eta ostikatu* (Etxeberri Sarakoa); *Indazu grazia hura(,) zeina erakutsi baituzu hain handia eta premiazkoa dela ene salbamenduko* (Pouvreau); *Laudagarrien direnak dira hainak zeinek indarrik aski baitute ezagutzeko beren zoramenduak eta medeatzeko hartarikako makhurrei* (Duvoisin); *Horietako bat da, hain zuzen ere, etsai hilgarri eta gorrotatu hura zeina garaitzeko antolatu diren iragan milaka urtean jende eta gauza guztiak: Ziurtasun Handia* (Berrizbeitia); *Harako lurzoruaren hezetasun-ehuneko hura zeinetan ez baita lurzoruaren bolumena txikiagotzen, nahiz eta ur gehiago galdu* (Lurzorua aztertzeke eta ikertzeke oinarriak). Halakoetan, sarreran aipatu dugun bezala, honelakoa da joko semantikoa: *hura* = perpaus erlatiboak (molde bateko nahiz bestekoak) deskribatzen duena. Hots, *gerla eder hori(,) zeinari esker ezjakintasuna gaindituko baitugu* = *hari/berari esker ezjakintasuna gaindituko dugun gerla eder hori*.

### 31.4.5. Bait-erlatiboak

#### 31.4.5.1. Bait-erlatiboen ezaugarriak

**31.4.5.1a** Aski gaizki epaitu izan dituzte xx. mendeko gramatikari askok *zein*-erlatiboak. Esan izan dute, bereziki, halako izenordainik gabe ere era daitezkeela molde bereko perpausak, ekialdeko euskalkietan behintzat: *Bakotxak badauka eskuan liburu ttipi bat, [hartan kondu guziak baitire]* (J. Etxepare); *Orok ezagutua den liburu ttipi pollita, [zointan ez bakarrik delako ithurria, bainan oraino hemengo azinda [...] beltzak berak hain amultsuki gosten baititu]* (J. Etxepare). Bi adibide horietan egitura berak ditugu. Badi-ra, ordea, formazko diferentzia batzuk; bi bereziki. Batetik, lehenbiziko adibidean, erlatiboan *bait-* menderagailua izanik ere, badakigu haren orde *-(e)n* ere balia daitekeela; aitzitik, bigarrenean, *bait-* menderagailua baizik ez daiteke

erabil. Bestetik, lehenbizikoan ez da izenordain erlatiborik eta bigarreanean, aldiz, bai (*zointan*).

**31.4.5.1b** Noski, erran daiteke lehenbizikoan *hartan* izenordainak *zointan* izenordain erlatiboaren eginkizuna duela, eta gisa batez hala da, *hartan* erresunptibo gisa agertzen baita, aurrekariaren erreferentzia izanik, izen sintagma erlatibatuaren funtzioa seinalatuz. Hain zuzen ere, Lafon eta Lafitte gramatikariek horixe zioten: *bait-* menderagailuak erabilera zabala duen Iparraldeko euskalkietan, euskarak ez zuela izenordain erlatiboen beharrik, berdin-berdin erabil baitaitezke halako perpauisetan erakusleak, edo haietarik eratorri lekuzko adberbio deiktikoak (*han, handik...*), erresunptibo gisa, euskararen joskeraren jatortasuna hobeki errespetatuz. Bestalde, orain ikusiko dugun bezala, erakuslerik gabe ere egin daitezke halako erlatiboak, izenordain erresunptibo agerikorik erabili gabe.

xx. mendeko Iparraldeko idazleek bereziki baliatu dute idatzietan, bestela ere autore zaharretan eta bereziki gaurko ahozko euskararen erabiltzen den jokabide hori. Halako perpauis erlatibo aposiziozkoak *bait-*erlatiboak deituko ditugu hemen, *bait-* aurrizkia baizik ez baitaiteke izan kasu honetan menderagailua.

### 31.4.5.2. Erresunptiboen forma (agerikoa edo ez-agerikoa)

**31.4.5.2a** Ikusi dugu nola, erakusleak ager daitezkeela izenordain erresunptibo gisa *bait-*erlatiboetan. Horrela gertatzen da maiz. Beste batzuetan, ordea, erresunptiboak beste forma bat ere izan dezake. *Helduko da eguna, zeinetan esango jatan, abiatu, ta presta nadilla ondo ilteko; Jinen dira egunak, [Ø herriari goseoa igorriko baitiot]* (Añibarro). Pentsa dezakegu badela bigarreanean ere erresunptiboari dagokion sintagma bat, aldi honetan agerikoa ez bada ere. Hitz batez, *bait-*erlatiboetan izen sintagma erlatibatua osoki isildua izan daiteke (izenordainik ez: ez erlatiborik eta ez erakuslerik): *Bizpahiru egun bereziki hor iragan dire, [Ø beldurtzeko baitzen, [etzadin gehiago trein bat higi nehorat, ez aitzinerat ez gibelerat]]* (Hiriart-Urruti). Erresunptiborik gabeko jokabidea errazkiago erabiltzen da, noski, isiltzen dena egiturazko kasu batean denean eta adizkiak

komuntaduraz seinalatzen duelarik hura: *Ezagutzen ditut apezak*, [ $\emptyset$  *buruhaus-te ederrik baitute* [hamabi urteko haur batzuek egin galderi] *xuxen ihardetsi beharrez*] (Hiriart-Urruti); *Nahi baduzie jin, badira “Ranchero” nausi eder batzu*, [ $\emptyset$  *oroz gainerik, eskualdun alabak nahi baitituzte emaztetzat*] (Larzabal).

**31.4.5.2b** Halere, kasu gramatikala duenean ere agerikoa izaten ahal da erresunptiboa: *Ni deitzen naiz Roland, Charlemagne-en gizona* / [*harek balio baititu, Otsoa bezalako dotzena*] (Larzabal); *Hanitz aldiz aditua nakon erraiten amari*, [*hau ere harriturik baitzagon*] (J. Etxepare). Erresunptiboa erakusleaz beste izenordain bat ere izan daiteke: *Nik ikusten ditut hemendik neskatxa frango [...]* [*denak kasik erdaraz ari baitira solasean*] (Larzabal). Erresunptibo gisa, *hartan moldekoak ez ezik, han moldekoak ere erabil daiteke: Ostatu handi batzu idekirik badauzkote*, [*su, ohe on, jateko garbi, soinekorik beharrenak han ediren baititzazke merkeenik*] (J. Etxepare); *Ipar aldetik maldatzen dute dena bazka-leku diren munho batzuek*, [*handik erregebidez itzainek jausten baitakote ardien ilea*] (J. Etxepare).

### 31.4.5.3. *Bait*-erlatiboetako izen sintagma erlatibatuen kasu markak eta postposizioak

Edozein kasu marka nahiz postposizio harturik ager daiteke *bait*-erlatiboetako izen sintagma erlatibatua, genitiboa barne. Izenordain erresunptiboa agerikoa denean, jakina, guziz gardena da interpretazioa. Hona Jean Etxepareren lan batetik atera zenbait adibide: *Bazter ikusi nahia: horra zerk utzarazten dakon herria eskualdunari*, [ $\emptyset$  *ardurenik itsasoaz haindirat baitoa onaren ala berriaren keta*]; *Jendea alde dute, guziz jende xehea, hunen oldarrari bihurtzeko ez baititeke poliza aski azkarrik*.

### 31.4.5.4. *Bait*-erlatibo konplexuak

*Bait*-erlatiboetan, *zein*-erlatiboetan bezala, izen sintagma erlatibatua mendeko perpaus batekoa izan daiteke.

Adibidez, aurreko adibidean, erresumptiboa (*hunen*) mendeko perpaus jokatu-gabeko osagaia da (*hunen oldarrari bihurtzeko*). Hona halako beste batzuk: *Barne huntan bada holako mutil eta neskatxa frango*, [ez baitakit [Ø ene predikua duten onartuko]] (Larzabal); *Azken urte hotan, Canadako zelhai hotzetarat lehia badute bakar batzuek*, [ez baitakigu [Ø zer gibelondo eginen duten]] (J. Etxepare).

#### 31.4.5.5. Aposizio motak

**31.4.5.5a** *Bait*-erlatiboak, *zein*-erlatiboak bezala, erlatibo aposatuak dira. Erlatibo aposatuak izanik, bestelako sintagma aposatuekin batera etor daitezke: [...] *errota bat [gogorki zabala]*, [*bere bi mazelatako zirien artean huts bat baitzaukan*] (J. Etxepare).

**31.4.5.5b** Halaber, beste erlatibo aposatuak bezala, aurrekariaren ondoan ager daitezke edo gibeleratuak. Alderdi horretarik ere ez dira bereizten *zein*-erlatiboetarik: *Gizon bati gertatu zaio*, [*hura ere ez baita guti harritu orduan*]. Hor, *bait*-erlatiboa gibeleratua da, eta, halakoetan maiz gertatzen den bezala, aurrekaritik (*gizon bati*) bereiz. Hona gisa horretako beste adibide pare bat. Hurbileko aposizioan, beste sintagma apositibo batekin batean: *Zera zen bat*, [*eskualduna baitzuen ere andrea*], *Irisarriko* (Hiriart-Urruti); Aposizio gibelatuan: *Bada hainitz hemen gaindi*, [Ø ez baitezakete bertze hainbertze erran beren buruentzat] (Larzabal); *Zenbat deputatu ez da [dirudunen eta langilen arteko gerla berek sustatu dutelakotz] baitire jaun handi*] (Hiriart-Urruti).

#### 31.4.5.6. *Bait*-perpausen anbiguotasuna

Badakigu *bait*- aurizkia ez dela bakarrik perpaus erlatiboetan erabiltzen, eta beste erabilera batzuk ere izan ditzakeela: kausa adieraz dezake, adibidez. Gisa horretan zail da batzuetan jakitea *bait*-perpausa erlatiboa edo adjuntua den: *Etzen bazter ikusi nahia: merkaturat zenbeit aldiz, elizarat maiz, eta gero*

*etxean, [han baitzuen osoki bere bihotza]* (J. Etxepare). Hor, *bait*-perpaua bi modutan azter daiteke: edo erlatibo gisa, *han* izenordain erresumptiboa izanik, edo kausazko perpauis gisa. Funtsean, anbiguotasuna ez da hain bitxia gogoan hartzen badugu *bait*-erlatiboak beti erlatibo aposatuak direla, eta erlatibo aposatuak balio esplikatiboa izan dezaketela. Formaren aldetik *bait*-erlatiboak eta *bait*-ekilako perpauis adjuntuak ez baitira elkarretarik bereizten, berezkoa dugu euskararen halako perpauisen anbiguotasuna: *Haurrek, [titi direlarik oha-koan ahanzten baitituzte eta behar gabe zernahitaz asetzen], zango makilak kakol derabiltzate, zorroa ja biribil, buru zabal gaitza lepo meheak nekez bezala jasaiten deielarik* (J. Etxepare).

#### 31.4.5.7. *Bait*-perpauiseko izenordain batek aurrekari gisa perpauis bat duenean

*Bait*-erlatiboetako izen sintagma erlatibatuari dagokion aurrekaria ez da beti izen sintagma bat. Perpauis baten edukia ere izan daiteke aurrekaria: *Garatik hirirako bi zubiak ere behar dituzte zabaldu, [ez baita goizegi izanen]* (Hiriart-Urruti). Hor, *bait*-perpauiseko subjektua izenordain isildua da. Haren erreferentzia ez da aurretik agertzen den izen sintagma bat, baina aurretik agertzen den perpauiseko edukia (aipatu bi zubien zabaltzea, hots). Hona beste adibide batzuk: *Federiko enperadoreak etzuen bere mendean arnorik edan, [anitz baitzen aleman batentzat]* (Axular); *Jenden hiruetarik bat bataiatuak dira, [Afrikako beste erresumetan ez baita usu ikusten holakorik]* (Hiriart-Urruti). Noski duda izan dezake batek ea halako perpauisak egiazko perpauis erlatiboak diren, ala beste zerbait. Ez gara hemen eztabaida horretan sartuko. Esan dezagun, soil-soilik, ondoko erdaretan ere kausitzen direla halako perpauis aposatuak, erlatiboen ereduari darraizkionak. *Zein*-erlatiboak ere gisa berean erabili dira tradizioan. *Zeren Iainkoa izendatuki, gezurraren aithor eta lekhuko ekhartzen baita: zein baita bekhatu handia eta itsusia* (Axular). Erlatibo arrunt apositiboekin eratuak ere badabiltza, baina molde horren onargarritasuna zalantzarri zaio askori: *?Federiko enperadoreak etzuen bere mendean arnorik edan, [anitz zena aleman batentzat]*.

### 31.4.6. Korrelazioz eraturiko perpaus erlatiboak

#### 31.4.6.1. Korrelaziozko perpausak: aurkezpena

**31.4.6.1a** Perpaus erlatiboen artean sailkatzen ohi dira ondoko adibideko ereduari darraizkion perpausak ere: *Nor ere bizi baita etxe hartan, hark pagatu beharko du haren konponketa*.

Adibide horretan erreferentzia bereko bi izenordain ditugu, perpaus banatan agertzen direnak: lehenbizikoa galdera izenordaina da eta lehen perpaus banatan agertzen da, perpaus hartako aditz jokatuak *bait-* aurrizkia duelarik (*baita*); bigarren izenordaina (*hark*), berriz, erakuslea da, eta ondoko perpaus banatan agertzen da, perpaus hartako adizkiak menderagailurik ez dakarrelarik (*pagatu beharko du*). Erakuslea (*hark*) anaforikoa da, erran nahi baitu aurrekari batek ematen diola erreferentzia; ohar bedi, haatik, aurrekari horrek ez dezakeela erreferentzia zehazki mugaturik eman, zeren galderetan erabiltzen den izenordaina baita: *nor*, aurreko perpaus banatan dagoena.

**31.4.6.1b** Holako egitura duten perpaus ez esaten da *perpaus korrelatiboak* edo *korrelaziozko perpausak* direla, eta mendekoari, *nor ... bait-* erakoari, esaten zaio *perpaus erlatibo korrelatiboa*. Perpaus hauek ditugu hemen ikergai.

Ekialdeko tradizioan agertzen dira gehienik perpaus hauek literaturan. Halere, mendebaldean ere kausi daitezke batzuetan, bereziki testu zaharretan, *bai(s)t-* menderagailuarekin eraikiak, eta moduzko konparazioak osatuz: *Zelangoa baista amea, alangoa oi da alabea* (RS); *Zelan bainabil janzirik, alan otza daukat nik* (RS).

Forma jokatugabe eta eliptikoetan ere kausitzen dira korrelaziozko perpausak hala nola ondoko adibideetan: *Zer ikusi, hura ikasi; Eguzkia nora zapiak hara*.

#### 31.4.6.2. Korrelaziozko perpausen egitura

**31.4.6.2a** Esan bezala, goiko perpausetako egitura bi perpaus ditugu: alde batetik galdera izenordain bat izenordain aurrekari gisa daukan mendeko per-

paus bat, *bait-* aurrizkia dakarrena, eta bestetik, bestearen eskuinean, izenordain anaforikoa daukan perpaus bat, menderatua izan beharrik ez duena, eta beraz adizkia menderagailurik gabe izan dezakeena. Ondoko adibidean erakusten dugu korrelaziozko perpausen egitura:

[ZER/NOR<sub>k</sub>-kasua (*ere*) ... BAIT- aditza], [HURA<sub>k</sub>-kasua ... aditza]

*Nor ere baitago nitan eta ni hartan, eta harek ausarki ekartzen du fruitu* (Leon); *Ama Birjinak, are mundu hunetan zenean ere, nori ere, eta nork ere behatzen baitzioen, hari [...] gogoeta garbi batzuk, eta garbiki bizitzeko nahikunde handi batzuk pitzten eta emaiten [...] zerautzan* (Axular); *Baina, nor ere ahalegintzen baita besteak Arrazoiaren arabera gidatzen, hura ez da ol-darrez ari, gizatasunez eta bihozberatasunez baizik* (Xarriton); *Nork ere irudikatzen baitu, alabaina, maite duen emaztea zikintzen dela beste norbaitekin, pertsona hura tristatuko da* (Xarriton). Azken adibide honetan, erakusle soilaren orde, izenaz eta erakusleaz osaturiko sintagma dugu.

**31.4.6.2b** Perpaus hauei dagokien terminologia ongi zehazteko erranen dugu perpaus menderatuko izenordain erlatiboa (ZER edo NOR) *izenordain (korrelatu) aurrekaria* dela, eta beste izenordaina, berriz, HURA gure adibideetan, *izenordain (korrelatu) anaforikoa* dela. Adibideetan ikusten den bezala, gehiengotan *ere* diskurtso markatzailea lotzen zaio izenordain aurrekariari.

**31.4.6.2c** Aurrekoei konparatuz berezitasunak badituzte korrelaziozko perpaus erlatiboek:

- Lehenbizikorik, *zein*-erlatiboak edo *bait*-erlatiboak bezala, ez dira izenlagun gisa agertzen; horretan argi eta garbi bereizten dira perpaus erlatibo arruntetarik.
- Bigarrenekorik, *zein*-erlatiboak edo *bait*-erlatiboak ez bezala, ez dira postposatuak: izan ere, erlatibo korrelatiboak erreferentzia ematen dioten anaforikoaren ezker aldean agertzen dira beti.
- Hirugarrenekorik, perpaus erlatiboak erreferentzia zehazten dion izen sintagma erakuslea izaten da: *hura*, honi dagokion leku-adberbio bat (*han, handik, hara...*) edo, batzuetan, *haina*.



Altubek (1929: § 125) seinalatu zuen bezala, euskaraz beste modu batean ere ager daiteke korrelaziozko egitura hau, ondoko adibideetan ikus daitekeen bezala: *Berak zer esaten eban? Nik arexeri erantzun baiño ez; Zein lagunen atzean ibili zan? Ba uraxe aurkitu Azkaratek.*

Paralelismoa nabarmena da hor korrelazioz moldaturiko erlatiboekin, baina formazko diferentzia handi batekin: adibide horietan *zer* eta *zein* izenordainak galdera batean dira eta zinezko galdera izenordainak dira. Aitzitik, aurreko perpausan ez da horrela: galdera izenordaina daukan perpausa ez da galderazkoa, eta menderagailua dakar haren adizkiak.

Galderazko egituratik abiatu ere forma jokatu gabeak izan baitaitezke, are handiago gertatzen da orduan erlatibo korrelatuekin perpaus horiek duten antza: *Berak zer esan ta nik arexeri erantzun, besterik ez* (Altube 1929); *Nik nora begiratu, hara hark* (J. I. Basterretxea); *Erizain ibili nintzen Gudarostearekin, gudariak nora joan ni hara* (Uribe).

Bestalde, badirudi ahozko erregistro horretan bereziki, itxura bereko beste korrelaziozko perpausak ere molda daitezkeela hegoaldeko euskalkietan. Haietan, *-(e)n* menderagailua lotzen zaio galdera izenordaina duen perpausoko adizki jokatuari, zehar-galdera batean bezala. Horrela gertatzen da ondoko adibidean: *Zu nora joaten zaren, nire anaia ere beti hara joaten da.*

Esan behar da, halere, holako perpausak, ohiko korrelaziozko perpausen egitura dutenak (Hegoaldean gertatzen ohi denaz, *-(e)n* izanik menderagailua, eta ez *bait-*) ez direla biziki agertzen testu idatzietan.

### 31.4.6.3. Korrelaziozko perpausen balioa

**31.4.6.3a** Ikusi dugu korrelaziozko perpausetan izenordain anaforikoak duen aurrekaria galderetako izenordaina dela. Ez du, beraz, erreferentzia zehatzik, eta, ondorioz, balio kanonikoa hartzen ohi du, eta ematen ere izenordain anaforikoari. Batzuetan, haatik, balio kontzesiboa ere izan dezake.

Aurrekariak balio kanonikoa duenean korrelaziozko perpaus horiek ardatzik gabeko erlatibo generikoen pareko dira. Adibidez —ondotik errepikatzen dugun adibidea—, ardatzik gabeko erlatibo generiko baten bidez adierazia da beste zenbait itzulpenetan: *Nor ere baitago nitan eta ni hartan, eta harek aursarki ekartzen du fruitu* (Leon); *Ni Argan bezala nitan dagonak uzta ugari ematen du* (Orixe); *Norbait niri itsatsia badago, ni berari bezala, horrek fruitu asko emango du; ni gabe ezin baituzue ezer egin* (Elizen arteko Biblia).

**31.4.6.3b** Testuinguru egokietan balio kontzesiboa ere izan baitezake izenordainak, araberako balioa hartzen dute batzuetan korrelaziozko perpausak. Beha ondoko adibideari: *Non ere gordetzen baita, ez zaigu handik eskapatuko*.

Horrelako adibide bati, interpretazioan kutsu kontzesiboa errazki eman dakioke, hala nola esaten balitz: *Edonon, den tokirik aurkitzen zailenean ere, ezkurturik egon arren, ez zaigu handik eskapatuko*. Parekotasun horrek esplikatzeko dituzten adibidez, kolosarrei eginiko gutunetan Kol 3, 23 pasarteko itzulpen desberdinak: *Zer ere baitagizue, gogotik egizue* (Leizarraga); *Edozein gauza egin dezazuen, bihotzetik egizue* (Duvoisin).

#### 31.4.6.4. Izenordain korrelatu aurrekariaren forma

**31.4.6.4a** Izenordain korrelatu aurrekaria, galdera izaten da komunzki: *nor* edo *zer* sailekoa, adibideetan ikusi dugun gisan, edo leku-denborazko kasuetan *non* edo *noiz* erakoa.

*Zein* sailekoa ere izaten ahal da, halere, batzuetan. Adibidez, gorago aipatu perpausa *zein* izenordaina baliatuz itzultzen du Duvoisinekin: *Zein ere baitago nitan eta ni hartan, hainak ekharriren du fruitu hainitz* (Duvoisin).

*Zein*-erlatiboetan, *zein* izenordain erlatiboa artikuluaekin ere erabil daitekeela ikusi dugu. Aukera hori aurkitzen da *zein* izenordain gisa korrelaziozko perpausetan erabilia denean ere, nahiz *zein*-erlatiboetan baino anitzez gutiagotan baliatua den jokabide hau. Ikus ondoko adibidea: *Zeinak profeta bat, profeta delakoz baitu hartzen, hainak profeta saria izanen du, eta nork-ere prestu bat prestu delakoz hartzen baitu, harek prestu saria izanen du* (Duvoisin).

*Zein* izenordain aurrekaria artikularekin agertzen da aurreko adibidean. Adibide bereko ondoko perpaus erlatibo korrelatua, berriz, *nor* izenordainarekin eratua da, baina ikus dezakegu ez dagoela bi izenordainen artean oposaketarik balioaren aldetik.

**31.4.6.4b** Ez da ohikoa *zeina(k)* izenordainaren erabilera hau korrelaziozko erlatiboetan.

Noski, *zein* izenlagun moduan ere ager daiteke batzuetan korrelaziozko perpausetan. Jokabide hau erregularra da, adibide ugari aurkitzen ez bada ere literaturan. Hona batzuk: *Eta ZEIN-ere hiritan edo burgutan sarthuren baitzarete, informa zaitzete nor den hartan dignerik, eta zaudete han parti zaitzeten* (Leizarraga); *Gero baderamatzate zoin tokitarat iduritzen ere baitzeie, eta harat* (J. Etxepare).

Adibide horietan *zein* izenlagun gisa agertzen zaigu. Esan gabe doa *zer* ere erabil daitekeela batzuetan modu berean: *Zeren nola etsaiak bethiere zelatan baitaude, zer ere huts edo falta edireiten baitute, hura berehala harrapatzen dute, eta are batzutan berreturik, airatzen eta kanpatzen dute* (Axular); *Zer ere baitu eskas lur batek bere baitarik, hura behar zaio eman ongailuz* (Almanaka); *Zer ere baitu bere lan berezia gerlako gizon bakhotxak, hartan da gehienik eskolatzen* (Saint-Pierre).

### 31.4.6.5. Korrelaziozko izenordain anaforikoaren forma

**31.4.6.5a** Izenordain korrelatu anaforikoa gehienetan erakuslea da, gorago adibideetan ikus daitekeen bezala, edo hartarik eratorritako forma adberbiala toki denborazko kasuetan denean (*han*, *handik* eta abar): *Gero baderamatzate zoin tokitarat iduritzen ere baitzeie, eta harat* (J. Etxepare).

Aurrekaria *nor* edo *zer* gisako izenordaina izanik, mugagabea da eta singularreko aditz komunztadura dakar. Ondorioz, anaforikoa ere, gehienetan behintzat, singularrean izaten da. Halere ez dirudi ezinezkoa dela erakusle anaforikoa pluralean agertzea testuinguru egokietan. Ondoko adibidean Axu-

larrek izenordain anaforiko singularra eta plurala, biak, erabiltzen ditu: *Zaleuko Greziako parte batzuetako erregeak [...], ordenatu zuen eta ezarri legea, nor ere eroriko baitzen adulterioan, eta nork ere behar etzen emaztearekin huts eginen baitzuen, halakoari eta halakoei, hainari eta hainei, hala gizona-ri nola emazteari, iustiziak begiak atherako eta iraziko zerauztela* (Axular).

Aurreko adibidean ikus daitekeenez, izenordain korrelatu anaforikoa *haina* da, eta singularrean eta pluralean erabilia da.

**31.4.6.5b** *Haina* izenordaina korrelaziozko perpausetan bereziki agertzen da literatura tradizioan, aurrekaria gizakia izanik, ondoko adibideetan bezala: *Nork ere maiz hartzen baitu bazka saildu eta erremedio salbagarri hori debizionerekin, hainak hartarainokoa borthitzen du bere arimako osasuna eta bizia* (J. P. Arbelbide); *Nork ere maiteago baidu aita edo ama ni baiño, haiña ezta enetzat on: eta nork ere maiteago baidu semea edo alaba ni baiño, haiña ezta enetzat gai* (Haraneder); *Nork erraiten baitu hura baithan dagoela, behar du, nola hura ebili baita, hala hainak-ere ebili* (Leizarraga).

*Haina* izenordain anaforikoa, lapurtera klasikoko tradizioan kausitzen dugu. Nahiz XVI. mendean Leizarragaren idazlanetan ere aurkitzen den, XVIII. eta XIX. mendeetako testuetan bereziki agertzen da.

**31.4.6.5c** Izenordain anaforikoa isildua ere izan daiteke. Horrela da, adibidez, Axularren obratikako aipu honetan: *Bada nork ere bere arimaz kontu ona eman nahi baitu, eta bere bekhatu iraganez barkhamendu erdietsirik, aitzinerat gehiago egin gabe egoiteko indar hartu, maiz kofesa bedi* (Axular). Adibide horretan izenordain anaforikoa *kofesa bedi* aditzaren subjektuari dagokio baina isildua da.

Ondoko adibideetan, izenordain anaforikoa datiboan eta ergatiboan da, baina ez da ageriko izenordain gisa gauzatua aditzaren komunztadura marketan ez bada: *Nork ere baituke orai orhoitzapen horren ohoretan besta egiteko gutizia, on dakiola!* (Hiriart-Urruti); *Nork ere nahi baitu bazkarian parte hartu, izena behar du eman Begiraleen egoitzan urriaren 8-ko berantenez eta txartela aintzinetik pagatuz* (Herria).

### 31.4.6.6. Ere eta eta korrelaziozko perpaus erlatiboetan

**31.4.6.6a** Korrelaziozko perpausetan askotan *ere* eta *eta* hitzak agertzen zaizkigu.

Goragoko adibideetan ikus daitekeenez, anitzetan idazleek ere agerrarazten dute perpaus erlatiboan izenordain aurrekariaren ondotik. Halakoak dira ondoko adibideak: *Zer ere ikhusten baitugu bertzeer egiten, hari jartzen gare* (Hiriart-Urruti); *Nork-ere prestu bat prestu delakoz hartzen baitu, harek prestu saria izanen du* (Duvoisin); *Gizonak zer ere ereiten baitu, hura biltzen ere du* (Axular); *Gizonak zer ere ereiten baitu, hura biltzen ere du* (Olano); *Nork ere egin duena damu baitu, hura dohakabea da edo ezindua, bi aldiz* (Xarriton); *Mexikoko ikerketa misteriotsuetan Ernest Hemingwayri nork ere lagundu dion, itzalpetan geratu da horren izena* (Jimenez).

*Eta* ere agertzen da askotan korrelaziozko perpausetan. Maizenik anaforikoa dakarren perpausaren hastapenean aurkitzen da, ondoko adibideetan bezala: *Nork ere begiraturen baidu bere bizia, eta hark galduko du* (Haraneder).

**31.4.6.6b** Batzuetan, halere, *eta* diskurtso markatzailea perpaus erlatiboaren barnean ere aurkitzen da, mendeko perpausoko azken hitzari erantsia, ondoko adibidean bezala: *Lehenago, nork ere pagatzen baitzuen barrika arno gehienik-eta, hura zukan pasatzen bozetan...* (Larzabal).

Beste batzuetan *eta* izenordain aurrekariari lotzen zaio mendeko perpausaren, zenbaitetan *ere* darraiolarik: *Non eta baitire (mirakuiluak), Jainkoa han da* (Lapeire); *Nor eta ere ez baita berriaz sortzen urean [...], ez daiteke sar Jainkoaren erresuman* (Lapeire).

### 31.4.6.7. Korrelaziozko erlatiboak mendeko perpaus bateko osagai

Korrelaziozko perpaus erlatiboa mendekoa izanik, izenordain korrelatu anaforikoa perpaus beregain batean egon daiteke. Gehienetan horrela gertatzen bada ere, ez da ezer ezinbestekorik horretan, eta erlatiboari bidea irekitzen

dion perpausa bera ere (izenordain anaforikoa duena, hots) mendekoa izan daiteke.

Horrela gertatzen da, adibidez, Axularren ondoko hiru adibideetan, bi kasutan *-(e)la* konpletiboa delarik mendeko perpausa (ondoko bi adibideak), eta beste kasuan *ba-* perpaus supositiboa (azken adibidea): *Seguratzten zaituztet, ezen nork ere utziko baitu enegatik, eta ene Ebanjelioagatik etxerik, anaiarik, arrebarik, aitarik edo amarik, errezibituko duela orai presenteko denbora hunetan, utziko duenetik ehun gehiago, eta gero bertze munduan bizitze eternala* (Axular); *Orduan zeure ondokoei, eta han presentean edireiten direnei, zer ere nahi baitute, eta nola behar dela ikhusiko baitute, hala dagitela utzten derauezu* (Axular); *Zeren baldin Elizako doktor batzuek dioten bezala, Ama Birjinak, are mundu hunetan zenean ere, nori ere, eta nork ere behatzen baitzioen, hari, haragiaren desira desordenatuak eta gogoeta lizunak iraungirik, heken lekhuak gogoeta garbi batzuk, eta garbiki bizitzeko nahikunde handi batzuk pitzten eta emaiten bazerautzan: zenbatenez orai han goititik, loriatik, hanbat kredit eta esku duen lekhutik, bere debotei egiazki gomendatzen zaizkonei erdietsiko deraue, eta erdietsirik emanen deraue, haragiaren tendamenduen haiatzeko eta benzutzeko indar, bothere, eta garazia?* (Axular).

#### 31.4.6.8. Korrelaziozko perpaus erlatiboaren tokia

**31.4.6.8a** Gorago ikusi bezala korrelaziozko perpaus erlatiboak izenordain anaforikoa dakarren perpausaren hastapenean kokatzen ohi dira, honela, beraz:

[[… *NOR/ZER* … *BAIT*-aditza …], *HURA* … aditza]

Zenbaitetan, halere, perpaus erlatiboa ez da perpaus osoaren hastapenean agertzen, baina haren erdian, betiere izenordain anaforikoa eskuinean duela (hau ageriko denean noski). Horrelakoa da ondoko adibidea: [*Gero baderamatzate* [*zoin tokitarat iduritzen ere baitzeie*], *eta harat*] (J. Etxepare).

Adibide horretan, *harat* izenordain anaforikoa dagoen perpausoko aditza (*baderamatzate*) aurrean da, eta perpaus erlatiboa haren eskuinean (izenordain anaforikoaren aurretik, haatik, ez baitaiteke bestela izan).

**31.4.6.8b** Batzuetan egitura hori aurkitzen da izenordain anaforikoa isildua izanik ere, hala nola Axularren adibide honetan: *Beraz hunelatan, [...] behar dugu egun beretik, geroko begira egon gabe, geure konzientziatik, zer ere notha, falta, eta narrio baitugu, khentzera enseiatu: eta halatan bakean eta soseguan egon, iarri eta pausatu* (Axular).

Adibide horretan *zer ere ... bait-* perpausa gaineko aditzaren (*khentzera*) ezkerrean da, baina halere perpaus horretako osagaien erdian, zeren ezkerrean duen sintagma (*geure konzientziatik*) *khentzera* aditzaren adizlaguna da. Erlatibo korrelatibo gisa aztertzen bada [*zer ere ... bait-*] perpausa, suposatuko da, haren ondotik izenordain anaforikoa badela, baina kasu horretan isildua dela (*haren* edo genuke gauzatua balitz). Alabaina, ikusi dugu gorago Ø formako izenordain anaforiko horren aukera agertzen dela korrelaziozko erlatiboetan (ikus § 31.4.6.5c).

### 31.4.7. Aurrekaririk gabeko galdera izenordaina duten erlatiboak

Bi egitura bereiz daitezke aurrekaririk gabeko galdera izenordaina duten perpaus erlatibo jokatueta: *bait-* menderagailua hartzen dutenak eta perpaus erlatiboko aditza subjuntiboko forman dutenak. Lehen egituraren adibide dira honako perpaus hauek: *Emanen zeraukala zer ere eska bailedi* (Leizarraga); *Emanen daraiela zer baitute merezi* (Etxepare). Mendeko aditza subjuntibokoa dute, aldiz, beste hauek: *Ez dik [non bere burua reposa dezan]* (Leizarraga); *Eskriturak nonbait diona da, aurtxoak ogi eske zeuden ta etzan nork puska ziezaten* (Larramendi); *Ez dago nok egin dagijan penitenzijarik* (Mogel).

Baina aurrekaririk gabeko galdera izenordaina eta *bait-* menderagailua duten erlatibo jokatueta egitura guti baliatua izan da egitura euskaraz, eta oso markatua da. Aditza subjuntiboko forman duten erlatiboak ere gaur zaharkituzat jo ditzakegu, zeren perpaus jokatueta gisa bakarrik erabiltzen baitira horrelako egiturak<sup>2</sup>.

<sup>2</sup> Egitura hauei buruz argibide gehiago nahi duenak jo dezake EGLU-V liburukira (257-259).

## 31.5. Perpaus erlatibo jokatugabeak

### 31.5.1. Sarrera

Kapitulu honen hasieran bi motatako perpaus erlatiboak bereizi ditugu: erlatibo arruntak eta izenordain erlatiboz eraturiko perpaus erlatiboak (ikus § 31.2.1, § 31.2.2). Lehenak, izena modifikatzen duten sintagma adjektibaltzat har daitezkeela esan dugu (ez, aldiz, izenordain erlatiboz eraturikoak). Erlatibo arrunten artean, bi motatakoak bereizi ditugu: jokatuak eta jokatugabeak (*josi duzun / jositako*). Bigarren hauek izango ditugu hemen aztergai.

Perpaus erlatiboak, jokatuak eta ez jokatuak, parekoak izanik, juntaturik ager daitezke, hots, perpaus erlatibo jokatugabeen eta jokatuaren artean ere gerta daiteke juntadura, ondoko adibidean bezala: *Bertan zeuden baserritarrek ekarritako edo baserrietan gehienbat behar izaten diren gauzak*. Adibide horretan, aurrean bi perpaus erlatibo agertzen dira *gauza* izen-ardatzaren, *edo* juntagai luaren bidez juntatuak: bat (*baserritarrek ekarritako*) ez da jokatua, eta bestea, aldiz (*baserrietan gehienbat behar izaten diren*), bai. Partizipio burutuaren bidez eratu perpaus jokatugabeak *perpaus erlatibo jokatugabe arruntak* direla erranen dugu, eta, hain zuzen, halakoak ditugu atal honetako aztergai nagusiak. Nagusiak, baina ez bakarrak, zeren badira beste egitura batzuk perpaus erlatibo gisa aztertzen ohi direnak, jokatugabeak izanik bestela moldatzen direnak. Horrela, perpaus erlatibo jokatuak aztertzean adierazi baitugu korrelazioz ere mol da daitezkeela perpaus erlatiboak (ikus § 31.4.6), orain ikusiko dugu aditza jokatu gabe ere era daitezkeela itxura bertuko perpausak: *Non hilko, hara joango!* Bestalde, ikusiko dugu nola molde jokatuan guziz zaharkitutzat jo daitezkeen perpaus erlatibo berezi batzuk (ikus § 31.4.7) bizi-bizi diren gaurko euskaran era jokatugabeen: *Ixilik egonda ere, bazegok bai an nork itz egin!* (F. Mendizabal). Azken adibide honek antz handia du zehar-galdera jokatugabeekin, baina egiazko egitura erlatiboari dagokiona da. Hau da, *bazegok* adizkiaren osagarria sintagma absolutibo bat da, isilpean egon arren (*nor bait, jendea...*) eta sintagma horren erreferentziakide da mendeko perpausko *nork* (§ 30.8.3f). Beraz, hiru perpaus mota aurkeztuko ditugu hemen, erlatibo jokatugabeen da-



gozkienak: perpaus erlatibo jokatu gabe arruntak (*zuk ekarritako liburua*); korrelaziozko perpaus jokatu gabeak (*nor aipatu, hura agertu*); [galderazko izenordaina + adizki jokatu gabea] erakoak (*badugu non lo egin*).

### 31.5.2. Perpaus erlatibo jokatu gabe arruntak

#### 31.5.2.1. Perpaus erlatibo jokatu gabe arrunten aldaerak

**31.5.2.1a** Perpaus erlatibo jokatu gabe arruntak partizipio burutu jokatu gabearen bidez eratzen dira. Halere, euskalkien arabera, itxura desberdinak har ditzake partizipiozko egiturak halako perpausetan, nolako atzizkia eranstean (edo ez zaion): *Mundu modernoan kristautasunari egindako kritika marxistaren muina*; *Berak eginiko toki, gorde-leku ta garautegetan* (Añibarro); *Haren lehen antzerki obra, Mugaldeko herrian eginikako tobera, Arantzazun antzeztu zuten bertako ikasleek, 1962ko Gabonetan* (Berria); *Oihal larritz eginikako erridau bat; gure herriaz eskaini liburu koloretsuetan* (Borda).

Nabari denez, lau itxura desberdin ditu partizipio burutuzko egiturak adibide horietan: *egindako, eginiko, eginikako* eta *eskaini* (eginen pareko egitura, alegia). Lau aldaera horiek literatura-euskalkien joera nagusiei dagozkie, horrek ez baitu erran nahi zenbait euskalkitako mintzamoldeetan hauetaz beste aldaera batzuk ere ezin erabil daitezkeela. Adibidez, itsas hegiko lapurteran, baztaneran eta bizkaierazko zenbait aldaeratan *-(e)ko* atzizkia aurki daiteke: *Hainbertzetan irakurriko liburu hortarik* (Lafitte); *[...] erosiko behi pintak, esanekoa baino askoz esne gitxiago ematen dauala* (J. L. Goikoetxea).

**31.5.2.1b** Perpaus erlatibo jokatu gabeetako atzizkiei behatzen badiegu, ohartu gaitezke molde batean izan ezik, *-ko* atzizkia agertzen dela beste guztietan. Dakigun bezala, atzizki hori izenlagunen eratzeko bereziki baliatzen da (ikus § 21.7), eta ez da harritzekoa hemen ere aurkitzea, zeren perpausari ere lotu baitakieke *-(e)lako* perpaus izenlagun jokatuak, *-tze*ko perpaus izenlagun jokatu gabeak, ikus § 30.6.4.1). Perpaus erlatiboari dagokienaz, literatura-euskalkietan agertzen diren formak kontuan hartuz gero (*egindako, eginiko, eginikako*), *-ko*

atzizkia aditz partizipioei loturik doan beste atzizki batekin batean erabiltzen da beti: edo *-ta* atzizkiari erantsirik, edo *-(r)ik* atzizkiari. Burutu ondoko egoe-ra adierazteko, *-ta* atzizkia oinarri denean, *-tako* atzizkia dugu, eta *-ik* erabiltzen denean, berriz, *-iko* edo *-ikako* atzizkiak. Euskararen ohiko eremuaren erdialdean, alde bat nagusi da [partizipio+*-tako*] era perpaus erlatibo jokatu-gabeetan, eta mendebaldean ere maiz baliatzen da: *Iñoi**z** baltzak izandako praka arreak* (Kirikiño); *Eri egondako morroia sendaturik arkitu zuten* (Iraizoz); *Paristik osteria joan-etorria ein ondoren, lagunartean kondatzen ziarduan, an ikusitako aurrerapen azkarrak* (San Martin); *Orduantxe damutu zen Raimundo Silva hartutako erabakiaz* (Alonso); *Etxean umetan ikusitako eszenak inspirazio gisa erabiliz* (Arretxe). Mendebaldean eta ekialdeko erdialdean bereziki, *-ta* atzizkiaren orde, edo hartaz gainera, *-(r)ik* atzizkia erabiltzen baita eskuarki partizipio burutuetan, *-(r)iko* edo *-(r)ikako* formak agertzen dira perpaus erlatibo jokatu-gabeen hondarrean *-ko* erantsi ondoan: *Txiki-txaka txiki-txaka joan zan len esaniko etxe zarreraño* (F. Bilbao); *Bertze aldi batez, non-beitik ethorririkako fraide bat egotu zitzaion begira luzez* (Joanategi); *Peoiek paper gorritz apaindurikako hagatxoak sartzten zizkioten* (Irigoién); *Arnoldo kondea [...], germaniar inperioko hainbat tokitatik etorririko borrokalarien buru egiten zuena* (Alonso).

**31.5.2.1c** Bi moldeok euskalkien arabera banatzen dira bereziki: Bizkaiko aldean eta goi-nafarreran *-iko* forma erabiltzen da (*-tako* eraz gainera, erran dugun bezala), eta *-ikako* forma da nagusi, berriz, ekialdean, Iparraldean eta inguruetan bereziki. Iparraldeko euskalkietan, bestalde, ekialdekoetan bereziki, perpaus erlatibo jokatu-gabeak partizipio burutua hutsik dagoelarik eratzen dira maiz. Ikus ondoko adibideak: *Zaldia hartzen du, eta joan ahala joan badao jin bidetik* (Lafitte); *Lehentxeago Gualaong erregearen kontra han phiztu asaldura baten gatik* (Zerbitzari); *Galtatzen dit parkamentü egin zor güzietaz* (Berzaitz); *Mari Raou odol bilketako zentroko langileak adierazi iritzia senti zitekeen Baionako erietxera hurbildu ziren gehienen artean* (Berria); *Orduan piztu sua etzizaion sekulan hil Piarres Haristoy apezari* (Herria).

Partizipio burutu soilaz eratu erlatiboek gogora ekartzen digute, aditz partizipioek duten adjektibo erabilera (*ardi galdua*, *gorputz ustelduak*, ikus § 14.5),

askotan gramatikariek hain zuzen erlatiboen erabileratik eratorri dutena. Horregatik, hain zuzen, *Euskaltzaindiaren Hiztegian galdu* hitzari ematen zion zazpigarren adieran, honela definitzen da hemen aipatzen dugun kasuari dago-kiona: “Era burutua izenondo gisa”: *ardi galduen gisan*; *zoko galduren batean*; *gazte galdua izan zinelako*.

**31.5.2.1d** *Behar* eta *ahal* modalak ere ager daitezke perpaus erlatibo jokatu-gabeetan, *-ko* postposizio atzizkia harturik. *Behar* modalak osaera garbi, erregularra du, bat bera hizkera guztietan: [partizipio+*behar*+-(e)ko]. *Ez naiz sartuko lagunek egin beharreko lanetan*; *Batteux eta Laharpe omen ziren obeditu beharreko legegile edo lege emaile horiek* (Mitxelena); *Esan beharreko guztiak esan nizkion, hortaz* (A. Agirre); *Ikusi beharreko etxe berriaren irrika* (X. Mendiguren Elizegi); *Iritsiko zitzaion kontuak eman beharreko eguna* (Olarra).

*Ahal*, berriz, aurrean aditzoina duela erabiltzen da ekialdeko euskalkietan: [...] *hek asma ahaleko gozamen guziak* (Hiribarren); *Bil ahalikako ahaide eta adixkide guziak* (Zaldubi); *Handik begi kolpe zorrotz bat emaiten diote ikusi ahalikako bazter guzietan* (Zaldubi). Mendebaldekoetan, berriz, partizipioa ere aurki daiteke: *Muinoa ilun ikusten zen beherantz [...] begiekin ikusi ahaleko guztian* (Biguri). Eta askotan ezin da jakin partizipioa ala aditzoina den *ahalen* ondoan ageri dena: *Argitara emandako konta ahaleko artikuluak bi sailetan sailka daitezke* (Uztaro); *Hegazkinean eramane ahaleko gauzak garraiatu zituzten* (Olasagarre). Berezi emankorra da *ezin* + *ahaleko* egitura, partizipioa ezinen eskuinean nahiz ezkerrean dela (§ 23.4.4b): *Eutsi ezin ahaleko negarra* (Lertxundi); *Ezin esan ahaleko grazia egin bide zion esaerak* (J. A. Arrieta); *Ezin konta ahaleko mina eta hondamena* (Berria); *Iraultza garaiko konta ezin ahaleko idazlanen artetik* (Biguri).

Gauzak horrela izanik, partizipio burutua *-ko* atzizkiarekin edo hutsik ageri duten perpausak kontuan hartuz gero, hiru era nagusi bereizten ahal dira perpaus erlatibo jokatu-gabe arruntan artean: *-tako* perpaus erlatibo jokatu-gabeak; *-ik(ak)o* perpaus erlatibo jokatu-gabeak; partizipio hutseko perpaus erlatibo jokatu-gabeak.

### 31.5.2.2. Zenbait ezaugarri, perpaus erlatibo arrunt guztiei dagozkienak

Perpaus erlatibo arruntek badituzte zenbait ezaugarri berdin agertzen direnak, perpaus erlatiboko adizkia jokatua zein jokatugabea izan. Perpaus erlatibo jokatuak aztertzean azpimarratu ditugu horrelako egituren ezaugarri nabarmen batzuk: a) adizkia bukaeran doa nahitaez; b) sintagma berean metatzen ahal dira, izen-ardatz berari dagozkiola; c) izen ardatzaren ezkerrean agertzen dira gehien-gehienetan, baina ez dute debeku eskuinaldean ere agertzea; d) izen-ardatzik gabe ere era daitezke, determinatzailea zuzenean gehituz.

Komeni da ikustea, laburzki bederen nola gauzatzen diren ezaugarri horiek perpaus erlatibo jokatugabeetan.

**31.5.2.2a** Perpaus erlatibo jokatueta, adizki jokatuak nahitaez beti azken tokian agertu behar du perpaus erlatiboaren barnean (perpaus generikoetan izan ezik, ez baitute segidan izenik). Perpaus erlatibo jokatugabeetan ere berdin gertatzen da, buru den izena atzean denean. Guztiz okerra da bestelako antolaera: [Iaz Pellorekin mendian ibilitako] gizona; \*[Iaz mendian ibilitako Pellorekin] gizona.

**31.5.2.2b** Izen sintagma batean, perpaus erlatibo bat baino gehiago gerta daitezke izen ardatz berari dagozkionak. Horrela gertatzen denean, perpaus erlatiboak juntatuak izan daitezke, edo metatuak. Hala gertatzen da perpaus erlatibo jokatugabeekin ere. *Europaren kultura, berak sortutako nahiz beste-rengandik hartutako gaiez oratua* (Mitxelena). Horrelako juntadura guztiz arruntak dira eta ez dute iruzkin berezirik eskatzen. Halere, seinalatzekoa da nola horrelakoetan lehenbizi heldu den perpaus erlatiboko partizipioa atzizkirik gabe ager daitekeen: *Aiek landu ta ereindako lur artan uzta egitera* (Ir aizoz); *Bereziak ziren zuk erosi eta nik jandako goxokiak*.

Izen berari dagozkion perpaus erlatiboak metatuak ere izan daitezke, gainerako sintagma adjektibalak bezala, izenondoak izan zein izenlagun. Hots, joskeraren aldetik maila berean izateko orde (juntaduretan gertatzen den bezala),

maila desberdinetakoak dira: [*Orok maite dugun*] [*mesede handiak egin dizkigun*] lagun *batek esan du*. Halako metatze egituretan, perpauus jokatuabeak ere erabil daitezke, erlatibo jokatuak eta jokatuabeak sintagma berean erabiliz: [*Ezagutu dodazan*] [*gaztela-mutil izandako*] zarrai *entzuna* (Kirikiño); [*Esku-artean daukadan*] [*argitasunez ongi hornitutako*] liburu *lodi eta trinko honekin* (Mitxelena); [*Zuriz jantzirikako*] [*aurrean zetorren*] galai ura *ea nor zan* (Kardaberaz); [*Gizonek ainbeste aldetara zikindutako*] [*Garonne izena dun*] ibai *artan* (J. A. Irazusta).

**31.5.2.2c** Erlatibo jokatuabeen tokia. Perpauus erlatibo jokatuak, komunzki, laguntzen duten izenaren ezkerraldean agertzen dira, gaurko euskaran bereziki. Berdin gertatzen da perpauus erlatibo jokatuabeekin ere, nahiz ez den hori ezin urratuzko araua. Izan ere, tradizioko testuetan ez dira falta hala-koak, gehienetan *bat* edo erakusle *bat* delarik determinatzailea ISan, bestelako adjektibatze baten ondotik sarritan: Gizon *aberats eta noble, baña* [*oitura galdu eta galgarri guzietara emandako*] *bat* (G. Arrue); *Arratiako hizkera gozoan egina dagoen* liburuxka *polit, jator*, [*mendi usai sarkorrez beterikako*] *hau* (Mitxelena); Gizon *andi, gurgarri*, [*urteakaz makurturiko*] *bat* (Agirre); Pekatu *ilgarri* [*autortu bagako*] *edo* [*txarto autorturiko*] *guztiak* (Iturzaeta). Halako perpauusen hitz ordena, markatua izan arren, guztiz da gramatikala, mota bereko perpauus erlatibo jokatuekin bezala. Tartean beste adjektibatzerik ez dela ere eraten dira halakoak: Elizatxo [*utzitako*] *batian* (Beobide); Argizari [*amatau edo itzalitako*] *bat* (Agirre). Perpauus erlatiboak metatzen direnean ere ageri dira halako eskuineratzeak, ezkerreko metaketa arintzen dutenak: [[[*Ama Birjiñari eskaiñitako*] *San Benitoren alabak*] *iduki zuten*] etxe santu [*utzitako*] *bat* (Beobide). Hots, *etxe abandonatu(tako) bat = abandonatutako etxe bat*.

**31.5.2.2d** Perpauus erlatibo jokatuabeek, jokatuak bezala, izen arruntak izaten dituzte eskuarki ardatz edo buru. Hala ere, sarreran aipatu dugun moduan, ez da debeku berezko erreferente zehatz bakarreko izenekin ere erabiltzea, izen bereziak barne (*aktiba* daitekeen interpretazioa zehaztailearen lehia gorabehera, ikus § 31.3.1): *Yudutar gizalde aundi batek ikasi zuen Yesus an zala, eta yoan ziran, ez Yesusengatik bakarrik, baita* [*onek illen artetik piztutako*]

*Lazaro ikustegatik* (Iraizoz); [*Setan gogortutako*] *Nestorioren kontra Batazararak emandako epai edo sententzia irakurri zanean* (G. Arrue); [*Kalbinoren erakusle izandako*] *Wolmarek zion: gizatxar eta asarrekorra da Kalbino; Hau zela* [zerutik igorririkako] *Apollo* (Inza).

Adibide horietan perpaus erlatibo jokatu gabeek laguntzen dituzten izenak izen bereziak dira. Horrek erakusten du perpaus erlatibo hauek ez dutela nahitaez balio murrizgarria (ikus § 31.3.2).

**31.5.2.2e** Perpaus erlatibo jokatu gabeek laguntzen duten izena batzuetan isildua izan daiteke. Isiltze hori bi modutan gerta daiteke, edo, testuinguruagatik isildua izanik, izen ardatza hor balitz bezala interpretatzen delako, edo interpretazio generikoa (ikus § 31.4.3.13d) ematen zaiolako sintagmari. Bi egoera horiek adierazten dira ondoko adibideetan: *Zuk idatzitako gutunak gustatzen zaizkio Maddiri; ez, ordea, nik egindakoak; Ez ditzaket sinets zuk niri goizean esandakoak*. Lehenbiziko adibidean, argi da, testuinguruak hala eskatzen baitu, *nik egindako* perpaus erlatiboaren ondotik *gutun* izena badela, nahiz, aurretik agertzen den izen hori ez errepikatzeagatik, isildua den, hala nola egiten ohi baita holakoetan. Joskera hori guztiz arrunta da, eta ez du iruzkin berezirik eskatzen. Bigarren adibidea, aldiz, bestelakoa da. Hartan, testuinguruak ez du eskaintzen izenik, *zuk niri goizean esandako* perpaus erlatiboaren ondotik agerraraz daitekeenik. Bizkitartean, oso gardena eta interpretazio garbikoa da perpausa. Orok ulertzen dugu *esan* aditzari berez dagokion objektu zuzenari dagokiola sintagmaren ardatza. Berdin gertatzen da perpaus erlatibo jokatu ekin: *Ez ditzaket sinets goizean esan dizkidazunak*. Halakoei, erlatibo generiko izena ematen diegu. Halako perpausetan, artikulua izaten da determinatzaile, pluraleko edo singularrekoa: *Geroztik berak ikusi ta entzundakoa kondatzen digute* (Iraizoz); *Tzarrer emanikakoa / bethi da urrikitzekoa* (Goihetxe); *Barojak ikusiak, entzunak, eginak, pentsatuak irakurtzen ditugu* (Mitxelena). Erabide generikoa dakarten beste determinazio motak ere kausitzen dira halako perpaus erlatiboetan; besteak beste, zenbatzaile orokorra edo artikulua indeterminatua: *Nere izen onak debekatzen dit* [*entzundako ta ikusitako*] *guzia orri auetan ipintzea* (M. Atxaga); “*Ori, [Noemirekin Moabetik etorritako] bat da*” *erantzun zion* (Lardizabal).

31.5.2.3. *Perpaus erlatibo jokatu gabeen ezaugarri bereziak*

**31.5.2.3a** *Perpaus erlatibo jokatu gabeek badituzte jokatuak ez dituzten berezitasun batzuk, kontuan hartzekoak direnak. Bereziki aipatzekoak ditugu hiru hauek: ezeztatzea, aldi-aspektu murriztapenak eta erlatibatze eskala.*

**31.5.2.3b** *Ezeztatzea.* *Perpaus erlatibo jokatu gabeek jokatuari buruz duten bereizgarri nagusietarik bat da haietan ezezkorik ez ohi dela agertzen. Konpara ditzagun bi perpaus hauek: Zuk atzo egin ez zenuen lana beharko dut gaur nik egin; \*?Zuk atzo ez egindako lana, gaur nik egin beharko dut. Halarik ere, badira literaturan halako ezezko batzuk. Oso gutxi, egia erran, eta aiseago denboran zehazki kokatuak ez diren gertakariak aipatuz: Egundaino ez-ikusitako gauzak zekuskitela (Lardizabal); Aspaldiñ ez ikusitako aberriaren lurra berriro ikustea (J. A. Irazusta); Iñoiz ikusi ditu Nicanorrek bere errian ez ikusitakoak (Erkiaga). Ez dirudi halako adibideetako perpaus erlatiboak, *egundaino* eta *aspaldi* bezalako denborazko adberbioekin eratuak, aurrekoen pare-parean emateko direla. Erlatibo jokatu gabeak dira honako adibide hauetakoak ere: Baita ezikusiak eta ezentzunak ere, ofizialtasunak ez baitu gogoz onartzen sarkinen agerpena (Epaltza); Ohe, esate baterako, Objektu Hegalari Ezidentifikatua da Zakilixutentzat (Arranz). Antzeko beste esapide bat erabiltzen da, batez ere Gizpuzkoaren eta Bizkaiaren arteko mugaren alde bietako hizkera batzuetan, nahiz gaur hedadura zabalagoa erakusten duten adibideek: Sekula ikusi ez tako gauza; Uste ez tako diruak; Aziendarik eta nahi-etzako umerik ez hala ere, oraingoz behintzat (J. L. Zabala); Sekulan bizi ez tako “Heriotza” hunkigarri honi, ez dakit nola deitu (Perurrena). Esan beharra da, halere, bakan agertzen direla horrelako adibideak euskal testuetan. Hitz batean, markatuak dira, eta bazterrekoak tradizio orokorrari begira.*

*Perpaus erlatibo jokatu gabeen ezezkoa adierazteko, gabe adberbioa baliatzen dugu eskuarki (edo aldaerak: *baga, bage*), -ko atzizkia erantsirik, ezkerretik doanean bederen: Iñoiz uztartu gabeko beste ainbeste bigantxa (Ibinagabeitia); Gizonik ezagutu gabeko neskatz garbi eta aurrak baizik, etzan bizirik iñor gelditu (Lardizabal); Ezta inguruetan zalduntxoek isekaz erre ta zauritu*

*gabeko gizonik izaten* (Agirre); *Pekatu ilgarri autortu bagako* (Iturzaeta); *Mutil jator inoiz halako okerrik egin gabe(ko)a*.

**31.5.2.3c** Aldi-aspektu murriztapenak. Erlatibo jokatugabeek, jokatugabeek ez bezala, badituzte aldi edo aspektu murriztapenak. Adibidez, oso desberdina da ondoko bi adibideen egokitasuna, perpaus erlatiboek aipatzen duten bidaltzea ‘bihar’ gertatzekoa baita. Holakoetan, hau da, perpaus erlatiboan aipatzen den gertakariak geroko kokatzen bat duelarik, perpaus jokatua erabiltzea komeni da: *Erantzun berehala*, [nik bihar goizean bidaliko dizudan] mezuari; \**Erantzun berehala*, [nik bihar goizean bidalitako/bidaliriko] mezuari.

Halere, geroari dagokion murriztapen hori ez da erabatekoa, testuetan bestelako jokabidea erakusten duten zenbait adibide berezi aurkitzen baitira. Holakoetan, perpaus erlatibo jokatugabeetan aipatzen diren gertakariak, geroan jazotzekoak izanagatik, gertakari bururatu gisa aurkeztuak dira, ondoko adibidean bezala: *Egidazu zure galdera*, *zoaz etxera eta orduan irakurriko duzu* [nik bidalitako] *erantzuna*; *Ez dizkizut barkatuko* [hemendik aurrera egindako] *bidegabekeriak*. Kontuan izan behar da, halere, azken adibide honetan ez dela zehazten noiz jazotzekoak diren bidegabekeriak, eta adierazpen orokor gisa har daitekeela adibideko perpausa.

Dena den, egoera aditzek (*izan*, *egon*) ematen dute hobekien aditzera aspektuari dagokion murriztapen hori. Izan ere, holako aditz bat perpaus erlatibo jokatugabe batean erabiliz gero, nahitaez aditzak adierazten duen egoera bukatu zela adierazten da. Ondorioz, bada kontraste garbia aditz hori sintetikoan jokatuturik daukaten perpaus erlatibo jokatuekin, hauek bukatu ez den egoera bat aipatzen baitute nahitaez: *Nik ere ezagutzen ditut* [diru asko izandako] *jendeak*; *Nik ere ezagutzen ditut* [diru asko duten] *jendeak*. Bi adibide horiek ez dira baliokideak. Lehenean aditzera ematen da adibidean aipatzen diren jendeak lehenago dirudunak izan zirela, baina ez direla gehiago hala; hots, diru asko izateari dagokion egoera bukatu zela haientzat. Alderantziz, bigarren adibidean, dirudun izateari datxekion egoera ez da bukatutzat ematen.

Berdin gertatzen da beste bi adibide hauetan ere: *Ezagutzen dituzu hemen egonikako haurrak?*; *Ezagutzen dituzu hemen dauden haurrak?* Lehen adibidean



erraten da haurrak ez daudela gehiago hemen; egon direla, bai, baina ez direla gehiago hemen. Hots, aditzak adierazten duen egoera bukatu zela. Bigarren adibidean, berriz, *egon* aditzaren era sintetikoak bukatua ez den egoera adierazten du (haurrak hemen daude). Beraz, aspektu desberdintasun hori dela eta, ezin daitezke bi perpauusak sinonimotzat hartu.

**31.5.2.3d** Erлатibatze eskala. Perpaus erlatibo jokatu gabeetan maiztasun eta erraztasun handiagoarekin agertzen dira absolutiboan diren izen sintagma erlatibatuak; horrelakoak dira orain arte ikusi ditugun adibide gehien-gehienak. Baina bestelako adibideak ere aurkitzen dira literaturan, haietan izen sintagma erlatibatua sintagma ergatiboari baitagokio: *Ez dut gauza onik pentsatzen [gizon batek egindako] lanaz*; *Ez dut gauza onik pentsatzen [hola lanak egindako] gizon ez*. Bi adibide hauetako lehenean *lana* da isilpean utzi den sintagma erlatibatua; bigarrean, berriz, *gizonak (lanak egin)*. Sintagma ergatibo erlatibatua dute beste adibide hauek ere: *Altzan jaiotako bataiatua, bertan bizitzen naizena*, [*len ere zenbait olako festa ikusitako*] *gizona* (Txirrita); *Gurdian zirrara, ordea, amonari prexkia ain ederki jandako nagusia babatean sumindu zitzaion Poliri* (Anabitarte); *Parisen siñismena galdutako gazte bat sartu zan bere ezagun batzuen etxean* (Inza). Alegia. ‘(gizonak) zenbait holako festa ikusi’, ‘(nagusiak) amonari freskoa jan’, ‘gazte batek Parisen siñismena galdu’. Beraz, perpaus erlatibo jokatu gabeei dagokienez, izen sintagma absolutiboak lehentasun garbia du erlatibatzeko erraztasun eskalan; baina izen sintagma ergatiboak ere erlatiba daitezke.

Perpaus erlatibo jokatu etan arazorik gabe erlatiba daitezke datiboan diren sintagma ere (§ 31.4.3.6b), baina askoz zailago gertatzen da sintagma datiboak erlatibatzea perpaus jokatu gabeetan. Adibide gutxi batzuk badira *ahaztu* aditzarekin: *Omen esaten ahaztutako pertsona da sortzailea, besteak beste* (Segurola); [*Betaurrekoak etxean ahaztutako*] *Greenwich Village-ko norbaiten gisan* (Arrula eta Roque); [*Paperak aldi berean ahaztutako*] *aktore-taldea* (I. Mendiguren). Nolanahi ere, adibide horietan guzietan *ahaztu* du aditza dagoela ere pentsa daiteke; eta, beraz, sintagma ergatiboa dela erlatibatua: andreak ilea orraztea ahaztu dute, norbaitek betaurrekoak etxean ahaztu ditu eta abar.

Markatuago dira perpaus erlatibo jokatugabeetako izen sintagma erlatibatuak beste kasuetan agertzeko baldintzak. Adibidez, toki-denborazko kasu batean izan daitezke izen sintagma erlatibatuak; orduan, haatik, izen ardatza bera semantikoki tokiari edo denborari dagokion izena izan behar da, ondoko adibideetan bezala: *Ez dut ahanztekoa [haren hiltzea gertatu] eguna*; *Denek beldur handia zioten [hainbeste istripu gertaturiko] mendiari*; *Emaztea edo senide den beste emakume bat ahalik lasterren joaten da [ezbeharra gertaturiko] lekura eta han horiz margotutako arroza botatzen du* (Iñurrieta); *[Mirari hau egindako] eguna jai eguna zan* (Lardizabal); *Etzuan alperrik galdu [presondegian egondako] denbora luzea* (Oskillaso); *[Ezer aurreratu gabeko] tarteark batzutan luzetxoak ziren* (Mitxelena).

Berdin gertatzen da ondoko adibide hauetan ere, non izena eguraldiaren hiztegiari baitagokio, edo moduari: *Negu-azkena zan, eta [gauetz elurra egindako] eguraldi ustel batean irtetea erabaki zuten* (G. Arrue); *[Amaiak ere egindako] moduan gidariak bere buruari galdetu zion porlanezko pista hartarik joaten ote zen Apezberri etxera* (A. Arana).

### **31.5.3. Korrelaziozko perpaus erlatibo jokatugabeak**

**31.5.3a** Korrelazioz eraturiko egituretan perpaus banatan diren galderazko izenordain bat eta erakusle bat aurrekari-anafora erlazio batean emanak dira, galderazko izenordaina daukan perpausa mendekoa izanik (ikus § 31.2.3, § 31.4.6). Egitura hori erakusten du honako adibide honek: *Zer ere ikhusten baitugu bertzeer egiten, hari jartzen gare* (Hiriart-Urruti). Mendebaldean, *bait-* menderagailuaren orde *-(e)n* erabiltzen da: *Nola egiten dekan, ala izango dek* (Azkue).

**31.5.3b** Baina batzuetan, erretrauetan bereziki, edo eredu horri dagozkion zenbait esapidetan, korrelaziozko egitura hori mendeko perpausetik aditza jokatugabea izanik aurkitzen da: *Zer ikusi, hura ikasi*; *Otsoa non aipa, han gerta* (Oihenart); *Bakoitzak zer erein, huraxe bilduko du* (Elizen arteko Biblia); *Non gogoia, gazteak han du zangoa* (Zerbitzari). Korrelaziozko egitura argia da adi-

bide horietan guzietan, zeren galderako izenordaina eta erakuslea garbiki korrelaturik baitaude. Ohartzekoa da, halaber, adibide horietan guzietan adizki jokaturik ez dela galderazko izenordaina agertzen den ezkerreko perpausuan, edo adizkirik batere ez delako (*non gogoa*), edo forma jokatugabe batean delako, izan dadin aditzoina (*non aipa*) edo partizipio burutua (*zer ikusi*).

**31.5.3c** Bestalde, adibide horietan guztietan mendekotasun erlazio sintaktikoa dago bi perpausen artean; galdera izenordaina eduki arren, ez dira egiazko galderak, ez dira galde perpausak bezala ahoskatzen. Beste batzuetan, aldiz, korrelazioa gerta daiteke alboraturik diren bi perpaus beregainen artean. Holarakoetan, egiazko galdera da lehen perpausa eta galdera gisa ahoskatzen da: *Zuk zer hartuko (duzu)? Nik ere huraxe nahi dut.*

#### 31.5.4. Galderazko izenordaina daukaten perpaus erlatibo jokatugabeak

**31.5.4a** Perpaus erlatibo jokatuak aztertzean, aipatu ditugu galderazko izenordaina eta adizkia subjuntiboko forman duten egitura zaharkituak (ikus § 31.4.7): *Eztut non bil ditzadan neure fruktuak* (Leizarraga). Adizkia jokatua izan ordez jokatugabea denean, aldiz, emankorrek dira gaur ere galderazko izenordaina daramaten erlatiboak: *Ez daukat [non lo egin]*; *Zoroak oro erranik ere, gelditzen da [zer erran]* (Zerbitzari); *Sinestekoa da izan zutela [zertaz mintza]* eremu horretan, *asmaketarik asmaketa ibili gabe* (Mitxelena); *Nai badu ostatua, nai badu kafea, aski du lehenbiziko tabernan sartzea; mai ona topatzen du gogo onarekin, eta ez zaio falta [norekin itzegin]* (A. P. Iturriaga); *Ameriketara bada oraino [non zer ikertu]* (X. Arbelbide). Perpaus hauetan parentesi karratuen artean eman ditugun perpausak, perpaus erlatiboak dira, absolutiboan legokeen izen sintagma baten lekua hartzen dutenak, eta erlatiboaren buru izango litzatekeen izenik gabekoak.

**31.5.4b** Aurreko paragrafoaren hasieran zaharkitutzat eman dugun Leizarragaren adibidea, honela eman dute Bibliaren moldaera gaurkoagoetan: *Ez baitut uzta non jasorik (Elizen arteko Biblia)*; *[Nire uzta non sarturik] ez daukat*

(Itun Berria). Beraz, partitiboa bideratzen duten testuinguruetan (ikus § 18.2.4b) partitiboaren atzizkia har dezake perpaus jokatugabeko aditzak, aipatu bi adibideek erakusten duten bezala. Molde horretakoak dira beste adibide hauek ere: *Orregatik ibilli oizan Oñatiko alderdietan, [...], ezertarako ordurik ez zuala, [non lo egiñik] etzeukala* (Agirre); *Gaiari buruz, ordea, badago [zer esanik]* (Mitxelena). Ezezko testuinguruak dira gehienak, baina Mitxele-naren adibidean baiezko hanpadurazko testuingurua da partitiboa bideratzen duena.

**31.5.4c** Mugatzaile singularrarekin eta zenbait zenbatzailerekin ere erabil daitezke holako erlatiboak: *[Zer jana] eta [zer edana] eman ziguten ontzian, baño jateko gogorik ez* (Anabitarte); *Ez zaitez urreratu nigana / badezu lasaitzeko or [nora joana]* (Etxaniz); *Baneukake [non enplegatua] bost milla duro banitu* (Txirrita); *Errian edozein obra bear dala ere, ez dago ezerren kezkarik iduki bearrik. Badago [zerekin ordaindua]* (Uztapide); *Euskal pentsalarien obretan, badago [non ikasi eta gozatu franko]* (Zapiain); *Alde horretarik ere, badugu [zer ikasi ugari]* (Mitxelena). Adibide horietan guztietan perpaus jokatugabearen bukaeran den partizipio burutuari lotzen zaio determinatzaile singularra edo zenbatzailea, hala nola gertatzen baita izen sintagmetan. Izenlagun eta izenondoak ere ager daitezke mota horretako erlatibo jokatugabeetan; adibide honetan, esaterako erlatiboaz (*behar zuten*) eta zenbatzaileaz (*guzia*) lagundurik ageri da *zer jan* erlatibo jokatugabea: *Faraon'ek berala Joseri atotsi eta esan zion [...] [bear zuten zer jan guzia] berak emango ziela* (Lardizabal).

**31.5.4d** Ez da harritzekoa galderazko izenordaina duten erlatibo jokatugabe batzuk lexikalizatu eta izen bihurtu izana. *Euskaltzaindiaren Hiztegian* honako hauek, behintzat ageri dira: *zeregin, zeresan, zerikusi*.

**31.5.4e** Izenordainak duen kasu markak (kasu marka edo postposizio atzizkiak bideratzen duen paper tematikoak, ikus § 23.3.1b) laguntzen du horrelako perpausak interpretatzen. Goraxeagoko (§ 31.5.4a) perpaus erlatiboen parafrasiak honelako zerbait izango lirateke: *Ez daukat non lo egin > ez daukat lo egiteko lekurik; Izan zuten zertaz mintza > izan zuten gai franko mintzatzeko; Gelditzen da zer erran > gelditzen da errateko gauza anitz; Ez zaio falta no-rekin hitz egin > ez zaio falta hitz egiteko lagunik*. Parafrasi horien bidez izen-

ordaina daukaten perpaus erlatibo jokatu-gabeak nola interpretatzen ditugun irudika dezakegu. Har dezagun lehen adibidea (*ez daukagu non lo egin*); hor ez da *eduki* aditzak eskatzen duen izen sintagma objekturik, agerian bederen. Hain zuzen, *non lo egin* perpausak betetzen du leku hori. Ordea, izen sintagma balitz bezala ulertzen dugu perpaus hori; zehazkiago erranez, *eduki* aditzaren objektu zuzenaren ardatza *leku* balitz bezala interpretatzen dugu, erran nahi baitu semantikoki *non* izenordainari dagokion izen abstraktua balitz bezala. Halaber, *izan zuten zertaz mintza* adibidean komunikazio aditz baten testuinguruan *zertaz* instrumentalak solasgaia adierazten baitu, araberako izena (*gai*) egiten dugu *izan zuten* aditzaren objektu zuzenaren izen ardatza gure interpretazioan. Ber azterketa balia dezakegu, berdin, beste adibideei ematen dizkiegun interpretazioei dagokienaz.

Horrelako egitura bat proposa daiteke perpaus horiek aztertzeko, izen ardatzik gabeko perpaus erlatiboan azterketa baliatuz (ikus § 31.4.3.13): *ez daukat* [[ $\emptyset$ ]<sub>1</sub> [*non*<sub>1</sub> *lo egin*]]. Azalpen modu hau eztabaida daiteke, noski. Uste dugu, halere, atal honetan aztergai ditugun perpausen erabidearen hobeki ulertzera laguntzen duela proposatu egiturak.

**31.5.4f** Halere, izenordainaren kasu markaren eta interpretazioaren arteko harreman hori batzuetan iluntzen da; batez ere, *zertan*, *zeren* eta *zer* izenordaina duten perpausen kasuan. Ikus, adibidez, nola interpretatzen diren ondoko adibide hauek: *Ez dago* [*zertan larritu*] > *ez dago larritzeko arrazoirik*; *Ez duzu* [*zeren urik eman*] > *ez duzu urik emateko arrazoirik edo beharrik*; *Ez dago* [*zer esanik ni ere joan nintzela*] > *ez da ni ere joan nintzela esateko arrazoirik edo beharrik*. Modu bertsuan interpreta daitezke beste hauek ere: *Tirano bakarrari ez dago* [*zertan borroka egin*], *ordea, ez dago* [*zertan hura hil*] (Igerabide); *Ez duzu* [*zertaz kezkatu*] (*Goenkale*); *Ez dago* [*zertan hasi nor gehiagokoan*] (*Mitxelena*); *Ezta* [*zer mintzaturik*] (*Axular*); *Ez dago* [*zeresanik [biziko diradela aingeruak bezala Don Jose eta andra Joseparen konpañian]*] (*Apaolaza*). Baina *zertan* eta *zeren* ez baitira erabiltzen, ez komunzki behintzat, kausaz edo arrazoiak galde egiteko, galdera izenordainaren eta parafrasiaren arteko korrespondentzia ez da hain argia. Bestalde, hemen eman ditugun adibideetan, *zer* izenordainak, *zertan* edo *zeren* izenordainen balioa du.

Esan gabe doa, halere, *zer* izenordaina duten perpaus jokatu gabe guztiek ez dutela interpretazio bera. Izan ere, *zer* izenordaina usaian ohi doakion balioa-ekin ager daiteke holako perpaus jokatu gabeetan. Ohiko balioa du adibide hauetan: *Ta bijozeko anditasunian, mundu guztiari, [zer pentsau], ta [zer ikasi] emon eutsana* (Frai Bartolome); *Ez dago [zer esan, zer kanta modubak kantau oi diran orduban, nundik nora ibiltzen diren, ta ze lagun modu]* (J. J. Mogel); *Bazela han [zer ikus] eta [zer ikas]!* (Karrika); (*Daukagu bertzalde liburu hori ez dela ikasle gaztetzat eginga bakarrik*;) *jende larri eta adinekoek hor izanen dutela [zer kausi] eta [zer bil] ahantziak dituztenen berriz gogoan hartzeko edo ez dakitenaren ikasteko* (Gaxitegi eta Agerre). Argi da *zer* esan nahi duen azken adibide honek. Idazleak dio jende larriek ere izanen dutela aipatzen den liburuan anitz guza kausitzeko eta biltzeko, ahantzi zituztenak, edo sekula ikasi ez zituztenak. Hots, *zer* izenordaina objektutzat harturik ulertzen da perpausa. Ohiko balioa du hurrengo puntuan ikusiko ditugun beste adibide batzuetan ere: *zer erantzun, zer ikasi*.

Ezezko ingurumenetan ere zilegi da *zer*, ohi bezala, objektu zuzen gisa erabiltzea. Hona hemen hiru adibide, bi adibide *jan* aditzarekin eta beste bat *edan* aditzarekin: *Emazu aintzina, zaren bezalakoa, eta gero, zathorzkigula, komentuko athera, gosea zarela, eztuzula [zer jan]* (Joanategi); *Erregek ere ez lukete [zer jan], laboraririk ez balitz* (Almanaka); *Topa egin zioten elkarri, bandaren touchéa, ez dugu [zer edanik], ez dugu [zer edanik]* (An. Garikano); *Altxatuko litzateke, baina ez du [zer janztekorik] gabardinaz aparte* (Saizarbitoria). Lau adibideetan *zer* izenordaina *jan*, *edan* eta *jantzi* aditzen objektu zuzen gisa interpretatua da, hurrenez hurren. Beste adibide hauetan, ordea, ezezko ingurumenean delarik, *zergatik* izenordainaren baliokide gisa hartu behar da: *Eztuzu beraz [zer erran eskuararen hitzak falta direla]* (Etxeberri Sarakoa); *Ezta [zer eska gari zuharrari]* (Oihenart).

**31.5.4g** Azpimarratzekoa da, haatik, galderazko izenordaina duten erlatibo jokatu gabeak ez direla izen sintagma absolutiboa eskatzen duten aditz guztiekin erabiltzen. Existentzia edo posesioa adierazten duten aditzekin erabiltzen dira (*izan, egon, falta izan, ukan, eduki*), baina baita beste aditz batzuekin ere (*gelditu, aurkitu, bilatu, eman, utzi*...): *Zarrak beti dauka [zer erantzun], gaz-*

*teak [zer ikasi] (Agirre); Imini dabee euren uste guztia zeruko ondasunetan ta itxi deutseez ondorengo ezkondu guztiai [zer ikasi] ta [nori jarraitu] (Frai Bartolome); Nahi badu argitu eta orotan trebatu, badu laborariak [zeri ohar] eta [non zer ikas] (Gaxitegi eta Agerre); Unamunoren pasarteak [zer pentsatua] eman zidan (Berria, Uribe); Ez dago [zer eskerturik] (Goenkale); Beti dago [zer egina], beti dago [zeri bultza] (Argia, M. Amuriza). Baina, \*Erosi dut [lanera nola joan]. Erosi bezalako aditzek objektu zuzen gisa izen sintagma absolutiboak hartzen dituzte. Are gehiago, semantikoki posesioarekin zer-bait ikustekorik duen adiera bat dute. Halere, ez dirudi haiekin galderazko izenordaina duten perpaus erlatibo jokatu-gaberik erabil daitekeen. Beraz, franko mugatua da holako perpausak onartzen dituzten aditzen zerrenda.*

**31.5.4h** Galderazko izenordaina duten perpaus erlatibo jokatu-gabeetako adizkiari doakionez, maiz gertatzen den bezala, bi moldetan ager daiteke testuetan: edo partizipio burutuaren forman (hala ageri da mendebaldeko euskalkietako testuetan) edo aditzoinaren forman (batez ere ekialdean): *Ikusten duzuen bezala, bai Angleterrak, bai Frantziak badute oraino [hatsa nondik har ausarki] (J. Etxepare); Nahi badu orotaz argitu eta orotan trebatu, badu laborariak [zeri ohar] eta [non zer ikas] (Gaxitegi eta Agerre); Berrogeitamar urte luzetan zu baiziñan lendabizi / orain gazte maiteak badaukate [non ikasi] (Basarri); Begien aurrean daukagu [...] baldin [nork lagundu] ez badute, gelditu bearko dutela betiko urrikarri (Iztueta). Kontuan har aditzoina delarik adizkiaren forma, perpaus erlatibo jokatu-gabea determinatzaile-rik gabea izango dela, nahitaezkoa baita partizipio burutua determinatzailea hartzeko (§ 31.5.4c).*

**31.5.4i** Begien bistakoa da galdera izenordaina duten erlatibo jokatu-gabe hauek eite handia dutela batzuetan zehar-galdera jokatu-gabeekin (§ 30.8.3). Har ditzagun honako perpaus bikoteak: *Badakit [zertaz hitz egin] / Badaukate [zertaz hitz egin]; Badakit [zer jan] / Badaukagu [zer jan]*. Nahiz arras hurbil iduri duten bikote horietako egiturek, bikote bakoitzeko lehen perpausa zehar-galdera da, mota horretako osagarria eskatzen duen aditz batekin (*jakin*) erabilia. Bigarrena, berriz, ardatzik gabeko perpaus erlatiboa da, posesioa adierazten duen aditz batekin (*eduki*) erabilia.

Bi ezaugarrik desberdintzen ditu mota bateko eta besteko egiturak. Batetik, kontrol egitura izateak edo ez izateak (ikus § 30.2.5); bestetik, partitibo atzizkia hartu ahal izateak. Ikus ezagun honako bi adibide hauen arteko kontrastea: \**Badakit* [nork egin] / *Badaukat* [nork egin]. Bi adibide horietatik lehena zehar-galdera izanik, kontrol egitura bati dagokio eta ez da zilegi mendeko perpausean subjektua horrela agertzea (ikus § 30.8.3b). Aitzitik, bigarrena ongi eratua da; mendeko perpausa ez da kontrol egitura batean sartua, eta, beraz, subjektua ager daiteke. Kontraste bera ikus dezakegu beste adibide hauetan ere (zehar-galdera lehena, erlatibo jokatu gabea bigarrena): \**Badakit* [nork eraman] / *Badaukagu* [nork eraman].

Zehar-galderek, bestalde, ezin dute partitibo marka hartu; erlatibo jokatu gabeek, bai. Kontraste hori erakusten dute adibide hauek: \**Ez dakigu* [nora joan]ik / *Ez daukagu* [nora joan]ik. Partitibo atzizkia daramaten perpaus erlatibo jokatu gabeen adibideak ikusi ditugu aurreko puntuetan (§ 31.5.4b, g).



## 32. Konparazio perpausak

---

### 32.0. Sarrera

- 32.1. **Ohiko ereduko konparazio perpausak**; 32.1.1. Konparazio perpausen egitekoa eta motak; 32.1.2. Konparazio egituraren osagaiak; 32.1.2.1. Konparazio terminoa, gaia eta morfema; 32.1.2.2. Konparazioaren terminoak; 32.1.2.3. Konparazio gaia edo ardatza; 32.1.2.4. Konparazio terminoak osagai bat baino gehiago; 32.1.2.5. Konparazio morfemak; 32.1.2.6. Osagaiak isilik; 32.1.2.7. Juntadurara irekiak; 32.1.3. Konparazio perpausen egitura sintaktikoa; 32.1.3.1. Konparazio sintagmak sinpleak edo konplexuak; 32.1.3.2. Sintagmak isildurik; 32.1.3.3. Konparazio perpausak beste bat mendea; 32.1.3.4. Zer isiltzen den; 32.1.3.5. *-n* eta *-na* menderagailuak
- 32.2. **Berdintasunezko konparazioa**; 32.2.1. Maila alderatzen duten berdintasunezko perpausak; 32.2.1.1. *Bezain* morfema; 32.2.1.2. *Bezain* morfemaren ezkerreko osagaia; 32.2.1.3. Bestelako kasu batzuk; 32.2.2. Zenbatekoa alderatzen duten berdintasunezko perpausak; 32.2.2.1. Berdintasunezko morfemak; 32.2.2.2. Konparazioaren beste xehetasun batzuk
- 32.3. **Desberdintasunezko konparazio perpausak**; 32.3.1. Maila alderatzen duten desberdintasunezko perpausak; 32.3.1.1. Morfema; 32.3.1.2. Beste konparazio mota batzuk; 32.3.2. Zenbatekoa alderatzen duten desberdintasunezko perpausak; 32.3.2.1. Morfema eta kokapena; 32.3.2.2. Zenbatekoa adierazten dutenak; 32.3.3. Adiera superlatiboko konparazioak
- 32.4. **Parekotasunezko konparazio perpausak**; 32.4.1. *Bezala/legez* morfemekin eginiko parekotasunezko perpausak; 32.4.2. *Bezalako/legezko* formekin eginiko parekotasunezko perpausak; 32.4.3. *Bezala/legez* morfemak alde-raketaz bestelako erabileretan

- 32.5. Eredu erromanikoko konparazio perpausak. Egitura eta motak
  - 32.6. [*Hain ... nola*] gisako alderaketa; 32.6.1. Alderaketaren osagaiak eta egitura; 32.6.2. Mailaren alderaketa; 32.6.3. Zenbatekoaren alderaketa
  - 32.7. [*Hainbat ... zenbat*] gisako korrelazioak; 32.7.1. Mailaren alderaketa; 32.7.2. Zenbatekoaren alderaketa
  - 32.8. Konparazio proportzionala eta progresiboa; 32.8.1. Konparazio proportzionala; 32.8.2. Konparazio progresiboa
  - 32.9. Parekotasunezko korrelazioak
  - 32.10. Egitura superlatiboak eta gehiegizkoa adierazten dutenak; 32.10.1. Egitura superlatiboak; 32.10.1.1. Zer alderatzen duten superlatiboek; 32.10.1.2. Egitura superlatiboa izenarekin eta adjektiboarekin; 32.10.1.3. Zenbatekoarekin; 32.10.1.4. Konplementu mugatzailea; 32.10.2. Gehiegizkoa adierazten duten egiturak
- 

## 32.0. Sarrera

Konparazio perpausak eta oinarrian konparazioa duten beste egitura batzuk aztertuko dira kapitulu honetan. Lehenbiziko partean, ohiko ereduko konparazio perpausak aztertuko dira, hau da, *zu baino handiago*, *zu bezain handi* eta *zu bezala* gisakoak; haien azalpen orokorra emango da aurrena (§ 32.1), eta eredu horretako perpaus motak aztertuko dira gero, banan-banan (§ 32.2, § 32.4). Hurrengo ataletan, eredu erromanikoko perpausak ikusiko dira, hots, *hain ... nola* eta *zenbat ... hainbat* gisakoak (§ 32.5, § 32.7), konparazio proportzionala eta progresiboa (§ 32.8) eta *hala ... nola* gisakoak (§ 32.9). Azken atalean egitura superlatiboak eta gehiegizkoa adierazten dutenak aztertuko dira (§ 32.10).

### 32.1. Ohiko ereduko konparazio perpausak

#### 32.1.1. Konparazio perpausen egitekoa eta motak

**32.1.1a** Konparazio perpaussek elementu biren arteko alderaketa ematen dute aditzera. Alderaketa hori bi motatakoa izan daiteke. Perpaus batzuek konparazio

kuantitatiboa bideratzen dute, izen-aditzen zenbatekoari edo adjektibo-adberbioen mailari dagokiena. Hala, esate baterako, *Aurten iaz adina euri egin du* esaldiak bi urtetako euriaren zenbatekoa erkatzen du; *Gazteak helduak bezain trebeak dira* esaldiak, berriz, gizatalde biren trebetasun maila alderatzen du. Beste perpaus batzuek alderatutako elementuen kantitateari ez, baina haien egoerari, jardunari edo izaerari dagokien parekotasuna ematen dute aditzera; *Profesionalek bezala prestatzen ditugu partidak* esaldiak gizatalde biren partida prestaerak parekatzen ditu, prestaera horien izaerak edo moduak bat datozela adieraziz<sup>1</sup>.

Konparazio kuantitatiboa bideratzen duten perpausak kuantifikatzaileen zeregina betetzen dute, mailakatzaille edo zenbatzaille arruntek bezala, ondoko adibide pareek erakusten duten moduan. Mailakatzaillearen zeregina betetzen dute batzuek, adjektibo edo adberbio sintagmaren barnean: ([Hain langile trebeak] ez ditut inon ikusi — [Zuek bezain langile trebeak] ez ditut inon ikusi; [Oso ondo] bizi da — [Gu bezain ondo] bizi da). Zenbatzaillearen egitekoa betetzen dute beste batzuek, izen sintagmaren barnean (*Aurten [euri asko] egin du* — *Aurten [iaz adina euri] egin du*), edo aditzarekin doan adberbio sintagma eratuz ([Askok] gustatzen zait futbola — [Pilota adina] gustatzen zait futbola). Kuantifikatzaile konparatiboak dira, bada, perpaus hauetako konparazio morfemak (*bezain*, *adina*), hau da, bere edukia konparazio baten bidez adierazten duten zenbatzailleak edo mailakatzailleak.

Parekotasuna adierazten duten perpausak, berriz, adberbio sintagma eratzen dute ([Kontu handiz] prestatzen ditugu partidak — [Profesionalek bezala] prestatzen ditugu partidak).

**32.1.1b** Konparazio kuantitatiboak, bestalde, zenbateko-mailen berdintasuna edo desberdintasuna eman dezake aditzera. *Adina* edo *bezain* gisako kuantifikatzaileekin eginiko perpausak berdintasunezko konparazioa bideratzen dute, alderatutakoak bat datozela adieraziz, zenbatekoan (*Aurten iaz adina*

<sup>1</sup> Perpausen bidez eginiko alderaketa hauek sintaxiari dagozkio. Bestelako alderaketa batzuek, berriz, baliabide lexikalez egiten dira (*Zure etxea eta nirea berdinak dira*; *Auzo honetako etxe guztiek egitura bera dute*; *Antz handia duzue zuek biok*).

*euri egin du; Futbola adina gustatzen zaiu pilota)* edo mailan (*Aberatsek bezain ederki jantzia dago; Gazteak helduak bezain trebeak dira*). Baino ...-ago kuantifikatzailea daramatenek, berriz, desberdintasunezko konparazioa bideratzen dute, konparatutako elementuetako baten zenbatekoa edo maila bestearena baino ‘areagokoa’ dela adierazten baitute (*Aurten iaz baino euri gehiago egin du; Gazteak helduak baino ausartagoak dira*).

Zenbatekoaren desberdintasuna *gehiago* eta *gutxiago* zenbatzaileek ematen dute aditzera, izen-aditzei dagokien gehiagotasuna edo gutxiagotasuna seinatuz: *diru {gehiago ~ gutxiago}; {gehiago ~ gutxiago} gustatu*.

Mailari dagokion desberdintasuna, berriz, zuzenean ematen du aditzera adjektibo-adberbioei atxikitako -ago mailakatazaileak; *handiago* esaten da ‘handiaren’ gehiagotasuna adierazteko, ez \**gehiago handi*, eta *txikiago*, ‘txikiaren’ gehiagotasuna adierazteko, ez \**gehiago txiki*. Maila-gutxiagotasuna adierazteko, berriz, ez du euskarak morfemarik, eta \**gutxiago handi* edo \**gutxiago txiki* gisakorik ere ez da erabiltzen, ohiko jardueran bederen. Gutxiagotasun hau adierazteko berdintasuna ukatzen da zenbaitetan eta antonimoaren areagotasuna seinatzen beste batzuetan. Hala, etxe bat beste bat baino ‘gutxiago garestia’ dela adierazteko, *Etxe hau ez da bestea bezain garestia* edo *Etxe hau bestea baino merkeagoa da* esan daiteke. Bigarren aukera hau ez da, ordea, beti egokia: gutzituz pobre diren pertsona biri buruz ez du zentzurik bat ‘bestea baino aberatsagoa’ dela esateak.

Zehaztasunaren izenean, hala ere, erabiltzen dira inoiz *gutxiago handi* gisa-koak, batez ere zientziazko gaietan, eta hala erabili izan dira zenbaitetan tradizioan ere, itzulpenetan batik bat: *Espiritua izanen duzu irekiago, gutxiago nahasia eta freskoago* (Pouvreau); *Ez da horregatik gutxiago bitxia, hala ere, lerro zuzena ia batere ez agertzea animalien arkitekturan eta izadiarenean oro har* (Juan Garzia). Arazo honen aurrean gomendioren bat eman behar baltiz, hau izango litzateke: modu mugatuan erabiltzea horrelako esamoldeak, zehaztasuna beste bideren batetik nekez salba daitekeenean baizik ez, alegia.

**32.1.1c** Berdintasunezkoa izan nahiz desberdintasunezkoa izan, konparazio kuantitatiboan elementu biren ‘zenbatekoa’ edo ‘maila’ alderatzen da, esan be-


zala, ez elementu haien izaera osoa. *Pekin Paris baino handiagoa da* diogunean, esate baterako, hiri bi horien tamaina erkatzen dugu, ez haien gainerako ezaugarriak. Eta *Kimika Fisika bezain zaila da* diogunean, jakintza mota biek zailtasun maila bera dutela esaten dugu, haien beste ezaugarriak alderatu gabe. Hortaz, perpaus hauetan erabiltzen diren adjektiboak eta adberbioak mailakatzeari onartzen dutenak dira. Mailaren adierazpenari biderik ematen ez diotenek ez dute konparazioan lekurik; hala gertatzen da, esate baterako, erlaziozko adjektiboekin —*?zibilago, ?bezain judizial*— eta *atzo* bezalako denbora-adberbio deiktikoekin —*\*atzoago*—; hauekin ez da konparazio perpausik eratzten, erabilera berezietan ez bada (§ 11.1b, § 14.2p, § 22.1.5).

Kontuan hartzekoa da, halaber, konparazio perpausak ez duela berez alderatutako elementuen neurri zehatzen berri ematen, neurrien arteko alderaketa adieraztera mugatzen baita. Hala, goiko adibidean, perpausak ez digu Pekin eta Paris hirien tamaina zein den esaten, bien tamainen artean zer erlazio dagoen baizik. Eta, bigarren adibidean, ez da esaten zenbateraino zail diren Fisika eta Kimika, biek zailtasun maila bera dutela baizik. Eta, orobat, desberdintasuna adierazten duten perpausetan ez da berez elementu bien arteko aldea zenbatekoa den esaten. Goiko lehen adibidean, esate baterako, ez da esaten zenbatez handiago den Pekin Paris baino. Alde horren berri diferentzia adierazleen bidez erants daiteke: *askoz handiago*; *handixeago*; *bi aldiz handiago*; *bi metro luzeago*; *Etxe hura beste hau halako bi da*. Baina, adierazle horiek gabe konparazio perpausak ez du berez ez neurrien ez aldearen berri ematen.

**32.1.1d** Parekotasunezko alderaketa bideratzeko, azkenik, *bezala* adberbio konparatiboa erabiltzen da —*legez, bizkaieraz*—. *Guk utzi genuen bezala dago etxea* esaldiak, esate baterako, etxearen egoera bi parekatzen ditu, utzitakoa eta oraingoa. Bistakoa denez, konparazio mota honetan ez dago berdintasun-desberdintasun bereizketarik, parekotasuna baita aditzera ematen dena. Parekotasuna, hori bai, baieztatu edo ezeztatu egin daiteke: *Etxea ez dago guk utzi genuen bezala* esaldia goikoaren ezezkoa da, baina betiere parekotasunari dagokiolarik<sup>2</sup>.

<sup>2</sup> EGLUn perpaus hauek ‘moduzko konparaziozko’ izendatzen dira. Egokiago dirudi, hala ere, ‘parekotasunezko konparazioaz’ mintzatzea. Izan ere, balio kuantitatiboak erkatzen

**32.1.1e** Laburtuz, bada, konparazio perpausak:



## 32.1.2. Konparazio egituraren osagaiak

### 32.1.2.1. Konparazio terminoa, gaia eta morfema

**32.1.2.1a** Konparazio kuantitatiboan elementu hauek bereiz daitezke: a) konparazioaren termino biak, lehena eta erreferentziazkoa; b) konparatzen den gaia, eta c) elementu horiek lotzen dituen morfema konparatiboa (*bezain*, *adina*, *baino ...-ago*).

**32.1.2.1b** Aurrerago ikusiko den moduan, elementu horiek konbinatuta egitura mota bi eratzen dira:

- Maizenik eratzen den egituran termino biak daude batetik, eta haiei dagokien konparazio gaia bestetik. *Nire etxea zurea bezain handia da* esaldian, adibidez, ‘nire etxea’ eta ‘zurea’ dira konparatzen diren termino biak —‘nire etxea’ lehena eta ‘zurea’ erreferentziazkoa—, eta haiei dagokien ‘handitasun maila’ da konparazio gaia; ‘nire etxearen handitasun maila’ eta ‘zure etxearen handitasun maila’ konparatzen dira.

---

dituzten batzuk ere izan daitezke moduzkoak (*Zuk bezain ongi egin dut nik azterketa*); moduarekin zerikusia duen ezaugarri baten maila erkatzen dute horrelakoek. Parekotasunezkoek, berriz, moduari dagokion izaera bera konparatzen dute, elementu biren modu-izaerak parez pare jarritz. De Rijkek *Comparatives of Similarity* deitzen ditu (2008: 699).

- Terminoak berak izan daitezke, ordea, konparazio gaia. Hala, esate baterako, *Liburu hori lodia bezain aspergarria da* esaldian ‘lodia’ eta ‘aspergarria’ dira konparazio termino biak —‘aspergarria’ lehena eta ‘lodia’ erreferentziazkoa—, eta, aldi berean, horiek seinatzen dituzte konparatzen diren gaiak; ‘liburuaren aspergarritasun maila’ eta ‘liburuaren loditasun maila’ konparatzen dira.

### 32.1.2.2. Konparazioaren terminoak

**32.1.2.2a** Konparazioaren termino esaldiko perpausen subjektuak, objektuak, konplementu adberbialak eta are aditzak berak edota predikatuak izan daitezke. Ondoko adibideetan azpimarra jarraitua dutenak dira konparazioaren lehen terminoa eta puntuzko azpimarra dutenak bigarrena, erreferentziazkoa:

*Zurea bezain handia da nire etxea*

*Zuek baino opor luzeagoak egin ditugu aurten (guk)*

*Janaria adina zaindu behar dugu edaria*

*Lehenari adinako saria eman diote bigarrenari*

*Zuekin baino opor luzeagoak egin ditugu aurten haurrekin*

*Iaz baino opor luzeagoak egin ditugu haurrekin aurten*

...

*Marrazki horrekin, gela apaindu baino gehiago zikindu egin duzue*

*Liburu hori lodia bezain aspergarria da*

*Erabilgarria bezain garestia da telefonoa*

*Mutiko baino neska gehiago sortzen da*

**32.1.2.2b** Adibideetan ikusten den moduan, konparazioaren bigarren terminoak paralelotasun kontzeptuala eta funtzionala du lehen terminoarekin (*nire etxea* — *zurea*; *guk* — *zuek*; *edaria* — *janaria*; *bigarrenari* — *lehenari*; *haurrekin* — *zuekin*; *aurten* — *iaz*; *zikindu* — *apaindu*; *aspergarria* — *lodia*; *garestia* — *erabilgarria*; *neska* — *mutiko*). Kategoriari dagokionez ere maiz

paraleloak dira termino biak, baina ez beti (*Lehenago lagunekin baino zuzenago dabil orain*).

Terminoak osagai bat baino gehiago dituztenak ere izan daitezke (*Zuek kalean baino lasaiago bizi naiz ni mendian; Nik bihotzean atsegin dudana adina ur ez dauka itsasoak*).

### 32.1.2.3. Konparazio gaia edo ardatza

**32.1.2.3a** Konparazio gaia zein den kuantifikatzailearekin doan osagaiak seinatzen du funtsean; osagai hori da konparazioaren ardatz edo oinarria. *Nire etxea zurea baino handiagoa da* adibidean, *handi* da konparazioaren ardatza, *-ago* mailakatzailarekin doana, eta berak seinatzen du zein den konparazioaren gaia, ‘etxeen handitasun maila’, alegia.

Termino biak eta konparazioaren ardatza desberdinak direnean, ardatzak seinatzen duen konparazio gaia termino bietan duen maila edo zenbatekoa alderatzen da. Goiko adibidean, esan bezala, *handi* da konparazioaren ardatza, eta, hortaz, termino bien ‘handitasun maila’ da alderatzen dena, esan bezala: [nire etxearen *handitasun maila* <-> zure etxearen *handitasun maila*]. Adjektiboa izenarekin doanean ere hura izan daiteke konparazioaren ardatza: *Zurea bezain etxe dotorean bizi naiz ni* esaldian ‘ni bizi naizen etxea’ eta ‘zure etxea’ dira konparazioaren termino biak eta *dotore* konparagai edo ardatza: [ni bizi naizen etxearen *dotoretasun maila* <-> zure etxearen *dotoretasun maila*]. Gauza bera dugu *Zure ikastetxean baino irakasle gehiago dago nirean* esaldian ere; ‘nire ikastetxea’ eta ‘zurea’ dira konparazioaren terminoak, eta *irakasle* konparazioaren ardatza —*gehiago*-rekin doana—; termino bien ‘irakasle kopurua’ da, hortaz, alderatzen dena: [nire ikastetxeko *irakasle kopurua* <-> zure ikastetxeko *irakasle kopurua*].

**32.1.2.3b** Konparazioaren ardatza lehen terminoa bera denean, berriz, terminoak berak dira konparazio gai. Gorago aipatutako *Liburu hori lodia bezain aspergarria da* esaldian, *aspergarria* da lehen termino eta aldi berean konparazioaren ardatza, *bezain* morfemarekin doana eta konparazio gaia sei-



nalatzen duena; kasu honetan, ‘aspergarritasun maila’ beste ezaugarri baten mailarekin konparatzen da, erreferentziazko terminoak aipatzen duen ‘loditasun mailarekin’, hain zuzen ere: [liburuaren *aspergarritasun maila* <-> liburuaren *loditasun maila*]. Gauza bera dugu *Zure ikastetxean maisu baino maistra gehiago dago* esaldian; ‘maistra’ eta ‘maisu’ dira konparazioaren terminoak, erreferentziazkoa hau eta lehen terminoa hura; aldi berean, ordea, *maistra* da konparazioaren ardatza ere, *gehiago* zenbatzailearekin doana eta konparazioaren gaia seinalatzen duena; ‘maistren kopurua’ beste objektu baten kopuruarekin alderatzen da, erreferentziazko terminoak seinalatzen duenarekin, hots, ‘maisuen kopuruarekin’: [zure ikastetxeko *maistren kopurua* <-> zure ikastetxeko *maisuen kopurua*]<sup>3</sup>.

**32.1.2.3c** Hori dela eta, konparazioaren gaia zein den zehatz jakiteko, hau da, ardatza zerekin konparatzen den jakiteko, ardatzaz gain konparazioaren terminoak ere kontuan izan behar dira. Demagun, adibidez, *Liburu gehiago irakurtzen ditut* esaldia; ‘liburu’ da esaldi horretan konparazioaren ardatza, eta, hortaz, ‘liburu kopurua’ beste zerbaitekin konparatzen dela argi dago. Zerekin, ordea? Esaldiak *zuk baino* edo horren antzekoren bat baldin badu segida —*Liburu gehiago irakurtzen ditut zuk baino*—, lehenbiziko egitura motakoa da; liburu kopuruaren artekoa da alderaketa, [nik irakurritako *liburuaren kopurua* <-> zuk irakurritako *liburuaren kopurua*]. Esaldia *aldizkari baino* gisakoren baten osatzen badu, berriz —*Aldizkari baino liburu gehiago irakurtzen ditut*—, bigarren motakoa da; liburuaren kopurua aldizkariaren kopuruarekin alderatzen da [nik irakurritako *liburuaren kopurua* <-> nik irakurritako *aldizkariaren kopurua*]. Era berean, *Gaztetan baino amets gehiago egiten dut orain* esaldian ‘amets’ da konparazioaren ardatza eta elementu biren ametsen kopuruak konparatzen dira [oraingo *amets kopurua* <-> gaztetako *amets kopurua*], baina *Diru baino amets gehiago zuen agureak* esaldian, konparazioaren ardatza ‘amets’ izanik ere, ez dira elementu biren amets kopuruak erkatzen, agurearen

<sup>3</sup> “Comparativas de núcleo coincidente con el primer término de la comparación” izendatzen ditu horrelakoak RAEren *Manualak* (2010: 862); “núcleo de la construcción comparativa” da, gramatika horretan, geurean ‘konparazioaren ardatz’ duguna.

ametsen kopurua eta diru kantitatea baizik [agurearen *amets kopurua* <-> agurrearen *diru kantitatea*].

#### 32.1.2.4. Konparazio terminoak osagai bat baino gehiago

**32.1.2.4a** Alderaketa mota biak molda daitezke, bestalde, konparazio terminoek osagai bat baino gehiago dutenean ere. *Zuek kalean baino lasaiago bizi naiz ni mendian* esaldian, adibidez, ‘zuek kalean’ eta ‘ni mendian’ dira konparazioaren terminoak, eta ‘lasai’ ardatza (*lasaiago*). Hortaz, termino bietako ‘lasaitasun maila’ konparatzen da [nik mendian dudana *lasaitasun maila* <-> zuek kalean duzuen *lasaitasun maila*]:

- lehen terminoa: *ni mendian*
- erreferentziazko terminoa: *zuek kalean*
- konparazioaren ardatza: *lasai*
- konparazio gaia: *lasaitasun maila*

*Zaharrak erosoak bezain nekagarriak gertatzen dira bide berriak* (Mitxelena) esaldian, berriz, ‘bide berri nekagarriak’ eta ‘bide zahar erosoak’ dira konparazioaren terminoak, eta ‘nekagarriak’ ardatza lehen terminoaren barnean da. Ardatzak aipatzen duen ‘nekagarritasun’ maila erreferentziazko terminoak aipatzen duen ‘erosotasunaren’ mailarekin erkatzen da: [bide berrien *nekagarritasun maila* <-> bide zaharren *erosotasun maila*]:

- lehen terminoa: *bide berri nekagarriak*
- erreferentziazko terminoa: *bide zahar erosoak*
- konparazioaren ardatza: *nekagarri*
- konparazio gaia: *nekagarritasun maila* eta *erosotasun maila*

**32.1.2.4b** Adberbio sintagma eratzen duen *adina* morfema daramaten esaldietan morfemaren beraren barnean da konparazioaren ardatza, aditzak adie-

razten duenaren zenbatekoa baita alderatzen dena. Hala, esate baterako, *Zuk adina dakigu* esaldian [zuk dakizunaren *zenbatekoa* <-> guk dakigunaren *zenbatekoa*] alderaketa dago.

Kontuan izan behar da konparazioa osatzen duten elementuez ari garela hemen, ez perpausen sintaxiari dagozkion osagaiez. Hala, *handi* adjektiboa konparazioaren ‘ardatza’ dela esaten denean, konparazio gaia seinalatzen duela esan nahi da —etxeen ‘handitasun maila’ konparatzen dela, alegia—, ez egitura sintaktiko baten ardatza dela.

### 32.1.2.5. Konparazio morfemak

**32.1.2.5a** Morfema konparatiboa, azkenik, mota diferentekoa da desberdintasunezko eta berdintasunezko konparazioan. Desberdintasunezkoan zati bi ditu morfemak: mailakatzaila (-ago) eta konparazio morfema (baino). Zati bakoitza dagokion elementuarekin doa: konparazioaren ardatzarekin mailakatzaila, eta erreferentziazko terminoarekin konparazio morfema. *Nire etxea zurea baino handiagoa da* adibidean, esate baterako, handiago dugu batetik eta zurea baino bestetik. Lehenbizikoak multzo kuantitatibo-konparatiboa eratzen du (*handiago*), eta bigarrenak haren osagarri den konparazio sintagma (zurea baino); multzo kuantitatiboaren osagarria da multzo hau, ‘handiago’ izateak ‘*beste zerbait baino handiago*’ izatea eskatzen baitu.

**32.1.2.5b** Berdintasunezko morfemak diferenteak dira horretan, lotuta eta elkarrekin urtuta bezala ageri baitira haietan ‘zati biak’, kuantifikatzailea eta konparazio morfema. Maila adierazten duten perpausetan *bezain* da aldi berean kuantifikatzaile eta osagarriaren bideratzaile dena. Pentsa daiteke *baino ...-ago* morfemaren pare hemen *bez ...-(h)ain* formak ditugula (*zurea bezain handia* multzoan, esate baterako, *-hain handia* izango litzateke multzo kuantitatiboa eta *zurea bez-* konparazio sintagma), baina morfema biak batean urtu direnez, esan dezakegu *bezain* morfemak osagai bien lana egiten duela, eta, hortaz, multzo aniztuna osatzen duela, ezkerrean erreferentziazko eta eskuinean konparazio ardatza dituen: *zurea bezain handia*.

**32.1.2.5c** Zenbatekoa adierazten duten perpausetan, berriz, *adina*, *adinbat*, *bezainbat* eta *beste* dira aldi berean morfema kuantifikatzaile eta osagarriaren bideratzaile direnak: *Zureak adina gela ditu nire etxeak* esaldian *zureak adina gela* da multzo aniztuna, zeinetan *adina* morfemak ezkerrean erreferentziazko terminoa eta eskuinean konparazioaren ardatza dituen.

**32.1.2.5d** Desberdintasunezko konparazioan morfema konparatiboaren zati biak bereiz daudenez eta bakoitza bere osagaiarekin doanez, multzoen ordena aldatzeko aukera du esaldiak:

*Nire etxea zurea baino handiagoa da*

*Nire etxea handiagoa da zurea baino*

*Handiagoa da nire etxea zurea baino*

*Zurea baino handiagoa da nire etxea*

*Bezain* eta *adina* morfemak bitarikoak izateak, berriz —hau da, aldi berean ardatzaren eta bigarren terminoaren bideratzaile izateak— mugak jartzen dizkio mugikortasunari, ezin baita, ohiko erabileran bederen, multzo aniztuna hautsi (\**Zure etxea handia da nirea bezain*; \**Zure etxeak gela ditu nireak adina*)<sup>4</sup>.

### 32.1.2.6. Osagaiak isilik

**32.1.2.6a** Esandako hiru osagaiak beharrezkoak dira konparaziozko egitura eratzeko, baina hiztunen jardunean esan gabe uzten da bat edo beste zenbaite-tan, mintzalagunak hizketaren testuinguruari esker ezagunak dituenen. Hala, lehen terminoa isilpean utzi daiteke, hizketaren testuingurutik eskura daitekeenean. *Helduak baino ausartagoak dira* esaldiak, esate baterako, ausartagoa ‘zein’ den esan gabe uzten du; testuingurutik jakiten da hori. *Atzo baino*

---

<sup>4</sup> Ohiko ordenaz bestelakoez, ikus § 32.2.1.1c. Eta, orobat, *Nik ere baditut lagunak, zuk adina* gisakoetan, non konparatiboa aposizioan emana den.

*lasaiago nago* esaldian ‘gaur’, ‘orain’ edo horrelakoren bat da isilpeko lehen terminoa. *Aurten zuek baino opor luzeagoak egin ditugu* esaldian aditzak seinatzen du ‘guk’ dela lehen terminoa.

**32.1.2.6b** Erreferentziazko terminoa biltzen duen sintagma —*X baino*— isilpean dela ere eman daiteke desberdintasunezko perpausa, testuinguruari esker ulertzen denean: *Nire etxeak gela gehiago ditu*, hiztunak hizketaren testuingurutik eskura dezakeena baino, alegia. *Opor luzeagoak egin ditut aurten*, beste urteetan baino luzeagoak, alegia. Berdintasuna adierazten duten perpau-setan, ordea, morfema konparatiboak aurrean erreferentziazko terminoa agerian ematea eskatzen du: *\*Bezain handia da nire etxea*; *\*Adina gela ditu nire etxeak*.

**32.1.2.6c** Eta kuantifikatzailea daraman osagaia ere agerian ematen da beti, hura isilpean utzita ez baita konparaziorik: *\*Zurea bezain da nire etxea*; *\*Helduak baino dira gazteak*; *\*Zuk dakigu guk*. Izenarekin eginiko multzoan, isilpean utzi daiteke izena, testuingurutik eskuragarri denean: *Iaz baino luzeagoak egin ditugu aurten* esan dezakegu, *oporrez* ari garela dakigunean.

### 32.1.2.7. Juntadurara irekiak

**32.1.2.7a** Konparazioaren osagaiok, azkenik, juntadurara irekiak daude. Osagai bakoitzak bi elementu edo gehiago izan ditzake. Hala, lehen terminoak (*Erregearena baino txikiagoak dira zure etxea eta nirea*); erreferentziazkoak (*Zurea eta nirea baino handiagoa da erregearen etxea*), konparazioaren ardatzak (*Gurea baino handi eta dotoreagoa da erregearen etxea*), edo multzo kuantitatiboak (*Erregearenak baino gela gutxiago eta txikiagoak ditu gure etxeak*).

**32.1.2.7b** Konparatuen arteko aldearen neurria nolabait seinatzen duen differentzia adierazlea erants dakioko kuantifikatzaileari desberdintasunezko konparazioan, multzo kuantitatibo konplexua eratuz. Aldearen neurria zehatza (*bi metro luzeago*, *hiru urte geroago*, *lau kilo gehiago*) zein zehaztugabea izan daiteke (*askoz gogorrago*, *hagitzez zaharrago*, *apur bat gehiago*, *handixeago*).

Adierazle zehatzek bateragarriak izan behar dute, semantikari dagokionez, konparazioaren ardatzarekin (\**bi metro geroago*; \**hiru urte lodiago*; \**lau kilo luzeago*).

**32.1.2.7c** Parekotasuna adierazten duten esaldiek ere konparazio kuantitati-boaren osagaien antzekoak dituzte. Hala, *Gazteak bezala ibiltzen dira helduak* esaldian, adibidez, ‘helduak’ eta ‘gazteak’ dira konparazioaren terminoak, lehen terminoa hura eta erreferentziazkoa hau; konparazioaren ardatza, berriz, *bezala* morfemaren barnean da, aditzak adierazten duen ‘nolakoa’ baita konparatzen dena. Hau da alderaketa: [gazteen ibiltzearen *nolakoa* <-> helduen ibiltzearen *nolakoa*].

*Bezain* eta *adina*-ren antzera, *bezala* adberbioak morfema parekatzailea eta konparazio morfema biltzen ditu. Pentsa daiteke, honetan ere, *bez-* eta *-hala* morfema bikoitzaren lotura dagoela; *hala* morfema parekatzailea izango litzateke, eta *bez-* erreferentziazko elementuarekiko lotura bideratzen duen konparazio morfema. Baina zati biak batean urtuta daudenez, erreferentziazko terminoa eta *bezala* morfema konparatiboa biltzen dituen multzoa eratzen da —*gazteak bezala*, adibidean—.

Hauetan ere isilpean utzi daiteke konparazioaren lehen terminoa, hizketaren testuinguruak hura eskuratzeko modua ematen digunean. *Gazteak bezala ibiltzen dira* esan daiteke, zeinetaz ari garen ezaguna denean. Erreferentziazko terminoa, ordea, ezin da isildu, ez eta harekin eraturiko multzoa ere (\**Bezala ibiltzen dira helduak*; \**Ibiltzen dira helduak*).

### **32.1.3. Konparazio perpausen egitura sintaktikoa**

#### **32.1.3.1. Konparazio sintagmak sinpleak edo konplexuak**

**32.1.3.1a** Konparazio perpausetako elementuekin nolako egitura sintaktikoak eratzen diren aztertzeko, kontuan izan behar da eraturiko konparazio sintagma askotan sinplea eta laburra den arren (*Zuk adina diru irabazi dut nik*), konplexuagoa ere izan daitekeela, aditz eta guztikoa, alegia (*Zuk bankuan*

*gorde duzun adina diru galdu du horrek kasinoan*). Gauzak argiro azaltzeko, aditz eta guztikoetatik abiatuko da ondoko azterketa, hau da, perpaus egitura argia dutenetatik, konparazio kuantitatiboa eratzen duten adibideak emanda.

Sintagma asko agerian dituela ematen da zenbaitetan konparazio perpausa, aditza bera barne, esan bezala. Hala izaten da, batik bat, haren aditza perpaus nagusikoa bera ez denean. Hori da, esate baterako, goiko adibideko *Zuk bankuan gorde duzun adina diru galdu du horrek kasinoan* esaldian gertatzen dena. Sintagma asko ditu agerian esaldi horretako konparazio perpausak, baina bada bat isilpean dena: *gorde* aditzaren objektua. Perpaus nagusiko *diru* izenak —konparazioaren ardatzak— laguntzen digu hutsune hori betetzen; hura duen sintagma da konparazio perpausaren falta dena. Inferentzia horrek lagunduta, honako perpaus bi hauek irudika ditzakegu esaldi horren azpian, *adina* morfema konparatiboak lotzen dituenak: [*Zuk X diru gorde duzu bankuan*] eta [*Horrek X diru galdu du kasinoan*] —X-k ‘zenbatekoaren adierazpena’ seinalatzen du, ez bataren eta bestearen zenbateko zehatza—. Ikusten denez, paralelotasun handia dute perpaus biek eta konparazio gaia den *X diru* sintagma bietan da; sintagma horixe da, hain zuzen ere, konparazio perpausaren hutsik dagoena, eta, are, hutsik egon behar duena, perpaus nagusiko *adina diru* sintagmaren barnean den *X diru* sintagmarekin bat datorrelako. Perpaus horrek, bestalde, konparazio morfemaren mendekoa izanik, *-n* menderagailua darama aditzari atxikia: [[*Zuk bankuan ø gorde duzun*] *adina*] *diru galdu du horrek kasinoan*.

**32.1.3.1b** Konparazio perpausak eta perpaus nagusiak aditz bera dutenean ere agerian eman daiteke hura konparaziozkoan (*Zuk bankuan gorde duzun adina diru gorde du horrek etxean*), baina sinpleagoa ere izan daiteke, aditza isilpean uzten duena (*Zuk bankuan adina diru gorde du horrek etxean*). *X diru* sintagma komuna hutsik dago azken honetan ere, baina horrezaz gain aditz komuna eta hari atxikita dagoen *-n* menderagailua ere isilpean dira.

Konparazio gaiari dagokion sintagmaz eta aditzaz gain, beste sintagma batzuk ere izan daitezke komunak konparazio perpausaren eta nagusian, eta haiek ere isilpean dira konparaziozkoan, perpausa are sinpleagoa eginaz (*Zuk adina diru gorde du horrek bankuan*). Honako perpaus bi hauek dira esaldi horren azpian ulertzen direnak: [*Zuk bankuan X diru gorde duzu*] eta [*Horrek ban-*

*kuan X diru gorde du*]; azpimarratutako sintagmak dituzte komunak, eta horiek dira konparaziozkoan isilpean direnak.

### 32.1.3.2. Sintagmak isildurik

**32.1.3.2a** Sintagma bat edo gehiago isilpean dituen ‘perpaus murrirtza’ da, bada, konparazio perpausa. Edozein kasutan, sinplea edo konplexua izan, bada sintagma bat isilpean utzi ezin dena: erreferentziazko terminoa biltzen duena. Perpaus nagusian aipatzen den lehen terminoarekin kontrastean da sintagma hori, eta agerian ematen da beti (*Zuk adina dakit nik; Etxean bezainbat gozatzten du kalean; Zurekin bezain ongi moldatzen da lagunekin*). Hizketaren testuinguru estralinguistikoari esker esan gabe utzi daiteke osagai hori, jakina, desberdintasuna adierazten duten perpausetan. *Handiagoa da* esan daiteke mintzalagunek hizketaren testuinguruari esker *zein* den handiagoa eta *zein baino* den handiago ezaguna dutenean, baina hori besterik da (§ 32.1.1e). Hemen testuinguru linguistikoaz ari gara, hau da, perpaus nagusian agerian diren osagaiari esker mendekoan eskura daitezkeen osagaiak, eta erreferentziazko terminoa ez da nagusiarri esker eskura daitezkeen artean. Ikusten den moduan, mendekoan agerian den sintagma horrek, erreferentziazko terminoa biltzen duenak, perpaus dagozkion morfemak berekin ditu (*zuk, etxean, zurekin*). Garbi dago morfema horiek perpausko sintagmei dagozkiela. Hortaz, esan daiteke, ikuspegi horren arabera, konparazio perpaus hutsik diren osagaiak isiltze prozesu baten ondorioz geratu direla isilpean, hau da, perpaus nagusiarekin komunak diren osagaiak ‘isildu’ egin direla. Zenbaiten iritziz, ordea, isilpeko osagai horiek perpaus nagusiko aurrekari edo atzekariekin lotuta diren hutsune anaforikoak dira<sup>5</sup>.

**32.1.3.2b** Labur esanda, konparaziozko perpaus hutsik dira beti konparazio gaia seinalatzen duen sintagma, perpaus nagusiarekin bat duena, eta baita perpaus bietan komunak diren gainerako sintagmak, aditza izan ezik, honek

---

<sup>5</sup> Ikus Sáez (1989: 677-699) eta Hualde & Ortiz de Urbina (2003: 843).



aukeran baitu zenbaitetan bietan agerian ematea. Perpaus nagusiko sintagmek ematen dute hutsune horiek betetzeko modua. Agerian ematen dira, berriz, konparazioaren erreferentziazko terminoa biltzen duen sintagma eta nagusiarekiko kontrastean diren gainerako sintagmak.

### 32.1.3.3. Konparazio perpausak beste bat mendean

**32.1.3.3a** Konparazio perpausak beste perpaus bat izan dezake mendean, esaldia are konplexuagoa eginez, baina besteetan ikusitako jokabide bera dute horrelakoek ere. Hala, esate baterako, erreferentziazko terminoa mendekoaren mendeko denean, hura da agerian ematen dena: *Bi eta bi lau direla bezain agerikoa da hori* esaldiaren azpian [*bi eta bi lau direla X agerikoa da*] eta [*hori X agerikoa da*] perpausak iradoki ditzakegu; kasu horretan *X agerikoa da* da elementu komuna, konparazio gaia biltzen duena, eta horixe da isilpean dena, ohi bezala; *bi eta bi lau direla* mendeko perpausa da agerian ematen den sintagma bakarra —‘hori’ eta ‘bi eta bi lau direla’ dira konparazioaren terminoak—. *Dirudien baino jende gehiago bizi da etxe horretan* esaldian, berriz, [*etxe horretan X jende bizi dela dirudi*] eta [*etxe horretan X jende bizi da*] perpausak irudika ditzakegu; *etxe horretan X jende bizi da* da elementu komuna, konparazio gaia barnean duena eta isilpean dena; erreferentziazko terminoa, berriz, *dirudi* da, agerian dena —izan ere, ‘dena’ eta ‘dirudiena’ dira konparazioaren terminoak, lehen terminoa hura eta erreferentziazkoa hau—.

*Adina* morfemarekin eginiko perpausak adberbio sintagma eratzen duenean, aditzari dagokion ‘zenbatekoa’ da perpaus bietako osagaia; mendekoan isilpean da osagai hori eta nagusiari dagokiona, berriz, morfemaren beraren barnean ageri da. *Futbola adina gustatzen zaio pilota* esaldian, esate baterako, [*futbola X gustatzen zaio*] eta [*pilota X gustatzen zaio*] perpausak irudika ditzakegu, non *X*-k ‘zenbatekoa’ adierazten duen; mendekoan isilpean da *X* hori, eta nagusiari dagokiona, berriz, *adina* morfemaren barnean aurkitzen da.

**32.1.3.3b** Aurreko atalean esan den moduan eratutako konparazio perpausa izen sintagma baten, adjektibo sintagma baten edo adberbio sintagma baten

osagai izan daiteke, edo, are, berak adberbio sintagma eratu. Mendeko perpau-  
sa dago batetik (Pm), aditza agerian denean *-n* menderagailua daramana; per-  
pau horrek, konparazio morfemarekin batera, konparazio sintagma eratzen  
du, hots, zenbatzaile sintagma (ZenbS), edo maila sintagma (MaS); eta hau,  
esan bezala, izen baten, adjektiboa baten, adberbio baten edo are aditzaren la-  
guntzaile da. Honela irudika daiteke egitura hori, labur:

- [<sub>IS</sub> [<sub>ZenbS</sub> [<sub>Pm</sub> Zuk bankuan gorde duzun] adina] diru] galdu du horrek jokoan  
 [<sub>IS</sub> [<sub>ZenbS</sub> [<sub>Pm</sub> Zuk (gorde duzun)] adina] diru] gorde dut nik bankuan  
 [<sub>AdjS</sub> [<sub>MaS</sub> [<sub>Pm</sub> Zu (zaren)] bezain] (pertsona) zoriontsua] naiz ni  
 [<sub>AdbS</sub> [<sub>MaS</sub> [<sub>Pm</sub> Zu (bizi zaren)] bezain] urruti] bizi naiz ni  
 [<sub>AdbS/ZenbS</sub> [<sub>Pm</sub> Futbola (gustatzen zaidan)] adina] gustatzen zait pilota
- [<sub>IS</sub> [<sub>ZenbS</sub> [<sub>Pm</sub> Zuk bankuan gorde duzun] baino] diru] [gehiago] galdu du horrek  
 jokoan  
 [<sub>IS</sub> [<sub>ZenbS</sub> [<sub>Pm</sub> Zuk (gorde duzun)] baino] diru] [gehiago] gorde du horrek bankuan  
 [<sub>AdjS</sub> [<sub>MaS</sub> [<sub>Pm</sub> Zu (zaren)] baino] (pertsona) zoriontsu[agoa] naiz ni  
 [<sub>AdbS</sub> [<sub>MaS</sub> [<sub>Pm</sub> Zu (bizi zaren)] baino] urruti[ago] bizi naiz ni  
 [<sub>AdbS/ZenbS</sub> [<sub>Pm</sub> Futbola (gustatzen zaidan)] baino gehiago] gustatzen zait pilota

**32.1.3.3c** Ikusten den bezala, diferentzia bat bada berdintasunezko eta des-  
berdintasunezko perpausen artean. Horiekin eratzen diren sintagma —IS,  
AdjS edo AdbS— sintagma kuantifikatuak dira guztietan, hau da, kuantifika-  
tzaile konparatiboa (KK) —zenbatzailea edo mailakatazailea— daramatenak.  
Berdintasunezkoek konparazio perpausaren barnean dute kuantifikatzailea,  
konparazio morfemarekin batera, eta hartatik kanpoan, berriz, desberdintasu-  
nezkoek, hori da aldea:

- [<sub>IS</sub> [<sub>ZenbS</sub> [<sub>Pm</sub> Zuk (gorde duzun)] <sub>KK</sub> adina] diru]  
 [<sub>AdjS</sub> [<sub>MaS</sub> [<sub>Pm</sub> Zu (zaren)] <sub>KK</sub> bezain] zoriontsu]
- [<sub>IS</sub> [<sub>ZenbS</sub> [<sub>Pm</sub> Zuk (gorde duzun)] baino] diru] [<sub>KK</sub> gehiago]  
 [<sub>AdjS</sub> [<sub>MaS</sub> [<sub>Pm</sub> Zu (zaren)] baino] zoriontsu[<sub>KK</sub> ago]

Egitura horietako zenbatzaile sintagmak eta maila sintagmak dira, bada, konparazio perpaus. Perpaus nagusiaren osagai baten osagai dira beste sintagma baten barnean direnean, eta perpaus nagusiaren osagai, berriz, zenbatzaile sintagma bera adberbio sintagma denean.

Parekotasunezko perpausa, bere aldetik, aditzaren adberbioa da beti, adberbio sintagma parekatzailea. Honako hau da hartan eratzen den egitura:

[<sub>AdbS</sub> [<sub>Pm</sub> *Zuek (prestatzen dituzuen) bezala*] *prestatzen ditugu guk partidak*

#### 32.1.3.4. Zer isiltzen den

**32.1.3.4a** Konparazioaren lehen terminoa eta ardatza bat duten perpausetan (§ 32.1.2.2a, § 32.1.2.3c), ez da ardatza mendekoan isilpean dena. *Mutiko baino neska gehiago sortzen da* esaldian, esate baterako, kuantifikatzailearekin doan *neska* osagaia da aldi berean konparazioaren lehen termino eta ardatza dena, eta ez da hori, bistan da, mendeko perpausaren isilpean dena. *Neska* ardatzak seinalatzen du ‘nesken kopurua’ dela konparatzen dena, bai, baina hau ez da beste ‘neska kopuru’ batekin alderatzen, beste ‘objektu’ baten kopuruarekin baizik, mutilen kopuruarekin, hain zuzen ere. Hortaz, [*X mutiko sortzen da*] eta [*X neska sortzen da*] dira esaldi horren azpian diren perpausak, eta *X* kuantifikatzailea da perpaus bietan den osagaia; hura da isilpean mendeko perpausaren, eta nagusian, berriz, *gehiago* kuantifikatzailearen barnean da.

Horrelako perpausetan mugagabeen ematen dira bai lehen terminoa daraman izen sintagma (*neska gehiago*) bai bigarrena daramana (*mutiko*). Mugagabeen ematen dira sintagma biak, konparazio perpausa eskuinean denean ere: *Joan den urteko ikasturtean lehen aldiz eskolako ikasleen artean neska gehiago izan da, mutil baino (Berria)*<sup>6</sup>. Mendeko aditza, bestalde, ez da agerian ematen (\**Mutiko sortzen den adina neska sortzen da*).

<sup>6</sup> Horrelakoetan mugatua ageri da inoiz eskuineko izena testuetan, desegoki ([...] *mutil gehiago dago pantailari so, neskak baino (Uztaro)*; *Badirudi oraindik ere dantza ikuskizunetan neska gehiago izaten dela mutilak baino (Goienkaria)*).

**32.1.3.4b** Gisa horretakoa da maila konparatzen duen *Erabilgarria bezain garestia da telefonoa* esaldia ere; *garestia* da esaldi horretan konparazioaren lehen terminoa eta ardatza; horren maila eta bigarren terminoarena dira konparatzen direnak: [X *erabilgarria da telefonoa*] eta [X *garestia da telefonoa*]; X kuantifikatzailea, mailakatzailea, da mendeko perpausean isilpean dena, eta nagusiko *bezain* kuantifikatzailearen barnean dena; aditza ere isilpean da, esan bezala, berbera baita perpaus bietan. Kasu honetan adjektiboak konparatzen dira, mugagabeak nahiz, adibidean bezala, mugatuak izan daitezkeenak, eta aditza agerian eman daiteke (*Erabilgarria (den) bezain garestia da telefonoa*) (§ 32.2.1d, § 32.2.1.2).

**32.1.3.4c** Gorago esan den moduan, batez ere esaldiko perpaus biek aditz bera ez dutenean ematen da hura agerian konparaziozkoan. Zenbaitetan, hala ere, aditzak desberdinak izanda ere —itxuraz, bederen—, konparaziozkoa isilpean uzten da. Hala, esate baterako, *Zu baino gizon umilagoak ez ditut asko ikusi* esaldian, itxuraz, [*Zu gizon X umila zara*] eta [*gizon X umilak ez ditut asko ikusi*] perpausak konparatzen dira, eta, bietan aditz bera ez izan arren, konparaziozkoarena (*zara*) isilpean da. Pentsa daiteke, hori azaltzeko, egitura predikatiboa izanik *izan* aditza ulertzen dela perpaus bietan. Hala, [*Zu gizon X umila zara*] eta [*gizon X umilak direnak ez ditut asko ikusi*] izango lirateke konparatzen diren perpaus biak, eta konparaziorako egituran *Zu zaren baino gizon umilagoak direnak ez ditut asko ikusi* esaldia eratuko litzateke. Perpaus nagusiko egitura predikatiboan *direnak* aditza isilpean legoke, eta konparaziozkoan aditz bera izanik (*zaren*), hura ere isilpean geratu da.

**32.1.3.4d** Zenbaitetan, hala ere, anbiguitasuna sortzen da, mendekoan isilpean den aditza bitara uler baitaiteke, perpaus nagusian ere isilpean den *izan* aditzari nahiz agerian denari dagokiola. Subjektu biak absolutiboan direnean gertatzen da hori. Demagun *Zu baino gizon umilagoekin bizi naiz ni* esaldia. Bitara uler daiteke: *Zu (zaren) baino gizon umilago(ak diren)ekin bizi naiz ni* edota *Zu (bizi zaren) baino gizon umilagoekin bizi naiz ni*. Anbiguitasuna garbitzen da lehen adierarako ohiko erlatiboa erabiliz (*Zu baino umilagoak diren gizonekin bizi naiz ni*).

Perpaus biek aditza bera ez dutenean, biak agerian ematen dira maiz, esan bezala, baina konparaziozkoaren adizki laguntzailea isilpean gera daiteke: *Zuk*

*galdu adina diru irabazi dut nik*. Partizipio burutuan ematen da gehienetan adizki nagusia, eta hari dagokion aspektua nagusiko aditzak seinalatzen du, ohikoa den bezala; isildutako laguntzaileari dagozkion pertsona-denborak ere testuinguruari esker eskuratzen dira. Aspektu burutugabea adierazten duen aditz izena erabiltzea ez da debeku, baina *Ateratzen bezainbat sortzen baita* (Axular) perpausaren lekuan, esate baterako, *Atera bezainbat sortzen baita* esan daiteke.

Adizki jokatuaren isiltze hori ohikoa da *nahi izan*, *behar izan*, *uste izan* edo *merezi izan* gisako aditzekin: *Behar (duzun) adina diru irabazten duzu; Merezi (duten) baino gehiago eman diete; Ez gara nahi (dugun) bezain lasai bizi*.

### 32.1.3.5. -n eta -na menderagailuak

**32.1.3.5a** Desberdintasunezko perpausetan ohiko -n menderagailuaren lekuan -na menderagailua ezartzen dute batzuek gaur egun: *Bestea ulertu behar dugu, ulertzen duguna baino askoz gehiago (Berria); Ez da erraza hark ber-tsotan egiten duena baino egokiago hitz egiten (Goienkaria)*.

Ez da nahastu behar erabilera hori konparazio perpausak barnean izan dezakeen -na erlatiboarekin, hau da, mendeko perpausaren barneko zati denarekin. Halakoa da, esate baterako, *Zure konputagailua nik erosi dudana baino garestiagoa da* esaldikoa, hots, *Zure konputagailua nik erosi dudana (konputagailu)a baino garestiagoa da*. Ardatz izena agerian ez duen erlatiboa da hori, testuinguruari esker eskuratzen dena: *Zure konputagailua nik erosi dudana (konputagailu)a (den) baino garestiagoa da* da azpian dagoen esaldia, mendeko perpausako *den* aditza isilpean duena. Beste zenbaitetan izen generikoa izan daiteke erlatiboan adierazi gabe uzten dena; hala, *Azken orduan mugitzen dena baino lasaiago ibiltzen da garaiz abiatzen dena* esaldian *mugitzen dena* erlatiboaren izen ardatza generikoa da, eta *Azken orduan mugitzen dena (ibiltzen den) baino lasaiago ibiltzen da garaiz abiatzen dena* da azpian dagoena. Horrelakoetan argi da -na morfema ez dagokiola konparazio perpausari, haren barruko zati den erlatiboari baizik.

**32.1.3.5b** Berdintasuna adierazten duten perpausetan ez dago zalantzarik, *-na* morfema barneko perpaus erlatiboari baitagokio beti. Hala, esanahi diferentea dute *Auto hau ez da nik nahi nuen bezain azkarra* eta *Auto hau ez da nik nahi nuena bezain azkarra* esaldiek. ‘Autoaren azkartasun maila’ eta ‘nik nahi nuen azkartasun maila’ konparatzen dira aurreneko esaldian; ‘autoaren azkartasun maila’ eta ‘nik nahi nuen beste auto jakin baten azkartasun maila’ alderatzen ditu bigarrenak, barnean erlatiboa duenak, ‘nik nahi nuen autoa (den) bezain azkarra’ baita bigarren esaldian ulertzen dena.

Desberdintasunezko perpausetan, ordea, bestela dira gauzak. Izan ere, konparazio perpausaren parekoa gertatzen da zenbaitetan *-na* erlatiboduna. Hala, *Ukan duguna baino gehiago zer genezake eskatu?* (Xalbador) esaldiko *ukan duguna* perpausa konparazio perpausaren barruko erlatiboa da, bai —*Ukan dugun (hura) (den) baino gehiago*—, baina esanahian haren parekoa da ohiko moduan emandako konparazio perpausa —*Ukan dugun baino gehiago zer genezake eskatu?*—. Esanahi bereko egitura bi dira, alderaketa bera ematen baitute aditzera barnean erlatiboa duen perpausak eta ohiko konparaziozkoak. Eta horrek egitura bien arteko nahastea-edo eragin dezake, bata zein bestea erabil baitaiteke konparazio bera adierazteko. Zabala da gaur egun bietara ematen diren perpausen eremua. Hona adibide batzuk, azken aldiko testuetatik bilduak:

- *Eskoziak behar duen baino energia gehiago sortzeko gaitasuna izango du (Berria)*  
*Plantak behar duena baino errefus gutxiago sortuko da Gipuzkoan (Berria)*
- *Ematen duen baino askoz ere zaharragoa da (Berria)*  
*Ematen duena baino ahulagoa naiz (Malagon)*
- *Berlinek aitortzen duen baino gehiago zekien espioitzaz (Berria)*  
*Mitxelek esaten duena baino gehiago daki (Goenkale)*
- *Naizen baino askoz ere inkultoagoa izan nahi nuke (Berria)*  
*Saiatzen naiz naizena baino gehiago naizenik ez sinesten (Berria)*
- *Ezin dugu garen baino gehiago garela pentsatu (Berria)*  
*Ederra litzateke garena baino itsusiago izatea (Berria)*

**32.1.3.5c** Esan daiteke, bada, aski hedatua dagoela, gaztelaniaren eraginaz beharbada<sup>7</sup>, *-na* erlatiboaren erabilera konparazio perpaus hauetan. Areagotu egiten da, gainera, joera hori, konparazio perpausa nagusiaren eskuinean ematen denean: *Hedatuago dago gaitza uste duguna baino (Berria)*.

Erabilera horren ondorioz, erlatiboari dagokion *-na* forma konparazio morfematizat hartzeko joera dute batzuek, eta hala erabiltzen dute, desegoki, baita erlatiboarentzat lekurik ez denean ere. Hala, ondoko esaldi hauetan neke da erlatiboa dagoela pentsatzea: *Hiltzen garena baino astiroago jaiotzen gara* (J. I. Basterretxea); *Matematiketan behar direna baino irakasle gehiago daude (Berria)* —erlatiboak *behar direnak* eskatuko luke—; *Etorri naizena baino okerrago uzten naute (Goenkale)*. Konparazio perpausen menderagailu gisa erabiltzen da horietan, esan bezala, *-na* morfema, desegoki.

**32.1.3.5d** Labur esanda, *-n* da menderagailua, baita desberdintasunezko konparazio perpausetan ere (*Ukan dugun baino gehiago zer genezake eskatu?*). Haien esanahi bereko perpausak eratzen dira inoiz barnean *-na* erlatiboa dutenak (*Ukan duguna baino gehiago zer genezake eskatu?*). Erlatibotzat har ez daitezkeenetan, ordea, ez du lekurik *-na* morfemak, eta desegokiak dira harekin eginiko perpausak (*\*Matematiketan behar direna baino irakasle gehiago daude*)<sup>8</sup>.

<sup>7</sup> Hualde eta Ortiz de Urbina: “The standard in this case is a headless relative clause. While this pattern is posible in Basque, it seems to be overused as a result of interference from Spanish, where clauses cannot occur as standards and headless relatives with *lo que* are used instead” (2003: 840). Gaztelaniazko *más de lo que* egiturako esaldiez ikus RAE (2010: 864-865).

<sup>8</sup> Lehenagoko testuetan ere ageri da *-na* morfema desberdintasunezko konparazio perpausetan. Hala, esate baterako, bizkaieraz, *Gehiago dio dakiena baino (RS)*, [...] *egizue beragaz, egingo zenuketena baino hobeto mediku bategaz* (Añibarro); Añibarrok, hain zuzen ere, [...] *lehen egingo zena baino nekezago* ematen du Axularren *lehen eginen zen baino nekezago* esaldia. Morfema hori bera erabili izan da, bizkaieraz, parekotasuneko perpausetan ere: *Guk geure zordunei barketan deusaguna legez* (Betolaza); *Ene herrian esan daroena legez* (Mikoleta).

## 32.2. Berdintasunezko konparazioa

### 32.2.1. Maila alderatzen duten berdintasunezko perpausak

#### 32.2.1.1. *Bezain* morfema

**32.2.1.1a** Adjektibo-adberbioen mailari dagokion berdintasunezko konparazioa *bezain* morfemak bideratzen du nagusiki —*bezein*, *bezin*, *bezen*, *bikain* aldaerak—. Bizkaieraz *baizen* morfema ere erabiltzen da —*baxen* forman inoiz— (*Xirido mutil lerdena baizen atsegingarria zen*, Erkiaga), morfema hori beste zenbaitetan *baino*-ren parekoa bada ere. *Besteko* ere maizenik zenbatekoa alderatzeko erabiltzen den arren, maila erkatzeko erabiltzen da zenbaitetan, bizkaieraz: *Ez zuen behar zen besteko gogor jotzen mailuakaz* (San Martin)<sup>9</sup>.

Gorago azaldu den bezala, *bezain*-ek konparazioaren erreferentziazko terminoa duen perpaus menderatua darama ezkerrean eta konparazioaren ardatza eskuinean (*laguna (den) bezain trebea; beti (iritsi den) bezain berandu*).

**32.2.1.1b** *Bezain* morfemaren eskuinean den ardatza, konparazio gaia zein den seinalatzen duena, adjektiboa nahiz adberbioa izan daiteke. Adjektibo predikatiboa: *Gure etxea zurea bezain iluna da*; izenondoa: *Zurea bezain etxe ilunean bizi naiz*; partizipioa: *Ez zela arbola hori haiek bezperan erran zuten bezain estalia aranez* (J. B. Elizanburu); adberbioa: *Beti bezain berandu etorri da*, edo postposizio sintagma: *Irudi hori bestea bezain goian dago*. Mailakatzeari onartzen dutenak izan behar dute osagaiok betiere.

Izenondo denean adjektiboari dagokio morfema konparatiboa (*zurea bezain [etxe iluna]*). Sintagmaren ordena aldatuta, *bezain* morfemaren ondo-ondoan ematen da zenbaitetan adjektiboa, *-ko* morfema erantsita duela: *Gisu-labea*

---

<sup>9</sup> *Bezain* formaren Bergarako erabileraz honela dio Elexpuruk: “Jende askok ez du hitz hau erabiltzen eta larri ibiltzen da esaldi mota hau egiten: *Bilbo ezta Donostia besteko politta etab. esaten dira orde?*” (ikus OEH s. v. *bezain*).



*bezain handiko ahoa zabaldu* [zuen] (Barbier); *Bazituzten sardea bezain handiko izkribuak* (Hiribarren). Batez ere idatzian erabiltzen da itzuli hori. Erlatiboarekin egiten den sintagmaren parekoa da: *Bazituzten sardea bezain handiko izkribuak* — *Bazituzten sardea bezain handiak ziren izkribuak*. Ero-soagoak eta argiagoak gerta daitezke zenbaitetan itzuli horiek, adjektiboa izenaren ondoan daramana baino. Hala, adibidez, *odolkia bezain lodiko hatz arina erakutsiz [...]* (Saizarbitoria) perpausa errazago ulertzen da *odolkia bezain hatz arin lodia erakutsiz* edota *hatz arin odolkia bezain lodia erakutsiz* perpausak baino.

Zenbaitetan izena modifikatzen du *bezain* morfemak: *Joatean bezain asto jin nintzen gibelera* (Mattin); *Ez ote dira edozein Mikel Agirre edo Pedro Pérez bezain gizon?* (Mitxelena), baina, aise ikusten denez, adjektibo gisa erabiliak dira izen horiek.

**32.2.1.1c** *Bezain*-ek modifikatzen duen adjektibo edo adberbioaren ohiko lekua haren ondo-ondokoa bada ere, zenbaitetan beste sintagmaren bat sartzen da haien tartean: *Hura olerkarietzat bezain, bedi [liburu] hau idatzi lauezkoentzat ikustegi berdin gabe* (Lizardi); *Aita bezain semea zara zuhur, puxant, fin gabe* (Etxeberri Ziburukoa). Batzuetan adjektiboa aurretik emana denean, *bezain* morfemaren ondoren isildua da, berriro ez aipatzeagatik beharbada: *Soineko urdina zeukan, ortzia bezain* (Erkiaga); *Bainan eder zinen zinez, zinez izar bat bezain* (Mirande)<sup>10</sup>.

### 32.2.1.2. *Bezain* morfemaren ezkerreko osagaia

**32.2.1.2a** *Bezain* morfemak ezkerrean duen osagaia ere mota askotakoa izan daiteke. Gorago esan den bezala, mendeko perpausa eratzen du osagai horrek, sintagma edo morfema bat —perpaus nagusiko ardatzarekin bat datorrena—

<sup>10</sup> OEH s. v. *bezain*: “El adj. colocado antes que *bezain*; en algunos casos ha de suponerse que el adj., que normalmente iría después de *bezain*, se encuentra elidido para evitar la repetición”.

edo gehiago isilpean dituena. Konparazioaren bigarren terminoa, erreferentziakoa, da beti agerian ematen dena (§ 32.2.1.3a):

- aditz eta guztikoa: *Gaur dagoen bezain triste ez dut inoiz ikusi*;
- aditz modala, adizki jokatu gabe gehienetan: *Ahal (dugun) bezain ondo egiten dugu lana*; *Behar (zen) bezain goiz jaiki dira*; *Nahi (duten) bezain ondo bizi dira*; aditz modalen objektua perpaus nagusian ageri den aditza da (*'bizi nahi duten bezain ondo bizi dira'*, alegia, azken adibidean);
- *uste izan, espero izan* eta horrelakoak, adizki jokatu gabe hauek ere askotan: *Horren erantzuna ez da zuk uste (duzun) bezain erraza*;
- izen sintagma: absolutiboa (*Zure laguna bezain trebea naiz ni*), ergatiboa (*Zure lagunak bezain umore ona dut nik*), nahiz datiboa (*Zuri bezain etxekoa egiten zait niri irudi hori*);
- postposizio sintagma: *Mendian bezain lasai bizi naiz kalean*;
- osagai bat baino gehiagokoa: *Eguzkia udan bezain goxo da neguan aterpea*;
- sintagma destinatiboa: *Mahats hori jateko bezain ona da ardoa egiteko*;
- *-la* perpaus osagarria (*seguru izan* eta gisa horretako aditzekin) edo *-tzea* aditz izena bestelako predikatuekin: *Bihar argituko duela bezain segurua da partida irabaziko dugula*; *Eskatzea bezain erraza al da ematea?*;
- baldintza alegiazkoa: *Aberatsa balitz bezain dotore jantzita dabil*, 'aberatsa balitz (ibiliko litzatekeen) bezain dotore jantzita dabil'; perpaus kontrafaktuala da ('ez da aberatsa').

**32.2.1.2b** Adibideetan ikusten den moduan, termino biren ezaugarri baten maila konparatzen da maiz horrelakoetan. *Laguna bezain trebea naiz ni* esaldian, esate baterako, ['lagunaren *trebetasun maila*' <-> 'nire *trebetasun maila*'] da konparazioaren egitura. Konparazioaren ardatza lehen terminoa bera denean, ordea, ezaugarri biren maila erkatzen da (§ 32.1.2c, § 32.1.3c). *Katixak egin zituen emeki bezain egoki aurkezte lanak* (Etxaide) esaldian, adibidez, ['aurkezte lanen *emetasun maila*' <-> 'aurkezte lanen *egokitasun maila*'] da

egitura. Lehen termino eta ardatz dena adjektiboa denean, termino biak muga-gabea ematen dira inoiz: *Hartakotz zait bada eder bezain aipagarri* (J. Etxepare); *Besoa luze bezain zorrotz du begia* (Hiribarren). Baina bigarrena mugatua dela beste batzuetan: *Sorterriaren salbatzeko xede handi bezain saildua* (Lafitte); *Bi edo hiru lagun boz ozen bezain bakarra gorabehera* (Mitxelena). Eta are inoiz biak mugatuak: *Bere pentsabidearen ardatza argia bezain laburra da* (P. Garmendia). Terminoak osagai bikoak izan daitezke: *Besoa luze bezain zorrotz du begia* (Hiribarren).

Egitura hau emendiozko juntadura adierazteko erabiltzen da inoiz, bide batez aipatzen diren adjektibo edo adberbioen mailaren handia iradokitzen delarik: *Horra iparraldeko abere eta gizonen bizimodua zehatz bezain ederki emana* (Ibinagabeitia); *Ugari bezain zorrotz zen hizketan, aberats bezain zehatz eta doi* (Mitxelena); abere eta gizonen bizimodua ‘oso aberats eta zehatz’ emana dela esaten da lehen adibidean, eta norbait ‘hizketan oso aberatsa eta zehatza dela’ bigarrenean (§ 32.4.3a, § 32.6.4, 9d).

### 32.2.1.3. Bestelako kasu batzuk

**32.2.1.3a** Erreferentziatzko terminoa *izan* aditza eta konparazioaren ardatza adjektiboa direnean, *den bezain luzea* gisako sintagma era daitezke: *Zen bezain handia izan arren* (Agirre Asteasukoa); *Gu garen bezain kreatura errores eta ezdeusentzat duen amodio sobraniazkoa* (Haraneder); *Dugun imita heiena zen bezain bizi Saindua* (Jauretze); *Sultan [...], zen bezain luze, zetzan lurrean jarria* (A. P. Iturriaga). Konparaziozko egitura izanik pentsa daiteke horrelako esaldien azpian ere perpaus bi direla; [*Hura X handia zen*] eta [*hura X handia zen*], esate baterako, lehen adibideko esaldiaren azpian, non mendekoan isilik den *X handia* sintagma. Dena dela, ez dirudi hor zinez alderaketa denik, enfasia adierazteko modu bat baizik (*zen bezain handia* = {*oso handia* ~ *hain handia*} *izanik*).

*Zen bezain sutsu jokatu zen* (Barrenso) esaldian konparazioaren ardatza adberbioa da eta mendeko perpausan isilpean geraturiko sintagma, berriz,

adjektiboa: [<sub>Adj</sub> *sutsu*] *zen* eta [<sub>Adb</sub> *sutsu*] *jokatu zen*. Adberbioaren eraginez geratu da isilpean adjektiboa, formalki biak berdinak direlako.

**32.2.1.3b** *Gutxi* zenbatzailearekin ere erabiltzen da *bezain* morfema: *Haren ahotsak begiradak bezain gutxi adierazten zuen* (Olarra); *Nik bezain gutxi kobratuko dizu [...]* (Cano). Perpaus horiek formaz maila konparazioari bada-gozkio ere, zenbatekoa da berez alderatzen dutena. *Asko* edo *anitz* zenbatzailearekin, aldiz, ez da ohikoa horrelako perpausak eratzea (\**Zuk bezain asko dakit nik*; \**Zuk bezain liburu anitz irakurri dut nik*), horien lekuan zenbatusnari dagokion *adina* morfema edo horren antzekoren bat erabiltzen baita (*Zuk adina dakit nik*)<sup>11</sup>. *Gutxi*-ren zenbatusun mailaren konparazioa da, bada, *bezain gutxi* sintagmak bideratzen duena; *asko*-rena, berriz, *adina*-k bideratzen du. Bat dator hori zenbatzaile hauen jokabide orokorarekin. Izan ere, *gutxi*-k onartzen ditu zenbatusunaren modifikatzaile batzuk (*oso gutxi*, *gutxiago*, *gutxiegi*, *gutxien*), baina ez *asko*-k (\**oso asko*, \**askoago*, \**askoegi*, \**askoen*) ez eta *anitz*-ek ere (\**oso anitz*, \**anitzen*; *anitzago* eta *anitzegi* ere ez dira ohikoak) —azken hauen lekuan *gehiago*, *gehiagi*, *gehien* erabiltzen dira—.

**32.2.1.3c** Denborazko adberbioekin bi eratako perpausak eratzen ditu *bezain* morfemak. Termino biei dagokien denbora konpara daiteke adberbio horien bidez, ohiko konparazio perpausa eratuz: *Peru Miren bezain berandu iritsi da*; *Frantsesa bezain laster ikasiko du ingelesa*. ‘Berandutasun maila’ konparatzen da lehen adibidean, eta ‘lastertasun maila’, bigarreanean. Gertakari bat denboran kokatzeko ere erabil daiteke, ordea, egitura hori, gertakari horren noizkoa beste baten noizkoaren parean ezarriz: *Ikusi zaitudan bezain laster ezagutu zaitut*; *Partida hasi bezain laster sartu dute gola*. Gertakarien aldiberekotasun estua adierazten da perpauson bidez; *noiz* ikusi, *orduan* ezagutu, alegia, lehen adibidean, eta *partida noiz* hasi, *gola orduan* sartu, bigarreanean. Formaz konparaziozkoak izan arren, gertakaria denboran kokatzea dute zeregin perpaus hauek. Ikusten den moduan, gertakaria adierazten duten aditzak dira ‘konparatzen’ edo ‘parekatzen’ diren termino biak; mendeko perpausakoa adizki laguntzailearekin nahiz hura isilduta eman daiteke (*hasi (zen)*

---

<sup>11</sup> Ikus, hala ere, *Hargatik guk bezain asko Ameriketara zuten maitatzen* (Arrese Beitia).

*bezain laster*). *Laster* adberbioaz gainera, bestalde, *sarri*, *fite*, *agudo*, *aurki*, *azkar* eta beste batzuk ere erabil daitezke forma hau eratzeko (*bezain sarri*, *bezain fite*, *bezain agudo*) (§ 36.5.1, § 36.5.2).

**32.2.1.3d** Berdintasunezkoa izanik, alderaketa honek ez du hartzen, bistan da, maila-aldea adierazten duen diferentzia adierazlerik: \**Zure laguna askoz ere ni bezain trebea da*; \**Zure etxea nirea bezain bi aldiz handia da*. Onartzen ditu, hala ere, ohiko bidetik, perpaus osoari dagozkion adberbioak, hurbiltze adiera dutenak: *Hemen festa ia-ia lana bezain sakratua da*; *Arduragabe izateko bezain libre banaiz gutxienik* (*Berria*).

Alderaketa honek, bestalde, norabide positiboa du, nolabait esan, baiezkoa denean. Izan ere, konparatua erreferentziaz hartzen denaren mailan bederen badela esaten da, handik gora ere egon daitekeela saihestu gabe, baina handik behera egon daitekeela baztertuta. Hala, *Hura zu bezain aberatsa da, eta baita aberatsagoa ere beharbada* esan daiteke, baina ez \**Hura zu bezain aberatsa da, eta baita pobreagoa ere beharbada*. Ezezka emanda, berriz, konparatua erreferentziazkoaren mailara iristen ez dela esaten da, eta hori, jakina, ez da gehiagotasunarekin uztartzen ahal: *Hura ez da zu bezain aberatsa, pobreagoa baizik*, esan daiteke, baina ez \**Hura ez da zu bezain aberatsa, aberatsagoa baizik*, erabilera zuzentzailean izan ezik (*Zu bezain aberatsa ez, aberatsagoa da!*). Berdintasuna ukatzea du euskarak, hain zuzen, mailaren gutxiagotasuna adierazteko modu bat (§ 32.1.1b).

**32.2.1.3e** Ezezkoa konparazio perpausari dagokionean, berriz, gehiagotasun adiera hartzen du perpausak: *Inoiz izan ez naizen bezain zoriontsua naiz orain* —hau da, ‘inoiz baino zoriontsuagoa’—; aditza isilpean utzita, ez adberbioa *bezain* morfemaren ezkerrean kokatzen da, *ez bezain* segida eratuz: *Inoiz ez bezain zoriontsua naiz orain*; *Mutikoak sekula ez bezain txintxo egin zituen etxeko lanak* (*Egunkaria*). Ezezko polaritatea duten *inor*, *ezer*, *inoiz*, *sekula* eta *inon* gisako izenordain edo adberbioekin eratzen da maiz segida hau (*inoiz ez bezain ondo*, *inon ez bezain lasai*, *inor ez bezain trebea...*), baina baita bestelako hitz klaseekin ere: *Txorrota ohi ez bezain oparo ari da nire ahotik* (Lertxundi) —‘ohi baino oparago’, alegia—; *Oiloek txitak ez bezain maiteki hartu nau amak ni* (S. Mitxelena) —hots, ‘oiloek txitak hartzen dituzten baino maitekiago’—.

## 32.2.2. Zenbatekoa alderatzen duten berdintasunezko perpausak

### 32.2.2.1. Berdintasunezko morfemak

**32.2.2.1a** Bat baino gehiago dira zenbatekoari dagokion berdintasunezko konparazioa bideratzen duten morfemak. Hauek dira erabilienak: *adina*, Hegoaldeko tradiziokoa batez ere (batasunaren aurreko testuetan *aina*, *aiña* eta *aña* idatzia), *bezainbat*, ekialdeko tradiziokoa (*bezanbat*, *bezenbat* eta *bezinbat* idatzia) eta *beste*, bizkaierazkoa, gipuzkeraz ere zerbait erabilia. Erabilera urriagokoak dira *adinbat* (testuetan (*h*)*ainbat* idatzia<sup>12</sup>) eta *bezainbeste* (*bezainbat*-en analogiaz-edo eratua); *hainbeste* forma ere zerbait erabilia da konparazioan, gipuzkeraz batez ere<sup>13</sup>: *Munduko gizonik azkarrenak ere nik hainbeste daki* (Insausti); *Zuentzat hainbeste jaki ekarriko dute aurki* (Txirrita), baina euskara batuan zenbatzaile gisa erabiltzen da batik bat. Morfema erabilienen adibideak emango dira eskuarki ondoko azalpenetan.

Inesiboko *-n* atzizkia hartzen dute inoiz morfema hauetako batzuek, morfema soilaren adiera bera gordez: *Ez baita inor haiek adinean argi litzakeenik euskararen alde ilunak* (Mitxelena); *Hura ere ez dago orain lehen adinbatean Nikanor-en alde* (Erkiaga); *Lanerako gauza ziren bestean baino ez zituen ugazabak aintzat hartzen* (Erkiaga).

Gorago esan den bezala, erreferentziazko terminoa daraman perpausa dute ezkerrean morfema hauek, eta izena edo aditza eskuinean (*zuk adina lagun*; *zuk adina dakit*).

---

<sup>12</sup> *Ainbat* idazkera hitz biri zegokien batasunaren aurreko tradizioan: *adinbat* konparaziozkoari eta (*h*)*ainbat* zenbatzaileari. Bien arteko nahasbidea eragin zezakeen horrek. *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* bereiz ematen ditu, *adinbat* konparaziozkoa da, *adina*-ren parekoa, eta *hainbat* zenbatzailea. Dena dela, batasunaren ondoko testuetan ere *hainbat* idazten da inoiz konparaziozkoaren *adinbat*-en lekuan.

<sup>13</sup> OEH s. v. *hainbeste*: “Documentado en textos guipuzcoanos (tbn. en algún vizcaíno moderno), sobre todo en bersolaris y diálogos populares”.

**32.2.2.1b** Morfemaren eskuineko izena mugagabeen emana da beti, eta hura da konparazioaren ardatza (*zuek adina urte; han bezainbat kirolari; zuk (duzun) beste diru*); izena zenbakarria denean kopurua adierazten du sintagmak (*Zuek adina lagun ez ditugu*) eta zenbakaitza denean kantitatea (*Zuek adina diru dugu guk*). Izenordainaren funtzioa bete dezake morfema konparatiboak (*Aholkuak behar dituzu? Nahi adina emango dizkizut nik*), bai eta adberbioa izan ere, ondoan aditza duela (*Zu adina maite dudan lagunik ez da*).

**32.2.2.1c** Ezkerrean dute, berriz, gainerako konparazio esaldietan bezala, erreferentziatzko terminoa daraman perpausa, mota askotakoa izan daitekeena:

- Aditz eta guztikoa: *Jakintsuenek dakiten {adina ~ bezainbat ~ beste} dakigu guk*.
- Aditz modala, adizki jokatua gabe askotan: *Ez ditut behar adina ezagutzen* (Mitxelena); *Mutxikoak nahi bezainbat dantzatuko dira heldu den igandean* (Berria); *Gura beste dantza egiteko aukera izango dute herritarrek* (Goienkaria); *Ezin esan adina maite zaitut* (Bilintx).
- *Uste izan, espero izan, merezi* eta *pentsatu* gisako aditzak, adizki jokatua gabe hauek ere zenbaitetan: *Ez nau, berorrek uste duen adina, aberats izateak harrotzen* (Agirre); *Saioak ez zion espero bezainbat denbora jan* (U. Apalategi); *Ez da jaso aurreikusi bezainbeste mahats* (Berria); *Uste dugu bertakoon dohainak ez direla merezi beste baloratzen* (Goienkaria).
- Izen sintagma, absolutiboa: *Pertsona bezainbat apeta daude* (Berria). Ergatiboa: *Gizonaren biziak ez zuen arkakuso batenak adina balio* (Etxaniz). Datiboa: *Berak niri adina arazo sortu nion nik emakume gazte hari* (O. Arana). Partitiboa erabiltzen da inoiz: *Zuk duzu aterik adinbat maratila* (Urruzuno); aditz izena: *Kantatzea adina gustatzen zaio dantza egitea*.
- Postposizio sintagma: *Euskara entzunen da, baina ez Donostian bezainbat* (Berria); *Non etxean beste babes?* (Agirre). Adberbioa: *Orain ez dago lehen adina irtenbide* (Berria); *Ai! Jakin izan banu gaur beste* (San Martin). Postposizioak edo adberbioak denbora edo kantitatea adierazten duenean, *-ko* atzizkia hartzen du maiz *beste* morfemaren aurreko sintagmak: *Amak lehen-*

*go beste ardura hartzen ez ziolako* (Etxeita); *Tabernariengandik lortuko zuen betekada on baterainoko beste* (F. Bilbao).

- Sintagma destinatiboa: *Mundu hau erosoago edo neketsuago iragaiteak ez du haientzat guretzako bezainbat pisurik* (Garate); *Bizitzeko adina badugu*.
- Osagai bat baino gehiagokoa: *Ardotan hire idiak uretan adina edaten duk* (Labaien); *Zuk amodio bezainbat dolore dut nik sentitu* (Gazteluzar).
- Adizki jokatu eta guzti erabili izan dira *asko izan*, *aski izan* eta *premia izan* aditzak: *Bestek asko den adina eta gehiago barreiatu ditu [...]* (Mitxelena); *Jan ezazu hartarik aski den bezainbat* (Pouvreau); *Premia duten beste hartu behar dute* (Villasante). Itzuli horiek *asko*, *aski* edo *nahiko(a)* esateko modu enfatikoa dira. Horien antzeko esanahia du *on den adina* esapideak: *Ikusten duzu zure auzo, ahaide edo adiskidea on den adina edo gehiago kargatua* (Agirre Asteasukoa).
- Baldintza perpausa, alegiazkoa: *Garaiz etorri izan balitz adina eskubide duela uste du*.

### 32.2.2.2. Konparazioaren beste xehetasun batzuk

**32.2.2.2a** Termino biren ezaugarri baten zenbatekoa konparatzen da gehienetan esaldi hauetan ere: *Zuk adina lan egin dut nik* [zure lanaren zenbatekoa <-> nire lanaren zenbatekoa]. Konparazioaren ardatza lehen terminoa bera denean, ordea, ezaugarri biren zenbatekoak erkatzen dira: *Gogo adina kemen izan balu* (Agirre); *Pertsona bezainbat apeta daude* (Berria); [haren gogoaren zenbatekoa <-> haren kemenaren zenbatekoa] da lehen adibideko konparazioaren egitura (§ 32.1.2c, § 32.1.3c, § 32.2.1d).

**32.2.2.2b** Konparatuen artean alderik adierazten ez denez, agerikoa da zenbatekoa alderatzen duten berdintasunezko perpausok ere —maila alderatzen dutenek bezala— ez dutela diferentzia adierazlerik hartzen: *\*Nik askoz adina daki horrek*. Onartzen dituzte, ordea, bistan da, perpaus osoari dagozkion *kasik* edo *ia* gisako adberbioak: *Alderdi adina ekitaldi egin ziren kasik* (Berria).



Hurbiltze balioa du adberbioak, berdintasuna gutxigatik gauzatu ez dela ematen baitu aditzera. Balio bertsua du konparazio morfemari erantsitako *-xe* atzizkiak: *Doi-doi sumatzen dira, gorputzak behar adinaxe* (Orixe).

**32.2.2.2c** Konparazio honek ere norabide positiboa du, mailari dagokion konparazioak bezala, esaldia baiezkoa denean. Lehen terminoa gutxienez erreferentziazko terminoa adinakoa badela adierazten du, edo baita hortik gorago-koa ere beharbada. *Nahi adina lan eta gehiago bada hemen* esan daiteke, baina ez *\*Nahi adina lan eta gutxiago bada hemen*. Esaldia ezezkoa denean, berriz, gutxiagotasuna adierazten da. *Ez dakit zuk adina, zuk baino gutxiago baizik* esaldiak badu, hortaz, zentzua; ez, ordea, *\*Ez dakit zuk adina, zuk baino gehiago baizik*, egitura zuzentzailean ez bada (*Zuk adina ez, gehiago dakit!*).

Ezezkoa konparazioari berari dagokionean, berriz, desberdintasunezkoa bilakatzen da alderaketa: *Maite zaitugu, munduan inor ez adina* (Txirrita) —beste guztiak baino gehiago, alegia—; *Maite ditut gailurrak argiak ez beste* (Lizardi) —hots, argiak maite dituen baino gehiago—.

**32.2.2.2d** Gehienetan izen-aditzen zenbatekoari eta adjektibo-adberbioen mailari dagozkien alderaketak aski zehatz bereizten badira ere, bakoitzak dagokion morfema duelarik, zenbaitetan konparazio mota bien arteko mugak lausotu egiten dira, eta zenbatasunezko morfema mota batari zein besteari dagokiola esan daiteke. Hasteko, zenbatasunezko morfemen erabilera predikatiboa aipa daiteke. Izan ere, predikatu direnean, subjektua *nolakoa* den adierazten dute morfema hauek. *Hi adina banaun* gisako esaldiek *nolakoa* naizen adierazten dute, eta, hain zuzen, *hi adina* hori ‘hi bezain {on ~ handi ~ trebe ...}’ gisa ulertzen da: *Oraindik ez haiz hire nagusia adina* (G. Mujika); *Hi hainbeste bagaituk* (Barrensorro); *Ez zen inor beren aita izan zen beste* (Agirre). *Izan* bezala, *egin*, *bihurtu* edo *bilakatu* izan daitezke loturako aditzak: *Handik hona egina nago Jauntxo guztiak adina* (Larramendi). Aurretik *-tzeko* sintagma daramala, aha-lezko esanahia hartzen du egiturak: *Zahar eta andreak ez omen ziren haraino igotzeko beste* (Mitxelena) — ‘ez omen ziren goraino igotzeko gauza’, alegia—.

Zenbatasunezko morfemak, bestalde, normalean aditza edo izena modifikatzen badute ere, neurria adierazten duten *luze*, *zabal* edo *sakon* gisako adjekti-

boekin ere joan daitezke, neurriaren zenbatekoak alderatuz: *Mahaia beste luze diren aulki bi* (Agirre). Neurria adierazten dutenez, zenbatekoari ere badagokio horrelako sintagmak, baina horrekin batera neurriaren maila ere seinalatzeko dutela esan daiteke. Hain zuzen, morfema horien lekuan mailari dagokion *bezain* morfema ere onartuko lukete horrelako sintagmek (*bezain luze, bezain zabal*).

Bestelako adjektibo batzuekin ere erabiltzen dira inoiz zenbatasunezko morfemak. Hala, *bezainbat* morfema inoiz: *Behin bazen apaiz bat ona bezainbat bitxia* (Barbier); *Logikazale bezainbat musikazalea baitzen* (Mirande); ‘ona bezain bitxia’ ulertzen da lehen adibideko sintagma. Berdin *adina*: *Gizona ezin daiteke zigarra adina txikia* (Añibarro); *Zeure denboran kostako zaizu ni adina gizon izaten* (Txirrita). Eta *beste*: *Ipini nuen argitxu hau eta ... lehen beste ilun* (Kirikiño). Adibide horiek gorabehera, berez neurria adierazten ez duten adjektiboekin *bezain* morfema erabiltzea da ohikoena euskara batuan.

**32.2.2.2e** Bestalde, *-ko* atzizkia hartu eta izenlagun bilakatzen denean, zeregin adjektibala bereganatzen du morfemak: *Behar adinako babesa*; *Kezkatzeko bezainbateko uholdea*; *Onenak besteko jokalaria*. Horrela eraturiko izenlagunek ez diote kopurua adierazten duen *zenbat* galderari erantzuten, neurria edo intentsitatea adierazten duten *zenbateko* edo *nolako* galderei baizik. Hala, *mahai adina aulki* sintagma, esate baterako, aulkien kopuruari dagokio, aulkiak *zenbat* diren ematen baitu aditzera; *mahaia adinako aulkia* sintagmak, berriz, aulkia *nolako* den ematen du aditzera, ‘mahaiaren neurrikoa’ dela esanaz. Kontraste hori bera ikusten da ondoko esaldi hauetan: *Kezkatzeko adina datu zabaldu da ikastetxe horri buruz* ≠ *Kezkatzeko adinako datuak zabaldu dira ikastetxe horri buruz* —datu asko batek, datu kezkarriak besteak—.

Predikatu direnean ere *nolako* adierazten dute izenlagunok, bistan da. Morfema soilen pareko dira erabilera horretan: *Irakaslea adinako bada ikaslea* — *Irakaslea adina bada ikaslea*; *Nor hura adinakorik?* — *Nor hura adina?*; *Juanito bestekoak egingo garenean* (F. Bilbao).

Izenlagunaren ezkerrean sintagma absolutiboa edo ergatiboa ez ezik genitiboa ere ager daiteke: *Zure nahigabearen adinako bihotz damua nahi nuke*

(ArgiDL); *Osterantzeko gizonen bestekoa zara zu zeu bere* (Otxolua); *Saguzaharren besteko indarra* (Oskillaso).

**32.2.2.2f** Sintagma destinatiboa eta *lain* edo *doi* morfemekin eraturiko sintagmek konparazio perpausen itxura dute: *Zure errenta hau ez dut kontribuzio-tarako lain* (Tx. Garmendia); *Beren bizitza guztian aberats izateko lain diru bazeramaten* (Etxaniz); *Handik goiti eskean ibili zen, gosez ez hiltzeko doia nekez irabazten zuela* (Mirande); *Euskaraz bazekiten, ihardesteko doia* (Larre). Konparazio itxura, bai, baina ez dituzte konparazio perpausen ezaugarriak. Izan ere, horietan ez dira konparazio egiturak dituen perpaus biak, konparazio termino biei dagozkionak. Kontuan hartzen bada, batetik, egitura hauetan destinatiboa *-entzako* formarekin egiten dela, *ez -entzat* formarekin, eta aurretik genitiboa ere onartzen dutela (*Bere doia, eguneko doia, bildu behar zuen goiz guztiez* (Zerbitzari); *Euskal Herriak ez du behin ere biltzen bere dina bihi* (EH)), eta, bestetik, konparazio egiturako ohiko esaldietan ez dutela lekurik (*\*Irabazi dudan lain gastatu dut*), postposiziotzat har daitezke morfema hauek.

Gauza bera esan daiteke *dina* morfemaz ere: *Jaunak emango digu bizitzeko dina* (Urruzuno); konparazio perpausaren erabiltzen da hau, inoiz, *adina* morfemaren aldaera gisa-edo: *Tori dirua eta har ezazu behar den dina* (Soroa).

**32.2.2.2g** Inesiboko *bezainbatean* formarekin eginiko [(dena)-z *bezainbatean*] esapideak ‘dagokionez’ esapidearen antzeko esanahia du: *Gizarteaz denaz bezainbatean, berdintsuki behar dugu jokatu* (Villasante); *Bere buruaz bezainbatean zioen, [...], ez zela nihor hura bezain ezdeusik* (Joanategi).

## 32.3. Desberdintasunezko konparazio perpausak

### 32.3.1. Maila alderatzen duten desberdintasunezko perpausak

#### 32.3.1.1. Morfema

**32.3.1.1a** Mailari dagokion desberdintasunezko konparazioa bideratzeko *baino ...-ago* zati biko morfema erabiltzen da eskuarki. Alde batetik, *-ago*

mailakatzaila adjektiboari edo adberbioari erantsita, adjektibo sintagma konparatiboa (*handiagoa, zuriago*) edo adberbio sintagma konparatiboa (*gaizkia-go, urrunago*) eraten dira; bestetik, berriz, sintagma horren osagarri den konparazio perpausa *baino* morfemak bideratzen du (*uste zuten baino...*) —aldaerak: *bano, beno, beino*—. Hau da, berriz, morfema horiekin eginiko sintagmen ohiko ordena: [mendeko perpausa + *baino* — adjektiboa/adberbioa + *-ago*] ([*Durango baino handiagoa*] *da Bilbo*; [*Uste zuten baino errazago*] *irabazi dute partida*). Ordena hori ez da, ordea, aldezina. Hala, konparazio perpausa nagusiaren eskuinera pasa daiteke (*Bilbo handiagoa da Durango baino*), eta osagaien bat ere sar daiteke konparaziozko perpausaren eta kuantifikatzaile konparatiboaren artean (*Lana baino alferkeria maiteago dugu*).

Bizkaieraz *baizen* morfema ere erabiltzen da desberdintasunezko perpaus hauetan, berdintasunezkoetan bezala: *Baina zu baizen hobeto maite dut neure mendia* (Agirre); *Ea, ba, laster etortzen haizen aberatsago Rotxil bat baizen!* (K. Enbeita).

Batez ere lapurteraz eta behe-nafarreraz *ezen ez* forma erabiltzen da —aldaera, zubereraz batik bat, *ezi ez*—: *Hobe zela poto egitea, ezen ez arrazoi txar bat ematea* (Xalbador). Perpaus nagusiaren ondoan ematen da beti morfema honekin eginiko mendeko konparaziozkoa, eta ezin da ezkerrera pasa: \**Ezen ez arrazoi txar bat ematea, hobe zela poto egitea*; morfema bera perpausaren hasieran da, *baino ez* bezala: *Nahiago dut neure lana {ezen ez zurea ~ zurea baino}*<sup>14</sup>.

**32.3.1.1b** Esan bezala, konparazioaren ardatza den adjektiboari edo adberbioari eransten zaio *-ago* morfema. Adjektiboa mugatua zein mugagabea izan daiteke, adjektibo arrunta bezala (*Ez da txikiagoa Peru-Fermin Izkoren poza*, J. Mokoroa); *Zu txiki-txikia zinen. Orratz-burua baino askoz txikiago*, M. Atxaga); adjektiboa izen sintagmaren barnean dela ere erabil daiteke (*Izarra*

---

<sup>14</sup> Lafittek (1962: 140): “une pareille construction est plus romane que basque”. Etxeberri Ziburukoak eta Hiribarrenek *ezen* soila erabiltzen dute inoiz (*Lehenago hilen naiz, ezen eginen baitut gaizkia*, Hiribarren).

*baino andre ederragoa ihesi joan zait*); sintagmaren ordena aldatuta eta adjektiboari *-ko* erantsita ere egin daitezke, zenbaitetan, horrelakoak (*Izarra baino ederragoa andrea joan zait ihesi*, Txirrita), bai eta erlatiboaren bidez ere (*Izarra baino ederragoa den andrea*). Berdintasunezko konparazioan bezala, desberdintasunezkoan ere erabiltzen dira inoiz izenak maila konparazioan (*Ni baino gizonago portatu haiz*, X. Amuriza; *Abereak baino abereago egin naiz*, Duvoisin); adjektibo gisa erabiliak dira izen horiek. Eta, esan bezala, adberbioari ere erants dakioke morfema konparatiboa (*Trena lehen baino urrunago iristen da orain*)<sup>15</sup>.

Adjektiboen kasuan postposizio atzizkiak *-ago* morfemaren ondotik ematen dira (*etxe handiagora*; *leku atseginagotik*; *ohe bigunagoan*); oinarrian izena duten adberbio sintagmen kasuan, berriz, morfema azkenean joan daiteke (*kontuzago*; *gusturago*; *aurrerago*; *pozikago*).

**32.3.1.1c** *Baino* morfemaren ezkerrean konparazio perpaus mendekoa doa, erreferentziazko terminoa daramana, eta, ohi bezala, mota askotakoa izan daitekeena:

- Aditz eta guztikoa: *EBko ekonomia hasieran pentsatu genuen baino kalte-  
tuagoa dago* (Egunkaria).
- Aditz modala, adizki jokatua gabe gehienetan: *Nahi baino askoz maizago  
jaso behar izan du baloia sareetatik* (Berria); *Hamabostaldiko entzulea  
behar baino mantsoago ari da ohitzen* (Berria).
- *Uste izan, espero izan* eta *pentsatu* gisako aditzak ere adizki jokatua gabe ematen dira maiz: *Inkestaren arabera, enpleguak uste baino bilakaera ho-  
bea izan du* (Berria); *Titinek eta Pascualek espero baino partida erosoago  
izan zuten* (Berria).
- Izen sintagma, absolutiboa: *Enpresa handiak txikiak baino baikorragoak  
dira*. Ergatiboa: *Mediku gazteek garai batekoek baino prestakuntza hobea*

<sup>15</sup> Axularrek *desideratzenago*, *erortzenago* eta *gordintzenago* formak darabiltza, *-ago* morfema aditz izenaren inesiboari erantsita.

dute. Datiboa: Niri baino agur beroagoa egin dizute zuri. Aditz izena: Jarre-ra militantea izatea baino errazagoa da tabernan egotea (Berria).

- Postposizio sintagma: Etxean baino lasaiago non? Edo adberbio sintagma: Atzo baino hobeto gaude gaur.
- Osagai bat baino gehiagokoa: Joseba lanean baino erneago ibili zen musean Andoni.
- Baldintza perpausa, alegiazkoa: Gazta-erdi bat ere atera zuten, kare-mazaz egina balitz baino gogorragoa (Berrondo).
- Izan aditza, den baino handiagoa gisako sintagmetan: Den baino ere hamar aldiz laburrago iduritu zitzaidan bide hori (J. B. Elizanburu).
- Ezezko polaritatea duten inor, ezer, inoiz eta inon gisako izenordain edo adberbioak ere izan daitezke baino-ren aurreko perpaus murrizta, erreferentziazko terminoa daramana; baino ...-ago konparazio morfemak baiezko esanahia ematen die: Inor baino ederrago zarena (Lazarraga); Maitasuna ezer baino indartsuagoa da (J. Altuna); Lapurren artean inon baino agintaribehar gehiago izaten da (Kirikiño); Sekula baino ere zoroago zebilkion bihotza (Barrensorro). ‘Beste denak baino ederrago’ esan nahi da lehen adibidean, ‘beste denbora guztian baino zoroago’, azkenekoan.

Gehienetan laburra da ezen ez formarekin eginiko perpausa: Hobea zela zuen erlijioa, ezen ez gurea (Agirre Asteasukoa); Hobe zuela goizegi ezen ez eta berantxe (J. B. Etxepare); Ezina azkarrago da ezi ez zina (Oihenart).

**32.3.1.1d** On adjektiboaren eta ondo/ongi adberbioen konparatiboak hobe eta hobeto/hobeki dira, hurrenez hurren<sup>16</sup>: Iaz baino festa hobekak antolatu dituzte aurten; Lanean baino hobeto gaude oporretan. Berez konparatiboak izanik ere, erantsi egiten zaie inoiz -ago morfema, hobeago, hobetoago/hobekiago forma erredundanteak eratuz: Bizitza hobeago baten itxaropena (EH);

---

<sup>16</sup> Ohiko bideko onago forma ere erabili izan da zerbait, gutxitan bada ere: Urrea izan ez balitz, gizonak askozaz onagoak, zuzenagoak eta apalagoak izango ziren (Agirre).

*Nork daki bere barrengo berri bakoitzak berak baino hobetoago?* (Villasante); *Ongi baino hobekiago nekien hori* (EH).

*Hobe izan* perifrasiak partizipioa nahiz aditz izena goberna dezake: *Hobe duzu horren neskamearekin ibili* (Lardizabal); *Hobe duzu alderdi bat galtzea* (Lardizabal); *Hobe du [...] bere txikien etorkizunari begiratu* (Etxaniz); *Isilik egotea hobe izango dut* (Mitxelena); *Hobeko dut isilik gelditu* (Mitxelena).

*Hobetsi* aditzarekin eginiko esaldiak, berriz, erreferentziazko terminoa aipatu gabe eratzen dira gehienetan. *Lasai bizitzea hobetsi du* esaldiaren gisakoak egiten dira maiz ‘zer baino’ esan gabe, erreferentzia puntu hori suposatuzat emanda edo.

### 32.3.1.2. Beste konparazio mota batzuk

**32.3.1.2a** *Nahiago izan, gurago izan, maiteago izan eta beharrago izan* aditz perifrasiak konparatiboak dira; bi nahi, gura, maite edo behar izateren maila alderatzeko erabiltzen dira: *Garai batean pilota genuen ogia baino nahiago* (Uztapide); *Jolasa baino ardo ona gurago dute* (Agirre); *Haietako batzuek maiteago dute gaur isiltasuna argibideak ematen ihardutea baino* (Mitxelena); *Inoiz baino beharrago du euskarak literatura gordina* (Berria). *Nahiago izan* aditz perifrasiak *nahi izan*-en jokabide bertsua du gobernatzen dituen perpausari dagokienez, hau da, partizipioa edo aditz izena erabiltzeari dagokionez (*nahiago dut {etorri ~ etortzea}*). Bizkaierako eskualde batean izan ezik, non *-tzea* erabiltzen den kasu guztietan, hau da jokabide nagusia: perpaus bietako subjektuak erreferentziakide direnean, partizipioa hobesten da: *Nahiago dut ondrarekin pobre bizi, ez aberats ondarrak ez dudala* (Bilintx), eta erreferentziakide ez direnean aditz izena: *Nahiago dut lan hori zuk egitea*. Esaldia konplexua denean, hala ere, konparazioaren perpaus biak agerian direnean, esate baterako, kontuak aldatu egiten dira eta konbinazio diferenteak dira posible, subjektuak erreferentziakideak izanik ere: *Marokok badaki, bertako sahararrek nahiago dutela Sahara aske batean bizitzea, euren menpe bizi baino* (Argia). *Nahi izan* soilak bezain lotura trinkoa ez du, hala

ere, *nahiago izan* aditzak partizipioarekin: \**Nahi dut ez ikusi*, baina *Nahiago dut ez ikusi*.

**32.3.1.2b** *Lehen* adberbioa ere izan daiteke konparazioaren ardatza; konparatiboa da berez adberbio hori, baina *-ago* morfema har dezake, *lehenago* forma eratuz: *Zu baino lehen joan dira gonbidatu gehienak; Larunbatean baino lehenago iritsi zara gaur*. Ohiko konparatiboak dira horiek, perpaus nagusian mendeko perpausa txertatua dutenak: *Zu (joan zaren) baino lehen joan dira gonbidatu gehienak; Larunbatean (iritsi zinen) baino lehenago iritsi zara gaur*. Konparazio termino biri dagozkien gertakarien denbora konparatzen da esaldi horietan.

Bada beste egitura bat, zeinetan data batek edo denbora jakina seinatzen duen sintagma batek ematen dion gertakari nagusiari erreferentzia: *Larunbata baino lehen amaituko dut lana*. Zaila da sintagma horretan perpausa ikustea, sintagmak berak —kasu honetan *larunbata* sintagmak— ematen baitu denbora erreferentzia. Gertakari batek seinala dezake data (*Gerra baino lehen hobeto bizi ginen*), baina horrelakoetan ohikoa da partizipioa erabiltzea (*Gerra hasi baino lehen hobeto bizi ginen*). Itxura konparatiboa dute esaldi horiek, baina gertakaria denboran kokatzea dute egitekoa, eta *baino lehen* forma, horrelakoetan, *aurretik* postposizioaren parekoa da (*larunbata aurretik, gerra hasi aurretik*).

*Lehen* nahiz *lehenago* formak erabiltzen dira esaldiotan, bai konparaziozkoetan bai denborazkoetan, baina diferentzia adierazlearekin doazenean *lehenago* forma hobesten da: *Zu baino askoz lehenago joan dira gonbidetuak; Larunbata baino egun bi lehenago amaituko dut lana*. (Ikus 35. eta 36. kapituluak).

**32.3.1.2c** Desberdintasuna adierazten dutenak izaki, perpaus hauek onartzen dituzte konparatuen arteko aldea seinatzen duten diferentzia adierazleak. Aldearen neurri zehatza ematen dute aditzera zenbatzaile zehatzekin eginiko modifikatzaileek (*bost metro luzeago, bi urte(z) zaharrago, lau egun lehenago*). Aldearen handia seinatzen dutenetan *askoz (ere)*, *askozaz (ere)* eta *askotaz (ere)* dira ohikoenak, batez ere mendebaldean erabiliak: *Lan batzuk besteak baino askozaz gogor eta neketsuagoak dira* (Eguzkitza); *Alde txarrak alde onak baino askotaz ere nabarmenago direla* (Mitxelena). Ohikoak dira, orobat,



*anitz(ez)* eta *hagitz(ez)*, ekialdean batez ere: *Primaderan eder da segur eguzkia, anitzez ederrago haurraren begia* (Oxobi); *Serafin guztiak baino hagitz garbia-goa zen* (Mendiburu); *Hagitzez hobeago da sailduak ohoratzea* (Xurio). Gisa horretakoak dira *hamaika aldiz* edo *mila bider* gisakoak ere: *Zeruak eta lurrak baino mila bider ederrago dena* (J. J. Mogel). Horietaz gain, *biziki, izugarri, itsuski, gogorki* eta *aise* erabiltzen dira inoiz, baita, lagunartean, *dezente* ere. *Arras, arrunt, guztiz* edo *oso*, aldiz, erabateko modifikatzaileak direnez, ez dira diferentzia adierazle gisa erabiltzen (\**guztiz txikiago*, \**oso trebeago*).

Esaldi hauetan aipatu gabe uzten da zenbaitetan konparazio perpaus mendekoa: *Aldizkariak askoz hobeak dira egungo egunean* (Mitxelena) —‘lehen baino’, alegia—. Hori gertatzen da *hainbat* diferentzia adierazlearekin eratzen diren *hainbat hobe(to)* edo *hainbat gaizto(ago)* gisako esapideetan, ‘zer baino hobeto’ edo ‘zer baino gaiztoago’ adierazi gabe uzten baitute. *Hainbat hobe(to)* forma ‘poza adierazten duen esapidea’ da, EHren arabera: *Jakina, irabaziz gero, hainbat hobeto, baina hori ez da helburu nagusia* (Berria); *Ikusten dut zenbaiten aurpegia arintzen: hainbat hobe!* (EH). *Hainbat gaizto(ago)*, berriz, ‘atsekabea adierazten duen esapidea’ da, eta ‘okerrago’ esan nahi du: *Hainbat gaiztoago egiten ez dutentzat* (EH); *Hainbat gaizto guretzat, ez badugu sinesten* (EH)<sup>17</sup>.

**32.3.1.2d** Aldea txikia dela adierazteko, berriz, *pixka(ren) bat, apur bat* edo *pitin bat* gisakoak erabiltzen dira: *Zeu baino pixkaren bat handiagoa* (Agirre); *Besteak baino burua apur bat argiago zuen bat aurreratu zen* (Otxolua). Orobat, *-xe* edo *-txo* atzizkiak —hau Hegoaldean, eta bereziki mendebaldean—: *handixeago, urrutixeago, gaizkixeago, hobetoxe, hobekixe, hobekixeago; atzeratxoago, aurreratxoago, beheratxoago, berandutxoago, goiztxoago, goratxoago* (§ 6.3.4, § 6.3.5).

**32.3.1.2e** Konparazioari balio enfatikoa ematen dio *baino ere* formak. Erreferentziazko elementuaren maila kontuan hartzeko modukoa dela suposatuz, lehen

<sup>17</sup> De Rijk: “[...] one may well suspect those phrases to be calques from neighboring Romance languages (cf. Bearnese *tan miélhou* and *tan pire* in the north, and Castilian *tanto mejor* and *tanto peor* in south)” (2008: 720).

terminoari dagokiona are handiagoa dela ematen du aditzera forma honek. *Laguna baino ere arinagoa naiz* dioenak laguna arina dela iradokitzen du, eta bera areago dela baieztatzen. *Bezperan baino ere hitsago jaiki zen* (Barbier); *Eta orain batere gaixorik izan ez banu baino ere askoz kontentuago bizi naiz* (Uztapide). *Ere* adberbioa *baino* morfemari lotua dago, eta ezin da bien artean etenik egin: \**Txoriak baino / ere arinagoa da*, baina *Txoriak baino ere / arinagoa da*.

*Are* indargarria, berriz, *-ago* morfemari dagokiola erabiltzen da: *Azalez aberatsa [...] izanik, are aberatsagoa da mamiz* (Mitxelena); *Elurra baino are zuriagoa* (EH); *Are gorrotagarriago zitzaion Isabela* (Mirande); *eta* espletiboa ondoan duela: *Irudi ederra osatzen zuen; are eta ederragoa besoak jaso eta bere bular eta sabeleko giharrak nabarmen gelditu zirenean* (EH). Erreferentziazko terminoak adierazten duenaren maila aintzat hartzeko modukoa dela suposatzen da esaldi hauetan ere; hala, esate baterako, *Nire etxea lagunarena baino are dotoreagoa da* esan daiteke lagunaren etxea dotorea dela aldeztatik esana denean edo, bederen, halakoa dela suposatzen denean. Orobat erabil daiteke *are* adberbioa erreferentziazko terminoa beste bat baino areagokoa dela esana denean: *Nire etxea lagunarena baino handiagoa da; zurea, berriz, nirea baino are handiagoa*. Esan bezala, *are* forma *-ago* mailakatzailerak daraman sintagmarekin lotua dago, eta ezin da haien artean etena egin: \**Elurra baino are / zuriagoa da*, baina *Elurra baino / are zuriagoa da*. Dagokion adjektibo edo adberbioa isilduta, berriz, *areago* forma eratzen da: *Lehen pozik baziren ordutik aurrera areago* (Etxaniz), ‘are pozago’, alegia.

*Oraindik/oraino* adberbioa ere erabiltzen da konparazioaren indargarri: *Ederra da bere egituren, eta ederragoa oraindik bere ariman* (EH); *Kaltegarriago oraindik izango litzateke haurrarentzat* (Villasante); *Gindoazela oraino gorago* (Larre). Ikusten denez, adberbio hau, *are* ez bezala, kuantifikatzaile konparatiboaren aurrean nahiz ondoan eman daiteke<sup>18</sup>.

---

<sup>18</sup> Hualde eta Ortiz de Urbina (2003: 827): “Sometimes instead of *are* ‘even’, the word *oraindik* ‘still’ is found in this construction, but it is generally seen as a calque from Spanish *todavía más* ‘still/even more’ to be avoided”. Dena dela, EHk onartzen du erabilera hau.

**32.3.1.2f** Bestalde, *-ago* morfema konparatiboa *baino*-ri erantsita, *bainoago* forma erabiltzen da zenbaitetan, dagokion adjektiboa edo adberbioa isilpean dela: *Ilun dago, baina ez kanpoko gaua bainoago* (Garde), ‘gaua baino ilunago’, alegia<sup>19</sup>. (§ 14.10).

**32.3.1.2g** Kapituluaren sarreran esan den bezala, mailaren gutxiagotasuna adierazteko ez du berariazko morfemarik euskarak. Horren lekuan antoniomaren areagotasuna seinalatzen da zenbaitetan; etxe bat beste bat baino ‘garestitasun’ maila apalagokoa dela esateko, adibidez, *Etxe hau bestea baino merkeagoa da* esaten da zenbaitetan, aukera hori beti egokia ez bada ere. Berdintasuna ukatuz adierazten da beste zenbaitetan gutxiagotasuna: *Etxe hau ez da bestea bezain garestia*. Eta testuinguru berezietan ‘gutxiago adjektibo/adberbio’ egitura erabiltzen da: *Ez da gutxiago bitxia*.

**32.3.1.2h** *Ezin ...-ago* zati biko morfemak dagokion adjektibo edo adberbioaren maila gorena, hots, superlatibo absolutua, adierazten du, *oso, hagitx, guztiz* eta horrelakoen pare: *Bidea ezin ederragoa zen ≈ Bidea oso-oso ederra zen; Ezin hobeto erantzun zion ≈ Guztiz ondo erantzun zion*. Zati biak batuta *ezinago* forma eratzen da, ondoko adjektibo edo adberbioaren maila gorena adierazten duena: *Bidea ezinago ederra zen; Ezinago gaizki moldatuak* (EH).

**32.3.1.2i** Instrumentalarekin edo ablatiboarekin eginiko *azken baserriaz gorago* edo *gure etxetik harago* sintagmak alderaketa adierazten dute —‘azken baserria baino gorago’ eta ‘gure etxea baino harago’ esan nahi dute, hurrenez hurren—, baina ez dute perpausa erazten: *Gure adimenduz gorago direnak* (Laphitz); *Ene ahalaz gorago den gauza* (Duvoisin); *Zeruaz gorago da, lurraz beherago, itsasoaz urrunago* (Hiribarren); *Atorra altxatu eta, bizkarretik beherago dugun haragi meta hartan, ze zigorrada!* (Manezaundi).

<sup>19</sup> Adjektibo soila ere erabili izan da inoiz, *-ago* morfema isilduta: *Nik uste baino luze izan da kartako parabola* (Lazarraga); *Gizon hauek izan dira egiazki, ez gauzen xuxentzaileak, baina gauza haien behinere baino trebes emailleak* (M. Elizanburu). Ez da ohiko erabilera hori, eta esan behar da egitura osoa ematea dela argiena (*uste baino luzeago*).

### 32.3.2. Zenbatekoa alderatzen duten desberdintasunezko perpausak

#### 32.3.2.1. Morfema eta kokapena

**32.3.2.1a** Zenbatekoaren desberdintasunezko konparazioa bideratzeko ere zati biko *baino ...-ago* morfema erabiltzen da; kasu honetan, ordea, *-ago* morfema *gehi* edo *gutxi* zenbatzaileei erantzen zaie, *gehiago* eta *gutxiago* kuantifikatzaile konparatiboak eratuz; *baino (...)* *gehiago* eta *baino (...)* *gutxiago* dira, bada, perpaus hauetako forma konplexuak. Areagotasuna adierazten dute biek, ‘askoan’ lehenak eta ‘gutxian’ bigarrenak, eta, hartara, ‘gehiagotasuna’ eta ‘gutxiagotasuna’ adierazten duten kuantifikatzaileak dira. Izena modifikatzen dute zenbaite-tan (*Lehen baino liburu gehiago irakurtzen dut orain*), eta aditza beste zenbaite-tan, adberbio gisa (*Futbola baino gehiago gustatzen zait saskibaloia*).

Bizkaieraz *baizen* forma erabiltzen da konparazio honetan ere, *baino*-ren pare: *Ni bere, Mikolen antzera, itsasoan bizi izan naiz lehorrean baizen gehiago* (Agirre).

*Ezen ez* forma erabiltzen da, orobat, alderaketa mota honetan ere —*ezi ez*, zubereraz—: *Jende gehiago hilarazi zuen bera hil zenean, ezen ez bizi zela* (Larregi); *Zure antzean gehiago fidatzen bazara ezen ez Jesu-Kristoren indarrean* (Xurio); mendeko perpausa nagusiaren ondoan ematen da, eta *ezen ez* forma perpausaren hasieran.

*Haboro(ago)* forma, bestalde, batez ere zubereraz erabiltzen da, *gehiago*-ren pare: *Egizu beste egunez baino haboro Meditazione* (Uskara Libru berria); *Haboro bekatu egiten dute, ezi ez lehen* (Tartas). Eta zubereratik kanpo ere erabiltzen dute inoiz gaur egungo zenbait idazlek: *Azkenean ez dakigu hasieran baino haboro, nazioa zer den* (Azurmendi).

*Baino* morfemaren ezkerrean erreferentziazko terminoa biltzen duen perpaus mendekoa ematen da, eta haren eskuinean, berriz, kuantifikatzaile konparatiboa. Hau da, bada, ohiko ordena: [mendeko perpausa + *baino* — (izena) {*gehiago* ~ *gutxiago*}] ([*Iaz baino turista gehiago*] *ibili da aurten*; [*Uste baino*

*gutxiago*] *iraun du partidak*). Ordena hori alda daiteke, jakina, *baino* buru duen sintagma eskuinera pasatuz (*Turista gehiago ibili da aurten, iaiz baino*).

**32.3.2.1b** Izenarekin doanean, haren ondoan kokatzen da eskuarki kuantifikatzailea, mugagabea, dagokion kasu marka edo postposizioa hartuta: *Zuk baino liburu gutxiago dut nik*; *Lehen baino jende gehiagok ezagutzen nau*; *Uste baino jende gutxiagori eman diote saria*; *Hori baino indar gehiagorekin egin behar duzu sarea*. Ez da ohikoa izena *gehiago*-ren ondotik ematea: *Euskal Herrian bai eta Frantziako bertze zenbait tokitan behar baino gehiago apez badira* (Hiriart-Urruti). *Haboro*, berriz, autore batzuek bederen izenaren ondoan nahiz aurrean ematen dute: *Ez dio deusek irabazi haboro ematen laborariari aziendak baino* (Intxauspe); [...] *hainbat ere haboro indar duke nitro gatzak* (Intxauspe).

Izenordainaren funtzioan ere erabil daitezke kuantifikatzaile hauek: *Gatz gutxi duela? Besteetan baino gehiago bota diot, bada* —‘gatz’ *gehiago*, alegia—. Beste batzuetan adberbioa da: *Gehiago txundituko ditugu arrotzak gure obra bat haien erdarara itzularaziaz* (Mitzelena). *Haboro* ere joan daiteke aditzarekin adberbio gisa: *Orok badu bere tenorea eta ontsa obratutako lanak haboro* (Oiz).

*Beldur*, *indar*, *arreta* eta horrelako izen batzuek forma arruntean eskuarki *handi* adjektiboa hartzen badute ere, eta gutxitan *asko*, konparazioan *gehiago* hartzen dute *handiago* baino maizago (*arreta handia*, bai, baina *arreta gehiago*, alegia)<sup>20</sup>.

*Baino...* *gehiago* formaren pareko esanahia izan dezake *adina ... eta gehiago* formak, baiezko perpausetan: *Botila honetan beste horretan baino ardo gehiago dago* — *Botila honetan beste horretan adina ardo eta gehiago dago*.

**32.3.2.1c** *Baino* morfemaren ezkerrean, berriz, erreferentziazko terminoa biltzen duen mendeko perpausa joan ohi da, mota askotakoa izan daitekeena, gainerako konparazio esaldietan bezala:

<sup>20</sup> OEH s. v. *gehiago*: “Si bien con sustantivos como *beldur*, *indar*, *arreta*, etc. aparece gralmente. *handi*, y sólo ocasionalmente *asko* (s. v. *asko*), en estos mismos contextos es *gehiago*, frente a *handiago*, la forma más usual”.

- Aditz eta guztikoa: Eskatu dudan baino gehiago eman didate.
- Aditz modala, uste izan, pentsatu edo horrelakoren bat, adizki jokatua gabe askotan: Behar baino huts gehiago egin zituzten jokalariek (Berria); Uste baino gehiago zor diogu Lizardiri (Mitxelena); Aurtengo jaialdiari dagokionez, pentsatu baino jende gutxiago bertaratu zen (Berria).
- Izen sintagma, absolutiboa: Kanpoko baino gehiago estimatzen du etxekoa. Ergatiboa: Hark baino lan gehiago egin duenik ez da asko izango gure herrian. Datiboa: Niri baino kasu gutxiago egin dizute zuri. Aditz izena: Egoanean egotea baino gehiago gustatzen zaio zerbaitean aritzea.
- Postposizio sintagma: Adinekoekin baino gehiago ibiltzen da hori gazteekin. Adberbioa: Atzo baino jende gehiago etorri da.
- Osagai bat baino gehiagokoa: Lagunek futbolean baino gehiago gozatzen du horrek liburuak irakurtzen.
- Baldintza perpausa, alegiazkoa: Munduko aberatsena balitz baino amets gehiago egiten du.
- *Izan* aditza, *den* baino gehiago gisako sintagmetan: Ezin dugu garen baino gehiago garella pentsatu (Berria).
- Ezezko polaritatea duten *inor*, *ezer*, *inoiz* eta *inon* gisako izenordain edo adberbioak ere izan daitezke erreferentziazko termino, baiezko esanahiarekin: Hiri batzuetan beste inon baino mirari gehiago egin izan zituen Jesusek (Iraizoz); Sekulan baino kemen gehiago aurkitzen dugu geurongan (Orixe); Inoiz baino gehiagoren eske (Mitxelena). ‘Beste hiri guztietan baino mirari gehiago’ esan nahi du lehen adibideko esaldiak.

### 32.3.2.2. Zenbatekoa adierazten dutenak

**32.3.2.2a** Maila alderatzen duten desberdintasunezko perpausen ezaugarri bertsuak dituzte zenbatekoa alderatzen dutenek ere. Hala, esate baterako, desberdintasunaren aldea mailakatzen duten diferentzia adierazleak onartzen di-

tuzte hauek ere: zenbatzaile zehatza (*Lapurdik baditu Zuberoak baino dozena bat aldiz haboro biztanle (Herria)*); askoz (ere) gisakoak (*Nahiko zabaldua dago jada sailkapen nagusia, baina askoz gehiago zabalduko da gaur (Berria)*); Askokostatzen da hitz bat bestearen atzetik kateatzea baina askoz ere gehiago lerro artekoa idaztea (*Berria*); apur bat gisakoak (*Ehun lagun eskas atera ziren, aurrekoetan baino apur bat gutxiago (Berria)*); -xe atzizkia (*Asteburu honetan jende gutxiago ibili da*).

Ere indargarria har dezake *baino*-k zenbatekoa adierazten duten perpaus haue-tan ere (*Beste guztiek baino ere gehiago erretzen du gizon horrek*). Are adber-bioa, berriz, *gehiago* edo *gutxiago* morfema daraman sintagmarekin doa: *Gipuzkoako eraikuntza arloko langileen % 90ek greba egin zuten atzo, huelgaren lehen egunean baino are gehiago (Berria)*; *Seguruenik ni baino informatuago egonen dira horiek ETBko kanalen produktuez, nahiz eta nik baino are gutxiago ikusi (Berria)*.

Gehi zenbatzailea agerian ez dela, *baino areago* konparazio morfema erabil-tzen da inoiz: *Zinemak baino areago, Marlene Dietrich aingeru urdinak sor-gindu zuen (Berria)*; *Traineruak eta arraunlariak baino areago haizea izan zen protagonista nagusia Getxon (Berria)*. Erreferentziazko bigarren terminoa biltzen duen *baino*-sintagma isilduta ere erabil daiteke *areago*: *Trafikoa area-go mugatu nahi dute, mehatxaturiko espeziak jagoteko (Berria)*.

**32.3.2.2b** Predikatu gisa erabiltzen dira zenbaitetan *gehiago* eta *gutxiago* zenbatzaileak, zenbatekoa baino *areago* maila alderatzen dutelarik: *Ez da mutila nagusia baino gehiago*; *Gizona beste abereak baino gehiago da, gorago dago (Eguzkitza)*; *Gai horretan, noski, edozein euskaltzale da ni baino gehiago (Mitzelena)*; *Eta ni beti izan naiz besteak baino gutxiago ez izatekoa (Gerrikagoitia)*; *Gutxiago denak gaizki ematen du, gehiago dena tentatzen (Txirrita)*.

Garai bateko testuetan *gehiagoa* forma mugatua ageri da inoiz, adjektibo gisa erabilia, ‘handiagoa’ edo ‘maila goragokoa’ adierazteko: *Aita San Inazio, zure milagroa [...] lehengo guztiak baino hau da gehiagoa (F. Imaz)*; *Eta baldin atakutzen bazuen, ikusiko zela nor gehiagoak ziren (Iztueta)*; *Gorputzez ez zen*

*besterik baino gehiago* (Lardizabal); *Gehiago haizela, zertarako diok?* (Udarregi).

**32.3.2.2c** Zenbaitetan konparazio perpausak benetako alderaketa baino areago alderaketa zuzentzailea ematen du aditzera. *Ostatua berritzen baino gehiago, egokitzen eta gaurkotzen ari dira* esaldian, adibidez, ez dira ‘berritzearen neurria’ eta ‘egokitzearena’ alderatzen, bietan zein den ‘egiago’ adierazten baizik. Gauzak muturrera eramanda, baieztapen bietan zein den egia eta zein ez adieraz daiteke egitura honen bitartez. *Behera bainoago gora begira hasi nahi du Alavesek (Berria)* esaldiak Alaves taldeak ‘behera’ ez, ‘gora’ begira hasi nahi duela ematen du aditzera. *Baino gehiago edo baino areago* formekin era daiteke alderaketa zuzentzailea: *Amodioz baino gehiago larderiaz nahi zinituzke arimak Jainkoari buruz ibilkatu* (J. P. Arbelbide); *Aditu batzuen ustez, nobela baino areago autobiografia da (Berria)*; *Egia esan, kontrabaxua musika-tresna baino areago, oztopoa dela esango nuke (Berria)*. *Bainoago* forma erabiltzen da inoiz mota honetako perpausetan: *Pasaian jaioren arren, itsasoak bainoago mendiak erakarri du gaztetatik (Berria)*; *Zelaian bainoago, harmailtan zegoen arreta (Berria)*; *Oraingo honetan gazia bainoago gozoa izan da Naroak lortu duena (Berria)*. Egitura honen parekoa da ez *A, B* baizik egitura: *Ez da nobela, autobiografia baizik*.

*Baino* soila erabiltzen da inoiz horrelako perpausetan: *Durango, herri baino data da gure kulturaren* (Egaña, in *Argia*); *Arazoa, juridikoa baino politikoa da (Argia)*; *Euskara Iparraldean bultzatzea gastua baino inbertsioa da (Deia)*; *Ekologia baino, politika izan da Moskuren zioa (Berria)*. Esan behar da, hala ere, ez dela hori ohiko erabilera, eta egitura osoa ematea dela argiena eta egokiena (*herri baino areago, gastua baino gehiago*)<sup>21</sup>.

**32.3.2.2d** Zenbatzailearekin doanean konparazio perpausaz gain egitura gehitzailea ere molda daiteke *gehiago* morfemarekin, hau da, gehikuntza adierazten duena. Hala, esate baterako, *Iaz hiru liburu irakurri genituen, eta aur-*

---

<sup>21</sup> Testu zaharretan ageri da inoiz *baino* soila zuzentzaileak ez diren konparazio perpausetan ere: *Ondo litzateke datorrela ene etxera neuk baino agindu dagiena* (Mikoleta).



*ten bi gehiago irakurri ditugu* esaldia bitara uler daiteke. ‘Aurten iaz (irakurri genituen) baino bi liburu gehiago irakurri ditugu’ gisa ulertzen bada, konparazioa dugu, eta, erreferentzia kontuan izanda, aurten *bost liburu* irakurri ditugula ematen da aditzera. Baina ‘aurten *beste* bi liburu irakurri ditugu’ gisa ulertzen bada, liburu kopuruen arteko alderaketa ez, baina gehikuntza adierazten da, eta aurten *bi liburu* irakurri ditugula esaten da; iaz hiru eta aurten bi, alegia. Adiera gehitzaile hau hartzen du esaldiak, *bi gehiago = beste bi* gisa ulertzen denean, eta *beste* erabiltzea da, hain zuzen ere, horrelakoen ordezko egokia: *Aurten beste bi irakurri ditugu. Bat zenbatzailearekin erabiltzen da maiz egitura gehitzaile hau: Hitz bat gehiago erran ere gabe* (Barbier); *Uko egin dio tresneria berritzeko zentimo bat gehiago gastatzeari* (Berria); *Hirugarren adierak pauso bat gehiago ematen du* (Berria); *Arrazoin bat gehiago beraz, hunen ez hutsegiteko* (Herria).

Zenbaitetan ‘berriz’ adberbioaren pareko esanahia du *gehiago*-k: *Ez dut gehiagoko egingo horrelakorik; Ez zen sekula gehiago etorri.*

**32.3.2.2e** Konparaziozko ohiko esaldietan mendeko perpausean ematen da erreferentziatzko terminoa, goiko adibideetan ikusten den moduan. Bada, ordea, beste egitura bat, zeinetan zenbatzaile bat den konparaziorako erreferentzia. *Bost liburu baino gehiago irakurri ditut* esaldian, esate baterako, zenbatzailea daraman ‘bost liburu’ sintagma da konparaziorako erreferentzia. Ez da erraza sintagma horretan perpausa ikustea; gehienaz ere, ‘bost liburu (diren) baino gehiago irakurri ditut’ gisako zerbait proposa daiteke, baina kontua da sintagma hauek aditzik gabe ematen direla beti, hau da, perpaus izaerarik gabe.

Izena zenbatzailearekin batera joatea da ohikoena egitura honetan, ez *gehiago*-rekin: *Liburu honek berrehun orrialde baino gehiago ditu*, bai, adibidez, baina *?Liburu honek berrehun baino orrialde gehiago ditu*. Joera nagusia da, bestalde, zenbatzailea daraman sintagmak eta *gehiago/gutxiago* kuantifikatzaileak kasu edo postposizio atzizki bera izatea: *Honetaz zerbait galdatu dit batek baino gehiagok* (Mitxelena); *Handiki etxetako alaba bati baino gehiagori hitz egindakoa zen gure mutilzaharra* (Agirre); *Batean baino gehiagotan iruditu zitzaion gure Praiskuri bere zaldia ikusten zegoela* (F. Bilbao); *Lege honek iraun zuen Espainian bortzahun urtez baino gehiagoz* (Etxeberri Sara-

koa). Bestelako jokabidea ez da, ordea, ezina; erreferentziazko zenbatzailea absolutiboa izan daiteke, *gehiago/gutxiago* morfema beste kasu batean egonda ere: *Zure liburu honetako artikulu bat baino gehiagotan belaunaldien borroka mintzatzen zara* (Mitxelena); *Bat baino gehiagoz ari da, beraz: bitaz gutxienez* (Mitxelena).

Beste egitura batzuk ere badira kopurua erreferentziazat hartzen dutenak eta konparazio perpausez bestelakoak direnak. Hala, esate baterako, *eta gehiago* forma duena: *Liburu honek berrehun orrialde eta gehiago ditu*. Edo *-tik gora* formakoa: *Liburu honek berrehun orrialdetik gora ditu*. Azken hau absolutiboan erabil daiteke, baina ez bestelako kasuetan: *Hamar lagunetik gora dabil-tza lanean*, baina *\*Hamar lagunetik gorak egin dute lan hori*, *\*Hamar lagunetik gorari eman diete saria*. Osagaien hurrenkera aldatuta eman daitezke horrelakoak: *Hamarretik gora lagunek egin dute lan hori*; *Hamarretik gora laguni eman diote saria*; *Milatik gora hautetsik parte hartuko dute biltzarrean* (Egunkaria).

### 32.3.3. Adiera superlatiboko konparazioak

**32.3.3a** Konparazio egitura batzuk alderaketa arruntetik haratago, konparatuei dagozkien ezaugarriak maila altuan ipintzeko erabiltzen dira, adiera superlatiboa iradokiz.

Galde hitzekin eginiko *zein baino zein ...-ago* eta *nor baino nor ...-ago* egiturako esaldiekin, eta horien antzekoekin, ‘elkarrekiko’ konparazioa eratzen da. Konparaturiko terminoak ezaugarri jakin batean bat datozela ematen dute aditzera; maila altuan bat, hain zuzen ere: *Zein baino zein txiroago, bata baino bestea dotoreago, nor baino nor txanbelinago* (Erkiaga); *Bederatzi mahaiko, eta zeinek baino zeinek jateko gogo ederragoa* (Etxaniz); *Arana Goiri eta Azkue [...] bat etorri ziren, nor baino nor amorratuago, Larramendiren kontra* (Mitxelena). Superlatibo absolutua adierazteko modu bat da hori: ‘oso txiroak’ zirela esan nahi du lehen adibideko esaldiak, eta ‘oso amorratuak’ azken adibidekoak. Konparazioa denez, adjektibo edo adberbio konparatiboa behar

dute esaldi hauek: *nor baino nor* {*amorratuago* ~ *txiroago* ~ *urrutiago* ~ *hobeto...*}. Hortaz, ez dira egokiak *-ago* gabeko *nor baino nor aritu* ziren gisa-koak; *nor baino nor gehiago aritu* ziren edo *nor baino nor gogorrago aritu* ziren gisakoak dira egokiak.

**32.3.3b** Konparazio termino bietan adjektibo bera —edo adberbio bera— duen egiturak ere ezaugarri bat maila altuan gertatzen dela ematen du aditzera: *Dena da eder baino ederragoa* (Mitxelena); *Zakurra bazetorren [...] makur baino makurrago* (Agirre); *Maiz baino maizago entzuna dute horren izena* (Mitxelena); *Ongi baino hobekiago nekien hori* (EH). Adjektibo edo adberbio bera izan beharrea sinonimoak ere izan daitezke: *Argi baino garbiroago erakusten digu aurkitzea ez dela aski* (Mitxelena).

**32.3.3c** Alderaketa prototipikoan konparatzen den nozioaren adibide nabarmen eta guttiz adierazgarria aipatzen du erreferentziazko terminoak: *elurra bezain zuri* (berdintasuna), *ikatz baino beltzago* (desberdintasuna). Superlatiboko adierazpena izan daitezke horrelakoak ere, ‘oso zuri’ eta ‘oso beltz’ gisa uler baitaitezke. Esapide eginak eratzen dituzte maiz, eta egoera kulturalaren arabera sortzen dira: *Musalen bezain zaharra*; *Garizuma baino luzeago*; *Ea, ba, laster etortzen haizen aberatsago Rotxil bat baizen!* (K. Enbeita).

## 32.4. Parekotasunezko konparazio perpausak

### 32.4.1. *Bezala/legez* morfemekin eginiko parekotasunezko perpausak

**32.4.1a** Parekotasunezko perpausak bideratzen dituen morfema nagusia *bezala* adberbioa da. *Utzi genuen bezala dago etxea* esaldian, adibidez, termino biri dagokien egoera parekatzeko erabiltzen da *bezala*, hots, ‘utzi genuen uneko’ etxearen egoera eta ‘oraingoa’ parekatzeko —‘etxea X egoeran utzi genuen (orduan)’ eta ‘etxea X egoeran dago (orain)’ dira esaldi horretan ulertzen diren perpaus biak—. Mendeko perpausak eta *bezala* morfemak adberbio sintagma eratzen dute: [*Utzi genuen bezala*] *dago*. Moduzko adberbioa da *bezala*, baina

egitura honetan egoeren, jardunen edo, zentzu zabalean, moduaren berdintasuna —hau da, ‘parekotasuna’— adieraztea du helburu. *Legez* (*lez*) adberbioa ere erabiltzen da mota honetako perpausetan, bizkaieraz batez ere: *Lagun hurkoa geure burua legez maitatu behar dugu.*

Perpaus nagusian *hala* anaforikoa ematen da zenbaitetan: *Eskuak, oinak eta sabelak elkarri lagundu behar dioten bezala, hala gizon batzuek besteei, galduko ez badira* (B. Mogel); *Eta erran zuten bezala, egina izan zen hala* (Goihetxe).

*Bezala* morfemarekin eginiko perpausen esanahi bera izan dezakete moduan sintagmarekin egindakoek: *Zuk esan duzun moduan gertatu da dena = Zuk esan duzun bezala gertatu da dena. Moduan*-ekin eginikoa, ordea, ohiko perpaus erlatiboa da, *modu* izen-ardatza duena, eta ez du onartzen aditza isilduta eraturiko perpaus murrizta: *Zuk egin duzun moduan egin dut nik ere*, baina *\*Zuk moduan egin dut nik ere*. Konparazioan, esaldiko perpaus biek aditz bera dutenean, isilpean gera daiteke hura konparaziozkoan, eta ageri diren sintagmek berekin dute perpausentzako dagokien marka (*zuk bezala, lagunari bezala, lagunekin bezala...*). Ez da hori gertatzen, ordea, ohiko erabilera bederen, *moduan* morfemarekin eginiko perpausetan (*\*zuk moduan, \*lagunari moduan, \*lagunekin moduan*); gauza bera gertatzen da aditzondoekin (*atzo bezala*, baina *\*atzo moduan*), batzuek *?beste askotan moduan* eta *?egunero moduan* gisakoak esaten badituzte ere. Izan ere, aurrean absolutibo mugagabea duela ere erabiltzen den arren, *bezala* morfemaren antzera (*lagun leial moduan*), genitiboaren ondoko postposizio gisako erabilera du ohikoena (*zure moduan, lagunen moduan, atzoko moduan*, baina *\*zure bezala, \*lagunen bezala, \*atzoko bezala*); oinarrian izena duen sintagma gisa ere joka dezake, are adjektiboaren laguntza duela: *Lanean jardun dut betiko modu aspergarrian.*

Oinarrian *lege* izena duen *legez* morfemak, berriz, erabilera zabalagoa du: konparazio perpaus laburra era dezake (*besteei legez, lotsaz legez, askotan legez, beti legez, urtero legez*), baina genitiboaren ondoko postposizio gisa ere erabiltzen da zenbaitetan (*betiko legez, urteroko legez*).

*Bezala*-perpausen errankideak dira, halaber, [genitiboa + *pare*] egiturako postposizio sintagmak: *Pilota daukatela otoitzaren pare* (Xalbador); *Beti es-*

*tatu onean agertu baita publikoan, bere partidak ongi prestatzen dituen pilotari zintzoaren pare* (Larre). Baina hauek ere ez dituzte konparazio perpausak eratzten. Izenlagun bilakatua ere erabiltzen da sintagma hau, *-ko* atzizkia hartuta: *Ez dut ezagutzen horren pareko pilotaririk*.

**32.4.1b** *Bezala/legez* morfemen ezkerrean erreferentziazko terminoa biltzen duen perpaus mendekoa joan ohi da, aditz eta guztikoa zenbaitetan eta aditza isilpean duen perpaus laburra beste batzuetan, gainerako konparazio perpausetan bezala:

- Aditz eta guztikoa: *Hitz egiten duen bezala idazten du; Merezi duzun bezala ordainduko dizute; Gizona gizonari dagokion legez jokatzeko ikusteak [...]* (Mitxelena)<sup>22</sup>. Adizki laguntzailea isilduta, partizipioa da gehienetan agerian dena: *Hitz egin bezala idazten du; Merezi bezala ordainduko dizute*. Testuinguruak argitzen du, ohi bezala, zein den partizipioari dagokion balio aspektuala eta zein diren isilpeko pertsona-denborak. Ekialdean bestelako aspektu marka duten adizkiak ere erabiltzen dira: *Jinen bezala joanen dira*. Azken hauek baieztapen biren egia markatzeko erabiltzen dira, batez ere; ‘jinen dira’ eta ‘joanen dira’, biak gertatuko dira.
- Aditz modalak eta *uste izan* gisakoak, adizki laguntzailerik gabe sarritan: *Semeak, ahal bezala, geldiarazi du zaldia* (Hiriart-Urruti); *Nahi bezala bizi ziren; Ez zitzaizkion gauzak, berak uste bezala egokitu* (Berrondo); *Hori ez da zuk uste duzun lez* (Etxeita).
- Izen sintagma, absolutiboa: *Etxekoak bezala tratatzen ditugu gonbidatuak*. Ergatiboa: *Mintzaira guztiek bezala, baditu euskarak ere zenbait itzal* (Hiriart-Urruti). Datiboa: *Mutilei legez ordaintzen zaie neskei lantegi honetan*.
- Postposizio sintagma: *Neguan bezala ibiltzen dira udan*. Edo adberbioa: *Beti legez saiatu gara gaurko partidari*.

<sup>22</sup> OEH s. v. *legez*: “Precedido de una oración de relativo, en Lazarraga y en los textos vizcaínos antiguos domina la construcción *-ena legez* [...]. En el siglo XVIII *-ena legez* alterna con *-en legez* en Cardaberaz [...], y a partir del s. XIX sólo se encuentra la primera construcción en Astarloa y modernamente, en verso, en F. Etxebarria (alternando con *-en*)”.

- Osagai bat baino gehiagokoa: *Loreak udan ihintza bezala maite dut dama gazte bat* (Bilintx); *Oinaze bizitan aurkituko da, emakumea erdiminetan legez.*
- Baldintzako perpausa, alegiazkoa: *Aberatsak balira bezala bizi nahi zuten, hots, ‘aberatsak balira biziko liratekeen bezala bizi nahi zuten’.*

**32.4.1c** Mendeko perpausean alegiazko baldintza duten esaldiak aipatu dira aurreko paragrafoan. Axularrek *ba-* aurrizkiaren lekuan *bait-* aurrizkia erabili zuen horrelako esaldietan (*geure bizitzearen [...] jaun, jabe eta nagusi baikina bezala; erran bailu bezala; bat bailira bezala*); *-n* morfema erantsitako *bailitzen legez* gisako formak erabili zituen Añibarrok (*[...] zerutik jaitsiriko Aingeruak bailitzen legez*). Geroztik autore batzuek (Agirre, Lauaxeta, Kiriño, Etxaide, Villasante...) *bezala* edo *legez* gabe erabili izan dituzte gisa horretako formak, batez ere hirugarren pertsonako *l-* dutenak eta bereziki sintetikoak, hala nola, *bailitzan, bailiran* edo *bailuen* gisakoak, *balitz bezala, balira bezala* edo *balu bezala* gisako formen pare<sup>23</sup>. Eta gaur egun ere erabiltzen dituzte idazle zenbaitek horrelako formak: *bailitzan, bailiran, bailuen, bailuten, bailegoen, baileuden, bailebilen, bailetorren, baileukan...*<sup>24</sup>. Adibidez: *[...] plasma baten atzean ezkutatu da [...], kazetari baten presentzia hutsa bere kontrako konplota bailitzan* (Lertxundi); *Esku batean, pañelua bailitzan, paper bat zekarren* (Atxaga); *Bide nagusiak herriak erdizkatzen zituen, hutsaren hurrengoak bailiran* (Borda); *Katuak ere begiratu egin dio, jabearen besoetan egoteaz harro bailegoen* (Saizarbitoria); *[...] eztulka hasten zen, karkailaren desmasiaren ondorioz, bere pipako kea irentsi berria bailuen* (J. A.

---

<sup>23</sup> R. M. Azkuek aipatzen du erabilera hau: “[...] *bait* causal, con su sinónimo bizcaino *baist* y *bai...n* como si [de *bailetorren, bainintzan*]” (Azkue 1925: 258). A. Irigoienen iritziz “*Bailitzan, bailiran* typokoak [...] solezismoen bidetik abiatuakoak” dira (Irigoien 1990: 114).

<sup>24</sup> Hauek dira *Eguno Testuen Corpusean* aurkitzen diren agerpenak: *bailitzan* 3.885 (*bailitzen* 67), *bailiran* 1775 (*bailiren* 113), *bailuen* 253 (*bailuan* 73), *bailegoen* 112 (*bailegoan* 28), *bailuten* 65, *baileuden* 39, *bailituen* 34 (*bailituan* 10), *bailebilen* 21, *bailihoan* 14, *baileukan* 8, *bailihoazen* 5, *bailetozen* 5, *bailetorren* 4, *baileraman* 4, *baileramaten* 2, *baileramatzan* 1... Lehen eta bigarren pertsonetako formen agerpenak urriagoak dira, eta zenbaitean anbiguoak dira, kausazkoak ere izan baitaitezke (*baikenuen = bagenu bezala/genuelako*).

Arrieta); *Hala ere, errudun aurkitu izan bailuten, aberritik alde egiteko eta Masiliako harresietan gordetzeko agintzen diote* (X. Amuriza); *Zerbaiten bila bailebilen gela batetik bestera sartu-irtenean hitz egiten dio* (Saizarbitoria). Batez ere idatzian erabiltzen dira forma horiek, eta erabiliagoak dira, oro har, ohiko bidetik eraturiko *balitz bezala* eta *balu bezala* modukoak (ikus 34. kapitulua).

**32.4.1d** Parekotasunezko konparazioak ez du, bistan da, alderaketa mailakatzeko duen diferentzia adierazlerik izaten (\**askoz bezala*, \**bi aldiz legez*). Alderaketari enfasia edo indarra emateko, hala ere, *-(t)xe* atzizkia erantsi dakieke *bezala* eta *legez* morfemei, *bezalaxe* eta *legetxe* formak eratuz: *Beste herritar guztiak, herriko jaietan bezalaxe apain, Tolosa aldera begira zeuden* (Azkue); *Etorri naiz joan nintzen bezalaxe* (Apaolaza); *Fraideok zeuk legetxe maitatzen dugu* (Gandiaga). Galdegai gisa erabiltzen dira batez ere forma horiek dituzten sintagmak, baina mintzagai ere izan daitezke: *Ezer igaro ez balitz bezalaxe, berriro hasten da* (ArgiDL); *Gaixoa pozez galduta dabil usakume bat legetxe* (Gandiaga). Balio intentsiboa du, halaber, *bezal(a)-bezala* formak: *Buruzagiak agindu bezal-bezala erran zioten* (Mirande); *Guk bezal-bazala, beraz* (Epaltza); *Behar diagu kantatu orduan bezala-bezala* (Casenave-Harigile). *Bezalatsu* formak, berriz, enfasia ez, baina hurbiltze balioa du, parekotasuna gutxi gorabeherakoa dela adierazten baitu: *Beti bezalatsu zegoen dena* (Txillardegia); *Alemanez gertatu ohi den bezalatsu* (Mitxelena); *Nahiz gero euskara ongi ikasi, ez dut dudarik haiei ere guri bezalatsu gertatzen zaiela* (Salaburu), ikus § 5.2.

**32.4.1e** Parekotasunaren adierazpenean ez dago, esan bezala, desberdintasunezko konparaziorik, hau da, gehiagotasun-gutxiagotasun bereizketarik. Egin daitekeena parekotasuna baieztatzea edota hura ukatzea da. Ukoa ez adberbioaren bitartez adierazten da, ezetza aditzari dagokiola: *Maite gaitu beste inork maite ez gaituen bezala*. Mendeko perpausoko aditza isilpean bada, berriz, *ez bezala* segida geratzen da agerian: *Maite gaitu beste inork ez bezala*. Perpaus murrizta dela-eta, maiz gertatzen da aipaturiko segida: *Bestela, oraingoek ez bezala pentsatuko dutela segur da* (Mitxelena); *Duela bi urte ez bezala, esperantzaz beteriko egoeran aurkitzen gara* (Egunkaria); *Jaiak edonon dira jai, baina inon ez legez arrantzaleen artean* (Agirre). Per-

paus osoa agerian deneko egitura ikusita, pentsa daiteke *ez* adberbioa isilpeko aditzari dagokiola, eta, hortaz, ez dela *ez bezala* esapide finkoa eratzen. Halaz ere, segidaren maiztasun handiak forma hori finkatzeko bidean bederen jarria duela ere iritzi daiteke, *ez bezalako* forma eginaren pare. Hala, *NASAk ez bezala*, *ESAk ez du Marte ikertzeko epe luzeko programarik (Berria)* esaldiko perpausaren irakurketa, adibidez, ez da *NASAk ez duen bezala*, baizik eta *NASAk duen ez bezala*.

### 32.4.2. *Bezalako/legezko* formekin eginiko parekotasunezko perpausak

**32.4.2a** *Bezala* eta *legez* adberbioei *-ko* atzizkia erantsita *bezalako* eta *legezko* forma adjektibalak eratzen dira. Izenlagun izan daitezke (*hau bezalako etxea*; *hura legezko laguna*), eta baita izen predikatu ere (*gu bezalakoia (da)*; *ni legezkoa (zara)*). Bizkaieraz *lako* erabiltzen da maiz —aldaera, *lango*— forma hauen lekuan (*hau lako laguna*; *hura langoa da*); *lasoko* forma ere zerbait erabilia da bizkaieraz. Forma hauek egoera-jardunen parekotasuna baino arago izaerena ematen dute aditzera.

Parekotasun esaldien egitura gordez, erreferentziatzko terminoa biltzen duen perpausa izan dezakete aurretik forma hauek, aditz eta guztikoa nahiz laburra: *Eta egundaino izatu ez zituen bezalako atseginek hartu zioten bihotza* (Joanategi); *Buruetan dituzte idiskoak bezelako adarrak* (B. Mogel); *Aurreko liburuxka biei bezalako abegia azaltzen badiezue, [...] azkenengoak ez dira izango* (Basarri); [...] *konturatuko ez banintz lezko agiria egin diodanean [...]* (T. Etxebarria); *Nik ez nuen izan gaur gehienek duten lako aukerarik* (Gerrikagoitia).

**32.4.2b** Predikatu gisa ere erabiltzen dira, esan bezala, eta *izan* dute gehienetan loturako aditza: *Gaztetan ez dun orain gu bezalakorik (Iraultza)*; *Bakoi-tza ager bedi beraz, beti den bezalako* (Goihetxe); *Ni izan naiz halako batek merezi bezalakoia* (Txirrita); *Izan bedi nigatik nai duen lezkoa* (Astarloa); *Ar-nasa izotza lakoa zeukan* (J. Altuna); *Ez zara zu besteak langoa* (Agirre).



Predikatu funtzio honetan *bezala* soila ere erabiltzen da inoiz: *Asko du dizipuluak bere maistrua bezala den* (Leizarraga); *Ene [molde] haur ez baita zurea bezala* (Axular); *Zer nahi duzu, Kattalin? Bakoitza den bezala da* (Manezaundi); *Terex gaixoa, gaztea landare bat bezala da* (Larzabal); *Landare bezala gara: tokatu zaigun lur-puska maite dugu guztiz* (Txillardegia); *Eguna bezala da harentzat arratsa* (Uztapide); *Gu bezalaxe dira animaliak* (A. P. Iturriaga)<sup>25</sup>.

Perpaua esaldi osoari dagokionean, mintzagai gisa, *bezalako* formak ez du hartan lekurik, mintzagaia ez baita predikatua: *Aita bezala, semea ere mediku ona da*, bai, baina \**Aita bezalakoa, semea ere mediku ona da*; perpaua nagusiaren ondotik doazelarik, berriz, biak dira posible, baina esanahi desberdina dute: *Semea ere mediku ona da, aita bezala* esaldian esaldi osoari dagokio *aita bezala*, mintzagaia aurrean denean *bezala*; *Semea ere mediku ona da, aita bezalakoa* esaldian, berriz, *bezalakoa* adjektiboa da, *ona* adjektiboaren aposizio.

**32.4.2c** Adjektiboa modifikatuz ere erabiltzen dituzte batzuek forma hauek: *Zer uste zenuen bada, goierritarrek bezalako bastoak direla hemengo neskatxa gazteak?* (Altzaga); *Berau, Jaunari eskerrak, beti bezalako azkarra, otzana, aldarte onekoa eta lagungina dator* (Azkue); [...] *ez da edozein irtengo Uzkudun bezalako ona* (Euskal Jokoa); *Ez ginela gu esaten zuten bezalako txarrak* (A. Zinkunegi). Horrelakoak, ordea, ez dira ohikoak, adjektiboen maila-berdintasuna adierazteko *bezain* forma baita jeneralean erabiltzen dena (*bezain* {*bastoak / azkarra / ona / txarra...*}). Adjektiboa izen sintagmaren barnean denean *bezalako* eta *bezain* morfemak erabil daitezke, biak, baina ez dute guztiz esanahi bera. *Uzkudun bezalako boxeolari kementsuak gutxi izan dira* esaldiko *bezalako*-k *boxeolari kementsu* izen sintagmari dagokio, eta, hortaz, ‘zenbat boxeolari kementsu’ izan diren ematen da aditzera. *Uzkudun bezain boxeolari kementsuak gutxi izan dira* esaldiko *bezain* morfema, berriz, *kementsu* adjektiboari dagokio, eta ‘kementasun maila horretako zenbat boxeolari’ izan diren adierazten da.

<sup>25</sup> Garatek txartzat ditu *Baserrria ez da kalea bezala* modukoak, eta haien lekuan *bezalako* forma edo bestelako itzuli egokiren bat erabiltzea proposatzen du (1988: 61).

**32.4.2d** *Bezala* formaren antzera, *bezalako*-k, *lezko*-k eta *lako*-k ere hartzen dute balio indargarria duen *-(t)xe* atzizkia: *Bi uren artean igeri dagoen arraia bezalakoxea zara zu* (Aresti); *Zu bezalaxeko gaztetxo asko aitortu ditu* (M. Atxaga); *Donostian dendak, Parisen lezkotxeak* (T. Etxebarria); *Edonoren aurrean aurkezteko lakoxea zarela* (Otxolua). Balio indargarria du, halaber, *bezal(a)*-*bezala* errepikatuak: *Hau bezal-bezalakoa zen* (Izeta); *Beste ardi bat bezal-bezalakoa, agian* (Salaburu). Hurbiltze balioa du, bestalde, *-tsu* atzizkiak: *Etxe hura beste etxeak bezalatsukoa zen* (Larre). Adjektiboa denez, mailakatazaileria ere har dezake, ohikoa ez den arren: *Ondikotz! Gizon bat besteak bezalakoegi zenuten hor* (Mirande).

**32.4.2e** Finkatutako esapide gisa erabiltzen da *ez bezalako* forma, *ez* adberbioa zuzenean aditzari ez dagokiola eta, hortaz, perpausa eratzen ez duela: *Gelditu ziren guztiz bihotz-aldatuak, lehen ziren ez bezalakoak* (Ubillos); *Su gaitza genuen beti hirian egiten diren ez bezalakoetarik* (J. Etxepare); *Nirea ez bezalako txartel bat zela iruditu zitzaidan* (Lertxundi); *Ez du molekula-desberdintasunak egiten ugaztun bat beste bat ez bezalako* (Juan Garzia). Maiz erabiltzen da forma hau *inoiz*, *inor* eta horrelakoekin: *Inoiz ez bezalako bertsoak entzun ditugu gaur*; *Mundu guztitik egin dagizuen inork ez lako agurra* (Arrese Beitia); *Bestek ez bezalako dohai handiak dauzka Gipuzkoako bazter maiteak* (Iztueta).

### 32.4.3. *Bezala/legez* morfemak alderaketaz bestelako erabileretan

**32.4.3a** Parekotasunezko alderaketaz bestelako erabilera batzuk ere badituzte *bezala* eta *legez* adberbioek, ezkerrean perpausa dutelarik, hala nola, juntadura modukoa, denbora baliokoa, azalpenezko mintzagai gisakoa, kausazkoa edo egia indartzeko esaera modukoa. Perpausaz bestelako sintagmen buruan ere joan daitezke, hurbiltze balioa adieraziz edo postposizio sintagma arruntak eratuz.

Juntadura balioa har dezake egitura honek perpaus nagusiari *ere* adberbioa eransten zaionean: *Garia bezala, artoa ere igitaz ebakitzen da Uitzin* (Orixe);

*Baina Saizarbitoria ere hor dago zure liburuan, Txillardegi bezala (Berria); Euskal diputazioek bezala, Nafarroako Gobernuak ere eusten dio Euskaltzaindiarekin duen hitzarmenari (Berria). Ere adberbioa gabe ere egoera, jarduera edo modu biren parekotasuna baino areago baieztapen biren egiarena ematen da zenbaitetan aditzera: *Bustia da abereentzat guretzat bezala etsairik handiena* (Duvoisin).*

**32.4.3b** Zenbaitetan, denborazko balioa dute *bezala* morfemarekin eginiko perpausak, aditz eta guztikoez: *Ikusi zituen bezala, esan zien: Zoazte* (Ir aizoz); *Hitz horiek aditu zituen bezala, gizonak negar minari eman zion* (G. Arrue). Nahiz partizipio soila dutenek: *Gure ahoa ixten duk, hi agertu bezala* (Etxeberri Ziburukoa); *Donibane Gurutzak hitz horiek aditu bezala, minez samurtu zen erraietaraino* (Gaztelu). Denborari dagokion ‘parekotasuna’ ematen da aditzera horrelakoetan, hau da, aldiberekotasun estua edo berehalakotasuna (ikus 35. eta 36. kapituluak).

Joan gisako aditzekin doanean, berriz, gertakari biren aldibereko gauzatze progresiboa ematen du aditzera *bezala*-perpausak: *Etixerantz zihoan bezala, zihoan ere eguna argituaz* (Urruzuno); *Bizitzan aurrera goazen bezala gauza asko ikusten da* (Zendoia); *Jesus edadean aurreratuz zihoan legez, hala zihoan haziaz ontasun, eta arimako ondasunetan* (Uriarte); *bezala*-ren orde z neurrian, eran, heinean ezar daitezke: *Bizitzan aurrera goazen neurrian gauza asko ikasten da*.

**32.4.3c** Perpaus nagusian esaten denaren azalpen-ohar gisa ere erabiltzen dira forma hauekin eginiko perpausak, esaldiaren mintzagai: *Aurreikuspenak esaten zuen bezala, euria egin du goiz osoan; Partida, ikusi duzuen legez, erraz irabazi dugu; Laborarien lana nekeza da, dakizuen bezala*. Partizipioarekin ere egin daitezke horrelako perpausak, adizki laguntzailerik gabe: *Aurreikuspenak esan bezala*. Neke da horrelakoetan *bezala* edo *legez* morfemen aurrean erreferentziazko terminoa biltzen duen perpausa aurkitzea. Izan ere, esan bezala, konparatzeko baino areago esaten denaren azalpena emateko erabiltzen dira horrelako perpausak. Argi ikusten da hori ondoko esaldi bi hauek erkatuz: *Irakasleak esan duen bezala egin dute denek ariketa* eta *Irakasleak esan duen bezala, denek egin dute ariketa*. Lehenbizikoa parekotasunezko

konparazioa da —‘irakasleak egiteko esan duen bezala egin dute denek ariketa’, hots, hark esandako moduan, modu hartan berean—; bigarrena, berriz, perpaus nagusia esateko hiztunak ematen duen azalpenezko oharra da —‘ariketa denek egin dute, irakasleak esan du hori’—. Azken honen moduko perpausak ebidentzialak deitzen dira, *esan*, *aipatu*, *adierazi* eta horrelako aditzekin eratuak direnean, haietan esaten dena aintzat hartu, eta egiaztat ematen baitu hiztunak; hala, adibidean, ‘ariketa denek egin dutela’ egia da hiztunaren arabera, aintzat hartzen baitu irakasleak esana<sup>26</sup>.

**32.4.3d** Garai batean, berriz, kausa gisako azalpena adierazteko ere erabiltzen zen *bezala*-perpausa; perpaus nagusiak aipatzen duen gertakariaren arrazoia emateko, alegia: *Baina, nire jauna, nire aita gozoa, ona zaren bezala, urrikal zaitez* (Duvoisin); *Ingratu guztietarik handiena naizen bezala, zure miserikordia handienerat hel egiten dut* (Mihura); *Arina den bezala mutil Euskalduna, pilotak harentzat du gustu gehiena* (Hiribarren).

Erabilera horretarako, ordea, *bezala*-rekin eginiko perpausak baino ohikoagoak dira eta maiztasun handiagoz erabiltzen dira gaur egun *legez* morfemarekin eginikoak: *Gizon asko ziren lez, janari ta edari asko behar zituen* (Etxeita); *Oheratu zen, eta dena mankatuta zegoen legez, bertatik loak hartu zuen* (Uriarte). *Hargatik* anafora darama inoiz perpaus nagusian: *Atzetik dauzkan legez oin bi luzeago, hargatik nahi duenean egiten du salto* (De la Fuente). Erabilera honetan ere ez da parekotasunezko konparaziorik, kausa-ondorio erlazioaren adierazpena baizik. Hain zuzen ere, *-nez gero*, *-nez* edo *nola ... -n* formekin eginiko perpausen pareko esanahia du *-n legez* perpausak, eta beste forma horiek dira bizkaieraren eremutik kanpo batez ere erabiltzen direnak

---

<sup>26</sup> Bestetan perpaus hauen sinonimo izan badaitezke ere *-nez* formarekin eginak, *esan* gisako aditzekin eratuak ñabardura desberdinak eman ditzakete aditzera. Ebidentzialak dira —hau da, egiaztat hartzen direnak— *-n bezala* formarekin eginak; omenka hartuak baizik ez, berriz, *-nez* formarekin eginak. Alde hori dago, esate baterako, ondoko esaldi bi hauen artean: *Esan duten bezala, guztiz larria izan da istripua* —egiaztat hartua— eta *Esan dutenez, guztiz larria izan da istripua* —omenka aipatua—. Hitztunaren jarrera ez da agertzen, bestalde, *Istripua guztiz larria izan dela esan dute* esaldian.

(*mankatuta zegoen legez* = *mankatuta zegoenez* (*gero*) = *nola mankatuta zegoen*), § 38.8f.

**32.4.3e** Esaten denaren egia azpimarratzeko edo indartzeko *naizen bezala* gisako esamoldeak erabiltzen dira: *Antton Barandiaran naizen bezala diot* (Azkue); *Bai, Mayi, egia, ni hementxe naizen bezala* (Etxaide).

**32.4.3f** Perpausaz bestelako sintagmekin ere joan daitezke *bezala/legez* formak. Hurbiltze balioa eman diezaiekete sintagma horiei: *Gogogabe bezala zatorz* (Zaitegi); *Hantxe geratu zen gogortuta lez* (Erkiaga). Predikatuak dioenaren ‘antzeko zerbait’ adierazi nahi dela seinalatzen dute horrelako perpausak, ez hura zehatz-mehatz; ‘gogogabe’ zehazki ez, alegia, lehen adibidean, horren antzeko egoeran baizik, hau da, ‘horrela balitz bezala’. Neurria edo zenbatekoa adierazten duten sintagmekin doazenean izaten dute maiz hurbiltze balioa forma hauek; neurria gutxi gorabehera emana dela adierazten dute, *inguru* edo *gutxi gorabehera* esapideek bezala: *Haren alde atera dira laurahun gizon bezala* (Duvoisin); *Oren baten buruan bezala, etsitu zuen Joanesek* (Barbier); *Zenbat urte bezala?* (Orixe); *Urtarrilean, zenbat lez ikasle geratu ginela uste duzue?* (Kirikiño); ‘laurahun gizon {inguru ~ gutxi gorabehera}’, alegia, lehen adibidean.

Horren antzeko hurbiltze balioa eransten du *bezala* morfemak adizki nagusiaren segidan kokaturik denean, laguntzailea ondoan duela: *Milagro hau ikusi eta harritu bezala ziren* (Mendiburu); *Akitu eta ezindu bezala zen* (Larregi); *Egun hartarik zerua hetsi bezala zen* (Zerbitzari).

**32.4.3g** *Gisa(ra)*, *moduan* edo prolatiboko *-tzat* postposizioekin eginiko sintagmen parekoak ere moldatzen dira *bezala/legez* morfemekin, predikatu osagarri gisakoak. Ondoko esaldian juntaturik ematen dira *-tzat* eta *bezala* formekin eginiko sintagmak: *Ipintzen zaigu geure begion aitzinean etsenplutzat eta mirail bezala* (Axular).

*Bezala* hartzen duen izen sintagma mugagabea da maizenik: *Horra etorri zen lanera, ehule bezala, gure aitona* (Mixelena); *Onean, adiskide bezala hitz egingo zion Manueli* (Agirre); *Uztapide [...] bertsolari lez onena dela herri guztiak dio* (B. Enbeita); *Ordu berean adiskide bezala hartu zuten* (Narbaitz).

Garai batean mugagabea bezala mugatua ere ematen zen sintagma horietako izena: *Adorutzen dugula geure kreatzailea eta salbatzailea bezala* (Beriain); *Mundura etorri zara kontseilu handiko Aingerua eta Nazioen doktora bezala, gizon guztien argitzeko* (Gazteluzar). Baita pluralean ere: *Haren Ministroak bezala goberna dezaten Eliza* (Irazusta) —ez, alegia, *haren ministroek bezala*—, baina ikus esaldi hori bera izena mugagabearen duela: [*Aingeruek*] *haren ministro bezala goberna dezaten Eliza* (Astete). Gaur egun, berriz, gutxi erabiltzen da horrelakoetan izen sintagma mugatua: *Legezko semea bezala jarri zuten bataioko liburuan* (Etxaniz)<sup>27</sup>.

Absolutiboaz bestelako kasuetan ere joan daiteke *bezala* eta *legez* formen aurreko sintagma: *Kristauak bezala daukazun eta sinestatzen dituzun gauzak zein dira?* (Añibarro); *Sazerdote handiak bezala berak zure bekatu guztien barkazioa dizula* (Kardaberaz); *Apostolu guztien buruari bezala Pedrori berehala hasi zitzaion* (Lardizabal); *Santu guztien Erregina izateko esleiturik zeukanari bezala komunikatu zizkion beste kreatura guztiei baino grazia, eta dohain ugariagoak* (Gerriko). Dena dela, kasu horietan ez ezik, absolutiboan ere eman daitezke izen sintagma horiek. Añibarroren esaldiko *kristauak bezala* sintagma, hain zuzen ere, *kristau(a) bezala* ematen dute beste katixima batzuek; honako adibide honetan, berriz, esaldi berean ageri dira kasu marka duen izen sintagma eta absolutiboa: *Eta baldin ezdeusak bezala ez badut merezi mespreziorik baizen, zer ez dut merezi bekatore bezala?* (Duhalde); eta ondoko esaldiak, azkenik, jokabide bien adibide dira: *Hura guztia, euskaldunen buruzagi bezala, zuri dagokizula* (Axular); *Niri zure Jaunari bezala agur egiten badidazu* (Agirre Asteasukoa).

Aurretik emandako izen sintagma baten aposizio ere izan daiteke *bezala*-sintagma, eta horrelakoetan aurreko sintagmaren kasuan doa: *Jainkoa, gure errege bezala, beti goizetik arratseraino ongi egiten ari zaigu* (Gazteluzar); *San*

---

<sup>27</sup> OEH s. v. *bezala*, ‘en calidad de, como’ adieran: “Documentado desde Dechepare, es de uso gral. excepto en la trad. vizcaína. Hasta mediados del s. XIX se emplea precedido de un sintagma nominal en caso absoluto indeterminado, o, con casi igual frecuencia, determinado; a partir de dicha época apenas se encuentran ejs. con determinado”.

*Agustinek, frogatuak bezala, anitz gauza erraten du luzamendutan ibiltzeko puntu honen gainean* (Axular); *Jaungoikoari, gure jabe soberanoari bezala zor diogun errespetua...* (Gerriko).

**32.4.3h** Horrela moldatutako sintagmak ez dira, hala ere, beti egokiak. *Hartu* eta *eduki* aditzek, esate baterako, *-tzat* prolatiboa hobesten dute; zuzenagoa da, adibidez, *Sorgintzat hartu ninduten* esaldia *Sorgin bezala hartu ninduten* esaldia baino; edota *Nagusitzat daukate* esaldia *Nagusi bezala daukate* esaldia baino (EGPB, EGLU Laburra: 493; § 24.3.5.2).

Eta, bestalde, bigarren predikatu denean, egokiago eta zuzenago da *bezala* gabe ematea sintagma: *Misiolari ibili zen Afrikan*; *Soldadu joan zen*; *Maisu segitzen du*; *Partida bi irabaztea dugu xede*; *Alkate hautatu naute*. *Bezala* erantsi daiteke, hori bai, *balitz bezala* adiera duenean: *Misiolari bezala ibili zen* esan daiteke misiolari izan gabe misiolari itxuran ibili denarengatik.

Horrelako sintagmei *bezala* erantsiz, esaldi anbiguoak era daitezke, determinatzaile sintagmak *-a* daramanean —artikulua nahiz berezkoa—. *Aita bezala mintzo natzaizu* esaldiko *aita bezala* sintagma, adibidez, bitara uler daiteke: konparazio perpaus gisa —barneko aditza eskuragarri duena— ('Aita mintzo den bezala mintzo natzaizu', hots, modu berean) nahiz postposizio sintagma arrunt moduan ('Aita gisa mintzo natzaizu'). Anbiguotasuna saihesteko, egokiagoa da bigarren adierarako *gisa* edo *modura* postposizioak erabiltzea.

## 32.5. Eredu erromanikoko konparazio perpausak. Egitura eta motak

**32.5a** Perpaus erlatiboekin gertatzen den moduan, ohiko eredia jarraituz ez ezik, eredu erromanikoari jarraituz ere osatzen dira konparazio perpaus batzuk: *Aberatsa hain biluzgorri sortu zen, nola pobrea* (Axular) = *Pobrea bezain biluzgorri sortu zen aberatsa*. Bi morfema erabiltzen dira eredu honetako konparazioan: perpaus nagusiko morfema kuantifikatzailea edo parekatzailea (*hain*, adibidean) eta mendekoan kokaturiko konparazio morfema (*nola*). Men-

deko perpausean, bestalde, bigarren terminoa ematen da, erreferentziazkoa, konparazio morfemarekin batera ('nola *pobrea*').

Bi motatako esaldiak eratzen dira eredu erromanikoari jarraituz. [*Hain ... nola*] gisakoak daude batetik, goiko adibidearen modukoak. Perpaus nagusian *hain*, *hainbat* edo *hainbeste* kuantifikatzaileak dituzte, eta mendekoan *nola*, *zein (eta)*<sup>28</sup>, *zelan* edo *non* morfemak. Ordena finkoa dute mota honetako esaldiek, aurrean doa beti perpaus nagusia: *Non egiten da hainbat burdina nola Euskal Herrian?* (Etxeberri Sarakoa). Baina *\*Non egiten da nola Euskal Herrian hainbat burdina?* Alderaketa kuantitatibo-berdintasunezkoa ematen dute aditzera.

[*Hainbat ... zenbat*] edo [*hala ... nola*] gisako korrelazioa dutenak daude, beste aldetik. Aurrean joan daiteke hauetan ere perpaus nagusia: *Hainbatenaz izan zara altxatua, zenbatenaz apaldu nahi izan baituzu* (Mihura). Baina, ordena aldatuta, mendekoaren ondoan ere eman daiteke: *Zenbatenaz apaldu izan nahi baituzu, hainbatenaz izan zara altxatua*. Mota honetako esaldiekin alderaketa kuantitatibo-berdintasunezkoa eta parekotasunezkoa era daitezke.

**32.5b** Perpaus nagusian erabiltzen diren morfemak hirugarren mailako erakusletik eratorriak dira (*hain*, *hainbat*, *hainbeste*, *hala...*). Konparazio morfema gehienak, berriz, galdekatzaileak dira jatorriz (*nola*, *zein*, *zenbat...*).

Hauek dira [*hain ... nola*] gisako egituraren morfema ohikoak:

- maila: [*hain ... {nola ~ zein (eta) ~ zelan ~ non}*]
- zenbatekoa: [*{hainbat ~ hainbeste} ... {nola ~ zein (eta) ~ zelan ~ non}*]

Eta hauek [*hainbat ... zenbat*] gisako korrelazioak dituztenak:

- maila: [*hainbat ... zenbat*] eta [*hainbate(na)z ... zenbate(na)z*]
- zenbatekoa: [*{hainbat ~ hainbeste} ... zenbat*]

Parekotasunezko alderaketa, berriz, [*hala ... nola*] gisako korrelazioaz bideratzen da.

---

<sup>28</sup> *Zein eta* morfema *zeinda* idatzia ageri da gehienetan testuetan.



## 32.6. [Hain ... nola] gisako alderaketa

### 32.6.1. Alderaketaren osagaiak eta egitura

**32.6.1a** Esan den bezala, alderaketa kuantitatiboa bideratzen dute mota honetako esaldiek. Perpaus bi irudika daitezke hauen azpian ere, ohiko eredu-koetan bezala. Hauek dira goian emandako *Aberatsa hain biluzgorri sortu zen, nola pobrea* adibideko esaldiaren azpian diren perpausak: [*aberatsa X biluzgorri sortu zen*] eta [*pobrea X biluzgorri sortu zen*]. Biluzgorritasunaren maila adierazten du *X*-ak; horixe da *biluzgarri* ardatzak seinalatzen duen konparazio gaia. Bigarren perpausa aurrekoan txertatua ematen da, *-n* edo *bait*-menderagailuak aditzari atxikita dituela eta nagusian den konparazio ardatzarekin bat duen osagaia hutsik dela; hutsik dira, halaber, nagusiarekin bat diren gainerako osagaiak ere, aditza salbu, zeina isilpean nahiz agerian egon baitaiteke: *Aberatsa hain biluzgorri sortu zen, nola ∅ (sortu baitzen) pobrea*. Ikusten denez, aditz eta guztikoa izan daiteke mendeko perpausa, ohiko eredu-koetan bezala (*nola sortu baitzen pobrea*), baina baita perpaus laburra ere, perpaus biek aditza bera dutenean (*nola pobrea*).

**32.6.1b** Berdintasuna ematen dute aditzera mota honetako esaldiek. Morfema kuantifikatzailea adjektibo-adberbioekin doanean mailari dagokio berdintasuna: *Espainiako errege ez zen hain dohatsu izan behin ere, nola baitzen, arrats hartan, Migel Pocodineru* (Barbier); *Hain ongi dagokio gaiztoari infernua nola onari paradisua* (Axular). Zenbatekoari, aldiz, izenarekin edo aditzarekin doanean: *Baldin egin balitz euskaraz hainbat liburu nola egin baita latinez, frantsesez edo bertze erdaraz [...]* (Axular); *Arropako lutoari, ez zitzaion hainbeste begiratzen kolorera, zein eta umildade eta pobrezia* (J. J. Mogel). Desberdintasuna adierazteko, berriz, ez du eredu honek morfema berezirik. Egin daitekeena berdintasuna ukatzea da, eta hartara ohiko ereduko desberdintasunezko perpausen kidekoak eratzen dira. Hala, *Ez hainbeste ene dohain berria neurtzeko nola jostaketa egiteko, beste gauzetan ere pentsatu nuen* (Atxaga) esaldia, adibidez, *Ene dohain berria neurtzeko baino gehiago jostaketa egiteko [...]* esaldiaren parekoa da.

Konparazio mota honetan ere bi egituretako alderaketak era daitezke. Konparazio gaiak termino bietan duen maila edo zenbatekoa alderatzen da, hura eta hauek desberdinak direnean. ‘Aberatsaren *biluzgorritasun maila* <-> pobreaken *biluzgorritasun maila*’ konparatzen dira goiko adibidean. Konparazio gaia terminoetan dagoenean, berriz, ezaugarri biren maila edo zenbatekoa alderatzen da. *Lurrak hainbat buztin nola hondar behar du* esaldian, esate baterako, ‘lurrak behar duen *buztin kantitatea* <-> lurrak behar duen *hondar kantitatea*’ konparatzen dira (§ 32.1.2).

### 32.6.2. Mailaren alderaketa

**32.6.2a** *Hain* morfema usu erabilia izan zen konparazio perpaus hauetan xx. mendea arteko idatzietan; handik aurrera, autore gutxiren lanetan baizik ez da ageri<sup>29</sup>. Ordena finkoko egitura eratzen du, esan bezala, eta konparazio morfema *nola* da maiz, baina *zein* (*eta*) ere ohikoa da; bizkaieraz *zelan* eta gipuzkeraz *non* ere erabiltzen dira inoiz. Adjektiboekin zein adberbioekin joan daiteke. Hala, izenondoarekin: *Iturburura joatea ez da hain makur handia nola den tarteko horietan gelditzea* (Villasante). Predikatiboarekin: *Eztia erremediotako hain ona da, nola janaritako* (Duvoisin); *Zeren da guztiz hain gogorra zein diamantezko harria* (Mikoleta); *Bere atsekabea [...] izan arren hain sendoa zelan amarena* (Mogel); *Hain zegoen kontentu gure aberea, non dagoen Txinako enperadorea* (A. P. Iturriaga). Adjektibo gisa erabilitako izenarekin: *Euskara bat zen beretzat, eta hain euskara hangoa zein hemengoa* (Mixelena). Orobat, adberbioarekin: *Hain ongi pagatu behar da bata nola bertzea* (Axular); *Hain laster etorri ohi da bere haserrea zein eta bere errukia* (Añibarro); *Sekula ez da zaldunik izan damaz hain ongi zerbitzatua non Lanzarote Britainatik honantz zenean bildua* (Berrondo).

---

<sup>29</sup> OEH s. v. *hain*: “Documentado desde Dechepare, es de uso general hasta el s. XX, en que se hace escaso: además de en algunos textos de menores pretensiones de corrección, sólo se encuentra en Echeita, J. Etchepare, *ArgiDL* (165), Barbier, Villasante, Arradoy [Narbaitz] y Berrondo”.

*Hain gorri nola eskarlata* (Tartas) eta *Hain zuri zegoen bere aurpegia zein argizagia* (E. Azkue) esaldietako konparazioa prototipikoa da. *Halere hain maite naute nola artzainak otsoa* (Etxahun) esaldiak, berriz, agerikoa du zentzu ironikoa.

**32.6.2b** Inoiz *halako* morfema erabiltzen da *hain* morfemaren lekuan: *Dozenaka tragatzen zituen aleak [...]*, *halako aisa nola antxoa baleak* (Bilintx). Edo *hainbat*: *Ez da deus hainbat segur denik nola baita herioa* (Tartas). Ondoko testuan, berriz, *berdin* morfemak <*hain* + *adberbioa*> osagaiaren lekua hartzen du: *Berdin irri egin dezake, berdin maita nola jakintsurik argituenak* (J. Etxepare).

### 32.6.3. Zenbatekoaren alderaketa

**32.6.3a** Zenbatekoen berdintasuna seinatzeko *hainbat* eta *hainbeste* —la purteraz eta nafarreraz, *hainbertze*— morfema kuantifikatzaileak erabiltzen dira, eta konparazio morfemak *nola*, *zein eta*, *zelan* eta *non* izan daitezke<sup>30</sup>. Ordena finkoko egitura eratzen dute morfema hauek ere. Izenarekin joan daitezke morfema biak, izena kasu absolutibo mugagabea dela: *Ona izatekotzat lurrak izan behar du hainbat buztin nola legar* (Duvoisin)<sup>31</sup>; *Ematen da kasik hainbertze aguardient nola ziropa, gustuaren arabera* (Eskualdun Kozinera). Baita izenordain izan ere: *Munduko desgraziak [...]* *anitz dolore eta tormenta ematen, baina batek ere ez hainbat nola herioak* (Tartas) —‘hainbat dolore eta

<sup>30</sup> Erabilera honi buruz, OEH s. v. *hainbeste*: “Documentado tanto en textos septentrionales como meridionales desde mediados del s. XVII. Apenas hay testimonios del s. XX. Además del uso más extendido con *nola*, se encuentra con *zein* en Añibarro, con *zuiña* en Maister, con *zeinda* en J.J. Moguel y Astarloa, con *zelan* en Moguel y con *non* en Aguirre de Asteasu e Iturriaga”.

<sup>31</sup> Eredu erromanikoko eta ohiko ereduko esaldien baliokidetasuna ikusteko, argigarria da testu honek izan dituen bertsioretan erreparatzea: *hainbat buztin nola legar* (Duvoisin), *buztin adinbat hondar* (A. P. Iturriaga), *buztinik beste hondar* (Uriarte), *buztin bezainbat harea* (Intxauspe).

tormenta', alegia—; *Eta baldin kulpa bakar bat ikara eragiteko sobra bada: zer izango dira hainbeste eta hain pisuak, nola nireak diren?* (Kardaberaz) —‘hainbeste kulpa’, alegia—. Aditzarekin ere joan daitezke, adberbio gisa: *Halaber bezti dezagun pobre biluzgorria, zeren baita hainbat gusta nola Printze handia* (Etxeberri Ziburukoa); *Harritu zen jendea, baina ez orduan hainbeste nola gero* (Beobide).

**32.6.3b** Ezezka ematen dira maiz esaldi hauek, gorago esan den bezala, berdintasuna ukatuz: *Ezen hainbat gizon ez dik ezpatak hil munduan, nola atsegin soberak eman baitu putzuan* (Etxeberri Ziburukoa). *Hainbeste* morfema erabiltzen da bereziki maiz ezezka esaldiotan, desberdintasuna adieraztearekin batera bigarren terminoa nabarmenduz: *Ez da mundu guztian inor kapaz denik, dama, zu maitatzeko hainbeste nola nik* (Bilintx); *Hartzen duenean damu txit handi bat, ez hainbeste galdu duelako zerurako eskubidea [...], zelan bere aita hain on, eta hain maitegarriari egin dion bidegabea edo injuriazatik* (Mogel); *Ez du beste gauzarik hainbeste maitatzen, non garbitasuna* (Agirre Asteasukoa) —hots, ‘Ez du beste ezer maitatzen garbitasuna adina’—.

**32.6.3c** *Hainbat* morfemarekin eginiko esaldiek, bestalde, konparazioa ez, baina banakaritzako juntadura ematen dute aditzera zenbaitetan: *Bil zitzaten eriden zituzten guztiak, hainbat gaiztoak nola onak* (Leizarraga); *Probetxa ahal daitezke egun oroz, hainbat goizean nola arratsean* (Materre); *Berdin judegua, hainbat paganoa, Mahometanoa, Protestantea zein eta masoi artekoa* (Arrese Beitia).

## 32.7. [Hainbat ... zenbat] gisako korrelazioak

### 32.7.1. Mailaren alderaketa

**32.7.1a** Bietara ordena daitezkeen *hainbat* eta *zenbat* morfemen arteko korrelazioak maila berdintasuna adierazten du, konparatuak adjektiboak direnean: *Bakoitzak du frogaturen haren pazientzia hainbat izan dela luze zenbat pena larria* (Etxeberri Ziburukoa); *Zenbat ere erdiragarri izan baitzen Ama*

*eta Seme haien batzea Kalbarioko mendian, hainbat pozgarri izan zen orduan Amaren eta Semearen besarkatzea (Intxauspe).*

**32.7.1b** *Hainbate(na)z eta zenbate(na)z morfema korrelatuak ere erabiltzen dira mota honetako konparazioan<sup>32</sup>: Ezen zenbatenaz baitu luze pazientzia, hainbatenaz eman ohi dik gaztigu larria (Etxeberri Ziburukoa); Eta zenbatenaz baita handi gure premia, Jainkoaren faborea hainbatez da handia (Etxeberri Ziburukoa); Zenbatez triste bizia, hainbatez eder saria! (J. P. Arbelbide). Zenbatekoa adierazten duten morfemak dira esaldi horietan ageri direnak, baina, adjektiboekin doazenez, hauen maila da seinalatzen dutena.*

### 32.7.2. Zenbatekoaren alderaketa

**32.7.2a** Bietara ordena daiteke korrelazio hau zenbatekoa alderatzen duenean ere, hau da, morfemak izenarekin edo aditzarekin doazenean. Aurrean joan daiteke perpaus nagusia, mendeko *zenbat* morfema atzekaria dela: *Gizona hainbat da bere baitan zenbat baita zure begietan (Xurio); Pisatzen duzu hainbertze libera azukre zenbat ere baituzu libera zuku (Eskualdun Kozinera)*. Bestela ere egin daiteke korrelazioa, *zenbat* aurrekari dela. Hala, izenarekin: *Zenbat bekatu eragiten dituen [...], hainbat bekatuzko puñalka ematen dizkio bere arima gaixoari (Mendiburu); Herri honetan badira gutxienez, zenbat baserrietxe, hainbeste iturri (Iztueta)*. Edo izenordain gisa, *hainbeste* forma batez ere: *Zenbat platera beteta ekarri, hainbeste hustuta bidali (Txirrita)*. Aditzarekin ere joan daitezke: *Zenbat gizonak balio, hainbat lurrak (Duvoisin)*.

**32.7.2b** Perpaus bietako adizkiak isilduta, esaera moduko esaldiak egin daitezke: *Zenbat gizon, hainbat uste (Duvoisin); Zenbat ataka, hainbat matraka (EZBB); Zenbat sendagile, hainbeste erremedio (Gaztelu); Zenbat buru, hainbat aburu*.

<sup>32</sup> *Hainbatenaz* formari buruz, OEH s. v. *hainbat*: “Exclusivo de la tradición septentrional, prácticamente desaparece en el s. XX”.

*Zenbatenaz* eta *hainbatenaz* morfemekin eginiko korrelazioak ere zenbatekoaren alderaketa era dezake, mailaren alderaketa bezala: *Zenbatenaz zure buruari bortxa eginen baitiozu, hainbatenaz joanen zara aitzina bertutean* (Xurio).

## 32.8. Konparazio proportzionala eta progresiboa

### 32.8.1. Konparazio proportzionala

**32.8.1a** [*Zenbat (eta) -ago ... hainbat (eta) -ago*] gisako egitura duten esaldiek alderaketa proportzionala ematen dute aditzera. *Zenbat (eta) hurbilago egon, hainbat (eta) argiago ikusiko du afixa* esaldian, adibidez, afixa argiago ikustea hurbilago egotearen araberkoa dela esaten da.

Morfema bat baino gehiago dira egitura honetan erabiltzen direnak:

- [*zenbat (eta) -ago ... {hainbat (eta) -ago ~ orduan eta -ago}*]
- [*zenbatenaz (eta) -ago ... hainbatenaz -ago*]
- [*zenbatez -ago ... hainbatez -ago*]
- [*-ago (eta) -ago*]

*Zenbat* edo haren kideko morfema daraman perpausa mendekoa da (*zenbat hurbilago dagoen*), eta *hainbat* edo kidekoa daramana, berriz, nagusia (*hainbat argiago ikusiko du afixa*). Aditz eta guztikoa izan daiteke mendekoa, menderagailua aditzari atxikita duela (*zenbat hurbilago dagoen*). Askotan, ordea, partizipio burutuan ematen da aditza (*zenbat hurbilago egon*); partizipioaren aspektu balioa eta isilpeko adizkiaren denbora-pertsonak testuinguruak argitzen ditu, ohi bezala.

**32.8.1b** Batez ere Hegoaldeko tradiziokoa da gauzatze asko dituen [*zenbat -ago ... hainbat -ago*] gisako egitura<sup>33</sup>. Mendeko perpausak *zenbat*, *zenbat eta*

---

<sup>33</sup> OEH s. v. *zenbat*: “Documentado sobre todo en la tradición meridional. Al Norte sólo en Goyhetche, J. B. Elissamburu e Inchauspe”.

edo *zenbat ere* morfemak eraman ditzake: *Zenbat gehiago hiltzen ziren, hainbat gehiago zetozen* (Ubillos); *Zenbat xutago bidea, hainbat atsegino* (Os-killaso); *Zenbat eta haserreago, hainbat eta berba astunago* (Astarloa); *Zenbat eta itsasotik hurrerago, hainbat eta atsekabe handiagoa ikusten zen* (Agirre); *Zenbat ere ausarkiago aurreratzen garen, hainbat gogorragoa izango da hurrengoan oldarra atzeraka* (Mitxelena); *Zenbat ere biziago herria, orduan eta biziago gizaldien arteko etsaitasuna* (Mitxelena).

Perpaus nagusiko korrelatua *hainbat (eta) ...-ago* da maizenik: *Zenbat eta narago eduki, hainbat areago zetorkion oroimenera bere txoko atsegina* (Agirre); *Zenbat eta gorago igo bertutean, hainbat eta bortitzago izan ohi da kontzientziaren ausikia* (Villasante). *Orduan eta ...-ago* forma ere erabiltzen da, gipuzkeraz batik bat: *Lur hori zenbat eta gehiago lantzen dugun, orduan eta landare bikainagoak emango ditu* (M. Atxaga); *Horiek, zenbat eta pakezaleago ager, orduan eta beldurgarriago izaten direla* (Mitxelena). *Hainbatena ...-ago* formarekin: *Eri bat, zenbat ere etsiago dagoen, hainbatena hobeki agertzen da nolakoa den medikuaren jakintasuna* (Duvoisin). *Hainbat gabe: Zenbat eskola gehiago, alfer gehiago* (Anduaga); *Zenbat eta gehiago saldu, gehiago irabazi* (Erkiaga)<sup>34</sup>.

**32.8.1c** Iparraldeko tradizioan, berriz, ohikoa da [*zenbatena -ago ... hainbatena -ago*] gisako korrelazioa<sup>35</sup>, hau ere gauzatze bat baino gehiago duena. Hala, morfemak bere horretan direla: *Zenbatena apalago baitatza ezarria, hainbatena bortitzago da zimendu berria* (Monho); *Iñazio zenbatena amultsuago, Franzizko hanbatena bihurriago* (Laphitz). Mendekoan *zenbatena eta* forma dela: *Zenbatena eta hek zuei gaizkiago, hanbatena zuek hei ongiago* (Axular). Perpaus nagusian *hainbat* forma duela: *Zenbatena baitzen maitagarriago [...] hainbat esker gehiagorekin [...] Jainkoari egin zion haren sakrifizioa* (Intxauspe). *Hainbestena ere* formarekin: *Zenbatena indar gehiagorekin ematen baitzuten ukaldia, eta hainbertzena ere gehiago min hartzen zuten berek* (Joanate-

<sup>34</sup> Ez da ohikoa *-ago* morfema gabe ematea perpaus nagusia: *Hainbat egoki gara izango gu hemen, zenbat urutiago horiengandik* (Urruzuno).

<sup>35</sup> OEH s. v. *zenbat*: “Usado por autores septentrionales y por Lizarraga de Elcano”.

gi)<sup>36</sup>. *Hainbatena*z aurretik dela: *Hori eginen da hainbatena*z gehiago fruturekin, *zenbatena*z baita *desiratu*a aspaldian artzainez eta *populue*z (Akizeko katixima); *Mintza gaitetzke enganio hainbatena*z beldurtzeko *batez*, *zenbatena*z baita *deskubritzeko gaitzago*a (Haraneder). *Ere* adberbioarekin: *Zenbatena*z *ere* gehiago *xukatzen* baita *hainbatena*z *gasna hobe*a izanen da (Duvoisin).

**32.8.1d** [*Zenbatez -ago ... hainbatez -ago*] gisako korrelazioa ere erabili izan da Iparraldean: *Ontzia zenbatez hutsago*, *hainbatez da ozenago* (Oihenart); *Gurdia zenbatez arinago*, *ardatzak kirrinka minago* (EZBB); *Interes hauek hainbatez izanen dira handiagoak*, *zenbatez grazia gehiago ematen baitigu* (Duhalde).

**32.8.1e** Morfema korrelaturik gabeko [*-ago (eta) -ago*] egitura esaera modukoak eratzeko egokia da: *Zaharrago*, *zoroago* (Oihenart); *Tximinoa*, *zuhaitzean gorago*, *uzkia ageriago*. Baina bestetan ere erabiltzen da: *Inori ez esateko agindu zion*. *Baina hark debekatzenago*, *eta haiek zabaltzenago zuten berri hori* (Iraizoz) —*-ago* morfema adizki nagusiari atxikia—. Esamolde eliptikoak dira horiek, azpian [*zenbat eta ... hainbat eta*] forma dutenak; *zenbat zaharrago*, *hainbat zoroago* da lehen adibidean ulertzen dena.

## 32.8.2. Konparazio progresiboa

**32.8.2a** Konparazio proportzionala progresiboa izan daiteke. *Zenbat gorago* *igo*, *hainbat nekatuago aurkitzen zen* esaldian, adibidez, aurrera doazen prozesu bi alderatzen dira; ‘igotzen doan heinean nekatzen doala’ esaten da. Progresioaren berariazko adierazpena, hala ere, denboraren aipamenak bideratzen du. Hala egiten du, esate baterako, [*geroago (eta) ... -ago*] gisako egiturak<sup>37</sup>: *Geroago harrituago nauka* (Otxolua); *Geroago eta gorago aurkitzen gara*

---

<sup>36</sup> Mendekoan *-ago* gabe: *Ezen zenbatena*z *gaiztoek bainaute penatuko*, *hainbatena*z *gehiago hura dut guardatuko* (Etxeberri Ziburukoa).

<sup>37</sup> OEH s. v. *gero*: “Documentado desde Leizarraga tanto al Norte como al Sur. Con (*e*)*ta* no aparece hasta el s. XVIII, aunque desde esta época es con diferencia la forma más empleada; construcciones sin (*e*)*ta* siguen apareciendo en autores septentrionales y vizcaínos”.



(Villasante); *Geroago eta nahastutzenago zitzaizkion* (Aresti). Horietan ‘zenbat geroago, hainbat harrituago’ gisako korrelazioa ulertzen da.

Mailakatzailerik gabeko *gero* soila ere erabiltzen da gisa horretako egituran, bere soilean denboraren progresioa adierazten baitu. Forma desberdinak hartzen ditu adberbioak: *Gero eta gogo gutiago duzu laneko* (Izeta); *Gero eta azkarrago ibiltzen zara* (Oñederra); *Neure burua berotuko nuke geroz eta gehiago* (Txillardegi); *Ondoko urtean Vietnamgo gerra gero eta biziago ageri zen* (Salaburu); *Bekatorea ere gero eta gero [...] bere aztura gaitzotetan barrena sartzengo da* (Axular); *Gero baino gero egur gehiago behar da* (Munita); *Sortu zitzaidan gerora eta otoitz gehiago egiteko zaletasuna* (Aierbe).

Adjektiboa izen sintagma baten barnean denean, *gero eta...* forma izenaren ezkerretara zein eskuinean joan daiteke: *Gero eta auto garestiagoak erosten ditu Beñatek* zein *Auto gero eta garestiagoak erosten ditu Beñatek* (§ 14.10.5.3d).

**32.8.2b** Iparraldean *beti (eta)* adberbioa ere erabiltzen da egitura progresibo honetan<sup>38</sup>: *Haren bihotza beti haboro Jainkoaren amorioaren suaz erretzen zen* (Intxauspe); *Orroa beti eta handiago, beti eta hurbilago entzuten nuen* (Barbier); *Egia erran, beste nonbait zuen beti eta gehiago Frantsesek gogoa* (Narbaitz). *Egunero* ere izan daiteke erreferentziazko adberbioa: *Egunero eta maiteago dute elkar* (Agirre); *Zentzu bat egunero beteago eta osoagoa hartzen zuten eleok* (Mirande). *Aldian-aldian: Baina zazpigarrenean zazpi inguru eman zioten, aldian-aldian hurreragotuz eta tronpeta-hotsa ere goratuz* (Lardizabal).

**32.8.2c** Gaur egun, *gero(z) eta* forma erabiltzen dute batzuek konparazio proportzionalaren erreferentzia moduan denbora progresioaren adierazpenik ez denean ere, haren korrelatua askotan *orduan eta* dela: *Geroz eta auto hobea izan, orduan eta seguruago egongo gara gure gizarte mailan* (Berria). Denbora progresioaren adierazpenik ez denean, hala ere, egokiago da ohiko *zenbat eta* forma erabiltzea.

<sup>38</sup> OEH s. v. *beti*: “Propio de la tradición septentrional. Con la conjunción *eta (beti eta ...-ago)*, aunque hasta el siglo XX sólo se encuentra en Axular y Arbelbide, posteriormente parece que se emplea tanto como sin ella (J. Etchepare y Barbier emplean las dos formas)”.

## 32.9. Parekotasunezko korrelazioak

**32.9a** Eredu erromanikoko parekotasun konparazioa eratzeko *hala* eta *nola* morfema korrelatiboak erabiltzen dira nagusiki<sup>39</sup>. Adberbioak direnez, aditzaren lagun dira beti morfema hauek.

Bietarikoa da morfema hauekin eratzen den egituraren ordena ere. Korrelatu aurrekaria da askotan *nola* morfema, hura daraman perpausa nagusiaren aurretik doala: *Nola erbiak zuritzen diren gure mendietan elurra janaz, hala zurituko ere da zure arima* (Mogel); *Nola belar bustiak hantzen baititu, hala etzauntza bustiak ditu eritzen* (Duvoisin); *Nola jin den, hala behar dela jalgi* (Goihetxe). *Nola* morfema perpaus barnean dela: *Nor nola gobernatzen baita gaztean, hala komunzki egiten ohi dela zahartzean ere* (Etxeberri Sarakoa). Edo perpausaren amaieran, aditza isilpean dela: *Mirra hautatuak nola, hala eman dut urrin gozoa* (Harizmendi) —ez, ordea, aditza agerian dela: *\*mirra hautatuak ematen duen nola*—. Baina *hala* morfema duen perpaus nagusia aurretik dela ere eman daiteke esaldia: *Hala gerta dakidala nola otoitz egiten baitut* (Materre); *Bihotz nirean hala zauzkat, nola ninia begian* (Bilintx). Maiz erabiltzen da korrelazio hau ezezkako esaldietan, eta orduan *hala* morfema aurretik da beti: *Deusek ere ez omen du hala ematen elefanta [...] nola bildots kume baten ikusteak* (Pouvreau); *Baina deusek ez du Frantzia hala aberastu nola Beditanoen sartzear* (Zerbitzari); *Ez du hala argi-albak loriatzen txoria, nola ni zu ikusteak* (J. B. Elizanburu).

Bizkaieraz *zelan ... halan* morfemak erabiltzen dira mota honetako konparazioan: *Etxean ez zegoen lekurik gauza guztiak ondo jartzeko, eta zelan batu halan saldu zituen gauza asko* (Etxeita).

Perpaus nagusiko *hala* morfema gabe ere molda daiteke konparazio esaldia: *Eta beti [nabil] erratua, nola ardi itsua* (Lazarraga); *Hauek guztiak joan zaizkigu nola airean lainoa* (Etxeberri Ziburukoa); *Maiteko nuke nola ama eta*

---

<sup>39</sup> Korrelazio honi buruz, OEH s. v. *hala*: “Su uso disminuye en el s. XX”.

*aita* (Bilintx); *Gizon zuzena loretzen nola palmondoa* (Narbaitz). Esaldi horietan, ez-agerian, *hala* morfema dela pentsa daiteke.

**32.9b** *Nola* morfema duen perpaus mendekoa, erreferentziazko terminoa daramana, aditz eta guztikoa izan daiteke, aditzak menderagailua atxikita duela: *Libertatea nola baita gauzetako hoberena, gatibutan egotea hala pena gaitzena* (Etxepare); *Nola kulpan lagun izan zaren, hala penan izan behar duzula* (Kardaberaz). Baina baita laburra ere: *Ibai bat nola, hala odola, abiatu zen isurtzen* (Basterretxea). Agerian konparazio morfemak eta konparazio terminoak baizik ez direla, berriz, esaera modukoak eratzten dira: *Nola bizi, hala hil* (Axular); *Nola ikus eta hala ikas, nola ikas eta hala egin* (Hiribarren); *Nola orain, hala gero* (Oxobi).

**32.9c** Ikusten den bezala, parekotasunezko egitura hauetan moduzko adberbioak erabiltzen diren arren, konparatzen direnak modua ez ezik, egoera, jarduera edo izaerak ere izan daitezke. Hala, esate baterako: *Eta nola euli farfai-la ez baita hegalak erre arteino kandelaren ingurunetik urruntzen, hala amoros itsutua ere* (Axular) esaldian euliaren eta amorosaren egoerak jartzen dira parez pare, ez euliak hegalean jarraitzeko modua eta amorosaren itsu izatekoa. Eta *Nola ikus eta hala ikas* (Hiribarren) esaldian ere ez dira ikusteko eta ikasteko moduak alderatzen, ikusitakoa eta ikasitakoa baizik, *zer ikus, hura ikas* esaeraren antzera.

Are argiago ikusten da izaerak direla alderatzen direnak *-ko* atzizkiarekin eginiko [*nolako ... halako*] formen korrelazioan: *Zeren nolako baita lurra [...] halako gertatzen baita ura ere* (Axular); *Nolakoa baita aita halakoa semea* (Etxeberri Ziburukoa); *Nolako baita ama, alaba halako* (Hiribarren).

**32.9d** Bestalde, konparazioa barik banakaritzako juntadura adieraz dezake forma bi hauekin eginiko egiturak ere, itxuraz konparazio egitura duten beste batzuek bezala: *Guztiak ito ziren, hala zaharrak, nola gazteak, hala gizonak, nola emakumeak* (Agirre Asteasukoa); *Hitzak nola batzuentzat hala besteentzat izan ziren* (Beobide); *Kargu handiko lagunkideak, hala bat nola bestea* (Xalbador); *Agintzen zizkieten gauza denak egiteko gertu, nahiz urian nahiz etxean, nola soroan hala mendian* (Agirre); *Hala Probintzian, nola Nafarroan, eta ere gehiago Bizkaian [...] hitz asko laburtzen dira* (Kardaberaz).

Juntadura mota hau beste morfema korrelatu batzuekin ere eratzen du *hala* parekatzaileak: *Zu bakarrik zauzkat beti gogoan, minutu batean ere faltatu gabe, hala egunaz non gauean* (Bilintx); *Nahiz gizonok hala abereak ezkuntuan igarotzeko* (A. Zinkunegi); *Hala gizonak eta hala andreak, eskubide berdinak dituzte gaur legearen aurrean* (T. Etxebarria); *Ez da gauza, sarriago dakusgunik [...] hala Misioko egunetan, zelan beste denbora batzuetan* (Mogel); *Itaundu begio bakoitzak bere bihotzari [...] hala Mandamendu honetan zein bestetan* (Kapanaga).

## 32.10. Egitura superlatiboak eta gehiegizkoa adierazten dutenak

### 32.10.1. Egitura superlatiboak

#### 32.10.1.1. Zer alderatzen duten superlatiboek

**32.10.1.1a** Elementu biren maila edo zenbatekoa alderatzen dituzten konparazio perpausak aztertu dira aurreko ataletan. Multzo batean mailarik edo zenbatekorik handiena duen elementua seinalatzeko erabiltzen den egitura superlatiboa aztertuko da atal honetan, adjektibo-adverbioei edo *gehi/gutxi* zenbatzaileei *-en* mailakatzailerak erantsita eratzen dena: *Hiru Erregeen Mahaia da Euskal Herriko mendirik altuena; Messi izan da aurten golik gehien sartu duen futbolaria*. Multzoko beste elementu guztiekin konparatuta eratzen da, bada, superlatiboa. ‘Hiru Erregeen Mahaia Euskal Herriko beste mendi guztiak baino altuagoa da’, horra zer dioen lehen adibideko esaldiak; eta ‘beste futbolari guztiek baino gol gehiago sartu ditu Messik’, bigarrenekoak.

*Superlatibo erlatibo* deitzen dira horrelako sintagmak, multzo edo esparru jakin bateko elementuei erreferentzia egin eta haiekin alderatuz eratzen direlako, esan den bezala. *Superlatibo absolutu* deitu izan dira, berriz, *oso*, *hagitz*, *izugarri*, *biziki* eta horrelako mailakatzailerekin egindako adjektibo edo adverbio sintagmak, goi maila seinalatu bai, baina erreferentzia zehatzik ez dutelako, hau da, konparazio zehatzik adierazten ez dutelako (*oso handia*, *hagitz*

*ongi, izugarri zaila*); gauza bera esan daiteke adjektiboa edo adberbioa errepikatuz egiten diren sintagmez ere (*garbi-garbia, urrun-urrun*). Erreferentziazko multzoa edo esparrua mugatzen duten sintagmak onartzen dituzte superlatibo erlatiboek (*denetan handiena, aurtengo filmik politena*); ez, ordea, absolutuek (*\*denetan oso handia, \*aurtengo film oso polita*) (§ 14.10.5.8a).

Superlatibo absolutuan erabiltzen diren *oso, hagitz* eta horrelakoak mailakatazaille edo adberbioen sailean azertu dira (§ 22.7). Kapitulu honetan, konparazioan oinarritzen den superlatibo erlatiboa aztertuko da.

**32.10.1.1b** Honako osagai hauek ditu egitura superlatiboak: a) lehen terminoa, zeinetaz predikatzen den sintagma superlatiboak adierazten duen ezaugarri gorenara (*libururik merkeena; gehien gustatzen zaizun kirola; argienik mintzatu den hizlaria; ondoen bizi dena* (den ‘pertsona’); b) *-en* morfemarekin eratzen den sintagma kuantitatiboa, ezaugarri gorenara aipatzen duena (*merkeena; argienik; gehien*), eta c) aukeran, lehen terminoaren esparrua zehazten duen konplementu mugatzailea (*aurten argitaratutako libururik onena*).

Osagai horiekin eratzen diren egiturak, berriz, mota bikoak dira. Sinpleak izan daitezke, hau da, sintagma kuantitatiboa eta honek modifikatzen duen terminoa perpaus bakarrean dituztenak: *Libururik merkeena erosi dut*. Beste batzuek, berriz, egitura konplexuagoa dute: sintagma kuantitatiboa perpaus erlatibo baten barnean dute, eta hari dagokion terminoa, berriz, erlatibotik kanpoan da, haren izen ardatz: [*Merkeen eskaini didaten*] *liburua erosi dut*; [*Argienik mintzatu den*] *hizlaria oso txalotua izan da*; [*Gehien gustatzen zaien*] *kirola aukeratu dezakete gazteek; Erregea da [ondoan bizi den]a* (den ‘pertsona’). Desberdinak dira egitura konplexu hau eta egitura sinplea erlatibotik kanpoan duena, hau da, lehen terminoa ez ezik, sintagma kuantitatiboa bera ere hala duena: [*Eskaini didaten*] *libururik merkeena erosi dut*.

### 32.10.1.2. Egitura superlatiboa izenarekin eta adjektiboarekin

**32.10.1.2a** Adjektibo superlatiboa izenarekin doanean, egitura sinpleko esaldia eratzen da maizenik, eta izena da lehen terminoa. Partitiboan emana da

hau eskuarki: *Zurea da libururik onena*. Baina forma soila ere erabiltzen da zenbaitetan: *Zurea da liburu onena*. Forma soilean ematen dira, hain zuzen ere, ahaide izenak, *gazteen*, *zaharren* eta horrelako adjektiboek modifikatzen dituztenean: *Seme zaharrena joan zaigu Ameriketara*; *Alaba gazteena ezkondu da* (§ 14.10.5.2). Definitua denean, ordea, ablatiboan edo inesiboan ematen da izena: *Mikel da nire lagunetan leialena*; *Edurne da zuetan argiena*; *Liburuetatik/liburuetarik politena erosi dute*. Lotura lasaiagoa dute forma hauek superlatiboarekin, partitiboak edo forma soilak baino (*Semeetan*, *Mikel da zaharrena*; *Zuetan*, *Edurne da argiena*; *Aurtengo liburuetatik*, *hori da interesgarriena*, baina *\*Seme*, *Mikel da zaharrena*; *\*Aurtengo libururik*, *hori da interesgarriena*).

Isilpean gera daiteke terminoa, testuinguruak hura eskuratzeko modua eskaintzen duenean. *Mikel da gazteena* esan daiteke zein taldetaz ari garen ezaguna denean ('seme-alabetan', 'lagunetan', 'ikaskideetan'... gazteena, alegia). Orobat, terminoa generikoa denean (*Isilik egotea da onena* —hots, 'gauzarik' onena—).

Izenarekin doana zenbatzaile superlatiboa denean, berriz, egitura konplexuko esaldia eratzen da maiz, eta erlatiboaren izen ardatza da, esan bezala, lehen terminoa: *golik gehien egin duen futbolaria*; *jende gehien dagoen tokia*. Izena isilpean utzita, artikulua da lehen terminotik agerian geratzen dena: *liburu gehien idatzi duena* (idatzi duen 'idazlea', 'pertsone'...). Ikusten den moduan, sintagma kuantitatiboko izena forma soilean eman daiteke (*Kristinau gehien infernura daroazena*, Astarloa), baina baita partitiboan ere (*Gizonik gehien dagoen tokira*, Agirre)<sup>40</sup>.

Superlatiboa adberbioa denean ere egitura konplexua eratzen da zenbaitetan: *Gehien preztzen nituen gauzak* [...]; *Gehiena gustatzen zaidana* (Villasante); *Ondoen prestatzen den hautagaiak irabazten du*; *Herrian ondoena bizi den gizona zara* (Labaien); *Maizegi, ordea, ongien dakizkigun erantzunak ez dira*

---

<sup>40</sup> OEH s. v. *gehien*: "El sust. precedente aparece algo más frecuentemente en caso absoluto indet., aunque su uso con partitivo va creciendo desde finales del s. XIX".

*izaten ez osoak ez zehatzak* (Mitxelena); *Labayen baita hobekienik ezagutzen duena euskal teatroa* (Mitxelena).

**32.10.1.2b** Esan den bezala, *-en* da egitura superlatiboko sintagma kuantitativoak duen atzizki mailakatzailerak. Adjektiboari zein adberbioari erants dakieke, adjektibo sintagma superlatiboa (*handiena*) edo adberbio sintagma superlatiboa (*ongien*) eratuz; *gehi / gutxi* zenbatzaileei ere erants dakieke, izenarekin doan zenbatzailea (*golik gehien*) edo aditzarekin doan adberbioa (*gehien gustatu*) eratuz.

**32.10.1.2c** Adjektiboarekin doanean, predikatiboa zein izenondoa izan, forma mugatuan ematen da sintagma: *Hiriko auzorik politena hautatu dute bizitzeko*; *Haurrak dira zintzoenak*; partizipioarekin: *libururik salduena*; *lagunik maitatuena*. Adberbioarekin doanean, berriz, *-en*, *-ena* nahiz *-enik* formetan eman daiteke: *Zuen etxea dago {hurbilen ~ hurbilena ~ hurbilenik}*; *Zu aritu zara {ongien ~ ongiena ~ ongienik}*. Egitura hauetan ere, bistan da, mailakatzeari onartzen duten adjektiboak eta adberbioak erabiltzen dira, ez bestelakoak.

**32.10.1.2d** Iparraldean eta goi-nafarreran —eta baita maila jasoan ere, zenbaitetan—, *hoberen* da *on* adjektiboari dagokion superlatiboa, eta *hobekien* forma *ongi* adberbioari dagokiona: *Uste dut hamaikak aldera izanzen dela ordurik hoberena* (Izeta); *Pierre zen hobekien zekiena haren kontuez* (Izeta). Hegoaldean, *onen* eta *ondoan/ongien* forma erregularrak erabiltzen dira: *Ordurik onena*; *Ondoan/ongien zekiena*.

*Nahien*, *beharren* eta *maiteen* superlatiboak \**edun* aditzaren objektu izan daitezke: *Kendu beharko da maiteen duguna ere* (Mitxelena); *Horixe dut nahien* (Azkue); *Zer da nik egin beharren nukeena?* (Duvoisin).

*Hurren*, *aurren*, *lehen*, *azken*, *goren* eta *behinen* adjektiboak lexikalizatuak dira superlatiboko adieran, haien erabileretako batean: *Hebrearren artean ahaide hurrenei anai-arrebak deitzen zitzaien* (Lardizabal); *Ontziko mutila jaikitzen zen aurrena* (Anabitarte); *Beti hemen egotea azkena duk, mutil* (F. Bilbao); *Epaitegi Gorena*; *Dabidek bildu zituen berriro Israelgo gizon behinenak oro* (Kerexeta).

*Nagusi* adjektiboa superlatiboa da bere horretan zenbaitetan, ‘inportanteena’, ‘handiena’ edo ‘zaharrena’ gisako esanahia duenean: *Liburu honetan doazen gertaera nagusi guztiak* (Etxaniz); *Ateraino lagundu dio etxeko mutil nagusiak* (Erkiaga); *Kain, Adanen seme nagusia* (Agirre Asteasukoa); *Athletic, Athletic, zu zara nagusia!* Hala ere, *-en* atzizki erredundantea erantsita erabiltzen da inoiz, izena partitiboan dela maiz<sup>41</sup>: *Baina arrazoirik nagusiena ez dute berek ezagutzen* (Villasante); *Horiek izan dira nire lanik nagusienak* (Etxaniz); *Badakizki [...] jakin behar dituen gauzarik nagusienak* (Mitxelena); *Seme-alaba nagusienak, ez daude eskolarako* (Etxaniz); *Kain, Adanen seme nagusienak* (Gerriko).

**32.10.1.2e** Izenekin ere egiten dira egitura superlatiboak, honako esapide hauen modukoetan: *agurerik agureena, gizonik gizonena, lagunik lagunena, hondarrik hondarrenean*. Adjektibo gisa emanak daude atzizki superlatiboa duten izen horiek, mailakatzailearekin doazen gainerako kasuetan bezala.

Balio orokorra izan dezakete zenbaitetan superlatiboek. Maila goreneko elementua aipatuta, multzoko elementu guztiak besarkatzen ditu halakoetan adierazpenak. Hala, *Eragozpenik zailenak gainditzeko gai da gazte hori* esaldiak ‘eragozpen zailenak’ izango lituzke aipagai, hitzez hitz hartuz gero, eta gaztea eragozpen horiek gainditzeko gai dela adieraziko luke; horiexek bakarrik, hain zuzen ere. Esaldiak, ordea, balio orokorra du gehienetan: gazteak eragozpen ‘guztiak’, baita zailenak ere, gainditzeko gai dela adierazten du. Era berean, *Eragozpenik txikienek aztoratzen dute beldurtia* esaldiak ‘elementu txikienek’ izango lituzke aipagai, hitzez hitz hartuz gero, horiexek bakarrik. Aditzera ematen dena, ordea, da, gehienetan bederen, eragozpen ‘guztiek’, baita txikienek ere, aztoratzen dutela beldurtia. Are argiago ikusten da balio orokorra superlatiboari *ere* adberbioa eransten zaionean: *Eragozpenik zailenak ere gainditzeko gai da; Den gauzarik xumeenak ere aldatzen zaitu* (Xurio).

---

<sup>41</sup> OEH s. v. *nagusi*, ‘nagusien’ formaren *mayor* edo *superior* adieraz: “Documentado en autores meridionales desde finales del s. XVIII. Al Norte sólo lo hallamos en Haraneder y Lafitte”. Konparaziozko *nagusiago* ere erabiltzen da inoiz.



### 32.10.1.3. Zenbatekoarekin

**32.10.1.3a** Zenbatekoaren adierazpenean, berriz, *gehien* da *asko* zenbatzailerari dagokion superlatiboa. Bi erabilera ditu forma honek: egitura superlatiboa eratzen du zenbaitetan (*Uda da sagardo gehien saltzen den sasoi* —hau da, ‘beste sasoietan baino sagardo gehiago saltzen da udan’—), eta zatiki-zenbatzailea da beste batzuetan, elementu baten zatirik handiena seinalatzen duena (*Saldua dugu aurtengo sagardo gehiena* —hau da, ‘saldua dugu aurtengo sagardo guztiaren parterik handiena’—; ‘sagardoaren erdia’, ‘sagardoaren hiru laurdenak’ eta horrelako zatiki-zenbatzaileen parekoa da *gehiena*, erabilera horretan.

Adberbio denean, aditzak adierazten duenaren maila edo zenbatekorik handiena seinalatzen du *gehien* zenbatzaileak, eta, hortaz, superlatiboa da beti; artikulurik gabeko forman ematen da maizenik, *-a* artikulua duela zenbaitetan, eta *-ik* atzizkiarekin inoiz: *Horrek harritu nau gehien*; *Gehiena atsegin zaiona oparitu diot*; *Gehienik biztu gaituen Poesia* (Mitxelena).

Izen sintagmaren osagai denean, ordea, hau da, izenarekin doanean edo ize-nordainaren funtzioa betetzen duenean, superlatiboa da batzuetan eta zatiki-zenbatzailea beste batzuetan. *Gehien* forma soila superlatiboa da beti (*Otsailean egin du euririk gehien*; *Zein da liburu gehien saltzen duen argitaletxea?*). *Gehiena*, berriz, ambigua da, erabilera biak baititu. Hala gertatzen da izen zenbakaitzekin (*Txapeldunak irabazi du diru gehiena* —hau da, ‘besteek baino diru gehiago irabazi du’ nahiz ‘diruaren zati handiena irabazi du’—) eta baita zenbakarriekin ere (*Han harrapatu dute arrainik gehiena* —hau da, ‘beste lekuetan baino gehiago’ nahiz ‘hartu duten arrain kopuruaren parte handiena’—).

**32.10.1.3b** Kasu atzizkia edo pluraleko marka daramanean, azkenik, zatiki-zenbatzailea da. Izen zenbakarriekin denean, pluraleko markak hartzen ditu: *Gazterik gehienak kirolzaleak dira*; *Gehienek ezagutzen naute*; *Arazo hau dute herri gehienetan*. Zenbakaitzekin, berriz, singularreko kasu atzizkiak hartzen ditu: *Jende gehienari gustatzen zaio musika hori*; *Alferkerian egon da denbora gehiengan*.

*Gehientsu* forma bai superlatibo gisa (*Gehientsu edaten den edaria* (EH)), bai zatiki-zenbatzaile gisa erabil daiteke (*Ikusle gehientsuen gogoko izan da; Itsu-itsuan ezkontzen dira gehientsuak* (EH)). *Gehientxo*, berriz, zatiki-zenbatzaile gisa erabiltzen da (*Dena ez bada ere, egiteko dago gehientxo* (EH)).

Adjektibo gisa ere erabiltzen da, bestalde, *gehien*, ‘nagusi’<sup>42</sup>, ‘zaharren’ edo ‘premu/prima’ adieran: *Mesiasen Erreinuan nor gehiena izango ote zen* (Lardizabal); *Banekien nik segurik joan beharko nuela, gehiena izanez* (J. B. Etxepare); *Hor daukat beti Amedee, ene lehen kusietan gehiena, adinez* (Larre).

*Haboroen* forma ere erabil daiteke superlatibo gisa, baina *haboroenak* mugatua da maizenik erabiltzen dena, zatiki-zenbatzaile gisa.

*Gutxien* formak ere *gehien* formaren erabilera bertsuak ditu. Adberbioa denean, superlatiboa da eta hiru formetan erabil daiteke: *Gutxien uste denean azaltzen da erbia* (Inza); *Gutxiena uste zezaketen lekutik* (Lardizabal); *Gutxienik uste zenukeen lekuan* (J. Etxepare). Izenarekin doanean ere superlatiboa da, *-en* edo *-ena* atzizkia duelarik: *Huts gutxien egin duenari eman diote saria; Ahalik denborarik gutxiena hartzen zuelarik* (Joanategi). Mugatu plurala, izen zenbakarriekin, zatiki-zenbatzailea da: *Besteak, gutxienak, kolorezko jantzi ederrekin* (Anabitarte).

*Den gutxien / gutxiena / gutxienik (ere)* formako esaldiek ‘batere ez’ esanahia dute ezezka emanak direnean: *Ez dudala den gutien lotsarik izanen* (Mirande); *Berak asmatutako lege hala-holako bat ez zuten den gutxiena ere hautsi nahi* (Iraizoz); *Gaingiroak, horratik, ez zuen den gutxienik harrotu* (J. Moko-roa); *Ez duela herrarik den gutiena egundaino izan* (Hiriart-Urruti).

Iparraldean *mendre* adjektiboaren *mendren* superlatiboa erabiltzen da (*den mendren(a) lotsatu; den mendreneko lotsarik gabe; den mendrenik kezkatu gabe*).

---

<sup>42</sup> OEH s. v. *gehien*, ‘nagusi’ adieraz: “Usado, además de por suletinos y mixanos, por Leizoraga, Etcheberri de Ziburu y algún otro autor septentrional más moderno; al Sur lo hallamos en Lardizabal. Apenas se encuentra en el s. XX”.

### 32.10.1.4. Konplementu mugatzailea

**32.10.1.4a** Aukerakoa da egitura superlatiboaren lehen terminoaren esparrua zehazten duen konplementu mugatzailea eranstea. Terminoari dagokion multzoa non kokatzen den adieraz dezake konplementu horrek, zein leku edo denbora esparruri dagokion mugatu, edo haren esparruaren mugagarri den beste edozein adierazpen aipatu. Beraz, mota askotakoa izan daiteke.

Hasteko, *-ko* atzizkiarekin eginiko sintagma izaten da maiz konplementu mugatzailea (*mende honetako gerrarik odoltsuena; haurtzaroko lagunik onena; Italiako hiririk handiena; munduko mendirik garaiena*); baita perpaus erlatibo-boa ere (*ikusi dudan filmik onena; ezagutzen dudan hiririk politena*). Denbora edo leku esparru osoari erreferentzia egiten diote *inon* eta *inoiz* adberbioekin eginiko sintagmak: *Inon den hondartzarik arriskutsuena da hori; Inoiz egin den filmik onena da ‘Casablanca’; Inoizko ipuinik politena entzun dugu gaur* (F. Bilbao). *Inoizkorik* forma erabiltzen da, bizkaieraz batez ere: *Inoizkorik alaien abiatu zen* (F. Bilbao).

*Den ...-ena* egiturako esaldiek terminoaren esparru osoa besarkatzen dute, esparru hartako gorena aipatzeko: *Den ezjakinenak ere erraz txit egin ditzake [...]* (Agirre Asteasukoa); *Den itsuenak ikus dezake* (J. Etxepare); *Zen ederrena egin zen itsusienik* (Axular). Berdin *denik (eta) ...-ena* gisakoek ere: *Denik aberats eta ahaltsuena izan arren bere* (Otxolua); *Pentsamentu niretzat denik tristeena* (Bilintx); *Mundu honetan denik sororik onena* (Uztapide); *Denik eta berorik handienarekin ere hantxe ibiltzen dituzu* (Anabitarte). *Den* adizki laguntzaile dela: *Herri honetan saltzen denik onena* (Erkiaga).

Multzoko elementu guztiei egiten zaie erreferentzia konplementu mugatzaile-rik ez denean ere: *Azkarrena zara* —‘denetan azkarrena’, alegia—; *Lanbiderik onena aukeratu duzu* —‘lanbide denetan onena’—.

**32.10.1.4b** ‘Ahal den’ mailarik gorena edo zenbatekorik handiena seinaltzen dute adjektibo-adberbioen aurrean kokaturiko *ahalik (eta), ahal den, al-bait* edo, bizkaieraz, *hainbat* formek; ‘ahal diren maila edo zenbatekoetan’ gorena, alegia.

*Ahalik (eta)* forma da sintagma hauetan maizenik erabiltzen dena. Modifikatzen duen adjektiboa *-ena* atzizkiarekin emana izan da eskuarki: *Ahalik deiadar handiena eginaz* (G. Arrue); *Bertsuak egitea izarrietan ahalik justuenak* (Goihetxe); *Ahalik denborarik gutxiena hartzen zuelarik* (Joanategi); *Ahalik atentzio gehienarekin* (Haraneder); *ahalik* morfema izenaren aurrean nahiz ondoan eman daiteke (*Ahalik deiadar handiena eginaz*, G. Arrue; *Konfessore ahalik onena bilatuz gero*, Mogel). Adberbioarekin doanean, berriz, *-ena* nahiz *-enik* formak erabiltzen dira: *Jabetu ziren hartaz, eta estekatu zuten ahalik hobekiena* (Larregi); *Joan zen elizara ahalik eta lasterrena* (Lafitte); *Guri dihoakigu ahalik hobekienik egitea* (Duvoisin); *Ikasi behar dira erdarak, eta ikasi ahalik eta hobekienik* (J. P. Arbelbide). XIX. mendearen azken aldeko testuetan eta XX. mendekoetan *-en* forma soila agertzen da, bizkaieraz eta gipuzkeraz batez ere: *Ahalik arinen ezkontzeko* (Etxeita); *Ahalik ondoen egiten saiatu banaiz ere* (Etxaide); *Alaba, ahalik eta ezkutuen egon dadila* (Etxaniz)<sup>43</sup>. *Euskaltzaindiaren Hiztegiak -ena* forma ematen du adibide guztietan eta forma hori erabiltzea gomendatzen du<sup>44</sup>. Azken aldiko idazle batzuek hala erabiltzen dute: *Igaro ezak denbora ahalik goxoena* (Garate); *Ahalik eta ondoena itzultzen saiatu naiz* (Atxaga).

[*Ahal* + erlatiboa] forma *-ena* atzizkia daraman superlatiboarekin erabiltzen da eskuarki: *Ahal den kutsurik gutxiena* (Ugalde); *Ahal den maizena etorri zaitetz* (Txirrita); *Mendeen erreskadan ahal daitekeen urrutiena eta gorena igotzen garelarik* (Villasante); *Ahal den ongiena apaindu behar da* (Agirre Asteasukoa); baina *Berbaz ahal den ondoen eginaz berari* (Arrese Beitia); *Ahal zenik azkarren ibilita* (S. Salaberria).

**32.10.1.4c** Hegoaldean erabiltzen den *albait* formak modifikatzen duen adjektiboak *-ena* atzizkia darama eskuarki: *Albait deboziorik handienagaz*

---

<sup>43</sup> OEH s. v. *ahalik*: “Documentado desde Leizarraga tanto al Norte como al Sur. En textos vizcaínos y guipuzcoanos la forma tradicional del adv. en *-ena* pierde terreno en el s. XX en favor de *-en* (que antes sólo se encuentra en Añibarro y Arrue). Hay sin embargo *-ena* en *KIKG*, Orixe, Labayen, Etxaide y Anabitarte”.

<sup>44</sup> EH s. v. *ahalik*: “Oharra: Adizlagunekin, *ahalik maizen, sarrien* etab. baino hobeto, *ahalik maizena, ahalik sarriena* etab.”.

(Añibarro); *Ardurarik albait handiena ipiniko duzu* (Añibarro). Adberbioek, berriz, *-en* nahiz *-ena* atzikiakin ematen dira: *Nahi nuelako albait lasterren bihurtzea etxera* (Arrese Beitia); *Zoaz albait lasterrena* (Mendiburu); *Albait ondoen igarotzeko euren bizi nekatua* (Azkue); *Biak bizi daitezten albait ondoena* (Etxegarai); *Batzen da albait jenderik geihen* (J. J. Mogel); *Eta albait gutxiene bota behar dira larrera* [abereak] (A. P. Iturriaga).

Bizkaieraz *hainbat ...-en* forma ere erabiltzen da: *Joan-etorria hainbat arinen egitea erabaki zuen* (F. Bilbao); *Etxera ekarri behar duzu hainbat arinen* (Etxeita).

**32.10.1.4d** Goiko adibideetan ikusi den bezala, zenbatekorik handiena *gehien* formak adierazten du (*huts gehien*), eta apalena, berriz, *gutxien* formak, besteak beste (*huts gutxien*). Mailaren adierazpenari dagokionez, ordea, bestela dira gauzak. Mailarik gorena *-en* atzizkiak ematen du aditzera (*politena*), baina mailarik apalena adierazten duen formarik ez du euskarak ('gutxien polita' gisakoak adierazteko formarik, alegia)<sup>45</sup>. Konparaziozkoen pareko dira horretan superlatiboak (§ 14.10.5.2). Adjektibo-adberbioen 'gutxientasuna' seinalatzeko, antonimoaren 'gehientasuna' ematen da inoiz aditzera (*itsusiena* = 'gutxien polita'). Aukera hori ez da, ordea, beti egokia. Hala, esate baterako, aberats handien artean aberastasun gutxien duena aipatzeko ez da egokia 'pobreena' dela esatea. Bestelako perifrasi batzuk erabiltzen dira hori adierazteko.

Testu zaharretan aurkitzen dira, hala ere, [*gutxien/gutxienik* + adjektiboa] egiturako adibide bakar batzuk: [...] *prenda orotarik ez da gutien beharrena* (Goihetxe); *Gutxien on dena beti hautatzea* (Pouvreau); *Populu eta jende gutziek, salbaienek eta gutxienik argituek, egia hori sinetsi izan dute* (Lapeire). Zehaztasunaren izenean ere erabiltzen dira, inoiz, horrelakoak, zientzia gaietan batez ere: *gutxienik beroa*. Eta baita bestelako testuetan ere: *Irtenbide gutxienik txarrena izan daiteke hori* (Sarasola). Ikus, hala ere, § 14.10.5.2c.

<sup>45</sup> Lafitte: "Des formes comme *le moins grand* sont directement intraduisibles en basque" (1962: 146).

Konparaziozkoetan esan den bezala, modu mugatuan erabiltzekoak dira horrelakoak, zehaztasuna beste bide batetik nekez salba daitekeenean baizik ez, alegia.

**32.10.1.4e** Goiko azalpenek erakusten dutenez, esanahi desberdina dute konparazioko *-ago* morfemarekin eta *-en* superlatiboarekin eginiko sintagmek. Bi gauza dira, esate baterako, *Urrutiago dagoen hondartzara joan da* eta *Urrutien dagoen hondartzara joan da*. Lehenak konparazioaren bigarren terminoa eskatzen du (*kaia baino urrutiago* edo *mendi hura baino urrutiago*, adibidez); superlatiboak, berriz, esparruko elementu guztiak besarkatzen ditu (*hondartza guztietan urrutien dagoena*; baina *\*hondartza guztietan urrutiago dagoena*). Esanahi desberdina dute, halaber, *Lagun gazteagoekin ibiltzen da beti Idoia* eta *Lagunik gazteenekin ibiltzen da beti Idoia* esaldiek. Lehenak lagunak Idoia baino gazteagoak direla esaten du, besterik gabe; superlatiboak, berriz, gainerako lagun guztiak baino gazteagoak direla lagun horiek. Zenbaitetan esanahi bertsua izan dezakete forma bietako esaldiek, egitura desberdina izanda ere. Hala, gauza biren arteko aukeraren aurrean, *Hau gustatzen zait gehiago* esan daiteke —‘bestea baino gehiago’, alegia—, nahiz *Hau da gehien gustatzen zaidana*. Aukera anitzen aurrean, ordea, ez da egoki *Har ezazu gehiago gustatzen zaizuna* esatea *Har ezazu gehien gustatzen zaizuna* esaldia-  
ren lekuan<sup>46</sup>.

## **32.10.2. Gehiegizkoa adierazten duten egiturak**

**32.10.2.1a** Elementu baten maila edo zenbatekoa neurritzotik goragokoak direla adierazteko *-egi* atzizkia erabiltzen da nagusiki, adjektibo-adberbioei edo *gehi/gutxi* zenbatzaileei erantsia, baina baita *sobera* adberbioa ere, Iparraldean batik bat, eta *lar(regi)* adberbioa bizkaieraz. Forma horiekin eraturiko sintagmek dagokien elementuaren gehiegizkoa adierazten dute, eta konparazioa dago adierazpen horren oinarrian ere: ohikoarekin, arauzkoarekin, espero

---

<sup>46</sup> Nahasketarako bidea eman dezake inguruko erdaren eraginak, zeinetan forma bera erabiltzen den konparaziozkoetan eta superlatiboetan (*más* gaztelaniaz, *plus* frantsesez).

denarekin edo *zertarako* jakin baterako egokia den neurriarekin egiten da konparazioa, neurri hori gainditua dela sinalatuz. Ebaluazio gisako konparazioa da: *Gazteegia zara autoa gidatzeko; Handiegia da ohe hori gela txiki honetarako; Urrunegi dago zure etxea bisitan maiz joateko.*

Gehiegizkoa adierazten duten sintagma horiek ez dute mendeko perpausa eratzten, eta perpaus bakuneko osagai izan daitezke. Hori bai, ‘zertarako’ adierazten duen osagarria eskatzen dute. Zerbait *handiegia* dela esaten badugu, adibidez, ‘zerbaitetarako’ dela handiegia ematen dugu aditzera. Osagarri hori agerian eman gabe uzten da zenbaitetan, baina inplizituki hor da. *Jende gehiegi dabil kalean* esan daiteke, zertarako den gehiegi esan gabe, baina, oro har egokia den egoerarako edo jardunerako dela gehiegi ulertzen da. Osagarria sintagma destinatiboa izan daiteke: *Jantzi hori arinegia da negurako*; oinarrian aditz izena badago, berriz, *-tzeko* forma hartzen du sintagma eta mendeko perpausa eratzten du: *Ahulegia zara lan hori egiteko*; subjuntiboa ere erabil daiteke mendeko perpausuan, batez ere subjektuak erreferentziakideak ez direnean: *Txikiegia zara Ertzaintzan har zaitzaten.* (Ikus 37. kapitulua).

**32.10.2.1b** Gehiegizkoa mailari dagokionean, adjektiboarekin edo adberbioarekin doaz *-egi*, *sobera* edo *lar(regi)* morfemak. [Adjektibo + *-egi*] sintagma izenarekin joan daiteke, izena partitiboan ez dela: *Auto azkarregia erosi duzu*, baina *\*Autorik azkarregia erosi duzu*; predikatua ere izan daiteke, askotan mugatua: *Zu beti hola izanen zara, beti onegia* (Joanategi), baina inoiz mugagabea: *Behin onegi izatea, paso; bigarren aldian astoak ginateke* (Lafitte). Beste bi formak ere erabiltzen dira predikatuan: *Sobera alferrak ziren mendiari gora abiatzeko* (Etxebarne); *Nire burutasunak lar ilunak izan dira* (Erkiaga). Adberbioarekin ere joan daitezke forma horiek, *larregi* ez besteak, sintagma adberbialak eratuz: *Mantsoegi zoaz; Sobera ontsa; Eta lar ondo bere jakingo dut nik zer erantzun* (F. Bilbao).

**32.10.2.1c** Zenbatekoaren gehiegizkoa adierazteko, *gehiegi* eta *gutxiegi* formak erabiltzen dira, eta baita *sobera* eta *lar(regi)* adberbioak ere —*gehiegi* forma *asko* zenbatzaileari dagokio—. Izenarekin doan zenbatzailea izan daitezke forma horiek (*Lan gehiegi egiten duzu*, baina *\*Lanik gehiegi egiten duzu*); *sobera* forma izenaren aurrean nahiz ondoan eman daiteke: *Landu gabe*

utzirik *sobera denbora, baratzerik onena ez bailiteke lora* (Xalbador); *Ez baitu haurrak leunkeria sobera beharrik bere etxekoen aldetik* (Larre). Berdin, *lar* forma ere: *Batzuek diru lar eta besteek gutxi dute* (Aiesta); *Lar belozidade zekarren aurretik zetorren horrek* (Gerrikagoitia). Aldiz, *larregi*, izenaren ondoan ematen da: *Eskale larregi ezagutzen dituen herria* (Erkiaga).

Halaber, izenordainaren funtzioa bete dezakete: *Gatza behar du janariak, baina ez bota gehiegi* —‘gatz gehiegi’, alegia—; *Adar sobera uztea hobe da, ezen ez gutiegi* (Duvoisin) —‘adar gutxiegi’—; *Ez daitezke konta Jesusek egin mirakulu guztiak: sobera bada* (Zerbitzari); *Hona beste tranpa [...] larregik egin daroena* (Mogel).

Adberbio ere izan daitezke: *Ez gaitezen gehiegi poztu* (Xalbador); *Sobera fidaturik izar faltsuari* (Xalbador); *Ez dio geroari lar begiratu behar* (Erkiaga); *Larregi opa baikenion politikari* (Mitxelena).

Adjektibo gisa ere erabiltzen dira *gehiegi* eta *(lar)regi*, izenlagun: *Konfiantza gehiegia sortzen baitigu* (Mitxelena); *Den azkarrenari buru hauste soberak azkenean kalte egiten dio* (Hiriart-Urruti); *Munduko ondasunen desio lar bat* (Uriarte); *Neke larregi edo gogorregiak* (B. Mogel). Edo predikatu: *Bizimodu eroateko hori ez da gehiegia* (F. Etxebarria). Bai eta izen bezala: *Arrazoia da beti aurkitzen erdian, ez gehiegian eta ez gutxiegian* (A. P. Iturriaga); *Gehiegia beti da txarra* (Azkue); *Pozaren gehiegia nonahitik dario* (Azurmendi); *Eta hutsak betetzea, eta sobrak kentzea asko kosta zitzaien* (Kardaberaz); *Larrak gutxia ekartzen du; Larregia eta urriegia, guztia da kaltegarria* (J. J. Mogel).

*Gehiegi(z)ko* eta *larregi(z)ko* formak ere izenlagun edo predikatu izan daitezke: *Geihegizko amore horrek bihotza erdiratu* (Kardaberaz); *Gehiegiko laztasun bage* (Iztueta); *Hori gehiegizkoa zen* (Villasante); *Gehiegizko baderitza norbaitek esan dudanari* (Mitxelena); *Larregiko lana eta nekea* (J. J. Kortazar); *Larregizko berritsukerietan* (Agirre); *Hemen ikusten duguna larregizkoa da* (Otxolua)<sup>47</sup>.

---

<sup>47</sup> EHK *larregizko* forma aipatzen du; *larregiko* forma, ez.



**32.10.2.1d** Atzizki txikigarria erantsita *gehegitxo* (*gehitxo*, aldaera) eta *gehegixko* formak eraten dira: *Ghegigitxo hitz egin zuen* (EH). Bai eta *lartxo*: *Lartxo edan duelako* (EH). Eta *soberaxe*, *soberaxko* formak ere: *Soberaxko edaten ere du* (EH). Goi-nafarreraz, berriz, *aise* adberbioa erabil daiteke *-egi* atzizkia duten formekin: *New York aise handiegia da* (EGPB, EGLU Laburra: 461).

Adjektiboari edo adberbioari erantsitako atzizki txikigarriek berek ere adieraz dezakete *gehegizkoa*, modu leunean, ekialdean batez ere: *Urrunxko da etxea*; [Bidea] *egunean lau aldiz egiteko handixkoa zela jujatu zuten aitak eta amak* (Larre); *Gaurkoa askatasun handitxoa da [...]* (Uztapide); *Kantua goraxe hartu du* (Lafitte). Azkuek *gazixe*, *handixe* eta *ttipixe* adibideak ematen ditu.

**32.10.2.1e** Ezezkako esaldietan ‘gutxi’ edo ‘batere ez’ adieraz dezake *gehegi-k*, ironiazko esanahian, bai eta *sobera* edo *larr(egi)* formek ere: *Etxean egoitea ez zaizue gehegi gustatzen* (Aresti); *Ez gaitu gehegi maite euskaldunok* (Mitxelena); *Ez baita bestetan gehegizko batasunik gure artean* (Mitxelena); *Ez da sobera ontsa jiten, dioenaz, Venezuelako euskaldunekin* (Mirande); *Ez dugu larregi aurreratu bide horretarik* (Mitxelena).



## 33. Ondorio perpausak

---

- 33.1. Ondoriozko perpausen egitekoa; 33.1.1. Bi gertakari; 33.1.2. Ondoriozkoak eta kausazkoak
  - 33.2. Ondoriozko perpausen egiturak eta morfemak; 33.2.1. Bi osagaien zeregina; 33.2.2. *-(e)la* menderagailua, eta subjuntiboa ere
  - 33.3. Ondorio perpaus mendekoak
  - 33.4. Ondorio perpaus alboratuak
- 

### 33.1. Ondoriozko perpausen egitekoa

#### 33.1.1. Bi gertakari

**33.1.1a** Ondorio perpausa duten esaldietan intentsitate handiko gertakari bat eta hark eragindako ondorioa ematen dira aditzera. *Hain ondo mintzatu da ikaslea, non txundituta geratu baita klaustro osoa* esaldian, adibidez, ‘ikaslearen mintzaldi on-ona’ eta ‘klaustroaren txundidura’ aipatzen dira, hura honen eragilea dela seinalatuz, edo, zuzenago esanda, hau haren ondorioa dela adieraziz. Gertakari eragilea aipatzen duen perpausak morfema kuantifikatzailea edo kualifikatzailea darama beti, gertakariaren intentsitatea edo nolakotasun aipagarria aditzera ematen duena (*hain, hainbeste, hala, halako moldez...*). Hain zuzen ere, intentsitatearen adierazpena funtsezkoa da esaldi hauetan, hura baita ondorioaren eragilea.

**33.1.1b** Zehatzago esanda, elkarri eragiten dioten gertakari bi aipatzen dira ondoriozko perpausa duten esaldiotan: intentsitateko gertakariak ondorioa eragiten du, batetik, baina, bestetik, ondorioak ematen dio aurrekariaren intentsitateari dagokion neurria. ‘Hain ondo mintzatzeak’ ekarri du ‘klastroaren txundidura’, adibidean, baina txundidura horrek ematen dio ondo mintzatu izanari dagokion intentsitatearen neurria. Entzuleak txundituta uztea gauza handia da, esaldiak iradokitzen duenez, eta horrek ematen dio neurria mintzatzearen mailari; balio superlatiboa duen neurria, hain zuzen, *hain ondo mintzatu da, non...* esaldiak ‘oso ondo mintzatu dela’ esan nahi baitu.

### 33.1.2. Ondoriozkoak eta kausazkoak

**33.1.2a** Kausazko perpausak ere gertakarien arteko kausa-ondorio erlazioan oinarritzen dira, ondoriozkoak bezala, baina alderantzizko ikuspegia islatzen dute haiek eta haiek (ikus § 38.1.1). Kausazkoetan mendekoak aipatzen du kausa eta nagusiak ondorioa (*hain ondo mintzatu denez, txundituta utzi ditu denak*); ondoriozkoetan alderantziz da, mendekoak aipatzen baitu ondorioa (*hain ondo mintzatu da, non txundituta utzi baititu denak*). Adibide hauek erakusten dutenez, trukagarriak gerta daitezke zenbaitetan kausazko eta ondoriozko perpausak, baina aldeak ere izan daitezke haien artean. Ondoriozkoek, esan bezala, intentsitateko ezaugarri bat behar dute perpaus nagusian, ondorioa ekarri duena; intentsitate hori seinalatzen duen morfema gabe ez dago ondoriozko egiturarik (*\*ondo mintzatu da, non txundituta utzi baititu denak*); kausazkoetan ez da beharrezkoa intentsitatearen aipamen hori (*ondo mintzatu denez, txundituta utzi ditu denak*).

**33.1.2b** *Bada, beraz* eta *hortaz* diskurtso markatzaileek ere ondorioa adierazten dute, baina jokabide desberdina dute hauek eta ondoriozko perpausak. Intentsitatearen adierazpenak bereizten ditu, besteak beste. Hiztunak ateratzen duen ondorio logikoa aurkezten dute diskurtso markatzaileek, ez intentsitateko aurrekari batek eragindako gertakaria. *Ordu biak dira; beraz, goazen bazkaltzera* esaldian, esate baterako, ‘ordu biak dira’ perpausuan ez da intentsitate adierazpenik, eta ondorioa hiztunaren logikari dagokio. Ondorio perpausak,

bestalde, mendekoak nahiz alboratuak izan daitezke; diskurtso markatzaileek, berriz, ez dute mendeko perpausik eratzten (ikus 42. kapitulua).

## 33.2. Ondoriozko perpausen egiturak eta morfemak

### 33.2.1. Bi osagaien zeregina

**33.2.1a** Esan den bezala, ondorio perpausarekin eginiko esaldietan termino edo osagai bi dira beti: intentsitatea markatzen duen morfema daramana bat, eta haren ondorioa adierazten duena bestea ([ikaslea hain ondo mintzatzea] — [entzuleen txundidura]). Osagai horiekin eginiko perpausak, berriz, menderakuntzaz nahiz alboratuta lot daitezke.

**33.2.1b** Lehen osagaiak morfema kuantifikatzailea edo kualifikatzailea darama. *Hain* markatzailea dugu batetik, adjektibo-adberbioen maila seinalatzen duena (*hain ona*, *hain ondo*), eta *hainbat* edo *hainbeste* zenbatzaileak, bestetik, izenari edo aditzari dagokien zenbatekoa seinalatzen dutenak (*hainbeste lagun*, *hainbeste gustatu*); postposizioarekin direnean, aditzarekin doaz morfema hauek (*hainbestearino gustatu*, *hainbestetan egin*). *Hala* kualifikatzailea ere aditzarekin doa beti, *halako moduan* edo *halako moldez* gisakoak bezala (*hala ibili*; *halako moduan egin*). Lehenek *multzo kuantitatiboa* eratzten dute (*hain ona*, *hainbeste lagun*, *hainbeste*), eta bigarrenek *multzo kualifikatiboa* (*hala*, *halako moduz*).

**33.2.1c** Bigarren osagaia daraman perpausa da ondoriozkoa, eta, esan den bezala, menderakuntzaz nahiz alborakuntzaz lot daiteke lehen osagaia daraman perpausarekin.

– Mendekoa denean, *bait-* edo *-(e)n* menderagailuz gain ondorio-morfema darama aurrean. *Non* (*eta*) forma erabiltzen da maiz perpauson hasieran<sup>1</sup>: *Hain*

<sup>1</sup> OEH s. v. *non*: “De uso gral. al Norte; entre los guipuzcoanos es usual hasta principios del s. XX, fecha a partir de la cual se hace muy escaso. En la tradición vizcaína sólo se documenta en Añibarro”.

*da interesanta non behar baitut dena ongi kontatu (Etxebarne); Baina 'ondare bilduma' hori hain da zabala non eskatzen duen kontserbazio hautuak egitea (Berria). Ezen formak ere erabilera zabala du (eze, ze, ezi, ezik aldaerak): Belauneko zauria hain txikia zen, ezen medikuek uste baitzuten ezinezkoa zela GIBaz kutsatzea (Egunkaria); Hainbeste aldatu du ezen orain apenas dudana niretzako astirik (Berria). Bizkaieraz zein eta forma ere erabiltzen da: Hain doilorrak izan dira, zein eta ez didaten atera trago bat (Mogel). Perpaus nagusiaren eskuinean ematen da beti ondoriozko mendekoa: Hain gezurtia da, non ez baitio inork sinesten, baina \*Non ez baitio inork sinesten, hain gezurtia da.*

Hori da ondoriozko mendeko perpausen ohiko taxua. Testuetan aurkitzen dira, hala ere, *bait-* menderagailu soilaz eraturikoak, aurrean ondorio-morfemarik ez dutenak: *Giza-semeak, ordea, hain eder ziren, haiengana Maitagarriak maiteberotu baitziren (Orixe); Zeren hain da itsusia plagio hitza, bota orduko dena kutsatzen baitu (Berria); gutxi dira, ordea, horrelako agerpenak.*

- Alboratuta ematen denean ere, lehen osagaia daraman perpausaren eskuinean eman daiteke ondorio perpausa: *Hainbeste konpromiso ditu, ez daki non agertu behar duen ere (Berria)*. Askotan, ordea, aurrean ematen da hau, ahozkoan intonazio berezia lagun duela: *Ezin du oporrik egin: hain dabil lanpetua; Honen akatsak aipatu beharrik ez dago: hain daude axalean (Mixelena); Ezin izan zuten zerrenda bukatu; hain da luzea (Berria)*.

**33.2.1d** Hori dute ondoriozko alboratuek ohiko taxua. Tradizioan aurkitzen dira, hala ere, aurrean ondorio-morfema daramaten ondoriozko alboratuak: *Baina zu hainbesteraino aborrezitu zara, non horrezaz kontentatu ez zara (Kardaberaz); Daukat bekatu bat hain itsusi ta lotsagarria, ezen ez dut konfesatu urte osoetan (Mogel)*. Horrelakoak dira maiz ezen morfemaren *ze, eze, ezi* aldaerekin eginiko perpausak: *Hain dira kondizio latzekoak [...] eze uste dute olgeta guztiak direla txarrak (Frai Bartolome); Egiten dit gerra hain bizia, ze beti nauka beldurrez ikara (Astarloa); Halako moduz ezik, [...] edozeinek begiratu batean esan legike bi herriak bat direla (Iztueta)*. Gaur egun ohikoak ez badira ere, aurkitzen dira testuetan horrelako perpausak: *Bizitzaren historia hain da konplexua ezen ezinezkoa da xehetasun guztiak iragartzea (Egunkaria); Hain ahul eze sarritan galdu egiten dira (Zuazo)*.

### 33.2.2. -(e)la menderagailua, eta subjuntiboa ere

**33.2.2a** Ahozko hizkeran, Hegoaldean batez ere, -(e)la menderagailua ezartzen zaio askotan ondorio perpausari: *Hain ondo mintzatu da, txundituta utzi dituela denak*. Erabilera horrek, ordea, ez du tradiziozko, eta orain baino lehenagoko testuetan ez da ageri kasu bakan batzuetan izan ezik. Gaur egungo testuetan maizago ageri da: *Hain dago ziur, nire fedea ere kolokan jartzea lortzen duela (Berria)*; *Hain ziren narratsak, ez zirela sinesgarriak (Berria)*; *Orain, berriz, hainbeste arindu da, haizeak eramaten duela (Argia)*; *Hainbeste handitu da eze, jendartea bi multzotan banatuta irudikatzen dela (Berria)* —eze morfemarekin—. Euskara jasoan eta zainduan, hala ere, aurreko paragrafoetan aipatutako moldeak erabiltzen dira batez ere, hau da, -(e)n edo bait-menderagailua daraman menderakuntza, perpausaren aurrean ondorio-morfema duena, edota alborakuntza<sup>2</sup>.

**33.2.2b** Kuantifikatzailea edo kualifikatzailea daraman osagaia baieztatuz ez, baina ezezka, galdezka, agindu moduan edo nahi-behar gisako modalitatean ematen denean, ondorio perpausa subjuntiboan eman izan dute lehengo autoreek: *Ez da Jainkoa halako moldez miseriakordios, non justiziarik bidegaberiak egin diezaion (Axular)*; *Signo bisible batek hainbat botere ahal duke, non salbamenduko gauzan gure kontzientziak zertifika eta segura ahal ditzan? (Leizarraga)*; *Egizu hainbat zeure otoitz onez eta arertekotasunez, non hauekin batean ardiets dezadan orain Jainkoaren grazia (Materre)*; *Behar genuke [...] halako moldez [...] aitzinerat gobernatu, non azken finean, Jainkoaren miseriakordiarekin batean erdiets dezagun guretzat ordenaturik eta prestaturik dagoen bozkarioa (Axular)*. Esaldi hauetan ukatzen, galdetzen edo agindu nahiz modalitatearen pean ezartzen dena ez da aurrekariaren eta ondorioaren arteko erlazioa. Erlazio hori ez da zalantzan jartzen. Baieztatzen ez dena aurrekariaren gauzatea da, eta horrek eragiten du ondorioa subjuntiboan emana izatea.

<sup>2</sup> Garatek okertzat jotzen du -(e)la menderagailuaren erabilera hau. *Hain ona zen, denek maite zutela* esaldiaren lekuan *Denek maite zuten: hain zen ona* gisakoak erabiltzea proposatzen du (1988: 207).

### 33.3. Ondorio perpaus mendekoak

**33.3a** *Hain* markatzailea hitza adjektibo edo adberbioekin erabiltzen da, esan den bezala, haiei dagokien intentsitatea adieraziz: *Hain aberats egon behar du, non dena uzteko asmoa hartu duen* (Barriola); *Hain gozo eta egoki hitz egin zien ezen guztiak harritu ziren* (Beobide); *Baina hain doilorrak izan dira, zein eta ez didaten atera trago bat* (Mogel); *Nik izan nuen hain bihotz krudela, ezetz erran bainion, ezetz berehala* (Luzaideko kantiak) —azkena ondorio-morfemarik gabe—<sup>3</sup>.

Sintagma kuantitatiboaren ordena besteetan [*hain* + *adjektiboa/adberbioa*] bada ere, ondorio perpausetan bere ondora dakar mailakatzaileak aditza sarri askotan, egitura markatua eratuz, batez ere adizkia sintetikoa denean: *Hain zen pisua, non burua baitzidan apalarazten* (Narbaitz); *Hain zen eder eta galai, non hura ikusteagatik leiho eta balkoietara irteten ziren damak* (Agirre Asteasukoa); *Hain da garrantzitsua ezen lehen ministroak berehala agertu behar izan baitu bere egitasmoa publikoki* (Argia); ikus, hala ere, [Gauza hauek] *hain premiazkoak dira, ze, hauek jakin gabe [...] ezin salba ditek*een (Agirre Asteasukoa).

Maiztasun gutxikoa da, bestalde, *hain* mailakatzailearen lekuan *horren* eta *honen* erabiltzea: *Aurpegi hura hain trukatua eta hain eta honen itsusi nazkagarria agertu zen, non [...]* (Kardaberaz); *Horren arima galdukoak egiten gaituzu, zein eta sangriak emango ditugun diru gehiago irabaztearren* (Mogel)<sup>4</sup>.

**33.3b** *Hainbat* eta *Hainbeste* zenbatzaileek zenbatekoaren neurri handia ematen dute aditzera, izenari edo aditzari dagokiena: *Hainbat atsegin izan nuen ikustez, non uste bainuen behin ere ez nintzela geldituko haren eskua*

---

<sup>3</sup> Ohikoaz kanpokoa da perpausa *nola* morfemaz bideratzea: *Uste al duzu Bizkaian hain jende biguna dela nola zeuen alardeen beldurrak daudela?* (Bertso bizkaitarrak).

<sup>4</sup> *Hain* mailakatzailearekin eginiko ondorio perpausen lekuan erlatiboarekin eginiko itzuli bat erabiltzen da inoiz hizkera arruntean. *Hain garestia da etxea, ezen ezingo baitut erosi gisako*en lekuan, *Den garestiarekin, ezin izango dut etxea erosi gisako*ak, alegia (ikus 31. kapitulua).



*trinkatzetik* (Mirande); *Hainbeste lan egiten zuen, non beldur izaten bainintzen maiz, bera ere gaixotuko ez ote zen* (Irigoien); *Baina hainbeste mindu ziren, non esan zion batek besteari [...]* (Urruzuno). Sintagmak postposizio atzizkia duela ere erabiltzen da: *Hainbeste denboraz espero izan du arrakasta, non orain ezin baitio uko egin* (Etxezarreta); *Hainbestetan irakurri zuen Pedrok gutuna, non, azkenean, buruz ikasi baitzuen* (Irigoien).

Hainbeste(ta)raino morfema aditzaren zenbatekoari dagokio beti: *Eta gero hainbesteraino bertutean aurreratu zen, non santu izateraino igo zen* (Narbaitz); *Emendatu zuen hainbertzetaraino batasun hura [...], non ez baitzuten bihotz bat eta arima bat baizen* (Jauretze); *Hainbesteraino elbarritu zuen eze, hila zelakoan [...]* utzi zuen (J. I. Arana).

Izenlagun edo adjektibo bilakatzen dira forma horiek *-ko* atzizkia hartuta: *Hainbateko etsiak hartu zituen guztiak, non ez baitzuten gehiago inoren hiltzeko gogorik* (Mirande); *Agertu zuen oneraspena, hainbestekoa izan zen ezen, guztiak geratu ziren mirariturik* (Iturzaeta). Postposizio atzizkiarekin: *Eta hekien errabia hainbertzetarainokoa handitu zen, non haren ondotik baitzebiltzan haren preso altxatzeko eta hilarazteko* (Joanategi).

**33.3c** Hala kualifikatzailea ere aditzarekin doala erabiltzen da, haren esanahiari dagokion intentsitatea edo nolakotasun aipagarria seinalatuz: *Gaur zu ikusteak pozten nau hala, non iruditzen zaidan jai handi bat dela* (Bilintx); *Eta, ondoan, hala maitatu zuen Maria Balentina, non bere semearekin ezkontarazi baitzuen* (Barbier).

Zehazten erraza ez den ezaugarri baten intentsitatea ematen du aditzera izenarekin doan Halako morfemak. *Halako berriak zabaldu ziren, non biziki kezkatu geratu ziren denak* esaldiko ‘halako berriak’ sintagmak albisteen intentsitate handiko nolakotasuna aipatzen du, nolakotasun hori zehaztu gabe; ‘hain berri txarrak/hitsak/kezkarriak...’ adierak iradoki ditzake sintagmak. Bestelako adierak ere iradoki ditzake: *Kontatzen dituzte ipuin itsusiak, halako gatz eta piperrarekin, non gazteak egon ohi diren ahoa zabalduz* (Agirre Asteasukoa); *Halako adiskidea izan da guganat, non [...]* ezarri baikaitu libertatean (Tartas); *Hainbertze eta halako amoinak egiten zituen, non askotan*

*fraide lagunek erraten baitzioten urrunegi zihola (Joanategi); Halako boza omen zuen erretore dohakabeak non Porturaino aditu baitzuten katixima (Zerbitzari).*

**33.3d** *Halako eran / moduan / gisan / maneraz / moldez / suertez* esapideek moduzko aurrekaria ezartzen diote ondoriozko perpausari. Aurreneko biak batez ere Hegoaldean erabiltzen dira: *Halako eran itsutu zen, non, [...] haien gezurrezkoak eta idoloak [...] adoratu zituen* (Lardizabal); *Halako moduan aurkitzen da nekatua ezik ez dezake aldean pauso bat eman, bada bere aztalak koloka dauzka* (Otaegi); *Halako moduan aberastu zen, non auzoak haren ona ezin eramana, hasi ziren esetsi edo persegitzen* (Lardizabal).

Besteak batez ere Iparraldekoak dira: *Nehork ez zezan ezagut, eskale erromesenaren itxura hartu zuen, halako gisan non guztiek trufan baitzerabilten* (Laphitz); *Haren edermenek halako gisaz haren bihotza xarmatu zuten, non [...] amorioak itsutu baitzuen* (Tartas); *Bizi zaitetz halako maneraz non herriok ez baitzaitu sekulan ustegaberik atzemanen* (Xurio); *Halako moldez, tailuz eta suertez aitzinerat gobernatu non azken finean [...] erdiets dezagun [...] zeruko loria* (Axular).

**33.3e** Morfema kuantifikatzailea edo kualifikatzailea daraman sintagma perpaus nagusiaren hasieran edo haren barnean joan daiteke: *Hain beroa izan da aurtengo uda, non hondartzak beteak egon baitira egunero; Aurtengo uda hain beroa izan da, non hondartzak beteak egon baitira egunero*. Zenbaitetan, hala ere, perpausaren azkenean ematen da, ondorio-morfemaren aurreaurrean, egitura markatua eratuz: *Emazu [zure burua] hain behera non batbedera baitabilke zure gainean* (Xurio); *Gaturik irten zen hain biziro, non arraio bati da berdindu* (Larramendi).

Inoiz, bestalde, [kuantifikatzailea/kualifikatzailea + ondorio-morfema] morfema konplexua eratzen da, eta perpaus nagusiaren ondoan ematen, aposizio gisa edo. *Non da horrelakoetan maizenik erabiltzen den ondorio-morfema: Astean behin ijitoak etortzen ziren gure patiora, hainbeste non herri oso bat zirela ematen baitzuen* (Uribarri); *Edaten eman omen zioten, eskatu ahala, hainbeste non gizonak sastar galanta bildu baitzuen* (Alonso); *Gogor zegoen hura*

*bere ezean, hainbertzetaraino non tiraka ere ez baitzuen nehork mugituko* (Larre); *Halako zorion bat nabaritzen zuen bere baitan, hala non eguneango pentsamendu kiratsak oro urtu baitzitzaizkion* (Mirande); *Paparrean eskegita zeroan giltzak dirdira egin zidan, halako moduan non urrezkoa zela begitandu baitzitzaidan* (Jimenez). Baina ezen morfemarekin ere eratzen da horrelako morfema konplexua: *Zabiltzate munduan halako moduz eze, zuek ikusten zaituztenak eta zuen hitza aditzen dutenak, geldi daitezten bihotz-ukituta* (Beobide); *Ixen ziren portaleak ere, halako moduan eze, ezin sartu eta irten zitekeen herritik* (A. M. Zabala).

### 33.4. Ondorio perpaus alboratuak

**33.4a** Ondorio perpausan menderagailurik ez dela ere eratzen dira esaldiak, egiturako perpaus biak alboratuta. Gehienetan ondorio-morfemarik gabe ematen dira horrelako alboratzeak, ahozkoan batez ere, zeinetan intonazioak markatzen duen ondorio erlazioa. Ohiko ordenan eman daitezke perpausak, kuantifikatzaile edo kualifikatzaile sintagma daramana aurrean dela: *Hain da gozoa haiek kantatzekoan duen ahotsa, txoraturik uzten du* (Berrondo).

Maizenik, hala ere, alderantzizkoa izaten da ordena. Kuantifikatzailea daraman perpausa enfatizatu egiten da, eskuinean emanda. Hala, *hain* mailakatzaillea dutenak: *Herritar denek gura zioten: hain zen bera zintzoa* (Agirre); *Nire buruaren jabe ez naizela uste dut: hain daukat zorabiatua* (Azkue); *Izarrak dirudite [begiak]: hain ditu argiak* (Bilintx). Intonazio berezia ematen zaie horrelako esaldiei, eta, ikusten denez, *hain* morfemak bere ondora ekartzen du sarritan aditza, batez ere sintetikoa (*hain zen zintzoa*). Zenbatazailleekin ere egiten da alboratzea: *Baina ez zuen bere nagusiagandik pauso-muttur bat ere alde egiteko ausardiarik: hainbesteko beldurra zeukan bihotzean sartua* (Berrondo); *Bildur naiz gera nadin burutik galduta: hainbesteraino nago enamoratuta* (Bilintx); *Bere biziarengatik inork ez zuen txanpon bat emango. Hainbesteraino ahuldu zen* (J. A. Irazusta). Kuantifikatzailea perpausaren hasieran ematea da ohikoena horrelako esaldietan; hura perpausaren barnean ematea inoizko salbuespena baizik ez da: *Iduri*

zuen Migelek esposeko atorra soinean zuela: *xerraño haiek hain ziren ongi emanak!* (Barbier). Alboratze hauek, jakina, ez dira emendiozkoak, eta, hortaz, ez dute emendiozko juntadurarik onartzen: \**Herritar denek gura zioten eta hain zen bera zintzoa.*

**33.4b** Ondorioa adierazten duen perpausak ondorio-morfema izan dezake —*ezen* morfema, edo haren aldaerak, gehienetan—, eta orduan esaldia ohiko ordenan ematen da: *Hain ardo ona diagok eze, pena ematen zidak saltzea* (San Martin); *Hainbeste lan daukate, ezen enkargu gehiago hartu ezinik dabilta Japoniako eta Koreako ontziolak* (Berria); *Hainbat gauzatan sartuta nabil eze azkenean denak gaizki egiten ditut* (Elexpuru); *Hala zara mudatuko, ze ez zaitu inork ezagutuko* (Lazarraga); *Halako errabiagaz esan ohi dituzte, ze edonork sinistu legike bihotz-bihotzetik direla* (Astarloa); *Hain modutan dago zabaldurik biraoak ezartzea, ze ez die inork sinisten* (Astarloa)<sup>5</sup>. Baina non ere erabil daiteke horrelako esaldietan: *Hain da garestia non erregeak eta beste gain-gaineko pertsonak bakarrik izan dezakete* (A. P. Iturriaga); *Hain da abila arotz, zurgin edo artista hau, non behin ikustearekin beste gabe ikasi du ezkilak egiten* (A. M. Zabala). Aditza orainaldikoa dute adibide horietako perpausak, eta agerikoa da menderagailurik ez dutela. Zalantzasak gertatzen dira, ordea, ohi bezala, aditza iraganean dutenak, bietara uler baitaiteke haien amaierako *-n* morfema, menderagailu gisa nahiz iraganaldiko morfema soil gisa. Hala, *Hain nekatuta zegoen, ezen afaldu gabe oheratu zen* esaldia honako esaldi bi hauen iraganeko bertsioa izan daiteke: *Hain nekatuta dago, ezen afaldu gabe oheratu da/den*.

Egitura berezia da *ze* morfema aurreko perpausari itsatsia duena eta esaldia etenda uzten duena, ondorio perpausa aurretik emana delako edota, hura isilduta, testuinguruari esker ulertuztat ematen delako: *Ohera noa, hain nekatuta nago ze...!*; *Neuk bere beti maite izan dut Maria: bera berriz hain da Ama ona ze* (Uriarte); *Baina hain da ona ze!* (Uriarte).

---

<sup>5</sup> OEH s. v. *ze*: “Conjunción de valor consecutivo; con *hain*, *hain modutan*, *halako moduan*, *hainbeste...* y similares. La oración subordinada no lleva normalmente ninguna marca de subordinación del tipo *bait*, *-(e)n* o *-(e)la*”.

**33.4c** *Ere* adberbioak indartu egiten du intentsitatearen adierazpena, aposizioan emandako kuantifikatzaile sintagmaren ondoan kokatua: *Eskerrak bere buruaren jabe zela. Hain jabe ere, nahi zuen aldera jotzen zuen* (Anabitarte). Eta, orobat, kuantifikatzailea daraman perpausa eskuinean dela, aposizioan emandako partizipioaren ondoan: *Eskolara joan gabe gelditu nintzen, hain goxo nengoen ohean, egon ere.*



## 34. Baldintzazko perpausak

---

34.1. Sarrera

34.2. Menderagailuak

34.3. Baldintzazko perpausak zer diren; 34.3.1. *Baldintza* kontzeptua, definigaitza; 34.3.2. Baldintza eta kausa; 34.3.3. Baldintza eta hipotesia; 34.3.4. Aldiberekotasuna; 34.3.5. Solas jokoak eta inferentzia bidezko erabilerak

34.4. Baldintzazko perpausen nolakotasuna

34.5. *Ba-* aurrizkia duten baldintzazko perpausak; 34.5.1. Menderagailu nagusi bat; 34.5.2. Alegialdiko baldintzazko perpausak: baldintza irrealak; 34.5.2.1. Aspektu oposizioak baldintza irrealetan; 34.5.2.2. Aspektu burutua duten alegialdiko baldintzazko perpausak (*etorri balitz, ekarri balu*); 34.5.2.3. Aspektu burutua ez duten baldintzazko perpausak; 34.5.3. Alegialdia ez dakarten baldintzazko perpausak: baldintza errealak; 34.5.4. Laburtuz

34.6. *Non (eta) ez... -n*

34.7. *-tuz gero*

34.8. *-tu ezik*

34.9. *-tu ezean*

34.10. *-t(z)ekotan/-t(z)ekotz*

34.11. *-t(z)ez gero*

34.12. *-t(z)era(t)*

34.13. *-tuenean*

34.14. *Zer + ADITZOINA + ere (zer (nahi) gerta (ere), zer hel ere)*

---

### 34.1. Sarrera

**34.1a** *Baldintzazko perpaus* deituraren azpian egitura multzo zabala bildu ohi da, eta eredu modura *ba-* aurrizki menderatzailearekin osatzen direnak eman ohi dira (*Euria egiten badu, kaleak busti egiten dira; Bihar eguraldi ona egingo balu, hondartzara joango nintzateke; Gogor saiatzen bazara, emaitza onak lortuko dituzu*), baina perpaus jokatugabeekin ere lor daiteke baldintzazko adiera (*Gogor saiatuz gero, emaitza onak lortuko dituzu; Gogor saiatu ezik, ez duzu emaitza onik lortuko*). Perpaus nagusiko ekintza gerta dadin bi-dea ematen duen ekintza edo egoera adierazten da mendeko perpausuan, azpimarratutakoan, eta ‘baldintza’ horretatik (‘euria egitea’; ‘eguraldi ona izatea’; ‘gogor saiatzea’) abiatuta betetzen da perpaus nagusian esaten dena. Alde horretatik, elkartzen diren bi perpausen arteko nolabaiteko kausalitatea sumatzen da. Horrez gain, hipotesiak adierazteko hizkuntzak erabiltzen duen baliabide nagusia ere badira baldintzazko perpausak: *Nirekin ezkonduko bazina...; Petrolio amaituko balitz...; Alkate izendatzen banaute...* Baina baldintzazko perpaus deituraren azpian mota oso desberdineko egiturak bildu ohi dira, eta atala aurrera doan eran, ikusiko dugu ñabardura asko adieraz daitezkeela, eta heterogeneotasun handia dagoela.

Terminologiari dagokionez, *baldintzadun perpaus*ek bi atal izan ohi dituzte: *baldintzazko perpausa* deitzen zaio lehenengo atalari, mendeko perpausari, eta *ondore perpausa* bigarrenari, perpaus nagusiari; *protasi* eta *apodosi* ere deitu izan dira.

Baldintzadun perpausak	
<i>Baldintzazko perpausa</i>	<i>Ondore perpausa</i>
Garaiz jaikitzen banaiz,	zure etxera joango naiz
Benetan ahaleginduz gero,	emaitza onak lortuko dituzu

**34.1b** Mendeko perpaustzat hartu ohi dira baldintzazko perpausak, baina ezin da esan perpaus nagusiko aditzaren mendean daudenik: elkartzen diren bi



perpausen arteko harremana ez da aditz predikatuen eta modifikatzaileen artekoa bezalako, eta bi perpausen artean nolabaiteko korrelazioa dago. Lehen esan bezala, bi atalez osatutako egiturak dira, eta baldintzadun perpausaren bidez adierazten den hipotesia ondore perpaus osoari dagokio, ez predikatuari soilik. Mendeko perpausen artean sail batek baditu adierazten duten nozioarekin lotutako galdera hitzak (noiz, nola...), edo predikatuari dagozkion adberbioez ordezkia daitezke (denbora, modua... edo antzerakoak adieraziz), baina baldintzadun perpausetan ez da horrelakorik gertatzen. *Eguraldi txarra egiten badu, nire alaba etxean geratuko da* esaten dugunean, baldintzazko perpausaren bidez ez da *geratuko da* predikatua zehaztuko duen inolako xehetasunik edo ezaugarririk adierazten. Alderdi horretatik, baldintzadun perpausa ez dago ondore perpausaren barnean, baizik eta ondore perpaus osoari dagokio. Izan ere, baldintzadun perpausetan ez da protasiaren edo apodosiaren edukia baieztatzen, baizik eta bien arteko inplikazio-lotura bat egiten da. Horrela, *Bart garaiz oheratu izan ez bagina, gaur ez ginen hain argi esnatuko* bezalako adibide batean, oso zaila gertatuko litzateke ondore perpausari zentzua ematea edo testuinguru egokia aurkitzea, baldintzazko perpausarekiko loturan ez bada. Izan ere, baldintzadun perpausako bi ataletako bat ezabatzean edo aldatzean (adibidez, aditzaren aldia edo modua), perpaus osoaren esanahian edo gramatikaltasunean izan dezake eragina.

Baldintzazko perpausaren eta ondore perpausaren arteko inplikazio hori indartzeko, ohartzen gara batzuetan bi perpausen artean, *orduan, ba* edo *beti* bezalakoak jar daitezkeela, bereziki ahoz ari garenean: *Ekaitz arriskua bada, orduan ez gara mendira joango; Bakarrik geratzen bazara, beti etor zaitzke guregana; (Ba) deitzen ez badidazu, (ba) ez dizut inoiz barkatuko.*

## 34.2. Menderagailuak

**34.2a** Adizki jokatua duten perpausekin ari garenean, *ba-* aditz aurrizkia da erabiliena baldintzazko perpausak egiteko: *Liburu hori irakurtzen baduzu, ez zara damutuko; Garaiz oheratzen bazina, hobeto jaikiko zinateke; Garbi esan bazenit, egingo nuen.* Menderagailuaren indargarri modura, batzuetan *baldu*

lokailua azaltzen da: *Liburu hori irakurtzen baldin baduzu, ez zara damutuko; Baldin garai z oheratuko bazina, hobeto jaikiko zinateke*. Lokailu hau tradizioan forma desberdinetan azaldu izan da (*balin, balinetan, balinetarik...*), eta kokaleku desberdinak izan ditzake, baina edozein kasutan, beti aurrizkidun aditzaren aurretik joaten da.

Aurreko ataletan ere aipatu dugu euskaraz askotan menderagailu bakoitza ez dela zehazki perpaus mota jakin bakar baterako erabiltzen. Horixe gertatzen da nagusiki baldintzazkoetan erabiltzen den *ba-* menderagailuarekin ere. Adibidez, *ba-* daramaten baldintzazko perpausak aurki ditzakegu *bezala, baino* eta *bezain* konparazio hitzen osagarri modura, alegialdiko forman: *Haur txikia balitz bezala mintzatu zitzaizkion, eta horrek haserrea eragin zion; Harre-rra hotza egin dit, ezagutuko ez banindu baino hotzagoa; Egurrezko txirrin- duna hura altzairuzkoa balitz bezain gogorra zen*. Bestalde, konparazio perpausetan inoiz agertu izan dira *bailitzan* edo *bailuen* bezalako esapideak ere; baina esapide horiek, oro har, aski berriak dira —nahiz eta XVIII. mendeko lekukotasunak ere agertu— eta euskara estandarerako ez bultzatzeko aholkua ematen da (EGLU-V: 370, EGLU-VI: 13).

Beste batzuetan, perpaus osagarri modura ere azaltzen dira *ba-*perpausak. Horrela gertatzen da zenbait euskalkitan, bizkaieraz oroz gainetik, *ez dakit joango banaitz* bezalako adibideetan, zehar-galderak *ba-*perpausen bidez moldatzen direnean. Edo erabilera hedatuagoan, norbere balorazioa, iritzia edo erreakzio emotiboa adierazten duten predikatuekin ere (*hobe izan, nahi izan, nahiago izan* eta abar) aurkitzen ditugu (subjuntiboko perpaus baten ordezt): *Hobe zenuke garbiago jango bazenu; Nahiago nuen egia jakin izan ez banu; Ederra litzateke datorren asteko partida irabaziko bagenu*. Hauek guztiak aditz izena duten egiturez ordeztza daitezke (*Hobe zenuke garbiago jatea; Nahiago nuen egia ez jakitea...*), baina azterketa sakonago batek horrelako *ba-*perpausak perpaus osagarritzat ez jotzera ere eramán gaitzake.

Bestalde, hauen oso hurbileko adibide batzuk ere aurki daitezke, ezezko perpausetan bereziki: *Ez da harritzeko/miresteko guztiek bizkar eman badiote*. Itxura batean, subjektuaren lekua betetzen duten perpaus osagarriak izango genituzke; baina egitura hauen analisisian, gauzak barnago ikertuz, seguruenez

ere ohar gintezke ageri ez den izen sintagma bat dela subjektua perpaus horietan, eta, beraz, azalean baizik ez direla perpaus osagarriak. Era honetako *ba*-perpausak ez ditugu atal honetan aztertuko.

*Ba*-duten perpausok beste balio batzuk ere har ditzakete. Adibidez, beste menderagailu batzuekin gertatzen den eran, *ere* diskurtso markatzailea eranstean kontzesiozko adiera hartzen dute: *Saiatu bazara ere, ez duzu lortu*. Helburuzko balioa izaten dute baldintzazko perpausuan partizipio prospektiboa dagoenean, eta ondore perpausuan *beharra* edo *ezina* adierazten duen predikatua agertzen denean: *Garaiz, jaikiko bagara, garaiz, oheratu beharko dugu; Lantegia aurrera aterako badugu, ezingo gara beti liskarretan ibili*. Balio honetan, baldintzadun perpausetako kausalitate-erlazioa nolabait aldatua azaltzen zaigu, eta ondore perpausoko ekintza edo gertakaria lehenago dator baldintzazko perpausuko baino. Horrelakoak kontzesiozkoen eta helburuzkoen ataletan aztertuko dira (ikus 37. eta 39. kapituluak).

Adizki jokatuarekin baldintzazko perpausak eratzeko bide nagusia *BA*-aditz-aurrizkia da. Baina ezezko perpausetan, *NON (ETA) EZ ... -N* erako egiturek ere baldintza adierazten dute, salbuespen zentzu oso zorrotzarekin: *Kanpoan afalduko dugu, non eta ez didaten azken unean lanetik deitzen; Ez da adiskidetu, non eta zuzenean barkamena eskatzen ez dioten*.

**34.2b** Adizki jokatu gabeekin ere eraten dira baldintzazko perpausak. Baina ezin da esan zehazki baldintzazkoak bakarrik eratzeko menderagailurik dagoenik: hemen aipatuko ditugun guztiek lotura zuzena dute denborazkoekin, moduzkoekin, edo helburuzkoekin. Batzuetan partizipioa hartzen da oinarri modura, eta beste batzuetan aditz izena. Partizipioa oinarriztat harturik, *-TUZ GERO, -TU EZIK* eta *-TU EZEAN* dira baldintza balioan gehiena erabili izan direnak: *Benetan ahaleginduz gero, emaitza onak lortuko dituzu; Ondo ikasi ezik, ez duzu etsamina gaindituko; Garaiz joan ezean, ez dugu partidarako sarrerarik lortuko*. Aditz izenarekin, berriz, *-T(Z)EKOTAN/-T(Z)EKOTZ* eta *-T(Z)ERA(T)* dira baldintzazko balioarekin sarriena azaldu izan direnak: *Araudia aldatzekotan/aldatzekotz, guztion adostasuna behar da; Hori guztia jakitera, bileran isilik geratuko nintzen*.

Eta badira, bestalde, nagusiki beste balio bat duten menderagailuak, baina inoiz baldintzazkoen adierara hurbil daitezkeenak ere. Adibidez, -TUTA, -TURIK, -TUZ, -TUTAKOAN menderagailuak baldintzazko adierarekin ere erabil daitezke: *Orain arte bezala jarraituta, garaipena hurbil izango duzu; Hainbeste jenez, laster gizenduko zara; Gogo onez hasitakoan, erraz egiten da lana*. Menderagailu hauek ez dute hainbeste zehazten mendeko perpausak nagusiarekin izango duen lotura semantikoa, eta tarteka baldintza (*Orain arte bezala jarraitzen baduzu...; Hainbeste jaten baduzu...; Gogo onez hasten bada...*) edo beste balio batzuk adieraz ditzakete; zirkunstantzia bat adierazten dute, eta zirkunstantzia hori baldintzazko modura ere interpreta daiteke. Baina menderagailu hauen azterketa beste atal batzuetan egingo da (ikus 36. eta 40. kapituluak).

**34.2c** Beste zenbait egituraren bidez ere lor daitezke baldintzadun perpausen pareko balioak, baina guk ez ditugu hemen aztertuko, ez baldintzazkoen barnean sartuko. Juntaduraren (bereziki aditzaren elipsia dagoenean) eta alborakuntzaren bidez eraikitzen diren irakurketa batzuk ere baldintzadun perpausetakoen parekoak izan daitezke: *Bizkorregi gidatu, eta laster izango duzu istripuren bat; Lasaitasuna behar duzu? Etor zaitetz Karrantzako aterpetxera*. Pareko esanahia lortuko genuke baldintzadun perpausen bidez ere: *Bizkorregi gidatzen baduzu...; Lasaitasuna behar baduzu...* Eta gauza bera gerta daiteke zenbait postposizioekin: *Zure laguntzarekin, liga irabaziko dugu; Zure laguntzarik gabe, ez dugu lana aurrera aterako*. Edo aditz izenari zenbait postposizio erantsiz: *Barkamena eskatzearekin gauza asko konponduko zenituzke*. Hauek ere baldintzadun perpausen pareko irakurketak izan ditzakete (*Zure laguntza badugu...; Zure laguntzarik ez badugu...; Barkamena eskatzen baduzu...*), baina ez ditugu hemen aztertuko<sup>1</sup>.

---

<sup>1</sup> Eguneroko solasean, era batera edo bestera baldintzazko adiera eman dezaketen elementuen eta moldeen zerrenda luzea da. Adibidez, *bestela* adberbioak (*Gehiago saiatu behar duzu. Bestela ez duzu emaitza onik lortuko*), aurretik dagoena anaforikoki biltzen du, eta polaritatea aldatuz ondorengo enuntziatuaren abiapuntu modura aurkezten du, baldintzazkoen oso antzeko adierak lortuz: *Gehiago saiatzen ez bazara, ez duzu emaitza onik lortuko*. Edo zeharo desberdina izanik, *neurri batean baldintzazko adiera lor daiteke*, baita ere, mintzagai modura aurkezten diren zenbait adizlagunekin: *Zure egoeran, ez nioke deituko*; hor uler daiteke ‘*zure egoeran banengo...*’. Horrelakoak ez ditugu hemen aztertuko.

### 34.3. Baldintzazko perpausak zer diren

#### 34.3.1. Baldintza kontzeptua, definigaitza

**34.3.1a** Atal honen sarreran aipatu dugu baldintzadun perpausen barnean mota oso desberdineko egiturak bildu ohi direla, eta heterogeneotasun handia dagoela. Ohartzen gara *baldintza* hitza erabiltzen dugula perpaus mota baten zedarritzeko. Baina *baldintzaren* kontzeptu hori, ororen gainetik logikakoa eta filosofiakoa dena, ez da alor horietan ere definitzen errazenetariko.

Nolanahi ere, baldintzadun perpausen izaera eta ezaugarriak hobeto zedarritzeko, badira zenbait kontzeptu eta nozio kontuan izan beharrekoak. Lehenik, kausa-ondorio erlazioa dago. Mendeko beste perpaus mota batzuetan ere (kausazkoak, helburuzkoak) badu garrantzia erlazio horrek, eta baldintzazkoen kasuan erlazio horrek agertzen dituen ezaugarrietara jo izan da sarritan perpaus mota hau definitzeko unean. Bigarrenik, hipotesiaren kontzeptua: baldintzazkoak dira hizkuntzan hipotesiak egiteko bide nagusia, eta adierazten duten hipotesi motaren arabera sailkatu ohi dira baldintzazko perpausak. Horien alboan, aldiberekotasunaren kontzeptua ere kontuan izan behar da, batzuetan baldintzazkoen eta denborazkoen eremuak hurbil izaten baitira. Eta azkenik, arreta berezia jarri behar zaie baldintzadun perpausetan aurkitzen diren semantika/pragmatika jokoei, hizkuntzan aurkitzen diren baldintzadun perpaussek era askotako erlazioak eta nozioak adierazten baitituzte.

**34.3.1b** Batzuetan, baldintzazko perpausaren eta ondore perpausaren arteko erlazioetatik abiatuta, bi motatako baldintzaz hitz egiten da: *enuntziatuaren baldintza*, eta *enuntziatzearen baldintza*. Enuntziatuaren baldintzetan, baldintzazko perpausaren edukiak, kausa hipotetiko gisa, ondore perpausaren esaten dena bideratzen du. Hori gertatzen da, adibidez, *Euria egiten badu errekek hazi egiten dira* esaten denean; lehendabizi ‘euria egiten du’, eta ondorio modura ‘errekek haztea’ datorkigu. Aditzen aldiak besterik adierazten ez badu, interpretatzen da baldintzazko perpausaren adierazia lehenago gertatzen dela ondore perpausarekiko baino. Horrelakoei *edukiaren baldintza* edo *kausaa-ondorio baldintza* ere deitu izan zaie. Baina enuntziatzearen baldintzetan gauzak ez

dira horrela: *Errekak hazi badira, euria egingo zuen* ere esan dezakegu, eta hor, baldintzazko perpausaren edukia ez da ondore perpausaren kausa, baizik eta ondore perpausean egiten den baieztapena arrazoitzeko, edo ondore perpausa adierazteko abiapuntu bezala hartzen da. ‘Euria egingo zuela’ adierazten dut, edo ondorio hori ateratzen dut, ohartzen bainaiz edo esan baitidate ‘errekak hazi direla’. Protasitik abiatuta, arrazoitze, inferentzia edo ondorioztatze ariketa bat egiten du esaleak (isilean inferentziak bideratzen dituen predikatu abstraktu bat egon daitekeela ere proposatu izan da, adibidez, ‘*pentsa daiteke*’, edo ‘*esan daiteke*’ moduko bat), eta askotan ondore perpausean adierazten dena lehenago dator denboran baldintzazko perpausean esaten dena baino, denbora korrelazioa askeagoa baita.

Hurrengo lerroetan, baldintzadun perpausen izaera hobeto ezagutzeko eta zeharritzeko aipatu izan diren nozioak eta erlazioak aztertuko ditugu.

### **34.3.2. Baldintza eta kausa**

**34.3.2a** Kausa eta kausa-ondorio erlazioa bereziki aipatu dira baldintzaren izaera semantikoa argitzeko. Konpara ditzagun ondorengo bi adibideak: a) *Gai<sup>z</sup>-ki ikusten baduzu, ez duzu irakurtzen ahalko*; b) *Ez duzu irakurtzen ahalko, gai<sup>z</sup>-ki ikusten baituzu*. Ikus daitekeenez, franko hurbil dira bi perpausak, baina bata baldintza eta besteak kausa adierazten dute. Alderik handiena, esaleak mendeko perpausean adierazten duenaz erakusten duen jarreran datza: baldintzan esana (*zuk gai<sup>z</sup>-ki ikustea*) egia izan daitekeela dio, hala dela segurtasunik erakutsi gabe; kausazkoan, berriz, ez du dudarik agertzen. Horregatik, maiz, baldintzaren eta kausaren arteko desberdintasuna modalitate kontu horretara mugatua izan da, baldintza *kausala modal* gisa definitzen zelarik. Gramatika terminologian ere gelditu da kausa nozioari darraion zerbait, zeren gorago ikusi dugun bezala, baldintzazko perpausari dagokion apodosia *ondore perpausa* ere deitu ohi baita, esan nahi baitu kausatasunari dagokion kontzeptu bat erabiliz.

Kausaren nozioaren arabera ikusten delarik baldintza, askotan kausa-ondorio erlazioaren edukia ere aipatzen da. Ezaguna da bi eratan bereziki mugatu ohi

dela erlazio hori: kausak ondorioa nahitaez ekartzen duenean, *askikoa* dela esan ohi da; eta kausa gertatu gabe, ondoriorik ezin izan daitekeela adierazten denean, aldiz, esaten da *ezinbesteko* kausa dela. Filosofoek eta logikariek *askiko kausa* gisa mugatu ohi dute hizkuntzako baldintza, eta hala gertatzen da usaian, hala nola adibide honetan: *Euria egiten badu, Pello etxean egongo da*. Adibide honetan, esaleak dio baldintza (*euria egitea*) betetzea *aski* izanen dela Pello etxean egoteko.

**34.3.2b** Nolanahi ere, logikan gauzak hala izanik, hizkuntzaren erabilera arruntan kontu horiek aski errazki itzulipurdika daitezke, bereziki ezetza baliatuz. Adibidez, aurreko adibidean ezetza erabiltzen badugu: *Euria egiten ez badu, Pello ez da etxean egongo*. Nahiz formalki itxura berekoa den, hiztunek beste irakurketa bat eman diezaiokete ezezkotasuna duen adibideari, inferentziak eginez: hiztunak ez du esaten euria egiteak nahitaez ekarriko duela Pello etxean egotea; alderantziz, adierazten du, Pello etxetik ateratzea gertakor datekeela, baina ez gertakari segura. Beraz, solasaren haria hautsi gabe jarraipen hau ematen ahalko zaio adibideari: (*Euria egiten ez badu, Pello ez da etxean egongo*); *egiten badu, aldiz, beharbada egonen da, nahiz ez den segur; ikusiko dugu orduan zer egingen duen*.

Gisa horretako perpausak maiz aurkitzen ditugu salbuespena adierazten duten baldintza bereziekin: *Etxe hau ez dut erosiko, non ez dioten aurretik teilatua berriztatzen*. Adibide horretan esaleak ez du segurtatzen etxeko teilatua berriztatzen balitz etxe hura erosiko lukeela, ondorio hori ez baita nahitaez haren esanetik ateratzen. Azpimarratzen du, haatik, berriztatze hori ezinbesteko baldintza dela harrentzat etxe hura erosteko. Baldintza gisa horretan hanpaturik erabiltzen denean, adibidez, *bakarrik* adberbioaz lagundua izanik, baldintza ber denboran askikoa eta ezinbestekoa izaten da: *Zu nirekin etortzen bazara bakarrik, joanen naiz*.

### 34.3.3. Baldintza eta hipotesia

**34.3.3a** Hipotesiaren nozioa ere oso garrantzitsua da baldintzazko perpausen berri emateko. Hipotesiak egiteko hizkuntzek duten modu nagusietarik bat da baldintza. Hipotesia, gerta zitekeenari edo daitekeenari buruz egiten den propo-

sizio aukera bat da, eta baldintzazko perpausak hura mamitzen du. Are gehiago, anitz hizkuntzatan, eta euskaran ere hala da, esaleak hipotesiei ematen dien gertakortasun mailaren arabera, adizki jokatuaren aldia desberdina izan ohi da (+/-alegialdia). Esaleak hipotesiak gertakortzat jotzen dituenen, oraineko edo iraganeko adizkerak erabiltzen ditu: *Bihar Donostiara joaten bagara...* (-alegialdia; gertakorra). Horrelakoei *baldintza errealak* deitu izan zaie gramatiketan. Eta adizkia (+alegialdia) motakoa bada, *baldintza irrealaz* hitz egiten da: *Bihar Donostiara joango bagina...* (+alegialdia; gertagaitza); *Iaz Donostiara joan izan bagina...* (+alegialdia; ez da gertatu). Aurreko adibide horietan, adizkeraren aldaketak adierazten du esaleak nola ikusten duen solaskidea eta haren lagunak Donostiara joateko aukera: lehenean, gertakorrago dela gertagaitza baino; bigarrenean gertagaitzago dela gertakorra baino; eta hirugarrenean, iraganaldira begira, Donostiara ez zirela joan, ez dela gertatu (*baldintza kontrafaktualak* ere deitu izan dira horrelakoak). Azken honen gisako adibideekin, adierazten dena da, baldintzadun perpausoko bi ataletan aipatzen dena ez dela egiatan gertatu. *Kontzertura joateko deitu bazenit, joango nintzen* esaten badugu, aipatzen diren bi gertakariak ez direla jazo adierazten da: kontzertura joateko ez ziola deitu, eta kontzertura ez zela joan. Hauetan, bada, ez dago egiazko hipotesirik: hipotesiak etorkizunean bakarrik egiazta daitezke, eta etorkizunera begira dauden adibi-deak bakarrik izan daitezke benetako baldintza hipotetikoak.

**34.3.3b** Hipotesiari esaleak ematen dion gertakortasuna maila, beraz, erabiltzen diren adizkiei lotua dago, eta horretatik abiatzen dira sarri gramatikariak baldintzazko perpausen sailkapena egiteko. Baina puntu honetan, kontuan izan behar da adizki jokatuabeekin ere osatzen direla baldintzazko perpausak, eta adizki jokatuabeek adizki laguntzailerik ez dutenez, sailkapen horretarako irizpide nagusia, adizkia (+/-alegialdia) izatearen irizpide formala, ez da agertzen mendeko perpausuan: *Donostiara joanez gero, hondartzara joango naiz/nintzateke/nintzen*. Ondore perpauserako hautatzen den aditzaren arabera, nabarmena da esaleak gertakortasun-maila desberdinak dituela buruan, baina hala ere baldintzazko perpausa guztietan bera da (*Donostiara joanez gero*): baldintzazko perpaus jokatuabeetan (+/-alegialdia) izatearen edo oraina/iragana den informaziorik ez dugu mendeko perpausuan, eta aspektu markarik ere ez zaigu azaltzen.



**34.3.3c** Azkenik, hipotesien gertakortasun mailaren gainean ari garelarik, nabarmendu behar da testuinguruak ere garrantzi handia izan dezakeela. Begira ondorengo adibideari: *Bihar eguraldi ona egiten badu, hondartzara joango gara; baina ez diot itxura handirik ikusten, eta ziurrenera beste zerbait pentsatu beharko dugu*. Adibide honetan orainaldiko adizkiak erabiltzen dira baldintzazko perpausuan, eta hipotesia nahiko gertakorra izan zitekeen, baina perpausari ematen zaion jarraipenean, gertakortasunari buruzko itxaropenak erraz aldatzen dira.

#### 34.3.4. Aldiberekotasuna

**34.3.4a** Denborazko aldiberekotasunaren kontzeptua ere maiz aipatu izan da baldintzaren gainean hitz egiten denean, eta zeharka bada ere, garrantzia izaten du. Solas egoera askotan denborazkoak eta baldintzazko perpausak sinonimo edo baliokide izan daitezke, eta testuinguru anitzetan bata bestearen orde balia daitezke; baita juntaduraren bidez lotu ere. *Euria egiten duenean, kaleak busti egiten dira*, denborazko mendeko perpausarekin, edo *Euria egiten badu, kaleak busti egiten dira*, baldintzazko perpausarekin, zenbait egoeratan, baliokideak izan daitezke.

Adibide horietan errepikatzen diren bi gertakariz hitz egiten da (*euria egin* eta *kaleak busti*), eta elkarren artean erlazio bat moldatzen da, ikuspegi arabera baldintzazko edo denborazko perpausa eratuz. Izan ere, errepikapena adierazten duten denborazkoetan, baldin gertakari edo egoera bat noiz gertatu den edo gertatzen den adierazteko beste egoera edo gertaera bat aipatzen badugu, inplizituki adieraz dezakegu denborazko edo kausazko erlazioa ere badela gertakari horien artean<sup>2</sup>. Era honetako adibideetan, gertakortasun maila ez dago auzitan, eta horrek baliokidetasuna errazten du.

---

<sup>2</sup> Gaia berez zabalagoa da. Denbora, kausa, baldintza eta kontzesioa elkarrekin zerikusia izan dezaketen nozioak dira, eta batzuetan, bat non amaitzen den eta hurrengoa non hasten den garbi zedarritzea ez da erraza gertatzen. Bi gertakari (*buruko mina izan — pilulak hartu*)

**34.3.4b** Denborazkoen eta baldintzazkoen arteko baliokidetasuna iterati-boak edo errepikatuak diren egoeretan gertatzen da errazena: *Etxean bazkaltzen badu/duenean, berandu itzultzen da lanera*. Adizkiak (-alegialdia) motakoa behar du, baldintza errealekoa. Horrelakoetan juntaturik ere erraz ager daitezke: *Lantokiko jangelan gelditu orde, emaztearekin bazkaltzen duenean, edo amarenera joaten bada, berandu itzultzen da lanera*. Aldiz, iterati-boak ez diren egoeretan nekezago aurkituko dugu, nahiz orduan ere antz zerbait aurki daitekeen batzuetan denborazko eta baldintzazko perpau-sen artean: *Maddi ikusten duzunean, goraintziak emazkiozu; Maddi ikusten baduzu, goraintziak emazkiozu*. Bi adibide hauek solas ingurumen askotan esanahi hurbilekoak izanen dira. Halere, hemen desberdintasun bat nabaritu daiteke. Denborazko perpausa erabiliz, esaleak ez du dudarik erakusten aipatzen den gertakaria egiazki gertatuko den ala ez. Baldintzazkoa erabiliz, aldiz, halako segurtamenik eza adierazten du bere solasean. Desberdintasun horren indarra solas ingurumenak mugatuko du; adibidez, zuk Maddi noiz ikusiko duzun batere argi ez bada (bihar, etzi, edo urte baten, edo bizpahiru-ren buruan), orduan baliokidetasun pragmatiko handiagoa hartuko dute bi perpausak.

**34.3.4c** Adizki jokatugabearekin ere agerian gelditzen da denboraren eta baldintzaren arteko lotura hori. -TUZ GERO menderagailuaren bidez denbo-razko mendeko perpausak egiten dira, baina baldintzazkoak ere osa daitezke, eta sarritan bi adieretatik edozein uler daiteke. *Pertsona bat bistatik galduz*

---

denboran bata bestearen jarraian doazelako ideiatik (*Buruko mina dudanean, pilulak hartzen ditut*; denborazko perpausa), gertu egon daiteke lehena bigarrena eragiten duen kausa delako ideia (*Buruko mina dudalako, pilulak hartuko ditut*; kausazko perpausa); eta hortik, kasu batzuetan, kausa hori hipotetikoa izan daitekeelako ideia (*Buruko mina badut, pilulak hartuko ditut*; baldintzazko perpausa). Azkeneko urratsa litzateke, pentsatzea kausa hipotetiko batek eragin dezakeela gertakari bat betetzea, baina azkenean ez dela hala gertatzen (*Buruko mina badut ere, ez dut pilularik hartuko*; kontzesiozko perpausa); nolabait esateko, alderantzizko bidea, kausalitatea ukatzea. Edo, adibidea apur bat aldatuz, gerta daiteke baita kausa hipote-tiko hori etorkizunean kokatzea, adierazi nahi den enuntziatua baino geroago (*Buruko mina kenduko badut, pilulak hartu beharko ditut*), helburuzko irakurketa eraginez.

*gero, galtzen da halaber oroitzapenetik* adibidea, uler daiteke denborazko modura, *pertsona bat bistatik galtzen denean/galdu ondoren*, edo baldintzazko modura, *pertsona bat bistatik galtzen bada*. Kasu honetan, ondokotasuna baldintza modura ulertzen da. Baldintzazko adiera erraz lortzen da, baita ere, balio generikoa duten adibideekin (*Osasuna galduz gero, gertu izaten dira pentsamendu ilunak; Artzain artean ibiliz gero, gazta jan behar!*), edo denborarenean seinlatu beharrean une zehatzik gabeko egoera adierazten denean (*ahal izanez gero, nahi izanez gero...*).

### 34.3.5. Solas jokoak eta inferentzia bidezko erabilerak

**34.3.5a** Baldintzaren nozioa kausalitatearen arabera aztertua izan bada, inola ere ez daiteke baldintzazko perpausen erabilera horretara muga, zeren hizkuntza erabileran logikan ez bezalako ezaugarriak izan baititzakete baldintzadun perpausak, eta kausa-ondorio erlazioak huts egiten baitu batzuetan mintzaira errealeko baldintzadun perpausen erabilerak argitzeko. Aurretik ere aipatu dugu, enuntziatuaren baldintzak eta enuntziatzearen baldintzak bereizi izan direla. Azken hauetan jarriko dugu arreta hemen.

Esate baterako, *Egarri bazara, goizean sagardoa eman dut hozkailuan* bezalako adibide batean, elkartzen diren bi perpausen arteko erlazioa ez da kausazkoa, eta nekez aurkez daiteke perpaus nagusia mendekoaren ondorio gisa, logika ikuspegian egiten den bezala, besteak beste, kasu horretan ondorioan aipatzen den gertakaria, baldintzazko perpausaren adierazia dena jazo baino lehenago gertatu baitzen. Horrelako kasuetan, solasaren erregelen bidez azal daiteke baldintzaren erabilera, eta gure adibidean inplizituki adieraziak direnak agerian eman behar bagenitu, horrelako zerbait esan behar genuke: *goizean sagardoa hozkailuan ezarria dudala esanez jakinarazten dizut edatekoa badela etxe honetan; edari freskoa gainera eta ez edozein: sagardoa*, edo *gure arteko harremanak diren bezalakoak izanik, badakizu engoitik edatekoa izateko aski duzula eskatzea, edo zerorrek hozkailutik hartzea*, edo egoerari dagokion besteren bat. Solaskideen arteko solas konbentzio isiletan eta ageriko esanek inferentziaz inplikatzeko dituzten azpiko adierazietan finkaturik

daude gisa horretako baldintzazko perpausak, eta maiz agertzen dira hizkuntza erabileran.

**34.3.5b** *Enuntziatzearen baldintzen* bidekoak izaten dira hizkuntzan aurkitzen diren baldintzadun perpausetako asko: baldintzazko perpausean ez da adierazten kausa bat, baizik eta perpaus nagusia enuntziatzeari zentzua emango dion, edo enuntziazio hori bideratuko duen ‘baldintza’ bat. Nekez aurki daiteke haietan kausa logiko baten itxurarik. Ikus ditzagun beste adibide batzuk, baldintzazko perpausez ari garenean zertaz ari garen hobeto jabetzeko: *Hotz bazara, berogailua pizten ahal dut.*

Esaleak solaskideari esaten balio: *Hotz bazara, berogailua piztuko dut*, baldintza arrunta genuke; ordea, ondore perpausean ahalezko modalitateari doakion forma bat erabiliz galtzen da logika lotura, berogailuaren pizteko ‘ahala’ ez baitaiteke solaskidea hotz egotearen ondorioa izan. Halere, ondorioak seinalatzen duenarekin solaskideak badaki, nahiz ez den hitzetan agerian adierazia, berak beharra badu edo eskatzen badio, esalea prest dagoela berogailua pizteko. Beraz, hemen ere, solasak bideratzeko diren kooperazio eta solaskidetzaren printzipioetan oinarritua da lotura.

**34.3.5c** Ikus dezagun beste adibide bat: *Pello bilkurara etorri ez bada, erida*. Adibide honetan, dedukzio bat adierazten du esaleak. Izan ere, adibide horretan ere, *Pello eri izatea* ez daiteke *Pello bilkurara ez etortzearen* ondorioa izan. Alderantziz, izatekotz, kausa da, ez ondorioa. Hain zuzen ere, perpaus nagusian adierazia (*Pello eri izatea*) baldintzazko perpausean esanaren (*bilkurara ez etortzea*) kausa izan daitekeelako bideratzen da dedukzioa.

Eta hurrengo adibidea: *Nekatuta egonez gero, denboraz lasai gabiltza*. Hemen ere ez dago kausa-erlazio logikorik: solaskideek eraiki behar dute lotura, egoeran oinarrituta. *Denboraz lasai dabiltzala* adierazi du hitzunak, eta esan duena esateari nolabaiteko zentzua ematen dio baldintzazko perpausak: alegia, denboraz lasai dabiltzala esan du, norbait nekatuta egonez gero, eta beharbada esaleak norbait nekatuta egoteko aukera ikusten duelako, nolabaiteko zeharkako gonbita eginez, atsedean hartzeko arazorik ez dela izango iradoki nahian.

**34.3.5d** Ikus dezagun orain beste hau: *Axularrek ‘Gero’ idatzi bazuen, orduko irakurtzaileek holako liburuen beharra zutelakoan egin zuen.*

Adibide honetan, perpaus nagusiak baldintzazko perpausoko proposizio edukia berriz hartzen du (*egin zuen* = ‘Gero’ idatzi zuen), eta galdegai gisa agertzen den informazio bat gaineratzen du, kausazko perpaus gisa agerrarazirik (*orduko irakurtzaileek holako liburuen beharra zutelakoan*). Kasu horretan esaleak, bai eta haren solaskideek ere, baitakite Axularrek *Gero* idatzi zuela, ez da hipotesirik egiten baldintzazko perpausuan, eta ez da perpaus nagusian esana denari buruz kausarik adierazten. Alderantziz, usaiako loturak aldatuz, ohiko kausa-erlazioa aldez kontra emana da: hemen baldintzazko perpausari dagokion kausa perpaus nagusian adierazia da, kausazko perpaus hori galdegai gisa hanpatua izanik.

**34.3.5e** Aldiz, *Miren etortzen bada, berandu etorriko da* adibidean, aurreko adibidean bezala, perpaus nagusiak baldintzazko perpausoko proposizio edukia berriz errepikatzen du, eta galdegaia (*berandu*) gaineratzen. Kasu honetan, ordea, aurrekoan ez bezala, baldintzazko perpausa ez dagokio solaskideek aitzinetik jakintzat daukaten zerbaiti, eta hipotesi gisa agertzen da. Hain zuzen, esaleak adierazten du hipotesi hori betetzekotan haren ustez zer gisatan gertatuko den. Hemen ere, beraz, ondore perpausa ez da gertakarien logikako ondorioa.

**34.3.5f** Segi dezagun beste adibide batzuekin: *Aterkia hartuko dut, euria egiten badu (ere); Inoiz behartzen bazara (ere), hartu nire telefonoa.*

Adibide hauetan hipotesi bat ematen da (euria egitea; nire laguntzaren beharra izatea), etorkizunean kokatuz, menturazko modura, eta hipotesi horri nolabaiteko gertakortasun-mailaren bat aitortzen zaionez, une honetan egiten duen ekintzaren kausa modura azaltzen da: gerta daiteke euria egitea, eta horregatik, badaezpada ere, aterkia hartuko dut. Alde horretatik, kausazkoekin parekotasuna dute (*Aterkia hartuko dut, euria ari duelako*); baina euria egitearen gertakortasuna oso desberdina da bi adibideetan.

**34.3.5g** *Hobe dugu hemendik joatea, norbait etortzen bada ere* perpausa ere baldintzazkoa da eta gerta daitekeen zerbait aipatzen du, arisku bat balitz bezala. Esalearen ikuspegiaren mentura hori aski da ondore perpausuan diogenaren

funtsatzeko, aurreko kasuan gertatzen zen bezala. Baldintzadun perpaus ohiko edo kanonikoetan esaleak dio ‘norbaít etortzeko baldintza bete ondoan’ gertatuko dela perpaus nagusian adierazten den ondorioa; ez da horrela, hemengo erabileran, non esaleak baitio inor etorri gabe ere, ‘norbaít etor daítekeelako soilik’, hobe dela joatea, badaezpada ere.

**34.3.5h** Enfasia emateko erabiltzen dira *Entrenatzaileari zerbait eskertzen bazion, berarekin izan zuen pazientzia zen* gisako perpausak.

Ondore perpausean *izan* aditza azaltzen da, eta baldintzazko perpausean ize-nordain zehaztugaberen bat (*zerbait, norbait...*). Adibideek ez dute benetako hipotesirik agertzen: ziurtzat hartzen da baldintzazko perpausak dioena (entrenatzaileari zerbait eskertzen ziola), eta ondore perpausean izenordain horren edukia zein den zehazten da (*zerbait = berarekin izan zuen pazientzia*). Balio-kide izango luke, ‘Berarekin izan zuen pazientzia eskertzen zuen gehiena’.

**34.3.5i** Beste kasu honetan, *Ondo pentsatzen jarritz gero, bizitzako buruhauste asko huskeriak besterik ez dira* adibidean baldintzazko perpausa hizpidea emateko bezala baliatzen da, ondore perpausaren bideratzaile modura: ondore perpausean baieztapen bat egin nahi da (*bizitzako buruhauste asko huskeriak besterik ez direla*), eta baldintzazkoak ez du benetan inolako kausarik agertzen. Antzerakoak dira, baita ere, Oker ez banago, *Josuk zuzendaritzaren alde hitz egingo du*, edo, *Nire datuak zehatzak badira, aurtengoan gaindituko dugu krisia* bezalakoak. Hauek iradokitzen dute ‘ondorengo baieztapena egia da’, edo elkarriketetan gure baieztapenak goxatzeko erabili ohi dira, kortesia modura<sup>3</sup>.

---

<sup>3</sup> Era honetako baldintzazkoek, neurri batean, perpaus nagusi osoa modalizatzen dute, eta egitura sintaktikoan toki desberdina dutela proposatzeko datuak badira. Adibidez, *Oker ez banago, eguraldi ona egiten badu, hondartzara joango gara* bezalako adibide batean, lehenengo baldintzazko perpausa (*oker ez banago*), jarraian datorren baldintzadun perpaus osoari dagokio. Alegia, baldintzazko bi perpaus (*oker ez banago // eguraldi ona egiten badu*) izaera desberdina erakutsiko lukete. Era honetako baldintzazkoak askotan kortesiazko helburuarekin erabiltzen dira, ondorengo baieztapena goxatzeko (*Niri iritzia eman behar badut...; Egia esatea nahi baduzu...*).

**34.3.5j** Batzuetan ondore perpausean galderak, aginduak edo (+ahal) adizkia daramaten adibideak izaten dira: *Hain ziur bazaude, zertarako egin duzu? / jarraitu aurrera zure asmoarekin / joan zaitezke.*

Horrelakoetan ere ez dago kausa-ondorio lotura logikorik, edo benetako hipotesirik. Elkartzen diren bi perpausen artean askatasun handiagoa dago (aldi komunztadura ere askeagoa da), eta sarritan aholkuak, baimenak, aginduak edo gaitzespenak emateko erabiltzen dira. Nolabait esateko, baldintzazko perpausak ondore perpausa enuntziatzeko justifikazioa ematen du.

**34.3.5k** Hona hemen beste egoera bat: *Euskara hizkuntza erromanikoa bada, ingelesa bantu hizkuntza da.*

Esan gabe doa euskara hizkuntza erromanikoa izatea ezin izan daitekeela ingelesa bantu hizkuntza izatearen kausa. Berez, proposizio batak ez du bestearekin zer ikusirik. Halere, solasaldi batean, lokarri analogiko bat izan daiteke bi proposizioen artean, hiztunak solaskideari esaten balio bezala: biek badakigu ondorio perpausean esana kirtenkeria dela; bada, jakin ezazu baldintzazko perpausean esana ere kirtenkeria galanta dela. Mota honetako adibideetan, ondore perpausa nabarmenki okerra delarik, baldintzadun perpaus osoa enuntziatzeari ‘zentzua’ emateko bidea, baldintzazko perpausa ere nabarmen okerra izatea da. Horregatik, zenbait testuinguru argumentatibotan egoki erabilia gerta daiteke aipatu perpausa. Ordenari dagokionez ere, ia beti baldintzazkoa ondore perpausaren aurretik joan ohi da.

**34.3.5l** Beste batzuetan aurkaritza adierazten da egitura horrekin: *Lehen beti elkarrekin ibiltzen baziren, orain haserre daudela dirudi.*

Protasian adierazia egiazat ematen da, baina aurkaritza adierazi nahian erabiltzen dira horrelakoak, elementuren baten kontrastea izaten da (lehen/orain), eta kontzesiozko interpretazioa gailentzen da (*nahiz eta lehen beti elkarrekin ibiltzen ziren*). Inguruko hizkuntza erromanikoetan era honetako aukera estilistikoak erabiltzeko joera handia da.

**34.3.5m** Azkenik, badira kontzesiozko interpretazioa dutenak ere: *Euskal Herria ederra bada, munduan txoko polit harrigarri ugari aurkituko ditugu.*

Kasu honetan ere kontzesiozko interpretazioa ematen zaio adibideari. Hiztunak ondore perpausean dioena kontrajartzen zaio inferentziaz baldintzazko perpausean esanetik atera daitekeen ondorioari. Alegia, baldintzazko perpausean esanak pentsaraz dezake *Euskal Herria toki ederra dela, eta munduko toki ederren artean leku nabarmen bat merezi duela*; baina perpaus nagusiak argitzen du *munduan toki polit berezi asko direla*, eta Euskal Herria ez dela hainbeste nabarmentzen.

**34.3.5n** Beraz, aurreko adibide horiekin guztiekin garbi ikusten den bezala, hizkuntza errealean solaskideen arteko inferentzia jokoetan oinarritutako erabilerak mota askotakoak eta guztiz ugariak dira, eta baldintzazko perpausen berri izateko ezinbestekoa da horrelakoak kontuan izatea. Batzuetan ohiko kausa-ondorio erlazioari jarraituko diote, baina beste batzuk enuntziatzearen baldintza izango dira, era oso desberdineko erlazioekin. Esan daiteke hiztunak baldintzadun egiturak erabiltzen dituenean, baldintzazko perpausaren eta ondore perpausaren artean ‘inplikazio pragmatiko’ bat badagoela adierazi nahi duela, eta protasian esaten denak bide ematen duela apodosia adierazteko; nolabait esateko, ‘pentsa ezazu p protasia, q apodosia enuntziatzeak zentzua izan dezan’.

## **34.4. Baldintzazko perpausen nolakotasuna**

**34.4a** Baldintzazko perpausak gehienetan mintzagai gisa agertzen dira, anitzetan perpaus nagusiaren ezkerrean (*Baimena ematen badiozu, Pello bihar joango da*), eta hortik heldu zaie protasi deitura (ondore perpausaren aitzinean agertzen ohi direlako). Ez da, halere, ezinbesteko kontua, eta honen eskuinean ere inolako arazorik gabe erabil daitezke (*Pello bihar joango da, baimena ematen badiozu*), nahiz ahozkoan intonazio modu berezia ohi dagokion egitura honi.

Mintzagai izateko joera dutelarik, errazki erabil daitezke mintzagaien bereizkuntza bideratzen duten aditzekin: *Pello laguntzera joaten bazaizu, badakit lanak ondo egingo dituzuela*. Adibide horretan *badakit* aditzaren ezkerrean agertzen den baldintzazko perpausa perpaus osagarriari dagokio: *Pello laguntzera joaten bazaizu, lanak ondo egingen dituzu*. Adizki jokatugabeekin ere



jokabide bera agertzen da; adibidez, -TUZ GERO menderagailua erabiliz: *Benetan saiatuz gero, badakit lortuko duzula*.

Munduko hizkuntzetan ere ohiko jokabidea baldintzazko perpausa ondore perpausaren aurretik joatea da, eta Greenberg-en unibertsaletan jasota dago (14. unibertsala). Baldintzazko perpausaren eginkizuna suposizioak ematea da, testuingurua eskaintzea, mundu posibleak aurkeztea, horietatik abiatuta ondore perpausa interpretatu ahal izateko. Hortik dator kio baldintzazko perpausari ohiko mintzagai izaera: aurretik ‘jakina edo emana’ den informazioa izango genuke, eta ondore perpausa baino lehen emango genuke. Askotan, aurreko berbaldia biltzeko, edo aukera posibleak eta ondorioak aztertzeko erabiltzen dira.

Baldintzazko perpausa ondore perpausaren atzetik datorrenean, ordea, gauzak gehienetan aldatu egiten dira, eta askotan perpaus nagusian adierazten dena zehazteko, murrizteko (*Isun hau kenduko dizut, barkamena eskatzen badidazu; Alkate izatea onartuko dut, soldata igotzen badidazue*), mailakatzeko edo xehetasunak azaltzeko (*Gauetan buruko mina izaten dut, bereziki arratsaldean kafea hartzen badut*<sup>4</sup>) erabiltzen da. Edo, *Oporretan Italiara joango naiz, oporrik badut behintzat* bezalako adibide batean, ondore perpausaren presuposizio bat dago (oporrak izango dituela), eta baldintzadun perpaus osoak hutsik egin ez dezan, badaezpada, esaleak baldintzazko perpausa ematen du presuposizioa okerra gertatuta ere. Eta orokorrean, adierazten dena gauzatze-ko aukera gutxiko egoerak ditugunean errazago ematen dira baldintzazko perpausak ondore perpausaren atzetik: *Aurten oporrik gabe? Beno, joango gara, dirurik badut eta opor-egunak lortzen baditut*.

Nolanahi ere, euskaraz baldintzazko perpausak galdegai modura azaltzea ez dago guztiz debekatua, eta ondotik galdegaiak bideratzen dituzten *bakarrik*

<sup>4</sup> Horrelako adibideetan, ondore perpausa bideratu zezaketen baldintza posible guztien artetik bat hautatzen da, eta maila gorenean jartzen da. ‘Gauetan buruko mina izatea’ eragiten duten egoera edo baldintza ugari izan zitezkeen, baina horien artetik bat hautatzen du, eta besteen gainetik jarri, enfasia emanez. ‘Mailakatzeko baldintzazkoak’ ere deitu izan zaie.

bezalako adberbioak dituela, eta kontraste nabarmena bideratuz, horrelako adibideak lor daitezke: *Alabaren borrheroa hilda ikusten bazuen bakarrik lor zezakeen atsedena, ez bestela*. Hori gertatzen denean, baldintza *askikoa* eta *ezinbestekoa* izaten da.

**34.4b** Baldintzazko perpausen barneko osagaien ordena ere franko libre da. Aditza perpausaren aitzinean, erdian edo bukaeran izan daiteke: *Gertatzen bazaizkio ustekabeko batzuk, urduritu egiten da; Ustekabeko batzuk gertatzen bazaizkio egunaren bukaeran, loa galtzen du; Ustekabeko batzuk etortzen bazaizkio, urduritu egiten da*. Baldintzazko perpausen barnean mendeko beste perpaus batzuk ere ager daitezke, eta orduan ere ordena-askatasunak jarraitzen du, baina mendeko perpaus hauek luzeak direnean, maizenik *ba-* menderagai-lua dakarren aditz gobernatzailearen eskuinaldean izaten dira: *Norbaitek esan baligu krisialdiak hainbeste iraungo zuela eta hain ondorio larriak izango zituela, ez genuen sinetsiko*.

Bestalde, seinalatzekoa da, beste mendeko perpaus mota askotan bezala, ezez-kako baldintzazko perpausetan aise azaltzen dela adizki jokatua bukaeran, adizki nagusiaren eskuinaldean: *Bihar Pirinioetan euririk egingo ez balu, mendira aterako ginateke*, perpaus menderatugabeetan guztiz markatua den ordena erabiliz. Nolanahi ere, kokaleku hau ez da nahitaezkoa: *Bihar Pirinioetan ez balu euririk egingo, mendira aterako ginateke*.

**34.4c** Baldintzadun perpausak mendeko perpausak ere izan daitezke. Ikusi dugu perpaus osagarri izan daitezkeela: *Esan didate, berandu joanez gero ez dugula tokirik izango; Amore ematen ez badugu zer gertatuko zaigun galdetu digute*. Baina beste perpaus mota batzuetarako aukera ere badago, adibidez, perpaus erlatiboa izateko: *Zurekin lan egingo banu irabaziko nukeen diruaz Australiarako bidaia egingo nuke*. Kausazko: *Liburua ez dizut emanen zeren lagunek jakiten balute gaizki hartuko bailukete*. Edo helburuzko perpaus izateko: *Liburu hau eskainiko dizut, irakurtzeko astia baduzu zerbait ikas dezazun*. Baina baldintzadun perpausak ez dezakete edozein mendeko perpausa osa: denborazko perpausak, bereziki, ezin izan daitezke baldintzadun perpausak (\**Zure nagusia ikusten badut salatzen zaitudanean dolutuko zaizu*).

**34.4d** Baldintzazko perpausak normalean adierazpen perpausak izan ohi dira, eta ezin izan daitezke galde perpausak. Eta horren ondorioz, *ote* edo *al* bezalako galderetako partikulak ezin erabil daitezke haietan; ezta zeharkako solasa adierazten duen *omen* partikula ere: \**Laguna bihar etortzen omen bazaizu, hari konta zure arrangura*. Halere, haien barneko osagai baten gainean galdera egin daiteke, eta orduan baldintzadun perpaus osoa galderazkoa izan daiteke: *Nor etortzen balitz poztuko zinateke?* Harridurazko perpausak, ordea, molda daitezke baldintzazkoen bidez, askotan egiantza moduan emanak: *Gezur hori egia balitz!* (ikus § 26.6.3.2b).

**34.4e** Gainerako mendeko perpausekin gertatzen den eran, euskalki gehienetako literatura tradizioan adizkera alokutiboa ez da agertzen baldintzazko perpausetan (*Hire anaia etortzen bada! \*baduk, gozoa jarriko duk!*), hain zuzen ere, haietako adizkerak menderagailua baitakar. Joera nagusia hori bada ere, batzuetan, mendebaldeko zenbait erabileratan, aurkitzen dira adizkera alokutiboen adibideak baldintzazko perpausetan.

**34.4f** Baldintzadun perpausetan elipsiak ere ager daitezke, mendeko beste zenbait perpaus motarekin gertatzen den bezala. Alde batetik, baldintzadun perpausak juntaturik edo testuan bata bestearen oso jarraian badoaz, eta egitura paraleloa badute, bigarreanean isilean geratzen diren elementuak lehenengotik berreskuratzen ditugu: *Elurra egiten badu, eskiatzera joango gara; ez badu, museo berria ikusiko dugu*. Aukera hau bereziki baldintza errealekin azaltzen zaigu, eta hauen artean ere, balio generikoa dutenekin zailtasunak izaten dira (adizki jokatugabeekin ere elipsiak nekezago gertatzen dira).

Beste alde batetik, batzuetan ondore perpausuan gerta daitezke elipsiak, esanahia baldintzazko perpausetik hartzen duelarik: *Zu ados bazaude, ni ere bai*; *Zu ez bazaoz, ni ere ez*. Baina berriro ere paralelismo oso estua behar du, eta bereziki baiezkotasunaren edo ezezkotasunaren inguruan eratzen dira. Hortik irtendakoan, polaritatea aldatzen edo perpausen artean kontraste nabarmena egiten saiatuta ere, aurkaritzako edo kontzesiozko irakurketara bideratzen da: *Zu ados bazaude, ni ez*; *Emazteari Chopin gustatzen bazaio, niri Mozart*.

Badira, azkenik, ondore gabe uzten diren baldintzadun perpausak ere (*Zu ados bazaude...*), baina horrelakoetan esanahia ez da aurreko berbalditik eskuratzen, baizik eta une bakoitzeko testuinguruak iradokitzen du. *Zu ados bazaude...* baldintzazko perpausaren ondore izan daitezke *ni ere bai, horrela izango da*, edo *kontu hori aurrera aterako da*. Beste batzuetan, egindako esaerak izaten dira ondorerik gabe uzten diren baldintzazkoak (*Bazeneki...*; *Zure adina izango banu...*), askotan alegialdiko adizkiekin. Edota, mehatxua (*Bazkarian zintzo portatzen ez bazara...*), kezka (*Hainbeste kutsatzen jarraitzen badugu...*) edo desioa (*Gehixeago zaintzen hasiko bazina...*) adierazteko erabiltzen ditugu. Kasu desberdina dira, aldiz, *eta* juntagailuarekin hasitako galderak: *Eta oker bageunde?* bezalakoak, agian egia izan daitekeen aukera edo egoera posible bat hizpidera ekartzeko erabiltzen dira; baina proposamenak egiteko ere erabil daitezke: *Eta Isturitzeko kobazuloetara joango bagina?*

## 34.5. *Ba-* aurrizkia duten baldintzazko perpausak

### 34.5.1. Menderagailu nagusi bat

**34.5.1a** Baldintzazko perpausen artean, *ba-* aurrizkia menderagailu gisa baliatzen dutenak hartu ohi dira perpaus mota osoaren eredu modura: *Ikusten banau, ezkutatzen saiatuko naiz; Deituko balit, barkatuko nioke*. Erabil daitezkeen adizkiei dagokienez, aukera handia dago, bai baldintzazko perpauserako, bai ondore perpauserako. *Ba-* menderagailua, nahi izanez gero, *baldin* lokailuaren bidez ere indar daiteke: *Baldin Pello Bilbon ikusten baduzu, esaiozu ikusi nahi nukeela*. *Baldin* lokailuaren tokia baldintzazko perpausaren barnean aski libre da: baldintzazko perpausaren hastapenean (aurreko adibidean bezala) edo adizki jokatuaren ezkerrean, *ba-* aurrizkiaren ondo-ondoan, izan daiteke; adibidez, goiko adibidea honela esan daiteke: *Pello Bilbon ikusten baldin baduzu, esaiozu ikusi nahi nukeela*.

**34.5.1b** Baldintzazko perpausen sailkapena, haietan agertzen den adizkeraren arabera egin ohi da, (+/-alegialdia) ezaugarritik abiatuta. Ezaugarri horrek

lotura estua du esaleak hipotesiari aitortzen dion gertakortasun mailarekin. *Baldintza irrealak* eta *baldintza errealkak* bereizten dira. Baldintza irrealak deitzen direnetan alegiazko aldiko adizkiak erabiltzen dira. Haietan gertatugabe edo gertagaiztat jotzen diren gertakariak edo egoerak, jazo balira edo jazoko balira bezala aipatzen dira. Baldintza errealkak deitzen diren perpausetan, aldiz, iraganeko edo oraineko adizkerak erabiltzen dira, eta gertakari gertatuak edo gertakorrak adierazten dira.

Adibideak emateko, has gaitzen hiztunek aurretik modu seguruan ezagunak dituzten kontuekin: *Francoren armadak Espainiako gerla zibila galdu balu/\*bazuen...* baldintzazkoan, adizkiaren aldetik, (+alegialdia) bakarrik da onargarria (*balu*), mendeko perpaus horretan esana kontrafaktuala izanik, iraganeko adizkia (*bazuen*) ez baita egokia gertatu ez zen zerbait adierazteko, inferentziazko erabileraren batean ez bada behintzat. Aldiz, *Francoren armadak Espainiako gerla zibila irabazi \*balu/bazuen...* adibidean, alderantzizko egoera aurkitzen dugu. Adizkiak (+alegialdia) ezaugarria duenean (*balu*), baldintza irrealak izango genuke, eta (-alegialdia) ezaugarriarekin (*bazuen*), baldintza erreala.

Hiztunentzat hain argiak ez diren kontuak darabiltzagunean ere, adizkia (+/-alegialdia) motakoa izateak badu garrantzia. Ondorengo bi perpausak izango genituzke zuzenak baina biak ez dira sinonimoak: *Bihar euria egiten badu / Bihar euria egingo balu*. Adizkiak alegiazko aldia ez duenean (*badu*), hiztunak aditzera ematen du haren ustez biharamunean euria egittea gerta daitekeen gauza dela, hots, gauza segura izan gabe ere, guztiz gertakor iruditzen zaiola; baldintza errealean barnean sartuko genuke. Alderantziz, alegiazko aldiko adizkia daraman adibidean (*balu*), gertatze hori hipotetikoagotzat jotzen du; baldintza irrealean sailean kokatuko genuke.

**34.5.1c** Beraz, alegialdia dakarten perpausei *baldintza irrealak* deituko diegu; alegiazko aldiko adizkirik gabe, iragana edo oraina dakartenei, *baldintza errealkak*. Sail nagusi bakoitzaren barnean ere aukera desberdinak izan ditzakegu. Baldintzazko perpausen sailkapen nagusia honelakoa dugu:

<b>Baldintza irreala</b> (+alegialdia)	– <i>etorri / etortzen / etorriko balitz</i> – <i>etor baledi</i> – <i>(baldin) baletor</i>	
<b>Baldintza erreala</b> (-alegialdia)	oraina	– <i>etorri / etortzen bada</i> – <i>(baldin) badator</i>
	iragana	– <i>etorri / etortzen bazen</i> – <i>(baldin) bazetorren</i>

### 34.5.2. Alegialdiko baldintzako perpausak: baldintza irrealak

#### 34.5.2.1. Aspektu oposizioak baldintza irrealetan

**34.5.2.1a** Euskaraz baldintza irrealak aldi marken bidez adierazten direnez gero, aldi markadurari dagokio alegialdia. Ondorioz, haietan (+oraina) vs (+iragana) oposiziorik ez izanik, aspektu marken bidez seinalatzen dira alegialdiko baldintzetan ager daitezkeen denbora oposizioak.

Baldintza irrealetan, bereizkuntza nagusia (+/-burutua) aspektu ezaugarriak markatzen du. Horrela, bitan sailkatzen dira baldintza irrealak: alde batetik, (+burutua) ezaugarria duten alegialdiko baldintzako perpausak; eta, beste aldetik, berriz, (+burutua) ezaugarria ez dutenak. Azken hauek, aurrekoak ez bezala, forma askotarikoak izan daitezke. Gehiago zehaztuz:

- (+burutua) direnak: *etorri balitz*
- (+burutua) ez direnak: *baletor, etor baledi, etortzen/etorriko balitz*

(+burutua) ezaugarria duten baldintzek, solas unean bururatuak diren egoerak eta gertakariak, edo gertakari segidak, aipatzen dituzte, eta haietako aditzek partizipio burutua izan behar dute nahitaez. Berdin du noiz kokatzen den denboran bururapen hori, solas unetik hurbil-hurbil (*Duela segundo bat aitzinera agertu balitzait...*), edo, alderantziz, denboran oso urruti (*Duela berrogei urte sortegunean agertu balitzait...*), adizkera bera erabil daiteke.

**34.5.2.1b** (+burutua) ezaugarria ez duten alegialdiko baldintzak, berriz, era desberdinetakoak izan daitezke: sintetikoak (*baletor*), edo adizki analitikoak

([aditzoina + \*edin/\*ezan] (*etor baledi*); [-t(z)en + izan/\*edun] (*etortzen balitz*); [-tuko + izan/\*edun] (*etorriko balitz*)). Solas unean hastekoak diren egoerak eta gertakariak adieraz daitezke haien bidez: *Bihar edo etzi hango jende xehea jazarrikol/jazartzen balitz edo jazar baledi*. Edo hasiak izanik burutuak ez direnak: *Diru gehiago (izango) banu*. Baita gertakari segidak ere: *Igandeetan ere lan egingo/egiten banu*. Horrela, *ekarri* bezalako aditz baten kasuan, ondoko lau adizkera hauek elkarren parekoak-edo izan daitezke erabileran: *Bihar-ko egunak berri hobekak ekarriko balitu / ekartzen balitu / ekar balitza / balekartz*. Eta euskalkietan agertzen diren mugak bazterrean uzten badira (argi da, adibidez, euskalki batzuetan *ekarri* aditzaren jokabide sintetikoa ez dela erabiltzen, alegialdian bereziki, edo, beste euskalki batzuetan, \*ezan laguntzailea ezin jokaraz daitekeela baldintzazko perpausetan), ez dirudi lau aukera horietako bihi batez aurreko adibidean gaizki erabilia dela esan daitekeela. Beraz, alegialdiko baldintza burutuen ezaugarria modu bakarrean bil daitezke (+burutua) direla esanez, eta burutuak ez diren alegialdiko baldintzetan aniztasuna aurkituko dugu, euskalkiek adizki desberdinak garatu baitituzte: [-t(z)en + izan/\*edun (*etortzen balitz*)] ekialde zabalean, [-tuko + izan/\*edun (*etorriko balitz*)] erdialde eta mendebaldean, garai zaharretan denek erabiltzen zuten [aditzoina + \*edin/\*ezan (*etor baledi*)] adizkia emeki-emeki ordezkatur.

Baldintza irreal	
(+burutua) direnak	– <i>etorri balitz</i>
(+burutua) ez direnak	– <i>baletor</i> – <i>etorriko balitz</i> – <i>etortzen balitz</i> – <i>etor baledi</i>

### 34.5.2.2. Aspektu burutua duten alegialdiko baldintzazko perpausak (*etorri balitz, ekarri balu*)

**34.5.2.2a** Aspektu burutua duten alegialdiko baldintzazko perpaus arruntak euskalki guztietan aurkitzen dira eta denetan kontrafaktualen balioa dute: hiz-

tunak egia ez den (edo egiatzat ez daukan) hipotesi bat egiten du baldintzazko perpausean. Ondore perpausean partizipio prospektiboa azaltzen da, adizki laguntzailearen aldia iraganekoa izanik (gehienetan modu markarik gabe): *Bart garaiz oheratu banintz, goizean ez nintzen hamarrak arte ohean geratuko*; *Gaztetan gehiago ikasi bazenu, lan erosoagoa izango zenuen*. Nolanahi ere, hizkeratik hizkerara aldaerak badira.

**34.5.2.2b** Aldaeretako gehienak ondore perpauseko adizkiei dagozkie. Eredurik hedatuena aurreko hori bada ere, beste aukera bat ondore perpausetan adizki laguntzaileak *-ke* modu morfema eramatea da. Adizki laguntzailearen aldia iraganekoa izan ohi da, aurreko adibideetan bezala, eta partizipio prospektiboa agertzen da: *Liztor batek heldu balizu, ohartuko zinatekeen*, edo, ekialdeko euskalkietan, partizipio burutua: *Laguntzera etorri balitz, biziki eskertu niokeen*. Euskaltzaindiak (42. araua) euskara batuan erabiltzeko onartu du [-tuko + *izan/\*edun* + *-ke*] adizki analitikoa (*ohartuko zinatekeen*), baina [-tu + *izan/\*edun* + *-ke*] adizkia (*eskertu niokeen*) ez da euskara baturako onartu arauetan sartzen. Bigarren aukera edo moldea, berriz, ondore perpausetan [aditzoina + *\*edin/\*ezan*] adizkia erabiltzea da, aldi iraganeko laguntzaile duena eta *-ke* atzizkiduna: *Indiarrek sor zezaketen gaurko fisika, bide horretatik abiatu izan balira*.

Baldintzazko perpausari dagokionez, berriz, batzuetan, burututasuna indartzeko bezala, *izan* partizipio burutua agertu ohi da: *Ikusi izan banindu, agurtuko ninduen*. Baina esanahiaren edo gramatikaltasunaren aldetik ez da desberdintasunik. Bestalde, erdialdeko euskalkietan bereziki, alegiazko aldiaren orde, iraganekoa erabili da batzuetan aspektu burutua duten baldintzazko perpausetan: *Horrenbeste arrautza jan izan banuan, oraindik gehiago ere korrituko nuan* (Txirrita), baina ez da inolaz eredu nagusia, eta ez dugu bide hau gomendatzen euskara baturako.

**34.5.2.2c** Nabarmentzekoa da, bestalde, baldintza eta ondore perpausen arteko aspektu edota aldi komunztadurari dagokion gaia. Aspektu marka burutua erabilirik, alegialdiko baldintza iraganaldian kokaturik, ondore perpausean aipatzen den gertakaria edo egoera orainaldian edo geroaldian gertatzen bada, aukera desberdinak aurkitzen dira aspektu edota aldi komunztadurari



dagokionez: protasiarekiko komuntadura errespetatuz, iraganaldian gertatu izan balitz bezala jokatzeko ahal da ondore perpausako adizkia (aldi iraganeko laguntzailea duen [-tuko + *izan/\*edun* laguntzailea baliatuz], edo, bestela, alegiazko aldiaren ematen ahal da, baina bukatu gabeko egoera edo hasi gabeko prozesu gisa aurkeztuz.

Adibidez, eman dezagun hitzun adineko batek gaztaroan kokatzen duela protasian aipatzen duen gertakaria (*gaztetan ingeleza ikasi*), eta solasaren mementoan oraindik dirauen egoera gisa aurkeztzen duela ondore perpausuan aipatzen duena (*jakintzuago izan*). Bi molde erabil ditzake apodosian, batean iraganeko aldia baliatuz (*Gaztea nintzenez ingeleza ikasi izan banu, askoz jakintzuago izango nintzen orain*), bestean alegiazko aldia (*Gaztea nintzenez ingeleza ikasi izan banu, askoz jakintzuago izango nintzateke orain*). Bi moldeetako adibideak aurki daitezke tradizioan, eta biak dira zilegi. Geroaldian kokatzen diren gertakariak apodosian adierazteko ere hautu bera du hitzunak: ondore perpausuan iraganeko adizkia ager daiteke (*Gaztetan grekoa ikasi izan banu, datorren udan zurekin joango nintzen oportetara*), edo alegiazko aldia (*Gaztetan grekoa ikasi izan banu, datorren udan zurekin joango nintzateke oportetara*).

### 34.5.2.3. Aspektu burutua ez duten baldintzazko perpausak

**34.5.2.3a** Aspektu marka burutua ez duten alegialdiko baldintzazko perpausekin, euskalkien arabera, aukera bat baino gehiago ager daitezke: adizki sintetikoa erabiltzea (*ederra balitz, bihar baletor, dirua banu, arabiera banelki...*); adizki analitiko bat erabiltzea: [-t(z)en + *izan/\*edun*] (*etortzen balitz, ekartzen balu*), [-tuko + *izan/\*edun*] (*etorriko balitz, ekarriko balu*) edo [aditzoina + *\*edin/\*ezan*] (*etor baledi, ekar baleza*), euskalkien arabera.

Beraz, lau aukera desberdin ditugu aspektu burutua ez duten baldintzazko perpausak eratzeko orduan, batzuk besteak baino erabiliagoak, baina denak literatura tradizioan erro sakonak dituztenak eta euskalki batean edo bestean gaur egun oraino bizi direnak. Erabide horiek ez baitira orotan denak baliatuak,

zaila da haien artean bereizkuntza argi zehatzik agerian ematea. Horretara saiatu dira zenbait gramatikari, baina erabileretan beretan oso zaila da askotan euskalki edo tokian tokiko mintzamoldeen gainetikako banaketa garbirik finkatzea. Azaltzeko orduan irizpide formalei jarraikiko gatzazkie hemen, eramoldeak bata bestearen ondotik aztertuz.

**34.5.2.3b** Baldintzazko perpausean alegiatzko aldiko adizki sintetikoak (*ballego, baleki*) ditugunean, solas unean dagoeneko sortuak diren egoerak (*Guztiak zu bezain arduratsuak balira, gauzak hobeto joango lirateke*), edo hasiak nahiz hasi gabeak diren prozesuak (*Bihar amonari iloba bisitan balihoakio, poz ederra hartuko luke*) adierazi ohi dira. Ondore perpauseko adizkiak *-ke* atzizkiaz gain alegiatzko morfologia izan ohi du, aldi komunztadurak hala eskatuta, era sintetikoan (*Lankide guztiak laguntzera baletozkio, ez legoke kexatzeko moduan*), edo era analitikoan [-tuko + *izan/\*edun*] adizkiarekin (*Infernuri ez balitz, pozik egingo nuke bekatu hau*), nahiz [aditzoina + *\*edin/\*ezan*] adizkiarekin (*Legeak dioena okerra balitz, kalte egin liteke legea betearaziz*).

Egia da, halere, batzuetan ondore perpausean aldi komunztadura hausten duten adibideak aurkitzen direla (*Norbait nire bila balebil, hemen aurkituko nau, ez naitz ezkutatuko*): horrelakoetan ondore perpausean esaten denari indarra eman nahi zaio, eta enfasia emateko erabiltzen da oraineko adizkia, alegiatzko aldia erabiltzean ondore perpauseko baieztapena urrun geldo bailiteke, indarra galduz. Ondore perpausean oraineko adizkia erabiliz, esaleak adierazi nahi du, baldintzazko perpausean aipatzen dena betetzen bada, bere ustez ondore perpausekoa betetzeko aukera handia edo osoa dagoela.

Bestalde, mendebaldeko eta bereziki erdialdeko euskalki batzuetan, baldintzazko perpauseko adizkian *-ke* morfema erabili izan da, adizkera ahalezkoa izan gabe: *Ni banintzake sendo eta aberats, guztiak niri begira izango nituzke*. Bide hau ez da berria, eta mintzamolde batzuetan aski zabaldua da. Halere, hobe da euskara batuan ez erabiltzea.

**34.5.2.3c** Baldintzazko perpausean (+burutua) aspektu ezaugarria ez duten alegiatzko aldiko adizkiak ditugunean, mendebaldeko euskalkietan [-tuko + *izan/\*edun*] adizkia erabiltzen da: *Aurrean ikusiko ez bazintut, zaila litzaidake*

*sinestea!*, eta [-t(z)en + *izan/\*edun*] ekialdeko euskalkietan: *Aurrean ikusten ez bazintut, zaila litzaidake sinestea!*, baina edukiari dagokionez ez dago desberdintasunik hemen, euskalki kontua bakarrik baita. Berdin gertatzen da geroaldian gertatuko den gertakaria dugunean ere. Mendebaldean [-tuko + *izan/\*edun*] erabiltzen da: *Datorren urtean ezkonduko bazina, zer harridura!*, eta ekialdeko euskalkietan [-t(z)en + *izan/\*edun*]: *datorren urtean ezkontzen bazina, zer harridura!*

**34.5.2.3d** Baldintza irrealen perpausan [-tuko + *izan/\*edun*] alegiazko adizkia (*etorriko balitz, ekarriko balu*) erabiltzen denean, gehienetan ondore perpausoko adizkia ere era horretan eraikia da: *Etorriko balitz, mesede ederra egingo liguke; Ekarriko balu, bila joan beharrik ez nuke izango*. Esan beharra dago, bestalde, euskalki batzuetan alegiazko aldiko adizki sintetikoaren erabilera ahuldu bezala egin dela, eta orduan, alegiazko laguntzailea duen [-tuko + *izan/\*edun*] adizki analitikoak erabiltzen dituztela sintetikoaren ordez, egoera-aditzekin kontrafaktualak adieraziz: *Ingelesa jakingo banu, errazkiago bilatuko nuke lanbide berria*. Beste zenbait euskalkik *ingelese baneki* erabiliko lukete, eta esan gabe doa, adizkera sintetikoek alegiazko aldia bizirik atxikia duten neurrian, haien erabilera guztiz egokia dela.

Bestalde, [-tuko + *izan/\*edun*] moldea duten hauen artean ere, adizki sintetikoekin aipatu ditugun bi egoerak azaltzen zaizkigu. Batetik, euskalki batzuetan *-ke* morfema erabiltzen dute baldintzazko perpausoko adizkian (*Josunek adituko balizuke, guztiz haserretuko litzateke*), baina, lehen esan bezala, joera hau ez da gomendatzekoa euskara baturako. Bestetik, aldi komunztadura hausteko aukera bada hemen ere, eta zenbaitetan, ohiko bideak baztertuz, idazleek ondore perpausan oraineko adizkia erabil dezakete (*Zerbait gertatuko balitzazu, hemen izango gaituzu gu laguntzeko*), aurreko kasuan bezala, ondore perpausan esaten denari indarra emateko.

**34.5.2.3e** Ekialdeko euskalkietan, ordea, baldintzazko perpausetan alegiazko aldiko adizkia [-tzen + *izan/\*edun*] moldearekin (*etortzen balitz, ikusten balu*) erabili ohi da burutuak ez diren edo hasi gabeak diren prozesuak edo egoerak deskribatzeko. Ondore perpausan adizki sintetikoak edo [aditzoina + *\*edin/\*ezan*] aspektu markaririk gabeko adizki analitikoak sarri azaltzen dira:

*Okaztagarri litake, bihotza zaurtzen balu* (J. Etxepare); *Hil nintake, deusik gertatzen balitzaio* (Zerbitzari). Ondore perpausean [-tuko + *izan*/\**edun*] duten adizki analitikoak ere azaltzen dira, bereziki goi nafarreraz: *Erortzen baltiz negar egingo luke*; *Oparia ekartzen balu, guztiok poztuko ginateteke*. Eta baldintzazko perpausean, *-ke* morfema daraman adibiderik ere aurki daiteke inoiz: *Eskatuko diet guztiei, beren eskuetan erortzen baltizake, parte eman zezaten polizietara*; baina berriro ere, euskara baturako ez dugu gomendatzen.

**34.5.2.3f** Baldintzazko perpausean [aditzoina + \**edin*/\**ezan*] adizki analitikoa (*etor baledi, ikus baleza*) dugunean, ondore perpauseko adizkia analitikoa denean, ekialdeko euskalkietan adizki analitiko hori bera izaten da: *Lehendakaria mintza baledi, guztiok harri gintezke*. Mendebaldeko euskalkietan, ordea, idazleek partizipio prospektiboa erabili dute ondore perpausean: *Lehendakaria mintza baledi, guztiok harrituko ginateteke*.

Baldintzazko perpausean egoera-aditza dugunean, ez da kontrafaktualik moldatzen ahal adizki horiekin: \**Pobreek dirua izan balezate vs Pobreek dirua (izango) balute*. Modu berean, tradizio nagusiaren arabera behintzat, \**edin* eta \**ezan* ez dira adizki sintetiko gisa erabiltzen ahal testuinguru horietan: \**Pobreek dirua balezate*. Halere, seinalatzekoa da *du* erako aditza duten lokuzio zenbaitetan erabili izan dutela zenbait idazlek baldintza modu hau. Beren euskalkian erabide hau berezkoa ez zuten zenbait autorek baliatu izan dute bide hau (*nahi izan* lokuzioarekin bereziki), seguruenaz ere \**ezan* laguntzailea (*dezan*) \**edun* laguntzailearen (*du*) aditzaren ordezkotzat harturik: *Zure emazteak nahi baleza, nik amore emango nuke*. Erabide berri hau, oso zabaldua ez dena, hobe litzateke euskara batuan ez enplegatzea, eta horrelakoetan *du* erakoa zuzenean jokatzea: *balu*. Doi bat desberdina da *ahal*-ekin, gutxitan bada ere, \**ezan* aditzaz egiten den erabilpena, baldintzazko perpausean aipatu ahalmena ondore perpausean zehaztua delarik: *Ahal baneza pozik ordainduko nizuke*.

**34.5.2.3g** Baldintzazko perpausetan alegialdiko ahalezko adizkerak ere erabil daitezke (*ikus balezake, ikus ahal baleza, ikusten ahal balu, ikusi ahal izango balu*). Gorago erakutsi bezala (§ 26.6.3.1b), [aditzoina + \**edin*/\**ezan*] ahalezko adizkeraren ezaugarrietako bat *-ke* morfema eramatea da, eta horrelako adibide batzuk agertzen dira tradizioan: *Jainkoa egiazki maita balezake*,

*gainerakoak axolarik ez.* Nabarmendu behar da protasian azaltzen den *-ke* morfemak ahalezko modua azaltzen duela hemen (*daiteke*, *dezake*), eta ez dela oro har ondore perpausean azaldu ohi den *-ke* morfema (*litzateke*, *luke*). Baina erabilerarik zabalduenekoak eta erro zaharrenak dituenak oin-aditzaren eta adizki laguntzailearen artean *ahal* daramatenak dira. Aurkituko ditugu *ahal* \**edin* eta \**ezan* laguntzaileekin daramatenak: *Hori egin ahal bazeneza, herriaren gogoan zinateke betiko.* Askotan desiramenduzko perpausetan: *Zugatik zerbait egin ahal baneza!; Nire bizia zurearen orde eman ahal baneza!* Eta baita, esan gabe doa, *ahal* \**edun* eta *izan* laguntzaileekin dutenak ere: *Hori ona litzateke, egiten ahal balitz / egin izango ahal balitz; Ahal balitz, guztien adostasuna lortu beharko genuke.*

**34.5.2.3h** Aspektu burutua ez duten alegiazko aldiko adizkiak dituzten baldintzazko perpausari dagokienez, adibideei begiratu z gertakortasun maila ez dela bera: irrealtasuna continuum modura irudikatu behar dugu. Horretan eragina duen faktoreetako bat baldintzazkoetan adierazten denaren edukia izan daiteke; batzuetan berez ezinezkoak direnak adierazten dira: *Hegaztiak ugaztun balira, zenbait gaitan sentikorrago izango lirateke; Euskal Herriko adineko guztiak gazte balira... Hegazti/ugaztun edo adineko/gazte bikoteak erabiliz, berez ezinezkoak diren baldintzazko perpausak ari gara egiten.* Beste batzuetan, egungo munduko errealitatetik oso urrun daudenak eman ditzakegu: Autoek kutsatuko ez balute, gure hiriak garbiago izango genituzke (nahiz eta, etorkizunean agian gauzatzeko modukoak izan daitezkeen). Eta beste muturrean, egia bihurtzea erraz gerta daitezkeen ekintza edo egoeraren baten baitan dauden baldintzazko perpausak: Gehixeago saiatuko banintz, emaitza hobek izango nituzke; Mirenek deituko balit, antzerkilara joango nintzateke. ‘Gehixeago saiatzea’ edo ‘Mirenek deitzea’ irreal modura aurkezten dira, alegiazko aldiko adizkiarekin, baina aurretik esan direnak baino errazago dira gauzatzen.

Irrealtasunean eragina du, hala ere, ekintza denboran non kokatzen den. Orainalditik gertuen dauden gertakariak adierazten direnean, gertakortasuna txikiagoa edo ezinezkoa izaten da: *Gaur Jon etxean balego, ez nintzateke larrituko.* Eta etorkizunera begira daudenetan errazagoa da gauzatzea: *Jon etzi etxera*

*etorriko balitz, ez nintzateke larrituko.* Aditzaren izaera semantikoak ere badu zerikusia: egoerak adierazten dituzten aditzekin (*balitz, balego...*) errazagoa da gertatuko ez den protasi baten aurrean gaudela interpretatzea; aditzak prozesuak adierazten baditu, berriz, errazagoa da geroan nolabaiteko gertakortasuna izan lezakeela ulertzea.

Azken batean, adizki bat (+/-alegialdiko) izatea, edo aspektu marka jakin bat edo beste izatea, formari dagokion irizpidea da, eta gertagarritasun maila, berriz, esanahiari dagokion irizpidea da. Izaera desberdineko bi irizpiderekin ari garelarik, errazago ulertzen da formaz alegiazko aldiko adizkia daramaten baldintzazko perpausek irrealtasun maila desberdinak adieraztea.

**34.5.2.3i** Alegiazko aldiko adizkiekin protasirik gabeko perpausak ere aurki daitezke: *Gogotik zerbait edan nezake; Jakin nahi nuke zer ordu den.* Baldintzazko perpausik gabe, esan ote daiteke baldintzadun perpausak direla? Gisa batez, bai, zeren pentsa baitezakegu perpaus hori isildua dela eta inplizituki hor dela: (*aukera izanez gero*), *gogotik zerbait edan nezake; (nik ez dut erlojurik baina norbaitek balu), jakin nahi nuke zer ordu den.* Beste batzuetan (*Nondik zatozen jakin nahi nuke; Gatza emango zenidake?*), jendetasunari dagozkion ohiko jokabideen arabera, kontsideratzen dugu nork gure nahiak eta eskaerak solaskideei agertzerakoan zeharkako moduak egokiago edo direla, eta protasirik agerian eman gabe, ondore perpausari dagozkien alegialdiko adizkerak erabiliz, nolabait sortzen dugu zeharkakotasun edo jendetasunezko urruntasun hori (ikus § 26.6.2.3). Aditz modalekin (*behar izan, nahi izan*) bereziki nabarmentzen dira joko horiek, maiz solaskideen nahiak, esperantzak, kontseiluak, eta abar adierazteko baliatzen baitira, edo baita gaitzespenak egiteko ere: *Gurekin bazkaltzera etorri behar zenuke! Kontu horiek jakin behar zenituzke!*

### **34.5.3. Alegialdia ez dakarten baldintzazko perpausak: baldintza errealak**

**34.5.3a** (-alegialdia) motako adizkia duten baldintzazko perpausari baldintza errealak deitu izan zaie, eta gertakari edo egoera gertatuak edo gertakorrak

aipatzen dituzten proposizioetan oinarritzen dira. Azterketa egiteko nagusiki aspektu marken arabera bideratuko dugu gure aurkezpena, aldia ere kontuan izanez. Baldintza errealean sailkapena honela egin daiteke:

	Oraina	Iragana
<b>[-tu + izan/*edun]</b>	ibili bada, ekarri badu	ibili bazen, ekarri bazuen
<b>[-t(z)en + izan/*edun]</b>	ibiltzen bada, ekartzen badu	ibiltzen bazen, ekartzen bazuen
<b>Adizkera sintetikoa</b>	(baldin) badabil, badakar	(baldin) bazebilen, bazekarren
<b>Aditzoina (+ke)</b>	ibil badaiteke, ekar badezake	ibil bazitekeen, ekar bazezakeen
<b>Aditzoina (-ke)</b>	ibil badadi, ekar badeza (ez da gehiago erabiltzen)	ibil bazedin, ekar bazezan (ez da gehiago erabiltzen)

**34.5.3b** [-tu + izan/\*edun] duten oraineko baldintzazko perpausetan (*ibili bada, ekarri badu*) gertakari edo egoera bururatuak aipatzen dira: *Gau hone-tan elurra egin badu edo euria izan bada, kasu bideari!; Alfer ibili bazara, hurrengo egunetan lan gehiago izango duzu*. Ondore perpausari dagokionez, hango gertakaria nola ikusia den aukera oso zabala izan daiteke: *Ulises osorik irakurri baduzu, lanik zailena egin duzu (-tu) / ez duzu erraz etsitzen (-tzen) / beste edozer erraz irakurriko duzu (-tuko) / edozer irakur dezakezu* (ahalezko adizkera)... Hauetan guztietan ondore perpausako adizkia orainean azaltzen zaigu, aldi komunztadura errespetaturik, eta hala gertatu ohi da modu horretako perpausetan. Halere, zenbait hizkeratan aldi komunztadura hau itxuran hautsirik gerta daiteke, iraganaldi hurbileko menturako moduak partizipio prospektiboa eta iraganeko aldia eska baitezake gertakari gertatuen aipatzeko: *Jonek Indiako kaleko haurrak ikusi baditu, pentsatuko zuen horretarako ez dagoela eskubiderik*. Beste zenbait euskalkitan *-ke* morfemaz baliatzen da modu hori adierazteko, partizipio burutua eta oraina erabilirik orduan: *Jonek Indiako kaleko haurrak ikusi baditu, pentsatu duke horretarako ez dagoela eskubiderik*.

[-tu + *izan/\*edun*] duten aldi iraganeko baldintzazko perpausak (*ibili bazen, ekarri bazuen*) erabiliz, askotan inferentziak tarteko dituzten adibideak osatzen dira: *Atzo Maddalen etorri bazen, zerbait ekarri bide zuen*. Adibide honetan, hiztunak berak ez daki segurki ea bezperan Maddalen etorri zen, baina norbaitek hala esan dioke, eta ez zaio ezinezkoa iruditzen; ondore perpausean, baldintzari dagokion dedukzio bat adierazten du. Horrela, askotan baldintzazko perpausean egiten den baieztapena aurretik jakintzat-edo ematen da, eta ez dute egiazko hipotesirik adierazten, eta inferentziazko erabilera bideratzen dira. Antzeko zerbait gertatzen da *Laguntza eskatu badigu, beste aukerarik ez zuelako izan da* adibidearen moldekoetan ere: ondore perpausean baldintzazkoaren gaineko argibideak edo arrazoiak eman dira, eta *izan* aditza eta kausazko perpaus bat eramaten dituzte barnean.

Inferentziazko erabileren barnean, beste batzuetan, ondore perpausean esana protasiari kontrajartzen bezala zaio, aurkaritza eginez, kontzesiozko balioa lortuz: *Errealaren ezezkoarekin semea izugarri atsekabetu bazen, gurasoek lasaitu ederra hartu zuten*. Hemen ere protasian esana ez da egiazki hipotesi gisa aurkezten. Eta inferentziazko erabilerekin aurrera jarraituz, beste batzuetan protasian esana hala ez dela azpimarratzeko baliatzen dira mota horretako perpausak: *Ostegunean nirekin mintzatzen saiatu bazen, ez dago bere deirik ez etxeko telefonoan ez eskukoan, eta posta elektronikoan ere ez dago ezer*. Adieraziz, baldintzazko perpausean adierazten dena (ostegunean nirekin hitz egiten saiatu zela) ez dela zuzena inondik ere. Edo zeharkakoagoa den loturarekin: *Emaitza onak agindu bazituen, ez salmentak ez irabaziak ez dira iazkoak baino hobek izan*. Guztietan ere, benetako hipotesirik egiten ez denez, [-tu + *izan/\*edun*] duten aldi iraganeko perpausak solaseko jokoan eremu zabalerako erabiltzen dira.

**34.5.3c** [-t(z)en + *izan/\*edun*] duten oraineko baldintzazko perpausek (*ibiltzen bada, ekartzen badu*), denboraren aldetik, solas uneari eta geroaldiari dagokion denborazko kokapenak adieraz ditzakete. Solas unean bururatuak izan gabe hasiak diren (*Zuk hortxe ikusten baduzu, hor dago noski; Euskal Herriko hirien historia idazten ari bazara, ez ahaztu jatorri askotako jendea biltzen zela haietara*), edo oraino hasi gabeak diren egoerak, gertakariak edo



gertakari segidak (*Zure esanetara makurtzen banaiz, herritarrek ez didate barkatuko*) aipa daitezke haietan, bai eta, balio generikoa edo gnomikoa izanik (*Lehoi ar berriak taldea menderatzen badu, aurreko kumeak hiltzen ditu*) denborazko kokapen zehatzik ez dutenak ere. Hauetan guztietan, hipotesia solas unean edo geroaldian jartzean, ez da guztiz ziurra hipotesi hori gauzatuko denik; baina (+alegialdia) motako adizkera erabilia baino gertakortasun handiagoa aitortzen zaie. Eta ildo horretan, nabarmenki gertagaitza den zerbait aipatzean (*Axular zaharra kalean ikustea*), egokia izan daiteke (+alegialdia) motako adizkera erabiltzea (*Bihar Axular zaharra kalean ikusiko bazenu, zer esango zenioke?*), baina desegokia genuke [-t(z)en + izan/\*edun] duen oraineko adizkia erabiltzea (*Bihar Axular zaharra kalean ikusten baduzu, zer esango diozu?*); (+alegialdia) erabiliz, hiztunak aditzera ematen du nekez solaskideak ondoko egunean Axular kalean atzeman dezakeela, baina bigarrenean, protasian egiten duen hipotesia gertakortzat jotzen du hiztunak, eta franko gauza bitxia da aspaldi hil norbaitekin kalean buruz buru egitea.

[-t(z)en + izan/\*edun] duten aldi iraganeko baldintzazko perpausetan (*ibiltzen bazen, ekartzen bazuen*), iraganaldian kokatuak garelarik, gertakari errepikatuak (*Berandu oheratzen bazen, gau osoan urduri egoten zen*) adieraz daitezke, edo baita iraganaldian hasi gabeak edo geroaldikoak diren gertakariak ere (*Medikuari deitzen bazion, ama haserretuko zitzaion*). Azken hauen harian, ez dira gutxi zehar-solasean azaltzen diren adibideak, askotan iraganeko adizkien osagarri modura, denbora komunztaduragatik (*Bazekien berandu iristen bazen lagunak haserretuko zitzaizkiola*).

**34.5.3d** Oraineko adizki sintetikoa duten baldintzazko perpausak ((*baldin*) *badator*, (*baldin*) *badakar*) denboraren aldetik, solas uneari eta geroaldiari dagozkion denborazko kokapenak adierazteko erabiltzen dira: *Proposamen honek hobekuntzarik ez badakar, ez dugu aintzat hartuko*; *Peru badator, berak prestatuko du afaria*. Edo baita ekintza errepikatuak: *Laguntzailea badator-kit, larunbatetan jaisten naiz herrira*. Edo denboraren aldetik generikoak direnak ere: *Proiekturik erakargarrienak izanda ere, dirurik ez badago, akabo asmo guztiak!* Ondore perpauseko adizkiei dagokienez ere aukera oso zabala da, eta ohikoena oraina erabiltzea izan arren, aldi iragana ere ager daiteke,

menturazko modua partizipio prospektiboa erabiliz adierazi nahi denean: *Mikel gaur nirekin zinemara badator, ez zuen beste aukera handirik izango.*

Iraganeko adizki sintetikoa ere ager daiteke baldintzazko perpausetan ((*baldin*) *bazetorren*, (*baldin*) *bazekarren*), eta denboraren aldetik, [-t(z)en + *izan/\*edun*] molde analitikoaren egoera bertsua aurkituko dugu hemen ere. Batzuetan, zuzeneko solasean iraganaldian kokatuak garelarik, ondore perpausuan era desberdinetako adizkerak aurkituko ditugu. Sintetikoa: *Herrian ez bazeuden, nola zekiten hain ondo plazan gertatutakoa?*; [-t(z)en + *izan/\*edun*] moldekoa: *Etxera berandu bazetorren, gurasoek zigortu egiten zuten, gertakari errepikatuak aipatzen direnean bereziki*; [-tu + *izan/\*edun*] erakoa: *Dirua gainean bazeneraman, gauzarik arriskutsuena egin zenuen herrialde hartan*; [-tuko + *izan/\*edun*]: *Geltokian ordurako ez banangoen, ez nuen oportetara joaterik izango*; edo aldi komunztadura hautsirik ere ager daiteke, ondore perpausuko adizkia orainean izanik: *Iritzia aldatzeko asmorik ez bazenuen, zer egin duzu berriro bilera deituta?* Beste batzuetan, baldintzadun perpausa perpaus osagarria denean, eta adizki gobernatzailea iraganekoa, zehar-solaseko aldi komunztadura aurkitzen da, ondore perpausuan partizipio prospektiboa agertu ohi delarik: *Banekien, inor galdezka bazetorren, egia esan beharko niola.*

**34.5.3e** Ahalezko adizkera ere ager daiteke baldintzazko perpausetan, bai oraineko forman (*etor badaiteke*, *ekar badezake*) bai iraganekoan (*etor bazitekeen*, *ekar bazezakeen*), nahiz bereziki Iparraldeko testuetan aurkituko ditugun horrelako adibideak. Baldintzazko perpausuan oraineko ahalezko adizkia denean, ohikoena ondore perpausuko ere orainekoa izatea da (*Zuk ez duzu hobetik, nik ez badezaket lorik egin*); aldiz, aspektu markaren aldetik ohi bezain aukera zabala dago. Berdin, baldintzazko perpausuan iraganeko ahalezko adizkera denean, ondore perpausuko ere iraganekoa izan ohi da gehienetan: *Nahi nuena egin ez banezakeen, gaztetan zeharo haserretzen nintzen*; *Mirenekin ezkon ez bazitekeen, herritik alde egingo zuen Jonak*. Baina zenbaitetan, apodosian adierazia orainaldiari baitagokio, orainekoa izan daiteke ondore perpausuko adizkia: *Lehen egin ahal bazenezakeen, orain ere egin ahal izango duzu.*

**34.5.3f** [aditzoina + \*edin/\*ezan] oraineko baldintzazko perpausak (*etor badi, ekar badezat*) XVI. eta XVII. mendeetan aurkitzen ziren (*Iauna, zelurat igan banadi, zu han zira, infernurat ieusten baniz han present zira, zu orotan zira*, Tartas), baina egun zaharkiturik gelditu da molde hau (aldi iraganeko adibideak arras bakanak dira iritsi zaizkigun testu zaharretan ere).

**34.5.3g** Ekialdeko testuetan *ber* enklitikoa ere erabiltzen zen orainaldiko baldintzazko perpausetan (*Arkord gira halaber, lekhu orotan orazioniak hon direla, onsa egiten badira ber*, Tartas), perpausaren baldintza izaera indartuz, baina gaur egun erabilera hau ere zaharkiturik gelditu da.

#### 34.5.4. Laburtuz

Honakoa izango litzateke *ba-* aurrizkia erabiliz osatzen diren baldintzazko perpausen laburpen taula aldiaren eta aspektu markaren arabera:

[+Alegia]			
[+Analitikoa]	[+Aspektua]	[+burutua]	<b>Etorri balitz eta ekarri baligu,</b> gustura hartuko genuen
			[ -tuko]
	[-burutua]		[ -t(z)en]
	[-Aspektua]	<b>Mintza baledi eta aitor baleza,</b> harri zintezke	
[-Analitikoa]	<b>Hemen balego eta hori baleki,</b> esango luke / erran lezake		

[+Oraina]			
[+Analitikoa]	[+Aspektua]	[+burutua]	<b>Etorri bada eta zerbait ekarri badu,</b> zuri plazer egiteko izan da
		[-burutua]	<b>Erortzen bada eta min hartzen badu,</b> negar egingen du
	[-Aspektua]	(Ez da gehiago erabiltzen)	
[-Analitikoa]	<b>Handik badator eta zerbait badakar,</b> pozik izango zara		

[+Iragana]			
[+Analitikoa]	[+Aspektua]	[+burutua]	<b>Aberastu bazen eta etxea erosi bazuen,</b> bere merezimendua izan zuen
		[-burutua]	<b>Etortzen bazen eta zerbait ekartzen bazuen,</b> denak pozten ziren
	[-Aspektua]	(Ez da gehiago erabiltzen)	
[-Analitikoa]	<b>Haserre bazezilen eta zerbait bazioen,</b> lagunak isiltzen ziren		

### 34.6. Non (eta) ez... -n

**34.6a** Perpaus jokatuekin, baldintzazko perpausak osatzeko beste bidea *non (eta) ez... -n* moldea da: *Bihar horretaz mintzatuko dira, non ez diegun holako gairik aipatzea debekutzen*. Iparraldeko euskalkietan erabiltzen da bereziki baldintza mota hau. Beti ezezko perpausak izaten dira, eta *non* lokailua daukalarik hastapenean, *-n* du menderagailua. Mendebaldeko euskalkietan *eta* ager daiteke *non* lokailuaren ondotik: *Ibaiak bere bidetik irtengo dira, non eta ez duen atertzen laster; Non eta sokaz lotzen ez nauten, ni hemendik irtengo*

*nai*z. Bestalde, nabarmendu behar da, azken adibidean adizki laguntzailea eta ezezkotasuna ez direla perpausaren hastapenean, *non* lokailuaren ondoko lehen posizioan. Erabide hau ere zilegi da, nahiz doi bat markatua den Iparraldeko euskalkien erabilera nagusiaren eretzean.

*Non (eta) ez...* -n moldea erabiliz osatutako adibideetan, baldintzazko perpausak salbuespen zentzua oso zorrotza du, ondore perpausari begira. Izan ere, ondore perpausako baieztapena urra dezakeen salbuespen bakar gisa agertzen da baldintzan adierazia. Horrelako baldintza *ba-* aurrizkia erabiliz adierazteko, *behintzat* edo, areago, *salbu* gainera daiteke, baldintzazko perpausa ezezkoan utzirik lehen kasuan (*Bihar horretaz mintzatuko dira, holako gairik aipatzea debekatzen ez badiezu behintzat*); *ez*, ordea, bigarrenean (*Bihar horretaz mintzatuko dira, salbu holako gairik aipatzea debekatzen badiezu*).

**34.6b** Ordenari dagokionez, egitura horretan protasia apodosiaren atzean jartzen da gehienetan: *Negu hartan ez zuten goserik pasako, non azken unean uzta bat-batean ez zitzaien galtzen*. Baina ez dira falta alderantzizko segida dutenak ere: *Non ez duzun arerioa osoki garaitua ikusten, ez zaitezela pausa*. Eta lehenengo adibidean ikusten da, bestalde, baldintzazko perpausako adizkia iraganekoa ere izan daitekeela.

### 34.7. -tuz gero

**34.7a** Perpaus jokatu gabeen artean ere badira baldintzazko balioa dutenak. Partizipioari -z atzizki instrumentala erantsi, eta ondoren *gero* postposizioarekin, *-tuz gero* markaren bidez baldintzazko adiera duten perpausak osa daitezke: *Asko maitatuz gero, asko sufritzen da; Gogor lan eginez gero, gehienetan helburuak lortzen dira*. *Gero* postposizioa azaltzeak adierazten digu marka honek denborazkoekin ere lotura izan dezakeela. Izan ere, Iparraldean gehienetan denborazko balioa du (gehienetan *-tuz geroz* formarekin); Hegoaldean XIX. mendean hasi ziren baldintzazko adierarekin erabiltzen, eta XX. mendean denborazko adiera baino ugariagoa da (gehienetan *ezker*o formarekin). Nolanahi ere, zenbait adibidetan denborazko adiera eta baldintzazkoa oso hurbil daude: *Gehiegi eda-*

*nez gero, mozkortu egiten gara. Uler daiteke gehiegi edan ondoren mozkortzen garela, edo gehiegi edaten badugu mozkortzen garela.*

Izan ere, denborazkoek (*Ezinean gertatzen naizenean, laguntza eskatuko dizut*) eta baldintzazkoek (*Ezinean gertatuz gero (=gertatzen banaiz), laguntza eskatuko dizut*) sarritan antzeko eginkizuna izaten dute perpaus nagusiari begira: biek ere mintzagai izateko joera dute, eta perpaus nagusia mintzagai horri buruzko iruzkina izan ohi da askotan. Lehenak, denborazkoak, denbora-une bat-edo seinalatuko luke, eta memento hori iristean laguntza eskatuko dela adierazten da; bigarrean, baldintzazkoan, egoera batez ariko ginateke. Baina eguneroko solasean, ez da ezohikoa, bata zein bestea erabili, alde nabarmenik gabeko egoerak agertzea: eta orduan, denbora nahiz baldintza adieraz ditzakeen *-tuz gero* menderagailua erabili bada, adibide hori sailkatzeko unean zailtasunak izango ditugu: *Nahi al duzu badaezpada ni zurekin gelditzea? Ez; ezinean gertatuz gero, laguntza eskatuko dizut*. Adibide horretan bi irakurketak zilegi dira.

Nolanahi ere, esan dugu tradizioan gehienetan denborazko adierarekin erabili izan dela *-tuz gero*. Denborazkoa izaten da, bereziki, perpaus nagusiak bururaturiko gertakari bat adierazten duenean, mendeko perpausetik aditzak denbora-une bat seinalatzen duenean, edo *behin* bezalako adberbioak mendeko perpausetik azaltzen direnean. Denborazko perpausen atalean (ikus 35. eta 36. kapituluak) ematen dugu horren berri. Baldintzazko adiera gailenduko da, ordea, denbora-unea seinalatu beharrean une zehatzik gabeko egoera adierazten duenean: *ahal izanez gero, nahi izanez gero, behar izanez gero...* Edo balio generikoa duenean: *Bizipoza galduz gero, aberastasunak soberan izaten dira*. Baita baldintza-ondorio komunztadura nagusitzen denean ere: *Ahaleginduz gero, lortuko duzu matematika gainditzea*.

Eta denborazko adierarekin gertatzen zen bezala, *-tuz gero* daramaten perpausetik baldintzazko balioa dutenean ere baiezko perpausetan azaldu ohi dira nagusiki, euskalki eta garai guztietan; euskarak adizki jokatu gabearekin ezezko perpausetan baldintza adierazteko beste molde batzuetara (*-tu ezik, -tu ezean...*) jo ohi du: *Asko irakurri ezik, ez duzu adierazpena hobetuko; Ingeles gehiago ikasi ezean, ez dut lanik lortuko enpresa honetan*.

**34.7b** Ordenari dagokionez, *-tuz gero* duten perpausak ondore perpausaren aurretik nahiz atzetik joan daitezke. Mintzagai izateko joera dutelarik, maiztasunaren aldetik aurretik sarriago izaten dira: *Aukera izanez gero, Patagoiniara joango nintzateke*. Baina ondoren joateko ere ez dute arazorik: *Patagoiniara joango nintzateke, aukera izanez gero*.

Zenbaitetan, mintzagai modura ez, baizik eta galdegai modura ere azal daitezke, adibidez, ondoren *bakarrik* aditzondoa daramatenean: *Akordia sinatuz gero bakarrik jasoko dute bi aldeek diru hori*. Horrelakoetan, baldintza *askikoa* eta *ezinbestekoa* izango genuke: ez da esaten soilik akordia sinatzea nahikoa dela bi aldeek dirua jasotzeko; esaten da, baita ere, akordia sinatzea dela aukera bakarra horretarako.

Bestalde, baldintzazko perpausaren beraren barneko ordenari dagokionez, *adizkia + -tuz gero* multzoa gehienetan mendeko perpausaren amaieran agertu ohi da: *Etixerako barazkiak merkatuan erosiz gero, baserritarrei laguntza ematen zaie*. Baina atzetik beste elementu batzuk dituela agertzeko ere ez dago eragozpenik: *Merkatuan erosiz gero etxerako barazkiak...*

**34.7c** Perpaus hauetan adierazten den hipotesiaren gertakortasuna edo balioa ere kontuan izateko puntua da. Aipatu dugu dagoeneko adizki jokatua duten baldintzazko perpausetan bi sail nagusi bereizten direla, adizkiaren tempusetik edo alditik abiatuta: baldintza erreala (-alegialdia) eta baldintza irreala (+alegialdia). Bereizketa formal horrek lotura zuzena du baldintzazko perpausak adierazten duen hipotesiaren gertakortasunarekin; eta horrez gain, adizki nagusiak hartzen duen aspektu markaren arabera ere aldeak badira baldintzazkoen adieran, hizkera batetik besterako desberdintasunekin.

Adizki jokatugabea duten baldintzazko perpausetan, ordea, informazio morfologiko hori ez zaigu agertzen, adizki laguntzailerik ez baita. Hala ere, ondore perpausako adizkiei begiratuz, ohartzen gara *-tuz gero* perpausen bidez baldintza erreala (*Liburua irakurritz gero, zure iritzia aldatuko duzu*) nahiz irreala (*Liburua irakurritz gero, zure iritzia aldatuko zenuke/zure iritzia aldatuko zenuen*) adieraz daitezkeela.

Baina kontuan izan behar dugu, baita ere, baldintza/ondore komunztadura ez dela beti hertsiki jarraitzen. Orduan, testuingurura jo beharko dugu; eta zenbaitetan bi eratara uler daitezkeen perpausen aurrean egongo gara. Adibidez, *Mirenek pozik lagunduko zion Josuri, honek eskatuz gero* perpausean, uler daiteke, lagunduko ziola *honek eskatu izan balio* (baldintza irreal) edo *honek eskatzen bazion* (baldintza erreala).

**34.7d** Baldintza errealaren balioa duenean, maizenik oraindik hasi gabeak diren egoerak, gertakariak edo gertakari-segidak aipatu ohi dira (*Iaz adina saiatuz gero, aurten ere lortuko duzu helburua*) eta baita ekintza errepikatuak (*Egunero otoitz eginez gero, arimako bakea lortzen da*) eta balio generikoa edo gnomikoa izanik denbora kokapen zehatzik ez dutenak ere (*Euria eginez gero, kaleak busti egiten dira*). Era horretan, askotan geroaldiari buruzko baldintzak adierazteko erabiltzen dira; edo bestela balio generikoa izaten dute eta, ondorioz, ez dute denbora zehatzik adierazten; edo aldiberekotasun errepikatua dute.

Aipatu behar da, badirela *-tuz gero* erabiltzen denean debekaturik ditugun aspektu balioak ere. *-tuz gero* perpausek ezin dute ekintza/egoera buruturik adierazi, eta ezta unean bertan jazotzen ari denik ere. *Elurra eginez gero, ez gara Ibañetatik joango* perpausean, ezin da ulertu ‘elurra egin badu...’, aspektu marka burutuaren erabilera; eta irakurketa burutua lortu nahian *bart* adberbioa eransten saiatzen garenean, perpaus okerrak sortzen dira (\**Bart elurra eginez gero, ez gara Ibañetatik joango*), nahiz eta adizki jokatuarekin adiera burutu horretarako arazorik ez dagoen (*Bart elurra egin badu, ez gara Ibañetatik joango*). Era berean, solas unean hasiak diren egoerak eta gertakariak ere ezin dira *-tuz gero* perpausen bidez adierazi: *Egun gure kaleetan etorrikin asko ikusten baditugu, gerora ez ditugu gutxiago izango* bezalako perpaus baten ordezkoko jokatu gabea emateko, ezin dugu esan *Egun gure kaleetan etorrikin asko ikusiz gero...* Edo, *Oraintxe menditik bueltan bazatoz, ederki nekatuta etorriko zara* adierazteko, ezin dugu *Oraintxe menditik bueltan etorri z gero, ederki nekatuta etorriko zara* erabili.

Nolanahi ere, badirudi debekatutako bi interpretazio horiekin (egoera/gertakari burutuak eta solas unean hasiak), baldintzazko jokatuak ere ez dutela benetakoko hipotesirik agertzen: edo aurretik proposizio horien egiazkotasuna eza-



guna dugu, eta horregatik, sarritan inferentzia modukoak adierazteko erabiltzen dira; edo baldintza ez da protasiak adierazten duena bera, baizik eta protasiak dioena egia izatea, eta egia bada, adierazi nahi da orduan ondore perpausa badagokiola protasi horri. Nolabait esateko ‘bart elurra egin duela egia gertatzen bada...’, edo ‘menditik zatozela egia gertatzen bada...’; era horretan, mendeko proposizioak dioena burutua edo dagoeneko hasia izan arren, hipotesia bera geroaldian kokatzen dugu adizki jokatuekin ere.

**34.7e** Tradizioko adibiderik gehienetan *-tuz gero* marka baldintza erreala adierazteko erabili bada ere, ez dira gutxi baldintza irrealeko irakurketa eskatzen duten adibideak. Horrelakoetan ondore perpausako adizkiak alegialdiko *ba-* perpausetako aukera berak azaltzen ditu. Baldintza irrealaren esparruan, *-tuz gero* dutenak erabil daitezke baldintzazko perpausuan esaten denak gertatzeko aukera handirik ez duela adierazteko (*Bihar berandu iritsiz gero, ez lidakete sartzen utziko*), edo, iraganaldiko baldintzaren balioarekin, baldintza hori ez dela gauzatu aditzera emateko (*Joan den astean, berandu iritsiz gero, ez zidaten sartzen utziko*). Aspektu balioei dagokienez, gehienetan solas unean hastekoak diren egoerak edo gertakariak adierazten dira (*Nire etxera etorri z gero, elkarrekin afuldu ahal izango genuke*), baina hasiak izanik burutuak ez diren egoerak ere azaltzen dira: *Nire banketxeko kontuan diru gehiago izanez gero, oraintxe emango nizuke apur bat*. Eta baita gertakari-segidak ere: *Igan-deetan lan eginez gero, ez zenuke diru arazorik izango*. Eta baldintza errealetan ez bezala, ez dago aspektu balio burutua adierazteko eragozpenik: *Gazterik hasiz gero, nik ere ikasiko nuen lanbide hori* esatean, aspektu burutuko adiera ematen zaio.

### 34.8. *-tu ezik*

**34.8a** Partizipioari *ezik* erantsita ezezko mendeko perpausak osatzen dira mendebaldeko hizkeretan, gehienetan baldintzazko balioarekin: *Horrela egin ezik, ez dugu lortuko aurrera ateratzea; Hurrengo egunetan eguraldia hobetu ezik, turistak haserre ibiliko dira*. Adibide hauek adizki jokatua erabiliz emango bagenitu, ‘horrela egiten ez badugu’, edo ‘eguraldia hobetzen

ez badu' erabiliko genituzke. Adierari dagokionez, baldintza erreal (Isuna jarri ezik, debekuek ez dute eraginkortasunik izango) nahiz baldintza irreal (Partida irabazi ezik, egoera guztiz okertuko litzaiguke) azal daitezke, eta salbuespena adierazteko ere (Ez dut egunkaria irakurtzen, igandeetan izan ezik) erabiltzen dira.

**34.8b** Baldintza errealetako aspektu balioei dagokienez, *-tuz gero* atalean esandakoak balio du honako ere: gehienetan hasi gabeak diren gertakariak aipatzen dituzte (*Gehiago saiatu ezik, ez duzu helburua lortuko*), edo balio generikoa dutenak, denboran kokapen zehatzik gabeak (*Euria egin ezik, uztak galdu egiten dira*). Eta debekuei dagokienez, *-tu ezik* ezin da erabili gertakari burutuak adierazteko (*Ibañetan elurrik egin ez badu autoz joango gara adierazteko ezin da erabili \*Ibañetan elurrik egin ezik...*), une horretan dagoeneko hasiak diren gertakariak baldintza modura emateko (*Une honetan lanean ari ez bazara, etorri nirekin zinemara ezin da esan \*Une honetan lanean aritu ezik...*), edo partizipio prospektiboa duten baldintzazkoen ordain modura (*Go-seak hilko ez bagara, gehiago saiatu beharko dugu ezin da ordezkatu \*Go-seak hil ezik... bezalakoekin*).

**34.8c** Baldintza irrealetan, ordea, ekintza burutuak ere adieraz daitezke *-tu ezik* duten perpausekin (*Ondo prestatu izan ez banintz, ez nuen etsamina gaindituko adierazteko erabil daiteke Ondo prestatu ezik...*). Baita, ohi bezala, hasi gabeko gertakariak (*Nagusiaren aginduak bete ezik, lana galduko zenukete*), ekintza errepikatuak (*Igandeetan lan egin ezik, ez genuke behar adina diru lortuko*) edo generikoak ere (*Jan ezik, ez genuke bizirik iraungo*).

**34.8d** Bestalde, *-tu ezik* salbuespena adierazteko ere erabiltzen da, askotan *izan* aditzaren ondoren: *Ez dut egunkaria irakurtzen, igandeetan izan ezik; Inor ez da konturatu, zu izan ezik*. Tradizioan *izan* gabeko adibide batzuk bada, baina *izan ezik* ugariagoa da, eta euskara baturako hori aukeratu da. Salbuespena adierazten dutenetan askotan perpaus nagusia ezezkoa izan ohi da, edo nolabaiteko kuantifikazioa adierazten duen elementuren bat aurkitzen dugu (*inor*, pluralak, *dena...*). *Izan ezik*-en ezkerrean doan sintagmak perpaus sean dagokion atzizkia hartu ohi du, eta salbuespena, batzuetan, ergatiboarekin egiten dela dirudi, behin baino gehiagotan aurkitzen baita absolutiboan

*izan ezik*-en aurreko sintagma, nahiz ondokoa ergatiboan joan: *Horixe egin zuen zu izan ezik beste edozeinek* (Euskaltzaindiaren 16. araua).

### 34.9. -tu ezean

**34.9a** Partizipioari *ezean* erantsita ere ezezko mendeko perpausak osatzen dira, eta batzuetan baldintzazko balioa izaten dute (*Garaiz joan ezean, ez duzu partidarako sarrerarik lortuko; Guztiok elkartu ezean, ez dugu ezer aurrera ateratzerik lortuko*), bereziki Gipuzkoan eta orokorrean mendebaldean, baina egitura honek aurrekoak baino tradizio laburragoa izan du. Aurreko adibideak adizki jokatuarekin ematen hasita, ‘garaiz joaten ez bazara’ edo ‘guztiok elkartzen ez bagara’ erabiliko genituzke.

**34.9b** Baldintza errealetako aspektu balioei dagokienez, *-tu ezik* aztertzean esandakoak balio du honako ere. Adiera erreala dutenetan gehienetan hasi gabeak diren gertakariak aipatzen dituzte (*Gehiago saiatu ezean, ez duzu helburua lortuko*), edo balio generikoa dutenak, denboran kokapen zehatzik gabeak (*Euria egin ezean, uztak galdu egiten dira*). Aldiz, ezin da erabili gertakari burutuak dituzten baldintzazko perpausak adierazteko (*Ibañetan elurrik egin ez badu autoz joango gara* adierazteko ezin da erabili \**Ibañetan elurrik egin ezean...*), une horretan dagoeneko hasiak diren gertakariak baldintza modura emateko (*Une honetan lanean ari ez bazara, etorri nirekin zinemara* ezin da esan \**Une honetan lanean aritu ezean...*), edo partizipio prospektiboa duten adibideen ordain modura (*Goseak hilko ez bagara, gehiago saiatu beharko dugu* ezin da ordezkatu \**Goseak hil ezean...* bezalakoe-kin). Eta baldintza irreala adierazteko ere, *-tu ezik* dutenen jokabide bera azaltzen dute.

**34.9c** Salbuespena adierazteko ere erabiltzen dira *-tu ezean* duten adibideak, gehienetan *izan* aditzari erantsita (*Zinemara izan ezean, ez da etxetik irteten*), baina tradizioan *-tu ezikekin* baino adibide gutxiago azaltzen dira. Beste batzuetan, *ezean* partitiboan doan osagai bakar batekin joaten da (*Brotxarrik izan ezean, nola margotu horma?*), batzuetan *izan* aditza gabe (*Melodiarik ezean,*

*ez da inprobisatzeko gai*). Askotan gabezia-edo adierazteko erabiltzen da, era orokorrean, eta egoera hori uler daiteke baldintzazko modura, moduzko balioarekin... eta, beraz, zail gertatzen da zehazki sailkatzen. Eta ildo horretakoak dira *besterik ezean* (*Besterik ezean, kale-garbitzaile lanari heldu beharko diot*; *Besterik ezean, zinemara joango gara*), *beste X-ik ezean*, *hoberik ezean*... bezalako esapideak ere.

### 34.10. -t(z)ekotan/-t(z)ekotz

**34.10a** Oinarri modura aditz izena hartuta ere eratzen dira baldintzazko balioa duten perpausak. Adibidez, -t(z)ekotan Hegoaldean erabiltzen da nagusiki (-t(z)eko formari mugagabeko -ta- eta inesiboko marka eransten zaizkio), eta Iparraldeko tradizioan horren parekoa -t(z)ekotz forma da (-t(z)eko formari instrumentala erantsiz). Helburuzko balioa adierazteko erabiltzen dira gehienetan (§ 37.4), baina baldintza ere adieraz dezakete: *Inori laguntzekotan, zuri lagunduko dizut*; *Norbaiti eskerrak ematekotan, Ane ezin dugu alde batera utzi*; *Berant etortzekotz, hobe duzu gakoa hartzea*; *Gehiago ez entseatzekotz, hobe duzu ikasketen uztea*. Esaldi hauek adizki jokatuarekin eman behar bagenitu, baldintzazko formak erabiliko genituzke (*inori lagundu behar badiot*; *norbaiti eskerrak eman behar badizkiogu*; *berant etortzekoa bazara*; *gehiago entseatu behar ez baduzu*); baldintzazko perpausen adiera dute adibide horiek.

**34.10b** Nabarmendu behar da -t(z)ekotan/-t(z)ekotz daramaten perpausok etorkizuneko hipotesiaren kutsua dutela. -t(z)ekotan/-t(z)ekotz daraman perpausuan aipatzen dena, ez da ondore perpausa baino lehenago gertatzen, edo gutxienez ez da ondore perpausa zuzenean eragiten duen kausa izaten. Horregatik, \**Gehiago saiatzekotan/saiatzekotz, lortuko dituzu zure helburuak*; \**Trenbidera ezer erortzekotan/erortzekotz, metroko langileei deitzea komeni da* bezalako adibideak okerrak dira. Horrelakoak adizki jokatu gabearen bidez emateko -tuz gero erabili ohi da: *Gehiago saiatuz gero, lortuko dituzu zure helburuak*; *Trenbidera ezer eroriz gero, metroko langileei deitzea komeni da*.

Hori horrela izanik, *-tuz gero*, *-tu ezik* edo *-tu ezean* duten perpausak gutxitan izaten dira *-t(z)ekotan/-t(z)ekotz* daramatenen baliokide. Lehenengo multzoko menderagailuekin aipatu ditugun balioei erreparatu, ohartzen gara *-t(z)ekotan/-t(z)ekotz* perpausen bidez ezinezkoa dela burututako egoerak edo gertakariak azaltzea (*Bart elurra egin badu, autobidetik joango gara* perpausa, ez dugu ordezkaten *Bart elurra egitekotan...* erabiliz), edo unean gertatzen ari direnak (*Orain hizlaria esaten ari dena ulertzen baduzu, ez duzu bat-bateko itzulpenaren beharrik* adibidea ez da ematen *Orain hizlaria esaten ari dena ulertzekotan...* erabiliz), errepikapena dakartenak (*Igandeetan lan egiten badu, ez du diru arazorik izango ezin ordezkatu Igandeetan lan egitekotan...* erabiliz) edo generikoak (*Euria egiten duenean, kaleak busti egiten dira ezin adierazi Euria egitekotan...* baliatuz). Etorkizuneko baldintzaren esparrutik nabarmen urruntzean, baldintzazkoetan ezinezko gertatzen da *-t(z)ekotan/-t(z)ekotz* menderagailuak erabiltzea.

**34.10c** *-t(z)ekotan/-t(z)ekotz* gehienetan helburuzko balioan erabiltzen direlarik, batzuetan, helburuzkoetatik oso gertu dauden baldintzak aipatzen dira (*Ikasturtea gainditzekotan, gehiago saiatu beharko duzu*) menderagailu hauek dituzten baldintzazko perpausetan. Egoera edo gertakari bat aurkezten da hipotesi modura mendeko perpausaren bidez (ikasturtea gainditzea), eta hipotesi hori bete ahal izateko, nahitaezko izango da nagusian aipatzen dena betetzea (gehiago ikastea). Ondore perpausaren sarritan *nahi, behar, nahitaez...* bezalakoak azalduko zaizkigu. Eta horretan bereizten dira *Bihar lan egingo dut, etzi jai izateko* bezalako helburuzkoetatik: azken honetan, mendeko perpausaren aipatzen den xedea lortzeko burutzen da perpaus nagusian esaten dena, eta askotan nolabaiteko borondate bat ere agertzen da, baina *-t(z)ekotan/-t(z)ekotz* daramaten baldintzazkoekin, adierazten da xede hori lortzeko nahitaezkoa dela perpaus nagusian aipatzen dena egitea; helburuzkoan, ordea, erlazioa askeagoa da eta ez da horrelakorik iradokitzen (ikus 37. kapitulua).

**34.10d** Baldintzazko balio beteagoarekin, *Herri honetan jarraitzekotan, mendi elkartean emango dut izena; Gero ikasirikoa ahanztekotz, ez dut denbora anitzik pasatuko ikasten* bezalako adibideetan, hipotesia edo baldintza

*etorkizunera begira* jartzen da, baldintza urrunduz, eta modalizazio bat ere eransten da, *X gauzatu/gertatu behar bada...* edo *-t(z)eko asmo/behar/nahi/baldintza* adierazi nahian bezala. Aurreko adibideei dagokienez, lehenean azaldu nahi da, herri honetan geratzeko asmoa badugu, edo horrela gertatu behar bada, elkarte horretan emango duela izena; bigarrean, ikasitakoak alde guztietara gerora ahazten badira, esalea ez dela ikasten askorik saiaturiko.

**34.10e** Beste batzuetan, ekintza nagusia burutzeko baldintza bat jartzen da, geroaldian bete behar dena: *Emango dizut, bihar itzultzekotan; Urrunera ez joatekotan, segi jolasera!* Baina bien arteko lotura hiztunak jartzen du: baldintzazkoan ez da kausa adierazten, baizik eta etorkizuneko zirkunstantzia murriztaile bat: zirkunstantzia hori betetzen bada, edo betetzearen baldintzaren, orduan perpaus nagusian adierazitzakoa beteko da. Eta ordenari dagokienez ere, sarritan baldintzazkoa perpaus nagusiaren ondoren joaten da, askotan pausa nabarmenarekin (*baina* juntagailua ere jar daiteke tartean), mintzagai izaera garbirik gabe, hiztunaren eranskin modura edo: *Esango dizuet, baina zuek isilik egotekotan.*

**34.10f** *-t(z)ekotan/-t(z)ekotz* duten perpausetan askotan aditzaren errepikapena edo korrelazio lexikoa egoten da perpaus nagusian eta mendekoan; mendeko perpausean baldintza orokorra betetzeko esparrua azaltzen da (*zerbait, norbait, inor, inon...* bezalako izenordain zehaztugabeak sarri aurkitzen ditugu), eta ondore perpausean esparru hori zehazten da, askotan galdegaiaren bidez: *Inor maitatzekotan, zu maitatzen zaitut; Juduek nehon irabaztekotz, han behar zuten irabazi.* Batzuetan xehetasunak eransteke edo zuzenketak egiteko ere erabiltzen dira (*Bart Ibañetan elurra egitekotz, ez zuen asko egingo*), eta horrelakoetan, gertakari burutuen gainean ere ari gaitezke, baina egiaztatu gabeko baldintza bezala agertzen dira.

**34.10g** Beste batzuetan, ondoren datorren proposizioa bideratzeko edo hizpide emateko erabiltzen dira horrelako perpausak: *Izenak esatekotan, Mitxele-nak garrantzi handia izan zuen.* Mendeko perpausean aipatzen dena ez dago ondorengo proposizioarekin lotuta, baizik eta proposizio hori enuntziatzeko arrazoi bezala ematen zaigu, enuntziatzeari bide ematen dion ‘baldintza’ da. Eta honen hurbileko erabileran, *izan* aditzari lotua, *izatekotan/izatekotz* per-

paus osoa modalizatzeke erabil daiteke: *Haien asmoa ez zen gutxienik ere ahuldu; azkartu, izatekotz.*

**34.10h** Hasieran esan dugu, baldintzazko perpausari, eta beste mendeko batzuei, *ere* diskurtso markatzailea eranstea, sarritan kontzesiozko balioa lortzen dela. *-t(z)ekotan/-t(z)ekotz* menderagailuarekin, ordea, ohikoena baldintzazko adiera da: *Euskara utzixea zuten herri hartan; atxikitzekotz ere, sehientzat; Norbaitekin harreman berri bat hastekotan ere, ezkonduekin ez hasi*. Lehenengo adibidean, adierazten da, euskara norbaitekin erabiltzen bazen, sehiekin erabiltzen zela; bigarrena, norbaitekin harreman berri bat hasi behar badu, hobe duela ezkonduekin ez hasi. Baldintzazko balioa, ez kontzesiozkoa.

**34.10i** Aurreko balio guztietan *-t(z)ekotan/-t(z)ekotz* menderagailuaren bidez sortutako baldintzazkoak *-tuz gero* formaren bidez ematerik ez zegoen. Baina beste batzuetan *-tuz gerotik gertuagoko erabilerak* ere badituzte: *Informazio gehiago behar izatekotz, udaletxera deitu; Dena ondo joatekotan, bostetarako etxean izango gara; Inor etortzekotan, ostatura sartuko litzateke zuzenean*. Lehenean esan daiteke *behar izanez gero*, bigarrean *dena ondo joanez gero*, eta hirugarrenean *inor etorri gero*... Horrelakoetan askotan *behar izan* edo *nahi izan* bezalakoak erabiltzen dira, eta ez da egoten loturarik denbora deiktikoarekin, proiektiboak dira; kausalitate loturarik ere ez da izaten. Eta orokorrean, *-t(z)ekotan/-t(z)ekotz* erabiltzen denean, badirudi hipotesia urrunduetan egin nahi izaten dela: ‘informazio gehiago behar izatea gertatuko balitz’, ‘inor etortzea gertatuko balitz’.

### 34.11. *-t(z)ez gero*

Tradizioan era honetako adibide gutxi agertzen dira: *Hain ondasun gutxirekin zoriontsu izatez gero, ez duzu lanera joan beharrik; Bihar goizean mendira joatez gero, gaur garaiz oheratu beharko dugu; Garbi zegoen, inork lortzez gero, Mirenek lortuko zuela*. Adibide gehienak Gipuzkoako xx. mendeko testuetan aurkituko ditugu. Adierari dagokionez, aditz izenaren gainean eraikiak izanik, *-t(z)ekotan/-t(z)ekotz* menderagailua dutenen pareko erabilera dute.

### 34.12. -t(z)era(t)

Aditz izenari adlatiboko marka erantsiz ohikoa perpaus osagarriak eratzea da: *Zumalakarregik Lizarrara bidali zintuen egia jakitera*. Baina baldintzazko balioa duten perpausak ere osa daitezke: *Zumalakarregik Lizarrara bidaliko zintuen, egia jakitera*. Bigarren adibidean, azpimarratutako perpausak ‘egia jakin izan balu’ adierazi nahi du. Mendebaldean -t(z)era erabili ohi da, eta ekialdean -t(z)erat. Baldintzazko adiera duenean, normalean, tartean pausa nabarmena egiten da, eta gehienetan perpausaren hasieran joaten da: *Hori jakitera, ez nintzen etxetik irtengo; Diru gehiago izatera, etxe dotoreago bat erosiko nuen; Egia esatera, ez nuen uste hain urrun iritsiko zinenik*. Nolanahi ere, baldintzazkoak sortzeko bide hau ez da maiztasun handiz erabiltzen, eta badi-rudi egoera-aditz batzuekin azaltzen dela bereziki (*izan, jakin, egon...*).

Aspektu balioari dagokionez, tradizioko adibide gehienetan aspektu burutua erabiliko genuke adizki jokatuarekin ematen hasiz gero: iraganaldira begira jarririk, egiatan gertatu ez zen baldintza bat ematen da sarritan -t(z)era(t) duen perpausaren bidez. Horrelakoak dira goiko *egia jakin izan balu, hori jakin izan banu* edo *diru gehiago izan banu*. Baina aspektu balioaren aldetik etorkizunera begira dauden adibideak ere aurkitzen dira: *Diru gehiago izatera, Australiara joango nintzateke oportetan; Hala nahi izatera, laster atxilotuko lukete erasotzailea*.

### 34.13. -tuenean

Partizipio burutuari -enean erantsiz baldintzazko balioa duten perpausak lor daitezke mendebaldeko hizkera batzuetan: *Inor izanenean, arrantzaleak izango ziren epaile lanetarako egokienak*. Nolanahi ere, hedadura eta tradizio murriztekoa da eta testu idatzietan oso lekukotasun gutxi aurkitzen dira. Gaur egun *izan* aditzarekin agertzen da, *izatekotan* esapiderearen balioan, aurreko adibidean bezala. Beste batzuetan, baldintza indartzeko ere diskurtso markatzailea erantsi ohi da: *Etxera inor etorrienean ere, eros ezazu gazta eta ardoa!; Elurra eginenean ere, har itzazu kateak!* Horrelako adibideetan, *etxera inor etortzen bada / elurra egiten badu, badaezpada ere...* adiera hartzen du.



### 34.14. *Zer + ADITZOINA + ere (zer (nahi) gerta (ere), zer hel ere)*

Orain arte ikusi ditugun moldeak aditz partizipioaren eta aditz izenaren gainean eraikitzen ziren. Egitura honek, berriz, aditzoina du oinarri, eta euskaraz halako aditz mota duten egitura bakanetakoa dugu, gainera: *Zer gerta ere, dena idatziko dizut; Zer hel ere, hirugarren atorra armairuan du; Zer nahi gerta, Piarresek errana egin zuten*. Ekialdeko idazleek erabili dute bereziki, eta esapide egina dela esan behar. Erabilera murriztekoa dugu, horko gertakizun-aditzetatik aparte nekez aurkituko baitugu bestelako aditzekin. Alde batetik, orobatasuna adierazten du, eta bestetik, badaezpadakotasun-balioa ere badu. *Zer gerta ere, adi egongo gara* esatean, ‘edozer gertatzen bada / gertatzen baltz ere, badaezpada adi egongo gara’, adierazi nahi da.



## 35. Denborazko perpausak (I)

---

### 35.1. Sarrera

35.2. Perpausaz besteko osagarri adberbialak; 35.2.1. Formak eta motak; 35.2.2. Kopena adierazten duten osagarri adberbialak; 35.2.3. Aldiberekotasuna adierazten duten osagarri adberbialak; 35.2.4. Aurrekotasuna adierazten duten osagarri adberbialak; 35.2.5. Ondokotasuna adierazten duten osagarri adberbialak; 35.2.6. Bestelako adierazpenak dituzten osagarri adberbialak; 35.2.7. Iraupena adierazten duten osagarri adberbialak; 35.2.8. Iraupenaren adierazpen kuantitatiboa adierazten duten osagarri adberbialak; 35.2.9. Hasierako muga adierazten duten osagarri adberbialak; 35.2.10. Hondarreko muga adierazten duten osagarri adberbialak; 35.2.11. Bi mugak adierazten dituzten osagarri adberbialak; 35.2.12. Maiztasuna adierazten duten osagarri adberbialak; 35.2.13. Fasea adierazten duten osagarri adberbialak

---

### 35.1. Sarrera

**35.1a** Denbora adierazten duten aditzaz besteko baliabideak aztertuko dira kapitulu honetan. Aditza oinarritzkoa da, jakina, denboraren adierazpenean. Haren bidez eginiko adierazpena zehazteko, berriz, osagarri adberbialak erabiltzen dira. *Etorri zen* adizkiak, adibidez, iraganean kokatzen du gertakaria, baina kokapen hori osagarri adberbialen bidez areagotu daiteke<sup>1</sup>: {*atzo*

---

<sup>1</sup> 'Osagarri adberbial' deitura zentzu zabalean erabiltzen dugu hemen, predikatuari denborazko esanahia eransten dioten sintagmak izendatzeko. Gramatiketan 'osagarri zirkunstan-

~ *igandean* ~ *duela bi egun* ~ *lana amaitu zuenean* ~ *lana amaitzean*}  
*etorri zen*.

Osagarri horiek ‘denbora’ adierazten dute denek, bistan da, baina multzo heterogeneoa osatzen dute.

**35.1b** Osagarri adberbialak hitz edo sintagma mota desberdinetakoak izan daitezke: adberbioak (*atzo*) edo postposizio sintagma, adberbioarekin eginak (*atzotik*, *atzo arte*), izen sintagmaren gainean eraikiak (*igandean*, [*jai*io zinen egun]ean) edo perpausa gobernatuz eginak ([*jai*io zinen]ean) —azken bi sintagma horien arteko aldeaz, ikus § 36.2.1a—.

**35.1c** Aditzera ematen dituzten denbora nozioak ere bat baino gehiago dira: goiko adibidekoek gertakaria denboran kokatzea dute helburu, baina beste batzuek iraupena adierazten dute (*Luzaro egon naiz zure zain*), beste zenbaitek maiztasuna (*Bitan izan naiz Berlinen*), eta badira, azkenik, prozesuaren fasea adierazten dutenak (*Oporretan da oraindik*). Garbi ikusten da, esate baterako, *Atzo ordu erdian egin zuen etxetik lanerako bidea* perpausuan denbora-osagarri bi ditugula —*atzo* eta *ordu erdian*—, eta bistan da nozio desberdin bi ematen dituztela aditzera; lehenak kokapena adierazten du, *noiz* egin zuen bidea, alegia; eta bigarrenak, berriz, iraupena, hots, *zenbat denboran* egin zuen.

**35.1d** Denbora-erreferentzia emateko moduan ere bada alderik. Zenbaitetan esaldiak gertakari bakarra aipatzen du, eta osagarriak zuzenean seinalatzen du hari dagokion denbora; adberbioek edo izenaren gainean eraikitako postposizio sintagma batzuek egiten dute hori: {*Atzo* ~ *igandean*} *etorri zen laguna*. Perpausarekin eginiko osagarriak, aldiz, beste gertakari bat aipatuz seinalatzen du perpaus nagusiko gertakariari dagokion denbora: *Lana amaitu zuenean etorri zen laguna* perpausuan, esate baterako, ‘lanaren amaiera’ da lagunaren etorrerari

---

tzial’ ere deitu izan dira. Kapitulu honetan osagarriez mintzo garenean, bada, osagarri adberbial edo zirkunstantzial horiei egiten diegu eskuarki erreferentzia. Predikatuarekiko lotura semantikoari dagokionez, berriz, *adjuntuak* dira osagarri adberbialak gehienetan, hau da, predikatuak hautatzen ez dituenak. Zenbaitetan, hala ere, predikatuak eskatzen duen osagarri argumentala izan daitezke, hots, *osagarri* zentzu hertsian: *Luze* *iraun zuen partidak* (§ 23.3).

erreferentzia ematen diona. Gauza bera gertatzen da gertakari-izena duten osagarriekin ere: *Gerraren amaiera arte ez zen etxera itzuli* perpausean, hain zuzen, ‘gerraren amaiera’ da itzuleraren denbora erreferentzia.

Horiek horrela, atal bitan banatuko dugu osagarri adberbial hauen azterketa. Adberbioekin edo adberbioaren nahiz izenaren gainean eraikitako postposizio sintagmekin eraturikoak izango dira aztergai kapitulu honetan; hurrengoan, perpausekin eginak aztertuko dira, eskuarki ‘denborazko perpaus’ deitu izan direnak.

## 35.2. Perpausaz besteko osagarri adberbialak

### 35.2.1. Formak eta motak

**35.2.1a** Aurreko atalean esan den moduan, adberbioak edo postposizio sintagmak izan daitezke denborazko osagarri adberbial: adberbioak (*atzo*, *luzaro*, *maiz*, *jadanik*), adberbioaren gainean eraikitako postposizio sintagmak (*atzotik*, *atzo arte*) edo izen sintagmarekin eginak (*igandean*, *igandea arte*, *zure ezkontzaren egunean*, *ezkondu zinen egunean*). Adberbioak denbora esanahia dutenak dira, noski, eta baita izen sintagmetako izenak ere askotan (*une*, *ordu*, *gau*, *goiz*, *arratsalde*, *egun*, *aste*, *hilabete*, *urte*, *igande*), baina gertakari-izen ere izan daitezke (*Azken gerratetik hona bakean bizi gara*); edo data-izena (*maiatzaren bian*), edota data nahiz gertakari batekin loturiko izen berezi bat (*Freuden ondoren*).

**35.2.1b** Esan bezala, adberbio eta izen sintagma horiek postposizioa darimate zenbaitetan azken buruan —itsatsia edo askea—, haiek gobernatzen dituen (ikus 20. eta 21. kapituluak).

Inesiboko *-n* atzizkiarekin eratzen dira izen sintagmaren gainean eraturiko postposizio sintagma asko (*igandean*, *joan den urtean*, *ordu bietan*; *bi urtetan*, *denbora luzean*; *bi alditan*, *askotan*). Adberbioek, berriz, gehienek ez dute morfologikoki agerian atzizki hori (*atzo*, *gero*, *bihar*), baina pentsa daiteke batzuek bederen sintaktikoki badaramatela. Hain zuzen ere, *-ko* atzizkia hartuta forma adnominalak eratzen dituzte (*atzoko*, *geroko*, *biharko*). Adberbio batzuek, gainera, aukeran dute inesiboko atzizkia hartzea (*luzaro* edo *luzaroan*).

Instrumentaleko *-z* atzizkia ere erabiltzen da izen sintagmarekin eginiko postposizio sintagmetan (*igandez, egun batez; anitz urtez, zenbait egunez; bi aldiz*).

Ablatiboko *-tik* atzizkia dute iraupeneko gertakarien aurreko muga adierazten duten postposizio sintagmek (*atzotik, gaurtik, egundik* —epentesirik gabe, *egunetik* izena ez bezala—; eta *arratsetik, igandetik, joan den urtetik*); *-danik* forma ere erabiltzen da euskara jasoan (*atzodanik, oraindanik, aspaldidanik*).

Adlatiboaren *-ra* atzizkia *gerora, gaurtik biharrera, egun batetik bestera, handik gutxira* edo *mendearen hondarrera(t)* bezalako esaldietan erabiltzen da denbora adieran; *-ko* atzizki adverbiala erantsita, berriz, *-rako* destinatiboa eratzen du (*iganderako, datorren urterako* eta, adverbioekin, *etzirako, ordurako; bi egunetarako*); adlatiboko *-ra-* atzizkia ezaba daiteke adverbioetan (*etzi-ko*), eta kontsonantez amaituekin egin beharra da (*gaurko, biharko, aurtengo*). Azken muga adierazten duen *-raino* atzizkia ere erabiltzen da inoiz denbora esanahiarekin (*iganderaino*), *-daino* kontsonante ondoan (*gaurdaino*); baina esanahi horretarako *arte* edo *arteraino* postposizio askeak hobesten dira.

Ikus Euskaltzaindiaren 20. araua: “*Betiko* eta honen kideak”, Oiartzunen, 1994ko abenduaren 29an onartua.

**35.2.1c** Hain zuzen ere, postposizio askeak (*arte, bitartean, aurretik, aitzin, ondoan*) hartzen dituzte bai izen sintagmek bai, zenbaitetan, adverbioek ere (*igandea arte, uda aurretik, festa ondoan; atzo arte, orain baino lehen*). Bestalde, *-z gero* postposizio konplexua ere erabiltzen da horrelako sintagmak eratzeko (*atzoz gero, joan den igandearz gero*)<sup>2</sup>.

---

<sup>2</sup> Bi modutara eman da postposizio hau tradizioan: *-z gero* Iparraldean eta *ezkero* Hegoaldean. Lehenbizikoa hobetsi du Euskaltzaindiak batasunerako aditzarekin doanean, baina bietara idatz daitezke *hamarrez gero / hamarraz ezkero, zortziez gero / zortziak ezkero, San Ferminaz gero / San Ferminak ezkero, atzoaz gero / atzo ezkero* gisako denbora sintagmak; bestalde, *honezkerok, horrezkerok* eta *harrezkerok* idazkera erabiliko da beti (26. araua).

Ikus Euskaltzaindiaren 26. araua: “-z gero”, Donostian, 1995eko urtarrilaren 27an onartua.

Bestetan ez bezala, *iraun* edo *egon* bezalako aditzekin izen sintagma soila erabiltzen da osagarri adverbial gisa (*Hiru ordu iraun du festak*).

Berezia da, azkenik, «{*duela ~ orain dela*} + IS zenbatzaileduna» egitura adverbiala (*duela bi egun*).

Beraz, laburtuz, honako hauek dira perpausaz besteko oinarria duten denborazko osagarri adverbialen formak:

- adverbioa (*atzo, luzaro, maiz, jadanik*)
- adverbioaren gainean eginiko postposizio sintagma:
  - postposizio itsatsiarekin (*atzotik, egundaino*)
  - postposizio askearekin (*atzo arte, bihar baino lehen; atzoz gero*)
- izen sintagma (*bi urte [iraun]*)
- izen sintagmaren gainean eginiko postposizio sintagma:
  - postposizio itsatsiarekin (*igandean, igandetik, iganderaino, egun batez*)
  - postposizio askearekin (*igandea arte, uda aitzin; hamarrak ezker*)
- esapide adverbiala («{*duela ~ orain dela*} *bi egun*»)

**35.2.1d** Aditzera ematen duten denbora-nozioaren arabera, berriz, lau mota-tako osagarriak bereiz daitezke, gorago esan den bezala. Gertakarien kokapena adierazten dutenak ditugu, batetik, *noiz?* galderari erantzuten diotenak: al-diberekotasuna adierazten dute batzuek (*orain, gaur, egun, aurten, orduan*), aurrekotasuna beste batzuek (*atzo, lehen, aspaldi, ia, joan den urtean, bezperan, duela bi egun*), eta ondokotasuna beste batzuek (*bihar, etzi, datorren urtean, biharamunean*). Gertakarien iraupena adierazten dutenak daude, bestetik, *zenbat denbora(n)?* galderari erantzuten diotenak (*luzaro, laburki, goiz osoan, bi egun*) eta *noiztik?* edo *noiz arte?* galdera zedarriztatzaileei erantzuten diotenak (*atzodanik, joan den urtetik, bostak ezker; atzo arte, gero arte,*

*igandea arte*). Gertakarien maiztasuna adierazten dutenak, hirugarrenik, *zenbat aldiz?* galderari erantzuten diotenak (*behin, birritan, maiž, bakan, usu, bi aldiz, hiru bider, egunero*). Eta gertakaria prozesuaren zein fasetan dagoen adierazten dutenak, azkenik (*oraindik, jadanik, dagoeneko*).

**35.2.1e** Hona, bada, eskema:

– KOKAPENA

- aldiberekotasuna (*gaur, orduan*)
- aurrekotasuna (*atzo, bezperan, duela bi egun*)
- ondokotasuna (*bihar, biharamunean, handik gutxira*)

– IRAUPENA

- iraupenaren adierazpen kuantitatiboa (*luzaro*)
- noizdanikoa (*atzodanik*)
- noiz artekoa (*atzo arte*)

– MAIZTASUNA (*behin, hiru bider*)

– FASEA (*oraindik, jadanik*)

### 35.2.2. Kokapena adierazten duten osagarri adberbialak

**35.2.2a** Kokapenezko osagarriek denbora bat seinalatzen dute, zeinetan gertatzen den perpausak adierazten duena. Bat datoz, bada, osagarriak seinalatzen duen denbora eta gertakariari dagokiona. Bat etortze hori, ordea, mota desberdinetakoa izan daiteke, osagarriak eta gertakariak nolako denbora adierazten duten. Zenbaitetan guztiz bat datoz denbora biak: *Atzo bero handia egin zuen*, ‘egun osoan’ izan zen bero. Beste zenbaitetan, seinalatutako denboraren barruko une bati dagokio gertakariarena: *Atzo nekatuta oheratu nintzen*, ‘atzoko egunaren une batean’ oheratu nintzen. Izan ere, kontuan izan behar da osagarriak seinalatzen duen denbora eta baita gertakariarena ere unekoak nahiz epekoak izan daitezkeela, eta, hortaz, konbinazioak desberdinak izan daitezkeela.



**35.2.2b** Osagarri batzuek unea seinalatzen dute (*orain, duela bi ordu, hiruretan, hiru orenetan, eguerdian, une honetan, une hartan, arestian*), beste batzuek epea (*gaur, atzo, herenegun, bihar, etzi, iaz, aurten, goizean, bezperan, biharamunean, joan den urtean, aste honetan, udaberrian, igandean, egun hauetan, garai batean*) eta beste batzuek unea nahiz epea (*antzina, behiala, aspaldi, lehen, gero, ondoren, berehala, berriki, aurki, laster*). Eta gertakarietarako dagokienez, berriz, aspektu lexikoak bereizten ditu uneko eta epeko predikatuak. Vendler-en ohiko sailkapena erabiliz (1967), honako lau aspektu hauek bereiziko ditugu hemen, zehaztasun gehiagotan sartu gabe: unekoa bat, lorpena edo erdiespena adierazten duena (*etxean sartzea*), eta iraupenekoak beste hirurak, gauzatzea (*etxea garbitzea*), jarduera (*autoan ibiltzea*) edo egoera (*zerbaiten jakitun izatea*) adierazten dituztenak (§ 23.2.1, § 26.1.4).

**35.2.2c** Osagarriaren eta gertakariaren arteko ‘bat etortzea’ gutzizkoa da, osagarria unekoa izanik gertakaria ere halakoa denean (*Hiruretan iritsi da*) edo, hura epekoa izanik, gertakariak hark adierazitako epea osorik betetzen duenean (*Atzo bero handia egin zuen*); inklusiboa, berriz —partziala—, osagarria epekoa eta gertakaria unekoa izanik, hau haren barnean kokatzen denean (*Atzo nekatuta oheratu nintzen*), edota gertakaria osagarriak markatzen duena baino epe laburragokoa denean (*Atzo bi ordu egon nintzen zure zain*).

**35.2.2d** Uneko osagarria gauzatzea edo jarduera adierazten duten aditzekin doanean, bat etortzea inkoatiboa edo ingresiboa da. Prozesuaren hasierako unea seinalatzen du horrelakoetan osagarriak: *Eguerdian irakurri ditut egunkariak* eta *Gaueko hamarretan hitz egin nuen telefonoz lagunarekin* esaldiek irakurketaren eta hizketaren hasierako unea ematen dute aditzera, hurrenez hurren. Hori bai, adiera inkoatiboa iraupen laburreko prozesuekin bideratzen da, ez iraupen luzekoekin (*#Goizeko zortzietan egin zuten autobidea*). Eta osagarriak hizketa unea seinalatzen duenean ere aspektu burutuko adizkiak ez du balio ingresiboa, gauzatze edo jarduera bururatua adierazten baitu: *Oraintxe garbitu dut etxea*; *Arestian irakurri ditut egunkariak*; *Une honetan hitz egin dut lagunarekin*.

**35.2.2e** Epeko osagarriek, berriz, prozesu osoa ematen dute aditzera gauzatzea edo jarduera adierazten duten aditz hauekin (*Joan den astean etxea margotu nuen*; *Atzo mendian ibili nintzen*); osagarriak epea osorik seinalatzen

duenez ('joan den aste osoa' eta 'atzoko egun osoa', adibideetan), haren barruan gauzatu den gertakaria ere osorik, bururaturik, hautematen da. Ondoko perpaus biak alderatuz ikus daiteke osagarri mota bien arteko aldea: *Goizeko zortzietan hitz egin dut lagunarekin* eta *Goizean hitz egin dut lagunarekin*; uneko osagarriak (*goizeko zortzietan*) hizketaren hasierako unea seinalatzen du; epekoak, berriz, (*goizean*) hizketaren prozesu osoa ematen du aditzera.

**35.2.2f** Gertakariaren denbora seinalatzea dutenez zeregin, erraz uler daiteke kokapen osagarri desberdin bi ez direla perpaus batean metatzen, ez une bi (*\*Eguerdian etorri zen goizeko zortzietan*), ezta epe desberdin bi ere (*\*Atzo etorri zen orain bi egun*). Osagarri bi meta daitezke, hori bai, bat bestearen azalpen aposizioa denean: *Irailaren 12an, estropada egunean, jendez gainezka egon zen Donostiako Alde Zaharra*; *Orain, neguan, hotz handia egiten du*. Eta onartzen da, halaber, epeko osagarriari une zehatza adierazten duen osagarri puntuala eranstea (*Gaur emango zaie hasiera herriko festei, arratsaldeko zazpian*), edo epeko kokapena areago zehazten duen epe laburragoa seinalatzen duen osagarri bat eranstea (*atzo arratsaldean, gaur goizean, gaur eguerdian*). 'Urtea' adierazten duten adberbioekin ez da horrelako elkarketarik egiten; horren lekuan egitura adnominala erabiltzen da (*iazko neguan, aurtengo udan*).

Egoera adierazten duten predikatu batzuek subjektuaren propietateak ematen dituzte aditzera, eta, hortaz, egoera iraunkor eta etengabeak seinalatzen dituzte (*zuria izatea*); 'betikoak' direnez, ez du zentzurik horiek denboran kokatzea, ez une batean ez eta epe batean ere, ohiko erabileran bederen (*#Hiruretan zuria zen* edo *#Atzo goizean zuria zen*).

**35.2.2g** Kokapenezko osagarriek erreferentziazko une edo epe jakin batetik seinalatzen dute gertakariari dagokion denbora. *Atzo* dioenak 'hizketan ari den eguna' du erreferentzia, eta haren aurreko eguna seinalatzen du; *bezperan* dioenak, berriz, aldez aurretik 'aipatutako egun bat' du erreferentzia, eta haren aurreko eguna seinalatzen. Hala, *Atzo zinean izan nintzen* perpausoko *atzo* adberbioari esaldia esandako egunak ematen dio balioa; eta *Handizki ospatzen dugu urtero San Sebastian eguna*; *bezperan hasten dira ospakizunak* esaldiko *bezperan* sintagmari San Sebastian egunak ematen dio erreferentzia.

**35.2.2h** Deixia hizketa unean finkatua duten osagarriak ‘osagarri deitikoak’ deituko ditugu (*atzo, gaur, aurten, bihar, joan den astean, datorren udan, duela bi egun*). Erreferentzia hizketa uneaz bestelako une edo epe batean dutenak, berriz, ‘anaforikoak’ dira (*orduan; bezperan, aurreko egunean, aurreko astean; biharamunean, hurrengo astean, handik pixka batera*); per-pausean berean edo haren testuinguruan eman dezake hiztunak osagarrioi baliola emango dion erreferentzia puntua (*Azken partidaren bezperan min hartu zuen pilotariak; Zein inozoak ginen orduan!*). Badira, azkenik, kontu horretan irekiak diren osagarriak, hizketa unean edo besteren batean erreferentzia izan dezaketinak, *lehen, gero, goizeko seietan*, edo *bi ordutan* bezalakoak (*Zinera joango naiz gero* eta *Atzo arratsaldean zinean izan ginen, eta gero afaltzera joan ginen*, hurrenez hurren; *Goizeko seietan jaiki naiz* [gaur] eta *Goizeko seietan jaiki nintzen* [egun hartan]).

Erreferentziako une edo epe horren arabera, gertakariaren kokapena desberdina izan daiteke: une edo epe harekin bat datorrenean, aldiberekotasuna dugu; hura baino lehenagoko une edo eperen bat seinalatzen duenean, aurrekotasuna; eta geroagokoa adierazten duenean, ondokotasuna.

### 35.2.3. Aldiberekotasuna adierazten duten osagarri adberbialak

**35.2.3a** Esan bezala, aldiberekotasuna adierazten duten osagarri batzuek hizketa unean —nahiz hari dagokion epean— dute erreferentzia (*orain, gaur* eta *aurten* gisako adberbioak eta «denbora izena + *honetan*» gisako postposizio sintagmak) eta beste batzuek bestelako une-epe batean (*orduan* adberbioa, «denbora izena + *hartan*» gisako sintagmak eta «denbora izena + *-n*» gisakoak).

**35.2.3b** *Orain* adberbioak, esan bezala, hizketaren une-epean kokatzen du gertakaria, eta adizkia orainaldikoa da: *Orain ari da mutila etxean sartzen; Orain ondo bizi gara*<sup>3</sup>. *Oraintxe* (*bertan*) aldaera erabili ohi da aldiberekotasuna indar-

<sup>3</sup> Iraganaldiko adizkiekin ere erabiltzen da inoiz, ordea, iraganeko une jakin batekiko aldiberekotasuna seinalatuz, *orduan* osagarriaren pare: *Barkamen eskatzera gertu zen orain* (Mirande).

tzeko: *Oraintxe ari dira dendako atea irekitzen*. Aldiberekotasunarena, hala ere, zabal hartzeko kontua da: aspektu burutuko adizkia duten *Orain(tsu) etorri da* bezalakoek, esate baterako, aldiberekotasuna seinalatzen dute, bai, baina gertakari burutua adieraziz betiere, hau da, aurrekotasun estua seinalatuz, eta, orobat *Oraintxe hor zegoen* bezalakoek; *arestian* adberbioak ere adiera hori bera du. Berehalako etorkizunari ere egin diezaiokie erreferentzia *orain* adberbioak, ondokotasun estua adieraziz: *Egon pixka bat, orain etorriko da*; *Oraintxe (bertan) dator*. Hauen parekoa izan daiteke *berehala* adberbioa, hizketa unea duenean erreferentzia (*Berehala {dator ~ etorriko da}*), baina bestelako erreferentzia ere izan dezake honek (*Berehala {joan zen ~ joango da}*). Jokabide bertsua dute *aurki, laster, sarri* (Ipar.), *segitian* eta *bebingo batean* osagarriek ere (ikus § 35.2.5d).

**35.2.3c** *Gaur, egun* eta *aurten* adberbioek ere hizketa unea barnean duen epea —hau da, eguna edo urtea— dute erreferentzia: *Gaur giro dago*; *Egun nik irabazi dut partida*; *Aurten hobeto gabiltza*. Aldaerak: *gaur egun, gaur egunean, gaurko egunean, gaur den egunean; aurton, bizkaieraz*.

**35.2.3d** ‘Hau’ erakuslea duten «denbora izena + *honetan*» gisako osagarriek ere —{*une ~ ordu ~ egun ~ aste ~ denbora*} + {*honetan ~ hauetan ~ -otan*} gisakoek— hizketa unea edo hari dagokion epea dute erreferentzia: *Une honetan ez dago inor etxean*; *Hilabete honetan irekita daude hondartzako aldagelak*; *Egun hauetan turista asko dabil Donostiako kaleetan*; *Egunotan alai dabil*. Hizketa uneari berari ez dagokionean, hura barnean duen epeari egiten dio erreferentzia: *Igande honetan {zainera joango naiz ~zinean izan nintzen}*, hau da, ‘aste honetako igandean’; *Uda honetan Ibizara joango gara, hots, ‘aurtengo udan’*.

**35.2.3e** *Orduan* adberbio anaforikoak, berriz, hizketa uniaz bestelako une edo epe batekiko aldiberekotasuna adierazten du (*Gazterik hasi nintzen lanean, hamazortzi urte nituen orduan*; *Egunen batean ez naiz hemen izango, oroituko zarete orduan*)<sup>4</sup>. *Orduantxe (bertan), orduan bertan, orduan berean*

---

<sup>4</sup> Ondo berezi behar dira adberbioaren eta postposizioen oinarrian den *ordu* hori (= *tenore*) eta *ordu* izen zenbakarria (= *oren*): *Orduan ezjakina nintzen* ≠ *Ibilaldiaren lehen orduan noraezean ibili ziren*; *Ordurako ezkondua zen* ≠ *Esandako ordurako iritsi zen*.

aldaerek aldiberekotasuna indartzen dute, *han berean* osagarriak bezala (*Orduantxe ari ziren dendako ateak irekitzen; Nik orduan berean galdu nuen esperantza; Han berean sendatu zen gizona*), baina gertakari burutua edo berehalakotasuna ere adieraz dezakete, *orain-ek* bezala (*Orduantxe (bertan) iritsi zen; Egoteko esan zion, orduantxe (bertan) etorriko zela*). Denboraz bestelako erabilera bat badu *orduan* adberbioak, lagunarteko gipuzkeran batez ere: ‘kasu horretan’, ‘beraz’ edo ‘bada’ adierazten du horrelakoetan (*Bakean zatoz? Lasai egon gaitzke orduan; Orduan zer, etorriko zara bihar?*)<sup>5</sup>.

**35.2.3f** ‘Hura’ erakuslea duten «denbora izena + *hartan*» gisako osagarriek ere —{*une ~ ordu ~ egun ~ aste ~ denbora*} + {*hartan ~ haietan*} gisakoek— hizketa uneaz bestelako une edo epea dute erreferentzia: *Denbora hartan {pozik bizi ginen ~ pozik biziko gara}*. Horien parekoak dira ‘hori’ erakuslea dutenak ere: *Lanean hasiko naiz noizbait eta egun horretan ez dut zure laguntzaren beharrik izango*.

**35.2.3g** «[Erlatiboa + denbora izena] + *-n*» edo «[gertakari izena (+ *-en*)] + denbora izena] + *-n*» egiturako osagarriek sintagman berean aipatzen den gertakaria dute erreferentzia: *Zu jaiio zinen urtean erosi genuen etxe berria; Gida baimena lortzen dudan egunean berean erosiko dut autoa; Garaipenaren egunean ospakizun handiak egin ziren; Gerra garaian gaizki bizi ginen —‘jaiotza’, ‘gida baimenaren lortzea’, ‘garaipena’ eta ‘gerra’ dira erreferentzia adibideotan—. Data baten gainean eginiko osagarriek ere hura dute erreferentzia: *1789an hasi zen Frantziako iraultza; 2040an ehun urte beteko ditu gure elkarteak*.*

**35.2.3h** Era berean, ‘batera’ gertatzearen adierazpenaren bidetik, *-ekin* atzikiarekin egindakoek ere testuinguruko erreferentzia har dezakete: *Bazko aste osoa oporretan igarota, igandearekin itzuli zen etxera*. Gauza bera «izena + *-rakoan*» egiturako osagarriek ere: *Etxerakoan zure laguna ikusi dut; Hona-koan kantari etorri zen; Lotarakoan bi pilula hauek hartu behar ditu*<sup>6</sup>.

<sup>5</sup> Garatek erdarakada du horrelako erabilera (1988: 245).

<sup>6</sup> Egitura honetan *ordu* izenaren elipsia dagoela dio de Rijk (2008: 522). Beharbada, ‘denbora’ izen generikoa dago izenlagunaren ondoan: *etxerako* [denbora]*n*.

Zenbaitetan *-ra* atzizkiak ere kokapenezko erreferentzia eman dezake: *San Benoat bosgarren mendearen hondarrerat sortua zen* (Zerbitzari); *Iragan mende hondarrerat xaharberritua* (Herria).

Gutxi gorabeherako kokapena adierazten dute buruan *aldean*, *aldera*, *inguruan* edo *partean* daramaten sintagmak: *Hurrengo egunean, gaueko hama-biak aldean, eraso ziguten berriz ere* (S. Salaberria); *1965ean, udazken aldera* (Mitxelena); *Iluna goizago sartzan zen, bereziki negu partean* (Larre).

**35.2.3i** Erakuslerik gabeko «denbora izena + *-n*» egiturako osagarriak, azkenik, bietarikoak dira. Hizketa unea dute erreferentzia, «denbora izena + *honetan*» gisa ulertzen direnean: *Neguan hotz handia egin du* —hau da, ‘negu honetan’, ‘aurtengo neguan’—; bestela, testuinguruak ematen dio erreferentzia: *Bazko aste osoa oporretan igarota, igandean itzuli zen etxera* —hots, ‘aste hartako’ igandean itzuli zen—.

**35.2.3j** *Orain*, *gaur* eta *orduan* adberbioei *-ko* adnominala erantsita *oraingoan*, *gaurkoan*, *ordukoan* eta *oraingo honetan*, *gaurko honetan*, *orduko hartan* osagarriak eratzen dira, *aldi* izena isilduta sortuak beharbada (*oraingo [aldi]an*)<sup>7</sup>. Forma hauek ez dira forma soilen guztiz errankideak, ‘aldi’ gehiago izan direlako iradokizuna ematen baitute aditzera: *Oraingoan irabazi du* edo *Gaurkoan garaiz iritsi da* dioenak beste aldi batzuk ere izan direla suposatzen du.

Bestalde, *-ko* atzizkiari instrumentalaren *-z* atzizkia erantsita *oraingoz*, *gaurkoz*, *aurtengoz*, *ordukoz* gisako osagarriak eratzen dira, une edo epe bati dagokiona seinalatzen dutenak, aurreko edo ondoko une-epeei zer dagokien abstrakzioa eginaz: *Aski dugu gaurkoz*; *Jende gutxi etorri da oraingoz*; *Oporrik gabe geratuko gara aurtengoz*; *Aski zuen ordukoz*. Azken aldian momentuz forma ari da zabaltzen, Hegoaldean batez ere; egokiago dirudi adiera horrekin *oraingoz* erabiltzea.

---

<sup>7</sup> De Rijken ustez, *aldi* izenaren elipsia dago osagarri hauetan: “Inessive phrases with *aldi* as the head can serve to specify location in time, in which event the length of the period denoted by *aldi* becomes irrelevant, so that it can be glossed as ‘time’ or ‘occasion’” (2008: 526).

### 35.2.4. Aurrekotasuna adierazten duten osagarri adberbialak

**35.2.4a** Osagarri hauek ere deiktikoak (*atzo*) zein anaforikoak (*bezperan*) izan daitezke. Hizketa unea erreferentzia duten osagarri deiktikoak dira *atzo*, *herenegun*, *iaz* eta *antzina* adberbioak: *Atzo etorri zen*; *Herenegun hasi zuten festa*; *Iaz amaitu nituen ikasketak*; *Antzina hobeto bizi ginen*. *Bart* adberbioak hizketa uneko egunaren aurreko gaua adierazten du eskuarki, *bart arratsean* eta *bart gauean* elkarketak eraturik maiz: *Bart arratsean berandu etorri zen*; zenbaitetan, hala ere, hizketa unearen eguneko ordu txikiak arte luza daiteke gau epearen aipamena, eta aditza orainaldian du: *Bart berandu etorri zara*. Gorago esan den moduan, bestalde, *aresti(xe)an* adberbioak aurrekotasun es-tua adierazten du: *Egia al da arestian esan duzuna?*

**35.2.4b** Erlatibo lexikalizatuarekin eginak diren «[{joan den ~ iragan} + izena] + -n» egiturako osagarriek ere hizketa unea dute erreferentzia: *Joan den astean etorri zen*; *Iragan sanferminetan ezagutu nuen zure laguna*; orobat *lehengo* adnominalarekin eginikoeak ere. Adierazpena zehatza nahiz zehaztugabea izan daiteke, hurbileko iragana seinalatuz betiere (*lehengo astean*, *lehengo urtean* [= *iaz*], *lehengo igandean* nahiz *lehengoan*, *lehengo batean* —*lehengo batez*—, *lehengo egunean*, *lehengo egun batean*). Aurreko aldia adierazten du gipuzkerazko *orain hurrena* esapide eginak: *Orain hurrena ikusi zintuztedanean umekondo batzuk zineten* (Barrensorro).

**35.2.4c** «{Denbora ~ garai} + *batean*» osagarriek ‘antzinako garai edo denbora’ zehaztugabe bat ematen dute aditzera: *Jakintzak [...] erakutsi du garai batean ez zela gizonik lurrean* (Villasante); *Denbora batean, gazte asko joaten zen Ameriketara*. *Behin* adberbioak ere zenbaitetan ‘antzina’ esan nahi du: *Ni ere gaztea izan ninduan behin* (Aresti); bestetan, iraganeko une bat seinala dezake, zehaztasunik gabe, «*behin {batean ~ batez}*» osagarriek bezala: *Behin, gauza harrigarri bat gertatu zitzaidan*; *Bagindoazen behin batean mendian...* Osagarri honen maiztasun adieraz, ikus § 35.2.12a; eta ondokotasunaren indargarri gisakoaz, ikus § 36.7.3a.

**35.2.4d** *Bezpera* izenarekin eraturiko *bezperan* eta *bezperaz* postposizio sintagmek, berriz, beste une edo epe bat dute erreferentzia: *Jaiegunen bezperan*

*handitu egingo dute autobusen zerbitzua; Bezperan tabakoak jorraturik, aitzurra han utzia nuen, (Etxebarne); Santa Kurtze bezperaz hasten dira jaiak (B. Enbeita). Bezperagoan osagarriak bezperaren aurrekoa seinatzen du: Mendekoste bezperagoan hamar erretore euskalduni manatu zieten beren parrokiaren uztea (Lafitte). Horien parekoak dira aurregunean eta aitzinegunaz sintagmak.*

**35.2.4e** «{[(IS + -en) aurreko ~ aitzineko] + izena] + -n}» egiturako osagarriek ere hizketa uneaz bestelako une edo epe bat dute erreferentzia, sintagma berean edo testuinguruan aipatua edo iradokia dena: *Festaren aurreko egunean dena prest zuten; Aurreko astean ikasiak nituen azterketako gai guztiak; Gerraren aitzineko egunetan giroa nahasia zegoen*. Egitura horretako osagarriak anaforikoak dira, baina «IS + -en» izenlagunik gabeak hizketa unea bera ere izan dezakete inoiz erreferentzia, *lehengo*-rekin eginek bezala: *Aurrekoan esan nizuena gertatu da; Aurreko astean ikusi genuen bezala*.

«Izena + {aurrean ~ aurretik ~ aitzin ~ gabe}» osagarriei sintagmako izenak ematen die erreferentzia: *Gerra aurrean hobeto bizi ginen; Gauerdi aitzin etxeratu ginen; Gaztetan, iluna gabe sartzen ginen etxean*. Izena genitiboan dela erabiltzen dira *aurretik, aitzinean* eta *aitzinetik* postposizioak, batez ere izenlagunarekin edo adjektiboekin direnean (*gure gerraren aurretik, gerra handiaren aitzinetik, abenduko lehen igandearen aitzinean*). *Aurretik* eta *aurrean* formak mendebaldekoak dira; *aitzin* eta *aitzinean* ekialdekoak.

**35.2.4f** *Aspaldi* eta *lehen(ago)* adberbioak, bere aldetik, deiktiko zein anaforiko izan daitezke. *Aspaldi* soila nahiz inesiboko atzizkia duen *aspaldian* erabiltzen dira (*Aspaldi erosi nuen bizi naizen etxea; Aspaldian ezagutzen nuen gizon batekin topo egin nuen, Aierbe*); bestalde, *bat, guzti, handi* edo *luze* laguntzaileak daramatza inoiz (*aspaldi {batean ~ guztian ~ handian ~ luzean}*) edo modifikatzaileak (*aspalditxo, aspaldixko*); erakusleak bereizten ditu erabilera deiktikoa (*aspaldi honetan —berdin aspaldion—*) eta anaforikoa (*aspaldi hartan*). *Lehen* eta *lehenago* adberbioek ez dute guztiz erabilera bera: *lehen* soila deiktikoa da batez ere (*Lehen hobeto bizi ginen*), nahiz anaforiko gisa ere erabil daitekeen (*Etsai egin ziren lehen adiskide zirenak*); *lehenago* formak, berriz, bietarako erabiltzen da berdin (*Lehenago ere aritua naiz lan*



horretan eta Afaltzera joan ginen, baina lehenago paseo bat egin genuen; Afaltzera joango gara, baina lehenago paseo bat egingo dugu).

**35.2.4g** Konparaziozkoa da *baino lehen(ago)* postposizioa, baina gertakaria denboran kokatzea du helburu, aurretik izena edo adberbioa duenean. Maiz anaforikoa bada ere (*urte amaiera baino lehen, hurrengo negua baino lehen, bostak baino lehen*), deiktikoa ere izan daiteke: *Orain baino lehen banituen nik hamaika bertso emanak* (Uztapide); *Parisen ere izanak gara gu orain baino lehenago* (Uztapide). Aurrekotasunaren neurria adierazten duten zenbatzaileak eta modifikatzaileak hartzen dituenean, *lehenago* aldaera hobesten da<sup>8</sup>: *Eguberria baino hiru egun lehenago itzuli zen etxera; Zinera joateko asmoa baduzu, ager zaitetz lehentxeago sarrerak hartzera*. Bestetik, -z atzizkia darma maiz zenbatzaile modifikatzaileak: *Bostak baino askozaz lehenago hemen nintzen ni; Eguberria baino hiru egunez lehenago itzuli zen etxera*.

**35.2.4h** *Aurtemein* adberbioak ‘orain duela gutxi’ edo ‘orduan zuela gutxi’ adierazten du: *Aurtemein Inñesek bere alabari esana gomutatuz gero* (Erkiaga).

Adberbio gisa ere erabiltzen dira *aurrez*, *aurretik*, *aitzinean* eta *aitzinetik* (*Aurrez hartutako erabakiak berretsi zituzten; Aurretik atera behar dira kontuak; Aitzinean ere bazekien hori; Aitzinetik prestatzen ditut hitzaldiak eta, deiktiko gisa, Aurrez egindakoak baliatzen ditut orain*); *aurretik* eta *aitzinetik* formek zenbatzaile modifikatzailea eraman dezakete, - $\emptyset$  edo -z atzizkiekin (*egun {batzuk ~ batzuez} aurretik; hamar {urte ~ urtez} aitzinetik*).

**35.2.4i** «{*Duela ~ orain dela*} + denbora IS zenbatzaileduna» egiturako espide adberbialak hizketa unetik atzera kontatzen du denbora, gertakaria kokatzeko; hala, esate baterako, {*Duela ~ orain dela*} *hamar egun etorri zen laguna* dioenak denboraren joanean hamar egun egiten du atzera lagunaren etorrera han kokatzeko.

<sup>8</sup> Ikus OEH s. v. *lehenago*. Ikus, hala ere, honako testuak: *Mendi gailur honetan beti dator gosea jatordua baino askoz lehen* (Otxolua); *Argia baino ordu betez lehen zuan Meza* (Orixe).

Izen sintagmaren zenbatzailea zehatza izan daiteke, denbora-unitateak kontatzen dituen (*duela hamar egun; orain dela bost urte*), nahiz zehaztugabea (*duela zenbait egun; orain dela urte batzuk*); izenordain zenbatzaileak bete dezake izenaren lekua, eta esapideak ematen dio denbora-balioa: {*duela ~ orain dela*} gutxi; {*duela ~ orain dela*} aspaldi esapidean, berriz, *aspaldik* berak darama zenbatzailea bere esanahian ('denbora luzea'). Modifikatzaileak ere eraman ditzake esapideak: {*duela ~ orain dela*} + {*hamarren bat egun ~ ia hamar egun ~ hamar egun-edo ~ hamar egun pasatuxe ~ hamar egun inguru ~ anixko urte ~ aspaldixko ~ xuxen zortzi egun ~ aspaldi-aspaldi ~ laster urtebete*}.

**35.2.4j** Osagarri hauek aditza lagundu ohi dute ({*Duela ~ orain dela*} *bi urte gertatu zen*), baina izena ere lagundu dezakete, eta esapideak *-ko* atzizki adnominala darama ({*Duela ~ orain dela*} *bi urteko gertaera*). Denbora-adierazpena zehazten duten postposizioak ere onartzen ditu esapideak: *duela hamar egunetik hunat; orain dela hamar egunez geroz; duela hamar egun arte*; horrelakoetan iraupenekoa izan ohi da predikatua: {*Duela ~ orain dela*} *hamar urte-tik hona ez dugu bakerik izan* (§ 35.2.11a).

*Duela* aldaerako forma Iparraldekoa da batez ere, gaur egun erabilera zabala goa badu ere<sup>9</sup>. Hizketa unea seinalatzen duen *orain* adverbioa aurretik *duela* erabiltzen da maiz: (*orain*) *duela hamar egun*. *Du* adizkia inpersonala da, subjekturik gabea, eta esapide adverbial honetan finkatua *dela* esan daiteke: haren objektua —izen sintagma zenbatzaileduna— esanahiz plurala denean ere ohikoa da singularreko forma erabiltzea, goiko adibideetan ikusten den moduan, nahiz zenbaitek, analogiaz edo, *dituela hamar egun* gisakoak erabili zenbaitetan; Jean Etxepare medikuak erabiltzen ditu inoiz horrelakoak. Eta anaforiko moduan erabiltzen denean ere —hau da, zenbatzearen hasierako unea iraganean ezarria denean ere— ez da ohikoa *zuela* adizkia erabiltzea, ezinezkoa ez bada ere: *Hogei urte zuela egin zutenaz oroiturik* (Axular); *Iaz hartu zuen zuela hiru urte bidali zioten gutuna*. Ohikoagoa da *hiru urte lehe-*

---

<sup>9</sup> OEH: "Propio de la tradición septentrional, se encuentra desde Axular (que lo emplea en tiempo pretérito); lo usan también algunos autores alto-navarros y Villasante" (s. v. *izan* (*duela*)).

*nago bidali zioten gutuna* gisakoak erabiltzea, eta *duela* ere erabiltzen da inoiz: *Aita hila zuten, duela ordukotz hamar urte* (J. B. Etxepare).

*Dela* aldaerako forma, berriz, mendebaldekoa da, eta ohikoa du honek ere esapidearen lehen buruan *orain* adberbioa eramatea<sup>10</sup>. *Da* singularra erabiltzen da maiz sintagma zenbatzailea esanahiz plurala denean ere (*orain dela hamar urte*), baina plurala erabiltzea ez da debeku, batez ere sintagma aditzaren aurrean doanean (*orain hamar urte direla*). Iraganeko adizkia ez da ohikoa forma honetan, baina ez da ezina; hala, ezezko perpausetan ageri da inoiz (*artean denbora asko ez zela*).

**35.2.4k** Aditzik gabeko *orain hamar egun* gisako esapideak ere erabiltzen dira: *Orain ehun urte hasi zen gerra; Orain urteak gertatu zen hori*. Ikusten denez, esapidean agerian direnak abiapuntua adierazten duen *orain* adberbioa eta sintagma zenbatzaileduna dira. Denbora-neurri finkatuekin izena bera ere utzi daiteke isilpean, *gaur zortzi* gisako egiturak eratuz —hau da, *gaur (dela) zortzi (egun)*, hots, ‘gaur astebete’—: *Gaur zortzi izan zen partida; Hegiaphalia sute ikaragarri batek irentsi du gaur hamabost* (Etxaide). Hizketa uneaz bestelako abiapuntuekin ere erabili ohi da esapide laburtua, adberbioarekin edo inesiboko postposizioarekin: *Atzo zortzi, ortzegun goizaldera buruz supituki ohean hila kausitu dute* (Hiriart-Urruti); *Igandean zortzi gelditua zen etxean* (Zerbitzari).

Esapide laburtu horrek etorkizuna ere adieraz dezake, eta aditz nagusiak argitzen du esapidearen anbiguotasuna: *Gaur zortzi {etorri zen ~ etorriko da}*.

**35.2.4l** {*Hamar urte dira ~ badu hamar urte*} *gertatu zela* gisako perpausak ere gertakaria gauzatu dela zenbat denbora den seinalatzen dute. Hauetan ez da, ordea, esapide adberbialik. Egitura predikatiboa dute: *-la* perpausa erlazio predikatiboan da sintagma zenbatzailearekin (EGLU-V: 50).

*Izan* aditzaren jokoa zabala da egitura honetan. Hala, zenbatzailea esanahiz plurala denean, ohikoa da *dira* erabiltzea (*hamar egun dira, urteak dira*). Ira-

<sup>10</sup> OEH: “Propio de la tradición occidental; lo emplean también algunos autores navarros” (s. v. *izan (dela)*).

ganekoa ere izan daiteke (*bost urte ziren*), eta baita probabilitatea adierazten duen geroaldikoa ere: *Bost ordu izango dira etorri dela; Bost ordu izango ziren gertatu zela. Du* erako aditza erabiltzen dutenek singularreko adizkia hobesten dute, objektua esanahiz plurala denean ere: *Badu hamar egun laguna etorri zela; -la* atzizkiaren lekuan *-netik* ere erabil daiteke noizdanikoa seinatzeko: *Bi urte dira gurera {etorri zela ~ etorri zenetik}*.

Mendeko predikatua erdiespenekoa denean edo gauzatze-jarduera burutua adierazten duenean, hura gauzatutako unea seinatzeko dute besterik gabe egitura honetako perpausak: *Bi urte dira gurera etorri zela; Badu bost urte auto berria erosi nuela*. Jarraitzen duen jarduera edo egoera adierazten duenean, berriz, gertakariaren iraupena ere ematen dute aditzera, haren hasiera seinaltuz betiere: *Bi urte dira lantegi horretan ari dela; Badu sei urte Bruselan bizi dela* (ikus § 35.2.8j).

### 35.2.5. Ondokotasuna adierazten duten osagarri adberbialak

**35.2.5a** Deiktikoak dira *bihar, etzi, etzidamu, geurtz* ('datorren urtean') adberbioak: *Zinera joango gara bihar; Villasante ez da etzi edo etzidamu sor daitezkeen euskaldun jatorrekin ari* (Mitxelena). Hizketa unea dute erreferentzia, halaber, lexikalizatutako erlatiboarekin eginak diren «{datorren ~ heldu den} izena] + -n» egiturako osagarriek: *Datorren astean joango da oporretara; Heldu den urtean ezkonduko dira*.

**35.2.5b** *Biharamunean* eta *biharamunagoan* anaforikoek, berriz, iraganeko nahiz etorkizuneko puntu batetik aurrera seinatzeko dute: *Bainan Xina-tratulari herrestorik ez [zen] ageri. Ez biharamunean ere. Ez eta biharamunagoan* (Narbaitz); *Eta [Kattalin gorri] hortik hegaldatzen bada, biharamunean denbora ederra izanen dela* (J. B. Etxepare). *Biharamunean* forma izen elkartuaren bigarren osagai gisa erabiltzen da maiz: *festa biharamunean, San Fermín biharamunean*, edo izenlagunaren ondoan: *San Pedro egunaren biharamunean egun osoan lanean jardun ondoren* (Erkiaga). Anaforikoak dira, halaber, «{hurrengo ~ ondoko} izena + -n» egiturako sintagmak: *Azterketa ostiralean egin, eta ondoko astean {jakin genuen ~ jakingo dugu} emaitza*.

**35.2.5c** *Ondoan, ondoren, ondorean, ondorenean, ondotik* eta *ostean* adberbioak ere anaforikoak dira<sup>11</sup>: *Laguna agurtu zuen, eta ondoan kalera irten zen; Aurrena ikasketak amaitu, ondoren hasiko zara lanean; Aurrena lana egingo dugu, ostean etorriko da aisialdia. Gero* adberbioa aurretik dutela ere erabiltzen dira: *Alferrik dira gero ondoren egindako ahaleginak* (Anduaga); *Eskapatzerat uzten zuen, gero ondotik hobeki atzemaiteko plazerrarentzat* (J. B. Etxepare). *Jarraian* adberbioa *ondoren*-en parekoa da, ‘orduan segidan’ adierazten duenean: *Azken lasterkaria sartu arte itxaron zuten; jarraian, sariak banatu zituzten*. Izenlagunaren ondoan ere erabiltzen dira forma horiek: *Nekearen ondoan atsedena etorri zen; Festaren ondoren nekatuta egongo dira; Batzarraren ostean izango da bazkaria; Berba gogorren jarraian etorri zen zigorra*. Genitiborik gabe ere erabiltzen dira izen bizigabeekin, adjektiborik ez daramatenean: *festa ondoan, batzar ostean*<sup>12</sup>. *Ezkero / -z gero* postposizio konplexuak maizenik noizdaniko muga adierazten duen arren (§ 35.2.9c), ondokotasuna ere adieraz dezake: *Nekez gero bakea etorri zen*.

**35.2.5d** *Gero* eta *geroago* adberbioak, bere aldetik, bietarikoak dira, hizketa unea nahiz beste une bat izan baitezakete erreferentzia: *Gero(ago) hitz egingo dugu, deiktikoa; Aurrena erosketa batzuk egin, eta gero(ago) afaltzera {joan ginen ~ joango gara}*, anaforikoa. Zenbatzailea duelarik *geroago* forma hobesten da (*zerbait geroago, lau urte geroago, askoz geroago, zortzi urtez geroago*)<sup>13</sup>. Inesiboarekin ere erabiltzen dira adberbio horiek (*geroan, geroagoan*). *Beranduago* adberbioa berezko esanahian ez ezik (‘atzerapen handiagoz’), *geroago*-ren pare ere erabiltzen da inoiz: *Beranduago erdietsi zuen [gizonak...] lanbide bereziak hautatzeko astia* (Mitzelena). *Gero* adber-

<sup>11</sup> *Ondoan* forma Iparraldean erabiltzen da gehien bat. Hegoaldean, *ondorean* ablatibo zaharraren *ondoren* forma laburtua erabiltzen da maizenik, Gipuzkoan batez ere (ikus OEH s. v. *ondorean* eta *ondoren*).

<sup>12</sup> *Bazkalondo* eta *afaloste* bezalako izen elkartuek ere ondokotasuna adierazten dute, bistan da, eta leku-denborazko atzizkiak har ditzakete (*bazkalondoan, afalostetik* eta abar).

<sup>13</sup> *Baino*-rekin ere erabiltzen da inoiz: *Hau baino geroago hasiak* (Villasante); *Gehiena lortu zen kazkabarra baino geroago*. Perpaus horietan isilpean izan aditza —edo beste aditzen bat— dagoela pentsa daiteke, beharbada.

bioak *geroz* eta *geroztik* (Ipar., batez ere) aldaerak ditu: *Geroz(tik) gertatuak esango ditut*. *Geroko batean* osagarriak zehaztugabeko ondokotasuna adierazten du.

**35.2.5e** Zehaztasunik gabeko ondokotasuna ematen dute aditzera *hurrengoan*, *hurrengo batean* eta *geroko batean* formek: *Behin engainatu(ko) naute, baina hurrengoan ez diet sinetsiko*; *Geroko batean Osiñetan ikusi nuen* (Azpiroz). *Hurrena* soila ere ‘hurrengo aldian’ adierazteko erabiltzen da, gipuzkeraz batez ere: *Hurrena plazan ikusiko dizkiagu geuren buruak* (Albeniz); *Eta, hurrena biltzen ginenean, lehen bezain lagun* (Insausti).

Gorago aipatu den moduan (§ 35.2.3b), bestalde, *aurki*, *laster*, *sarri* (Ipar.), *segitian*, *berehala* eta *behingo batean* osagarriek berehalakotasun estua ematen dute aditzera: *Laster etorriko da, ez da asko luzatuko*; *Egon pixka batean, berehala naiz hor zuekin*; *Hatzemazu xarbo hori*; *sarri nik erreko dut* (Hiriart-Urruti); *Aurki azaldu ziren etxe-ateetan beste ikuszale gehiago ere* (Barrensorro); *Behingo batean atera zen aize mot izugarri bat* (Apaolaza).

**35.2.5f** «{*Hemendik ~ handik...*} + {denbora IS zenbatzaileduna + *-ra*}» egiturako osagarriek aurrerantz zenbatzen dute denboraren joana gertakaria kokatzeko. Gorago aipatu diren *duela bi egun* gisako formen alderantzizkoak dira *hemendik bi egunera* gisakoak; haiek atzerantz zenbatzen dute denbora, hauek, esan bezala, aurrerantz. Erreferentzia hizketa unea denean, *hemendik*, *gaurtik* edo horrelako ablatiboak erabiltzen dira; beste une edo epe bat denean, berriz, *handik* edo *ordutik* bezalakoak: *Hemendik hamar egunera da hastekoa ikastaroa*; *Handik urte bira ezkondu ziren*. Zenbatzailea duten sintagmetan ohikoa den moduan hura zehaztugabea ere izan daiteke (*handik egun batzuetara*); ize-nik gabea ere izan daiteke, egiturak denbora balioa ematen dio zenbatzaileari (*handik gutxira*); eta modifikatzaileak ere izan ditzake (*handik {hamar bat egunera ~ ia hamar egunera ~ oso gutxira}*). Adlatiboaren lekuan inesiboa erabiltzen da zenbatzailea ordinala delarik (*handik hirugarren egunean*).

**35.2.5g** «Denbora IS zenbatzaileduna + *barru*» egiturako sintagmak ohikoa du erabilera deiktikoa, aurretik *hemendik* edo antzeko ablatibo bat *duela* inoiz: (*Hemendik*) *sei egun barru etorriko da*; (*Gaurtik*) *hamar egun barru hemen*

izanen naiz berriro. Anaforiko gisa ere erabiltzen da batzuetan, iraganeko erreferentziarekin maizenik, aurretik *handik* ablatiboa duela inoiz: (*Handik*) *egun gutxi barru iritsi zen gurera albistea; Egun gutxi barru jaso nuen agindu zidan eskutitza* (Mitxelena). Eta etorkizunekoarekin inoiz: *Artzaina jo, eta Ardiak banatuko dira. Baina hiru egun barru zu piztuko zara, eta bilduko dituzu elkargana ostera* (Munibe). Ohiko ondokotasuna adierazten du beste zenbaite-tan: *Txori horrek kantatuz gero, hiru egun barru euria egiten du beti* (Soroa). *Barruan* inesiboa ere erabiltzen da adiera berean: *Beste bi hilabete barruan gudaritzara joan behar du* (Etxaide); *Bost minuturen barruan, zeru guztia hodei baltzez estalduta zegoen* (F. Bilbao).

*Barne(an)* postposizioarekin ere egiten da osagarri hau, eta izenak partitiboko -*ik* atzikia du maiz: *Denbora laburrik barnean, segurki eguerdi baino lehen, honat etorriko dituk* (J. B. Elizanburu); *Jainko maitea, nork erran behar zuen epe laburrik barne aberatsak izanen ginela?* (Manezaundi).

Ondokotasun adierazpena egiten du, orobat, «IS zenbatzaileduna + -*en* + *buruan*» osagarriak: *Hiru egunen buruan hemen zen berriz* (Azkue); *Handik hodei urteren buruan [...] bertsu hauek eman zituen* (Oxobi).

Sintagma hauek aipatutako epearen azken unea seinalatzen dutenean dira kokapenezko osagarri, amaierako une hartan kokatzen baitute gertakaria (*Hiru ordu barru etorri zen*); baina epearen barneko denbora seinalatzen dutenean, iraupenekoak dira: *Hiru egunen buruan bi aldiz erori zen*.

**35.2.5h** «{*Hemendik ~ handik ~ ordutik ~ egun hartatik*} {*berehala ~ bertan ~ fite ~ laster ~ sarri* (Ipar.)}» osagarriek berehalakotasun estua adierazten dute: *Handik berehala, hona non heldu zaion okin bat* (Barbier); *Ordutik laster gelditu zen ohean jagi ezin zen moduan* (J. J. Mogel).

**35.2.5i** Ikusia dugu *gaur zortzi* bezalako esapideek aurrekotasuna adierazten dutela zenbaitetan (§ 35.2.4k), baina ondokotasuna ere adieraz dezakete beste batzuetan: *Malentxo nere alabarik zaharrena gaur hamabost ezkontzen zaidak!* (Etxaide); *Gaur zortzi itxaroten dut zure burubidea* (E. Azkue); *Gaur zortzi, goizean goiz, hemendik horrako bidea hartuko dugu* (Azkue); *Hilabete honen hamarrean, etzi zortzi, Donibane-Garazin festa baten egite-*

*ra doaz* (Hiriart-Urruti); *Igandean zortziko festan aurkituko dir[a...]* (Hiriart-Urruti); “*Gaur zortzi*” iragana izan liteke, eta izan liteke etorkizuna (Joxerra Garzia).

### 35.2.6. Bestelako adierazpenak dituzten osagarri adberbialak

**35.2.6a** Kokapen orokorra adierazten dute «denbora izen ziklikoa + {-n ~ -z}» egiturako sintagmek —erreferentzia puntu zehatza dutenean izan ezik (ikus § 35.2.3d)— (*Igandean ez da lan egiten*; *Gauaz ibiltzea du gustuko*); -z atzizkia ohikoa da horrelako osagarrietan (*egunaz / egunez, gauaz / gauez, Pazkoz, Inauteriz*)<sup>14</sup>. Orobat, -ekin atzizkiarekin egindako sintagmek kokapen orokorra ere adieraz dezakete (*Igandearekin egiten diegu lagunei bisita*).

**35.2.6b** Kokapen zehaztugabea ematen dute aditzera «[denbora izena (+ -en)] + {batean ~ batez}» egiturako osagarriek (*egun(en) batean, goiz batean, gau batez, beste batean, halako batean, zenbaitetan, batzuetan, beste batzuetan, eta berdin besteetan, honelakoetan, horrelakoetan eta halakoetan bezalakoek*); iragana nahiz etorkizuna seinala dezakete hauek ere (*Egun bero batean egin zitzaion ondoeza; Egunen batean joango natzaizu bisitan*) —garai batean eta denbora batean esapideak ‘antzina’ adierazteko erabiltzen dira (ikus § 35.2.4c)—.

*Noizbait, noiznahi* eta *inoiz* adberbioek ere zehaztugabeko erreferentzia dute; azkenak galderetan, baldintzetan eta baiezkoko esaldietan du erabilera hori: *Izan al zara inoiz Parisen?*; *Gezurrik esaten baduzu inoiz, igarriko dizut*; *Inoiz bisita egiten dio Zarauzko txakolinari* (JanEd).

**35.2.6c** «{Adberbioa ~ IS} + -(ra)ko» egiturako osagarriek erabilera bat baino gehiago dute. Balio prospektiboa izan dezakete, besteak beste. Hala, gertakaria *noizko* izango den gauzatua seinala dezakete, haren gauzatzearen ustez-

---

<sup>14</sup> Erreferentzia zehatzeko *datorren igandez* bezalako esaldiak ez dira ohikoak, Hegoaldeko idazle batzuek erabiltzen badituzte ere.



ko muga aipatuz (*Biharko hemen izango da; Bezpera(ra)ko dena prest zuten; Datorren iganderako amaitua izango dute lan guztia; Gaurko egingo zuela esan zigun; Bostetarako nahi ditut paper horiek*); horrelakoetan ez da esaten noiz gauzatu den gertakaria, baizik eta noiz izan den edo noiz izango den jadanik gauzatua.

*Ordurako / orduko(tz)* adberbioak ere gertakaria une jakin batean jadanik burutua dela adieraz dezake (*Zaharkitua zen ordurako; Orduko bazituen bi haur*). Postposizio moduan perpausekin erabiltzen da maizenik *orduko* (ikus § 36.5.2b); izenarekin ere erabil daiteke, ordea, aditza isilduta, berehalakotasuna adieraziz (*Gaua orduko, etxeko ateak itxi zituzten*) edo, bizkaieraz, aurrekotasuna (*Gaurko gaua orduko daukagu zerua euria dariola*).

**35.2.6d** Balio destinatiboa ere izan dezakete egitura horretako osagarriek, gertakariak zer denbora duen xede adieraziz; horrelakoetan ere osagarriak ez du adierazten noiz gauzatu den gertakaria, zer denborari begira gauzatu den baizik: *Beroki berria erosi dut negurako; Ari al zara dirua aurrezten zahartzarorako?; Gorde ezazue janari pixka bat biharko eta etziko; Gaurko erosi nituen onttoak, baina gose ez bazarete, bihar jango ditugu; Horrek ez du oraingo balio; Gorde ezazu zerbait ordurako; Zu ere hasiko zara lanean noiz-bait, aholku bat emango dizut ordukotz.*

**35.2.6e** *Goiz* adberbioa garai edo epe jakin baten lehen uneak adierazteko erabiltzen da maiz, egunaren lehen uneak seinalatzeko batez ere (*Goiz jaiki da; Txintxo ibili eta goiz etxeratu!*). *Berandu* adberbioa duen *gau beranduan* osagarriak, berriz, egunaren azken orduak adierazten ditu (*Gau beranduan etxeratzen zen*, Ibinagabeitia). Irakurketa baloratiboa dute, ordea, *goiz* eta *berandu* —*berant* Iparraldean eta Nafarroan, *belu* bizkaieraz— adberbioek une egoki edo ohikoa baino lehenagoko edo geroagoko denbora adierazteko erabiltzen direnean, *goizegi* eta *beranduegi* aldaerek bezala (*Goiz zatoz, dendak itxita daude oraindik; Berandu iritsi zara, hitzaldia hasita dago*). *Goiz*, *garai* —*berandu gabe*— eta *berandu* adberbioek eratzen dute une egokiari buruzko adierazpena: ‘unea baino lehen’, ‘unean’ eta ‘unearen ondoren’ adierazten dute, hurrenez hurren.

### 35.2.7. Iraupena adierazten duten osagarri adberbialak

**35.2.7a** Gertakarien iraupena seinalatzen duten osagarriak mota bikoak dira: kuantitatiboak edo zedarriztatzailleak. Gertakaria zenbat luzatzen den adierazten dute kuantitatiboek (*Egun osoan aritu zen lanean*) eta haren mugen berri ematen zedarriztatzailleek, hasierako unea edo hondarrekoa seinalatu —‘noiz-danikoa’ edo ‘noiz artekoa’, alegia— (*Goizetik ari da lanean*; *Bostak arte egon da gurean*).

**35.2.7b** Muga bat seinalatzea dute xede osagarri hauek eta beste muga aipatu gabe geratzen da askotan, zehaztu gabe utzita (*Bostak ezkerre bakarrik ibili zen* —ez da esaten noiz arte—; *Bostak arte egon zen zure zain* —ez da esaten noiz-tik—) edo testuinguruak iradokitzen duelarik (*Iaztik hemen bizi da* —orain arte, alegia, hortik aurrerakoa irekia utziz—; *Hemen egongo naiz bostak arte* —hizketa unetik aurrera bederen—). Korrelazioan jar daitezke, ordea, muga biak (*Goizeko hamarretatik arratsaldeko zortziak arte irekita egongo dira dendak*).

### 35.2.8. Iraupenaren adierazpen kuantitatiboa adierazten duten osagarri adberbialak

**35.2.8a** Adierazpen hori egiten dute *luze*, *luzaro* eta *labur(ki)* adberbioek, aditza betiere jarduna edo egoera adierazten duena delarik: *Luze egon nintzen zure zain*; *Luzaro ibili zen lan egoki baten bila*; *Labur mintzatuko naiz*. Bestetik, *beti* adberbioak ere iraupena adierazten du ‘denbora guztian’ esan nahi duenean: *Donibanen bizi izan zen beti*; maiztasuna ere adieraz dezake adberbio honek (ikus § 35.2.12c) eta baita fasea ere (ikus § 35.2.13c).

**35.2.8b** Gauza bera egiten dute «denborazko IS zenbatzaileduna + {-n ~ -z ~ ∅}» egiturako osagarriek ere. Inesibo singularra erabiltzen da Hegoaldean —gipuzkeraz, batez ere—, eta zenbatzailea zehaztua zein zehaztugabea izan daiteke: *Hamar orduan lan egin dut gaur*; *Joan deneko lau urtean gurean bizi izan da*; [...] *zazpi egunean negar egin zuen* (Lardizabal); *Denbora gutxian lan*

*handia egin du; Urte askoan (bizi zaitzezela!). Inesibo mugagabea ere erabiltzen da batzuetan: Kargu horretan irauñ zuen zenbait urtetan (Mitxelena); Urte askotan aritu zen irakasle lanean; Zenbait egunetan ez nuen ikusi; Bejondeizula mila urtetan. Baina honek maiztasuna adierazten du beste zenbaitetan: Bi urtetan izan naiz Erroman udako oporretan. Badira beste adjektibo batzuk, luze, labur, oso eta guzti adjektiboen tankerakoak, osagarri hauetako zenbatzaile izan daitezkeenak: Denbora laburrean liburu bi idatzi ditu; Ez da aldi luzean egon gure artean; Goiz osoan aritu da lanean. Inesibo pluralak ere zenbatzaile gisa jokatzen du zenbaitetan; hala, adibidez, egunetan, astetan eta urteetan pluralak —edo urtetan mugagabeak<sup>15</sup>— ‘{egun ~ aste ~ urte} askoan’ adieraz dezakete: Urteetan egin du lan lantegi horretan; Urteetan eta urteetan egon ziren haren zain; [...] poztualdiak egunetan eta astetan irauñ ohi zion (Etxaide).*

**35.2.8c** Zenbatzailerik gabeko «denbora izena + -n» egiturako sintagmak ere iraupena seinala dezake ‘denbora horretan guztian’ adierazten duenean: *Gauean etxean egon naiz*, hau da, ‘gau osoan’. Baina, gorago esan bezala, kokapen inklusiboa edo orokorra ere adieraz dezake: *Gauean etorri da; Gauean ez da lanik egin behar*.

**35.2.8d** Sintagma mugagabea eta -z atzizkia duen forma Iparraldekoa da, gaur egun erabilera zabalagoa badu ere. Zenbatzaile zehaztuarekin zein zehaztugabearekin era daiteke hau ere: *Hamar orduz lan egin dut gaur; Lau urtez gurean bizi izan da; eta Tolosan bizi izan zen zenbait urtez; Hilabete batzuez gure etxean egon zen; Haienean bizi izan ginen aldi batez; Anitz urtez!* Bai eta luze edo guzti bezalako adjektiboekin ere: *Denbora luzez ibili da itsasoan*.

**35.2.8e** Jarduera edo egoera adierazten duten predikatuekin izen sintagma absolutiboa izan daiteke iraupeneko osagarri adberbial: *Bi ordu ibili gara mendian; Ordu erdi egon naiz zure zain; Aste osoa irauñ du biltzarrak*<sup>16</sup>;

<sup>15</sup> Askotan *urtetan* idatzia. Ikus OEH s. v. *urte*: “Pl. o formalmente indet”.

<sup>16</sup> *Iraun* aditzaren osagarria adberbiala da, ez objektu zuzena; horregatik, osagarria plurala denean ere aditza singularrean ematen da: *Hiru urte irauñ zuen*. OEH s. v. *irauñ*: “Sólo encontramos escasos ejs. (en Azkue y en algún autor moderno como Gerrikagoitia) en el que el vb. concuerda en plural con el complemento”.

*Gutxi iraun zuen jaialdiak; Ez zen asko luzatu hitzaldia.* Baina inesiboarekin edo instrumentalarekin ere erabil daitezke: *bi egunean iraun, lau orduz ibili*<sup>17</sup>.

*Ordu, aste eta urte* izenek *-bete* atzizkia hartzen dute *bat* zenbatzailearen lekuan (*ordubete, astebete, urtebete*); *hil* izenak, berriz, *hilabete* eta *hilabete bat*, biak onartzen ditu. Forma horiek dituzte izenok iraupeneko osagarriak eratzen dituztenean ere: *Ordubetean egon ginen zure zain; Nik Parisen urtebetez erakutsi dut soziolinguistika* (Mitzelena); *Astebete iraun zuen ikastaroak; Kanpoan egon da hilabete batean.*

**35.2.8f** Esan bezala, iraupeneko predikatua laguntzen dute osagarri hauek, eta, hortaz, ez dira uneko gertakariekin bateragarriak: *\*{Hamar orduan ~ hamar orduz ~ hamar ordu} etorri da postaria*. Hala ere, ohi bezala, pluraltasunak iraupeneko bilakatzen ditu horrelako predikatuak, eta orduan bateragarriak dira lehenbiziko osagarri biek: *{Hamar orduan ~ hamar orduz} iritsi ziren turistak* —hots, ‘iristen aritu ziren’—, baina *\*Hamar ordu iritsi ziren turistak*. Errepikatzea, edo errepikatze eza, adierazten duten predikatuak ere bateragarriak dira osagarri horiekin, baina halakoetan predikatuak ez dute iraupena seinalatzen, maiztasuna baizik: *Hamar orduan {behin bakarrik ~ bitan} etorri da postaria*.

Zenbaitetan, gainera, bestela erabiltzen dira uneko aditz horiek; gertakaria burutu arteko denbora adierazten dute batzuetan, eta osagarriak, hain zuzen ere, denbora-epe hori seinalatzen du: *Denbora gutxian hil zen; [...] bi urtetan bukatuko nuke idazlana* (Mitzelena) —hau da, ‘denbora gutxi igaro zen hura hil arte’, ‘bi urteren buruan bukatu nuke idazlana’—. Beste zenbaitetan, berriz, gertakariaren ondoriozko egoera ematen dute aditzera: *Bi orduz itxi zuten errepidea* —hau da, ‘itxita eduki zuten’—.

Gauzatzea adierazten duten aditzekin prozesuak zenbat denbora iraun duen ematen dute aditzera osagarri horiek: *Lau orduan konpondu du autoa*; gauza-

---

<sup>17</sup> Lk 2, 36 testuaren itzulpenean aipatutako hiru formak erabili dituzte itzultzaileek: *Bizi izan zen senarrarekin zazpi urtez* (Haraneder, Duvoisin eta Elizen arteko Biblia, besteak beste), *zazpi urtean* (Kerexeta), *zazpi urte* (Orixe). (Ikus OEH s. v. *urte*<sub>2</sub>).

tzea burutu ez delarik ere erabiltzen da inoiz osagarria, baina orduan aditzak jarduerako esanahia hartzen du: *Hamar minutuz ikusi dut filma, baina gero itzali egin dut telebista* edo *Oheratu aurretik ordu erdiz irakurri nuen ‘El Quijote’* perpausetan, esate baterako, *ikusi* eta *irakurri* aditzek ez dute gauzatzea adierazten, ariketa edo jarduera baizik; *ikusten egon naiz* eta *irakurtzen aritu nintzen* bezalako enparekoak dira horiek.

**35.2.8g** *Artean, anartean, bitartean, bien bitartean* eta *bizkitartean* adberbioek ere gertakariaren iraupena ematen dute aditzera, baina ez zenbatzaile baten bitartez, aurretik aipatu edo iradokitako beste denbora batekin parekatuz baizik. Perpausaren adberbio gisa erabiltzen dira maiz: *Hogei urterekin hasiko zara lantegian; artean, ikasi ahal duzun gehiena; Garbitu etxea zuek; bien bitartean, bazkaria prestatuko dut nik*. Baina aditzaren osagarri ere izan daitezke: *Aske etorriko da aurki, bitartean jasan dituenak ahaztuta*. Bestetik, *artean* faseko adberbioaz, ikus § 35.2.13b.

*Artean* eta *bitartean* postposizioak iraupenaren azken muga adierazteko erabiltzen dira maizenik (§ 35.2.10a), baina iraupena seinalatzen dute zenbaitetan, «IS + {*artean* ~ *bitartean*}» egituran: *Ontsa baino hobeki egon zira meza artean* (Lafitte); *Kantua darie, lan bitartean, garo-biltzailei* (Barrenso). Epea seinalatzen duten sintagma hauekin bi modutako perpausak egin daitezke: haren barruko gertakari puntual bat aipatzen dutenean, kokapen inklusiboa adierazten dute (*Guda bitartean jaio zen gure haurra*); epe osoko gertakaria aipatzen dutenean, berriz, kokapena (*noiz*) nahiz iraupenaren zenbatekoa (*zenbat denboran*) adieraz dezakete; azken hau nagusitzen da osagarriak ‘denbora guztian’ irakurketa duenean (*Partida bitartean isildu gabe aritu ziren zaleak txaloka eta kantari*). «Izena + *denboran*» sintagmak ere iraupena seinala dezake ‘denbora guztian’ adierazten duenean (*Bazkari denboran isilik egoten dira fraideak*).

**35.2.8h** Batez ere Hegoaldean erabiltzen den «IS (+ -n) + *zehir*» egiturako osagarriek epe baten barnean gertatu direnak adierazten dituzte: *Urte luzeak zehir kanpantorre alai izan zaituen lurra* (Gandiaga); [...] *besteok izan dugu* [euskar], *zenbait mende zehir, nardatuegi* (Mitxelena); *Bizitza osoan zehir izango dut hor* (Txillardegi); *Zenbat txikito edaten ote du egunean zehir*

(Elexpuru)<sup>18</sup>. Adibideek erakusten duten moduan, izen sintagmak ‘zenbatekoa’ adierazten du, pluralaren edo zenbatzailearen bitartez; *egunean* ere ‘egun osoan’ gisa ulertzen da. Gorago esan dugunez, *zehar* gabeko inesibo soilarekin ere egin daitezke horrelako sintagmak (*urte luzeetan*, *zenbait mendetan*, *bizitza osoan*, *egunean*). Baina *zehar* postposizioak iraupeneko epean garatzen doan prozesua edo errepikatzen nahiz metatzen diren gertakariak adieraz ditzake berariaz: *Mendeak zehar Elizak ahalmena galtzen du* (Mirande); *Eta, urteak zehar, lanak, nekeak, ezinak, danak izan ditugu* (Azpiroz); *Urteetan zehar margo asko bildu ditu*.

Goikoen pareko dira «IS (+ -en) + *barruan*» eta «IS + -en + *buruan*» egituretako osagarriak, mendebaldean erabiliak: *Domingo eta Juan anaiak hil ziren zortzi egunen barruan* (Gerrikagoitia); *Sei hilabete barruan, ama eta alaba [hil ziren]* (Albeniz); *Ikusi ditu egun laburren buruan beharrezana, bakardadea, gose ta egarria* (Erkiaga); *barru* postposizioarekin: *Berrehun [azeri] baino gehiago hartu ditu urtebete barru* (Mogel). Eta berdin ekialdeko «IS (+ -ik) + *barne*» egiturakoak: *Denbora laburrik barne murruiak, portaleak eta dorreak ederki bururatu zituzten* (Zerbitzari); *Lau etxalde horietako ezkontzak eginak izan ziren zortzi hamar urte barne* (Etxebarne); *Zenbait egun barne, Hendaian, hiru lagunek ospatu dituzte beren ehun urtea* (Herria). Egitura hauen kokapen balioaz, ikus § 35.2.5g.

**35.2.8i** «Denbora IS zenbatzaileduna + {-(ra)ko ~ -entzat}» egiturako osagarriek iraupenaren ikuspegi prospektiboa ematen dute aditzera; uste edo xedezko iraupena ematen dute aditzera —bete gabe gera daitekeen uste edo xedea, jakina—: *Hamabost egunetarako etorri zen, baina astebete igarota alde egin zuen*; *Hogoi egunentzat heldu naun* (J. B. Etxepare); *Denbora apur bantentzat baizik ere ez bazen izanen, hiru edo lau urterentzat, ba zekien deus ez zela berriz ere orain bezala izanen* (Mirande). Egitura hori du *Urte askota(ra) ko!* agur esaldiak. *Urteetako* formaren pluralak ere zenbatzaile gisa jokatzen du, ‘urte askotarako’ adieraziz: *Ni ez nago urteetarako* (Agirre). *Beti eta luza-*

---

<sup>18</sup> Garatek erdarakada du *zehar* postposizioa denbora adieran erabiltzea (1988: 305-306), baina, ikusten den bezala, aintzat harturiko idazleek hala erabiltzen dute.

ro adberbioekin ere erabiltzen da *-(ra)ko* atzizkia, *beti(ra)ko* —*betikotzat*, *betikotz* aldaerak, ekialdean— eta *luzaro(ra)ko* formak eratuz: *Betirako noa agian* (Txillardegi); *Ezin-urratuzko aztarrena utzi du betiko* (Mitxelena); *Eihera pean ezarri zuten, betikotzat preso* (M. Etxamendi); *Larrun handiaren itzal maiteari betikotz ihes egin duten dohakabeak* (Zerbitzari); *Elorri-arantz horrek bihotza zauritu zigun luzaroko* (Orixe); *Ez naiz luzarorako alduko* (Etxaniz).

**35.2.8j** «{*Bi urte dira ~ badu bi urte*}... *-la*» gisako egitura predikatiboek (ikus § 35.2.4l) iraupena ematen dute aditzera mendeko aditzak jarraitzen duen jarduera edo egoera adierazten duenean, iraupenarekin batera gertakariaren hasiera seinalatuz betiere (ikus hango adibideak: *Bi urte dira gurean bizi dela*; *Badu lau ordu baratzean ari dela*; *Bazuen hamar egun etxetik joana zela*).

### 35.2.9. Hasierako muga adierazten duten osagarri adberbialak

**35.2.9a** Hasierako muga adierazten duten osagarriak *-tik* atzizkiarekin edo *gero* postposizioarekin eginak dira (*atzotik*, *gaurgero*, *igandiaz gero*). «{Adberbioa ~ IS} + *-tik*» egiturako postposizio sintagma erabiltzen dira maizenik —ohiko *-tik* atzizkiaren lekuan *-danik* jaso zenbaitetan (§ 20.2.1.4)—: *noiztik*, *noizdanik*, *atzotik*, *atzodanik*, *ordutik*, *ordudanik*, *bihartik*, *bihardanik*, *bezperatik*, *biharamunetik*, *betitik*, *betidanik*; *igandetik*, *aurreko urtetik*, *iragan astetik*, *festaren hasieratik*.

Hasierako muga iraupeneko gertakari baten abiapuntua dela azpimarratzeko *aurrera*, *aitzina*, *goiti*, *gora* edo *hara* adberbioak eransten dira inoiz sintagmaren ondotik: *Bihartik aitzina irekita egongo da bide berria*; *Egun hartatik aurrera famatua egin zen*; *Bi orenetarik goiti hasten, zinez, merkatua* (J. Etxepare); *Zazpigarren urtetik gora [...] erdaraz ari ginen* (Iratzeder).

*Hemendik* deiktikoari eta *handik*, *ordutik* anaforikoei eransten zaizkie maiz horrelako adberbioak, *hemendik* eta *handik* adberbioek denbora balioa hartzen dutelarik: *Bidea zabalik daukazue hemendik aurrera*; *Hobeko duzu hemendik goiti artalde hori libro utziz* (Xalbador); *Hemendik gora, heurea izango duk*

(Erkiaga); *Handik aitzina adiskide izan nuen; Handik hara bestela jokatu zuen; Handik gerora lasaiago bizi izan ziren; Ordutik aurrera pozik bizi izan ziren; Eta ordutik geroz jende asko joaten zitzaien [...]* (Beobide).

Ikusten den bezala, hiru modutara erabiltzen dira *handik* eta *hemendik* erakusleak dituzten osagarri hauek: *handik aurrera* eta *handik goiti* gisakoek ‘noizdanikoa’ ematen dute aditzera, esan bezala; *handik hona* edo *handik gaur artean* gisakoek iraupen edo epearen muga biak (§ 35.2.11a); *handik laster* eta *handik bi hilabetera* edo *handik bigarren egunean* bezalakoek, berriz, gertakariaren kokapena (ikus § 35.2.5h).

**35.2.9b** *Ordutik* eta *geroztik* adberbioek ‘handik aurrera’ adierazten dute: *Ordutik lasaiago bizi da; Ordutik hasi nintzen sinesten norbait banintzela* (Larre); *Geroztik, [...]* *Larrunen izan da oraino ermitau bat* (Zerbitzari); *Lelo hori atertu gabe entzun daiteke geroztik* (Mitxelena). Ondoko adberbio hauek Iparraldekoak dira: *engoitik*, ‘hemendik aurrera’ adierazten duena: *Hi engoitik ebiliren mundu guztietarik* (Etxepare); *Ez naitz engoitik aldatuko*. Berdin *gaurgoitik* ere: *Hara non garen gaurgoitik betierekotz anaia!* (Iratzeder). Aldiz, *jagoitik* ezezkako esaldietan erabiltzen da, ‘hemendik aurrera inoiz ez’ adierazteko: *Ez dezazula permeti zuregandik jagoitik separa nadin* (Uscara *libria*). *Egundainotik* formak ‘betidanik’ adierazten du: *Lur gainean egundainotik aditu diren hitz guztiak; Munduko izaitetarik, / gaur eta egundainotik, / bildotxa da eztienik* (Xalbador). Idazle klasikoek *egundainoz geroz(tik)* forma erabiltzen zuten adiera horrekin: *Beti izan zaitu maite egundainoz geroztik* (Pouvreau).

**35.2.9c** Hasierako muga adieraz dezakete, halaber, *-z gero / ezker* (*-z geroz, -z geroztik*) postposizio konplexuek, adberbioekin (*atzoz gero, atzo ezker, orduz gero, ordu ezker* —baina gutxitan *beti ezker* eta *bihar ezker*—), zein izen sintagmekin, bai denbora izena dutenekin (*igandiaz gero, udaberriaz gero, bostak ezker*) bai gertakaria adierazten dutenekin (*ezkontzaz gero, gerla handiaz gero*). Gorago esan den bezala, forma hauek predikatu nagusia iraupe-nekoa denean adieraz dezakete noizdanikoa: *Udaberriaz gero da hemen*. Hura unekoa denean ondokotasuna adierazten dute: *Udaberriaz gero etxera itzuli zen*.



*Harrezkero* adberbioak ‘handik aurrera’ adierazten du: *Haren oroitzapenak alaitu omen zion harrezkero bizia* (Mitxelena); *Jauntxo egin ziren eta harrezkero langileen lepotik polito bizi dira* (Eguzkitza).

*Gaurgero* (*gaurgeroz*, *gaurgeroztik*) adberbioak erabilera biak ditu; deiktikoa da, batez ere, eta ‘hemendik aurrera’ esan nahi du (eta ‘dagoeneko’ ere, ikus § 35.2.13e): *Gaurgero, Theresa, ni izanen naun hire aita eta ama* (Mirande). Anaforikoa ere izan daiteke, ‘ordutik aurrera’ adieraziz: *Gaurgero ez zituzten beren maitakeriazko lokarriak urratuko* (Etxaide).

*Honezkero*, *gaurgero* eta *gaurgoitik* adberbioek fasea adierazteko ere erabiltzen dira (ikus § 35.2.13e).

### 35.2.10. Hondarreko muga adierazten duten osagarri adberbialak

**35.2.10a** Hondarreko mugako osagarriek *arte* postposizioa edo, zenbaitean, *-raino* atzizkia daramate (*bihar arte*, *iganderaino*). Gehienak *arte* postposizioarekin eratzen dira, eta honek adberbioa edo izen sintagma gobernatzen du (*noiz arte*, *atzo arte*, *orain arte*, *ordu arte*; *igandea arte*, *hurrengoa arte*) —alderak: *arteraino* eta *arteino*, edo *arteo*, *artino*, *artio* (*gaur arteraino*, *bihar arteino*, *bertze egun bat artio*)—. Izen sintagma mugatua izatea da ohikoena (*egun hura arte*, *bostak arte*, *Gabonak arte*); idatzian maiz ageri den *hurrengo arte* eta *igande arte* bezalakoan idazkera <aa> bikoitzaren ebakera laburtuaren isla izan daiteke (*igande(a) arte*)<sup>19</sup>. Batzuetan, hala ere, mugagabea da sintagma (*beste egun bat arte*, *duela hiru urte arte*); eta beste batzuetan, bizkaieraz batez ere, adlatiboan ematen da (*ordura arte* —*Euskaltzaindiaren Hiztegiak ordu arte* eta *ordura arte* (ez *ordurarte*) formak onartzen ditu—, *igandera arte*, *arratsaldera arte*). Postposizio honekin eratzen dira *gero arte*, *bihar arte*, *hurrena arte* edo *sarri arte* (Ipar.) agur esaldiak. «{*Duela ~ orain dela*} IS

<sup>19</sup> “Esta segunda construcción aparece a menudo en los textos con el sust. en forma indet. (*egun arte*, etc.), lo que parece reflejo de la pronunciación corriente (*egunarte*); semánticamente, sin embargo, no cabe duda de su carácter determinado” (OEH s. v. *arte*).

zenbatzaileduna» esapide adverbiala ere goberna dezake postposizio honek: *Duela bi urte arte ez nuen horren berri* (ikus § 35.2.4).

*Artean* forma ere erabiltzen da azken muga adierazteko (*orain artean, sarri artean; arratsa artean, hurrengo artean, sei orenak artean; gauerdia artean; duela sei urte artean*). Eta baita *bitarte* nahiz *bitartean* postposizioak ere (*Hilaren azkena {bitarte ~ bitartean} ez digute soldata ematen*) —iraupenaren zenbatekoaren adierazpenaz, ikus § 35.2.8g—<sup>20</sup>.

**35.2.10b** Adlatibo burutuko *-raino* atzizkia —kontsonante ondoan *-daino*—, erabiltzen da inoiz azken muga adierazteko, adberbioekin batez ere: *oraindaino* —*oraingino, orainino*—, *gaurdaino, egundaino, orduraino*; galderetan, baldintzetan, konparazioetan eta ezezko perpausetan ageri dira maiz horrelakoak: [...] *oraindaino gehiegi mugitu ez badira ere* (Mitxelena); *Bidez aldatzea zer zen ez nekien gaurdaino* (Txillardegi); *Baldin bazen eta izan bada egundaino egiazko euskaldunik, hura zen* (Hiriart-Urruti); *Eta beretan arkitu zituela orduraino inon ere ikusi ez bezalako zuhaiztiak* (Iztueta). *Egundaino*-k ‘gaur arte’ esan nahi du esandako testuinguruetan, baina ‘inoiz (ez)’ adieraz dezake ezezakako esaldietan: *Hitz dautzut egundaino ez diodala ene zorra pagatzen ahalko* (Narbaitz). Izen sintagmekin ere erabiltzen da atzizki hau: *Hizketa hau eginda, Jesus ezkutatu zitzaien, eta hurrengo iganderaino berriz agertu zitzaientik, ez dakigu* (Lardizabal); *Ez dugu deus aurkitu egungo eguneraino* (Mitxelena); *Emanen didazula grazia [...] zure zerbitzu sainduan irauteko heriotzako orduraino* (Añibarro)<sup>21</sup>. *Azkeneraino* *iraun* esaldiak denbora ez ezik, gauzak muturreraino doazela esan nahi du.

### 35.2.11. Bi mugak adierazten dituzten osagarri adverbialak

**35.2.11a** Muga biak berariaz aipa daitezke, korrelazioan jarriz aurreko atletan ikusi diren osagarriak: *Goizeko hamarretatik arratseko seiak arte ireki-*

---

<sup>20</sup> *Arte* eta *artean* postposizioek mendebaldean azken aldian duten banaketaz, ikus § 36.6.2d.

<sup>21</sup> Ohar aldea: *egundaino* adberbioa eta (*azken*) *eguneraino* izena; *orduraino* adberbioa eta (*heriotzako*) *orduraino* izena (= *oreneraino*).

*ta daude dendak; Ekainetik iraila bitartean jende asko ibiltzen da hondartzan; Astelehenetik iganderaino egongo naiz kanpoan.*

Korrelazioan denean adlatiboarekin adieraz daiteke azken muga: *Ekainetik irailera jende asko ibiltzen da hondartzan; Goizetik arratsera zu zaitut go-goan; Ostegunetik igandera kanpoan izango naiz.* Azken muga hizketa uanean kokatzen denean, *hona* adberbioa erabiltzen da: *Duela bi urtetik hona partida guztiak irabazi ditugu; Handik hona urte asko bete dira.* Egitura honetatik aparte adlatiboa ez da iraupenaren azken muga adierazteko erabiltzen: *{Igandera arte ~ \*igandera} egongo naiz hemen.* Egitura hau, bestalde, konparazioa bideratzeko ere erabiltzen da inoiz: *Urte batetik bestera alde handiak izaten dira turismo kontuan.* Horrelakoetan iraupena ez, une bitako egoeren arteko alderaketa ematen da aditzera.

**35.2.11b** Muga biak aipatzen dira, halaber, «izena *eta* izena + {artean ~ bitartean}» egituran: *Zortziak eta hamarrak {artean ~ bitartean} bulegoan izango naiz.*

Korrelazioan ipinitako sintagma hauek gertakariaren iraupena seinalatzen dute, esan den bezala, predikatua iraupenekoia denean: *Geroztik hunat eduki nauzu zure geriza goxoan (Xalbador).* Baina hau unekoa denean, kokapen inklusiboa ematen dute aditzera: *Osteguna eta igandea bitartean iritsiko da.*

### 35.2.12. Maiztasuna adierazten duten osagarri adberbialak

**35.2.12a** Gertakaria zenbat aldiz gertatzen den seinalatzen dute maiztasuneko osagarriek. Batzuek aldien kopuru zehatza ematen dute aditzera (*behin, hiru aldiz*), eta beste batzuek kopuru zehaztugabea (*maiz, usu, anitz aldiz, batzuetan*); zenbaitek aldien iterazioa seinalatzen dute (*igande guztietan, igandero*), eta beste batzuek maiztasun orokorra (*eskuarki*).

**35.2.12b** Adierazpen zehatza egiten dute «zenbatzaile zehatza + {bider ~ aldiz ~ alditan}» egiturako osagarriek, hau da, *bi bider, hiru aldiz, bost alditan* bezalakoek (*{Bi bider ~ bi aldiz ~ bi alditan} izan naiz Berlingen*), bai eta *aldi*

izena gabeko «zenbatzaile zehatza + *-tan*» gisakoek ere, hau da, *bitan*, *birritan*, *hirutan*, *lautan* modukoek (*Bitan izan naiz Berlinen*). *Egunean bitan*, *urtean hiru aldiz* eta *hilabetean hiru bider* bezalako osagarriek zenbatzailearen aurreko inesiboak adierazten duen epearen barruko maiztasuna seinalatzen dute; gertaldi bakarraren barruko maiztasuna izan daiteke (*Aurtengo udan hiru bider joan naiz hondartzara*), nahiz iteratiboa, aditza aspektu burutugabea emana delarik (*Astean bi aldiz joaten naiz zinera*; *Urtean hirutan egiten genituen oporrak*). *Aurten bost igandetan lan egitera behartuak gaude* perpauseko *bost igandetan* osagarriak, berriz, ‘aldi’ orokorraren lekuan ‘igande’ zehatza erabiltzen duelarik, maiztasuna eta kokapena adierazten ditu batera.

Zenbatzailerik gabeko *aldi hartan*, *lehen aldian*, *azken aldian* bezalako osagarriek, berriz, kokapena adierazten dute, ez maiztasuna. Era berean, erlatiboarekin eginiko *Ameriketean izan naizen aldi bietan* bezalako sintagma mugatuek kokapena ematen dute aditzera, maiztasuna erantsiz; *noiz?* galderari erantzuten diote hauek ere.

**35.2.12c** Berezia da ‘bat’ zenbakiari dagokion forma: *behin* esaten da, hain zuzen ere, eta ez *\*bat aldiz*, *\*bider bat* edo horrelakorik. Adberbio hau, bestee-tan gertakariaren kokapena seinalatzen badu ere (§ 35.2.4c), maiztasunezkoa da ‘aldi bakarra’ adierazten duenean: *Behin izan naiz Berlinen*. Agerikoa da adiera hori *behin bakarrik*, *behin bederen*, *behin behintzat*, *behin baizik ez*, «{*noizean ~ noizik ~ lantzean ~ aldian*} *behin*» eta *behin eta berriz* bezalako esapideetan. «[Epe izena + *-n*] + *behin*» osagarriak epearen barruko behingo maiztasuna adierazten du: *Aurtengo udan behin izan naiz hondartzan*.

*Beti* adberbioa maiztasuna ere adierazten duen kokapenezko osagarria da ‘aldi guztietan’ adierazten duenean: *Berlina joaten da beti oporretan* —iraupena seinalatzen du ‘denbora guztian’ adierazten duenean (§ 35.2.8a) eta fasea ‘oraindik ere’ adierazten duenean (§ 35.2.13c)—. Alderantziz, batere aldirik izan ez dela adierazten dute *inoiz (ere) ez*, *sekula (ere) ez* eta *behin (ere) ez* formek: *Ez naiz inoiz izan Berlinen*.

**35.2.12d** Zenbatzaile zehaztugabea duten «(denbora izena) + {*batzuetan ~ zenbaitetan ~ gutxitan ~ frankotan ~ askotan*}} osagarriek, berriz, maiztasu-

naren adierazpen zehaztugabea egiten dute, agerikoa denez: *Egun gutxitan betetzen dira zezen plazak; Goiz askotan joaten naiz azokara; Frankotan izana naiz Parisen; Batzuetan nekatuta jaikitzen naiz.* Zenbatzaile soilak ere adieraz dezake maiztasuna, ariketa aditzekin batez ere: *Ez da asko mintzatzzen horretaz; Gutxi etortzen da gurera; Adineko jendeak izugarri errepikatzen ditu kontuak.*

*Maiz, usu, sarri* (Hego.), *ardura* (Ipar.) eta *bakan* adberbioek ere maiztasun zehaztugabea adierazten dute; mailakatailea eta guzti ematen dira zenbaitean: *oso maiz, maiz aski, maizago; horren usu, usuegi; sarri asko; arduraxea-go; oso bakan.*

‘Bost’, ‘hamaika’ eta ‘mila’ zenbakiekin eginiko *bost aldiz, hamaika bider, hamaiketan* eta *mila aldiz* bezalako osagarriek berezko balio zehatzaz gain ‘askotan’ zehaztugabea adierazteko erabiltzen dira maiz.

**35.2.12e** Balio iteratiboa dute maiztasun zehatzeko «denbora izena + {*oroz* ~ *orotan* ~ *guztiaz* ~ *guztietan*}» egiturako osagarriek: *Biltzen ziren Pariseko estudiante gazteak ortzegun arratsalde oroz* (Narbaiz); *Urte guztietan egiten al dituzu oporrak?* Zenbatzailea gabe ere balio hori izan dezake denbora izenen inesiboak (implizituki ‘guztietan’ ulertzen da): {*Igandean* ~ *igandietan*} *zintera joaten gara; Gabonetan etxeko denak biltzen gara.* Kokapen iteratiboa adierazten dute horrelakoek.

Adierazpen hori bera egiten dute «denbora izena + {-*ero* ~ -*oro*}» egitura duten *egunero, astero, goizero, igandero, hilero, istantero* adberbioek: *Hiru orduz jotzen zuen danbolina egunero* (Mitxelena); *Ez dut goizero gimnasi saiorik egin behar* (Mitxelena); *Astero joaten natzaio bisitan.* Aldi oro eta *une oro* esapide adberbialek ‘beti’ adierazten dute: *Ezpainak bere, ez dira aldiro muker ta zimel agertzen* (Erkiaga); *Uri handietako begitarteak, une oro jende berria* (Erkiaga).

«[Epe izena + -*n*] + *behin*» osagarriak ere balio iteratiboa du, epea berritzen dela adierazten denean: *Ez ahaztu, gero, egunean behin ni ikusten etortzeaz* (Otxolua); *Hamabostean behin edo hola etortzen zen* (S. Salaberria); *Urtean behin besta ederra egiten dugu* (Xalbador).

‘Zortzi’, ‘hamabost’ eta ‘hilabete’ izenek *-tik* atzizkia hartzen dute egitura honetan: *Herriko arno garbi xorta bat hola zortzitik behin gure etxean [...]* (Hiriart-Urruti). Epe izenak zenbatzailea lagun duenean, berriz, inesiboaz gain *-z*, *-tarik* eta *-tik* (gaurko testuetan) atzizkiak ere har ditzake, batez ere Iparraldean: *Bi urtez behin edo [...]* batzarre handi batera deitzen gaitu (Lizardi); *Maiz? Ez, ez. Lau urtetarik behin, doi doia* (Barbier); *Eta hori hiru urtetik behin, edo sarriago nahiz bakanago, aipaturiko ministroak agindu bezala* (Elizen arteko Biblia); *Gutitan gertatzen zen hori, gehienez ere bi edo hiru urtetik behin* (Epal-tza). Sail berekoak ditugu *noizetik behin* eta *noizik behin*. Zenbaitetan, *behin* gabe ere erabiltzen da itzuli hau: *Abere azpiak ateratzen dira [...]* lau egunetarik [...] (Duvoisin); *Bederen bi hilabetetarik hurbilduko dira sakramenduetarat* (Jesusen Bihotz); *Bi urtetarik antolatzen dituzte Aldudeko ibarraren ate irekiak* (Herria)<sup>22</sup>.

**35.2.12f** Balio orokorra dute maiztasun zehaztugabeko osagarri batzuek: *eskuarki, maizenik, gehiene(t)an, jeneralean, normalean, komunzki*. Hemen adibide batzuk: *Hau, ez zen eskuarki etxetik edo etxe inguruetatik aienatzen* (Etxaide); *Fetxa horietan jeneralean eguraldi ona eta beroa izaten da* (Albeniz); *Apezgai batetarik komunzki soldado txarra eginen dela* (M. Elizanburu); *Baina maizenik eta komunzki dena dabil berez bezala* (Villasante); *Gai honetaz asko hitz egin da eta gehienez oso gaizki* (Munita). Maiztasuna baino areago multzo bateko kide guztiei dagokien adierazpen orokorra egiten dute, zenbaitetan, osagarri hauek: *Gehienetan, oparia hartzean poztu egiten da jendea* perpausak, esate baterako, ez du esaten honek eta hark gehienetan agertzen dutela poza oparia hartzean, baizik eta jende gehiena pozten dela horrelakoetan.

### 35.2.13. Fasea adierazten duten osagarri adberbialak

**35.2.13a** Faseko adberbioek aurreko egoerari erreferentzia eginez kokatzen dute gertakaria. Hala, esate baterako, *Oraindik itxita daude dendak* perpausoko

---

<sup>22</sup> Esapide hauek *bi hilabetetarik bi hilabetetara* gisako esapideen forma laburtuak dira, beharbada; *zortzitik* ere *zortzitik zortzira* esapidearen laburpena izan daiteke (ikus Lafitte 1962: 428).

*oraindik* adberbioak aurreko egoera batek orain ere bere horretan jarraitzen duela ematen du aditzera, eta, hain zuzen, ‘dendek itxita jarraitzen dute’ parafrasia onartzen du perpaus horrek. Alderantziz, *Dendak jadanik itxita daude* perpausko *jadanik* adberbioak iragan hurbilean dendak irekita zeudela ematen du aditzera, eta egoera hori aldatu egin dela. Aurreko denborari ez ezik, gainera, ondokoari ere egiten diote erreferentzia adberbio hauek. *Oraindik itxita daude* esaldiak ondoko irekitzearen suposizioa darama berarekin; eta *Jadanik itxita daude* esaldiak denbora batean horrela jarraituko dutelako suposizioa. Prozesu baten barnean kokatzen dute, bada, gertakaria horrelako perpausok, haren aurreko egoera kontuan hartuta batetik, eta ondoko egoeraren berri iradokiz, bestetik<sup>23</sup>. *Oraindik* gisakoek egoeraren edo jardueraren ‘jarraipena’ ematen dute aditzera; *jadanik* gisakoek aldaketa iradokitzen dute.

**35.2.13b** *Oraindik* forma Hegoaldean erabiltzen da batez ere —*oraindino* (bizkaieraz)— eta *oraino* forma Iparraldean —*orainik* (goi nafarreraz)—. Iparraldeko forma bai orainaldirako bai iraganerako erabiltzen da (*Oraino {hor dago ~ han zegoen}*). Hegoaldeko *oraindik*, berriz, batez ere orainaldirako erabiltzen da (*Oraindik hor dago*), eta iraganerako *artean* hobesten da (*Artean han zegoen*); idazle batzuek, hala ere, iraganerako ere erabiltzen dute *oraindik*: *Ez zuela oraindik ezkondu nahi* (Berrondo); *Oraindik emakume itxurazkoa ta gordina zegoen* (Etxaide)<sup>24</sup>.

Jarraitzen duen jarduera edo egoera adierazten duen aditza da adberbio honekin doana (*oraindik ari da*; *oraindik badago*). Uneko aditzak ez du hor lekurik (\**oraindik iritsi da*); ezezka emanda, ordea, iraupeneko bilakatzen da, erdiespenaren aurreko egoera adierazten baitu, eta orduan onargarria gertatzen da (*ez da iritsi oraindik*). *Oraindik eskolara joaten da* perpausuan, berriz, gertakariaren errepikatzeak ematen dio aditzari, ohi bezala, iraupen adiera. Gerora aldaketa gertakizun dela ere iradokitzen du adberbioak, esan den bezala, eta,

<sup>23</sup> Horregatik adberbio hauek denborazkoen multzoan baino areago aspektua adierazten dutenetan sar daitezke.

<sup>24</sup> Garateren iritziz erdarakada da hori (1988: 243); haren ustez bai iraganaldiko bai geroaldiko *artean* erabili behar da (*Gaztea zen artean*; *Artean hemen izango gaituzu*).

hortaz, ez da egoera iraunkorra adierazten duten aditzekin erabiltzen (larru zuriko pertsona bati buruz ez du zentzurik *oraindik zuria da* esatea). Aldaketaren gertakizunak eragiten du, hain zuzen ere, gorago aipatu dugun parafrasia guztizkoa ez izatea: *Ez da ezkondu oraindik* perpausak *Ezkongai jarraitzen du* perpausak baino areago iradokitzen du ezkontzaren gertakizuna.

**35.2.13c** Aurreko egoerarena zeharka adierazia da *hamabost urte ditu oraindik* bezalako esaldietan: ez da esaten lehen ere hamabost urte zituela, lehen bezala ‘gazte’ izaten jarraitzen duela baizik, hamabost urte izateak horixe esan nahi baitu, ‘gazte’ izatea. Zenbatzailearekin doanean, berriz, neurri bati beste bat eransten zaiola adieraz dezake: *Pixka batean egon da oraindik ohean; Beste hamabost egun egingo ditut oraindik zuenean*.

Denborako edo faseko erabileraz gain, bestalde, *-ago* konparazioarekin ere erabiltzen da *oraindik*, *are* formaren pare (*oraindik (ere) alaiago = are alaiago*); lekuz aldatuta (*alaiago oraindik*), § 32.3.1.2. Eta balio eskalarrarekin ere erabiltzen da: *Parrandan gastatu du diru guztia, eta gehiago ematea nahi du oraindik* (= ‘gainera’).

*Beti* adberbioak ere egoeraren jarraipena adierazten du zenbaitetan, Iparraldeko euskalkietan: *Joan den mendeko harresi eta murru ederrak beti han baitaude xut eta tente* (Larre).

**35.2.13d** *Jadanik* gisako adberbioak aurreko atalean aipatu direnen ifrentzua dira; hauekin aurreko egoera aldatu dela iradokitzen da, eta egoera berria etorkizun hurbilean luzatuko dela suposatzen. *Jadanik irekita daude dendak* esaten da, lehen itxita zeudelako eta hemendik aurrera irekita egongo direla suposatzen delako. Hauek egoera edo jarduera adierazten duten aditzekin ez ezik unekoekin ere erabil daitezke, baina ez dute unekoen ezezkorik onartzen: *Jadanik iritsi da / \*Jadanik ez da iritsi*. Iraupenekoekin balio inkoatiboa dute: *Jadanik badut maisu titulua* dioenak titulua eskuratu duela esaten du, lortu zaharra ez duela iradokiz.

*Jadanik* adberbioa Iparraldekoa da, baina erabilera zabalagoa du gaur egun; *ja* aldaera euskalki guztietan erabiltzen da, eta *jada* Iparraldeko euskalkietan. Hirurak erabiltzen dira orainaldirako (*Hemen dira jadanik*) nahiz iraganerako



(*Han ziren jadanik*). *Engoitik* eta *gaurgoitik* adberbioak ere erabiltzen dira Iparraldean: *Engoitik apailuak eginxeak zituzten* (Lafitte); *Hainbertze esne edan balu, zurituko zen gaurgoitik* (Mattin) —iraupenaren hasierako mugako adieraz, § 35.2.9b—.

**35.2.13e** Hegoaldeko *dagoeneko* forma orainaldiarekin erabiltzen da batez ere: *Hemen dira dagoeneko*. Iraganean ez da \**zagoeneko* erabiltzen, *ordu(ra) ko* edo orainaldiko *dagoeneko* baizik: {*Orduko ~ dagoeneko*} *han ziren lagunak* (EGLU-I: 386). Bizkaierazkoa da *daborduko* forma, orainaldirako erabilia: *Daborduko hasi da lanean*.

*Honezkero* adberbioa, Hegoaldekoa, ustea adierazteko erabiltzen da: *Hamai-kak izango dira honezkero* (EGLU-I: 387). Orainaldiarekin da ohikoena, baina iragana ez du debeku: *Bazekiten honezkero zer gertatu zen*. Geroak ustearekin duen loturaren bidetik geroaldiarekin erabiltzen da maiz: *Honezkero ez da etorriko*. ‘Ustea’ adierazten duen forma hau ez da zerbait jadanik gertatua dela adierazten duen *dagoeneko* adberbioarekin nahasi behar: *Honezkero hemen izango dira lagunak*, baina *Dagoeneko hemen dira lagunak*. Erdialdean erabiltzen den *gaurgero* adberbioak, berriz, baieztapena nahiz ustea adieraz dezake: *Etsaia dut gaurgero; Gaurgero hemen izanen da*.

**35.2.13f** Gertakariaren aurreko eta ondoko egoerei buruzko iradokizuna egiteko gai ez diren predikatuak desegokiak dira faseko adberbioak hartzeko. #*Gure irakaslea oraindik zaharra da* perpausa, esate baterako, desegokia da, irakasleak gerora zahar izateari utzi egingo diola iradokitzen baitu; ondoko egoeraz egiten duen iradokizunak huts egiten du, horrenbestez. Aldiz, *Gure irakaslea jadanik zaharra da* perpausa egokia da, lehen zaharra ez zela iradokitzen baitu. Era berean, *Gure irakaslea oraindik gaztea da* perpausa egokia da, lehendik ere gazte izanik gazte izaten jarraitzen duela eta gerora zahartzen joango dela suposatzen duelako, baina #*Gure irakaslea jadanik gaztea da* perpausa desegokia da, irakaslea lehen gaztea ez zela iradokitzen baitu, hau da, lehen zaharra izanik gazte izatera iritsi dela; aurreko egoeraz egiten duen iradokizunak huts egiten du. Eta, berdin, *Oraindik goiz da* egokia da, baina ez #*Jadanik goiz da*; eta *Jadanik berandu da* egokia da, baina #*Oraindik berandu da* ez.

*Oraindik* gisako adberbioen eta *jadanik* gisakoen erreferentzia eta suposizioak elkarren alderantzizkoak direnez, konplementazio erlazioan daude baiezko-ezezko perpausei dagokienez. *Oraindik gaztea da* perpausaren kontrakoa ez da *Oraindik ez da gaztea*, *Jadanik ez da gaztea* baizik; eta *Jadanik zaharra da* perpausaren kontrakoa *Oraindik ez da zaharra* da.

## 36. Denborazko perpausak (II)

---

- 36.1. Oinarrian perpausa duten osagarri adberbialak ('Denborazko perpausak')
  - 36.2. Izaera, formak eta motak; 36.2.1. Postposizioak eta denboraren adierazpena; 36.2.2. Egitura hauen ezaugarriak; 36.2.3. Gertakari bi aipatzen dira
  - 36.3. Kokapenezko perpausak: Aldiberekotasuna
  - 36.4. Aldiberekotasunaren adierazpen orokorra; 36.4.1. Aldiberekotasuna adierazten duten morfemak: *-nean*; 36.4.2. *-nean* morfemaren bestelako adiera batzuk; 36.4.3. *-tzean* morfema; 36.4.4. *-tzerakoan*, *-tu(k)eran*, *-tzearekin* eta *-larik*; 36.4.5. *Noiz ere... bait*-egitura
  - 36.5. Aldiberekotasun estua; 36.5.1. Aldiberekotasuna seinalatzeko zenbait bide: *-neko* forma; 36.5.2. *-tzerako*, *...orduko*, *...batera*, *bezain laster* eta beste batzuk; 36.5.3. *-tu eta berehala* gisako formak
  - 36.6. Aldiberekotasun zehatza; 36.6.1. Aldiberekotasun zehatza seinalatzen duten formak; 36.6.2. *-no*, *...bitartean*, *-n artean*, *-tu ahala*, *-tu arau*
  - 36.7. Kokapenezko perpausak: aurrekotasuna eta ondokotasuna; 36.7.1. Aurrekotasuna eta ondokotasuna adierazten duten formak; 36.7.2. Aurrekotasuna adierazten duten formak; 36.7.3. Ondokotasuna adierazten duten formak
  - 36.8. Iraupeneko gertakarien muga adierazten duten perpausak
  - 36.9. Hasierako muga adierazten duten formak
  - 36.10. Hondarreko muga adierazten duten formak
  - 36.11. Maiztasuna ere adierazten duten kokapenezko perpausak
-

### 36.1. Oinarrian perpausa duten osagarri adberbialak (‘Denborazko perpausak’)

Gramatiketan eskuarki ‘denborazko perpaus’ deitu izan direnak izango ditugu aztergai atal honetan (*lana amaitu duenean, iritsi den orduko, laguna etorri arte...*). Osagarri adberbialak dira hauek ere, postposizio sintagmak gehienak, aurreko kapituluaz aztertu direnak bezala, baina atal berezia eskaintzen diegu, hala ere, oinarrian perpausa eta hari erantsita denboraren adierazpenean espezializatu eta neurri batean ‘finko’ bilakaturiko formak dituztelako.

### 36.2. Izaera, formak eta motak

Hala, esate baterako, *oporretan ibili naizenean* sintagmak [*oporretan ibili naiz*] perpausa du oinarrian eta [-*nean*] forma ondoan. Erlatiboa da horrela eraturiko perpausa, jakina, *oporretan ibili naizen egunetan* perpausa bezala, baina bada aldea bien artean: izen ardatza agerian du azken honek (*egunak*), eta, hain zuzen ere, izenak ematen dio perpausari denbora balioa —§ 35.2.3g atalean aztertu dira izen sintagmaren gainean eraikitako postposizio sintagma hauek—. *Oporretan ibili naizenean* perpausa, berriz, ageriko izen ardatzik ez duena da, honen lekuan izen zehatz bat ez, baizik eta ‘denbora’ nozioa duena: *oporretan ibili naizen* [‘denbora’]*n* (§ 31.4.3.13)<sup>1</sup>. Horrelako perpausetan —ageriko izen ardatzik ez dutenetan— zuzenean eransten zaio inesiboko postposizioa erlatiboaren -*n* morfemari, denbora adierazteko espezializatu eta ‘finko’ bilakatu den -*nean* forma eratuz. Forma ‘finkotzat’ har daiteke hau, besterik ezean denbora adiera hobesten duelako, hau da, testuinguruak besterik seinalatzen ez duenean adiera hori nagusitzen delako. Hala, *sartu denean, egon ginenean, ikusi dutenean* eta horrelakoak testuingururik gabe entzuten ditugunean, denborarekin lotzen

---

<sup>1</sup> Izen ardatz zehatza dutenak dira, noski, izena isilpean izan arren hura eskuratzeko modua badutenak, ondoko adibidekoa bezalakoak: *-Zein egunetan joango naiz kontsultara? -Egokien zaizunean; hots, ‘egokien zaizun egunean’.*

ditugu; ez ditugu, alegia, *sartu den etxean, egon ginen moduan, ikusi duten itxuran* gisa-edo ulertzen.

### 36.2.1. Postposizioak eta denboraren adierazpena

Erlatibo horietan *ordu* izenaren elipsia dagoela esan dute gramatikari batzuek, *-nean* formaren azpian *-n orduan* dagoela iritzita; *sartu denean* eta *sartu den orduan* gisako perpausen arteko sinonimia aipatzen dute azalpen moduan<sup>2</sup>. Esan behar da, edozein kasutan, *ordu* generikoa izango litzatekeela hori, eta, bestalde, ez dela beti izen hori perpausari zehazkien dagokiona. *Ikasle nintze-nean, barnetegi batean bizi nintzen* perpausean ‘ikasle nintzen orduan’ ote da irakurketa zuzenena? Egokiago da ageriko izenik gabeko erlatibo hauetan ‘denbora’ adierako izen generikoa suposatzea —‘denbora’ hori unea edo epea izan daitekeelarik (*kalera atera naizen* [‘denbora-une’]an eta *ikasle nintzen* [‘denbora-epe’]an, esate baterako)<sup>3</sup>—. Postposizio sintagmak dira hauek ere, jakina, baina denboraren nozioa adierazten duen *-nean* forma espezializatua dutenak.

### 36.2.2. Egitura hauen ezaugarriak

**36.2.2a** Askok dira aurreko kapituluan esandako moduan, edo horren antzera, eratu diren formak. Adizki jokatuko erlatiboaren gainean eraikiak dira batzuk; postposizio itsatsiarekin, *-n + -n* → *-nean* (*etorri denean*), *-n + -tik* → *-netik* (*etorri denetik*), *-n + -no* → *-no* (*hemen deno*); edo askearekin, *-n arte*, *-n orduko* bezalakoak (*etorri den arte, etorri den orduko...*). Konparaziozko

<sup>2</sup> Ikus de Rijk (2008: 518-521). Mitxelenaren lekukotasuna dakar bere iradokizunaren alde (in Villasante 1976: 102).

<sup>3</sup> RAEko gramatikak ‘relativas libres’ deitzen ditu *cuando* adberbioarekin eratzen diren perpausak, eta honela dio: “El adverbio relativo *cuando* [...] designa instantes o períodos” (*Nueva gramática* 2009: 1606).

mailakatzailearekin eratuak dira beste zenbait (*-n bezain laster*, *-n baino lehen*), egituraz konparazioari dagozkion arren, konparatzeko baino areago gertakarien arteko denbora-erlazioa adierazteko erabiltzen baitira (§ 32.2.1.3, § 32.3.1.2); postposizioen parekoak dira erabilera horretan *bezain laster* eta *baino lehen* forma adberbialak (*sartu naiz[en bezain laster]* = (*sartu naiz[en orduko]*)<sup>4</sup>. Korrelaziozko perpausa ere erlatibo generikoaren parekoa da, *noiz* adberbioak ‘denbora’ nozioa adierazten baitu: *Noiz ere bidea zeharkatzera bainindoa, auto bat pasatu da ziztu bizian*.

Adizki jokatuak perpausetan bestelakoa dena *-la(rik)* formarekin eratuak da. Esanahi zabaleko forma da hori, testuinguru batzuetan denbora adieraz dezakeena: *Berlinen bizi zelarik, behin bakarrik etorri zen sorterrira*.

**36.2.2b** Partizipioarekin eraikitako *sartutakoan* / *sarturi(ka)koan* erlatiboak ere ageriko izen ardatzik gabe egina dagoelarik denbora-balioa hartzen du (*sartutako*[‘denbora’]n); zuzenean eransten zaio inesiboko postposizioa erlatiboari, *-tutakoan* / *-turi(ka)koan* forma eratuz. Postposizio askeak eta forma konplexuak, berriz, zuzenean doaz gobernatzen duten partizipioarekin (*-tu* {*arte ~ aurretik ~ ondoan ~ orduko...*}; *-tuz gero*).

Adizki jokatuak perpausen forma murriztua izan daitezke horietako batzuk, adizki laguntzailea, *-n* menderagailua eta, hala dagokionean, aspektu morfema ere isilpean dituen (*etorri den arte*, *etorri zen arte*, *etortzen den arte*, *etor dadin arte* → *etorri arte*; *etorri den orduko*, *etortzen den orduko* → *etorri orduko*; *etorri denez gero* → *etorri gero*), baina ez denak (*etorri eta gero* eta *etxeratu gabe*, esaterako, ez dira ezein perpaus jokaturen forma murriztua).

Konparaziozko mailakatzailea daramaten *-tu bezain laster* eta *-tu baino lehen* formatako perpausak ere perpaus jokatuak forma murriztua direla esan daiteke: *sartu den bezain laster* → *sartu bezain laster*. Egituraz konparazioari dagozkion arren, gertakarien arteko denbora-erlazioa adierazteko erabiltzen dira horiek ere, jokatuak bezala.

---

<sup>4</sup> Partizipioaren ondoko postposizioen multzoan sartzen ditu Lafittek *baino lehen* eta *bezain laster* (1962: 228).

Partizipioari *-ta* edo *-ik* atzizkiak erantsita, esanahi zabaleko perpausak eratzten dira, testuinguru batzuetan denbora adieraz dezaketenak (*sartuta, sarturik*).

Partizipioaren lekuan aditzoina erabiltzen dute hauetako perpaus batzuetan adizkera hori ohikoa duten euskalkietan (*ikus artio*). Eta adlatiboa ere erabiltzen da, euskalki guztietan, erdiespena adierazten duten perpaus jokatu zein jokatugabeetan (*etxera zirenean; etxera bezain laster*); konplexua izan daiteke adlatiboa (*etxeko eskaileraren bigarren mailara orduko*); aditzaren lekua betetzen du adlatiboak, horrelakoetan, mendeko perpausean (*Goizaldea etorriko da, gautxori horiek etxera orduko*)<sup>5</sup>.

**36.2.2c** Aditz izenarekin egindako izenlagunak, azkenik, inesiboko postposizioa har dezake (*sartzerakoan; sartzekoan*); denbora-balioa hartzen du honek ere ageriko izenik ez duelarik (*sartze(ra)ko*['denbora']an); *-tzerakoan / -tzekoan* da forma.

Postposizioa zuzenean hartzen dute, bere aldetik, *-tzean* eta *-tzerako* formek (*sartzean, sartzerako*). Bizkaierazko *-tu(k)eran* forma ere «aditz izena + inesiboko postposizioa» egiturakoa da (*ni hara heldueran = ni hara heltzean*).

**36.2.2d** Horra, bada, laburbilduta, denborazko perpausak eratzeko erabiltzen diren forma nagusiak:

– Adizki jokatua dutenak:

- «*-n* + atzizkia», *-nean, -netik, -no*
- «*-n* + postposizio askea», *-n arte, -n bezain laster* erakoak
- «*noiz ere bait*» korrelaziozko erlatiboa
- «*-la(rik)*», testuinguru batzuetan denborazkoa

<sup>5</sup> Hemengo helburutik at geratzen da adlatibo horren izaeraz eztabaidatzea: ea isilpean *iritsi* gisako aditzen bat duen (*etxera [iritsi] orduko*), edo *-tu* morfema (*etxera[tu] orduko*); ea hiztegiko partizipioa den, edo kokaguneak eragindako partizipio 'sintaktikoa'. Erdiespena adierazten duten predikatu batzuetan partizipioaren lekuan ageri dela esatera mugatuko gara.

– Partizipioarekin eratuak:

- «-tutakoan», «-turi(ka)koan»
- «-tu + postposizio askea», -tu arte, -tuz gero, -tu bezain laster erakoak
- «-tuta», «-turik», testuinguru batzuetan denborazkoak

– Aditz izenarekin eratuak:

- «-tze(ra)koan»
- «-tze + atzizkia», -tzean, tzerako, [-tukeran]

Ikusten den moduan, denborazko perpausak bideratzen dituzten forma hauek osagai bi dituzte gehienek: perpausa mendeko egiten duena bat, ‘menderagailua’ (-n edo adizki jokatu gabea, hain zuzen ere), eta denbora-esanahia bideratzen duen postposizioa bestea (itsatsia, askea edo konplexua). Osagai biak bilduta izendatzen ditugu hemen forma horiek: -nean, -netik, -no, -n arte, -n bitartean, -n orduko, -nez gero; -tu arte, -tu bezain laster, -tuz gero; -turik, -tuta; -tze koan, -tzean...

Ikusten da, halaber, forma hauetako postposizio asko adberbio eta izen sintagmekin eraturiko postposizio sintagmetan erabiltzen diren berberak direla (-n, -tik, arte, bitartean, baino lehen...). Bat egingo dute, hortaz, zenbaitetan, postposizio hauen erabileraz atal hauetan esango ditugunek eta aurreko kapituluan esandakoek.

### 36.2.3. Gertakari bi aipatzen dira

**36.2.3a** Perpaus hauekin eginiko esaldietan gertakari baten bidez ematen da aditzera denboraren erreferentzia. Gertakari bi aipatzen dira, mendeko perpaus bat eta nagusian bestea, bien arteko denbora-erlazioa seinalatuz<sup>6</sup>.

---

<sup>6</sup> Izen batzuek ere gertakaria adierazten dute, baina aldea badago, halaz guztiz, haien eta perpausen artean: *zure etorrera zoriontsuaren ondoan* eta *zu etorri ondoan* sintagmek, esate baterako, gertakaria adierazten dute biek denbora-erreferentzia gisa, baina egitura desberdina dute: *etorrera*-k izen joskera du (izenlaguna eta adjektiboa eraman ditzake: *zure, zoriontsu*); *etorri* partizipioak, berriz, aditz joskera du (*zu* subjektua), § 30.6.3.1.



Mendeko perpausean aipatzen dena izaten da gehienetan nagusikoari denbora erreferentzia ematen diona: *Euria hasi duenean aterpera joan gara* perpausean, esate baterako, ‘euriaren hasierak’ seinalatzen du ‘aterpera joatearen’ denbora<sup>7</sup>.

Zeregin hori bete ahal izateko, denbora mugatua adierazten duena izan behar du perpausak, jakina. Hala, egoera iraunkor eta etengabea adierazten duten predikatuek ez dute balio denbora-erreferentzia emateko. Eta ezta hartzeko ere. European jaio eta bizitza guztian europarra izan denaz, adibidez, *europarra da* esan dezakegu, baina perpaus horrek ez du lekurik denborazko perpausean, ohiko erabileran bederen, ez denbora-erreferentziaren emaille gisa (\**Europarra denean ezagutu dugu*), ez hartzaile moduan ere (\**Lanean hasi zenetik europarra da*).

**36.2.3b** Ondo ulertu behar da, bestalde, forma horiek denbora-balioarekin duten lotura. Ohiko lotura da hori, neurri batean ‘finkoa’, esan dugun bezala, baina ez erabatekoa. Izan ere, testuinguruak besterik seinalatzen ez duenean nagusitzen da denbora-balioa. *Hori egindakoan* edo *hori egin duenean* esaldiak testuingururik gabe entzuten ditugunean balio horrekin lotzen ditugu, bai, esan bezala, baina, perpaus adberbialetako atzizkiekin maiz gertatzen den moduan, testuinguruak bestelako nozioak bidera ditzake hauetan ere, denborazkoarekin batera edo haren lekuan.

Hizkuntza askotan gertatzen den moduan, euskaran ere ohikoa da, esate baterako, denboraren adierazpen orokorretik baldintzaren adierazpenerako urratsa egitea, *a gertatzen denean*, *b gertatzen da* adieraztetik *a gertatzen bada*, *b gertatzen da* adieraztera pasatzea, alegia. Hala, *Izotza denean*, *kontuz ibili behar da* eta *Izotza bada*, *kontuz ibili behar da* esaldiak sinonimotzat har daitezke. Gertakari biren arteko aldiberekotasun errepikatuak bide ematen dio kausa-ondorio erlazioari, eta baldintzaren sinonimo bilakatzen da; hala gerta-

<sup>7</sup> Korrelaziozko perpausa izan daiteke alderantzizkoa, hau da, denboraren erreferentzia perpaus nagusian duena: *Bidea zeharkatzera nindoan, noiz ere auto bat pasatu baita ziztu bizian* (ikus § 36.4.5). Horregatik, perpaus mota hau aztertzen den atalean izan ezik, ‘mendekoa’ esaten dugunean denbora-erreferentzia ematen duenaz ari gara beti.

tzen da, esate baterako, *Etxean bazkaltzen duenean, berandu itzultzen da lanera* eta *Etxean bazkaltzen badu, berandu itzultzen da lanera* perpausetan. Parekotasun bera ikusten da ondoko adibidean ere, non perpaus mota biak koordinatuak ageri diren: *Adinekoak mintzo direnean arretaz entzuten du jendeak, baina gazteak mintzo badira ez du inork kasurik egiten*. Horrelakoetan esan daiteke, bada, denborazko perpausak denbora adierazteaz gain, baldintza ere iradokitzen duela, § 34.3.4.

Denboraz gaineko egia orokorrak ere adieraz ditzake *-nean* formak (*Helmu-gako marra igarotzen denean amaitzen da lasterketa*) edo inplikazioa (*Hori esan duenean, egia esan du*). Era berean, *-tzean* forma ere ohikoa den arren denboraren adierazpenean, bestelakorik adierazten du zenbaitetan: azalpena (*Lurrikara nabaritzean, kalera atera ziren etxekoak*), edo zertan galderaren erantzuna (*Bakoitzari berea ematean datza justizia* —non *-tzean* perpausa *datza* aditzaren osagarri argumentala den, § 30.6.3.2.3)—; *-nez gero* formak, berriz, denbora ez, baina kausa adierazten du maizkara (*Egia entzun nahi duzunez gero, egia esango dizut*); *-tuz gero* formak, baldintza (*Dirua izanez gero, autoa erosiko nuke*).

Perpausak modu batera edo bestera ulertzeko testuinguruak duen eragina mota desberdinetakoa izan daiteke. *Dirua lortuz gero, autoa erosiko nuke* perpausuan, esate baterako, aditz nagusiaren moduak argitzen du mendekoak baldintza adierazten duela, ez denbora; *Atzerritarrak ere pertsona direnez gero, pertsonaren eskubide ororen jabe dira* perpausuan, mendeko predikatuaren aspektu lexikoak argitzen digu perpaus horrek azalpena adierazten duela —*pertsona dira* predikatuak ezin baitu, egoera iraunkorra adierazten duenez, denborazko perpausik eratu—; *Hain ahul ikusi genuenean, medikuarenera eraman genuen* perpausuko *hain* maila-hitzak neurrian jartzen du perpausaren indarra eta ‘noiz’ eraman zuten baino areago ‘zer dela-eta’ eraman zuten adierazten dela esaten digu.

Kapitulu honetan, perpaus horien denborazko balioa aztertuko dugu, bestelako balioez zeharkako aipamenak egingo baditugu ere.

**36.2.3c** Aurreko azalpenek eta adibideek agerian uzten duten bezala, oinarrian perpausa duten osagarri hauek ere multzo zabal eta askotarikoa osatzen dute.

Haien sailkapena egiteko, ikuspegi semantikoa izango dugu kontuan, adberbio edo izen sintagmaren gainean eginikoetan izan dugun bezala. Perpaus nagusiko gertakariak mendekoak aipatzen duenarekin duen erlazioaren arabera sailkatuko ditugu. *Kokapena* seinalatzen duten perpausak azalduko dira aurrena: gertakari biak bat datozenean, ‘aldiberekotasuna’ dugu (*Oihala jaitsi denean, txaloka hasi gara*); mendekoak lehenagoko une edo eperen bat seinalatzen duenean, ‘aurrekotasuna’ (*Oihala jaitsi baino lehen hasi gara txaloka*); eta geroagokoa adierazten duenean, ‘ondokotasuna’ (*Oihala jaitsi ondoren poliki-poliki atera gara aretotik*). *Iraupeneko* gertakarien ‘mugak’ adierazten dituztenak ikusiko ditugu, gero (‘noizdanikoa’, *Hura etorri zenetik alaiago bizi gara*; ‘noiz artekoa’, *Hura etorri arte ez ginen lasai*). Eta *maiztasuna* ere seinalatzen duten kokapenezkoak, azkenik (*Hara joaten naizenero gauza bera entzuten dut*).

### 36.2.3d Laburbilduz guztia:

#### KOKAPENA

- aldiberekotasuna (*oihala jaitsi denean*)
- aurrekotasuna (*oihala jaitsi baino lehen*)
- ondokotasuna (*oihala jaitsi ondoren*)

#### IRAUPENA

- noizdanikoa (*etorri zenetik*)
- noiz artekoa (*etorri arte*)

MAIZTASUNEZKO kokapena (*joaten naizenero*)

## 36.3. Kokapenezko perpausak: Aldiberekotasuna

**36.3a** Aurreko kapituluan adierazi den moduan, gertakariak denboran kokatzen dituzten osagarri batzuk deiktikoak dira, hots, hizketa unea erreferentzia dutenak (*orain*) eta beste batzuk anaforikoak, hau da, bestelako erreferentzia dutenak (*orduan*), ikus § 35.2.2h. Azken mota honetakoak dira denborazko perpausak, aipatzen duten gertakaria baita perpaus nagusiko

kokapenari erreferentzia ematen diona; barnean gertakari izen bat duten osagarrien parekoak dira: {*Jaio zen egunean ~ Haren jaiotza egunean*} seinale handiak izan ziren.

**36.3b** Perpaus nagusian aipatzen den gertakaria mendekoan aipatzen denaren denbora berean —une edo epe berean— gauzatzen dela adierazten denean esaten dugu gertakariok aldiberekoak direla: *a noiz, b orduan*, alegia. Zabal hartu beharreko kontua da hori, ordea, ñabardura asko dituen: forma batzuek modu orokorrean adierazten dute denbora-erlazio hori; beste batzuek modu azkarragoan egiten dute, berehalakotasuna edo jadaneko gertakaria berariaz seinalatuz; eta beste zenbaitek, azkenik, gertakarien iraupenari dagokion aldibereotasun zehatza adierazten dute berariaz.

## 36.4. Aldibereotasunaren adierazpen orokorra

### 36.4.1. Aldibereotasuna adierazten duten morfemak: *-nean*

**36.4.1a** Aldibereotasunaren adierazpen orokorra egiten duten formak dira honako hauek: erlatiboarekin eraturiko *-nean* forma (*sartu direnean*), aditz izenarekin eginiko *-tzean*, *-tzerakoan* eta *-tukeran* edo *-tzearekin* formak (*sartzean*, *sartzerakoan*, *sartukeran*; *sartzearekin*), adiera zabaleko *-la(rik)* forma (*gazte nintzela*; *sartu delarik*) eta «*noiz ere ..{bait- ~ -en}*» korrelaziozko erlatiboak (*noiz ere sartu baita*).

Forma horietan guztietan adizki jokatuko *-nean* eta jokatugabeko *-tzean* dira erabilienak, inesiboko *-n* atzizkia daramatenak. Aldibereotasun mota guztiak adieraz ditzakete: sekuentziala, osoa eta partziala. Perpaus biek, mendekoak eta nagusiak, uneko gertakaria adierazten dutenean, aldibereotasunak ‘sekuentziala’ izateko joera du. *Trena gelditu denean, bagoietako atea ireki dira* perpaus batean, esate baterako, ateen irekitzea trena gelditu eta, segidan, gertatu dela adierazten da. Interpretazioa sekuentziala izanik, *-nean* forma perpaus batetik bestera aldatzen bada —halakorik egin daitekeenean—, gertakarien segida ere aldatu egiten da; hala, aurreko perpausak eta *Bagoietako atea*

*ireki direnean, trena gelditu da* perpausak gertakarien segida desberdina adierazten dute, agerikoa denez.

**36.4.1b** Erdiespeneko predikatuak eta gauzatze burutua adierazten dutenak izaten dira, unekoak izaki, irakurketa sekuentziala maizenik bideratzen dutenak: *Lanetik irten denean, zintera joan da; Etxea garbitu dudanean, kalera atera naiz paseatzera*. Izan ditzakete, hala ere, sekuentzialaz bestelako ñabardurarik. Hala, adibidez, *Etxean sartu naizenean, txirrina jo dut* perpausak ‘aurretiko’ edo ‘atariko’ aldiberekotasuna adierazten du, ohiko erabileran; *Etxean sartu naizenean, irrist egin dut* perpausa, berriz, une-unekoa izan daiteke; eta *Etxean sartu naizenean, txapinak jantzi ditut* perpausaren aldiberekotasuna, azkenik, sekuentziala da. *Etxean sartu* predikatua erdiespena adierazten duena da, bai, unekoa, baina prozesu moduan uler daitekeena, ‘sartzeak’ mikro-uneak dituela interpretatuz. Interpretazio hori onartzen ez duten predikatuek aldiberekotasun sekuentziala baizik ez dute adierazten. Halakoa da, esate baterako, *Galdutako poltsa aurkitu dudanean, etxera itzuli naiz* esaldia, ‘poltsa aurkitzeak’ ez baitu mikro-unerik bereizten. Aditzak aurretik *behin* adberbioa daramanean ere balio sekuentziala nagusitzen da: *Behin etxean sartu denean barreka hasi da* perpausaren, ‘barrea’ etxe barruan egin duela esaten da, ez atarian eta ez sartzeko une-unean ere.

Perpaus horiek, kasuan-kasuan, aurrekotasuna edo ondokotasuna adierazten dutela pentsa daiteke, beharbada, nagusiko gertakaria mendekoaren ‘aurretik’ edo ‘ondoan’ gauzatzen baita, baina horietan nabarmentzen dena, hala ere, ez da hainbeste hori, gertakariak ‘une beraren’ esparruan gauzatzen direla baizik, une horren hasieran, une-unean nahiz segidan. Aldiberekotasunaren ñabardurak dira.

**36.4.1c** Perpaus biek iraupena duen gertakaria adierazten dutenean, berriz, aldiberekotasuna zehatza da —ez sekuentziala— eta osoa, ‘guztizkoa’, gertakari biak epe osoan datozenean bat. *Euria ari zuenean, aterpean egon gara* perpausaren ez da esaten noiztik noiz arte iraun duen euriak, baina, hori bai, iraun duen epe osoan aterpean egon garela.

Gertakari bat unekoa eta bestea iraupenekoa direnean, azkenik, aldiberekotasuna zehatza da, bai, baina partziala, ‘inklusiboa’: uneko gertakaria bestearen

epearen barnean kokatzen da eta honen barneko une batekin egiten du bat, ez iraupen osoarekin. *Iritsi garenean, etxea hutsik zegoen* perpausean, esate baterako, iritsiera etxea hutsik egon zen epearen une batean gertatzen dela esaten da. Adibide horretan unea-iraupena erlazioa mendekotik nagusira doa, baina alderantziz ere gerta daiteke, *Aretoko ateak itxita zeudenean iritsi gara* perpausean bezala.

**36.4.1d** Kontuan izatekoa da aspektuaren gorabeherak predikatu hauetan duen eragina. Hala, esate baterako, mendeko perpausean erdiespena adierazten duten predikatuak *ari izan* aditzarekin ematen direnean, jarduera adieraztera pasatzen dira —iraupena duena—, eta orduan gauzatzen den aldiberekotasuna ez da sekuentziala, zehatza baizik, osoa edo partziala (*Trena gelditzen ari zenean, bidaiariak leihoetatik begira zeuden*, eta *Trena gelditzen ari zenean, bagoietako ateak ireki ziren bat-batean*, hurrenez hurren). Eta perpaus nagusian erdiespeneko predikatu horiek partizipio mugatuan ematen direnean ere aldiberekotasuna zehatza da, osoa edo partziala, partizipio mugatuak gertakaria burutu ondoko egoera adierazten baitu, iraupena duena (*Madriren izan ginenean, Mikel handik alde egina zen*, eta *Geltokira iritsi ginenean, trena joana zen*). Aspektu burutugabeko adizkiak geroaldiko balioa du —adizkera sintetikoak bezala—, nagusia geroaldikoa edo agintera denean (*Lana amaitzen dudanean, paseatzera joango naiz; Laguna ikusten duzunean, emazkiozu goraintziak; Aita datorrenean, etxetik kanpora bidaliko zaitu*)<sup>8</sup>. Iparraldean geroaldiko adizkera ere erabiltzen da balio hori adierazteko (*Zer muturra egingo du ene ametsa jalgiko diodanean*, Mirande). Subjuntiboa ere erabil daiteke (*etor dadinean*), bai eta *-ke-* morfema duena (*datorkeenean*), euskara jasoan (§ 26.6.2.1).

**36.4.1e** Geroko balio horretan izan ezik, errepikatze edo ohiturazko interpretazioa nagusitzen da mendekoaren adizkia aspektu burutugabearen emana

---

<sup>8</sup> Gaztelaniak ere, inguruko hizkuntza erromanikoen ez bezala, ez du geroaldia erabiltzen horrelako perpausetan: “[...] el español, frente a otras lenguas románicas, no permite la aparición de las formas de futuro de indicativo en la oración que introduce *cuando*” (GDLE 1999: 3182).

denean, hiru aldiberekotasun motetan: sekuentziala, predikatu biak unekoak direlarik (*Bilobak etortzen direnean, poztu egiten da amona*), guztizkoa, predikatu biak iraupenekoak direlarik (*Ikasten ari naizenean, irratia piztua edukitzen dut beti*) edo partziala, bat iraupeneko eta bestea unekoa direlarik (*Ikasle nintzenean, goizeko zazpietan jaikitzen nintzen egunero*). Gauzatzea adierazten duten predikatuek irakurketa biak izan ditzakete, sekuentziala, gauzatze burutua adierazten denean (*Etxea garbitzen dudanean, kalera ateratzen naiz paseatzera*, hots, ‘garbitzea amaitu’ dudanean) edo osoa, gauzatze prozesua adierazten denean (*Etxea garbitzen dudanean, irratia piztua edukitzen dut beti*, hau da, ‘garbitzen ari naizenean’). Adizki sintetikoak ere adieraz dezake errepikatzea edo ohitura, perpaus nagusiak hala eskatzen duenean (*Asperturik nagoenean, zinemara joaten naiz*).

Errepikatzea edo geroaldia adierazten duten perpaus hauetan nagusiko gertakaria mendekoarena ‘burutu’ eta gero gauzatzen dela nabarmendu nahi denean, aspektu burutuko adizkera erabil daiteke mendekoan: *Trena gelditu denean irekitzen dira bagoietako ateak*; *Etxea garbitu dudanean, kalera ateratzen naiz paseatzera*; *Eta ni xahartu naizenean, zer geldituko zait?* (Laphitz).

**36.4.1f** Emandako erreferentzia-unean berean gertatzen ari dena adierazten duen perpaus nagusiak ez du *-nean* formako osagarria hartzen. Hala gertatzen da hizketa unean gauzatzen ari den gertakaria adierazten duen perpausarekin: *Zertan ari naizen? Hara, \*etxeko lanak egiten ari naiz, haurra lo dagoenean*. Edo iraganeko erreferentzia-une batean gauzatzen ari dena aipatzen duenarekin: *Geltokian ikusi dut gaur goizean zure neba; \*egunkaria irakurtzen ari zen autobusaren zain zegoenean*. Erreferentzia emana dagoenez, erreferentzia emaile den *-nean* formak ez du lekurik hor. Aldiberekotasun mota hori adieraz dezakeena, besteak beste, *-en bitartean* formako perpausa da: *Etxeko lanak egiten ari naiz, haurra lo dagoen bitartean; Egunkaria irakurtzen ari zen, autobusaren zain zegoen bitartean*. Forma honek iraupenaren nozioa gehitzen dio emandako erreferentziari.

Denbora-erreferentzia ematen duten adberbioen ondoan, ordea, eman daitezke *-nean* formako perpausak, erlatibo apositibo ez-murrizgarri gisan: *Ixo, ixo*

*orain, zuk nahi duzun guztia esan duzunean* (Barriola); *Eta orduan, dena prest zegoenean, hasiera eman genion ikastaroari.*

Perpauk hauetako subjektuak erreferentziakideak dira maiz, eta nagusian bakarrik ageri dira: *Galdu zuen gutuna aurkitu duenean lasaitu da postaria.* Baina desberdinak ere izan daitezke eta mendekoan espresuki agertu: *Nagusia sartu denean, lanean hasi dira langileak.*

### **36.4.2. -nean morfemaren bestelako adiera batzuk**

**36.4.2a** Gorago esan den moduan (§ 36.2.3b), *-nean* formak denborazkoarekin batera bestelako adierak ere bidera ditzake; baldintzarena, esaterako, denbora-adierazpen orokorretan edo aldiberekotasun errepikatukoetan: *Lanpostua galtzen duenean, babesik gabe geratzen da langilea* esaldiko *galtzen duenean* aditzak ‘galtzen badu’ ere adierazten du, biak sinonimotzat har baitaitezke; ez da hori gertatzen, ordea, orokorrak edo errepikatuak ez diren denbora-adierazpenekin: *Maddi ikusten duzunean, goraintziak eman* eta *Maddi ikusten baduzu, goraintziak eman* perpausen artean, adibidez, aldea dago gertakariaren gauzatzeaz hitzunik duen ziurtasunean; kausa ere iradoki dezake: *Euria egin duenean egoten dira bustita kaleak*; kontzesioa, ondoan ere duela: *Aberastasunak, handia denean ere, ez du zoriona bermatzen*; egia orokorrak ere eman ditzake aditzera: *Helmugako marra igaro denean amaitzen da lasterketa*; eta inplikazioa: *Hori esan duenean, egia esan du.*

**36.4.2b** Denborazkoaz bestelakoak adierazteko ere erabiltzen da inoiz. Kausazalpena: *Pozik gaude hori baizik esan ez duenean*; kontzesioa: *Zergatik zigortu duzu, ezer txarrik egin ez duenean?*; kontsekutibo gisakoa: *Zerbait gertatuko zen, hainbeste jende bildu denean.* Modu egokiagoak badira horiek esateko, *esan ez duelako, egin ez badu ere* eta *bildu denez gero* bezalakoak, esate baterako.

*Eskerrak* predikatuaren osagarri gisa erabili izan dute idazle gipuzkoar batzuek *-nean* formako perpausa: *Eskerrak, hala ere, garaiz ohartu zirenean* (Agirre); *Jainkoari eskerrak honetan naizenean* (M. Lekuona).



**36.4.2c** Aipa daitezke, azkenik, denborazkoak ez diren esapide batzuk. Hala, *dagoen-dagoenean* eta *agidanean* adberbialak, azkena *agidanez*-en parekoa. Modua adierazten duten gisa horretako esapide adberbialak *-z* atzizkiarekin eratzen dira gehienetan (*esaten dutenez, jakina denez...*), eta halakoa da *honi dagokionez* esapidea ere. *Honi dagokionean* esapidea erabiltzen dute batzuek haren lekuan; *dagokionean*, ordea, denbora balioarekin lotua da, testuinguruak besterik esaten ez duenean, eta, hortaz, moduzkoa denean egokiago da *dagokionez* erabiltzea. Horrela du erabakia Euskaltzaindiak *Hiztegian*, s. v. *egon*: “dagokionean [denborazko esaldietan bakarrik]: *dagokionean egiten du lan* (\**honi dagokionean e. honi dagokionez*)”.

### 36.4.3. *-tzean* morfema

**36.4.3a** Aditz izenarekin eginiko *-tzean* formak *-nean* formaren antzeko erabilera du. Uneko predikatuarekin doanean aldiberekotasun ‘sekuentziala’ adierazten du nagusikoa ere halakoa bada (*Galdutako poltsa aurkitzean, etxera itzuli naiz*); gertakariak mikro-uneak dituen hiru ñabardurak eman ditzake aditzera: ‘aurretikoa’ (*Etxean sartzean, txirrina jo dut*), ‘une-unekoa’ (*Etxean sartzean, irrist egin dut*), eta ‘sekuentziala’ (*Etxean sartzean, txapinak jantzi ditut*). Mendekoarena edo nagusiarena iraupenekoa denean, berriz, aldiberekotasuna guztizkoa edo partziala izan daiteke (*Jendaurrean mintzatzean, urduri egon da* eta *Gu iristean, etxea hutsik zegoen, hurrenez hurren*). Geroaldiari dagokiona ere izan daiteke (*Lana amaitzean, paseatzera joango naiz*), edota errepikatzea adierazten duena (*Lana amaitzean, paseatzera joaten naiz*).

Forma hau ez da, hala ere, *-nean* jokatuaren guztiz parekoa, bistan da. Pertsona, aldi eta aspektuari dagokienez markatugabea denez, forma irekia da, adizkian ‘falta’ direnak eskuratzeko testuinguruaren laguntza behar duena, perpaus nagusiarena batez ere (§ 30.6.3.2). Horrela, (hura) *etxean sartzean* esaldia perpaus nagusiaren arabera ulertzen da: *eskua ematen zigun* nagusiak ‘etxean sartzen zenean’ irakurketa eragiten du; *eskua eman zigun* nagusiak ‘etxean sartu zenean’ irakurketa; *eskua eman digu* perpausak ‘sartu denean’; *eskua emango digu* perpausak ‘sartzen denean / sartuko denean’...

Pertsonak ere markatzen ez dituenek, aukera-aukerakoa da forma hau *-nean* formarekin ere egin daitezkeen honako perpaus hauek egiteko: inpertsonalak (*Bidea zeharkatzean, kontuz ibili behar da*), generikoak (*Helmuga igarotzean lasaitzen dira lasterkariak*) edo subjektu zehaztugabekoak (*Sarraila jartzean amaitu ziren arazoak*).

**36.4.3b** Denbora ez ezik, kausa edo azalpena adieraztea ere berezko egitekoa du forma honek. Batzuetan anbigua izan daiteke perpausa: *Ikasturtea amaitzean, oporretara joan dira irakasleak*, ‘amaitu denean’ nahiz ‘amaitu denez’, alegia. Baina badira egitura batzuk perpausen irakurketa batera edo bestera bideratzen dutenak. Hala, *-tzean* perpausa ezezkoa denean denborazko interpretazioa baztertu eta kausazkoa nagusitzen da: *Txalorik ez entzutean, harritu egin zen kantaria*; eta berdin perpausak zenbatzailea edo graduatzailea duenean: {*Hainbeste txalo ~ hain txalo beroak*} *entzutean, pozik agertu zen kantaria*. Perpaus nagusia agintera denean, aldiz, denborazko irakurketa nagusitzen da: *Lana amaitzean, etorri gugana*.

Atal honen sarreran azaldu den moduan, bestalde, denboraz eta kausaz gain baldintza ere adieraz dezake forma honek, *-nean* formak bezala: *Lanpostua galtzean, babesik gabe geratzen da langilea* —hots, ‘galtzen duenean’ nahiz ‘galtzen badu’—. Implikazioa ere adieraz dezake: *Hori esatean, egia esan duzu*.

Erabilera horietaz gain, bestalde, *zertan dagoen zerbait, zertan datzan, zertan duen atsegin* eta horrelakoei erantzuten dien osagarria izaten da maiz *-tzean* perpausa, denborarekin zerikusirik ez duena: *Bakoitzari berea ematean datza justizia; Zoriona ez dago ondasun asko izatean; [...] maitatzean aurkitzen ditu atseginik bizien eta osoenak* (Txillardegi).

#### **36.4.4. -tzerakoan, -tu(k)eran, -tzearekin eta -larik**

**36.4.4a** Aldiberekotasuna adierazten du [-*tzerako*] izenlagunarekin eginiko *-tzerakoan* formak ere, *-tzean* formak bezalatsu; izenlagunak ez du konplementatzen duen izen agerikorik, eta denbora-balioak hartzen du haren lekua (*-tzerako* [‘denbora’]n). Formaren barnean *-ra-* adlatiboko atzizkia duelarik,

aurrera begirako adiera hartzen du erraz forma honek, gertatzera doanari dagokiona, alegia: *Garbitu itzazu eskuak, jaterakoan; Errezeta egiterakoan, arkatzik ez zeukala ohartu zen* (San Martin). Aukerakoa da, bada, forma hau ‘atariko’ edo ‘aurretiko’ aldiberekotasuna adierazteko: *egiterakoan*, hau da, ‘egitera zihoanean’. Ohikoa eta berezkoa da erabilera hori, eta hala izan da aurreko mendeetan ere —ikus, esate baterako, *hiltzerakoan* hitzaren maiztasuna Axularren *Geron* eta gainerako erlijio liburuetan, ‘hiltzera doanean’ adieran—. Gaur egun, hala ere, uneko aldiberekotasunaren beste ñabardura bietan ere erabiltzen da<sup>9</sup>. Batetik, une-unekean: *[...] neskatxaren gorputzak uretara erortzerakoan atera zuen hotsa, entzun zuen gizakumeak* (Etxaniz). Bestetik, segidakotan: *Abestia bukatzerakoan berriro hasten dira hizketan* (Etxaniz); *[...] dena utzi behar da, tontorrera heltzerakoan* (Gaztelu). Bestalde, aldiberekotasun zehatza ere adierazten du inoiz: *Ez atera horrenbeste soinu jaterakoan!; Malkoak zerizkion hori esaterakoan* (Garate); *Mintzatzerakoan ez dugu beti berdin ebakitzen* (Mitxelena).

Erdialdean *-tzekoan* aldaera erabiltzen da, hau ere denbora-baliokoa izenlagunak ondoko izen agerikorik ez duenean: *Ez atera horrenbeste soinu jatekoan!; [Hitz elkartzel] zaharren artean hautatzekoan, bi indar ari zaizkigu beti lanean* (Mitxelena).

Forma hau ez da *-tzean* formaren pare erabiltzen denboraz besteko adieretan; ez da, esate baterako, *zertan* osagarri gisa erabiltzen: *\*Bakoitzari berea emate(ra)koan datza justizia*.

**36.4.4b** Mendebaldean erabiltzen den *-tu(k)eran* forma aipatu behar da azkenik, *-tzean* formaren parekoetan. Partizipioaren gainean eraikia bada ere, *-(k)era* atzizkia hartuta aditz izen gisa erabiltzen da, eta ondoan inesiboko *-n* atzizkia du<sup>10</sup>. Ondo bereizi behar dira, hori bai, *amaieran* eta *amaitueran* gi-

<sup>9</sup> De Rijkek: “In modern usage, the original meaning of *-rakoan* ‘when going to’ tends to get blurred into plain ‘when’, especially among speakers who lack the suffix *-koan* in their actives vocabularies” (2008: 523).

<sup>10</sup> Honela dio OEhk s. v. *egikeran*: “Usado como sust. vbal. con ines., no como sust. pleno”. Atzizki hau hartzean, aldaketa batzuk izaten ditu partizipioak: *-tu* amaiera gorde egiten du

sako formak: lehenak izen joskera du (*afariaren amaieran*) eta bigarrenak aditz joskera (*afaria amaitueran*). Osagarri adberbialak izan ditzake azken honek (*herrian sartukeran, kortara sartueran, eskolatik urtekeran*) eta objektu zuzena (*lehenengo berbak egikeran*); askotan erreferentziakideak izaten dira perpaus bien subjektuak, eta orduan isilpean geratzen da mendekoarena, baina hala ez denean agerian eman daiteke honen subjektua: *Hamarrak ziren ni herrira heldueran*. Aldiberekotasuna adierazten du forma honek ere, sekuentziala —inkoatiboa, aditzak gauzatzea edo jarduera adierazten duenean (*Kortara sartueran ardiak zenbatu zituen, beti legez, Etxeita; ‘zenbatzen hasi zen’, alegia*)—, zein zehatza (*Itxura makala zekarten gizonok, herrian sartukeran*, F. Bilbao).

**36.4.4c** Denbora-balio finkoa ez duen forma da *-tzearekin*, baina sozietiboak berekin duen ‘lotura’ nozioa denborari egokitu dakioke zenbaitetan, aldiberekotasuna adieraziz: *Sukar gaixto batek eramán zuen, herrira heltzearekin*. Osera, *batera* postposizioa erantsita, aldiberekotasun estua adierazten duen *-tzearekin batera* forma eratzen du (§ 36.5.2c). Denbora eta azalpena, biak batera, adieraz ditzake beste zenbaitetan: *Laguna kinka txar hartan ikustearekin, bihotza erdiratu zitzaion*. Are urriagoa da *-tzeari* formaren erabilera denbora-balioarekin: *Aita zahartzeari, semeak hartu zituen etxeko giderrak*<sup>11</sup>.

**36.4.4d** Aurreko paragrafoetan azaldu diren formez gain, adiera zabaleko *-larik* forma ere aipatu behar da aldiberekotasuna adieraz dezaketen formen artean. Iraupeneko gertakaria adierazten duten perpausekin erabiltzen da forma hau, *-la* nahiz *-larik* aldaeretan. Aldiberekotasun zehatza adierazten dute aldaera biek horrelakoetan: guztizkoa, perpaus biak iraupenekoak direnean (*Haurra zela(rik), alai bizi zen gurasoen etxean*), eta partziala, nagusia unekoa denean (*Gaszte nintzela(rik) sortu zitzaidan katurako zaletasuna*). Gauzatze prozesua adierazten duten predikatuek ere adieraz dezakete aldibereko-

---

(*heldueran, sartu(k)eran*), *-n*-a galdu egiten du (*egikeran, urte(k)eran*) eta *-i* amaiera inguru fonikoaren arabera gorde beharrekoa (*jagieran, itxikeran*) edo aukerakoa da (*etorrikeran / etorkeran*).

<sup>11</sup> Lafitterena da adibide hori (1962: 459), non *zahartzerat* forma ere aipatzen duen.

tasun zehatza, iraupenekoak direnez: [...] *bizikletan ikasten nuelarik, badut itzulipurdi ederrik eginik* (Lafitte). Baina ohikoa da iraupena seinalatzen duen *ari izan* aditzarekin ematea horrelakoak (*ikasten ari nintzelarik*). Izan ere, ohikoa da forma hau iraupeneko adiera duten *izan, egon, ibili, ari izan* eta *jardun* bezalako aditzekin erabiltzea, adizkera sintetikoekin batez ere (*gaztea zela, mendian zebilelarik...*): *Ondoko egunetan, Ehaltzeko bordako Piarres zaharrarekin mahats moxten ari zelarik, gogoia dena hartua zuen oraino intha hertsia hartan gerthatu zitzaionaz* (Barbier); *Eta mutila badoha ondotik arrañaren garbitzen ari zelarik* (Webster); *Jujea paperak sinatzen ari zelarik* (Larzabal).

Horretaz gain, ordea, uneko gertakaria adierazten duten predikatuekin ere erabiltzen da Iparraldean *-larik* aldaera, aldiberekotasun sekuentziala nahiz partziala adieraziz: *Partida amaitu zelarik, zutitu eta txaloka hasi ginen; Betsabe erregearekin mintzatzen ari zelarik, heldu zen Natan profeta (Elizzen arteko Biblia); [...] egun horretan, Eguzkitza sarrera hitzaldia irakurtzen ari zelarik, bete zituen zorioneko bost urte [...]* (Salaburu); partziala: *Lapurrak etxean sartu zirelarik, baratzean ginen gu*. Gertakari errepikatuak adieraz ditzake aldaera honek, ohi bezala, eta baita geroari dagozkionak ere: *Oporretara joaten delarik, beti ekartzen digu oparixoren bat; Goazen, ez gaituzte hemen ikusi behar, atzarriko direlarik*. Uneko predikatu hauekin ez da *-la* soila erabiltzen, ezta bestelako aditzen adizki burutuekin ere: *\*Partida amaitu zela, zutitu eta txaloka hasi ginen; \*Lapurrak etxean sartu zirela, baratzean ginen gu; \*Mendian ibili zela, erori egin zen*. Hots, *-la* eta *-larik* iraupeneko predikatuekin erabiltzen dira; *-larik* baita unekoekin ere, Iparraldean<sup>12</sup>.

Zirkunstantzia askotara irekia da forma hau, bistan da (§ 40.13). Denboraz bestelakoak izaten dira maiz zirkunstantzia hauek, baina, zenbaitetan, denborazkoarekin batera ematen dira aditzera: denbora eta kausa (*Etxea sutan ikusi zuelarik, suhiltzaileei deitu zien berehala*); denbora eta modua edo azalpena

<sup>12</sup> Iparraldeko *-larik* honi buruz, honela dio de Rijkek: “[...] it has all but replaced *-nean*” (2008: 540).

(*Eskiatzen zebilela hautsi zuen zangoa*); denbora baino areago, beharbada, baldintza (*Zu nirekin zarela, ez naiz inoren beldur*) edo modua (*Atsekabea errazagoa da jasaten, partekatua delarik*). Implikazioa ere adieraz dezake (*Hori esaten duzularik, egia baizik ez duzu esaten*).

### 36.4.5. Noiz ere ... bait- egitura

**36.4.5a** *Noiz ere ... bait-* egiturako perpausak ere aldiberekotasuna adierazten duten denborazko perpausen multzoan sartzen ditugu, erreferentzia zehatzik ez duen *noiz* aurrekariak denbora-balioa hartzen baitu. Erlatibo generikoaren pareko dira, ondoko adibide hauetan ikusten den moduan: *Noiz ere gazteekin ibili bainai, alai itzuli naiz etxera* eta *Gazteekin ibili naizenean, alai itzuli naiz etxera* (§ 31.2.3)<sup>13</sup>.

Aurrera baino lehen esan behar da egitura desberdin bi eratzen dituztela korrelaziozko perpaus hauek, ‘zuzena’ bat, zeinetan denbora-erreferentzia mendeko perpausetik nagusira doan (*Noiz ere etsia hartua baitzuen ehiztariak, aitzinean agertu zaio erbi eder bat*), eta ‘alderantzizkoa’ bestea, zeinetan erreferentzia perpaus nagusiak ematen duen (*Etsia hartua zuen ehiztariak, noiz ere aitzinean agertu baitzaio erbi eder bat*)<sup>14</sup>. Lehenbizikoan, mendeko perpausa predikatu nagusiaren konplementua da; ‘erbia *noiz* agertu den’ adierazten du. Bigarrenetan, mendekoa ez da predikatu nagusiaren konplementua, hau da, ez du adierazten ‘*noiz* hartua zuen etsia ehiztariak’; aitzitik, perpaus osoaren konplementua da, hari ‘segida narratiboa’ ematen diona. Honetan *eta orduan* adberbioa erabil daiteke, lehenbizikoan ez bezala, *noiz ere* formaren lekuan: *Etsia hartua zuen ehiztariak, eta orduan aitzinean agertu zaio erbi eder bat*, baina \**Eta orduan etsia hartua zuen ehiztariak, aitzinean agertu zaio erbi eder bat*. Lehenbizikoa, arestian esan dugun

---

<sup>13</sup> Zein-erlatibo deitzen ditugunak, berriz, ohiko erlatibotzat dauzkagu, agerian baitute horrelakoek izen ardatza: *Iritsiko da garaia, noiz ere ez baita gurean pobrerik izango; Etorriko da eguna, zeinetan denok alai biziko baikara*.

<sup>14</sup> Latineko *cum inversum*-aren parekoa da hau. Hortik ‘alderantzizko’ izena.

moduan, *-nean* perpausaz ordezka daiteke: *Etsia hartua zuenean ehiztariak, aitzinean agertu zaio erbi eder bat*; bigarrenaren kasuan, ordea, ez dira ohi-koak horrelako perpausak, nagusiaren goranzko doinua eta perpaus bien arteko etena egiten direnean behintzat, hau da, mendekoa aditz nagusiaren konplementua ez denean: \**Etsia hartua zuen ehiztariak* (,) *aitzinean agertu zaionean erbi eder bat*.

Gaur egun baino erabiliagoa izan da forma hau aurreko mendeetan<sup>15</sup>. Merezidu, hala ere, behako bat ematea harekin eginiko perpausari, zenbait erregistrotan erabilgarriak direla kontuan izanda. Erreferentzia ‘zuzena’ dutenak aztertuko ditugu aurrena. Horrelakoak usu erabiliak izan dira ekialdeko tradizioan, XVI-XVIII. mendeetan batez ere, baina urritzen joan dira ondoko mendeetan. Aurrekaria *noiz ere* da maizenik XVI. eta XVII. mendeetan, idazle batzuek *noiz eta* hobesten badute ere; *noiz eta ere* forma erabiltzen dute beste batzuek. Hegoaldean, berriz, zerbait erabilia izan da XVIII. eta XIX. mendeetan, «*noiz eta ...-n*» formarekin. Korrelatu anaforikoa isilpean uzten da gehienetan: *Noiz ere apaizak erraiten baitu meza, Jainkoari ohore ematen dio* (Pouvreau); *Noiz eta heldu baitziren hiriaren erdira, erregek kolkotik sartzen dio ganibeta erreginari* (Barbier); *Noiz eta gutxienean uste duen hiltzea, aurkitzen da berehala hil behar duelako berriarekin* (Agirre Asteasukoa). Baina agerian ematen da zenbaitetan: *Noiz eta ere guztiek etsitua baitzuten, orduan da sendatu bet-betan* (Hiriart-Urruti).

**36.4.5b** Egiturari dagokionez, jakina da korrelatu anaforikoa aurrekariaren eskuinean joan ohi dela («*noiz ere ... orduan*»); hortaz, hura agerian denean perpaus nagusia mendekoaren ondoren ematen da. Mendekoa nagusiaren osa-

<sup>15</sup> Horregatik, beharbada, ez dituzte aipatzen egungo euskara aztertzen duten gramatikari batzuek: Lafittek ez ditu aipatzen, ez “Propositions temporelles” direlakoetan (1962: 458-459), ez korrelaziozkoetan (“Les relatifs indéfinies en *ere*”, 1962: 105); de Rijkere ere ez ditu aipatzen, ez denborazko perpausetan (2008: 509-540), ez korrelaziozkoetan (2008: 498-499); Villasantek Axularren eta Añibarroren adibideak besterik ez ditu ematen, hau erantsiz: “[...] sigue vivo en los dialectos orientales” (1976: 104). Idazleei dagokienez, joan den mendearen hasierako J. Etxepare medikuak eta J. Barbierrek, esate baterako, maiz erabiltzen dute egitura hau.

gai batzuen ondotik emana denean ere, anaforikoa haren eskuinean kokatua da: *Harroak eroriko dira noiz eta uste baitute maila gorenean direla, eta orduan berean*. Egitura honetako perpausetan, hala ere, anaforikoa isilean uzten da askotan, esan dugun bezala, eta orduan ez da eragozpenik mendekoa guztiz eskuinean emateko: *Tristura handia hartzen du, noiz eta eriak penatzen ikusten baititu*.

**36.4.5c** Balioari dagokionez, perpaus hauek ere aldiberekotasuna adierazten dute. Mendeko predikatua iraupenekoak denean, aldiberekotasuna zehatza da, osoa edo partziala: *Noiz ere eri bainintzen, hark nau artatu; Noiz eta ere guztiek etsitua baitzuten, orduan da sendatu*. Unekoa ere izan daiteke, sekuentziala: *Noiz ere semeaz erditu baitzen, plazer handia hartu zuen*. Gertakari errepikatua edo ohikoa ere adieraz dezake, eta baita geroaldikoa ere: *Noiz ere apaizak erraten baitu meza, Jainkoari ohore ematen dio; Noiz ere ikusiko baituzu nire laguna, emazkiozu goraintziak*.

**36.4.5d** Alderantzizko erreferentzia duten perpausak ekialdeko euskalkietan erabiliak izan dira, XIX. mendetik hona. Perpaus mendekoak nagusiari ‘segida narratiboa’ ematen dionez, honen eskuinean ematen da beti: *Gosaltzen ari nintzen lasai-lasai, noiz eta ere entzun baitut tok-tok leihoan*.

Egitura honetako perpaus nagusia iraupenekoak da maiz, egoera edo jarduera adierazten duena, eta mendekoak hura nolabait eteten duen uneko gertakaria aipatzen du, aldiberekotasun partziala seinalatuz. Gertakariak iraganekoak direnean perpaus biak iraganaldian eman ohi dira, espero zitekeenez (*Baratzean ari nintzen, noiz eta euriak bat-batean harrapatu baininduen*), baina, egitura halakoa izaki, orainaldi narratiboa erabiltzen da ez gutxitan, mendekoa edo biak orainaldian emanak direlarik (*Banenbilen basoan, noiz ere, bat-batean, onddo eder bat ikusten baitut eta Badoaz lasai manifestariak, noiz eta ere polizia agertzen baitzaie*, hurrenez hurren). Perpaus nagusiak gertakari teliko bati ekiteko unea adierazten duenean, berriz, mendekoak orduan gertatutako beste gertakari bat aipatzen du, haren gauzatzeaz ezer esan gabe: *Bidea zeharkatzera zihoan oinezkoa, noiz ere bat-batean auto bat pasatu baita ziztu bizian* perpausean, esate baterako, ez zaigu esaten oinezkoak bidea zeharkatu zuenetz.



## 36.5. Aldiberekotasun estua

### 36.5.1. Aldiberekotasuna seinalatzeko zenbait bide: *-neko* forma

**36.5.1a** Aurreko atalean ikusi ditugun formek baino modu azkarragoan seinalatzen dute beste forma batzuek aldiberekotasuna, ondoko adibideak konparatuz ikus daitekeen moduan: *Polizia agertzean, korrika hasi dira manifestariak* – *Polizia agertu orduko, korrika hasi dira manifestariak*. Aldiberekotasun estua adierazten duten forma hauekin eginiko perpausa unekoa izaten da, erdiespenekoa (*sartu deneko*) edo gauzatze burutukoa (*egin dueneko*); egoera edo jarduerakoa bada, haren une bat hartzen da kontuan: *Sendatua dagoen bezain laster, etxera bidaliko dute* esaldian, esate baterako, ‘sendatua egotearen’ hasierako unea da seinalatzen. Perpaus nagusia, berriz, unekoa edo iraupenekoa izan daiteke, eta horrek zehazten du perpausaren balioa. Hura unekoa bada, aldiberekotasun sekuentzial estua adierazten da, hau da, ‘berehalakotasuna’: *Sartu deneko, hizketan hasi da*; iraupenekoa bada, berriz, ‘jadanik’ baden egoera edo jarduera adierazten da: *Sartu deneko, zain zeuden lagunak*.

Mota honetako aldiberekotasuna adierazten dute honako forma hauek: *-ko* atzizki adberbialarekin eginiko *-neko*, *-tzerako* eta «{-n ~ -tu} orduko» formek (*etorri deneko*; *hura etortzerako*; *etorri den orduko*), *batera* adberbioa duten «{-naz ~ -tuaz} batera» eta «{-narekin ~ -tzearekin} batera» formek (*sartu denaz batera*; *etortzearekin batera*), *laster* adberbioa duten «{-n ~ -tu} bezain laster» eta «{-netik ~ -nik} laster» formek (*etorri den bezain laster*; *etorri bezain laster*; *joan zenetik laster*), eta «-tu eta {berehala ~ laster ~ batera}» formek (*etorri eta berehala*; *sartu eta laster*; *jan eta batera*).

Lehenbizikoak adiera bietan erabiltzen dira, berehalakotasunari dagokionean nahiz jadanekoan; *batera* adberbioarekin eratuak berehalakotasuna adierazten dute batez ere, baina jadanekoa ere adieraz dezakete inoiz; azken biek, berriz, berehalakotasuna baizik ez dute adierazten.

**36.5.1b** Hala, bada, *-neko* forma adberbialak berehalakotasuna adierazten du, perpaus nagusiko gertakaria ere unekoa denean: *Bere onera etorri zeneko, jaiki eta korrika hasi zen lasterkaria*; jadaneko egoera edo jarduera, berriz, hura iraupe-

nekoa denean: *Suhiltzaileak iritsi zireneko, kiskalita zegoen etxola*. Lehenean, (*orduantxe*) berehala erantsi daiteke, eta *jadanik* bigarrenean. Aukera biak dira, halaber, errepikatzea edo ohitura adierazten denean ere (*Partida bat amaitzen zuteneko, beste bati ekiten zioten* eta *Uda heltzen deneko, prest izaten ditugu hondartzako zerbitzuak*, hurrenez hurren). Perpaus nagusia geroari dagokionean, gerroaldikoa edo agintera delako, mendekoa aspektu burutugabea eman daiteke: *Lagunak etortzen direneko, han izango gara gu*. Aldaerak: *-nerako*, Hegoaldekoa (*Partida hasi denerako, beteak ziren harmaila guztiak*), *-nekoz(at)*, *-neko(t)xe*.

Forma honen balio prospektiboaz, ikus § 36.7.3 (*Ura sartu dut motxilan, egarrizten naizeneko*). Forma honekin sortua da, bestalde, *dagoeneko* adberbioa, hizketa unean zerbait jadanik gertatua dela adierazten duena, ikus § 35.2.13e.

Bestelakoa da, jakina, leku-denborazko izen ardatza izanik izenlagunen *-ko* atzizkia daraman erlatiboa (*Hura sortu zeneko urtea; Hori ez da gurean agertu joan deneko aspaldian*), § 31.4.3.8d.

### 36.5.2. *-tzerako, ...orduko, ...batera, bezain laster eta beste batzuk*

**36.5.2a** Aditz izenarekin eginiko *-tzerako* forma adberbiala mendebaldean erabiltzen da batez ere. Jokatuetakoa *-neko* formaren parekoa da neurri batean. Jadanik baden egoera edo jarduera adierazteko erabiltzen da batez ere: *Suhiltzaileak iristerako, kiskalita zegoen etxola; Gu jaikitzerako, lanean ari zen laguna*. Baina berehalakotasuna ere adieraz dezake: *Partida bat amaitzerako, beste bati ekiten zioten*.

‘Jadanik’ badena ez ezik, ‘lehenago’ gertatua ere adieraz dezake forma honek. Inoiz ambigua izan badaiteke ere, agerikoa izaten da gehienetan, testuingurua lagun, noiz adierazten duen aurrekotasuna: *Han sartu zen Zubiburu, eta lanean hasterako katedralera joan zen otoitz egitera*; katedraleko bisita, adibidean, lanera joan aurrekoa da, § 36.7.2f.

**36.5.2b** *Orduko* postposizioarekin eginiko  $\{-n \sim -tu\}$  *orduko* formak ere bietara erabiltzen dira. Berehalakotasuna adierazten dute perpaus nagusiko gertakaria

unekoa denean (*Ohera orduko hartu zuen loak; Zezena agertu zen orduko hustu egin zen plaza*) —inoiz berehala adberbioa eta guzti (*Sartu orduko, berehala hasi zen kantari*)—; berdin errepikatzea edo ohitura adieraziz (*Argitu orduko, lanari ekiten diote egunero*), eta geroari dagokionean, adizkia aspektu burutugabeen dela (*Jaikitzen den orduko, etor dadila nigana*). Jadaneko egoera nahiz jarduera adierazten du, berriz, bistan da, perpaus nagusiko gertakaria iraupenekoa denean (*Medikua iritsi orduko, jaikita zegoen gaixoa*). Forma bi hauetan *-tu orduko* da gehien erabiltzen dena. Partizipioaren lekuan aditzoina erabiltzen dute inoiz, aditz forma hori ohikoa duten euskalkietan (*ikus orduko*). Aldaerak: *-tzera orduko* eta *-tze orduko*, gutxi erabiliak; postposizioarenak: *ordukoxe* eta *ordu*.

Aldiberekotasunaren erabilera hori Erdialdekoa da, batez ere. Mendebaldean, berriz, zerbait ‘lehenago’ gertatu dela adierazteko erabiltzen da forma hau ere: *[...] lotara orduko, gazta pixka bat jaten zeudela [...]* (Agirre), ikus § 36.7.2f. *Ordu* eta *ordukoxe* aldaerek ez dute aurrekotasuna adierazten.

**36.5.2c** *Batera* postposizioarekin egindako «{-naz ~ -tuaz} batera» eta «{-narekin ~ -tzearekin} batera» formek —bizkaierazkoak haiek eta gipuzkerazkoak batez ere azken biak— berehalakotasuna adierazten dute: *Ohean sartu zenaz batera, loak hartu zuen; Hura agertuaz batera amaitu zen gure arteko bakea; Atea ireki zutenarekin batera, jendea bultzaka sartu zen; Argia urratzearekin batera hasi dira lanean*. Hori dute forma hauek ohiko erabilera, baina ‘jadanekoa’ ere adieraz dezakete: *Egunkariak herrira zirenaz batera, zain zegoen dendaria*. Adizki jokatugabeko formak erabiliagoak dira jokatuak baino. Postposizioaren aldaerak: *batean, bat*.

Denboraz gain, bestalde, emendioa ere adieraz dezake *-tuaz batera* formak: *Plazan ginen lasai ederrean hizketan, eguzkia hartuaz batera*.

**36.5.2d** Konparazio egitura duten {-n ~ -tu} bezain laster formek berehalakotasuna adierazten dute, agerikoa denez: *Sartu den bezain laster hasi da hizketan; Partida hasi bezain laster sartu dute gola*. Aditz nagusia geroari dagokionean, mendeko jokatua adizki burutugabeen eman daiteke: *Jaikitzen zaren bezain laster joan zaitetz lanera*. Mendekoarena bezala, nagusiko gertakaria ere unekoa da, berehalakotasunak hala eskatzen baitu: *Etxean sartu den*

*bezain laster, hizketan hasi da.* Eta iraupeneko predikatua bada, haren hasierako unea hartzen da kontuan: *Etxean sartu bezain laster, lasai dago gure gizona*, hau da, ‘lasaia egoten hasten da’.

*Laster* adberbioaz gainera, *sarri, fite, agudo* eta beste batzuk ere erabil daitezke forma hau eratzeko (*bezain sarri, bezain fite, bezain agudo*). *Laster* da erabiliena; *sarri* ere erabiltzen da Iparraldean *fite* baino maizago; *agudo*, berriz, Hegoaldean; beste adberbio batzuk (*pronto, azkar, arin...*) urriago erabiltzen dira egitura honetan. Forma hauek konparazioko *bezain* morfemarekin eratuak izan arren, ez dute elementu biren arteko konparazioa eraten; ez dira, alegia, *Zu bezain arin ibili naiz ni* edo *Atzo bezain laster dator gaur ere ibaiko ura* esaldien gisakoak. Horren lekuan, gertakari biren arteko denbora-erlazioa adieraztea dute helburu: *Jaiki bezain laster hasi da lanean*, hau da, ‘lanean hastea jaikitzearen segida-segidan gauzatu da’ (§ 32.2.1). *Orduko* edo *eta berehala* postposizioen parekoa da erabilera horretan *bezain laster* (*jaiki bezain laster = jaiki orduko, jaiki eta berehala*). Horiek horrela, anbigua da *Jaitsi bezain laster egin du horrek mendian gora* esaldia, adiera biak izan baititzake: ‘laster’ *jaitsi* da eta ‘laster’ egin du mendian gora, arinarin biak, edo ‘*jaitsi eta berehala*’ egin du ostera mendian gora; lehenbiziko irakurketan konparaziozkoa da perpausa, jaistearen lastertasuna eta mendian gora egitearena konparatzen baitira; bigarrenean, berriz, ‘denborazkoa’ da.

Berehalakotasuna ematen dute aditzera ‘noizdaniko’ formekin eraturiko *-netik laster* eta bizkaierazko *-nik laster* formek ere: *Lanean hasi zenetik laster igo zioten soldata; Munduko edozein konturen berri, jazotzen denik laster izaten dugu irrati-telebisten bidez.*

### 36.5.3. *-tu eta berehala* gisako formak

**36.5.3a** Partizipioarekin eginiko *-tu eta {berekala ~ laster ~ batera}* formek ere berehalakotasuna adierazten dute: *Ekaitza amaitu eta berehala, argia itzuli zen; Ez ama eta ez aita geratu zen gaixoa, jaio eta laster*; berehalakotasun errepikatua: *Ikasketak amaitu eta berehala, lan bila hasten dira gazteak; Goizero, ohetik jaiki eta laster, duxara joaten naiz.* Aldaerak: *berehalakoan; lasterrera,*

*lastertxo, lasterxko*. Berehalakotasuna adierazten du, halaber, *-tu eta batera* forma bizkaierazkoak: *Jan eta batera ez da sartu behar uretara* (Arejita).

Perpaus hauetan *berehala, laster* eta *batera* adberbioak *-tu eta* formarekin doaz, forma konplexua eratuz: *Ekaitza amaitu eta berehala, argia itzuli zen*. Postposizioa *ta* forma laburtuarekin ematen da maiz, mendebaldean batez ere, bereiz idatzita (*amaitu ta berehala*), marrarekin (*amaitu-ta berehala*), eta inoiz lotuta (*amaituta berehala*).

Forma hauen oinarrian *eta* enklitikoa duen *-tu eta* forma dago, emendiozko juntaduratik bereizi behar dena. Argi ikus daiteke hori ondoko perpaus bi hauek alderatuta: [*Ekaitza amaitu*] *eta* [*argia itzuli zen*] - [*Ekaitza amaitu eta*], [*argia itzuli zen*]. Lehenbiziko adibidean ohiko juntadura dugu; adizki jokatua isilduta, perpausaren hondarrean geratu den partizipioak perpaus amaierako doinua hartzen du eta haren ondoan etena egiten da, edo, bederen, egin daiteke: *ekaitza amaitu # eta argia itzuli zen*. Bigarren adibidean, berriz, doinu-eten horiek *eta* enklitikoren ondoan egiten dira, hau aurreko partizipioari lotzen zaiolarik: *ekaitza amaitu eta # argia itzuli zen*; eta mendeko perpausa nagusiaren eskuinera alda daiteke: *argia itzuli zen # ekaitza amaitu eta*. Partizipioa gobernatzen duen postposizioa da *eta* egitura horretan, ondokotasuna adierazten duena, aurrerago ikusiko dugun bezala (§ 36.7.3e)<sup>16</sup>.

**36.5.3b** Bat baino gehiago dira *-tu eta* horrekin eratzen diren forma konplexuak: *-tu eta berehala, -tu eta laster, -tu eta batera, -tu eta gero* eta *-tu eta ondoan*. Ondo bereizi behar dira forma horiek ere azalean antzekoa den emendiozko juntaduratik ([*Ekaitza amaitu*] *eta* [*berehala itzuli zen argia*]), eta baita ondokotasuna adierazten duen *-tu eta* forma soiletik ere ([*Ekaitza amaitu eta*], *berehala itzuli zen argia*). Forma konplexuen egitura, berriz, hau da: [*ekaitza amaitu eta berehala*], *argia itzuli zen*, non *-tu eta berehala* formak berehalakotasuna adierazten duen. Ahozkoan, esan bezala, etenak eta doinuak seinaltzen dute egitura bakoitza, perpausen arteko muga markatuz. Idatzian, berriz, komak, marrak eta horrelakoak dira egitura bakoitzaren bereizgarri.

<sup>16</sup> Lafittek partizipioaren ondoan ematen diren postposizioetan sartzen du *eta* (1962: 459).

**36.5.3c** Badira, azkenik, forma batzuk ohiko erabileran bestelako adierak dituzten arren, inoiz berehalakotasuna adieraz dezaketenak. Hala, «{-n ~ -tu} bezala» ondoko perpaus hauen gisakoetan: *Gure ahoa ixten duk, hi agertu bezala* (Etxeberri Ziburukoa); *Kartzelako ateetara zen bezala, gizonak negar minari eman zion* (§ 32.4.3). Ekialdeko -n ber formak, adiera bat baino gehiagokoa, berehalakotasuna ere adieraz dezake: [*Ilezko soka*] *tirutzen duten ber, amore ematen du* (Lafitte). Bestalde, -tu ahala formaren erabileretako bat ere berehalakotasunari dagokio: *Andresek, sartu ahala, [...] ikusten du zahartu egin zarela* (Oñederra). *Ez ahal* formarekin eginiko perpausak ere berehalakoa adieraz dezakete: *Ez ahal zen etxera heldu, deika zeuzkan poliziak; Hara iritsi ez ahal zen, kontatu zion Wolfiok Obispoari gertakari guztia* (G. Arrue). Perpaus nagusian *berehala* adberbioa ematen da zenbaitetan, aldiberekotasun eskuarena indartzeko: *Deia aditu ez ahal zuen, Berari jarraitzeko berehala altxatu zen* (G. Arrue) (§ 23.5.3.6e).

Bere aldetik, -tu berri(t)an bi bereiz daitezke, izen-jokoa duena bat (*lagunaren jaiio berrian*) eta aditz jokoa duena bestea (*laguna jaiio berrian*). Perpausari dagozkion osagaiak ditu azken honek eta hori da denborazko perpaustzat har daitekeena: *Gerra amaitu berrian, goibel bizi zen jendea*.

## 36.6. Aldiberekotasun zehatza

### 36.6.1. Aldiberekotasun zehatza seinalatzen duten formak

**36.6.1a** Forma batzuek aldiberekotasun zehatza adierazten dute berariaz, erreferentzia ematen duen gertakaria iraupeneko delat seinalatuz. Adierazpen orokorreko formek ere adieraz dezaketena espresuki seinalatzea dute zeregin forma hauek, ondoko adibideak alderatuz ikus daitezkeen moduan: *Haurra lo dagoenean, itzalita edukitzen dugu telebista* - *Haurra lo dagoen bitartean, itzalita edukitzen dugu telebista*. Aurreneko perpausaren aditzaren aspektu lexikoak adierazten du gertakaria iraupeneko delat; bigarrenetan, bai aditzaren aspektu lexikoak eta baita ondoko formak ere. Hauek dira gisa horretako perpausak egiteko erabiltzen diren formak: -no (*hemen deno*), «{-n ~ -tu} bitar-

tean» (*hemen den bitartean; bazkaldu bitartean*) eta «{-n ~ -tu} artean» (*hemen den artean; bazkaldu artean*).

**36.6.1b** Forma hauekin eginiko perpausetako predikatuak iraupenekoak direnez, egoera edo jarduera adierazten dutenak izaten dira maiz (*hemen deno, mendian dabilen bitartean*), baina gauzatze prozesua adierazten dutenak ere izan daitezke (*etxeko lanak egin bitartean*); erdiespeneko predikatuak, berriz, pluraltasunak edo errepikatzeak egiten ditu iraupeneko, ohi bezala (*ikusleak sartzen diren bitartean, hots, 'sartzen ari diren bitartean'; egunero garaiz etortzen zaren bitartean*), edo prozesu gisa ulertzeak (*trena gelditzen den bitartean*, hau da, 'gelditzen ari den bitartean'). Uneko predikatuak epeko bilakatzen dira, halaber —interpretazio hori onartzen dutenean—, ezezka emanda eta iraupeneko forma erantsita; hala gertatzen da, esate baterako, honako perpaus honetan: *Egun hauetan ez da etorriko baserritarra azokara, gaixorik baitago; hura etortzen ez den bitartean haren lekuan jar zaitzke zu*, hau da, 'etortzen ez den denboran', 'etorri gabe dagoen denboran'.

Perpaus hauek aditzera ematen duten aldiberekotasuna guztizkoa da perpaus nagusiko predikatua ere iraupeneko denean: *Lo zeunden bitartean, isilik egon dira etxekoak*; mendekoaren iraupen-epeak ematen dio erreferentzia nagusikoaren epeari ('lo egotearen' epeak 'isilik egotearen' epeari, adibidean). Hortaz, gertakariaren kokapena ez ezik —hau da, aldiberekotasuna—, haren iraupenaren zenbatekoa ere ematen dute aditzera perpaus hauek.

Aldiberekotasuna 'partziala' edo 'inklusiboa' da, berriz, perpaus nagusiko predikatua unekoa denean, gertakari nagusiak mendekoaren une batekin bat egiten duena: *Lo zeunden bitartean sartu dira lapurrak etxean*.

### 36.6.2. -no, ... bitartean, -n artean, -tu ahala, -tu arau

**36.6.2a** Erlatiboaren gainean eraikitako -no formak (< -n + -no) iraupenaren epe osoa adierazten du batez ere gaurko erabilera<sup>17</sup>. Predikatu nagusia ere

<sup>17</sup> Erabilera zaharragoan azken mugako unea adierazteko ere balio zuen. Lafittek bietariko adibideak ematen ditu: *hemen deno* ('tant qu'il est ici') eta *heldu deno* ('jusqu'à ce qu'il

gehienetan iraupeneko izaten da (*Mundu honetan zeno, zuzenaren ondotik ibili da; Zamaria gazte deno hezten da*), baina unekoa ere izan daiteke (*Zoaz, ordu deno, medikuarenera*). Ekialdeko euskalkietan erabiltzen da forma hau. Lehenagoko garaietan *-no* eta *-ino* aldaerak zituen, baina gaur egun *-no* aldaera nagusitu da; forma hori darabilten Hegoaldeko autore bakanak dira *-ino* aldaera hobesten dutenak.

Badirudi *mundua mundu deno* bezalako esapideak ez datozela bat kapituluaren sarreran esan denarekin, egoera iraunkorra adierazten duten predikatuek ez dutela, alegia, denborazko perpausak eratzeko balio, denborazko erreferentzia emateko gai ez direnez (§ 36.2.3a). Ez dago, hala ere, hor kontraesanik, esapide horiek ez baitute denbora mugatzen; adibidekoa, esate baterako, ‘beti’ esateko modu enfatiko bat da, eta horixe da, hain zuzen ere, egoera iraunkorreko predikatuen ezaugarria, ‘betiko propietateak’ adieraztea<sup>18</sup>.

**36.6.2b** *Bitartean* postposizioarekin eginiko *-n bitartean* eta *-tu bitartean* formek ere iraupeneko gertakaria adierazten dute<sup>19</sup>. Aldiberekotasuna guztizkoa da, ohi bezala, predikatu nagusiko gertakaria ere iraupeneko denean: *Nagusia kanpoan izan den bitartean, lasai egon gara; Dutxa hartu bitartean, kantari aritzen da*; partziala edo inklusiboa, berriz, nagusiko gertakaria unekoa denean: *Etxekoak lo zeuden bitartean, mendirantz abiatu da Ane*. Partizioarekin eraturiko *-tu bitartean* forma gauzatzea eta jarduera adierazten duten aditzekin erabiltzen da batez ere, iraupenaren adiera honetan (*garbitu bitartean; ibili bitartean*). Aldaerak: *-tu bitarte*; erabilera urriagokoak dira *-n bitarteo* (goi nafarrerakoa), eta *-en bizkitartean*.

---

arrive’) (1962: 399, 458). Oyharçabalek, ordea, honela dio: “Pratiquement, les constructions en *-o* ne servent plus qu’à exprimer des constructions correspondant au français *tant que*” (1987: 431).

<sup>18</sup> Forma hau batez ere denbora adierazteko erabiltzen bada ere, *bistak ematen dueno* bezalako esaldietan lekua seinalatzen du.

<sup>19</sup> Iparraldean ez dira oso erabiliak forma hauek. Partizioarekin eginiko *-tu bitartean* forma Duhaldek erabiltzen du, eta *-n bitartean* forma Axularrek, Pouvreaux eta Urtek (ikus OEH s. v. *bitartean*).



Forma hauen balio nagusia iraupenaren zenbatekoari dagokiona den arren, azken mugako gertakaria adierazteko ere erabiltzen dira uneko predikatuarekin doazenean: *Hemen egongo da [...] ni etorri bitartean* (Altzaga). Subjuntiboarekin, geroari dagokionean: *Axularri dagokionez, ez gaude horren egoera onean, Aita Villasantek hasi duen lan ederra buka dezan bitartean* (Mitzelena).

Zenbaitetan kontrastea ematen du aditzera *-n bitartean* formak, denbora nozioarekin batera: *Lagun batzuek mendirantz jo duten bitartean, beste batzuk hondartzara joan dira*. Hortik, denborazkoaz bestelako aurkaritza adieraztera pasatu da hiztun batzuen usadioan, gaztelaniaren pare: *Jon on-ona den bitartean, anaia bihurri hutsa da* edo *Jon on-ona da, anaia bihurri hutsa den bitartean*. Ez da hori aurkaritza adierazteko modurik gomendagarriena<sup>20</sup>. Denborazkoaz beste, gainera, baldintza moduko adieran ere erabili izan da inoizka forma hau, gaztelaniaren pare honetan ere: *Gizonak, buruz dabilen bitartean behintzat, ez dik izan behar egite zintzoen lotsarik* (Barrensorro), batez ere ezezka emanda: *Okerra jakinaren gainean egiten ez duzun bitartean, ez duzu hobenik*.

**36.6.2c** *Artean* postposizioarekin eginiko *-n artean* eta *-tu artean* formak, azkenik, bietara erabiltzen dira, iraupeneko aldiberekotasuna adierazteko ez ezik, baita iraupenaren azken mugako unea seinatzeko ere: *Lo gauden artean ametsetan dabil gure burua* eta *Laguna datorkizun artean egon hemen gurekin*, hurrenez hurren. Aditzaren aspektu lexikoak eta testuinguruak laguntzen digute adiera biak bereizten. Iraupeneko predikatuek epe osoko gertakaria ematen dute aditzera —jarduera edo egoera adierazten dutenak izaten dira, gorago esan den moduan (‘lo egon’, adibidean), edo errepikatze-pluraltasunak iraupeneko eginiko erdiespenekoak (‘egunero garaiz iritsi’)—; unekoek, berriz, epearen azken muga seinatzen dute (‘etorri’). Gauzatze predikatuak anbiguoak dira, gauzatze prozesua nahiz gauzatze burutua adieraz baitezake-

<sup>20</sup> Erabiltzekotan, mendekoa aurretik doala onar daiteke errazago: *[...] frantsesak diphtongue idazten duen bitartean, diphtong agertzen da bai ingelesez bai alemanez* (Mitzelena). *Bitartean* adberbioa ere erabili izan da adiera honetan, *bizkitartean* bezala: *Etxea zutik egotea nahi dute, eta bitartean hari azpiak jaten ari zaizkio* (Villasante).

te: *Hemen egongo naiz, lan hori egiten duzun artean*, hau da, ‘egiten ari zaren bitartean’ edo ‘egina izan dezazun arte’. Eta, berdin, *nahi izan* eta *behar izan* modalekin eginiko perpausak ere: *Gera zaitez etxean nahi duzun artean*, hots, ‘nahi duzun denbora guztian’ edo ‘nahi dezazun unea arte’. Batera zein bestera, hala ere, epe bera adierazten da.

Iraupeneko predikatuekin, bada, aldiberekotasuna adierazten dute *artean* postposizioa daramaten formek; adizki jokatuko *-n artean* da adiera honetan maizenik erabiltzen dena. Aldiberekotasuna osoa da predikatu nagusiko gertakaria ere iraupenekoa denean: *Ni bizi naizen artean ez zaizu ezer faltatuko; Ekaitzak iraun artean, babesean egon gara*. Partziala, berriz, nagusiko gertakaria unekoa denean: *Hizketan ari zen artean, begi keinu bat egin du*. Baditu aldaerak: *arteko* eta *arte* soila (erabilera urrikoa adiera honetan): *Nire laguntza izango du bizi den arteko; Hau etxean dagoen arte, bakerik ez da gurean; Zure laguna izango naiz bizi naizen arte*.

**36.6.2d** Badirudi, hala ere, *artean* eta *arte* bereizteko joera zabaltzen ari dela azken aldian mendebaldeko euskalkietan: *artean* iraupena adierazten duten perpausetan erabiltzen da batez ere (*hemen dagoen artean*), eta *arte*, berriz, azken muga adierazten dutenetan batez ere (*etorri arte*)<sup>21</sup>. Iraupeneko aldiberekotasuna adierazteko erabili izan da inoiz *-n arteraino* forma ere (*dirauen arteraino*); gaur egun, ordea, azken muga adierazteko baizik ez da erabiltzen.

*Arte guztian* sintagman, berriz, izena da *arte*, eta, hortaz, ohiko erlatibotzat hartu behar dira *minak iraun dion arte guztian* bezalakoak; halaz ere, forma hori ere postposizio bilakatzeko bidean dela pentsa daiteke, beharbada, *artean*-ekin eginiko formaren pareko enfatikoa.

Iraupen guztiz laburra adierazten dute *begiak ixteko artean*, *burua itzultzeko artean* edo *begiak itzul artean* gisako esaldiek.

---

<sup>21</sup> De Rijckek: “[...] during the latter half of the 20th century a new system arose in the western dialects and has imposed itself on southern Batua. In it, uninflected *arte*, and its by now rare alternatives *arteraino* and *arteino*, are used only to convey the meaning ‘until’, while inessive *artean* is reserved for the senses ‘as long as’ and ‘while’” (2008: 533).

**36.6.2e** Azkenik, *-tu ahala / ahalean* (Hegoaldea) eta *-tu arau* (Iparraldea) formen erabileretako bat gertakari biren aldibereko gauzatze progresiboari dagokiona da: *Zorrak gehitu ahala, egoera estutzenago zihoakion; Jautsi arau, oihua gorago egiten zuen* (Lafitte).

## 36.7. Kokapenezko perpausak: aurrekotasuna eta ondokotasuna

### 36.7.1. Aurrekotasuna eta ondokotasuna adierazten duten formak

**36.7.1a** Aurrekotasuna edo ondokotasuna adierazten dituzten formak ikusiko ditugu atal honetan. Mendeko perpausak aipatzen duen gertakaria da erreferentzia: perpaus nagusiko gertakaria hura baino lehen gauzatzen denean dugu aurrekotasuna (*Berotze ariketak egin ditugu, partida hasi baino lehen*), eta haren ondoren gauzatzen denean, berriz, ondokotasuna (*Dutxa beroa hartu dugu, partida amaitu eta gero*).

Forma hauetako mendekoak une bat seinalatzen du beti eta une horrek ematen dio aurretiko edo ondoko erreferentzia perpaus nagusiko gertakariari. Erdiespena adierazten duen predikatua izaten da askotan (*sartu aurretik; irten ondoren*), eta iraupen edo epeko predikatua denean, epe horretako hasierako edo amaierako unea izaten da kontuan hartua. Aurrekotasuna adierazten denean gertakariaren hasierako unea izan ohi da seinalatua (*Musean aritu baino lehen, kafe bana hartu dute*, hau da, ‘mus jardueran hasi baino lehen’; *Bekadun izan aurretik, ez nuen ikerketarako aukerarik*, hots, ‘beka jasotzen hasi aurretik’); gauzatzea adierazten dutenekin ere hasierako unea izan daiteke kontuan hartua (*Bazkaria prestatu baino lehen, garbitu sukaldea*, hots, ‘bazkaria prestatzen hasi baino lehen’), baina baita gauzatze burutuarena ere (*Bazkaria prestatu baino lehen ez hasi beste ezertan*, hots, ‘prestatzea burutua izan baino lehen’). Ondokotasuna adierazten denean, berriz, iraupenaren azken unea da seinalatua beti, bai jarduera-egoeretan baita gauzatzean ere (*Musean aritu ondoan, kafe bana hartu dute; Eguzkitan egon ondoren, uretan sartu da; Etxea garbitu eta gero, paseatzera atera da*). Ohartzekoa da, horren harira,

perpauk hauek ere ez dutela ezezkorik onartzen, ezezkoak uneko gertakaria adierazten ez duen neurrian: \**Eguna ez argitu aurretik, lanean ari nintzen*; \**Neronek esango dut, bestek esan ez dezan baino lehen*; \**Eguzkitan ez egon ondoan, uretan sartu da*.

Perpauk nagusia, bere aldetik, aspektu guztietakoa izan daiteke. Hala, aurrekotasuna adierazten duten perpauketan: *Bazkaria prestatzen hasi baino lehen {azokara joan naiz ~ etxeko lanak egin ditut ~ paseoan ibili naiz ~ urduri nengoen}*. Berdin, ondokotasuna adierazten dutenetan: *Festa amaitu eta gero {etxera joan ziren gonbidatuak ~ goitik behera garbitu genuen gela ~ herrian zehar ibili ginen ~ nekatuta geunden}*.

**36.7.1b** Mendekoak aipatzen duen gertakariaren gauzatzeari dagokionez, desberdinak dira aurrekotasun-perpauk eta ondokotasuna adierazten dutenak. Aurrekotasunean perpauk nagusiko gertakaria lehenagokoa denez, honen gauzatzeak ez du egiaztatzen ondokoa den mendekoarenaren gauzatzea. Aukera guztiak ditu perpauk. Faktuala da batzuetan, gauzatzea egiaztatzen duena: *Orain Bilbon bizi da Ainhoa, baina ezkondu aurretik Tolosan bizi zen* perpausean, esate baterako, egiaztatua da ‘Ainhoa ezkondu dela’, horren aurreko gertakaria ez ezik (‘Tolosan bizitzea’), ondokoa ere aipatzen baita (‘Tolosan ez bizitzea’); ez-faktuala da, beste batzuetan, gauzatzea egiaztatu gabe uzten duena: *Alde egin nuen manifestaziotik, gauzak okerrera egin baino lehen* perpausean ez zaigu esaten gauzek okerrera egingo zutelako susmoa bete zenetz; eta kontrafaktuala, beste zenbaitetan, gauzatze eza adierazten duena: *Isiltzea erabaki nuen, gezurretan hasi baino lehen*, hau da, ez nintzen gezurretan hasi. Ondokotasuna adierazten denean, berriz, faktualak dira beti mendekoak, perpauk nagusiko gertakariaren gauzatzeak aurretiko mendekoarenaren gauzatzea suposatzen baitu. *Etxea garbitu eta gero, paseatzera atera da* perpausean, esate baterako, ‘paseatzera ateratzearen’ gauzatzeak aurreko ‘etxea garbitzearen’ gauzatzea egiaztatzen du. Eta, geroaldian emanda, *Etxea garbitu eta gero, paseatzera aterako da*, perpauk nagusiko gertakariaren gauzatzeak mendekoarenaren gauzatzea suposatzen duela esaten zaigu.

**36.7.1c** Formari dagokionez, partizipioarekin eratzen dira nozio bi hauetako perpauk asko, eta partizipioari erantsitako postposizioak adierazten du

zein den perpausak adierazten duen nozioa (*sartu aurretik* / *sartu ondoan*). Beste alderik ere bada forma horien artean. *Gero* postposizioak *eta* hartzen du aurretik (*sartu eta gero*); *ondoan* nahiz *ondoren* postposizioek ere onartzen dute *eta* eranstea (*sartu eta ondoan*, *sartu eta ondoren*); aurrekotasuna adierazten duten *lehen*, *aurretik* nahiz *aitzinean* adberbio-postposizioek, berriz, ez dute hori onartzen (*\*sartu eta lehen*, *\*sartu eta aurretik*, *\*sartu eta aitzinean*); izan ere, partizipioak adierazten duen gertakari burututik aurrera bidaltzen du *eta*-k, ez atzera —*sartu eta* esaten denean, ‘sartzea gauzatu denetik aurrera’ esaten da—. *Lehen* adberbioak, bere aldetik, konparazioko *baino* onartzen du (*sartu baino lehen*); ez, ordea, *gero*-k (*\*sartu baino gero*)<sup>22</sup> (§ 32.3.1.2).

Postposizio edo forma soilarekin egiten diren perpausak modu orokorrean egiten dute aurrekotasunaren edo ondokotasunaren adierazpena. Hala, *sartu baino lehen*, *sartu aurretik*, *sartu aitzin* edo *sartu gabe* esaten dugunean, sartzearen aurreko denbora seinalatzen dugu beste ñabardurarik gabe; *eta sartu eta gero*, *sartu ondoan*, *sartu ostean* edo *sartutakoan* esaten dugunean, sartzearen ondoko denbora seinalatzen dugu, besterik gabe. Zenbaitetan, hala ere, denbora nozioa adierazteaz gain, aldearen ‘neurria’ seinalatzen duen zenbatzailea eransten zaie forma hauei (*sartu baino bi ordu lehenago*, *sartu baino bi orduz aurretik* edo, modu zehaztugabea, *sartu baino zertxobait lehenago*, *sartu baino askozaz aurretik*).

### 36.7.2. Aurrekotasuna adierazten duten formak

**36.7.2a** Hauek dira aurrekotasuna adierazten duten formak: konparazio egiturako *-tu baino lehen* (*sartu baino lehen*), «*-tu* {*aurretik* ~ *aitzinean*}» (*sartu aurretik*, *sartu aitzinean*) eta bestelako adiera izanik inoiz aurrekotasuna adierazten dutenak (*sartu gabe*, *sartu orduko*, *sartzera*). Adizki jokatuarekin eginiko formek (*sartu den baino lehen...*) erabilera urriagoa dute.

<sup>22</sup> *Baino geroago* erabiltzen da inoiz izenarekin (§ 35.2.5d).

**36.7.2b** *-tu baino lehen* forma euskalki guztietan erabiltzen da. Konparazio egiturako perpausak eratzen ditu, bistan da, baina konparatzea baino areago perpaus nagusiko gertakariari denbora erreferentzia ematea du forma honek funtzio, hau da, aurrekotasuna adieraztea. Ondo bereizi behar dira konparatibo arruntak eta denborazko perpaus hauek, ez baita gauza bera gertakari biren denbora konparatzea eta gertakari batek besteari denbora-erreferentzia ematea (§ 32.3.1.2). *Astelehenean baino lehen amaitu dugu gaur lana* perpausean bi eguni dagokien kontu bat konparatzen da, lana amaitzeko denbora; eta *Zuk baino lehen amaitu dut nik lana* perpausean pertsona biri dagokien kontua da konparatzen. Konparaziozko arruntak dira horiek. *Astelehena baino lehen joango naiz zuengana* perpausean, berriz —zein ere den sakoneko egitura—, denbora bat aipatzen da, astelehena, gertakari baterako erreferentzia moduan (§ 35.2.4g). Honen parekoak dira denborazko perpausak; hauek gertakari bat aipatuz ematen dute beti erreferentzia, hori da aldea: *Afaldu baino lehen joango naiz zuengana*. Gorago esan den moduan, bada, postposizioaren parekoa da erabileran honetan *baino lehen* konparaziozkoa, haren funtzioa betetzen baitu (*sartu baino lehen = sartu aurretik*).

Adizki jokatua agerian eman daiteke, *-n baino lehen* forma hartuta (*Eguna argitu duen baino lehen jaikita nengoen ni*). Geroari dagozkion gertakariak adierazteko erabiltzen da inoiz adizki jokatuarekiko forma hau: subjuntiboarekin (*Neronek egingo dut, bestek egin dezan baino lehen; Neronek egingo nuela esan nion bestek egin zezan baino lehen*), sintetikoarekin (*Inora zoazen baino lehen, hango berri jakitea komeni zaizu*) edo geroaldiarekin (*Gertatuko den baino lehen esaten dizuet*). Baina, esan bezala, ohikoagoa da agerian partizipio soilaren duen forma erabiltzea.

**36.7.2c** *Lehen* adberbioak, berez konparazioa adierazten duenak, *-ago* maila hizkia har dezake horrezaz gain, *-tu baino lehenago* forma hartuz. Forma soilaren balio berarekin erabiltzen da maizkara azken hau: *Eguna argitu baino lehenago jaikita nengoen ni*. Forma soilak ez bezala *baino lehenago* formak zenbatzaileak har ditzake, aurrekotasunaren neurria adierazteko: *Eguna argitu baino askozaz lehenago jaikita nengoen ni*. Argigarria da ondoko testu hau, non forma soilaren aposizioan ematen den zenbatzailea eta guztiko forma

konplexua: *Bera sortu baino lehen, askozaz lehenago, Jaungoikoa bazen* (Agirre). Mailakatze zeregina dute, halaber, hurbiltasuna adierazten duten *lehentxeago* eta *lehentxoago* aldaerek ere: *Hil zen baino lehentxeago hitz egin zien* (Agirre Asteasukoa). Aldaera konplexu honekin eratzen da izenlaguna, *-ko* atzizkia hartuta: *Gogorra zen etxeko lana, garbigailua asmatu baino lehenagoko denboretan*. Ablatiboko *-tik* atzizkia hartuta, berriz, ‘noizdanikoa’ adierazten du: *Zu iritsi baino lehenagotik zeuden horiek autobusaren zain*.

Laburbilduz esan daiteke, bada, aurrekotasunaren adierazpen orokorra egiteko *-tu baino lehen* eta *-tu baino lehenago* formak erabiltzen direla, biak, baina aurrekotasunaren maila edo neurria adierazteko bigarrena hobesten dela.

Denborazkoa ez den lehentasuna adierazten dute maiz konparaziozko forma hauek, hau da, lehentasun ‘zuzentzailea’; *baino gehiago*-edo esanahi dute horrelakoetan, ohiko konparazioen modura: *Pertsona naitz, gizona baino lehen; Maitte zaitut gauza guztiak baino lehenago*. *Lehenago* forma ohikoa da gisa honetako perpausetan: *Lehenago hil, amore eman baino*; ‘nahiago hil’, alegia.

**36.7.2d** Mendebaldekoa da *-tu aurretik* forma. Ablatiboko atzizkia duen arren, aurrekotasuna adierazten duen forma da, ‘noiz’ noizioari dagokiona, ez ‘noiztik’ noizioari: *Lanera joan aurretik, agur esatera etorri zait*. Forma soila erabiltzen da maizenik, baina *baino* eta zenbatzailea dituela ere erabil daiteke: *Haur zorionekoa jai baino hilabete batzuek aurretik ikusten zen Asisen gizontxo bat [...] (Beobide)*.

Hori bezala, *-tu aurrean* forma ere erabiltzen da euskalki beretan: *Afaldu aurrean musean aritu gara*. Adizki jokatuarekin ere erabiltzen da aldaera hau, bizkaieraz batez ere, baina maiztasun handirik gabe: *Joan zen aurrean, jaiegun bat izan zen* (Etxeita). Eta baita aditz izenarekin eginiko *-tze*ko formarekin ere: *Ezkontzeko aurrean ezinegona sortu zitzaion*. Gutxiago erabilia da *-tu aurrez* forma: *Esan aurrez, bi bider gogoratu, egin aurrez, hiru bider* (ikus OEH s. v. *aurrez*). Hurbiltasuna adierazten dute *aurretixe*, *aurretixotik* eta *aurretixoan* aldaerek.

Ekialdean, berriz, *-tu aitzinean* forma erabiltzen da: *Itxi atea, abiatu aitzinean*. Postposizio hau maizenik partizipioarekin erabiltzen da, baina aditzo-

narekin ere erabiltzen dute, forma hori ohikoa duten euskalkietan (*ikus aitzi-  
nean*), eta, orobat, baita *-tze(ra)ko* formarekin ere: *Bozkatzeko aitzi-  
nean, gerra  
bizia izaten da herrietan*. Urriago, berriz, adizki jokatuarekin: *Ez dezazula  
bihia erein, gisua mariatu den aitzi-  
nean* (Duvoisin). Inesiboko atzizkia gabe  
ere erabiltzen da maiz postposizio hau: *Jan ezazu zerbait, abiatu aitzin*. Al-  
daerak: *aitzinetik*, eta hurbiltasuna adierazten duten *aitzinexean* eta *aitzin-  
ttoan*.

**36.7.2e** Gertakariaren ukapena adierazteko erabili ohi den *-tu gabe* formak  
aurrekotasuna ere adieraz dezake, erdiespeneko predikatuekin doanean —*sar-  
tu, iritsi, adlatiboa*...—. Batez ere Iparraldean erabiltzen da forma hau adiera  
horretan. Zenbaitetan agerikoa da denborazko esanahia: *Lana utzi du, erretre-  
taren adinera gabe; Igorri gabe irakurri nahi du lagunaren gutuna; Askotan,  
gu etxeratu gabe, ahantziak ditu jendeak gure erranak. Baino lehen* postposi-  
zioaz ordezkata daitekeenean du esanahi hori *-tu gabe* formak (*erretretaren adi-  
nera baino lehen, igorri baino lehen* eta *etxeratu baino lehen*, goiko adibidee-  
tan); ordezkatzeko hori ezinezkoa denean, berriz, ez du aurrekotasuna adierazten:  
*Berandu iritsi zenez, kontzertura sartu gabe geratu zen gure laguna* perpau-  
sak, esate baterako, ez du aurrekotasuna adierazten, *sartu gabe* horrek ez baitu  
*sartu baino lehen* adierazten<sup>23</sup>.

**36.7.2f** Badira, azkenik, bestelako denbora-adiera bat izanik, inoiz aurreko-  
tasuna adieraz dezaketen formak. Hala, gorago ikusi dugun moduan, *-tu orduko*  
formak erdialdeko euskalkietan ‘jadaneko’ gertakaria seinatzen du  
(§ 36.5.2b), baina mendebaldean aurrekotasuna adierazteko erabiltzen da:  
*Emadazu laztan bat irten orduko hemendik; Zerbait jango nuke, lotara ordu-  
ko*. Aldaera: *-tzerako* (*Atsedean hartzera orduko, gogorak ikusiko ditu  
gaixoak*). Gauza bera gertatzen da *-tzerako* formarekin; aldiberekotasun estua

---

<sup>23</sup> Lau forma azaldu dira aurreko paragrafoetan, Iparraldeko euskalkietan aurrekotasuna  
adierazten dutenak. *Imitatio Christi* liburuaren *antequam natus essem in mundo* esaldia itzul-  
tzeko (III 3, 6), laurak erabili dituzte euskal itzultzaileek: *mundura sortu nintzen baino lehen*  
(Pouvreau), *nintzen baino lehenago* (Xurio), *nihau egin aitzinetik* (Leon) eta *nihaur sortu  
gabe* (Maister).



ez ezik (§ 36.5.2a), aurrekotasuna ere adieraz dezake, Hegoaldeko euskalkietan: *Ezkontzako hitza ematerako, ondo atera kontuak.*

### 36.7.3. Ondokotasuna adierazten duten formak

**36.7.3a** Ondokotasuna adierazten duten forma gehienak partizipioarekin eginak dira: «-tu {ondoan ~ ondoren ~ ostein}» (sartu ondoan), eta enklitikoarekin eratutako «-tu eta (gero)» eta -tutakoan (sartu eta, sartu eta gero, sartutakoan), -ta eta -ik atzizkiekin egindako -tuta eta -turik (sartuta, sarturik) eta, batzuetan, -z postposizioarekin eginiko «-tuz (gero)» (sartuz gero, sartuz). Adizki jokatuarekin eginak dira «-netik... {-ra ~ -en buruan}» formak (sartu zenetik gutxira; joan zenetik bi egunen buruan) eta -ne(ra)ko prospektiboa (behar denerako).

Gorago ikusi ditugun -tu eta berehala eta -tu bezain laster formak atal honetan aztertuko ditugunen antzekoak dira neurri batean, perpaus nagusiko gertakaria mendekoarenaren ondoan gauzatzen dela ematen baitute aditzera. Haiek, ordea, esan bezala, ondokotasuna baino areago segida estua —hots, ‘berehalakotasuna’— adieraztea dute helburu.

*Behin* adberbia ematen da inoiz perpaus hauetan, hasieran kokatua ia beti, ondokotasun nozioaren indargarri. Mendekoak aipatzen duen unea seinalatuz, perpaus nagusiko gertakaria une hartatik aurrera kokatzen du<sup>24</sup>. Hala, -tuz gero formarekin (*Behin sendatuz gero, etxera bidaliko dute*); -tuta edo -turik formekin (*Behin hizketan {hasita ~ hasirik}, berandu arte aritu gara solasean*); -tutakoan formarekin (*Behin ordaindutakoan, gurea zen auto berria*). Gorago aztertu den -nean formarekin balio sekuentziala indartzen du adberbio honek.

**36.7.3b** Inesiboko postposizioa duen -tu ondoan forma Iparraldean erabiltzen da batez ere: *Eskerrak eman ondoan, etxera itzuli ziren gonbidatuak*. Hegoaldean, Gipuzkoan batez ere, *ondorean* ablatibo zaharrarekin eginiko

<sup>24</sup> Ikus OEH s. v. *behin*.

aldaerak erabiltzen dira; ohikoena *-tu ondoren* da, zeinetan postposizioa ablatibo zaharraren forma laburtua den<sup>25</sup>: *Eskola amaitu ondoren, hutsik geratu da ikasgela*. Bere horretan ere erabiltzen da inoiz ablatibo zaharra: *Medikuak, galdera batzuk egin ondorean, jarri dio kopetan zapi zuri handi bat* (Iraola). Eta baita, bakanago, inesiboko postposizioa hartu eta *ondorenean* bilakatuta ere: *Herio beltza heldu zitzaien, bazkaldu ondorenean* (Basarri). Erabilera urriko *-tu ondotik* forma aipa daiteke, azkenik, ablatiboko postposizioa duena: *Mintzaroa etorri zitzaidan mintzul izan ondotik* (Orixe).

Postposizio hauek, *ondotik* izan ezik, aurrean *eta* dutela ere erabiltzen dira, *-tu eta ondoan* gisako formak eratuz: *Bapo jan eta ondoan, barneko atsegina berehala da kanpoan; Gurean egonaldi labur bat egin eta ondoren, etxera joan ziren; Borrokan luze jardun eta ondorean, menderatu zuen noizbait ere etsaia; Han egun batzuk pasatu eta ondorenean, bidean jarri zen ostera ere*.

**36.7.3c** Partizipioarekin eginiko forma horien aldean, bestalde, erabilera urriagoa du adizki jokatu *-n ondoan* formak. Aspektu burutuko adizkiekin (*Etxera joan da, unatu den ondoan*); berdin, perpaus nagusiak errepikatzea edo ohitura adierazten duenean (*Eskola finitu den ondoan bilkura egiten dute egunero irakasleek*); edo geroari dagokionean (*Eskolatua izan den ondoan, ederki mintzatuko da*); geroari dagozkionetan, mendeko aditza subjuntiboa (*eskolatua izan dadin ondoan*) nahiz *-ke-duna* (*hori egin duketen ondoan*) izan daiteke. Hala ere, esan bezala, perpaus hauek usuago ematen dira partizipio soilarekin. Eta partizipioaren lekuan aditzoina ere erabiltzen da inoiz, zubereraz batez ere (*ikus ondoan*).

*Ondoa* edo *ondoren* postposizioa daramaten perpausak izenlagun bilakatzen dira, ohi bezala, *-ko* atzizkia hartuta (*ilundu ondoko orduak; alemanek Frantzia hartu eta ondoko borroka; partida galdu ondorengo egoera*). Bestelakoak dira, noski, *-ko* atzizki adberbiala daramaten perpausak, balio destinatiboa edo prospektiboa baitute: *Aurreztu ezazu dirua, erretiroa hartu ondoko; Ni hil ondorengo, lantxo bat utziko diet gizajoei* (Etxaniz).

---

<sup>25</sup> Ikus OEH s. v. *ondorean* eta *ondoren*.

Batez ere bizkaieraz erabiltzen da *-tu ostean* forma: *Ordaindu ostean, kalera irten da; Lan guztia amaitu ostean izango du atsedean hartzeko denbora*. Ondoko testuak *-ta* enklitikoa eta *-kotzat* destinatiboa ditu: *Betor kopa bete beterrik, kafetara botatzeko bat, beste bat gero neuk edateko kafea hartuta osteko-tzat* (E. Azkue).

Balioari dagokionez, perpaus hauek denborarekin batera, edo haren lekuan, kausa edo azalpena ere adieraz dezakete: *Ikusitakoak ikusi ondoan, ezin naiteke lasai egon; Hainbeste denboran eskolan ibili ostean, zerbait ikasiko zenuen*.

**36.7.3d** Ondokotasuna adierazten du, halaber, batez ere mendebaldekoa den *-tu eta gero* formak. Gorago azaldu dugun moduan, ez dira nahasi behar forma hori daramaten perpausak eta ohiko juntadura (§ 36.5.3a): *Ikasketak amaitu, eta gero erbestera joan nintzen lan bila* ≠ *Ikasketak amaitu eta gero, erbestera joan nintzen lan bila*; azken honena da denborazko perpaus mendekoa. Lehenbizikoan ez bezala, honetan mendeko perpausa nagusiaren eskuinera eramán daiteke, *eta gero* forma eta guzti: *Erbestera joan nintzen lan bila, ikasketak amaitu eta gero*.

Ez da ohikoa *-tu eta geroago* aldaera. Ikus, hala ere, *Zahartu eta geroago bertsotan hasi, laster eroango naute hemendik ihesi* (Euskal Jokoak II). Zenbatzailea eta guzti: *Aitagandik jakin eta urte batzuk geroago, [...] irakurri nuen honen antz handia zeukan elezahar bat* (Bitaño). *Baino eta zenbatzailearekin, berriz: Ebanjelioa balitz bezala hartzen dugu lehen edizioa [...], idatzi baino 80 urtez geroago agertua* (Mitxelena). Mailakatze zeregina du hurbiltasuna adierazten duen *geroxe* aldaerak ere.

Partizipioa da, esan bezala, *eta gero* postposizioak gobernatzeko duena. Gaur egun entzuten dira, hala ere, partizipiorik gabeko «izena + *eta gero*» egiturako esaldiak: *Partida eta gero hasi ziren istiluak; Hogei urte eta gero, hau*. Egitura horrek ez du aintzat hartzeko moduko lekukorik tradizioan. Horien lekuan, partizipiodun perpausak edo ohiko postposizio sintagmak erabil daitezke: *partida amaitu eta gero* edo *partida(ren) ondoren; hogei urte igaro eta gero* edo *hogei urteren ondoan*. Ikus *Euskaltzaindiaren Hiztegia* s. v. *gero*: “*eta*

*gero* [partizipioaren ondotik erabiltzen da, ez izenaren ondotik: *bilera bukatu eta gero etxera abiatu ziren*; \**bilera eta gero e. bileraren ondoren*].

**36.7.3e** *Gero* adberbioa gabeko *-tu eta* forma erabiltzen da Iparraldean eta Nafarroan ondokotasuna adierazteko. *Afaldu eta, solasean aritu ginen*. Kontuan izan behar da *eta* hau ere ez dela juntagailua, denborazko perpausak eratzten dituen formaren osagaia baizik: *Afaldu, eta solasean aritu ginen* ≠ *Afaldu eta, solasean aritu ginen*. Bigarrenarena da denborazko mendekoa. Ohikoa denez, nagusiaren eskuinean eman daiteke hau horrelakoetan: *Solasean aritu ginen, afaldu eta*. Ez da ohikoa aditzoina erabiltzea egitura honetan: *Gizona zein triste den esposa gal eta / lorikan ezin egin, beti pentsaketa* (AstLas).

Ondokotasunaz bestelako denbora-ñabardurak ere ematen ditu forma honek aditzera: *Sortu-eta hil zen haurra* perpausak, esate baterako, berehalakotasuna iradokitzen du; *Hona etorri eta, ez dugu atsedetik izan* perpausak, berriz, ‘noizdanikoa’ adierazten du. Eta baita denborazkoaz bestelakoak ere: *Ahal izan-eta, berak egingo zuen* perpausak baldintza adierazten du; *Ohar hau idatzi eta, denek jakingo dute egia* perpausak, modua; eta *Haren mehatxuak entzun eta, ihesi joan ziren guztiak* perpausak, azkenik, kausa edo azalpena.

**36.7.3f** Erdialdean erabiltzen da *-tutako* erlatiboaren gainean eginiko *-tutakoan* forma (§ 31.5.2). Tartean *-ta-* morfema duelarik, ondokotasuna adierazten du forma honek ere; hortaz, uneko predikatuarekin erabiltzen da (*Lana bukatutakoan, paseatzera joan ziren*), eta perpaus nagusia aspektu guztietakoa izan daiteke. Bizkaieraz *-turik* forma erabiltzen dutenek *-turikoan* forma ere eratzen dute (*bihotza galdurikoan*)<sup>26</sup>.

Ondokotasuna adierazten duen forma finkoa da hau, ohi bezala, testuinguruak besterik adierazten ez duenean. *Hori esandakoan etxeko bidea hartu zuten*

---

<sup>26</sup> De Rijkek esaten du *-tutakoan* forma *-tutako orduan* erlatibotik eratorria dela, *ordu* izena isilpean utzita (2008: 521). Izen zehatza baino areago generikoa dirudi *ordu* horrek ere; ez dirudi, gainera, izen hori denik beti agerian ez dagoena (*Ezkongaietan ondo bizi zen, ezkondu tako orduan hobeto* (?)). Egokiago da, hemen ere, izen zehatza gabe, denbora generikoa hautematea izenaren lekuan, *-ta-* morfemaren eraginez ondokotasuna adierazten duena.

perpausak, esate baterako, ‘hori esan ondoan’ adierazten du; *Esandakoan gaudede* perpausean, berriz, *esan* aditzaren objektua da agerian ez dagoen izena. Eta denborazkoarekin batera beste ñabardura batzuk ere adieraz ditzake: mailakatzaila duen *Hain larri ikusitakoan, izutu egin ziren* perpausak, esate baterako, kausa edo azalpena ere adierazten du; *Gogoz hasitakoan, erraz egiten da lana* perpausak, berriz, baldintza.

**36.7.3g** Hegoaldean erabiltzen den *-tuta* forma, *-ta* atzizki adberbiala erantsita sortua, ‘forma zirkunstantziala’ da, hau da, zirkunstantzia askotara irekia. Beste batzuen artean, denbora ere adieraz dezake; ondokotasuna, hain zuzen ere: *Uda amaituta, hondartzako aldagelak itxi egiten dira; Behin atea itxita, lotara joan gaitzke*. Iparraldean eta Bizkaian erabiltzen den *-turik* formak ere ondokotasuna adieraz dezake, besteak beste: *Lagunei agur eginik, etxera joan zen; Udako oporrak eginik, etxean gara berriro*.

Zirkunstantzia bat baino gehiago adieraz ditzakete forma hauek ere, bistan da, denboraz gain; kausa (*Mendi handitan ibilita, neka-neka eginda iritsi zen; Lasterketa irabazirik, pozik da gure laguna*), modua (*Atea hautsita, barnera sartu ziren; Sosak denon artean banaturik amaitu ziren eztabaidak*), edo baldintza (*Erbestera joanda, nola jakingo ditut hemengo berriak?; Goizago abiaturik, garaiz iritsiko zinateke*).

**36.7.3h** Gorago esan den bezala, balio nagusi bi ditu *-tuz gero* formak, denboraz beste baldintza adierazteko ere erabiltzen baita maizkara. Gehienetan ez da arazorik izaten perpausaren balioa bereizteko. Baldintzazkoa da, jakina, denborazkoa izateko modurik ez duenean, hau da, denbora-unea seinalatu beharrean une zehatzik gabeko egoera adierazten duenean: *ahal izanez gero, nahi izanez gero...* Horrelakoek, denborazkoak izateko, iraupenaren une bat seinalatu behar lukete, horretarako modurik balute, hasierakoa nahiz hondarrekoa. Baldintzazkoa da, halaber, agerikoa denez, baldintza-ondorio komunztadura nagusitzen denean: *Saiatuz gero, erraz aterako zenuke zuk ere gidabaimena*. Baldintzarako lekurik ez denean, berriz, denbora-balioa nagusitzen da; hala, esate baterako, perpaus nagusiko aditza burutua denean: *Azken eskola amaituz gero, etxera joan dira ikasleak*. Bada, hala ere, anbiguotasunerako esparru bat. Perpaus nagusiko aditza geroaldikoa denean, esate baterako,

bietara uler daiteke sarritan perpausa: *Ikasketak amaituz gero, Ameriketara joango da* perpausaren mendekoa ‘ikasketak amaitu ondoren’ nahiz ‘ikasketak amaitzen baditu’ uler daiteke. Testuinguru pragmatikoak argitzen du horrelakoen balioa. Zenbaitetan, ordea, balio bikoitza bere horretan mantentzen da: *Irakurtzen ikasiz gero, zer gehiago behar dute haurrek?* perpausuan, adibidez, ondokotasuna baldintza modura ulertzen da (§ 34.3.4).

Denboraren adierazpenean, berriz, bi erabilera ditu forma honek. Ondokotasuna adierazten du perpaus nagusia ere unekoa denean (*Ezkonduz gero, Bartzelonara joan ziren bizitzera*, hau da, ‘ezkondu eta gero’), baina hura iraupenekoa denean, bietara uler daiteke: ‘ondokotasuna’ adieraz dezake (*Zahartuz gero, nola biziko dira gurasoak hi gabe?*, hots, ‘zahartu eta gero’), baina baita ‘noizdanikoa’ ere (*Ezkonduz gero, Bartzelonan bizi dira*, hau da, ‘ezkondu zirenetik’), (§ 36.9d). Bietara uler daiteke perpausa zenbaitetan: *Gazteak sartuz geroztik, indartua dago taldea*, hau da, ‘sartu eta gero’ nahiz ‘sartu zirenetik’.

*Gero* adberbioaren hiru aldaerak erabiltzen dira ondokotasuna adierazten duten perpaus hauetan ere: *gero, geroz* eta *geroztik*. Iparraldean *-tuz geroz* da aldaerarik erabiliena, ondotik *-tuz geroztik* duela; *-tuz gero*, berriz, testu zaharretan ageri da batez ere. Hegoaldean, alderantziz, *-tuz gero* soila da erabiliena; *-tuz geroz* gipuzkeraz zer bait; eta *-tuz geroztik* are urriago, gipuzkeraz eta bizkaieraz. Hiru aldaera horiez gain, aldaera urriagoak baditu forma honek Hegoaldean: *-tuz geroan, -tuz gerokoan*. Partizipio mugatuarekin ere erabili izan da: *Luzaroan inguru-begira ibiliaz gero, zokondoko seskadiraino aurreratu zen zalantza bizian* (Barrenso).

Perpaus hauen oinarrian den *-tu(a)z* forma ere zirkunstantzia askotara irekia da, *-tuta* eta *-turik* baino ere areago. Zenbaitetan denbora ere adieraz dezake, ondokotasuna, modu lasaian bada ere: *‘Ondo lo egin’ esanaz, ohera joan zen; Mailetak geltokiko zaindegian utziz, hiria ezagutzera joan zen*.

**36.7.3i** Ablatiboarekin eginiko «*-netik* + {denbora IS zenbatzaileduna + *-ra*}» egiturako perpausak ere ondokotasuna adierazten dute: *Lanean hasi zenetik {gutxira ~ bi urtera} igo zioten soldata*. Halaber, «*-netik* + {denbora IS zenbatzaileduna + *-en buruan*}»: *Lanean hasi zenetik hiru urteren buruan igo zioten*

*soldata*. Ordinalarekin, inesiboan: *Ikasturtea hasi zenetik bigarren astean utzi zuen unibertsitatea*. Ondokotasuna adierazten du ondoko perpausako *gaur* adberbioak ere: *Uda hasi zenetik, gaur joan naiz lehen aldiz hondartzara*. Ikusten den moduan, perpaus nagusiko gertakaria unekoa da ('igo zioten', 'utzi zuen', 'joan naiz') edo, bestela, iraupenaren une bat kontuan hartzen duena (*Lanean hasi zenetik bi urtera egon zen gaixo*, 'gaixotu zen', alegia); *-netik laster* formak, berriz, berehalakotasuna adierazten du —izen sintagmarekin eginiko egituraz—, ikus § 35.2.5h.

**36.7.3j** Gorago aipatu ditugun berehalako eta jadaneko adieretan ez ezik (§ 36.5.1b), balio prospektiboa edo destinatiboa duela ere erabiltzen da *-ne(ra)ko* forma: *Ura sartu dut motxilan, egarritzen naizeneko; Egik laguna ez behar duanean, baizik behar duaneko; Gela hau prestatu dugu, zure laguna etortzen denerako*. Aldiberekotasunik ez da perpaus hauetan; aitzitik, perpaus nagusiko gertakariaren gauzatzek geroko gertakari bat du xede. Geroari dagokionez, aspektu burutugabeko adizkia —edo sintetikoa— izaten du maiz mende-koak, goiko adibideetan ikusten den moduan.

Berehalako edo jadaneko adiera duenean, *-nean* perpausaz ordezka daiteke *-ne(ra)ko* forma, ñabardura horien indarra galduta bada ere: *Polizia agertu deneko, korrika hasi dira manifestariak*  $\approx$  *Polizia agertu denean, korrika hasi dira manifestariak*; *Suhiltzaileak iritsi zireneko, kiskalita zegoen etxola*  $\approx$  *Suhiltzaileak iritsi zirenean, kiskalita zegoen etxola*. Prospektiboa denean, aldiz, ez: *Gela prestatu dugu, laguna etortzen deneko*  $\neq$  *?Gela prestatu dugu, laguna etortzen denean*.

## 36.8. Iraupeneko gertakarien muga adierazten duten perpausak

**36.8a** Gertakarien iraupena adierazteko modu bi daude: gertakaria zenbat luzatzen den seinala daiteke edo haren hasierako edo hondarreko mugaren berri eman. Perpausaz bestekoetan osagarri kuantitatiboek seinalatzen dute iraupenaren neurria (*bi urtean, goiz osoan*); perpausarekin eginikoetan, berriz,

honetan aipatzen den gertakariaren epeak ematen dio perpaus nagusiko gertakariari erreferentzia: *Euria ari zuen bitartean aterpean egon gara* perpausean, esate baterako, aterpeko epea euri-epearena bera dela esaten da; epe biak bat datozela, alegia. Aldiberekotasun zehatzak markatzen du aterpeko epearen neurria. Aldiberekotasuna eta iraupena, biak batera, adierazten ditu horrelakoetan mendeko perpausak.

**36.8b** Aldiberekotasunarena azaldua dagoenez (§ 36.6.2), iraupenaren muga, aurrekoa zein azkena, seinalatzen duten forma zedarriztatzaileak aztertuko dira atal honetan. Forma horiekin eginiko perpausa unekoa da, une hori baita perpaus nagusiko gertakariari zedarrria ezartzen diona. Erdiespenekoa izaten da maiz (*sartu denetik, sartu arte*) edo gauzatze burutukoa (*etxea garbitu duenetik, etxea garbitu arte*); jarduera edo egoera adierazten duena bada, haren une bat hartzen da kontuan, hasierakoa (*Gurean dagoenetik, lasaiago bizi da; Sendatua egon arte ez dugu etxera bidaliko*) edo amaierakoa (*Ospitaleratua egon zenetik ez da inoiz klinikara itzuli*). Perpaus nagusiko predikatua, berriz, iraupenekoa da, jarduera edo egoera adierazten duena (*Sartu denetik, hizketan ari da*), eta ezin da unekoa izan (\**Atea ireki dutenetik, aretoan sartu naiz*); erdiespena adierazten duen predikatua, hala ere, ohi bezala, errepikatzeak edo pluraltasunak egiten dute iraupeneko (*Atea ireki dutenetik {bitan sartu naiz ~ jende asko sartu da} aretoan*); ezezko perpausak ere balio ‘iteratiboa’ eman diezaioke uneko predikatuari (*Ikasturtea amaitu zenetik ez naiz eskolara joan*, ‘ez egun batean, ez hurrengoan, ez hurrengoan...’, alegia) eta berdin ezezko zentzua duten perpausak (*Atea ireki dutenetik pertsona bat bakarrik sartu da aretoan*, hots, ‘ez da beste inor sartu’). Izan ere, gramatikala izango bada, iraupeneko moduan ulertu behar da erdiespeneko perpausa; *Nagusiak errieta egin zionetik, garaiz iritsi da Jon lanera* perpausean, esate baterako, ‘egunero iritsi dela garaiz’ ulertzen da.

**36.8c** Mendeko perpaus hauek, pareko osagarri adberbialek bezala, dagokien muga seinalatzea dute xede, ‘noizdanikoa’ batzuek eta ‘noiz artekoa’ besteek. Beste muga ez da aipatzen gehienetan, zehaztu gabe uzten delako: *Bakarrik gelditu zenetik ibili zen triste* —ez da esaten noiz arte—; *Zain egon nintzen zu itzuli arte* —ez da esaten noiztik—. Edo testuinguruak iradokitzen duelako:



*Bakarrik gelditu zenetik dabil triste*, orain arte, alegia, hortik aurrerakoa irekia utziz; *Zain egongo naiz zu itzuli arte*, hemendik aurrera, alegia, hizketa unetik aurrera. Korrelazioan ere jar daitezke, ordea, muga biak: *Bakarrik gelditu zenetik lagun berria ezagutu duen arte triste ibili da*.

### 36.9. Hasierako muga adierazten duten formak

**36.9a** Hasierako muga adierazten duten formek *-tik* atzizkia edo *gero* postposizioa daramate, perpausaz besteko osagarrietan bezala (*etorri zenetik*, *etorri zenez gero*, *etorri gero*).

**36.9b** Erlatiboarekin eginiko *-netik* forma da zeregin honetan maizenik erabiltzen dena. Esan bezala, uneko gertakaria aipatuz seinalatzen du forma honek perpaus nagusiko gertakariaren hasiera: *Bakarrik gelditu zenetik dabil triste*. Zenbaitetan, hala ere, iraupeneko predikatua duelarik, gertakari bien aldiberekotasuna ere ematen du aditzera, hasierako unea nabarmenduz betiere: *Herrenka dabilenetik etxe inguruan egiten ditu paseoak*, hau da, ‘herrenka ibiltzen hasi zenetik’. Perpaus nagusiko gertakaria, berriz, iraupenekoa da beti: *Jaiki denetik*, {*lanean ari da ~ bi aldiz joan da sukaldera*}.

Hasierako unearen adierazpenari zehaztasun batzuk eransten zaizkio inoiz, osagai adverbialen bitartez; hala, iraupenaren nozioa indartzen duena: *Hori jakin zuenetik aurrera lasaiago bizi izan zen*. Azken mugaren aipamena ere egin daiteke, esan den bezala, korrelazioa eratuz, ohiko postposizio sintagma baten bidez nahiz perpaus baten bidez: *Gerla amaitu zenetik hona gauza asko gertatu dira*; *Lanean hasi nintzenetik aurten arte ez dut oporrik izan*; *Ikasketak amaitu zituenetik lana aurkitu zuen arte hiru urte igaro ziren*.

Bizkaieraz kausa edo azalpena adierazteko ere erabiltzen da forma hau: *Zaldunak, gizon gogorra zenetik, agindu zuen biak zigortzea [...]* (T. Etxebarria).

Bestalde, ohikoa den moduan, denboraz bestelako adiera iradoki dezake testuinguruak. *Lurrak ematen duenetik bizi gara* perpausuan, esaterako, ‘eman’ aditzaren objektua da erlatiboaren isilpeko izena, denborarekin zerikusirik ez duena.

Garai batean hedadura handiagoa zuen *-nik* forma erabiltzen da zerbait, bizkaieraz batez ere, ‘noizdanikoa’ adierazteko; adlatiboko atzizkia duen forma adberbial bat izaten du ondoan (*hona, aurrera...*): *Jaio zenik aurrera beti, moila gainean bizi izan zen ontziburu azkarra* (Erkiaga).

**36.9c** ‘Noizdanikoa’ adieraz dezake *-nez gero* formak ere, bere aldaera guztiekin, horrezaz beste kausa edo azalpena adierazteko ere erabiltzen delarik. Zenbaitetan perpausa anbigua izan badaiteke ere, badira ezaugarri batzuk adiera biak bereizten dituztenak. Horrela, esate baterako, egoera iraunkorra adierazten duten perpausak, ezin direnez denborazkoak izan, kausazkoak dira (*Europarra denez gero, pasaportetik gabe ibil daiteke Europa guztian*). ‘Noizdanikoaren’ egiturari jarraitzen ez zaizkion perpausak ere azalpenezkoak dira; hala gertatzen da mendekoa ezezkoa denean, uneko gertakaria adierazten ez duen neurrian (*Entzulerik etorri ez denez gero, bertan behera utzi dugu hitzaldia*), edo uneko irakurketa nekez duen egoera adierazten duena (*Jakintsua denez gero, harengana jotzen dugu aholku eske*); gauza bera gertatzen da nagusia iraupenekoa ez denean (*Eguna argitu duenez gero, lanera joan da* —ikus, aldiz, iraupenekoa izanik denborazkoa ere izan daitekeen *Eguna argitu denez gero, lanean ari da* perpausa—). Perpaus nagusia geroari dagokionean ere kausazkoa izan ohi da (*Eskatu didazunez gero, emango dizut aholkua; Inglaterra joan zarenez gero, balia ezazu aukera ingelesa ondo ikasteko*). Aldiz, mendekoa galdegai denean denborazkoa da, azalpenezkoa perpausaren kanpoko osagarria baita, ez galdegaia (*Eguna argitu duenez gero ari da lanean, ‘noiztik’ alegia*). Perpausen esanahiak ere erakutsi dezake inoiz zein den adiera: *Ameriketara joan zenez gero, ez da itzuli* perpausa, esate baterako, ez da kausazkoa, norabait joatea ez baita, arrunki behintzat, ez itzultzeko arrazoia. Badira, hala ere, esan dugun moduan, anbiguoak diren perpausak (*Ikasturtea amaitu zenez gero, oportretan dabil*, hau da, ‘amaitu zenetik’ nahiz ‘amaitu zenez’).

Forma honek aldaera hauek ditu Iparraldean: «*-naz {gero ~ geroz ~ geroztik}*». Azken biak dira maizenik erabiltzen direnak; ‘noizdanikoa’ ere seinala dezaketete, baina kausa edo azalpena adieraztea dute ohikoena. Hegoaldean, berriz, «*-nez {gero ~ geroz ~ geroztik}*» dira aldaerak. Lehenbiziko biak dira erabilienak,

eta horiek dira, hain zuzen ere, maizenik kausa adierazten dutenak; *-nez geroztik* aldaera da gutxien erabilia, eta hori da denbora-balioan leku zabalena duena.

**36.9d** ‘Noizdanikoa’ adieraz dezake, azkenik, *-tuz gero* formak ere, perpaus nagusia iraupenekoa denean: *Ezkonduz gero Gasteizen bizi dira*. Hiru aldaerak erabiltzen dira, «*-tuz {gero ~ geroz ~ geroztik}*»: *Ezkonduz gero, arantza batek ez die ukitu* (Agirre); [Atorra eta maindirea] *ez zizkioten aldatu, gaixotuz geroz* (Etxaide); *Munduratzuz geroztik hirian naitz bizi* (Iratzeder).

Perpaus nagusia unekoa denean, ordea, ‘noizdanikoa’ ez, ondokotasuna ematen da aditzera: *Ezkonduz gero, Gasteiza joan ziren bizitzera* perpausak, esaterako, *noiz?* galderari erantzuten dio, ez *noizdanik?* galderari. Eta, bestalde, baldintza adierazteko ere erabiltzen da forma hau: *Dirua izanez gero, auto berria erosiko nuke*. Ondokotasuna aztertzen den atalean azaltzen da zertan bereizten diren hiru erabilera horiek: noizdanikoa, ondokotasunekoa eta baldintzari dagokiona (§ 36.7.3h).

## 36.10. Hondarreko muga adierazten duten formak

**36.10a** Hondarreko muga adierazten duten forma zedarriztazaileak *arte, artean, arteraino, artio* edo *bitartean* postposizioekin eratuak dira. *Hura* erakuslearen ablatibo zaharrarekin eginiko *harik eta* partikula konplexua har dezake te ezkerrean, perpausaren lehen buruan, gertakariaren aurreko muga modu abstraktuan seinalatuz: *Ez nuen sinetsi, harik eta neronek ikusi nuen arte*.

**36.10b** *Arte* postposizio soilarekin eginiko *-tu arte* eta *-n arte* formak ez dira testuetan XVIII. mendearen bigarren erdira arte ageri. Gaur egun, berriz, erabilera zabala dute euskalki guztietan, *artio* postposizioa erabiltzen duten batzuetan izan ezik. Uneko predikatuekin erabiltzen dira, ohi denez (*sartu arte, etxea garbitu arte*). Partizipioarekin egina da maizenik erabiltzen den forma —aditzoina erabiltzea horren ohikoa ez bada ere, *ikus arte* bezalako esaldietan berderen ageri da—, baina adizki jokatuak *-n arte* forma ere ohikoa da (*Zain egon gara, laguna etorri den arte*); geroari dagozkionak subjuntiboarekin ematen

dira maiz (*Ez zara joango, lan guztia egin dezazun arte*) nahiz eta orainaldi burutugabea, burutu markatua edo, maila jasoan, *-ke* duena ere erabil daitezkeen (*egiten duzun arte, lan guztia ondo egin duzun arte, eta egin dukezun arte, hurrenez hurren*).

*Ez* adberbioarekin ematen dira inoiz forma honetako perpausak, predikatua unekoa delarik: *Ez zen etxeratu, galdutako poltsa aurkitu ez zuen arte; Maisua ikasgelatik ateratzen denean, jolasean aritzen dira ikasleak hura itzultzen ez den arte*. Azken mugako gertakari bezala ulertuta desegokia da perpaus horietako *ez*-a, eduki semantikorik gabea, gertakaria ez baita ‘poltsa ez aurkitzea’ eta maisua ‘ez itzultzea’, ‘aurkitzea’ eta ‘itzultzea’ baizik; *aurkitu zuen arte* (edo *aurkitu arte*) eta *itzultzen den arte* (edo *itzuli arte*) dira forma ego-kiak. Zuzen erabilia da *ez*-a, ordea, bere edukia gordetzen duenean: *Irekita eduki zuten aretoko atea, barnean inor geratzen ez zen arte*, hau da, ‘inor geratzen ez zeneko egoera iritsi arte’; ‘inor ez geratzea’ da hor gertakaria.

*Arte* postposizioari *-ko* atzizki adberbiala erantsita eraturiko *-tu artean* forma ere erabilia izan da zerbait, ez asko, azken muga adierazteko (*Isildu egin beharko dugu, berriz agindu arteko*, Lasarte). Ez da nahasi behar *arteko* hori, noski, homonimo duen izenlagunarekin (*Ezkundu arteko denbora guztia herrian igaro zuen*).

**36.10c** Inesiboko postposizioa duten *-tu artean* eta *-n artean* formak testu zaharrenetatik aurrera daude dokumentatuak, euskalki guztietan, zubereran eta goi nafarreran izan ezik. Ohiko moduan erabiltzen dira hauek ere, ‘noiz artekoa’ adierazteko (*sartu artean, sar artean; sartu den artean; sar dadin artean*); partizipioarekin egina da maizenik erabilia.

Bietara erabiltzen dira bai *artean* bai *arte* soila duten formak: ‘noiz artekoa’ adierazten dute predikatua unekoa denean eta iraupeneko aldiberekotasuna, berriz, hura iraupeneko denean. Gaur egun, hala ere, gorago esan den bezala, badirudi biak bereizteko joera dagoela mendebaldean, *arte* azken mugakoetan eta *artean* iraupenekoetan erabiliz (§ 36.6.2d).

Askoz ere hedadura urriagoa izan dute «{-tu ~ -n} arterainokoan» forma konplexuek, azken mugako gertakaria adierazteko bakarrik erabiliak, lapurteraz

batez ere; eta are urriagoa «aditzoina + *artekan*» forma, zubererakoa batez ere, ‘noiz artekoa’ adierazteko bakarrik erabilia hau ere.

**36.10d** Postposizio buruan *-raino* atzizkia duten *-tu arteraino* eta *-n arteraino* formak *arte* soilarekin eginiko formen erabilera bertsua dute; *arte* soilarenak ez bezala, testu zaharrenetan dokumentatuak daude hauek. *Arteraino* postposizioa dutenak ohikoak dira azken muga adierazteko (*sartu arteraino*, *sar arteraino*; *sartu den arteraino*; *sar dadin arteraino*); adizki jokatuko *-n arteraino* forma zerbait erabilia izan da iraupeneko aldiberekotasuna adierazteko ere (*dirauen arteraino*), baina gaur egun ez da ohikoa adiera horretan. Aldaera, bizkaieraz: *artegino*.

**36.10e** *Artio* (*arteo*) postposizioarekin eginiko *-tu artio* forma ekialdeko euskalkietan erabiltzen da batez ere, ‘noiz arteko’ muga adierazteko —partizipioaren lekuan aditzoina duela, inoiz—: *Bazka bustirik bada utzi behar da idor artio* (Intxauspe); [...] *behar ditugu fandangoak eman, lehertu artio* (Larzabal). Geroari buruzkoak *-n artio* formarekin ere eman daitezke, subjuntiboan maiz: *Ezarri ontzi batean garratz iduri gozo bat har dezan artio* (Duvoisin). *Artino* aldaerarekin eginiko formak ere, zubererakoak eta behe-nafarrerakoak, ‘noiz artekoa’ adierazteko erabiltzen dira: *Bidea izarrak erakutsi zien Jerusalemara hel artino* (Intxauspe). Aldaera: *arteo*.

**36.10f** Era berean, *-tu bitartean* forma batez ere iraupeneko aldiberekotasuna adierazteko erabiltzen den arren (§ 36.6.2b), azken mugako gertakaria, unekoa, ere adieraz dezake: *Itxarongelan eseriko naiz trena iritsi bitartean* —postposizioaren aldaerak: *bitarte*, *bitarteo* (goi-nafarrera)—. Horren ohikoa ez bada ere, *-n bitarte(an)* formak ere adiera hori izan dezake: *Guk elkarrekin pasa ditugu / bertotan zenbaitxo urte, / behin ezagutu ginenetik / gaixotu nintzen bitarte* (Uztapide).

**36.10g** Aditz izenarekin eginiko *-tzeraino* formak ere muga adierazten du; ez, ordea, berriaz denborari dagokiona. Prozesu edo gertakari progresiboen baten azken muga adierazten du eskuarki, hau da, azken ondorioa, askotan balio enfatikoa edo intentsiboa duelarik (*la burua soiltzeraino moztu diote ilea*; *Gaixotzeraino larritzen nau egoera horrek*). Dena dela, ‘noiz artekoa’

adierazten duten perpausekiko duen antz edo hurbiltasunagatik, nozio hau adierazteko erabiltzen da inoiz (*Euskaldun jaiotzen eta hiltzeraino izango naiz euskaldun*); horrelakoetan, hala ere, ohikoagoa da gorago aipatu ditugun formetako bat erabiltzea (*hil arte*, esate baterako). Alderantziz ere gertatzen da zenbaitetan, *-tu arte(raino)* forma erabiltzea gertakari progresiboaren azken muga adierazteko: *Odoletan ipini arte zigortu zuen*; hor, bistan da, ‘zenbatetaraino’ edo ‘zein puntutaraino’ esan nahi da, ‘odoletan ipintzeraino’, alegia.

### **36.11. Maiztasuna ere adierazten duten kokapenezko perpausak**

**36.11a** Aurreko ataletan aipatu ditugun formek ere badute, besteak beste, aldebereko gertakarien maiztasuna —errepikatzea edo ohikotasuna— adierazteko gaitasuna (*Herriratzten naizenean pozik ibiltzen naiz lagun zaharrak agurtzen*; *Ohera orduko loak hartzen du beti*), baina badira gertakarion gauzatzealdiak berariaz adierazten dituzten formak: *-netan*, *-nero* edo «*-n {bakoitzean ~ guzti(et)an ~ orotan ~ gehienetan ~ bakanetan...}*» (*Herriratzten naizenetan pozik ibiltzen naiz batetik bestera*; *Hara joaten nintzenero gauza bera entzuten nuen*; *Zigorra izango duzu, gezurra esaten duzun bakoitzean*; *Hara joan naizen guztietan besoak zabalik hartu naute*).

Erabilera urriagoa dute partizipioarekin eginikoek: *-tu bakoitzean* (*Ni harrituta gelditzen naiz gogoratu bakoitzean*, *Uztapide*), *-tu aldiro* (*Haren argazkia ikusi aldiro negarra heltzen zitzaien*). Partizipio erlatiboarekin ere erabil daiteke (*gizon hura ikusitako bakoitzean*).

**36.11b** Aldi izena isilpean duten erlatiboak dira horiek (*herriratzten naizen [aldi]etan*; *joaten nintzen [aldi]ero*; *esaten duzun [aldi] bakoitzean...*). Izena agerian dutela ere erabiltzen dira: *hori gertatzen den aldietan*, *ikusten dudan aldiro*, *hori egiten duzun aldi bakoitzean...*; edo batez ere zubererakoa den *aldikal* adberbioarekin (*komuniatzen dugun aldikal*). Esan daiteke, bada, izen ardatz zehatza duten erlatiboak direla horiek, hura agerian edo isilpean dutelarik.

Izen sintagmaren gainean eraikitako postposizio sintagmak dira, bada, aurreko kapituluan aztertutakoen sailekoak (§ 35.2.12b).

Esan behar da, gainera, gertakarien kokapena seinalatzen duten osagarriak direla berez horrelakoak, horrekin batera maiztasuna ere adierazten duten arren: *noiz?* galderari erantzuten diote, ez *zenbat aldiz?* galderari. *Bi alditan etorri da* perpauseko osagarriaren gisakoak maiztasunezkoak dira, *zenbat aldiz?* galderari erantzuten baitiote; *Etorri den aldi guztietan pozik ibili da gure artean* perpausaren modukoak, berriz —osagarri mugatua dutenak—, kokapenezkoak dira, *noiz?* galderari erantzuten diotenak.





## 37. Helburuzko perpausak

---

- 37.1. Sarrera. Zer diren. Harremanak kausalekin eta ondoriozkoekin
  - 37.2. Helburuzko perpausak: formak eta motak; 37.2.1. Formak; 37.2.2. Motak
  - 37.3. Subjuntiboarekin eginiko helburuzko perpausak; 37.3.1. Subjuntibo soilarekin eginak; 37.3.2. Subjuntiboa postposizioarekin edo aurretiko partikularekin; 37.3.3. Helburuzkoen hurbileko subjuntibozko perpausak
  - 37.4. *-tzeko* formarekin eginiko helburuzko perpausak; 37.4.1. *-tzeko* soila; 37.4.2. «*-tzeko* + postposizioa» egiturako formak; 37.4.3. Helburua eta ezinbesteko baldintza; 37.4.4. *-tzeko* formarekin eginiko helburuzkoen bestelako perpaus mota batzuk
  - 37.5. *-tzeagatik* eta *-tzearren* formekin eginiko helburuzko perpausak; 37.5.1. *-tzeagatik* eta *-tzearren* formak, kausazko eta helburuzko; 37.5.2. Helburuzko *-tzeagatik* forma; 37.5.3. Helburuzko *-tzearren* forma; 37.5.4. *Esateagatik esan* gisako esaldiak
  - 37.6. *-tze aldera* formarekin eginiko helburuzko perpausak; 37.6.1. Aldaerak eta adierak; 37.6.2. Erabilera; 37.6.3. *Esate aldera esan* gisako esaldiak; 37.6.4. Trukearen adierazpidea; 37.6.5. *-tze aldera*, helburuzkoen bestelakoetan: *zertarako-* eta *zertara-*osagarri
  - 37.7. *-tzera* formako osagarriak eta helburuzko perpausak
- 

### 37.1. Sarrera. Zer diren. Harremanak kausalekin eta ondoriozkoekin

**37.1a** Perpaus mota desberdinak sartu izan dira gramatiketan HELBURUZKO PERPAUSEN MULTZOAN. Batetik, perpaus nagusian aipatzen den gertakariaren

xedea adierazten dutenak dira, edo, zehatzago esanda, gertakari horren egilearen xedea seinalatzen dutenak; horrelako gehienak *-tzeko* formarekin edo subjuntiboarekin eratzen dira: *Lagunak autoa saldu du etxebizitza erosteko; Mailegua eman diote lagunari etxebizitza eros dezan*. ‘Etxebizitza erostea’ da, lehen adibidean, autoa saltzean lagunak izan duen helburua, eta hori bera, bigarrenean, mailegua eman diotenen xedea.

Badira, ordea, forma horiek berak erabili arren borondatezko xedeaz bestelako zertarakoak adierazten dituzten perpausak, hau da, ‘asmorik’ eta berariazko egilerik gabeko erlazioak aditzera ematen dituztenak, hala nola, esate baterako, baliagarritasuna (*egokia da likido hau autoa garbitzeko; sasoi egokia da uda atseden har dezagun*), gaitasuna (*gai da azterketa guztiak gainditzeko*), prestasuna (*prest nago lanean hasteko*), aukera (*hizkuntzak ikasteko aukera ematen die ikasleei Erasmus programak*) eta horrelakoak.

**37.1b** Formetan bat datozen arren, aldeak badira perpaus mota bi horien artean. Helburua adierazten dutenak osagai adjuntuak dira, predikatuak hautesten ez dituenak eta, hortaz, aukeraz erantsiak; ‘xedearen’ adierazpena gehitzen diote predikatuak adierazten duenari. *Autoa saldu dut* perpausak, esaterako, berez du zentzua, bestelako osagairik gabe ere; *etxebizitza erosteko* perpausa erantsita, berriz, aipatu gertakariak duen xedearen adierazpena gehitzen da. Zein-nahi predikaturekin adierazten dute helburua horrelako perpausak, esaldi gramatikalak eratuz, esanahiaren egokitasuna gorabehera: {*Autoa saldu dut ~ mailegua eskatu dut ~ lagunekin mintzatu naiz ~ gogor lan egin dut ~ korrika ibili naiz ~ belauniko jarri naiz ~ zigarroa erre dut...*} *etxebizitza erosteko*. Bestelako zertarakoak adierazten dituzten perpausak, aldiz, predikatuak eskatzen edo hautesten dituen osagarri argumentalak dira —labur, ‘osagarriak’—, haren sare semantikoaren barnean direnak. Beharrezkoak dira osagarri horiek, esaldia herren geratuko ez bada. *Gure haurra prest dago* esaldiari, adibidez, dagoen dagoenean zerbait falta zaio; osagarria behar du, agerian ez bada isilean —‘zertarako prest dagoen’ adierazten duen osagarria, alegia—. Eta, bestalde, predikatuaren araberakoa da perpausak aditzera ematen duen nozioa: baliagarritasuna, aukera, gaitasuna, nahikotasuna... —*ahaleginak egin, aukera izan, egoki izan, baimena izan, balio izan, falta izan, gai izan, gogo*

*izan, libre izan, prest izan, aski izan* eta horrelakoak dira, hain zuzen ere, perpaus horien predikatuak—; kuantifikazioa adierazten duen sintagma ere izan daiteke horrelakoen predikatu: *Handiegia da atetik sartzeko*. Lehen motakoak ‘helburuzko perpaus’ adjuntuak dira, hots, ‘helburuzkoak’ zentzu hertsian, eta bigarren motakoak, berriz, ‘zertarako-osagarriak’. Aurrerago azalduko da badirela mota bi horien tarteko perpausak ere, § 37.4.4b.

**37.1c** Badira, hirugarren, mugimenduzko predikatuen *jomuga* adierazten duten perpausak, edo, zehatzago esanda, jomugako gertakaria seinalatzen dutenak; *-tzera* formarekin eratuak dira horrelakoak —*-tzen*, bizkaieraz—, eta predikatuak bere sare semantikoan integratzen dituen perpaus osagarriak dira hauek ere, ‘zertara-osagarriak’ (*erosketak egitera joan da azokara; garbitzera eraman du autoa*). *Joan, bidali, bultzatu, eraman* eta horrelakoak dira perpaus hauen predikatuak.

**37.1d** Gramatikak ez datoz bat perpaus hauen sailkatze kontuan. Batzuek lehen motako perpausak bakarrik sartzen dituzte ‘helburuzkoen’ multzoan, hau da, berariazko egilearen xedea adierazten dutenak. Beste batzuek, berriz, formetan eta nolabaiteko xede-esanahian dituzten antzak kontuan hartuta, hiru perpaus motei egiten diete leku ‘helburuzkoen’ multzo zabalean, zentzu hertsiko helburuzkoetz gain, baita *zertarako-osagarriei* eta *zertara-osagarriei* ere. Gramatika honetan aurreko motakoei ematen zaie ‘helburuzko’ deitura zehatza, eta horiek aztertuko dira berariaz kapitulu honetan; beste biei buruzko aipamenak ere egingo dira, hala ere, han-hemen, helburuzkoekin dituzten antzak eta aldeak agertzeko, baina horrelakoen azalpen betea perpaus osagarrien kapituluan egiten da.

**37.1e** Zentzu hertsiko helburuzko perpausen oinarrian gertakari biren arteko KAUSA-ONDORIO erlazioa dago, beste perpaus mota batzuen oinarrian bezala. Besteetan ez bezala gauzatzen da, ordea, erlazio hori helburuzkoetan. Izan ere, izaera bikoitza erakusten dute hauek. Alde batetik, bistan da, perpaus nagusiko gertakariaren *ondorio* dena seinalatzen dute —autoa saltzearen ondorio da etxebizitza erostea, goiko adibidean—; ondorio hori, ordea, ez da gertakari gauzatu moduan agertzen, gertakizun moduan baizik, hau da, egilearen borondatean dagoen ondorio moduan. Helburuzko perpausak, hain zuzen ere, ez du

berez ondorioa gauzatu denetz esaten —hori beste nonbaitetik jakin dezakegu edo testuinguruari esker ondorioztatu—; gertakari nagusiaren egileak ondorio hori lortzea duela xede, hori da helburuzko perpausak dioena. Beste alde bate-tik, berriz, xede hori perpaus nagusiko gertakariaren eragilea ere bada —etxea erosteko asmoak eragin du autoaren saltzea, adibidean—. Ondorioa eta eragi-lea da, hortaz, helburuzko perpausak aipatzen duen gertakaria; helburua eta kausa aldi berean. Eta ezaugarri hori dute bereizgarri, hain zuzen ere, helbu-ruzko perpausak, kausa-ondorio erlazioari dagokionez, hurbileko dituzten bes-te perpaus moten aldean.

**37.1f** Hurbilekoak dituzte, hasteko, kausazko perpausak, helburua eragile ere baden neurrian (§ 38.1.2). Antzeko ezaugarriak dituzte perpaus mota biek. Ba-tetik, *zergatik* motibatiboari erantzun diezaiokete batzuek eta besteek: *Zergatik mugitu duzu aulkia?* —{*Traban zegoelako ~ Trabatik kentzearren*}. Helburuaz galdetzen duen *zertarako* galdetzailea —*zertako, zerendako, aldaerak*— kausaz galdetzeko ere erabiltzen da, *zergatik* komunaren pare: *Zertako ez haiz gurera agertu?* (Epaltza). Postposizio motibatiboekin eginiko *-tzeagatik* eta *-tzearren* formek kausazko nahiz helburuzko perpausak era ditzakete, kausa bezala helburua ere izan baitaiteke gertakariaren motibo: *Marka ontzeagatik {sari handia eman diote ~ entrenamendu gogorrak egiten ari da}*. Aurrerago ikusiko den bezala, bestalde, antzeko jokabide sintaktikoak dituzte kausazko perpausak eta helburuzkoek, predikatuaren barneko eta kanpoko konplementuak eratzea-ri, galdegaien kontrasteari eta horrelakoei dagokienez.

Aldeak ere badira, ordea, perpaus mota bien artean. Kausazkoek adierazten duten gertakaria gertakari nagusiaren aurrekoa, edo aldiberekoa, da beti: *Euria egin duelako daude kaleak bustita; Gazteegia delako baztertu dute*. Helburuzkoak, aldiz, prospektiboak dira, gertakari nagusiaren ondoko gertakaria aipatzen baitute beti: *Autoa saldu du etxebizitza erosteko* —aurrena autoa saldu, ondoren etxebizitza erosi—. Gauzaturiko gertakaria ematen dute aditzera kausazkoek (‘*euria egin du*’, ‘*gazteegia da*’, adibideetan) eta gertakizun dena, berriz, helburuzkoek (etxebizitzaren erosketak gertakizun da autoa saldu duenean). Helburuzkoek, bestalde, berariazko egilea eskatzen dute; ez hala kausazkoek, hauetan kausa borondateduna nahiz borondateaz bestelakoa izan

baitaiteke. Ezaugarri horiek bereizten dituzte, hain zuzen ere, aurrerago ikusiko den bezala, *-tzeagatik* eta *-tzearren* formatako kausazko perpausak eta forma horiek berak dituzten helburuzkoak (§ 37.5.1).

**37.1g** Ondoriozko perpausak ere helburuzkoen hurbilekoak dira, semantikari dagokionez, perpaus nagusiko gertakariaren ondorioa aipatzen baitute biek, baina aldea bada hauen artean ere. Ondoriozkoek ondorio gauzatua aipatzen dute, egilearen borondatea gorabehera burutua: *Leherketa hain handia izan da, non denak isil-isilik gelditu baitira*. Helburuzkoek, berriz, esan bezala, gertakizun den eta berariazko egilearen borondateari dagokion xede-ondorioa ematen dute aditzera: *Garrasi egin die irakasleak, isil daitezten*. Lehen adibidean ‘denak isiltzea’ gauzaturiko ondorioa da, perpaus nagusian berariazko egilerik aipatzen ez delarik; bigarrenean, berriz, irakaslearen borondatea ematen da aditzera perpaus nagusiko gertakarian eta ondorioa, ‘ikasleak isiltzea’, gertakizun da. Argi ikusten da perpaus mota bien aldea biak biltzen dituen esaldi honetan: *Lehenbailen ikasten has zitezten irakasleak halako errieta egin zien, non ikasle denak isil-isilik gelditu baitziren*; lehen mendekoak, helburuzkoak, irakasleak lortu nahi duen ondorioa ematen du aditzera (ikasleak ‘ikasten hastea’); bigarrenak, ondoriozkoak, gauzatutako ondorioa (ikasleak ‘isil-isilik gelditzea’).

Hauek dira, bada, labur esanda, kausa-ondorio erlazioan helburuzko perpausak dituzten ezaugarri bereizgarriak: perpaus nagusian xedea lortu nahi duen berariazko egile bat aipatzen dela, eta xedea, bistan dena, gertakari nagusiaren ondokoa dela.

**37.1h** Xedea adierazteko, subjuntiboaz beste, *-(ra)ko*, *-tzat*, *-gatik* edo *-arren* postposizio destinatibo edo kausazkoekin eraturiko sintagmak erabiltzen dira batez ere. Postposizio horiek perpaus nominalizatua gobernatzen dutenean helburuzko perpausak eratzen dira —edo *zertarako*-osagarriak, *-ko* atzizkiaren kasuan—, baina izen sintagma arrunta gobernatuz ere erabil daitezke, genitiboari erantsita zenbaitetan, zentzu zabaleko helburuarekin zerikusia duten sintagmak eratuz (*etxerako*, *zuretzat*, *diruagatik*...). Postposizio sintagmak dira denak, baina batzuetan perpausa dute bere gobernuaren pean, perpaus nominalizatua —<sub>[PS]</sub> [(*etxera lehenbailehen iriste*)a]gatik—, eta besteetan ohiko izen sintagma —<sub>[PS]</sub> [(*sari*)a]gatik—.

Gertakariaren onuraduna —persona edo gauza— seinalatzen dute askotan izenarekin eginiko sintagma hauek: *Lagunarentzat erosi dut liburu hau*; *Etxerako erosi dut margo polit hau*; gertakari izenarekin eginak direnean, berriz, gertakariaren gauzatzea seinalatzen dute eskuarki helburu bezala: *Erabaki ezazu behingoz eguna ezkontzarako*, hots, ‘ezkontza egiteko’; onuradunik edo gertakari izenik ez denean, aditzen bat suposatzen da askotan, sintagmari bere esanahia ematen diona: *Oporretarako erosi du liburua*, ‘oporretan irakurtzeko’; *Hazitarako utzi*, ‘hazia eman dezan’; *Diruagatik egin du lan gogor hori*, ‘dirua irabazteko’. Motibatiboak kausa zein helburua adieraz dezake sintagma hauetan ere: *Sariagatik {poztu da ~ ari da hainbeste saiatzen}*, hots, ‘saria irabazi duelako’ edo ‘saria irabazteko’.

Helburua adieraz dezakete, halaber, «[-tzeko + izena] + postposizioa» egiturako sintagmek, izenak asmoa edo xedea adierazten duenean (*irabazteko asmotan*, *garai izisteko helburuz*, *laguntzeko xedearekin*); -tzeko izenlaguna duen izen sintagmarekin eginiko postposizio sintagmak dira horiek: [<sub>ps</sub> [[(laguntzeko) xede]a]rekin]. Sintagma mota honetatik sortuak dira, hain zuzen ere, helburuzko perpausak egiteko erabiltzen diren forma zenbait; izena isilpean utzita eraturako formak izan daitezke horrelakoak, hala nola -tzekotan (*irabazteko asmotan* > *irabaztekotan*), edo erabilerak forma finko bilakatuak, hala nola -tzeko amoreagatik, non *amoreagatik* postposizio bilakatu den (*irabazteko amoreagatik*).

Postposizio sintagma horiek bere lekuan aztertuak direnez (ikus 21. kapitulua), gobernupean perpausa dutenak, hots, helburuzko perpausak, aztertuko dira kapitulu honetan.

## 37.2. Helburuzko perpausak: formak eta motak

### 37.2.1. Formak

**37.2.1a** *Subjuntiboa* bera aski da, -n morfema duena, beste atzizki edo partikularik gabe, helburuzko perpausak eratzeko: *Liburu bat oparitu diot oporretan irakur dezan*. Helburuaren nozioa areago markatzeko, hala ere, postposizio

motibatibo bat erantsi izan zaio inoiz subjuntiboari, «*egin {dezantzat ~ dezangatik ~ dezan amoreagatik}*» gisako forma konplexuak eratuz, edo partikula bat eman aurretik, «*{amoreagatik (eta) ~ arren (eta) ~ nahiz(ik) eta} egin dezan*» gisakoak antolatuz; *egin dezan beldurrez* eta *beldurrez egin dezan* gisakoek, berriz, ezezkako helburua ematen dute aditzera, saihestu nahi dena, alegia. Menderagailu konplexutzat har daitezke, bada, *-ntzat*, *-ngatik*, *-n amoreagatik*, *amoreagatik ...-n* eta gainerakoak. Forma konplexu horien erabilera, halaz ere, urritzen joan zen XIX. eta XX. mendeetan zehar, aurrerago azalduko den bezala.

**37.2.1b** Adizki jokatu gabea dutenetan, *-tze*ko forma da helburuzko perpausetako formarik maizkoena: *Liburu bat erosi dut oporretan irakurtzeko*. Helburuzko esanahia areago markatzeko, berriz, postposizioa eransten zaio inoiz forma honi ere, *-tzekotzat*, *-tzekotz*, *-tzekotan* eta *-tze*ko amoreagatik forma konplexuak eratuz.

Postposizio motibatiboa duten *-tzeagatik* eta *-tzearren* formek ere helburuzko perpausak eratzen dituzte: *Lanera garaiz iristeagatik jaiki naiz horren goiz*; *Mina arintzearren hartzen ditut botika horiek*.

*Alde(ra)* postposizioarekin eraturiko *-tze alde(ra)* forma ere erabiltzen da gaur egun helburuzko perpausak eratzeko, besteak beste: *Protestak iragarri dituzte*, *presioa egite aldera*; *Beldurrak airean geunden*, *egia esate aldera*.

**37.2.1c** Forma jokatu gabe horiek guztiak *-tze* atzizki nominalizatzailearen gainean eraikiak daude, ikusten denez. Atzizki hori aditzoinari eransten zaio —dagozkion egokitzapen fonetikoak eginda—, eta, horrela, aditz izena eratzen dela esan ohi da (*ekartz*e, *egite*, *igarotze*) (§ 25.3). Esan behar da, edozein kasutan, atzizkia aditzari itsasten bazaio ere eta, hortaz, aditz izenaz mintzo garen arren, perpaus osoa dela nominalizatzen dena<sup>1</sup>. *Dirua aurrezten ari naiz*

<sup>1</sup> De Rijk: “Firmly established as it is, the term «verbal noun», due to canon Inchauspe (1858), is actually a dangerous misnomer. What is nominalized is not the verb but rather the whole clause containing it. As an illustration, consider (1) *Ez da ona gizona bakarrik egotea* [...]. The grammatical subject of example (1) is the nominalized clause *gizonak bakarrik egotea* [...]” (2008: 140-141).

*etxe berria erosteko* esaldian, adibidez, (*nik*) *etxe berria eros* perpausa da *-tze* atzikia hartuta nominalizatu dena edo, bestela esanda, *-tze* nominalizatzaileak gobernatzen duena: [(*nik*) *etxe berria eros*]te. Eta horri eransten zaio *-ko* postposizioa, edo, kasuan-kasuan, *-gatik*, *-arren* edo *aldera* postposizioak.

Hori horrela izanik, *-tzeko*, *-tzeagatik*, *-tzearren* eta *-tze aldera* formez mintzo garenean, hau adierazi nahi dugu: forma horiek aditzari eransten zaizkio-  
la, bai, baina honek biltzen duen perpaus osoari dagozkiola; perpaus nominalizatuari helburua adierazten duen postposizioa erantsita eratzen dela, alegia, helburuzko perpausa: [<sub>HeIP</sub> [<sub>Pnom</sub> [<sub>P</sub> ~~nik~~ *etxe berria eros*]te]ko]. Erabilerak, ordea, batu eta gramatikalizatu egin ditu *-tze* + *-ko*, *-tzea* + *-gatik*, *-tzea* + *-arren* edo *-tze aldera* multzoak, besteak beste helburuzko perpausak egiteko erabiltzen diren *-tzeko*, *-tzeagatik*, *-tzearren* eta *-tze aldera* forma finakoak eraturaz. Hortaz, honela aurkezten ditugu hemen perpausok: [<sub>HeIP</sub> [<sub>P</sub> ~~nik~~ *etxe berria eros*]teko]<sup>2</sup>.

**37.2.1d** Hona, bada, labur bilduta, helburuzko perpausen formak:

a) Perpaus jokatuak, subjuntibodunak

- subjuntibo soila (*egin dezan*)
- «subjuntiboa + postposizioa»:  
(*egin {dezantzat ~ dezagatik ~ dezan amoreagatik ~ dezan beldurrez}*)
- «partikula + subjuntiboa»:  
(*{amoreagatik (eta) ~ arren (eta) ~ nahiz(ik) eta, ~ beldurrez} egin dezan*)

b) Perpaus jokatugabeak, aditz izenaren gainean eraikiak

- *-tzeko* soila (*egiteko*)
- «*-tzeko* + postposizioa»: *-tzekotzat*, *-tzekotz*, *-tzekotan* eta *-tzeko amoreagatik*
- *-tzeagatik* eta *-tzearren* motibatiboak
- *-tze aldera*

---

<sup>2</sup> HeIP: helburuzko perpausa, hau da, kasu honetan, gobernupean perpausa duen postposizio sintagma; PNom: perpaus nominalizatua; P: perpausa.



### 37.2.2. Motak

Jokabide sintaktikoari dagokionez, kausazkoen antzeko ezaugarriak dituzte helburuzko perpausak (§ 38.2). Predikatuaren barneko nahiz hartaz kanpoko konplementu izan daitezke hauek ere; kanpokoak, dena dela, maiztasun txiki-koak dira.

**37.2.2a** Helburuzko perpausak predikatuaren barneko osagaiak dira gehienetan, hura —ez perpaus osoa— modifikatzen dutenak. Hortaz, ezaugarri jakinak dituzte: informazio berria dakarren galdegia izan daitezke, *zertarako?* galderari erantzunez: *Zertarako erosi duzu liburu hori?* —*Oporretan irakurtzeko*, edo galderarik gabe: *Oporretan irakurtzeko erosi dut liburu hori; bai-ez kontrastean ere erabil daitezke, helburuzko perpausa ukagaia delarik: Ez dut liburua besteri emateko erosi, neronek irakurtzeko baizik*; kontrastean ematen direnak helburuzkoak eta kausazkoak izan daitezke: *Ez dut hori esan zuri poza emateagatik, egia delako baizik*; perpausari hanpadura berezia ematen dioten murriztaileak onartzen dituzte: *Egia esan, Irujo jokatzeko ikustearren bakarrik merezi du etortzea (Berria); Zertarako eman zait bestela adimenaren argia, bilatzeko baizik?* (Txillardegi); beste helburuzko perpausekin, kausazkoekin edo postposizio sintagma destinatibo nahiz motibatiboekin juntatuak eman daitezke: *Etxea apaintzeko eta lagunari poza ematearren ekarri dut margo eder hori; Berandu delako eta etxera garaiz iristearren hartu dut autobusa; Osasunagatik eta naturaz gozatzeko egin dut ibilbide hori.*

Predikatuaren barneko perpaus hauek bere hartan uzten dira haien nagusia beste baten mendekoa denean ere: *Gizartean aurrera egiteko gezurretan ari-zen dena ez da urrutira joango; Mailegua etxebizitza erosteko eskatu zuen arren, jokoan gastatu du diru guztia.*

**37.2.2b** Predikatuaz kanpoko konplementu ere izan daitezke perpaus hauek zenbaitetan, hau da, perpaus osoaren modifikatzaile. Helburuzko perpausak ez du horrelakoetan predikatuak esaten duenaren xedea azaltzen, esatearena berarena baizik: *Don Kijotek, egia esateko, gauza harrigarri asko egin zituen.* ‘Egia esatea’ ez da, adibidean, Don Kijotek gauza harrigarri asko egitearen helburua, enuntziazioarena berarena baizik; ‘egia esateko diot hori’, alegia.

Aurrerago ikusiko den bezala, esapide birformulatzailerik gisa erabiltzen dira zenbaitetan horrelakoak.

Ondoko adibideek erakusten dute argiro perpaus mota bien arteko aldea. *Diapositibak erabili ditu hitzaldian gauzak zehatzago adieraztearren* esaldian predikatuaren barnekoa da mendeko perpausa, aditz nagusia modifikatzen baitu; diapositibak zertarako erabili dituen ematen du aditzera. *Erakunde horren barnean, gauzak zehatzago adieraztearren, estatu behartsuek bakarrik ez, baita estatu aberatsek ere parte hartzen dute (Argia)* esaldian, berriz, mendekoa predikatuz kanpokoak da, perpaus osoa modifikatzen baitu; ‘gauzak zehatzago adieraztea’ ez da estatuek erakundean parte hartzearen helburua, hori esatearen helburua baizik —‘hau diot gauzak zehatzago adieraztearren’, alegia—.

### 37.3. Subjuntiboarekin eginiko helburuzko perpausak

#### 37.3.1. Subjuntibo soilarekin eginak

**37.3.1a** Helburuzko perpausak eratzeko aditz jokatu gabea dutenak dira erabilienak, *-tze*ko forma batik bat. Zenbaitetan, hala ere, batez ere perpaus nagusiko subjektua eta helburuzkoarena erreferentziakide ez direnean, subjuntiboa erabil daiteke: *Liburu bat ekarri dut oportretan irakur dezazun; Nehork ez zezan ezagut, eskale errumesenaren itxura hartu zuen* (Laphitz); *Madian ez da zure eskuan jarriko, Israel harrotu ez dadin, eta esan ez dezan: nire indarrez libratu nintzen* (Lardizabal). Aditza orainaldikoa nahiz iraganaldikoa izan daiteke, aurreko adibideetan ikusten den bezala, baina baita baldintza hipotetikoari dagokiona ere: *Dirua emango balio etxea eros lezan, mesede handia egingo lioke*. Helburuzko balio hori du subjuntibo soilak aditzaren adjuntu denean, goiko adibideek erakusten duten bezala.

Esan den moduan, perpaus nagusiko subjektua eta helburuzkoarena erreferentziakide ez direnean izaten da helburuzko perpausaren subjuntiboa erabiltzeko aukera: *Naiarak liburu bat ekarri du, (zuk) oportretan irakur dezazun*, ‘hark-zuk’. Subjektuek erreferentzia bera dutenean, berriz, *-tze*ko forma izaten da

aukera ia bakarra, beherago aipatuko diren salbuespenak salbuespen. Hala, esate baterako, Naiara bera denean liburuaren irakurlea *Naiarak liburu bat ekarri du oporretan irakurtzeko* esaten da, eta ez *#Naiarak liburu bat ekarri du oporretan irakur dezan*, azken hau entzunda, liburuaren irakurlea beste bat dela ulertzen baita. Beste subjekturik ulertu ezin denean, berriz, perpausa ez-gramatikala da: *\*Autokarabana alokatu dugu oporretan Italiara joan gaitezen*.

**37.3.1b** Salbuespenak baditu, hala ere, arau horrek, subjektuek erreferentzia bera dutelarik ere erabiltzen baita inoiz subjuntiboa, *-tzeko* formaz beste. Hori gertatzen da, esate baterako, perpaus nagusiko subjektua agente ez denean: *Gure laguna hautatua izan da festetako pregoia irakur dezan; Uretan ipintzen da bakailaoa, bera dadin*. Adibide horietan perpaus nagusiaren eta mendekoaren subjektu gramatikalek erreferentzia bera dute ('laguna'-'lagunak', 'bakailaoa-bakailaoa'), baina nagusiarenak ez dira, bistan da, agenteak, gertakariaren objektua baizik, eta agentea besteren bat dela suposatzen da: 'gure laguna hautatu dute', 'bakailaoa uretan ipintzen dute' ('haiek-hark' eta 'haiek-hura', beraz). Gauza bera gertatzen da helburuzkoaren subjektua agente ez denean ere: *Foru ogasunarekin arazorik izan ez dezadan, akzioak saltzen hasiko naiz*; 'arazorik paira ez dezadan' esan nahi du esaldi horretako helburuzkoak, non 'ni' hartzailea den, ez agentea. Eta areago gertatzen da hori, noski, ez subjektu batak ez bestek 'agente' ezaugarria ez dutenetan: *Liburuak marrazkiak izango ditu, atseginagoa izan dadin*; 'liburuak marrazkiz {hornituko dute ~ hornitua izango da}' esan nahi du perpaus nagusiak, eta 'atsegina izatearen' subjektua ere ez da agentea. Horrek argitzen du, hain zuzen ere, ondoko esaldi bien arteko aldea: *Retegiri deitu diot finalean leku egokian izan nadin*, baina *\*Retegiri deitu diot, finalerako sarrera lor dezadan*. Hitz batean esateko: subjektuak erreferentziakide izatea debeku du subjuntiboak biak agente gisa ulertzen direnean.

**37.3.1c** Subjuntiboa erabil daiteke, halaber, subjektuek erreferentzia bera izanik ere, perpaus nagusia aginterazkoa denean: *Ibil zaitetz poliki, eror ez zaitezen; Jan ezazu neurritz, [...], ase eginik oka ez dagizun* (Axular). Eta berdin perpaus nagusiak *nahi* edo *behar* gisako modalitatea duenean ere: *Batasuna lortu behar dugu, bakean bizi gaitezen; Gaia ongi azal dezazun, sakon aztertu beharko duzu aurretik*.

Orobat, azkenik, onartzen da subjuntiboa erreferentziakidetasuna partziala denean, hau da, helburuzko perpausaren subjektua nagusikoa barnean izanik hura baino zabalagoa denean: *Etxea handitu dut, denak kabitu gaitezen*.

**37.3.1d** Predikatuaren barneko konplementua da eskuarki helburuzko perpaus subjuntibozkoa, eta, hortaz, gorago aipatu diren ezaugarriak ditu (§ 37.2.2a). Esaldiaren galdegaia izan daiteke, *zerta(ra)ko* edo *zergatik* galderei erantzuten diena: *Zertarako itxi duzu atea?* —*Kaleko hautsa sar ez dadin*; edo, berdin, aditzaren aurre-aurreko ohiko lekuan kokatua: *Kaleko hautsa sar ez dadin itxi dut atea*, baina haren ondoan ere eman daiteke, perpausa luzea edo pisua denean, horrelakoetan ohikoak diren eten-intonazioak eginez: *Atea itxi dut<sup>↑</sup> haizeak kaleko hautsa gela barrura ekar ez dezan*. Horretarako, *horregatik* edo gisa horretako aurrekaria izan dezake perpausak: *Neure ibilera makurren berri [...] horretarako bakarrik eman gogo nioke inori: hurrengo beste bat eskarmenta dezan* (Mitxelena). *Bai-ez* kontrasteko perpausetan ere erabil daiteke: *Jainkoak ez du bere Semea mundura bidali, mundua gaitzestera, mundua haren bidez gaizka dadin baizik* (Iraizoz); *Argitu nahi zaitut, ez baitezpada ene buruaren garbitzeko, bainan Jesu-Kristok goretsi duen bertute bat ez dezazun zuk apalets* (Laphitz).

Gainerakoetan aditz nagusiaren ondoan dute perpaus hauek ere ohiko lekua: *Errieta egin diet, geldi egin daitezen; Leihoa ireki dut, gelako airea berritu dadin*. Helburua nabarmendu nahi denean, hala ere, aditzaren aurrean eman daitezke, mintzagai aurreratu moduan: *Erabat senda zaitezen, egunero hartu behar dituzu botika hauek*.

**37.3.1e** Aipatzekoa da, bestalde, adizki nagusiaren ondoan ematen dela maiz laguntzailea ezezkako perpausetan, lokabeetan ez bezala; *etor ez dadin* gisara, alegia, eta *ez ez dadin etor* gisara. Segida hori hobesten dute idazleek, Hegoaldekoek zein Iparraldekoek: *Gero okerrik izan ez dadin orain kontuak atera* (Txirrita); *Joan behar dut, etxean artega egon ez daitezen* (Etxaide); *Bere ahotsaren oihartzuna gal ez dadin, ez dut inorekin hitzegin nahi* (Txillardegi); *Gibela ezazu zeure oina adiskidearen etxetik, ez han maiz ibil, ase ez dezazun* (Axular); *Gauden erne sar ez dadin ahalke hori gutara* (Zaldubi); *Bidearen erdi-erditik gu, eztiki, leunki, inarroste den gutienik izan ez dadin* (J. Etxepa-

re). Ez da debeku, hala ere, laguntzailea nagusiaren aurrera pasatzea, hots, ezezkako lokabeetan ohikoa duen lekura: *Hiru barnetan ezarriak ditugu, elkarrekin ez daitezten gurutza* (Larzabal); *Horrexegatik, nagiak aitzakiarik ez dezan izan, arindu zion bidea irakurleari Urkixo jaunak* (Mitxelena); *Ihes egin nuen hemendik, ez zezaten nirekin egin, nire gizonarekin egin zutena* (Aresti).

**37.3.1f** Eskuarki predikatuaren barneko osagaia bada ere, esaldi jakin batzuetan haren kanpoko konplementu gisa erabiltzen da inoiz subjuntiboazko perpausa, enuntziazioaren helburua seinalatzen duen azalpen moduan: *Azkeneko arrantzalea ere, jakin dezazun, bere gorbatekin joango da arrantzara; [...] bere gorbata ederra han eramango du lepoan dotore jarria* (Iraola); *Argiroago jakin dezazun, lehenengo hitzuna Alkatea zen* (Azkue). ‘Zuk argiroago jakitea’ ez da ‘lehenengo hitzuna alkatea izatearen’ helburua, noski, esatearena berarena baizik; ‘jakin dezazun esaten dizut hori’ da perpaus horrekin adierazten dena.

### 37.3.2. Subjuntiboa postposizioarekin edo aurretiko partikularekin

**37.3.2a** Subjuntibo soila helburuzkoak eratzeko aski marka bada ere, zenbaitetan postposizioa edo aurretiko partikula bat erantsi izan zaio, helburuzko esanahia areago markatzeko (*egin dezantzat, egin dezangatik, egin dezan amoreagatik, arren (eta) egin dezan...*). Aurreko mendeetan horrelako formak erabiltzeko joera zuten idazleek, Iparraldekoek batez ere. Gaur egun, ordea, helburuzko perpaus jokatuak eratzeko subjuntibo soila erabiltzeko joera dago, hori aski marka delakoan<sup>3</sup>.

**37.3.2b** Hala, *-tzat* postposizio destinatiboa erantsita eginiko «subjuntibo + *-tzat*» forma maiz erabili izan zuten aurreko mendeetako idazleek, Iparraldekoek batik bat. Ohiko lekuan kokatua ageri da askotan, aditz nagusiaren eskuinean: *Etsen-*

<sup>3</sup> Lafitte: “Généralement, le subjonctif traduit suffisamment le but par lui-même” (1962: 397). «Subjuntiboa + *-tzat*» eta «subjuntiboa + *-gatik*» formak “sont lourdes” (1962: 455).

*plua eman dizuet, nik egin dudan bezala zuek ere egin dezazuentzat* (Duhalde); *Lehenbizikoak oihalaz estaltzen eta estekatzen dio buru guzia, oihurik egin ez dezantzat* (J. P. Arbelbide). Haren ezkerrean ere eman daiteke, mintzagai aurreratu gisan: *Zure ospe betikoa nik ardiets dezadantzat, zuk zer egin ez duzu?* (Duvoisin). Inoiz, *horretarako aurrekaria duela ere ageri da, galdegai gisa: Horretarako gara xoilki munduan, gai bihur gaitzentzat hartaz eternitatean gozatzeko* (Jauretxe). Batzuetan, *baizen partikularekin: Zeren Jainkoak ez baititu permetitzen gure erorikoak, [...] lehen baino hobeki gure buruak ezagut ditzaguntzat baizen* (Haraneder). Eta *bai-ez* kontrastean: *Gudura bihurtu behar dugu gure bihotza betikotz garbitu nahi dugun bizio haren kontra; harenzat ez xoilki herra saindu bat kontzebi dezaguntzat, baina oraino hura mespretxatzekotzat* (Haraneder).

Hegoaldeko idatzietan ez da hainbeste ageri forma hau, baina idazle batzuek erabili izan dute, hala nola, esate baterako, Añibarrok eta Enbeitak: *Zeuretu nagizu, zeurea guzti hau izan nadintzat*, (Añibarro); *Jel bidez beti zintzo egin dagigun lana, zoriondu dadintzat Euzkadi laztana* (K. Enbeita); *Esan, bai, poztu nadintzat* (Otxolua)<sup>4</sup>.

XIX. mendean urrituz joan zen forma honen erabilera, baina han-hemen ageri da ondoko urteetan ere: *Itxasoan urrutitik ere ikusi dadintzat nonbait* [jarria dago ermita]: *goi-goian eta zuri-zuria* (M. Lekuona); *Bestalde, irlandazale batzuek liburu-klub bat moldatu dute, 2500 harpidedun dituen, Irlandarazko argitalpenak hobeki sal daitezentzat* (Mirande).

---

<sup>4</sup> Larramendik forma honekin lotzen ditu helburuzko perpausak: “Las oraciones, que en Romance significan algun fin, y traen esta voz *para, para que*, se hazen en Bascuenze con la posposición *tzat*, que se añade a la terminación del verbo: *etorri-dadintzát*, para que se venga; *artí-cenezantzát*, para que lo tomasses [...]” (1729: 321). Hurrengo mendean Larramendiren gramatika atal askotan ia hitzez hitz kopiatu zuen Lardizabalek, berriz, azalpen desberdina ematen du kontu honi dagokionez: “Las oraciones que significan algun fin, y traen en Romance esta voz *para, para que, á fin que*, se hacen de varios modos. 1. Poniendo el verbo determinado en subjuntivo con su *n* final: v. g. *vamonos para que veamos, goacen, icusi dezagun* [...]. En el dialecto Labortano y en algunos puntos de Vizcaya se le añade *tzat* y se dice *goacen icusi dezagun-tzat* [...]. 2. Poniendo el verbo en gerundio de dativo: v.g. *goacen icusteco* [...]” (1856: 72). Lardizabalek berak ez du «subjuntibo + *-tzat*» forma erabiltzen.

**37.3.2c** Halaber, *-gatik* motibatiboarekin eraturiko «subjuntiboa + *-gatik*» forma erabili izan dute Iparraldeko idazleek helburuzko perpausak eratzeko. Perpaus nagusiaren ondoan kokatua ematen zuten hau ere, ohi bezala; hala, esate baterako, hura agintera denean: *Emaiezu zure zerbitzarien arimei bere bekatu guztien barkamendua, ardiets dezatengatik gure orazione umilen moianez beti desiratu duten grazia* (Gazteluzar); *Zerbait onik baduzu, sinets ezazu bertzeek hobeagorik dutela, umiltasuna begira dezazungatik* (Pouvreau). Baina haren aurrean ere eman daiteke, mintzagai aurreratu moduan: *Horrela egitera gonbidatzen zaitut, eta hobeki endelega dezazungatik, jakin ezazu pairatzen ditugun gaitzetarik batzuk direla mendretsiak, eta bertzeak direla ohorezkoak* (Pouvreau). *Zergatik?* galderari erantzun diezaioke: *Eta zergatik galdegin zion honela? Bere bekatua gogora zezan eta gogorarik kofesa zezangatik* (Axular). Eta galdegai ‘atzeratu’ moduan ere erabil daiteke: *Zenbat Kortezale ehunetan urtean sartzen dira Printzearen ganbaran hari mintzatzeko esperantzarik gabe: bainan xoilki hark ikus ditzangatik* (Pouvreau). Pouvreau izan zen forma hau maizenik erabili zuena baina, ikusten den bezala, ez zen bakarra izan.

**37.3.2d** Idazle batzuek *-gatik* hau postposizio asketzat dutela dirudi, aditzetik bereiz idatzita ematen baitute (*nadin gatik, dezan gatik*). Zenbaitetan koordinazioz juntaturiko subjuntiboetako azkenaren ondoan ematen da postposizioa: *Ezen ispirazione saindu hura [heldu zaizu...], bertuteetan aitzina zaitzen, umiltasun handiagoan jar zaitzen, etorkizuneko guduetara prepara zaitzen, niri zure bihotz osoz atxeki diezadazun, eta ene zerbitzatzera borondate bero batez entseia zaitzengatik* (Pouvreau).

Hegoaldeko idazleek ez dute forma hau erabili, salbuespen batzuk gorabehera: *Ama Birjinari errezatu hirur Abe Maria goarda dezangatik garbi gure gorputz arima, ta libra gaitzan amets gaiztoetatik* (Lizarraga); *Batzuei itxaroten die Jaungoikoak luzaro; eta beste batzuei ez hainbeste. Eta zergatik ez? Denik bekatu mortal txikiena bere egiten, beldur izan gaitzengatik* (Añibarro)<sup>5</sup>.

<sup>5</sup> Axularrek honela dio pasarte horretan: *beldur garen amoreakgatik*.

Forma honen erabilera ere urrituz joan zen XIX. mendetik aurrera. XX. mendeko idazle batzuek erabiltzen dute, halaz ere, inoizka: *Hastetik berehala ematen ditut izenak [...], ez dezazuengatik uste izan ez naizela egiaz mintzo* (Hiriart-Urruti); [... *esku huskako partida zer den*] *jakin dezazungatik, ene haurtasuneko [partida] batez mintzatuko natzazu* (J. Etxepare).

**37.3.2e** Postposizio horren lekuan *amoreagatik* postposizioa ere erabili izan da helburuzko esanahia areago markatzeko, «subjuntiboa + *amoreagatik*» forma eratuz (*izan dadin amoreagatik*)<sup>6</sup>. Aldaera bat baino gehiago ditu postposizio honek: *amoregatik, amoreagatik, amoreakgatik, amurekatik* (zubereraz)<sup>7</sup>.

Horrela eraturiko perpausa ere perpaus nagusiaren eskuinean ematen da maiz: *Aitzitik pazientzia handi batekin iguriki didazu orain artean, egiazko penitentzia batez zuregana itzul nendin amoreagatik* (Matterre); *Zer inguru eta gora-behera darabil zuri kalterik etor ez dakizun amoreagatik* (Harizmendi). Aditzaren aurreko mintzagai ere izan daiteke: *Halarikan ere osoki satisfatuak gelditzaitezten amoreagatik, oraino nahi nizueke xeheroki erakutsi, hala bataren egiazko abantailak, nola bertzearen enganio, eta lausengu itxurapenezkoak* (Etxeberri Sarakoa). Inoiz, *zertako* edo *zergatik* galderari erantzuteko erabiltzen da: *Zertako uste dugu Jainkoak ezintasun hauek ematen dizkigula? Bat bederaren aldera eme, eta harengana amoriotsu garen amoreagatik* (Pouvreau); *Zergatik pizteko egon zen hirugarren eguneraino? Haren hiltzearen eta piztearen gainean dudarik batere izan ez zedin amoreagatik* (Akizeko katixima). Galdegai ‘atzeratu’ gisa: *Kontserbatu ditu zauri sakratu haien markak, izan daitezten amoreagatik giristinoentzat graziazko eta benedikzioezko iturburuak* (Jauretxe). Bai-ez kontrastea adieraziz: *Zeren obligatu zara exemplo onaren emaitera [...] ez zure saindutasuna ager dadin, baina Jainkoa lauda dadin amoreagatik* (Axular).

---

<sup>6</sup> Ikus EH: “(Helburuzko perpaus baten hasieran nahiz amaieran, indargarri gisa). *Batez ere Ipar.*” (*amoreagatik*, s. v. *amore*).

<sup>7</sup> Ikus OEH: “La forma es poco clara: ¿det. o indet.? ¿sing. o pl? ¿-katik arcaico por -gatik? En cuanto al valor, cf. cast. nav. *por (a)mor de, que*; gascón *pramou, permou, proumou que*” (s. v. *amore*).



**37.3.2f** Barneko ordenari dagokionez, ohikoa da «subjuntiboa + *amoreagatik*» forma mendeko perpausaren amaieran ematea: *Haien imitatzera entseia gaitzen, haiek bezala, gu ere Jainkoari agrada gakizkion amoreagatik* (Jesusen Bihotz). Baina haren hasieran ere eman daiteke: *Emadazu entelegia, jakin ditzadan amoreagatik zure manu saintuak* (Maister). Eta are tartean ere: *Itzultzen da Iruñera, zeinaren murailak, erreboltaturik altxa ez zekion amoreagatik, aurtiki baitzituen lurrerat* (Etxeberri Sarakoa).

XIX. mendearen azkena arte erabilia izan zen forma hau Iparraldeko idatzietan. XX. mendean, berriz, forma horren aldeko den Villasantek erabili zuen aski maiz eta urriago beste batzuek: *Hori, bai, testua, beronen aipamenak errazago egin daitezten amoreagatik, ataletan banatu dugu eta atal bakoitzari dagokion zenbakia orri-bazterrean ezarri zaio* (Villasante); *Aro horretako gizonek zer egiten zuten? Jainkoak eta Jainkosak erruz asmatu, gure eginbideen sostenguak izan zitezten amoreagatik* (Villasante); *Kastelak besoa tinkatzen zion, isil zedin amoreagatik* (Borda); *Urrikalpen hura, ordea, oker-ulertze batean zegoen oinarriturik: dolumin-adierazpenak egiten zitzaizkidan, baina beti ere ahalik-eta azkarren kontsola nendin amoreagatik* (J. A. Arrieta)<sup>8</sup>.

**37.3.2g** Amorez aldaera ere erabili izan da inoiz, mota honetako perpausetan: *Jaungoikoak, pasio txarrak kendu ditzagun amorez, opa edo eskaintzen dizkigu Zeruko sari handi eta ederrak* (Mogel).

Aurrerago ikusiko den moduan, bestalde, *-tze*-rekin erabiltzen da inoiz gaur egun postposizio hau, *-tze* *amoreagatik* forman zenbaitetan eta *-tzearen amoreagatik* forman inoiz. Eta maizago ageri da, jakina, izenlagunaren ondoan ohiko postposizio sintagma eratuz (*zure amoreagatik, bakearen amoreagatik*).

**37.3.2h** Postposizioak bezala, beste zenbaitetan partikula batzuk ematen dira subjuntiboaren aurretik perpausaren helburuzko esanahia areago markatzeko. Hala, *amoreagatik* partikula, besteetan postposizioa dena; Iparraldean erabilia

<sup>8</sup> Idazle klasikoaren moldea jarraituz idatzitako *Lur bat haratago* eleberrian usu darabil Joan Mari Irigoienek forma hau, *amoreakatik* aldaeran.

izan da hau ere, zubereraz batik bat, «*amoreagatik (eta) + subjuntiboa*» forman. Perpaus nagusiaren ondoan kokaturik ematen da askotan forma horrekin eraturiko perpausa: *Igor ezazu zure egiaren argia, amoreagatik lurra argi dezan* (Maiter). Haren aurrean ere eman daiteke: *Amoreagatik arima garbienek probetxuekin irakur ahal dezaten Axularren liburu ederra, garbitu, leundu eta apaindu ditugu leku [...] gordinegi zirenak* (Intxauspe). Adibideetan ikusten den moduan, *amoreagatik* partikula perpausaren hasieran ematen da beti; aditza, berriz —hots, subjuntiboa—, perpausaren barnean nahiz amaieran eman daiteke.

*Eta* espletiboa hartuta, *amoreagatik eta* itxura hartzen du maiz partikulak. Zubereraz ez ezik, beste euskalkietan ere erabili izan da inoiz forma hau, aditz nagusiaren ondoan kokatua maiz: *Banketxeak eta Bizkaiko diputazioak baldintza fiskal bereziak bideratu dituzte, amoreagatik eta xantier hori ez zedin Korea aldeetara eskapa* (Herria). Baina baita aurrean ere: *Amoreagatik eta uste izan ez nezan joan zela etxera ni han utzirik, ezarri zituen bere makila eta maripulisa, bat bertzearen aldean, ohearen zangoetan, nik, atzartzean, berehala ikusteko gisan* (J. B. Elizanburu).

XIX. mendera arte erabilia, gerora urrituz joan ziren «*amoreagatik (eta) + subjuntibo*» formaren agerraldiak euskara idatzian, XX. mendeko idazle batzuek erabiltzen badute ere —*eta* espletiboarekin beti<sup>9</sup>—: *Juje justuaren aitzinean agertzen garenean gure eskuak beteak izan daitezela orai artio bildu fruituez, [...] amoreagatik eta gure saria izan dadin handia eta ederra* (Baionako katixima); *Egizue bada behar dena, amoreagatik eta dohatsu izan gaitezen* (Lafitte).

**37.3.2i** *Arren* ere erabili izan da, subjuntiboaren aurreko partikula gisa, «*arren (eta) + subjuntiboa*» forman<sup>10</sup>. Perpausaren hasieran ematen da hau ere gehienetan: *Egiozu ofrenda zure bihotzaz, arren jar dadin haren gainean jaun, jabe eta nagusi* (Pouvreau); *Beila bat egina nuen, arren zu senda zintezten* (Goihetxe). Baina ez beti: *Nik dakidan bezala guztiek arren jakin dezaten*

---

<sup>9</sup> OEH: “Bien documentado en autores septentrionales hasta finales del s. XIX. En el s. XX sólo lo encontramos en *CatJauf* [Baionako katixima], Lafitte y Etchebarne (en los tres *amoreagatik eta*)” (s. v. *amore*).

<sup>10</sup> EH: “(Helburuzko perpaus baten hasieran, indargarri gisa). *Ipar*.” (s. v. *arren*).

(J. B. Elizanburu). Askeago darabilte zenbaitetan partikula hau, *eta* espletiboa-ekin: *Eskola nagusi jarri, arren eta haurrak, [...] ez zitezen itsu geldi, eskeko bidean* (Hiribarren); aditzaren ondoan, postposizio moduan: *Euskaldun guztia da egun gonbidatzen has dadin izpirituz zerbaiten moldatzen, jakin dezaten arren gure ondokoek nolako gaiak zituzten haiekin arbasoek* (Hiribarren); bai *eta -tzat* postposizioaren ondoan ere: *Aipatu lekura bera da joan nahi, ez da-dintzat arren tronpatua geldi* (Goihetxe).

Iparraldeko idatzietan ageri da «*arren (eta) + subjuntiboa*» egitura hau ere, XIX. mendera arte; XX. mendeko idatzietan ez da ageri<sup>11</sup>.

**37.3.2j** *Nahiz(ik) eta* partikula partizipioarekin erabiltzen da maiz: *Eriarena eginez, maltzurki, dena ele goxo ariko zaizkik nahiz eta hi kontsolatu* (J. B. Etxepare). Subjuntiboarekin ere joan daiteke, helburuzkotasuna areago markatzeko: *Hetaz ere arta hartzen du, nahiz eta noizpait bederen harenganat itzul daitezten* (Duhalde)<sup>12</sup>.

**37.3.2k** *Beldurrez* ere postposizio nahiz aditzaren aurretiko partikula gisa erabiltzen da zenbaitetan, subjuntiboari erantsita helburuzko perpausak eratuz; ezezka emandako helburuzko perpausen esanahi bertsua dute horrela eraturiko perpausak: *Ihes egin du erre zezaten beldurrez* (Laphitz), hots, ‘erre ez zezaten’. Sortzez, izen sintagma gobernatzeko duen postposizio sintagma da hau ere, non subjuntiboko perpausa *beldur* izenaren osagarria den: [[(erre zezaten) *beldur*] + -z]; pentsa daiteke, hala ere, erabilerak postposizio edo aurretiko partikula finko bilakatu duela *beldurrez* forma ere, *amoreagatik* formarekin gertatu den antzera.

Postposizioa denean perpaus nagusiaren eskuinean doa maiz harekin eginiko perpausa, ohiko moduan: *Utzi ditut anitz gauza, sobera mintzatuz ene obra*

<sup>11</sup> OEH: “(Con oración subordinada final, normalmente al comienzo de frase). Para que, a fin de que [...]. Exclusivamente septentrional; no hay testimonios del s. XX” (s. v. *arren*).

<sup>12</sup> Lafitte: “Parfois ce subjonctif final est annoncé par *arren-eta, nahizik-eta, nahiz eta*, afin que [...]. Ex. : *nahiz-eta ikas dezan*, afin qu’il apprenne [...]. Quelques souletins eta Bas-Navarrais disent: *ikas dezan nahiz [...]*” (1962: 397).

*fastikagarri egin dadin beldurrez* (Etxeberri Sarakoa); *Ihesari eman zitzaizkion, nora eta nola ez zekitela, lurrak jan zitzan beldurrez* (Lardizabal). Baina mintzagai aurreratu gisa ere joan daiteke: *Bada bizirik Jesus geldi zekion beldurrez, hilerazi bazituen ere honen denborako beste haur guztiak* (Mendiburu); *Solasa luzeegi dakidan beldurrez, ez naiz mintzo kazeta on batek erlijioneko eta gizontasunezko egiez kanpo bertzalde dakartzan argiez* (Hiriart-Urruti).

**37.3.21** Subjuntiboaren aurreko partikula gisa erabiltzen da beste zenbaite-tan: *Josuek zorrozki gomendatu zuen ez behintzat deusik hartzeaz hiri hartan, beldurrez nihork erakar zezan populu guztiaren zorigaitza* (Larregi); *Beldurrez gainerat eror nenkion, ihes egin zidan* (J. B. Elizanburu). *Eta* espletiboa duen *beldurrez eta* forma ere erabiltzen da: *Haien buruzagiak, [...], beldurrez eta bere lagunek Jainkoa arnega zezaten, ez zituena berak hil ezpata ukaldika?* (Narbaitz).

Zenbaitetan *ez* espletiboa darama perpausak: *Otso gaiztoa beti / gure ihes dabil, / beldurrez ez dezagun / atzeman eta hil* (A. P. Iturriaga); *Begiratzan zuen ardua handiagaz gauzarik txikienetan, ezertan bere hutsik egin ez zegien beldurrez* (Uriarte). ‘Beldurrez atzeman dezagun’ eta ‘beldurrez hutsik egin zegien’ esan nahi dute perpaus horiek, hurrenez hurren. Ondoko testuan subjuntiboari *-lako* atzizkia erantsita eratu da forma: *Haren diszipuluak, hobotik gorputza ostu, eta eramán zezatelako beldurrez, ipini zituen hobia zaintzeko guardak* (Ubillos).

Subjuntiboarekin *ez* ezik, bestalde, aditzoinarekin ere —edo partizipioarekin— erabil daiteke postposizio edo aurretiko partikula gisa: *Beilariak ezagut beldurrez, Iñazio goizik atera zen Mont-Serratetik* (Laphitz); *Haurrik ez daiteke sar haren ganbararat, beldurrez eta eritasuna bil* (J. B. Etxepare); *Edota, lehengoan bezala, emazteak legeari salatu beldurrez ihes egin ote zuen mendira* (Etxaide).

Forma honen erabilera ere urrituz joan zen xx. mendean zehar<sup>13</sup>.

---

<sup>13</sup> OEHk *beldurrez* formaren erabileraz: “Su complemento suele ser un sustantivo (gralmente. en genitivo), o una oración; ésta aparece en subjuntivo sobre todo en los textos más antiguos,

### 37.3.3. Helburuzkoen hurbileko subjuntibozko perpausak

**37.3.3a** Helburuzko perpausak egiteko bezala, *zertarako*-osagarriak eratzeko ere maizago erabiltzen da *-tzeko* forma subjuntibozkoa baino; hau ere erabil daiteke, ordea, zenbaitetan bederen, harekin egindako perpausen errankideak eratzuz: *Oraindik txikiegia zara lan horretan {jardun dezazun ~ jarduteko}*. Kapitulu honen sarreran azaldu den moduan, osagarri perpaus nagusian ez da ‘asmoa’ duen egilerik, eta, bestetik, konplementazio erlazioari dagokionez, mendeko perpausa predikatu nagusiak eskatzen edo hautesten duen osagarri argumentala da; ‘txikiegia izateak’, esate baterako, zertarakoa eskatzen du (§ 32.10.2).

**37.3.3b** Osagarriotan ere ohikoagoa da subjektuak erreferentziakideak ez izatea: *Berandu da atea ireki diezaguten; Badira tokiak sobera bihar Bilbon batzarrara egin dezazuen*; halere, helburuzkoek baino errazago onartzen dute erreferentziakidetasuna: *Oraindik txikiegia zara lan horretan jardun dezazun —(zu)/(zuk)—; Besaulki bat falta dut sala osaturik eduki dezadan —(nik)/(nik)—*. Gehienetan, halaz ere, erreferentziakidetasuna garbi dagoenean, subjuntibozkoak baino ohikoago eta naturalago dira *-tzeko* formakoak: *Oraindik txikiegia zara lan horretan jarduteko; Besaulki bat falta dut sala osaturik edukitzeko*.

## 37.4. *-tzeko* formarekin eginiko helburuzko perpausak

### 37.4.1. *-tzeko* soila

**37.4.1a** *-tzeko* da helburuzko perpausak egiteko maizenik erabiltzen den forma. Hori erabiltzen da, eskuarki, perpaus nagusiaren eta helburuzkoaren subjektuak erreferentziakide direnean: *Liburu bat ekarri dut oporretan irakurtzeko —(nik)/(nik)—*. Baina berdin erabil daiteke erreferentziakidetasuna

---

pero desde mediados del s. XIX y sobre todo en el XX este uso pierde frecuencia en favor de las otras construcciones: con *-(e)n* (que por otra parte se encuentra ya en Dechepare y Leizarraga), con *-tzeko*, con rad. vbal. o part., y, en menor medida, con *-(e)la* o *-(e)lako*” (s. v. *beldur*).

subjektuaz bestelako osagai batekin gertatzen denean: *Liburu bat ekarri dizut oporretan irakurtzeko* —(zuri)/(zuk)—, edo, erreferentziakidetasuna izan gabe, helburuzkoaren subjektua berariaz aipatua bada: *Liburu bat ekarri dut zuk irakurtzeko*; horrelakoetan, aurreko atalean esan den moduan, subjuntiboa ere erabil daiteke: *Liburu bat ekarri dizut oporretan irakur dezazun*; *Liburu bat ekarri dut zuk irakur dezazun*. Helburuzkoaren subjektua seinalatua ez denean, ordea, nagusikoarena bera dela ulertzen da, eta, esan bezala, *-tzeko* forma erabiltzen da (aurreko atalean aipatu salbuespenetan izan ezik, § 37.3.1a): *Lan handia egin dut kurtsoa gainditzeko* —(nik)/(nik)—; *Mailegua eskatu al duzue etxebizitza erosteko?* —(zuek)/(zuek)—.

**37.4.1b** Predikatuaren barruko osagaia da gehienetan helburuzko perpausa, eta horrelakoei dagozkien ezaugarriak ditu (§ 37.2.2a). *Zerta(ra)ko* edo *zergatik* galderei zuzenean erantzun diezaieke: *Zertako zen*, *Juduak fedegabeko jendeen artean bizitzea?* -*Jende berei Jainko egiazkoaren ezagumendua emateko* (Ubillos); *Eta, dena zertarako eta galtzeta-orratzak eta tronpa-puntak egiteko* (San Martin); *Zerendako euskara? Munduan, burua tente eta goiti ibiltzeko* (Herria). Ondoan *-tzeko* baizik gisako perpaus murriztailea duela egin daiteke galdera: *Zertarako eman zait bestela adimenaren argia, bilatzeko baizik* (Txillardegi). Galdegaia ere izan daiteke, aditzaren aurreko lekuan kokatua: *Itsasoa ikusteko igoko gara gain hartara*. Edo ‘atzeratuta’, ohiko eten-intonazioekin, helburuzkoa luzea denean batez ere: *Gain hartara igoko gara*↑ *itsasoan dabiltzan ontziak hobeto ikusteko*. *Bai-ez* kontrastean ere erabiltzen da: *Argitu nahi zaitut, ez baitezpada ene buruaren garbitzeko, baina Jesu-Kristok goretsi duen bertute bat ez dezazun zuk apalets* (Laphitz); *Inbentarioa ez zen egina deusen ebasteko, bainan bai deus gal ez zedin* (Hiriart-Urruti); *Eta Angirok Japonia utzia zuen ez bakarrik ihesari emateko, baina bihotzean sendi zuen karga nolazpait bidean uzteko* (Narbaitz). Galdegai ez delarik aditz nagusiaren eskuinean ematen da maiz, horrelakoetan ohikoa denez: *Gain hartara igoko gara itsasoa ikusteko*. Ezkerrean ere joan daiteke, mintzagai aurreratu gisa: *Itsasoa ikusteko, gain hartara igoko gara*.

**37.4.1c** Adibide horietan guztietan predikatuaren barneko osagaia da helburuzko perpausa, baina kanpoko konplementu gisa ere erabiltzen da inoiz. Hala

nola, esate baterako, enuntziazioaren helburua adierazten duten perpausetan, *esan* aditzarekin eginak batik bat: *Bixentari, egia esateko, nazka eman zion eta ez zuen erantzuteko asmorik* (J. A. Irazusta); *Egiaren den bezala errateko, biziki ofizio polita zitzaidan* (J. Etxepare); *Zehatzago esateko, gipuzkera oso-tua daukat begi aurrean* (Mitxelena). Adibide horietako *-tzeko* perpausak ez dute perpaus nagusiko gertakariaren helburua adierazten —‘nazka ematearen’ xedea ez da hiztunak ‘egia esatea’, alegia, lehenengo adibidean—; enuntziazioaren beraren xedea ematen dute aditzera perpaus horiek —esaten dudana hau ‘egia esateko’, ‘zehatzago esateko’ eta abar esaten dut, alegia—. Horrelako perpaus batzuek diskurtsoaren markatzaile gisa funtzionatzen duten esapide neurri batean finkoak eratu dituzte, hala nola *egia esateko, zehatzago esateko, labur esateko, hitz batean esateko...*, *egia esan* edo *egia esanda* gisakoen pareko direnak (ikus 43. kapitulua).

**37.4.1d** Zenbaitetan, helburuzkoen izaera prototipikotik aldenduz, bestelako ñabardura edo nozio batzuk ematen dituzte aditzera *-tzeko* perpausak. Hala, ustezko helburuaren kontrako ondorioa adierazten dute batzuetan: *Gure taldekoak aurkariak baino hobeto aritu ziren denbora guztian, azkenean partida galtzeko*; *Orduak egin ditu baratzean lanean, lau tomate ziztrin biltzeko*; *Zergatik Ejiptotik atera gaituzu, hemen egarriak hiltzeko?* (Lardizabal).

Baldintza balioa ere izan dezake *-tzeko* formako perpausak: *Min hartzeko arrisku handia dut eta horrela ibiltzeko hobe da uztea* (Berria); *Horrela ibiltzeko, hobe lukete etorri ez balira* (Berria); *Gaizki bizitzeko alferrik da dirua izatea*. ‘Gertakaria halakoa izango bada’, horra zer adierazten duten adibideetako perpausak; ‘horrela ibili behar badut’, ‘horrela ibili behar badute’ eta ‘gaizki bizi behar bada’ eran parafrasea daitezke.

Balio kontzesiboa ere izan dezake beste zenbaitetan: *Horren entrenamendu gutxi egiteko, ez duzu partida txarra egin*; *Hain ospetsua izateko, kasu gutxi egiten dizu jendeak*. Ikusten den moduan, maila adierazten duen elementua darama maiz *-tzeko* perpausak, horrelakoetan, eta perpaus nagusiak, berriz, zenbatzailea edo zerbaiten pisua edo balioztatzea adierazten duen esapide bat. Kontzesiozko egituraren bat erabiltzea ohikoagoa da horrelakoetan: *Horren entrenamendu gutxi egin arren, ez duzu partida txarra egin*.

Azalpen balioa du beste batzuetan, harridurazko esaldietan batez ere: *Gogor egingo zuen lan, horren nekatua egoteko!* —‘Gogor egingo zuen lan, horren nekatua dagoenez gero’, alegia—.

Helburua ez, baina kontrastea edo denbora-segida adierazten dute beste batzuek: *Anoetako hartan txistuka hasi ziren ikusleak, txaloka amaitzeko; Bos-tetan egingo dugu entrenamendua, partida seietan jokatzeko*. Horrelakoak juntaturik ematea da ohikoena: ‘Txistuka hasi ziren eta txaloka amaitu’, ‘Bos-tetan egingo dugu entrenamendua, eta seietan jokatuko partida’.

### 37.4.2. «-tzeko + postposizioa» egiturako formak

**37.4.2a** Aski da -tzeko forma bera helburuzko perpausak eratzeko, eta horrela erabiltzen da eskuarki gaur egun, esan den moduan, baina postposizio bat erantsi izan zaio inoiz forma honi ere, helburuzko adiera areago markatzeko edota ñabarduraren bat gehitzeko. Hala, *-tzeat* postposizioa erantsita -tzekotzeat forma eratu da, Iparraldean, *-tzeko* perpausen balio bereko helburuzko perpausak egiteko: *Josuek igorri zituen aitzinetik isilik jendeak, jakitekoat hiri hartako berri* (Larregi); *Jesu-kristo atera zen mortutik gizonen artean agertzekotzeat* (Larregi); *Oren erdi baten buruan, bihia ateratzen da eta idorrazten gero eraitekoat* (Duvoisin).

**37.4.2b** Era berean, -tzeko forma eratu da, batik bat Iparraldean hau ere, helburuzko perpausak egiteko<sup>14</sup>: *Egia honetaz fede gehiago egitekoz sinatzen ditut letra hauek* (Argainaratz); *Baserritar bilkurak alegeratzekoz koblak egiten zituzten orain* (Mirande); *Goriot isilean egon zen une batez, eginahal guztiak eta bi egiten bide zituela bere indarren biltzekoz* (Makirriaingo katixima).

---

<sup>14</sup> Lafittek *-tzeat* prolatiboaren forma moztutzat du *-tze* atzizkia: «A côté de la forme en *-koat*, il existe un prolatif tronqué en *-tze*» (1962: 219). De Rijkek, ordea, «the adnominal instrumental *-koz*, dialectally *-koz*» dela irizten dio (2008: 430). Gramatika honetan ere instrumentalaren postposiziotzat hartzen da atzizki hori (§ 34.10a). Horrela bada, forma hori postposizioak gobernatzen duen izen sintagmaren izena isilpean utzita sortutakoa dela pentsa daiteke (*-tzeko* (asmø)z).



Forma honekin eginiko perpausak ere baldintzazko balioa izan dezakete, *-tze*ko soileko perpausak bezala: *Horrela ibiltzekotz, hobeto duzu uztea*.

**37.4.2c** Bere aldetik, *-tze*ko formari mugagabeko *-ta-* eta inesiboko marka erantsita eratu den *-tzekotan* formarekin ere helburuzko perpausak egiten dira. Postposizioaren gobernupean den izen sintagmaren izena isilpean utzita sortua da forma hori —[[(-tze)ko] izena] -tan]—; bat baino gehiago dira horrela isil daitezkeen izenak: [[(-tze)ko] {*asmø* ~ *køntu* ~ *puntu* ~ *ørdu*}] -tan]. Inguruak iradokitzen du zein den kasu bakoitzean isildutako izena. Hala, perpausak *asmoa* adierazten duenean pentsa daiteke *asmo* izena dela isilpean utzitakoa, eta *-tze*ko *asmotan* esapidea duela horrelakoetan *-tzekotan* formak oinarri (Goenaga 1980: 372). Esanahiari dagokionez, baliokideak dira *asmo* izena agerian duten perpausak eta hura isilduta dutenak: *Zerbait irabazteko asmotan saldu zuen autoa* eta *Zerbait irabaztekotan saldu zuen autoa* (Goenaga 1980: 372). Sintagmen egitura dago alde, esan bezala: *irabazteko asmotan* sintagman [ps [[(perpau) -tze] izena] -tan] egitura dago agerian; izena isildua dutenetan, berriz, zuzenean lotzen zaio *-tan* atzizkia *-tze*ko formari, eta horrela sortutako *-tzekotan* atzizkia forma egina bilakatu da, nolabait esan, besteak beste helburuzko perpausak eratzen dituen forma finkatua. Ekintza baten xedea edo helburua adieraz dezake horrela eginiko perpausak: *Dena den, Etxamendi eta Larralderen kantua dioenez, “Pentze onaren erostekotan artaldea dugu saldu”* (Argia).

Forma hau ere maiz erabiltzen da baldintza balioarekin, Hegoaldean batik bat: *Inori laguntzekotan, zuri lagunduko dizut; Norbaiti eskerrak ematekotan, Ane ezin dugu alde batera utzi* (ikus § 34.10a).

**37.4.2d** Hegoaldeko idazle batzuek, azkenik, *-tze*ko *amoreagatik* egitura erabiltzen dute: *Pritchard andreak hogeita hamar milia ere egin zitzakeen, inoren hilotza ikusteko amoreagatik* (Otegi); *Ez lokartzeko amoreagatik, saiatuak ginen isiltasunari tarterik ez uztera* (Epaltza). Egitura horretan *amore* izenak gobernatutako izenlaguna dagoela esan daiteke, ‘ikusteko amore’, alegia, lehen adibidean, ‘ikusteko gogo’, ‘ikusteko nahi’ eta horrelakoen pare; areago pentsa daiteke, ordea, *amoreagatik* hori genitiboa eskatzen duen postposizio bilakatu dela (*zure amoreagatik, irabazteko amoreagatik*), subjuntiboa

ere goberna dezakeena. Iparraldean *amoreagatik* (*eta*) aurretik dela erabiltzen da forma hau: *Didier Borotra [...] ernatu zen bere ekipo teknikoari manatzera lotura egin zezan kontratuaren eramaileekin, amoreagatik eta Miarritzek eskuratzeko diru zama larriak itsas hegiko uren garbitasunarentzat (Herria)*. Aurrekoek ez bezala, forma honek ez du helburuzkoaz bestelako erabilerarik, ez baldintzazkorik ez bestelakorik.

Idazleren batek, bestalde, *-tzearen amoreagatik* egitura erabiltzen du: *Ezkerreko alderdiekin edo abertzaleekin ez joatearen amoreagatik, Nafarroaren eskumenen kontra bozkatzeko gai da (Berria)*.

### 37.4.3. Helburua eta ezinbesteko baldintza

**37.4.3a** Helburua gauzatzeko perpaus nagusiak dioena nahitaez bete behar dela ematen dute aditzera *-tzekotz* eta *-tzekotan* formekin eginiko perpausek, nagusian *behar* edo *nahitaez* bezalakoak ageri direnean (*Kurtsoa {gainditze-kotz ~ gainditzekotan}*, *gehiago ikasi beharko duzu*). *Helburua* eta *beharra* jartzen dituzte erlazioan egitura horretako perpausek. Honela parafrasea daiteke, hain zuzen, adibideko esaldia: ‘kurtsoa gainditzea baldin baduzu helburu, gehiago ikastea ezinbestekoa duzu’ (§ 34.2).

Horien parekoak dira, bestalde, baldintzan *-ko* aspektuko adizkia eta ondore perpausean *beharra* aipatzen duten baldintzazko perpausak: *Kurtsoa gaindituko baduzu, gehiago ikasi behar duzu; Lanera garaiz iritsiko bazara, autoz edo trenez joan beharko duzu; Badaukat nik horren beharra egunero ogia jango badut* (Arratibel). Ondore perpausak aipatzen duen gertakaria *nahitaez* bete behar dela adierazten dute esaldi horiek ere. Baldintzazko forma, baina helburuzko esanahia dute.

**37.4.3b** Ikusten denez, baldintza-ondorio harremana ohiko baldintzazkoetan ez bezala gertatzen da esaldi hauetan: ondore perpausean aipatzen dena dator aurrena, eta haren ondoren, berriz, baldintzazko perpausak aipatzen duena —‘kurtsoa gainditzea’ ikastearen ondokoa da, lehen adibidean—; formalki baldintza denak ondorioa adierazten du, eta formalki ondore denak baldintza.

Helburuaren eta gertakari nagusiaren arteko inplikazioa indartsuagoa da perpaus hauetan helburuzko arruntetan gertatzen dena baino. Batetik, perpaus nagusiko edo ondore perpausoko *behar* modalak indar berezia ematen dio esaldiari, eta, beste alde batetik, etorkizuneko baldintzazko forma edo {-*tzekotz* ~ -*tzekotan*} formak erabiliz, behar hori *baitezpadakoa* dela seinalatzten da. Alderatu hiru esaldi hauek:

– *Hiztegia erosi du, ingelesa ikasteko.*

– *Hiztegia erosi behar du, ingelesa ikasteko.*

– *Hiztegia erosi behar du, ingelesa {ikasiko badu ~ ikastekotz ~ ikastekotan}.*

Lehenbiziko esaldian gertakari bat aipatzen da —‘hiztegia erostea’, alegia— xede bat duena —‘ingelesa ikastea’—; bigarrenean, gertakari hori xedea lortzeko beharrezkoa dela esaten da; eta hirugarrenean, areago, nahitaezkoa dela (§ 34.10c).

#### 37.4.4. -*tzeko* formarekin eginiko helburuzkoek bestelako perpaus mota batzuk

Helburuzko perpausak ez ezik bestelako egiturak ere eratzen dira -*tzeko* formarekin, haien hurbilekoak batzuk. Hala, besteak beste, *zertarako*-osagarriak (*prest nago lanean hasteko*), izenlagunak (*autoak garbitzeko makina*; *oporrak egiteko gogoia*), eta predikazio egiturak (*ikustekoa da*).

**37.4.4a** Kapitulu honen atarian esan den moduan, helburuzkoetatik hurbil daude *zertarako?* galderari erantzuten dioten perpaus osagarriak. Aldea, berritri esan, bikoitza da; batetik, helburuzkoek egile borondateduna eskatzen dute (*ondo prestatu behar ditugu gauzak bihar Bilbon batzarra egiteko*) eta osagarriek ez (*badira tokiak sobera bihar Bilbon batzarra egiteko*); bestetik, konplementazio erlazio desberdina dute: helburuzkoak predikatuak hautesten ez dituen konplementu adjuntuak dira, erabiltzen duten formari esker betiere xedea adierazten dutenak; osagarriak, aldiz, predikatuak hautesten dituen konplementu argumentalak dira, predikatuaren araberako esanahia dutenak.

**37.4.4b** Ez da beti zehatza, ordea, helburuzko perpausen eta *zertarako*-osagarrien arteko muga, bai baitira batera zein bestera uler daitezkeen perpausak. Hala, esate baterako, lorkizuna edo ondorioa *patu* moduan aurkezten dutenak (*gu denok hondatzeko sortu zen zoritxarreko gerra* —gerra da hondamendia ekarri duen patua edo zoria, egileen borondatea gorabehera—), edo zerbaitek duen edo norbaitek ematen dion erabilera adierazten dutenak (*urratsetan laguntzeko {da ~ dut} makila* —hau da, ‘erabiltzen {da ~ dut}’). Hala ulertuta, helburuzkotzat ere har daitezke perpaus horiek, edo, behintzat, helburuzkoen eta osagarrien artekotzat. Esan behar da, bada, mutur biak aski garbi zehaztuak diren arren —helburuzkoak batetik eta osagarriak bestetik—, bade-la bien artean muga lausoko eremu bat, zeinetan perpausak batera zein bestera uler daitezkeen (ikus 30. kapitulua; EGLU-VII: 504).

Gauza bera gertatzen da *-tzekotan* formako perpaus batzuekin. Erdibidekoak izan daitezke hauek ere; egile inplizitua dutenak izan daitezke, edo lorkizuna *patu* moduan aurkezten dutenak: *Nor da munduan mende oso bat bizitzekotan sorturik?* (Larre).

**37.4.4c** Hurbilekoak dituzte helburuzko perpausak, halaber, *-tzeko* formarekin eginiko izenlagunak (*bizarra kentzeko makina, zinera joateko gogoa*). Perpausak gobernatuetan bezala, izenak gobernatzen dituen hauetan ere *-tzeko* perpaus mota bi bereiz daitezke: adjuntuak eta osagarriak. Izan ere, batzuk aukerako laguntzaileak dira, izenak hautesten ez dituenak (*lo egiteko pilulak; arrautzak frijitzeko zartagina; autoak garbitzeko makina; hautsa kentzeko zapia*); adjuntuak direnez, izenlagunik gabe ere badute zentzua izen horiekin eginiko perpausak: *Pilulak hartu ditut; Zartagina erosi dut; Makina berria jarri dute; Emadazu zapia*. Beste batzuk, berriz, izenak hautesten eta eskatzen dituen osagarriak dira (*mendirra joateko asmoa; lagunak ikusteko gogoa; emeki ibiltzeko aholkua*); osagarririk gabe herren geratzen dira izen horiekin eginiko perpausak: *?Asmoa duzu?; ?Gogoa dugu; ?Aholkua eman dio* —osagarri inpliziturik ez badute, zerbait falta dute perpaus horiek—.

**37.4.4d** Izenlagun adjuntu horiek izenak adierazten duenaren *funtzioa* ematen dute aditzera: *Emadazu leihoak garbitzeko zapia; Lo egiteko pilulak hartzen ditut; Uda igarotzeko etxea erosi dut* —zapiaren funtzioa ‘leihoak garbi-

tzea' da, pilulena 'lo eragitea', eta etxearena 'uda igarotzea'—. Esanahiari dagokionez, bada, helburuzko perpausen antzekoak dira izenlagunok, baina ez guztiz errankideak, borondatedun egilerik ez baitago hauetan; hortaz, esan bezala, *funtzioa* adierazten dute, ez *helburua*. Egitura ere desberdina dute, bistan da, eta ahozkoan gauzatze diferentea dute. Konpara, esate baterako, ondoko esaldi bi hauek: *Lo egiteko, pilulak hartzen ditu* eta *Lo egiteko pilulak hartzen ditu*. Esanahi bertsukoak izan arren, egitura desberdina dute. Lehenbizikoa helburuzko perpausa da, eta honela irudika daiteke, labur: *lo egiteko*, [(*pilulak*) *hartzen ditu*]; ikusten denez, *pilulak* da aditzaren objektu zuzena, eta *lo egiteko* sintagma aditza modifikatzen duen adjuntua. Bigarrena, berriz, izenlaguna da, eta honela irudika daiteke: [(*lo egiteko*) *pilulak*] *hartzen ditu*; hor *lo egiteko pilulak* sintagma da aditzaren objektu zuzena, eta *lo egiteko* perpausa *pilulak* izenaren izenlaguna da. *Lo egiteko* sintagmak *helburua* adierazten du aditzaren konplementu denean, hots, helburuzko perpausa denean, eta *funtzioa*, berriz, izena modifikatzen duenean (§ 30. kapitulua).

**37.4.4e** Osagarrietan, berriz, izenak hautesten du *-tzeko* formako izenlaguna: [(-*tzeko*) {*aholku* ~ *uste* ~ *iritzi* ~ *beldur* ~ *kezka* ~ *keinu*...}]. Hauen esanahia ere ez da berez helburuzkoa, izen gobernatzailearen arabera baizik; 'aholkuaren', 'ustearen', eta gainerakoen objektua da, kasuan-kasuan, *-tzeko* perpausa. Izena *asmo*, *xede* edo *helburu* baldin bada, sintagmak *xede*a adierazten du, jakina, baina ez egituragatik, izenagatik baizik: *Partida irabazteko asmoa dugu*; *Lagunak agurtzeko xede*a *zuen*; izen sintagmari postposizioa erantsita eraturiko [(-*tzeko*) {*xedearekin* ~ *helburuarekin* ~ *nahiarekin* ~ *ideiarekin* ~ *asmotan*}] gisako sintagmak postposizio sintagmak dira, eta, hain zuzen ere, izenari dagokion 'xede', 'helburu' edo 'asmo' esanahia ematen diote esaldiari. Helburuzko perpausen errankide dira, hortaz, egituran den aldea gorabehera: *Oporretan irakurtzeko* {*xedearekin* ~ *ideiarekin* ~ *asmotan*} *erosi dut liburua* = *Oporretan irakurtzeko erosi dut liburua*; *Berehala itzultzeko* {*xedearekin* ~ *ideiarekin* ~ *asmotan*} *joan da* = *Berehala itzultzekotan joan da*. Ohiko postposizio sintagmak dira aurrenak, postposizioaren gobernupean izen sintagma dutenak, eta perpausa gobernatzen dutenak, berriz, bigarrenak, helburuzko perpausak. Gorago esan den moduan, hain zuzen, *-tzeko asmotan* sintagmatik sortua da, izena isilpean utzita, perpausetako *-tzekotan* forma finkoa.

Helburuzko perpausak eta izenlaguna dutenak sintagma mota desberdin bi direnez, biak ager daitezke perpaus berean: *Egunkaria irakurtzeko, hurbiletik ikusteko betaurrekoak jantzi behar ditut; Liburu pare bat erosteko asmoa daukat, oporretan irakurtzeko.*

**37.4.4f** Aditz kopulatiboekin ere joan daiteke *-tzeko* formako perpausa, predikatu funtzioan —*izan, egon* eta *\*edun, eduki* aditzekin, alegia—, aditz perfrasiak eratuz zenbaitetan: *Harritzeko da zenbat lan egin duen; Jaialdia hasteko zegoen.* (Ikus EGLU- II: 468-470).

Esanahiari dagokionez, bat baino gehiago dira mota honetako perpausak aditzera eman ditzaketen nozioak. Inguruaren arabera ulertzen dira; asmoa adieraz dezakete (*aurten ere Berlina joatekoa naiz oporretan* ≈ ‘joateko asmoa dut’), egoera (*zakarretara botatzeko dago txirringa zahar hori* ≈ ‘botatzeko moduan’), obligazioa (*lan hori zuek egitekoa da* ≈ ‘zuek egin behar duzue’). Zerbaiten ‘neurria’ edo ‘balioa’ azpimarratzeko erabiltzen dira batzuetan (*ikustekoak dira uholdeak eragindako kalteak; kontuan hartzekoak dira haren aholkuak*); balorazio esanahi horrekin darabil maiz Axularrek egitura hau, Villasantek azaldu zuen bezala (*kontsideratzekoak dira hitz hauek; laudatzeko zen errege hura*)<sup>15</sup>.

**37.4.4g** Erdiespena adierazten duten aditzekin, haren gauzatzearen berehalakotasuna seinalatzen du zenbaitetan *-tzeko* perpausak, aditz nagusia aspektu burutugabekoa denean: *Aurreko eguneko maiseolaria horma gain batetik jauzi egiteko zegoelarik, atzetik isilka ondoratuta, bultzada batez buruz behera bota zuen horma gainetik* (Barrenso); *Eta mahaitik altxatzeko zeudela: tantan, atea* (Ugalde); aspektu inkoatiboa adierazten duten esaldi horien oinarrian *jauzi egiteko zorian, altxatzeko puntuan* edo gisa horretako postposizio sintagmak egon daitezke, izena eta atzizkia isilpean utzita sortuak. Aditz nagusia aspektu burutukoa denean, berriz, gertakaria gauzatzeko egon bai, baina gau-

---

<sup>15</sup> Villasante: “Cuando Ax. emplea este *-ko* con artículo obtiene una suerte de adjetivo o nombre, con un significado análogo al castellano «digno de», «apropiado para» [...]. Conveniría para expresar este sentido, servirse de este procedimiento, en vez de recurrir al sufijo derivativo *-garri*, cuyo significado fundamental es el de «productor» o «agente»” (1976: 141).

zatu gabe geratu dela iradokitzen da: *Bere burua leiho batetik behera botatzeko egon zen* (J. I. Arana); *Ahotik kendu didak; neu bere horixe itauntzeko egon naiz* (Azkue); *Burruntzian zegoela kosk egiteko egon ninduan* (Altzaga).

**37.4.4h** Zerbaiten falta edo gauzatu gabeko zerbait adieraz dezake, berriz, *egon* edo *eduki* aditzekin doanean: *Ikusteko dago zer ekarriko duen datorren agintaldiak* (Argia); *Zu eta gu lezio asko jasotzeko gaude oraino* (Argia); *Duela urtebete ez bezala, sasi gutxiago dauka garbitzeko* (Berria). Gabeziaren adiera hori argi ikusten da *-tzeke* perpausa *-tzeke* atzizkia dutenen errankidea denean: *Egiteko dago zorioneko Euskal atlas hori* (Mitxelena); *Euskal sintaxi osoa, edo ia osoa, egiteke daukagu* (Mitxelena). Ondoko adibide honetan, forma biak ageri dira juntaturik: *Garapen gutxiko literaturetan alderantzizkoa da sentsazioa, egiteke eta egiteko dagoela gehiena* (Berria).

Egitura predikatibo hau dute, azkenik, zerbaiten erabilera adierazten duten perpausak eta, goraxeago azaldu den moduan, helburuzkoen eta osagarrien tartean koka daitezkeenak: *Urratsetan laguntzeko {da ~ dut} makila*. Itzuli hau da, predikazio egitura hauetan, helburuzko perpausetatik hurbilen dagoena.

**37.4.4i** *-tzekotan* formako perpausa ere *izan*, *egon*, *ibili* edo *geratu* bezalako aditzekin doa askotan, predikatu gisa, eta ekintza baten xedea baino areago, zerbait egiteko asmo edo intentziora adierazten du: *Legebiltzarrean bilera ezohikoa egitekotan dira gaur alderdiak* (Berria); *Biharamunean bilera bat egitekotan geratu dira* (Berria); *Etzi etortzekotan lotu gara* (Urrutikoetxea). Argia da esanahi hori *-tzekotan* perpausa *asmo* izena daraman perpausarekin juntatua denean: *Dantza eta masaje tailerra egiteko asmoa dugu, eta barretaria egitekotan ere bagara* (Berria). Mugimendua adierazten duten aditzen konplementu ere izan daiteke forma honekin eginiko perpausa: *Goizean joan zen mendira, bazkaltzera itzultzekotan, baina ez zen bueltatu* (Berria); *Hurrengoan itzultzekotan joan da, pozik* (Goienkaria).

Asmoaz bestelako nozioak ere adieraz ditzake, hala ere, isilpeko izena bestelakoa denean; egoera, besteak beste: *Nafarrek partida nahiko eskasa egin zuten, eta berriro kale egitekotan izan ziren* (Berria); *Aseguru etxea porrot egitekotan zegoenean, Gobernuak diru laguntzak eman zizkion* (Berria).

**37.4.4j** Balio inkoatiboa du beste zenbaitetan, *-tze*ko perpausak bezala, erdiespena edo gauzatzea adierazten duten aditzekin, aditz nagusia aspektu burutugabekoa denean: *Euskaltegitik atera berri den ikasle bat alboko tabernara sartzekotan da (Berria)*; *Autoa errepide nagusira ateratzekotan zela, bide horretan zihoan kamioi batek jo zuen atzetik (Berria)*. Eta gertakaria gauzatzeiko puntuan egonda, gauzatu gabe geratu dela adieraz dezake, aditz nagusia aspektu burutukoa denean: *Lehen zatiaren amaieran bigarren gola sartzekotan egon ziren (Berria)*; *Alpetan barna ere ibili da, eta Perura joatekotan egon zen duela urte batzuk (Berria)*.

## 37.5. *-tze*agatik eta *-tze*arren formekin eginiko helburuzko perpausak

### 37.5.1. *-tze*agatik eta *-tze*arren formak, kausazko eta helburuzko

**37.5.1a** Postposizio motibatiboarekin eraturiko *-tze*agatik eta *-tze*arren formatako perpausak perpaus nagusiak adierazten duenaren ‘motiboa’ ematen dute aditzera, agerikoa denez. Motiboa, kapitulu honen atarian esan den moduan, bitara uler daiteke: ondoko gertakaria ekarri duen *kausa* moduan edo aurreko gertakaria eragiten duen *xede* bezala. Beraz, aurreko ataletan aztertu diren formek ez bezala, forma hauek perpaus mota biak era ditzakete: kausalak (*marka {ontzeagatik ~ ontzearren}*, *sari handia eman diote*) eta helburuzkoak (*marka {ontzeagatik ~ ontzearren}*, *entrenamendu gogorak egiten ari da*). Forma hauetan ikusten da, bada, argien kausazko perpausen eta helburuzkoen arteko hurbiltasuna.

**37.5.1b** Kapitulu honen atarian esan den bezala, perpausak batera edo bestera ulertzeko bereizgarriak bi dira. Gertakarien segidari dagokiona da bat. Kausazkoek adierazten duten gertakaria nagusikoaren aurrekoa —edo aldiberekoa— da, eta helburuzkoak, berriz, prospektiboak; hauek nagusiko gertakariaren ondoko gertakaria, gertakizun dena, ematen dute aditzera. Aurrena, ‘marka ontzea’ gauzatzen da, kausazko goiko adibidean, eta ondoren dator ‘saria hartzea’; ‘marka ontzea’, berriz, ‘entrenamenduen’ ondokoa da, helburuzkoan. Bigarren bereiz-



garria egileari eta hartzaileari dagokie: kausazkoaren perpaus nagusian izan daiteke egileren bat, beharrezkoa ez bada ere, baina funtsezkoa da hartan *jasaille* edo hartzaile bat izatea —saria hartu duena, adibidean—; helburuzkoetan, berriz, perpaus nagusiko gertakariaren subjektua egile borondateduna da beti —marka ontzeko entrenamenduak egiten dituenak berariaz egiten ditu—.

**37.5.1c** Gehienetan argia izaten da perpausaren izaera, hots, kausazkoa ala helburuzkoa den. Zenbaitetan, ordea, anbigua izan daiteke perpausa, bataren nahiz bestearen bereizgarriak dituenak. Hala, esate baterako, *Zenbat diru eman dizute gela garbitzeagatik?* esaldia bietara uler daiteke: ‘gela garbitu duzulako’ —kausazkoa aurretik eta ‘zuri’, diru hartzailea, nabarmendua—, nahiz ‘garbi dezazun’ —helburuzkoa ondotik eta ‘haiek’, sari emailleak, nabarmendua—. Kausazkoa bada, *-lako* perpausaz ordezkari daiteke —*gela garbitu duzulako*—, eta *-tze* perpausaz edo subjuntiboaz helburuzkoa baldin bada —*gela garbitzeko* edo *garbi dezazun*— (ikus § 38.3).

Forma biek ez dute erabilera bera euskalki guztietan. Hala, *-tzeagatik* forma erdialdeko eta ekialdeko euskalkietan ageri da mendebaldekoetan baino maizago, bizkaierazko testuetan ere zerbait ageri bada ere —hala nola Agirre, Arrese Beitia, Iturzaeta eta beste batzuen lanetan—; *-tzearren* forma, berriz, erdialde-tik mendebaldera erabiltzen da batez ere. Eta kausa-helburu adieren banaketan ere kontuak ez dira berdinak. Forma biek bietako perpausak eratzen dituzten arren, maiztasunak bana dabilta: *-tzeagatik* forma gehienbat kausala da, baina helburuzko gisa ere erruz erabiltzen da; *-tzearren*, berriz, kausazkoa izan badaiteke ere, maizago erabiltzen da helburuzko esanahia duela.

### 37.5.2. Helburuzko *-tzeagatik* forma

**37.5.2a** Beste helburuzko perpausak bezala, kausalen erabilera bertsua du helburuzko *-tzeagatik* perpausak ere, predikatuen barneko osagaia denean. *Zerta(ra)ko* edo *zergatik* galderei zuzenean erantzutea ohikoa ez badu ere, ez du debeku horrela egitea, *zergatik* motibatiboarekin batik bat: *Izan ere, zergatik egiten duzu hori? -Beste on bat, bakea, lortzeagatik* (Villasante); *Ebak*

*erantzun zion: Jakizu zergatik: fruitu hori jan ondoan ez hiltzeagatik (A. P. Iturriaga). Galdegaita ere izan daiteke: Enrique ikusteagatik, sentitzeagatik eta laztantzeagatik etorri zen Helen iaz berriro ere sanferminetara (Berria); Egiten duten guztia, jendeak ikusteagatik egiten dute (Elizen arteko Biblia). Murriztailearekin: Biderik luzeena hautatu nuen, urtegia ikusteagatik bakarrik (Cano); Hori ikusteagatik bakarrik merezi du azoka bisitatzea (Berria). Bai-ez kontrastea adieraziz ere erabil daiteke, beste helburuzko nahiz kausazko perpausekin edo bestelako sintagmekin: Jainkoa zerbitzatzeko behar dena emango dizut, eta ez gehiago: eta hori ere ez zuri gustu emateagatik, ezpada Jainkoak agintzen, ta nahi duena egiteagatik (Kardaberaz); Beltzak zanpatu zuen; baina ez dirua kentzeagatik [...], iruzur egin zigulakotz baizik (Izeta); Diktadura garaian jende askok errebindikazio politikorako gune zelako jotzen zuen antzokietara, ez antzerkia ikusteagatik (Argia).*

**37.5.2b** Gainerakoetan aditz nagusiaren eskuinean du honek ere ohiko lekua: *Nire arima salduko nuke zerrenda horretan nortzuk dauden jakiteagatik (Berria); Zaleek dirua ordaintzen dute gu ikusteagatik (Berria).* Baina haren aurrean ere koka daiteke: *Eta gero ahaideoi poz pixka bat emateagatik, han zerabilen bere ontzitxoia бага indartsuen gainean gora eta behera (Agirre); Horiakin ibiltzeagatik ni ere sartuko nintzateke futbolista (X. Mendiguren Elizegi).*

**37.5.2c** Predikatuaz kanpoko perpausak ere era daitezke forma honekin, *-tze*ko formarekin bezala. Halakoak dira, hain zuzen ere, enuntziatioaren helburua adierazten dutenak: *Aitzakiak bilatzeagatik ez da, baina Alavesek denboraldi hasiera gogorra izan du (Egunkaria); Ez da justifikazio errazak bilatzeagatik, baina norbera, gaztea denean, okertu egiten da maiz (Alonso); ‘aitzakiak’ edo ‘justifikazioa’ bilatzea ez da perpaus nagusiko gertakariaren helburua, esatearena berarena baizik.*

### 37.5.3. Helburuzko *-tze*arren forma

**37.5.3a** Mendebaldeko *-tze*arren formarekin eginiko perpausek *-tze*agatik formarekin eginikoen erabilera bertsua dute, hau da, galderari erantz-

naz: *Zertarako? Zerbait egitearren, agian (Berria)*; galdegai moduan: *Soldadutza ez egitearren hasi nintzen Gurutze Gorrian (Goienkaria)*; *Bere baitan bor-bor zituen galderei erantzunak bilatzearren murgildu zen Albert Einstein zientziaren munduan (Berria)*; ukagai gisa: *Ez dut idazten literatur eta gramatika ariketa hutsa egitearren (Berria)*; *Baina hau guztia idazten ez nabil propaganda egitearren bakarrik (Berria)*. *Bai-ez kontrastea aditzera emateko ere erabiltzen da, kontrastea forma bereko perpausarekin edo bestelako batekin eratuz: Polemika sorraraztearren egin zuen, ez justizia bilatzearren (Urzelai)*; *Baina ni zuek ikustearren etorri naiz. Ez amaren kontaktatua izateko (Goenkale)*; *Ez dute galizieraz idatzita dagoelako irakurtzen eta mesede egitearren, gustuko dutelako baizik (Berria)*.

**37.5.3b** Gainerakoetan aditz nagusiaren eskuinean joan ohi da maiz forma honetako perpausa ere: *Abadeak erdaraz irakasten zuen dotrina, gobernu berriari eder egitearren (Sarrionandia)*; *Ez dakit zer ez nukeen emango hori ikustearren (Juan Garzia)*. Haren ezkerrean ere joan daiteke: *Azkenean, etxetik hurbilago egotearren, Hendaiara bizitzera joatea erabaki zuen (Soto)*; *Orain bezala ez bizitzearren, hiltzeko prest gaude (Berria)*.

Adibide horietan ikusten den bezala, *-tzearren* forma daraman aditza mendeko perpausaren azkenean ematea ohikoa bada ere, hura aurrean dela ere eman daiteke: *Ahalik eta gehien luzatzen zuen isilune hori [...], ikustearren jendearen artetik sortzen ote zen inolako erantzunik (Berria)*; *Tentazioa sentitzen du bengala bat botatzeko, ikustearren ea, sabaitik harago, beste zerbait ote dagoen espazio honetatik aparte (Markuleta)*.

**37.5.3c** Predikatuaz kanpoko konplementua ere izan daiteke, *-tzeagatik* formakoa bezala, perpaus nagusiko gertakariaren xedea baino areago esatearena edo enuntziazioarena berarena aditzera emanaz: *Adibide simple bat aipatzearren, telefono-zerrendatik zoriz pertsona bat aukeratu eta pertsona horrek ehun eta hogeita bost kilotik gora izateko probabilitatea oso txikia da (J. Zabaleta)*; *Ez da presio egitearren, baina ia sarrera guztiak agortu dira (Goienkaria)*.

#### 37.5.4. *Esateagatik esan gisako esaldiak*

**37.5.4a** *Esateagatik esan* eta *egitearren egin* gisako esaldiek esandakoak edo egindakoak bestelako helbururik ez duela ematen dute aditzera, hau da, esate edo egite hutsa beste xederik ez duela: *Ez kezkatu, esateagatik esaten ditu horrek horrelako astakeriak; Kontua da nahasita zaudela eta gauzak egitearren egiten dituzula (Goienkaria)*. Alderantziz, ezezka emanda esate hutsaz edo egite hutsaz bestelako helburu bat badela seinalatzen da, hain zuzen ere: *Gerrak ez dira egiteagatik egiten; Lege hori ez dute egitearren egin, derrigor bete beharra da*.

**37.5.4b** *Esan*-ekin eginiko esaldiak benetakotasunik eza eman dezake aditzera: *Esateagatik esan du hori, ez benetan; Esateagatik esan dut -zuritu zuen bere burua Clarak, irribarre eginez (Biguri)*. Ezezka emanda, berriz, esanaren benetakotasuna azpimarratzen da: *Hala sinesten nuen, eta ez dut esateagatik esan; Lagunduko digula agindu digu, eta ez du esatearren esan*.

### 37.6. *-tze aldera* formarekin eginiko helburuzko perpausak

#### 37.6.1. *Aldaerak eta adierak*

**37.6.1a** *Aldera* postposizioarekin eginiko *-tze aldera* formak ere helburuzko perpausak era ditzake gaurko euskaran. Hizkera mintzatua islatuz San Martinek idatzitako lanetan aurki daitezke adibide batzuk, *-tze alde* aldaeran: *Berari laguntze alde, serenoa bere hasi zen duro bila; Pernandori adarra jotze alde, hasi zen kantuan*. Gaur egungo idatzietan gero eta erabilera zabalagoa du formak, Hegoaldekoetan batez ere, eta baita hizkera mintzatuan ere; *-tze aldera* da ohiko forma, baina *-tze alde* ere erabiltzen da inoiz, eta are *-tu alde* forma ere<sup>16</sup>.

**37.6.1b** Adiera bat baino gehiago ditu forma honek, bere aldaera bietan, eta ñabardura desberdinak eman ditzake aditzera. Helburua, besteak beste: *Galde-*

---

<sup>16</sup> Hala erakusten dute Garatek (1988) ematen dituen adibideek (10 eta 281).

*keta egite aldera azkenera arte borrokatuko gara. Bestetik, esate aldera esan, egite aldera egin eta gisa horretako esaldiak daude, zeinetan xedea esatea edo egitea berak direla esaten den, beste helbururik gabe; hirugarrenik, ekintza bat beste baten truke gauzatzen delako adierazpena dago: *Zaldia emaztearentzat, eta aizturak berorrentzat, testamentua egite aldera* (Urruzuno). Hiruretan, ikusten denez, *-tzeagatik / -tzearren* formen hurbileko erabilera du forma honek.*

### 37.6.2. Erabilera

**37.6.2a** Helburua adierazten duenean, gainerako helburuzkoen antzeko jokabidea du forma honek, haien erabilera guztietara hedatu ez bada ere. Hala, esaterako, ez da ohikoa forma hau *zergatik* edo *zertarako* galderei zuzenean erantzuteko erabiltzea, baina galdegai izan daiteke: *Bide horretan indar egite aldera deitu dute bihar elkarretaratzera* (Berria). *Bai-ez* kontrastean ere erabiltzen da: *Bai, baina ez esate aldera, hitanoa gure gizartean dagoelako bai-zik* (Argia). Eta bere hartan uzten da mendekoaren mendeko denean: *Baita krisiari aurre egite aldera gobernuak abian jarri dituen bestelako ekimenek ere* (Berria); *Gogoeta egite aldera idatzitako liburua da* (Berria).

**37.6.2b** Bestelakoetan, aditz nagusiaren eskuinean ematen da maiz: *Elkarrizketa bukatuta, entzuleei hitza ematen saiatuko dira antolatzaileak, solasaldi zabalak egite aldera* (Berria); *Orain atsegina zen nirekin eta esaten zidan edozein gauza emango lukeela ni pozik ikuste aldera* (P. Lizarralde). Baina ezkerrean ere eman daiteke: *Antzezlan erreala egite aldera, benetako arazoak planteatu ditugu obran* (Berria); *Errepide hobia egite aldera, eta, batez ere, segurtasuna handitze aldera, hobekuntza lanak egiten ari dira* (Berria). Bai eta predikatuan tartekatua ere: *Hobe da, beraz, paisaiaren zabala ikuste aldera, azalari erreparatzea* (Berria).

**37.6.2c** Predikatuaz kanpoko konplementua da, berriz, perpaus nagusiko ekintzaren helburua ez, baina esatearena berarena adierazten duenean: *Konparazio bat egite aldera, Euskal Herriko txirrindulari tropelean egoera arras ezberdina da* (Berria); *Neu ere harritu nau esaldiak, egia osoa esate aldera* (Berria).

### 37.6.3. Esate aldera esan gisako esaldiak

*Esate aldera esan* edo *egite aldera egin* gisako esaldietan ere adierazten da helburua, baina hau ez da perpaus nagusian adierazten den ekintzaz bestelako zerbait, ekintza hura gauzatzea bera baita helburua: *Egia esan, egite aldera egin dizut galdera (Argia)*<sup>17</sup>. Ezezkoa denean, berriz, helburua esate edo egite hutsa ez dela ematen da aditzera, xedea beste zerbait dela, alegia: *Eta ez diot esate aldera (Argia)*; *Daukaguna hobetu dezakeen jokalariren bat parean jarri gero, saiatuko gara fitxaketaren bat egiten, baina egite aldera ez dugu ezer egingo (Berria)*. *Esateagatik esan* itzuliaren parekoa da hau.

### 37.6.4. Trukearen adierazpidea

Zerbait beste zerbaiten truke eman edo egiten dela adierazten dute zenbaitetan forma honetako perpausok: *Erleak emate alde txerria merkeago saltzen da*<sup>18</sup>. Bitara uler daitezke perpaus hauek, pareko *-tzeagatik/-tzearren* formatakoak bezala. Gertatutako zerbaiten trukea bada, hura kausa gisa uler daiteke: *Zaldia emaztearentzat, eta aizturak berorrenzat, testamentua egite aldera* (Urruzuno) —hau da, ‘egin izanaren truke’ edo ‘egin duelako’—. Gertakizun den zerbaiten trukea bada, berriz, hura helburu gisa ulertzen da: *Ez egun bateko galtzea ez, baita lau egunekoa ere egingo nuke hauxe ikuste alde* (Berrondo) —‘hauxe ikustearen truke’, alegia—<sup>19</sup>. Bietara uler daitezkeen perpaus anbiguoak ere erazten dira forma honekin: *Etxea margotze aldera mila euro eman dizkio* —‘margotu izanaren truke’ nahiz ‘margotu dezan’, alegia—. Bitasun hori bera gerta daiteke, gorago ikusi den moduan, *-tzeagatik* eta *-tzearren* formatako perpausetan ere.

---

<sup>17</sup> “Irakurtze alde ari zaren hori” itzultzen du Berrondok erdarazko “Desocupado lector” esaldia: *Irakurtze alde ari zaren horrek, zirik gabe ere sinistu zenezake liburu hau [...] libururik ederrena [...] izatea nahi nukeela*.

<sup>18</sup> OEhk ‘A cambio (de), en pago (de)’ itzultzen du, besteak beste, forma honetako postposizioa (s. v. *aldera*).

<sup>19</sup> “A truco de verle” esaldiaren itzulpena da *hauxe ikuste alde*.

### 37.6.5. -tze aldera, helburuzko ez bestelakoetan: zertarako- eta zertara-osagarri

Helburu esanahiarekin eta helburuaren inguruko adieran ez ezik, *zertarako-osagarri* gisa ere erabil daiteke forma hau: *Horrek zailtasunak dakartza akordio orokorrako bat egite aldera (Berria)*, ‘zailtasunak zertarako’, alegia. Bai eta *zertara-osagarri* gisa ere: *Horrek geldialdi gutxiago egite aldera bultzatuz ditzake (Berria)*, hau da, ‘zertara bultzatuz’; *Horrek esan nahi du, besteak beste, gizarte-bizitza makurtu egiten dela telebista ikuste aldera (I. Zabaleta)*, ‘zertara makurtu’, alegia.

### 37.7. -tzera formako osagarriak eta helburuzko perpausak

**37.7a** Mugimendua adierazten duten *etorri*, *igo*, *ekarri*, *eraman*, *bultzatu* edo *bidali* gisako predikatuen *zertara-osagarriek* mugimenduaren jomugako gertakaria seinalatzen dute: *Afaltzera joan dira*; *Teilatua garbitzera igo da*; *Erosketak egitera bidali naute*. Ez dute, ordea, ikusten denez, jomuga fisikoa adierazten, jomugako gertakaria baizik; ez *nora?* galderari dagokiona, alegia, *zertara?* galderari dagokiona baizik (*afaltzera*, *teilatua garbitzera* eta *erosketak egitera*, hurrenez hurren, goiko adibideetan); *-tzera* forma hartzen dute osagarri horiek ekialdeko eta erdialdeko euskalkietan, eta *-tzen* forma, eskuarki, mendebaldekoan: *Erosketak {egitera ~ egiten} joan da*.

‘Jomuga’ eta ‘helburua’ hurbileko nozioak direnez, helburuzko perpausen saillean sartu izan dituzte batzuek osagarri hauek ere. Perpaus mota desberdinak dira, ordea, bai egituraz eta baita, neurri batean bederen, esanahiz ere. Helburuzko perpausak erantsitako adjuntuak dira, behin eta berriro esan den moduan, eta haien forma da, hain zuzen ere, esaldiari helburuzko nozioa ematen diona (*egin dezan*, *egiteko*, *egitearren*). *Liburua irakurri dut* esaldian, esate baterako, ‘irakurri’ predikatuak ez du helburuzkorik iradokitzen; *azterketa prestatzeko* eransten badut, horrek ematen dio helburuaren nozioa esaldiari. Aldiz, *-tzera* osagarrien kasuan predikatuak berak ematen dio esaldiari jomuga adierarako bidea. Hala, esate baterako, *joan* aditzaren esanahiak berarekin daruma jomugaren noziora-

ko aukera eta *zertara*-osagarria agertzen bada, haren argumentu sarean integratua ageri da. *Hondartzara joan da* perpausari *bainu bat hartzera* eransten badiot, *joan* predikatuari bere argumentuen sareko osagarri bat erantsi diot; *-tzera* osagarriak *joan* gisako predikatua ‘eskatzan’ du, eta *joan* predikatuak, bere aldetik, *-tzera* osagarria du bere argumentuen sarearen barnean.

**37.7b** Horregatik, gorago esan den moduan, helburuzko perpausa edozein predikaturekin joan daiteke, esanahiaren egokitasuna gorabehera, haren formak ematen baitio esaldiari helburuzko nozioa, predikatua zein-nahi izanik ere: *Azterketa prestatzeko* {*liburu hori irakurri dut ~ akademian eman dut izena ~ praktika asko egin ditut ~ lagunarekin hitz egin dut ~ lasaitze ariketak egin ditut ~ gela bat alokatu dut ~ autobusa hartu dut ~ zigarroak erretzen aritu naiz ~ ahuspez jarri naiz...*}. Osagarria, aldiz —baita *-tzera* formakoa ere—, osagarri mota hura hautesten duen predikatuarekin doa beti: *Erosketak egitera* {*joan da ~ etorri naiz ~ agertu da ~ bidali dute...*}. Hitz batean esateko, bada, helburuzkoek ez bezala, *-tzera* perpausak predikatuaren argumentu sarean dute lekua (ikus 30. kapitulua; EGLU-VII: 451).

Alde hori dela eta, hain zuzen ere, egituraz perpaus mota bi direnez, biak ager daitezke esaldi batean: *Gabonetako kantak abestera atara dira, aspaldiko ohitura ez galtzarren*.

**37.7c** Esanahiari dagokionez, berriz, antzekoak dira, bai, perpaus mota bi hauek, baina ez guztiz berdinak, hala ere. Helburuzkoek, behin eta berriro azaldu denez, berriazko egile baten asmoa adierazten dute, eta *-tzera* osagarriek, berriz, mugimendu baten jomugako gertakaria ematen dute aditzera. Jomuga subjektuaren asmoarekin bat dator sarritan, agerikoa denez, baina jomuga da, ez helburua, perpausaren berriaz seinalatzen dena. *Erosketak egitera joan da* perpausaren, esate baterako, joanaren jomugan erosketak egitea dagoela da berriaz adierazten dena, jomuga hori subjektuaren borondatearekin bat datorrelarik<sup>20</sup>.

---

<sup>20</sup> Predikatu hauek zenbaitetan ez dute mugimendua adierazten, borondatearik gabeko subjektua dutelarik. *Gerra txarren bat etorriko da mundutarrok bakantzera* (Basari) esaldiak, esate baterako, denbora adierazten du, etorkizuna, mugimendua baino areago; ‘gerra txarren bat izango da’ esan nahi du.



Zenbaitetan, hala ere, *zertara*-osagarria ez, baina helburuzko formako perpausa izan dezakete mugimendu aditzek inoiz konplementu, eta orduan esaldiak helburua seinalatzen du, ez jomuga: *Joanek erakusten die [...] Kristoren aurrean etorria dela, Hari bidea apaintzeko, hura nor den erakusteko eta jendea haren-gana erakartzeko* (Iraizoz); *Senarra oraintxe etorriko da zuk egindako eskariaz mintzatzeko* (Etxaide).

Praktikan, hala ere, perpaus mota batekoak nahiz bestekoak erabiltzen dira zenbaitetan, esanahi bertsuarekin: *Laguntzera etorri da – Laguntzeko etorri da*<sup>21</sup>. Egitura desberdineko esaldiak dira horiek, esanahian bat datozenak. Lehena osagarria da; bigarrena, berriz, helburuzko adjuntua.

---

<sup>21</sup> De Rijk: “In that case, what we are faced with could well be a purpose clause disguised as a gerundive” (2008: 395); adibide gisa aipatzen du Testamentu Berriko esaldi batek bietako itzulpenak izan dituela euskarazko bertsioetan: *gu galtzeko etorri zara? Eta gu galtzera etorri zara?*



## 38. Kausazko perpausak

---

- 38.1. Sarrera: kausa, ondorioa, helburua; 38.1.1. Kausa-ondorioaren adierazpenak; 38.1.2. Kausazko perpausak eta helburuzkoak; 38.1.3. Kausa adierazten duten egiturak eta hura iradokitzen dutenak; 38.1.4. Kausa adierazten duten formak
- 38.2. Kausazko perpausak: motak eta formak; 38.2.1. Predikatuaren barneko osagai direnak, kausalak; 38.2.2. Predikatuaren kanpoko osagai direnak, azalpenezkoak; 38.2.3. Kausalak eta azalpenezkoak; 38.2.4. Formak
- 38.3. *-lako(tz)*, kausala
- 38.4. *-tzeagatik* eta *-tzearren*, kausalak
- 38.5. *Bait-*, kausala eta azalpenezkoa
- 38.6. *Zeren...-n* eta *zeren...bait-*, kausalak eta azalpenezkoak
- 38.7. *-eta* enklitikoa, azalpenezkoa
- 38.8. *-nez gero*, azalpenezkoa
- 38.9. *Nola... {bait-; -n}*, *zelan...-n* azalpenezkoak
- 

### 38.1. Sarrera: kausa, ondorioa, helburua

#### 38.1.1. Kausa-ondorioaren adierazpenak

**38.1.1a** Bat baino gehiago dira gertakarien arteko ‘kausa-ondorio’ erlazioa aditzera ematen duten perpaus motak, edota erlazio hori oinarri dutenak. Kausazko perpaussek perpaus nagusiko gertakaria eragin duen kausa seinalatzen dute: *Euria*

*egin duelako datoz ibaiak haziak*; baldintzazkoak ere (ikus 34. kapitulua) erlazio horren ganean eraikiak izan daitezke, gertakari eragilea hipotesi moduan aurkeztuta: *Euria egiten badu, ibaiak haziko dira*; kontzesiozkoek (ikus 39. kapitulua) kausa gauzatu dela esan bai, baina hark iradokitzen duen ustezko ondorioa bete ez dela adierazten dute: *Euria egin badu ere, ez dira ibaiak hazi*; helburuzko perpausek (ikus 37. kapitulua), berriz, aurrera begiratu eta lortu nahi dena seinalatzen dute perpaus nagusiko gertakariaren eragile modura, xedea delarik haren kausa: *Errieta egin nien haurrei, isil zitezten*; eta ondoriozkoek ere aurrera begiratzen dute, perpaus nagusiko gertakariak eragin duen ondorioa seinalatzuz: *Halako euri jasa egin zuen, non ibaiak hazita baitzetozen*.

**38.1.1b** Kausa-ondorio erlazioan oinarritzen dira, bada, perpaus horiek guztiak, zein bere modura bada ere. Ikusten den moduan, kausazkoek, baldintzazkoek eta kontzesiozkoek erlazioaren lehen elementuari begiratzen diote, kausari ('euria egin'), baina baldintzazkoek hura hipotesi moduan aurkeztuz ('egiten badu') eta kontzesiozkoek, esan bezala, haren betetzeak iradokitzen duen ondorioa ukatuz ('euria egin du', bai, baina...). Helburuzkoek eta ondoriozkoek, berriz, bigarren elementuari begiratzen diote, ondorioari, helburuzkoek hura xede gisa seinalatzuz ('haurrak isiltzea') eta ondoriozkoek gauzaturiko gertakari moduan aurkeztuz ('ibaiak haziak etortzea').

### **38.1.2. Kausazko perpausak eta helburuzkoak**

**38.1.2a** Aipatutako perpaus horietan guztietan kausazkoak eta helburuzkoak dira elkarrengandik hurbilen daudenak. Gertakariaren kausa adierazten dute biek, baina ez datoz bat kausa hori aurkezteko moduan. Kausazkoek atzera begirako ikuspegia dute, gertakari nagusia eragin duena haren aurretik —edo, artean irauten badu, aldi berean— kokatuz eta, hortaz, gauzaturatzat emanaz ('euria egin du', goiko adibidean). Helburuzkoak, berriz, prospektiboak dira; gertakari nagusitik aurrera begiratzen dute, subjektu egileak duen xedea haren eragile gisa aurkeztuz eta hura gauzatu denik esan gabe (ez da esaten, goiko adibidean, 'haurrak isildu diren', baina helburu hori lortzea da errieta egitearen kausa).

**38.1.2b** Aldeak alde, ordea, ezaugarri berdinak ere badituzte kausazko eta helburuzko perpausek, biak ere kausaren adierazle direnez. Hasteko, biak izan daitezke *zergatik* galderaren erantzuna: *Zergatik mugitu duzu aulkia?* —{*Traban zegoelako* ~ *Trabatik kentzearren*}. Bestalde, juntaturik ere ager daitezke: *Dirua behar duelako eta gurasoen nahia betetzearren hasi da lanean; Ez da kontzertuetara joaten musika maite duelako, bere burua agertzeagatik baizik; Gaur goiz etxeratu da, edo nekatua zegoelako edota, beharbada, telebistan futbol partida ikusteko.* Eta, are gehiago, forma gehienetan bereiz badira ere, *-tzeagatik* eta *-tzearren* formetan bat datoz, forma ‘motibatibo’ horiek kausazko nahiz helburuzko perpausak era baititzakete, aurrerago ikusiko den moduan: *Ilunpean ibiltzeagatik {erori da ~ itzali du argia}* (§ 38.4).

Kausazko perpausak aztertuko dira kapitulu honetan, helburuzkoak beste kapitulu baterako utzita (37. kapitulua). Aipatu ditugun beste perpaus motak, berriz, zein bere lekuan aztertzen dira.

### 38.1.3. Kausa adierazten duten egiturak eta hura iradokitzen dutenak

**38.1.3a** Berariaz kausa seinalatzea xede duten perpausek eta sintagmek forma jakinak erabiltzen dituzte adierazpen hori gauzatzeko, *-lako*, *bait-*, *-gatik* eta horrelakoak, alegia: *etorri delako*, *etorri baita*, *etortzeagatik*; *nekeagatik*. Horiek gabeko perpaus batzuek, hala ere, berariaz seinalatu ez, baina iradoki behintzat egiten dute kausazko adiera, irakurketa hori erantsiz, inferentziaz, beren esanahiari.

**38.1.3b** Hala, juntaturiko perpausetako lehenak kausa iradoki dezake (*gau iluna da eta ez da ezer ikusten*), edo alboraturiko perpausetakoak (*gau iluna da, ez da ezer ikusten*). Berdin, erabilera zabala duen *-larik* formarekin eginiko perpausek: *Hain ona delarik, nola ez maita* (Lafitte). Edo partizipioarekin eginiko sintagma adberbialek: *Partida irabazita, pozik ziren jokalariaik*; *Polizia ikusitakoan, lasterka hasi ziren*. Zenbaitetan, perpaus-

sen esanahia bera aldatu egiten da; hala, esate baterako, denborazko forma-koek kausa edo azalpena adieraz dezakete: *Horrek esan duenean, ez da zalantzarik horrela dela; Laguna larri ikustean, ospitalera eraman zuten; Zuk erran duzun puntutik, sinesten dut* (Lhande); *Amodiotik aingeru hori kontzebitu den ordutik, / ni segur nago Jainko maiteak deitzen duela zeru-  
tik* (Xalbador).

**38.1.3c** Aditz batzuek ere berekin daramate kausazko esanahia: *Eurite handiak uholdeak ekarri ditu; Harrokeriak eraman zuen txorakeria horiek esatera*. Horrelako egiturak, iradokizun mailako edo aldaturiko kausa-adierazpena egiten dutenez gero, ez dira hemen aztertuko.

#### **38.1.4. Kausa adierazten duten formak**

**38.1.4a** Berariaz kausa adierazten duten formak, bere aldetik, ez dira denak mota batekoak eta ez dituzte denek egitura sintaktiko berak eratzen. Diskurtso markatzaileak dira batzuk, testu mailakoak, esaldien edo solas zatien arteko lotura gauzatzen dutenak: *Etxera joan da; izan ere, nekatuta dago*. Perpaus mailako egitura sintaktikoak eratzen dituzte beste batzuek. Postposizio sintagma eratzen dituzte postposizioek, izen sintagma gobernatuz: *Zugatik egin du; menderagailuek, berriz, mendeko perpaus jokatuak eratzen dituzte: Gehiegi erre dutelako hondatu zaie janaria; bestalde, postposizioek aditz izena gobernatuz mendeko perpaus jokatu gabeak ere era ditzakete: Semaforoa gorrian pasatzeagatik jarri diote isuna*.

**38.1.4b** Diskurtso markatzaile guztiek bezala, kausazkoek ere esaldi bi elkartzen dituzte, markatzailea daramanak bestean esaten denaren azalpena eskaintzen duelarik, baina haren mendeko izan gabe. Hala, *izan ere, alabaina, bada, ezen, zeren* eta *zergatik (eze)* kausazko markatzaile gisa erabil daitezke (ikus 42. kapitulua).

*Izan ere* esapidea bere osoan da diskurtso markatzaile, perpausaren hasieran nahiz tartean kokatua: *Auto berria erosi du; izan ere, zaharra ez zebilen ondo; Zaila da, izan ere, testuak ongi ulertu ahal izatea* (Mitxelena). Gipuzkoan eta

Bizkaian erabiltzen da batez ere, XIX. mendearen amaiera aldetik hona<sup>1</sup>. *Alabaina* batez ere aurkaritzako markatzaile gisa erabiltzen da gaur egun mendebaldean, baina kausazko bezala batez ere ekialdean: *Zer jendetzak bildu ahal ziren haren aditzeko! Alabaina halako famako predikaria zen* (Zerbitzari); *Ikaslerik nehor kasik ez, edo guti. Gizon gazteak alabaina [...], nahiago hiri handia* (J. Etxepare). *Bada* lokailuak —lagunartean, *ba*— bestelako erabilerak ditu, baina inoiz kausa ere adierazten du, Hegoaldeko euskalkietan batez ere: *Ez dut agurtu, bada ez dut ezagutu; Eraman ezazu, bada on egingo dizu*<sup>2</sup>. *Ezen* —edo *ezi(k)*— Iparraldeko euskalkietan erabiltzen da kausazko adieran: *Segur naiz plazer eginen diodala, ezen bera ere kantari pollita da* (Xalbador). *Zeren* eta *zergatik* (*eze*) formak *-n* edo *bait-* menderagailuekin erabiltzen dira maizenik, baina haiek gabe ere erabiltzen dira, aurrerago ikusiko den moduan: *Presta zaitezte ondo partidarako, zeren nork irabazten du ondo prestatu gabe?*; *Agudo plater pare bat, zergatik gosearekin ez dugu ikusten* (Soroa).

**38.1.4c** Beste postposizioek bezala, kausazkoek ere ohiko postposizio sintagmak eratzen dituzte, izen sintagmarekin doazenean. Hala, *-gatik*: *Nekeagatik utzi nuen lasterketa*; *Nigatik egin dute hori*; *Eskerrik asko opariagatik*; ‘kausazkoak’ dira horrelako sintagmak, *nigatik egin dute* esanda, esate baterako, ‘nire kausaz’ egin dutela adierazten baita, eta, hain zuzen ere, kausazko perpausekin juntaturik eman daitezke: *Ni euskarari nago, bihotzez eta gogoz, ez ederrarengatik bakarrik, baina gurea delakotz* (Xalbador). Postposizioa berez genitiboari eransten zaio (*Koldorengatik, semearengatik, semeengatik*), baina izenkia mugatzaile gabea edo mugatu singularra denean genitiboaren

<sup>1</sup> ‘*Izan + ere*’ sekuentzia zenbaitetan ez da diskurtso markatzaile, *izan* aditzarekin eginiko «aditza, aditza + *ere*» egitura enfatiko baizik (*bolada txarra etorri zaigu, etorri ere; lasai dago eserita, egon ere* bezala, alegia, *halakoxea da, izan ere*, ‘izan’ aditza bere indarrean delarik). Villasanteren iritziz, egitura horretatik sortu da, hain justu, *izan ere* markatzailea (1986: 241). Edozein kasutan, *zaila da, izan ere* edo *halakoxea da, izan ere* bezalakoak bietara uler daitezke, ‘izan’ aditzaren esanahia indarrean duen egitura gisa nahiz diskurtso markatzaile bilakaturiko esapide bezala (§ 42.23.6).

<sup>2</sup> Gaztelaniaren *pues*-en parekoa da erabilera hau. Azkuek (1923-1925: sec. 725, 491) eta Altubek (1929: 10) okertzat eman zuten.

atzikia agerian eman gabe utzi daiteke (*Koldogatik, nigatik, semeagatik*) (EGLU-I: 433-437). Erakuslearekin eginiko *horregatik* sintagmak aurretik aipatutako zerbaiti egiten dio erreferentzia, hura perpaus nagusiko gertakariaren kausa edo arrazoi gisa seinalatuz: *Ez dut ezer txarrik egin. (Arrazoi) horregatik, ez diet epaileei beldurrik.*

Postposizio hori emankorra da euskalki guztietan izen sintagmak gobernatur. Ez horrela, ordea, mendebaldeko *-arren* postposizioa, hau ez baita, aditz izenaz beste, izen gutxirekin baizik erabiltzen kausa adieran (*beldurrarren, lotsarren, pozarren*): *Lotsarren negar-malko onik isuri omen zuen* (Zaitegi); *Pozarren dira andreak erotu* (Arrese Beitia); *Beldurrarren esan ditu Nikanorrek, esan dituenak* (Erkiaga).

Instrumentalaren *-z* atzizkiarekin eginiko postposizio sintagmek ere kausa adieraz dezakete, moduaz gain, gogo edo gorputz egoerarekin zerikusia duten izenekin batik bat: *Ez da gosez hilko* (Labaian); *Egin behar ez nituenak eta beldurrez nahiz lotsaz egin ditudanak*, (Mitxelena); esapide intentsiboa eratzen da izen bereko genitiboa aurretik duela: *Beldurraren beldurrez ez zekien zer egin ere* (F. Bilbao); *Damuaren damuz alde egin zuen mutikoak Nekaneren albotik* (Erkiaga). Halaber, *-en kausaz* esapideak, testu zaharretan ageri denak, adiera hori du, bistan denez: *Bere hutsen kausaz Jaunak sutara egotziak* (Etxeberri Ziburukoa); *Zeinaren kausaz askok egin ohi dituen ezer balio ez duten matrimonioak* (Otxoa Arin). Berdin, *-en indarrez* esapideak ere: *Penaren indarrez egun guzti hartan mokadurik irentsi ez zuen* (G. Arrue). Eta *-en kariaz* Iparraldekoak edo goi mailakoak: *Lagunen kariaz egin du hori.*

Kausa adierazten duten postposizio gisa joka dezakete beste forma batzuek ere: *-i esker(rak)*, esate baterako: *Sebastian honi eskerrak, jan eta lo ederki egiten genuen* (I. Alkain eta A. Zavala); *Arta zenbaiti esker, aberea ez zen horretarik hil* (Lafitte). Iradokizun negatiboa du, berriz, *-en erruz* esapideak: *Lagunaren erruz galdu zuen diru guztia*. Orobat aipa daitezke, azkenik, aurrerago azalduko diren *dela-eta* eta *dela kausa* esapide eginak: *Hurrengo partida dela eta, aztoratuta dabilta zaleak*; *Bozak direla kausa, sutan jarria da herria.*



**38.1.4d** Bestelakoak dira, azkenik, kausazko perpausak eratzen dituzten formak. Adizki jokatuarekin eginek menderagailua daramate: *Berandu {etorri delako ~ etorri baita ~ etorri denez gero}*; jokatugabeak, berriz, esan bezala, aditz izenari postposizioa erantsita eratzen dira: *Berandu {etortzeagatik ~ etortzearren}*. Perpaus horiek dira, jokatuak zein jokatugabeak, ondoko ataletan aztertuko direnak.

## 38.2. Kausazko perpausak: motak eta formak

### 38.2.1. Predikatuaren barneko osagai direnak, kausalak

**38.2.1a** Kausazko perpaus deitzen ditugu, bada, kausa adierazten duten formekin eratzen diren perpaus mendekoak. Perpaus horiek ere ez dira denak mota eta izaera batekoak. Aitzitik, mota desberdinak bereiz daitezke haien artean, jokabide sintaktikoari eta balio semantikoari dagokienez. Batzuk perpaus nagusiaren barneko modifikatzaileak dira, predikatuaren barneko osagaiak, eta perpaus kausal beteak eratzen dituzte; beste batzuek, berriz, kanpotik modifikatzen dute predikatu nagusia, eta azalpenezko perpausak eratzen dituzte.

**38.2.1b** Hasteko, esan bezala, predikatuaren barneko osagai direnak bereiz daitezke. Perpaus nagusiaren barneko modifikatzaile dira hauek eta predikatu aipatzen den gertakariaren kausa adieraztea dute xede. Kausa hori objektiboa izan daiteke (*su biziegia zutelako erre dira babarrunak*), oinarri logikoa duena (*euskalduna naizelako mintzo naiz euskaraz*) edo arrazoi nahiz motibo subjektiboa adierazten duena (*adiskidea zaitudalako egin dizut galdera hori*). Kausa mota desberdinak dira horiek, nozio desberdinetan oinarritzen direnak, baina euskarak ez ditu formalki bereizten; forma berak erabiliz ematen dira denak (*-lako*, adibideetan). Predikatuak aipatzen duen gertakariaren eragilea seinatzen dute denek. Hortaz, semantikari dagokionez, kausal beteak direla esan daiteke (labur: *kausalak*).

Ezaugarri jakin batzuk dituzte perpaus hauek, predikatuaren kanpoko osagai direnetatik bereizten dituztenak:

- a) *Zergatik galderari —zertako, zerendako, ekialdean— zuzenki erantzun diezaiokete: Zergatik agertu dira itoginak? —Euri asko egin duelako; Zergatik huts egin duzu autobusa? —Berandu jaikitzeagatik.*
- b) *Esaldiko galdegaia izan daitezke: Euri asko egin duelako agertu dira itoginak.*
- c) *Ezezkoaren barruko ukagaia eta hari kontrajarritako galdegaia izan daitezke, ez-bai kontrasteko egituran: *Ez dizut galdera hori jakintsua zarelako egin, adiskide zaitudalako baizik; Adiskide zaitudalako egin dizut galdera hori, ez jakintsua zarelako.**
- d) *Perpausari hanpadura berezia ematen dioten baina, ere eta bakarrik bezalako partikulak onartzen dituzte: *Gainditu duzu azterketa, baina ariketa guztiak egin dituzulako —horrela ez balitz, ez zenuen gaindituko, alegia—; Espezializazioaren bidea hartu dute, gaur egun ildo horrek funtzionatzen duelako. Eta baita Bilbon bertan “beharra” zegoelako ere (Berria); Ez baita bidezko irakurleari euskarazko idazlanak, euskaraz daudelako bakarrik, irakurtzeko eskatzea (Mitxelena).**
- e) *Beren artean junta daitezke mota horretako perpausak: Adiskidea zaitudalako eta asko dakizulako egin dizut galdera hori.*

**38.2.1c** Perpausak bezala, bestalde, postposizio sintagmak ere izan daitezke kausa adierazten duten predikatuaren barneko osagaiak: a) *Zergatik joan da ihesi? —Beldurragatik;* b) *Lagunei eskerrak lortu du lanpostua;* c) *Dudan tituluagatik lortu dut lanpostua, ez euskaragatik;* d) *Diruagatik bakarrik ezkondu da harekin;* e) *Saiatu naizelako eta euskarari esker lortu dut lanpostua.*

### **38.2.2. Predikatuaren kanpoko osagai direnak, azalpenekoak**

**38.2.2a** Predikatuaren kanpoko osagai direnak, berriz, perpaus nagusiaren modifikatzaile dira, eta hartan esaten denaren azalpena edo justifikazioa ematen dute aditzera: *Amaitu egin beharko dugu biltzarra, berandu baita.* Adierazpen bat egiten da perpaus nagusian, edo galdera nahiz agindu bat, eta

haren justifikazio edo azalpena eranstean da mendekoan —‘biltzarra amaitzeko’ proposamenaren azalpen edo justifikazio gisa aipatzen du hitzunik ‘berandu izatearena’, adibidean—. Ematen den azalpenak ere kausa objektibo bat izan dezake oinarri (*erre egin dira babarrunak, su biziegia zuten eta*), oinarri logikoa duena (*euskaraz mintzo naiz, euskalduna bainaiz*) edo arrazoi nahiz motibo subjektiboa adierazten duena (*adiskidea zaitudanez gero, zuri egin dizut galdera*). Baina dena delako arrazoi edo kausa hori adierazpen nagusiarri ‘erantsi’ zaion azalpen gisa ematen da. Semantikari dagokionez, bada, horrelakoak azalpenezko perpausak direla esaten da. EGLUn ‘kausazko perpaus’ edo ‘kausal’ izen generikoa ematen zaie mota bietako perpausari, ‘kausal bete’ predikatuaren barnekoei eta ‘azalpenezko’ predikatuaren kanpokoei. Hemen, ‘kausazko perpaus’ izen orokorra atxiki dugu, baina ‘kausal’ ditugu predikatuaren barnekoak (EGLUko ‘kausal beteak’, alegia) eta ‘azalpenezko’ kanpokoak.

Perpaus hauek predikatuaren barnekoek ez bezalako ezaugarriak dituzte:

- a) Ez dira egokiak *zergatik?* galderari erantzun zuzena emateko; hala, esate baterako, *Errurik ez duenez gero, lasai dago* esan daitekeen arren, *Zergatik dago lasai?* galderari ez zaio *\*Errurik ez duenez gero* erantzuten.
- b) Predikatuaren kanpokoak izanik, bestalde, ezin dira galdegai izan: *\*Errurik ez duenez gero dago lasai*; *\*Lasai, errurik ez duenez dago*.
- c) Ez dute ukagai-galdegai kontrastea eratzen: *\*Ez dago lasai errurik ez duenez gero, epaileak adiskide baititu baizik*.
- d) Ez da ohikoa perpaus hauek juntatzea: *?Errurik ez duenez gero eta epaileak adiskide dituzenez gero, lasai dago*; *\*Merkea baitzen eta polita zenez gero, erosi egin nuen*.
- e) Ez dituzte ondoan *baina, ere* eta *bakarrik* bezalako partikulak onartzen: *\*Etxera noa, baina berandu da eta*; *\*Merkea zenez gero ere, erosi egin nuen*; *\*Ondo egin duzunez bakarrik, gainditu duzu azterketa*.
- f) Perpaus hauek *izan ere* diskurtso markatzaileaz parafrasea daitezke: *Lasai dago; izan ere, ez du errurik*; *Erosi egin zuen; izan ere, merkea zen*.

Horrelako perpausa duten esaldiak urrats bitan ematen dira, esan bezala, perpaus nagusiari dagokiona bat eta kausazkoari dagokiona bestea; eten batek bereizten ditu biak —idatzian eskuarki komaz seinalatua—, eta intonazioak ere bitasuna adierazten du: *Merkea zenez gero # erosi egin zuen*. Esaldi berean kausala eta azalpenezkoa ematen direnean, argi ageri da hura predikatuaren barnekoa dela eta hau kanpoko, etenaren ondoren kokatua: *Aspertuta nengoelako atera naiz kalera, haizea hartzea ona izaten da eta*. Asertzio bi ditugu adibide honetan ere, perpaus kausala barnean duena bat, ‘asperdurak eraman nau kalera’, eta kanpoko azalpenean adierazten dena bestea, ‘haizea hartzea ona da’.

**38.2.2b** Predikatuaren kanpoko osagai diren perpaus hauetan, hau da, azalpena adierazten dutenetan, dedukzioa oinarri dutenak bereiz daitezke: *Partida galdu dute, burumakur baitatoz denak; Euria egin du, kaleak bustiak daude-eta*. Hauetan kausa-ondorio erlazioari buelta eman zaio, eta gertakari baten ustezko ondorioa denetik haren kausa deduzitzen du hiztunak (‘jokalariak burumakur etortzetik’ ondorioztatu du hiztunak partida galdu dutela, adibidean; eta ‘kaleak bustiak egotetik’ euria egin duela); gertakarietan ondorio dena dedukzioaren kausa edo oinarri bilakatu du. Horregatik dedukziozko azalpenak izenda ditzakegu perpaus hauek, hiztunak egin duen dedukzio baten adierazpena baitira<sup>3</sup>. Zenbaitetan perpaus nagusian *segurki* edo *antza* bezalako adberbioak ematen dira, dedukzioaren izaera adierazteko: *Galdu dute, antza, burumakur baitatoz*. Beste batzuetan adizki nagusiak betetzen du egiteko hori, probabilitate modalitatea hartuta: *Galdu egingo zuten, burumakur baitatoz; Euria egingo zuen, kaleak bustiak daude-eta*. Gerta daiteke, jakina, hiztunaren dedukzioa okerra izatea (jokalariak ‘burumakur etortzea’ beste arrazoi bategatik izatea, eta berdin ‘kaleak bustiak egotea’), baina horrek ez du aldatzen azalpenaren izaera, hau dedukzio batean oinarritzen baita, kasu honetan okerra dena. Esaldi hauetan mendeko perpausa nagusiaren eskuinean ematen da beti, adibideetan ikusten den bezala, eta ezin dira aurreratu: *\*Burumakur baitatoz denak, partida galdu dute; \*Kaleak bustiak daude-eta, euria egin du*.

---

<sup>3</sup> EGLU-VI liburukian (163) *alegiatzko azalpenak* deitzen dira.

**38.2.2c** Azalpenezko perpaus askok enuntziatua arrazoitzen dutela esaten da, eta beste batzuek, berriz —dedukziozkoek, esate baterako— enuntziatioa. Haietan, izan ere, adierazpen nagusian esaten denaren azalpena ematen du mendekoak, haren edukia —hartan aipatutako gertakaria— justifikatzeko. *Burumakur datoz denak, partida galdu baitute* esaldian, adibidez, jokalariak burumakur etortzea da adierazpen nagusiaren edukia, eta horren arrazoia azaltzen du mendekoak. Dedukziozkoetan, berriz, esaten dena ez, esatea bera arrazoitzen da, zergatik esaten den, alegia. *Partida galdu dute, burumakur baitatoz* esaldiko adierazpen nagusia ‘partida galdu izana’ da, eta ‘burumakur etortzea’ ez da galdu izanaren kausa edo arrazoia; aitzitik, ‘burumakur etortzeak’ azaltzen duena da zergatik esan duen hiztunak ‘partida galdu dutela’. ‘Esan’ gisako inplizitu bat dago perpaus horretan: ‘partida galdu dutela *diot*, burumakur baitatoz’. Agindua ematea azaldu dezake, orobat, azalpenezko perpausak: *Ireki leihoa, otoi, bero dago eta*; ‘bero egoteak’ azaltzen du zergatik eskatu duen hiztunak leihoa irekitzeko, aginduan ere ‘esan’ inplizitu bat baitago (‘leihoa irekitzeko *esaten dizut*, bero baitago’). Hitz batean laburbiltzeko, bada, ‘esaten dena’ arrazoitzen dute batzuek, eta ‘esatea’ bera, berriz, beste batzuek.

**38.2.2d** Perpaus hauetan ematen den azalpenak hiztunak solaskidearekin partekatzen duen informazioa biltzen du batzuetan —edo, bederen, ezaguntzat eta partekatutzat aurkezten dena—; *-nez gero* eta *nola... -n* formen bidez adierazten dira horrelakoak: *Hemen zaudenez gero, lanean hasiko gara*. Azalpenak informazio berria ematen duenean, berriz —edo, bederen, hiztunak ezagun eta partekatu gisa aurkezten ez duen informazioa eskaintzen duenean—, *bait-* edo *-eta* enklitikoa erabiltzen dira: *Zaudete pixka batean, lagunduko dizuet eta* (Atxaga). Ustekizun desberdina salatzen dute, hortaz, honako esaldi bi hauek: *Kirolzalea denez gero, kiroldegiko bazkide egin da Lupe* eta *Kiroldegiko bazkide egin da Lupe, kirolzalea baita*. Lehenbizikoan ezaguntzat ematen da Luperen kirolzaletasuna; bigarreanean, berriz, ezaguna izan edo ez, ez da horrela aurkezten. Ohiko ordena ere desberdina dute esaldi mota biek, horretan egin daitezkeen aldaketak gorabehera: informazio ezaguna ematen duten perpaus nagusiaren aurrean dute ohiko lekua, eta haren ondoan, berriz, informazio ‘berria’ dakartenek.

### 38.2.3. Kausalak eta azalpenezkoak

**38.2.3a** Dedukziozko perpausak eta nagusia aginterazkoa dutenak azalpenezkoak dira berez, eta ezin dira kausalak izan: *Euria egin du, kaleak bustita baitaude*, baina *\*Euria egin du, kaleak bustita daudelako*; *Egon isilik, ezer ez dakizu eta*, baina *\*Egon isilik, ezer ez dakizulako*.

**38.2.3b** Bestelakoetan, ordea, adierazitako kausa predikatuaren barneko ‘kausal’ gisa edo kanpoko ‘azalpenezko’ bezala aurkeztea hiztunak erabakitzen du, zer jarrera hartzen duen; *euria egin-kaleak busti* erlazioko kausa, esate baterako, adierazpen nagusian txertatuta nahiz hari erantsita eman daiteke. *Euria egin duelako daude kaleak bustiak* esaldian euria egin izana ‘kausal’ gisa aurkezten du hiztunak, adierazpen nagusiaren barnean txertatuta; ‘euria egin izana’ ‘kaleak bustita egotearen’ eragile gisa aurkezten da, besterik gabe. *Kaleak bustita daude, euria egin du eta* esatean, berriz, bere ‘azalpena’ ematen ari da hiztuna, asertzio bati beste bat erantsiz; ‘kaleak bustita egotearen’ zergatikoaz berak ematen duen azalpena da ‘euria egin izana’. Esanahia bertsua bada ere, aukera bakoitzak bere ezaugarriak ditu, sintaktikoak eta semantikoak, gorago ikusi den moduan. Alde bera ikusten da, esate baterako, *Ihesi joan dira beldur zirelako* eta *Ihesi joan dira, beldur baitziren* perpausen artean, lehenak kausa adierazten baitu zuzenean eta bigarrenak azalpena eskaintzen.

### 38.2.4. Formak

**38.2.4a** Kausazko perpausen formak ez dira denak esandako mota bietan erabiltzen; aitzitik, mota bakoitzak bere formak ditu, zenbaitetan forma batek bietarako balio badu ere.

Kausal deitu ditugun perpausen forma nagusia *-lako(tz)* da gaur egun, aditza jokatu dutenetan: *Autoa hondatu zaielako iritsi dira berandu*. Jokatugabeko aditza dutenetan, berriz, aditz izenaren gainean eraikitako *-tzeagatik* da perpaus kausalak eratzen dituen forma: *Gaiizki aparkatzeagatik zigortu naute*;

maizenik helburuzkoa den *-tzearren* formak ere kausa adieraz dezake zenbaitetan: *Erdaraz egitearren markesak zirela uste zuten.*

*Bait-* menderagailuak mota bietako perpausak era ditzake, ekialdeko euskalkietan; kausalak eratzen ditu zenbait egituratan: *Ez omen baita ere denborarik galtzeko, horra zertako etorri naizen* (J. B. Elizanburu); *Hori erran zuen, ez behardunez axola zuelakotz, baina ohoina baitzen* (Jesu Kristoren Berri Ona). Baina azalpenezkoak ere eratzen ditu euskalki horietan, eta gaur egun baita mendebaldekoetan ere: *Banoa, berandu baita; Jan ezazue gogoz, zuek ez baituzue errurik* (X. Amuriza).

**38.2.4b** *Zeren* partikularekin eraturiko formek ere mota bietako perpausak eratzen dituzte. *Zeren...-n* menderagailuak kausalak eratzen ditu, ekialdeko euskalkietan: *Emaztekoa, zergatik egiten duzu negar? [...] Negar egiten dut zeren eraman duten ene Jainkoa, eta zeren ez dakidan non ezarri duten* (Larregi). Eta, orobat, *zeren bait-* formak ere: *Emaztekoa, zergatik egiten duzu negar? [...] Zeren eraman baitute ene Jauna, eta ez dakit non ezarri duten* (Duvoisin). Baina azalpenezkoak ere eratzen dira *zeren bait-* formarekin: *Senda ezazu ene arima, zeren bekatu egin baitut* (Duvoisin); mendebaldean ere erabiltzen da gaur egun forma hori, azalpenezko perpausak eratzeko.

Azalpenezkoak eratzen ditu, bestalde, mendebaldeko euskalkietan, *-eta* enklitikoarekin eraturiko formak: *Aita, barka iezaiezu, ez dakite-eta zertan ari diren.*

**38.2.4c** Eta informazio ezaguna bideratzen duen *-nez gero* forma, berriz, bere aldaerekin, euskalki guztietakoa da: *Aberatsa denez gero, hari eskatuko diogu diru pixka bat.* Mendebaldean *-nez* soilak eta *-n legez* formak ere izan dezakete adiera hori: *Ezer gertatu ez zenez, bertan utzi zuten* (Atxaga). Iparraldean *-naz gainean* forma ere erabiltzen da: *Hirialat bazoazenaz gainean, nahi duzua eraman ene xamarra?* (DRA). Azkenik, esan dezagun «{nola ~ zelan}...-n» forma ere erabiltzen dela balio horrekin: *Nola eztizalea naizen txit, ez nintzen argizariaz oroitzen* (A. P. Iturriaga).

Hona, bada, kausazko forma nagusien erabileraren koadroa, aldaerak alde bat utzita (+ = orokorra, e = ekialdeko euskalkietakoa; m = mendebaldekoa):

	Kausala	Azalpenezkoa
<i>-lako(tz)</i>	+	
<i>-tzeagatik</i>	+	
<i>bait-</i>	e	+
<i>zeren... -n</i>	e	
<i>zeren... bait-</i>	e	+
<i>-eta</i>		m
<i>-nez gero</i>		+
<i>{nola ~ zelan}... -n</i>		+

### 38.3. *-lako(tz)*, kausala

**38.3a** Gaur egun *-lako* da, mendebaldeko euskalkietan, perpaus kausal jokatutak egiteko erabiltzen den forma nagusia; *-la* menderagailuari *-ko* adnominala erantsita eratutako forma da, izenaren perpaus osagarrietan ageri dena bera. Hortaz, erabilera bi ditu mendebaldean forma honek, izenlagunari dagokiona bat (*gezurra esan diotelako kontu horrekin asper-asper eginda nauka*) eta aditzaren modifikatzaileari dagokiona bestea, kausazkoa (*gezurra esan diotelako haserretu da*)<sup>4</sup>. Ekialdeko euskalkietan ere erabiltzen da forma hori, *-lakotz* aldaeran usu, era horretan bereiziz izenaren osagarria (*gezurra esan diotelako kontua*) eta aditzaren modifikatzailea (*gezurra esan diotelakotz haserretu da*)<sup>5</sup>.

<sup>4</sup> Kausazko *-lako* formaren jatorria izenlaguna dela iradokitzen du de Rijkek: “As to origin, causal *-lako* can be identified with the suffix used to link sentential complements to nouns, provided one allows a non-overt instrumental noun to account for the meaning ‘cause or reason’” (2008: 600).

<sup>5</sup> Villasantek dio aski berria dela *-lako(tz)* forma hau, kausazko adieran: “Sorprende en gran manera el constatar que este sufijo, tan usado hoy para expresar la causalidad, no aparezca



**38.3b** Predikatuaren barneko osagai izanik, gorago aipatu diren ezaugarriak ditu *-lako* perpausak. Hala, *zergatik?* galderari erantzun diezaioke: *Zergatik errespetatzen duzue?* —*Zaharra delako*. Eta galdegaia ere izan daiteke, jakina, aditzaren aurre-aurrean kokatua inoiz (*zaharra delako errespetatzen dugu*), baina maizago aditzaren eskuinera atzeratua, batez ere luze samarra denean, horrelakoetan ohikoak diren eten-intonazioekin: *Errespetatzen dugu*<sup>↑</sup> *urteek pertsona beneragarria egin dutelako*. Ezezko perpausetan ere, *zergatik* osagaia izan daiteke esaldiko galdegaia, ezeztapenak perpaus osoa besarkatzen duenean, eta *-lako* perpausak bete dezake orduan funtzio hori, baieztoketan bezala: *Zergatik ez da etorri?* —*Gaixorik delako ez da etorri*<sup>6</sup>. Beste batzuetan, ordea, kausazko perpausa da ezeztapenak besarkatzen duen ukagaia, eta orduan ohiko lekuan kokatzen da hau, adizkiaren ondoan, sintetikoetan, eta adizki bien artean, analitikoetan (*ez dugu zaharra delako errespetatzen*, hau da, ‘errespetatzen dugu, baina ez horregatik’)<sup>7</sup>; horrelako perpausari kontraste-ko galdegai baieztatua gehitzen zaie maiz, zergatik ukatuari baieztoko bat kontrajarriz, *ez A, B baizik* egituran: *Ez dugu zaharra delako errespetatzen, jakintsua delako baizik*. Ezezko mota honetan ere atzeratu egiten da maiz *-lako* perpausa, baina aditzaren ondoko eten-intonazio bereziak egin gabe: *Ez dugu errespetatzen urteek pertsona beneragarria egin dutelako, jakintsua delako baizik*. *Ez-baiko* kontraste hori alderantziz ere egin daiteke: *Jakintsua delako errespetatzen dugu, ez zaharra delako*. Kontrastean emandako osagai biak *-lako* forma dutenak izan daitezke, goiko adibideetan ikusten den bezala, baina beste kausazko nahiz helburuzko forma batzuekin konbinatuta ere eman daiteke *-lako* perpausa: [...] *eta hargatik triste ziren; ez baitezpada galdu zizuztelakotz, baina zeren ez zitzaien emana haiei ere Jesus Jaunarentzat beren*

---

hasta bastante tarde en los textos” (1986: 241). Mitxelena, hala ere, gogoratzen du *ex silentio* froga herrena dela beti, eta honako Leizarragaren testu hau aipatzen du: *Ez dizuet izkiriatu ukan, egia ezagutzen ez duzelakotz; aitzitik zeren hura ezagutzen duzuen, eta gezurrik bate-re ez baita egiatik* (1 Jo 2,21) (Villasante 1976: 150 oh.).

<sup>6</sup> Bestelakoa da, noski, *Gaixorik delako, ez da etorri* esaldia, zeinetan galdegaia *ez* adberbioa baita eta perpaus kausala, berriz, mintzagaia den.

<sup>7</sup> Ikus de Rijk 1998b, Ortiz de Urbina 2003b eta Garzia 2014a.

*odolaren isurtzea (Joanategi); Gutik lan gaitzagorik dute besarkatu, ez gaitz delakotz hainbat kanten ematea, baina minbera baita egia maitea (Hiri-barren); Ez diote nota txarra eman azterketa gaizki egin duelako, lagunari kopiatzegatik baizik; Ez du lasterketa utzi nekatua zelako, lagunari laguntzegatik baizik.*

**38.3c** Sarritan *-lako* perpausa aurreko *hargatik*, *horregatik* edo horrelako elementu kataforiko batek iragarria ematen da: *Hargatik maite ditut gaurko gazte asko: tentaldiaren ihesi ez dabiltzalako* (Mitxelena); *Horregatik saldu zidan bada etxe hau, bera Dublinera zihoalako* (Atxaga). Erakuslearen edukia biltzen duen aposizioa da *-lako* perpausa, horrelakoetan, eta galdegaitzat har daiteke, hura galdegai denean ('tentaldiaren ihesi ez dabiltzalako [maite ditut]', alegia).

Gorago aipatu ditugun hiru kausa motak adieraz ditzake *-lako* perpausak, objektiboa, oinarri logikoa duena edo motibo subjektiboa seinalatzen duena. *Harritu, damutu, izutu, lotsatu, poztu, loriatu, ikaratu, miretsi, deitoratu* eta gisa horretako aditzek adierazten dituzten giza jarrera edo emozioen kausa ere adieraz dezake: *Aberastuta natorrelako harritu al zarete?; Miresten dituzte langile trebeak direlako.*

**38.3d** Mintzagaia ere izan daiteke *-lako* perpausa, perpaus nagusiaren eskuin aldean kokatua inoiz: *Lagun guztiak haserretu zaizkizu gezurra esan duzulako; Ez zara agertu, beldur zinelako* (Labaien); *Nire nagusiak orain hiru egun, bidean utzi ninduen, gaixotu nintzelako* (Lardizabal). Baina ezker aldean kokatua beste zenbaitetan, galdegai-aditzen aurrean, nolabaiteko hanpadura markatuz: *Gezurra esan duzulako, lagun guztiak haserretu zaizkizu; Hiru urte lehenago lapur bat aurkitzen lagundu ziolako, oso adiskide zuen* (Garate). Beste mintzagai baten ondoan ere joan daiteke, haren eta galdegaiaren artean tartekatua: *Euskal letretan, apal izanagatik edota apala delako, aski nabarmendu da bere boza azkenaldi honetan* (Mitxelena).

**38.3e** Mintzagai diren *-lako* perpaus kausal hauen 'pareko' dira, itxuraz, azalpenezko formekin eratzen diren perpaus batzuk: *Auto berria erosi du zaharra ondo ez zebilelako; Auto berria erosi du, zaharra ez zebilen-eta*

*ondo*. Itxura gorabehera, ordea, eta esanahia bertsua izanik ere, desberdinak dira perpaus mota bi horiek, gorago esan den bezala: *-lako* perpausak, predikatuaren barnekoa izanik, honek aipatzen duen gertakariaren kausa ematen du aditzera zuzenean; azalpen perpausak, berriz, perpaus nagusiaren kanpoko modifikatzaileak dira eta hartan esandakoaz hiztunak erantsen duen azalpena ematen dute aditzera. Eta, jakina, bakoitzak bere ezaugarriak ditu; hala, § 38.2 atalean aipatzen direnez beste, goragoko perpaus baten mendekoaren mendeko izateari dagokiona (*auto berria erosi badu zaharra ondo ez zebilelako, ederki egin du; \*auto berria erosi badu zaharra ondo ez zebilen-eta, ederki egin du*), edo galderaren barneko osagai izateari dagokiona (*partida galdu behar al dugu gaur ere sasoian ez zaudetelako?; \*partida galdu behar al dugu gaur ere, sasoian ez baitzaudete?*)<sup>8</sup>.

**38.3f** Gogoan izan behar da, bestalde, azalpenezko perpaus guztiek ez dutela parean *-lako* perpaus kausalik; hala, esate baterako, dedukziozkoek (*etxean daude, leihoak irekiak baitaude — \*etxean daude leihoak irekita daudelako*). Aginte perpausak ere berezkoa dute azalpenezko perpausa hartzea, agindua ematearen justifikazioa eskaintzen baitu mendekoak (*joan zaitetz ohera, {berandu baita ~ berandu da eta}*), eta, hortaz, ez dute erraz onartzen *-lako* perpausa (?*joan zaitetz ohera berandu delako*); onargarria dute, ordea, mendeko perpausa aginduaren esparruan sartzen bada (*joan zaitetz ohera berandu delako, ez nik esan dizudalako*), agindua ez baita hor ‘ohera joatea’, ‘horregatik joatea’ baizik.

Dena dela, egungo hiztun batzuek *-lako* perpausaren erabilera zabaltzeko joera dute, eta azalpenezkoek bereizi gabe jotzen dute hartara. Berdintsu zaie *Etxera joan da, berandu baitzen* esatea nahiz *Etxera joan da, berandu zelako* esatea. Ez da egokia, ordea, *-lako* formaz baliatzea predikatuaz kanpoko azalpen perpausak eratzeko. Halakoetan, aurrerago ikusiko den mo-

<sup>8</sup> Galderatik kanpo eman daiteke azalpenezko perpausa (*Partida galdu behar al dugu gaur ere? Ez baitzaudete sasoian*), baina, ikusten denez, esanahia desberdina da, egindako galderaren arrazoia azaltzen baitu azken honek.

duan, *bait-* edo *-eta* enklitikoak dira forma egokiak: *Ez duzu gaindituko azterketa, gutxi landu duzu-eta gaia* — *?Ez duzu gaindituko azterketa, gutxi landu duzulako gaia* (Garzia 2014a: 161). Eta, zer esanik ez, dedukziozkoetan eta agintezkoetan: *\*Galdu dute, burumakur datozelako*; *\*Isil zaitez, ezer ez dakizulako*.

**38.3g** Zenbaitetan bi perpausetan banatua ematen da esaldia, aurrenekoan esandakoari argibideak eranstean dizkiolarik bigarrenak, *-lako* perpausak: *Lasterketak interes berezia izango du, bertan izango direlako munduko txirrindularirik handienak* (Euskadi Irratian entzuna). Perpaus nagusiko osagaitzat —haren mintzagaitzat— har daiteke hor, beharbada, mendeko perpausa; baina pentsa daiteke, halaber, alboratutako perpaus bi ditugula, hau da, lehena esan ondoan bestea eranstea bururatu zaiola hiztunari, hartan esandakoa nolabait argitzeko-edo. Lehena erabat osatua da, bere galdegaia eta guzti (‘interes berezia’), eta bigarrenak beste galdegai bat ematen du, *-lako* perpausa hain zuzen ere, bigarren perpausari dagokiona; galdegaia baizik ez du ematen bigarren honek, perpausaren gainerakoa aurrekotik berreskuratzen baita. Hona ko hau izango litzateke, bada, esaldi horren irakurketa: *Lasterketak interes berezia izango du. Bertan munduko txirrindularirik handienak izango direlako [izango du interes berezia]*. Alboratutako perpaus bi direnez, tartean etena egiten da; idatzian koma, puntu eta koma nahiz puntua eman daitezke<sup>9</sup>. Dena dela, zalantzakoa izan daiteke batzuetan, idatzian batez ere, *-lako* perpausa nagusiaren osagaia —haren mintzagaia— ala gehikuntzaz alboraturiko perpausa den.

**38.3h** *-lako* perpausen barneko ordenari dagokionez, esan behar da beste mendeko askotan bezala hauetan ere perpausaren azken buruan ematen dela menderagailua bere aditzarekin. Horrela da beti, hain zuzen ere, galdegai izanik aditz nagusiaren aurrean denean: *[Gezurra esan duzulako] nago haserre*; *\*[Esan duzulako gezurra] nago haserre*; haren eskuinean denean ere azke-

---

<sup>9</sup> Hala dio Garziak, zeinek *gehikuntza* deitzen dion horrela antolatzen den funtzio informatiboari (2014a: 51, 70). “Funtzio berezi bat baino areago, egia esan, galdegai-funtzioaren agerraldi berezi bat da” (2014a: 71 oh.).

nean doa inoiz: *Ez dizut ezer eskatuko, behar dudan guztia badudalako*; hasieran eta tartean ere eman daiteke, menderagailua aditz nagusira hurbilduz: *Ez dizut ezer eskatuko, badudalako behar dudan guztia*; *Ez diot ezer aipatu, berak badakielako gorabehera guztia* (Arejita 1985: 190). Ezezkoetan, berriz, azken buruan joan ohi den adizki jokatua aurrera ekar daiteke: [Agurrik egin *ez dizutelako*] *al zaude haserre?*, baina baita [*Ez dizutelako* agurrik egin] *al zaude haserre?* ere.

**38.3i** Hitzun guztiek onartzen ez badituzte ere, batzuentzat onargarriak dira *-lako* perpausaren barruko osagai bati buruzko galderak, eta ez bakarrik oihartzun-galdera gisa: *Nor etorri delako zaudete pozik?*; *Zer ikusi dutelako hasi dira korrika?*; *Zeinen aurka jokatu behar dutelako daude hain urduri Aviron taldekoak?*

**38.3j** Sintagma motibatiboek balio kontzesiboa izaten dute inoiz. Balio hori izan dezake *-lako* perpausak ere, perpaus nagusia ezezkoa denean: *Hitz berri gehiegi dituelako ez diogu ukatu behar ondo merezi duen txaloa* (Mitxelena). Aurkaritza adierazten dute horrelako perpausak: horrela, adibidean, ‘hitz berri gehiegi izateak’ txaloa ukatzea ekarriko lukeela pentsa daiteke, *baina* kasu honetan ez da hala gertatzen (“Hitz berri gehiegi baditu ere, ez diogu txaloa ukatu behar”).

**38.3k** Forma honi inesiboko *-n* atzikia erantsita *-lakoan* forma eratzen da. Oinarrian izenlaguna dagoenez, pentsatzekoa da forma horren azpian ez-ageriko izen bat dagoela, ‘uste’, ‘iritzi’ edo horrelako adiera duena, hain zuzen ere; *etorri delakoan* perpausaren azpian, esate baterako, *etorri delako [uste]an* perpausa dagoela, alegia. Ikusten denez, [*uste]an* da sintagma horren burua, eta horrek erabakitzen du sintagmaren esanahia eta balioa. Zenbaitetan *egon* aditzaren osagarria da, *Adiskide zintudalakoan nengoen*, baina beste batzuetan kausa adierazten duen adjuntua da: *Lapurra zelakoan atxilotu zuten*; *Barbero batengana eraman omen zuten, hark sendatuko zuelakoan* (Atxaga). Aldea badago *-lako* eta *-lakoan* perpausen artean: *-lako* perpausa, kausal betea da (*Igandea zelako geratu zen ohean*); *-lakoan* perpausa, berriz, ustezko kausal modura irakurtzen den perpausa da, esan bezala (*Igandea zelakoan geratu zen ohean*). Ustea, iritzia edo aitzakia adierazten du *-lakoan* perpausak, uste

hori perpaus nagusiko gertakariaren *zergatiko* gisa ulertuz; hortik, adieraren ‘subjektibotasuna’<sup>10</sup>. Inoiz *-lako* soila erabiltzen da *-lakoan* formaren lekuan, forma biek duten erlazioa agerian utziz: *Peril handia da nihork bata har dezan bertzea delako [...], zeren bata on izanagatik, bertzeak kalte egin lezake* (Pouvreau).

### 38.4. *-tzeagatik* eta *-tzearren*, kausalak

**38.4a** Perpaus jokatugabeetan *-tzeagatik* da perpaus kausal beteak eratzen dituen forma nagusia. Aditz izenari *-gatik* kausazko postposizioa erantsita sortutako forma da, eta, hortaz, horrekin eraturiko sintagmak postposizio sintagmak dira, kapitulu honen sarreran ikusi ditugunen modukoak (§ 38.1.4b), postposizioak, kasu honetan, perpaus jokatugabea gobernatzen du. Perpaus nagusiko gertakariaren *zergatikoa* ematen dute aditzera perpaus hauek ere: *Lapurretan egiteagatik giltzapean eduki dute* (Anabitarte); *Neureak eta bi entzun ditut hura puskatzegatik* (Txillardegi).

Predikatuaren barneko osagaia izanik, galdegai izan daiteke *-tzeagatik* formako perpausa ere, *-lako* formakoa bezala, (*Zergatik zigortu dute lekukoa? — Gezurra esateagatik; Gezurra esateagatik zigortu dute lekukoa*), eta harekin juntaturik eman daiteke: *Liberalak behin baino gehiagotan salatuak izan ziren antiklerikalak izateagatik eta erlijioaren aurka zihoazelako* (Ramirez de Oka-riz); galdegai kontrastatiboa eratzeko ere erabil daiteke: *Ez diote nota txarra eman azterketa gaizki egiteagatik, lagunari kopiatu diolako baizik*. Mintzagai ere izan daiteke, baina predikatuaren barneko osagaia izanik, kausala da horrelakotan ere, ez azalpenezkoa: *Gezurra esateagatik, jende asko zigortu dute; Jende asko zigortu dute gezurra esateagatik*. Galdegai izan nahiz mintzagai izan, bere hartan uzten da, haren perpaus nagusia goragoko beste perpaus batean txertatzen denean: *Gezurra esateagatik zigortu bazaituzte, ondo egin dute; Ez dakizu gezurra esateagatik jende asko zigortu dutela?*

---

<sup>10</sup> Villasante mintzo da ‘subjektibotasun’ honetaz, Txillardegi aipatuz (Villasante 1986: 242).

Azalpenezko perpausak egiteko, ordea, ez du balio forma honek ere, dedukziozkoetan eta aginduetan ikusten den moduan: \**Partida galdu dute, burumakur etortzeagatik*, baina *Partida galdu dute, burumakur baitatoz*; \**Isil zaitetz, gauza gutxi jakiteagatik*, baina *Isil zaitetz, gauza gutxi dakizu eta*.

**38.4b** Jokatugabea izanik, *-tzeagatik* perpausen aditzak ez ditu subjektu-objektuak markatzen; horixe dute alde nagusia *-lako* perpausekin. *Semaforoa gorrian pasatzeagatik jarri diote isuna Koldori* esaldian, esate baterako, ez da subjekturik aipatzen mendekoan, baina perpaus nagusiarri esker berreskuratzen da: ‘Koldo’ da semaforoa gorrian pasatu duena. Subjektua aditzean markatua ez delarik, ondo egokitzen da forma hau zentzu orokorra duten perpausekin, hau da, subjektu zehaztugabea dutenekin, eta, hortaz, hura hobesten da horrelakoetan, zehaztasun gehiago ematen duen *-lako* forma jokatuaren aldean: *EGA titulua izateagatik, bi puntu ematen dira*, baina \**EGA titulua izaten delako, bi puntu ematen dira*.

Forma honetako perpausak, bestalde, perpaus nagusiko *jasaile* bati begira egon ohi dira. Askotan ez-ageriko osagai bat izaten dute, subjektua edo besteren bat, perpaus nagusian ‘jasaile’ gisa agertzen den osagai batekin erreferentekide dena. *Gezurra esateagatik zigortu dute lekukoa* esaldiaren mendekoan, esate baterako, ‘lekukoa’ da ez-ageriko subjektua, hau da, ‘gezurra esan duena’, eta horixe bera ageri da perpaus nagusian, *jasaile* gisa. Ez da ezinbestekoa, ordea, osagai erreferentekideak izatea: *Badute gure etxean zerbait irentsirik, nik bertsolarigoan irauteagatik* (Xalbador). Edozein kasutan, perpaus nagusian *jasailerik* ez agertzeak eragozten du mendekoan *-tzeagatik* forma erabiltzea. Hala, ?*Mapa horiek ondo gordeak daude, militarrenak izateagatik* esaldia, esate baterako, zalantzakoa da, mapak nekez izango baitira *jasaile*.

**38.4c** Kapitulu honen sarreran esan den bezala, *-tzeagatik* formak kausazko perpausak eta helburuzkoak era ditzake. Nola bereizten dira, bada, biak? Tes-tuinguruak laguntzen du horretan. Perpaus nagusian helburua lortzeko borondatea duen ‘egile’ bat izatea eskatzen du helburuzkoak; hori ez denean, kausazkoa da perpausa, batez ere perpaus nagusian ‘jasaile’ bat baldin bada. Argi erakusten du alde hori ondoko adibide pareak: *Gehiegi estutzeagatik apurtu zaio Mikeli gerrikoa eta Lapurreta egiteagatik apurtu du Mikelek kristala*;

lehenbizikoan gerrikoa apurtzearen jasailea da Mikel, eta hortaz, kausazkoa da perpausa; bigarrenean, berriz, kristala nahita apurtu duen egilea da Mikel, eta, beraz, helburuzkoa da perpausa. Lehenbizikoa *-lako* perpausaz ordezkia daiteke ('gehiegi estutu duelako'), eta *-tzeko* perpausaz bigarrena ('lapurreta egiteko'), § 37.5.1.

Zenbaitetan, itxura bestelakoa izan arren, 'jasailea' duena da perpaus nagusia, eta, hortaz, kausazkoa da mendekoa. *Barkamena eskatzen dizut zure egunean ez deitzeagatik* perpausuan, esate baterako, badirudi 'barkamena eskatzea' egile bati dagokiola, eta, hortaz, perpausak helburuzkoen taxua duela; baina, ondo begiratuta ohartzen gara barkamena eskatzen duenak 'barkatua izatea' eskatzen ari dela, barkamenaren hartzaile izatea, alegia, jasaile izatea, kausazko perpausari dagokien bezala.

**38.4d** Izan daitezke perpaus anbiguoak, jakina, batera zein bestera uler daitezkeenak, testuinguru komunikatibotik edo egoera pragmatikotik kanpora entzuten badira, behintzat. *Auzokoak izutzeagatik zigortu zuten epaileek gizona* esaldiko perpaus nagusian 'jasaile' bat (gizona) eta 'egile' batzuk (epaileak) ditugu; hortaz, bietara uler daiteke esaldia. Jasaileari erreparatuta, kausazkoa izan daiteke mendeko perpausa eta 'gizona' haren subjektua ('gizona' zigortu zuten, 'gizonak' auzokoak izutu zituelako); egileari erreparatzen badiogu, berriz, helburuzkoa izan daiteke perpausa eta 'epaileek' haren subjektua ('epaileek' zigortu zuten gizona, 'epaileek' auzokoak izutzea nahi zutelako). Anbigua izan daiteke, halaber, perpausa, jasaile-egile erlazioa argi ez denean: *Zer sari dago, lan hori egiteagatik?*, hau da, 'lan hori egin delako' nahiz 'lan hori egiteko'. Horrelako kasuetan izan ezik, ordea, ez da zalantzarako biderik izaten perpausotan.

Ezaugarri horietaz gain, bestalde, kontuan izan behar da nagusiaren aurretik gertatu den zerbait edo irauten duen egoera bat aipatzen duela kausazkoak (*Gaizki aparkatzeagatik zigortu dute; Gizena izateagatik ukatu diote sarrera*), eta prospektiboa dela, aldiz, helburuzkoa, hau da, nagusiko gertakaritik aurrera, etorkizunera, begiratzen duena (*Kurtsoa gainditzeagatik saiatu da gaiak ondo ikasten* —aurrena saiatu, gero kurtsoa gainditu, alegia—).



Hitz batean esateko, bada, perpaus nagusian jasaile bat izaten da mendekoa kausazkoa denean eta honetan adierazitako gertakariaren aurreko edo aldibereko zerbait aipatzen du. Egunkariko izenburu honek dituen ezaugarriak, hain zuzen ere: *Bizkaiko Aldundiak 49 saltoki zigortu ditu, erosketa tiketak gaizki egiteagatik (Berria)*. Tiketak gaizki egin dutenak dira zigorraren jasaileak, eta zigorraren aurrekoa da tiketak gaizki egitea.

**38.4e** Kausazko *-tzeagatik* eta kontzesiozko *-tuagatik* formen oinarrian daudden adizkiak aspektuak bereizten ditu: *etortze* aditz izena, esate baterako, [-burutua] da, eta *etorri* partizipioa, berriz [+burutua]; *-gatik* atzizkia hartzen dutenean, ordea, neutralizatu egiten da bereizketa hori. Adiera semantiko baterako espezializatu da horietako bakoitza: burutugabeko *-tzeagatik* formak kausa —edo helburua— adierazten du, bai gertakaria burutugabea denean (*Eskerrik asko lanean segitzeagatik*), baina baita gertakaria burutua denean ere (*Eskerrik asko etortzeagatik*, hau da, ‘etorri zarelako’); *-tuagatik* forma burutua, berriz, kontzesiozkoak eratzeko espezializatu da: *Ahalegin franko eginagatik*, {*ez zuen lortu ~ ez du lortzen ~ ez du lortuko*} lanpostua.

Gaur egun entzuten dira inoiz partizipiodunak kausal moduan, batez ere *izan* partizipioaren laguntzarekin<sup>11</sup>: *?Eskerrik asko etorri izanagatik*; *?Zoriondu dute, azterketa ondo egin izanagatik*. Ez dirudi erabilera gomendagarria denik, ‘etortzeagatik’ eta ‘egiteagatik’ baitira hor forma egokiak. Alderantzizkoa ere ez da gomendatzekoa, jakina: *Eta izugarri izateagatik, ez al zitekeen bihozbera izan...?* (Anabitarte). Kontzesiozkoa denez, *izugarri* {*izanagatik ~ izan arren*} izango litzateke hor forma egokia.

**38.4f** Mendebaldekoa den *-tzearren* forma ere kausazko perpausak eta helburuzkoak eratzen ditu, *-tzeagatik* formak bezala. Hau ez bezala, ordea, batez ere helburuzkoetan erabiltzen da hura. Kausazkoetan ohikoegia ez izan arren, ez da, hala ere, ezina: *Erdaraz egitearren markesak zirela uste zuten*; *Eskerrik asko denei, guri laguntzearren*. Honekin ere izan daitezke perpaus anbiguoak: *Zer sari daukagu hori egitearren?*

<sup>11</sup> Tradizioan ere aurkitzen dira kausazko *-tuagatik* batzuk (ikus § 39.3.3); *-tu izanagatik* formakoak, berriz, gaztelaniazko ‘por haber hecho’ gisakoen parekoak izan daitezke.

Postposizio honekin ere gertatzen da *-tzearren* kausa-helburuzkoaren eta *-tu arren* kontzesiozkoaren arteko aldea: *Mila esker etortzearren*, baina *Garaiz etorri arren ez du lekurik aurkitu aretoan*.

**38.4g** Ekialdeko euskalkietan *-turik* forma erabiltzen da inoiz giza jarrera adierazten duten *eskerrak* (*eman*), *atsegin izan*, *urriki izan* eta *ahalke izan* gisako aditzekin: *Jainkoari eskerrak bihurtzen dituzte [...], batek irabazi handi bat eginik, bertzeak bere burua irabazterat utzirik* (Laphitz); *Ettxerat itzuli (zen), ziolarik, atsegin zuela, Jainkoaren aitzinean agertzeko behar zuena eginik* (Hiriart-Urruti); *Urriki dugu Iruñean ez gelditurik, ostatu on batean* (J. Etxepare); *Aita ahalge zen semeak ohointza hori eginik* (Lafitte).

Perpauis jokatugabeez ari garela, gogora daiteke *-turik*, *-tuta*, *-tutakoan* eta *-tzean* formekin eraturiko perpauisek modua, denbora edo dena delakoa adierazteaz gain, azalpena ere iradoki dezaketela zenbaitetan: *Polizia {ikusirik ~ ikusita ~ ikusitakoan ~ ikustean}*, *korrika hasi ziren manifestariak*. Formari dagokionez perpauis horiek kausazkoak ez diren arren, adiera hori ere iradokitzen dute, kausazko irakurketa erantsiz inferentziaz perpauisaren esanahiari (§ 38.1.3).

## 38.5. *Bait-*, kausala eta azalpenezkoa

**38.5a** Erabilera zabala du *bait-* formak menderakuntzan. Mota desberdinetako perpauisak eratzen ditu; erlatiboak, osagarriak eta ondoriozkoak, besteak beste, baina baita kausazkoak ere: *Banoa, ordu baita*<sup>12</sup>. Menderagailua izanik, ez da adizki alokutiboekin bateragarri: *Hik ere etxera joan beharko huke, berandu {baita ~ \*baituk ~ \*baitun}*. Bestalde, menderagailuekin ohi denez, ez du perpauisean beste menderagailurik onartzen (*\*etorri baitelako*)<sup>13</sup>, eta adi-

---

<sup>12</sup> Ikus menderagailua aditzari lotzen zaionean gertatzen diren aldaketa fonetikoak eta horien idazkeraz Euskaltzaindiak eman duen 2. arauan (“*baitu, baikara, bainai*z”; Bilbon, 1994ko urriaren 28an onartua).

<sup>13</sup> *Izan ere* diskurtso markatzailearekin, berriz, erabiltzen da inoiz, ohikoa ez den arren: *Izan ere hik gure pozari / pozik erantzun baitiok* (E. Arrese), ikus OEH s. v. *izan ere*.

tzak *ez/bai, omen/ei* edo *bide* partikulak daramatzanean, hauek *bait*-en aurre-ran kokatzen dira: *Orai sos poxi baten igortzen hasia natzaio, mementoan lanik gabe omen baita* (J. B. Etxepare); *Astia bagenu, hobekixeago beha geniezaioke, ez bide baita nolannahikoa* (J. Etxepare).

Menderagailu hau berez ekialdeko euskalkietakoa da, zubereran *beit*- aldaera du. Bestelako adieretan ez ezik, kausazko balioarekin ere maiz erabiltzen da euskalki horietan, eta, hain zuzen ere, bai kausalak eta baita azalpenezko perpausak eratzen ditu. Mendebaldeko euskalkien tradizioan, berriz, ezezaguna izan da ez hain aspaldi arte, *baist*- formak bizkaierazko testu zaharretan dituen agerpen batzuk gorabehera; azken aldian, hala ere, eta ekialdeko euskalkien eraginez beharbada, sartua da mendebaldeko euskalkietan ere, gipuzkeran XIX. mendetik aurrera eta bizkaieran XX. mendetik aurrera batez ere<sup>14</sup>. Euskalki hauetan, ordea, ekialdekoetan ez bezala, kausazko adiera baizik ez du, eta, hain zuzen ere, azalpenezko perpausak eratzen ditu. Hori dela eta, bereiz aztertuko dira ondoko paragrafoetan *bait*- kausalak eta *bait*- azalpenezkoak, ekialdekoak haiek eta euskalki guztietakoak hauek. Hurrengo atalean ikusiko dira, berriz, menderagailu honek aurretik *zeren* partikula duelarik eratzen dituen perpausak.

**38.5b** *Bait*- kausala. Gehienetan azalpenezko perpausetan erabiltzen da *bait*-menderagailua, baina testuinguru jakin batzuetan kausal gisa interpreta daitezkeen perpausak ere eratzen ditu, esan bezala, ekialdeko euskalkietan. Hala, esate baterako, perpausak *zertako?* galderari erantzuten dionean: *Eta hori zertako? Komunioak Sakrifizioa osotzen eta betetzen baitu* (J. P. Arbelbide). Edo hura anaforiko duenean: *Ez omen baita ere denborarik galtzeko, horra zertako etorri naizen* (J. B. Elizanburu). Halaber, *-lako* perpausarekin juntaturik doanean: *Baina epela baitzara eta ez zarelakotz ez hotza ez beroa, hasiko natzaizu ene ahotik aurtikitzen* (Duvoisin). Edo harekin, nahiz *-lakoan* perpausarekin, kontrastean denean: *Gutik lan gaitzagorik dute besarkatu, ez gaitz delakotz hainbat kanten ematea, baina minbera baita egia maitea* (Hiri-barren); [...] *otso batek bildots gazte bat jan zuela, gose baitzen eta ez bildotsa*

<sup>14</sup> Ikus, honi buruz, OEH s. v. *bait*.

*baino azkarragoa zelakotz* (M. Elizanburu); [...] *kartsuki miresten ninduzula zeruko aingeruen gisan, ez aingeru bat nintzelakoan, baina zurea bainintzen* (Xalbador).

Halaber, giza jarrera edo emozioak adieratzen dituzten *atsegin izan, damu izan, urriki izan* eta horrelako aditzekin ere erabiltzen da *bait-* perpausa: *Atsegin dut ikusten baitzaituztet ene inguruan* (J. Etxepare); *Urriki bezala dut, beldur zozo batengatik egoten bainaiz etxetik gehiago atera gabe* (Barbier); *Damu dut ez bainuen bihi bat paperetan ezarri* (Xalbador). Horrelakoak, kausal gisa eta, batzuetan bederen, osagarri gisa ere uler daitezke; *bait-* menderagailua, hain zuzen ere, adierazpen perpausen osagarrien menderagailua izan daiteke (§ 30.6.2.5).

*Bait-* perpausa ez da, edozein kasutan, guztiz *-lako* perpausaren parekoa, ez baitirudi aditzaren aurre-aurrean kokatzeko aukera duenik galdegai gisa, baiezko perpausetan (*\*berandu baita joan dira*), eta ezta adizkien artean ukagai gisa, ezezkoetan (*\*ez da haserre baita joan*).

**38.5c** *Bait-* azalpenezkoa. Aipatutako kasu jakin horietan izan ezik, azalpenezkoak dira *bait-* formarekin eraturiko perpausak. Hauek, gainera, esan bezala, bai ekialdean bai mendebaldean erabiltzen dira gaur egun. Predikatuaren kanpoko modifikatzaile dira, ohi bezala, *bait-* perpausa horrelakoetan. Argi ikusten da hori aginduetan: *Jauna, Zuk otoi zerbait zerutik egizu, / gure behar orduen berri baitakizu* (Xalbador); *Jan ezazue gogoz, zuek ez baituzue errurik* (X. Amuriza). Edo galderetan: *Zer gertatu zaio zure lagunari?, kolore txarra baitu*. Baina adierazpenetan ere gauza bera dugu: *Ez dut mundu honetan izan sosegurik, ez baitut ezagutu amaren mintzorik* (J. P. Arbelbide); *Entzun, ez zuen ezer entzuten, bikotea urrun samar baitzegoen* (Garate). Adierazpenezkoak, hala ere, anbiguoak izan daitezke, zalantza zor baitaiteke zenbaitetan *bait-* perpausa predikatuaren barnekoa den eta, hortaz, kausala, ala kanpoko den eta azalpenezkoa. *Etxean ez zen jateko eskasik, baitzen ausarki ogi, esne, arno, atzar, eta bildots* (Narbaitz) esaldian, adibidez, ‘ogia ausarki izatea’ etxean ‘jatekorik eskas ez izatearen’ arrazoi edo kausa gisa uler daiteke (‘ogia ausarki zelako’), baina baita idazleak ematen duen azalpen gisa ere (‘ogia ausarki zen eta’). Arrazoi bera aurkezteko modu bi dira, gorago esan den bezala.

**38.5d** Dedukziozko perpausetan, bai, agerikoa da azalpen balioa (*zerbait gertatu zaio lagunari, kolore txarra baitu; ez daude etxean, ez baitute telefonoa hartzen*); *segurki, antza* eta horrelako adberbioek edo aditzaren modalitateak indartu egiten dute inoiz perpausak duen dedukzio balioa: *Irudipen bat izan duzu segurki, esan zion Xalbatek, nik ez baitut ezer entzun* (Etxaide); *Ahaztu egingo zitzaion gutuna bidaltzea, beti izan baita pertsona serioa*.

Azalpenezko *bait-* perpausa, bestalde, *-eta* enklitikoaz edo *izan ere* diskurtso markatzailea duenaz —edo are juntadura soilaz— ordeza daiteke: *Zerbait gertatu zaio, kolore txarra du eta; Zerbait gertatu zaio; izan ere, kolore txarra du; Zerbait gertatu zaio, kolore txarra du*.

Zenbaitetan badirudi azalpenezko *bait-* perpausa, ohiko jokabidearen aurka, mendeko baten mendekoa dela, ondoko adibide honetan bezala: *Eta berak aitortu behar zuen egun batez nehon ez zela izango urosago, nehon ez baitzen izan hor bezala orotaz gabetua* (Laphitz). Ez dago, ordea, hor inolako kontraesanik, *bait-* perpausa ez baita perpaus osagarriaren mendeko, aurreko esaldi osoarena baizik ([*Eta berak aitortu behar zuen egun batez nehon ez zela izango urosago*], *nehon ez baitzen izan hor bezala orotaz gabetua*).

**38.5e** *Bait-* azalpenezkoaren ohiko lekua nagusiaren eskuinean da, goiko adibideetan ikusten den bezala, adierazpenaren, aginduaren edo galderaren ondoan haien arrazoa ematen delarik. Dedukziozkoetan berezkoa dute leku hori eta ezin dira nagusiaren aurrera pasatu: ??*Burumakur baitatoz, partida galdu dute*. Gainerakoetan, ordea, ez da debeku ezker muturrean joatea: [...] *eta zahagirik ez baitut nik hemen, erreka uretik edan ezak, ordainez, trago bat ona* (Barbier); *Baina hotza baitzen gaua eta haize bizi bat ari, laster ernatu zen* (J. P. Arbelbide); *Baina Jainkoaren loriak hala galdatzen baitu, urteak eta urteak ez zaizkio sobera izanen liburuen erdian* (Laphitz). Ez eta nagusian tartekatua joatea ere: *Bospasei egunez, negua baitzen, elurrean bide egin zuten* (Laphitz); *Ez nuke honekin, lekua ez baita batere egokia, aurrera jo nahi* (Mitxelena). Adibideetan ikusten denez, bestalde, mendeko aditza perpausaren azkenean ematen da maiz (*bikotea urrun samar baitzegoen*), baina baita ondoan beste osagaien bat duela ere inoiz (*hotza baitzen gaua*).

## 38.6. Zeren...-n eta zeren...bait-, kausalak eta azalpenezkoak

**38.6a** *Zeren* partikula ere erabiltzen da kausazko adiera duten formetan, *-n* edo *bait-* menderagailuekin batera mendeko perpausak eratuz (*zeren joan den, zeren joan baita*), edo haiek gabe perpaus juntatua edo alboratua bideratuz (*zeren joan da*). *Zeren* hori *zer* galdetzailearen genitiboa da, zenbait tes-tuingurutan *zergatik* galde hitzaren parekoa: *Ez dugu zeren ahalke izan gure mintzairaz* (J. P. Arbelbide). Mintzo batzuetan arrunta da “esker mila”, edo “eskerrik asko” esatean *Ez da zeren* batekin erantzutea. Baina, azentugabe bilakatua, kausa adierazteko erabiltzen da aipatu formetan. Erabilera hori ez da, ordea, berdina izan ez denbora guztian ez euskalki guztietan. Ekialdean *zeren... -n* eta *zeren... bait-* formak erabili izan dira, biak, mendekoak eratzeko, baina xx. mendearen hasieratik haien aurkako joera garbitzailea sortu zen gramatikari eta idazleen artean, erdararen kalko direlakoan, eta, hala, mende horretan alde bat uzten hasi ziren batzuek idatzian, ahozkoaren erabilera gorabehera. Mendebaldean, berriz, *zeren... -n* forma bakarra erabiltzen zen aurreko mendeetan —ezezaguna baitzuten *bait-* menderagailua—, baina euskalki horietan ere nagusitu zen joera garbitzailea, xx. mendearen hasieran, eta handik aurrera ia erabat baztertu dute forma hori idazleek<sup>15</sup>. Gaur egun, hala ere, batasunaren ondoko urteetan batez ere, *zeren bait-* forma erabiltzen hasiak dira mendebaldeko idazle batzuk, *bait-* soila bezala, ekialdeko euskalkien bideari jarraiki.

Gorabehera horiek guztiak halakoak izanik, *zeren* duten forma hauen balioa ere ez da beti bat eta zehatza izan, ez eta berdina ere, esan bezala, euskalki guztietan. Hala, ekialdeko *zeren... -n* forma kausalak eratzeko erabili izan da batez ere, eta *zeren... bait-* formak, aldiz, bai horrelakoak bai azalpenezkoak eratzen ditu. Mendebaldean, berriz, gaur egun bazter utzia den *zeren... -n* forma bakarrarekin mota bietako perpausak eratzen ziren aurreko mendeetan;

---

<sup>15</sup> Villasanteren iritziz, Hiriart-Urruti idazlea eta Lafitte gramatikaria izan ziren joera berriaren arduradun nagusiak ekialdean; mendebaldean, berriz, Azkue, Orkaiztegi eta Altube (Villasante 1986: 17-18).

azken aldian ekialdeko euskalkietatik hartu den *zeren... bait-* formak, berriz, azalpenezko perpausak eratzen ditu.

Beste partikula zenbaitek bezala, bestalde —*nahiz eta, baldin eta, edota*—, *zeren*-ek ere *eta* espletiboa har dezake ondotik (*zeren eta joan den, zeran eta joan baita*).

**38.6b** *Zeren...-n* kausala, ekialdeko euskalkietan. Erabilera gehienetan *-lako* formaren parekoa da ekialdeko *zeren...-n* forma, perpaus barneko modifikatzaile. Horrek bereizten du, hain zuzen ere, kausazko mota bietako perpausak eratzen dituen *zeren... bait-* formatik. Hasteko, *zertako* edo *nolaz* galderaren erantzuna izan daiteke: *Nolaz bada hori? Ikus erraz da: zeran duten, elkar lagunduz, orok bat egiten* (J. Etxepare). *Eta* baiezko perpausetan gehienetan aditzaren aurre-aurreko lekuan ematen ez den arren —perpaus aski luzeak eratzen baititu—, zenbaitetan galdegaitzat har daiteke: *Zergatik egiten duzu negar? [...] -Negar egiten dut zeran eraman duten ene Jainkoa, eta zeran ez dakidan non ezarri duten* (Larregi). *-lako nahiz bait-* perpausekin edo *dela kausa* formako sintagmarekin junta daiteke: *Ez diozu zuk ene izenari altxaturen etxerik, zeran zaren gerla-gizona, eta odola isuri duzulakotz* (Duvoisin); *Eduki behar da [azienda] ahalaz begien aitzinean, zeran den izipera eta beldurrak ahultzen baitu* (Duvoisin); *Bentzutuak izatea [...] merezi genuen [...] gure inpietatea eta gure tzarkeriak zirela kausa, bai eta zeran genuen [...] Aita saindua bere etsaier largatu* (M. Elizanburu).

*Ez-bai* kontrastea adierazteko ere erabiltzen da: *Ene bila zabilzate, ez zeran mirakuluak ikusi dituzuen, baina zeran jan baituzue ogietarik, eta resasiatu izan baitzarete* (Leizarraga); *Eta haur erraiten du hunela, ez zeran dantzatzea bera hain gauza gaixtoa den, baina zeran dantzatik anitz okasino behar ez denik sortzen den* (Axular); *Baldin zure bihotza kexatua sentitzen baduzu, ez zenbait objet agradarrientzat duzun amodioa dela kausa, baina zeran duzun ezinbestezko higuintza bat presuna batentzat [...] (Haraneder); Lotsatua beraz eta tristatua, ez mundutik joateaz, baina zeran agertu behar zuen Jainkoaren aitzinean Biatiko Saindua gabe* (Joanategi).

Goragoko perpaus baten mendekoaren mendeko izan daiteke *zeren...-n* perpausa: *Diote ere hango ardiek gurek baino ile gehiago eta ederragoa dutela*

*zeren kanpoan egoten diren (Duvoisin); Diputatu haiek konparatzekoak ziren azkenik bere etxe handi eta ederra erre lezakeen gizon bati, zeren dituen etxe hartan zenbait parte erreberritzeko (M. Elizanburu).*

**38.6c** Perpaus kausalak eratzen dituzten beste formak bezala, hau ere maiz erabiltzen da giza jarrera adierazten duten aditzekin, hala nola, *eskerrak eman, kexu izan, ahalketu, urrikaldu* eta *damutu* gisakoekin. Perpaua zenbaitetan kausal eta osagarri gisa uler daiteke: *Eskerrak darozkitzut zeren deitu nauzun behar dudan ohorera (Joanategi); Ahalke gaitezen zeren hoin guti egiten dugun (Jauretxe); Ez gara kexu izan behar zeren Jainkoak ez gaituen sorrarazi aitoren seme edo burges handi (Duvoisin); Frantses armadako aitzindariak [...] holako gerlaria zeren ez den frantsesa deitoratzen dute (Laphitz).*

Mintzagai gisa ere erabiltzen da zenbaitetan *zeren... -n* perpausa, perpaus nagusiaren ezkerrean emanda: *Zeren handiegi niretzat kausitu dituzun olata horiek, ez da ogirik eginen gehiago etxe honetan (Barbier); eskuinean: Hona berrogei milioi gehiago pagatzeko, zeren gobernamendua erriente beldurrez dagoen ikaran (Hiriart-Urruti), nahiz tartean dela: Askok, zeren ez diren beldur izatu, bere herbaltasunaz esperientzia doloragarri bat egin dute (Baratzart). Pentsa daiteke, beharbada, hauek ere zalantzakoak direla, *bait-* formakoak bezala, hau da, kausal zein azalpenezko gisa uler daitezkeela; hala ere, dedukziozkoetan nekez erabil daitezkeenez (??*Partida galdu dute, zeren burumakur datozen; ??Etxean dira, zeren leihoak irekiak diren*), egokiago dirudi perpausaren barneko modifikatzailetzat eta, hortaz, kausaltzat hartzea.*

Esan izan da *zeren... -n* formak arrazoi subjektiboa baizik ez duela adierazten ekialdeko euskalkietan (ikus Villasante 1986: 253); zehaztu behar da, ordea, maiz balio hori duen arren —aipatu adibideak lekuko—, oinarri logikoa duten perpausak ere ez dutela arrotz: *Zein ederki derabilkazuen euskara hori, zeren den zuen mintzaira, sortzetik zuen odolean duzuen hura (Barbier); Bizio hau gure naturalezaren pozoiduratik heldu den efektu bat da: ordea, zeren den naturala, hargatik da ezagutzeko gaitzagoa (Haraneder). Mintzaira ‘berrea’ izatea ez da, lehen adibidean, hura ederki erabiltzera bultzatzen duen motibo subjektiboa, hala erabil ahal izatea bideratzen duen arrazoi objektiboa edo,*



gutxienez, oinarri logikoa duena baizik; bizioa ‘naturala’ izatea ere ez da, bigarrenean, hura ez ezagutzeko motibo subjektiboa.

**38.6d** Perpausaren barneko ordenari dagokionez, agerikoa da *zeren* partikula aurre samarrean emateko joera dagoela, emandako adibideetan ikusten den bezala; hasieratik beretik seinatzen da horrela perpausa kausazkoa dela, eta lagungarri gertatzen da hori batez ere hura luzea denean. Dena dela, *zeren*-ek aurretik osagai bat duela ere eratzen da perpausa zenbaitetan: *Badoa, ur hozketa, egarriak zereren duen itoa* (Oxobi); *Zeinetan, iduriz, ez baita deus gaiztorrik, fundatuak zereren diren arrazoi ederren gainean* (Haraneder); *Ez direlakoetz joan behar, legea bera zereren alde duten* (Hiriart-Urruti).

Bestalde, *-n* menderagailua daraman aditza maiz perpausaren amaieran badoa ere (*Ez dira bihotzez estekatuak, zereren erlisionea kasik orok haurdanik mintzaira hartan ikasia duten*, Hiriart-Urruti), sarritan beste osagairen bat ondokitik duela ageri da, adizki jokatua —zenbaitetan adizki sintetikoa— *zeren*-en ondo-ondoan ematen delarik: *Iduri eta itzaingoa ez dela beste edozein bezain bizibide, zereren den asko baino nekeago* (Hiriart-Urruti); *Zeinak nahi bailituzke tratatzen duen eriari menbroak pikatu, zereren dituen menbro hetan zenbait min eta minxka* (M. Elizanburu); *Eta zereren duen hori, azken urte hauetan ikusi dugun bezala, bete, zor genion gure ezagutza* (Hiriart-Urruti). Ezezkoe-tan, azkenik, laguntzailearen aurreratzea gauza daiteke, perpaus lokabeetan bezala: *Hoztasunetan jarririk zereren ez ditugun igorri zizkigutenak oro hemen ezarri beti* (Hiriart-Urruti).

**38.6e** *Zeren... bait-*, kausala eta azalpenezkoa, ekialdeko euskalkietan. Maiztasun handiagoz erabiltzen da ekialdeko euskalkietan *zeren... bait-* forma, eta erabilera zabalagoz. Izan ere, perpaus kausalak eta azalpenezkoak eratzen ditu forma honek, *bait-* soilekoak bezala. Zenbaitetan agerikoa da, testuingurua lagun, zein den perpausaren balioa, baina beste batzuetan balio bietara irekia izan daiteke perpausa.

Hala, kausala da, *zeren... -n* formakoa bezala, *zertako?* galderari erantzuten dionean: *Zertako? Zeren ez baitziren apezten beldur* (Hiriart-Urruti); *ez-bai* kontrastean ageri denean: *Ene bila zabilzate, ez zereren mirakuluak ikusi ditu-*

zuen, baina zeren jan baituzue ogietarik, eta resasiatu izan baitzarete (Leizarraga). Berdin goragoko baten mendekoaren mendeko denean: *Errientak erran digu eskolan ez dela otoitz egiterik, zeren ez baita Jainkorik*, (Hiriart-Urruti). Jarrera edo emozio aditzekin ere erabiltzen da: *Eskerrak dizkiote egun herritarrek zeren koplá batean aipatu baititu [...] Baigorriko mendi maite[ak]* (J. Etxepare); *Urriki dut eta dolore, zeren [...] zuregandik urrundu bainaute* (*Andre-dena*).

**38.6f** Besteetan, ordea, esan bezala, azalpenezko perpausak eratzen ditu, predikatuaren kanpoko osagai gisa. Agerikoa da hori aginduetan: *Mintza zaituz, zeren zure Seme maiteak entzuten baitzaitu, eta zeren segurki ardietsiko baituzu guretzat galdeginen duzun guztia* (*Andre-dena*); *Hauta ezazu hautsarekila* [*eltze*], *zeren urrea hark bakarrik izanen baitu barnean* (Barbier). Eta dedukziorako perpausetan: *Nora joan da jendea?, zeren hemen ez baita inor*. Adierazpenekoek ere maiz balio hori dutela pentsa daiteke: *Eta ez natzaiote mintzatuko, zeren eta Jainkoak ez baitu nahi horiei erakuts diezadan zeruko bidea* (Joanategi); *Izan zituen hirurogeita hamar seme, zeren baitzituen asko emazte* (Duvoisin).

Azken hauek, hala ere, anbiguoak izan daitezke inoiz, *bait-* soila dutenak bezala, kausal nahiz azalpenezko gisa uler baitaitezke: *Zerua goibel zegoen, zeren ekia lainoek ardurá kukutzen baitzuten* (M. Elizanburu); *Handik gero [...] Frantzia barneko hiri baterat ekarri zuten, zeren hiri hartan eginak baitzituén lehenago bere balentriarik handienak* (Hiriart-Urruti); *Baina gehiago gostako da, zeren irakinaldi bakoitzean ur garbia behar baitu* (Duvoisin). Ulertu, zerua goibel zegoela lainoek ekia ‘kukutzen zutelako’ nahiz ‘kukutzen zuten-eta’ uler daiteke, beharbada, lehen adibidean; hirira ekarri zutela balentriak ‘han eginak zituelako’ nahiz ‘han eginak zituen-eta’, bigarrenean; eta gehiago kostatuko dela ur garbia ‘behar duelako’ nahiz ‘behar du-eta’, hirugarrenean. Arrazoi bera modu bitan azaltzea izango litzateke hau ere, besteetan bezala.

**38.6g** Adibideek erakusten dutenez, nagusiaren eskuinean eman ohi da gehienetan *zeren...* *bait-* perpausa, nagusian egindako adierazpenaren, aginduaren edo galderaren arrazoia ematen duelarik, esaten denaren arrazoia edo

esatearena: *Triste daude, zeren eta partida galdu baitute; Egon lasai, zeren ez baita ezer gertatuko. Ez da debeku, ordea, nagusiaren ezkerrean ematea, Eta zeren Noe baitzen gizon prestua eta Jainkoaren zerbitzaria, bere etxatiarrarekin salbatu zuen barka batean barrena* (Etxeberri Sarakoa), dedukziozkoetan izan ezik: *\*Zeren leihoak irekiak diren, etxean dira; \*Zeren hemen ez baita inor, nora joan da jendea?*<sup>16</sup>

**38.6h** *Zeren... -n*, mendebaldeko euskalkietan. XIX. mendea arte erabiltzen zuten mendebaldeko idazleek *zeren... -n* forma (inoiz *zerren... -n*), adiera bietan. Kausal moduan: *Eta zergatik hain firmeki sinesten dugu, esan digun guttia? Zeren Jainkoa ezin engaina daitekeen* (Ubillos); *Nahi du gainera Jesusen [...] imajina ere onratzea, ez zeren gai honekin, edo harekin eginak diren, baizik zeren Zeruan dagoena aditzera ematen diguten* (Agirre Asteasukoa). Eta azalpen moduan: *Ez sinestu osotoro gauza gaiztoa; zeren askotan engainatzen garen* (Agirre Asteasukoa); *Eta zeren kontuak [...] hango Euskararen grazia handia duen, Bizkaitarra banintz bezala, haien gisa kontatuko dut* (Kardaberaz); *Zeren izan zen Apostoluen artean Judas gaizto bat, Apostol onak ere gaiztoak dira?* (Mendiburu). XIX. mendetik aurrera, ordea, horrelako formek ez dute lekurik mendebaldeko idatzietan<sup>17</sup>.

*Zeren-en* ordez, herri hizkeran *zergatik* erabili izan da gipuzkeran —ze bizkaieran— (*zergatik... -n*), bai kausal moduan: *Zergatik egia den, hitz egin behar diozu gurasoari modu hain itsusian?* (Agirre Asteasukoa), bai azalpen gisa: *Zeinek [pegatu dizu baztanga]? —Txertuk; zergatik ardotegian beti nire*

<sup>16</sup> Testuetan ageri dira zenbaitetan bestelako forma berezi batzuk. Hala, *zergatik... bait-* forma (*Jendeak zituen haren hitz ederrak miretsi, zergatik mintzatu baitzen guttiz miragarriki*, Etxeberri Ziburukoa) edo *zeren ezen... bait-* gisakoa (*Zer ere erremedio eman baitut sabeltasunarentzat, baliatuko zarete uxadarentzat, zeren ezen biak bat bezala egiten baitira*, Dassanza).

<sup>17</sup> De Rijk: “Many literati in Guipuzcoa and Biscay have been holding to the opinion that clause-initial causal conjunctions are superfluous and inconsistent with Basque idiom. None are found in the works of Txomin and Toma Agirre, A. Labayen, S. Mitxelena, N. Etxaniz, G. Garate, and many others. As for K. Mitxelena [...] only one instance of *zeren* can be found in his extensive writings” (2008: 616).

*ondoan esertzen den* (Iraola). *Ezen* partikula lagun duela ere erabili izan da forma hau, ahozkoan batez ere, *zergatik* {*ezen* ~ *eze* ~ *ze*}... -n aldaeretan: *Guk apustua irabazita / halere geunden serio, / zergatik eze panparreriak / inon eztuen balio* (P. Errota).

**38.6i** Gaur egun, ekialdeko usadioari jarraiki, *zeren...* *bait*- forma erabiltzen dute batzuek, azalpenezko perpausak egiteko: *Ez daude inon, zeran ihes egin baitute* (Atxaga). Azalpenezko perpausa konplexua izateak bideratzen du inoiz perpauson erabilera: *Hau hizkuntza idatzian egiazta daiteke batik bat, zeran eta, gauza nabaria denez, egungo egunean izkribuen bidez, eta ez bestela igerriko baitiogu, hor nonbait, nolakoa zen orduko hizkuntza mintzatua* (Mixelena)<sup>18</sup>.

**38.6j** *Zeren, zergatik, ezen*, azalpenezko partikula. Menderagailua lagun duela erabiltzen da maizenik *zeren* partikula, eta horrela eratutako formak dira aurreko ataletan aztertu ditugunak. Menderagailua gabe ere erabiltzen da, ordea, kausazko moduan, azalpena adierazteko (§ 42.23.2). Perpausak menderagailua hartuko duen aditzik ez duenean, ezinbestean gertatzen da hori; hala, esate baterako, aipamena denean (*Hori horrela da, zeran, aitik dioen bezala, "Nik dut beti arrazoia"; Hori ez da harritzekoa, zeran* *Quid prodest homini?*), edo galdera (*Presta zaitezte ondo partidarako, zeran nor irabazten du ondo prestatu gabe?*). Baina horiek gabe ere erabiltzen da menderagailurik gabeko partikula gisa, alboraturiko perpausen arteko lotura eginaz: *Dohatsu dira presuna emeak eta mantsoak, zeran halakoek lurra gozatuko dute* (Materre); *Arma hauekin ni ezin higi naiteke, zeran ez naiz usatua* (Axular).

**38.6k** Modu berean erabiltzen da, mendebaldean batez ere, *zergatik* galde-tzailea ere; ezinbestean batzuetan: *Aprobetxatu orain, dirua duzula, zergatik "Dagoenean bon-bon, ez dagoenean egon"*. Eta besterik gabe, beste batzuetan: *Hark egia esan du, zergatik oraintxe bere ikusten nago* (Etxeita). *Zergatik*

---

<sup>18</sup> Galdetzaileekin eginiko forma hauek prosarako egokiak ez ezik beharrezkoak ere izan daitezkeela defendatu zuen Villasantek berariaz, batez ere testu diskurtsiboetarako (ikus Villasanten 1986: 258). Harena da testu hau: *Ez dago eskandalurako biderik, zeran-eta bai oinazea eta bai gure arteko borroka hori ere beste zerbaiti buruz jarriak dauden* (Villasante).

*ezen* ere —ahozkoan *zergatik* (*e*)ze— modu berean erabiltzen da: *Eta kontuz bizi, zergatik ze, esetsiko digute tentazio handiek* (Añibarro).

**38.6I** *Ezen* ere —edo *ezi(k)* aldaera— maiz erabiltzen da, azalpenezko partikula gisa<sup>19</sup>: *Segur naiz plazer eginen diodala, ezen bera ere kantari pollita da* (Xalbador). Perpausaren hasieran joan ohi da, baina perpaus barnean ere, tartekatua, ager liteke: *Hala ere, azken alderat, ezen aspaldi zendua da, egin zizkigun bisita batzuk* (Xalbador)

Balioari dagokionez, azalpena adierazten dute partikula hauek, esan den bezala, eta *izan ere* diskurtso markatzaileaz ordezkua daitezke: *Segur naiz plazer eginen diodala; izan ere, bera ere kantari pollita da.*

### 38.7. -eta enklitikoa, azalpenezkoa

**38.7a** Kapitulu honen sarreran esan den moduan, juntadura soilak iradoki dezake, perpausen esanahia halakoa izaki, kausa-ondorio erlazioa: *Gau iluna da eta ez da ezer ikusten*. Erlazio horren adierazpena argiagoa egiten da, mendealdeko euskalkietan, *eta* juntagailua aurreko perpausari enklitikoki atxikita ematen denean: *Gau iluna da-eta, ez da ezer ikusten*. Ahozkoan *-eta* enklitiko hori *-ta* egiten da maiz bokalen ondoan (*iluna da-ta*) eta *-da*, berriz, *n* edo *l* kontsonanteen ondoan (*hala zen-da*); idatzian, idazle batzuek marratxoia edo koma ipini izan dute enklitikotasuna seinatzeko (*iluna da-ta; iluna da ta, goazen*), hori gabe zalantzakoa izan baitaiteke juntadura arrunta ala enklitikoa den<sup>20</sup>. Kontua are argiagoa da, gainera, *-eta* enklitikoa daraman perpausa bestearen eskuinean ematen denean: *Ez da ezer ikusten, gau iluna da eta*. Perpau-

<sup>19</sup> Ohikoa ez bada ere, inoiz *bait-* menderagailuarekin erabiltzen da: *Izugarria izan behar da, hasteko, haren maltzurkeria; ezen zenbait orduren buruko, ez baitzaie lili maiteer galtzekorik gelditzen deus* (J. Etxepare).

<sup>20</sup> Idatzian egokiena *eta* osorik ematea da, Euskaltzaindiaren 27. arauari jarraiki (“*Hori eta, hori edo eta horrelakoen idazkera*”). *Eta*, bestalde, marra edo koma ipintzea ere egoki da, anbiguotasuna argitu behar denean.

sen arteko kausa-ondorio erlazioa da, hain zuzen ere, *eta* enklitiko bilakatzea eta perpausen ordena trukatzea bideratzen dituena.

**38.7b** Kategoriari dagokionez, esan behar da *-eta* enklitikoa ez dela menderagailua, ez baititu menderagailuek dituzten ezaugarriak: a) menderagailuak adizki jokatuari itsatsiak dira beti (*ba-*, *bait-*, *-n*, *-la*); *-eta* enklitikoa, aldiz, aditzari itsatsita joan daiteke, baina perpausaren beste osagaien baten enklitiko ere izan daiteke: *Jaramonik ez dit egingo-eta*, *bihotza erdibituko zait* (J. Altuna); *Zulatu zaigu txalupa-eta*, *laster hondatuko da* (Etxeita); b) menderagailuak, bestalde, ez dira bateragarriak adizki alokutiboekin (*\*etorri baduk*, *\*eseri dunala*); *-eta* enklitikoak ez du horrelako debekurik (*etorri duk-eta*, *eseri dun-eta*). Baditu, ordea, bestalde, juntagailuek ez dituzten ezaugarri batzuk: a) juntagailua [+azentuduna] da eta juntaturiko perpaus bien artean ematen da, ezker-eskuin etenak dituela; *-eta* enklitikoa, berriz, [-azentuduna] da eta aurrekoari itsatsita doa, etena ondoan egin daitekeelarik: *Berandu da-eta*, *goazen etxera*; b) bestalde, juntaturiko perpausak ezin dira nolnahi trukatu (*Etxera deitu nion eta tabernan elkartzekotan geratu ginen* eta *Tabernan elkartzekotan geratu ginen eta etxera deitu nion* ez dira gauza bera), are gutxiago juntagailua bera ere atzeratuz (*\*Tabernan elkartzekotan geratu ginen*, *etxera deitu nion eta*), eta horixe da, hain zuzen ere, *-eta* enklitikoarekin egiten dena, atzeratu, azalpen zentzua emateko: *Goazen etxera*, *berandu da eta*.

Esan daiteke, bada, *-eta* enklitikoa ez dela juntagailu soil, eta, bestalde, menderagailu ez bada ere, halakoa izateko bidean dela. Eta, orobat, harekin eginko perpausak mendeko perpaus ez badira ere, halakoak izateko bidean direla.

**38.7c** Balioari dagokionez, agerikoa da *-eta* enklitikoazko perpausak azalpenezkoak direla, perpaus nagusiaren kanpoko modifikatzaileak direnez. *Bait*-erabiltzen ez zuten mendebaldeko euskalkietan sortu zen, hain zuzen ere, ez hain aspaldi<sup>21</sup>, azalpenezko perpausak eratzeko beste forma hau.

---

<sup>21</sup> Gregorio Arruek 1885. urtean idatzitako lanean aurkitu zuen Villasantek kausazko *-eta* enklitikoaren lehen agerpena (1986: 169).

Juntagailutik sortua izanik, mota guztietako perpausen lagun erabil daiteke. Hala, maiz erabiltzen da agindu gisako perpausen ondoan, izan agintera, adizki hortatibo nahiz iusibo, haiei dagokien azalpena emateko: *Utzi nazazu, egunsentia da eta; Gauden erne, etsaia hurbil da eta; Dihoala urrutira, ez dugu horren beharrik eta*. Baina adierazpenen ondoan ere erabiltzen da: *Ez naiz luzatuko, berandu da eta; Neuk jarraituko dut, aspaldi ez dut hitz egin eta* (Atxaga). Dedukziozko azalpenak ere eratzen ditu, bistan da: *Partida galdu dute, burumakur datoz eta*. Horrelakoetan, ohi bezala, esaten dena ez, esatea azaltzen du *-eta* perpausak: *Partida galdu dute[la diot], burumakur datoz eta*<sup>22</sup>.

**38.7d** Forma honetako perpausak nagusiaren ondoan du ohiko lekua, adibideetan ikusten den bezala, baina aurretik ematea ere ez du debeku (*Berandu da-eta, goazen etxera*), ezta haren barnean tartekatua ematea ere: *Bere lagunak, agure zen eta, zeukan lepoa makurra* (E. Azkue).

Bere perpausean, berriz, *-eta* enklitikoa azkenean ematen da maiz, adizki jokatuen ondoan: *Ez barrerik egin, egia da eta* (Azkue). Beste osagai baten ondoan: *Zatozte pixka batean barrura, oraindik badugu astia eta* (Etxaniz). Baina barnean ere joan daiteke: *Ez ihes egin [...]; zaldun bat bakarra da-eta ekiten dizuena* (Berrondo).

**38.7e** *Eta* enklitikoa *-la* perpausei atxikita ematen da zenbaitetan: *Gaixorik nengoela eta, oheratzeko agindu zidan medikuak; Juanak bere ama ikusi behar zuela eta, Basaburuko bidea hartu zuen* (Etxaniz). Perpaus horietan ‘esan’ edo ‘pentsatu’ gisako aditz nagusi inplizitua dago: *Gaixorik nengoela* (‘esan’) *eta, oheratzeko agindu zidan medikuak; Juanak bere ama ikusi behar zuela* (‘esan/pentsatu’) *eta, Basaburuko bidea hartu zuen*. Ez-ageriko aditzaren subjektuari egozten zaio maiz mendeko perpausak eskaintzen duen azalpena (medikuak ‘esan’ du gaixorik nagoela, lehen adibidean, oheratzeko aginduaren azalpen gisa; eta Juanak ‘esan/pentsatu’ du ama ikusi behar zuela, Basaburuko bidea hartzeko erabakiaren azalpen moduan; uste edo aitzakia

<sup>22</sup> Horrelakoetan, *-eta* enklitikoa *eta horregatik diot* esaldiaren lekuan dagoela iradokitzen du de Rijkek (2008: 606).

horietan oinarrিতта egin dute egin dutena, alegia). Beste bat ere izan daiteke, ordea, ‘esatearen’ subjektua: *Migeli txiki gelditu zitzaizkiola eta, nik jantzi beharko nituen oheko jantzi haiek, urtebete barru* (Lertxundi). Jantziak Migeli txiki gelditu zitzaizkiolako ez du, kasu honetan, perpaus nagusiaren subjektuak esaten. Galdegai gisa ere erabiltzen da inoiz forma hau: *Lehiaketa irabazi duela-eta dabil harro* (Juan Garzia).

Galdegai denean aditz nagusiaren aurrean du kokalekua forma honetako perpausak, ohikoa denez, tartean etenik ez dela. Mintzagai denean ere perpaus nagusiaren ezkerrean joan daiteke, tartean etena delarik, goiko adibideetan ikusten denez (*Gaixorik nengoela eta, oheratzeko [...]*); baina haren eskuinean ere eman daiteke: *Sendagile bat sartu da gaixoren bat dagoela eta* (Garate).

**38.7f** [*Izan + -la*] forman oinarrিতта, postposizio esapideak eratzen dira, izen sintagmari eransten zaizkionak: [IS] + {*dela eta ~ dela kausa ~ dela bide ~ dela medio*}. Horrelakoen oinarrian perpausa bada ere (IS + *da*), forma horietan postposizio gisa lexikalizatu direla esan daiteke —kapitulu honen hasieran aipatu direnen pareko—, eta, hortaz, ez ditugu perpaustzat hartuko.

**38.7g** Hala, hasteko, [IS + *dela-eta*] gisako esapidean, *dela-eta* formak aurrean duen IS —*da* aditzaren subjektua— seinalatzen du perpausaren esaten denaren kausa moduan: *Dirua dela-eta, haserre handiak sortu dira. Dela-eta esapidea postposizio gisa lexikalizatua da, esan bezala; hala, zer dela-eta? eta zergatik?* galderak, esate baterako, baliokideak dira, eta orobat hori *dela eta* eta *horregatik* esaldiak: {*Dirua dela-eta ~ diruagatik*}, *haserre handiak sortu dira*. Bereizi egin behar dira, bada, aurreko atalean ikusi ditugun egiturak, ‘esan’ edo ‘pentsatu’ inplizitu bat dutenak (*Gaur jai dela-eta, pozik dira ikasleak* = ‘jai denez’), eta atal honetan ikusi ditugunak, azalpenaren oinarri izen bat dutenak (*Gaurko jai dela-eta, pozik dira ikasleak* = ‘gaurko jaiagatik’).

Oinarrian aditza duelarik, numero komunztadura betetzen du esapideak: *Dirua dela-eta, kezkatua dabil jendea; Kirolak direla-eta, eztabaida beroak sortzen dira*. Aldiari dagokionez, berriz, jokabidea askeagoa da; esapidea iraganean ematen bada, nagusiak ere iraganean behar du: *Dirua zela-eta, kezkatua*



{*zebilen ~ \*dabil*} *jendea*; orainaldiko forma lexikalizatuagoa dago eta aldi guztietako nagusiak onartzen ditu: *Dirua dela-eta, kezkatua {zebilen ~ dabil ~ ibilik da} jendea*. Beste pertsonekin erabiltzea ez da debeku: *Eta orain zein zindo negar egiten duen, ni naizela-ta* (Zaitegi).

Esan behar da, dena dela, esapidearen balioa ez dela beti kausari lotua. Halakoa da gorago eman diren adibideen modukoetan: *Ordua dela-eta, ohera joan dira etxeokak; Eskolako lanak direla-eta, ez du lagunetara joateko modurik izan*. Beste zenbaitetan, ordea, gaia-edo ematen du aditzera, *-i buruz* postposizioaren edo *zertaz* sintagmaren pare: *Plajioa dela-eta, ideiak oso garbi dauzkate* (Atxagá); *Politika dela-eta, ez dut ezer esango*. Adiera hori du itzuliak idatzien titulu gisa ematen denean: *Euskararen izter-lehengusuak direla eta* (Mixelena).

**38.7h** *Eta* enklitikoarekin ez ezik, *kausa*, *bide* edo *medio* bezalako izenekin ere eratzen dira esapide eginak, *izan* aditza dutenak eta izen bat seinalatzen dutenak azalpenaren oinarri: *Ez dauka, haatik, inork italianoa hobetzat bereizkuntza hori dela kausa* (Mixelena); *Herri hau dela kausa dit orai min* (Mirande); *Nik, eta bestek [...] hiztegia zela bide jakin genuen Euskaltzaindia bazela* (Mixelena); *Terreno batzuk zirela medio zuten auzi hori* (Uztapide). ‘Bereizkuntza hori’, ‘herri hau’, ‘hiztegia’ eta ‘terreno batzuk’ dira, adibideetan, kausa modura seinalatutako izen sintagmak.

Postposizio bilakaturiko esapideak dira horiek ere, esan bezala, *-gatik* postposizioaren parekoak: *Dirua {dela kausa ~ dela bide ~ dela eta} haserretu ziren = Diruagatik haserretu ziren*. Kausa adierazten dutenez, galdegaien *ez-bai* kontrastean erabil daitezke: *Zure bihotza kexatua sentitzen baduzu, ez zenbait objet agradarrientzat duzun amodioa dela kausa, baina zeren duzun ezinbesteko higuintza bat presuna batentzat* (Haraneder).

Esapidearen aditza orainaldian ematea da ohikoena esapide hauetan ere, baina iraganean ere eman daiteke, goiko adibideetako *hiztegia zela bide* eta *terreno batzuk zirela medio* perpausak erakusten duten moduan; hori bai, hala denean, perpaus nagusiko aditza ere iraganean ematen da, adibideetako *jakin genuen* eta *zuten* bezala. Hura orainaldian denean, berriz, nagusia aldi guztietakoa izan daiteke: *Dirua dela kausa, haserre {zeuden ~ daude ~ egongo dira}*.

Maiztasun handikoak ez badira ere, bestelako pertsonekin eginiko formak ere era daitezke: *Paga ahal banitza nik nolazpait ere ni naizela medio sufritu dituzuen nekeak* (Mitxelena).

### 38.8. -nez gero, azalpenezkoa

**38.8a** *Gero* adberbioak argiro erakusten duenez, -nez gero formak jatorriz denbora adierazten du. Eta jatorria ez ezik, erabilera ere horrelakoa du zenbaitetan, gertakariaren noizdanikoa ematen baitu aditzera. Baina perpaus nagusian aipatzen denaren azalpena adierazteko ere erabiltzen da beste batzuetan.

Denborazko perpausak aztertzen diren kapituluan azaltzen den bezala, badira ezaugarri batzuk adiera biak bereizten dituztenak (§ 36.9c). Hala, azalpenezko perpausa ezin denez galdegai izan, halakoa denean denborazkoa izango da perpausa: *Eguna argitu duenez gero ari da lanean*, ‘noiztik’ alegia; perpausen esanahiak ere erakutsi dezake inoiz zein den adiera: *Ameriketara joan zenez gero, ez da itzuli* esaldiko perpausa, esate baterako, ez da kausazkoa, norabait joatea ez baita, arrunki behintzat, ez itzultzeko arrazoia. Beste batzuetan, ordea, kausazko adiera nagusitzen da. Hala, egoera iraunkorra adierazten duten perpausak azalpenezkoak dira, ezin baitira denborazkoak izan (*Europarra denez gero, pasaportetik gabe ibil daiteke Europa guztian*); berdin uneko irakurketa nekez duen egoera adierazten dutenak (*Jakintsua denez gero, haren-gana jotzen dugu aholku eske*), edo ezezkoak (*Entzulerik etorri ez denez gero, bertan behera utzi dugu hitzaldia*); orobat, perpaus nagusia iraupenekoa ez denean (*Eguna argitu duenez gero, lanera joan da*), edo geroari dagokionean (*Eskatu didazunez gero, emango dizut aholkua*; *Londresa joan zarenez gero, balia ezazu aukera ingelesa ondo ikasteko*).

**38.8b** Izan daitezke, hala ere, anbiguoak gertatzen diren perpausak, batez ere aditzaldia iraganekoa denean, hauek denborazko izateko joera nagusitzen den arren: *Ikasturtea amaitu zenez gero, oporretan dabil*, hau da, ‘amaitu zenetik’ nahiz ‘amaitu zenez’. Ohartzekoa da, hori bai, azalpenezkoak direnetan -nez soilaz ordezkia daitekeela -nez gero forma konplexua, mendebaldean bederen: *Ikas-*

*turtea amaitu zenez, oporretan dabil*; denborazkoa denean, berriz, *-tuz gero* perpaus jokatu gabeaz ordezkia daiteke: *Ikasturtea amaituz gero, oporretan dabil*. Aldaketa horiek argituko lukete, hain zuzen ere, adibideko anbiguotasuna.

Ekialdeko euskalkietan *-naz* {*gero ~ geroz ~ geroztik*} aldaerak ditu forma honek; azken biak dira erabilienak, eta, denbora ere seinala dezaketen arren, azalpena adieraztea dute ohikoena. Hegoaldean, berriz, *-nez* {*gero ~ geroz ~ geroztik*} dira aldaerak; lehenbiziko biak dira erabilienak, eta horiek dira, hain zuzen ere, maizenik azalpena adierazten dutenak<sup>23</sup>.

**38.8c** Balioari dagokionez, agerikoa da forma hau azalpenezkoa dela, ez kausal betea, perpausaren kanpoko modifikatzailea baita. Hortaz, ez dio *zergatik* galderari erantzuten, *Zergatik baztertu dute? -\*Atzerritarra denez gero*, eta ezin da galdegai izan: *\*Atzerritarra denez gero baztertu dute*. Hiztunak solaskidearekin partekatzen duen informazioa ematen du *-nez gero* perpausak azalpen gisa —edo, bederen, partekatu gisa aurkezten dena— (*hemen zaudenez gero, lanean hasiko gara*); horrek bereizten du *-eta* perpausak bideratzen duen azalpenetik, hau informazio berri bezala aurkezten baita, edo, bederen, ezaguna eta partekatua ez den informazio bezala: *Zaudete pixka batean, lagunduko dizuet eta* (Atxaga).

Perpaus nagusian esaten denaren azalpena eskaintzen du zenbaitetan *-nez gero* perpausak: *Ni apaiza naizenez gero, aholkularitzat hartu nau* (Garate); *Gerezi sasoian gaudenez gero, ona litzateke gereziaren bat ikustea* (Atxaga). Aholkulari hartu izanaren zergatikoa azaltzen du mendekoak lehen adibidean, eta gereziaren bat ikustea ona izatearena bigarrenean. Baina esatearen beraren azalpena ere eman dezake aditzera: *Baserri hau, galde egin duzunez gero, joan den mendekoa da*. Galdera egin izana ez da baserria zaharra izatearen zergatikoa, hori esatearena baizik: *Baserri hau, galde egin duzunez gero, joan den mendekoa de[la esaten dizut]*.

Perpaus nagusia adierazpena izan daiteke (*ateri denez gero, paseatzera joan dira*), baina baita agintea ere (*ateri denez gero, zoazte paseatzera*), edo galdera (*ateri denez gero, zergatik ez joan paseatzera?*).

<sup>23</sup> Forma hauen ahoskerari eta idazkerari buruz, ikus Euskaltzaindiaren 26. araua (“-z gero”).

Mintzagai gisa espezializaturiko esapidea eratzen du *-nez gero* perpausak, eta, hortaz, perpaus nagusiaren aurrean du ohiko lekua, goiko adibideetan ikusten den bezala. Ager daiteke, hala ere, tartean, haren mintzagai hanpatuaren ondoren: *Aho literatura, paperik erabiltzen ez duenez gero, berez da suntsikorra* (Mitxelena). Edo guztiz eskuinean: *Paga ezazu zerorrek, zeuk ere zor duzunaz geroztik* (Axular).

**38.8d** Iparraldeko euskalkietan *-naz gainean* forma ere erabiltzen da, usu ez bada ere, *-nez gero* formaren balio berarekin; perpaus nagusiaren ezkerrean zein eskuinean joan daiteke hau ere: *Hirira bazoazenez gainean, nahi duzu eramane xamarra?* (DRA); *Bai, bai, erosiko diat saldu nahi duenez gainean* (Cerquand).

**38.8e** Mendebaldeko euskalkietan *-nez* soilak azalpenezko perpausak era ditzake, forma horren berezko esanahia moduzkoa bada ere. Literaturan ez da gehiegi ageri, azken urteotan ez bada. Gorago esan den moduan, aditzaldia iraganekoa denean anbigua gerta daiteke *-nez gero* perpausa, denborazko zein azalpenezko irakurketa izan baitezake; anbiguotasun hori argitzeko-edo, azalpenezkoetan *-nez* soila erabiltzera jotzen dute gaur egun mendebaldeko euskaldun batzuek. Forma honetako perpausak ere mintzagai gisa espezializaturik daude; nagusiaren ezkerrean eman ohi dira maiz: *Ezer gertatu ez zenez, bertan utzi zuten* (Atxaga); *Bihozbera zenez ereslari eta musikazale porrokatua zen* (Azkue). Baina eskuinean ere eman daitezke: *Hitzaurreaz bi hitz esango nituzke, Tolstoiñalea naizenez* (Mitxelena).

**38.8f** Dagokion lekuan azaldu den moduan, *-n legez* formarekin konparaziozko eta moduzko perpausak eratzen dira, baina, ohiko erabilera horrez gain, azalpenezko perpausak egiteko ere erabil daiteke: *Eurek ez zaituzten legez zeu ikusten, ez dira beldurtzen* (J. J. Mogel). Aldaera, ohikoa, *-n lez* du: *Eta nik irakurleentzat ez daukidan lez gauza isilekorik, hementxe eman behar dautzuet asmo honen berri* (Kirikiño). Azalpen balioa azpimarratzeko, *haugatik* edo *hargatik* bezalako anafora bat sartzen da inoiz perpaus nagusian: *Atzetik dauzkan legez oin bi luzeago, hargatik nahi duenean egiten du salto* (De la Fuente).

Kokaguneari dagokionez, forma honetako perpausak nagusiaren ezkerrean dute ohiko lekua, goiko adibideetan ikusten den bezala. Perpausaren beraren barneko hurrenkeran, berriz, {adizkia + *-n legez*} osagaia perpausaren azkenean ez ezik, haren barnean ere joan daiteke: *Karga zen legez handiegia, [...]* (Mogel); *Ez den legez gomutetan inor zoritxarrakaz jazo artean, [...]* (Uriarte).

**38.8g** Berez denborazkoa den *-netik* forma, azkenik, kausa edo azalpena adierazteko ere erabiltzen da bizkaieraz: *Zaldunak, gizon gogorra zenetik, agindu zuen biak zigortzea [...]* (T. Etxebarria).

### 38.9. *Nola... {bait-; -n}, zelan...-n azalpenezkoak*

**38.9a** Modu eta kausa adieren arteko hurbiltasunak eraginda, *nola* edo *nolatan* galdetzaileak moduz galdetzeko ez ezik, kausaz galde egiteko ere erabiltzen dira ez gutxitan: *Nola utzi duzu aukera hori galtzen?*; *Nolatan ez didazu lehenago esan?* Era berean, *nola*-rekin eginiko *nola... {bait-; -n}* formak modu-konparazioko perpausak eratzeko ez ezik, azalpena adierazten duten perpausak eratzeko ere erabiltzen dira zenbaitetan, *-nez gero* perpausen parekoak: {*Nola zuhurra den ~ Zuhurra denez gero*}, *aholku egokiak emango dizkigu*.

*Zeren* partikularekin eginiko formetan gertatzen den banaketaren antzekoa gertatzen da *nola*-rekin egindakoetan ere: *-n* menderagailua mendebaldeko euskalkietakoa da batez ere: *Berdin litzateke zaldi esan beharrean asto esango bagenu. Baina nola ez dugun elkar hartuko asto esatean, ezin genezake nahi dugun bezala hizkera alda* (Mitxelena); *Nola nire larrua / den aski handia, / nirekin egin nahi du / segurki zahagia* (A. P. Iturriaga). Aldiz, *bait-* menderagailua ekialdekoa da batik bat, mendebaldeko idazleek ezezaguna ez badute ere: *Baina nola baitzen kaskoz arinxkoa, mundua ikusteko hartzen du gogoa* (Goihetxe); *Nola han bainaiz sortua, han utziko dut mundua* (J. B. Elizanburu); *Gu bizi ginen etxea nola baitzegoen Lezoko partean, aita, ama eta [...]* *Lezoko kanposantuan lur hartuak dira* (S. Salaberria). Bizkaieran, bestalde, *zelan...-n* forma erabiltzen da: *Zelan inork ez dituen elkarren gainean tolestu, [...]* *zulo, tarte, hutsune eta inguruetatik sartzen zaie ura polito-polito*

(Agirre); *Jakin begite [...] zelan den berau orritsu eta besangaz zabala, bere azpian zaharren Batzarrak oraindik egingo direla* (Arrese Beitia).

**38.9b** Esan bezala, forma honekin eginiko perpausak azalpenezko balioa dute; perpaus nagusian esaten denaren justifikazioa eskaintzen dute: *Nola Bre-tainiak mintzaira bat baitu gurea bezala zaharra eta alde guztiz ederra, mintzaira horretako gizon jakintsuenak ikusi nahi izan ditut* (J. P. Arbelbide); *Baina nola hutsegilea judua baitzen [...] juduen aldeko kazeta guztiak berehala isildu ziren* (Hiriart-Urruti). Ez dirudi, ordea, dedukziozko azalpenetan erabiltzen denik: ??*Nola burumakur baitatoz, partida galdu dute. Are gutxiago, dedukziozkoa nagusiaren ondoan dela: \*Partida galdu dute, nola burumakur baitatoz.*

*Nola ... halatan* korrelazioak konparazioa bideratzen du askotan, baina azalpena ere eman dezake aditzera zenbaitetan: *Eta nola bi gauza egiten baititu, halatan ditu merezi ere bi pena eta gartzigu* (Axular).

**38.9c** Kausa adierazten duenean {*nola / zelan*}... -n perpausa gehienetan nagusiaren ezkerretara kokatzen da: *Nola izango duen urdaia lodia, hartuko dut honekin nik diru handia* (A. P. Iturriaga). Mendeko perpausaren barnean, berriz, *nola / zelan* hitzak, galdetzaile izateari utzi dionez, ez du aditzaren aurre-aurrean joan beharrik. Perpausaren hasieran eman daiteke: *Eta nola Murtutsen berririk ez baitzuten, galdegin zioten bertze apez-kondaira ttipi bat* (Lafitte). Baina baita barnean: *Eta nahimenak nola adimenari jarraitzen dion, bizi-nahia ere horrelakoxea dugu* (Villasante). Eta aditzaren aurre-aurrean: *Gobernu txarra zelan zeukan, hamar urte gehiago iruditzen zuen* (Arrese Beitia).

## 39. Kontzesio perpausak

---

- 39.1. **Sarrera**; 39.1.1. Kontzesio perpausak zer diren; 39.1.2. Bestelako egitura batzuekiko antzekotasuna; 39.1.3. Aurkaritzako diskurtso markatzaileak eta kontzesio perpausak; 39.1.4. Aurkaritzako juntadura; 39.1.5. Beste egitura hurbileko batzuk; 39.1.5.1. *Baldintza perpausak*; 39.1.5.2. Beste zenbait adberbio perpaus (-*ela(rik)*, -*tuta*, -*turik*...)
- 39.2. **Kontzesio perpausen ezaugarriak**; 39.2.1. Kontzesiozko egituretako menderagailuen inbentarioa eta adibideak; 39.2.2. Kontzesio perpausen funtzioa, kokagunea eta barne hurrenkera; 39.2.3. *Ere* kontzesio perpausetan eta diskurtso markatzaile aurkaritzakoetan; 39.2.3.1. *Ere* kontzesio perpausetan; 39.2.3.2. *Ere* diskurtso markatzaile aurkaritzakoetan; 39.2.4. Aurkaritza diskurtso markatzaileak kontzesio perpausen indargarri; 39.2.5. Aditzaren elipsia; 39.2.6. Zer aditz motarekin osa daitezkeen kontzesio perpausak; 39.2.7. Kontzesio gailuen metatzea
- 39.3. **Kontzesio egiturak**; 39.3.1. *Nahiz* markaren bidez eraturako egiturak; 39.3.2. *Arren* postposizioaren bidez eraturako egiturak; 39.3.3. -*gatik* postposizioaren bidez eratuak; 39.3.4. *Baina* enklitikoaren bidez eratuak; 39.3.5. -*tuta ere* / -*turik ere* / -*tu gabe ere* / -*tu ezik ere*; 39.3.6. (*Baldin*) *ba-... ere*, -*tuz gero ere*: baldintzazkoetan oinarrituak; 39.3.7. -*ela* /-*elarik* + *ere*; 39.3.8. Galdetzaillea + *ere* + *bait* /-*en*; 39.3.9. Banakaritza egiturak; 39.3.10. Perpaus erlatiboan oinarrituak: *datorrena datorrela...*; 39.3.11. *Edo*-galdetzaillea/galdetzaillea-*nahi* + -*ela* /-*en* /-*elarik* + (*ere*); 39.3.12. Kontzesioa adieraz dezaketen beste zenbait egitura; 39.3.12.1. *Ez delakoan ere* / *Ez idurian ere*; 39.3.12.2. *Bait*-; 39.3.12.3. -*eta*; 39.3.12.4. -*ela(rik)*; 39.3.12.5. -*elako*
-

## 39.1. Sarrera

### 39.1.1. Kontzesio perpausak zer diren

**39.1.1a** Aurkaritzarekin lotura duten mendeko perpaus multzo zabal bat izendatzeko erabili ohi dira *kontzesio perpausak* edo *perpaus kontzesibo* izendapenak.

Kontzesio perpausen lehenbiziko ikuspegi bat emateko, ekar ditzagun hona adibide batzuk: *Nahiz bizkarreko mina duen, kirola egitera joan da; Argentina joan da oporretara, han negu gorrian dauden arren; Mila aldiz gauza bera errepikatuagatik, berdin jarraitzen du umeak; Betebehar asko baditu ere, beti aurkitzen du tarteren bat lagunentzat; Negu gorria izanik ere, alkan-dora hutsean dabil Iñaki; Loteria egokituz gero ere, ez litzateke zoriontsu izango; Nahi ez nuelarik ere, lan horretan hasi nintzen.*

Ikusten denez, euskaraz mendeko egitura asko ditugu kontzesio balioa adierazteko.

Perpaus horietan, azpimarratuta eman ditugu mendeko perpausak, aditz menderatuen inguruan osatutako perpausak; esan bezala, era askotako gailuak erabil daitezke menderakuntza mota honetan: menderagailuak (*-en*, *-ela*, *-elarik*, *ba-*, aditz partizipioa), postposizioak (*arren* eta *-gatik*), diskurtso markatzaileak (*ere*) eta bestelako marka batzuk (*nahiz*, adibidez). Bestalde, aditz jokatua eta jokatugabeak ditugu goian emandako adibideetan: bietariko adizkiak erabiliz osatzen dira kontzesio perpausak; bata bezain garrantzitsua eta erabilia da beste baliabidea.

**39.1.1b** Zertan datza, baina, kontzesioa? Kontzesioaren definizioa emateko, eta menderakuntzaren arloan gramatika honetan batez ere erabili dugun irizpideari jarraituz, irizpide logiko-semantikoetan oinarrituko gara. Hala egin izan da orain arteko gramatikan, eta hala egingo dugu geuk ere atal honetan. Ikusita, baina, kontzesiozko morfemen zer-nolako ugaritasuna dagoen, argi dago bestelako irizpide bat ere behar dugula: semantikara jo dugu, esan bezala, perpaus hauek besteetatik bereizteko; gero, ordea, behin perpaus mota



hauek esanahiaren aldetik definitu ondoren, formaren irizpideari helduko diegu kontzesiozkoetan azpisailak egiteko: kontzesio perpausak adierazteko erabiltzen diren forma askotarikoei helduko diegu horretarako.

Perpaus hauek definitzeko, esan dezakegu bi erlazio mota daudela haietan: batetik, inferentzia erlazio bat dugu, auresuposizio bat: aldez aurretik gizartean edo hiztunaren mundu ikuspegian ontzat ematen den auresuposizio bat:  $p$  proposiziotik  $q$  proposizioa ondorioztatzen dugu, eta, alderantziz,  $p'$ -tik, berriz,  $q'$ . Konparazio baterako, norbait gaixorik dagoenean ondorioztatzen dugu ez dela lanera joango, etxean geratuko dela sendatu bitartean. Ongi dagoenean, berriz, lanera joaten dela ondorioztatzen dugu. Inferentzia edo ondorioztatze erlazio bat da hori:  $p \rightarrow q$  (edo  $p' \rightarrow q'$ ).

Bestetik, aurkaritza erlazio bat ere bada kontzesio perpausetan. Perpaus nagusian adierazitakoari jartzen zaion oztopo bat adierazten du mendeko perpausak. Goian ontzat eman dugun erlazioa ( $p \rightarrow q$ ;  $p' \rightarrow q'$ ) trukatzetik sortua da oposizio hori ( $p \rightarrow q'$ ;  $p' \rightarrow q$ ).

**39.1.1c** Adibide bat emateko,  $p$  “sasoi betean egotea” baldin bada,  $p'$  baldin bada “gaixorik egotea”,  $q$  baldin bada “lanera joatea” eta  $q'$  baldin bada “etxean geratzea”, honako hau litzateke ontzat ematen den erlazioa, oro har:

$p$ Sasoi betean dago	$\rightarrow$	$q$ lanera joan da
$p'$ Gaixorik dago	$\rightarrow$	$q'$ etxean geratu da

Aldez aurretik ezarritako inferentzia erlazio hori trukatzean datza kontzesioa:

$p'$ Gaixorik dago	$\rightarrow$	$q$ lanera joan da
$p$ Sasoi betean dago	$\rightarrow$	$q'$ etxean geratu da

Era honetara sortzen dira kontzesio perpausak:

- Gaixorik badago ere, lanera joan da ( $p' \rightarrow q$ )
- Sasoi betean dagoen arren, etxean geratu da ( $p \rightarrow q'$ )

Goian esan dugu gizartean ontzat ematen den uste bat haustea dela kontzesioa; alabaina, gizartean ez ezik hiztunaren mundu ikuskeran ere ontzat eman

daitekeen egoera edo uste bat ere izan liteke. Adibidez, zenbait hiztuni bitxi samarra gerta badakioke ere, beste zenbaiten kasuan zentzuz betea litzateke honako perpaus hau: *Aberatsa den arren, zoriontsu bizi da*. Kasu honetan, hala dioenak uste du aberatsak ezin direla zoriontsu bizi, duten dirutzak arazoak sortzen dizkielako edo; auresuposizio hori aldatuz, kasu honetako aberatsa aberats guztien egoera orokorretik aldentzen da, eta zoriontsu bizi dela esaten da.

**39.1.1d** Esan dugu mendeko perpausak oztopoa adierazten duela perpaus nagusian adierazten dena betetzeko; nolana ere, ez da nahikoa oztopo izaten perpaus nagusian adierazitakoa galarazteko: beti betetzen da perpaus nagusian predikatzen dena (*Txiroa den arren, dirua ematen die eskaleei; Negu gorria bada ere, Errusiara joan da oporretan*). Horietan, azpimarratuta eman dugun mendeko perpausaren esaten dena gorabehera, perpaus nagusikoa bete egiten da: oztopoak oztopo, “eskaleei dirua ematen die txiroak”, “Errusiara joan da oporretan”.

**39.1.1e** Bestalde, mendeko perpausak adierazten duen aurkaritzak ez du zertan gogorra izan. *Gaixorik badago ere, lanera joan da* adibidean, esate baterako, oposizio gogor samarra dago, benetako oposizioa, gaixorik egotearen eta lanera joatearen artean. Beste batzuetan, ordea, oposizioa ez da hain bortitza izaten perpaus mendekoaren eta nagusiaren artean; aurkaritza erlazioa ahulagoa da: *Andaluzian izan naizen arren, ez zaitut bisitatu; Aste honetan Donostiara joan banai ere, ez dut Kontxako badia ikusi*. Ez dago benetako oposiziorik Andaluzian izatearen eta laguna bisitatzearen artean, ez eta Donostiara joatearen eta Kontxako badia ez ikustearen artean ere, nahiz eta kasu horietan bi perpausak kontzesiozko perpausaren formarekin ematea erabaki den. Auresuposizio kontua litzateke, aldez aurretik zerbait uste izatearena. Uste edo auresuposizio hori kasu bakoitzeko testuinguruak ezartzen du: baliteke uste izatea Andaluzian izaten naizen bakoitzean hango laguna bisitatu behar dudala; era berean, Donostiara joaten naizen bakoitzean Kontxako badia ikusi behar dudala uste izan dezaket. Hor oinarrituko da kontzesio balioa, auresuposizio horietan, edo, hobeto esateko, kasuan kasuko auresuposizio horiek haustean.

**39.1.1f** Beste batzuetan, aurkaritza erlazio are ahulagoak aurkitzen ditugu perpaus mendekoaren eta nagusiaren artean: *Errealak partida galdu badu ere, Osasunak irabazi egin du*. Ez dago inongo oposiziorik proposizio bataren eta bestearen artean; lasai asko adieraz genezake hori juntaduraren bitartez: *Errealak partida galdu du, eta Osasunak irabazi*. Menderakuntza aukeratu badugu ez da izan noski Errealak galtzen duen bakoitzean Osasunak ere galdu egiten duela uste dugulako (hori litzateke benetako kontzesioa:  $p \rightarrow q$  erlazioa  $p \rightarrow q'$  bilakatzea). Hori adierazi nahi ez badugu (eta ez dirudi hala denik), egokitasunaren mugan legoke eman dugun adibidea. Egitura hori erabiliz adierazi nahi dena badirudi honelako zerbait dela: *Errealak galdu egin du, baina lasaiago gera daitezke euskal futbolzaleak, bietako batek behintzat (Osasunak) irabazi egin duelako*. Aldaera estilistikotzat uler daiteke hor juntadura-oren orde z menderakuntza erabiltzea<sup>1</sup>.

Bistan da pentsamenduak edo gertakizunak aurkezteko modu desberdinak erabiltzen ditugula. Batzuetan kontzesio garbia egiten dugu: *Etsairik amorratuena etortzen bazait ere, nire etxeko atea irekiak izango ditu*. Beste batzuetan, ideia bera era zeharkakoagoan adierazi izan dugu: *Datorrena datorrela, nire etxeko atea irekiak izango ditu; Nornahi etor dadin, nire etxeko atea irekiak izango ditu*. Kasu horietan etxeko atea edozeinentzat daudela zabalik adierazten da, baita (hemen dago kontzesio balioa) horien artean izan daitezkeen etsaiementzat ere. Hor legoke kontzesio perpaus mota desberdinen artean aukera egiteko gakoetako bat: gauzak nola azaldu edo aurkeztu nahi ditugun.

**39.1.1g** Kontzesio perpausetan, orain arte ikusi ditugun adibideetatik ondo-riozta dezakegunez, menderagailuak eta haiekin konbinatzen diren gailuak

<sup>1</sup> Gaur egun zenbait euskaldunen ahotan dabilen forma bitxi bat aipatu nahi genuke hemen; perpaus hauek, adibidez, ongi eratuak dira, eta sinonimoak: *Nahiz ondo jaurti duen, ez du baloia sareratu; Ondo jaurti du, baina ez du baloia sareratu*. Ondoren datorkigun perpausa, ordea, bitxia da, eta ez da egokia aurreko bi adibideetan esan nahi izan dena adierazteko: *#Ondo jaurti du, nahiz ez duen baloia sareratu*. Hor, trukatu egin da kontzesio erlazioa, eta ez dagokion perpausentzat kokatu da kontzesio gailua.

(markak, postposizioak, diskurtso markatzaileak...) aurkituko ditugu kontzesio perpausak eratzeko (jokatuak nahiz jokatugabeak). Gailu horiek honako hauek dira: *nahiz* marka, *arren* eta *-gatik* postposizioak eta *ere* diskurtso markatzailea. Horiekin konbinatzen dira aditzari atxikitako menderagailuak: *-en*, *ba-*, *-ela(rik)*, *-tu*, *-tuta*, *-turik*...

### **39.1.2. Bestelako egitura batzuekiko antzekotasuna**

**39.1.2a** Inplikazio erlazio batez gainera aurkaritza erlazio bat ere badela esan dugu kontzesio perpausetan. Kontua da menderakuntzaz gainera (hipotaxia) badirela euskaraz beste egitura batzuk ere (parataxia) aurkaritza adierazteko, kontzesioarekin lotura estua duten beste egitura batzuk.

**39.1.2b** Mendeko kontzesioaren eta bestelako egitura horien artean dagoen antzekotasuna aztertuko dugu lerrootan. Hasteko, diskurtso markatzaileekiko antzekotasuna edo hurbiltasuna aipatuko dugu (§ 39.1.3). Horren ondoren, aurkaritzako juntadura (§ 39.1.4) eta bestelako mendeko perpaus batzuk ekarriko ditugu hona (§ 39.1.5), baldintzazkoak (§ 39.1.5.1) eta beste zenbait adberbio perpaus (§ 39.1.5.2).

### **39.1.3. Aurkaritzako diskurtso markatzaileak eta kontzesio perpausak**

**39.1.3a** Kontzesio perpausen ordez, EGLU-III liburukiak (93-133) aztertzen dituen aurkaritzako diskurtso markatzaileak erabil daitezke (*hala ere*, *badarik ere*, *hargatik*, *haatik*, *guztiarekin*...): alegia, bi perpaus beregainen arteko oposiziozko edo aurkaritzako lotura, erlazio adbertsatiboa.

**39.1.3b** Ekar ditzagun hona hasierako adibide sortako perpaus batzuk, eta ikus dezagun beste era batera nola antola daitezkeen: *Nahiz bizkarreko mina duen*, *kirola egitera joan da*; *Betebehar asko baditu ere*, *beti aurkitzen du tarteren bat lagunentzat*.

Horiek aurkezteko beste modu bat honako hau litzateke: *Bizkarreko mina du; hala ere, kirola egitera joan da; Betebehar asko ditu; hargatik, beti aurkitzen du tarteren bat lagunentzat.*

Bi esaldien arteko erlazio horren berri emateko, egitura sintaktiko bat baino gehiago erabil daitezke. Egitura horietako bat menderakuntza dugu: *nahiz ... -en, -tu arren, ba-... ere, -tuagatik...* menderagailuen bitartez txertatzen ditugu mendeko perpausak perpaus nagusietan; bigarren aukeran, perpaus beregainak ditugu, juntaduraz nahiz alborakuntzaz juntatuak, eta horiek semantikoki elkarri lotzeko diskurtso markatzaileak erabiltzen dira (*hala ere, hargatik, haatik...*). Azken hauetan, parataktikoki lotutako egitura hauetan, bigarren perpausaren kokatzen da diskurtso markatzailea, menderakuntza (kontzesio perpausa) erabili izan bagenu perpaus nagusia litzatekeen horretan, hain zuzen. Diskurtso markatzaile horiek anaforikoak ditugu, aurreko perpausaren erreferentekide diren anaforikoak: *Bizkarreko mina du; hala ere, kirola egitera joan da. Bizkarreko mina du; hala [bizkarreko mina duela] ere, kirola egitera joan da.*

Jar dezagun beste adibide pare bat: *Gaztea da; haatik, badaki burua non duen; Gaztea da; haatik [gaztea izanagatik], badaki burua non duen; Betebehar asko ditu; hargatik, beti aurkitzen du tarteren bat lagunentzat; Betebehar asko ditu; hargatik [betebehar asko izanagatik], beti aurkitzen du tarteren bat lagunentzat.*

**39.1.3c** Aurkaritza adierazteko bi modu horiek bateragarriak ere izan daitezke: esaldi berean, enfasi edo indar berezia lortzeko edo, erabil litezke bi baliabideak, menderakuntza bidezkoa eta diskurtso markatzaileen bidezkoa.

Hona literatura tradizioko adibide batzuk: *Nahiz hertsia den, baituke ordean eremu puska bat halere* (Hiriart-Urruti); *Nahiz gaba zen, halarik ere Apez Handiaren etxe hartarat bilduak ziren populuko aintzindariak* (Joanategi); *Nahiz hekien mintzaiak ez ditezken berdinak, halarik ere biak elkarren heinekoak dire, direlakotz bada Europa guziko zaharrenak* (J. P. Arbelbide).

Adibide horietan, mendeko kontzesio perpausak ditugu, baina, horretaz gainera, perpaus nagusian aurkaritzako diskurtso markatzailea ere agertzen zaigu.

Halako egitura misto enfatikoak erabiltzea, hau da, bi baliabideak (kontzesio egitura eta diskurtso markatzailea) batera erabiltzea, oso baliagarria izan daiteke zenbait kasu berezitan; adibidez, mendeko perpausa luze samarra izanik, perpaus nagusiaren haria berreskuratzeko; edo, orobat, kontzesioa adierazteko erabili dugun egitura guk nahi bezain indartsua ez den kasuetarako ere: alegia, argi uzteko hor kontzesio balioa eman nahi izan diogula, eta ez beste bat<sup>2</sup>. Aurkaritza egituren metatze hori arrunt samarra da aztertzen ari garen perpausetan.

#### 39.1.4. Aurkaritzako juntadura

**39.1.4a** Juntadurarekin ere badu zerikusia kontzesiozko menderakuntzak; batez ere aurkaritzakoarekin. Izan ere, berdintsu eman daiteke aurkaritza erlazioaren berri juntaduraren bidez ere (ikus EGLU-IV: 183): *Gaixo dagoen arren, kalera irten da* (menderakuntza); *Nahiz xentimorik ez duen, ardotarako beti izaten du zerbait* (menderakuntza); *Gaixo dago, baina kalera irten da* (juntadura); *Ez du xentimorik, baina ardotarako beti izaten du zerbait* (juntadura)<sup>3</sup>.

**39.1.4b** Alde garrantzitsu bat dute bi moldeek, haatik: aurkaritzako juntadura egitura orientatua da, eta mendeko egitura, berriz, ez. Zer esan nahi dugu horrekin? Ez dela gauza bera izango perpaus juntatuak hurrenkeraz aldatzen

---

<sup>2</sup> Gauza bertsua gertatzen da juntagailuekin ere: hauei ere gehitu ohi zaie diskurtso markatzaile bat (ikus EGLU-III (*Lokailuak*) liburukia: 27).

<sup>3</sup> Bi egituren (menderakuntzaren eta aurkaritzako juntaduraren) arteko erlazioa hain estua izaki, ez da harrizkoa aurkaritzako juntadura izatea kontzesio egituretako baten jatorria ere (ikus EGLU-IV: 215): *Gaixo dago, baina kalera irten da* (JUNTADURA) → *Gaixo dago-baina, kalera irten da* (MENDERAKUNTZA) → *Kalera irten da, gaixo dago-baina* (MENDERAKUNTZA).

Azken finean [A, baina B] egitura trukatu egin dugu, eta [B, A-baina] bihurtu. Bi egituren arteko antzekotasun logikoaren lekuko da *baina*-ren erabilera bikoitz hori: juntagailu erabilera eta menderagailu erabilera (kontzesio mota hau § 39.3.4 atalean aztertuko dugu).

baditugu: *Gaztea da, baina badaki non duen burua* [p baina q] ≠ *Badaki non duen burua, baina gaztea da* [q baina p].

Alegia, esanahi desberdina dute goiko bi esaldi juntatuek. Horregatik diogu orientatuak direla, bi perpausen hurrenkera eta orientazioa pertinentea delako:

ADBERTSATIBOA: [p baina q] ≠ [q baina p]

**39.1.4c** Mendeko egituretan, berriz, ez da hala gertatzen: perpaus osoaren bi atalak (mendekoa eta nagusia) hurrenkeraz aldatuta ere, ez da esanahia aldatzen:

*Gaztea den arren, badaki non duen burua.* [[p arren] q]

= *Badaki non duen burua, gaztea den arren.* [q [p arren]]

KONTZESIOA: [[p arren] q] = [q [p arren]]

**39.1.4d** Ez da, bestalde, aurkaritzako juntadurarekin bakarrik gertatzen hori; neurri txikiagoan bada ere, emendiozko juntaduraz ere balia gaitzke aurkaritza erlazioa adierazteko: *Gaixo dagoen arren, kalera irten da; Euskalduna izanagatik, beti ari da erdaraz // Gaixo dago, eta kalera irten da; Euskalduna da, eta beti ari da erdaraz.*

Ez da dudarik azken bietan, juntadura bidez eman ditugun adibideetan, badela kontzesio perpausetan den auresuposizioa, gero hautsi egin dena.

*Gaixo dago* [→ *etxean geratuko da*], eta *kalera irten da.*

*Euskalduna da* [→ *euskaraz hitz egingo du*], eta *beti ari da erdaraz.*

Alde horretatik, ezin uka diezaiekegu aurkaritza/kontraargudiozko balioa. Hala ere, ez zaigu iruditzen kontzesiozkoan eta aurkaritzako juntaduran ezarritzen den oposizioa bezain indartsua denik emendiozko juntaduraren bidez egiten dena; horregatik, azken hauek intonazio enfatikoagoa behar dute hautsitako auresuposizio horren berri emateko, edo aurkaritzako diskurtso markatzaile baten laguntza handiagoa behar izaten dute gauzatzeko: *Euskalduna da, eta, hala ere, beti ari da erdaraz.*

### 39.1.5. Beste egitura hurbileko batzuk

#### 39.1.5.1. Baldintza perpausak

**39.1.5.1a** Baldintza perpausekin ere, orain arteko gramatiketan esan izan den bezala, badute kontzesio perpausek lotura. Baldintza perpauseko protasiarri *ere* gehitzen badiogu eta ondore perpausaren kontrakoa eman, kontzesio perpaus bihurtuko dugu baldintzazko perpausa:

*Langile ona balitz, onartuko lukete lantegian* (baldintza) →

*Langile ona balitz ere, ez lukete onartuko lantegian* (kontzesioa)

*Gaixorik badago, ez da lantegira joango* (baldintza) →

*Gaixorik badago ere, lantegira joango da* (kontzesioa)

Aurretik genuen auresuposizio bati (*alferra balitz, ez lukete onartuko lantegian; sasoi onean badago, lantegira joango da*) horren kontrakoa edo beste muturrekoa den baldintza bat gehitzen diogu kontzesio perpausaren *ere*-ren bitartez; gehitu dugun baldintza hori gorabehera, perpaus nagusian adierazitakoa berdin-berdin beteko da: [*Alferra balitz*] eta [(*baita*) *langile ona balitz ere*], *ez lukete onartuko lantegian*; [*Sasoian badago*] eta [*gaixorik badago ere*], *lantegira joango da*. Kontzesio perpausa osatzerakoan, lehenbiziko baldintza normalean ez da esplizituki ematen, eta geratzen dena perpaus nagusian adierazitakoari oposizioa egiten diona da:

[*Alferra balitz*] eta [(*baita*) *langile ona balitz ere*], *ez lukete onartuko lantegian*.

**39.1.5.1b** Aditz jokatudun perpausetan nahiz jokatugabeetan gertatzen da hori:

*Asko ikasiz gero, ekainean dena gaindituko dugu* (baldintza) →

*Asko ikasiz gero ere, ez dugu dena gaindituko ekainean* (kontzesioa)

Kontzesio perpausetan nolabaiteko baldintza bat dago. Har ditzagun adibide hauek: *Datorrena datorrela, nire etxeko atea irekiak izango ditu*; *Zernahi gerta dadin gure artean, lagun izaten jarraituko dugu*. Horietan esan nahi dena honelako zerbait litzateke: “nire etxeko atea denentzat daude irekiak,



baita etsairik sutsuena etortzen bada ere; hari ere sartzen utziko diot”, “berdin zait gure artean zer gertatzen den; gauzarik okerreana gertatzen bada, hala ere, lagun izaten jarraituko dugu”. Baldintza bat jartzen da, baldintzazko perpausetan bezala, eta esaten dugu berdin zaigula baldintza edo oztopo hori, eta perpaus nagusian adierazitakoa gertatuko dela.

Azken finean, perpaus nagusian adierazten dena galarazteko nahikoa ez den baldintza bat da kontzesioa; galarazte hori gertatzeko, gauzak muturreraino eramaten dira aztertzen ari garen perpaus hauetan. Perpaus honetan, *Ateri badago, kalera irtengo naiz*, kalera irteteko baldintza bat jartzen ari gara: ateri egotea. Nolabait esanda, kalera ateratzea erraztu dezakeen baldintza bat. Honako honetan, berriz, *Elurra ari badu ere, irtengo naiz kalera*, kalera irteteko oztopo izan daitekeen baldintza bat ari gara jartzen, beste muturreko baldintza bat. Oztopoak oztopo, ordea, kalera aterako naiz.

**39.1.5.1c** Baldintzazkoen eta kontzesiozkoen artean dagoen desberdintasuna auresuposizioan datza. Kontzesiozkoetan, hautsiko den auresuposizio bat dugu, eta baldintzazkoetan ez dago auresuposiziorik: protasian esaten dena betetzen bada, apodosikoa ere beteko da, ez dago bestelako usterik edo auresuposiziorik horien azpian (*Dirua badut, kontzertura joango naiz; Dirua banu, kontzertura joango nintzateke*). Baldintza erreala nahiz alegiazkoa izan, protasikoa betetzen bada apodosikoa ere beteko dela (edo beteko litzatekeela) bakarrik adierazten dugu baldintzazkoekin; beste ezer ez. Kontzesiozkoetan, ordea, (*Dirua badut ere, ez naiz joango kontzertura; Dirua banu ere, ez nintzateke kontzertura joango*), bestelako zerbait ere badago, nolabaiteko ustea edo auresuposizioa: dirua badut edo banu, kontzertura joango naiz edo nintzateke, hurrenez hurren. Hala ere, ez da auresuposizioa betetzen: usteak uste, ez naiz (edo ez nintzateke) kontzertura joango.

### 39.1.5.2. Beste zenbait adberbio perpaus (-ela(rik), -tuta, -turik...)

**39.1.5.2a** Har ditzagun literatura tradizioko adibide batzuen egokitzapen hauek: *Mutil koskorra zelarik, asko zekien; Nahi ez nuelarik, horretan sartu*

*behar nuelako ustetan abiatu nintzen; Gurutze horretan isilik zaudela, hitz egiten didazu.*

Batzuetan kontzesio balioa nahikoa argi ikusten da, baina ez beti; balioa argi ikusten ez den horietan, bestelako mendeko perpaus batzuen balioekin nahas daitezke. Izan ere, muga irristakor samarra dago, besteak beste, denborazkoen, moduzkoen eta kontzesiozkoen artean. Horregatik, askotan beste zerbaiten beharra sumatzen da kontzesio balioa bermatzeko, hura indartzeko. Helburu horretarako, *ere* askotan erabili izan da menderagailua duen aditzari erantsirik: *Mutil koskorra zelarik ere, asko zekien; Nahi ez nuelarik ere, sartu behar nuelako ustetan abiatu nintzen* (Mitxelena); *O Nere Salbadorea. Ta nola Gurutze horretan isilik zaudela ere, hitz egiten didazun* (Kardaberaz).

**39.1.5.2b** Aditz jokatugabeekin ere berdin gertatzen da: *Gogoko ez dudala jakinik, egun osoa igarotzen du Unaik ni zirikatzen; Gogoko ez dudala jakinik ere, egun osoa igarotzen du Unaik ni zirikatzen*. Moduzko perpaustzat interpreta litekeenari *ere* gehitu zaio hor ere kontzesio balioa bermatzeko.

Perpaus nagusian aurkaritzako diskurtso markatzaile bat ematea izan liteke beste aukera bat: *Mutil koskorra zelarik, asko zekien hargatik; Ezer ere ez dakielarik, fama handia bereganatu du halere*. Literatura tradizioan ugariak dira halakoak: *Kontzientziak mintzatzen usatua ez delarik, ez daki alabaina isilik ere egoiten* (Axular); *Ordea gaitzetik heldu den beheramendua maitte dugularik, guziagatik ere hura ekarri duen gaizkia erremediatu behar dugu on eta zuzenezko diren bideez* (Pouvreau).

## **39.2. Kontzesio perpausen ezaugarriak**

Kontzesio perpausen kapitulu honetako hirugarren atalean aztertuko ditugu xehekiago kontzesioa adierazteko erabiltzen diren egituren xehetasunak eta berezko ezaugarriak banan-banan (§ 39.3): besteak beste, erabilera, formazko aldaerak eta banaketa geografikoa. Bigarren atal honetan egitura guztien aurkezpen orokorra egingo dugu, eta kontzesio perpaus guztiek oro har partekatzen dituzten ezaugarriak ekarriko ditugu.

### 39.2.1. Kontzesiozko egituretako menderagailuen inbentarioa eta adibideak

**39.2.1a** Kontzesio perpausetan ager daitezkeen menderagailuak (atzizkiak eta aditz forma jokatugabeak) eta horiekin batera erabili ohi diren bestelako elementuak (markak, diskurtso markatzaileak, postposizioak, galdetzaileak, izenordainak...) konbinatuz lortuko ditugu kontzesio egitura guztiak.

Gaur egun gehien erabiltzen diren egiturak bakarrik bildu ditugu kapitulu honetan, gaur egungo euskal hiztunak eskura dituenak. Egitura zaharkituak eta gaur egun emankorrak ez direnak ez ditugu jaso: gehienez ere aipamen labur bat egin dugu. Erabilerari dagokionez, egiturak banan-banan aztertzen ditugunean ikusiko dugun bezala, egitura guztiak ez dira bata bestearen truke nolanahi erabiltzekoak.

**39.2.1b** Hona hemen, kontzesio egitura garrantzitsuenak literatura tradizioko zenbait adibidetan gauzatuak, hirugarren atalean agertzen diren hurrenkera berean, lehenbizi kontzesio gailuen arabera, eta gero menderagailuen arabera: *Nahiz herrixka bat den, badu bizitzeko, eta asko herriri trufa egiteko* (Hiribarren); *Gizon honen izena esan bihar dautsuet, berari atsegin izango etxakon arren: Julian Abando* (Kirikiño); *Min hartu arren, eutsi dio sendo eta han gelditu da* (Barriola); *Ahoa nekatzen bada ere, bihotza ez da nekatuko* (Duvoisin); *Eginahalak eginda ere, ezin astoa mugitu* (G. Mujika); *Hitz laburtxoak izanik ere, horiek jakin behar dira noiz eta nola esan* (Beobide); *Hi urkamendian hagoala ere, Jainkoari beldurrik hartzen ez diok* (Lardizabal); *Diyotalarik ere nahitasun bikaina, nere amoriyuak falta du ordaina* (Bilintx); *Ez egizu hori esan, jauna, edozein euskaldunen aurrean, danak dakie baina* (Agirre); *Bolara baten emanagatik bertako uraren famak, ardo pixka bat beharrezko du osasun ona daukanak* (Uztapide); *Zernahi ere den, egiazko misterioa euskararen iraupena da, ez jatorria* (Mitxelena); *Urrikaldu zaitez nitaz, nornahi zarela ere* (Atxaga); *Baina zein ere handiak lirakeen irabazle horiek, ez lukee pits bat balioko* (Mendiburu); *Txahala esaten iako edozein behikumeri, dala arra, dala emea* (Mogel); *Datorrena datorrela, baietza emon bihotz-eske etorrenari* (Erkiaga).

### 39.2.2. Kontzesio perpausen funtzioa, kokagunea eta barne hurrenkera

**39.2.2a** Kontzesio perpausa ez da berez aditz nagusi baten edo predikatu baten osagarri; adjuntua da. Perpausaren mintzagai egiturari dagokionez, berriz, mintzagai izan ohi da, ezin da perpauseko galdegai izan. Ezin da, beraz, galdegaiaren kokalekuan joan; beti dago etena adjuntu hauen eta aditzaren artean —galdegaiaren eta aditzaren artean ez bezala—: *Pobrea banaiz ere / erosiko dut etxe hori*.

Baldintzazko perpausak bezala, kontzesiozkoak egitura ‘bimenbre’ bateko zati dira: prodosia eta apodosia. Bestelako adjuntu arruntek ez bezala, kontzesiozkoek (prodosiek) debekua dute perpausaren gunean joateko.

**39.2.2b** Askotan, perpaus mota hauen mintzagai izaeraren adierazgarri, koma bereizita agertuko zaizkigu. Perpaus nagusiaren aurretik doanean, eten bat izaten du ondoren mendekoak; perpaus nagusian tartekatuta doanean, koma artean agertu ohi da; eta perpausaren bukaeran badoa, aurretik koma duela. Hona, hurrenez hurren, adibide bana: [*Garbiki ageri den arren*], *hain gare tontoak non bethi huts bera egiten baitugu* (Duvoisin); *Asmu hekiek guziak, [ez diren arren bardinak]*, *oro elkar iduritsuak dira* (Duvoisin); *Ai nola zu hunen urrun zauden, [dakizun arren Jainkoa zeinen den gozoz bethea]* (Duvoisin).

**39.2.2c** Kokapenari dagokionez, eta goiko adibideetan ikusi dugun bezala, mugikorra da kontzesio perpausa: perpaus nagusiaren aurretik, hartan tartekatuta edo haren ondoren agertu ohi da; perpaus nagusitik etenen bidez ongi bereizita.

1. [[Kontzesio perpausa] ... ]<sub>p</sub>
2. [ ... [Kontzesio perpausa] ... ]<sub>p</sub>
3. [ ... [Kontzesio perpausa]]<sub>p</sub>

Mendeko perpausaren luze-laburtasunak izan lezake kokalekuarekin zerikusia; adibidez, perpaus nagusian tartekatzen dugunean, normalean ez da oso luzea izaten perpaus nagusiaren haria eteten duen kontzesio perpausa.

Edozein kasutan ere, perpaus nagusiaren tarteko hori ez da kontzesio perpausaren kokagune ohikoena. Gainerako bi kokaguneak dira ohikoagoak, perpaus nagusiaren aurretik nahiz ondoren. Eta bi horien artean, baldintzazko perpausetan gertatzen denaren antzera, arruntagoa dela esan genezake mendeko perpausa hasieran ematea.

**39.2.2d** Kontzesio perpausetako elementuen **barne hurrenkerari** dagokionez, aditza hainbat lekutan aurkitu daitekeela esan dezakegu. Nolanahi ere, zehaztapen batzuk egin nahi genituzke aditzaren kokalekuari buruz:

1. Euskalkien artean, oro har mendebaldekoetan indar handiagoa duela ematen du aditza bukaeran emateko joerak; ekialdekoetan aditzak mugikorragoa dirudi: atzean bezala, aurrerago ere ager daiteke, baina betiere kontzesio egituraren arabera (adibidez, errazagoa izango da aditza amaieran ematea [perpaus nagusia + *nahiz* ...] gisako egituran).
2. Mendeko perpausa luze samarra denean, bai ekialdean eta bai mendebaldean, aditza oso gutxitan ematen da mendeko perpausaren bukaerako posizioan (adibidez, mendeko perpausaren barnean beste mendeko perpaus bat duelako —osagarri bat normalean—, edo osagai asko edo luzeak dituelako); kontzesio perpausa ezezkoa denean ere arrunt samarra da aditza atzean ez ematea (ezezko partikulak aditza bere arrimura biltzen du)<sup>4</sup>, aditz nagusiaren eskuinetik doanean bereziki.

Ikus ditzagun, hasteko, aditza mendeko perpausaren azken muturrean duten adibide batzuk: [*Gabak etxera baino lehen hartu ninduan arren*], *nere barrua argitan nekarren* (Etxaniz); [*Jokaldi batzuetan dirua haruntza ta honuntza ibili zan arren*], *azkenerako, zaldun gazte beltzeranaren eskuetara jun zan dana* (Barrensorro); *Zure bihotz oroz nahi duzu nere salbamendua, bada nik ere nahi dut, eta [mundu guztia galduko badut ere]*, *horrekin atara behar naiz garaitiar* (Duvoisin).

<sup>4</sup> Bereizketa bat egin nahi dugu, hala ere, egitura biren artean: bitxiagoa gertatzen da ezezko perpausetan *-en arren* menderagailua kontzesio perpausaren aurrealdera ekartzea, *nahiz ...-en* ekartzea baino: a) *Etxera noa [nahiz ez den oraindik umeak oheratzeko ordua]*; b) *Etxera noa [ez den arren oraindik umeak oheratzeko ordua]*.

**39.2.2e** Arestian esan dugun bezala, ez da halakorik gertatzen zenbait kasu jakinetan. Horietako bat dugu kontzesio perpausean mendeko perpaus bat, normalean osagarria, txertatzen den kasua; halakoetan ez ohi da eman bukaerara kontzesio perpauseko aditza. *Ezen askotan gertatuko zaie jende prestuei arratsean ez kausitzea egun hartan bekatuketarik egin dutela, bederen ezagutzaren osorekin, gainerakoan [segur den arren guziek ere, erdi oharkabean bederen, asko huts egiten dugula egun oroz, jaundone Jakua apostoluak dioen bezala]* (Duhalde); *Ai nola zu hunen urrun zauden, [dakizun arren Jainkoa zeinen den gozoz bethea]* (Duvoisin). Gauza bera gertatzen da kontzesio perpausa beste arrazoi batzuegatik denean luzea: *Eta halarik ere han berean egotu zen, [nahiz bazuen egun guziz penitentzia bat ainitz pairarazten ziona: beti eta beti jendez inguratua izatea]* (Joanategi).

**39.2.2f** Ezezko perpausetan ere, lehen esan dugun bezala, ohikoa da aditza mendeko perpausaren aurrealdean kokatzea, gehiagotan Iparraldeko testuetan eta *nahiz ...-en* egituraren kasuan, *-en arren* menderagailuaren kasuan baino: *Izurritea sartzen denean herri batean, [ez dituen arren hil-arazten guziak], bat-bedera beldur da bere buruarentzat* (Larregi); *Zerua bera ilhun da, [nahiz ez den lanhorik]* (J. Etxepare).

### **39.2.3. Ere kontzesio perpausetan eta diskurtso markatzaile aurkaritzakoetan**

#### **39.2.3.1. Ere kontzesio perpausetan**

**39.2.3.1a** Kontzesio perpaus mota askok partekatzen duten ezaugarria da *ere* diskurtso markatzaileak lagunduta gauzatzea. Kontzesiozkoen molde gehientzuetan aurkitu dezakegu diskurtso markatzaile hori; kontzesio balioa adierazteko duen garrantzia erakusten du horrek; batzuetan hark bideratzen du kontzesio balioa perpausetan, nahitaezkoa delarik halakoetan kontzesio perpausa osatzeko: adibidez, *ba-... ere*, *-tuta ere*, *-tuz gero ere* egituretan. Beste batzuetan badirudi kontzesio balioa indartzeko edo ziurtatzeko erabiltzen dela;

alegia, *ere* gabe okerra izan gabe ere, kontzesio balioa bermatuko edo indartuko luke diskurtso markatzaile horrek: esate baterako, ...-*ela ere*, ...-*elarik ere*, ...-*en arren ere*, ...-*tuagatik ere*.

*Ere*-ri esker agerian geratzen dira kontzesio perpausen bi ezaugarri: emendioa eta auresuposizioa. Egoera jakin bati (dela baldintza, dela modua) beste egoera edo baldintza bat eransten zaio —emendioa—, normalean beste muturrekoa, eta, erantsitako egoera hori gorabehera, ez da betetzen aurretik uste izandako ondorioa —auresuposizioa—.

**39.2.3.1b** Hori guztia *ere* markatzailearen ezaugarri batetik dator, emendio hutsa egiteko ez ezik beste zerbaitetarako ere balio baitu: emendio hori egiten dugunean enfasi berezia emateko perpausari. Beste era batera esanda, *ere* daraman egitura batek bi esanahi izan ditzake, egoera bakoitzaren arabera interpreta daitezkeenak: emendio hutsa egiten dugu, edo interpretazio enfatikoa ematen dugu.

**39.2.3.1c** Bigarren interpretazio horretan ikusten dugu *ere*-ren ezaugarri berezi hori; ondoren *ere* daraman edozein perpausetik kontzesio balioa izan dezake, testuinguru jakin batean. Adibidez, perpaus hau hartzen badugu, *Hori Mikelek ere egin dezake*, emendio hutsa izan daiteke (beste norbaitek bai, baina Mikelek ere bai), edo balio enfatikoa izan dezake: hain erraza izanik, adibidez, Mikelek ere, bere trakestasunean, egin dezake. Hori bezalako egitura genuke honako hau ere: *Den pertsonarik dorpeenak ere egin dezake hain lan ederra*.

Kontzesio balioa luke betiere lehen atalean aipatu ditugun baldintzak betetzen badira: aditzean adierazten den ekintza gertatzeko oztopoa adierazi behar da; desegokia litzateke honako perpaus hau: *#Den pertsonarik trebeenak ere egin dezake hain lan ederra*.

Hona, azkenik, *ere* har dezaketen kontzesio egiturak: *ba-... ere*, ...-(*e*)*n arren ere*, ...-*tuagatik ere*, *nornahi ere* ...-(*e*)*n*, ...-*tuz gero ere*, ...-(*e*)*la ere*, ...-(*e*)*larik ere*, ...-*tuta ere*, *zer gerta ere*, *nor ere bait-...*, ...-*turik ere*, ...-*tzekotan ere*, ...-*tzekotz ere*.

### 39.2.3.2. Ere diskurtso markatzaile aurkaritzakoetan

**39.2.3.2a** Lehenengo atalean, harremanetan jarri ditugu kontzesio perpausen bidezko menderakuntza eta aurkaritzako diskurtso markatzaileak erabiliz egiten den perpausen arteko lotura semantikoa. Formari dagokionez ere badute antzekotasun handia bi moldeek. Aurkaritza adierazten duten diskurtso markatzaileekin kontzesiozkoetan gertatzen den gauza bertsua gertatzen da; horietan ere, erruz erabiltzen da *ere*. Moduzko zenbait adverbiori (kontzesio perpausetan, moduzko *perpauusak* lirateke haien parekoak) *ere* gehitzen zaie aurkaritzako diskurtso markatzaile bihurtzeko. Funtsean gauza bera adierazteko bi modu dira: menderakuntzaren kasuan perpausen bidez (aditz jokatua nahiz jokatugabea dutenak), eta aurkaritzako diskurtso markatzaileen kasuan perpaus horiek ordezkatzan dituzten elementu anaforikoen bidez. Guztiei (perpau sei eta anaforei) *ere* erantsiz lortuko dugu balio bera, bai perpausean, eta bai hari erreferentzia egiten dion anaforan: hurrenez hurren, esaten denetik ateratzen dugun ondorioaren kontrakoa adieraziz perpaus nagusian, eta diskurtso markatzailearen bidez lotutako perpauetatik bigarreanean.

*Diru asko irabazten du + -elarik* → Perpaus adberbiala

[*Diru asko irabazten du elarik*]<sub>p</sub> *ere, ez da zoriontsua.*

[*Diru asko irabazita*]<sub>p</sub> *ere, ez da zoriontsua.*

*Hala* → Adberbio anaforikoa (aurreko perpausari erreferentzia egiten diona)

*Diru asko irabazten du. [Hala (= diru asko irabazten du elarik)]<sub>Adb</sub> ere, ez da zoriontsua.*

**39.2.3.2b** Kontzesiozko moldeetan egin dugun gauza bera egin dezakegu, hortaz, diskurtso markatzaileen kasuan ere; elementu komuna *ere* da, aztertzen ari garen balioan hain garrantzitsua dena. Batzuetan ezinbestekoa izango da, eta beste batzuetan lagungarria, osagarria: *hala ere, hala eta guztiz ere, guztiarekin ere, halarik ere, nolana ere, badarik ere, halaz ere, edozein kasutan ere, horratik ere, halatan ere, edonola ere...*



**39.2.3.2c** Halaber, aurkaritzako diskurtso markatzaileen eta kontzesio perpausen arteko harreman estuaren berri ematen digute jatorriz kontzesio egiturak ziren batzuek ere, zeinak gero, lexikalizazio prozesu baten ondorioz, aurkaritzako diskurtso markatzaile bihurtu baitira: EGLU-III liburukian aztertu genituen halakoak; honako hauek, besteak beste: *dena dela*, *nolanahi den*, *nolanahi ere*, *edonola ere*, *edozein modutan ere*, *edozelan bere* eta abar.

Horietan, lehenbizikoak kontzesiozko molde honetan du jatorria: *datorrena datorrela* gisako egitura erlatibodunetan: [aditza<sub>i</sub> + *-en* erlatiboa + (erlatiboaren burua) + aditza<sub>i</sub> + *-ela*]. Gainerakoek: [galdetzaile zehaztugabea (*edo* + galdetzailea / galdetzailea + *nahi*) + (*ere*) + aditza + *-elal-en*]; alegia, *zernahi (ere) den* eta *edozer (ere) den* motakoetan.

#### 39.2.4. Aurkaritza diskurtso markatzaileak kontzesio perpausen indargarri

**39.2.4a** Kontzesiozkoen eta aurkaritzako diskurtso markatzaileen arteko harremana kapitulu honen lehen atalean aipatu dugu (§ 39.1.3). Han genioen mendeko kontzesio perpausak berdin-berdin eman zitezkeela aurkaritzako juntagailuen bidez ere. Are gehiago diogu orain, kontzesiozko menderakuntza erabiltzen denean ere, aurkaritzako diskurtso markatzaileak erabil daitezke perpaus nagusian: balio beraren bi gauzatze, bata bestearen osagarri eta indargarri. Edozein kasutan ere, bietako batekin nahikoa litzateke, eta hautazkoa da biak batera erabiltzea:

*Ez dut diru askorik. Hala ere, Vietnamera joango naiz oporretan.*

*Nahiz diru askorik ez dudan, Vietnamera joango naiz oporretan.*

*Nahiz diru askorik ez dudan, hala ere, Vietnamera joango naiz oporretan.*

**39.2.4b** Hona hemen literatura tradizioko adibide gehiago: *Nahiz ez den errex iguzkiari so egoitea, begiak itsutu gabe, halere, kapeluaren azpitik eta herrien artetik behatuz ageri zen errexki* (Hiriart-Urruti); *Eta Pierrisek erran ziezon, baldin guziak eskandaliza baditez ere, ni ez ordea* (Leizarraga).

### 39.2.5. Aditzaren elipsia

**39.2.5a** Kontzesio perpausetan, ohikoa izaten da mendeko perpauseko aditza isiltzea. Isildutako aditz hori berreskuratzen erraza denean gertatzen da normalean: perpaus nagusiko aditz berbera delako, edo, bestela, *izan* aditza edo, testuinguruak lagunduta, hori bezain berreskuraerraza den aditz bat delako.

**39.2.5b** Aditzaren elisioa gertatzen da nahitaez aditza euskarrizat behar ez duen kontzesio gailuren bat daramaten moldeetan: adibidez, *baina* enklitikoa, *nahiz* marka eta *arren* postposizioa; halakoetan, aditzaren elipsiak menderagailuarena dakar berekin, baina geratzen da artean perpausaren kontzesio baliorearen berri emango duen elementu bat, marka (*nahiz*), nolabaiteko menderagailua ere baden juntagailua (*baina*) edo postposizioa (*arren*).

Hona mendeko aditzaren isiltzearen adibide batzuk literatura tradizioetik bilduak: *Abiatzean, anbulantzetako karrosa dirudi gure beribilak*, [*nahiz puska batez ttipiago*] (J. Etxepare); [*Nahiz girixtino hiria*], *hiri galdu bat zen Goa* (Laphitz); [*Nahiz ta gorputzez osasuntsu*], *ez zan luzaro bizi izan, berrogeta bederatzi urtedun hil baitzitzaigun* (Gaztelu); [*Egun gitxi arren*], *nekatu naz oro* (Lauaxeta); *Badakit nik*, [*zu bestean ez arren*], *nahiko biharginak dozu-zana semeak* (F. Bilbao); *Neure gogoz eta ahal ixan banau, geure-geure esakunak baino ez nittuzan nik ezarriko erderazkuen ordiakotzat*; [*baina neure aleginak arren*], *batzuren batzuk baino ezin ixan dodaz imiñi* (Otxolua); *Gizajoak*, [*berandutxo baiña*], [...], *leziño polit bat hartu eban egun hatan* (F. Bilbao).

### 39.2.6. Zer aditz motarekin osa daitezkeen kontzesio perpausak

**39.2.6a** Kontzesio perpausetan, bereizketa nagusia hau da: *aditz jokatuak / jokatugabeak*. Aditz jokatudunak nahiz jokatugabedunak izan daitezke kontzesio perpausak; batzuk bezainbat erabiliak besteak. Batzuetan distribuzioa dialektala (edo geografikoa) dugu; adibidez, *arren* eta *nahiz*-en bidez osatutakoen artean, Hegoaldean jokatugabeak dira nagusi (*nahiz eta ...-en* oso gutxi dira;

aditz jokatua + ...-en + arren ere ez dira asko). Ekialdeko testuetan, berriz, aditz jokatua duten egituren nagusitasuna erabatekoa da bi kasu horietan.

Beste zenbait kasutan, ez dago euskalkikako distribuziorik: bi adizkien artetik bakarra erabiltzen da euskalki guztietan. Adibidez, jokatugabea da erabat nagusi (eta bakarra, gaur egun bederen) -*gatik* postposizioaren bidez osatzen den moldean, ekialdean zein mendebaldean: (*ni*) *izanagatik* ... / \**naizenagatik*... Oinarrian baldintza perpausak dituztenetan ere, ohikoagoa da aditz jokatuduna jokatugabeduna baino: *etortzen bada ere* / *etorritz gero ere*. Beste egitura batzuetan, azkenik, aditz jokatuduna bakarrik erabiltzen da: *zernahi ere* + aditz jokatua (*den, izan dadin*...); *nor (ere)* + aditz jokatua (*den, baita*...); *datorrena datorrela* gisakoak...

**39.2.6b** Aditzaren moduari dagokionez, indikatiboko adizkiek dute nagusitasuna kontzesio perpausetan: *Egia garratz eta mergatza dan arren*, *egia beti* (Eguzkitza); *Ezagutu zaitut, nahiz ez zintudan behin ere ikhusi* (Laphitz); *Biziten hasia delarik ere, non dugu Larramendiren izena eta omena?* (Mitxelena).

Subjuntibokoak ere erabili izan dira, ordea, zenbait kasutan. Adibidez, *edozein* edo *nornahi* izenordain zehaztugabeak dituzten egituretan (*nornahi izan dadin*...): *Zernahi izan dadin, Mediterranea deitzen duten itsasoak holako erresumarik ez du bere uhartzean, hedoiezko erresumarik ez bertzerik* (J. Etxepare).

### 39.2.7. Kontzesio gailuen metatzea

**39.2.7a** Gorago aipatu dugun bezala, eta aldaera estilistiko gisa, kontzesio balioa indartzeko-edo, arrunt samarra da halako perpausetan menderakuntzako gailuen (diskurtso markatzaileen eta menderagailuen) metatzea.

Jakina, hona ekarri ditugun metatzeen onargarritasun maila ere ez da bera eta erabatekoa: batzuk erabat onargarriak gertatzen zaizkigu; beste batzuk, gutxiago, edo, are gehiago, ez genituzke gomendatu ere egingo.

**39.2.7b** *-tu arren + ere*. Gorago aipatu dugu *ere*-k paper garrantzitsua jokatzen duela kontzesio perpausetan; egitura berez kontzesiozkoei ere erants

dakieke zenbaitetan. Hona adibide batzuk: *Danik aberats eta altsubena ixan arren be*, ezin daikela iñok esan iñoren bihar-ixanik eztauala iñoiz ixango (Otxolua); *Aita neuk bere ezin eginda sinistu, ikusi arren bere* dudan naz aurkitu (Arrese Beitia); *Gaia berez oso ona izan arren ere*, era arrunt gordin eta nabarmenean azaltzen digulako eragotzi lezaiguke (M. Atxaga).

**39.2.7c** *-tuagatik + ere*. *Eta nehorik erranagatik ere ezetz*, etzaitzula lagunduko, *eztuzu sinhesten* (Axular); *Monicak, jatorduaz kanpora egarriak itotzen zegoela esanagatik ere*, *ura ukatzen zion* (Kardaberaz).

**39.2.7d** *nahiz (eta) + -en arren*. Gaur egungo erabilera jasoan eta idatzian nekez onartuko genukeen arren, arrunt samarra da erredundantzia mota hau, batez ere xx. mendeko testu herrikoietan eta bertso eta neurtitzetan; zenbaitetan, dirudienez, bertsoa osatzeko beharrezkoak diren silabak eskuratzeko edo. Aditz jokatudunekin nahiz jokatugabeekin gertatzen da hori. Hona hemen adibide batzuk: *Nahiz haunditu eta gaur kale-etxe bezela jarria dagoan arren*, *garai hartan etxe koxkor bat zan* (S. Salaberria); *Pertsonen eta animalien bizitzarako derrigorrezkoa degu ura, nahiz eta merezi duen ixtimaziorik ematen ez diogun arren* (Lasarte); *Zugatz zahar bati nahiz-ta adarrak hasi arren igartuten, ekaitz artian ibilia da bere fruituak emoten* (B. Enbeita).

**39.2.7e** *nahiz eta + ba-... ere*. Era honetako adibideak ere badira literatura tradizioan, baina ez lukete lekurik gaur egungo erabileran. *Pagatu beharko didazute bai, nahiz ta Briareo erraldoiaren besoak baino ugariagoak mugitzen badituzute ere* (Berrondo); *Neuk aginduten dautzut etzarala beragaz ezkonduko, nahiz ta galerazoteko ludi guztija erre ta kiskaldu bihar balitz be* (Kirikiño).

### 39.3. Kontzesio egiturak

**39.3a** Orain arteko bi ataletan kontzesioaren inguruko azalpen orokorrak eman ditugu. Hirugarren atal honetan, kontzesio egitura bakoitza aztertuko dugu banan-banan, eta bakoitzaren berezko ezaugarrien berri emango dugu: besteak beste, egituraren antolaera, formazko aldaerak eta distribuzio geografikoa aztertuko ditugu.

Kapitulu honen bigarren atalean (§ 39.2.1b) eman ditugun adibideen hurrenkerrari jarraituko diogu atal honetan: kasu bakoitzean erabiltzen diren marken, postposizioen edo izenordainen arabera egingo ditugu multzo nagusiak; alegia, kontzesio gailuen arabera, gehien erabiltzen direnetatik gutxien erabiltzen direnetara joanez: *nahiz* marka dutenak, *arren* postposiziodunak, *-gatik* postposizioa darabiltenak, *baina* enklitikoa... eta abar. Horietako bakoitzaren barruan, aukera guztiak aztertuko ditugu, menderagailu bat baino gehiago erabil baitaiteke talde gehientsuenetan; menderagailu horien araberrako azpisailkapenak egingo ditugu multzo nagusietan.

**39.3b** Sailkapena bestela ere egin zitekeen; adibidez, egitura bakoitzean erabiltzen den menderagailuen arabera, eta atal bakoitzaren barruan, marken eta postposizioen arabera ordenatu azpiatalak. Ez dugu sailkapen mota hori erabili: batetik, kontzesio balioaren ezaugarri formal nagusiak marka, postposizio, diskurtso markatzaile, izenordain eta abar horiek direla iruditzen zaigulako, eta ez menderagailuak. Menderagailuak, perpaus mota hauetan, menderakuntza bideratzeko elementuak dira batez ere, txertatzea ahalbidetzeko, eta ez kontzesio balioa emateko (eta esan dugu perpaus mota hau bereizteko irizpide nagusia logiko-semantikoa dela). Bestetik, menderagailuen araberrako sailkapena eginez gero, sakabanaturik geratuko lirarteke nahiko antzekoak edo hurbilekoak diren egiturak (menderagailu desberdina izan arren marka edo postposizio bera dutenak). Azkenik, orain arteko gramatikan ere hala egin izan delako, tradizio horri jarraituko diogu geuk ere.

### 39.3.1. *Nahiz* markaren bidez eratutako egiturak

**39.3.1a** *Nahiz* markaren honako aldaera hauek behintzat erabili izan dira literatura tradizioan kontzesioa adierazteko perpausetan: *nahiz* (hemendik aurrera gainerako guztiak ordezkatzeko erabiliko duguna), *na(h)iz eta*, *na(h)iz ta*, *na(h)iz da*, *na(h)i ta*, *nahi bada*...

Guztiak dira *nahi izan* aditzaren erabilera gramatikalizatuak; gramatikalizatuak diren bezala beste kontzesio molde batean erabiltzen diren oinarri bereko

izenordain zehaztugabe batzuk: *nornahi*, *zernahi* eta abar (§ 39.3.11). Badirudi, beraz, paper berezia jokatzen duela *nahi izan* aditzak kontzesioan.

Goiko aldaera horien artean, *eta* daramatenak ikusten ditugu: kasu horietan espletibo hutsa da *eta* (*nahiz eta...*). Beste diskurtso markatzaile eta juntagailu batzuekin ere erabiltzen da balio berezirik ez duen *eta* hori: *baizik eta*, *harik eta*, *zenbat eta*, *zeren eta...*

**39.3.1b** Markaren beraren formari gagozkiola, batzuetan instrumentalaren *-z* markarik gabe ere erabiltzen da (*na(h)i ta*). *Nahi bada*, berriz, zubererazko eta erronkarierazko testuetan aurkitzen da kontzesioko diskurtso markatzaile lanetan, *-en* edo *-ela* menderagailudun aditza lagun duela, hurrenez hurren.

**39.3.1c** Mendeko perpausaren barne hurrenkerari dagokionez, *nahiz* markagailua kontzesio perpausaren aurreko muturrean doa ia sistematikoki euskalki guztietan; egitura baliagarria izango zaigu, beraz, hasiera-hasieratik kontzesio balioaren berri eman nahi dugun kasuetarako: adibidez, mendeko perpaus luzeak ditugunean.

Aditza, berriz, hainbat lekutan eman daiteke mendeko perpausaren, perpaus motaren, haren luze-laburtasunaren eta euskalkiaren arabera (§ 39.2.2).

**39.3.1d** Menderagailuak aipatu ditugunez, azter dezagun orain *nahiz*-en bidez eratzen den kontzesio perpaus batek zein eratako moldeak izan ditzakeen gaur egun. Bat baino gehiago, esan dugunez. Ikus ditzagun eskema honetan:

A) NAHIZ (ETA) ... -TU (ADITZ JOKATUGABEA)
B) NAHIZ ... -EN MENDERAGAILUA (ADITZ JOKATUA)
C) NAHIZ ... Ø (ADITZAREN ELIPSIA)

Lehenbiziko biak dira molde erabilienak:

- [*Nahiz eta diru asko izan*], ez naiz inora joango oporretan.
- [*Nahiz diru asko dudan*], ez naiz inora joango oporretan.

-*TU* partizipioarekiko egiturak mendebaldean erabiltzen dira batez ere (ekialdean ere badira idazle batzuen adibide bakan batzuk: Duvoisin, Elizanburu, Mattin eta Xalbadorrenak).

Ikus ditzagun aditz partizipioarekin osatutakoa moldearen adibide batzuk: *Trumoia hurbil ote zegon iduripenak eman zion, nahiz ta zein aldetatik joko zun ezin igarri* (Etxaide); *Bada aipatu ditudan hitzak ez dira baztertzekoak, nahiz eta erdaratikoak izan* (Mitxelena); *Badira emakume batzuek bidean bilatzen dituzten txotx guztiak etxera eramaten dituztenak, nahiz eta etxean gurdikada egurrak saltzeko euki* (Agirre); *Bada munduan gosez hiltzen denik, nahiz ta janariak izan* (Villasante); *Uriko mutil guztiak ondotxu ekien aldi edo belaun-aldi hartako lorarik usaintsuenak zeintzuk ziran, nahiz ta aberatsak ez izan neskatiok* (Erkiaga).

Aditz jokatuaren gainean eraikitako egitura gutxi erabiltzen da mendebaldeko literatura tradizioan: Orixe, Nemesio Etxaniz, Basarri, Balendin Enbeita, Gabriel Aresti, Manuel Lasarte eta Uztapideren lanetan aurkitu daiteke, besteak beste; alabaina, horietan ere partizipioduna da erabiliagoa.

Ekialdekoa da batez ere aditz jokatuaren gainean eraikitako egitura (ikus EGLU-VI: 244); partizipiodun kasu bakan batzuk badira, hala ere, Duvoisin, Elizanburu, Mattin, Xalbador eta Miranderen lanetan.

Gaur egungo erabilera estandarrean, bi egiturak erabiltzen dira, aditz jokatu eta jokatugabea dutenak.

Aditza isildutako egiturari dagokionez, badira halakoak *nahiz*-ekiko kontzesiozkoetan. Izan ere, gorago esan bezala, aditzaren elipsia arrunt samarra da perpaus mota hauetan. *Huna erregebide-sahetsean, etxe bat dena leiho, biziki luzea, [nahiz askitto apala Ø]* (J. Etxepare); *[Nahiz giristiño hiri Ø], hiri galdu bat zen Goa* (Laphitz); *[Nahiz da harrixa Ø], ez dot galduko nik gaurko erromerixa* (T. Etxebarria).

**39.3.1e** *Nahiz* (*eta*) marka iragarlea mendeko perpausaren hasieran kokatu ohi da: kontzesio molde bakarra da mendeko perpausaren hasieran kontzesio markaren bat duena (gainerakoek atzerago eraman ohi dute kontzesioa adierazteko

gailua, mendeko aditzaren arrimura: *-tu arren, -tuagatik...*). Perpau hasieran kokatuta, kontzesio perpausaren iragarle moduko bat dugu *nahiz (eta)*.

**39.3.1f** Sarri samar ageri dira *nahiz* markagailua duten egituretan molde erredundanteak: hiztun askorentzat zalantzarriak izango dira gutxienez, baztertzeoak ez baldin badira; horren arrazoia kontzesio gailuen bikoiztapena da. Idazle batzuek inoiz erabili izan dituzte, baina baditugu arrazoiak erduzkotzat behintzat ez jotzeko: idazle bakar batek ere ez ditu sistematikoki erabiltzen, eta askotan bertsoak izaten dira (bertsoaren neurria osatu behararren baldintza ere hor dago); bestalde, perpau amaigabeak-edo iruditzen zaizkigu batzuk, anakoluto gisakoak. Ikus ditzagun adibide batzuk: *Ez gera konturatzen / edadez sarritan, / nahiz-ta ikusi arren zar hauek begitan, / begira nola dauden orain inbiritan, / gazte ez gera izango iñor bi alditan* (Uztapide); *Neure bizitza zelangoa dan egiten nua autortu, nahiz-ta gizonak gura ez arren azeria ontzat hartu* (B. Enbeita); *Halaz guztiyaz ere jaten, / gogotikan saia, / nahiz atea egon arren, / izugarri zalla* (JanEd II); *Horregatik, nahiz eta eza-guerarik argitsuenean aukeratuta ere, lokatzean finkatzen dugu oinarria, eta bere gainean eraikitzen dugun guztia berehala erortzen zaigu hauts bihurtuta* (Mitxelena).

Lehendabiziko adibideak bertsoak dira, eta horietan bertsoaren neurria gorde beharrak azaldu dezake kontzesio gailuen erredundantzia. Prosazko adibideak ere baditugu, ordea, eta idazle batenak baino gehiagorenak; ezin da ukatu, beraz, erredundantziatarako joera bat badela halako perpausetan, *nahiz*, esan bezala, gaur egun ez ditugun gomendatzen.

**39.3.1g.** *Nahiz* markadun egituren erabilera distributiboa.

Bada *-ela* menderagailuaren erabilera bat (*-en* menderagailuarena ere badena), orain arteko *nahiz*-dun kontzesio perpausen berdin-berdina ez dena. Kontzesio perpaus batzuetatik hurbil dagoen distribuzio egitura duena da.

Adibidez, nik esaten badut berdin zaidala euria ari duen *nahiz* eguraldi ona den berdin-berdin aterako naizela kalera, ideia hau azaltzeko badira bi modu behintzat: a) *Zernahi eguraldi dela ere, kalera aterako naiz*; b) *Nahiz dela euria, nahiz dela eguzkia, kalera aterako naiz*.



Lehendabiziko moldea aurrerago aztertuko dugu, (§ 39.3.11). Bigarrenari bu-  
ruz ari ginen egitura distributiboa aipatu dugunean: bai kasu batean bai bes-  
tean, kalera aterako naiz. EGLU-III liburukian (17-18) aipatzen genuen bana-  
karitza deitutako juntadura mota hori. Han genioen hitz edo partikularen bat  
errepikatuz gauzatzen zela banakaritza, alborakuntza hutsez edo juntagailu  
baten bidez (*eta*, *edo*, *nahiz*, *zein*) loturik. Juntagailua bera ere izan daiteke  
errepikatzen den partikula (*edo... edo...; nahiz... nahiz...*).

**39.3.1h** Asko dira euskaraz kontzesio balioa adierazteko eskura ditugun  
egitura distributibo edo banakaritzazkoak: errepikatzen den elementuaren  
eta erabiltzen den juntagailuaren arabera, konbinazioak ia kontaezinak dira;  
kasu honetan *nahiz* duten perpausaz ari garenez, horiek dituzten moldeak  
bakarrik bilduko ditugu. Nolanahi ere, § 39.3.9 azpiatalean aztertuko ditugu  
banakaritza molde guztiak. Hona hemen *nahiz* marka duten egitura distribu-  
tiboak:

a) NAHIZ -eLA A NAHIZ -eLA B, + Perpaus Nagusia

Agur eta irri ona / darizuz limuri, / *nahiz* ipar hotza *dala*, / *nahiz dala* sar-  
gori (Gandiaga); *Nahi* txantxetan *zuazala*, *nahi* benetan *zuazala*, bardin  
bardin erreko zaituz hango subak (Astarloa).

b) NAHIZ (DELA) A eta B, + Perpaus Nagusia

Obeditua nahi det nik izan / *nahiz dala* orain *ta* gero (Illarramendi).

c) NAHIZ (DELA) A edo B -eLA, + P. Nagusia

*Nahiz dala* lehenagotik elizakoak hartzen dituztela, *edo* hoiek ezin hartu-  
rik bihotz damu egizkoa *egiten duela*... (ArgiDL).

d) NAHIZ (DELA) A (eta) BERDIN (OROBAT, IGUAL) B, + P. Nagusia

Ez nuen uste zanik / holako jatuna; / *nahiz dala* bixiua / *berdin* da atuna  
(Zepai, in *Uztapide, Lengo Egunak Gogoan*).

e) NAHIZ DEN A NAHIZ (DEN) B, + P. Nagusia

Debotak, aithor dezagun, / hilzeko bat bederak, / *nahiz den* gau, *nahiz*  
egun, / ditugula Bezperak (Argainaratz).

f) NAHIZ -eN A NAHIZ -eN B, + P. Nagusia

Nahiz joan den, nahiz heldu den (Gazteluzar).

g) NAHIZ B- A NAHIZ B, + P. Nagusia

Nahiz plazara joan bedi / nahiz juan iturrira, / nork ez du arreta jartzen / haren ibilira? (Bilintx).

**39.3.1i** Azkenik, aipatu behar dugu *nahiz*-ek balio bat baino gehiago izan ditzakeela; kasu bakoitzean erabiltzen dugun aditzari edo, hobeto esanda, aditzaren formari erreparatzen badiogu, konturatuko gara balio desberdin horietaz: kontzesio balioaz eta hura ez bestelakoez.

Kontzesioaz gain, helburua edo nahia ere adieraz dezake *nahiz*-en bidez osatutako perpausak Iparraldeko testuetan, baina betiere, kontzesio moldeekin konparatuz, aditzean edo *nahiz*-en kokagunean aldaketaren bat duelarik.

Honako adibide hauek, esate baterako, ez dira kontzesiozkoak: *Hetaz ere artha hartzen du, nahiz eta noizpait bederen harenganat itzul ditez-en* (Duhalde); *Eriarena eginez, maltzurki, dena elhe goxo ariko zauzkik nahiz eta hi kontsolatu* (J. B. Etxepare); *Haur bat iduri zuen bethi zukre murtxatzen ari nahiz eta bere gorputza azkartu* (J. B. Etxepare); *Gero, lanerat itzultzen da xixtuetan, bazkaria tenoreko nahizik moldatu* (Barbier); *Bere lagun-er ez nahiz bizkarkin izan* (Laphitz).

Esan bezala, ez dira kontzesiozkoak: guztiak dira helburu edo guraria balioa dutenak (beste euskalki batzuetako *nahirik, nahian* edo *nahi izanik* formek dutena). Esanahiaren aldetik nabarmena da desberdintasuna. Baina formaren aldetik badira desberdintasunak haien eta kontzesio balioa dutenen artean: batetik, Iparraldean ez da ohikoena aditz partizipioa erabiltzea *nahiz* kontzesiozkoetan; bai, ordea, helburuzkoetan<sup>5</sup>; bestetik, subjuntiboko aditzak helburuzkoetan erabiltzen dira, eta ez kontzesiozkoetan; azkenik, aditz partizipioaren

---

<sup>5</sup> Lafittek bere gramatikan (1944) dio, hala ere, ez direla euskararen gramatikara oso ongi egokitzen *nahiz-eta bere aita ikusi* gisako helburuzkoak; hobeto, dio, *bere aita ikusi nahiz*.

ostean ere joan ohi da askotan *nahiz* helburuzkoa (*-tu nahiz*); inoiz ere ez kontzesiozkoa.

Formari buruzko zehaztapen hauetaz gain, desberdintasun nabarmenena da kontzesiozko erabileran *nahi izan* aditza gramatikalizatuagoa dagoela beste erabileran baino. Hau da, helburuzkoetan *nahi izan* aditzaren esanahia esplizituagoa dela.

### 39.3.2. Arren postposizioaren bidez eratutako egiturak

**39.3.2a** *Nahiz* marka mendeko perpausaren hasieran kokatzen dela esan dugu; *arren* postposizioa, berriz, kontzesio perpausaren bukaeran kokatu ohi da normalean. Enklitiko modura erabiltzen da *arren*, eta esanahi askotarikoak ditu euskalkien arabera. Guk kontzesio erabileran aztertuko dugu, hartarako ere erabiltzen baita, aditz baten atzetik lotuz; dakigun bezala, aditz jokatuari lot dakioke (*-en arren*; ikus EGLU-VI: 250), baina baita aditz jokatugabeari ere (*-tu arren*; ikus EGLU-VII: 263).

**39.3.2b** *Arren* postposizioaren aldaerarik ez dago (zenbaitetan *h*-arekin eman izanaz gain); halaxe erabiltzen da euskalki guztietan. Mendeko perpaus osoari bagagozkio, ordea, molde desberdinak aurkitu ditzakegu atal honetan ere, oinarri duen aditzaren forma desberdinen arabera:

- a) Aditz partizipioa + *arren*: *Gertatua gertatu arren, len bezin adiskide arkituko nazu* (Barriola); *Kontuz ibili arren eta juiiziyuan, iñor aberasten ez da ofiziyuan* (Bilintx); *Harrotxo ibili zarie, baia zeuenak badaruazuez, gaztiek eta senduek izan arren* (Kirikiño); *Arnoldo, bere emazteak eta alabeak egiñalak egin arren, ez zetorren bere konortera* (Agirre).
- b) Aditz jokatua + *-en* + *arren*: *Ustez txikia zarean arren ezta zu lango haundirik* (B. Enbeita); *Asmu hekiek guziak, ez diren arren bardinak, oro elkhar iduritsuak dira* (Duvoisin); *Izar dagon arren, illun gorotza da* (Orixe); *Gizon honen izena esan bihar dautsuet, berari atsegin izango etxakon arren: Julian Abando* (Kirikiño).

Aditz partizipioarekiko moldea ia mendebaldeko literaturan bakarrik erabil-  
tzen dela esan daiteke: Iparraldeko adibideak oso bakanak dira; *-en* mendera-  
gailua duen moldea, berriz, orokorra da: ekialdean eta mendebaldean erabil-  
tzen da (nahiz partizipiodunak izan nagusi mendebaldean).

**39.3.2c** Aditzik gabeko egituretan ere erabili izan da *arren* sarri samar;  
batez ere bizkaierazko jardunean. Batzuetan, esanahiz kontzesiotik urrun-  
duz, izenei eta izenondoei atxikirik: *pozarren, lotsarren, Jainkoarren* eta  
abar. Beste batzuetan, aditzaren elipsiaren ondorioz, *ez + arren* egitura arrunt  
samarrean: *Baña, zuek ez arren, izan eban gizajeak nok adarra jo* (F. Bil-  
bao); *Edertasun eta abotsik ez arren, ostera, zeozer onik izan behar eban,*  
*antza* (F. Bilbao).

**39.3.2d** *arren + ere*: *arren* postposizioari *ere* diskurtso markatzailea lotu  
izan zaio, enfasia emateko-edo, zenbait kasutan; batez ere, baina, aditz jokatu-  
gabeko kontzesio perpausetan, mendebaldeko erabileran. Hona adibide ba-  
tzuk: [...] *berak asko eta gazte frenu-gabeak izan arren ere, gertakizuna egi-  
yaz, inguramen guziei ondo begiratu ezkerro, mirari-modutzat euki leikeana* (J.  
I. Arana); *Gaia berez oso ona izan arren ere, era arrunt gordin eta nabarmen-  
ean azaltzen digulako eragotzi lezaiguke* (M. Atxaga); *Tentuan eta arretaz*  
*ibilli arren ere, zenbat ez-behar bide-bazterretan* (M. Atxaga).

**39.3.2e** *Arren*-en erabilerei dagokienez, bestelako balio batzuk izan ditzake  
mendeko perpausak; aditzaren zer formarekin doan eta perpausaren barneko  
ordena zein den, halako balioa izango du:

ADITZ JOKATUAK			
<i>-eN</i>	+	<i>ARREN</i>	KONTZESIOA
<i>ARREN ETA</i>	+	Aditz subjuntiboa	HELBURUA
Aditz Subjunt.	+	<i>ARREN</i>	HELBURUA
ADITZ JOKATUGABEAK			
<i>-TU</i>	+	<i>ARREN</i>	KONTZESIOA
<i>-TZE</i>	+	<i>ARREN</i>	HELBURUA, KAUSA

Zenbait gramatikatan esaten da helburuzko perpaus batzuek (aditz subjuntiboa dutelarik) aurretik iragarleren bat izan dezaketela; horien artean dago aurreko azpiatalean aipatutako *nahiz(ik) eta*; berdintsu, *arren eta* ere: *Arren eta jin dadin...* ekialdekoa da, eta batez ere literarioa dirudi erabilera horrek.

**39.3.2f** Nolanahi ere, mendeko perpausaren hasieran ez ezik (hori da norma-lena) aditzaren ondoren ere joan daiteke *arren* helburuzkoa: *Eskaldun guzia da egun gonbidatzen / Has dadin izpirituz zerbeiten moldatzen, / Yakin dezaten arren gure ondokoek / Nolako gaiak zuzten hekin arbasoek* (Hiribarren). Kasu honetan ez da adierazi nahi ‘nahiz jakin dezaten’, baizik ‘jakin dezaten (amoreगतिक)’, ‘jakiteko’ edo horien antzeko zerbait.

**39.3.2g** Aditz jokatugabeko moldeei dagokienez, oinarritzat partizipioa hartu edo aditz izena hartu, perpausaren balioa aldatu egiten da:

- KONTZESIOA: *-tu arren*. *Amodioa nik ere badut / neskatxa gaztiarentza, / andre bat ona ekarrizten dut / hori izan arren beltza* (Mattin); *Behin batean Alkar gaixotu zitzaion, eta abel-sendalariari deitu arren, ez zan agiri ta ez zan agiri* (G. Mujika).
- HELBURUA/KAUSA: *-tzearren*. *Putz egitiarren pezeta bi? Ez jauna; putz egiten jakitziarren* (T. Etxebarría); *Zuk irago dituzuz esturak, larritasunak eta neke gogorrak, zeure semeak aberats itxitearren* (Iturzaeta); *Bizia emango luke berari ontasuna ekartze-arren* (Barriola); *Akorda zaite, ni etsai hoietatik libratze-arren zure odola ta bizia eman zenduela* (Kardaberaz).

Helburuzko eta kausazko balioa duten halako perpausak dagokien ataletan aztertuko ditugu xehekiago, kapitulu honetan kontzesiozko egituraz ari baikara.

**39.3.2h** Kontzesio perpausa **ezezkoa** denean, bi hurrenkera ditugu aukeran molde honetan ere:

- a) [aditz partizipioa + ez + arren]: mendebaldeko testuetan batez ere. *Gizonik hill ezarren, zaldija ohostu dauena* (Fraí Bartolome); [...] *ta huts eginak ezagutu bihar ditube teologijarik jakin ez arren* (Mogel); *Oraindio beran-*

*du izan ez arren, lehenbailehen jo beharko dute igitaiak gal-zuztarra* (Barrenso).

- b) [ez + aditz partizipioa + arren]: gainerako hizkeretan batez ere. *Baña, hoiek danak Pernandori gertatuak ez izan arren, Pernandoren izena len baño illuntxuagoa gelditzen ote da* (G. Mujika); *Pernando berriz, Salamancara ez joanagatik, ikastola bat zer zan ez jakin ta ere, irakurtzen ikasteko behar zuen erakusle bat ez arkitu arren, beti izango da gure artean go-goangarria, buruan beste askok etzuten argitasunak dizdiz egiten ziolako* (G. Mujika); *Barnez hotzak ez egon arren, ez dira berehala berotu* (Orixe); *Ez uste arren, katua xaguak ito Eibarren* (Garate).

### 39.3.3. -gatik postposizioaren bidez eratuak

**39.3.3a** Motibatiboaren -gatik atzizkia aditz partizipioari lotuz osatzen dira molde honetako perpausak; ugariak dira adibideak literatura tradizioan; betiere, esan bezala, aditz jokaturgabeak baliatuz eratutakoak. Aditz jokatuaren bidez (aditz jokatua + -en + -gatik) eratutako perpausen adibiderik ez da ia literatura tradizioan, eta, baldin bazen, ez da ezagutzen gaur egungo erabileran<sup>6</sup>. Aditz jokaturgabea erabiltzea da -gatik-en bidez kontzesio perpausak eratzeko modu emankor bakarra gaur egun.

Aditzaren zein formari atxikitzen diogun postposizioa (aditz partizipioari edo aditz izenari), horren arabera zentzua aldatzen da. Lehendabiziko formaren bidez kontzesio perpausak lortuko ditugu batez ere (kausazko balioa duela ere erabili izan da zenbaitetan tradizioan); bigarrenaren bidez, kausazkoak edo helburuzkoak. Bietan, -a mugatzailea erabiltzen da.

---

<sup>6</sup> Bakarra aurkitu dugu OEHko corpus osoan (Villasantek *Sintaxis de la oración compuesta* liburuan jasotzen duen bera) eta beste bakar bat XX. mendeko Euskararen Corpus Estatistikoan. Hauek biak besterik ez ditugu jaso: *Baiña har dezaket bigarren bat ere. Zeren oraiño zahar naizenagatik, bizi naiteke gehiago ere* (Axular); *Berhain, ezein ere gizon ez zegoenagatik, hara joan zen* (Krutwig, *Igibaztiaren iphuinak*).

-TUAGATIK → KONTZESIOA / (KAUSA)

*Hankan min hartuagatik, lasterketa guztia osatu zuen.  
Behin eta berriz esanagatik, ez didate kasurik egiten.*

-TZEAGATIK → KAUSA / HELBURUA

*Egia biribilak esateagatik baztertu dute.  
Eskerrik asko bilerara etortzeagatik.  
Sarrerak merkeago lortzeagatik egin ginen bazkide.*

**39.3.3b** Esparru geografiko zabal samarra hartzen du kontzesio egitura honek (mendebaldean eta ekialdean erabiltzen da); badirudi, nolana ere, ez dela asko erabiltzen mendebaldeko testuetan.

Ekar ditzagun hona, handik eta hemendik, tradizioako adibide batzuk: *Zahar gaixtoak, zahartuagatik, badu gogoa, indarra zaika falta* (Axular); *Larrugarrian ibilliagatik, ez ziran batere lotsatzen* (Ubillos); *Kanpoz pobre ta urri-karri ta umil agertuagatik, iduki lezake horrek barruna uste baino aberatsago ta harroagoa* (Beobide); *Emoidazuez arren bakotxak luma batzuk; jaioko jatzuez barrijak, ta ez jatzube igarriko gitxi batzuk kendubagaiti* (Mogel); *Pixka batian ez naiz ahaztuko / sartuagatik lurpian, / nere aitamenak izango dira / beste larogei urtian* (Txirrita); *Jendea plazan egonagatik / Prantzesari itxogiñez, / artasoroan etzanda ura / bapo siesta egiñez* (Txirrita); *Guzurretan iñok hartuagaitik etziran lotsatuten* (Agirre).

**39.3.3c** Amaieran *-an* atzizki espletiboa ere erantsi izan zaio *-tuagatik* menderagailuari erdialdeko euskaran: *Arrantzale jendia beti dabil justu, / saiatubagaitikan ezin aberastu* (Arrantzaleen bizitza); *Apaiz gizajoak, bera laguntasun premian arkituagaitikan, lagundu eta animatutzen zuan bere iloba* (Apaolaza).

**39.3.3d** Adibideetan ikusten den bezala, aldaera desberdinetan aurkitu dezakegu postposizio hau: *-gaitik, -gaittik, -gaiti, -gaitikan...*

**39.3.3e** Egitura honetan ere, badira forma indartuak. Batetik, oso ohikoak dira *ere* diskurtso markatzaileak enfatizatutako kasuak: *Eta nehork erranagatik ere ezetz, etzaitzula lagunduko, eztuzu sinhesten* (Axular); *Hala iruditua-*

*gatik ere, ez naiz aske* (Txillardegi); *Monicak, jatorduaz kanpora egarriak itotzen zegoela esanagatik ere, ura ukatzen zion* (Kardaberaz).

Bestetik, baditugu perpaus nagusian aurkaritzako diskurtso markatzaile bat txertatuta agertzen diren kasuak ere: *hargatik, ordea eta abar. Jendek izanagatik gutaz erraiteko, hargatik sort herria ez dut mendratuko* (Xalbador).

**39.3.3f** Bi eratarata eman daiteke ezezko perpausa, beste moldeetan bezala.

a) [aditz partizipioa + *ez* + *-agatik*]

Lehendabiziko moldeak *ez* partikula aditz partizipioaren eta postposizioaren artean kokatua darama: *Zuk ezer ekarri ezagatik, mahaian beti jarri dizut eguneroko ogia* (Urruzuno).

b) [*ez* + aditz partizipioa + *-agatik*]

Bigarren hau da arruntena; honek aditzaren aurretik darama ezezko partikula: *ez egonagatik, ez joanagatik eta abar. Berak ez izanagatik ere oro gure erlisione berekoek, eder eta ohoragarri zaizkote elizan eta kanpoan gure Fedeaz ematen ditugun ageri guztiak* (Zaldubi).

**39.3.3g** Kontzesiozkoak ez diren *-gatik* postposizioa duten molde batzuk ere badira, eta zerbait gaineratuko dugu haietat.

Aditz partizipioari lotuta batez ere kontzesio balioa duela esan dugu; ez beti, ordea, bai baitira literaturan kausazko balioa dutenak ere<sup>7</sup>. Gaur egungo erabileran, ordea, kontzesio balioa nagusitu da *-gatik* postposizioa duten egituretan, eta bitxia da kausazko balioa duen erabilera. *Eskerrik asko liburu aurkezpen-ra etorri izanagatik*, eta halakoak entzuten dira gaur egun, han eta hemen,

---

<sup>7</sup> Hona kausazko balioa duten adibide batzuk: *Zu nigan ikusi, ta damuz, ta pozez nere bihotz hau urtu bedi: damuz, zure Ontasuna ofendituagatik; eta pozez, gaur niri zuk egin didazun mesede honegatik* (Kardaberaz); *Gazteak, ez handitzen denean, ta ez zahartuagatik, utziko ditu bere gazte ohitura gaiztoak* (Mendiburu); *Eta nola zahartuagatik, hezurak gelditu baitzaizkitzu, hala gelditu zaizkitzu usantza, aztura, eta handik sortzen diren mugidak, abiadurak, eta inklinazino gaixto guztiak ere* (Axular).



baina iruditzen zaigu aspektu burutua markatzeko erabiltzen dela gehiago forma hori, bestela zalantzarik gabe *Eskerrik asko liburu aurkezpena etortzeagatik* erabiliko litzatekeelako.

Aditz izenari ere lot dakioke *-gatik* postposizioa, baina beste balio bat hartzen du halako moldeak: kausa-helburuzkoa (ikus 37-38 kapituluak). Hona pare bat adibide: *Autoa gaizki aparkatzeagatik zigortu naute*; *Eskerrik asko lanean segitzeagatik*.

Badu kasu honek lehenago aztertu dugun *-tu arren* egiturarekin paralelismo-rik; kasu honetan, bestean bezala, mendekoaren balioa aldatu egiten da oinarritzat hartzen duen aditzaren formaren arabera.

<i>ARREN:</i>	- KONTZESIOA:	<i>-tu arren</i>
	- KAUSA/HELBURUA:	<i>-tzearren</i>
<i>-GATIK:</i>	- KONTZESIOA/(KAUSA):	<i>-tuagatik</i>
	- KAUSA/HELBURUA:	<i>-tzeagatik</i>

### 39.3.4. *Baina* enklitikoaren bidez eratuak

**39.3.4a** Kontzesiozkoen kapitulu honen hasieran esan dugu menderakuntza-  
ren bidez nahiz juntaduraren bidez eman zitekeela aurkaritza erlazioaren berri.  
Ekar ditzagun hona hango adibide batzuk:

- *Gaixo dagoen arren, kalera irten da* (MENDERAKUNTZA)
- *Nahiz xentimorik ez duen, ardotarako beti izaten du zerbait* (MENDERAKUNTZA)
- *Gaixo dago, baina kalera irten da* (JUNTADURA)
- *Xentimorik ez du, baina ardotarako beti izaten du zerbait* (JUNTADURA)

**39.3.4b** Esan dugu, halaber, bi egituren arteko erlazio semantikoa hain estua izanik ez dela harritzekoa aurkaritzako juntadura izatea kontzesio egituretako baten jatorria, atal honetan aztergai dugun egituraren jatorria, alegia. Har

dezagun goiko adibideetako bat: *Gaixo dago, baina kalera irten da*. [A, baina B] egitura dugu hor. Egitura hori trukatu egin daiteke, eta [B, A-baina] bihurtu (tarteko pausuan *baina* lehen osagaiari atxikiz [A-baina / B]): *Gaixo dago, baina kalera irten da* → *Gaixo dago-baina, kalera irten da* → *Kalera irten da, gaixo dago-baina*.

Gertatu dena, beraz, izan da *baina* juntagailua, hasiera batean aurretik etenaldia zuena, aurreko osagaiari lotu zaiola (lehenbiziko perpausuko aditzari); ahoskeran (eta idazkeran ere bai) nabarmena da hori: batetik, azentuari dagokionez, aurreko aditzarekin unitate prosodikoa osatzen du *baina*-k; ezin du *baina*-k azentu nagusia hartu; bestetik, etenaldia gertatzen da *baina*-ren ondoren. Kasu batzuetan hurrenkera aldaketa ere gertatzen da. Enklitizazioa esaten zaio gertatu den prozesu horri, *baina*-ren enklitizazioa, klitiko bihurtzea<sup>8</sup>.

**39.3.4c** Distribuzio geografikoari dagokionez, erdialdeko eta mendebaldeko hizkeretan erabiltzen da *baina* enklitikoa, idatzizko jardunean nahiz ahozkoan, eta aldaera hauetan aurkitu daiteke, besteak beste, literatura tradizioan: *baina, baiña, baña, baia, baie, baiño, baño...*

Hona, enklitizazio prozesu horren adibide batzuk: *Kosta yatan baña, azkenian oratu neutxian belarrietatik txarrikume loditxuenari* (F. Bilbao); *Kosta jak baiña, azkenean asmatu dok biziera bardinbako bat* (F. Bilbao); *Marikontze eskallu, txatxala, eskel, petralari ta zuri, biori, arpegiko narrua kenduko deusuet nik, neure atzamarrakaz, lodia daukazue baña* (Agirre).

**39.3.4d** *Baina* enklitikoaren kokapenari dagokionez, gehienetan aditz jokatuen ondoren, hari loturik, joan ohi da (*baina* enklitikoa daraman perpausaren azken muturrean gehienetan); horregatik esan ohi da egitura hauetan juntagailua baino gehiago menderagailua dela, bestelako menderagailuetan gertatzen den bezala aditzari lotu izan zaiolako *baina* enklitikoa (gauza bera gertatzen da *eta* enklitikoarekin kausazko perpausetan); horregatik ari gara

---

<sup>8</sup> Antzeko klitizazio-prozesua gertatzen da *eta* juntagailuarekin. Hura ere juntagailu izatetik kausa-azalpenezko menderagailu izatera pasatzen da: *Haserre nago, eta ez etorri koplekin* → *Haserre nago-eta ez etorri koplekin* → *Ez etorri koplekin, haserre nago eta*.

aztertzen egitura mota hau menderakuntzaren barruan, beste kontzesio menderagailuekin batera.

Gainerako menderagailuekin batera sailkatu dugu, haiek osatzen dituzten perpausen distribuzio sintaktiko bera dutelako *baina* enklitikoaren bidez osatzen direnek. Berdin-berdin eman dezakegu ondorengo informazioa *baina* enklitikoaren bidez nahiz beste kontzesio menderagailuren baten bidez:

- *Gogo handirik ez dudan arren, egingo dut.*
- *Nahiz gogo handirik ez dudan, egingo dut.*
- *Gogo handirik ez dut baina, egingo dut.*
- *Eguzkiak jotzen duen arren, hotz handia egiten du.*
- *Nahiz eguzkiak jotzen duen, hotz handia egiten du.*
- *Hotz handia egiten du, eguzkiak jotzen du baina.*

**39.3.4e** Mendeko perpausak oro har duten mugikortasuna du, gainera, *baina* enklitikoa duen perpausak: berdin ager daitezke, adibidez, perpaus nagusiaren aurretik, ondoren nahiz haren barruan tartekatuta. Hona hemen adibide argigarri batzuk *baina* enklitikoa duen perpausaren mugikortasun horren berri emateko: a) perpaus nagusiaren aurretik: [*Motza ta gauzak esango ditue nigaitik baina*], *ezagututen dot nik zein zer dan ta zetan dabilen* (Agirre); b) perpaus nagusian tartekatuta: *Emazteak ostera, [diru zaletxoa zan baina]*, *ezeban gura bere seme kutuna inoren morroikintzan ikusterik: etzan horretarako hazia* (Agirre); c) perpaus nagusiaren ondoren: *Nik bi andregai izandu ditut, panplonesa ta bilbaina, emandakua hartu iten det [eskian ez nabil baina]* (Txirrita).

Perpaus nagusian tartekatua agertze horrek erakusten du ez duela perpaus juntatu batek duen jokamolde sintaktikoa: *baina* hori perpaus juntatu batzuen arteko gailua balitz (juntagailua balitz), ezin izango litzateke horrela agertu; bi perpaus beregainen artean bakarrik joango litzateke: [A *baina* B]. Kasu honetan, ordea, hau dugu egitura: [B (A *baina*) B]. Lehendabiziko kasuan (juntaduran) A perpausa beregaina da, eta ezin izango da inoiz tartekatu juntatua darman beste perpausarekin (B perpausarekin): perpaus juntatu batek ez du halako mugikortasunik; hala genioen EGLU-IV liburukian (9). Bigarreanean, berriz,

*baina* daraman mendeko perpausa litzateke A hori, mendeko perpaus adberbial asko bezala mugikorra dena.

**39.3.4f** *Baina* enklitikodunetan gertatzen diren ordena aldaketa horiek, gainera, ez dakarte esanahi aldaketarik; perpaus juntatueta gertatzen diren ordena-aldaketek, berriz, EGLU-IV liburukian (9-10) esan genuen bezala, esanahi aldaketa dakarte berekin.

Bi *baina* horien distribuzio desberdinek adierazten dute aztergai dugun egitura honetakoa ez dela juntagailua.

**39.3.4g** Gorago esan dugu *baina* enklitikoak aditz jokatuari lotzen zaiola gehienetan (horren lekuko dira azpiatal honetara bildu ditugun adibide gehienak), aditza non-nahi doala ere. Aditzari lotze hori ez da, hala ere, beti gertatzen: inoiz, beste osagai batzuk tartekatzen dira aditzaren eta partikularen artean (erabilera horretan, menderagailuen jokaeratik zertxobait urruntzen da *baina* enklitikoak: haiek beti doaz aditzari lotuta)<sup>9</sup>.

Menderagailu bete-betea behintzat ez da, beraz; are gutxiago halako perpausetan gertatzen den beste fenomeno bati erreparatzen badiogu: adizki alokutiboak erabiltzen dira *baina* enklitikoak duten perpausetan; mendeko perpaus hutsetan, berriz, ez da halakorik gertatzen (ikus EGLU-IV: 8). Hona adibide pare bat: *Asko ta asko yagozak, mutil, Mezatarako beti nagi aurkitxen diranak, beste gauzetarako bizkorrak ixaten dozak baña* (Kirikiño); *Txakur txikirik be enuekian patrikeran, gaur be asko gehiagorik etxecoat baña* (F. Bilbao)<sup>10</sup>.

Iritziak iritzi, indartsuagoak direlakoan gaude *baina* enklitikoak menderagailuekin lotzen duten argumentuak haietatik bereizten dutenak baino. Juntagai-

---

<sup>9</sup> Gutxitan gertatzen da, dena dela, aditzaren ondoren ez joatea *baina* (aurretik aditza ez beste osagaien bat izatea, alegia). Hona hemen adibide bakan horietako bat: *Artobero, etzan bera haiñ argia ta gauzak ikasten erreztasun handikoa be baña, jatorri onekoa ta guraso begiratu en semea zan, da baekizan Kristiñauak nahi ta nahi ez jakin behar dituan gauza danak, zerbait gehiagogaz* (Agirre).

<sup>10</sup> Hemen ere, gauza bera esan dezakegu *eta*-ri buruz ere: adizki alokutiboekin erabiltzen da menderagailu erabilera horretan: *Hago isilik motel, horiek zorakeriak dituk eta!* (Elhuyar hiztegia).

luen distribuzioaren guztiz bestelakoa du *baina* enklitikoak, eta menderagai-luenaren oso antzekoa du, nahiz ez dituen haien ezaugarri guzti-guztiak.

### 39.3.5. *-tuta ere / -turik ere / -tu gabe ere / -tu ezik ere*

**39.3.5a** Aditz partizipioan oinarritutako mendeko perpaus adberbial batzuei *ere* erantsiz osatzen dira bi egitura hauek, kontzesio egituren artean maiz erabiliak direnak.

*-turik ere* menderagailua ekialdean erabiltzen da batez ere (mendebaldeko idazle batzuek ere erabiltzen dute), eta *-tuta ere*, mendebaldean (bizkaierazko testuetan, *be(re)* forma hartzen du: *-tuta bere*). Erruz erabiltzen dira bi egiturak kontzesioa adierazteko.

**39.3.5b** Ekar ditzagun lehenik eta behin bi moldeen adibide batzuk.

*-tuta ere*: *Hagaitik diño Espiritu Santubak, gaztiak gaztetan hartuten daben bidiari, zahartuta bere ez deusala itxiko* (J. J. Mogel); *Honelanguentzat da kaltetsuba konfesino jenerala; bada hamar eginda bere, bihurtuko dira lehengo bildurretara, ta kenduko ditubalako ustian, gehituko jakoz* (Mogel); *Guztiak bat eginda bere, ezin konjurau legije endemoniadu bat* (Frai Bartolome); *Baina gabak ordubak emonda bere, ez dira palta, ez plazaan, ta ez bideetan neskaak, eta mutilak* (Frai Bartolome); *Zur egonda ere beti zorigaitzak atzematen gaitu* (Orixe); *Egiñalak eginda ere, ezin astoa mogitu* (G. Mujika); *Hoiek guziyak adituta ere andria etzan jaikitzen* (Txirrita); *Seiretan mugituta ere badiñagu aski denbora* (Etxaide); *Eskua moztuta ere axeriak axeri gelditzen dira; hankaezurak hausita ere otsoak beti otso* (Agirre).

*-turik ere*: *Hitz laburtxuak izanik ere, horiek jakin bihar dira noiz ta nola esan* (Beobide); *Zure lana ederki eginik ere, ez dautzute eskerrik izanen* (Lafitte); *Hogoi, hamabortz, hamar, bia, bat, batere; / Bihi bat ez ageri, bilhaturik ere* (Hiribarren); *Bainan luzaturik ere, herioa bethi heldu da* (Hiribarren); *Bizia nahi duzun beste luzaturik ere, beti iruditzen zaigula labur* (Villasante);

Axalean zertxobait aldaturik ere, bizimodua, uste, iritzi eta sinesteak ohiturazkoak ziren, gurasoengandik zetozenak (Mitxelena).

**39.3.5c** Esaldi hauek moduzko, baldintzazko eta denborazko ñabardurak ere izan ditzakete.

– Nola egiten dira mendeko perpaus hauen ezezko formak? Aukera bat baino gehiago dago hemen ere: hiru molde erabil daitezke, adibide hauetan ikusiko dugun bezala:

- [ez ...-tuta ere], [ez ...-turik ere]

*Hain ona ez izanda ere, lur gose xamarra izan arren, ondo bakandua ta iñausia izan bada, hektareako hamar metro gutxienez ematen ditu urtean* (Munita); *Baiña ez jakinda ere, une bakoitzeko sentipenak erakusten dio zer egin behar duen* (Villasante). // *Hamasei hilabethetan aldatzen dira bazterreko hortzak, eta hekien ordainak, ez izanik ere hain xuri, hazkarragoak dira* (Duvoisin); *Gelan dagoen nor-nahik ikusiko du, mediumtasun izpirik ez izanik ere* (Mirande).

- [-tu ezta ere], [-tu ezik ere]

*Bildur naiz, ondore hori, zuek nahi izan ezta ere, ez ote duten zuen ikasleek aterako* (Villasante); *Goi ta beko maizterrak, oso aberatsak izan ezta ere, bai ongixxo jaiok, txurikerietan ta gezur goxoak esaten aski ohituak, arpegiz arpegi Don Juan deituarren, gero atzetik, Juan Amots esaten zioten* (Agirre). // *Hobe lizake, noski, legeok zuhur ba'lira: izan ezik ere, bete beharrak genituzke, haren ustez, matxinadarik sor eztedin* (Zaitegi); *Esteberen anaiak egin-aitorra aintzakotzat hartu ezik ere laguna salbatu beharrez, beste artzaien aitorrak ontzat jo beharrekoak ziran* (Etxaide).

- [-tu gabe ere]

*Emakumeai urteak galdetzea itsusia da. Galdetu gabe ere badakizkitzu zenbat ditudan* (Barriola); *Haragia jan gabe ere, jasoko dizkiat bai nik hemengo zaku habek* (S. Salaberria); *Ni ganik ihes, deus gaizkirik egin ez dudalarik, deusetan kondenatua izan gabe ere* (Larzabal); *Entzunen zutela zioten guziek, jakin gabe ere zeren galdatzerat zohan* (Laphitz).

### 39.3.6. (Baldin) *ba-... ere, -tuz gero ere: baldintzakoetan oinarrituak*

**39.3.6a** Kapitulu honen lehen atalean, aipatu dugu baldintza perpausetako protasiari *ere* gehituz kontzesio egitura bat era daitekeela (lehenago ere aipatu genuen, EGLU-VII liburukian: 186-187)<sup>11</sup>. Normalean, aditz jokatudunekin gertatzen da hori gehiago jokatugabeekin baino. Lehendabizikoa bigarrena baino arruntagoa da:

– *Lagunek eskatzen badidate ere, ez naiz etxetik aterako.*

– *Lagunek eskatuz gero ere, ez naiz etxetik aterako.*

Beste kontzesio egitura batzuetan, *-ela/-elarik* eta *-tuta/-turik* menderagailuak dituztenetan, moduzko perpausari *ere* eransten diogun bezala, kasu honetan baldintza perpaus bati atxikitzen diogu. Baldintza horretan esaten dena gorabehera, protasitik ondorioztatzen denaren kontrakoa adieraziko du perpaus nagusiak.

Nolanahi ere, bigarren atalean aipatu dugun puntu bat gogorarazi nahi genuke hemen; han esaten genuen edozein perpaus baldintzazko ezin zitekeela kontzesio perpaus bilakatu *ere* hartu ondoren. Zerikusia du horrek, noski, kontzesio perpaussek galdegai izateko duten ezintasunarekin. Hala, galdegai ez diren baldintza perpausak bakarrik bilakatu ahal izango ditugu kontzesiozko, mintzagai direnak.

**39.3.6b** *Baldin* marka baldintza perpausetan erabiltzen den bezala, era honetako kontzesio perpausetan ere erabil daiteke. Haietan bezala, hautazko elementua da (ikus 34. kapitulua).

<sup>11</sup> Hona zer genioen han: “Ildo horretan, kontuan izan behar da baldintzazkoei *ERE* lokailua eranstea askotan kontzesiozko irakurketa lortzen dela: horrela gertatzen zen aditz jokatudunekin (*BA-... ERE*), eta horrela gertatzen da sarritan baldintzazko batzuekin (bereziki, *-TUZ GERO, -TU EZIK, -TU EZEAN* eta *-TZERA(T)*):

- (4) a) *Txapelketa irabaziz gero ere, herritarrak ez dira pozutuko.*  
 b) *Etxeko lanak egin ezik ere, eskolan emaitza onak lortzen ditu.*  
 c) *Lanak gaur amaitu ezean ere, bihar jai hartuko du.*  
 d) *Ondorioak aurretik jakitera ere, berdin jokatuko nuen”.*

*Baldin* hori mendeko perpausaren hasieran koka daiteke, aditzetik bereiz, edo aditzari aurretik loturik. Hona *baldin*-en mugikortasuna erakusten duten bi adibide: *Bainan ez; baldin jaun done Inaziok erakutsi izan badu-ere saila, ez da gutiago egia orhea eta orhapena, guziak aita Kardaberazi zor diotzagula* (Duvoisin); *Bada, ez balin-banaki-ere ala aphaltura, ala hanpurus naizen, ariarik aski banuke hanpurus naizela uste izateko* (Duvoisin).

Mendeko perpaus luzeak diren kasuetarako gerta daiteke baliagarria *baldin*-en aurreko muturreko kokagune hori, Lafittek berak dioen moduan (1944: § 784). Adibidez, honako kasu honetan: *Eta baldin ungiz oraino baino rigoroskiago eta gogorkiago punitu nahi bagintuk-ere: eta plaga baten lekhuaren ehun reze-bitzeko gintuen orduan-ere: eta are berze orduz heure Israieleko populuaren faltan korrejitzean usatu ukhan duan maledikziorik guziak gure gainera eror balitez-ere, konfesatzen eta kontradikziorik batre gabe aithortzen diagu zuzenez eta mereziz gintukeela* (Leizarraga).

*Ba-... ere* kontzesio egituraren *ere*-k mendeko aditz jokatuari jarraitzen dio normalean, ez beti, ordea: *Ezen berak ez badu maite ere, ez du jasango berea zelako gizona beste batena izatea* (Mirande); *Io badeza dardoaz ere gorputzaren erditik* (Etxepare).

**39.3.6c** *Ba-... ere* egituraren klise bihurtutako erabilera bat ere badugu: aditz komunztadurarik onartzen ez duena eta ahozko hizkuntzan behintzat *ba-... ere* kontzesiozko arruntak ez bezala ahoskatzen dena (ikus EGLU-III: 76-78). Erabilera zurruna du, finkoa, murrizta; beti adizki berarekin eta forma berean. Diskurtso markatzailea da gehiago kontzesio egitura emankorra baino.

– Hori *badare* egin behar dugu.

– Egizu hori *badare*.

– Egin itzazu horiek *badare*.

– \*Egin itzazu horiek *badira ere*.

**39.3.6d** Bestalde, *ere*-rik gabeko *ba*-dun egitura batzuek, zuzentasunaren mugan betiere, kontzesio balioa izan dezakete: ez da berez kontzesiozko forma, baina batzuetan, testuinguruak lagundurik, erabil daiteke kontzesioa adie-



razteko: *Triste bazaude, ez duzu ezagun; Joxe euskaraz ondo mintzatzen bada, haren anaia ez da batere ondo moldatzen.*

Horren antzekoa litzateke gaur egun ugaltzen ari zaigun erabilera bat; inongo aurkaritzarik izan gabe ere, kontzesiozko moldeetara jotzen da berez juntadura bidez egin zitekeen kasu batzuetan: *Errealak galdu badu ere, Osasunak irabazi egin du.*

**39.3.6e** Bukatzeko, aipatu nahi genuke *ba-... ere* duten egitura batzuk ez direla, beste kasu batzuetan gertatzen den bezala, nahitaez kontzesiozkoak. Adibidez, honako hauek kontzesio balioa baino gehiago dute baldintzazkoa: *Etxera noa, norbait etorri bada ere; Etxea garbi eduki behar dut, norbait badator ere; Norbaitek preguntau ezkeru be lotsagarria da zer erantzun ez jakitzia* (San Martin); *Beha ginauden, guardak iraganen baziren ere* (= *pour le cas où le douaniers paseeraient*) (Lafitte 1944: § 889)<sup>12</sup>.

**39.3.6f** Aditz jokatugabeko moldeei dagokienez, *-tuz gero + ere, -tu ezik + ere, -tu ezean + ere, -tzera + ere* egiturak ditugu, gehiegitan erabiltzen ez direnak, bide batez esateko. Gotzon Garatek (1988) dio *-tuz gero ere* egitura gramatiketarik jaso duela, ez baserrietatik. *Ez nuke nik, ahal izanez gero ere, inor joatera behartuko* (Mitxelena 1988a); *Haur da hirurgarren erremedioa, emaztetarik begiratzeko, hekin ez kutsatzeko, eta kutsatuz gero ere, garbitzeko, gogoaren deliberamendua, borondatearen bertze aldera deliberatuki itzulirik iartzea, eta egoitea* (Axular).

Batzuetan, gainera, denbora kutsua du kontzesiozkoa baino gehiago. Honako hauek, adibidez: *Bigarrena, sortu zela gelditurik Andre dana Maria erdi baino lehen, erditzean, eta erdiz gero ere Birjina* (Materre); *Mundu honetan alkar batzandurik, ta nastaurik bizi dira onak deungekaz: hil ezkeru bere, toki baten lurpetuten dituez: baña Judizioko egunean ezta halan izango* (Añibarro).

<sup>12</sup> R. M. Azkuek ere halako zerbait zioen (1923-1925: 709 atala): “A veces tiene otro matiz distinto, como en *euria badagi bere* por si lloviera (Micoleta, 25-2)”. Lafittek ere halako zerbait dio bere gramatikan (1944: § 889): ez dela nahasi behar frantsesezko *si* galderazkoa eta *si* baldintzazkoa; euskaraz *supositiboa* denean egokiena “pour le cas où”ren bidez itzultzea dela dio.

**39.3.6g** Aditz jokatugabeekiko egituretan, zalantzarik gabe *-tuta ere* egitura da *-tuz gero ere* egitura baino askoz erabiliagoa kontzesioa adierazteko. *Eskua moztuta ere axeriak axeri gelditzen dira; hankaezurak hausita ere otsoak beti otso* (Agirre); *Hoiek guziyak adituta ere andria etzan jaikitzen* (Txirrita); *Bertsolari bat ez bada haizu hoinbesteren esatera, berriiz baimena lortuta ere ez noa kantuz hastera* (Xalbador).

EGLU-VII liburukian, baldintzazko perpausak aztertu genituenean, esan genuen *ere* eranstea sarritan kontzesiozko balioa lortzen zela, baina *-tzekotan* atzizkiaren kasuan ohikoena baldintzazko adiera dela. Adibide hauek gaineratzen genituen: *Gaiñera, hastekotan ere, ez ezkonduarekin hasi, holakuak ez baidute sekula atarramentu onik ekartzen* (Etxaide); *Lehenbiziko horrek badu kide zaharragoa eta hedatuagoa, noski, eta, erabiltzekotan ere, beti bezala hitz batean idaztea aski dugu* (Mitzelena 1972b).

Lehenengo adibidean, adierazten da, norbaitekin hasi behar badu, hobe duela ezkonduarekin ez hasi; bigarrenean, hitz bati buruz ari delarik, hitz hori erabili nahi bada, nola idatzi beharko litzatekeen gomendatzen da. Baldintza adierazten da, eta ez kontzesioa.

### 39.3.7. *-ela/-elarik + ere*

**39.3.7a** Moduzko bi menderagailu horiei *ere* gehituz eratzen diren egiturak aztertuko ditugu atal honetan.

Berdin al da kontzesio perpausa hauek *ere*-rekin eta hura gabe ematea? Galdera horri erantzuten ahaleginduko gara ondorengo lerrootan.

Zenbait gramatikatan, menderagailu hutsezko formak kontzesiozko egituren artean sailkatu izan dira. Lafitterenean, adibidez, hala gertatzen da *-elarik*-en kasuan. Adibide hauek ematen ditu bere gramatikan: *Deus ere ez dakielarik, jakintsunaren fama bildu harek* (Lafitte 1944: § 885); *Sei urthe dituelarik, zer uste duzu ongi dakiela katichima* (Lafitte 1944: § 762).

Guk ez ditugu gauzak hain argi ikusten. Gure ustez, kontzesioa adierazteko, era askoz garbiagoa da menderagailu horri *ere* eranstea. Horrekin ez dugu esan nahi goiko bi adibideek kontzesio baliorik ez dutenik; bai, ordea, ez direla zehazki kontzesioari lotutako formak. Balio dezakete, testuinguru jakin batzuetan, kontzesioa adierazteko, baina ez da hori kontzesioa adierazteko forma arrunta. Gauza bera esan dezakegu kontzesio balioa izan dezaketen beste forma batzuei buruz ere, nahiz berez kontzesioari lotutako formak ez izan. Adibidez, honako hauek: *Gaixorik dago eta kalera doa*; *Euskalduna da eta erdaraz ari da beti*; *Hain eri baitzen, ez zen batere izitu* (Lafitte 1944: § 885).

**39.3.7b** Pragmatikaren aldetik, ezin esan kontzesiozkoak ez direla, baina proposizioen arteko joko semantikoei esker; sintaxiaren aldetik, baina, ez dira kontzesiozko egituren artean sartzekoak *eta* bidezko juntadura nahiz *bait*-menderagailua duen perpausa.

Era horretako egiturez § 39.3.12 azpiatalean mintzatuko gara, aipatzeko besterik ez baldin bada ere.

*-ela* eta *-elarik* berez kontzesiozko formen artean sartzeko zalantzak direla eta, horretarako arrazoi bat baino gehiago ditugu.

Batetik, literatura tradizioan ez dira adibide asko huts-hutsean hala emanik kontzesio balioa dutenak. *Ta zuek, indartsuak zaretela, laguna behar dezute zugatz zirzil bat gurdira jasotzeko* (Agirre); *On da guretzat zenbait aldiz kontra erraileak ditugun eta paira detzagun, bai eta gutaz iujeamendu gaixtorik eta makurrik eman dezaten, ongi egiten dugularik, eta intenzione onarekin* (Pouvreau); *Euskal deitura duelarik, ez gaitu gehiegi maite euskaldunok* (Mixelena).

**39.3.7c** Bestetik, *ere* gabe doazenean, menderagailu hutsa nahikoa iruditu ez, eta beste “laguntza” batzuek baliatu izan dira idazleak kontzesio balioa ziurtatzeko. Horietako bat da perpaus nagusian nabarmenduta eman dugun aurkari-tzako diskurtso markatzaile bat edo juntagailu bat sartzea: *Ordea gaitzetik heldu den beheramendua maite dugularik, guzia gatik re hura ekharri duen gaizkia erremediatu behar dugu on eta zuzenezko diren bidez, guzien gainetik guk egin gaizkia kontuzkoa eta seinalatua denean* (Pouvreau); *Halakoak*

*behar handia dute midiku espiritual on baten eskuetan erorteko; zeren nola bihotzeko kharmintasun hura baitute sorkuratik, gaitz da hari garaitzea, eta berez bekhatu eztelarik, bainan eskas-makhur bat xoilki delarik, guziarekin ere perillosa da, zeren, hura dela bide, iujeamendu arinak eta gaizki erranak sartzen eta nausi iarten baitire ariman barrena (Pouvreau); Iainkoak athera zaitu ezdeus hartarik zure egitea gatik zaren bezalakoa, zure beharrik etzuelarik, bainan bere ontasun hutsaz (Pouvreau); Konziientziak minzatzan usatua eztelarik, eztaki alabaina ixilik ere egoiten (Axular).*

**39.3.7d** Horiekin batera, erabiltzen den baliabide nagusia da *ere* eranstea, *-ela/-elarik* menderagailua huts-hutsean eman beharrean. Lehenago ere (§ 39.2) aipatu dugu diskurtso markatzaile horrek kontzesioa adierazteko duen garrantzia; kontzesio molde askotan aurkitzen dugula, baita horien baliokide izan daitezkeen aurkaritza diskurtso markatzaileetan ere; era berean, *ere* zenbait perpausi erantsiz gero, perpaus horri kontzesio balioa ematen diogula ere esan dugu: adibidez, baldintzazko eta moduzko perpausari. Aukera guztien artean, muga-mugako kasu bat hartzen da, perpaus nagusian adierazteko hala ere hortik ondoriozta dezakeguna ez dela betetzen.

- *Alferra bada, ez dute lantegian hartuko.*
- *Langilea bada ere, ez dute lantegian hartuko.*
- *Zaharkitua zaudelarik, ez duzu maratoia bukatuko.*
- *Sasoi betean zaudelarik ere, ez duzu maratoia bukatuko.*

Jakina, ez gara esaten ari *-elarik* duena *ere*-rik gabe ere eman ezin daitekeenik, kontzesio baliorik ez duenik; baina ziurragotzat jotzen da *ere* eta guzti ematea, hori gabe zenbaitetan ilun geratuko litzatekeelako. Adibide kopuruetara begiratzen badugu ere, konturatzen gara askoz ugariagoak direla *ere* dutenak gabeak baino; aitortu beharra dago, nolana ere, *-ela ere* eta *-elarik ere* egitura duten adibideak ere ez direla oso ugariak<sup>13</sup>. Ekar ditzagun literatura

---

<sup>13</sup> Adolfo Arejitak *Euskal Joskera* gramatikan aipatzen du hori: “oso gitxitan agertzen diran arren” (1985: 172).

tradiziotik horietako batzuk: *Hura berriz, txit bihotz oneko zala ere, hasarrekor zan* (Orixe); *Begira ea egin izan dozunez guzurraren ganeko yuramenturik; bada guzur txikia ta txantxazkoa dala bere, beti da bekatu mortala* (Añibarro); [...] *da harako don Pablo baten gizara, zahar-zaharra zala bere, herririk herri ebillen Iesukristoren legea zabaltzen, bere gaztetako gaitzokeri guztiak autortuaz* (Agirre); *Gazte samar galarik ere, [...] ari gatzazu [...] munduko berri ikasten* (Lizardi); *Mundu huntan bizi zareño nahi ez tuzularik ere ganbiakor izanen zare* (Xurio); *Gainerako lagunek, bizi eta egiazko direlarik ere, itzaliak dirudite haren aldean* (Mitxelena 1988a).

**39.3.7e** *ere*-ren laguntzarekin *ere*, *ordea*, *badira* anbiguo edo ilun gerta daitezkeen kasuak; alegia, kontzesioaz bestelako interpretazioren bat izan dezaketena. Beste zenbait moldetan gertatzen den bezala (*ba-... ere*-ren kasuan eta *-tuz gero*-rean, adibidez), ikusiko dugu *-ela(rik) ere* duten adibideak *ere* ez direla nahitaez kontzesiozkoak; bestelako balio batzuk *ere* izan ditzaketela.

Batzuetan argi dago ez direla kontzesiozkoak; beste batzuetan ez dago hain argi kontua. Izan *ere*, muga irristakor samar batekin egiten dugu topo hemen, *-ela* edo *-elarik* hutsa duten kasuetan bezala: *denbora, modua, kontzesioa...* Batzuetan ez da erraza horietako zein balioren aurrean gauden jakitea<sup>14</sup>.

Denborazko edo moduzko interpretazioa *ere* eman dakieke zenbait perpausi; hona batzuk: *Horiek, ordea, egonik ez dute, ez baitaude, iges baitoaz. Nor doakie atzetik haragi-irritsez? Nork atzeman, bertan daudela ere?* (Orixe); *Trintxera haietan ura zegoan, bañan, nahi ez genduala ere, lo hartzen genduan; lo premi handia baigenduan* (S. Salaberria); *Eta Gabirian behi-kontu nebillera ere, makiña bat aldiz egon nintzan negarrez gure aita eta ama gogoratuta, pentsaturik ez nituala gehiago ikusiko* (S. Salaberria); *Txikiago zala*

<sup>14</sup> OEhk *ere* honako hau dio *ere* sarreraren barruan: “Detrás de una oración condicional forma una oración concesiva. Incluimos aquí las construcciones de participio con *-(i)k* y de *-(e)la(rik)* (con verbo conjugado), aunque en algunos casos el valor concesivo no es del todo claro”. Adibide hauek ematen dira han: *Biak, seglare zirala ere, relijiosoen bizitza egin zutenak* (Kardaberaz); *[Pekatua] eragozten ez tienak, hartarako kargua eta obligazioa duelarik ere* (Gerriko); *Txit bihotz oneko zala ere, hasarrekor zan* (Orixe).

*ere orobat izan zituen, ta estasis hoien testigua Aioa izandu zan* (Kardaberaz); *Ta jan-zahar dagola bere, edateko beti gertu dabillen ezkeru, maskartu ta txatxartu da errime, Nikanor mutil gaztea* (Erkiaga).

**39.3.7f** Distribuzio geografikoari dagokionez, oro har *-ela-*duna mendebaldekoa da eta *-elarik* duena ekialdekoa. Mendebaldean *-ela ere* baino gehiago erabiltzen da, nolana ere, aditz jokatu gabea duena (*-tuta ere*). Izan daiteke interpretazioaren aldetik aipatu berri dugun desabantailagatik? Baliteke; hala ere, gogorarazi behar dugu aditz jokatu gabea dutenak ere ez direla erabat gardenak interpretazioaren aldetik, hauek ere bai baitute jokatudunek duten arazo hori<sup>15</sup>.

### 39.3.8. Galdetzailea + *ere* + *bait-/en*

**39.3.8a** EGLU-V liburukian (248) aztertu genuen erlatibozko molde baten eite handia duela kontzesio egitura honek; *korrelaziozko perpaus erlatiboak* deitu genituen han; perpaus erlatibo horietan izenordain bat izaten da, perpaus nagusiko erakusle anaforiko baten aurrekaria dena; perpaus erlatiboko aditzak, berriz, *bait-* menderagailua darama. Korrelazioa izenordainaren eta erakuslearen artean gertatzen da: *Nor ere baitago nitan ta ni hartan, eta harek ausarki ekartzen du fruitu* (Leon).

Liburuki hartan bertan (EGLU-V: 251) aipatzen da badela era horietako perpaus erlatiboen eta kontzesiozko mota baten arteko harreman handia, zenbait kasutan interpretazio bikoitza izateraino. Han esaten da testuinguru egokietan kontzesio balioa izan dezakeela izenordainak, eta horren ondorioz kontzesio balioa hartzen dutela perpaus horiek:

– *Non ere gordetzen baita, ez zaigu handik eskapatuko.*

– *Nork ere salatuko baitu, hari ez zaio barkatua izanen.*

---

<sup>15</sup> Ikus, bestela, OEHK zer dioen egitura hauei buruz: “En oraciones concesivas con *ere* precedido de participio con *-TA (-DA)* y de participio seguido de *(e)ta (da)*. El valor concesivo de algunos ejemplos puede ser dudoso”.

Kasu hauetan, interpretazioa erlatibozkoa ez ezik kontzesiozkoa ere izan daiteke:

- *Gordetzen den lekutik ez zaigu eskapatuko* (ERLATIBOA)
- *Salatzen duenari ez zaio barkatua izanen* (ERLATIBOA)
- *Edozein lekutan gordetzen dela ere, harrapatuko dugu* (KONTZESIOA)
- *Nornahi dela ere salatzen duena, ez zaio barkatuko* (KONTZESIOA)

**39.3.8b** Hala ere, normalean kontzesio balioa duten perpausetan ez da korrelaziorik izaten izenordainaren (galdetzailearen) eta perpaus nagusiko erakusle anaforikoaren artean, bigarren hori ez baita agertzen.

**39.3.8c** Menderagailuari dagokionez, bai *-en* eta bai *bait-* izan ditzake hala-ko kontzesio perpausetako aditzak.

Ekar ditzagun hona adibide batzuk:

- a) *-en* menderagailua dutenak: *Zonbat ere jauna den* (pour seigneur qu'il soit) (Lafitte 1944: § 885); *Zeiñ ere zeran handi ta luze, eztezu iritxiko* (Larramendi); *Eztezazula niholatako mandaturik enzun, zein ere aitzakiagatik nahi den* (Pouvreau); *Baña zein ere handiak liraken irabazte horiek, ez lukee pits bat balioko* (Mendiburu); *Zein ere ondasun ugariak dituen bateg, gizonaren bizia eztago ondasun asko izatean* (Iraizoz); *Ciceron tristea, lurreko onragatik, bere erretorika guziaz zeñ ere zan, ta lenago alegin guziaz prestaturik zeñ ere zegoen, halere [...] hutsegiteko bildurrak beti* (Kardaberaz).
- b) *Bait-* menderagailua dutenak: *[Jonathas] etzitzaion batere bekaxtu Dabiti, zenbat baitzen ere arrotza* (Larregi); *Zenbat flako bai zare ere, zerbitzatu gogo duzun Jainkoak borthiztuko zaitu* (Baratziart); *Zein haundi baitire, gu iduriak dira erregeak* (Arotzarena); *Zer izanen baita ere ethorkizunaz, gero Iainkoaren miserikordiara ihes eginen badugu ere, orai eskuen gainean, presentean eztagu plazerik utzi nahi, eta penarik hartu* (Axular).

### 39.3.9. Banakaritza egiturak

**39.3.9a** Aurrerago, § 39.3.1. azpiatalean, aipatu dugu badela *nahiz* marka duten kontzesio perpausen egitura distributibo bat; esan daiteke kontzesioa adierazteko egituretako bat izan daitekeela banakaritza ere. Ekar dezagun hango adibide bat: *Nahiz dela euria, nahiz (dela) eguzkia, kalera aterako naiz.*

EGLU-III liburukian (17-18) aipatua dugu banakaritza deitutako juntadura mota hori. Han esaten da era honetara gauzatzen dela banakaritza edo distribuzioa:

- hitz edo partikularen bat errepikatuz,
- alborakuntza hutsez (juntagailurik gabe) edo juntagailuren baten bidez (*eta, edo, nahiz, zein, ala*) loturik. Juntagailua bera ere errepika daiteke (*edo ... edo ...; nahiz ... nahiz...*).

**39.3.9b** Era askotakoak dira, beraz, euskaraz egitura distributiboak edo banakaritzazkoak: errepikatzen den elementuaren arabera eta erabiltzen den juntagailuaren arabera, kontaezinak dira konbinazioak.

**39.3.9c** § 39.3.1. azpiatalean eman ditugu *nahiz* daramaten egitura distributiboak; hangoei honako hauek gehitu behar zaizkie, menderakuntzaz ari garelarik —adizkiak (edo menderagailuak) errepikagai diren kasuak ditugu (alborakuntzaz nahiz juntaduraz)—:

- *Dela A dela B*, + Perpaus Nagusia: *Dela zurekin dela zu gabe, ni banoa; Gizon gazteak alabainan, dela argitzeko, dela bere adin ederraz gozatzeko, nahiago hiri handia* (J. Etxepare).
- *Izan dadin A*, (juntagailua) *izan dadin B*, + P. Nagusia: *Izan dadin egunez, izan dadin gauez, iristen zarenean kasu egin; Zeren, zurea balinbada, semea izan dadin, edo izan dadin alaba, ez baitu aitaren egiterik* (J. B. Elizanburu).
- Subjuntiboa A, (juntagailua) subjuntiboa B, + P. Nagusia: *Zurekin eraman dezazun ala etxean geldi dadin, nik ez dut ikusiko.*



Batzuetan bigarren adizkia isilduta ere bai: *Zezar-en adichkide izan dadila ala etsai [ø], ez diote barkatuko* (Lafitte 1944: § 760).

– *Dela A, nahiz (eta, edo) dela B, + P. Nagusia: Dela zurekin nahiz dela zu gabe, ni banoa; Eguraldi ona dela edo txarra dela, kalera irtengo naiz.*

Juntagailua ere izan daiteke errepikagai:

– *Edo A -ela, edo B -ela, + P. Nagusia: Edo hau falta duela edo bestea falta duela, beti eskean dabil; Ikasi behar dituzu, edo elizara zatozela, edo liburuaz edo bestez baliatzen zerala (Agirre Asteasukoa).*

Hona, bestalde, aditz jokatugabea oinarriztat hartuz osatuak:

– *Nahiz A aditz partizipioa, nahiz B aditz partizipioa, + P. Nagusia: Nahiz goizean joan nahiz arratsaldean (joan), lanean aurkituko duzu; Ekusiko dituzu [...] asko emakume [...] jauntzi mota berriai jarraitzen nahiz etxea gaizki geratu, nahiz etxeko pakea galdu (Agirre Asteasukoa).*

– *Zein A aditz partizipioa, zein B aditz partizipioa, + P. Nagusia: Zein bekatu guztia ezkutatu, zein estalgarriekin eskusatu, oro bat da (Mogel).*

– *Aditz partizipioa A, aditz partizipioa B, + P. Nagusia: Goizean joan, arratsaldean joan, lanean aurkituko duzu; Goiz izan, berandu izan, nik lanean jarraituko dut; Egunak etorri, egunak joan, ez da bere onera etortzen Pantxika; Ibili eta ibili, ez zuen herririk ikusten.*

Banakaritza kasu guztietan balioa bertsua dugu; EGLU-IV liburukian emendiozko juntaduran (*bai ... bai; ez ... ez*) eta hautakaritzazkoan (*nahiz ... nahiz; zein ... zein*) bereizita ageri badira ere, guztietan “orobatasun”ezko deitu dezakegun balioa dugu, indiferentziazkoa, alegia: berdin zaigu bata zein bestea, aditz nagusian adierazten dena gertatuko da. Batzuetan, banakaritzako bi kasuak (gogorarazi nahi dugu, bestalde, bi juntagai baino gehiago ere izan daitezkeela egitura distributiboetan) muturrekoak izaten dira (*goiz izan, berandu izan*); beste batzuetan, besterik gabe juntatzen diren bi perpaus, muturrekoak izan beharrik ez dutenak; gertukoak ere izan daitezke: *Lagunekin irten dela, familiarekin joan dela, gaur ere Olatz ikusi gabe gelditu gara.*

### 39.3.10. Perpaus erlatiboan oinarrituak: *datorrena datorrela...*

**39.3.10a** “Axolagabetasuna” dei genezakeen zerbait adierazten da kontzesio mota hauetan ere, indiferentzia: berdin zaigu zer gertatzen den, edozer gertatuta ere, den egoerarik muturrekoena edo makurrena gertatzen dela ere, horretatik ondoriozta dezakegunaren kontrakoa gertatuko da perpaus nagusian. Dirren posibilitate guztiak hartzen dira kontuan, berdin zaigula esateko, posibilitate horietako bat gogoan dugula (normalean muturreko kasu bat) perpaus nagusikoa beteko dela esateko.

Honako hau da halako perpaus moten egitura osoa:

P. erlatiboa + aditza<sub>1</sub> + *-eN* + erlatiboaren burua + hondarkia + aditza<sub>1</sub> + *-eLA*

*Den lekuan dela, aurkituko dut.*

**39.3.10b** Erlatiboaren buruak ez du nahitaez agertu behar. Ikusi berri dugun adibidea eta honako hau, adibidez, burudunak dira: *Dabilen tokian dabilela, ez da alferrik galduko*. Hauek, berriz, ez: *Datorrena datorrela, zuk segi zeure martxan; Dakiena dakiela, ez naiz Joxeren beldur*.

Egitura honetako parte den perpaus erlatiboa nahiko murrizta izaten da normalean. Askotan aditza bera bakarrik erabiltzen da (*Den lekuan dela; Dabilen lekuan dabilela*). Bitxiagoak izaten dira zenbait osagai dituzten perpaus erlatiboak: *Gure etxera gaur goizean goiz datorrena datorrela, ez diot atea irekiko*.

**39.3.10c** Egitura hauetan, bestalde, ikusi dugu bi aditz daudela: perpaus erlatibokoa eta *-ela* menderagailua daramana; bi aditz horiek berbera izan behar dute halako egituretan: horregatik jarri diegu biei azpi-indize bera goiko formulari. Ez dira egokiak bestelakoak: *\*Dagoena datorrela, ...; \*Dabilena datorrela, ...*

Berbera diogunean ez gara ari aditz erro berari buruz bakarrik, baita aditzaren denbora eta aspektu ezaugarri berari eta pertsona berari buruz ere: *\*Datorrena zetorrela, ...; \*Datorrena etortzen dela, ...; \*Etorriko dena datorrela, ...; \*Datorrena datozeela, ...*

Orain arte adizki sintetikodun adibideak aipatu ditugu, ohikoagoak direlako, baina horrek ez du esan nahi adizki analitikoekin ere egin ezin daitezkeenik egitura hauek. Hona adibide bat: *Eraman nazak Lea ikustera, kostatzen dena kostatzen dela* (X. Amuriza).

**39.3.10d** Erabileraren poderioz, finkatutako egiturak sortzen dira askotan, batzuk erabat lexikalizatuak: *Dena dela* (baina \**Zena zela*, ez *genion kasurik egin*); *Dena den* (baina \**Zena zen*)...

**39.3.10e** Egitura honek adizkirik gabeko beste egitura baten antza du; orain arteko kasuetan perpausaz mintzatzen ginen (eta, beraz, aditez), eta oraingoan izenez arituko gara, errepikatzen diren izenez. Lehen aditzekin bezala, orain izenekin ere gertatzen da gauza bera, forma desberdinean “errepikatzeari”: *iritziak iritzi, ...; usteak uste, ...; kontuak kontu, ...; legea lege, ...*

Balio bertsua dutela esan daiteke; desberdintasuna, batean aditzak erabiltzen direla (perpausak), eta bestean izenak ditugula (izen sintagmak); agerian behintzat.

Hona esapide hauen egitura:

Izena <sub>1</sub> + mugatzailea + izena <sub>1</sub> + -Ø (mugagabea)
--

*Iritziak iritzi (direla), ... → Iritziak iritzi, ...*

Ekar ditzagun hona aipatu ditugun egituren adibide batzuk: *Zarena zarela, oker zaude zure ustean* (Etxaide); *Datorrena datorrela, baietza emon bihotzeske datorrenari* (Erkiaga); *Euskaldun izakerearen zabaltzaillea izan gura neuke nabillen tokian nabillela* (Agirre); *Baiña egozan lekuan egozala, ezagun izaten zan Mendiolan nagusi-etxeakoandak zeintzuk ziran* (Agirre); *Eta, degun suertea degula, berdin geldituko gaitun* (J. M. Barandiaran); *Hil zuenak hil zuela, zeruan bego haren arima bake sainduan* (Etxaide); *Esanak esan eta usteak uste, guk ere gehi dezakegu [...] harako Etxepareren ezkutariak bere damatxoari aurpegira ziona* (Mitxelena); *Iritziak iritzi, noan orain gure artean, agertu berrian bertan, izan zuen harreraz mintzatzer* (Mitxelena).

**39.3.10f** Perpausetatik sintagmetara jauzi egin dugularik, aipa ditzagun sintagmen arrimuan erabiltzen diren bi postposizio, azpiatal honetan aipatu ditugun egituren balio bertsua dutenak: *despit* eta *gorabehera*.

Izen sintagmekin erabiltzen dira, ez aditzekin: genitiboaren ondoren lehenbizikoa (*-en despit*, *-en despitez*: *deabruaren despit*; *infernuaren despit*...), eta absolutuaren ondoren bigarrena (*-ø gorabehera*: *eragozpen horiek gorabehera*, ...).

Hona zer dakarren *Euskaltzaindiaren Hiztegiak gorabehera* postposizioaren balioaz: “Dagokion izen sintagmak adierazten duena kontuan hartu gabe edo kontuan harturik ere”.

Ekar ditzagun adibide batzuk, hiztegi horretatik (*gorabehera* postposizioarenak) eta OEHTik (*despit*-enak):

*Eragozpen horiek gorabehera, aurrera egitea erabaki dute; Giputzak malguagoak dira, zenbait haserrealdi gorabehera; Ni gorabehera, egingo dute; Bada aldea, nik esaten dudana gorabehera, bi argitaraldien artean.*

*Deabruaren despit, zure arima gaixoa salbatuko da (Tartas); Gaitz hunen erremedioa da (eziñbertzezko herra hunen despit) presuna hura maitatzeko zure ahalen egitea (Haraneder); Haren ungi egin guzien despit, ez dut haren zat izatu bihotz bekhaizti bat baizen (Mihura); Zuk, Jauna, zuk xarmatzen nauzu / Zeruko xarma puxantez; / hautsiko tut fiñean sokak / Ifernuaren despitez (Gazteluzar).*

### **39.3.11. Edo-galdetzailea/galdetzailea-nahi + -ela/-en/-elarik + (ere)**

**39.3.11a** *Edozer* eta *zernahi* gisako izenordain zehaztugabeak erabiliz sortzen diren kontzesio egiturez arituko gara atal honetan. Bi eredutako izenordainak, beraz: *edo-* dutenak (ekialdean erabiltzen ez direnak, *edozein* izan ezik) eta *-nahi* darabiltenak. *Edozein* galdetzailerekin konbina daitezke, eta izenordain zerrenda luzea osatu: *edozer*, *edonor*, *edonon*, *zernahi*, *nonahi*, *noiznahi*, *nolanahi*...

-en, -ela nahiz -elarik menderagailuak izan ditzake era honetako kontzesio perpauseko aditzak, subjuntiboan nahiz indikatiboan.

Horretaz gain, kontzesio perpausetan nonahi agertzen den *ere* diskurtso markatzailea ere ager daiteke.

**39.3.11b** Aurreko azpiataleko moldeak duen balio bera du egitura honek ere, lehen aipatu dugun axolagabetasunezkoa edo indiferentziazkoa dei genezakeena. Berdin zaigu mendeko perpausean esaten dena: hori oztopoa izan badaiteke, ez da nahikoa izango perpaus nagusian adierazten den ekintza ez betetzeko; perpaus nagusiko ekintza bete egingo da.

*Datorrena datorrela, aurre egingo diot arazoari.*

*Nornahi datorrela ere, ondo hartuko dut etxean.*

Perpaus horiek biak esaten ditugunean, perpaus nagusikoa eragozteko moduko egoera bat dugu gogoan, egoera muturrekoena; adibidez, ez dugu pentsatzen aldeko gauza bat datorrela, orduan ez baikenuke arrazoirik hari aurre egiteko.

**39.3.11c** Edozein kasutan ere, gogoan duguna gauza bat da, eta gauzatzen dugun egitura beste bat: egitura horretan egoera guztiak hartzen ditugu aintzat, aukera guztiak. Hala ere, aukera horiek guztiak ez dira eragozpen izango perpaus nagusian adierazten dena ez betetzeko.

Ekar ditzagun adibide batzuk:

- a) *-ela* menderagailua daramaten indikatiboazko aditzak: *Urrikaldu zaitetz nitaz, nornahi zarela ere* (Atxaga); *Zelatariak, non-nahi dela, ez baitira lo egoten sekula* (Etxaide); *Zer nahi zela, jakinen zuen nola erantzun hori gertatuko balitz!* (Mirande); *Sartuko dira torre, eta gazteluetan; igoko dira mendien gañera, ezkutatuko dira lize-zuloetan, baña alferrik, zeren, nornahi dijoazela, eta non nahi ezkuta ditezela, atxituko dituan su erretzalle hark* (Agirre Asteasukoa); *Ezin badut, badakit behintzat nonahi dirala ere, len-geroetan ez baiña berton dirala* (Orixe).
- b) Batzuetan *-elarik* menderagailua ere ager daiteke: *Izenez “Tolosa” zala erantzun zion umildade guzian, Toledoko zapata-konpontzaille baten ala-*

*ba zala; eta nun-nahi zegolarik ere, hantxe serbituko zuala eta bere nagusizat izango zuala (Berrondo).*

- c) *-en menderagailua dutenak: Idokitzen deregu, elizan usatu forman, hirurretan hoge egiin penitentsia, zoin ordenatirik edo manhatirik beilikie, eta zoin ez zordün beylirate Jinkuaren justiziari, zernahi gisaz den: erran hoeiek balio dükeie bethierekoz (Mercy); Zerbait ezagutuko baldin badugu, zernahi ere den, izatez izan behar du aurrenik eta ez da oraingoz, [...]* (Mixelena 1972b).
- d) Subjuntiboko aditzak dituztenak: *Edo zoin hil dadin* (= quelle que soit la victime) (Lafitte); *Edonun izan dadien* (= où qu'il soit) (Lafitte); *Zer nahi den gerta dakiola, eztezake deusek ere justua trista* (Axular); *Bizitzako goiberak noranahi bultza gaitzatela ere, oroitzapen hoiek han geldituko zaizkitzu aparteko bazter sakratuan betiko tinkaturik, ametsezko lurralde bailitzan* (Villasante).

**39.3.11d** Forma hauetako batzuk lexikalizatu egin dira, eta aurkaritzako diskurtso markatzaile bihurtu. EGLU-III liburukian aztertu genituen honako hauek: *nolanahi ere, ...; nolanahi den, ...; zernahi gisaz, ...; edozelan bere, ...; edozein modutan ere, ...*

Gehienetan jatorrizko egituran zuten aditzik gabe agertzen dira, nahiz batzuetan geratzen den aditza ere (*nolanahi den*):

<i>Nolanahi ere den</i>	→	<i>Nolanahi ere</i>
<i>Zernahi gisaz den</i>	→	<i>Zernahi gisaz</i>
<i>Edozein modutan dela(rik) ere</i>	→	<i>Edozein modutan ere</i>

### 39.3.12. Kontzesioa adieraz dezaketen beste zenbait egitura

Era aski desberdineko egiturak sartuko ditugu atal honetan. Atal oso bat osatzeko adina ez diren egiturak dira. Batetik, esapide modukoak. Bestetik, kontzesio balioa izan dezaketen egitura batzuk: ez berez kontzesioari lotuak dire-

lako, baina bai testuinguru jakin baten laguntzarekin kontzesio balioa izan dezaketelako. Irakurleak esango du testuinguru egoki baten laguntzarekin egitura askok eta askok izan dezaketela kontzesio balioa, eta halaxe da; hala ere, horietako batzuk bakarrik aipatuko ditugu. Zergatik batzuk eta beste batzuk ez? Horietako batzuk gramatika lan garrantzitsuetan kontzesiozko egituren artean sartu izan direlako. Bada arrazoi nahikoa, hala iruditzen zaigu behintzat, haien gainean zertxobait esateko.

### 39.3.12.1. *Ez delakoan ere / Ez idurian ere*

*Zirimiri honekin, ez delakoan ere, bustitzen ari gara.*

Egitura zurruna da, inongo aldaketarik ez jokorik onartzen ez duena: ezin dugu ez baiezko moldean jarri, ez eta *izan* aditza ez beste bat erabili ere; pertsona eta denbora ezaugarriek ere, adibide horretan ditugun horiexek behar dute izan: ezin dugu erabili ez hirugarrenaz beste pertsonarik, ez eta indikatiboko orainaz beste aditz formarik. Ez dira erabiltzen, adibidez, honako hauek: *\*Badalakoan ere, denbora ez doa aurrera; \*Pentsatzen ez dugulakoan ere, bustitzen ari gara.*

*Ez delakoan ere* eta *ez idurian ere* dira, beraz, kontzesio balioa duten egiturak. Lehendabizikoaren literatura idatziko testigantzarik ez dugu aurkitu OEHko corpus osoan; ahozko hizkuntzan, hala ere, oso arrunta da. Mendebaldeko hizkeretakoa da lehenbiziko hori. Hona adibide batzuk: *Ez delakoan ere, denbora aurrera doa. (Ez dirudien arren, ...); Ez dalakoan bere, hasi da eguraldia freskatzen.*

Bigarrena (*Ez idurian ere, horrek badaki nola jotzen den soinua*) ekialdekoa da, eta bada idatzizko testigantza bat edo beste: *Ez-idurian hark kabiari beste zuloa atzean egiten dio, handik joateko aurrekoa tapatzean, erakutsiaz pentsa zagula nola atera sartzean* (Otaño).

Kontzesiozko beste egitura askotan bezala, paper garrantzitsua betetzen du *ere*-k halakoetan ere.

### 39.3.12.2. *Bait-*

Aurreko ataletako batean ikusi dugu *bait-* menderagailua erabiliz osa zitekeela kontzesio perpaus mota bat, *nor ere bait-* erakoa. Horiek alde batera utzita, gatozen orain *bait-* menderagailuaren beste erabilera batera, beste inolako ezaugarri formalik ez duen erabilerara, hain zuzen.

Galdera bat eginez hasiko gara: kontzesiozko moldeak dira honako perpaus hauek? *Hain eri baitzen, ez zen batere izitu; Hain aspaldian eria baitzen, halere jin hura gure ikusterat*<sup>16</sup>.

Adibide hauek Lafittek bere gramatikan jasotzen zituen, eta han esaten du kontzesiozko “proposizioen” artean *bait-* ere badagoela.

Horretan izan ezik, ez dugu, ordea, inongo gramatikan aurkitu *bait-*en kontzesio erabilerarik. Villasantek, adibidez, dio balio anitzeko menderagailua dela *bait-*; kasu bakoitzean testuinguruak esaten digula zein balio duen. Erlazio atzizki soila dela dio, eta testuinguru bakoitzaren arabera hartzen duela balio bat edo beste.

Hori horrela bada, kontzesiozkoetan sartzeko arazorik ere ez genuke izango; goiko adibideen zentzua hori baita.

Hala ere, gramatika gehienetan jaso ez delako, literaturan ere gutxitan erabili izan delako, ez zaigu iruditzen beste egitura batzuen mailan jar daitekeenik kontzesioa adierazteko gaitasunari dagokionez behintzat. Goiko adibide horietan testuinguruak laguntzen digu, baina beste askotan ez zaigu iruditzen *bait-*en erabilera egokia izan daitekeenik kontzesioa adierazteko; interpretatzen zaila delako.

Gainera, esan dugun bezala, Lafittek ematen dituen bi perpausetako batean aurkaritzako diskurtso markatzailea erabiltzen du (*halere*) perpaus nagusian; *bait-* menderagailua kontzesio balioa bermatzeko nahikoa ez den seinale.

---

<sup>16</sup> Bigarren adibide honetan, diskurtso markatzaile anaforikoa dugu (*halere*), kontzesio perpausaren anafora dena. Horrek, jakina, laguntzen du kontzesio interpretazio egokia egiten.



Hori horrela izanik, kontzesio balioa testuinguru egoki batean adieraz dezaketen egituren artean sailkatuko dugu, baina ez nahitaez zuzenean kontzesioari loturik dauden egituren artean<sup>17</sup>.

### 39.3.12.3. -eta

Har ditzagun honako perpaus hauek:

- *Euskalduna da, eta ez du ia euskaraz egiten* (KONTZESIOA-ADBERTSATIBOA)
- *Gaixorik dago, eta kalera doa* (KONTZESIOA)
- *Gaixorik zegoen, eta ez da kalera irten* (KAUSA-ONDORIOA)
- *Lana bukatu du, eta kalera irten da* (DENBORA)

Perpaus juntatuak ditugu guztiak; beraz, adibide bakoitzaren ondoren jarri ditugun kontzeptuak ez dagozkie maila sintaktikoari, mendeko perpaus motei, baizik semantikari, izan dezaketen balioari. Ez dira mendeko perpausak; perpaus juntatuak dira. Egia da, baina, *eta* juntagailuaren bidez juntatutako perpaus konplexuek gehientsuenetan izan dezaketela ñabardura bat: kausa-ondorioa, hurrenkera kronologikoa, adbertsatiboa... Beraz, perpaus juntatuen erlazioaren araberrako balioa izango dugu perpaus juntatu konplexuan.

Hala ere, ezin esan dezakegu mendeko perpausak direnik.

Mendeko perpausak dira, nolana ere, hurrenez hurren kontzesiozko perpausetan eta kausazkoetan aztertu ditugun *baina* eta *eta* enklitikoaren dutenak: *Arropa asko jantzi dut, bero dago baina; Aurten ez naiz oporretara kanpora joango, diruz larri nabil eta.*

---

<sup>17</sup> Zentzu horretan ulertu beharoko genituzke Lafitteren hitzak (“*Bait-* peut avoir la valeur de concession”).

#### 39.3.12.4. *-ela(rik)*

*-ela(rik)* menderagailudun perpausak aipatu besterik ez dugu egingo, § 39.1.5.2 atalean aztertu baitugu auzi hau. Han esaten zen ez zela normalena halako perpausak *ere-rik* gabe ematea, kontzesio balioan bederen.

Hala ere, testuinguru egoki batean, beste egitura asko bezala, gai da perpausari kontzesio balioa emateko.

Honelakoei ez diegu aitortu beste kontzesio egitura batzuen maila: batetik, ez direlako adibide asko *ere* gabeak; bestetik, *ere* gabe erabiltzen denean ere, autoreek beste estrategia batzuk erabili izan dituztelako kontzesio balioa bermatzeko (adibidez, perpaus nagusian aurkaritzako diskurtso markatzaile bat txertatzea).

#### 39.3.12.5. *-elako*

Hau ere ez da kontzesioari zuzenean lotutako menderagailu bat, baina balio dezake perpausari testuinguru jakin batean kontzesio kutsua emateko.

Har ditzagun perpaus hauek, adibidez: *Hitz berri gehiegi dituelako ez diogu ukatu behar ondo merezi duen txaloa* (Mitxelena 1972b)<sup>18</sup>; *Aberatsa dalako ezta gehiegi poztutzen: eta pobrea dalako ezta gehiegi penatzen* (Gerriko).

*-elako* menderagailua duten perpaus horiek kausazkoak baino gehiago kontzesiozkoak dira. Perpaus nagusiko aditzak ezezko forma behar du hori horrela izateko; baiezko forma baldin badu, kausazko balioa izango du. Molda dezagun Gerrikoren adibidea, perpaus nagusia baiezko eran jarritz, hori erakusteko: *Aberatsa delako pozten da: eta pobrea delako penatzen da*. Mendeko perpaus horrek ez du kontzesioaren zantzurik.

---

<sup>18</sup> Adibide hauetan, autoreek markatu ez duten arren, etenaldi bat dago *-elako* menderagailuaren ostean: alegia, mintzagai moduan interpretatu behar da *-elako* duen mendeko perpausa, eta ez galdegai moduan.

## 40. Moduzko perpausak

---

- 40.1. Sarrera
  - 40.2. Modua eta beste nozio batzuk
  - 40.3. Barneko eta kanpoko moduzkoak
  - 40.4. Barneko moduzko perpausak; 40.4.1. Adjuntu funtzioa dutenak;  
40.4.2. Erabilera predikatiboa dutenak
  - 40.5. Kanpoko moduzko perpausak
  - 40.6. Menderagailuak eta osaera
  - 40.7. *-turik* eta *-tuta*; 40.7.1. *-turik*; 40.7.2. *-tuta*
  - 40.8. *-tua(k)*
  - 40.9. *-tuz (-tuaz)*
  - 40.10. *-tu* + postposizioa
  - 40.11. Aditz izena oinarri dutenak
  - 40.12. Aditzoina oinarri dutenak
  - 40.13. *-ela* eta *-elarik*
  - 40.14. *-en moduan*, *-en eran*, *-en arau*, *-en gisa*, *-en antz*, *-en molde*
  - 40.15. Konparaziozkoak (*-en bezala* / *-en legez*)
  - 40.16. Galdetzaila batekin hornituriko mendeko perpausak
  - 40.17. *-enez*
- 

### 40.1. Sarrera

**40.1a** 22. kapituluan adberbioak aztertu ditugu, eta esan dugu aditzaren argumentu egituratik kanpo geratzen direla gehienetan, adjuntuak izan ohi direla,

aditzak eskatzen ez dituen elementuak. Adberbioak aurkezteko eta sailkatzeko unean gramatika tradizionalan ohikoa izan da irizpide semantikoetara jotzea, eta era horretan, denbora, maila, modua, lekua edo iritzia adierazten duten adberbioez hitz egin ohi da. Guk ere horrela jokatu dugu. Modua adierazten duten adberbioen artean eman ditugu ondorengo hauek bezalakoak: *Gaizki egin ditugu lanak*; *Oihuka irten da bileratik*; *Horrela jokatu beharko lukete guztiek*; *Isilik oheratu da*; *Ondo egiten ez baduzu, ez duzu saririk jasoko*. Azpimarratutako elementu guztiek ere *nola?* galderari erantzuten diote, moduzko adberbioak dira eta aditz sintagman adierazten dena gauzatzeko era agertzen dute: *adberbio sintagmak* osatzen dituzte; modua adierazten duten adberbio sintagmak.

Beste osaera batzuk dituzten hitzak ere erabil ditzakegu modua adierazteko. Adibidez, batzuetan adjektiboak adberbializatzen ditugu, inolako atzizkirik —ez mugatzaile, ez postposizio— ezarri gabe, eta adberbio lanetan jarri: *Gogor ari da lanean*; *Zorrotz jokatu beharra zeukaten*; *Ez du argi hitz egin*. Perpaus horietan *gogor*, *zorrotz* eta *argi* hitzek, adjektibo izan arren, *nola* galdetzaileari erantzuten diote, eta *gaizki*, *horrela*, *ondo* edo beste moduzko adberbioek bete dezaketen lekua betetzen dute. Eta antzera gertatzen da beste kategoria batzuetako hitzekin edo esapide batzuekin (*badaezpada*; *atzekoz aurrera* eta abar). Adberbioen atalean (§ 22.6) eman dugu hauen eta beste batzuen berri zehatzagoa.

**40.1b** Hitz soilez edo esapideez gain, modua adierazteko beste osaera bat duten elementuen berri ere ematen genuen: adizlagunak edo postposizio sintagmak. Adibide batzuk: *Gogo txarrez ari da lanean*; *Egoera onean aurkitu dugu*; *Bere kabuz egin beharko ditu hemendik aurrerakoak*; *Eskuz egin beharko dugu lana*; *Pilotari hori airez asko sartzen da*. Hauetan postposizioak (instrumentalak nahiz inesiboak) izen sintagma hartzen du osagarri gisa. Batzuetan lexikalizazio prozesuak ere izaten dira tartean: *Gustura egingo dugu lana*; *Ekaitzak ustekabeen harrapatu gaitu*; *Benetan ari natzazu*. Nolanahi ere, osaera sintaktikoari dagokionez, postposizio sintagmen aurrean gaude, eta modua adierazten dute, aurreko guztiek bezala.

**40.1c** Mendeko perpausen bidez ere adieraz daiteke perpaus nagusi bateko gertaera nola betetzen den: *Hitz egiten duen bezala idazten du*; *Etorri den*

*antzera joan da; Sudurretik odola zeriola inguratu zitzaigun; Guztiz harriturik gelditu da erizaina; Oinetakoak erantzita sartu behar da areto horretara; Gogor lan eginez lortzen dira emaitza onak.* Azpimarratu ditugun guztiak perpausak dira, mendeko perpausak, eta guztiek ere perpaus nagusian adierazten dena nola gertatzen den azaltzen digute: nola idazten duen, nola joan zen, nola inguratu zitzaigun eta abar. Eta guztietan ere, modu adberbio bat edo gertakaria nola gauzatu den agertzen digun postposizio sintagma bat ezar zitekeen mendeko perpausaren lekuan: *ederki/presaka/narras idazten du; oinez/triste/bakarririk joan zen* eta abar. Gramatiketan moduzko perpausak aipatzen direnean, era honetako adibideak jarri ohi dira eredu modura, eta hauek ematen diote izena sailari.

## 40.2. Modua eta beste nozio batzuk

**40.2a** Osagarri adberbialak sailkatzeko unean irizpide semantikoetatik (denbora, modua, lekua eta abar) abiatu ohi dira gramatika gehienak, eta esan dugu horrela jokatuko dugula gurean ere. Baina aski ezaguna da oinarrizko nozio orokor horietako bakoitzaren inguruan xehetasun eta ñabardura ugari hartu behar izaten direla kontuan; eta hizkuntzako adibideetara jotzean askotan ez dela erraza nozio horiek garbi zedarritzea edo mugatzea; eta dagokigunera etorritik, “modu” kontzeptua ez dagoela guztiz bereizita beste kontzeptu batzuetatik (baldintza, kausa, denbora eta abar).

**40.2b** Eman ditzagun azken ideia hau azaltzeko adibide batzuk. Pentsa dezagun bi gertakari ditugula: ‘diruak gastatzea’, eta ‘etxera itzultzea’. Eta ‘diruak gastatzearen’ ondoren gertatzen dela ‘etxera itzultzea’. Gertakariak horrela dirrelarik, egoera batzuetan hitzunik ondokotasunezko adiera nabarmendu nahiko du (*Diruak gastatu zituenean, etxera itzuli zen*); beste batzuetan bi gertakarien arteko kausa-ondorio erlazioa edo azalpena azpimarratu nahiko du (*Diruak gastatu zituenez gero, etxera itzuli zen*); edo perpaus nagusiko gertakaria nola gertatu zen, modua, azaldu nahiko du bereziki (*Diruak gastatuta itzuli zen etxera*). Erabiltzen diren menderagailuek edo haiei erantsitako postposizioek adiera garbi bideratzen dutenean ez da zalantzarik izaten.

Baina zenbait menderagailu (*-ela*; *-elarik*; *-tuta*; *-turik*; *-tuz*) interpretazio semantikoaren aldetik nahiko irekiak dira, eta esan daiteke ‘mendeko zirkunstantzia bat’ baino askoz gehiagorik ez dutela adierazten. Horrelakoetan mendeko adberbialaren adiera irekia gertatzen da, eta askotan testuinguruak edo bestelako faktoreek argitu beharko digute zer interpretazio gailentzen den (Noiz? Nola? Zergatik?). Gainera, zirkunstantzia bera (‘diruak gastatu’ — ‘etxera itzuli’) uler daiteke aldi berean denbora-ondokotasun gisa edo ‘etxera-itzultze’ gertakaria nola bete den adieraziko balu bezala. Ekintzen arteko ondokotasuna dagoenean, oinarrizko interpretazioa denborazkoa izan arren, testuinguruak bestelako nozioak bidera ditzake, denborazkoarekin batera edo hari nagusituz<sup>1</sup>. Beste adibide bat emateko: *Guztiei agur esanez etxerako bidea hartu zuen*; adieraz dezake bi ekintzaren arteko ondokotasuna, edo adieraz dezake pertsona horrek etxerako bideari *nola* ekin zion —adibidez, aurretik gainerakoekin tirabirak izan dituenean, baina azkenerako giroa lasaitu denean guztiak adeitsu agurtuz—<sup>2</sup>; edo bi adierek elkar osa dezakete.

Gertakariak aldi berean gauzatzen direnean ere suertatzen dira horrelakoak. Adibidez, pentsa dezagun ‘txirrinduan ibili’ eta ‘hanka hautsi’ gertakariak

---

<sup>1</sup> Askotan badirudi hitz ordenak eta adiera desberdinek badutela lotura. Har ditzagun ondorengo bi gertakariak: ‘lanak amaitu’ — ‘etxera joan’. Antola ditzagun ondorengo bi ordenekin: *Lanak amaituta etxera joan zen*; *Lanak amaituta joan zen etxera*. Lehenengo adibidean aukera handiagoa dago mendeko perpausa denborazkotzat hartzeko, eta bigarrenean moduzkotzat hartzeko: moduzko osagarri adberbialak aditzetik hurbilagoko elementutzat hartzen ditugu, eta denborazkoek joera handiagoa dute kanporagoko zirkunstantzia modura funtzionatzeko.

Mendeko perpausan edo perpau nagusian zenbait elementu azaltzeak ere adiera bat edo bestea bidera dezake. Pentsa dezagun ‘atea hautsi’ eta ‘gatzelura sartu’ gertakariak ditugula. *Atea hautsita gatzelura sartu ziren* diogularik, adieraz daiteke denbora (noiz sartu ziren) edo modua (nola sartu ziren); baina mendeko perpausan *behin* elementua txertatzen badugu (*Behin atea hautsita gatzelura sartu ziren*) denborazko adiera nagusitzen da.

<sup>2</sup> Ziurrenera bi adierei intonazio desberdina emango genieke: ondokotasuna dagoenean, mendekoaren ondoren pausa egingo genuke, eta idatzian koma jarri; moduzko interpretazioa galdegai izaerarekin lotuko genuke, eta horrela, aditzaren ezkerretara eman mendeko perpau-sa, inolako etenik gabe.

ditugula. *Txirrinduan nenbilela hautsi nuen hanka* esaten badugu, adieraz dezakegu denbora-aldiberekotasuna (noiz hautsi nuen hanka), edo adieraz dezakegu modua (nola edo zer egoeratan hautsi nuen) edo gertakariaren azalpena (zerk eraginda hautsi nuen edo zer testuingurutan gertatu zen); edo, neurri batean, adiera guztiak gurutzatu daitezke, eta zirkunstantzia bat azaldu.

Mota honetako adibideak ditugunean, testuinguruak eta beste zenbait faktorek adiera batera edo bestera eraman gaitzakete. Adibidez, narrazioa dagoenean denbora-ondokotasunezko interpretazioa nagusituko da: *Mutikoak, zuhaitzera igota, gereziz bete zuen saskia*. Bestelakoetan ondoriotasunezko interpretazioa nagusituko da, ‘modu’tik hurbilago eta kausa-kutsuz: *Hori jakinik, lasaiago gaude*; [hori dakigularik / dakigunez...].

Bestalde, perpaus nagusiko eta menderatutako subjektuen artean erreferentziakidetasunik ez dagoenean, zailagoa da modu-adiera garbia esleitzea mendeko perpausari: *Erromatarrek Kartago erreta/errerik, beste bide bat hartu zuen historiak*.

**40.2c** Baldintza eta modua gurutzatzen diren adibideak ere ugari izaten dira: *Hain lan gutxi eginda, ez duzu emaitza onik lortuko; Gehiago saiatuz emaitza onak lortuko zenituzke*. Lehenengo adibidean azpimarratutako perpausak adieraz dezake emaitzak *nola* ez dituen lortuko, edo, baldintza hori betetzen jarraitzen badu (*hain lan gutxi egiten baduzu...*), zer gertatuko zaion iragarri. Bigarrenean perpaus nagusiko aditzaren moduak mendeko perpausa baldintzazko gisa ulertzera eraman gaitzake (*gehiago saiatuko bazina...*), baina emaitza onak *nola* lortuko lituzkeen ere adieraz dezake azpimarratutako zatiak. Tradizioko adibide bat emateko: *Kalte handirik egingo ote zenuen, meza entzuten herrian geratuta?* (Agirre Asteasukoa); azpimarratutako zatiak adieraz dezake modua, edo adieraz dezake baldintza (‘meza entzuten herrian geratu bazina’).

Neurri batean, gauza bera gertatzen da konparazioarekin eta moduarekin ere. Begira diezaiogun ondorengo adibideari: *Etzetik irten zen bezala azaldu zen afarira Josu*. Berez konparazioa dago: ‘etzetik irten zen modua’ eta ‘afarira azaldu zen modua’ erkatzen dira; eta *bezala* adberbioaren bidez modu-konparazio

hori parekotasunezkoa dela adierazten da. Modu-parekotasuna adierazteko erabiltzen da konparazio perpausa; eta egitura osoak, semantikoki, moduzko balioa du. Eta moduzko perpausen arteko beste molde batzuek ere (*Etorri den eran joan da*; *Esan dioten moduan kontatu du* eta abar) badute zeharkako konparazio bat.

**40.2d** Ikusten dugu, bada, “modu” kontzeptua ez dagoela guztiz mugatua, ez dagoela guztiz bereizia beste kontzeptu batzuetatik (denbora-ondokotasuna edo aldiberekotasuna, kausa, baldintza eta abar).

**40.2e** Beste batzuetan zirkunstantzia irekiagoak aurkitzen ditugu, inoiz moduzko gisa ere uler daitezkeenak. “Moduaren” kontzeptu garbitik urrunago doazen perpausak dira. Batzuetan nahikoa urrundu daitezke: *Hori ikusirik, etxean geratu da* [hori zela eta / hori ikusi, eta]; kausa azalpenetik ia zentzu ilatibo hutsera lerratzen da; ondokotasunezko esan diezaiekegu halakoei. Baina esanahiaren lerratze nabarmen hori gorabehera, moduzkoen sailekotzat jo daitezke halakoak ere: *Zuek gustura zaudetela jakinik, gustura gaude gu ere*. Askotan era honetako perpausak komaz bereizten dira predikazioaren gunetik, tarteki modura txertatzen baitira esaldian. Horregatik, doazen esaldian ez dira *nola* galdearen erantzun izango inolaz ere, ez eta galdegai ere.

**40.2f** Gainera, gramatiketan moduzko perpausen deiturapean bildu ohi diren perpausen balio semantikoa askotarikoa izaten da, eta sarri dezente urruntzen da *honela, horrela, hala* adberbioen baliokide izatetik. Adibidez, moduzkoen multzoan sartu ohi dira gramatiketan ondorengoak bezalakoak ere: *Esan duzun bezala, gobernuak dimisioa eman du*; *Iragarri dutenez, datorren ikasturtean matrikula merkeago izango da*; *Zintzoa izanik, ezin dut ziurtatu hori horrela izan denik*; *Argi geratu den bezala, hemen idazkariak agintzen du, ez zuzendariak*; *Gogoratuko duzuenetz, herritarren botoek eraman zuten agintera Hitler*. Azken hauetan nekez ikusi ahal izango dugu ‘gertakaria betetzeko era edo modua’: perpaus osoari bidea ematen diote hemen azpimarratutako mendeko perpausak. Hala ere, moduzkoen atalean aztertu ohi dira gramatiketan: erabiltzen diren menderagailuak moduzkoetako berberak dira; eta adierazten diren balioak gertuago daude moduzkotasun zabal batetik mendeko perpausen beste edozein sailetatik baino.



**40.2g** Ikusten dugu, bada, semantikoki askotariko multzoa osatzen dutela moduzko perpausek; ‘nolakotasuna’ edo ‘modua’ era oso zabalean ulertu behar dela. Batzuk, esan bezala, moduzko adverbialen adierazpen garbiak dira, *nola* galderaren berri ematen dutenak. Baina moduzkotasan estu horretatik urruntzen diren adibideak ere ematen dira gramatiketan moduzko perpausen sailean.

### 40.3. Barneko eta kanpoko moduzkoak

**40.3a** Aipatu dugu goraxeago sailkapen semantikoari jarraituz moduzko perpausen multzoan sartu ohi diren adibideen artean ‘xehetasun eta ñabardura ugari’ aurkituko ditugula. Mendeko perpausen sail guztietan gertatzen da hori, eta moduzkoetan ez besteetan baino gutxiago. Xehetasun eta ñabardura horiek ezaugarri sintaktiko desberdinei loturik joan ohi dira sarritan.

**40.3b** Adverbioen atalean (§ 22.1.3), esan dugu jokabide sintaktikoari dago-kionez bi adverbio mota bereiz daitezkeela: batzuek aditz sintagma modifikatzen dute (*zeharo, ondo, honela* eta abar), eta horrelakoez ‘barneko adverbioak’ direla esaten da, perpausaren barneko adverbioak; beste batzuk, ordea, perpaus osoari dagozkio (*zorionez, tamalez* eta abar), perpaus osoa modifikatzen dute, perpausetik kanpora daude, eta ‘kanpoko adverbioak’ direla esan ohi da gramatiketan. Egoera hori aurkitzen dugu moduzko adverbioetan, bai eta moduzko perpausetan ere<sup>3</sup>. Azter dezagun astiroxeago.

<sup>3</sup> Atalaren hasieran esan dugu moduzko perpausak, eta oro har adverbio sintagma guztiak, gehienetan ez direla aditzak eskatutako osagaiak izaten. Baina begira diezaiogun ondorengo adibideari: *Joseba ondo/guztiek espero zuten bezala portatu zen*. Adibide horretan esan daiteke *portatu* aditzak nahitaez eskatzen dituela azpimarratutako osagaiak: zentzu handirik ez luke izango *Joseba portatu zen* bezalako batek; perpaus osatu gabea izango litzateke; edo besterik ezean nolabaiteko ‘ondo portatze’ bat ulertuko genuke azpian —zentzu adierazgarrian—, *portatu* aditzak ‘nola’ adierazten duen osagai bat behar baitu osagarri modura. Berdin gertatzen da *Eskatu zenidan bezala/ondo tratatu nituen gonbidatuak* bezalako batean ere: *tratatu* aditzak eskatutako nahitaezko osagai bat dago hor, eta osagai hori eman daiteke mendeko moduzko perpaus baten bidez edo beste sintagma batzuen bidez. Alde horretatik, aditzaren argumentu izango genituzke.

## 40.4. Barneko moduzko perpausak

### 40.4.1. Adjuntu funtzioa dutenak

**40.4.1a** Barneko moduzko perpausen artean bi sail desberdinduko ditugu: aditzaren adjuntu zeregina duten osagarri adberbialak, eta erabilera predikati-boan azaltzen direnak (lehen mailako nahiz bigarren mailako predikatu gisa).

**40.4.1b** Barneko moduzko perpausak askotan adjuntu funtzioa izaten dute eta aditz sintagma modifikatzen dute: *Giltza sarrailan sartuz eta hari buelta emanez irekitzen da atea*; *Zuk irakatsi zenidan bezala egin ditut gauzak*; *Poziziei barkamena eskatuz saihestu zuen trafiko-isuna*; *Tranpa eginez hautsi zuen aurreko marka*. Azpimarratutako zatiek *nola?* galderari erantzuten diote; *honela, horrela, hala* adberbioez ordezkatu daitezke; eta aditz sintagman adierazitako gertakaria nola betetzen den adierazten dute. Aditzetik hurbil izaten dira, eta galdegai izateko arazorik ez dute izaten. Nekez bereiziko dira pausa edo koma bidez predikazio nagusitik. Aurretxoan eman ditugun guztiak zuzenki aditzari begirako moduzkoak dira (ireki-nola; egin-nola; saihestu-nola; hautsi-nola), osagarri adberbialak; ekintza edo gertakaria zer eratarik gauzatu den adierazten digute, ez besterik. Hizkuntzan oso ohikoa izaten da era honetako egiturez baliatzea: *Hitz egiten duen bezala idazten du*; *Zigorrek etengabe jarritz lortu zuen semearen jokabidea aldatzea*; *Trikimailuez baliaturik aldarazi zion iritzia*; *Esan duen moldean egin du*; *Sufritu barik eta azkar iritsi nahi dute gailurrera*; *Dieta egin gabe ez zara argalduko*.

### 40.4.2. Erabilera predikatiboa dutenak

**40.4.2a** Beste batzuetan, ordea, moduzko adberbioek eta perpausak erabilera predikatiboa izaten dute, ezaugarri jakin batzuk dituzten egituretan edo aditz konkretu batzuekin azaltzen direnean (ikus 24. kapitulua). Hala, zenbaitetan lehen mailako predikazioan azaltzen zaizkigu, predikatu nagusi gisa (*Amona espero genuen bezala zegoen*), eta beste zenbaitetan bigarren mailako predikatu modura (*Barrua sutan zuela hurbildu zitzaien nagusia grebalariei*).

**40.4.2b** Lehen mailako predikazioan, perpausaren predikatu nagusi modura azaltzen dira moduzko perpausak aditz eta egitura kopulatibo batzuekin (ikus § 24.3). Nolabait esateko, *Peru triste dago* eta *Olatz gaizki zegoen* perpausetan *triste* eta *gaizki* predikatu nagusiak badira, *Peru negarrari eutsi ezinik dago* adibidea dugunean ere azpimarratutako mendeko perpausa predikatu nagusia izango da. Adibide horietako *egon* aditza kopulatiboa da, eta eduki semantiko bat adieraztea baino areago predikatu nagusiaren (*triste; gaizki; negarrari eutsi ezinik*) eta subjektuaren arteko lotura bideratzea du helburu. Antzera gertatzen da erabilera semikopulatiboa duten beste aditz eta egitura batzuekin ere: *Aztoratuta dabil jendea; Langileek kezkatuta jarraitzen dute*. Beraz, predikatu nagusi gisa azaltzen da moduzko perpausa honako hauetan guztietan: *Arkaitzek osasunarekin kezkatuta jarraitzen du; Gauzak zuk esan bezala daude; Burua altxa ezinik dabil Miren; Zer egin ez dakiela daukagu Naiara; Errepideak moztuta jarraitzen du; Zer esan ez dakiela gelditu da Jon*. Azken batean, moduzko adberbioak zenbait egituratan predikatu nagusi gisa azal badaitezke, ez da harritzeko modua adierazten duten mendeko perpausak ere aukera bera izatea (ikus 24. kapitulua: “Atribuzioa eta Predikazioa”).

**40.4.2c** Era berean, bigarren mailako predikazioan ere aurkitzen ditugu mendeko perpausak (ikus § 24.4). Har dezagun, esaterako, ondorengo adibidea: *Jon negarrari eutsi ezinik irten zen gelatik*. Mendeko perpausa moduzko garbia da, eta *nola?* galderari erantzuten dio; eta perpaus nagusiaren barneko kontuei dagokie. Baina adjuntu funtzioa betetzen zuten moduzko perpausetan ez bezala (§ 40.4.1), *nola* orain ez dagokio aditzari bakarrik (irten-nola): subjektuari ere badagokio (Jon-nola); gehiago subjektuari aditzari baino, negarrari eutsi ezinekoa ‘irteteko era bat’ baino gehiago baita ‘Jonen egoera bat’. Perpausoko bigarren osagai bati buruzko (Jon) predikazioa dago hor, eta bigarren mailako predikazioa dagoela esan ohi da; ‘negarrari eutsi ezinik’ bigarren mailako predikatua edo osagarri predikatiboa izango litzateke.

Eman dezagun beste adibide bat: *Uxuek pozez beterik barre egin du*<sup>4</sup>. *Pozez beterik*-en bidez Uxueren une bateko egoeraren ezaugarri bat predikatzen da,

<sup>4</sup> Aditzari begirako moduzko adjuntuen eta bigarren mailako predikazioa duten adibideen arteko mugak ez dira beti zehatzak eta garbiak izaten; erabateko jautzia baino gehiago mai-

eta aldi berean, egoera hori *barre egin* ekintzari loturik aurkezten da. Perpau-seko subjektuarentzat bigarren predikatu bat izango balitz bezala jokatzeko du *pozez beterik* moduzko perpausak: egoera bat edo uneko ezaugarri edo propietate bat ezartzen du.

**40.4.2d** Aditzari buruzko atalean esan dugun bezala, bigarren mailako predikazioa subjektuari begirakoa edo objektuari begirakoa izan daiteke (§ 24.4). Aurreko ataltxoan eman ditugun adibideetakoak (*Jon negarrari eutsi ezinik irten zen aretotik*; *Uxuek pozez beterik barre egin du*) subjektuari begirakoak ziren. Lehenean, nola sartu den adierazten dugu, eta aldi berean, une horretan Joni dagokion propietate bat ematen dugu; ‘negarrari eutsi ezinik’ dagoena Jon da. Bigarrenean, barre egiteko era bat (‘pozez beterik’, ez ‘itxurakeriaz’), baina aldi berean Uxueren egoera nolakoa den azalduz. Berdin gertatzen da ondorengo adibideetan ere: *Gutziz aztoratuta irten zen Josu bileratik*; *Iribarrea ahoan zuela inguratu zitzaidan semea*; *Kezkek barrua itotzen ziotela hartu zuen etxerako bidea Arantxak*; *Bihotza hautsita eta barne garrasiz sinatu zuen heriotza zigorra epaileak*; *Gogogabetuta joan nintzen oporretara*; *Kafesnea ondo berotuta gustatzen zaio Beñati*. Hauetan guztietan subjektuari begirako bigarren mailako predikazioa dago, eta aldi berean predikaziogai den pertsonaren —inoiz gauzaren— eta ekintzaren uneko egoera edo propietate bat ematen dute aditzera: nola irten zen, eta bereziki Josuren une horretako egoera nolakoa zen; inguratzeko era, eta une horretan semeak erakusten zuen egoera edo ezaugarria; Arantxaren barrua nola zegoen etxerako bidea hartzeko momentuan; zigor sinaketa zer barne egoeratan egin zuen epaileak; eta abar. Moduzko adberbio soilekin edo modua adierazten duten postposizio

---

lakatzea edo gradazioa agertzen da. Gakoa, moduzkoan adierazten dena zenbateraino lot daitekeen dagokion osagaiaren une bateko egoeraren ezaugarriekin, edo zenbateraino adieraz dezakeen aditzeko ekintza betetzeko modua. Aditzari begirako moduzko adjuntuak ditugunean, osagai horiek egitura sintaktikoan aditzetik hurbilago azaldu ohi dira; bigarren mailako predikazioarekin, errazagoa da perpausaren tokiz mugitzea, edo inoiz intonazio/koma bidez bereiztea. Egitura sintaktikoko kokapenari dagokionez, gramatikariek proposatu ohi dute bigarren mailako predikazioa dagoenean ere predikatua eta bere argumentua adabegi beretik zintzilik egon behar direla, elkar c-komandaturaz.

sintagmekin ere berdin gertatzen da: *Adeitsu agurtu nuen Ane*; *Ondoezik irten zen Josu bileratik*; *Mar-mar batean inguratu zait lankidea*.

Era honetako predikazioa izateko baldintza batzuk bete behar dira, bai bigarren predikatu modura jokatzeko duen osagaiari dagokionez, bai aditz nagusiari dagokionez. Subjektuari dagokion propietateak edo egoerak predikazioa gertatzen den unekoa, denbora tarte horretakoa izan behar du, ez propietate iraunkor bat (garaia/bizkorra izatea, eta abar). Adibidez, esan dezakegu *Buruan txapela zuela sartu zen Jon*; txapela jantzita eramatea ez baita izaten gizakien berezko ezaugarri bat, edo ezaugarri iraunkor bat. Aldiz, ezin dugu esan *\*Begi urdinak zituela sartu zen Jon*. Begi urdinak izatea gizakion berezko ezaugarri bat da, iraunkorra, eta ezin da ‘denbora tarte baterakoa’ izan. Bigarren mailako predikatuak ‘une/tarte jakin batekotzat’ hartzeko moduko propietateak izan behar ditu. Eta perpaus nagusiko aditzak ere ezaugarri lexiko/aspektual batzuk bete behar ditu: ekintza bat, prozesu bat edo lorpen bat adierazten duten aditzek bigarren mailako predikazioari bidea eman diezaiokete, baina egoera bat adierazten duten aditzek (*jakin, izan...*), aditz estatiboek, ez dute horretarako aukerarik ematen: ezin da esan *\*badakit guztiz atsekabetuta guztion azken muga heriotza dela*. Aldiz, *gustiz atsekabetuta irten nintzen bileratik* esateko ez dago eragozpenik.

**40.4.2e** Beste batzuetan objektuari begirako bigarren mailako predikazioa izaten da. Adibidez, lehenago subjektuari begirako bigarren mailako predikazioa aurkezteko erabili dugun moduzko perpaus bera erabiliz: *Gelara sartzean negarrari eutsi ezinik aurkitu nuen Ane*. Kasu honetan ere *nola* ez dagokio aditzari bakarrik (aurkitu-nola); objektuari ere badagokio (Ane-nola); negarrari eutsi ezineko egoeran Ane dago. Batez ere objektuari dagokio, gainera: (Ane) *negarrari eutsi ezinik zegoela aurkitu nuen* da horren perifrasi posible bat, edo *Negarrari eutsi ezinik zegoen aurkitu nuenean*. Objektuari begirako bigarren mailako predikazioa dago hor.

Berdin gertatzen da ondorengo adibideko interpretazioetako batean ere: *Andoni ikusi dut burua altxatuta*. Bi interpretazio izan ditzake. Batean, aditzari begirakoa izango genuke: “Nola ikusi dut Andoni? Nola lortu dut Andoni ikustea?” galderari erantzuten badio. Nola ikusi dut? Burua altxatuta. Alegia,

nik altxatu dut burua, eta halaxe lortu dut Andoni ikustea; gertakaria betetze-ko modua agertzen digu azpimarratutako mendeko perpausak; lehenengo mul-tzoko —aditzari begirako moduzko perpaus adjuntuak— adibidea izango ge-nuke. Bigarren interpretazioan, ordea, Andoni nola zegoen uler daiteke; alegia, burua altxatzen duena ez da perpaus nagusiko subjektua (ni); Andoni da ego-er horretan dagoena. Perpausko osagai bati buruzko bigarren mailako predi-kazioa dugu hor: [Andoni — burua altxatuta]; ez dugu esaten nola jazo den aditz nagusiak adierazitako gertaera (ikustea), baizik nola zegoen perpausaren osagaietako bat; Andoniri buruz egiten du predikazioa. Objektuari begirako predikazioa dagoenean, objektu hori une horretan zer egoeratan dagoen azal-du ohi da. Hona adibide gehiago: *Gutziz hondatuta itzuli zenidan liburua*; *Begiak malkotan zituela eraman nuen Eneritz ospitalera*; *Iragazita edaten dut esnea*; *Pantaila pitzatuta igorri didate Internet bidez erositako telefonoa*; *Mozorrotuta ikusi zintudan herriko jaietan*. Eta moduzko perpausekin bezala, adberbio soilen bidez (*Burumakur/gaizki ikusi nuen Ane*) edo postposizio sin-tagmekin (*Egoera negargarrian itzuli zenidan liburua*) ere gauzatu daiteke objektuari begirako bigarren mailako predikazioa<sup>5</sup>.

Objektuari begirako bigarren mailako predikazioa subjektuari begirakoa bai-no nekezago gertatzen da. Subjektuari buruzkoetan bezala, bigarren mailako predikatuak tarte bateko gisa interpretatzeko aukera eman behar du: *Iñaki mo-*

---

<sup>5</sup> Perpausko gainerako osagaiari buruzko (datiboa, inesiboan doazenak eta abar) bigarren mailako predikaziorik ez da izaten. Begira ondorengo adibideari: *Nik Mireni pozez beterik eman diot oparia*. Perpaus honen interpretazio bakarra da ‘ni’ nagoela pozez beterik, inola ere ez Miren; alegia, datiboa daraman osagaiari buruzko bigarren mailako predikaziorik ezin da egin. Partitiboan doazen elementuak ere ez dira bigarren predikazioaren ‘subjektu’ izaten, ziurrenera espezifikoa ez direlako (Demonte y Masullo 1999: 2461-2523).

Datiboei dagokienez, egia da badirela ondorengoa bezalako adibide batzuk: *Josuri gorputz gutzia lokarrarazita atera diote hagina*. Azpimarratutako zatiak adierazten duen egoera, kasu honetan, datiboari dagokio. Baina horrelakoak kasu jakin batzuetan bakarrik gertatzen dira: nolabaiteko jabetza adierazten duten datiboekin (‘hagina Josurena da’) soilik egin daitezke, edo egitura arazleetan (*Josebak Mireni haurdun zegoela eginarazi zion lan zail hura*); eta gramatikari gehienek ezaugarri desberdinak egozten dizkiete. Análisi sintaktiko baterako, ikus Odria (2015).

*zorrotuta eraman dut tren geltokira*; \**Iñaki begi urdinak dituela eraman dut tren geltokira*. ‘Mozorrotuta egotea’ denbora tarte jakin bateko ezaugarria da; begien kolorea, berriz, bakoitzari berez dagokigun ezaugarri iraunkorra, eta ezin da bigarren mailako predikatu modura azaldu. Baina badago beste baldintza bat ere: osagarri predikatiboak azken egoerako unea bakarrik seinalatzten badu, ezinezkoa da objektuari begirako bigarren mailako predikazioa. Azaldu dezagun ondorengo adibideekin: *Gaztainak aurretik zurituta erre zituen* zuzena da, baina \**Oilaskoa guztiz txigortuta erre zuen* ez da esaten. Lehenean, gaztainak erretzeko prozesuaren hasieratik daude zurituta, eta horrela irauten dute erretzeko prozesu guztian zehar; bigarreanean, guztiz txigortutako egoera ekintzaren azkeneko uneari bakarrik dagokio, emaitzari, eta ez aditz nagusiko ekintza gertatzen den denbora tarte osoari. Horrek eragiten du bi adibideen arteko desberdintasuna.

Bestalde, perpaus nagusiko aditzei dagokienez ere baldintzak apur bat zorrotza-  
goak dira objektuari begirako bigarren mailako predikazioan: subjektuari begirakoan bezala, egoera aditzekin ez da era horretakorik egiten, baina ezta lorpena adierazten duten aditzekin ere. Objektuari begirako bigarren mailako predikazioa egon dadin egoera aldaketa edo toki aldaketa dakarten aditzak behar dira (*Sagarrak garbitu gabe* jan zituen; *Oilaskoa limoi urez igurtzita* sartu nuen *labean*), edo iritzi eta hautemate aditzak (*Nahiago dut kafesnea ondo berotuta*; *Sehaskatik irtenda* aurkitu dut *haurra*; *Poltsan auzokoaren tomateak zeramatzala* harrapatu genuen *Iker*; *Fraideen modura hitz eginez* irudikatzen ditut *Euskaltzaindikoak*; *Ahoan irribarrea zuela* gogoratuko dut *beti Mireia*).

**40.4.2f** Bigarren mailako predikazioa gauzatzen duten moduzko perpausok badute beste ezaugarri bat ere: predikazio horren ‘subjektua edo gaia’ —alegia, perpaus nagusiko subjektua edo objektu zuzena, dagokionean dagokionan— mendeko perpausaren barneko argumentu modura ulertzen dela —isilpean geratu ohi den arren—; elementu hori bi perpausetan agertzen dela. Azaldu dezagun astiroxeago.

*Jon negarrari eutsi ezinik irten zen gelatik* adibidean, azpimarratutako moduzko perpausa subjektuari (Jon) begirako osagarri predikatiboa da; subjektu horri buruz egiten da bigarren mailako predikazioa; eta elementu hori mendeko

perpausaren barnean ere ulertu behar da, isilpean, kasu honetan subjektu funtzioan: [Jon gelatik irten zen] / [(Jonek) negarrari eutsi ezin]; *Jonek* ezin dio negarrari eutsi; moduzko perpausaren subjektua *Jonek* da. Antzera *Uxuek pozez beterik barre egin du* adibidean ere: [(Uxue) pozez beterik]; *Uxue* da pozez beterik dagoena, mendeko perpausaren subjektua. Gauza bera gertatzen da bigarren mailako predikazioa perpaus nagusiko objektuari begirakoa denean ere. *Begiak malkotan zituela eraman nuen Eneritz ospitalera* adibidean, azpimarratutako moduzkoa perpaus nagusiko objektuari (Eneritz) begirakoa da, eta elementu hori mendeko perpausoko subjektu modura interpretatzen dugu, nahiz eta isilean egon: [(Eneritzek) begiak malkotan zituela]. Berdin gertatzen da *Andoni ikusi dut burua altxatuta* adibidean, objektuari begirako bigarren mailako predikazioaren adieran: *Andoni* perpaus nagusiko objektua da, baina mendeko perpausoko isilpeko subjektua ere bera dugu; [(Andonik) burua altxatuta]. Bigarren mailako predikazioaren gaia ematen duen elementua perpaus nagusian eta mendeko perpausuan, bieran dago.

Orain arte azaldu ditugun adibideetan, bigarren mailako predikazioaren gaia, bi perpausokomunean duten elementua, subjektuaren funtzioan azaldu zaigu mendeko perpausuan; hori da arruntena, gehienetan aurkituko duguna. Baina mendeko perpausoko objektu zuzen funtzioa ere izan dezake bi perpausokomunean duten elementu horrek. Esaterako, *Suak erreta aurkitu nuen nire baserri zaharra* adibidean, *nire baserri zaharra* da predikaziogaia, eta mendeko perpausuan objektu zuzen modura ulertu behar da: [suak (nire baserri zaharra) erreta]. Gauza bera gertatzen da ondorengo adibideetan ere: *Euriak zeharo bustita itzuli zen atzo Ikertxo*; *Semearen jokabideak kezkatuta hurbildu nintzen eskolara*; *Inguruko guztiek baztertuta joan zen mundutik Irene*. Mendeko perpausoi begiratu honakoak ulertuko genituzke: [euriak (Ikertxo) zeharo bustita]; [semearen jokabideak (ni) kezkatuta]; [inguruko guztiek (Irene) baztertuta]. Beraz, bigarren predikazioaren gai den elementua mendeko perpausoko subjektu izatea da ohikoena, baina objektu zuzen modura ere ager daiteke. Eta baita zehar-objektu modura ere: *Kezkek barrua itotzen ziotela hartu zuen etxerako bidea Arantxak* adibidean, bigarren mailako predikazioa perpaus nagusiko subjektuari (Arantxa) begirakoa da, eta elementu hori mendeko perpausuan zehar-osagarria da; [Kezkek (Arantxari) barrua erretzen ziotela].



**40.4.2g** Erabilera predikatiboan azaltzen diren moduzko perpausak batzuetan *aukerakoak* izaten dira, eta beste batzuetan *nahitaezkoak* (§ 24.4.4) Bigarren mailako predikazioa dagoenean, gehienetan, aukerakoa izaten da predikaziozko elementua. Adibidez, *Arantxak etxerako bidea kezkatuta hartu zuen* perpausean, azpimarratutako zatia kentzen badugu, predikazio nagusiak zentzu berari eusten dio: *Arantxak etxerako bidea hartu zuela, alegia. Berdin orain arteko adibide gehienetan ere: Jon negarrari eutsi ezinik irten zen gelatik; Begiak malkotan zituela eraman nuen Arantxa ospitalera;* eta abar. Batzuk subjektuari buruzkoak izango dira, besteak objektuari buruzkoak, baina moduzko osagaia gabe ere perpausak zuzenak dira; moduzko perpausak *aukerako bigarren mailako predikatuak* dira horrelako egituretan.

Aditz gutxi batzuek, ordea, nahitaez eskatzen dute era honetako bigarren mailako predikazioa. Adibidez: *Aspertuta sumatu nituen ikusleak*. Kasu honetan *sumatu* aditzak objektua nola dagoen adieraziko duen osagai bat eskatzen du. *Ikasleak sumatu nituen*, egia da, esan daiteke, baina orduan *sumatu* aditzak beste adiera bat du: ‘bazirela sumatu nuen’, ‘beren hotsa entzun nuen’... Osa-garri predikatibo hauek aditzak eskatzen ditu, eta predikatuaren zentzua osatzen dute; aditzarekin batera zehazten dute harekin erlazionatutako argumetu(ar)en paper semantikoa, eta batzuetan esan daiteke predikatu konplexu bat osatzen dutela. Era honetako egiturei bide ematen dietenen artean izaten dira hautemate aditzak (*Haserretuta ikusi nuen udaltzaina; Nekatuta sumatu nuen zuzendaria*) edo nahia/desioa/beharra adierazten duten aditzak (*Ontziak ondo garbituta nahi ditut; Lan hau amaituta behar dut biharko*)<sup>6</sup>. Horrelako adibideetako moduzko perpausak *nahitaezko bigarren mailako predikatuak* dira.

Moduzko perpausak lehen mailako predikatu gisa azaltzen direnean, jakina, nahitaezkoak izaten dira, haiek baitira perpausaren predikatu nagusiak. Hona jarraian horrelako batzuk: *Telebista hondatuta dago; Tristurak jota dabil Begoña; Jonek guztiokin haserretuta jarraitzen du; Gure erabakiarekin zeharo*

<sup>6</sup> Horrelakoetan perpaus guztia gertakari bakar modura ulertu ohi da; horren ondorioz, aurreko adibideetako batzuk beste era batera ere eman daitezke: *Ontziak ondo garbitzea nahi ditut; Lan hau biharko amaitzea nahi dut.*

*harrituta gelditu zen Mikel; Osasunarekin kezkatuta dabil Aitor; Txominek begiak hazita dauzka; Semeak guztiz kezkatuta gauzka; Gauzak ez doaz guk espero bezala.* Aditz eta egitura kopulatiboak eta semikopulatiboak dira, eta predikatu nagusi izateak egiten ditu beharrezko azpimarratutako moduzko perpausak.

## 40.5. Kanpoko moduzko perpausak

**40.5a** Kanpoko moduzkoek perpaus osoa modifikatzen dute, perpaus nagusi osoari dagozkio: *Lehen esan dugun bezala, baleak ugaztunak dira; Egunkarian jartzen duenez, atzoko lurrikaran ehun lagun hil ziren.* Azpimarratu ditugun mendeko perpausak ez dute modua zentzu estuan adierazten; beren eginkizuna perpaus nagusian adieraziko denari ‘bidea ematea’ da, ondoren esango denaren iturria edo jatorria ematen digute; perpaus nagusiko predikaziotik kanpora daude, perpaus nagusi osoari dagozkio —ez aditzari edo aditz sintagmari bakarrik— eta perpaus nagusiko adierazpena kokatzen laguntzen digute. Adberbio soilak aztertu ditugunean ere aipatu dugu adberbio batzuek perpaus osoa modifikatzen dutela: *tamalez, zorionez, egia esan* eta abar. Gauza bera gertatzen da mendeko perpaus adberbialekin ere. Perpaus nagusitik pausaz bereizita egoten dira, gehienez aurretik, baina ondoren (*Baleak ugaztunak dira, lehen esan dugun bezala*) edo tarteki modura ere (*Baleak, lehen esan dugun bezala, ugaztunak dira*) ager daitezke<sup>7</sup>. Ez dira galdegai izaten, eta ezeztapenaren eraginpetik kanpora agertzen dira. Alegia, *Leire ez da dieta eginda argalduko* diogunean —barneko moduzkoa—, ezeztapena azpimarratutako zatiari ere badagokio; aldiz, *Esan didatenez, Leire ez zegoen kaltetuen artean* esatean, azpimarratutako mendeko perpausa ezeztapenaren eraginpetik kanpo dago. Gauzak horrela, gerta daiteke perpaus berean era honetako kanpoko moduzko bat eta barneko moduzko garbi bat edo bigarren mailako

---

<sup>7</sup> Era honetako osagaiak, predikazio nagusitik kanpokoak izanik, askotan diskurtsoko zenbait ñabardurari edo harremani egiten diete erreferentzia, eta diskurtsu markatzaile eginkizunetan sarri erabiltzen dira.

predikazioa duena batera azaltzea: *Egunkarian jartzen duenez, konpainia horrek iruzur ugari eginez lortu zuen arrakasta* (lehena kanpoko moduzkoa, bigarrena aditzari begirako barneko moduzko adjuntua); *Garbi ikusi duzuen bezala, txirrundulariak guztiz nekatuta iritsi dira* (lehena perpausaz kanpoko moduzkoa, ondoren bigarren mailako predikazioa gauzatzen duen barneko moduzkoa). Gerta daiteke, halaber, forma bera eginkizun desberdinetarako erabiltzea: *Garbi ikusi duzuen bezala, atzoko etapa gogorrean iritsi ziren bezala helmugaratu dira txirrundulariak gaurkoan ere, mendate gutxiagokoa izan arren*. Izaera eta funtzio sintaktiko desberdinak baitituzte kanpoko eta barneko moduzkoek.

**40.5b** Kanpoko moduzko perpausak ere ez dira guztiak berdinak, eta modifikatzen duten perpausarekiko harremanean ñabardura desberdinak agertzen dituzte.

**40.5c** Batzuetan, *enuntziatzeari berari buruzkoak* dira mendeko perpausak: *Benetan hitz eginez, ez nuen uste lortuko zenuenik*; *Labur esanda, ekintza primeran irten da*. Lehenengo adibideko azpimarratutako zatian ez gara ari ‘uste izatearen’ moduz, edo ‘lortzeko’ moduz: hizketan hastearen edo esaten denaren arrazoia edo modua aipatzen ditu; komunikazio ekintzari dagokio, ez predikazioari berari. Hitza ateratzeko edo mintzatzeko modua edo arrazoia deskribatzen dute, modu edo arrazoi hori era zabalean hartuta: handik aurrera esango dena zer eratan edo zer testuingurutan esango den. Esaten denaren luze/laburra, benetakotasuna, sakontasuna, zehaztasuna, asmoa, arrazoia edo testuingurua bezalakoak aipatzen dira: *Gauzak ondo aztertuz, azken urte hauek ez dira hain txarrak izan*; *Zintzoak izanez, Mareni aitortu beharko genioke proiektuari egin dion ekarpena*; *Zehatzak izanez, aitortu behar da bertakoen arteko liskarra dela bereziki, ez kanpokoekikoa*; *Laburtuz, gauzak ez dira guk nahi bezala aterra*; *Gaia aldatuz, uste dut bihar eguraldi ona izango dugula*; *Harira itzuliz, farmaziako erosketak gaur egitea dugu egokiena*. Askotan esate aditzak (*esan, galdetu, hitz egin, adierazi...*) edo gogo aditzak (*pentsatu...*) azaltzen dira mendeko perpausean, eta aditz horiek adierazten duten ekintza/gertakaria nola gauzatuko den zehazten duen elementu bat —sarri adberbioa bera— agertzen da (*benetan hitz eginez, labur adieraziz, egia esanda, ondo pentsatuta eta abar*);

gainera, mendeko perpausaren ondoren isilpean dagoen esate aditz bat uler daiteke: *harira itzuliz/laburtuz, (esan dezagun)*...

Esaten denari buruz hiztunak duen jarrera azaltzen dutelarik, era honetako kanpoko moduzkoak hiztunari begirakoak izaten dira adierazpen perpausetan: lehenengo eman dugun adibidean igorleak egingo duen komunikazio-ekintzaren benetakotasuna iragartzen da, bigarrenean laburtasuna edo sintesia. Baina jarraian galdera bat dagoenean (*Benetan hitz eginez, zuk egin al duzu?*; *Labur esanda, ondo irten al da ekintza?*), entzuleari begirako bihurtzen da mendeko perpaus bera: entzuleari egiten zaio orain benetakotasun edo laburtasun eskaera. Horrelakoetan *-t(z)eko* menderagailua —bereziki helburuzkoetan erabili ohi dena— hauek adina edo gehiago erabiltzen da (*Labur esateko, ekintza oso gaitzki irten da*), baina eginkizuna berbera da: enuntziazioa nola edo zergatik egingo den adieraztea, esate ekintzari bide ematea. Enuntziatioari buruzko moduzko hauek bestelako balioak ere hurbil izaten dituzte: *Ondo pentsatuz, bizitza gogorra da*; uler daiteke moduzko erara, edo baldintza gisa ('ondo pentsatzen bada').

**40.5d** Beste batzuetan moduzko adberbio sintagmak enuntziatuari buruzkoak izaten dira, perpausetan esaten denari buruzko 'modua' azaltzen da, eta perpausaren modalitatearekin (hiztunaren ziurtasun maila esango duenez, eta abar) loturik egoten dira (*Dirudienez, Josu datorren urtean Bilbora joango da*), edo baieztatzen dena zerbaiten edo norbaiten baitan jartzen dute: *Aneren arabera, Manexek ez du ezer larririk*. Berdin gerta daiteke mendeko moduzko perpausekin: *Anek dioenaren arabera, Manexek ez du ezer larririk; Itxural/aztarna guztiek azaltzen dutenez, Josu datorren urtean Bilbora joango da; Medikiak esan duenez, Manexek ez du ezer larririk; Egunkarian jartzen duen bezala, auto elektrikoak oso bizkor ugarituko dira; Alabantza, esate baterako, alaba antza da bistan dagoen arabera* (Mitxelena); *Hau da atzenean jaiera bat ondasun handiak berekin dakartzana, orain ikusiko dugun bezala* (Agirre Asteasukoa). Adibide guztietan ere ikusten dugu mendeko perpausa pausa batez berezirik dagoela; nolabaiteko 'perpaus orde' moduko bat da, eta perpaus nagusian esaten duena berresteko balio du, edo bere egitasuna zeren arabera den azaltzeko. Jakina, nekez izango dira horrelakoak galdegai.

**40.5e** Perpaus nagusiaren aurretik, neurri batean aurreko bi multzoetakoen antzera joan ohi dira ondorengoak bezalakoak ere: *Aurrekontuei dagokienez, iazkoak luzatuko direla uste dut; Etiopiaz ari garela, nahitaezkoa da etnien eta hizkuntzen ugaritasuna aipatzea; Lekukotasun idatziei erreparaturik, eta esparru geografikoari gagozkiola, esan daiteke -tuta moldea Hegoaldeko tradiziokoa dela* (EGLU-VII: 310). Adibide hauetan, azpimarratutako zatiaren bidez mezua zeri buruzkoa izango den aurreratzen da, mintzagaia nabarmenduz; hiztunak zer ikuspegitik hitz egin nahi duen, hizketagaia zein izango duen aurreratzen dute. Baina aurreko bi multzoetan (enuntziatioari buruzkoetan eta enuntziatuari buruzkoetan) ez bezala, aurreratutako elementuak predikazioaren barnekoak dira hemen, eta alde horretatik, perpausari buruzko kanpoko moduzkoen artean sartzea zaila gertatzen da.

Antzera gertatzen da ondorengoak bezalakoekin ere: *Ahal zuten hots gutxienez eginez, gazteak barnetegitik kanpoko askatasunera irten ziren; Xehetasun guztiak aztertuz, bere plangintza pixkanaka borobilduz joan zen*. Hauetan ere perpausaren aurretik eta komaz bereizita azaltzen zaizkigu mendeko perpausak, ondoren etorriko den perpaus nagusiari nolabaiteko marko orokor bat emanaz; baina azken batean, aurreratutako elementuak dira, eta perpaus nagusiko predikazioari dagozkio. Ezin sartu kanpoko moduzkoen artean.

## 40.6. Menderagailuak eta osaera

**40.6a** Gramatika honetan mendeko perpausak balio semantikoaren arabera sailkatu eta aztertu ditugu (ikus 29. kapitulua). Horrela egin ohi da gramatika gehienetan. Baina sailkapen hori ez da beti bat etortzen mendeko perpausen osaera sintaktikoarekin; alegia, ez da beti gertatzen mendeko perpaus mota bat osatzeko molde edo menderagailu jakina(k) eta berezitua(k) izatea, edo alderantziz, menderagailu jakin batek edo batzuek beti balio semantiko bat eta bakararra bideratzea. Oso garbi ikusten da hori moduzko perpausekin: gehienetan oinarrian adiera zabaleko menderagailuak daude, mota askotakoak; eta gero, menderagailu horiei modua adierazteko egokiak izan daitezkeen postposizioak, izenak edo adberbioak eransten zaizkie.

**40.6b** Aditz jokatugabeetatik abiatutako formak dira moduzko perpausak osatzeko gehiena erabiltzen direnak. Gogora dezagun, jokatugabetasunak berak menderakuntza markatzen duela euskaraz. Aditz partizipioa oinarritzat hartzen dutenak dira maiztasunik handienekoak; bereziki, partizipioari artikulua erantsiz (*Laguna sendatua ikusi dut*) eta *-ta*, *-rik* edo *-z* postposizio itsatsiak erantsiz sortzen direnak: *-tuta* (*saiatuta*), *-turik* (*saiaturik*), *-tuz* (*saia-tuz*). Guztiak ere adiera irekiko formak dira, eta beste balio batzuk adieraziz ere aurkituko ditugu. Horien alboan, *-tu* partizipioari postposizio askeak erantsiz osatzen direnak ere baditugu; gehiena erabiltzen direnak: *-tu ahala* (*hartu ahala*), *-tu arau* (*hartu arau*), *-tu gabe* (*hartu gabe*), *-tu barik* (*hartu barik*), *-tu beharrean* (*hartu beharrean*), *-tu nahirik* (*hartu nahirik*), *-tu gurarik* (*hartu gurarik*), *-tu bezala* (*agindu bezala*) eta abar. Hauetako bakoitzak forma desberdinak izan ditzake, amaieran erants daitezkeen postposizio askeen eta hizkeraren arabera.

Aditz izenaren gainean ere eraikitzen dira moduzko balioa duten moldeak: *-tzeke* (*saiatzeke*) da erabiliena. Gero, *-tze* daraman aditz izenari *-ko* erantsi, eta ondoren modu-izen jatorriko zenbait postposizioz hornitutakoak daude: *-tzeko moduan* (*ikusteko moduan*), *-tzeko eran* (*ikusteko eran*), *-tzeko gisan* (*ikusteko gisan*), *-tzeko maneran* (*ikusteko maneran*), *-tzeko zorian* (*hiltzeko zorian*) eta abar; hauetako bakoitza, berriro ere, forma desberdinetara irekia. Horiez gain, *-tzekotan* (*saiatzekotan*), *-tzearekin* (*saiatzearekin*) eta *-tzeagaz* (*saiatzeagaz*) formekin ere lortzen dira moduzko balioak.

Aditzoina oinarri duten moldeak gutxiago erabiltzen dira, eta hein batean markatuak dira, esapide gisakoak, esango genuke: aditzoin juntatuak (*xuti eta eror*), [aditzoina + *ahala* + aditzoin bera] moldekoak (*higi ahala higi*), [aditzoina + *-ka*] (*gaizki esaka*), [aditzoina + *-ki*] (*ibilki*). Bereziki ekialdeko euskalkietako literatura tradizioan erabiltzen dira.

**40.6c** Perpaus jokatuaren artean ere ikuspegi orokorra bera da: menderagailu irekiak erabiltzen dira, edo/eta modutik hurbil dauden izenak, adberbioak edo postposizioak eransten zaizkio menderagailuari. Adibidez, *-ela* eta *-elarik* atzizkiez hornituriko perpaus mendekoeekin modua adieraz daiteke (*Sudurretik odola dariola hurbildu zait Peru; Begietan negarra zuelarik irten zen me-*

*dikuarenetik*), beste balio batzuk ere izan ditzaketen arren. Horrez gain, erlatibo-  
bozko egitura ere modua adierazteko baliabide askoren oinarrian dago: batetik,  
ardatz gisa modu izenak (*antz, arau, era, modu, molde...*) dituzten postposizio  
sintagmei bidea emanez (*erakutsi digun moduan; esan duen arabera* eta abar)<sup>8</sup>;  
bestetik, ardatzik gabeko perpaus erlatiboak ditugu (EGLU-V: 206-212), baina  
aditzondo bat daukatenak (*bezala, legez...*), parekotasunezko konparazio per-  
pausen barnean sartu ohi direnak, baina moduaren parekotasuna adierazten  
dutelarik, semantikoki modua adierazteko ere balia ditzakegunak (*Esan digun  
bezala/legez jarri dizkiogu altzariak*).

Horiez gain, zehar-galdera egituren bidez ere eman daiteke moduaren adiera:  
*Nork esaten duen, jendeak ez du berdin jokatzeko; Zenbat saiatzen zaren,  
emaitza hobea edo txarragoa lortuko duzu*. Aurreko adibide horietan galde-  
tzaile bat eta *-en* menderagailua ditugu, eta zehar-galderatzat har daitezke  
—‘aditz nagusirik gabeko zehar-galdera zatizkoak’ (ikus EGLU-V: 117-120)—,  
gauzak zeren arabera diren edo zein modutan egin diren esaten digutenak. Eta  
amaitzeko, *-enez* forma ere baliatu dezakegu: aditz jokatuari *-en* menderagai-  
lua erantsi, eta ondoren instrumentalaren marka gehituz lortua; balioaren alde-  
tik nahiko irekia, kanpoko moduzko perpausak eratuz ere azal daiteke: *Zuk  
esan duzunez, bihar eguraldi txarra izango dugu*.

**40.6d** Jarraian modua adierazteko molde hauek guztiak aztertuko ditugu.  
Lehenengo aditz jokatu gabeen gainean eraikitakoak emango ditugu, hauek  
baitira gehiena erabiltzen direnak; ondoren aditz jokatu dutenak; nahiz  
eta ohartzen garen jokatu gabeko guztiak ez direla jokatu guztiak baino era-  
biliagoak.

<sup>8</sup> Esan behar da, halaz ere, ez dagoela beti argi perpaus hauek beste perpaus baten mende-  
koak izan beharrean, ardatza den izen horren mendekoak ez direnik. Arazoa postposiziodun  
izen horiekin egindako azterketan datza. Postposizio batekin hornituriko izen hutsak direla  
baldin badiogu, hots, [modu + postposizioa], [molde + postposizioa], etab., haien ezkerrean  
dauden perpausak perpaus erlatibo arruntak lirateke, baina ardatz diren izen postposiziodun  
horiek benetako forma fosildutzat jotzen baditugu, aldiz, modua adierazten duten mendeko  
perpaustzat jotzeak ez dirudi desegokia.

## 40.7. -turik eta -tuta

Euskaraz moduzko perpausik arruntenak perpaus jokatugabeak dira; oso arruntak dira bereziki -turik eta -tuta atzizkien bidez osatutako perpaus mendekoak; moduzko gertaera burutuak adierazteko forma ohikoenak dira bi hauek. Baliokide dira esanahiz -turik eta -tuta, eta, forma-desberdintasunaz gain, bien arteko alde bakarra distribuzio dialektalarena da: ez dute bestelako desberdintasun nabarmenik.

### 40.7.1. -turik

**40.7.1a** Aditz partizipioari -(r)ik atzizkia gehituz osatzen da molde hau. Modu balioa duten gertaera burutuak adierazteko erabiltzen da; modu garbia edo, sarrerako atalean azaldu dugun bezala, moduzkotasun maila horretatik pixka bat aldentzen direnak adieraz daitezke molde honen bidez: barneko moduzkoak nahiz kanpoko moduzkoak era ditzake. Marka horrek berak sortzen ditu moduzko (nolakotasunezko) adberbioak ere: zenbait izeni edo ize-nondori -(r)ik atzizkia erantsiz lortzen ditugu moduzko adberbio batzuk (*zabalik, hutsik, isilik, bizirik, gaixorik, pozik, zutik...*). Funtzio sintaktiko bera dute adberbio hauek eta moduzko perpaus mendekoek: *Botila hutsik ikusten dugu* (adberbioa); *Gure laguna zeharo nekaturik ikusten dugu* (moduzko perpausa).

**40.7.1b** Gatozen, molde honen erabileraren berri emateko, adibide batzuetara: *Leher eginik ailegatu ginen Baigurako tontorrera*; *Nazkaturik nago beti gauza bera aditzeaz*; *Lagunen portaera ikusirik, bakarrik ibiltzea erabaki zuen*; *Lekukoak esandakoa entzun ondoren, guztiz harriturik geratu da epailea*; *Ikusitakoa burutik ezin kendurik etorri zen aireportutik*. Adibide guztiz arruntak dira.

Euskal literaturako testu klasikoetan ere ugari ageri dira, ekialdean zein mendebaldean, euskararen eremu osokoa baita -turik moldea: *Gizon galilearrak, zer ari zarete hor begiak zerurat altxaturik?* (Larregi); *Izpiritu mehe, beste*



*mundukoak, gaiaren eta itxuraren bitartekoak han zebiltzan harat-honat, argilarrainez inguraturik (Orixe); Isil, begi-kuku, burua makurrik, arkume salgai antz hor-hemenka daude zenbait jaun andere, goi-minak harturik (Orixe); Lili-gainean erle bat orain hego txabalez jarririk eztigai ona miazten dago haren barne samurretik; inork al daki maita badira berengaiz ezagaturik (E. Arrese). Egia da garai berriagoetan -tuta moldea erabiltzen dela gehienbat Hegoaldean, baina argi utzi behar da Hegoaldeko testu klasikoetan ere aurkituko dugula -turik.*

**40.7.1c** Partizipio mota hau aditz modalen gainean ere eratzen ahal da. Adibidez: *nahi, gura eta ezin: Mikel oposizioetara aurkeztu da lanpostua lortu nahirik (nahian); Bide onera itzuli ezinik dabil azken aldi honetan; Txakur bat zegoen kalean, etxera sartu gurarik.*

**40.7.1d** Orain arte eman ditugun adibide gehienak baiezko perpausak ziren. Ezezko perpausetan, ordea, badira debeku batzuk. -turik-en bidez eratzten diren perpausen ezezko formetan, ez da ohikoa ‘ez ...-turik’ erako egitura: ?ez eginik, ?ez etorririk... Adibide batzuk hartzen baditugu, argi-ago ikusiko dugu kontua: *Mozorroturik irten zen kalera; Ahizparen jertsea jantzirik azaldu zen bilerara; Arerioekin kezkatu bizi zen.* Perpaus hauek bitxi samarrak gertatzen dira ezezka honela emanda: ??*Ez mozorroturik irten zen kalera; ??Ahizparen jertsea ez jantzirik azaldu zen bilerara; ??Arerioekin ez kezkatu bizi zen.* -turik-en bidez eratzen direnen ezezko forma emateko bide arruntena gabe edo barik postposizioetara jotzea da (-tu gabe / -tu barik): *Mozorrotu gabe/barik irten zen kalera; Ahizparen jertsea jantzi gabe/barik azaldu zen bilerara; Arerioekin kezkatu gabe/barik bizi zen; Bere lanak amaitu gabe/barik irten zen lantokitik. Nahi aditzarekin, batzuetan ezeztapenari eransten zaio -ik marka: Haurra etxera joan nahi ezik dago.* Horien alboan, esanahiz apur bat desberdinak, ezin daramaten formak ere erabil daitezke moduzkoetan ezeztapena adierazteko (-tu ezinik; ezin ...-turik): *Ikusmena galtzen ari da, eta laster irakurri ezinik geldituko da; Ezin sosegaturik dabil alaba aspaldi honetan.* 40.10 atalean (-tu + postposizioa) ikusiko ditugu aukerok xehetasun handiagoz.

### 40.7.2. -tuta

**40.7.2a** Aditz partizipioari jatorrian emendiozko juntagailua zen *-ta* gehituz osatzen da molde hau. Modu-balioa duten gertaera burutuak adierazteko erabiltzen, eta, aurreko atalean esan dugun bezala, *-turiken* baliokidea da esanahiz: distribuzio dialektalak baino ez ditu bereizten. Lekukotasun idatziei erreparaturik, eta esparru geografikoari gagozkiola, esan daiteke *-tuta* moldea Hegoaldeko tradiziokoa dela, ez dela Iparraldeko testuetan ageri. Ez du esan nahi, ordea, Hegoaldean *-tuta* bakarrik erabiltzen denik. Esan berri dugun bezala, *-turik* moldea duten perpausak historikoki orokorrak dira, euskararen esparru guztietakoak, nahiz gerora, garai berriagoetan, *-tuta* nagusitu zaion mendebaldean.

**40.7.2b** Hona *-tuta* moldearen adibide batzuk, asmatuak eta literatura tradiziokoak: *Lan asko eginda iritsi da lanpostu horretara*; *Leher eginda gaude ibilaldi luzea egin ondoren*; *Buruan ongi jarrita darama txapela aitona*; *Lagunaren portaerarekin etsita, kasurik ez egitea erabaki genuen*; *Lokatzean finkatzen dugu oinarria, eta bere gainean eraikitzen dugun guztia berehala erortzen zaigu hauts bihurtuta* (Mitxelena); *Baina jaramonik egin barik, pozik eta barreka joan ziren euren kobetara, zorroa lepoan hartuta* (Bitaño); *Oin bateko oinetakoak kendu, galtza izterrerraino ekarri eta zango zuria zintzilik utzi zuen uretan sartuta* (Anabitarte); *Eta hura ere joan zen sermoira, talo bat golkoan hartuta* (Anduaga). Hegoaldeko tradizioan oso ohikoak dira molde honi jarraitzen dioten adibideak, eta barneko nahiz kanpoko moduzkoak adierazteko erabil daitezke.

**40.7.2c** Nola ematen dira *-tuta* moldearen duten perpausak forma ezezkoan? *-turik* moldearen ezezkoan emateko modu berean adierazten da ezezkotasuna *-tuta* moldearen kasuan ere. Modurik arruntena, *-tu gabe* moldearen erabiltzea da (bizkaieraz, *-tu barik*): *Telebista ikusi gabe/barik ere ondo bizi daiteke*; *Gehiegi nekatu gabe egin daiteke ibilaldi hori*; *Ez daki ingurukoak gogaitarazi gabe ibiltzen*. [-tu + postposizio] egiturei buruzko atalean, ezezkoari eskainitako azpitalean aztertzen dira ezezko forma hauek (§ 40.10g).

Bestalde, ez da behar bada molderik erabili, baina *ez* partikula ezezkoa txerta daiteke moldearen bi zatien bitartean ere: *-tu + ez + -ta* → *-tu ezta*.

Hegoaldeko zenbait lekutan arruntak dira era honetako egiturak, *nahi* eta *gura* aditz modalen ondoren: *Hori etxetik atera nahi ezta dago*.

**40.7.2d** Badira, *-ko* atzizkia erantsirik, *-tuta* oinarritzat hartzen duten molde batzuk ere; modu-adiera duten izen edo postposizio batzuekin agertu ohi da oinarri hau (*-tutako eran*, *-tutako moduan*, *-tutako legez*), eta adieraren aldetik moduzkotzat jo behar dira, nahiz osaerari dagokionez beste jatorri bat duten. Hona zenbait adibide: *Esandako moduan dena egiten baduzu, arratsaldeko zazpietan aurkituko duzu semea zuhaitz handiaren ondoan* (Oskillaso); *Ofizialenak izena ere ematen diote eta Eskualtzale-Biltzarrak argitaratutako eran ipintzen dugu* (Orixe); *Aldaparen goenera heldu ziren eta han zegoen lautada ezagunean gero ta agudoago zihozen, lehenago esandako eran* (Erkiaga).

Formaz desberdina izan arren, balio bera du partizipio-oinarria duten postposiziozko moldeetan bilduko dugun beste honek ere: *-tu bezala: Agindu bezala egin genuen lana; Lehenago aitortu bezala, gero eta agudoago zihozen*.

Hauek guztiak (*-tu bezala*, *-tu moduan*, *-tu legez*, *-tu eran*...) aditz laguntzailearen elipsiaren ondorioz laburtutako perpaus jokatuak ditugu, azken finean, eta 40.14 eta 40.15 ataletan ematen da molde hauen guztien berri zehatzagoa.

**40.7.2e** *Nahi* izan aditzaren gainean emanda, *nahita* forma lexikalizatua osatzen du *-ta* atzizkiak: *Nahita egin zuela konturatu ginen geroago*. Esan bezala, lexikalizatutako adberbioa da *nahita*, eta ezin du aurretik beste aditz bat hartu. Okerrak dira, adibidez, honako hauek: *\*Gure elkartean sartu nahita dabil aspaldion; \*Lana laster bukatu nahita ibili da igeltseroa, eta gero komeriak!* Forma horren ordez, *nahirik* edo *nahian* erabiltzen da: *Gure elkartean sartu nahirik/nahian dabil aspaldion; Lana laster bukatu nahirik/nahian ibili da igeltseroa, eta gero komeriak!*

## 40.8. *-tua(k)*

**40.8a** Partizipioari artikulua —eta, dagokionean, pluraleko marka— erantsiz osatzen da molde hau, eta batzuetan moduzko balioa adieraz dezake. Erabilera

eta ingurune sintaktikoari dagokionez badu parekotasuna aurretik eman ditugun *-tuta* eta *-turik* moldeekin, baina badira desberdintasunak ere. Partizipioa artikuluaekin ematean adjektibo funtzioan jartzen da, eta horren ondorioz, predikazioari loturik agertzen dira horrelako egiturak, bai predikatu nagusi modura (*Nekatua nago*), bai bigarren mailako predikatu gisa (*Aldatua itzuli da Ameriketatik*); aurrekari bat izaten dute, eta aurrekari horrekin nahitaezkoa du numero komunztadura: *Laguna sendatua ikusi dut*; *Lagunak sendatuak ikusi ditut*. Bestalde, euskararen eremu guztietan ez dira gauzak berdin gertatzen.

**40.8b** Ekialdean *-tua(k)* moldea *izan/ukan* aditzekin ager daiteke: *apaindua da*; *apainduak dira*; *behartuak dira/dituzte*; *ahantziak dira/ditugu*<sup>9</sup>. Mendebaldean ez da ohikoa, gaur egun behinik behin, ekialdeko azken joskera hori [partizipioa + *-a(k)* + *izan/ukan*]; horien ordeaz *egon/eduki* aditzetara jotzen da (*apaindua dago*; *apainduak daude*; *behartuak daude/dauzkate*; *ahantziak daude/dauzkagu*), baina hauek ere prosa landuan azaltzen dira bereziki; mendebaldean *-tuta* eta *-turik* erabiltzen dira nagusiki horrelako egituretan (*apainduta/apaindurik daude*; *ahaztuta/ahazturik dauzkagu*). Beraz, aditz horiekin, eta oro har predikazio atributiboa onartzen duten aditzekin (*ibili*, *iruditu*, *aurkitu*, *ikusi*...) euskarak ondorengo aukerak ditu: ekialdean, *ahantziak/ahantzirik zeuden/zebiltzan*; mendebaldean, *ahaztuta/ahazturik zeuden/zebiltzan*. Orokorra, hortaz, *-turik* moldea dugu; mendebaldean *-tuta* nagusitu zaio ia erabat; *-tuta* arrotza da ekialdean; eta gauza bera gertatzen da mendebaldean, prosa landutik kanpo, *-tua(k)* moldearekin. Horiek horrela, esan beharra dago *-tua(k)* formaz baliatzen diren halako joskerak ekialdekoak direla soilik, izatez.

**40.8c** Moduzkotasunaren esparru zabalean, zer motatako balioekin erabiltzen da *-tua(k)* moldea? Esan bezala, predikazioari lotua azaltzen da: *Laguntzarik ez badugu*, *galduak gara/gaude*; *Nekatuak aurkitu nituen ikasleak*; *Atzerriko egonaldiaren ondoren zeharo antzaldatua itzuli zen Mirentxu*; *Ahantziak dituguzuk eman zenizkigun aholkuak*; *Mindua du oraindik belauna izandako erorikoagatik*; *Askatuak ikusi dizkiot oinetakoaren lokarriak haur horri*; *Sukaldeko*

---

<sup>9</sup> *-tuta* eta *-turik* atzizkiak ez dira bateragarri (oro har, zubereraz eta beste hizkera bakanen batean izan ezik) *izan/ukan* lotura aditzekin: *\*ahantzirik/\*ahaztuta dira/ditugu*.

lanak bukatuak utzi eta lotara joan zen Mikel; Bustia iritsi nintzen etxera erauntsiaren ondoren. Era honetako moduzkoak predikatu nagusi nahiz bigarren mailako predikatu izan daitezke, eta elementu predikatiboen ezaugarri eta baldintza guztiak betetzen dituzte; euskalki eta erabilera kontuak alde batera utziz, *-tuta* eta *-turik* moldeekin bezalako balioa izaten dute.

Batzuetan tarteki modura edo pausaz bereizita ere azaltzen dira molde honen gainean eraikitakoak, eta orduan ere balio predikatiboa izaten dute. Adibidez, ondorengo adibidean bigarren mailako predikazioa dago: Mutikoak, arbolara igoa, sagarrari heldu zion; hots, kasu horretan, ‘sagarrari horrela (arbolara igorrik (zegoela)) heldu’ adierazi nahi izan lezake; subjektuari begirako egoera bat azaltzen da, eta aldi berean, nola heltzen zaion sagarrari. Adibide gehiago: Eta haien otoitzez eta nigarrez hunkitua, eriak ukitzen ditu, benedikatzen ditu, eta gaitz guzietarik sendatzen (Laphitz); Josuk, behingoz ikasgelan adi jarria, irakaslearen argibideak entzun zituen; Herriko txirrindulari taldeak, azken garai-penekin indartua, ibilbide gogorrari aurre egin zion; Zuzendari zaharrak, guztiz nekatua, arazoari heldu behar izan zion. *-tua(k)* moldea duten era honetako adibideek, beste batzuetan, nolakotasuna edo ezaugarria adierazten dute modua baino gehiago, nolabaiteko atribuzioa: Bere baitharik atheraia, Jainkoa baithan sartua, hainbertze nigar egiten zuen, non begiak eritu baitzitzazkion (Laphitz); Gazte gaixoak, horrela ikasia, ezin zuen bestela jokatu; Neskatoak, kanpoan jαιο eta hazia, ez zuen ohitura haren berri; Gazteek, lan horietan ohitu gabeak, asko sufritu zuten; Untzia ordukotz urpe egina, goiti heldu da, bera eta bere gizon guztiak oso (Laphitz). Nolanahi ere, *-tua(k)* moldeko perpausa beti absolutiboan joaten da, erreferentzia egiten dion subjektua edo aurrekaria ergatiboa izanda ere. Eta ohartzen bagara, eman ditugun adibide guztietan subjektuari buruzkoak dira mendeko perpausak; baina ez da nahitaezko baldintza sintaktikoa, subjektuetara asimilatzen diren datiboekin ere azal daitezke: Mutikoari, bestela ohitua, ez zitzaion bururatu horrelakorik. Ez dirudi, bada, berezko muga formalik dagoenik, baina bai subjektuena izaten den rol semantiko hori betetzen dutenak direla aurrekari, nahiz morfosintaxiari dagokionez ez izan subjektu.

*-tua(k)* moldearekin osatutako tarteki hauetaz ari garela, bada nabarmendu beharreko beste ezaugarri bat ere: ezin dute denbora ondokotasunezko baliorik

adierazi. *-tuta* eta *-turik* moldeen gainean eraikitakoek bai, haiek ematen zuten horretarako aukera. Horrela, *Mutikoak*, *arbolara igorik/igota*, *sagarrari heldu zion* adibidean, *-tuta* edo *-turik* moldeekin, bi balio izan ditzake azpimarratutako zatiak: batetik, bigarren mailako predikazioaren balioa; bestetik, denborakondokotasunezkoa, aditz laguntzailea isilean uzten denean edo *-eta* enklitikoa dagoenean bezalatsu: *Mutikoak*, *arbolara igo*, *eta sagarrari heldu zion* / *Mutikoak*, *arbolara igo eta*, *sagarrari heldu zion*. Aldiz, *-tua* erabiliz, *Mutikoak*, *arbolara igoa*, *sagarrari heldu zion* moldearen adjektibo izaeraren ondorioz, lehenengo balioa bakarrik aurkituko dugu, eta bi gertakariren ('arbolara igo' – 'sagarrari heldu') denbora ondokotasunaren zentzu narratiboa ezinezkoa gertatzen da. Halakoetan, bada, ez dira sinonimo artikuluduna (*-tua*) eta bes-telako moduzko moldeak (*-tuta*, *-turik*): lehena adjektibo sintagma da, eta *-tuta/-turik* dutenak, berriz, adberbialak. Esanahi alde hori dela eta, artikuluduna da aukera bakarra narratiboki interpreta ez daitezkeen testuinguruetan: *Neskatoak*, *kanpoan jaio eta hazia*, *ez zuen ohitura haren berri*; hor ezinezkoak dira *-tuta* eta *-turik* (\**Neskatoak*, *kanpoan jaio eta hazirik/hazita*, *ez zuen ohitura haren berri*). *Izan/egon* aditzen baten isiltzearekin lot daiteke joskera hori, ['kanpoan jaio eta hazia (zelarik / baitzen / zen eta)'], eta hura agerian ematea litzateke halako joskerarik ez darabilten hizkeren aukera: *kanpoan jaio eta hazi(a) zen eta / zenez*.

## 40.9. *-tuz (-tuaz)*

**40.9a** Partizipioari instrumentalaren marka (-z) gehituz lortzen da moduzko perpaus jokaturgabe hau. Balio beza orain idatzi berri dugun esaldi honek adibidetzat: *Partizipioari instrumentalaren marka (-z) gehituz lortzen da moduzko perpaus jokaturgabe hau*. Nola lortzen da moduzko perpaus hau? 'Partizipioari instrumentalaren marka (-z) gehituz'. *Nola?* galderari erantzuten dio forma horrek: ... *gehituz*. Gauza bera gertatzen da instrumental marka duten hainbat adberbio moduzkorekin ere: *nekez*, *berriz*, *zinez*, *oinez*, *gogoz*, *berariaz*... -z instrumentalaren bidez lortzen dute modu adiera: adberbio hauek -z marka izenki bati erantsiz, eta moduzko perpaus bati (edo perpaus-

saren aditz jokatugabeari) erantsiz: *-tuz*. Adibidez: Asko irakurri<sup>z</sup> lortuko duzu jakintza; Lantokian ordu asko sartuz aberastu zen; Ezagunei laguntza eskatuz osatu zuen taldea; Lan eginez dirua egiten dela esan dit amonak; Marmarka ari izanez deus guti erdietsiko dugu; Batzuk irakurri<sup>z</sup> ilustratzen dira; beste batzuk, aldiz, entzunez; Euskara bera indartzen da euskalkien ekarria aprobetxatuz; Aldeko haizea baliatuz igo dute aldapa txirrindulariek; Ezina ekinenez egina.

**40.9b** Atalburuan *-tuz* eta *-tuaz* formak eman ditugu: bien arteko banaketa zeren arabera gertatzen den ez dakigularik, esan behar da forma mugatuan eta mugagabeen erabili izan dela molde hau: alde batetik, *-tuaz* [-tu + -a + -z] eta beste alde batetik, *-tuz* [-tu + -z]. Beraz, *-tuz* eta *-tuaz* formak aurkituko ditugu gure literatura tradizioan; erabilera baliokidean aurkitu ere. Iparraldean ez da *-tuaz* erabiltzen, eta Hegoaldean biak erabiltzen dira, *-tuz* eta *-tuaz*. Literatura tradizioan, *-tuaz* dago zabalduagoa Hegoaldean, baina gaur egungo erabileran *-tuz* ari zaio nagusitzen. Ikus ditzagun tradizioko adibide batzuk. **-tuz**: Hekien artean zegoen, beharriak landaturik, papera eskuan, entzun guztiak izkribatuz (J. P. Arbelbide); Ile-izarra ezagutuko duzu azienden ixter-arteari gibeletik ongi begiratu<sup>z</sup> (Duvoisin); Eskerrak bihurtu ondoan, barnez egin zuten elizaren ingurua, aldare guzietan otoitz egiten baratuz (Laphitz); Hazitik dator ordea landarea, eta ahizpek bere amaren jokaeraren ikasbide hartuz, lotsagarriri zapuztu zuten (Etxaide); Jaunaren hitzak jauzi egin zuen, haragia hartuz, mundura (Orixe). **-tuaz**: Eta zein zara zu, galdetu zion Jenobebak zutik jarri, eta zulo hartarantz begiratuaz (G. Arrue); Hala ere, tostak kendu eta lasaiki aztertuz, zuloa non egin erabaki zuen (Anabitarte); Egunero ordu laurden bat erlojuak atzeratuaz iritsi ziren Cuba izena duen erkalaren parera (J. A. Irazusta); Oina doi doi aldatuz, eta eskuan zeraman argia ozta eramana<sup>z</sup>, bere nagusiaren aurretik nolabait eskailerak igo zituen (G. Arrue).

**40.9c** *-tuz* eta *-tuaz* moldeen alboan, *-tzez* forma ere badugu, aditz izenaren gainean eraikia, eta beste balio batzuen artean modua ere adieraz dezakeena. Esan daiteke *-tzez* forma duten adibide klasikoak gehienbat ekialdeko egileen izkribuetan ageri direla (bereziki zubererazkoetan), eta ez direla oso arruntak: Luzatzez geroti gerora egitekoak, ardiesten du nehor herioak (Oihenart).

**40.9d** *-tuz/-tuaz* moldea erabiliz eraikitako moduzko perpausak ez dira beti *-turik* eta *-tuta* moldekoen baliokide izaten. Begira ditzagun adibide hauek: *Babarrunak janda etorri naiz lanera*; *Babarrunak janez etorri naiz lanera*. Lehenengoan modu-balioa duen gertaera burutu bat ematen zaigu: nola etorri den adierazten du, baina ‘nola’ hori, kasu honetan, dagoeneko burututa dagoen ekintza baten bidez adierazten da; bigarrean, *-tuz* moldea erabiliz, ez da gertaera burutua adierazten: une horretan gertatzen ari den ekintza bat ematen zaigu, eta ekintza horren bidez deskribatzen dugu modua. Desberdintasun hori erakusten duten bikoteak sortzea ez da zaila, bereziki perpaus nagusiko aditzak mugimendua edo aldaketa adierazten duenean: *Eusko Gudariak abestuta/abestuz etxeratu ziren*; *Negar eginda/eginez sartu zen*; *Elkarren artean gogor eztabaidatuta/eztabaidatuz inguratu zitzaizkigun*. Are gehiago, *-tuz* moldearen bidez batzuetan ezinezko gertatzen da ‘moduzko egoerak’ adieraztea: *Harriturik/\*harrituz nago*; *Lo gutxi eginda/\*eginez etorri naiz*; *Ikusleak asperturik/\*aspertuz daude*; *Buruan ongi jarrita/\*jarritz darama txapela aitonak*. Iduri du *-tuz* moldea erabiliz bereziki aditzari begirako moduzko perpaus adjuntuak osatzen direla; perpaus nagusiko aditzak adierazten duen ekintza zer prozesuren bidez edo zer eratara gauzatzen den adierazten dutenak.

Begira diezaiogun ondorengo adibideari ere: *Orain langintza biak utzirik bere jaiotetxean, Jauregin, kondaira zaharra eta euskara aztertuz bizi dana* (Labaien). Lehenengo mendeko perpausak, *-turik* moldea daramanak, adiera burutua du, eta egoera bat azalduz neurri batean modua ere adieraz dezake (‘langintza biak utzirik bizi da’); bigarrenak ere, *-tuaz* moldekoak, modua adierazten du, baina ia ez da modu-balioko gertaera burutu bat, edo egoera bat, baizik bizen-ekintza une horretan nola ari den gauzatzen edo gertatzen (‘kondaira zaharra eta euskara aztertuz bizi’)<sup>10</sup>.

---

<sup>10</sup> Beharbada partizipioari eransten zaion morfemaren izaerak izan lezake eragina balio desberdin horretan, *-tuta* eta *-tuz* moldeen kasuan behintzat. *-ta-k* eta juntagailuan du jatorria, eta errazagoa zaio ondokotasuna edo horretatik erator daitezkeen erlazioak adieraztea; eta horrek eragiten du modu-balioa duten gertaera burutuak bideratzea. *-z* postposizioa, berriz, nagusiki instrumentala da, eta lotuago legoke aditzari, eta aditzak adierazten duen ekintza hori nola jazotzen den deskribatuko duen moduari edo erari (*oinez ibili*; *eskuz margotu*; *zinez esan*; *nekez iritsi* eta abar).



Beste testuinguru eta adibide batzuetan, ordea, bi moldeak nahiko pareko gerta daitezke: *Saiatuta/saiatuz lortzen dira emaitza onak*. Beharbada *-tuta* erabiliz ‘saiatu ondoren’ adiera gehiago bideratuko da, eta *-tuz* erabiliz ‘saiatze ekintzaren jarduera’ azpimarratu nahiko da, baina testuinguru gehienetan biak antzeko gertatuko zaizkigu. Berdin ondorengo bikoteekin ere: *Iruzur eginda/eginez lortu dute arrakasta*; *Etxean gelditurik/geldituta/geldituz ez duzu lanik aurkituko*. Ez dugu ahaztu behar *-turik* eta *-tuta* moldeak gai direla aditzari begirako moduzko perpausak osatzeko ere: *Hitz eginda/hitz eginez konpon-tzen dira arazoak*; *Lagun guztiak behartuta/beharturik/behartuz osatu genuen zerrenda*; *Bi aldeak mahai batean eserarazita/eserarazirik/eserarazirik lortu genuen greba deialdia bertan behera uztea*. Antzera gertatzen da aditzarekin lotura txikiagoa duten hauetan ere: *Hitz horiek esanik/esanda/esanez, bileratik irten zen*; *Esku artean zituen lanak alde batera utzirik/utzita/utziz, anaiari laguntzera joan zen*; adibide hauetan kanpoko moduzkoak ditugu.

**40.9e** *-tuz* eta *-tuaz* moldeen balioaz ari garelarik, ezin da aipatu gabe utzi gaur egungo zenbait testutan azaltzen den erabilera bat: *??Leihotik erori zen, hanka hautsiz*. Zertan urruntzen da hau orain arte eman ditugun adibideetatik? Mendeko perpausuan adierazten dena (‘hanka haustea’), perpaus nagusiko ekintzaren (‘leihotik erori’) ondorioa da; leihotik erori ondoren gertatu zena. Ez die orain arte eman ditugun moduzkoen moldeei jarraitzen (aditzak adierazten duena nola betetzen den adieraztea; eta abar), eta tradizioan ongi finkatu gabea da. *Sasi-menderatu* ere deitu izan zaie, eta juntaduraren bidez ematekoak diren bi proposizio menderatu-forman ematen dira. Hona badaezpadako erabilera honen adibide gehiago: *??Gauari amaiera emateko gitarra-ren laguntzaz abesti batzuk kantatu ditugu, era honetan amaiera emanaz egunari*; *??Galdera errazetan huts egin du, harridura sortuz lehiakideengan*. Esan bezala, era honetako egituretan tradizioan juntadura egituretara jo izan da nagusiki. Lehenengo adibidea hartuz: *Leihotik erori zen, eta hanka hautsi zuen*. Edo aditz laguntzailearen elipsiarekin: *Leihotik erori zen, eta hanka hautsi; Leihotik erori eta hanka hautsi zuen*. Beste bi adibideetan ere egokia-go jotzen dira juntaduradun egiturak. Adibidez: [...] *eta era honetan gauari amaiera eman diogu; Galdera errazetan huts egin du, eta harridura sortu lehiakideengan*.

**40.9f** Oker bat zuzentzen: *-tuz* ≠ *-tzen*. Gaur egun maiz aski ez dira behar bezala bereizten *-tuz* formadun moldeen eta *-tzen* formadunen eremuak; nahastu egiten dira, eta batzuetan bigarrena lehenaren ordean erabili. Aditz nagusiari egiten zaion galderaren erantzunak bereizten ditu bata eta bestea. *Nola?* galderari erantzunez gero, *-tuz* formadunak izango genituzke; eta *zertan?* galderari erantzunez gero, berriz, *-tzen* formadunak.

Eman dezagun adibide bat: *Irakurritz ikasi dute haurrek; Irakurtzen ikasi dute haurrek*. Bi perpausak dira zuzenak, eta ematen du bi adibide hauetan bataren zein bestearen eremuak ongi mugatuta daudela. Lehenbiziko adibidean, ‘nola ikasi duten’ da kontua, hau da, ikasteko moduz ari gara, eta beste zerbait ikasi dute, ez irakurtzen. Bigarren adibidean, berriz, haurrek ikasi dutenaz ari gara, ‘zer egiten ikasi duten’ edo ‘zertan ikasi duten’ da kontua; eta kasu honetan, irakurtzen ikasi dute. Hau litzateke lehenbiziko perpausa osatzeko modu bat: *Irakurritz ikasi dute haurrek ingelesezko testuak interpretatzen*. Bigarrena osatzeko aukera posible bat: *Asko ahaleginduz eta gurasoen laguntzari esker azkenean irakurtzen ikasi dute haurrek*.

Kontua da batzuetan nolakotasuna adierazteko *-tzen* formadun moldeak erabiltzen direla, oker erabili ere, *-tuz/-tuaz* formadunak erabili beharrean. Moduzkoak dira *-tuz* atzizkia dutenak, eta osagarri argumentalak, berriz, *-tzen* dutenak. Ondorengo adibideetan, bikoteko bigarren formak okerrak dira, modua baita perpausok eskatzen dutena, ez osagarria: *Ongi elikatuz/\*elikatzen segurtatzen da osasuna; Hitz eginez/\*hitz egiten konpontzen dira arazoak; Arituz/\*aritzen ikasi dut pianoa jotzen*.

**40.9g** Oinarrian *-tuz/-tuaz* formak hartuta, badira zenbait esapide eta molde era batera edo bestera modua adieraz dezaketenak, bakoitzak bere ñabardura eta ezaugarriekin. Haien arteko batzuk azalduko ditugu.

**40.9h** Errepikapenak (*esanaren esanaz, ikasiaren ikasiaz...*). Aipatutako esapideak bezalakoak ugariak dira euskaraz (*entzunaren entzunaz, eginaren eginaz...*). Ohart gaitezten bigarren osagaian *-a* artikulua azaltzen dela. Nolakotasunaz gainera, gertaera behin eta berriz errepikatzen dela adierazten dute: *Esanaren esanaz, azkenean, berritu du nortasun-agiria; Ikasiaren ikasiaz*

*atera du medikuntza karrera Asierrek.* Aurreko adibide hauetan argi eta garbi geratzen da behin eta berriz esanez gero edo etengabe ikasten egon ondoren nahi dena lortzen dela: dela nortasun-agiria berritzea, dela medikuntza karrera ateratzea. ‘Zerbaiten bidez’ edo ‘zerbaiten poderioz’ (*ikustearen poderioz*) lortzen da perpaus nagusiko aditzak dioena gauzatzea. Adibide horien parekoak ere badira testu klasikoetan. Hona hemen batzuk: *Maiz gertatu ohi da, izan ere, honelako liburuetan, [...], idazlea esanaren esanaz asperturik bezala mintzatzaren zaigula, besteren ahotik entzuna hotz-hotzean birresaten, [...]* (Mitxelena); *[...] aren egon-ezina geldiera ikasiaren ikasiaz ta irakatsiaren irakatsiaz* (Zaitegi).

**40.9i** *-tuaz batera*. Berez *-tuaz* moldean oinarritzen da, baina moduzkoak baino gehiago denborazkoak direla esan behar da, denbora-kutsua nagusitzen zaiola moduzkoari: horregatik aztertu ditugu denborazkoen atalean. Adibide gutxi batzuk baizik ez ditugu jasoko hemen: *[...] nasa gainean zutik, ondo jantziriko bost gizon egozan, alkarregaz autuan, eguzki epela hartuaz batera* (Agirre); *Honeek iruteko behar dira goruburuan apaindu, eta ardatzean batu haria eginaz batera* (Mogel).

**40.9j** *-tuz joan / -tzen joan* perifrasiak. Moduzko perpausak baino gehiago aditz perifrasiak dira: molde honetan *joan* aditzak ez du adierazten puntu batetik besterako mugimendu fisikoa; hemen aspektu balioa adierazten da, eta partizipioa adierazten duen ekintzaren jarraikia eta ekintzaren mailako gehitzea azpimarratzen du egitura honek. Ikus ditzagun tradizioa adibide batzuk: *Megalitos edo urraida-aldian hasi eta keltatarren azkenbultzaraino langai eta beste tresnak geldiro-geldiro aldatuaz zihozten* (J. M. Barandiaran); *Orain beinolako giro hura aldatuaz doa* (Villasante); *[...] landatu duzun amodioa, ta jaiera, gehituaz, handituaz, ta sutuaz joango da* (Larramendi); *Honela zuzenduaz joango da bekataria bere bizieran, ta aurre-ratuaz onak birtutearen bide ederrean* (Agirre Asteasukoa). *-tuz joan* moldeak askoz tradizio sendoagoa du; *-tzen joan* aukera azken urteetan ari da zabaltzen Hegoaldean.

**40.9k** *-tuz ... -tuz* errepikak. Halako errepikak, oro har, gertaera behin eta berriz errepikatzen dela adierazten dute: *Ekinez-ekinez lortu du lasterkariak*

*txapelketa irabaztea; Saiatuz-saiatuz lortzen dira garaipenak.* Partizipioak soilik azaltzen dira errepikaturik, beste inolako perpaus-elementurik gabe, eta marka bera hartzen dute egiturako bi zatiek.

## 40.10. -tu + postposizioa

**40.10a** Partizipio burutuaren ondoren postposizio askeak joan daitezke (*gabe, orde, arau, bezala, ahala* eta abar), eta sarritan postposizio horiek beste postposizio itsatsi bati (*-n, -rik...*) loturik joaten dira. Era horretara molde eta forma asko lor daitezke, eta balioak ere askotarikoak izan daitezke; aukera handia eskaintzen digu hizkuntzak. Horien arteko batzuk, postposizioaren beraren esanahiagatik, zeharka edo zuzenago, modua adierazteko ere erabil daitezke. Adibidez, *-tu arau* denborazkoen atalean aztertu dugu (§ 36.6), eta *-tu bezala* konparaziozkoenean (§ 32.4); baina modua adierazteko ere balia ditza-kegu: *Zuk esan bezala egin ditut lanak; Sartu arau agurtzen zituen.* Ataltxo honetan, partizipioa oinarri hartuz era batera edo bestera moduari eta nolako-tasunari erreferentzia egiten dioten postposizio eta molde nagusiak aurkeztuko ditugu. Hona ikuspegi orokorra:

- Luzatzen eta errepikatzen diren egoerak: *-tu ahala, -tu arau* (§ 40.10b).
- Postposizio modalak: *-tu beharrean* (§ 40.10d); *-tu nahirik, -tu gurarik* (§ 40.10e); *-tu ezinda, -tu ezinik, -tu ezinean* (§ 40.10f).
- Ezezkoak: *-tu gabe, -tu barik, -tu ezta* (§ 40.10g).
- Konparaziozkoak: *-tu bezala, -tu legez* (§ 40.10h).
- *-tu aginean* (§ 40.10i).
- *-tu orde, -tu ordean, -tu ordez* (§ 40.10j).

**40.10b** Luzatzen eta errepikatzen diren egoerak: *-tu ahala, -tu arau.* [-tu + ahala, ahalean] moldea *-en neurrian* moldearen parekoa da askotan, baina bigarren balio bat ere badu. Lehen balioan, luzatzen edo errepikatzen den egoera azaltzen du, eta gertaera bat garatuz doan neurrian beste bat garatzen ari dela adierazten du: *Bete ahala husten zuen basozainak edalontzia; Ezkondu*

*ahala, baserria utzi behar izaten genuen anai-arreba gehienok. Bigarren adiera kantitateari lotua du, ezin gehiagoko neurria adierazten du, muga bate-rainoko neurria, eta galdegai izateko joera erakusten dute halakoek: Bota aha-la ari du euria; Edan ahalean ari zen gure laguna tabernan.*

*-tu arau* moldea ere pareko gertatzen da, baina lehenengo adiera bakarrik du, luzatze edo errepikapenezko esan diogunarena: Sartu arau hiltzen zituen; Maitasunezko lokarri berak Jainkoari lotzen dizkion jende gehiago irudikatu arau, maitatzenago dugu Jainkoa.

**40.10c** Aditz partizipioa + postposizio modalak. Forma ugari aurki daitezke sail honetakoen artean.

**40.10d** *-tu beharrean* moldeak hiru erabilera izan ditzake. Lehenik, aditzak dioena gertatzeko zorian dagoela adieraz dezake: Ito beharrean iritsi ziren txirrindulariak helmugara. Instrumentalaren marka duela ere ager dakiguke erabilera honetan, Hegoaldeko nahiz Iparraldeko testuetan (*-tu beharrez*). *-tu aginean* eta *-tzeko zorian* dira molde honen baliokide bi, eta guztiak ere patu txarra adierazten duten aditzekin erabiltzen dira. Bigarren, beharrezkotasuna ere adieraz dezake [*-tu beharrean + egon*]: Zurekin hitz egin beharrean gaude ahalik eta lasterren. Azkenik, *-tu ordez* moldearen baliokide ere izan daiteke: Barkamena eskatu beharrean, hartzekoekin etorri zitzaidan ('barkamena eskatu ordez...').

**40.10e** *-tu nahirik* (*nahian*, *nahizik*), *-tu gurarik* (*guran*): Molde honen bidez, mendeko aditzak adierazten duen gertaera egiteko asmoa edo nahia agertzen da. Adibideak ugari aurki ditzakegu tradizioan, dela partitiboan, dela inesi-boan; baliokideak direla esan daiteke, atzizkiak desberdinak izanik ere: Etxea erosi nahirik/nahian/nahizik etorri zaizkigu maizterrak. Maiztasunari begiraturik, *-tu nahirik* eta *-tu nahian* dira nagusi OEHko testuetan. Hona adibide batzuk, oinarri modura *nahi izan* aditza hartuz: Borreroa han dabil, burnia nere lepoan sartu nahirik (Etxaniz); [...] laster erantzun zion bere okerra zuzendu nahian (San Martin); Nola ez nekiela, hega egin nuen bere oinetara, muin egin nahian (Urruzuno); Pontu haur konsideraturik, eta huni erremedio eman nahirik, erraiten zuen San Gregoriok (Axular); Hemen eta gero zori

gaiztoko kaltearrak dira mundu eroaren esanak egin nahizik Jangoikoaren esana uzten dutenak (Mendiburu); *Gero, bere lanerat itzultzen da xixtuetan, bazkaria tenoreko nahizik moldatu* (Barbier).

Mendebaldeko erabileran, *-tu gurarik, -tu guran* (*gurian*) moldeak agertzen dira: [...] *adardun demoniño gorri bat ikusi eban konbentuko ate ondoan, barrura sartu gurarik* (F. Bilbao); *Jo ta su dabiltz katolikuen ixena kendu gurian* (K. Enbeita). Adieraren aldetik, inoiz *-tu beharrez* ere aurkitzen dugu asmoa edo nahia adierazteko: *Etzabilzala fama handi bat ardietsi beharrez hanitz adiskide egin nahiz, edo handien estimua merezitu beharrez* (Xurio).

**40.10f** *-tu ezinda, -tu ezinik, -tu ezinean*. Oinarri modura *ezin* dutelarik, egoera baten aurrean zerbait egiteko ezintasuna adierazten dute. Literatura tradizioan, *-tu ezinda* eta *-tu ezinik* maizago ageri dira *-tu ezinean* baino. Hona zenbait adibide:

[*-tu ezinda*]: *Egoera zaila dugu: aspaldion gabiltza burua goratu ezinda; [...] bere lekuan kabitu ezinda zebilen amorratua* (Uztapide).

[*-tu ezinik*]: *Aurten eguneroko otorduekin asmatu ezinik gabiltza. Ezin ...-turik* moldean ere ager daiteke: *Gogortu eta ezin ibilirik aurkituko gara* (Larramendi). Baita, Iparraldean, *ezin ...-tuz* moldean ere: *Haren minez orai nago ezin hilez bizirik* (Etxepare).

[*-tu ezinean*]: *Neure laburpena eskainiko dizuet, bada, besterenik eman ezinean* (Mitzelena).

**40.10g** Ezezkoak: *-tu gabe, -tu barik, -tu gabetan; -tu ezta; -tu ezik*. [*-tu gabe, barik*] moldea —bere aldaera ugariekin— oso emankorra da euskaraz. Moduzko perpaus jokatu gabeetan mendeko aditzaren ezezko forma markatzeko molde nagusia da, nahiz bakarra ez izan: geroago aztertuko dugun *-tu ezta* dugu horren lekuko; bai eta *-tzeke* esparru mugatuagokoa, edo, neurri batean, modalitatea eta ezetza adierazten dituen *ezin*-en gainean eraikiak ere. Beraz, lehen esan dugun bezala, *-turik* eta *-tuta* moldeen ezezko formak *-tu gabe* eta *-tu barik*-en bidez ematen ditugu nagusiki: *Zuk esanik/esanda joan nintzen kontzertura; Zuk esan gabe/barik joan nintzen kontzertura*.

Forma nagusiak *-tu gabe* eta *-tu barik* dira, baina badira aldaera ugari, jatorrizko formaren eta hark hartzen duen atzizkiaren arabera: *-tu бага*, *-tu ba*; *-tu bage*, *-tu be*; *-tu gaberik*, *-tu bagarik*; *-tu gabetan*, *-tu gabetanik*, *-tu bagetan*, *-tu bagetanik*... Edonola ere, aldaerak aldaera, euskara baturako onartuak dauden bakarrak *gabe*, *gabetanik*, *gaberik* eta *barik* formak dira. Azken forma hau, *barik*, mendebaldeko tradiziokoa da, eta bi adiera desberdin izan ditzake: batetik, ezezko moduzkoena, *gabe*-ren parekoa (*Orraztu barik joan zen Andoni lanera*); beste erabilera *-tu orde*z moldearen balioidea da, *-tu beharrean* moldearen hirugarren balioaren parekoa: gauza bat gertatu orde, beste gauza bat edo, batzuetan, haren kontrakoa gertatzen edo egiten dela adierazteko erabiltzen da (*Mendira joan barik, etxean geratu ziren*; *Barkamena eskatu barik, hartzekoekin etorri zen*); nolana ere, gehienetan elementu bakarren ondoren agertzen da (*Jon barik, Nerea hautatu zuten lehendakari*). *-tu gabetan* (*bagetan*, *gabetanik*, *bagetanik*, *gabean*) moldea, berriz, orokorra da, Hegoaldeko zein Iparraldeko testuetan ageri baita. Eman ditzagun zenbait adibide, orain arteko forma hauen erakusgarri modura:

[*-tu gabe* (*bag*a, *bage*...)]: *Bukatu gabe utzi zuen bazkaria; Jaungoikoari guretzat gehien opa duguna eskaini behar zaio, eta gerorako utzi gabe, bihar edo etzirako luzatu gabe* (Agirre); *Gure gogo*a ezin egon daiteke zertan edo hartan pentsatu *bag*a (Añibarro); *Bakean, soseguan eta haserretu bage* egoteko ez da bide gaiztoa [...] (Añibarro).

[*-tu barik* (*gaberik*, *bagarik*...)]: *Itandu eban besteak, ondo iratzartu barik* (Agirre); [...] *ez da deus lortzen saiatu gaberik* (Mitxelena); *Mariak dauka ardura handia, bere zerbitzariak hil ez daitez*en Elizako Sakramentu santuak hartu *bagarik* (Uriarte).

[*-tu gabetan* (*gabetanik*...)]: *Ez nadin izan uste gabetan harrapatua* (Jauretxe); *Goizetik arratsera ari dira lanean gelditu gabetanik* (A. P. Iturriaga).

*-tu ezta* moldea ere erabil daiteke moduzko perpaus jokatu gabeak egiteko. *-tu gabe* eta *-tu barik* dira euskaraz gehien erabiltzen diren formak, esan bezala, baina Hegoaldeko zenbait lekutan *-tu ezta* ere erabiltzen da, bereziki aditz modalekin: *gura izan* eta *nahi izan*-i erantsita azaltzen da askotan. Hona adi-

bide batzuk: *Hori etxetik atera nahi ezta dago* (ez du etxetik atera nahi); *Ezer jakin nahi ezta, alde egin nuen etxetik*. Lekukotasun idatziei dagokienez, ez dugu adibide asko aurkitu OEHn<sup>11</sup>; aurkitu ditugunak, aditz modaletan oinarrituak dira: *Eta erle pitin langileak, lantegi bila edo lore gozoen kolkoan sartuta, bakardadean, isilik eta arlotsu, beren arazoari ezergatik utzi nahi ezta* (Agirre); *Etsaitasunean edo gorrotoan egon zirenak hainbeste ur eta ogiko barau, zenbat egun egon ziren tratatu nahi ezta?* (Mogel).

Antzerako egoera du *-tu ezik* moldeak ere: *Etxera joan nahi ezik dago haurra*; Hegoaldeko zenbait lekutan erabiltzen da, eta aditz gutxi batzuekin bakarrik da emankorra (bereziki *nahi izan* aditz modalarekin).

**40.10h** Konparaziozkoak: *-tu bezala* eta *-tu legez*. Konparaziozko mendeko perpausen atalean, *parekotasunezko konparazio perpausak* aipatu ditugu (§ 32.4), eta hauen artean *bezala* eta *legez* morfemekin egindakoak (§ 32.4.1): *Utzi genuen bezala dago etxea*; *Aurreikusi genuen bezala joan da eguna*; *Lagun hurkoa geure burua lez maitatu behar dugu*; *Ikasi zenuen legez irakatsiko diezu besteei*. Horrelakoetan, gogora dezagun, perpaus txertatuak eta *bezala* edo *legez*-ek adberbio sintagma osatzen dute. Moduzko adberbioak dira *bezala* eta *legez*, eta molde honetako konparazio perpausak, *parekotasuna* adieraztearekin batera, era batean edo bestean modua ere agertzen dute. Atal horretan esaten da, bestalde, *bezala/legez* morfemen ezkerrean erreferentziazko terminoa biltzen duen mendeko perpausa joan ohi dela, ‘aditz eta guztizkoa batzuetan, eta aditza isilpean duen perpaus laburra beste batzuetan’; errepikatuak diren elementuak isilpean uzteko aukera baitago konparazio perpausetan. Horrela, goiko adibideak eman daitezke aditz laguntzailerik gabe ere: *Utzi (genuen) bezala dago etxea*; *Aurreikusi (genuen) bezala joan da eguna*; *Nik irakatsi (nizun) legez egingo duzu*. Eta horren ondorioz, [aditz partizipioa + *bezala*] motako adibideak sortzen dira; baina berez konparazio perpaus joka-

---

<sup>11</sup> *-tu ezta* moldeak moduzko adieran ez du aditz guztietara hedatzen den tradizioarik. Aldiz, *-tu ezta ere* moldea, kontzesiozko balioarekin, arrunta da hizkera horietan (ikus 39 *Kontzesio perpausen* kapituluan § 39.3.5c atala): *Film hori ikusi ezta ere axola gutxi du*; *Josu lanera joan ezta ere berdintsu izango da*; *Telebista ikusi ezta ere bizi gaitzke*.



tuak ditugu (*-en bezala*), eta aditz laguntzailearen elipsiaren ondoren hartu dute itxura hori (*-tu bezala*)<sup>12</sup>. Hemen adibide batzuk emango ditugu, baina egitura mota honen xehetasun gehiago konparazio perpausen atalean eskaintzen da: *Sartu bezala irten zen, isilik eta burumakur*; *Ez gara nahi bezala bizi*; *Ez zitzaizkion gauzak uste bezala egokitu* (Berrondo); *Ordenatu bezala konplitu zuen* (Axular); *Nik erran bezala egiten baduzu, berant-orduak etzaitu atzemanen* (Duvoisin).

Mendebaldeko testuetako *legez*-ekin gauzak apur bat korapilatsuagoak dira. Perpaus murrizak egin daitezke: *Bustia da abereentzat, guretzat legez, areriorik handiena* (Uriarte); *Uste dut [...] hari legez lagunduko deustazula herriotzako ordu larrian* (Barrenso). Baina *-tu legez* moldeko perpausak —aditz laguntzailea isilpean dutenak— aurkitzea zail egiten da; gehienera ere aditz modalekin agertzen dira horrelakoak tradizioan, eta autore jakin batzuenak dira: *Urdaitetik bete ezik behar lez hestea [...]* (K. Enbeita); *Eta zer esan, gura legez urtean bizi, eta pazkoaz baino konfesatzen ez direnen gainean?* (Mogel). Eta horietan ere, badirudi hiztunek nahiago dituztela aditz laguntzailedun adibideak (*behar den legez*; *gura duten legez*).

**40.10i** *-tu aginean* (*agirik*). Molde honen bidez mendeko perpausak adierazitakoa gertatzeko unean dagoela adierazten da, eta, batez ere, arrisku edo egoera larria iradokitzen du egitura osoak; patu txarra adierazten duten aditzekin erabili ohi da: *hil, hondatu, ito, jausi, galdu...* gisako aditzekin, alegia. Adierari dagokionez, *-tzeko zorian* eta *-tu beharrean* moldeen baliokidea dela esan daiteke. Izan ere, *agin* eta *zori* adieran baliokideak direla esan genezake.

<sup>12</sup> Gehienetan perpaus murriztuan formaz partizipio burutua dena azaltzen zaigu (*-tu bezala*), baina forma horrekin bestelako aspektu balioak ere ‘estal’ daitezke. Adibidez, *Etorri bezala joango dira* perpausaren azpian egon daitezke ‘etorri diren bezala’, ‘etorri ziren bezala’ edo ‘etorriko diren bezala’; edo *Etorri bezala joaten dira* esatean, ‘etorri ziren bezala’ edo ‘etortzen diren bezala’ adieraz dezakegu.

Bestalde, konparazio perpausetan, mendeko perpausoko elementuak isilean uzteko aukera aurrerago ere joan daiteke, eta *erreferentziazko* terminoa bakarrik utzi agerian: *Zuk* (futboleko jokatzeko duzun) *bezala jokatu nahi nuke nik futboleko*; *Abeslari profesionalek* (abesten duten) *legez abesten du Mireiak*. Ziurrenera *legez*-ekin elementuak isilpean uzteko joera txikiagoa da.

Mendebaldeko erabilerakoa bakarrik da, testu klasikoetan eta berriagoetan ere aurkitu dezakeguna. Bi forma ditugu: bata, inesiboko marka hartzen duena (*-tu aginean*) eta bestea partitibokoa hartzen duena (*-tu aginik*). Testu klasikoei erreparaturik, esan daiteke lehenak bigarrenak baino ugariagoak direla. Hona hemen zenbait adibide: *Putzura jausi eta ito aginean egon zen gure semea; Erregutu egiozu biotz biotzerik Yaungoikoari, iya betiko galdu aginean, edo orretarako bidean dagozanak gaiti* (Añibarro); *Laguna jausi aginik ikusi zenuean, zuhaitzean gora egin zenuen hura salbatu nahian*.

**40.10j** *-tu orde* (*ordean, ordez*). Molde honen bidez, bi gertaera parez pare izanik bata egin beharrean bestea egiten dela adierazten da. *-tu beharrean* moldearen hirugarren balioaren kidea dugu hau (*Barkamena eskatu beharrean, hartzekoekin etorri zen*); bai eta mendebaldeko *-tu barik* moldearen bigarren erabilerarena ere (*Barkamena eskatu barik, hartzekoekin etorri zen*). *Orde* azal daiteke bere horretan, inolako postposizio itsatsirik gabe, edo inesiboa nahiz instrumentala erantsita: *Barkamena eskatu orde/ordean/ordez, hartzekoekin etorri zen*.

Hegoaldeko erabileran balio honetan tradizio sendoena duen moldea *-tu beharrean* da, eta Iparraldean *orde* postposizioa duten moldeak ditugu nagusi: *-tu orde* eta *-tzeke orde*. Postposizioa *ordean* forman ere erabil daiteke, *-tu* partizipioaren ostean Hegoaldean eta *-tzeke* formaren ondoren Iparraldean. Bil ditzagun adibide batzuk: *Plazara joan orde, doa dantzara eta ostatura* (J. P. Arbelbide); *Bide hau hartu ordean batzuk ibili ohi dira herriz herri* (Agirre Asteasukoa); *Laidostatua izateko orde izanen dela goraltxatua* (Laphitz); *Berak ere, airean ibiltzeko ordean, umeak bezala herrestan zabiltzak* (J. B. Eli-zanburu).

Forma nagusi horiez gain, *-tu ordez* aldaera ere zabaldu da gerora Hegoaldean, *-tzeke ordez* Iparraldean bezala. Adibide batzuk: *Hark niri eman ordez, nik hari jaten eman behar* (Orixe); *Gazteari, maitatzen erakusteko ordez, gorrotatzen erakutsi ohi zaio* (M. Atxaga); *Damu zuen sekula eskolan ezarri izan zuelakotz, berarekin gordetzeko ordez, bera egoteko ordez haren irakasle bakarra* (Mirande).

### 40.11. Aditz izena oinarri dutenak

**40.11a** Orain arte aztertu ditugun molde guztiek partizipioa zuten oinarrian, batzuetan postposizio itsatsi bat gehituz (-*ta*, -*rik*, -*z*), beste batzuetan postposizio aske bat gehituz (-*tu ahala*, -*tu arau*, -*tu ezinda*, -*tu gabe*...). Halakoak dira moduzko perpaus jokatugabeetan ohikoenak, zalantzarik gabe. Badira, ordea, aditz izena oinarritzat hartzen duten moldeak ere: -*tzeke*/*-tzaka*; -*tzeko moduan/eran/gisan/maneran*; -*tzeko zorian*; -*tzearekin*/*-tzeagaz*; -*tzekotan*.

**40.11b** -*tzeke* (-*tzaka*, -*tzeka*). Ezezko forma nagusitzat -*tu gabe* eta -*tu barik* postposiziodun formak jaso ditugu partizipioan oinarritutako egituren barnean. Hegoaldeko zenbait esparru geografikotan, badugu -*tzeke* molde ezezkoa ere, haren baliokide dena: *Hau amaitzeke dago*; *Lanak egiteke zenituen gaur goizean ikusi zaitudanean*. Hegoaldean, mendebaldeko euskaran eta mendebaldera jotzen duen erdialdeko euskaran erabiltzen da, ahozko nahiz idatzizko tradizioan. Forma nagusia -*tzeke* da, eta hori da hizkuntza estandarrean gehien erabiltzen dena, baina baditu bestelako aldaerak ere: ugariak dira tradizioan molde hau -*tzaka* edo -*tzeka* formetan agertzen den adibideak. Gatozen literatura tradizioko adibide batzuk jasotzera:

[-*tzeke*]: *Sakela ez hustutzeagatik-edo, hor zaudek lehortea baino elkorrago porru-landare bat bera ere beren bizitzan emateke* (Etxaniz); *Eta, dena dela, ekarri lehenbailehen, armek duten pisua eta nekea ezin eraman baitaitezke sabela gobernatzeko* (Berrondo); *Lortu al daiteke edozein gogo-gauza bakar-tasunaz maiz elikatzeke* (Txillardegia).

[-*tzaka*]: *Honetan nagitxo zebiltzala ikusirik, aingeruek Lot, honen emazte, eta bi alabak eskutik oartzaka hartu, eta hiriaz kanpora atera zituzten* (Lardizabal); *Wolfio gau guzti hartan geratzaka jardun, eta egunsentirako prest zegoen* (G. Arrue).

[-*tzeka*]: *Guztiak ziran edataile amorratuak eta egunik galtzeka, gaberako erdi txilibrizkauta argi-argi joaten ziren etxerantz* (San Martin).

**40.11c** -*tzeko* + postposizioa (-*tzeko moduan/eran/gisan/maneran*). Postposizio batzuek, aditz jokatuari erantsirik (-*en eran*; -*en gisan*; -*en bezala*; -*en*

*moduan* eta abar) konparazioa bideratu dezakete. Postposizio horiek lot dakizkioke forma jokatugabeari ere, gehienetan [aditz izena + ko] moldeari. Hala sortzen zaizkigu *-tzeke eran*, *-tzeke moduan*, *-tzeke gisan* eta *-tzeke maneran*. Zer eratako perpausak dira horiek? Lan honetan perpaus osagarrien atalean sartu ditugu (§ 30.7); han esan dugu postposizio horiek gobernatzen dutela aditz izenarekiko adizkia, eta irizpide formal hori erabiliz aztertu ditugu han. Hala ere, izan lezakete moduzkoen interpretazioa ere, adieraz hala baitira: nolakotasuna adierazten dute nolabait, eta horren arabera sail honetan ere balukete lekua. Hemen bakoitzaren adibide bakan batzuk bilduko ditugu eta irakurlea perpaus osagarri izenlagunetara bidaliko dugu (§ 30.6.4). *-tzeke moduan/eran* moldeak nagusiki mendebaldean erabiltzen dira, eta *-tzeke gisan* eta *-tzeke maneran* bereziki ekialdean:

[-tzeke moduan]: *Irakurri zuen letraduak erregela, eta harriturik lehenaz gainera, esan zuen ingurukoek aditzeko moduan* (Beobide).

[-tzeke eran]: *Edanaren kontua: seiehun urtean hain beneragarria izan zen gizona jartzen da guztia erauntzirik, agerturik, eta lotsatzeko eran, eta bere umeetatik batzuek iseka egiten diotela* (Agirre Asteasukoa).

[-tzeke gisan]: *Ihardetsi zuen beraz han ziren guziek entzuteko gisan: “Lurra- ren gainean hedatua den Eliza guziaz behar naiz orhoitu...”* (Joanategi).

[-tzeke maneran]: *Eta geroztik hemen naiz, erraiteko maneran, euskaldun bakarra* (Xalbador).

**40.11d** *-tzeke zorian*. Aditz mendekoaren gertaera bukatzeko unean edo bukatetik hurbil dagoela adierazteko erabiltzen da molde hau. Semantikoki, beraz, *-tu hurran* moldearen baliokidetzat jo daiteke<sup>13</sup>. Patu txarra adierazten duten aditzekin erabiltzen da batez ere: *hil*, *ito*, *hondatu*, *galdu*, *amildu*, *ero-*

---

<sup>13</sup> Kontua da *-tu hurran* (*hurren*) moldeak ez dituela mendeko perpausak osatzen: berez, egitura hau hartzen duen aditzak ez du argumenturik hartzen, egitura eginak dira, [aditz partizipioa + *hurran*] egitura soila dutenak. Horregatik ez ditugu moduzko mendeko perpausetan sailkatu. Hona adibide batzuk: *Zeren akabatu hurran da eguna, behititu da eguzkia [...]* (Axular); *Jadanik hil hurren zen komentu azpian* (Hiribarren).

*tu, lehertu, erori, hondoratu...* Batez ere Hegoaldeko tradizioan erabili izan da molde hau: *Kristautasuna hondatzeko, itotzeko, galtzeko zorian zebiltzan* (Larramendi); *Hiltzeko zorian edo perilean jartzen bada* (Ubillos); *Ez du ikusten nola aurkitzen den betiko su eta garren artean amiltzeko zorian* (Agirre Asteasukoa). Iparraldeko tradizioan Duvoisinek, Haranederrek, Mirandek eta Xalbadorrek baizik ez darabilte *-tzeko zorian* forma: *Urkhatzeko zorian balinbanintz* (Duvoisin); *Haren bizia zena galtzeko zorian ez ifintzeko* (Mirande). Aditzoinean nahiz partizipioan oinarritutako moldea ere erabili ohi da, nahiz gutxiago: *Goethek, nonbait Ortegak dioenez, aurkitu omen zuen, maiteminak leher zorian zeukanean, ordezkoa bere buruari eman behar zion tiroa hartzeko: Werther gizagaixoa* (Mitxelena); *Amorratu zorian / igeska hasi da* (Etxagarai). Molde hau erabiliz esapide eginak, lexikalizatuak ere osatzen dira zenbait aditzekin: *Etxekoren bat hil zorian denean...* (Etxaniz).

**40.11e** *-tzearekin/-tzeagaz*. [-tze + a + rekin] moldeko mendeko perpausen balioa nagusiki denborazkoa da. Hala ere, moduzko kutsua ere izan dezakete inoiz. Hona hemen zenbait adibide: *Gezurra esatearekin ez da ezer konpon-tzen; Presaka ibiltzearekin ez duzu ezer aurreratuko; Lasterka egitearekin ez duzu atzerapena kenduko; Zerua ez da hitz hutsekin irabazten, ezpada Jaunaren aginduk gordetzearekin* (Lardizabal). Nolanahi ere, esan behar da balio honetan ohikoagoa dela *-tu(a)z* atzizkiaren bidez osatutako egitura (*gezurra esanez; presaka ibiliz; lasterka eginez*).

Mendebaldean *-tzeagaz* forma erabiltzen da: *Negar egiteagaz, pentsatu eban kolkorako, ez dot irabazten ezer* (F. Bilbao); *Beste batzuk, au larregi iruditu-ta, oar bat bidaltzeagaz naikoa zala uste eben* (F. Bilbao).

**40.11f** *-tzekotan*. [-tze + ko + tan] moldeak, besteak beste, baldintzazko, denborazko eta helburuzko balioa har dezake. Nolanahi ere, badirudi zenbait kasutan modu-kutsua ere izan dezakeela, eta horregatik jaso dugu hemen. Ezin uka honako bi adibide hauek badutela moduzko kutsua, helburuzkoaz gain: *Artzainak artoski jarraiki behar du erditzekotan diren ardiei, eta antxuei bereziki* (Duvoisin); [...] *eta apur batez, gelditzekotan ere izan nintzela gizona urrunduxe artean* (J. B. Elizanburu).

## 40.12. Aditzoina oinarri dutenak

**40.12a** Aditzoina oinarri duten moduzko perpaus jokatugabeak markatuak dira, esapide gisakoak, esango genuke. Bereziki ekialdeko euskalkietako literatura tradizioan erabiltzen dira.

**40.12b** Aditzoin juntatuak edo enumeraziozkoak (*xuti eta eror*). Lafittek “L’infinitif radical en énumération” esaten die bere gramatikan (1944: 460): *Xuti eta eror bagabiltza*. Zenbaitetan, aditzoina eta partizipioa nahasten dira, eta *eta* nahiz *edo* juntagailua har dezakete aditz juntatuek: *Sal edo erosi dabil-tza aspaldion tratularia eta nekazaria; Josi edo urra utzi nituen etxe-saltzai-lea eta erosleak; Hasi eta buka irakurri zuen liburu osoa*. Nolanahi ere, ez du ematen alderik dagoenik aurreko adibideen eta honako hauen artean, esanahiari gagozkiola bederen: *Zutitu eta erori gabiltza, zola irristakorra dagoe-lako; Saldu edo erosi dabil-tza aspaldion tratularia eta nekazaria; Josi edo urratu utzi nituen etxe-saltzailea eta erosleak*. Euskalki kontua da halakoetan partizipioa edo aditzoina erabiltzea.

**40.12c** Aditzoina + ahala + aditzoin bera (*higi ahala higi*). Zenbait kasutan [aditzoina + ahala + aditzoin bera] moduko moldea erabiltzen da. Esapide adverbial hauek ez dira, edozein kasutan ere, oso emankorrak. Hona adibide batzuk: *Jo ahala jo ari ziren sagar zanpatzen dolarean; Higi ahala higi ihes abiatzen dire, eta armada guzia heien ondotik* (Laphitz); *Eta orai, alimale gaixoak, koka ahala koka, karro handi batzuetara borthitz bothitza besotara-ka arthikiak, bi burdina lodiren artean iraganak...* (Barbier); *Atertu gabe, saka ahala saka, tripa zolari euria igorriko diot* (Larzabal); *Eta, lotzen ziozkatela-rik lau soka lau zango-besoetarik, haritu zatzaizkon tiraka tira ahala tira, jauzarazi arteraino zango-besoak beren krosketarik* (Joanategi).

**40.12d** Aditzoina + -ki atzizkia (*jakinki*). Aditz sintetiko puntukari baten lekuan, atzizki hau hartzen duen adizkia erabili ohi da ekialdean; adizki sintetiko puntukari horren baliokide jokatugabea dela esan dezakegu. Hona zein den baliokidetza hori: *dakielarik — jakinki; doalarik — joaki; delarik — izaki*. Ezin erabil daiteke, nolanahi ere, edozein aditzekin. Hauek dira ohikoenak: *izan* (*izaki*), *jakin* (*jakinki*), *egon* (*egonki*), *joan* (*joaki*), *ibili* (*ibilki*). Adibide

batzuk: *Lotsati samarra izaki, ez dio neskari baiezkoa eman; Jakinki ez zuela harria altxatzea lortuko, bertan behera utzi zuen saiakera*. Literatura tradizioan erraz aurkitzen dira horrelako adibideak: *Nik maiteño bat izaki eta bertze batek eramaki* (Herrikoia); *Gobernadoreak, jakinki ez zela deusik hari giristino zenbat hilarazirik ere, hekien aitzindariak bizirik uzten bazituen [...]* (Joanategi); *Iduri zaut oraino ere ikusten dudala, hantxet, gazteluko karrikari goiti joaki* (Barbier); *Halere, itzuli bat eginik gure bazterren ikusten, bihozmin: ikusirik eskuara eskuetarik joaki eta tokitan kasik joana* (Hiriart-Urruti); *Eta horra Joanes oihan-pean sartua, berroz berro, otarrez otar, ohoinaren ondotik joaki, makila airean, errabia bihotzean, sudurra xistuz, emaztearen kontra zer nahi erranka, zaldia, hantxet, aitzineko on baten gomendio utzirik* (Lafitte). Aurreko adibideotan badira aipamena merezi duten bi puntu. Hiriart-Urrutiren adibidean mendeko bi moduzko dauzkagu juntaturik (*eskue-tarik joaki eta tokitan kasik joana*), eta moduzkoak osatzeko bi moldeen aspektu-balio desberdinak —puntukaria eta burutua— ikusteko baliatu deza-kegu. Lafitteren adibideak, berriz, ezin hobeto agertzen du modua adierazteko zenbat baliabide desberdin izan ditzakeen aukeran hiztunak.

**40.12e** Aditzoina + *-ka* atzizkia (*gaizki esaka*). Gerundioaren antzeko perpausak egiteko erabiltzen da. Izen bati edo aditz bati lotua ageri da; arruntagoa da izen bati lotua aurkitzea. Gertaera errepikakorrak adierazten ditu: *Loteria tokatu zaigula esaka etorri da kaletik etxera; Gaizki esaka jarduten dute beti neska-mutil horiek; Zer nahi erranka ari zitzaion* (Lafitte). Nolanahi ere, molde hau ez da aditz guztietara hedatzen: adibide garbi gehienak *esan* aditzarekin azaltzen dira.

### 40.13. *-ela* eta *-elarik*

**40.13a** Euskal testuetan garai eta euskalki guztietan oso erabiliak izan dira *-ela/-elarik* atzizkidun perpaus adberbialak. Morfema hauek, betiere aditzari erantsita, adiera askotako perpausetan ageri dira. Esaterako, denborazkoetan (*Sei urte nituela hasi nintzen eskolara*), moduzkoetan (*Adurra dariola begira gelditu zen agure gaixoa*), kausazkoetan (*Hain ona delarik, nola ez maita*),

kontzesiozkoetan (*Oraindik haurra delarik, zaharrek bezala hitz egiten du*). Sailkatzen errazak ez diren perpausak eratzen ere agertzen zaizkigu *-ela / -elarik* morfema hauek. Adibidez, lerro batzuk gorago kausazkotzat jo dugun horri ezarri diogun adiera baldintzazkoa ere izan daiteke ('Hain ona bada, nola ez maita?'). Moduzkoen atalaren hasieran ere eman dugu egoera horren berri: menderagailu batzuk adieraren aldetik nahiko irekiak direla esan dugu, eta balio batean baino gehiagotan azaldu daitezkeela.

Ba al dago desberdintasunik bi menderagailu hauekin osatutako mendeko perpausen artean? Gramatikari gehienek ustez, bi morfema hauek balio berdintsuz erabiltzen dira, bata nahiz bestea gehiago edo gutxiago erabiltzea, gehienbat, euskalkien tradizioari egotzita. Gramatikari batzuk bien arteko diferentzia azpimarratzen saiatu dira, *-ela*, gehienetan, aditz sintetikoekin erabiltzen dela esanez eta *-elarik*, ostera, sintetiko eta analitikoekin.

Baina testuak aztertu ondoren, ez da erraza bien arteko bereizketarik egiten, moduzko perpausari dagokienez behintzat. Garai eta euskalki guztietan ageri dira *-ela* atzizkidun perpausak, eta tradizioan denborazko eta moduzko balioaz erabili izan dira gehienbat. Euskalkien arabera, *-elarik* gehiago edo gutxiago agertzen da. Bizkaierazko testuetan oraintsu sartu da *-elarik* forma. Gipuzkerazko testuetan ugariago dira. Ekialdeko testuetan maiztasun handia du, baina moduzko perpaus garbietan baino areago bestelakoetan: denborazkoetan (*Eguzkia irten zelarik, bideari ekin genion*), kontzesiozkoetan (*Badelarik bertze janari asko, bat ez da laborearen orde jar daitekeenik*. Duvoisin) edo kausazkoetan (*Radarrak jarri direlarik, autoen abiadura motelduko da*).

Ondoriorik atera ahal baledi, beraz, hauxe esango genuke: *-ela/-elarik* morfemak balio berdintsuko perpausak eratuz agertzen direla, eta euskalkien barneko koherentzia eta usadioek ezartzen dutela diferentzia. Hala ere, *-ela* tradizioan bereziki denborazkoetan eta moduzkoetan agertu ohi da; *-elarik*, berriz, beste mota askotara ere zabaldu izan da, eta horregatik, perpaus mota batzuetako *-elarik* formak ezin ditugu *-ela* soilaz trukatu.

Hona, batarekin nahiz bestearekin, tradiziotik bildutako adibide batzuk: *Ahoan pipa motsa zuela eta hamabost egunean kendu bageko okotz-bizarretatik*



*behera adurra zeriola zegoen aguretxo batek [...] (Agirre); Agertu zitzaion behin ate ondoan eskeko bat, [...] buruko txapela ere koipez beterik, erdi-erdian leiho biribil bat zuela, bertatik ile pila bat ageri zitzaiola (Kirikiño); Bakarrik ezin eraman nezakeen gurutze bat soinean nuela atera ninduten Jerusalemendik eta jaiki-erori eta erdi arrastan nenbilela eraman ninduten Kalbarrioko mendira (Mendiburu); Maiz meza entzun dut debozione gabe gogoa berzetan nuela, horra huna begiak nerabiltzala eta solasen nengoela (Etxeberri Ziburukoa); Huna beraz non naizen ifernuan, dio errabian dagoelarik (Duhalde); Xoriek ez dagite hazirik, uztarik. Eta badute zer jan, alfer daudelarik (Oxobi); Iruten ari nauzu, kiloa gerrian, ardura dudalarik nigarra begian (J. D. Salaberri). Ikusten dugu -ela eta -elarik moldeko perpausak modua adierazteko beste egitura batzuen parean edo juntaturik ager daitezkeela.*

**40.13b** Moduzko balioa dutenean, erabilera predikatiboan agertu ohi dira molde honetako perpausak, bai predikatu nagusi modura (*Zer egin ez dakiela dago Miren*) bai bigarren mailako predikatu modura (*Buruan txapela zuela sartu zen elizara Jon*). Har ditzagun, Lafitteren gramatikatik jasotako adibide bi hauek, argigarri izan daitezkeelakoan: *Baratzeari datxikiola badugu erletegi bat; Mutiko gaixoa ikusi dut, herrestan zabilala*. Lehen kasuan perpaus nagusia “badugu erletegi bat” da; *datxikiola* “erletegi bat” sintagmaren egoera deskribatzera dator, eta ez perpaus nagusi osoa deskribatzera. Gauza bera esan behar dugu bigarren adibideaz ere: *herrestan zabilala* “mutiko gaixoa” sintagmari dagokio, eta ez perpaus nagusi osoari edo haren aditzari. Ondoko adibidea ere molde honetakoa da: *Buruan txapela duela etorri da Andoni*. ‘Andoniren etorrera’ nola gertatu den baino gehiago, Andoni nola zegoen esaten da -ela duen mendeko perpausaren bidez. Ez dira azaltzen aditzari begirako moduzko adjuntu bezala: \**Iruzur egiten zuela lortu zuen Iñakik emaitza* (iruzur eginik; iruzur eginez); \**Arrebaren giltza zerabilelarik ireki zuen ate* (erabilita; erabiliz). Molde honetako egiturek ez dute benetan aditzeko gertakaria nola betetzen den adierazten.

Erabilera predikatiboa izan ohi dute, bada, -ela edo -elarik daramaten moduzko perpausak, eta lehen eta bigarren mailako predikazioan azaldu ohi diren ezaugarri guztiak agertzen dituzte (ikus § 40.4). Horrelakoak dira

tradiziotik ekarri ditugun adibideak ere. Aspektuari dagokionez, burutugabetzat interpretatzen dira, egoera nahiz jarduera deskribatzen eta zehazten dute: osagarri predikatiboek ‘une bateko’ egoera edo jarduera bat adierazten baitute; eta ez dituzte berezko ezaugarri iraunkorrak adierazten (\**Begi urdinak dituela etorri da Andoni*). Hortik, ziurrenera, morfemok sarritan adizki sintetikoetara itsastea.

**40.13c** Azken urte hauetan *-elarik* duten perpausekin tradizioan lekukotasunik ez duen erabilera bat hasi da agertzen. Begira ondorengo adibideari: ??*Ane leihotik erori zen, hanka hautsi zuelarik*. Adibide honetan ‘hanka haustea’ ondorio bat da, ‘Ane leihotik erortzearen’ ondorioa; eta denboran ere perpau nagusian adierazten dena baino beranduago gertatzen da. Tradiziotik kanpoko erabilera horretakoak izango genituzke ondorengoak ere: ??*Apustuen munduan buru-belarri sartu zen, azkenean diru guztia galdu zuelarik*; ??*Kixote liburuen munduan murgildu zen guztiz, burua galdu zuelarik*; ??*Ostiralean irten zen jaietara, handik bi egunera itzuli zelarik etxera*. Baina *-ela* eta *-elarik* daramaten perpausek, denborazko direnean, aldi-berekotasuna adierazi izan dute (ikus 36 *Denborazko perpausak* § 36.4); edo, moduzko erabileran, bigarren mailako predikazioa bideratzen dute. Aurrekoak bezalako adibideak *sasi-menderatuak* dira, eta era egokian emateko bide bat juntadura da (*Ane leihotik erori zen, eta hanka hautsi zuen*); aditz laguntzailearen elipsiaz ere baliatu gaitezke (*Ane leihotik erori zen, eta hanka hautsi*).

**40.13d** Perpau nagusiaren eskuinaldean agertzen dira gehienetan, haren osagaietako baten moduzko zertzeladaren bat gehituz. Jakina, beste edozein osagai bezala, perpau nagusiaren galdegai gisa agertzen direnean, haren aditzaren ezker aldean joango dira. Galdegai izan gabe ezker aldean agertzen direnean, ostera, moduzkoak barik, denborazkoak, kausazkoak edo beste izan ohi dira maiz (*Irakaslea sartzen zelarik, umeak isildu egiten ziren*).

Moduzko perpausa ezezkoa denean eta aditz nagusiaren galdegai gisa erabiltzen bada, ezezko morfema eta aditz laguntzailea ez dira ohi denez aurrerazten: *Ezer ulertzen ez duela dago*. Perpau osagarrietan, adibidez, ez da horrelakorik izaten: *Esan didate ez duela ezer ulertzen*.

#### 40.14. -en moduan, -en eran, -en arau, -en gisa, -en antz, -en molde

**40.14a** *Modua, era, moldea...* guztiak ere izenak dira, eta oso loturik daude hemen aztertzen ari garen nozio semantikoarekin. Horietako batetik hartzen dute izena, hain zuzen, *moduzko perpausek*. Izen gehienek bezala, beren agintepEAN beste zenbait elementu (izenlagunak, erlatibozko perpausak...) har ditzakete; eta jarraian zenbait postposizio (inesiboa, adlatiboa...) ere izan ditzakete. Horrelaxe sortzen dira hemen aipagai ditugun molde honetako egiturak: [[[perpaus erlatiboa] *modu / era / ...*] postposizioa (-n, -ra...)]. Alegia, *Zuk esan didazun moduan egin dut* adibidean, azpimarratu dugun zati osoa postposizio sintagma bat da, adberbio sintagma, eta *modu* izenaren esanahiagatik aditz nagusiko gertaera ('egin dut') nola betetzen den adierazteko baliagarri gerta daiteke; *modu* nozioa adierazten du. *Modu* izenaren mendean erlatibozko perpaus bat dago, eta perpaus horren barnean, isilean, aurrekaria, ondorengo *modu* izenaren balio bera duena: '[[zuk (Ø)<sub>1</sub> esan didazun] moduan<sub>1</sub>] egin dut'; zenbaki bera jarritz markatu dugu bien arteko (aurrekaria - ardatza) lotura. Antzera gertatzen da sail honetako gainerako izenekin ere (ohikoenak: *molde, era, arau, gisa, antz*). Baliabide emankorra da oso. Eman ditzagun adibide batzuk: *Berak bakarrik dakien moduan egin zuen patata-tortilla; Ahal genuen eran atera ginen egoera zail hartatik; Bibliak esaten duen arabera jokatzeko du egunerokoan; Inor ohartzeko ez den gisan egiten ditu bere egitekoak; Goizean esan dugun moldean antolatuko dugu eguna.*

Adibide hauetan guztietan aurkituko dugu lehen deskribatu dugun egitura: [erlatibozko perpausa + *modu* izena + postposizioa]. Amaieran joan ohi den postposizio itsatsia gehienetan adlatiboa izaten da, baina inesiboa ere oso arrunta da. *Arau* eta *gisa* dira inongo postposiziorik gabe ager daitezkeen bakarrak.

**40.14b** Edozelan ere, moduzko perpausak egiteko molde hau ez da izenok duten beste erabilera arruntarekin nahastu behar; izen horiek genitibo markaren bidez perpaus erlatibo batekin lot baitaitezke. Azaldu dezagun desberdintasuna. Ondorengo perpausa moduzkoa da: *Erabaki dugun arabera egin behar dugu*. Honela deskriba dezakegu: [[[perpaus erlatiboa] arabera].

Horren alboan, bada beste ondorengo molde hau ere, erlatiboaren erabilera arruntekoa: *Erabaki dugunaren arabera egin du Peruk bere proiektua*. Oraingoan honela deskribatuko genuke: [[[perpaus erlatiboa] Ø-aren] arabera]. Lehenengoan, adierazmolde finko bat izateaz gain, esan dezakegu *arau* izena dela perpaus erlatiboaren ardatza. Bigarreanean, ostera, *arau* ez da perpaus erlatiboaren ardatza, bien artean hutsik dagoen izen bat baitago genitibo kasuarekin markatua. Aipaturiko adibideok, horrexegatik, beste era hauetara eman ahal izango genituzke: lehenengoa, ‘erabaki dugun bezala egin behar dugu’; bigarrena, ‘hartu dugun erabakiaren arabera egin du Peruk bere proiektua’.

Antzeko adibideak erraz aurkitzen dira aipatu ditugun izenekin. Ondoko adibideetan lehenengo biak perpaus erlatibo arruntak dira (moduzkoen artean sartzen ez ditugunak), eta hurrengo biak moduzkoak (kasu honetan, moduzkoak hartzen dutenak ardatz gisa). Erlatibo arruntak: *Aurretik etorri zirenen modura heldu ziren langile berriak ere, izerditan eta nekaturik*; *Gaur erabaki dugunaren moldera, bihar ezinezkoa izanen da ezer egitea*. Moduzkoak: *Aurreko astean etorri zirenen moduan etorri ziren oraingoan, izerditan eta nekaturik*; *Gaur erabaki dugun moldera, bihar ere erabaki dezakegu*.

**40.14c** Jarraian tradizioko adibideak emango ditugu. Modu izen erabilienak, eta bakoitzak har ditzakeen postposizioen araberrako lekukotasunak ekartzen saiatu gara.

**40.14d** Antz (*antzera*): *Lagundu zion mutilari etxeraino aspaldian ikusi gabeko nagusiari zakur leialek egin ohi dioten antzera* (Agirre); *Eta eskua iragan zion laztanduz biloetan, aita besoetakoak berari egin ohi zion antzera* (Mirande).

**40.14e** Arau (*arau, arabera, araberan*): *Halatan hor-izan den oro, behin hor-date berriro, lehen zen arau* (Mirande); *Hainitz gauzaren gainean jujamendu emaiten duzu munduko afekzionaek gogora ekartzen derautzun arauera* (Pouvreau); [...] *dan-dana erromantzeak abesten duan araberan* (Berrondo).

**40.14f** Era (*eran, erara*): *Eta egizu Jangoiko berak nahi duen eran* (Mendiburu); *ta eskribidu egizuz paper baten nik esaten deutsudazan erara* (Añibarro).

**40.14g** Gisa (*gisa, gisan, gisara*): *Baina mundua, berak nahi duen gisa dabil, eta ez nik edo zuk nahi genukeen bezala* (Villasante); *Pilatok esan zien, baldin gaizkilea dela badakizue, hartu eta zuek zeuok juzgatu ezazue, zeuon legeak dioen gisan* (Lardizabal); *Antiguara igoniko gizadiak menditik behera jaitsi zirenerako, bazetozen txalupak, parra parra, patxada onean, ekaitzik ez dagoen egunetan etorten diran gisara* (Agirre).

**40.14h** Modu (*moduan, modura*): *Dakidan moduan egin dut: ez eskatu niri besterik; Geuk egin bihar ditugu geure legeak, gura dogun modura* (Agirre).

**40.14i** Molde (*moldean, moldera*): *Eta hori nahi duen aldi guztian, eta nahi duen bezain denbora luzean, bai eta oraino on iruditzen zaion xedeagatik, eta plazer duen moldean* (Haraneder); [...] *gure obra on guziak hark egiten baititu gutan, fruituak arboretik heldu diraden moldera* (Leizarraga).

Perpaus adjuntuak izanik, kokapenari dagokionez ez dute betebeharrak sintaktiko berezirik, eta perpausaren hasieran, tartean edo amaieran ager daitezke. Nolanahi ere, adibideei begira, ohartzen gara gehienak perpaus nagusiaren eskui-nean agertzen direla.

## 40.15. Konparaziozkoak (-en bezala / -en legez)

**40.15a** Konparazio perpausen bidez ere adieraz daiteke modua. *Bezala* eta *legez* modua adierazten duten adberbioak dira; adberbio horiekin ere osatzen dira parekotasunezko konparazio perpausak (ikus 32 *Konparazio perpausak*): *Zuk irakatsi zenidan bezala/legez, egin ditut lan guztiak; Jainkoak agintzen duen bezala/legez bizi bagina, ongi ginатеke.*

Horrelakoetan, ‘moduaren parekotasuna’ adierazten da, elementu biren modu-izaerak parez pare jarritz. Lehenengo adibidea hartuz: [zuk hala<sub>1</sub> erakutsi zenidan] — [lan guztiak hala<sub>1</sub> egin ditut]; alegia, zehazki nola ‘erakutsi zenidan’ eta nola ‘egin ditudan’ adierazten ez bada ere, molde honen bidez adierazten da bi gertaerak gauzatu ziren modua bera izan zela; horregatik jarri diogu *hala* adberbioari zenbakitxo bera bi perpausetan. Beraz, nahitaez, pareko-

tasuna eta modua adierazten dira aldi berean. Egitura emankorra da guztiz, eta jatorri sintaktikoari dagokionez, izen ardatzik —eta determinatzailek— gabeko perpaus erlatiboen modukoak izango genituzke (mendeko perpausa dago, *-en* morfemaz amaitzen dena, eta bere barnean bada isilik dagoen adberbio moduko aurrekari huts bat, ondoren datorren *bezala* edo *legez* adberbioarekin loturik doana) eta guztiak adberbio sintagma bat sortzen du, adberbio sintagma parekatzailea<sup>14</sup> (analisi xeheagorako, ikus 32 *Konparazio perpausak*, § 32.4). Perpaus hauen beste ezaugarri bat hau da: perpaus bietan aditz bera denean, konparaziozkoa murriztua izan daitekeela: *Zuk (prestatzen duzun) bezala prestatzen dut nik bakailaoa*. Ohart gaitezen horrelakoak ezinezkoak dira *-en moduan*, *-en gisan*, *-en eran*... motakoekin: \**Zuk moduan/eran/gisan prestatzen dut nik bakailaoa*.

**40.15b** *Bezala* adberbioa erabilera orokorrekoa da, eta *legez* mendebaldeko hizkeretakoa. Hona literatur tradizioko adibide batzuk: [...] *haren aurpegi nahasian gogoeta goxo bat agertu zen, goizeko euritan loretxoak ur arre tartetik ageri diren bezala* (Orixe); *Orain egizu, ejemplo jakin honek erakusten duen bezala* (Kardaberaz); *Eta utzi zuten bizi zadiela berari zohakon bezala* (Joanategi); *Ez diezadazula egin nik merezi dudan bezala, baina bai zure ontasun mugagabearen arabera* (Duvoisin); *Urrea gehitzen danean gehitu ohi da gizonen harrokeria, itxasoa gora datorrenean ibaiko hura gehitzen den legez* (Agirre); *Guztia jazotzen zait neuk gura dudan legez* (Iturzaeta).

## 40.16. Galdetzaile batekin hornituriko mendeko perpausak

**40.16a** Bereziki ahozko jardunean erabiltzen diren ondorengo hauek ere modutik hain urruneko ez den balioa adierazten dute: *Nondik zatozen zu, kontra-*

---

<sup>14</sup> Batzuetan *bezala* adberbioa baldintzazko perpaus baten (alegiatzkoa) ondoren azal daiteke: *Aberatsak balira bezala bizi dira*. Baina hauetan ere konparazio perpausetako egitura bera dago: ‘*aberatsak balira* (biziko *liratekeen*) *bezala bizi dira*’; konparazio egituretako ohiko isiltzea dago azpian, eta horren ondorio da *bezala* itxuraz baldintzazko perpausaren ondoren agertzea.

*ko bidetik joango naiz ni; Prezioak nolakoak diren, asko edo gutxi erosiko dugu; Peruk zer nahi duen, Josuk beti jarraituko dio.* Beste era batera adierazi behar bagenu, ‘zu egiten ari zaren bidearen arabera’, ‘prezioaren arabera’, ‘Peruk nahi duen arabera’ edo antzerako itzuliak baliatuko genituzke.

**40.16b** Egitura sintaktikoari dagokionez, mendeko perpausak dira, aditz laguntzaileari erantsirik *-en* menderagailua daramatenak, eta barnean galdetzaille bat dutenak; aurreko adibideetan, *nondik, nolakoak, zer* dira galdetzailleak. Baina, zeren mendeko dira? Ageriko aditz nagusirik gabeko zehar-galderak dira (EGLU-V: 117-120). Eta, agerian edo ezkutuan, aurretiko perpaus baten menpean daude. Begira diezaigun elkarrizketa honi: —*Ez al luke hobea auzia ipintzea?* —*Ikusi egin behar* —*Zer ikusi?* —*Zenbat zor dion.* ‘Zenbat zor dion ikusi behar’, hori da perpaus osoa, eta ‘zenbat zor dion’ azaleratzen dena. Elkarrizketaz kanpora gertatzen denean ere moldea bera da: *Eskabidea zelan idazten den, hortxe dago gakoa; Ez omen zioate jaramonik egiten... Berak zenbat egiten dien; Ez omen diote asko ordaindu... Zenbat ordu lan egin duen.* Egitura hauen ondoren edo aurretik hiztunak eten bat egin ohi du; badirudi hor isilpean zerbait ulertu behar dela, eta horren arabera dela zehar-galdera. Bereziki ahozko erregistrokoak izanik, lekukotasun idatziak aurkitzea ez da erraza: *Gauzak nondik eta nolatan begiratzen zaien, iruditzen zaizkigu handi edo txiki* (Agirre); *Eta eguna luzeago edo laburrago, nola den, hiru ordutara alda litekeela [erlojua]* (Munita). Nolanahi ere, gaztelaniaz *según* edo *depende* erabiliz adierazten direnak euskaraz emateko baliabide egokiak dira.

#### 40.17. *-enez*

Aditz jokatuari *-en* menderagailua erantsi, eta ondoren instrumentalaren marka gehituz lortzen da forma hau. Balioaren aldetik nahiko irekia da molde hau, eta gehienetan kausa adierazteko erabiltzen bada ere (*Lana amaitu ez duzunez, ez duzu dirurik jasoko*), zenbaitetan moduzko perpausak osatzeko baliatzen da. Moduzkoen artean, ‘kanpoko moduzkoak’ deitu ditugunen motakoak izaten dira, enuntziatuari buruzko kanpoko perpausak: *Goizean irakurri dudanez, pobrezia ez da gutxitu munduan; Halakoak ei dira ingelesak, topikoak*

*dioenez; Esan dutenez, Josu etxetik joan da; Orduan izan ohi da bekatu beniala, gizon jakintsu askok, edo gehienek erakusten digutenez (Agirre Astesukoa); Euriaren zantzua omen dakar hegazti oihulari honen kantuak, agureek diotenez (Barrenso). Edukiaren ikuspegitik perpaus nagusiaren gauzatzeko moldearekin zerikusirik gutxi dute azpimarratutako perpausek: perpaus nagusiak dioena norbaiten edo zerbaiten arabera jartzen dugu adibide horietan. Perpaus hauen bidez, perpaus nagusian adierazitakoa berresten dugu, halako moduan non esan baitaiteke perpaus nagusiaren ordezeko bat dela, halako ‘perpaus orde’ bat, berarengandik koma batez banaturik eta galdegai gisa ezelan ere ager ezin daitekeena.*



## 41. Hitz ordena: informazio egitura

---

41.1. Sintagma barneko hitz ordena eta perpaus barneko hitz ordena

41.2. Ordena neutroa (kanonikoa) / ordena markatua

41.3. Ordena kanonikoa eta testu-generoak

41.4. Ordena markatua: Galdegaia; 41.4.1. Perpauseko informazio berria; 41.4.2. Galdegaia nola nabarmendu; 41.4.3. Kokagunea; 41.4.4. Galdegai gehitua

41.5. Periferia guneak. Mintzagaia: mintzagai aurreratua / mintzagai atzeratua; 41.5.1. Mintzagai motak; 41.5.2. Mintzagai isildua; 41.5.3. Mintzagai aurreratua; 41.5.4. Bi mintzagai kontraste bidez emanak; 41.5.5. Mintzagai atzeratua; 41.5.6. Erdiko mintzagaia

41.6. Laburbilduz

---

### 41.1. Sintagma barneko hitz ordena eta perpaus barneko hitz ordena

**41.1a** Hitz ordena aztertzean, berez, sintagmetako nahiz perpausetako hitzen ordena har daiteke kontuan. Izan ere, izen sintagmak, adjektibo sintagmak, adberbio sintagmak, zenbatzaile sintagmak edo determinatzaile sintagmak ere hitzez osatuak egoten dira, eta hitz horiek hurrenkera jakin batean ematen ditugu euskaraz. Izen sintagmaren barnean izenlagunak, oro har, izenaren ezkerrean ezartzen ditugu; eta adjektiboak, berriz, izenaren eskuinean. Era berean, adjektibo sintagmetan, maila adierazten duten adberbio batzuk —*oso*,

*aski, nahiko...*— adjektiboaren ezkerrean kokatzen ditugu; beste batzuk, ostera, eskuinean —*asko, samar...*—. Berdin gertatzen da adverbio sintagmetan ere. Determinatzaile sintagmetan, erakusleak eskuin muturrean ezartzen ditugu; zenbatzaile sintagmetan, zenbatzaile asko ezkerrean ematen ditugu, baina beste batzuk eskuinean edo eskuinean zein ezkerrean (*anitz, asko, gutxi, pixka bat, poxi bat, ugari...*). Gramatikak ezartzen ditu hurrenkera hauek. Hiztunak ez du, oro har, askatasunik adjektiboak izenaren ezkerrean edo eskuinean emateko, zenbatzaile jakin bat sintagmaren ezkerrean edo eskuinean jartzeko, edo (ezezko perpausetatik kanpo hego-ekialdeko hizkeretan galdegaiak eraginda ez bada) adizki laguntzailea adizki nagusiaren aurretik emateko (\**nai*z *etorri*). *Mikrosintaxiaren* maila esan izan zaio sintagmen barne osaeraren maila honi. Maila horretan, hizkuntza bakoitzeko gramatikak ezartzen dituen erregelen arabera ordenatzen dira osagaiak; zurruna da osagaion hitz hurrenkera.

**41.1b** Perpausaren mailan kokatzen bagara, hizkuntza tipologiako parametroetako bat da hitzen ordena. Zehazkiago esanda, hizkuntzen kategorizatorako irizpidetako bat da zein hurrenkeratan ematen diren aditza, subjektua eta objektua. Hau da, aditza baldin bada perpausako ardatza, ardatz horren osagaiak nola antolatzen diren, zein doan lehen, zein ondoren, zein azken; horri erreparatu diote hizkuntzalariek.

Irizpide hori kontuan harturik, SVO<sup>1</sup> (subjektu-aditz-objektu) motako hizkuntzak bereizten dira, bai eta SOV (subjektu-objektu-aditz) edo VSO (aditz-subjektu-objektu) motakoak ere. Munduko hizkuntzen artean, ugari dira SVO hurrenkera dutenak, baina SOV da maizenik ageri den hurrenkera (Comrie 1981). Hala da euskaraz ere: hitz hurrenkera ez-markatua Subjektua-Objektua-Aditza dela esaten dugu<sup>2</sup>. Zenbait argudiobide erabili izan dituzte gramatika-

---

<sup>1</sup> SVO, SOV erabiliko dugu hori delako nazioartean guztiz hedatu dena. Euskaraz, SAO (subjektu-aditz-objektu) edo SOA (subjektu-objektu-aditz) ere aurkituko ditugu literaturan; baina, esan bezala, nahiago izan dugu nazioartean hedatuen dagoenaren alde egitea. Bestalde, ‘objektu’ terminoa erabili arren, argi dago objektu hori ‘osagarria’ dela, *Euskararen bereizgarri orokorrak* lehen kapituluaren esaten den bezala.

<sup>2</sup> De Rijk (1969) izan zen, gure artean, Greenberg-en (1963b) lana oinarri hartu eta euskararen oinarritzko ordena SOV (SOA) zela esaten lehenetakoia.

riek euskara SOV hurrenkerako hizkuntza dela erakusteko: “naturaltasuna”, hurrenkera ez askea mendeko perpauz batzuetan, hurrenkeraren estatistikak, ordena bateko edo besteko perpauzen prozesamendua burmuinean eta abar. Baina euskararen bereizgarri orokorrei eskainiriko kapituluan mintzatzen baikara horretaz, ez ditugu hemen errepikatuko han esanak (§ 1.2).

**41.1c** Beste bereizketa bat ere egin ohi da hizkuntza tipologiaren ikuspegitik, *hizkuntza konfigurazional / ez-konfigurazional* bereizketa<sup>3</sup>, alegia. Hizkuntza konfigurazional esaten zaie hitz ordena zurruna dutenei, osagaien hurrenkeran ia inolako aldaketarik onartzen ez dutenei (ingelesa, esaterako). Ez-konfigurazionaltzat hartzen dira, aldiz, perpauz bateko osagaiak hurrenkera batean baino gehiagotan antolatzeko aukera dutenak; horrelako hizkuntzen artean sailkatuko genuke euskara ere. Badira, azkenik, hizkuntza *erdi-konfigurazionalak*, osagaien hurrenkera jakin bat izan arren, osagai horiek lekuz aldatzeko aukera batzuk ere badituztenak; halakoak dira, inguruko hizkuntzen artean, katalana eta gaztelania, esaterako. Honetan ere badu zerikusia hizkuntza jakin baten tipologiak: kasu markak dituzten hizkuntzek, esaterako, askatasun handiagoa dute osagaiak mugitzeko, morfologiak argi erakusten baitu zein den osagai bakoitzaren funtzioa. Subjektua eta objektua perpausean duten lekuaren arabera bereizten dituztenek, ostera, hurrenkera zurruna izan behar dute, ordena aldaketak funtzio sintaktikoaren aldaketa baitakar. Argi ikusiko dugu hori euskarazko adibide pare bat eta frantsesezko ordainak parekatuz: *katua saguak jan du nahiz saguak katua jan du, saguak jan du katua, katua jan du saguak* esan, ez da aldatzen zein animalia den ekintzaren egilea (jaten duena) eta zein ekintzaren jasailea; beste horrenbeste esan dezakegu *Jonek Ane maite du, Jonek maite du Ane, Ane maite du Jonek...* aukerez ere. Frantsesez, berriz,

---

<sup>3</sup> *Konfigurazio* terminoa beste modu batera ere erabili izan da: aditzaren konfigurazio motak. Aditzak modu batera edo bestera itxuratu daitezkeela adierazteko, aditz jakin bat *konfigurazio* batean baino gehiagotan sailka daitezkeela esaten dugu (*Sareko Euskal Gramatika*). Atera aditza, esaterako, trantsitibo datiboduna izan daiteke (*argazkilariak umeari erretratuak atera dizkio*), baina baita intrantsitibo soila (*bakarrrik atera da kalera*), intrantsitibo datiboduna (*seme-alabak bihurriak atera zaizkio*) edo trantsitibo soila ere (*auzoko gizonak txakurra paseatzera atera du*).

*le chat a mangé la souris* eta *la souris a mangé le chat* guztiz kontrakoak dira: lehen perpausean katuak jan du sagua, baina bigarrenean saguak jan du katua. Berdin gertatzen da *Pierre aime Marie* edo *Marie aime Pierre* bikotean: aldatu egiten da nork nor maite duen perpaus batetik bestera. Hauek guztiak, jakina, gramatikaren eremuko kontuak dira, perpausaren egiturari dagozkionak.

**41.1d** Nola antolatzen dugu informazio egitura? Esan bezala, subjektua, objektua eta aditza hurrenkera batean zein bestean emateko askatasuna duten hizkuntzetan, osagaien funtzio sintaktikoak ez du aldaketarik hurrenkera batean zein bestean. Hala bada, non dago hurrenkera batzuen eta besteen arteko aldea? Informazio egituraren. Izan ere, perpausa, osagai jakin batzuk eta egitura sintaktiko jakin bat duen unitatea izateaz gain, bada informazio unitate ere. Eta hau da aztertzen duguna hizkuntza batean hitz ordenaz ari garenean: diskurtsoaren informazio egitura, alegia. EGLU-I liburukian *funtzio egitura* eta *mintzagai egitura* bereizi genituen: kasuen bidez ematen dugu funtzio egituraren berri, perpausako osagaiak zein funtzio betetzen duten, alegia; mintzagai egitura, aldiz, perpaus batek ematen duen informazioari dagokio, hizketaren unibertsoan oinarritzen da.

Aurreko puntuko perpausak —*katua saguak jan du, saguak katua jan du, saguak jan du katua, katua jan du saguak*— eta beste hauek ere —*jan du katuak sagua, katua saguak jan du*— baliokidetzat har ditzakegu osagaiak eta hauen funtzio sintaktikoak kontuan hartzen baditugu: ekintza bera dugu (*jan*) eta argumentu berak (agentea edo egilea, *katua*, eta pazientea, gaia, *sagua*) eta, hein horretan, esanahi bera dutela esan dezakegu. Hala ere, desberdinak dira informazio egituraren mailatik begiratuta. Perpaus horietako bakoitza informazio testuinguru jakin batean erabiliko dugu: aditzak eta osagarriek ematen duten informazioan zer nabarmendu nahi dugun, zer den aldeztu aurretik daki-guna edo jakin uste duguna... horren arabera antolatuko ditugu osagaiak hurrenkera batean edo bestean.

Berez funtzio sintaktikoak gainditzen dituelako, gramatikak ezin du informazio egiturari buruzko erregelarik eman. Baina, aldi berean, funtzio informatiboek, diskurtso-funtzioek (adibidez, berehala ikusiko ditugun ‘tema’ eta ‘foku’ funtzioek), eragina dute gramatikaren hainbat alderditan, funtzio horiek hitz

ordenari eragiten baitiote. Beste hitz batzuetan esanda, informazio egiturari dagozkion funtsezko funtzioak —mintzagaia, galdegaia, kontrastea— sintaxiko baliabideez adierazten ditugu<sup>4</sup>. Euskarari dagokionez, leku berezia izan du hitz ordenaren gaiak euskararen estandarizazio bidean. Gramatika Batzordearen lanaz gain (EGLU-I 1987a, EGLU-II 1987b), hor ditugu Goenaga (1980) edo de Rijken (2008) gramatiketan hitz ordenari eskainitako kapituluak, eta Ortiz de Urbina (2003d), Etxepare & Ortiz de Urbinaren (2003) lanak<sup>5</sup>. Mitxelenak (1968) ere aipatu zuen hitz ordena, labur izanik ere, Arantzazuko Biltzarrerako ondu zuen txostenean. Oso bizirik zegoen artean Altuberen (1920, 1930) eragina euskararen estandarizazioari heldu zitzaion garaian, oihartzun handia izan baitzuten eta eragin sakona haren lanek Hegoaldeko joskeran. Polemika iturri ere izan dira lan horiek, ordura arteko literatura tradizioko eredu bateratua hautsi eta ordena zurrunagoa eta garbizaleagoa ekarri zutelako. Testuinguru horretan, Mitxelenak eta Villasantek maiz nabarmendu nahi izan zuten zenbaterainoko garrantzia zuen euskarak behar zuen estandar zaindurako hitz ordenaren gaiak (Corpus Batzordea 2011). Berrikitan Sarasolak (2016) ere idatzi du Altuberen eraginaz. Ikerlan horiek guztiak izanda ere, kapitulu honetan zehar behin baino gehiagotan aipatuko dugun bezala, badira oraindik hainbat puntu ikerketa sakonagoen beharrea daudenak.

## 41.2. Ordena neutroa (kanonikoa) / ordena markatua

**41.2a** Informazio testuinguru desberdinak nabarmentzeko osagaien hurrenkera aldaketaz baliatzen diren hizkuntzetan (euskaraz, esaterako), perpausak

---

<sup>4</sup> Badira informazio egiturari buruzko kapituluak inguruko gramatiketan: *Gramàtica de la llengua catalana* (2016), *Gramàtica del català contemporani* (2008), *Gramática descriptiva de la lengua española* (1999), *Nueva gramática de la lengua española* (2009), *Collins Co-build English Grammar* (1990), Huddleston & Pullum (2002. *The Cambridge Grammar of the English Language*).

<sup>5</sup> Bai eta, lehenagokoen artean, Astarloa (1803: 171-187), Ithurry (1895: 445) edo Lafitte (1944: 46-50).

izan ditzakeen aukeren artean bat hartzen da “neutrotzat”, ordena ez-markatutzat. Ordena *kanoniko* ere deitzen zaio halakoari (Garzia 2014a; Vallduví 2008). Osagai jakin bat nabarmendu gabe, gertaera baten berri ematen da, besterik gabe; funtzio deskribatzailea da nagusi ordena hau duten perpausetan. Ordena kanonikoa duten perpausak erantzun egokiak izaten dira *zer gertatu da?* moduko galdera orokorreari erantzuteko. Gainerako aukerak, neutroak ez direnak, hurrenkera “markatuak” direla esango dugu; funtzio informatibo espezifikoa dute, egoera jakinetan erabiliko ditugu.

Euskaraz *Gazte horrek auto berria erosi du* esaten badugu, perpaus horretan ageri diren hitzek hurrenkera guztiak onartzen dituzte (§ 41.1c): esaterako, *Auto berria erosi du gazte horrek* (OVS) nahiz *Gazte horrek erosi du auto berria* (SVO). Hurrenkera horiek guztiak dira egokiak, nolakoa den testuingurua eta zer adierazi nahi den. Gauza bera gertatzen da zeharkako objektua sartu nahi izanez gero: *Aitak amari gona gorria ekarri dio*. Hori bezain euskara da *Amari ekarri dio aitak gona gorria*. Eta hori bezala, hemen ezarri nahi ditugun hurrenkera guztiak (Goenaga 1980; Gramatika Batzordea 1987a).

Hala ere, “lehenbiziko hurrenkera (*Gazte horrek auto berria erosi du*) naturalago bezala sentitzen du hiztunak” esan dugu euskararen bereizgarri orokorrak azaltzean (§ 1.2b). Gainerako hurrenkerak ere arazorik gabe erabil ditzakegu, baina badirudi horietan zerbait markatuagoa adierazi nahi dugula. Ez gara zerbait neutroa kontaktzen ari (*zer gertatu da gaur?*), baizik galdera bereziago bati erantzuten (*zer erosi du gazte horrek?*, *nori ekarri dio aitak gona gorria?*). Bigarren hurrenkera horrek badu bere gainean lehenbizikoak ez duen pisua.

**41.2b** Hiru irizpide balia ditzakegu ordena ez-markatua, kanonikoa edo neutroa zein den jakiteko: (euskaldunaren) hizkuntza sena edo intuizioa, estatistika eta argumentuen islatzea (Gramatika Batzordea 1987a, 1987b; Vallduví 2008)<sup>6</sup>. Irizpide horien arabera esaten dugu, hain zuzen ere, euskara SOV motako hiz-

---

<sup>6</sup> De Rijkek (1969, 1978) aintzat hartzen ditu Greenbergekek (1963b) III motako hizkuntzetan ikusten zituen ezaugarrietako batzuk, hala nola postposiziodun hizkuntza izatea, galde hitzak nahitaez aurreratu beharrik ez izatea (*wh-fronting* deitzen zaionaren beharrik ez izatea) eta adizki laguntzailea adizki nagusiaren ondoren ezartzea.

kuntza dela (§ 41.1b). Nolanahi ere, euskaraz eztabaidatua izan da estatistiken kontua: alegia, zein den maiztasun handiena duen ordena. Hainbat hizkuntzalari arduratu dira gai honetaz (de Rijk 1969; Hidalgo, B. 1994; Erdocia 2006b; Pastor & Laka 2013), baina EHUko Euskara Institutuak eginiko azterketen arabera, gaurko testuetan, egitura sinpleenetan behintzat, *andreak gizona ikusi du* (SOV) hurrenkerako esaldiak hamar aldiz gehiago ageri dira *gizona andreak ikusi du* (OSV) motakoak baino. Hirugarren irizpidea bat dator gorago ikusi dugun hizkuntza tipologiako parametroarekin, aditzen argumentu egitura sintaktikoki nola gauzatzen den hartzen baitu kontuan. Beste hitz batzuetan esanda, subjektuaren, objektuaren, zehar-objektuaren eta gainerako argumentuen (lokatiboa, esaterako) kokagune kanonikoak zein diren hartzen da kontuan. Argumentu bakoitzari dagokion sintagma bere posizio kanonikoan badago, ordena neutroa izango dugu; ohiko posiziotik kanpo ageri bada, ordena markatua<sup>7</sup>.

Euskaraz, perpaus menderatu batzuetan eta bereziki erlatibozkoetan, ez dugu aukerarik osagaiak lekuz aldatzeko, sintagmek beren posizio kanonikoetan egon behar dute. Agian horregatik hartu izan da kontuan irizpide hau ordena neutroa edo kanonikoa zein den erabakitzeko (besteen artean, de Rijk 1969). Gramatika Batzordeak (1987a) beste egitura batzuek ere hartu zituen kontuan ordena kanonikoa aztertzean: nominalizazioak —*aitaren etxe erosketa*—, bi galdetzailako perpausak (azalean, behintzat, horrela ikusten ditugunak) —*nork zer egin du?*— edo izen sintagma bera bi izenlagunek modifikaturik duten egi-

<sup>7</sup> Hizkuntza bakoitzak izaten ditu bere baliabideak egitura markatuak adierazteko. Ikus, esaterako, Vallduví (2008) katalanerako, Zubizarreta (1999) eta RAE (2009) gaztelaniarako edo Ward, Birner & Huddleston (2002) ingeleserako. Oro har, estrategia nagusietako bat osagaiak ezkerreko posizioan kokatzea dela esan daiteke, nahiz horretarako ere modu bat baino gehiago dagoen. Besteak beste, irizpidetzat hartzen da ezkerrean ageri den osagaia ondoren datorren perpausaren izenordain baten bidez errepikatzen den ala ez (*her parents, I don't like them at all / her parents I don't like \_ at all*). *Left dislocation* ('ezkerreko dislokazioa') esaten zaio lehen adibideko prozedurari; osagaia aurreratzea, bigarrenari. Erlatibozko egituren bidez oinarritzko perpausa bi zatitan banatzea da beste estrategia bat: *eso es lo que pienso yo; It was a red wool sweater that I bought* 'lanazko jertse gorria zen nik erosi nuena'. Badira mintzagaia aurkeztu eta nabarmentzeko balio duten egiturak ere (*as for, en cuanto a, pel que fa a...*).

turak —*Artetaren Ganboaren erretratua; argazkilariaren lehendakariaren erretratua; Narbaitzen San Frantsesen biografia*—. Azken hiru adibide haue-  
tan egiletzat hartuko dugu lehen izenlaguna: Arteta eta argazkilaria dira, hurre-  
nez hurren, erretratugileak, eta Narbaitz biografiagilea. Gaia, pazientea, adie-  
razten du, ostera, bigarren izenlagunak. Genitibo subjektibo deitu izan zaio  
lehen motakoari —adibide horietako *Artetaren, argazkilariaren* eta *Narbaitzen*  
izenlagunak bezalakoei, alegia—, eta genitibo objektibo, berriz, *Ganboaren,*  
*lehendakariaren* edo *San Frantsesen* izenlagunen pareko direnei (§ 18.6).

Argudiobide horiek garamatzate esatera euskaraz SOV dela ordena ez-markatua,  
neutroa. Hau da, euskaraz, oinarrizko ordenan subjektua kokatzen da lehenik,  
osagarriak ondoren eta aditza amaieran; hori da ordena kanonikotzat, ez-mar-  
katutzat hartzen duguna (Mitxelena 1979; Gramatika Batzordea 1987a; Garzia  
2014a):

subjektua (abs.) / aditza  
(zehir-objektua) / subjektua (abs.) / (zehir-objektua) aditza  
subjektua (abs.) / predikatu osagarria / aditza  
subjektua (erg.) / objektua / aditza  
subjektua (erg.) / zehir-objektua / objektua / aditza

Zehir-objektuari dagokionez, ez dago hain argi zein den ordena ez-markatua  
(Ortiz de Urbina 2003d). Lafittek (1944) subjektua (abs.) / zehir-objektua / adi-  
tza ematen du hurrenkera neutrotzat. Eta hala da honako adibide honetan, eta  
beste askotan: *Gizon batek bi seme zituen, eta gazteena aitari senipartearen*  
*eske jarri zitzaion* (Lardizabal). Baina aditz psikologikoekin zehir-objektua  
aurrean duen egitura hartzen dugu ez-markatutzat: *Atezainari giltzak galdu*  
*zaizkio*. Horregatik eman dugu goian ‘zehir-objektua’ parentesi artean, subjek-  
tu absolutiboaren aurrean eta atzean errepikatua. Baliteke ordena neutroa alda-  
tzea zehir-objektua nolakoa den: datibo *hunkitua* edo aditz psikologikoak ar-  
gumentu egituran eskatzen duena, ‘esperimentatzailea’ (§ 18.4.3, § 18.4.4).

Adizkiak aspektu progresiboa adierazten duenean, kasu bereko bi sintagma ger-  
ta daitezke perpausean (*Jon Mikel jotzen ari da*). Bi sintagma horietatik lehena  
hartzen dugu subjektutzat eta bigarrena objektutzat (Ortiz de Urbina 2003d).



Zailagoa da adjuntuen kokagunea zehaztea. Batetik, adjuntuak subjektuaren segidan emango direla esan daiteke. Baina osagaiak ugalduta ahala, edo osagai bakoitza hedatu ahala, gero eta urrunago geratzen dira subjektua eta aditza. Eta horrek kohesioa ahuldu egiten du; subjektuaren eta aditzaren arteko distantzia neurri batetik gora hedatzen bada, Garziak dioenez (2014a), perpausa ez da *erabilgarri* (aise ulergarri). Bestetik, adjuntu guztiak ere ez dira modu berekoak. Modu adberbioak, esaterako, adizkiaren ezkerrean ematen dira askotan (Elordieta 2001). Mendeko perpausak erraz eman ditzakegu adizkiaren ondoren. Kontu korapilatsua da, azterketa gehiagoren beharra duena. Dena den, subjektua, objektua, zehar-objektua eta aditza dira hizkuntza batean ordena kanonikoa nolakoa den aztertzeko kontuan hartzen diren osagaiak.

### 41.3. Ordena kanonikoa eta testu-generoak

**41.3a** Nolanahi ere, hainbat ñabardura eskatzen ditu euskaraz oinarrizko hurrenkera subjektua — zehar-objektua — objektua — aditza delako baieztapenak. Lehenik, ahozkoaz ala idatziaz ari garen: “kontu kontari denak, esango nuke nik, esku zabala du hitzak gogo duen segidan bata besteari erasteko” (Mitxelena 1977a). Baina testuetan ere, badira ahozkotik gertuago daudenak, Subjektu-Aditz-Objektu hurrenkerakoak: Corpus Batzordeak (2011), esaterako, bertsolari txapelketetan gai jartzaileek gaiak ematean erabili ohi duten hurrenkerari erreparatzen dio. Antzerkiak eta ipuin-eleberriak ere aipatu zituen Mitxelenak (1968), aho mintzaerari lotuago dauden elkarrizketak izaten baitituzte. Kantu eta bertsoetan ere SVO ordena darabilgu sarri samar (nahiz horietan errimak ere behartu dezakeen hurrenkera jakin bat): *Gernikako arbola da bedeinkatua; Aita izena kanta beharrak / jarri dit bihotza bero* (Corpus Batzordea 2011). “Esateko” idazten diren testuetan ere, entzuleak ahoz hartuko dituenetan, komenigarri ikusten du Corpus Batzordeak (2011) ahozko eredu kontuan hartzea. Baina badira testu-genero gehiago ere (Mitxelenak euskal prosa arrunta deitzen duen horretan), eta horien artean ez dugu beti hurrenkera bat eta bakarra aurkituko. Osagaien ordena aldatu egiten da testu generoen arabera, edo, zehazkiago esanda, testu batean ager daitezkeen se-

kuentzien arabera. Ez da gauza bera azalpenak ematea, zerbait kontatzea, preskripzioak adieraztea (aginduak, aholkuak, prozedurak) edo sekuentzia gauzatzailerik edo performatiboa izatea (Corpus Batzordea 2011: 77-82; Garzia 2014a). Sekuentzia mota horiek guztiek ez dute aditza kokagune berean izaten; hau da, ez dute erakusten goian ordena kanoniko edo neutrotzat hartu duguna.

**41.3b** Mitxelenak (1978) testu zaharretatik hartutako adibide bat baino gehiago ematen ditu, subjektua aditzaren eskuinean dutenak (VS): *Jagi zedin nagia; Jausi da zerurean [zerutik] arria*. Edo Subjektu-Aditz-Objektu hurrenkera-koak: *Jagi zedin nagia / [Nagiak] erra zezan uria. Jausi da zerurean arria / [Harriak] aurkitu dau Lasturren torre barria / [Harriak] edegi dio almeneari erdia*. Testu berriagoak aztertuz, Seme Galduaren Parabola Lardizabalek eta Agirre Asteasukoak nola itzuli zuten alderatzen du. Mitxelenaren iritziz, Lardizabalek, Larramendiren jarraitzaile izanik, askotan zuzentzen zuen bat-batean ateratzen zitzaiona. Agirre Asteasukoak, ordea, biziagoa, pertsonalagoa iruditzen zaio, baina ez horregatik jatortasunik gabea. Lardizabalen ereduaren adibide dira perpaus hauek: *Aita batek bi seme zituen. Gazteena aitari senipartearen eske jarri zitzaion. Morrontzan jarri zan. Nagusiak txerri-zai ipini zuen. Zure morroitzat artu nazazu...* Agirre Asteasukoaren itzulpenean, ostera, ez da harritzekoa aditz-objektu (edo aditz-predikatu osagarri) hurrenkera aurkitzea: *Aita batek zituen bi seme. Gazteenak eskatu zion etxetik zegokana. Jarri zan etxe batean morroi. Non ipini zuan txerri zai. Ar nazazu zure langileen artean bederik*. Beraz, pentsa daiteke —dio Mitxelenak— Gipuzkoan, 1750-1850 tartean, bi kontaketa modu zeudela: eredu herrikoitik hurbil zegoena bata, Agirre Asteasukoak ordezkatzeko zuena; literaturatik gertuago zegoena bestea, landuagoa, Lardizabalena.

**41.3c** Goenagak ere “narrazio-kutsua dagoenean, ordena libreago gelditzen da” dio, eta adibide hau ematen du: *Andonik bere makila hartu zuen. Agurtu zituen bere lagunak. Joan zen ondoren Peruren etxera. Eskatu zizkion giltzak. Agurtu zuen andrea eta han abiatu zen mendirantz* (Goenaga 1980: 205). Ildo beretik, Corpus Batzordeak (2011) beste adibide hau ematen du, *Zazpi etxe Frantzian nobelatik hartua: Chrysostomek erriflearen morroiloari tira zion, eta kargadorea atera. Kokatu zuen hamabigarren kartutxoa, sartu zuen*

*berriro kargadorea, eraman zuen arma sorbaldara, apuntatu zion berrehun bat metrora zegoen tximu bati, jaitsi zuen arma, eta galdetu zuen: –Zenbateko bidea egin dezake balak?* (Atxaga 2009: 17).

Kontaketetan, beraz, bereziki bata bestearen ondoren gertatuak kontatzen ditugunean, narrazio-kateetan, erraz jotzen dugu Subjektu-Aditz-Objektu hurrenkerara. Kontuan hartu behar dugu, ordea, subjektua behin baino gehiagotan isilpean geratzen dela; are gehiago, atzean ere eman daiteke, objektuaren ondoren.

Preskripzio testuetan ere ohikoa da aditza aurretik ipintzea: aginduak edo aholkuak ematean, eskaerak egitean, prozedurak azaltzean... Gainera, adizki laguntzailerik ez dagoenean edo adizkia sintetikoa denean, aditzaren posizioa bihur daiteke baliabide nagusia agindu bat ematen ari garela azaltzeko. Beste adibide hau ere Corpus Batzordearen lanetik hartua da (2011: 79), HABE al-dizkariko testu bat:

Zer egin seme-alabak nabigatzen ari direnean?

Saia zaitetz Internet senide arteko aktibitate bihurtzen. Seme-alabekin nabigatu sairean, eta ez ezazu ordenagailua beren logelan utzi. [...]. Ikas ezazu teknologiari buruz, galdera asko egin eta ez zaitetz lotsa seme-alabek zuk baino gehiago badakite.

Seme-alabei azaldu behar zaie inoiz ez dutela *on line* ezagutu duten pertsona batekin hitzordurik antolatu behar. Esan iezaiezu, halaber, norbait horrelakorik egiten saiatzen bada, zuri jakinarazteko berehala.

Ipin itzazu etxean Interneten erabilerari buruzko arauak. [...]. Informa zaitetz seme-alabak babesteko dauden kontrol mekanismoez [...].

Testu zein pasarte gauzatzailerik edo performatibo esaten zaie aditz performatibo (gauzatzailerik) ardatz dutenei. Formaz, lehen pertsonan joan ohi dira, indikatiboko orainaldian, eta partizipio burutugabea hartzen du aditzak, *-t(z)en* alegia. Halakoez “esan ez ezik, egin egiten dute, gauzatu: *bataiatu, barkatu, ezkondu, agindu, apustu egin, testamentuz utzi...*” (Corpus Batzordea 2011: 80). Mota honetako testuak dira bandoak, ziurtagiriak, administrazioko lege, xedapen eta ebazpenak. Horietan aditza hasieran joan ohi da: *agintzen dut, xedatzen dut, ebazten dut, ziurtatzen dut, adierazten dut...*

**41.3d** *Mintzagaiak* eta *iruzkinak* osatzen dute ordena neutroa duen perpaus baten informazio egitura. *Mintzagai* esaten diogu euskaraz diskurtso edo solasaren ‘unibertsoa’ finkatzen duen atalari (*tema* edo *topic* deitzen zaio nazioartean)<sup>8</sup>; eta *iruzkin*, berriz, mintzagai edo tema horri buruz esaten denari (ematen den informazioari), nazioartean *rema* deitu izan zaionari. Baina beste modu batean ere definitu da mintzagaia: informazio zaharra edo jadanik ezaguna biltzen duten elementuek osatzen duten perpausaren zatia. Definizio hori eta bestea, diskurtso edo solasaren ‘unibertsoa’ finkatzen duen atala dela esatea, elkarren osagarri izan daitezke, sarritan informazio zaharra solasaren oinarri gertatzen baita eta elementu berriek zein testuingurutan toki hartzen duten erakusten baitu. Orogen buru, mintzagaia perpausetako predikazio oinarriari dagokiola esan genezake. Elearen azpia edo markoa finkatzen du, ekartzen den informazioari eremu bat ematen dio. Horrexegatik, hain zuzen ere, sintaxi egiturarekin alderatuz, subjektuak adierazten du, kasurik ohikoenean *mintzagaia* eta predikatuak *iruzkina*: <sub>mintz.</sub>[aitak]<sub>mintz.</sub> / <sub>iruzk.</sub>[amari gona gorria ekarri dio]<sub>iruzk.</sub> Predikazioaren edukia biltzen duten sintagmek osatzen dute iruzkina.

**41.3e** Intonazioari dagokionez, ordena neutroak (kanonikoak) bi multzo prosodiko ditu: lehena subjektuari dagokio eta gorantz amaitzen da; bigarrena predikatuari dagokio eta beherantz doa gradualki (Institut d’Estudis Catalans 2016).

**41.3f** Ordena neutroaz, ez-markatuaz jarduterakoan, perpaus sinpleak eman ditugu adibide orain arte. Hala ere, ikusi dugu kontuak ez direla hain errazak, eta euskaraz ordena SOV dela esateak hainbat ñabardura eskatzen dituela: ahozko mintzoaz ari garen, idatzizkoaz; eta azken honetan, testu generoen araberako desberdintasunak aipatu ditugu. Eta tradizio desberdinez ere hitz egin dugu. Dena den, baieztatu daiteke gaurko euskara estandarrean SOV dela zerbaiten berri emateko ordena ez-markatua.

Kontuak ez dira hain garbi, ordea, perpausak luzatu eta mendeko perpausak ere erabiltzen ditugunean, bereziki mendeko perpaus osagarriak badira.

---

<sup>8</sup> Mitxelenak eman zion izena: “*Topic* edo *Themaren* ordeztu euskaraz ‘mintzagai’ erabil daitekeela iruditzen zait” (1981: 69).

Euskararen bereizgarri orokorreari eskainitako kapituluan eman dugun adibidea (§ 1.2b) berriro hona ekarriz, bat etorriko gara ez dela naturalena honako esaldi hau: *Hemen dauden guztiek Jaunak ez duela ezpatarik ez lantzarik behar gu salbatzeko jakingo dute*. Askoz errazago erabiliko dugu beste hau: *Hemen dauden guztiek jakingo dute Jaunak ez duela ezpatarik ez lantzarik behar gu salbatzeko* (Mujika 2002: 51), osagarri luzea aditzaren eskuinaldera eramanez. De Rijkek (2008) ere hala dio, aditzaren ondorengoa dela mendeko perpaus osagarrien gune kanonikoa (baina galdegaia aztertzean ikusiko dugu zehargalderak aditzaren ezkerrean ere erraz aurki daitezkeela). Gaur egun ia aho batez gomendatzen da SVO ordena perpaus osagarria eskatzen duten aditzak ditugunean (Zubimendi eta Esnal 1993; Gramatika Batzordea 1987a; Alberdi eta Sarasola 2001; Ortiz de Urbina 2003d; Arakama et al. 2005; Garzia 1997, 2014a; Corpus Batzordea 2011).

Definizioak ematean erabiltzen diren egiturak ere hartu dituzte aztergai. Petrirenak (2011), Arrietak eta bestek (2003) eta Arakamak eta bestek (2005) definizioetan aditza bigarren posizioan kokatzeko gomendioa ematen dute: *Egiatagiria da agiri bat, ziurtatzen duena bertan adierazten dena egia dela; Ekonomia da zientzia-esparru bat non saiatzen garen aurkitzen erregularitateak; Ziurtagiria da idatzizko aitorten ofizial bat, eta haren bidez baieztatzen da ekintza, gertaera, erabaki edo horrelakoren bat egia dela*.

**41.3g** Laburbilduz, bada, egia da SOV dela ordena neutro edo kanonikoa gaurko euskara estandar idatzian, batik bat perpaus laburretan. Bestalde, testu-generoak ere zerikusi handia du, ikusi dugun bezala (§ 41.3c).

## 41.4. Ordena markatua: Galdegaia

### 41.4.1. Perpauseko informazio berria

**41.4.1a** Orain arte esandakoaren arabera, ordena kanonikoa duten perpausetan, perpaus osoak eman dezake informazio berria, eta ‘mintzagaia / iruzkina’ da dagokien informazio egitura. Baina ez da beti horrela izaten. Aditzaren aurreko

sintagma ere izan daiteke informazio berria ematen duen bakarra. Har dezagun ondoko perpausa: *Gure lagunak zinemara joan dira*. Perpaus hori izan daiteke informazio berria, baina izan dezake beste irakurketa bat ere: *Gure lagunak ZINEMARA joan dira*. Bigarren honetan, ahoz ari bagina, intonazioak nabarmenduko luke *zinemara* osagaia. Lehen perpausa, *gure lagunek zer egin dute?* galderaren erantzun egokia da; bigarrena aukeratuko dugu, ostera, *gure lagunak norabait joan direla jakin eta nora joan diren baldin bada lortu (edo eman) nahi dugun informazioa (nora joan dira?)*. Beste hitz batzuetan esanda, *Gure lagunak zinemara joan dira* perpausa izan daiteke galdera orokor baten erantzuna (*zer gertatu da?*); izan daiteke *gure lagunek* zerbait egin dutela jakin eta horri buruzko informazioa ematen duena (*gure lagunek zer egin dute?* galderaren erantzuna, alegia) eta izan liteke, azkenik, *gure lagunak norabait joan direla jakin eta nora joan diren informazioa ematen duena, zati galdera baten erantzuna: Nora joan dira gure lagunak?* Lehen bi interpretazioetan mintzagaiak (*gure lagunak*) eta iruzkinak (*zinemara joan dira*) osatuko dute adibide hartu dugun perpaus horren informazio egitura. Hirugarren interpretazioan, ordea, *nora joan dira?* zati galderaren erantzuntzat hartuko genukeenean, osagai bat nabarmentzen dugu informazio egituran. Izan ere, zati galderetan beti izaten da *aurreposizio* bat, aldeztu aurretik dakigun zerbait (*gure lagunak norabait joan dira*) eta ezagutzen ez dugun elementuren bat (NORA joan diren, zehazki); azken honetaz egiten da galdera, hain zuzen ere. Horixe da informazio egituran nabarmentzen dugun osagaia. *Galdegai* deitzen zaio euskaraz osagai horri (*foku* nazioartean). Eta *mintzagai*, berriz, gainerakoari: galde hitza edo haren erantzun den galdegai kokatzeko informazio markoa ematen digun zatia<sup>9</sup>. Aurreraxeago aztertuko dugu berriaz *mintzagaia* (§ 41.5) eta han emango dugu *mintzagai* terminoa ikusteko bi moduen berri: batetik, *iruzkinari* kontrajartzen zaion atala; bestetik, *galdegaiari* kontrajartzen zai(zki)on atala(k). Nolanahi ere, perpaus askotan, informazioa ematea beste helbururik ez dutenetan, ez dago nabarmendutako atalik, ez dago galdegairik (*Auto batek istripua izan du* esaldian, esaterako, *zer gertatu da?* galdera orokorrari erantzuten dion heinean).

---

<sup>9</sup> Garziak (2014a) *hizpide* deitzen dio, eta *mintzagai* terminoa uzten du guk *mintzagai aurretua* deituko duguna adierazteko (§ 41.5.3).

**41.4.1b** Mintzatzen garenean ondo bereizten dugu noiz dugun mintzagai / iruzkin informazio egitura eta noiz dugun galdegaia. Lehenak, bi multzo prosodiko ditu, mintzagaiari dagokiona bata, iruzkinari dagokiona, bestea (§ 41.3d). Bigarreanean, ordea, talde foniko jarraitua osatzen dute galdegaiak eta aditzak. Talde foniko horren azentu gailurra galdegaiak darama eta hortik aurrera esaldia malda behera bezala doa (Mitxelena 1981). Aditzaren ezkerraldeko lehen posizioa hartu ohi du, beraz, galdegaiak; hau da, galde hitzak hartzen duen posizio bera. Bata bestearen ispilu dira galde hitza eta galdegaia hitzen ordenari dagokionez (de Rijk 1978). Eta biek, galdegaiak eta aditzak, ezin bananduzko informazio unitatea osatzen dute; ez dute tartean beste osagairik onartzen<sup>10</sup>; *bide*, *omen/ei* eta *ote* partikulak dira galdegaiaren eta adizkiaren artean eman daitezkeen bakarrak (§ 23.5.3).

**41.4.1c** Osagaien ordena kanonikoa aldatzeak ordena markatua dakar bera-ekin. Hala gertatzen denean, beti fokalizatzen, nabarmentzen dugu osagaien bat, hura izaten baita informazio berria dakarrena. Ordena kanonikoa haustean, aditzaren aurreko osagaia hartuko dugu galdegaitzat. Ondoko bi adibideetan, *amak* eta *atezainari*, hurrenez hurren: *Liburu hau amak eskaini dit; Giltzak atezainari ahaztu zaizkio*. Aurreko puntuan esan bezala, ordena ez-markatuan, neutroan, intonazioak esango digu aditzaren aurreko osagai hori galdegai den ala ez; “ebakidura edo etena da *mintzagai* / *galdegai* arteko bereizkuntzaren ezaugarri adizkia analitikoa denean: *gaur* / *izan dute* (mintzagaia) eta *GAUR izan dute* (galdegaia). Adizkia trinkoa izanik, *ba* partikula ezartzen da aditzaren aurrean: *gaur dute* / *gaur, badute*; *adiskideak darama* / *adiskideak badarama*” (Mitxelena 1981: 72). Galde hitzak ere informazio

---

<sup>10</sup> Galde hitzaren eta aditzaren artean ez dugu bestelako osagairik sartzen, baina Mitxelenak (1981) Ubillosen zenbait adibide ematen ditu kontrakoa erakusten dutenak; hau da, zenbaite-tan onartzen ditugula hainbat tarte-esaldi edo hitz andana aski luzeak galde hitzaren eta aditzaren artean: *Nola, aztu gabe, irauñ zuen, ta gorde ziran Fedeko egiak? Zergatik Jerusalemgo Erriak, Evangelioa munduan barreatu edo publikatu, ta ere noizbait irauñ zuan erori gabe?*; *Zergatik Jainkoak ain gogorkiro kastigatu zuan erri hura?* De Rijkek (2008), bestalde, galde perpaus jokatu gabeak aipatzen ditu, horietan ere ager baitaitezke beste osagai batzuk galde hitzaren eta aditzaren artean: *Nora, ordea, zurekin joan? Zergatik gaur mendira igo?*

berriaren eskea egiten duten neurrian, galdegai direla esaten dugu eta aditzaren ezkerrean ematen ditugu aurreko puntuan esan bezala: *Bihar, nora joango gara?*; *Amaia, norekin etorri da?*

**41.4.1d** Osagai guztiak izan daitezke galdegai, bai eta aditza bera ere. Aurreko puntuan ikusi ditugu sintagma ergatiboa (*amak*) eta sintagma datiboa (*atezainari*) galdegai zuten adibideak. Edozein postposizio sintagma ere izan daiteke galdegai: *Zure arrebarekin joan nintzen auto berria erostera*; *Hiru egunean amaituko omen du lana*; *Leku askotatik iritsi zaigu berri bera*; *Kontu handiz gidatzen duzu zuk*. Adberbioak ere berdin: *Zinemara, atzo joan nintzen*; *Beti iristen da berandu*; *Horrelaxe egin beharko zenuke beti lan*. Aditza ere izan daiteke galdegai, eta galdegaitasun hori nabarmentzeko *egin* baliatzen da batez ere Hegoaldean adizki analitikoetan: *Krisi garaietan, areagotu egiten da langabetuen kopurua*; *Goibel gaudenean, lagundu egiten du ingurukoek animoak emateak*; *Lengo igandean, Moxolo eta ni asi gaituk zaragia esku batez jaso baietz eta ezetz, ta galdu egin nian* (Agirre). Perpaus nagusietako adizkien ezaugarria da *egin* hori; ez da erabiltzen mendeko perpaus jokatu-gabeetan (*\*Ez dizut eskatu etorri egiteko*; *\*Aspertu naiz irakurri egiten...*); eta nekez aurkituko dugu mendeko perpaus jokatueta ere (*\*Ikusi egin nauenean*; *\*Irakurri egin dudan liburua*).

**41.4.1e** Kontuz ibili behar da, ordea, noiz den egoki *egin* hori erabiltzea. Gaur egun askotan ikusten baitugu *egin* aditzaz bestelako galdegaia duten perpausetan. Adibide hauetan, esaterako, ez da zilegi *egin* erabiltzea, hurrenez hurren *beti*, *erreklamazio bat* eta *zer nolako ondorioak eragin ditzaket*en *drogek* direlako galdegaia, nabarmendu nahi dena, eta ez aditza: *\*Beti esan egiten diot erantzun txarrrik ez emateko*; *\*Bere desadostasuna adierazteko, erreklamazio bat aurkeztu egin du*; *\*Hitzaldi horietan erakutsi egiten da zer nolako ondorioak eragin ditzaket*en *drogek*.

Beste batzuetan, galdera orokor bat egiteko baliatzen dugu *egin*, eta erantzunaren informazio egitura mintzagaia / iruzkina izango da: *Zer egin duzu? Kanpora atera naiz*. Baina galdera horren erantzun izan daiteke aditza nabarmentzen duen beste hau ere: *Aspertuta nengoen eta atera egin naiz bileratik*.



#### 41.4.2. Galdegaia nola nabarmendu

**41.4.2a** Euskalkien arabera molde bat baino gehiago erabiltzen da galdegaia nabarmentzeko. Ekialdeko euskalkietan adizki laguntzailea aurreratzen da maiz (Lafitte 1944; Etxepare & Ortiz de Urbina 2003): *Nik dut egin; Zuk duzu hautsi basoa*. Gaur egun ere horrelako adibide ugari aurkituko ditugu ekialdeko testuetan eta ahozko mintzoan ere. Adizki laguntzailea aurreratua duten egiturak markatuagoak dira galdegaia + adizki nagusia hurrenkera dutenak baino: *Zuk hautsi duzu basoa / Zuk duzu hautsi basoa*.

Adizki sintetikoetan, aditza bera errepikatzen da, batez ere Bizkaiko zenbait tokitan, galdegai dela nabarmentzeko: *Ekarri dakar; Entzun dantzuz; Itsasontzi hori, joan doa ala etorri dator?* Erakusleek, berriz, *-xe-* atzizkia hartzen dute sarritan: *Aitak hauxe esan zuen*. Horrek esan nahi du *-xe-* atzizkidun erakusleak ezin direla mintzagai aurreratuaren kokagunean agertu (§ 41.5.3): *\*Hauxe aitak esan zuen*.

**41.4.2b** Aditzak adierazten duena gertatuko dela, edo ez dela gertatuko ere nabarmendu dezakegu; hau da, gertakari edo ekintza horren baiezkotasuna edo ezezkotasuna. Ezezkotasuna nola adierazten dugun aurreraxeago ikusiko dugunez, azter dezagun zein baliabide ditugun baiezkotasuna fokalizatzen. Adizki sintetikoa dugunean, *ba-* aurrizkiak baliatzen gara aditza nabarmentzeko: *Badator laguna; Badakit hori; Zuk, behintzat, badituzu lagunak*. Esan beharrik ez da gertakariaren baiezkotasuna nabarmentzen duen *ba-* dugunean, ezin dela beste galdegairik egon. Ikus bi adibide hauen arteko aldea: *Gaur dator, ez bihar; \*Badator gaur, ez bihar*. Bi adibide horietako lehenean ‘etorri’ ekintza *gaur* gertatuko dela adierazten dugu (eta ez bihar). Hau da, aldeztu aurretik dakigu pertsona hori etorriko dela, baina ez dakigu noiz: horixe da galdegaiak ematen duen informazioa. Baina *badator* esatean, ‘etorri’ ekintza baietz, gertatuko dela nabarmentzen dugu eta, horrenbestez, ez dago lekurik beste osagai bat nabarmentzeko. Ikus beste adibide hauek ere: *Laguna doa, ez aita; Laguna badoa, aita ez*. Adibide horietako lehenengoan *laguna / aita* galdegaien arteko kontrastea dugu; nor doan nabarmentzen da, *laguna bai / aita ez*. Bigarrean, *oastera, joatea / ez joatea* da azpimarratzen dena: *laguna bai / aita ez*; mintzagaiak dira *laguna* eta *aita*. *Ez* adberbioaren kokagunea aldatu egiten da batean eta bestean.

Zenbaitetan baiezko hori enfasi handiz markatzen da, *bai* adberbioa etenen artean erantsiz: *Badakit, bai, non ibili zinen.*

*Bai/ez* motako galderetan, adizkia isilpean uzten bada, *bai* osorik agertuko da: *Beste lanik bai ala badaukazu gurekin etortzerik gaur gauean?* (Urrutikoe-txea); *Lanik bai?* (L. Garro).

**41.4.2c** Adizki analitikoetan, ostera, ez dugu aditzari horrelako markarik gaineratzeko modurik. *Bai* adberbioa baino ez dugu: *Etorri da, bai; Bai, etorri da.* Galderetan, intonazioaz gain, *bai/ez* motako konfirmazioa eskatzeko, *al* erabiltzen da euskaraz hizkera batzuetan (*Etorri al da?; Ez al da oraindik iritsi?*) eta *-a* atzizkia beste hizkera batzuetan (*Etorri dea?* (§ 23.5.2)). Baiezko perpausetan komaz balia gaitezke aditzaren ezkerreko osagaia galdegai den ala ez markatzeko. *Gaur izan dute / Gaur, izan dute* perpaus bikotean, esaterako, lehenak *noiz izan dute?* galderari erantzuten dio; *gaur* eta *izan dute* osagaiak talde foniko bakarra osatzen dute, tartean ezin dugu beste ezer sartu. Eskuineko adibidean, berriz, *gaur* adberbioaren ondoko koma horrek adierazten digu ekintzaren baiezkotasuna dela nabarmendu, fokalizatu nahi duguna (Mitxelena 1981).

**41.4.2d** *Etorri da, bai*, perpausean *etorri* gertaeraren baiezkotasuna nabarmentzeko balio du *bai* adberbioak; adizki jokatuaren ondoren ageri da hor. Baita beste adibide hauetan ere: *Badator, bai; Ondotxo asko dakit, bai; Tratu halaxe egin nuen gurasoekin, bai, baina gero ez zen harritzekoa izango, institutuan hasita nengoenez, han segitzea COU egiten ere* (X. Mendiguren Elizegi). Adizkiaren ondo-ondoan egon ez arren, *bai* adberbioak azpimarra dezake gertaera edo ekintza jakin bat: *Joan zen lanera, bai -beharko joan-, baina ez dut uste oso lasai joan zenik* (Ladron Arana).

Baina edozein sintagmaren ondoren ere ager daiteke<sup>11</sup>: *Lan aferetan bai, nahi-taezkoa da tenorez jokatzea; Zerorrek eskatu duzun elkarrizketara berandu*

---

<sup>11</sup> *Bai* adberbioak baditu bestelako erabilerak ere, egitura bereko sintagmen ondoan errepi-katurik ematen denean (*bai etxean, bai kalean*), edo *ere* diskurtso markatzailearekin batera ematen denean (*bai eta ere, baita ere, ere bai*). (§ 42.19.2).

*agertzea ez da itxura* (Epaltza); *Lana franko bai, baina irabazi ere majo* (Etxabe); *Zure etxean bai, baina parlamentuko garitaren kontra ez* (Arretxe).

*Orduan* adberbioaren ondoren ere sarritan erabiltzen dugu *noiz bai* azpimarratzeko (eta, bide batez, ordura arte ez zela halakorik gertatu adierazteko): *Biok geratu gintzaizkion so kariloiairen aztarna galdu zen arte, eta, orduan bai, esan nion ez niola traba gehiagorik egin nahi, eta Reina Sofiara nindoa-la buelta bat ematera* (Saizarbitoria). Determinatzaile sintagma ondoren duela (aditza isilpean utzirik): *Akademiako ekitaldi batean biak egokitzen zirenean, orduan bai liskarra* (Jon Muñoz).

Eman ditugun adibideak aztertuz gero, guztietan kontraste bat markatzen dela ondoriozta dezakegu, nahiz kontraste hori ez den beti esplizitua (beste batzuetan bai: *Zure etxean bai / parlamentuko garitaren kontra ez*). Kontua da zeren kontrastea nabarmentzen duen *bai* horrek: galdegaiena<sup>12</sup> ala mintzagaiena. Galdegai / mintzagai jokoari dagokionez, funtsean egitura berekotzat hartze-koak dira adibide horiek eta goraxeago eman dugun *Laguna badoa, aita ez* (§ 41.4.2b). Gertaera bat baieztatzen da eta implizituki zein esplizituki beste bat ezeztatzen eta, aldi berean, gertaera horretako mintzagaiak dira kontraste bidez nabarmentzen direnak (§ 41.5.4). Argi ikusten da hori adibide honetan: *Bulegoko lanetan bai izanen zen kardinale eredugarria, baina gure Errege zuhurtziaz betea fidatzen ahalko ote zitzaion Erromako politikarekin gerta zitezkeen arazoetan?* (Xarriton). Perpaus horren testuingurua irudikatzen badugu, erraz pentsa daiteke norbaitek hauxe esan duela: (halako) kardinale eredugarria da bulegoko lanetan. Hortik abiatuta, *bulegoko lanetan* mintzagaia hanpatzen (nabarmentzen) da eta zalantzan jartzen *eredugarri izatea* bestelako lanetan. Mota berekoa da beste adibide hau ere: *Zu gabe ez daukat bizitzirik; zurekin bai* (Barriola). *Zu gabe / zurekin* mintzagaien kontrastea eta *bizitzirik ez / bizitzea bai* gertaera beraren baiezkotasuna edo ezezkotasuna.

---

<sup>12</sup> RAEk (2009: 2004) aipatzen ditu, baieztapenaren fokuaz ari dela, hemen eman ditugun egituren gaztelaniazko parekoak: *ahora sí que lloraba; del llanto sí que me acuerdo*. Kontrastea markatzeko balioa duten egituratzat hartzen ditu; *sí* adberbioaren ezkerreko osagaia izaten da kontrastatzen dena.

Aurrerago aipatuko dugun ezeztapenaren fokuaz zer diogun kontuan hartuta (§ 41.4.3d), adibide horietan *bai* adberbioak baieztapenaren fokua zein den adierazten duela esan genezake. RAEk (2009) ere aipatzen du ‘baieztapenaren foku’ kontzeptua. Eta lehenari *ukagai* deitu badiogu, bigarren honi *baieztagai* esan diezaiokegu.

### 41.4.3. Kokagunea

**41.4.3a** Galdegaiaren kokaguneaz arituko gara ondoren. Goraxeago esan dugunez, galdegaia da informazio egiturako gune nagusia, informazio berria ematen duena; euskara estandarrean aditzaren ezkerrean, ondo-ondoan ematen dugu, harekin batera ahoskatuz. Garziak dioenez (2014a: 44), hizkuntza batean galdegaiaren kokagune kanonikoak badu zerikusia hizkuntza horren tipologiarekin. Euskara bezalako ‘buru azken’ hizkuntzetan, ohikoa izango da galdegaia aditzaren ezkerrean ematea; hor kokatuko da informazio-gune nagusia (hala ere, ikusi dugu euskaraz ordena kanonikoa zein den aztertzean, testu-generoak, perpausaren luze-laburra eta abar hartu behar direla kontuan; bereziki perpaus osagarriak aditz gobernatzailearen ondoren ematen dira (§ 41.3c, § 41.3f)). Nolanahi ere, aurkituko ditugu mendeko perpausak galdegaiari dagokion gunean, batez ere laburrak direnean (de Rijk 2008). Zehargalderak: *Norantz joko dugun galdetzen dut* (Lertxundi); *Etxe hau nork gobernatzen duen ez dakit* (Mitxelena); *Barnean zegoen ala ez jakin behar zen lehenik* (Satrustegi). *Zergatik* galderaren erantzun diren kausazko perpausak: *Nahi dudalako bizi naiz hemen* (Atxaga); Helburuzko perpausak: *Bekaturik egin ez dezazuen idazten dizuet* (Elizen arteko Biblia). Denborazko perpausak: *Egia garratz horiek gibleko mina duzunean bakarrik esaten dituzu* (Mitxelena).

Ahozkoan, ordea, erraza da galdegaia aditzaren ondoren ematea, intonazioaz balia baikaitezke elementu hori nabarmentzeko<sup>13</sup>.

---

<sup>13</sup> Azterkizun ditugu oraindik galdegai kontuak mendebaldeko, erdialdeko edo ekialdeko hizkeretan. Eredu izan daiteke horretan Hualdek, Elordietak eta Elordietak (1994) Lekeitiko hizkeraz eginikoa.

Areago, galdegaiaren barruko osagai bat ere nabarmendu dezakegu intonazioaren bidez: *ZURE anaiaren kontra jokatuko du (ez nirearen kontra); Mahaiaren GAINEAN ezarri zuen maleta (ez azpian)*. Perpaus osagarrietako osagaiak ere fokaliza daitezke horrela. *Esan didate oraingoan BISIGUA jango dugula eta ez legatza*. Zubizarretak (1999) galdegai neutroak eta kontraste-galdegaiak bereizten ditu: lehenek galdera bati erantzuten diote; bigarrenek baieztapen bat dute auresuposizio, eta egiazkoa ez den informazioa ukatzera datoz. Enfasi berezia ematen zaie kontraste-galdegaiari ahoz ari garenean. Beraz, Zubizarretaren bereizkuntzari jarraiki, *ZURE*, *GAINEAN* eta *BISIGUA* kontraste-galdegaitzat har ditzakegu; azkenak, gainera, ondoan du zein den okerrekoa zen auresuposizioa: *legatza jango dugu*.

**41.4.3b** Galdegaia perpausa gurutzatuz mugitzea (*Cross-clause Focus Movement*, de Rijk 2008: 459). Mendeko perpausetan galdegairik badago, ohikoena, galdegaia mendeko perpausan uztea da (eta, nahi izanez gero, perpaus osoa jartzea galdegaiari dagokion lekuan, hau da, aditz gobernatzailearen aurrean: *Medikua ere laster etorriko dela uste dut*). Baina aditz nagusia ‘zubi aditz’ saillekoa bada (*uste izan, esan*), galdegaia mendeko perpausetik atera eta perpaus nagusiko galdegai posizioan jar daiteke: *Honela diozu eginen duzula* (Axular); *Zer uste zuten emango ziela Jainkoak?* (Ubillos); *Norekin uste duzu etorri zizunela?* (Urretabizkaia). Ezin daiteke horrelako mugimendurik gerta aditz faktiboekin (*jakin, ulertu, konturatu...*), ez eta *ukatu* aditzarekin ere: *\*Zer jakin zuten emango ziela Jainkoak?; \*Norekin konturatu zara etorri naizela?*

**41.4.3c** Kontuak askoz korapilatsuagoak dira ezezko perpausetan, galdegaiaren kokaguneari dagokionez<sup>14</sup>. Eta gramatikariek emandako argibideak ere ez datoz beti bat. Saiatuko gara, hala ere, auzia zertan den ahalik eta argien azaltzen.

Korapiloak, neurri handi batean, ezezko perpausetan —perpaus beregainetan eta mendeko perpaus batzuetan, behintzat— *ez* eta adizki laguntzailea aurretzetik sortzen dira: *etorri da / ez da etorri*. Auzia, beraz, hauxe da: (baiezko)

---

<sup>14</sup> “Ezezkoetan, nik ez dut argi ikusten, gramatikak gorabehera, gauzak nola moldatzen diren ezezkotasuna bera ez denean galdegai” (Mitzelena 1981: 81).

adierazpenetan aditzaren ezkerrean doan galdegaia non kokatu. Esaterako, *Berandu etorri da* ezeztatzen dugunean, *ez da etorri* baldin bada adizkia, zein kokagune dagokio *berandu* galdegaiari? Areago, ondoren ikusiko dugun bezala, zalantzan jar daiteke horko *berandu* adberbioari galdegai dei diezaiokegun ezezko perpausean ematen denean.

**41.4.3d** Korapilo horiek askatzeko ahaleginean, ezezko perpausak zertarako baliatzen ditugun, zer informazio mota ematen duten hartu behar da kontuan. Ezezko galdera baten erantzun izan daitezke: *Ez al du hori esan? Ez, ez du hori esan*. Ezezko galdera baten erantzun direnean *ez* adberbioa eman ohi dugu lehenik eta ondoren (beharrezkoa ez den arren), galderako perpausa errepikatu. Askotan ezeztapen hori osatu egiten dugu: *Ez du hori esan, beste hau baizik*. Gutxienak dira, baina, mota horretako ezezko perpausak. Gehienek aurretik (inplizituki edo esplizituki) egindako baieztapenak ukatzen dituzte. *Ez dizut hori galdetu* dioenak, edo aldeztatik norbaitek esana (*zuk hau eta hau galdetu didazu*) errefusatu nahi du, edo berak egindako galdera baten erantzuna ez dela egokia izan adierazten du (ez zaiola eman galdetzen zuenaren erantzuna). Beraz, ezezko perpausetan izaten da baztertzeko, ukatzen den elementu bat: *Ez da berandu etorri*. Ezeztapenaren foku esaten zaio elementu horri (RAE 2009); Garziak (2014a) *ukagai* deitzen dio ezeztapenak bere esparrutzat hartzen duen osagaiari eta de Rijkek (1996, 2008) *ia-galdegai*<sup>15</sup>.

**41.4.3e** Aurreko puntuan esandakoaren arabera, desberdinak dira baieztapenak eta ezeztapenak informazio egiturari dagokionez. Informazio berria, aldeztatik aurretik ezezaguna zena ematen du galdegaiak (falta zen daturen bati buruzko galderari erantzuten diola esan daiteke). Ezeztapenean, ordea, ez da gehienetan informazio berririk ematen; ezezaguna zaigun, aldeztatik eman den informazioko elementuren bat ukatzen da.

---

<sup>15</sup> Hizkuntzalari honen iritziz, zentzu hertsian, adierazpen perpausetan bakarrik aurkituko dugu galdegaia, horrelako perpausak baitira galdera baten erantzuntzat har ditzakegunak. Ezezko perpausa gehienak, aldiz, ez ditugu lotzen ezezko galderekin; baieztapen adierazpenen ukazioak baino ez dira. Eta, horrenbestez, ez dute egiazko galdegairik. Hortik dator 'ia galdegai' terminoa, hiztunak ukatzen duen baieztapeneko galdegaia izendatzeko.

**41.4.3f** Informazio berria ere eska daiteke, ordea, ezezko perpausetan galde hitzen bidez: *ZERGATIK ez zara autoz etorri? NOREKIN ez duzu hitz egin nahi?* Adibide horietan, aldez aurretik dakigun zerbait oinarri hartu eta ez dakigun zerbaiti buruz galdetzen dugu. Informazio eske gabiltza. Bi adibide horietan aldez aurretik dakigu ez zarela autoz etorri, baina ez dakigu zergatik, eta horixe jakin nahi dugu. Edo badakigu ez duzula norbaitekin hitz egin nahi, baina ez zehazki norekin, eta horixe galdetzen dugu.

Adibide horiek erakusten dute galde hitza adizki osoaren ezkerrean ematen dugula (baiezkoetan egiten dugun bezalaxe). Galde hitza *ez* adberbioaren eremutik kanpo dago. Galde hitz horien erantzunek ere kokagune bera izango dute: *HORREGATIK ez naiz autoz etorri (gero non utzi aurkituko ez dudalako); LAGUNEKIN ez dut hitz egin nahi, purrustada besterik egiten ez didatelako*. Adibide horietan, adizkiaren ezkerrean ematen dugun elementua galdegaia da, informazio berria (edo informazio eskea) dakarrena. *Aita ez da etorri perpausa, nor ez da etorri?* galderaren erantzun moduan har zitekeela zioen Mitxelenak ere (1981: 81). Beste interpretazioa, *aita etorri (al) da?* galderaren erantzun izatea da, jakina.

[Galde hitza + *ez* daraman adizkia] ez dira beti informazioa eskatzeko baliatzen. Galdera erretorikoak izaten dira sarritan, baieztapenaren baliokide direnak: *Nork ez zuen gauza bera eginen, kemen poxi bat zeukan pundutik?* (X. Arbelbide); *Nori ez zaio gustatzen Martikorena?* (Oxandabaratx). Guztiek egingo zutela gauza bera edo guztiei gustatzen zuela Martikorena ematen dute aditzera galdera horiek. Galde hitza eta *ez* bera bakarrik ere utz daitezke: *Loa zatika egiteko kontu hori jasangaitza egiten zaiela (nori ez?)* (Iturbe).

Zehar-galderetan ageri da galde hitza beste adibide hauetan, betiere adizkiaren ezkerreko gunean: *Zer ardua dio beste sasikume honi norekin ibiltzen naizen edo norekin ez naizen ibiltzen* (Gonzalez); *Ederki dakit nor etorri den eta nor ez den etorri* (Alonso). Aditza isildurik ere gera daiteke: *Garbi zegoen nork jarduten zuen goizero gorputza zailtzen eta nork ez* (Lertxundi); *Zuk uste duzu sumatu litekeela, ikusi batean, nork dakien irakurtzen eta nork ez?* (K. Izagirre).

Galdera-erantzun testuinguruetatik kanpo, prosodiaren laguntza beharko dugu; ahozkoan intonazioak lagunduko digu *astelehenean* galdegaitzat har-

tzen ondorengo adibidean: *ASTELEHENEAN ez naiz joango* (gainerako egu-netan bai). Idatzian perifrasiaren batera jo beharko dugu (Garzia 2014a): *Astelehena izango da joango ez naizen eguna* (edo horren antzeko egituraren bat).

**41.4.3g** [*Ez* + adizki laguntzaile] multzoaren eskuinean ematen da ezeztatu nahi den osagaia (§ 41.4.3d), *ukagaia*, adizki nagusiaren aurre-aurrean kokatua: *Ez dut nik egingo; Ez zara zu joango; Ez dira oinez etorri; Ez nizun zure aitaren koaderno zahar hura eman behar* (Atxaga). Elementu horri dagokio ezeztapena, ez gainerakoei. *Ez da trenez etorri* esatean, *TRENEZ* ukatzen da, ez *etorri* gertaera; izan ere, guztiz normala da beste hau esatea: *Ez da trenez etorri (herrira), autobusez baizik*. Edo *Ez da trenez etorri, agian beste garraiobideren bat erabiliko zuen* (Garzia 2014a: 125). Askotan ematen da, ukatu den elementuaren ondoren, egiazko informazioa zein den adierazten duena: *ez hau, baizik beste hau*. Horixe da aurkaritzako diskurtso markatzaileen funtziorik behinena (§ 42.21): *Ez zara zu joango, baizik zure lankideren bat; Lagunak ez ziren oinez etorri, ezpada autobusez; Ez dut lapurtu, erosi (egin) dut*. Adizkia sintetikoa denean, horren eskuinean emango dugu ukagaia: *Hau ez dator zuengandik, baizik eta Jainkoaren emaitza da (Elizen arteko Biblia); Horrelako hitzak erabiltzeak ez dakar euskara “kolokialagoa” eta “komunikatiboagoa” egitea* (Zua-zo). Ezezko perpausetik abiatu beharrean, baiezko perpaus batetik abiatuta ere adieraz daiteke goiko adibide horietako kontrastea: *Zure lankideren bat joango da, ez zu; “Nirekin dago haserre, ez gurekin”, zuzendu diot* (Atxaga).

Hasierako baieztapenak izan ditzakeen gainerako osagaiak mintzagai izango dira, edo *ez* adberbioaren ezkerrean eman daitezkeenak (enfasi edo hanpadura gunean), edo adizki nagusiaren eskuinean (§ 41.5.1, § 41.5.3): *Ruche jaunak ez zion jaramonik egin etenaldiari* (Jon Muñoz); *Hala ere, herriak ez zion kasurik egin nahi izan Samueli (Elizen arteko Biblia); Ez genuen asko hitz egiten gaiaz* (Elizondo).

Ukagai bat baino gehiago dugunean, *ez* adberbioa errepikatzen da askotan baikoitzaren ezkerrean (*ez* hutsa edo *eta* juntagailuaz lagundua): *Ezin da esplikatu, ez iraupenaren ez denboraren bitartez* (Xarriton); *Ez dugu ez egunik ez gaurik* (Juaristi); *Horregatik, ez genuen kanporatzen utzi behar ez aitarengandik heredatutako aje hura, ezta familiaren estutasunak ere* (P. Lizarralde).



**41.4.3h** Baina sintagma guztiak ezin dira ukagai gisa markatu: sintagma inespezifikoeekin —partitibo sintagmekin, esaterako— ezinezkoa da ukagai jokia egitea. Adibide batekin ikusiko dugu argiago: *Ez da tren ez etorri, autobusez baizik* guztiz normala da; baina \**Ez dut sagarrak erosi, platanoak baizik* ezinezkoa da (horretarako, sintagma espezifikoa edo zehaztua beharko genuke, *Ez ditut sagarrak erosi, platanoak baizik*). Eta, ukagai jokia ezinezkoa den heinean, berdin dio sintagma inespezifikoa edo zehaztugabe horiek adizki nagusiaren ezkerrean ala eskuinean ematen ditugun: *Ez du baloirik jo = Ez du jo baloirik*. Beste hitz batzuetan esanda, neutralizatuta geratzen da *ukagai / mintzagai* kontrastea.

Elementu enfatikoek, karga semantiko handikoek —hala nola *beti, sekula, dena, batere, guztiak* eta horien gisakoek— joera handia dute ezeztapenaren foku izateko, berdin dio zein kokagunetan dauden: *Ez dut sekula ikusi halakorik = Ez dut ikusi sekula halakorik*. Hauekin ere lausotu edo neutralizatu egi ten dira *ukagai / mintzagai* bereizketak.

**41.4.3i** Nolanahi den, askotarikoak dira aurki daitezkeen hurrenkerak. Ukagaia eman daiteke adizki nagusiaren eskuinean ere: *Demetriok, orde, ez zion eutsi hitz emanari (Elizen arteko Biblia); Ez genuen izaten haren berririk (Rey)*. Ahozkoan, intonazioari esker, errazago eraman dezakegu ukagaia atzerago (*ez da etorri TRENEZ, baizik autobusez*). Baina estandar idatzian hau da ohiko hurrenkera: *EZ + adizki laguntzailea + ukagaia + adizki nagusia*. Aurre-raxeago osatuko dugu informazio hau, *mintzagaia* aztertzean (§ 41.5.3e).

Hala ere, mendeko perpausak (bereziki perpaus osagarriak) erraz ematen ditugu adizki nagusiaren eskuinean. Ezezko perpausetan ere askoz ulerterrazago gertatzen dira mendeko perpaus osagarria adizki nagusiaren eskuinean daramatenak, ezen ez adizki laguntzailearen eta nagusiaren artean daramatenak: *Ez dut sinetsi nahi ekarri duzun soineko hori jantziko duzula* (eta *ez, ez dut ekarri duzun soineko hori jantziko duzula sinetsi nahi*) (§ 41.3f). Hona zenbait adibide: *Josek ez zion onartu berarekin oheratzea (Elizen arteko Biblia); Inork ez dio esan zortzi hilabeteko bizi-itxaropena ematen diotela (Zurutuza); Unamunok ez du ikusi nahi Kristoren mezuaren funtsa Aita Handiaren existentziarik eza dela eta erre-konozimendu horretatik datorkigula liberazioa eta salbazioa (Zulaika)*. Adizki sintetikoekin, jakina, beti eskuinean emango ditugu: *Bertzenaz ere, ez daki zein*

*ikasle etorriko zaion eta zein ez* (Bidegain); *Jende normalak ez daki ezkutatuta dagoen batentzat liburu bat zer den* (J. Zabaleta).

Oro har, ukagaiaren kokaguneko sintagma asko hedatzeak kalte egiten dio kohesioari, adizkiaren bi osagaiak elkarrengandik urruntzen direlako: *Ez dugu [zure anaia nagusiaren aspaldiko andregai jator hura] ikusi [nire arreba gaztearen oraingo senargai morroskoa baizik]* (Garzia 2014a: 126). Horrelakoe-tan, aurreko paragrafoan ikusi bezala, ukagaia adizki nagusiaren eskuinera eramatea izan daiteke irtenbidea.

**41.4.3j** Osagai gehiago ere ager daitezke ezezko perpausean adizki laguntzailearen eta adizki nagusiaren artean: *Oihanean zihozela ez dio bizkarreko minak bakerik eman* (Aristi); *Altzariak bisitari berriak hartzeko ohitura galdu du, eta ez dio neure zamari harrera onik egin* (Cillero); *Ez zuen Errege Antiokok BARKHAMENDURIK erdietsi* (Axular); *Ez dut liburutto hau LETRATU HAN-DIENTZAT egiten* (Axular). Ohart gaitezen adizki laguntzailearen eta partizipioaren artean doazen osagaiak baiezko perpausean izango luketen hurrenkera bera gordetzen dutela: *Errege Antiokok barkamendua erdietsi zuen; Liburutto hau letratu handientzat egiten dut*. Hemen ere gogoan izan behar da aurreko puntuan esana esaldiak ulerterrazago egiteko moduz (adizki laguntzailea eta adizki nagusia bata bestearengandik urrunegi ez ematea).

**41.4.3k** Galdegai izan daitezkeen osagaiak aztertzean (§ 41.4.2b), bestalde, esan dugu aditzak adierazten duen ekintza edo gertakariaren baiezotasuna edo ezezotasuna ere fokaliza ditzakegula. Adizki sintetikoak ditugunean, *ba-dator / ez dator* egiturak dira ekintza gertatuko dela edo ez dela gertatuko jakinarazteko moduak. Adizki analitikoetan, *ikusi du / ez du ikusi*. *Erregeak, beraz, ez zion entzun jendeari* (Elizen arteko Biblia) adibidean, *entzun* gertae-raren ezezotasuna fokalizatzen da; gainerako osagaietan, *erregeak* hartuko dugu mintzagai aurreratutzat, *jendeari* mintzagai aurreratugabetzat.

Beste modu batean ere fokaliza daiteke aditza bera, *ez* adberbioaren ezkerrean partizipio burutu forman eman eta ondoren adizki laguntzailearen eskuinean errepikatuta: *Itsasora erori ziren sorginak, baina ito ez zen inor ito* (edo *ito ez zen egin inor*).

#### 41.4.4. Galdegai gehitua

**41.4.4a** Orain arte galdegaiaz esandakoak osatzeko, beste egitura mota bati erreparatu behar diogu; esaterako, adibide honi: *Garai batean, arrain asko jaten zuen jendeak hemen, erreta*. Zer balio du hor amaieran, aurretik koma duela, ageri zaigun *erreta* adberbioak? Parafraasiak erakusten digute galdegai balioa duela (Garzia 2014a: 50): *Garai batean, arrain asko jaten zuen jendeak hemen; erreta jan ere; Garai batean, arrain asko jaten zuen jendeak hemen (erreta); Garai batean, arrain asko jaten zuen jendeak hemen. Erreta (jaten zuen [jendeak hemen, garai batean, jaten zuen arrain ugaria])*.

Perpau horrek badu, ordea, lehendik ere galdegaia, dagokion posizio kano-nikoan ageri dena (alegia, aditzaren ezkerrean): *arrain asko*. Horregatik bigarren galdegai gehitua (*erreta*) beste gune batean eman behar dugu. Eta kontuan harturik perpau bakoitzean osagai bakarria fokaliza dezakegula, beste gune hori bigarren perpau bateko gunea baino ezin da izan, nahiz eta gero perpau gehitu horretako aditza eta gainerako osagaiak isildurik egon (dagoeneko ezagunak ditugulako): (*jendeak*) *erreta* (*jaten zuen arraina*). Horrelako egiturek, beraz, funtzio informatibo bera duten osagaiak erakusten dizkigute: galdegaiak alegia, gehikuntzat hartuta bakarrik esplikatu daitezkeenak. Gehikuntza horietan ageri den puntuazio markari dagokionez, komaz zein komatik gorako markaz bereizirik ager daitezke. Komatik gorako puntuazioak erabiliko ditugu sintagmak konplexuago edo pisutsuago bilakatu ahala: *Garai batean, arrain asko jaten zuen jendeak hemen; gehiengetan, (labean) erreta; Garai batean, arrain asko jaten zuen jendeak hemen; erreta (beti)*.

Gehikuntza gunean, bestalde, ez dugu argumenturik aurkituko; lehen perpau-sean eman beharrekoak dira aditzak eskatzen dituen argumentuak. Beraz, galdegai 'gehitu' horiek adjuntuak izan beharko dute, zirkunstantzia bat edo beste adierazten dutenak. Perpau adjuntuak, berriz, hala nola baldintzazkoak, kontzesiboak edo ondoriozkoak, ezin dira galdegai izan (ez diote inongo galderari erantzuten) eta, beraz, ezingo ditugu aurkitu galdegai gehituak hartzen duen eskuineko periferia horretan ere.

**41.4.4b** Galdegaiak puntu honetan esandakoak laburbilduz, esan dezakegu bi ezaugarri hartu ditugula kontuan euskaraz *galdegaia* definitzeko orduan: intonazioa, batetik, eta zati galderaren erantzuna izatea, bestetik. Ordena kanonikoa, neutroa, hausten dugunean, ez da zalantzarik zein den galdegaia; estandar idatzian, behintzat, aditzaren ezkerrean kokatuko dugu eta talde foniko bakar batean ahoskatuko ditugu biak (ahoz ari garenean). Ordena kanonikoan ere, galdegaiak eta aditzak talde foniko bakarra osatuko dute, nahiz idatziz zailagoa izan hori adieraztea. Bestalde, zati galdera baten erantzuna den neurrian, perpauseko osagai *bat* izango da beti galdegaia, ez osagai multzoa.

Garziak (2014a) ‘galdegai zabala’ ere hartzen du kontuan. *Zer gertatu da? Gure lagunek zer egin dute? Nora joan dira gure lagunak?* galdetu (§ 41.4.1a) eta *Gure lagunak zinemara joan dira* erantzutean, guk emandako ikuspegiaren arabera, erantzun horretako informazio egitura neutroa dela esango genuke, ez dagoela galdegairik. Baina, perpaus osoa ere har daiteke galdegaitzat, guztia informazio berrizat aurkezten den heinean. Horrelakoei deitzen die Garziak (2014a) ‘galdegai zabala’. Mitxelenak ere aipatzen ditu galdegai jakinik ez duten perpausak “edo, berdin dena, perpaus (ia) osoa denean rema, galdegai” (1981: 79).

Aipatu dugun bigarren galdera motan ere (*gure lagunek zer egin dute?*), aldezturik ezaguna zaigun informazioa osatuko luke mintzagaiak (*gure lagunak*), eta galderaren erantzun litzatekeen atala, berriz, galdegai zabala: (*gure lagunak zinemara joan dira* edo (*gure lagunak*) *ikaskide guztiei bere argazki bana eman die*).

## **41.5. Periferia guneak. Mintzagaia: mintzagai aurreratua / mintzagai atzeratua**

### **41.5.1. Mintzagai motak**

**41.5.1a** Orain arte esan dugunaren arabera (§ 41.3d), gure diskurtsoaren, elearen markoa finkatzen duen perpaus-atala da ‘mintzagaia’; askotan, infor-

mazio zaharra edo jadanik ezaguna zaiguna biltzen duen atala. Ordena neutroa, kanonikoa darabilgunean (§ 41.2), subjektu funtzioa betetzen duen sintagma, perpauseko predikazio oinarria alegia, izan ohi da mintzagaia. Baina informazio zaharra / informazio berria jokoan, sarri gertatzen da perpaus bateko informazio guztia izatea berria. Horixe azpimarratu dute Mitxelenak (1981), de Rijkek (2008: 172) eta baita Garziak ere (2014a): mintzagaia ez da esaldi bateko nahitaezko elementua. Esaterako, *Datorren astean erregaia igo-ko dutela entzun dut* perpausean, guztia hartuko genuke informazio berrizat. Mintzagairik gabeak dira, aurkezpen-adierazpenak ere, de Rijkek dioenez (*presentational statements* deituak ingelesezko gramatiketan): *Horra sei bertso kale-garbitzaileari* (Bilintx).

Bestalde, mintzagaiak alde zuzenetik dakigun informazioa, hiztunak eta entzuleak partekatzen duten informazio nahiz auresuposizioa biltzeak ez du esan nahi mintzagai diren sintagmek mugatuak izan behar dutenik. Perpausa guztiz berria bada, bere mintzagai propioa ekar dezake, entzuleak alde zuzenetik ezagutzen ez duena. Sintagma zehaztugabeen bidez adierazten ditugu horrelako mintzagaiak. Areago, informazioa ezaguna zaigunean ere izen sintagma inespezifikoa, espezifikoa ez denak, eraman dezake mintzagaia, betiere multzo bat izendatzen duenean, eta ez banakoa. Beraz, partitiboa daramaten izen sintagmak ere izan daitezke mintzagai: *Sendagilerik, ez dut uste inoiz beharko dudarik* (de Rijk 1978, 2008). Aurreraxeago itzuliko gara kontu honetara, mintzagai aurreratuz jardutean.

**41.5.1b** Berez, bi mintzagai mota bereiz daitezke: diskurtsokoa eta perpausekoa. Perpaus honetan, *Gonzalez jauna zientzialari jakintsua da, baina bada zer esanik bere originaltasunaz*, bi mintzagai izan ditzakegu. Batetik, *Gonzalez jauna*, perpauseko mintzagai dena. Bestetik, *Gonzalez jaunaren zientzia gaitasuna*, diskurtsoko mintzagai baino izan ez daitekeenena. Diskurtsoko mintzagaiak perpausa baino unitate zabalagoi dagozkie. Perpausekoak, berriz, nahitaez perpauseko osagai izan behar du; oro har, perpauseko subjektua izan ohi da. Eta horretaz egiten den iruzkina, ostera, predikatua.

### 41.5.2. Mintzagai isildua

**41.5.2a** Garrantzitsua da mintzagaia zein den identifikatzea. Gehienetan diskurtsoaren barruan, aurretik esandakoa nahikoa izaten da entzuleak jakin dezan perpaus jakin batean zein den mintzagaia.

**41.5.2b** Hala gertatzen denean, mintzagaiak ez du euskaraz bereziki azpimarratu beharrik eta perpausaren edozein posiziotan ager daiteke. Areago, mintzagaia ez da beti ikusten (edo entzuten), dela isilean atxikia delako, dela aditzak berak, komunztadurari esker, agerian uzten duelako zein den mintzagaia. Ikus ditzagun honako bi adibide hauek: *Oinez etorriko naiz*; *Nik hartuko dut*. Bietan utzi dugu elementuren bat ezkutuan: *ni* lehen adibidean, eta *zerbait*, hartuko dudan ‘hori’, bigarrean. Biak dira mintzagai, *oinez* eta *nik* baitira, hurrenez hurren, galdegiak; baina ez ditugu nahitaez adierazi behar, aditzean jasoak daudelako.

### 41.5.3. Mintzagai aurreratua

**41.5.3a** Hala ere, behin baino gehiagotan enfasi berezia eman nahi izaten diogu mintzagaiari, bereziki azpimarratu zein den gure solasaren markoa ematen duen osagaia. Baliabide bat baino gehiago dute hizkuntzek mintzagaia zein den azpimarratzeko, horien artean sintaxiaz baliatzea eta mintzagai funtzioa du(t)en osagaia(k) aurreratzea, ezkerre mugitzea, perpausaren periferia gunera<sup>16</sup>. Hala egiten du euskarak, beste hizkuntza askok bezala. Bi dira, berez, periferia gunek: perpausaren ezkerrekoa bata, eskuinekoa bestea. Diskurtsoaren informazio egitura antolatzeke, osagai bat baino gehiago eman

---

<sup>16</sup> RAEk (2009: § 40.3i) zalantzan jartzen du mintzagaia perpausaren barrutik atera eta “aurreratu” egiten ote den ala hasieratik kokatzen den periferia gunean. Gaztelaniazko hainbat egitura hobeto esplikatzen omen dira hasierako kokagunetzat hartzen bada. Nolanahi ere, *mintzagai aurreratu* terminoa erabiltzeak ez du esan nahi ikuspegi baten edo bestearen aldeko jarrera hartzen dugunik. Perpausaren aurreko gunean, periferian, ematen dugula adierazi nahi dugu, besterik gabe.

ditzakegu periferia gune horietan —betiere informazio ezaguna adierazten duten osagaiak—. Nolanahi ere, ohikoena, bai euskaraz eta bai beste hizkuntza batzuetan ere (Institut d'Estudis Catalans 2016; Zubizarreta 1999; RAE 2009), ezkerreko periferia gunea da. Gune horretara osagai bat eramaten dugunean *mintzagaia* aurreratzen dugu (*topic fronting*)<sup>17</sup>: osagai hori dagokion kokagunetik atera eta perpausaren hasierara eramaten dugu; zehatzago izango litzateke perpausaren esparrutik kanpora ateratzen dugula esatea, periferiara eramaten dugula<sup>18</sup>. Modu horretan azpimarratzen ditugun mintzagaiei, *mintzagai aurreratu* esaten zaie; eta ohikoa izaten da estrategia hori baliatzea esaldi batetik bestera mintzagaia aldatu dela azpimarratzeko (askotan aurreko esaldiko galdegaia baliatzen da hurrengo esaldiko mintzagaitzat). Mintzagai aurreratu edo enfatiko horien ondoren eten txiki bat egiten dugu ahoz ari garenean; eta ohikoa izaten da idatzian koma bidez adieraztea. Perpausaren gunearen barruan doazen mintzagaiak, aldiz, aurreratugabeak dira eta komarik gabe ematen ditugu. Argi ikusten da egitura baten eta bestearen arteko aldea honako adibide hauetan: *Emakume asko erre zituzten Europan xvi. mendean / Europan, xvi. mendean, emakume asko erre zituzten*. Lehen adibidean galdegaia (*emakume asko*) eta mintzagai aurreratugabeak ditugu, aditzaren eskuinean eman ditugunak. Bigarrenean, berriz, ezkerreko gunera atera ditugu bi mintzagaiak eta, horrela eginaz, hanpatu, nabarmendu egin dugu noiz gertatu zen eta non gertatu zen emakume asko erretzeko ekintza.

EGLUn (1987a) genioenez, iruzkineko osagai bat nabarmendu bada, hau da, perpaus batean galdegaia badugu, galdegai horren ezkerrean doazen beste osagaiak mintzagai gisa aurreratuak dira (*hanpatu* deitzen zen EGLUn). Bestela esan: galdegaia agertzen baldin bada esaldian, galdegaiaren ezkerreko mintzagaia beti aurreratu izango da: *liburua* <sub>(mintzagai aurreratu)</sub>, *nik* <sub>(galdegaia)</sub> *irakurri dut*. Argi ikusten da hori mintzagai aurreratu eta galdegilea duten perpausetan: *anaiak / ZER erosi du?*; *autoa / NORR erosi du?* Sintagma bat baino gehiago ere

<sup>17</sup> EGLUren aurreko lanetarako, ikus de Rijk (1978) eta Mitxelena (1981).

<sup>18</sup> Edo zuzenean perpausetik kanpoko esparruan kokatzen dugula ere esan daiteke, RAEn eztabaida gogoan izanda.

ager daitezke horrela aurreratutak (berez, galdegaiaren ezkerrean eman ditugun guztiak): *Goizean, lantokian, nagusiek eta langileen ordezkariak, oso biler luze eta kalapitatsua izan zuten*. Ez da ohikoa, hala ere, horrenbeste osagai enfasidun ematea. Izatekotan, ahoz ari garela, entzuleen arreta erakarri nahi dugunean gertatzen dira natural horrelako egiturak. Inola ere ez informazio testuetan, testu akademikoetan eta abar.

**41.5.3b** Edozein sintagma aurreratu daiteke periferiara, enfasiaren posizio-ra: postposizio sintagma (*etxe horretan, gu bizi gara; Karmenekin, Pello pozik ezkonduko da*); objektu funtzioa betetzen duen sintagma (*ardo hau, oso merke erosi dut*); adberbioa (*atzo, mozkortu egin nintzen*). Nolanahi ere, oso aldakorra da adberbioen eta postposizio sintagmen egoera mintzagai egiturari buruz (EGLU-I 1987a), batzuetan aditzari estuki loturik joango dira, argumentuak izango dira, lokatiboak eta mugimendu aditzak, esaterako (§ 23.3), *bart, ohera, oso berandu joan zinen* (arruntagoa da *bart, oso berandu joan zinen ohera*); *mahai gainean, nik utzi dut* (askoz maizago agertuko da *nik utzi dut mahai gainean*). Aditza ere izan daiteke mintzagai aurreratu, batzuetan *ere* ondoan duela (hemen ere ohart gaituzen aditz aurreratu hori beti partizipio burutu forman ematen dugula): *Ezagutu, Salamancan ezagutu nuen Altuna* (Mitxelena); *Entzun, ez zuen ezer entzuten* (Garate); *Eta gosalduta ere, ez zuen sukaldean presakatu gosalduta* (Atxaga); *Ikusi, zerbait ikusten du*.

**41.5.3c** De Rijkek (1978) ohartarazi gintuen aurreratzen dugun sintagmak jatorrian zuen kasu marka edo postposizioa gordeko duela, horrela ikusiko baitugu zein zuen jatorrizko funtzioa perpausaren barruan<sup>19</sup>. Aditza aurrera-

---

<sup>19</sup> Aurreratzen den mintzagaiak bere jatorrizko kasu marka edo postposizio atzizkia gordetzeak erakusten du ez ditugula nahasi behar bi estrategia: mintzagaia aurreratzea (*topic fronting*) eta 'ezkerreko dislokazioa' (*Left dislocation*). Azken honek beti uzten du atzean, lehenago zegoen lekuan, izenordainen bat ordezkari gisa. Baina euskaraz ezinezkoa zaigu \**Sendagile horrekin, behintzat, ez dut uste berarekin inoiz mendira joango naizenik* esatea (adibide honetan *berarekin* izenordaina litzateke aurreratutako *sendagile horrekin* postposizioaren aztarnari dagokiona). Bestalde, ezkerreko dislokazioan sintagmak beti determinatuak izaten dira, baina euskaraz sintagma zehaztugabeak ere izan daitezke mintzagai aurreratu: *Sendagilerik, ez dut uste inoiz beharko dudarik* (de Rijk 1978). Mitxelenak (1981) ere bere



tzen dugunean, ostera, beste estrategia batez baliatzen gara: aditza bere lekuan utzi, baina “kopia” bat perpausaren hasieran jarri partizipio burutu forman (de Rijk 2008: 460), edo aditza (partizipio burutu forman) aurreratu eta perpausaren dagokion lekuan *egin* ezarri: *Debekatu, ez du inork egiten*. Baina aditza mintzagai aurreratu bihurtzen dugunean, ezin esan dezakegu informazio zaharra ematen duela. Horrelakoetan zuzenagoa da esatea aditzak adierazten duen ekintza, jarduera edo gertaera hori dela gure diskurtsoaren unibertsoa, horretaz bereziki esan nahi dugula zerbait.

Sarri askotan, diskurtso markatzaileak (§ 42.12) erabiltzen ditugu mintzagai aurreratu bat nabarmentzeko: *Ni, behintzat, han nintzen; Zuri, aldiz, ez nizuke halakorik egingo; Hark, aitzitik, autoa hartu zuen; Zurekin, berriz, edozein tokitara joango nintzateke*.

Hasierako mintzagaiaren eta ondoren datorren perpausaren arteko lotura izan daiteke semantikoa edo pragmatikoa (ez lotura formal): *Japoni dagokionez, esan zidaten Tokion bizimodua oso garestia dela*.

**41.5.3d** Mendeko perpaus bateko mintzagaia ere aurreratu daiteke, eta, perpaus nagusiko aditzaren gainetik gurutzatuz, hasierako posiziora eraman (de Rijk 2008: 459): *Paperak, ez dakit nola galdu dituen; Alabak, ez dakit zer egin nahiko duen; Sendagile horrekin, esaten dute ez direla inoiz ere operatuko*<sup>20</sup>.

Areago, mendeko perpausa ere bihur daiteke mintzagai aurreratu, de Rijkek (2008) ematen dituen adibide hauetan ikus daitekeen bezala: *Baina Gotzonek ni hil ninduela zeharo sinetsi zuen* (Garate); *Jainkoak heriotzatik gorde gaitzan, kandela bedeinkatua piztuko dugu* (Etxaniz).

---

egin zuen de Rijken oharra. Hitz batean, euskaraz ez dugu ezkerreko dislokazioaren estrategiarik. Gaztelaniak mintzagaia aurreratzea eta ezkerreko dislokazioa nola bereizten dituen jakiteko Zubizarreta (1999), RAE (2009) irakur daitezke, edo ingeleseko Ward, Birner & Huddleston (2002: 1408 e.h.).

<sup>20</sup> De Rijkek (1978: 100) dio ondorengo adibideak ontzat ematen zituzten hiztunak aurkitu zituela: *Lehenago urteetan ere, sendagile horrek, bere herritarrek uste dute jende asko lurperatu zuela; Bere gazte denboran, Ameriketara, sendagile horrek, ia inork ez daki zer gaitakeria egin zuen; Orain dela urte asko, sendagile horrek, askori iruditzen zaie bere emaztea hil zuela*.

**41.5.3e** Ezezko perpausetan, ez galdegai bada, haren aurrekoa mintzagai aurreratua izango da: *Astelehenean EZ naiz joango*. Koma bat ezartzeak enfasia txiki bat gehituko dio mintzagaiari: *Igandeetan, ez dute ogirik egiten* [Bestelako jaiegunetan, agian bai]. Hanpadurarik nahi edo behar ez badugu, nahikoa da adizki nagusiaren ondoren ematea mintzagaia (mintzagai aurreratugabeari dagokion posizioan, alegia): *Ez da trenez etorriko (herrira); Ez dute ogirik egiten igandeetan*.

#### 41.5.4. Bi mintzagai kontraste bidez emanak

**41.5.4a** Perpaus baten eta hurrengoaren mintzagaiak desberdinak badira, bada aukera bien arteko kontrastea markatzeko: *Liburua nik hartu dut; paperak, berriz, ez dakit nola galdu dituen*. Bi perpaus ditugu adibide horretan, alborakuntzaz elkartuak. Bietan ageri da mintzagai aurreratua, ezkerreko gunean ezarria, zertaz ari garen adierazten diguna. Hemen, ordea, perpaus bakoitzak du bere mintzagaia —*liburua* lehen perpausak, *paperak* bigarrenak (perpaus osagarritik atera eta ezkerrera eramandako sintagma)—. Bien arteko kontrastea markatzen dugu, gainera, *berriz* diskurtso markatzailearen bidez (§ 42.21.3).

**41.5.4b** Egitura horretakoa da Bernard Etxepareren adibide hau ere: *Lehenago hi baitinzan lengoajetan azkena, / orai, aldiz, izanen iz orotako lehena*. Hor, *lehenago* eta *orai* dira, hurrenez hurren, kontrastean jartzen direnak. *Aldiz* diskurtso markatzailearen (§ 42.12) erabilerak azpimarratzen du kontrastea adibide horretan. Ohikoak ditu euskarak horrelako egiturak: bi perpaus (edo gehiago), bakoitzak bere mintzagaia duela, diskurtso markatzailearen baten bidez nabarmenduaz mintzagaien arteko kontrastea.

#### 41.5.5. Mintzagai atzeratua

**41.5.5a** Ohikoa ez izan arren —esan baitugu ezkerraldeko periferia dela mintzagai aurreratuaren berezko gunea—, argi baldin badago osagai bat min-

tzagai dela, esaldiaren atzealdeko gunean ere ezar dezakegu, nabarmentzeko. Baina askoz bakanagoak dira halako mintzagai atzeratuak. Testu idatzietan ageri dira ia beti.

**41.5.5b** Mintzagai atzeratu izan daitezke mintzagai gisa espezializaturik dauden esapideak, besteak beste, *-nez* motako mendeko perpausak (§ 38.8, § 40.17): *Atzera uretara bota dugu arraina, txikiegia zenez*. Mintzagai atzeratu izan daitezke informazio gehitua dakartenak ere: *Ederra egin digu, Iker zerri horrek* (Garzia 2014a). Mitxelenak (1981) ere aipatzen ditu horrelako egiturak: *Nahi duzuna egingo dut, bihar goizean (bihar goizean, zer egingo duzu?* galderaren erantzun gisa eman daitekeena).

#### 41.5.6. Erdiko mintzagaia

**41.5.6a** Garziak hirugarren mintzagai mota bat ere bereizten du hartzen duen posizioaren arabera, *tarteki aparteak*: “Tarteki edo aparteak ez dira gunekoak [perpausaren barrukoak], eta mintzagaia nahiz gehikuntza kokatu ditugun esaldi-periferia horretatik ere *kanporago* kokatzekoak dira, nahiz eta kasu askotan haiek bezala komaz markatuak izan. Marka espezializatuek —hots, parentesi zein marra pareak— garbiago uzten dute tartekian *apartetasuna*” (Garzia 2014a: 73). Honako adibide hauetan ikus daitezke tarteki edo aparte horietako batzuk: *Agureak, (berari, bost axola zitzaien) ez zien jaramonik egin mehatxuei; Agureak, erlojua eskuan, ez zien jaramonik egin mehatxuei; Agureak, une hartan, ez zien jaramonik egin mehatxuei; Halako kontuek, hemen, txitean-pitean eragiten dute hainbat istilu; Italiara joan da, andregaiarekin, joan den astean*. Lausoa da horrelako egituretan mintzagaien eta tartekien arteko muga (ikus Azpeitia 2012).

**41.5.6b** RAEk ere aipatzen ditu erdiko mintzagaiak, tartekien pareko direnak: “Las mujeres, administrativamente hablando, son mejores que los hombres”; “Una primavera que, en cuanto a desigual y caprichosa, nada tiene que envidiar a la que disfrutan ustedes en la coronada villa” (2009: 2975).

## 41.6. Laburbilduz

**41.6a** Perpaus baten mintzagai egituraz ari garela, ordena neutroa eta ordena markatua bereizi ditugu lehenik.

Ordena neutro edo kanonikoan, hurrenkera honetan ematen ditugu osagaiak gaurko euskara estandarrean:

(zehar-objektua) / subjektua (abs.) / (zehar-objektua) / aditza  
subjektua (abs.) / predikatu osagarria / aditza  
subjektua (erg.) / (zehar-objektua) / objektua / aditza

Nolanahi ere, salbuespen ugari egin dizkiogu ordena kanoniko horri, ahoz ari garen ala idatziz, zein testu mota den, mendeko perpausik —bereziki perpaus osagarriarik— ba ote den ala ez, eta abar (§ 41.3).

**41.6b** Ordena neutroan, modu neutroan ematen dugu informazioa, osagai bat edo beste nabarmendu gabe.

Perpauseko osagairen bat nabarmentzen dugunean, ordea, beheko koadroak adierazten duen eremuan sartuko gara:

Periferia	/	esaldiaren gunea	/	periferia
↓		↓		↓
mintz. aurreratua(k) / galdeg.+ad.+mintz. aurreratugabeak / gehikuntzak, mintz. atzeratuak				

**41.6c** Mintzagai / galdegai jokia da testuaren aurrerabidearen oinarritzko mekanismoa, diskurtso batean abiapuntua, kontrastea, aldaketa... markatzeko baliabidea. Diskurtso katea lotzeko baliabide nagusia da galdegai / mintzagai jokia, informazio ezaguna eta berria lotzekoa: aldez aurretik ezagutzen duguna (edo uste duguna) abiapuntu hartu, mintzagaia alegia, eta informazio berria erantsi, galdegaia. “Hurrengo esaldian, informazio hori mintzagai bilakatzen da, hartan oinarriturik beste informazio berri bat galdegai gisa fokalizatzeke, eta abar” (Garzia 2014a: 103). Horixe da Mitxelena maisuki egin zuena Arantzazun 1968an aurkezturiko txostenean:

### Ze batasunen bila gabiltzan

1. Ezinbestekoa<sup>21</sup>, hil-edo-bizikoa, dela uste dugu euskara batasun-bidean jartzea. Haur eta gazteei euskaraz irakasten baldin bazaie, eta euskaraz irakatsi behar euskara biziko baldin bada, premiazkoa da guztiei batera edo bateratsu irakastea. Nahi eta behar dugun batasun hori, lehen urratsetan behintzat, euskara idatziarena, izkribuzkoarena, da. Eta, euskara idatziaren barrutian, irakaste-lanean dugu beharrenik batasun hori, irakurlearen atseginerako egiten den literatura «ederrean» baino areago.
2. Berez, noski, hobe litzake besterik: euskaldun bakoitzak, alegia euskalkiak oro ezagutzea, hangoak eta hemengoak, antzinakoak eta oraingoak. Agerian dago, haatik, ezin eska dakiokela horrelakorik euskalari bati baizik. Honek berak ere aski du gehienetan bereak ez dituen euskalkiak, euskalduna baldin bada, ulertzearekin. Ez da gai izaten beste euskalkiz mintzatzeko, ahoz nahiz izkribuz.
3. Inoiz batera bagaitez, bada, huskeriak baino zerbait gehiago galduko du gure hizkuntzak: begi-beharrientzat hain atsegin den aldakortasun ugaria. Halarik ere, euskarak azal nabar hori kaltegarri duenez gero, nahiago dugu euskara bizia euskararen edozein axaleko edertasun baino.

Mitxelenaren testu horretan, izenburuak ematen du diskurtsoa mintzagai: euskararen batasuna; ez bakarrik hori, nolako batasuna nahi genukeen. Hori izanik markoa, lehen perpausuan esaldiaren gunea baino ez dugu: ‘galdegaia + aditza + mintzagai aurreratugabea’ egitura. Bigarren perpausak, ordea, beste marko bat ematen dio diskurtsoari, ezkerreko periferian ezarri diren baldintza perpausen bidez: euskaraz irakastea eta euskaraz irakastearen ezinbestekotasuna. Ondoren, perpausaren gunea: galdegaia + aditza + mintzagai aurreratugabea. Hirugarren perpausak ere mintzagai aurreratua du ezkerreko periferiaren gunean, diskurtsoaren unibertsoari orain arte aipatu gabeko ñabardura ematen diona: *nahi eta behar dugun* batasun hori. Ondoren galdegaia eta aditza. Aurrera egiteko, galdegaia —*euskara idatziarena*— hurrengo perpausoko mintzagai aurreratu bihurtuko du. Galdegaia, berriz, mintzagai aurreratu horretako sintagmak adierazten duen eremuko azpierrezu bat izango da:

---

<sup>21</sup> Mitxelenak *ezin-bestekoa* edo *euskera* idatzi zuen; baina gaur estandarerako araututako formen arabera egokitu dugu testua.

euskara idatziaren barruan, irakaskuntzakoa. Egiturari dagokionez: mintzagai aurreratua / galdegaia + aditza + mintzagai aurreratugabea; eta ondoren, *behaviorrenik* konparazio egiturak eskatzen duen bigarren partea, *irakaste-lanean* galdegaiari lotua; galdegai gehituzat har daiteke.

Hurrengo bi paragrafoetan argi ikusten da aditza oso atzean ez emateko jokatibidea. Hitz iragarleez-eta baliaturik, egitura nagusia hasieran eman eta bi puntuen ondoren gehitzen dira azalpenak bigarren paragrafoko lehen perpausuan. *Berez, noski, hobe litzateke besterik* (mintzagai aurreratua / galdegaia + mintzagai aurreratugabea); *besterik* horrek biltzen du ondoren zehazten dena: euskaldun bakoitzak euskalkiak oro ezagutzea. Hemen, aldiz, ordena kanonikoa ageri zaigu: subjektua - objektua - aditza. Baina berriro ere eskuinean ematen ditu Mitxelenak azalpen gehigarriak, *euskalkiak oro* sintagma osatzen dutenak (*hangoak eta hemengoak, antzinakoak eta oraingoak*). Hurrengo perpausetako egiturak ere bat datoz kapitulu honetan eman ditugun azalpenekin. Galdegai izaten diren aditz predikatuak: *agerian dago, aski du, gai izan* (ezezkoan emana) eta horien osagarriak beti eskuinean (zer dagoen agerian, zerekin duen aski, zertako ez den gai...). Galdegai izan ohi den konparazio egitura: *nahiago izan* eta ondoren osagarria.

Hitz batean, adibide bikaina ‘mintzagai / galdegai’ jokoan aurrera nola egin ikusteko, bai eta perpausaren egitura nagusia ahalik eta modu eskematikoenean nola eman ikusteko ere, elementu gehigarriak eskuinera pasatuaz.

Eranskina

**DISKURTSO MAILAKO LOTURAK**

---





## 42. Diskurtso markatzaileak (I): DM motak

---

- 42.1. Perpausak ez dira uharteak: testu batean josiak agertzen dira
- 42.2. Hizketa, hizkuntza, perpausa eta esaldia
- 42.3. Perpausa, gramatikaren lehengaia
- 42.4. Juntagailuak eta menderagailuak
- 42.5. Juntadura eta menderakuntzaren arteko bereizketa
- 42.6. Juntaduraren egitekoa
- 42.7. Alboratze hutsezko juntadura
- 42.8. Perpausen arteko harremanak
- 42.9. Diskurtso markatzaileak (DMak) eta lokailuak
- 42.10. Diskurtso markatzaileen (DMen) sailkapena
- 42.11. DM: Informazioaren egituratzaileak
- 42.12. DM: Lokailuak
- 42.13. DM: Birformulatzaileak
- 42.14. DM: Argumentu operadoreak
- 42.15. DM: Elkarrizketa markatzaileak
- 42.16. Diskurtso markatzaileen kokalekua perpausean
- 42.17. DMen eta juntagailuen arteko harremanak eta bereizkuntzak
- 42.18. Diskurtso markatzaileak: laburbilduz
- 42.19. **Emendiozkoak**; 42.19.1. *Sarrera*; 42.19.2. *Ere*; 42.19.3. *Gainera*; 42.19.4. *Bes-talde/bertzalde*; 42.19.5. *Halaber (orobat, berebat)*; 42.19.6. *Behintzat (eta se-gurik)*; 42.19.7. *Bederen, bederik, behinik behin*; 42.19.8. *Badere*; 42.19.9. *Ba-darik (ere)*
- 42.20. **Hautakariak**; 42.20.1. *Sarrera*; 42.20.2. *Bestela, Bertzenaz*; 42.20.3. *Oste-rantzean*; 42.20.4. *Gainerantzean*; 42.20.5. *Ezpere(n) eta ezpabere*

- 42.21. **Aurkaritzakoak**; 42.21.1. Zer diren aurkaritzako diskurtso markatzaileak; 42.21.2. *Ordea*; 42.21.3. *Berriz*; 42.21.4. *Ostera*; 42.21.5. *Aldiz*; 42.21.6. *Aitzitik*; 42.21.7. *Bizkitartean, bitartean, bien bitartean, artean*; 42.21.8. *Alta, alabaina, alabadore*; 42.21.9. *Dena dela, dena den*; 42.21.10. *Hala ere, hala eta guztiz ere*; 42.21.11. *Haatik/hargatik, horratik/horregatik*; 42.21.12. *Barrren*; 42.21.13. *Badarik ere*; 42.21.14. Aurkaritza adierazten duten esapideak
- 42.22. **Ondoriozkoak**; 42.22.1. *Sarrera*; 42.22.2. *Beraz eta Bada kide*; 42.22.3. *Hortaz*; 42.22.4. *Orduan*; 42.22.5. *Honenbestez, Horrenbestez, Hainbestez*; 42.22.6. *Halatan, Hala*
- 42.23. **Kausazkoak**; 42.23.1. *Sarrera*; 42.23.2. *Zeren*; 42.23.3. *Zergatik*; 42.23.4. *Alabaina*; 42.23.5. *Bada*; 42.23.6. *Izan ere*
- 

## 42.1. Perpausak ez dira uharteak: testu batean josiak agertzen dira

**42.1a** Hitz egiten dugunean hotsak erabiltzen ditugu esanahi bat aditzera emateko. Hots kate horretan nolabaiteko abstrakzioa eginez, gramatikak *perpausak* bereizi ohi ditu, besteak beste, esan dugun gisan. Baina, hasierako adibideetan ikusi dugunez, perpaus horiek ez dira atze-aurrean dituzten gaine-rako perpausekiko erlaziorik gabeak. Perpausak elkarrekin josteko eta testu koherente edo lotu bat eratzeko hiztunak zenbait baliabide ditu eskura. Horietako batzuk *juntagailuak* izango dira, *juntaduran* erabiltzen direnak (*Mikel etxera itzuli zen ezustean, eta han harrapatu zuen Jokin*), eta beste batzuk *menderagailuak, menderakuntza* deituko dugunari bide ematen diotenak (*Jokinnek esana zion etxera itzultzen bazen han harrapatuko zuela*). Bi gailu horiek perpaus mailako lotura gauzatzen dute. Esan nahi baita, perpausak elkartuz beste perpausak osatzeko balio dute. Perpaus elkarketa bideratzen dute, hortaz. Baina badira, EGLU-III liburukiak *lokailu* deitutako horiek ere: perpausak josiz goragoko testu bat, ondo jositako testu bat, koherentea, osatzeko erabiltzen ditu hiztunak. Hala ere, lotura horren ondorioa ez da, nahitaez, beti beste perpaus bat, testu bat baizik. Izan ere, lokailuak solas mailako edo testu mailako lotura gauzatzen duten gramatika baliabideak dira. Ez dira, berez, perpaus elkarketa bideratzeko gai.

**42.1b** EGLU-III idatzi zen garaian (1990ean) ez ziren euskal gramatikak lokailuez sobera kezkatzen. Liburu hura izan zen lehenbizikoa gai hauetaz modu sistematikoan arduratu zena. Aurretik ezer gutxi egina zen, eta betiere ez modu sistematikoan.

Bestetik, inguruko hizkuntzetan egiten ziren gramatikari buruzko azterlanetan, euskaraz “lokailu” deitu genituen elementu funtzional hauen gaia ikertuago bazen ere, gaia berez nahiko berria zen gramatikan ageri diren aztergai topikoekin (subjektua, perpausa, aditza, adjektiboa...) konparatuz gero. Geroztik, ordea, lan asko egin dira zenbait hizkuntzatan.

Lan horiek kontuan izanik, badirudi garai hartan aukeratu zen terminologia (“lokailu”) ez dela, beharbada, oso egokia. Egia da ez dagoela oraindik batasun osorik kontu honetan, baina *lokailu* deitu beharrean *diskurtso markatzaile* (DM) deitzea egokiagoa ikusten dugu orain, hori baita kanpoko hizkuntzetan gehien erabiltzen den terminoa. Egokia ikusi dugu guk ere euskaraz termino hori erabiltzea, geroago emango ditugun arrazoiak direla eta.

Harrezkero euskararen gainean ere egin dira lan zehatzagoak. Ezinbestean Alberdi (2014b) eta bere ikerketa taldeak egindakoa aipatu behar da hemen. Berak ere *diskurtso markatzaile* terminoa proposatzen du, eta hori erabiliko dugu guk aurrerantzean.

## 42.2. Hizketa, hizkuntza, perpausa eta esaldia

**42.2a** Gramatikak bere gain hartzen duen eginkizuna hiztunak hizkuntza bat dakienean, “dakien” horren berri ematea da. Hizkuntza, hortaz, “jakite” bat da, hiztun arruntak duen “jakite” edo ahalmen hori, beste hainbat giza ahalmen bezala, arruntean oharkabekoa bada ere. Baina hizkuntza oso mekanismo konplexua da eta hiztunak darabiltzan elementu desberdinak (*hotsak, hitzak, perpausak...*) sartzen dira jokoan. Hizkuntz gaitasunak, hizkuntza “jakiteak”, elementu horiek guztiak menderatzea eskatzen du, baina menderatze hori modu orokor eta erabatekoan gertatzen da, ez zatika edo sakabanaturik. Esan nahi baita, hizkuntza menderatzea ez da oso ebakera ona izatea bakarrik

edo hitz asko ezagutzea, adibidez. Hizkuntza jakitea perpausak eratzen jakitea da, nahiz eta hitz egiterakoan bestelako “jakiteez” ere baliatzen garen. Perpausak ez dira liburuetan edo hiztegietan aurkitzen, gorderik. Aitzitik, hiztunak aldi oro sortze lanean aritu behar du, hots: hizkuntza ikasteko prozesuan barneratu zituen erregelak erabili behar ditu hotsak eta esanahiak elkarrekin lotzeko, hitz egiten dugunean hori egiten baitugu: hotsak erabiltzen ditugu esanahi bat solaskideari helarazteko. Nolanahi ere, gauza bat da hiztunak barneratua duen “jakitea” (*hizkuntza*, alegia) eta “jakite” hori eguneroko bizitzan erabiltzea, baliatzea. Jakite hau eguneroko bizitzan gauzatzeari hizketa dei geniezaioke.

**42.2b** Bestalde, perpaus aipatu dugu. Sarritan bi zentzutan —aski desberdinetan gainera— erabili izan da *perpau*s hitza. Alde batetik, *hizkuntz ariketan* —hizketari, beraz giza jokabideari, dagokion zerbait bezala—, eta, bestetik, hiztunaren *gaitasunaren* (hizkuntzaren) deskribapena izan nahi duen gramatikari dagokion zer teoriko gisa. Lehen esanahiaz aritzeko, gure eguneroko hizketa jardueraz aritzeko alegia, hala ere, nahiago dugu esaldi hitza erabili eta perpaus hitza bigarren zentzurako gorde (hiztunaren gaitasunaz ari garelarik alegia). Horrela, gramatika perpausez arituko da eta ez esaldiez. Perpaua kontzeptu teoriko bat genuke, hizkuntzalaritzak eta gramatikak erabiltzen dituzten beste hainbat kontzepturen gisakoa (*fonema*, *morfema*, *sintagma*, *aditza*, eta antzekoak bezalakoa, alegia) eta, horrenbestez, aldez aurretik emana ez zaiguna. Aldez aurretik emanak ditugunak solasaren barnean, hizketaren fruitu gisa, datozen *esaldiak* ditugu eta hauetatik abstrakzio eginez asmatu dute gramatikariek *perpau*s kontzeptua. Kontzeptu teorikoa denez, alferrik hasiko gara perpau bila gramatikatik kanpo, hauek ez baitira existitzen mundu errealean, gramatikan baizik. Mundu errealean, eta gizakion jokabidean aurkituko ditugunak esaldiak izango dira, hiztunek hitz egiterakoan jaulkitakoak.

Gauzak horrela, erraz ulertzen ahal da izan daitezkeela esaldiak perpaustzat ezin har daitezkeenak —pentsa, besterik gabe, hitz egiterakoan gertatzen diren hutsegite ugarietz, edo zerbait esaten hasi eta bukatu gabe zenbat bider gelditzen garen, edo norbaitek gogoia beste nonbait duenean gerta daitezkeen hutsegiteez—. Horiek denek, arruntean beren helburu komunikatiboa bete dezakete,

baina gramatika ikuspegi batetik begiratuta, perpaus okertzat hartuko genituzke, edo, nolanahi ere, perpaus izatera iristen ez direla esan genezake. Eta alderantziz, izan daitezke benetako perpausak, gramatikaren inongo erregelarik urratzen ez dutenak, baina haien luzera edo konplexutasunagatik, adibidez, komunikazio normalean nekez onartuko genituzkeenak eta, horrenbestez, esan ere nekez esango genituzkeenak. Adibidez: *Joseba gizon zarpail hark aurkeztu zizkizun haurrekin zihoan emakume argal hark buruan zeramatzan asmo guztiak kanporatzeko gai izango zela hain erraz konbentzituko gintuelakoan agureak esan zituen kontu haiek denak inork sinistu balitu ere, ez dut uste historian zehar izan diren hainbeste eta hainbeste zorigaitzen erantzuleen aipamena egiteko prest leudekeenetariko inortxok ere beste horrenbeste egingo lukeenik.*

**42.2c** Burmuinak, jakina, definitzeko zailak badira ere muga argiak ditu perpaus konplexuak prozesatzeko orduan. Bestelako asko ere onartezinak gerta daitezke. Esaterako, honako adibide hauek perpausak izango lirateke gramatikarentzat, eta perpaus zuzenak, gainera, baina solasaren ikuspegitik aski desegokiak direla esango genuke: *Jaun txit argia, kaixo!* edo *Arratsaldeko hamai-ka eta erdiak ziren.*

Perpaus diren aldetik, berriro esan, ez dute inongo gramatika erregelarik urratzen bi perpaus hauek, baina esaldi gisa aski desegokiak gertatzen direla ezin uka. Non da desegokitasun horren sustraia? Ez, noski egituraren konplexutasunean, ez eta egiturari dagokion arauen bat urratzean ere. Arrazoia da “jaun txit argia” alde batetik eta “kaixo” bestetik, nekez uztar daitezkeela, hizketa maila desberdinetakoak baitira: bata hizkera formalekoa eta bestea, guztiz lagunartekoa. Hala ere, *Jaun txit argia, kaixo!* kate hori, gramatikaren ikuspegitik, honek ezartzen dituen egiturari buruzko arauak errespetatzen dituen aldetik, perpaus gramatikala dela esan daiteke. Alegia, kate hori desegokia bada ez da gramatika arazoengatik, beste zerbaitegatik baizik. Beraz, gramatikatik at egongo litzateke desegokitasun horren berri ematea. Bigarren perpausa ere esaldi desegokia da, baina ez inolako sintaxi araurik hausten duelako, munduaren ezaguerari dagokion zerbaitegatik baizik. Alegia, arratsaldeko ‘hamai-ka eta erdiak’ ez baita.

Eman dezagun, azkenik, norbaitek *zeinen gau ederra!* esaten duela eta hamar bider errepikatzen duela leku eta garai desberdinetan. Bistan da hor hamar esaldi desberdin gertatzen direla, nahiz eta perpaus bakarra eta bera izan.

**42.2d** Hortaz, esaldi kontzeptua eta perpaus kontzeptua bi gauza dira. Hizke-  
ta eta hizkuntza ere bi kontzeptu diferente diren bezala. Hizketarakoan esal-  
diak erabiltzen ditugu, baina gramatikaz aritzerakoan —eta gramatikak,  
berriro esan, hiztunak duen ahalmenaren, hots, hizkuntzaren, deskribapen teo-  
rikoa izan nahi du— perpausez arituko gara.

Solasaren oinarrizko osagarriak edo urratsak, hortaz, esaldiak dira. Esaldiak  
ekintza komunikatiboak ditugu, hizkuntz ariketaren —hizketaren— fruitu.  
Perpausak, berriz, egitura sintaktikoak dira. Azken hauek dira, berez, grama-  
tikaren langai.

Baina hizketarakoan, esaldiak bata bestearekin kateaturik gertatzen diren be-  
zala, perpausak ere elkarrekiko loturak eta erlazioak izango dituzte. Lotura  
hauetariko batzuk gramatikaren aztergai izango dira bete-betean. Beste ba-  
tzuk, berriz, beste nonbait aztertu beharko dira.

### **42.3. Perpausa, gramatikaren lehengai**

**42.3a** Gramatikak, solasalditik abiatuz —gogoan izan hau dela egiazki gau-  
zatzen den errealitatea— eta abstrakzio eginez, perpaus kontzeptua asmatu du.  
Baina, arestian esan bezala, perpausak elkarren arteko erlazioak dituzkete,  
esaldiek dituzten bezalaxe. Har dezagun, esaterako, honako adibide hau:

Neure burua berriz ere presondegian ikusi nuenean, haren irudiari lotu nahi nintzaion  
eriosuar. Haren beroak inguratzen ninduen ametsetan eta eguargiz. Elkarri idazten  
genion. Gero, ez dakit ongi zer gertatu zen. Bitarteko genituen kartek eskaintzen zi-  
guten gaia idorregia zen, agian, eta alferrik egiten genituen leherrenek asperturik eta  
gogaiturik utzi gintuzten azkenean. Dena den, gero eta bakanago agertzen ziren es-  
kutitzak; azkenik, mututu ziren. Ez diot sekula txartzat hartu. Horrelaxe garabiltza  
bizitzak. Hura urrundu zuen eta azken batean nerau naiz, segur asko, urrutien saihestu  
nauena (Mitxelena [1977c] 2011, OC XIV: 68).

Testu hori, idatzia den arren, solasaldi baten zati ere kontsidera daiteke. Solasaldi hori zenbait esaldiz josia agertzen zaigu. Hain josia non horietako esaldi asko nekez agertu ahalko bailirateke bere kasa. Izan ere, badituzte elkarren artean halako lotura sintaktikoak eta semantikoak: erakusleak agertzen dira, juntagailuak, aditzondoak eta abar, esaldi batetik bestera garamatzatenak. Testu hori, gramatikariaren ikuspegitik, perpausez osatua legoke eta perpaus horiek ere elkarrenganako atxikimendua erakusten dutela agertzen zaizkigu.

**42.3b** Testu batek koherentea behar du izan, eta koherentzia hori zenbait faktoreren gainean oinarritzen da. Adibidez, solasgai desberdinen artean nolabaiteko erlazioa izan behar da. Gai batetik besterako pausuak, adibidez, ezin dira nolana eman, eta abar. Faktore horien artean, gainera, batzuk gramatikari dagozkion elementuak dira. Beste batzuk, berriz, ez. Hor dugu, esaterako, anafora. Anafora batek aurrekari bat eskatzen du. Aurrekari-anafora erlazio horiek sarritan perpaus berean gertatzen badira ere, beste askotan perpausaren mugak gainditu egiten dituzte. Pentsa, esaterako, goiko adibidean (§ 42.3a) agertzen diren *haren*, *horrelaxe*, *hura* eta antzekoez. *Horrelaxe garabiltza bizitzak* perpausa, adibidez, osoa da egituraz, baina ulertuko bada, testuan gora joan behar da *horrelaxe* horrek zehazki zer esan nahi duen jakiteko.

Adibidetik irten gabe (§ 42.3a), hor ikusten dugu *dena den* bezalako esapidea ere. Honen antzekoak sarri erabiltzen ditugu esaldiak lotu nahi ditugunean: behar denean, *dena den* erabiliko dugu, eta beste batzuetan, beste esapide batzuk: *nolana ere*, *hala ere*, *bestalde*, *gainera* eta abar, bakoitzak bere balio berezia duela.

Fenomeno hauek perpausen mugak gainditu egiten dituzte. Perpausak ezin du, horregatik, askotan zentzu “osoa” beregan izan. Horregatik, hain zuzen, zentzu osotasuna sarritan aipatua izan bada ere gramatiketan perpausa definitzerakoan, bistan da ezin garela horretan oinarritu perpausa definitzeko. Hala ere, perpausa da gramatikak bere azterketarako erabiliko duen unitatea. Perpausa da gramatikak aurkitzen duen muga. Hortik gora nekez abiatuko da.

**42.3c** Baina solasean, hizketan, ari garenean, esaldi asko jaulkitzen dira, bata bestearen ondoren eta erlazonaturik. Esana dugu gramatikak solasaldi horre-

tan perpausak bereizten dituela, besteak beste. Baina perpausetik goragoko analisirik ez du egiten gramatikak, perpaua kontsideratzen baitu gramatikak deskribapenerako unitaterik handiena. Baina, zer dela eta ezartzen dio gramatikak bere buruari perpausaren muga, eta albora uzten ditu hortik gorako azterketak? Alegia, ez al da posible perpausak bere osagaietatik abiatuz aztertzen diren bezala testua ere aztertzea, testuaren osagaiak perpausak direlarik? Testu-Gramatikak, hain zuzen, horixe du helburu. Baina delako testu-gramatika honek eta perpausaren gramatikak metodologia eta oinarri teoriko desberdinak eskatzen dituzte.

**42.3d** Dena den, bada arrazoi funtsezko bat ohiko gramatikaren zeregina perpausera mugatzeko. Izan ere, pentsa liteke perpausari berari ere gainerako hizkuntza unitateei aplikatzen zaien analisi distribuzionalaren parekoren bat aplikatu lekioketela. Baina —eta hemen dago arazoa— perpaus baten osagaiak —*izen sintagmek, aditz sintagmek* eta abarrek— edo hemendik beheragoko osagaiak, —*morfemek*, adibidez— zer nolako distribuzioa duten erabakitzea oso erraza da. Hizkuntza elementu baten distribuzioa elementu hori ager daitezkeen testuinguru desberdinak dira. Horrela, testuinguru beretan ager daitezkeen elementuek distribuzio bera dutela esango dugu eta distribuzio bera duten elementuek kategoria bat osatuko dute. Horrela, neke handirik gabe, asma daitezke perpausak duen egitura —hierarkia erakusten duen egitura— zein den. Baina perpausekin ezin dugu era berean jokatu. Perpaua gramatika unitate bat dugu, baina bere osagai guztien artean mugapen eta lotura distribuzionalak ezar daitezkeen bitartean, bera, berez, ezin daitezke goragoko klase distribuzional batean sartu. Alegia, perpausaz osatutako perpaus ez den beste goragoko “kategoriarik” bilatzen ezin gara hasi. Zenbait perpaus perpaus elkartuak osatzen badira, jakina, arazorik ez da perpaus elkartu hau ere aztertzeke, baina perpaus desberdinek osatzen duten testua perpausa ez bada, perpaus segida bat baizik, ezin dugu perpausari aplikatu diogun analisi-metodoa aplikatu. Distribuzio nozioa trukagarritasunean oinarritzen da eta ezin zaie aplikatu perpausari. Izan ere, perpausa, bestelako ezein forma gramatikalen barruan ez dagoen modu edo eratze linguistiko askea da distribuzioari dagokionez. Hor bilatu behar da gramatikak bere buruari ezarri dion muga horren zergatia. (Ikus Bloomfield 1933: 170).



Gure helburua, hortaz, ez da testua aztertzea, perpausa baizik. Baina sarritan perpausetan nolabait aurreko perpausari, edo ondokoari ere bai zenbaitetan, erreferentzia egiten dioten elementuak —aditzondoak, gehienetan— aurkitzen dira. Elementu hauek perpausaren barruan agertzen direnez, gure gramatikak jaso egin behar ditu.

**42.3e** Perpausetik beherako elementuak ez dira bere eskuko unitateak, haren osagaiak baizik. Osagai mailakatuak, gainera. Goitik behera abiatuz, perpausa *izen sintagmaz* eta *aditz sintagmaz* osatua dagoela esan genezake, aurrena; gero, hauen osagai diren *izena*, *izenlaguna*, *adjektiboa* eta gainerako *mugatzaileak* alde batetik, eta *aditza*, *adizlagunak* eta gainerako *izen sintagmak* bestetik. Eta horrela aurrera, azken osagaietaraino iritsi arte. Ikus dezagun, esaterako, honako adibide hau: *Liburu bat emango dizut*.

Perpaus horren lehen osagaiak honako hauek dira:  $_{IS}[nik]_{AS}[liburu\ bat\ emango\ dizut]$

Izen sintagma —adibidean isilpean dagoena— bere aldetik *ni* izenordainak eta *-k* ergatibo markak osatzen dute. Aditz sintagma, berriz, *liburu bat* izen sintagmaz, *emango dizut* aditzaz eta isilpean utzitako *zuri* izen sintagmaz osatua legoke. Eta azterketa ez da hor amaitzen: azken hauen osagaiak ere berezi daitezke... Guztiarekin ere, perpausaren osagai dira denak, zein bere mailan.

**42.3f** Gorago esandakoaren arabera, gogoan hartu behar da, perpausa bera ere beste perpaus zabalago baten osagai izan daitekeela. Errekurtsibotasunaren baliabideak eskatzen duen aukerari zor zaio hori. Aukera horren arabera, izan ere, maila jakin bateko unitateak bata besteari erantsiz edo bata bestean txertatuz maila bereko unitate zabalago eta konplexuagoak osa daitezke. Edo bestela esan: unitate jakin baten osagaien artean maila bereko beste unitate batzuk ager daitezke. Perpausaren kasuan ere gauza bera gertatzen da: bere barnean beste perpaus batzuk izan ditzake, osagai gisa, perpaus bat izateari utzi gabe. Aldera ditzagun, esandakoaren argigarri, honako perpaus hauek: *Egia esan digute*, batetik, eta *Trena berandu iritsiko dela esan digute*, bestetik.

Adibide horietan ageri diren perpausak ez dira berdinak: lehenbizikoa perpaus soila da, eta bigarrenean perpaus bat beste perpaus baten barnean, osagai gisa, ikusten dugu:  $p$ [ $p$ ] [Trena berandu iritsiko dela] esan digute].

Dena den, bi perpaussek maila batean egitura bertsua dutela berehala ohartzen gara: batean objektu zuzena *egia* izen sintagma da, eta bigarrenean, paper hori berori betetzen baitu, *trena berandu iritsi dela* perpausa da objektu. Hortaz, batean *egia* izen sintagma perpausaren osagai den bezalaxe, bigarrenean ere perpaus txertatua da osagaia.

**42.3g** Izen sintagmak eta aditz sintagmak perpausa osatzen duten bezala, perpausetik gora, lehen esan dugu, *testua* dago, hots, perpaus mailako unitatea osatzen ez duten perpaus diferenteen hurrenkera luze edo laburragoa. Hurrenkera hori, ordea, perpaus den goragoko katerik osatzen ez duen neurrian, ez da, zuzenean bederen, perpausaren gramatikari dagokion aztergaia. Baina azterkizun dira, maila horretako loturak —testu mailako harremanak, alegia—, hala nola anaforak, elipsiak, diskurtso markatzaileak eta horrelakoak.

Demagun, konparazio batera, honako testu hau: *Atzo ekarri zuten Mikel etxera. Hori jakin bezain laster, bisitara joan nintzaion. Ez zidan, hala ere, askorik eskertu.*

Bigarren perpausoko *hori* erakusleak aurreko perpausaren esandakoari egiten dio erreferentzia. *Mikel* da, bestalde, bigarren perpaus horretan isilik utzitako *nori* sintagma berreskuratze bide ematen diguna. Eta hirugarren perpausoko *hala ere* diskurtso markatzaileak aurreko perpausarekiko aurkaritza adierazten du. Horiek, ordea, esan bezala, testu mailako harremanak dira, ez perpaus mailakoak. Hor, izan ere, hiru perpaus diferente ditugu, hiruren artean goragoko perpausik osatzen ez dutenak: (i) *Atzo ekarri zuten Mikel etxera.* (ii) *Hori jakin bezain laster, bisitara joan nintzaion.* (iii) *Ez zidan, hala ere, askorik eskertu.*

## **42.4. Juntagailuak eta menderagailuak**

**42.4a** Diskurtso markatzaileez gainera, juntagailuak eta menderagailuak ere eskaintzen dizkio hiztunari gramatikak. Hauen egitekoa ere testuari lotura

ematea litzateke, baina, diskurtso markatzaileek testu mailako edo solas mailako lotura bideratzen badute, juntagailuekin eta menderagailuekin perpausak lotu ez ezik, elkartu ere egiten dira. Elkarketa horren ondorioz lortzen dena perpaus da halaber.

Diskurtso markatzaileek bideratzen duten lotura solas mailako lotura dela esan dugu. Horrek esan nahi du markatzaile horien bidez “lotuak” edo “josiak” agertzen diren perpausak zein bere eskuko izan daitezkeela markatzailea gorabehera: *Euria dakar. Beraz, euritakoa hartuko dut.*

Hori baldin badiogu, hor bi perpaus ditugu, ez bat. Hori intonazioak sala diezaguke edo, idazterakoan, bien artean ezarri dugun puntuak. Hala ere, bata bestearekin badu nolabaiteko lotura. Perpausen arteko mugak non gauzatzen diren, ordea, ez da gramatikak betiere estu eta zehatz erabakitzen duen gorabehera. Batzuetan, egia da, perpausen artean sortzen den erlazioa perpaus elkartuari dagokiona da nahitaez. Horrela loturiko perpaus ezin dute inolaz ere bere eskuko izan; bata bestearen mendeko izango da betiere:

<sub>p</sub>[<sub>p</sub>[Gaizki zabiltzala] esan didate]

<sub>p</sub>[<sub>p</sub>[Hor bizi den] -a anaia dut]

**42.4b** Beste batzuetan, berriz, —juntadurari eta alborakuntzari dagokienean, batez ere— aukera izaten dute hiztunek perpausak dauden daudenean, elkartu gisa nahiz bakoitza bere eskuko uzteko, testu mailako loturatik aurrera pasatu gabe: *Benetan, haren lepo lodi beltzak izurdearen antz pixka bat badauka. Baina oraindino itxurazko gizona dago* (Agirre).

Zein bere eskuko diren perpaus bi ditugu hor, egileak, horrela nahi izan balu, perpaus konposatu bakarra egin bazezakeen ere: *Benetan, haren lepo lodi beltzak izurdearen antz pixka bat badauka baina oraindino itxurazko gizona dago.*

Berezirik utzi ditu, hala ere, testu mailako harreman lasaiagoan.

**42.4c** Bi mota handi berez daitezke perpausen artean: bakuna eta elkartua. Bere osagaien artean beste perpausik ez duenari bakuna esaten zaio eta bere barnean

beste perpausen bat duenari, berriz, elkartua. Aldera ditzagun, konparazio baterako, honako perpaus hauek: *Liburu bat eman nion; Zure laguna bizi da hor; Liburu bat eman nion baina ez du irakurri; Dendan ikusi dugun laguna bizi da hor.*

Lehenbiziko bi perpausak bakunak dira: ez bata ez besteak ez du bere barnean beste perpausik. Azkeneko perpausak, berriz, elkartuak dira, hots: errekurtsibotasunaren bidez konplexuago bilakaturiko unitateak dira. Ez gisa berekoak, ordea, ondoko eskemek erakusten duten gisan (bi perpaus beste perpaus handiago bat osatzen dute):

$p_1$ [ $p_1$ [Liburu bat eman nion]  $_{junt}$ [baina]  $p_2$ [ez du irakurri]]

$p_1$ [ $p_1$ [Dendan ikusi dugu]  $_{mendg}$ [-n ] laguna bizi da hor]]

**42.4d** Kategoría bateko atal batek bere barnean kategoría bereko osagaiak izateko ahalbideari deitzen zaio errekurtsibotasuna. Hau hizkuntzak duen ahalbide guztiz ezaguna da eta horri esker, hain zuzen, lortzen da elementu kopuru mugatu bat behin eta berriro erabiliz, teoriáz azken gabekoa litzatekeen perpaus kopurua lortzea.

Errekurtsibitatea perpaus mailan ez ezik izen sintagma mailan ere gertatzen da. Adibidez: *Gizon horren gurasoen lagun en etxea*.

Hori guztia izen sintagma dugu, baina izen sintagma horren osagai den *gizon horren gurasoen lagun en* ere izen sintagma bat da, eta honek, halaber, beste izen sintagma bat du osagai: *gizon horren gurasoen*, eta honek beste bat: *gizon horren*<sup>1</sup>. Betiere izen sintagma bat aurkitzen dugu beste goragoko izen sintagma baten osagai gisa.

Hau perpaus mailan ere gertatzen da: *Egunkarian bi eta bi lau direla uste dudala idatzi dutela esan didate*.

**42.4e** Horregatik, gramatikarentzat perpausetik goragoko unitaterik ez dagoe-la esaten dugunean, bestela badirudi ere, ez dago inolako kontraesanik. Zeren

---

<sup>1</sup> Berez, sintagma horien analisisa konplexuagoa da: [[[gizon] hori] -en]. Baina hori guztia aurrerago azalduko da. Arazoa azaltzeko egin dugun sinplifikazioa egokia da orain.

perpaua beste perpau baten osagai den neurrian gramatikak perpausekin lanean segi dezake. Esan nahi baita, perpau baten gainetik ez dago gramatikaren-tzat unitate zabalgorik. Perpau bat beste baten osagai izan daiteke, baina iristen da momentu bat non perpausetik gora beste perpausik ez dagoen. Perpausen hurrenkerak testua osa dezake, baina hau ezin da izan gramatika unitatea. Horregatik, perpausaren gramatika ez bezalako batek aztertuko du testua.

**42.4f** Bi modu ditu errekurtsibotasunak unitateak luzeago eta konplexuago egiteko: juntatze-bidezkoa bata eta txertatze-bidezkoa bestea. Perpau elkartua, hortaz, bi eratakoa izan daiteke: juntadura-ren bidez gauzatua, hau da, maila bereko perpau bi edo gehiago juntatzen dituen; eta menderakuntza-ren bidez gauzatua, hau da, perpau bat beste baten barnean osagai gisa txertatua duena.

Hirugarren mota bat ere berezi ohi da inoiz elkartuen sailean, alborakuntza-z gauzatzen dena, alegia. Hau da, ez juntagailurik ez menderagailurik ez duena. Ondoko perpau hauek alderatuta ikus daiteke zer den alborakuntza hori: *Zu hor zaude eta ni hemen* (bi perpau, juntadura); *Zu hor zaude, ni hemen* (bi perpau, alborakuntza); *Isilik dago, ezer ez dakielako* (bi perpau, menderakuntza); *Isilik dago, ezer ez daki* (bi perpau, alborakuntza). Adibideetan azpimarratu ditugu *eta* juntagailua eta *-elako* atzizki menderatzailea. Beste bi adibideetan, ez dugu horrelakorik: alboratze hutsez sortu da perpau elkartua bietan ere.

Ez dirudi, hala ere, alborakuntza hori juntaduraren eta menderakuntzaren hurren jar daitekeenik, maila bereko hirugarren saila balitz bezala. Haren egitekoa, izan ere, juntadurari dagokiona baizik ez da: perpauak bata besteari erantsita juntatzekoa, alegia. Eta erabilera ere juntadurari dagokiona du: *Nik arraina jan dut eta zuk haragia / Nik arraina jan dut, zuk haragia*; *Nik autoa badut eta zuk ez / Nik autoa badut, zuk ez*; *Ez duk etorri ez etorriko ere, hik alde egiten ez baduk / Ez duk etorri eta ez etorriko ere, hik alde egiten ez baduk*; *Laguna dinat Manu eta ez naun bakarrik utziko / Laguna dinat Manu, ez naun bakarrik utziko*.

Azken honetan, gainera, menderakuntza ez bezalako da alborakuntza: *Lasai egon, neska, laster etorriko dun*; *Lasai egon, neska, laster etorriko baita/\*dun*.

Juntagailurik gabeko juntadura da, hortaz, labur esateko, alborakuntzak gauzatzen duena.

**42.4g** Hauxe da, beraz, aipaturiko perpaus mota hauei dagokien eskema:

---

1. BAKUNA

2. ELKARTUA

2.1. JUNTADURA

2.1.1. *Juntagailuz*:  $P \rightarrow P1 \text{ juntg. } P2$

2.1.2. *Alborakuntzaz*:  $P \rightarrow P1 P2$

2.2. MENDERAKUNTZA:  $P \rightarrow x P1 y$

---

perpaus motak, konplexutasunaren arabera

**42.4h** Perpaus elkartuak sortzeko bideak zeintzuk diren azaldu dugu orain artekoan eta, erraztasunari begira, adibide laburrak eman ditugu gehienetan. Gogoan hartu behar da, dena den, errekurtsibotasunari esker amairik gabe luza daitezkeela perpausak, bere barnean behar adina perpaus berri sartuz. Juntaturiko perpausari, esate baterako, beste perpaus berri bat erantsi dakieke eten gabe. Jakina, perpausak betiere luzera jakin bat izango dute, baina ez dago inon aldeztatik ezarritako araurik perpaus bati betiere beste bat txertatzea edo gehitzea debekatuko dionik:

P[ P1 P2 P3 P4 ... ]

*Jonek egurra ekarri zuen, Mirenek sua piztu zuen, Andonik patatak zuritu zituen, ... (nahi adina perpaus sartu hemen) eta Joxepak gitarra jotzen pasatu zuen denbora guzia.*

Edo, txertatze bidezko elkarketa gauzatzen denean, mendekoari beste mendeko bat txerta dakioke betiere, nahi adina luzatuz katea:

P[...P4 [P3[P2[PI[...] ] ] ] ] ]

*Etorriko zela uste dudala esan nion gizonak ez du sinistu nahi nik esandakoa denek ontzat ematen dutela.*

Are gehiago, perpaus juntatuak eta mendekoak nahasi egin daitezke, bere artean unitate are konplexuagoak osatuz. Honen guztiaren argigarri ematen

dugun ondoko adibidean, konparazio baterako, juntaturiko bi perpaus ditugu beste mendeko baten mendeko direnak. Nagusi biak bere aldetik juntatuta ageri dira: *Zenbat urte dituen eta non bizi den galdegiten zaionean, lotsatu egiten da eta ez du ezer erantzuten.*

Bestelako luzapen errekurtsiboetan bezala, honetan ere hiztunon oroimen ahalmen mugatuak eragozten du perpausak neurri jakin batetik aurrera luzatzea; ez, ordea, gramatikak, gramatikaren arabera, izan ere, mugarik gabe luza baitaitezke perpausaren barneko perpaus eranste horiek.

## 42.5. Juntadura eta menderakuntzaren arteko bereizketa

**42.5a** Juntagailua daukagunean, maila eta izaera bereko perpausak edo perpaus atalak elkartzen dira. Menderakuntzan, berriz, lotzen diren bi perpausetarik nagusi dena aldatu ohi ez den bitartean, mendekoak itxuraldatze handiak jasan ditzake: *Koldok medikua deitu du, eta medikua berehala etorri da* (juntatuak: *pa-rean*); *Koldok medikua deitu duenean berehala etorri da* (bat mendekoa).

**42.5b** Koordinazioan elkartutako bi atalak, arruntean ordena jakin batean onartu behar dira. Hurrenkera aldatuz gero, esanahi aldaketa ere gertatzen da sarritan. Menderakuntzan, berriz, ez da horrelakorik gertatzen. Perpaus txertatuek perpaus nagusian edozein osagaik izango lukeen askatasun berbera izango dute lekuz aldatzeko. Horrelakorik ez dugu juntaduran. Adibidez, ikusi bi perpaus hauek: *Nirea da liburua baina utziko dizut*; *Utziko dizut liburua baina nirea da.*

Bistan da hor ordena aldatzeak eragina duela esanahian. Baina ondokoan, ordea, ez da esanahi aldaketarik gertatzen: *Irakasleak atzo amari ez nuela ikasi esan zion*; *Ez nuela ikasi esan zion amari irakasleak atzo.*

Hemen ordena aldaketa gainerako perpaus lokabeetan agintzen duten debeku berberen mende dago.

**42.5c** Juntagailu bakoitzak bere berezitasunak ditu erabilera mugei, balioari eta horrelakoei dagokienez. Baina badira juntagailu guztiei, juntagailu diren

neurrian, dagozkien berezitasun jakin batzuk ere. Hona, azterketa sakonagoak geroko utzita, bat edo beste:

- Leku jakina eta zehatza betetzen dute juntagailuek perpaus elkartuan. Emendiozkoa (*eta*) eta hautakariak (*edo, ala, ezpa*) juntagunean kokatzen dira betiere: *Irakaslea erabat haserretu zen eta ikasgelatik alde egin zuen; Gizon hori alkatea da edo haren antz handia du.*

*Baina* aurkariak ere hortxe du kokaleku gehienetan, inoiz atzera pasa badaitheke ere: *Berandu etorri zara baina ez dizut ezer esango; Berandu etorri zara, ez dizut ezer esango baina; Berandu etorri zara, ez dizut, baina, ezer esango; Ez dizut ezer esango, berandu etorri zara baina.*

*Baizik* juntagailuaren kasua guztiz alderantzizkoa da: bigarren perpausaren azkenean ematen da gehienetan, inoiz perpausen arteko juntagunera ekartzten bada ere: *Joxepa ez da gurasoekin bizi, lagun aberats batekin baizik; Joxepa ez da gurasoekin bizi, baizik lagun aberats batekin.*

*Baino*, azkenik, bigarren perpausaren ondoan doa beti: *Joxepa ez da gurasoekin bizi, lagun aberats batekin baino.*

- Menderagailuek ez bezala, juntagailuek ez dute hikako alokutiboaren erabilera eragozten: *Horrela esan diat eta horrela duk; Horrela esan diat, horrela delako/\*dualako.*

**42.5d** Euskaraz, normalki, menderakuntza atzizki bidez egin ohi da: *-en, -ela, -elako, -elarik, -enez* eta abar. Aurrizki batzuk ere izan ohi dira: *ba-* eta *bait-*. Hauek denek aditzari itsatsirik joan behar izaten dute. Horregatik, hain zuzen, perpaus bateko adizki batek horrelako aldagarriarik baldin badarama, seinale perpaus txertatu edo mendeko baten aurrean gaudela. Bestalde, adizkia jokatu gabe bada (aditz izena nahiz aditz partizipioa) dagokion kasu marka edo, daramalarik (*-tzen, -tzeke, -tzera, -tzeak, -tzeari; -tua, -turik, -tuta, -tuz* eta abar), orduan ere perpaus txertatu baten aurrean gauden seinale.

Juntaduran, berriz, adizki biak itxura bertsukoak dira. Bi perpaus juntatu beren aldetik beste batean txertatuak badaude, orduan txertakuntza honi dago-



kion moduan aldatuak egongo dira adizkiak: *Berandu iritsi direla baina errurik ez dutela esan dute haurrek.*

Juntaturiko perpausak ez badaude besteren mende, orduan, jakina, aditza bere osotasunean, inolako eranskinik gabe agertuko zaigu: *Berandu iritsi dira baina ez dute errurik.*

## 42.6. Juntaduraren egitekoa

**42.6a** Juntadura ez da perpausetara mugatzen. Juntagaiak, izan ere, bai perpausak eta bai bestelakoak ere izan daitezke: perpaus lokabeak, baina baita sintagmak edo honen osagaiak ere. Hona hemen guztiak, hurrenez hurren: *Atertu du eta banoa kalera* (perpaus lokabeak); *Beranduegi dela eta etxera doala esan digu lagunak* (mendeko perpausak); *Miren eta Peru etorri zaizkigu* (izen sintagmak); *Itsasoko eta lehorreko langileak zeuden han* (izenlagunak).

Juntagailutik juntagailura aldeak badira horretan: azkeneko bi perpausetan, esate baterako, *eta* erabil badaiteke ere, ez dirudi *baina* aurkaria erabil daitekeenik. Adjektiboen artean, ordea, aurki daiteke: *Liburu on baina garesti bat erosi nuen.*

**42.6b** Juntadura bere zabalean hartuta, dena den, honako hau esan daiteke: maila bereko unitateak elkartzen direla juntagailuen bitartez: izen sintagmak (*liburu handi hori eta mahai gaineko luma*); aditzondoak (*atzo eta gaur*); adjektiboak (*mutil langile eta alai hura*) eta abar. Unitate horiek perpausak badira, juntaduraz sortzen den egitura ere perpausa izango da, perpaus elkartua:

$p_1$ [Gizon askok lanik ez du] eta  $p_2$ [beste askok duen lana utzi nahi luke]]

## 42.7. Alboratze hutsezko juntadura

**42.7a** Hizki edo partikula jakin eta berezirik erabili gabe burutzen den juntadurari esaten diogu *alborakuntza*. Hau da, izenak berak aski argi adierazten

duenez, perpausen alboratze hutsez gauzatzen dena da alborakuntza: *Oso ar-gia da Miren, asko daki; Beranduegi da, etxera noa.*

Perpausak ez ezik, sintagmak ere albora daitezkeela dirudi: *Haurrak, gazteak, helduak, han zeuden.*

Hitz elkarketa bera ere egin daiteke alboratze hutsez: *senar-emazte, zeru-lur, txuri-urdin* eta abar.

**42.7b** Bada aipamen berezia merezi duen alborakuntza bat: banakaritzari da-gokiona. Hau, izan ere, alboraturiko perpaus bietan hitz edo partikularen bat —aditzondoa, gehienetan— errepikatuz gauzatzen da anitz aldiz, gorago esan dugun bezala: *Piper gorri eta berdeak ere bereziezinak zitzaizkion, beltzak baitziruditen, bai batzuek eta bai besteek* (Olarra); *Ordena da, ordea, jendea-ren lehen eskubidea, zeren ordenarik gabe ez baitago ez erlijionerik ez bizitza moldatzerik* (Irigoien).

Kideko diren bi aditzondo ere erabiltzen dira inoiz: *Hala irtetean nola sar-tzean atea ondo itxi behar da.*

Adizkiak berak ere izan daitezke nahiko errepikagai: *Testu batek inguruko hainbat elementurekin du lotura, eta harreman horiek zentzuz beterik ager-tzen dira: dela ilustrazioarekin, dela orri motarekin, dela argitalpeneko ezau-garriekin, dela idazlearen aurreko obrekin* (Arranz); *Izan dadin administra-zionean, izan dadin banku batean, izan dadin, gero, guk elkarrekin muntatu dugun elkarte batean [...] taldean lan egin dugu* (Oxandabartz); *Historian zehar, ez dira inoiz ere hain ongi planifikatu etsaien hilketa sistematikoak, direla militarrek, direla zibilak* (Salaburu).

Alborakuntza hau, jakina, juntaduraren parekoa denez, juntagailu eta guztiko egitura batez ordezkatu daiteke: *Ez du inor agurtzen, ez arrotzik ez ezagunik → Ez du inor agurtzen, ez arrotzik eta ez ezagunik; Dela zurekin dela zu gabe, ni banoa → Dela zurekin nahiz dela zu gabe, ni banoa.*

Juntagailu hautakaria bera ere errepika daiteke, gainera: *Hau falta duela bes-tea falta duela, beti eskean dabil → Edo hau falta duela edo bestea falta*

*duela, beti eskean dabil; Goizean joan arratsaldean joan, lanean aurkituko duzu* → *Nahiz goizean joan nahiz arratsaldean joan, lanean aurkituko duzu.*

**42.7c** Ikusten den bezala, errepikatzean datza guztia. Lehen zatian eta bigarrenean elementu bera errepikatuz (*bai... bai*, esate baterako) edo elementu kideak emanaz (*hala ... nola*) gauzatzen da banakaritza: *Dena dela, urte horren amaieran hobera egin zuen haren osasunak —hala gorputzarenak nola arimarenak— eta berriro ekin zion lanari* (Morales); *Hüso erdi biluzik ibiltzen zen nola neguan hala udan* (Rey).

Hortaz, ez dugu juntagailu banakaririk aipatu beharrik. Konposizio distributiboa, izan ere —horrela mintza bagaitezke— ez da juntaduraren bitartez gauzatzeko, juntagailuz edo alborakuntzaz juntaturiko perpausetan partikula batzuk errepikatuz baizik: *bai... (eta) bai; ez ... (eta) ez; dela ... (eta) dela; zein ... zein; nahi(z) ... nahi(z)...* Ez dira, ordea, errepikaturiko partikula horiek beroriek juntadura gauzatzen dutenak, *zein* eta *nahi(z)* juntagailuen kasuan izan ezik. Haien egitekoa beste hau da: juntaduran balio banakaria ematea. Azken batean, banaketa zentzu hori errepikatzearen bidez eta osagaiak korrelazioan jarriz lortzen da. Gainera, zentzu banakaria era askotako errepikatze eta enumerazioen bidez lor daiteke. Adibidez: *alde batetik..., bestetik..., azkenik...; lehenbizi..., gero..., azkenik...; batzuk..., besteak...* eta abar.

Dena den, gorago esan bezala, kontsidera daiteke alborakuntza  $\emptyset$  juntagailu baten bidez gauzaturiko juntadura dela:

$p[ [P1] ]_{juntg}[\emptyset] [P2]$

## 42.8. Perpausen arteko harremanak

**42.8a** Koherentzia duen testu baten barnean kokatuak dauden perpausen artean ere gertatzen dira harremanak, ez bakarrik perpausen barneko elementuen artean. Esan dugunez, harreman hori juntagailuen edo menderagailuen bidez gertatzen bada, lotutako perpaus horiek perpaus elkartu bat osatuko dute: perpaus bat, nolana ere, eta perpaus den neurrian, gramatikaren aztergai izango da.

Baina perpausen artean gerta daiteke beste mota bateko lotura ere, solas mailakoa, gorago aipatu duguna bezain hertsia ez dena. Hau da, hain zuzen orain aipatu nahi dugun lotura, solas mailakoa, alegia.

Sarritan perpausok bere eskuko izaten segi dezakete, nahiz ager daitekeen elementuren bat —diskurtso markatzaile deituko dugu<sup>2</sup>— perpaus horiek elkarrekin duten lotura semantikoaren berri ematen diguna. Zernahi gisaz, diskurtso markatzaile horiek perpaus elkartuetan ere ager daitezke, bereziki juntagailuren baten arrimuan.

Jatorriz bestelakoak izanik, gerora zeregin honetara erakarritako hitzak edo esapideak dira *diskurtso markatzaileak* gehienetan. Adibidez, berehala ikusiko dugun gisan, *bestela* eta *ordea* diskurtso markatzaileak dira, baina izatez, kategoriari dagokionez, adberbioak dira. Eta hori gertatzen da gehienekin.

**42.8b** Gramatikako beste kategoriak ez bezala, *diskurtso markatzaile* deitzen ditugun elementu hauek gramatika baino urrunago doan diskurtsoaren eremuari dagozkio. Gramatikan aztertzen diren kategoriak *lexikoak* izan daitezke (izena: *etxe*; adjektiboa: *eder*; aditza: *ikus...*) edo *funtzionalak*, kategoria txikiak ere deituak zenbaitetan (determinatzailea: *-a, hori...*; inflexioa: *-tzen, -tu(ko), l-, -ke...*; postposizioak: *-tik, -ra...*; konplementatzaileak: *-n, -la...*; juntagailuak: *eta, edo...*). Horiek guztiak perpausaren barnekoak dira, perpausak markatzen baititu, perpausaren lehengai denez, nolabait esateko, gramatikaren mugak: *Peru lasterka atera zen etxetik, geltokira joan zen eta han Madrilgo autobusa hartu zuen*. Hiztunak hitz horien esanahia zein den baldin badaki, eta baldin hitz horiek duten zentzuaz zuzen jabetzen bada, arazorik gabe eta modu egokian kodifikatuko du perpausaren ageri den informazioa. Hitzak (*etxe, lasterka, atera, geltoki, joan...*) gure eguneroko esperientzia eta kulturarekin daude lotuak: hola, *etxea* ez da gauza bera euskaldun batentzat, inuit batentzat edo Afrikako basamortuan bizi den norbaitentzat, norberak munduaz dituen esperientziak, bizimoduak eta kulturak oso desberdinak bai-

---

<sup>2</sup> Beste izen batzuk ere proposatu izan dira: “testu markatzaile” edo “testu antolatzaile”, esaterako. Beharbada, “diskurtso markatzaile” esateak hobeki islatzen du zertan ari garen.

tira batzuen eta besteen artean. Hemen berean, gure inguruan, *etxea* ez da gauza bera baserritar baten kasuan edo hiriko kale batean bizi denaren kasuan.

Perpaua da beregaina den osagai sintaktikorik txikiena eta enuntziatu bat osatzen du, hau da, hitzen bitartez predikaturen bat duen proposizio logiko baten, eskaera baten, agindu baten... edukia adierazten du. Perpausaren azterketa da gramatikaren zeregina. Gramatikak, hortaz, *Peru lasterka atera zen etxetik, geltokira joan zen eta han Madrilgo autobusa hartu zuen* eta horren gisako perpauak aztertzen ditu. Holako perpauak, labur esanda, hiztegi batekin eta osagaien arteko loturak agintzen dituzten gramatika araez baliaturik interpreta daitezke bere osotasunean. Hizkuntza ez dute gramatika araeuk bakarrik osatzen, hizkuntzaren bereizgarri nagusia gramatika bada ere.

**42.8c** Ikus dezagun orain beste perpau hau: *Peru, hala ere, lasterka atera zen etxetik, geltokira joan zen eta han Madrilgo autobusa bederen hartu zuen*. Aurreko perpau bera da, baina bi osagai (hiru hitz) azpimarratu ditugu testuan: *hala ere*, *batetik*, eta *bederen*, *bestetik*. Hitz horiek badute berezitasun bat aski markatua, gainerakoekin erkaturik: ingurune horretan zer esanahi duten jakin nahi badugu, perpau horretatik kanpo, beste perpausen batean, dagoen informazioa hartu behar dugu kontuan, bestela ezin baitira interpretatu. *Euskaltzaindiaren Hiztegiak* hola definitzen du *hala ere* esapidearen esanahia: “Aurreko perpauetik espero denaren aurkakoa gertatzen dela adierazteko erabiltzen den esapidea”. Beraz, definizio hori egokia bada —ez baita ezinbestekoa zehatz-mehatz “aurrekoa” izatea perpaua, askotan ez da hala, baina aurretik dagoena bai— hiztunak *hala ere* (eta berdin gertatzen da *bederenekin*) esapidea biltzen duen perpausaren esanahiaz zuzen jabetzeko perpau horretatik kanpora behatu behar du. Ez da hori gertatzen, ordea, perpauseko beste hitzekin.

Koka dezagun testu hori ingurune zabalago batean: *Ez zen ohartu aurreko gauean iratzargailua jarri behar zuela, Toledoko autobusa garaiz hartzekotan. Esnatu zelarik ohartu zen gaizki ibiliko zela, dagoeneko berandu zela, eta bidaiak huts egingo ziola baldin berehala beste konponbideren bat aurkitzen ez bazuen. Tentatua egon zen ohean gelditzekotan. Peru, hala ere, lasterka atera zen etxetik, geltokira joan zen eta han Madrilgo autobusa bederen hartu zuen*.

Orain bai: orain uler daiteke zuzen perpausa. Nahiz berandu esnatu, Peruk etxetik ateratzea deliberatzen du, eta hola Madrilaino gutxienez iritsiko dela segurtatu. Handik errazago egingo zaio Toledora joatea. Gure jardueran, hitz batzuen esanahia perpausa baino zabalagoa den inguruneak bakarrik argitzen du. Diskurtsoak berak argitzen du perpaus horretan dauden markatutako hitz horien esanahia. Holako hitzak erabiltzen ditugu perpausak eta pasarteak elkarren artean lotzeko edo erlazionatzeko. EGLU-III liburukiak lokailu deitu zituen holako hitzak.

**42.8d** “Edukiari dagokionez —esaten du EGLU-III liburukiak sarreran—, *lokailu* deitu ditugun zer gramatikal batzuk ditu aztergai. Ez dakigu asmatu ote dugun izen honekin. Baina hor zehar perpausen artean, testuari lotura ematerakoan perpaus batetik bestera eraman behar izaten den hariari eusten laguntzen diguten hainbat hitz eta esapide berezirentzat lekua bilatu nahi izan dugu geure gramatikan. Hemen aurkituko diren hitzak askotan perpausen arteko zirrikitu horietan kokatuak ikusten ditugu, sarri ez dakigularik zein den garbi beren gramatika kategoria” (EGLU-III: XIII).

Lokailuek ez dute berez kategoria bat osatzen, gehienetan adberbioak dira, esan bezala. Baina adberbio horiek batzuetan perpausaren barnean hartzen dute esanahia, zuzenean (*Mikel orduan etorri zen; Mikel berriz itzuli zen unibertsitatera*), edo perpausetik kanpo dagoen ezinbesteko informazioaren arabera interpretatzen ditugu (*Orduan, Mikel etxera etorri zen; Jone etxera joan zen; Mikel, berriz, unibertsitatera itzuli zen*). Bigarren kasuan bakarrik betetzen dute lokailuen funtzioa.

**42.8e** Testu edo diskurtso mailako zer horiek ez ditugu hemen lokailu deituko, baizik diskurtso markatzaile (DM) besterik gabe, berehala argituko ditugun arrazoi batzuk direla eta.

Testua osatzerakoan, perpausak nolabait elkarrekin ‘josi’ egiten ditugu, horretarako *diskurtso markatzaile* deitzen ditugun gailu gramatikal batzuek baliatuz. *Diskurtso markatzaileek* nolabaiteko ñabardura ezartzen diote perpaus batek bestearekin duen erlazioari: *Saia zaitetz lanean, gizona, bestela, miseria gorrian biziko zara beti; Igandea zela bazekien. Lan egin behar, halere.*

Kasu hauetan, perpaus lokabeak ditugu begien aurrean: *Saia zaitetz lanean, gizona. Bestela, miseria gorrian biziko zara beti; Igandea zela bazekien. Lan egin behar (zen), halere.*

Baina perpaus pare horietako bakoitzeko bigarrenean ageri den diskurtso markatzaileak (*bestela* eta *halere*) perpaus horrek aurrekoarekin nolabaiteko lotura, erlazioa, duela esaten digu. Solas mailan perpaus horrek aurrekoarekin nolako lotura duen adieraziko digu, hortaz, diskurtso markatzaileak. Horregatik hautatu dugu *diskurtso markatzaile* (zenbaitetan DM ere deituko dugu hemen) izena bera ere, testu batek behar duen lotura, koherentzia, bideratzeko tresnak baitira.

**42.8f** Perpausak, beraz, askotan, aurreko perpausetik erlazioa markatzen duen hitz edo partikularen bat eramaten du. Horrela, elkarren segidan datozen perpausak perpaus elkartua ez osatu arren, bien arteko lotura adieraztera dator DMA.

Baina DMak deitzen ditugunak bere eskuko izaten segitzen duten perpausen artean ez ezik, perpaus elkartuetan ere ager daitezke, perpaus juntatuetan bereziki: *Joxepak astoa nahi zuen eta Anttonik, berriz, autoa eskatzen zuen.*

Hemen agertzen den *berriz* horrek *eta* juntagailuz juntatutako bi perpaus horien arteko nolabaiteko kontrakotasuna markatzen digu. Hain zuzen, DM hori faltako balitz, adieraziko ez litzatekeena:

$p_1$ [ $p_1$ [Joxepak astoa nahi zuen]  $_{juntg}$ [eta]  $p_2$ [Anttonik, berriz, autoa eskatzen zuen] ]

**42.8g** Baina diskurtso markatzailea bera, bere kasa, ez da gauza perpaus elkartu bat osatzeko, honako adibide honetan ikus daitekeen bezala: *Joxepak astoa nahi zuen. Anttonik, berriz, autoa eskatzen zuen.* Hor bi perpaus lokabe baititugu.

Hortaz, perpausak juntatuak badaude, adibidean bezala, juntadura aurrera eramaten duena ez da guk DM deitzen dugun hori, *eta* juntagailua bera baizik. Horrek esan nahi du perpaus elkartu bat osatzeko juntagailuren bat behar dela (oroitu, zernahi gisaz, lehenago defenditu dugun bezala, alboratze hutsa bera juntagailurik gabeko juntadura da, edo nahiago bada, Ø juntagailuz lortzen

den juntadura). Juntagailu horretaz gainera DMA agertzen bada, DM hori zer-bait gehitua izango litzateke. Juntagailurik ez bada —alborakuntzako Ø junta-gailua barne—, DMA gorabehera, perpaus lokabeak izango ditugu.

**42.8h** Baina berez juntagailu direlakoek berek ere izan dezakete leku perpaus lokabe baten hasieran, hots: aurrekoarekin perpaus elkartu bat osatzera iritsi gabe. Har dezagun, adibidez, honako hau:

*Ez zen, noski, lagun arteko berriketarik, niganako agertzen zuen halako urriki hotza baizik. Eta berriz giltzapean uzteko puntuan, honelako zerbait esan zidan:*

*—Beno, beste bat arte. Ez zekiat ze arraiogatik sartzen zareten horrelako istiluetan. Ea jasoko duan urte mordoxka hori ez den gehiegizkoa gertatzen. A, lehengoa ahaztu zaidak, jakina, eta haren kondizionala...*

*Eta hitz biluzi hauek gelditu zitzaizkidan, egun haietako irain eta zakarkeria guztien ondoren, gogoan josiak* (Mitxelena 2011, OC XIV: 65-66).

Hor —idazleak hautatu duen idazteko moduak aski nabarmenkiro erakusten digunez— *eta*-rekin hasten diren bi perpausak, elkarren artean nola-halako lotura badute ere, ez daude perpaus elkartu bat osatzeko moduan. Testuaren hariak behar ez den etenik izan ez dezan, horrelakoak beharrezko gertatzen dira askotan. *Eta*, *eta* bezala, beste zenbait gailu —askotan “makulu” ere gertatzen direnak— erabili ohi ditugu.

**42.8i** Ez esanahiaren aldetiko harreman nahi bezain estuak ez are juntagailuaren erabilerak berak ere, ez dute, hortaz, besterik gabe, perpaus elkartua dagoenik ziurtatzen. Perpausak nola lotu dituen hiztunak, hortxe dago kontua. Hona hemen Axularrek eskaintzen dizkigun mila adibideetariko bat:

*[..] Lehenbizikorik arima haren ondoan zebiltzan Deabruak musikatzekin ditu, eskarniatzein ditu, irriz jokatzekin ditu.*

*Eta gero hartzen du arima hura, besarkatzen du, Iainkoaren aitzinera eramaiten du, erraiten diola Iainkoari: Jauna, hona non den zuk gomendiotan eman zenidan arima: manatu ninduzun begira nezala: begiratu dut, sendorik*



*eta salburik bihurtzen dizut. Errezibi ezazu bada, eta emaiizu honi zure loria, eta niri ere, neure traillauren golardoa, eta pagamendu.*

*Ordea baldin arima hura ilkitzen bada, [...] orduan uzten du bere Aingeru begiraileak... (Axular).*

Paragrafoaren hasiera-hasieran ageri da *eta* juntagailua. Eta gauza bera gertatzen da *ordea* diskurtso markatzailearekin. Berez juntagailu litzatekeenak eta DMak, biek, funtsean zeregin bera betetzen dute, hortaz: testuari zor zaion koherentzia ematea. Beraz, biak DMak direla esan dezakegu, *eta*-k berak ere ez baitu lortzen —paragrafoen artean dagoen idatzizko eta doinu etena froga— perpaus elkartu bat osatzea.

**42.8j** Nola egituratu duen hiztunak esaldien arteko erlazioa, halako doinua erabiliko du eta halako eten-pausak egingo ditu. Perpausaren amaierari doinu jakin bat dagokio eta hori erabiliz gero, perpausa hortxe amaitzen dela esan nahi du, hurrengoarekin perpaus elkarturik sortzen ez dela, alegia. Bestelako doinua ematen zaionean, berriz, perpausa oraindik amaitu ez dela esan nahi da eta hurrengoarekin bat egiten duela. Solas doinuaren egitekorik behinenetako bat, hain zuzen ere, hizketa zein eta nolako unitateetan egituratu den markatzea da, unitate horien arteko erlazio sintaktikoen adierazgarri. Eta ez perpaus mailako unitateei dagokienean bakarrik, baita haren osagaiei dagokienean ere. Beste unitateen kasuan bezala, perpausaren amaierako muga ere hizketa doinu jakin batek adierazten du.

Hori dela eta, ondoan ematen ditugun adibideek doinu diferentea dute: aurrena bi perpaus diferenterik dagokiena da betiere, eta bigarrena perpaus elkartu bati dagokiona, zeinek bere azterketa berezia duela: (i) *Egin ezazu esaten zaizuna, adiskide. Eta ez zara damutuko; Egin ezazu esaten zaizuna, adiskide, eta ez zara damutuko;* (ii) *Zerbait behar duzunean beldurrik gabe kasu egiteko esan dizut beti. Baina ez dut inoiz zure berririk izan; Zerbait behar duzunean beldurrik gabe kasu egiteko esan dizut beti, baina ez dut inoiz zure berririk izan;* (iii) *Saia zaitetz ahaleginean hartutako lanbidean, gizona. Edo ekin, bestela, beste lanbide berriren bati; Saia zaitetz ahaleginean hartutako lanbidean, gizona, edo ekin, bestela, beste lanbide berriren bati.*

Perpausen luze-laburrak, konplexutasunak, adierazkortasunak eta horien antzekoak dira hiztunaren erabakia batera edo bestera eragiten dutenak.

Nolanahi ere, gogora etor dakiguke honako zalantzaren bat, alegia: eta juntagailu izaki diskurtso markatzaile lanetan aurki badezakegu, ez ote da pentsatu beharko berez lokailu omen direnak ere (*bestela, berri, hala ere...*), perpaus juntatuetan agertzen direnean, juntagailu direla eta, horrenbestez, juntagailu/lokailu arteko bereizketa funts gabea dela? Adibidez: *Egin ezazu agintzen zaizuna, adiskide. Bestela damutuko zaizu; Egin ezazu agintzen zaizuna, adiskide, bestela damutuko zaizu; Semea soldadu dauka. Alaba, berri, ikasten; Semea soldadu dauka, alaba, berri, ikasten.*

Galdera bidezkoa da, baina erantzuna ere baduke, zeren diskurtso markatzaile direlakoek juntagailuek ez bezalako jokabidea dutela argi ikusten da: a) DMak (*bestela, berri, beraz...*) juntagailuekin (*eta, edo, baina...*) batera ager daitezke. Gainera, *berri* bezalako bat, adibidez, *eta* nahiz *baina*-rekin batera ager daiteke. Beraz, pentsatzeko da DMen zeregina testu mailan kokatzen dela, perpausekin perpaus zabalagoak osatzeko bertuterik ez dutelarik. Perpaus konplexuetan agertzen direnean ere, perpausak elkartzeko indarra juntagailuarena izango litzateke, eta ez diskurtso markatzailearena berarena. Eta b) DMek oso kokaleku librea dute bigarren perpausaren osagaien artean, juntagailuek ez duten bezala. Juntagailuak, juntagailu denean, leku finkoa du. Dena dela, mugak ez dira erabat argiak. Eta sailkatzeko orduan, zalantzak behin baino gehiagotan sortuko zaizkigu.

## 42.9. Diskurtso markatzaileak (DMak) eta lokailuak

**42.9a** EGLU-III liburukian guk orain DM deitzen ditugun elementu hauek (batzuetan hitz soilak, esapideak, beste batzuetan) eta han lokailu deitzen zirenak bost sailetan banatzen ziren: emendiozkoak (*ere, behintzat...*); hautakariak (*bestela, osterantzean...*); aurkaritzakoak (*alabaina, aitzitik, dena den...*); ondoriozkoak (*beraz, horrenbestez...*); kausazkoak (*zergatik, zeren...*).

Testu edo diskurtso batean ageri diren ideiak askotan elkarren artean gurutzatzen dira eta autoreak (edo hiztunak, hitz egitean) ideia horien arteko erlazio logikoak azpimarratu nahi dituelarik, eta konklusiora iristeko entzulea edo irakurlea eskutik eramanez nahi duelarik, aski ongi datorkio holako lotura hitzak ausarki erabiltzea. Aldiz, gutxi erabiltzen baditu badirudi bestearen esku uzten duela diskurtsoaz hausnartzea eta harreman horiek berak bilatzea. Hori, jakina, non ez den gertatzen testua bera ez duela sobera landu eta josi gabe utzi duela.

**42.9b** Aurretik esandakoari zerbait emendatu nahi zaionean *ere* adberbioa da gehien erabiltzen dena: *Philip Gourevitch* kazetariak esaten du 1995erako ez zegoela Ruanda osoan txakur bat *ere*, RFPko tropek hil zituzten, giza gorpuak jateko ohitura hartu zutelako. *Bideoak ere badaudela esaten du* (Elorriaga). Horregatik deitzen dira EGLU-III liburukian emendiozkoak. Lotura hitzak erabiltzen ditugu batzuetan aurretik esandakoa dela eta, kontrako aukera bat agerian utziz: *Alemanez ez ahazteko irakurtzen omen ditu noizean behin alemanez idatzitako gauzak. Irakurtzen duenean. Trenean, esate baterako. Bestela gutxi, oso gutxi irakurtzen omen du, ez badira lan kontuak eta egunkariak* (Oñederra). Hautakariak deitzen dira holakoak. Beste batzuetan bestelakoa izaten da hiztunaren helburua, eta aurretik esandako zerbaiti beste zerbait gaineratzen zaio, baina kontrakoa eginez: *Oinazea nagusi nuen kopeta guztian, betazalean eta sudurrean. Orobat ezker belaunean, ezker eskuan eta ezker besoan. Oinazea ez zen makurrena, alabaina* (Epaltza). Holako lotura hitzak aurkaritzakoak. Hirugarren saila osatzen dute diskurtsoan egindako baieztapenen batetik ondorio bat sortzen dela adierazten dutenak: *Tanke itxura duen makina gaitza dabil maniobratan Harriren auto aurrean, irteera oztopatzen. Itxaron egin behar beraz* (Saizarbitoria). Ondoriozkoak deitzen ditu horiek Gramatika Batzordeak. Azkenik, bigarren perpaus batek aurrean esandakoaren zerbaiten kausa edo zergatia dela azpimarratzen du: *Niri hitz ederretatik libre ibiltzea dagokit, eta hori oso erraz egiten dut, zeren, filologotxo naizen partetik, bai baitakit hizkuntza naturalean ez dagoela hitz ederrik (eta ezta itsusirik ere)* (Segurola). Horiek kausazkoak direla esaten da EGLUn.

**42.9c** Baina ikertzaileek ikusi dutenez, bost ataletako sailkapen hori ez da nahiko diskurtsoa behar bezala josteko gure jardueran erabiltzen ditugun hi-

tzak eta esapideak besarkatzeko. Zenbait hizkuntzatan egin diren azterketek bestelako sailkapenak proposatzen dituzte. EGLU-III idatzi zenean gai hau aztertu gabe zegoen euskaraz, eta beste hizkuntzetan ere orain ezagutzen ditugun baino azterketa gutxiago zegoen.

## 42.10. Diskurtso markatzaileen (DMen) sailkapena

Esan bezala, azterlanetan sailkapen bat baino gehiago aurki badaiteke ere (beraz, duten izaeragatik nahiko zerrenda irekia da diskurtso markatzaileena), hemen emango dugun hau nahiko onartua dagoela esan daiteke (Martín Zorraquino eta Portolés 1999. Bada beste bat, berriagoa, Loureda-k eta Acín-ek (2010a) egina, baina erabilgarriago ikusi dugu aurrekoa). Esan dezagun, bestetik, eta honek ere azaltzen du eremu honetan sailkapenak egitearen zailtasuna, markatzaile hauen mugak, esanahiaren aldetik, anitzetan bereziki lausoak dira, eta ez dela batere erraza, hortaz, atal bakoitza ongi zedarritzea. Zernahi gisaz, esan dezagun ondoko lerroetan datozen bereizketa hauek egin daitezkeela DMen artean.

## 42.11. DM: Informazioaren egituratzaileak

**42.11a** Informazioaren egituratzaileen artean honako hauek bereiz daitezke: azalpenezkoak (*gauzak horrela, hori esanik...*), hurrenkeratzaileak (*hasteko, batetik...*) eta baztertzaileak (*hori dela eta, bide batez...*).

Hona hemen adibide batzuk: *Ia delitutzat jo zuten begitarte hura edo bukaezinezko desbideraketatzat eta, gauzak horrela, handik aurrera inoiz ez zioten barkatu aizkolaritazuna* (Iturbide); *Nik, ordea, dena galdu dut, eta ezin diot berriro ekin beste bizitza bati. Hori esanik, atsekabe sakon bare batek hartu zuen haren begitarte, eta niri, berriz, bihotza, hunkitu zitzaidan* (Errasti); *Ez dakit zure asmoa betetzeko aukerarik izango duzun hemen. Hasteko, nik baino askoz gehiago dakizula konturatu naiz* (Penades); *Gure ohiturak eta jo-*

koak, gure berbeta, gure kantuak eta dantzak, gure jatekoak eta janztekoak... guztia begitantzen zitzaien traketsa eta baldarra. Hori dela eta, soldadu baten aurkako apustua jokatu behar nuela esan zidatenean, neure onena ematea gura nuen (Zuazo).

**42.11b** Eskema hau litzateke:

Informazioaren egituratzaileak	Azalpenezkoak	<i>Gauzak horrela...</i>
	Hurrenkeratzaileak	<i>Hasteko...</i>
	Baztertzaileak	<i>Bide batez...</i>

## 42.12. DM: Lokailuak

**42.12a** Lokailutzat hartzen dira, sailkapen honetan, emendiozkoak (*gainera, are gehiago...*), ondoriozkoak (*beraz, orduan...*) eta aurkaritzakoak (*aldiz, hala eta guztiz ere...*). Kontuan har dezagun, zernahi gisaz, hemen ez garela ari EGLU-III liburukiko lokailuez, baizik aurkezten ari garen eskema berri honetan kokatzen ditugun DM hauetaz (konektore ere deituak).

Hona adibide batzuk: *Beldur nintzen, gainera, azkenean gertatu ez diren istorioak asmatzen hasiko ote nintzen* (Salaburu); *Baina ez zaio zintzoa iruditzen. Beraz, analitika eskatzea besterik ez duela egin esan nahi dio, bera dela osasuntsu eta sasoiko eta mardul dagoena* (Saizarbitoria); *Guztia erakutsi zidan sarjentuak, ona eta pazientzia handikoa izan zen nirekin, baina, hala eta guztiz ere, ez dakit sekula barkatuko diodan* (Zaldua).

**42.12b** Eskema hau litzateke:

Lokailuak	Emendiozkoak	<i>Gainera...</i>
	Ondoriozkoak	<i>Beraz...</i>
	Aurkaritzakoak	<i>Aldiz...</i>

### 42.13. DM: Birformulatzailerak

**42.13a** Gaztelaniari buruz egin diren lanetan (Martín Zorraquino eta Portolés 1999: 4121-4139; Portolés 2007: 71-72; Martí 2008: 60-65; Garcés 2008) sailkapen hau proposatu izan da birformulatzaileren berri emateko: esplikatiiboak (*o sea...*); zuzentzailerak (*mejor dicho...*); urruntzailerak (*en todo caso...*); laburbiltzailerak (*en suma...*). Fuentes-ek (2009) esplikatiiboak, zuzentzailerak eta zehaztailerak (*concretamente...*) bereizten ditu. Berehala itzuliko gara puntu honetara.

Gramatika honetan birformulatzailerak bakarrik arituko gara bereziki, aurkezpen orokor hau guztia amaitu ondoren. Zergatik? Batetik, esan bezala, lokailuek bakarrik aritzea baino egokiago da diskurtso markatzaileak (DMez) aritzea, baina orduan gaia askoz ere zabalago bihurtzen da. Baina, bestetik, DM guztien artean modu sistematikoan Birformulatzaileren atala bakarrik aztertu izan da (Alberdi 2014b). Hori guztia kontuan izanik, honela antolatu dugu kapitulua: lehenik EGLU-III liburukian lokailu deitzen genituen elementuak bilduko ditugu berriz ere hemen, han egindako sailkapena errespetatuz, material hura ez baitugu galdu nahi. Kontuan izan behar da, hori bai, hango *lokailuak* eta DMen sailkapenean *lokailu* deitzen ditugunak ez datozela beti bat. Behin hori egin ondoren, birformulatzaileren aurkezpen xehea egingo da, kontuan izanik betiere birformulatzailerak DMen atal bat besterik ez direla. Beste hitzetan esateko, EGLU-III liburukiko lokailuek ez dituzte DM guztiak biltzen, eta birformulatzaileren atalak kanpoan uzten ditu gure lokailuen zerrendan ageri ziren zenbait hitz eta esapide. Baina egindako lanez baliatzea, non ez den berririk egiten, egokia da.

**42.13b** Gaztelaniaz egiten diren sailkapenak aipatu ditugu. Arrazoi bategatik: beste hizkuntza batzuetan baino xeheki aztertu dira gaztelaniaz diskurtso mailako lotura hitz hauek, eta horregatik ohartu gara bereziki lan horietan. Euskararen kasuan, hala ere, aurreko bi sailkapenez baliatu gara beste honako hau, desberdina, proposatzeko. Birformulatzailerak, hortaz, honako hauek lirarteke: esplikatiibo edo azalpenekoak (*alegia, hau da...*), zehaztailerak (*zehatzago esanda, zehazkiago...*), laburbiltzailerak (*labur esanda, laburbilduz...*), urruntzailerak (*dena dela, dena den...*) eta zuzentzailerak (*are hobeto, barkatu...*). Hau guztia birformulatzaileren kapituluan aztertuko da oso xeheki.

Adibide batzuk, dena den: *Antropologia jaio omen zen mundu honen barruko “beste” mundutxoak ezagutzeko; hau da: menderatzeko; hau da: suntsitzeko* (Segurola); *Hala ere, gazte denboran, adiskideak izan, izan nituen —edo, zehatzago esanda, zenbait ikaskiderekin joan nintekeen, nazkatu gabe, kafe bat edo garagardo bat hartzera klaseen arteko atsedendietan* (Markuleta); *Lupara-tiro bat bertatik bertara, lepoaren eta kokotsaren artean. Laburbilduz, antzerki bat, eszenaratze bat* (Rey); *Urte bitan joan nintzen gabonetan Otxandiora, urte bakoitzean egun bi han igarotzeko. Dena dela, aita eta anai nagusia Bitoriara etorri ohi ziren feria egun batzuetan eta beti egiten zidaten ikusitxo bat* (Zuazo); *Gizendu egin zara: zapoa zara orain. Edo are hobeto: behia* (Cano).

**42.13c** Eskema, hortaz, hau litzateke:

Birformulatzaileak	Esplikatiboak	<i>Hau da...</i>
	Zehaztaileak	<i>Zehatzago esanda...</i>
	Laburbiltzaileak	<i>Laburbilduz...</i>
	Urruntzaileak	<i>Dena dela...</i>
	Zuzentzaileak	<i>Are hobeto...</i>

## 42.14. DM: Argumentu operadoreak

Operadore hauen artean sailkatuko lirateke argumentu indartzaileak (*berez, egiatan...*), batetik, eta zehaztaileak (*bereziki, adibidez...*), bestetik. Baina esan dugu gure sailkapenean zehaztaileak birformulatzaileen sailera pasatu ditugula.

## 42.15. DM: Elkarrizketa markatzaileak

**42.15a** Elkarrizketa markatzaileen artean sail hauek bereizten dira: ziurtasuna adierazten dutenak (*jakina, noski...*); adostasuna adierazten dutenak (*ados,*

*ongi...*); bestetasuna adierazten dutenak (*gizona, beha, aizak...*); metadiskur-  
tsoari dagozkionak (*zera, bon, bueno...*).

Hona adibide batzuk: *Ez nuen pentsatuko heriotza hain azkar iritsiko zitzai-  
nik, jakina* (Alonso); *Traktoreak edonor hil zezakek, ados, baina igitaiak ez...?*  
(Irigoien); *Baina, aizak, Mulligan, ondo fuertea egiten duk tea, ez?* (Olarra);  
*Bide batez, zigarroak eta kafeak ez dizute kalterik egiten? Ultzeragatik, diot.  
Royk ezetz egin zuen buruarekin. —Nik, zera... ez zen ultzera txarra ere* (Elus-  
tondo); *-Barka ene ausardia, baina nahiago nuke mintza gaitezen zure etxean,  
belarrrik kuriosoengandik urrun. —Aaa? Bon, sar gaitezen beraz, baina erraz-  
ki ulertuko duk ez dudala asti anitz hirekin eleketan aritzeko...* (Dolhare-  
Zaldunbide).

**42.15b** Eskema hau litzateke, hortaz:

Argumentu operadoreak	Ziurtasuna	<i>Jakina...</i>
	Adostasuna	<i>Ados...</i>
	Metadiskurtsoa	<i>Bon, bueno...</i>

## 42.16. Diskurtso markatzaileen kokalekua perpausean

**42.16a** Askatasun handia dute DMek bigarren perpausean hartzen duten to-  
kiari dagokionez. Hasiera-hasieran, tartean —kontraste jakin baten zerbi-  
tzuan— edo amaieran joan daitezke gehienak, DMen artean aldeak badira ere:  
*Nik bete dut esandakoa. Hala ere, zuk ez didazu agindutako saria eman; Nik  
bete dut esandakoa. Zuk, hala ere, ez didazu agindutako saria eman; Nik bete  
dut esandakoa. Zuk ez didazu, hala ere, agindutako saria eman; Nik bete dut  
esandakoa. Zuk ez didazu agindutako saria eman, hala ere.*

**42.16b** DM hauek, sarritan, mintzagaiaren eta iruzkinaren artean kokatzeko  
joera dute. Nolanahi ere, galdegaiaren eta aditzaren artean ez ditugu arruntean  
aurkituko, salbuespenak baldin badira ere. Badakigu DM hauetako askoren



berezko kategoria aditzondoa dela, baina DM gisa lan egiten dutenean, badirudi perpausean mintzagaiaren arrimura biltzen direla, eta berak ere mintzagai bihurtzen direla. Hartu duten beren mintzagai leku horretatik, hain zuzen, ezartzen dute aurreko perpausari buruz daukagun erlazioaren ñabardura semantikoa. Adibide bat jartzeko, pentsa dezagun *bestela* bezalako batekin gertatzen denaz. Hau berez aditzondoa da, modua adierazten duen aditzondoa. Era honetako aditzondoei berez dagokien lekua galdegaiarena izan ohi da: *Nik arto irinez egiten ditut opilak, baina Anttonik bestela egiten ditu.*

Perpaus honetan Anttonik pastelak nola egiten dituen esaten zaigu. Hala ere, Anttoniren opilgintza zehazkiago nolakoa den jakin nahi bada, aurreko perpausera jo beharra dago. *Bestela* hori *arto irinez* adizlagunarekin nolabait erlazionatua dago eta horrela jakin dezaket Anttonik nola egiten dituen opilak. *Arto irinez*, nolabait, *bestela*-ren aurrekaria izango litzateke. Horri esker, badakigu Anttoniren opilak egiteko errezetan ez dela arto irinik sartzen.

**42.16c** Har dezagun orain beste adibide hau: *Taloa arto irinez egin behar duzu. Bestela, ez zaizu ondo aterako.*

Hemen *bestela*-k bigarren perpauseko lehen lekua hartu du, mintzagaiarena nolabait. Leku honetatik, *bestela*-k ez du zehazki *arto irinez* adizlagunarekin ikustekorik, perpaus osoarekin baizik. Horregatik, hain zuzen, perpaus horrek onar dezakeen parafrasia baldintza kutsukoa da, *bestela*-k nolabait perpaus oso bat ordezkaturiko balu bezala: *Taloa arto irinez egin behar duzu. Horrela egiten ez baduzu, ez zaizu ondo aterako.*

Eta hau, esan behar da, DMtzat hartu ditugun askorekin gertatzen da, batez ere nola-halako anafora balioa dutenekin (*hortaz, horratik, hala...*).

## 42.17. DMen eta juntagailuen arteko harremanak eta bereizkuntzak

**42.17a** Hemen DMentzat sail berezi bat sortu badugu ere, badakigu sarritan arazoak gerta daitezkeela DMen eta juntagailuen arteko bereizketa egitera-

koan. Hor bilatu behar da *juntagailuen* sailean beste hainbat hitz eta partikula sartu izana euskal gramatiketan. Esanahiaren irizpideari jarraikiz egin izan da hori batez ere, eta ez, hitz edo partikula horien egitekoa benetan perpausak “juntatzekoa” ote den aztertuta. Horrela, juntagailutzat hartu izan dira maiz inola ere perpausak juntatzeko zeregina betetzen ez duten hitz asko. Bi bidetatik gertatu da hori.

**42.17b** DMen kasua dugu, hasteko. Hauek, izan ere, berez testu mailako elementuak, hau da, perpausetik perpauserako loturari ñabardura jakina emateko erabiltzen direnak badira ere, juntagailutzat hartu izan dira inoiz, esanahiari dagokionean juntagailuen pareko eta baliokide izan daitezkeelako. *Baina* juntagailuaren baliokidea da, esate baterako, *ordea* diskurtso markatzailea, biak aurkaritzari baitagozkio. Horregatik, ez da harritzeko gure gramatiketan juntagailuen sailean aurkitzea.

**42.17c** Batzuen eta besteen egitekoa desberdina da, *ordea*. DMek (*aitzitik*, *aldiz*, *bada*, *berriz*, *hala ere*, *ordea*, etab.) berez perpaus diferenteen artean dagoen loturari marka berezi bat ezartzen diote. Berariaz ez dute, juntagailuek bezala, perpaus elkarturik osatzen, jadanik juntatuak dauden nahiz lokabeak diren perpausen arteko erlazioari ñabardura bat ezartzen baizik. Eta, horregatik, juntagailuak metatu ezinak diren bezala, DMak erraz etor daitezke juntagailuen arrimura, debeku handirik gabe, haiek indartzeko edo: \**eta baina*, \**baina edo* eta horrelakoak arruntean ezinak diren bezala, *eta aldiz*, *eta ordea*, *baina halere*, *eta beraz*, eta gisa horretakoak onargarriak dira guztiz: *Mikel zintzoa dela esan didate. Zu, aldiz, bihurri samarra zarela mundu guztiak daki; Mikel zintzoa da eta zu, aldiz, bihurri samarra.*

Azken adibide horretan *aldiz* DMak ez du juntadura burutzen. Hori, izan ere, *eta* juntagailuak egiten du. DMA horren arrimura etorri da, aurkaritzari dagokion ñabardura eranstera. Era berean, alborakuntza hutsez juntaturiko perpausetan ere erabil daiteke lokailua: *Mikel zintzoa da, zu, aldiz, bihurri samarra; Zaharra da, arin dabil hala ere.*

Baina horrelakoetan ere DMA ez da juntagailutzat hartu behar, ez baita bera juntadura gauzatzen duena. Hori alborakuntzak egiten du, gorago esan bezala.

Eta alborakuntzaren arrimura etorri da DMA, aurkaritzari dagokion ñabardura eranstera. Guztiz pareko zeregina betetzen du, beraz, diskurtso markatzaileak bi perpausetan.

**42.17d** Perpaus bakunaren barnean lekua har dezaketen hitz edo partikula batzuk ere hartu izan dira inoiz juntagailutzat. *Bai, ez* (errepikaturik ageri direnean), *baizen, baizik, ere*, eta horrelakoak, alegia. Hauek, ordea, perpaus bakuneko elementuak izan daitezke, baiezkoaren edo ezezkoaren markagarriak batzuk eta erreferentzia munduaren zabalgarri edo murrizgarriak besteak: *Badator trena; Ez dator trena; Etsaia ere maite behar duzue; Familiakoak baizik ez dituzte onartzen.*

Juntaturiko perpausetan ere erabil daitezke hitz eta partikula horiek, noski: *ez, ordea, perpausak juntatzeko zereginetan, perpaus bakunari eransten dioten ñabardura bera eransteko baizik: Garaia da eta badator trena; Garaia da, badator trena; Garaia da, baina ez dator trena; Egunez betea egoten da eta gauez ere jende asko ibiltzen da; Egunez betea egoten da, gauez ere jende asko ibiltzen da; Jende asko joan zitzairen ate joka, baina lagunak baizik ez zituzten onartu.*

Partikula hauen egitekoa ez da, bistan denez, perpausak elkartzea, juntagai-luen edo alborakuntzaren bidez juntaturiko perpausari bere ñabardura eranstea baizik. Azkeneko hiru adibideetan, esate baterako, *ere* eta *baizik* partikulek erreferentzia mundua zabaldu eta murriztu egiten dute, hurrenez hurren, perpaus bakunetan bezala. Alde bakarra dago: konposatuetan erreferentzia, bakunean ez bezala, zehaztua dagoela: aurreko perpausak mugatzen du erreferentziaren esparrua.

**42.17e** Ohart gaitezen, bidenabar, DMtzat jo ditugun hauetariko batzuk perpausen arteko lotura menderakuntzazkoa denean ere gerta daitekeela. Pentsa, bestela, *ere* adberbioaren kasuan.

*Ere*-k (§ 42.19.2) agertzen den perpausetik kanpo bidaltzen gaitu nolabait. Hori perpaus bakunean gertatzen bada, inguruan duen testura bidaliko gaitu edo, testurik ez bada, zerbait presuposatzerara behartzen gaitu: *Nik ere hori egingo dut* esaten badut, horrek aurretik izan dezake honako perpaus hau, adibidez:

*Joseba zinemara joan da.* Testuinguru horretan *ere*-dun perpausa ulertzeko ez da inolako oztoporik: ‘ni ere zinemara joango naiz’ esan nahi du.

Testuinguru hori ez bada, nolabait honelako zerbait pentsatu behar da, perpau-  
sa zentzuzkoa izango bada: ‘X-k zerbait egingo du’.

Baina goiko adibideak erakusten diguna da perpausetik irten beharrik ez da-  
goela *ere* horri zor zaion interpretazioa emateko. Perpaus elkartu batean aski  
da behar den aurrekaria mendeko perpausean izatea. Dena den, hau behar  
bada *ere* elementuaren ezaugarri berezi bat dugu, zeren gorago esan den beza-  
la, honen zeregina dagokion izen sintagmaren erreferentzia mundua zabaltzea  
denez, perpaus bakunean ere ager daiteke, inolako aldeztasun aurretik emandako  
perpausen presentzia beharrezko ez delarik.

## 42.18. Diskurtso markatzaileak: laburbilduz

**42.18a** Diskurtso markatzaileak (DMak) solas mailako loturaren zer-  
nolakoaren adierazgarritzat jo ditugu, berek berez perpausik lotzen ez badute  
ere. Esan nahi baita, DMak gorabehera, bi perpaus jadanik juntatuak egon dai-  
tezke, juntadura bidez nahiz alborakuntzaz. Kasu honetan diskurtso markatzaileak  
ñabarduraren bat erantsiko dio loturari: ez da berdin, adibidez, *beraz* erabil-  
tzea edo *hala ere* erabiltzea: *Nik amaitu dut neure lana eta zuk, beraz, ez duzu  
zer eginik hemen; Diru asko galdu du eta ez dio, hala ere, askorik inporta.*

Alborakuntzaren arrimura ere etor daitezke: *Nik amaitu dut nere lana, zuk,  
beraz, ez duzu zer eginik; Diru asko galdu du, ez dio, hala ere, askorik inporta.*

Bigarren perpausari dagokion elementua da betiere DMA eta ez du berak jun-  
taturarik gauzatzen. Juntagailurik baldin bada, juntadurari ñabardura jakin  
bat eranstean dion elementua izango da DMA; bestela, berriz, alborakuntzari  
erantsiko dio ñabardura hori. Elementu hauei ezarri dizkiegun deiturek, hor-  
taz, honako oinarri hau dute: diskurtso markatzaileak testu mailako lotura  
(semantikoa, funtsean) gauzatzen dutenak lirarteke. Perpaus elkarketa, berriz,  
juntagailuz eta menderagailuz gauzatzen da, eta denak ere koherentziaren

zerbitzutan daude. Jakina, juntagailuaz gainera DMA ere ager daiteke. Hori da hain zuzen diskurtso markatzaileen eta juntagailuen arteko bereizketa egin ahal izateko erabil daitekeen irizpide nagusienetarikoa. Zeren juntagailu bi ezin baitira juntadura batean metatu: *\*eta edo*, *\*eta ala*, *\*baina edo*... Zenbait juntagailuri, egia da, *eta* eransten zaie ondotik: *edota*, *baizik eta*, *nahiz eta*... Horrelakoetan, ordea —antzeko kasu guztietan bezala—, emendiozko balioa galdu egiten du *eta* juntagailuak, aurrekoaren indargarri edo bilakatuz.

**42.18b** Perpausak lokabeak ere izan daitezke, perpaus elkartu izatera iritsi gabe. Orduan diskurtso markatzaileak perpaus batetik besterako “hariari” bide ematen dio, hemen ere goragoko ñabardura erantsiz: *Haizea dabil. Beraz, ez naiz hondartzara joango; Haizea dabil. Ez naiz, hala ere, hondartzara joango.*

Bi perpaus horiek, biak, guztiz arruntak dira, lehen begiratuan ezetz badirudi ere. Aski dugu egoera desberdinak pentsatzea. Esate baterako, lehenbizikoan pentsa dezakegu haizea ibiltzea ez dela hondartzara joan ahal izateko egoerarik aproposena, eta horregatik, hautatzen dugu *beraz* bidezko lotura: bigarren perpausa lehenbizikoaren ondorioa baita. Bigarren adibidean, berriz, eman dezagun *windsurf* zalea naizela eta, horrenbestez, haizea behar dudala neure kirola egin ahal izateko. Egoera honetan, noski, *hala ere* aurkitzeak ez gaitu batere harritzen. Hortaz, presuposizioak eta abarrak tartean sartzen direlarik, pragmatikaren munduan erabat murgilduak aurkitzen gara diskurtso markatzaile horiek direla medio.

**42.18c** Eta azkenik, berez juntagailu direnak ere nola-halako markatzaile gisa aritzen ahal dira, bi perpausen arteko gramatika-lotura (perpaus elkartu bat osatuz) gauzatzen ez badute ere, eta hiztunak bien arteko erlazioa nola ikusten duen esaten digute.

Hortaz, edo perpaus lokabeetan agertuko zaizkigu —aurrekoarekin duen harreman semantikoaren berri ematen digutela— edo jadanik “juntatuak” —juntagailu bidez nahiz alborakuntzaz juntatuak— dauden perpausen arteko harremanaren xehetasunen bat eskaintzera etorriko zaigu diskurtso markatzailea.

**42.18d** Hemendik aurrera, lehenago esan dugun gisan, EGLU-III liburukian lokailu deitzen ditugun hitz eta esapideei —*emendiozkoak*, *hautakariak*, *aur-*

*karitzakoak, ondoriozkoak eta kausalak*— dagokien materiala bilduko dugu, nahiz, eman ditugun arrazoiak direla eta, diskurtso markatzaile (DM) deituko ditugun aurrerantzean. Ondoren, DM horien atal bat, birformulatzaileena, landuko dugu bereziki. Liburu hartan lokailutzat jotako batzuk ageri dira orain birformulatzaileen artean: aurkezpen atal honetan aipatu besterik ez dira egingo halakoak, eta birformulatzaileetara bidaliko dugu irakurlea.

## 42.19. Emendiozkoak

### 42.19.1. Sarrera

**42.19.1a** Emendiozko diskurtso markatzaileek halako gehitze zentzu bat ematen dute testuan zehar. Jakina, gehitze zentzu hori nabarmen ageri da *eta* bezalako juntagailu batekin: lehenago esan den moduan, partikula hau berez juntagailua baldin bada ere (bi perpaus nahiz bi izen sintagma lotzen baititu), diskurtso markatzaile moduan erabiltzea ere ez da batere gauza arraroa, beste juntagailu askorekin gertatzen den legez. Ikus ditzagun, esate baterako, hurrengo adibideok. Lehenbiziko hiruetan *eta* juntagailua DM moduan agertzen zaigu perpaus hasieran. Ondoren datozenetan, berriz, juntagailu bera daukagu (DM moduan hemen ere) perpaus hasieran ez ezik, pasarte hasieran ere:

*Izan ere, egungo eguneko hizkuntzaz ari ez denak, ingurukoak begi-belarriz jasotzen ez dituenak, testuak behar ditu lekuko, ordukoari nahiz bart arratskoa izan, antzemango badio, inoizko hizketaren bitartez inoizko hizkuntzaren muinera helduko baldin bada. Eta filologia da, besterik baino arago, testuez, bestela esan, gatzaturik, “érgon” bihurtutik, gelditu den hizketaz (esaldi, perpaus eta luzeagoez) mintzatu behar duen jakite mota (Mixelena 2011, OC XIII: 234).*

*Kasu honetan, gainera, Beriaín berarengana jo dezakegu, erosoenetakoa ez bada ere bidea, bitartekoak bertan behera utziaz. Eta bitartekoa bera, Larramendi alegia, ez zebilen oker, oraingo Telletxeak erakutsi duen legez (Mixelena 2011, OC XIII: 235).*

*Baditu bere legeak, baina, lege horiek erabiliko baditu, erabilkizun den gaia behar du horretarako. Eta gaia ezin izan daiteke testua baizik, testu idatzia, noski, izkribuzkoekin ari garenean lanean (Mitxelena 2011, OC XIII: 237-238).*

*Eta honeraino, ustez, esanahia ongi jaso dut: ez dut, haatik, garbiro ikusten zer zor zioten ontziek Etxeberriri eta honen esku abilari (iaioari, trebeari, nahi duzuenari) (Mitxelena 2011, OC XIII: 237).*

*Eta argi bezain garbi irudituko zaigu gramatika aldetik (Mitxelena 2011, OC XIII: 239).*

*Eta Arestik, horren oraintsuko dugun Arestik, hainbeste ezagutu dugun Arestik, hain ozenki mintzatzen zen Arestik, “contra esto y aquello” maiz aski, utzi du pasarte ilunik ugari (Mitxelena 2011, OC XIII: 240).*

**42.19.1b** Hala ere, zenbait partikula DM (eta ez DM bezala erabilitako juntagailu) huts dira batez ere. Emendiozkoen artean aipatu behar ditugu, batetik, *ere, gainera, bestalde, halaber* eta, bestetik, *behintzat, bederen, bederik, behinik behin* eta abar. Hauek guztiak gehienetan adberbioak dira berez, lokailu lana egiten dutenak testuan zehar.

Lehenbiziko multzoko lau diskurtso markatzaileek, hau da, *ere, gainera, bestalde* eta *halaber*-ek, aurreko perpausean esandakoari zerbait gaineratzen diote. Gaineratze hori aski neutroa da, aurreko perpausean zerbait gehitu besterik ez baitugu egiten (X + emendiozko lokailudun perpausa): *Gure herriko plaza oso handia da. Ederra ere; Gure herriko plaza oso handia da. Ederra, gainera; Gure herriko plaza oso handia da. Ederra, bestalde; Gure herriko plaza oso handia da. Ederra, halaber.*

**42.19.1c** Horrela, lehenbiziko perpausean herriko plazari buruz emandako kualitate bati (handia izateari, alegia) beste kualitate bat gaineratzeko erabili ditugu diskurtso markatzaile horiek, adibideetan ikusten den bezala. Guztiz berdinak ere ez dira, jakina, *ere* DMA gainerako guztiekin konbinatzen ahal baita, baina beste hirurak nekezago aurkituko ditugu elkarren artean bat eginez: *Gure herriko plaza oso handia da. Ederra ere (bai), gainera; Gure herriko plaza oso handia da. Ederra ere (bai), bestalde; Gure herriko plaza oso handia da. Ederra ere, halaber.*

**42.19.1d** Beste hiru markatzaileekin, ikusiko dugun bezala, honako hau bakarrik esaten da, nonbait: *Gure herriko plaza oso handia da. Gainera bertzalde, ederra.*

Lau markatzaile horiek kendurik, bigarren multzoan agertzen zaizkigunekin, eta horien artean *behintzat* jarriko dugu lehenbizikoa, gehitze hori ez da hain modu ‘neutroan’ gertatzen eta betiere aurreko perpausetik biltzen dugun erreferentzia hori (“X” hori) nahikoa markatua da, eta kontzesio kutsua du batzuetan, baldintzazkoa besteetan...: *Miren ez dakigu joango den. Gu behintzat joango gara; Ez dugu esango egunero egin behar denik kirola. Baina, astean behin bederen egitea, oso komenigarria izaten da; Ongi ongi, ez dugu uste. Baina konpontzen da ingelesez, konpontzen, trakeski badere.*

Har dezagun hemen sail horretako lehenbiziko adibidea. Mireni buruz zerbait esan dugu eta berehala hau gaineratu: *Miren joaten bada edo ez bada...*, aipatu baldintza ezarriz. Horregatik bereizi ditugu emendiozkoen sailean bi azpimultzo.

## **42.19.2. Ere**

**42.19.2a** *Ere* diskurtso markatzaileak bi forma erakusten dizkigu, euskalkien arabera: *ere* eta *bere*. Lehenbizikoa da zabalduena. Diskurtso markatzaile hau beti ezkerreko aldean duen osagaiari atxikia doa, bien artean halako bata-sun bat eginez.

Euskal hiztegi eta gramatiketan ez da xehetasun handiegirik ematen morfema honen kategoriari buruz. Gure ustez, DM hau, kategoriari dagokionez, adberbioa dela esan daiteke, DM bezala erabiltzen duguna, solas mailan bi esaldiren artean nolabaiteko erlazioa eta lotura gertatzen dela adierazten diguna.

Balioaren aldetik, esan dezagun DM honek zabaldu egiten duela perpausaren erreferentzia mundua, ondoko adibideotan ikusten den gisan: *Miren eta Maddalena afaltzera joan ziren. Peru ere haiekin joan zen; Koldo eta Jone ez dira agertu gaur. Patxi ere ez da agertu.*



Ikusten ahal denez, perpaus horietako interpretazio hau dugu, gutxi gorabehera: lehenbizikoan bada talde edo multzo bat “Miren”ek eta “Maddalen”ek osatzen dutena eta multzo horren ezaugarria da multzoko kideak afaltzera joan zirelako hori. Beste hitzetan esanda: testuinguru jakin batean multzokide guztiak afaltzera joan ziren. Bada, “Peru”, besteak bezala, multzo horri dagokiola baieztatzen dugu, multzo horren barnean sartu behar dugula alegia, beste biekkin batera, “Peru”ren tokia horixe dela adieraziz. Bigarreanean, ber gauza, ezezko batekin oraingoan: bada multzo bat “Koldo” eta “Jone”k osatzen dutena eta multzo hori definitzen duen tasuna da multzoko kideak ez direla agertu gaur. Nolabait ere esateko, ezezko tasun batek definitzen du oraingoan multzoa. Bada, “Patxi” beste biekkin, batera sartu behar dugula ari gara esaten oraingoan.

**42.19.2b** *Ere* DMA ageri zaigun bakoitzean suposizio bat egin behar du perpaus horren erreferentzia munduaz. Gure kasu hauetan badakigu norbait joan dela afaltzera edo norbait ez dela agertu. Hori dela-eta afaltzera joan den norbait horretaz gain edo agertu ez den norbait horretaz gain, Peruk eta Patxik gauza bera egin dutela ari gara esaten. Perpaus hauek zuzen ulertu nahi izanez gero, nahi eta nahi ez onartu beharko dugu batean “Peru + X” joan direla, eta bestean “Patxi + X” ez direla agertu. Normalean “X” hori testuinguruak aldian aldiko egoerak identifikatzen du beti. Ohart gaitezkeenez, halako balio anaforikoa du *ere* markatzaileak, aurreko zerbaitekin duen lotura adierazten baitu.

Adibideetan ikusten denez, *ere* DMA dagokion izen sintagma bestelako perpaus osagaiaren ondo-ondoan jartzen da, sintagmari erantsia, eta enklitiko bezala ahoskatzen dugu: “Peru(e)re”, “Patxi(e)re”, “Perube” “Patxibe”. Beste hitzetan esateko, DM honek ezin dio inola ere hasiera eman perpausari, izen sintagma, aditz edo adizlagunen baten laguntzan erabiltzen dugulako, beti zer baiten ondoan eta ondoren. Zoritxarrez, egun hedatzen ari diren eta hain sarriegi entzuten diren perpaus hasierako *\*Ere bai...*, *\*Be bai...*, *\*Eta ere bai...* bezalako esaldiak guztiz arrotzak ditugu euskaraz, euskara ezagutzen dugun neurrian behintzat: *Nor joango da mendira? Peru. \*Ere bai Jone.*

**42.19.2c** Hala ere, euskaldunen usadioa desberdina baita kontu hauetan euskalkien artean, ekialdean aski hedatua dago honako jokabide hau: *Nahiz ez den halako estado haundia Idahok badauka denetarik franko polliki: desertu go-*

*rak, gaitzeko mendi eta oihanak eta ere laborantzako lur aide onak (Herria). Ez da nolana agertzen hor eta ere segida, nahitaez halako enumerazio bat edo eskatzen baitu: “desertuak, mendiak, oihanak eta ere lurrak”. Dena dela, esan bezala, ekialdeko egileetan bakarrik aurkituko dugu normalean erabilera hau.*

**42.19.2d** Beste erabileretara itzultzen baldin bagara orain, agian erabilerarik maizena goian jarri dugun *Peru ere haiekin joan zen* eta gisako horietan jarri duguna dateke, izen sintagmaren ondoan ageri zaigunean. Ez da hori leku bakarra, hala ere, beste edozein perpaus osagaiaren ondoren ere jar baitaiteke: *Etxe hau planta ederrekoa da. Handia ere (bai); Herriko gazteekin ederki konpontzen omen da alkatea eta zaharrekin ere oso ongi; Gaur ez du astirik izan egunkaria irakurtzeko eta bihar ere ez du izango; —Nor joango da mendira? —Antton. Eta Amaia ere (bai); Nora joango zara oporretan? — Parisera. Eta Nizara ere (bai).*

Adibide horietan guztietan halako presuposizio garbi bat seinalatzen du hiztunarentzat *ere* DMaren erabilerak, lehen adierazi dugun moduan. DMaren ezkerrean geratzen dena mintzagaitzat hartzen dugu, hitz egingo dugunaren erreferentzia ingurune bezala definitua oraingoan mintzagaia, nahiz eta hor ematen dugun informazioa ere berria den. Eta hori gertatzen da galdera baten erantzunari beste zerbait gaineratzen diogunean ere, azkeneko adibideetan ikusten den moduan: “Antton” galdegaia da, horretan ez da dudarik, baina ondokoak “Amaia ere” eransten duenean, “Amaia” ez da galdegaia, mintzagaia baizik, perpaus horretan galdegaia perpausaren baiezkotasuna baita. Badiara hori horrela dela pentsatzeko bi froga gutxienez: hasteko, “Nor zara zu?” bezalako galdera bati (hau da, galde hitzen bat agerian duen perpaus bati) ezin diezaiokegu besterik gabe “Antton ere” nahiz *ere* DMA inguruan daraman beste edozein sintagmaz baliaturik erantzun. Gainera, adizki sintetiko batez itzultzen dugunean esaldia, baiezkotasuna azpimarratzeko balio duen *ba-* partikula (adizki analitikoetan edo ezezkoetan ez da desberdintasun formal hau ikusten ordea) erabili behar dugu: —*Nor doa gaur mendira? —Antton (doa/\*badoa) —Eta Amaia ere (badoa/\*doa).*

**42.19.2e** Nolanahi ere, diferentzia formalak beti ageri ez diren arren, presuposizioa aldaturik geratzen zaigu *ere* diskurtso markatzailea jarri bezain laster, DM honek solas mailako beste zerbaiten erreferentzia hartu behar baitu.

DMaren ezkerrekoa mintzagaia den aldetik, perpausaren hasieran nahiz amaieran joan daiteke: *Amaia ere badoa*; *Badoa Amaia ere*.

Bestalde, perpausaren edozein osagai izan daitekeenez mintzagai —aditza bera ere barne—, edozein osagaik eraman ahalko du *ere* bere eskuinetara: *Afaldu, berandu afaldu zuen egun hartan*. Eta, hortik, testuingurua aldatzen dugula orain: *Afaldu ere, berandu afaldu zuen egun hartan*. Alegia, zerbait berandu egin zuen egun hartan, eta zerbait horretaz gain, afaltzera ere berandu joan zen. Honen tankerakoak ditugu beste honakook ere: *Irakurri ere, halako zerbait irakurria naiz ni*; *Etorri ere, oraintxe nator betetzetik* (Etxaide); *Egiari zor zaion lekua ematen dio, eman ere* (Zaitegi).

Hauk bezalakoetan (*ikusi ere, joan ere* eta abar) badirudi itzuli hauk nolabaiteko autonomia hartu dutela eta zenbait kasutan bederen normalean *ere* diskurtso markatzaileak bete behar duen zeregina bigarren mailan geratzen dela. Argi aski ikusten da hori *izan ere* esapidearekin, esate baterako. Esapide hau bere aldetik doala dirudi eta ondoren edozein aditz darraiola aurkituko dugu egungo eguneko euskarari. Hori dela eta, kausazko DMen artean sailkatu dugu esapide hori.

**42.19.2f** Honaino egin dugun aurkezpenean jarri dugu, nolabait esateko, *ere* markatzailearen erabilera estandarra, euskalki guztietan berdin samar erabiltzen dena. Jakina denez, ordea, euskaldunen artean ohitura desberdinak daude.

Har dezagun perpaus simple bat: *Miren gaur Iruñera joango da*. Perpaus horren barnean sartzen badugu orain *ere* DMA, esanahia bera aldatu egingo zaigu, DMaren kokagunearen arabera: *Miren ere gaur Iruñera joango da*; *Miren gaur ere Iruñera joango da*; *Miren gaur Iruñera ere joango da*. Perpaus horietan, hemen ez da dudarik, *ere* sintagma diferentearekin doa aldi bakoitzean eta horrexegatik esanahia aldaturik agertzen zaigu aldi oro: “Norbait joan da eta Miren ere joango da”, “Miren noizbait joan zen eta gaur ere joango da”, “Miren gaur beste norabait joan da eta Irunera ere joango da”.

Kontu handia izan behar dugu DMak biltzen duen sintagmarekin. Horrela, aldrebeskeriak entzuten dira sarritan, *ere* horrek berarekin daraman presupo-

sizioa guztiz aldatu gertatzen baita. Ikus ditzagun ondoko adibide hauek:  
—*Guk goian afalduko dugu. Eta zuek?*

Hemen galdetzen ari gara zuek zer egingo duzuen, ez non afalduko duzuen. Hortaz, horren erantzun zuzenak honakook dira: —*Guk ere (bai)*; —*Guk ere (goian)*. Baina ezin dezakegu erantzun beste hau: \**Goian ere*. Nahiz erantzun hori zuzena izan beste testuinguru batean: —*Hemen behean bada lekua afaltzeko. Eta goian?* —*Goian ere (bai)*.

**42.19.2g** Arrazoi beragatik, elkarrizketa honetan oso gaizki erabilia da diskurtso markatzailea: —*Nobela saria Patxik irabazi du. Eta olerki saria?* —\**Patxik ere*. Hor eman daitekeen erantzun bakarra hau baita: —*Olerki saria ere (bai)*. Lehen esan dugun moduan, *ere*-rekin batera doan sintagma perpausaren beste tokietan ere agertzen ahal zaigu: *Gaur Iruñera joango da Miren ere*; *Iruñera joango da gaur Miren ere*; *Miren joango da gaur ere Iruñera* eta abar.

Adibide hauek guztiak oso arruntak direnez, ez digute inolako arazorik planteatzen perpausen esanahia interpretatzeko orduan. Zer egin, ordea, ondoko bi adibideekin? *Miren gaur Iruñera joango ere da*; *Iruñera joango da ere gaur Miren*.

Esaldi hauetan ikusten dugu *ere* DMA aditzaren ondoan dagoela: adizki nagusia eta adizki laguntzailearen artean, batean, eta adizki nagusia eta adizki laguntzailearen ondoren, bestean. Esan dezagun, hasteko, erabilera hau orain arte ikusi ditugun besteak baino mugatuagoa izateaz gain, interpretazio konfuetan ere badirela desberdintasun franko euskaldunen artean. Ikus dezagun lehenbiziko kasua, hots, *ere* DMA adizki nagusia eta adizki laguntzailearen artean jartzen dugunekoa: *Irakurri ere dugu Lehendakariak Madrilera joateko asmoa duela*. Perpaus horrek bi interpretazio ditu: bat, horrelakoak entzun edo esaten dituen euskaldun orok emango liokeena eta, bestea, batez ere ekialdeko euskalkietara mugatzen dena: *Gaur goizean irratian entzun dugu Lehendakaria Madrilera joango dela. Eta ez bakarrik entzun, irakurri ere egin dugu egunkarian hiri hartara joateko asmoa duela*; *Hau guztia ere irakurri dugu: Lehendakariak Madrilera joateko asmoa duela*.

Bigarren interpretazio honetan iduri du aditzaren eskuinaldera bota dugula perpausaren zati bat, hain zuzen, *ere* DMak ukitzen zuen zatia, luzeegia delakoan edo. Orduan, DMA lekuz kanpo bezala geratu zaigu hor, adizki nagusiaren ondotik. Parafrasia, bigarren kasu horretan, honela egin genezake: *Lehendakariak Madrilera joateko asmoa duela ere irakurri dugu*. Ohartzen ahal garenez, adibide horretan ere perpaus osoarekin doa: [*Lehendakariak Madrilera joateko asmoa duela*] *ere irakurri dugu*.

**42.19.2h** Hori dela eta, euskal perpausentzako sintagmek agertzeko duten askatasunagatik, batzuetan hau bezalako adibideak aurkitzea ez da batere zaila: *Madrilera joateko asmoa duela Lehendakariak ere irakurri dugu*. Jakina, horren interpretazioa honako hau da, nahiz eta DMA izen sintagma baten (“Lehendakariak”) ondoren, eta ez aditzaren ondoren, doan: [*Madrilera joateko asmoa duela Lehendakariak*] *ere irakurri dugu*. Beste hitzetan esana: *ere* DMA perpaus osoarekin doa, eta ez “Lehendakariak” izen sintagmarekin bakarrik. Betiere, zernahi gisaz, testuinguruari egin behar zaio kasu: —*Sailburuak Madrilera joateko asmoa duela jakin dugu*. —*Bai, egia. Asmo bera duela Lehendakariak ere irakurri dugu*.

Beraz, hor irakurri behar da ‘Lehendakariak ere asmo bera duela’, ‘Lehendakariak ere Madrilera joateko asmoa duela’. Zernahi gisaz, *ere*-ren erreferentziak ez du nahitaez eskuinaldean egon beharrik, testuinguruaren arabera aurreko esaldian ere egon baitaiteke. Horiek ditugu bi interpretazioak, bada: ‘ez bakarrik entzun, irakurri ere bai’ eta ‘zerbait ere irakurri’.

**42.19.2i** Geroago ikusiko dugunez *baita ere* bezalako itzulietan halako zerbait egiten dugu, hor ere DMA aurreratua bezala ageri baitzaigu. Berehala ukituko dugu puntu hau.

Hona hemen literaturako adibide batzuk: *Zazpi urtetan pozoatu nahi izan zuten; baina ez zion edariak deusik egin. Behar bada on egin ere zion* (Hiri-barren); *Eta hala apezek nola aintzindariak, denek atseginekin ikusi zuten Jesus jauna estekatua eta beren soldaduen eskuetan. Egin ere zioten anitz laidok eta azkenean, oihera egin zuten guztiak, hiltzea merezi zuela* (Joanategi); *Egin zuen baratxuri-salda koipe puska batekin, baina Agerak laster ezagutu*

zuen ez zela haragi-salda, eta galdetu zion: *Jualimo: gaur ere ostirala al dugu? Salda honek ala dirudi, bada haragirik ikusi ere ez du* (Urruzuno); *Nik, zure tokian, liburutxo horretan euskeraren alboan itzulpen on bat ipiniko nuke. Hala egin ere dut, haren aholkuari nagokiola* (Orixe).

**42.19.2j** Badugu, azkenik, beste erabilera bat: zenbaitetan, *ere* DMA adizki nagusia eta adizki laguntzailearen ondoren ageri zaigu. Goiko adibide berbera erabiliz gero: *Irakurri dugu ere Lehendakariak Madrilerako joateko asmoa duela*. Erabilera hau ekialdera mugatua dago eta mendebaleko euskaldunen artean neketan aurkitzen da. Interpretazio aldetik, nolakoa den testuingurua, esaldiari ematen diogun hizkera doinua eta abar, hiru aukera eskaintzen dizkigu, orain arte aipatutakoak eta beste hirugarren bat: DMA, askotan, bere eskuinaldean ageri diren sintagmetako bati loturik dago, eta esaldiaren interpretazioa oso anbigua gertatzen da orduan. Zenbat eta sintagma gehiago, hainbat eta anbiguoago: *Hola uste dute ere ene lana ikusi duten guziek* (Artxu). Adibide honen parafrasia hau da: *Ene lana ikusi duten guziek ere hala uste dute*. Honen pareko dirateke ondoko adibideok, zeinetako batzuk mendebaldekoak baitira: *Beila tokietan bereziki, zenbat jende ez dira jarraitzen egiazki graziaz darion bederatzuurrun balios horri! Hala nola Xaberrin. Horrat biltzen dira ere, oste gaitzean, Nafarra guziko gizonak eta gazteak, berdin urrunetik oinez jinak* (Narbaiz); *Baderitzat [...] txit gauza egoki ta baliotsua izango dela bizitza hau maiz irakurtzea. Denbora berean aurkituko dute ere hemen beste asko kristau erok, Jaungoikoaren beldur gutxirekin zeruaz ahazturik, lurreko atsegin debekatu igarakorren bila dabiltzanak, beren arimako eritasunen sendagai berezia* (Beobide); *Badakigu ere zer diren “eskolatu” eta bai “ikastolatu”, erroak eskola eta ikastola* (Mitxelena); *Joan beharko dute ere ospitaletara, adinetakoen etxeetara, eta abar* (Landart).

**42.19.2k** Hortaz, zalantzarik egon ez dadin, esan dezagun hiru sail bereziko ditugula DM honen erabileran:

– Sintagma baten ondoan jartzen dugunean. Euskaldun guztiontzat berdin: *Jon ere etorri da*.

- Adizki nagusiaren ondoan dugunean. Euskaldun guztiak interpretazio arrunta, ekialdekoek bigarren interpretazio bat ere bai. Ikus gorago emandako adibideak eta azalpenak: *Jakin ere badakigu hori*.
- Adizki laguntzailearen ondoan dugunean. Oro har ekialdean bakarrik erabilia, oso anbigua gerta daiteke: interpretazio arrunta, bigarren interpretazioa eta baita edozein sintagmari lotzeko aukera ere (hirugarren interpretazioa). Nolanahi ere, anbiguotasun hau bigarren kasuan ere gertatzen da, *ere* DMaren ondoan sintagma bat baino gehiago suertatzen denean. Beraz, badirudi perpausaren esanahia aski ukitua geratzen dela *ere* hori ‘lekuz kanpo’ ikusi bezain laster. Ikus, esaterako, ondoko adibide hau: *Aitor dezagun bada euskara orain arte, Euskal Herriko eskoletarik kanpo atxiki izan dugula, hori baita Herrian Herriko mintzaira hiltzera kondenatzea. Ikusi ere da horrelakorik munduan barna “koloniak” deitzen ziren eskualdeetan eta izan du gaitz horrek ondoriorik, ondorio odoltsurik (Herria)*.

Nola interpretatu hori? Hiru interpretazioak dira posible: “kontu hau guztia ez da bakarrik buruan daukagun ideia bat, ikusi ere da...”. Besterik gabe esan dezakegu “horrelakorik” sintagmarekin doakeela, bigarren interpretazioan (“horrelakorik ere ikusi da kolonietan, alegia..”)? Edo, hirugarren interpretazioan, “koloniak deitzen diren eskualdeetan ere ikusi dela horrelakorik” ulertu behar da hor?

**42.19.21** Aipa dezagun, azkenik, oso arrunta ez den arren, zenbaitetan indarturik (*ba*-rekin edo *ez*-ekin) ageri dela adizki laguntzailea: *Jakin ez ezen, irakurri ere badut oharrez* (Larramendi); [...] *aurki adituko dira eta gehienak dagoeneko aditzen ere badira* (Larramendi).

Izan ere, baditu beste erabilera batzuk DM honek. Zenbait kasutan, oso arrunta da perpauseko osagai guztiak ezabatzea, DMarekin doan sintagma eta DMA bera izan ezik (batzuetan *bai* edo *ez* erants dakioke DMari ondoren: batez ere mendebalean gertatzen da hau): —*Peru gaur etorriko omen da*; —*Jone ere (bai)*. Hala ere, hor aukeran eman ditugun arren *Jone ere* nahiz *Jone ere bai*, biak erabiltzen baitira, euskalkien arabera, ez dira bi itzuliak pare-parekoak:

*bai* horrek aditz sintagma ordezkatzeko duenez biak batera ezin dira ageri: *Jone ere etorriko omen da*; \**Jone ere bai etorriko omen da*.

**42.19.2m** Orain arte ikusi ditugun adibideetan ez bezala, zenbait kasutan *ere* diskurtso markatzailea perpaus koordinatu baten barruan agertzen ahal zaigu. Azkeneko esaldia bera har dezagun lekuko: *Peru gaur etorriko omen da eta Jone ere (bai)*. Koordinazioan ageri den bigarren perpausaren baiezkotasuna azpimarratzeko *bai* erabil daiteke (egin dugun oharra kontuan hartuz, jakina), adibide horretan bezala edo juntagailuaren ondoren jarritz. Orduan itzuli hauek sortzen dira: *Peru gaur etorriko da eta bai Jone ere*. Gauza berbera suertatzen da ezezkoetan ere: *Peru ez da gaur etorriko eta ez Jone ere*.

Kontua da, ordea, juntagailuak eta baiezkoko nahiz ezezkotasuna markatzeko erabiltzen dugun partikulak elkarren artean duten ordena aldatu ere ager dakigukeela: *Peru gaur etorriko da, bai eta Jone ere*; *Peru ez da gaur etorriko, ez eta Jone ere*.

**42.19.2n** Baina orain beste zerbait gertatzen zaigu: “bai+eta” eta “ez+eta” segida elementu autonomotzat jotzen du hiztunak maiz aski “baita” edo “ezta” bezala ahoskatuz, gainera, hizkera arruntean: —*Egunon —Baita zuri ere*; *Hoztildu zen, epeldu gero eta azkenik, hoztu ez ezik, baita izoztu ere*. Eta hori gertatzen denean ez da batere harritzekoa *ere* bera *ere* lekuz aldatu eta dago-kion osagaiaren ondoren ez, baizik aurrean jartzea: *Peru gaur etorriko da, baita ere Jone*; *Peru ez da etorriko gaur, ezta ere Jone*. Hau egitean, jakina, badirudi *ere*-ren erabileraren funtsezko arau bat hausten dugula, esan den bezala, DM honek beti behar baitu aurretik sintagma bat edo osagai bat.

Itzuli hau idazle klasikoetan ere agertzen den arren, ez da dudarik batere xx. mendean ezagutu duela hedaturik handiena. Horrela, Axularrek hiru aldiz erabiltzen du, Belapeirek behin bakarrik, Larramendik bi aldiz eta abar. xix. mendetik hasten dira adibideak ugaltzen eta xx. mendean erabilera guztiz arrunta da, denok dakigun moduan. Koordinazio juntagailuaren aurrean jarri nahi izanez gero, ez dirudi desberdintasunik gertatzen den hor. Geratzen zaigun beste aukera bat ere betetzen da orduan, “eta+bai” edo “eta+ez” eta *ere*



segidan emanez: *Peru gaur etorriko da, eta bai ere Jone; Peru ez da etorriko gaur, eta ez ere Jone.*

**42.19.2o** Esan beharra da, nolana ere, *ezta* edo *eta ez* sarriago eta ugariago ageri direla liburuetan beren pareko diratekeen baiezkoak baino (*baita, eta bai*), berdin dela *ere* DMA agerian duten nola DM hau gabe ere. Hona hemen adibide batzuk *eta ez ere* itzuliaren gainean moldatuak: *Inori gaizkirik ez egi-tea ez egintzaz, ez hitzez eta ez ere gutiziaz* (Legaz); *Eta egia hau da: euskera ez da, nabarmenki, oker-bide, jakin-bide egin ez dugulako; ez dugu egin jakinbide zuzen, eta ez ere makur* (Lizardi). Adibide horietan ere legokiokeen lekutik kanpo dagoenez, neketan jakinen dugu orain perpaus luzeago batean zeri dagokion zuzen. Jo dezagun ondoko oinarrizko adibide hau: *Zerbitzaria ez da bere jauna baino handiago eta ez morroia nagusia baino gehiago ere*. Oinarrizkoa deitzen dugu, horko osagai guztiak zein bere tokian baitaude: koordinazio juntagailua bi perpausen artean, ezezko partikula perpausaren buruan eta azkenean aztertzen ari garen diskurtso markatzailea. Goian egin dugun interpretaziora jotzen baldin badugu hauxe da *ere* DMak adierazten duena: bada multzo bat non ukatu egiten dugun norbait beste norbait baino handiago dela. Ba, bada beste zerbaite ere multzo berean sartzen duguna (morroia ez dela nagusia baino gehiago, alegia). DMA orain lekuz mugitzeko askatasuna emanez gero, ondoko aukera hauek guztiak aurkitzen ditugu idazlearen artean (Altuna 1986): *Zergatik, ez da zerbitzaria bere nagusia baino handiagoa, ezta ere dizipulua, bere maisua baino* (J. C. Etxeberria); *Morroia ez baita nagusia baño aundiago, ezta ikaslea ere, irakaslea baño* (Apaiz batek); *Ez da ikaslea irakaslea baino gehiago, ez eta morroia nagusia baino gehiago ere* (Olabide); *Ez da ikaslea irakaslea baino gorago, ez eta mutila bere jauna baino* (Jesu Kristoren Berri Ona); *Ez da dizipulua nagusia baino gutxiago eta ez sehia bere jauna baino gutxiago* (Haraneder); *Ikaslea ez da irakaslea baino gehiago; ez morroia ere nagusia baino* (Orixe); *Ikaslea Maisua baino gehiago ez da; morroia ere ez nagusia baino* (Lardizabal).

**42.19.2p** Eman arrazoiagatik beharbada, hau da, “baita+ere” eta “ezta+ere” segidek euskararen oinarrizko lege bat hausten dukeelako edo, idazle anitzek ez du guztiz gogoko erabilera hori eta bigarren mailan uzten du. Esan dezagun,

zernahi gisaz, Mitxelenak berak ere, usu eskaintzen ez dizkigun arren, ez dituela batere gaitzesten:

*Badakigu, behintzat, “genieazkizuekeen” esaten, baldin ederki esana bada-go. Baita ere, gainera, “topikoa bihurtu” da (ze arraio bihurtu ote da “topiko” hori?) eta “bi penike bakoitzeko”, harako zahar elbarrituek “bina” esango luketenaren ordainetan (Mitxelena 2011, OC X: 86).*

*Etxeberri Ziburukoaren Manual-ak, badu zatitxo bat, balearen arrantza dela eta, nahikoa eta gehiegi nahasia. Baita ere, horrek edo Etxeberriren beste obraren batek, latineko distikoetan egina den eskeintza, nik zeharo ezin aditu dudana (Mitxelena 2011, OC XIII: 236).*

*Eta ez nuke nahi inork hau txartzat har lezan, neure buruari harrika eta ez besteri ari naizenez gero. Ezta ere harako gorago esan dudana hura: euskaldunok, alegia, geure hizkuntzaz landa besterik ere beharko dugula etorkizunean (Mitxelena 2011, OC X: 77).*

Dena dela, ohart gaitzen, tradizioari dagokionez, adibide horietan *baita ere* edo *ezta ere* segida horiek perpaus hasieran jartzen ditugula bakarrik, eta ez amaieran. Adibide gutxi aurkituko ditugu perpaus amaieran. Gaur egungo testuetan, ordea, holako adibide asko aurki daiteke.

Hori zergatik gertatzen den hola tradizioan azaltzea ez da gauza erraza. Badakigu *ere* DMA, halako itzulietan, lekuz kanpo dagoela perpaus hasieran (ez baita legokiokeen osagaiaren ondoren ageri). Hala ere, “baita+ere” perpaus hasieran jarriz gero ez dago arazorik. Kontua da, ordea, *ere-z* gainera *baita* edo *ezta* horiek ere perpausaren azkeneraino eramaten baldin baditugu *eta* juntagailua lekuz kanpo dagoela, ezin baita juntatzen dituen bi osagaien atzean, bien erdian baizik, joan. Agian horregatik ez dira erabiltzen halakoak literatura klasikoan.

**42.19.2q** Jakina, horietaz kanpo, *ere* anitzetan ezagun da beste DMak indartzeko edo (*halaz guztiz ere, halarik ere, zernahi gisaz ere* eta abar), forma klixetuetan (*batere, asko ere asko, batez ere, izan ere*) edo mendeko perpausetan (*erosi badu ere... , ...baino ere handiago, esatea ere!...*). Gauza bera gerta-

tzen da *inor, ezer, deus, inoiz* eta abar bezalako egituretan. Horiek guztiak bere lekuan ikusiko ditugu, ez hemen; hemen, hain zuzen ere, *ere* bakarrik ageri denean eta bere oinarrizko esanahia galdu gabe ageri zaigunean aztertu nahi izan baitugu.

Esan dezagun, azkenik, *ere* DMA edozein juntagailurekin (emendiozko balioa nahiz bestelako balioa izan juntagailuekin) ager daitekeela: *eta zu ere joan zaitzke; baina zu ere joan zaitzke; edo zu ere joan zaitzke* eta abar.

Hau guztiau laburtuz, hortaz, honela geratzen zaigu (eskema hauek guztiak adibideetan zehar esplikatutik daude):

Edozein euskalkitan	Ekialdean	Mendebaldean
(edozein X osagai) <i>ere</i>	... <i>eta bai ere X</i>	... <i>baita ere X</i>
... <i>eta X ere (bai)</i>	... <i>eta ez ere X</i>	... <i>ezta ere X</i>
... <i>eta X ere (ez)</i>		
... <i>eta bai X ere</i>		
... <i>eta ez X ere</i>	EZ DIRA EGOKIAK	
... <i>bai eta X ere</i>	*... <i>X baita ere</i>	* <i>X ere ezta</i>
... <i>ez eta X ere</i>	* <i>X ezta ere</i>	* <i>ere bai X</i>
... <i>baita X ere</i>	* <i>ere X</i>	* <i>ere ez X</i>
... <i>ezta X ere</i>	* <i>X ere baita</i>	
	* <i>eta ere X</i> (ekialdean bai, enumerazioetan)	

### 42.19.3. Gainera

**42.19.3a** Forma aldetik berehala ikusten dugu *gain* izenak eta adlatiboaren kasu markak osatzen dutela emendiozko DM hau. Postposizio bezala ere erabiltzen dugu (*fonetikaz eta fonologiaz gainera...*). Baina hemen DM gisa ageri

zaigunean bakarrik hartuko dugu kontuan. Noiz erabiltzen dugu? Dagokion perpausak aditzera ematen duena, aurreko perpausean emandako informazioari gaineratzen zaionean: *Askojakina zen Axular eta trebea, gainera, zekiena esaten*. Perpaus horren bigarren zatian ageri zaigu gainera DMA. Hortaz, bigarren zatiko informazio hori (“Axular trebea zen zekiena esaten”) gaineratu egiten zaio aldez aurretik geneukan informazioari (“Axular asko jakina zen”). Esan daiteke gainera-k balio argumentatiboa duela, esan nahi baita, hitzunik dionenaren bermagarri edo indargarri erabiltzen dugula, aurretik aipatu beste zerbaiten ondoan: *Ez du balio orain harengana joan nadin. Akiturik nago eta oso berandu da. Gainera euria ari du.*

Diskurtso markatzaile honek, ikusten denez, bere autonomia osoa du, gain-ek izen gisa izan lezakeen erreferentzia guztiz galdua baitu: *Arrigorrietan beste ohitura bat dago. Gainera, zer daki ama batek muttikoan gauzaz, edo...* (Oskillaso); *Harritzekoak ziren haren adimenaren irardausia eta hark eraiki zuen etxaguntzaren ederra. Gainera, askotarako gizona zen, izan ere: eta honela harrigarriago eta ikusgarriago egiten zaigu* (Zaitegi).

**42.19.3b** Gehienetan, beti ez bada ere, perpaus hasieran doa DM hau: *Egunero norberak bere burua azter beharra zeukan, hiru galdera horiei erantzunik: zertan egin dut huts? Onik egin al dut? Egin behar nuenik egiteke utzi al dut? Gainera, ez zuten zilegi babarrun eta gazta-belarrik jaterik...* (Zaitegi); *Patxik ez zuen aurkitzen atsegini neskati len jokoetan, eta gainera euren aginduak bete behar izaten zituen beti* (Oskillaso).

Zenbaitetan, hala ere, perpaus azkenean ere aurkitzen dugu gainera DMA: *Zuk merezi baino txikiago izango da gaurko penitentzia; ta neronek lagunduko dizut, gainera* (Etxaniz); —*Han bertako gizonak dagozak, nik liburu batean irakurri nian, jakintsu bati gainera. —Bai ote? erantzun zion Matxinek barrez-barrez, tranpan harrapatu zuela pentsaturik. —Ai, ai-ai, asto bedeinkatua, sinistu egiten duk gainera; zelan biziko dituk ba iretargian gizonak?* (San Martin).

Beste batzuetan, berriz, perpausaren barnean ere: *Ez omen dio mutilak nahi lukeen bezela aurpegirik ematen Malentxok; ez omen daki harek, gainera, neskaxari non eta nola hitz egin liezaiokeen* (Agirre).

**42.19.3c** Diskurtso markatzaile hau zenbaitetan *eta* juntagailuarekin agertzen da: *Asko jakina zen Axular eta gainera, idazle aparta; Ez nai z hemen horretaz jardungo, txit nahasia baita gai hori eta, gainera, oraindik ez daukadan jakitea eskatzen du* (Mirande); *Egia da, denok egiten genuen gauza zen, lehenago, geure gurasoak halantxe erakutsi zigutelako, eta, gainera, guztiok ekandu zaharren gordezaleak ginelako* (Agirre).

*Baina gainera eta ere gainera ere aurkitzen ahal dira: Esan dut isilik galde dezazula; baina orain diot gainera, urliaren kontrako gauzaren bat jakiten baduzu, isilik gorde behar duzu zeregan* (Agirre Asteasukoa); *Haurrak hola mendian ikaratzea, ez da gauza zaila, baina ezta egokia ere. Gosaria ere jan digu gainera* (M. Lekuona).

Esan dezagun, azkenik, ezin direla nahasi *gainera* eta *gainerantzean* (eta honen aldaerak), azken DM hori aztertzen dugunean ikusiko den bezala (§ 40.2.4): *[...] bat-batean sentitu dut nik tipo horrekin gauza asko neukala komunean, hura pobreagoa izatea, gainerantzean antz harrigarria genuen* (Sastre).

#### 42.19.4. *Bestalde/bertzalde*

**42.19.4a** *Beste* izenondoak (*bertze* lapurteraz) eta *alde* izenak (*althe* Zube-roan) osaturiko hitz elkartua dugu berez. Baina diskurtso markatzaile bilakatzen zaigu askotan. Eta orduan ‘beste (alde bate)tik’ esan nahi du. Perpausaren barnean betetzen duen funtzioa, gainerako emendiozko markatzaileekin gertatzen den bezala, gehitzearena da: ‘lehen esandakoaz gainera, beste hau ere bai’ bezalako zerbait adierazten duenean nabari da ongi aski funtzio hori. Beraz, ekintza bati beste bat gehitzen zaiola adierazteko balio du. Hori ikusten da ondorengo adibide hau bezalakoetan: *Euria da. Haizea, bestalde. Beraz, ez dago mendira joaterik; Jakin behar da, bestalde, hori egia dela.*

Adibide horiek erakusten dutenez, *bestalde* DMak aurreko “Euria da” perpau-sak dioenari ‘haizea ere badela’ gaineratzen dio. Edota ‘lehen esandakoaz gainera, egia ere badela jakin behar dela’. Beraz, *bestalde* diskurtso markatzaileak *gainera* diskurtso markatzailearen balioa hartzen duela esan daiteke:

*Euria da. Haizea, gainera. Beraz, ez dago mendira joaterik; Jakin behar da, gainera, hori egia dela.*

**42.19.4b** Lekuari dagokionez, DM hau ia-ia nonahi agertzen ahal zaigu: perpausaren hasieran batzuetan, edozein osagairen ondoren besteetan (galdegaiaren ondoan salbu, jakina) eta perpaus amaieran ere, beti aukeran, ondoko adibide hauek guztiek frogatzen duten gisan: *Ez daiteke ez lumaz, ez margoz, ez argazkiz, etxe-barne-ikuskizun hori bizikiago ikusarazi. Zein erraz ta neurritz datorcion behar-mintzoa. Bestalde, baduzu hor olerkari-aztarnarik ere (Lizardi); Aita maitea, ez da egun arrain aro. Bertzalde, arrain guti da itsaso honetan, eta ez dugu lehen aldia hutsik goazela (Laphitz); Bristi, brasta, basoan, bide politari behera, gaztainondoan itzaletik haitz ederren itzale-  
ra, bere buruarekin irriz. Beti irriz ari zen, bestalde, Zaroko zapatagina! (Barbier); Aberearen sen eta grinetatik gehien aldendu dena, eta horregatik arriskurik haundienean dagoena. Egia da, bestalde, diote, abere denetan interesanteena ere badela (Villasante); Mugaz bertzaldeko bertsolari lagun horiek aunitz estimatzen eta maitatzen ditut nik, eta uste dut horiek ere egi-  
ten nautela ni. Badut bertzalde alde horretan adiskide asko (Xalbador); Hona zer dioen bertzalde gizon aipatu batek: Gaskoina bera ez daiteke gal-  
tzerat utzi behar, baina are gutiago euskara (J. P. Arbelbide); Haren ahaleko eskualzale guti orai, gutartean. Astia non genuke bertzalde? Urte idorrek erori zaizkigu bizkarrerat: egiteko anitz edo gutiegi, irabaziak xuhur... (J. Etxepare); Orduan agorrrarazten dute berriz lur hura bera idortegian; aintzi-  
nean bezala errautsetara bihurrarazten dute bigarren aldiko, eta kausitzen da lehenbiziko pisu bera duela. -Zer? -Leheneko pisu bera, eta kuiarena ber-  
tzalde? (Duvoisin).*

**42.19.4c** Zenbait kasutan eta juntagailuarekin batera erabiltzen da, gainerako emendiozko diskurtso markatzaileekin gertatzen den bezala, betiere perpausaren hasieran jarritz: *Libro zara, beraz! Libro! Eta bestalde ikusten dut ez zarela mentsa (J. B. Etxepare); Aita on hark erraiten dio: To! bi milioi urretan. Eta bestalde izanen dituk hiru milioi lurretan (M. Etxamendi); Garbia ez baldin bada, nola atrebitzen zara predikatzerat? Inaziok ez du ihardesten. -Eta bertzalde, nondik du zure lagunak planta gabeko arropa hori? (Laphitz).*

**42.19.4d** Esan dezagun, azkenik, *baina* juntagailu eta *berriz* diskurtso markatzailearekin ere ikusten dela zenbaitetan. Eta *ere*-rekin ere: *Bai orixe! Bestaldetik, berriz, nahiko eskasak ziren lehenago ere gariak-eta, ez zetorren handik galkuntza haundirik* (Barrenso); *Haren esanetara zeuden Bañeztar guziak. Bestaldetik, berriz, zeinek baretu Guraiatarren aldekoak?* (Etxaniz); *Erakutsi dugu jadanik hori gezurra dela... Bainan, bestalde, nongo teologiak dauku buruan sarrarazi sakramentu baten hartzeko gizonak behar duela, lehenik, eta bere baitarik grazia horren gai bilakatu?* (Narbaitz); *Zeren eta baitzekien denek zer gar sainduarekin predikatzen zuen Ebanjelio saindua, eta bertzalde, predikatzen zuela Ebanjelio saindua Jondoni Joani apostoluak irakatsi bezala* (Joanategi); *Jendeak, bereziki gaixoa zaintzen beilan daudenik, eskertu egiten dute doktorea desorduan sartzen ikustea dena ongi doan jakiteko, eta bestalde, ziur da erizainek neurri batean ohitura horregatik pentsatzen dutela lehengoe-tako medikua dela, nahiz igarri egiten dioten nondik datorren* (Saizarbitoria).

**42.19.4e** Euskara mintzatuan *gainera* eta *bertzalde* biak batera ere aurkitzen ditugu: *Hori oso gizon aberatsa da. Gainera bertzalde erranen dizuet, zuen jakineko, hemengo auzapeza dela.*

### 42.19.5. Halaber (orobat, berebat)

**42.19.5a** Azkuek bere hiztegian sartu zuenetik hartu du hedadura jatorriz ekialdeko euskalkietakoa zen DM honek: euskal literatura ikustea aski da konturatzeko batez ere lapurteraz izan dela erabilia hasiera-hasieratik, mendebaldean ia-ia agertzen ez baita historian zehar. Egungo euskara idatzian, ordea, erabilia da. Formari begiratuz badirudi *hala* adizlagun modalak eta *ber* morfemak (“berriz”, “berrehun”, “berregin”, “bera”, “berau”, eta horrelako hitzetan ageri den partikula berak alegia) osatzen dutela. Ez da harrizkoa, hortaz, *halaber* DMA emendiozkoa izatea, aurreko perpausuan esandakoari zer edo zer gehiago gaineratzeko erabiltzen baitugu.

Nolabait ere itzultzekotan ‘gauza bera’, ‘gisa berean’, ‘modu berean’ edo horrelako zerbait esan nahi luke honek: *Zorakeria da biztua luzea desiratzea;*

*zorakeria da halaber etorkizuneko bizitzaz ez oroitzea*. Kontura gaitzen perpaus horretan ederki ordezkia daitekeela *ere* diskurtso markatzaileaz: *Zorakeria da bizitza luzea desiratzea; zorakeria da ere etorkizuneko bizitzaz ez oroitzea; Zorakeria da bizitza luzea desiratzea; zorakeria da ere etorkizuneko bizitzaz oroitzea ere*.

Esan bezala, perpaus hori honela interpretatzen dugu: *Zorakeria da bizitza luzea desiratzea; gauza bera etorkizuneko bizitzaz ez oroitzea*. Alegia, zorakeria bati (“bizitza luzea desiratzea”ri) beste zorakeria bat gaineratzen diogu (“etorkizuneko bizitzaz ez oroitzea”). Horregatik esan dugu DM honek zuzeanean eransten diola beste zerbait aldeztetik esandakoari.

**42.19.5b** Diskurtso markatzaile hau lotura ezartzen dion perpausaren hasieran joaten ahal da: *Ezkurretik ezagun da haritz larrainekoa, bere fruiturik sagarra, bai beretik pikua. Halaber da ezagutzen beretik herioa, ezen lastimagarria uzten du hatz ondoa* (Etxeberri Ziburukoa); *Bada lege dugu examinatze doktrinan ezkondu baino lehen guziak, ezi zer erakutsiko du ez dakienak? Halaber ikasi gaztetik emazteki lanak josten, errokan, ogi ta lixua egiten, kozinatzen, ta gainarakoak* (Lizarraga); *Artizarrak bertzetarik abantaila darama; halaber da anderetan ni penatzen nauena* (Etxepare); *Maite dut zure begitartea, maite zure boz ezta, / halaber zure irri gozoa, zure izaite guzia* (Xalbador); *Baldin maiz erortzen badira, halaber maiz jaikitzen dira; baldin maiz egiten badute bekatu, halaber maiz erremediatzen dute* (Axular).

**42.19.5c** Nolanahi ere, ez da perpaus hasiera DM hau ikusiko dugun leku bakarra. Esate baterako, perpaus amaieran ere joan daiteke: *Urruñarrak, berantegi jakinik, ezin etorri dira; eta bertze franko halaber* (Hiriart-Urruti).

*Halaber* perpausaren azkeneko aldean ageri zaigularik, garbiago ikusten da diskurtso markatzaile honen aditzondotasuna. Badirudi hor aditzondo hutsa besterik ez dela, adberbioa alegia.

**42.19.5d** Bide batez, *halaber* eta *ere* zein hurbil dauden ohartzeko, aski dugu honako adibide hau ikustea: *Gizonek zuei egin deitzaizuen nahi dituzuen gauza guziak egin diezazkiezue zuek halaber haiei ere*. Gainera, itzulpenetan ageri den pasarte hori nola itzuli izan duten beste idazle batzuek ikustea baino ez



dugu: ... *zuek ere, hei* (Haraneder); ... *ere gisa berean* (Testament Berria); ... *zuek ere egiezute* (Uriarte); ... *zuek ere ekin* (Etxenike, in Salaburu 1980).

Batzuetan mintzagaiaren (mintzagai hanpatuaren, askotan) ondoan ageri zaigu: *Inazio ez zen jakintsua. Nekez mintzo zen, urriki zitzaion ateratzen elea; haren idaztietan, halaber, ez da ezagun idazlearen antzik* (J. Etxepare); *Mediterranea ezagutzen dugu guk ere [...]* *Lau dago eta naro bere hedadura guzian. Bere hedadura guzian, halaber, urdin-urdina da* (J. Etxepare); *Eskerrak eman zituen, ogiak hautsi ta bere ikasleai banatu zizkien, haiek gizataldeari eman zietzaien. Bi arrainak halaber guziei banatu zizkien, bakoitzak nahi adinbat* (Iraizoz); *Eta ezkontza saindu Jainkoaz ordenatu hau da halako bertutetako, non haren kausaz senarrak ez baitu bere gorputzaren boterea, baina emazteak: emazteak ere halaber ez du bere gorputzaren boterea baina senarrak* (Leizarraga).

**42.19.5e** Maizkara erabiltzen da aditzaren ondoren: *Merezimendua ez datza zeruko bisioneen eta kontsolazioneen izatean; ez datza halaber eskritura sainduaren ongi aditzean* (Xurio); *Ikusten duzunean norbait, zuhurtziaz, zuzentasunez [...]* *berregindua, separa ezazu halaber, bere baitarik duena, Zerutik errezibitu duenaganik* (Haraneder); *Errebizi ezazu, eta bete gaitzazu zure graziez. [...]* *Oroit zaitez halaber, Jauna, Purgatorioan diren arima gaitxoetz* (Andre-dena).

**42.19.5f** Baiezko nahiz ezezko partikularekin ere ageri da: *Otoitz egin diezazugun hilez eta biziez / Bai halaber atsekabe guri egin nahiez* (Etxeberri Ziburukoa); *Halatan beraz erran behar da jakintasuna dela gizonaren perla, jujusa eta diamante preziatua, bai halaber adimenduko goibeldurak urmariarazten dituen eguzkia* (Etxeberri Sarakoa); *Zorrozki begiratu behar gara jendeen laudorioen eta munduko ohoren gutiziagatik, deusik ez egin sekulan xede hortaz, ez halaber huts egin gabe egin gogo zenik deusik, mundutarren burlen eta erasoen beldurrez* (Duhalde).

**42.19.5g** *Eta juntagailuarekin batera: Heldu naiz zure oinetara / Amudioz kargatua, / Eta halaber etortzen naiz / Beldurrez arrailatua* (Gazteluzar); *Obligatuak dira hartu dutenaren lehen baino lehen errendatzera, eta halaber egin du-*

*ten damuaren erreparatzera (Akizeko katixima); Nagusi batzuk halakoak dira non, ezagutzen ahal balituzte beren sehiak eta halaber beren burua (J. Etxepare).*

**42.19.5h** *Eta juntagailua eta baiezko nahiz ezezkotasunaren partikularekin: Eskribitzen den gauza, hobeki pentsatzen eta kontsideratzen baita, berehala solasean erraiten dena baino, eta bai halaber, halatan huts ere gutiago egiten (Axular); Behin elkargana abiatuz gero, gaitz da handik pizten den suaren iraungitzea, eta bai halaber jendearen ixilik edukitzea (Axular); Alde horretatik, aztertu egin beharko litzateke diktaduraren eragina euskararen galeran, eta bai halaber —burura datorkidan lehen etsenplua jartzearen—, herritar ez euskaldunei ematen omen zaien tratu gutxieslearen egiazkotasuna (Atxaga).*

**42.19.5i** *Ere diskurtso markatzailearekin bakarrik agertzen ahal da: Eta ezkontza saildu Jainkoaz ordenatu hau da halako bertutetako, non haren kausaz senarrak ez baitu bere gorputzaren boterea, baina emazteak: emazteak ere halaber ez du bere gorputzaren boterea baina senarrak (Leizarraga).*

**42.19.5j** *Autore batzuen artean aski arrunta da DM hau modu-konparazioa egiteko erabiltzen ditugun perpausetan aurkitzea, eta hala hutsaren ordez jartzen da orduan: Nola espantatzen baitu dragoiak marinela / Halaber izuturen du Antekristok fidela (Etxeberri Ziburukoa); Ezen nola zelaietan erriberek bidea / Halaber nahi dik egin Justiziak berea (Etxeberri Ziburukoa). Hemen ikus daiteke berriz ere halaber eta ere-ren artean dagoen parekotasuna, nola ... halaber bikotea bezala ... ere bikotearekin ordezka baitaiteke: Ezen erriberek zelaietan bidea egiten duten bezala nahi du Justiziak ere berea egin.*

**42.19.5k** *Esan dezagun bukatzeko, diskurtso markatzaile gisa aztertu dugun honek -ko atzizkia hartzen ahal duela, izenlagun bihurtuz horrela: Fermuki sinesten dut entzutera noan meza dela. Jesu-Kristo zure seme Jainkoaren gorputz eta odolaren Sakrifizioa; ofritzeko manera halaberekoa ez izan arren, hark berak Kalbarioko mendian gizon guztientzat ofritu zuen Sakrifizio hura bera (Andre-dena). Adibideak erakusten digu orain markatzaile honen aditzondotasuna argiago, ezin baitugu ahaztu, azken batean, diskurtso markatzaile asko aditzondoak (edo aditzondo izanak) ditugula lotura kontuetan erabiltzen ditugunak.*

**42.19.5l** Markatzaile honen parekoak ditugu berebat eta orobat DMak ere. Ondoko adibideotan ikus daitekeenez, *halaber* bezala, DM hauek ere perpaus hasieran, perpausaren barnean, juntagailuekin eta abar erabiltzen dira.

Hona hemen batzuk perpaus hasieran, esate baterako: *Hirugarren egunean goizean-goiz mendia hodei ilun batek hartu zuen, eta hasi ziren tximistak irteten, eta trumoia jotzen. Berebat aditzen zen tronpeta-soinu zorrotz bat, jendea mendiranz alderatzeko, ziona (Lardizabal); Mirenek eskeni didan baino zorion bizia goa behar du nere bihotzak, eta aurkitzen ahalegindu behar dut denaren gainetik. Berebat, pentsatu gabe aukeratu nuen nere bizibidea; eta ez naiz zoriontsu inola gabe (Txillardegi); Bat-batean aziendak janariz aldatzen badira. etortzen zaie hantura edo bertze gaitz zenbait. Orobat, bazka berdeak akabatzerakoan, ez dizatzula abereak bat-batean ezar jan idorrean: bero daitezke (Duvoisin); Baztandarra zen Francisco de Elizondo aita kaputxinoa ere, besteen artean “Lore usaindu mamitsuak” liburua izkiriatu zuena. Orobat Amaiurko erretore izan zen Cruz Goyeneche jaunak ere euskaraz apainki idatzi zuen (Izeta).*

Perpausaren barnean orain: *Han ez nuen ordea irakurri, bereetara etorri zela eta bereek ez zutela ongi hartu; ongi-etorri egin ziotenari Jainko- seme izateko eskubide eman ziela. Han irakurri nuen berebat, hitza, Jainkoa, haragitik, odoletik, giza-gogotik ez baino Jainkoagandik sortua dela (Orixe); Zerura igaten banaiz, zu han zara; ifernura jausten banaiz, orobat han zara (J. P. Arbelbide).*

Juntagailu nahiz diskurtso markatzaileekin oraingoan: *Ikara latzetan nengoan, eta berebat sutu nintzen, aita, zure urrikia itxaron ez eta hartan poz jauzi eginez (Orixe); Jatekoak diren zerak ere, ageri dira eskaparate zabaletan, eta edariak orobat (Erkiaga); Jainkoaren fedea beheraka dijoan neurrian, morala ere berebat amilka dijoakigu (Villasante).*

**42.19.5m** Aipa dezagun hemen, azkenik, *orobat*...*nola* egitura ere ageri dela euskal literaturan (*hala...nola, nola...hala* esanahiarekin): *Hemen emaztekoa orobat trabajutzen da, nola gizakia, mendi lanetan (Mendigatxa); Nola hegaztiak ikusten duen saretik ihes egiten baitu, orobat egizu (Zerbitzari).*

Horietan aski argi dago egiazki aditzondoa dela, adberbioa.

#### 42.19.6. *Behintzat* (eta *segurik*)

**42.19.6a** Hasieran esan dugu emendiozko diskurtso markatzaileak bi sailetan banatzen ditugula. Orain arte ikusi ditugu lehenbiziko multzokoak, nola-bait ere ‘neutroenak’ direnak edo. Gaineratze hutsa egiteko erabiltzen ditugula aitortu dugu sarreran. Orain ematen diogu hasiera bigarren multzoari: baldintza estuagoetan erabiltzen ditugu DM hauek. Eta hauen artean *behintzat* dugu lehenik aztertuko duguna. Forma aldetik, eta DM honen historia kontuan hartzen baldin bada, ongi ikusten ahal da *behin* adizlagunak eta *-tzat* destinatiboan eta prolatiboan ageri den atzizkiek osatzen dutela DM hau. Idazleen artean aldaera bat baino gehiago izan du, ohitura den bezala anitzek ez baitute tarteko ‘h’ hori erabili eta beste batzuek ‘-tzat’ horren ordez ‘-zat’ nahiago izan baitute: *beintzat*, *behintzat*, *beinzat* eta *behinzat*, ageri dira lekukoetan. Zenbait euskalkitan *behin* bera bakarrik ere erabiltzen da: *Honek behintzat, ez dio berriz ere sartuko eskua zakurrari letaginetan*; *Honek behin, ez dio berriz ere sartuko eskua zakurrari letaginetan*. Literaturan ere ez dira holakoak falta: *Patar gaixtoetan, arbolak du ematen hobekienik*; *hastapenean ongi artatuz, oihana nagusiarazten bada*. *Semeak*. *Gaur behin erran didazu xitxuriak egin behar duela* (Duvoisin); *Itsasoa ez ote dugunez, hemen ere ikusi gabe utzi behar? Hala luke iduri, behin* (J. Etxepare).

**42.19.6b** Bestetik, hitz hau biltzen duen kategoria eta *ere* hitza biltzen duena, kategoria bera ez bada, oso hurbilekoa dela esan dezakegu. Biek egiten diote erreferentzia ‘beste’ zerbaiti, aurreko perpausen batean baieztatu nahiz ukaturiko zerbaiti alegia. Horrela, *ni ere joango naiz* esaldian ‘beste norbait’ joango dela baieztatzen ari gara. Honen antzera, *ni behintzat joango naiz* baldin badiogu, berriz, ‘beste norbait’ez ere ari gara, norbait hori ez dakigularik joango den ala ez, dudan jartzen baitugu ekintza hori. Baina ekintza bera dudan jartzen dugun arren, *behintzat* diskurtso markatzaileak berarekin darama erreferentzia horren egitearen ezinbestekotasuna. Hau da, bi kasuetan (*ere*-rekin eta *behintzat*-ekin) erreferentzia hori nahitaezkoa da: halako tasunak dituen multzo batean sartzen naizela ni, diogu batean, *ere* darabilgunean; *behintzat*-ekin, berriz, ez gaudela ziur bestea multzo horretan ere sartzen den ala ez, baina ni bederen, ni hor sarturik nagoela kontu segurua da.

**42.19.6c** Funtzioari dagokionez, esan denari buruz nolabaiteko muga jartzeko erabiltzen du hiztunak *behintzat* diskurtso markatzailea. Esanahiaren aldetik *bederen*, *behinik behin*, *segurik* edo *bederik* DMen baliokide da gehiengotan. Izan ere, zenbait kasutan, aurrerago ikusiko dugun moduan, eta batez ere harridurazko esaldi mota batzuetan, *behintzat* bakarrik erabiltzen da, ez gainerakoak. Azken urteetan aski zabaldu den *gutxienez* DMA ere sail berekoa da, baina honen erabilera batez ere zenbatasuna adierazten duten sintagmetara mugaturik ageri da literaturan: *Gurutzean josirik zegoela ere, hiru hitz gutxienez otoitzezkoak izan ziren* (Inza); *Ez ziren zentzatu, gehienak behintzat, aginte honekin ere, eta agindu behar izan zuen berriro elizak, komulga zitezela gutxienez urtean behin, pazko loratuan* (Agirre Asteasukoa).

**42.19.6d** Esanahiaren aldetik diskurtso markatzaile guztiok oso hurbil baldin badaude ere elkarren artean, distribuzioari dagokionez, euskalkiak hartu behar dira kontuan. Ondoko lerroetan esango denez, oso esanahi zabala har dezake DM honek, nolakoa den testuingurua. Maiz aski, perpausean adierazten den ekintzaren baiezkotasun edo ezezkotasunean, markatzailearen aurrean biltzen diren sintagmei halako muga bat jartzeko erabiltzen du hiztunak *behintzat*, horri kontrajartzen zaion informazioa isiltzen dugula adieraziz edo: *Koldo eta Jone behintzat etorri dira*.

Hain zuzen ere, adibide horretan, Koldo eta Jone (Koldo eta Jone *bederik*, Koldo eta Jone *behinik behin*) etorri direla adierazten dugu, gainerakoen etortzea zalantzan jartzen dugun bitartean. Gure adibidearekin segituz, Koldo eta Jone etorri direnen multzokoak direla ari gara esaten, multzo horretako besteak nor izan daitezkeen, baldin badira ere, berdin zaigula.

Adibide hori izan daiteke agian diskurtso markatzaile honen erabilerarik zabalenaren ispilu. Orain arte ikusi ditugun gainerako DMekin gertatzen den moduan, testuinguru egokia izan gabe nekez erabil daiteke DMA, esan nahi baita, ez garela gure solasean besterik gabe hasiko DM hau barnean daukan perpaus batekin zuzen-zuzenean, beste zeozer presuposatzen ez dugun bitartean behintzat. Goiko adibide horretan hiztunak badaki norbait etorriko dela edo jendearen esperoan dagoela, nahiz agian une horretan ez den ziur jende guztia azkenean agertuko denentz. Horregatik baieztatzen du Koldo eta Jone gutxienez baietz, horiek etorri

direra, perpausaren galdegaiaren baiezkotasuna azpimarratzen delarik hor. Esaldi hori honako galdera honen erantzun egokia litzaieke: *Etorri da norbait?*

**42.19.6e** Ekintza horren ezezkotasuna markatzeko ere berdin-berdin erabil dezakegu diskurtso markatzaile bera: *Koldo eta Miren behintzat ez dira etorri*. Adibide horretan egoera desberdina dugu: badirudi Koldo eta Miren, besteak beste, espero genituela baina oraingoz hauek ez zaizkigula agertu. Ez dakigu ziur besteak etorri diren ala ez, baina badakigu Koldo eta Miren ez daudela hemen. Ekintzaren baiezkotasun eta ezezkotasun hau dela-eta ez da harritzeko diskurtso markatzaile honen ondoan *bai* eta *ez* (edo baiezkotasuna nahiz ezezkotasuna adierazteko erabiltzen ditugun bestelako partikulak) ere agertzea. Horixe da, hain zuzen ere, literaturan behin eta berriz ageri zaiguna: *Herriari gebendu zaion hura lurperatzeko asmoa al dun? Hura behintzat bai, neba baitut, baita hik ere, nai ez badun ere* (Zaitegi); *Gizon guztiak, Kain bezala, izandu ziren gaiztoak? Gehienak behintzat bai* (Ubillos); *Hori duk-eta, astotxu! Honetan behintzat baietz neu nagusi izan! esan zuen otsoak, pozaren pozez dantzaz hasten zala* (F. Bilbao); *Ikusiko duzu beti diharduela euren buruak garbitzen. Txerriak behintzat ez* (Uriarte); *Egun denetan daude sarturik elizan, / abadien aurrean santu baten gisan; / gero ikusi behar zer moduz dabilzan, / zintzo asko orain arte behintzat ez da izan* (K. Enbeita).

**42.19.6f** Perpaus galdegaiaren baiezkotasunaz eta ezezkotasunaz aritu gara: ez da beharrezkoa, hala ere, galdegaia perpausaren baiezkotasuna nahiz ezezkotasuna izatea, galdegaia beste zerbait ere izan baitaiteke: *Rahab emakume galduaren izenekoa zen: hala ere, edo bere bizitza gaiztoa utzita zeukalako, edo Jainkoak ordu hartan bihotzean ukitu ziolako, Israeldarrei behintzat, txit arrera ona egin zien* (Lardizabal); *Eta neure buruaz baino urrikiago nintzen nire nagusi gaixoaz, zortzi egunez ez zuen ezer ahora eraman-eta. Etxean behintzat, ondo egon ginen jan barik. Nik ez dakit nondik zebilen eta zer jaten zuen* (Orixe).

Adibide horietan *behintzat*-en ezker aldean ageri dena mintzagaia den arren, galdegaia gauza anitz izan daiteke: *txit harrera ona* eta *ondo*.

**42.19.6g** Oso arrunta da *behintzat* diskurtso markatzailea zenbatasuna adierazteko erabiltzen ditugun adberbio eta zenbatzaileen inguruan agertzea:

*Zazpigarrena, prestaera ederrarekin hartzen duenaren bihotzean isurtzea, askotan behintzat, bere gozotasun miragarriak, arimako bakea, eta atsegin-kontentu garbiak (Agirre Asteasukoa); Bai, hamar... edo asko behintzat, ardi, behor, moxal eta otso denak nahastean, batabestearen atzetik lehiaz, garo sailetan aurrera itsuturik, otarietan barruna zarrapaztaka...* (Agirre).

**42.19.6h** Esan dezagun laburtzeko, bada, *behintzat* DMA pareka daitekeela batzuetan *segurik*-ekin eta *bederen*-ekin ere: adibide horietan edozein DM jar daiteke. Dena dela, azkeneko honek baditu *behintzat*-ek biltzen ez dituen esanahiak.

**42.19.6i** Diskurtso markatzaile hauen erabilerak, beti bezala, zerikusi handia du hiztunaren eta entzulearen presuposizioekin. Esaldi bera gerta liteke onargarri edo ulertezina, hiztunaren presuposizioa ere aldatzen denean. Horrela, jo dezagun ondoko hau: *Nahiko bat behintzat aterako du.*

Hor ulertzen dugu, gure presuposizioa da, nahiko baino gehiago ere atera daitekeela, bestela ez bailuke zentzurik perpaus horrek. Ikus dezagun beste honako hau: *Bikain behintzat aterako du.*

Egoera arrunt batean ulertezina litzateke perpaus hori. Jo dezagun, ordea, ikasketak bukatu berri dutenen artean aukeratzen ditugula hoberenak eta haien artean banatu nahi ditugula sariak. Eta sari horiek bi direla: “Ikasketen Sari Berezia” (hoberenentzat) eta “Bikain”, besterik gabe (bigarren gelditzen direnentzat). Orduan, testuinguru horretan (Bikain baino sari hoberik onartzen dugulako presuposizioan), goiko esaldi hori zuzen legoke. Ez dezagun ahaztu, norbait edozein azterketatara aurkezten denean ‘zero behintzat’ seguru daukaila. Ber gauza suertatuko zaigu bestela ere: *Everest behintzat igoko du.*

Guretako, segur aski ere, normalean Anbototik edo Gorramenditik pasatzen ez garenondako, ez du ez, perpaus horrek zentzu gehiegirik. Hala ere, gu izan beharrean Himalaia aldera abiatu den mendizale batek esaten baldin badigu, eta mendizale horren asmoa baldin bada Everest-ekin batera Lhotse eta Annapurna ere igotea, orduan, eta orduan bakarrik, perpausa bere tokian egongo litzateke.

**42.19.6j** *Behintzat*, ordea, ez da euskalki guztietan ezaguna eta diskurtso markatzaile honen lekuan zenbait euskalkitan *segurik* da erabiltzen dena,

horrela bereizten direlarik mendebaldeko (*behintzat*) eta ekialdeko (*segurik*) euskalkiak: Hortaz, goiko adibide horietan berdin-berdin erabil daitezke bi DMak, bata zein bestea, pare-parekoak direlako: *Koldo eta Miren behintzat etorriko dira*; *Koldo eta Miren behintzat ez dira etorriko*; *Koldo eta Miren segurik etorriko dira*; *Koldo eta Miren segurik ez dira etorriko*.

Horien parekoa dugu, geroago ikusiko dugun moduan, *bederen* DMA ere (§ 42.19.7) eta *behintzat* bezalaxe erabil daiteke, nahiz, literaturan ikusten denez, ezezko perpausetan maizago ageri diren beste bi DMak: *Koldo eta Miren bederen etorriko dira*; *Koldo eta Miren bederen ez dira etorriko*.

Zernahi gisaz, honek ez du adierazi nahi *behintzat* eta *bederen* berdin-berdinak direnik. Bi diskurtso markatzaile horiek alor semantiko diferenteak dituzte, eremu handi eta zabal batean (handiengan) bat egiten duten arren: *bederen* DMak badu besteak ez duen baldintzazko kutsua. Beherago itzuliko gara puntu honetara.

**42.19.6k** *Behintzat* diskurtso markatzaileak baditu beste bi erabilera aipagarri: harridurazko zenbait perpausetan ageri zaigunean, eta *lehenik* edo horrelako zerbait adierazi nahi duenean. Jakina, DM hau perpaus arrunt guztietan aurkituko dugu (adierazpen perpausetan, baldintzazkoetan, aginte perpausetan eta abar). Zernahi gisaz, badira literaturan harridurazko perpaus berezi batzuk: *Ja-soko dute deabruak, eta hondatuko dute behingo-behingo baten ifernuko sugarretan. O zori-gogorreko bekatuak behintzat!* (Añibarro); *Zu zara ene odola eta ene gauza guztien gainetiko gauza. O odol estimagarria beintzat!* (Añibarro); *Inaziok, Santa Teresak, San Joan Kolunbanok, beste mila ta mila askorekin batera, egiaztuko dute nik diodan gauza hau. Bai beintzat, liburu santuak dira zeruko su ederra bihotzean pizteko su-harri ta kaltzeru alazokoak* (Uriarte).

Halako kasuetan, ikusten denez, *behintzat* jarri baldin badu ere idazleak, aski argi dago hor ez dela *segurik* edo *bederen* erabiltzen ahal. Egun, hau esango genuke, besteak beste, hor: *bai noski, bai horixe, bai eiki, bai segurki, bai phiirü* (euskalkien arabera, eta ezezka ere gauza bera).

Ohart gaitezen, bide batez, *segurki* diogula hor, eta ez *segurik*. Beraz, *behintzat* eta *segurik* parekoak izanik ere, harridurazko esaldiotan idazle bakan batzuek



*behintzat* erabili arren, ez dugu guk horrelako adibiderik aurkitu *segurik*-ekin. Aldiz, oso arrunta gertatzen da *segurki* halakoetan.

**42.19.6l** Idazleen arabera, *behintzat* leku askotan ageri zaigu perpausean. Perpaus hasieran, esaterako: *Kondairatzaile adituenek, goian jaiio zala diote [...] Behintzat sala-nagusi izandu zen atalburuban kanpoko aldetik eta ondo-ko sala-aurrearen etxe-goian irakurtzen da honela* (J. I. Arana); *Gaixoren bat zeharo gaizkitu zaio-eta. Azpiletako gizona. Beintzat, ez zigula hitz egin nahi bazirudin. Lehenago ez zen honelakoa* (Labaian).

Kontua da, ordea, *behintzat*-ek, perpaus hasieran jartzen dugularik, beste esanahi bat ere izan dezakeela, hiztun askoren ohiturari harrigarri egin baldin badakioke ere: *Jorratzeak bi on dakartzke. Behintzat, hiltzen ditu belar gaixtoak, zeinek irensten baitute lurak ogiari eman behar lukeen gozoa, eta horrengatik premia dira jorrak, bereziki belar tzarrak hazitzen hari direnean edo aintzintxean* (Duvoisin).

Badirudi hitz honen esanahia bestelakoa dela hemen. Aurreko zerbaitekin lotura adierazten du, bai, baina beste era bateko lotura, adibide horietan guztietan ‘hasteko’ edo ‘lehenbizikorik’ edo horrelako zerbaite esan nahi baitu: *Hasteko, hiltzen ditu belar gaixtoak...; Lehenbizikorik, hiltzen ditu belar gaixtoak...*

**42.19.6m** Halako kasuetan, badute lekurik *bederen* eta *behinik behin* diskurtso markatzaileek ere? Antza denez, zenbait hiztunek *behin bederen* erabil dezake (zentzu honekin, hain zuzen): *Behin bederen hiltzen ditu belar gaixtoak...*

Bestetik, *behinik behin* ere erabili izan da adiera honekin: *Hiru gisatara hutsegin daiteke gai honetan. Hutsegin daiteke behinik behin baldin apaintzen bada bat duen adinari ez dagokion eran* (Agirre Asteasukoa).

Testu horretan ikus daitekeenez, ‘hasteko’ edo halako zerbaite esan nahi du. Berriro ere ohartzen gara zein hurbil dauden elkarren artean hiru DM hauek: *behintzat, bederen* eta *behinik behin*.

**42.19.6n** Orain arteko adibide gehienetan diskurtso markatzailea perpausaren hasieran aurkitu baldin badugu ere, arruntean, hasiera-hasieran agertu beharrean, tartean agertzen zaigu, hiztunak formula bat baino gehiago erabili

ohi duelarik, adibideetan ikusi den moduan. Esana dago haxe dela agian maiztasunaren aldetik gehien erabiltzen dena: *Salatu behintzat, salatu zituen*.

Diskurtso markatzailearen ezkerrekoa, aipatu bezala, mintzagai hanpatua da sarritan. Bide batez, esan dezagun mintzagaiaren eta aditzaren arteko erlazioak modu askotara gerta daitezkeela. Goiko adibideak erakusten duen bideaz gain, beste honakook ere ez dira falta: *Salatu behintzat, salatu zituen; Salatu behintzat, egin zituen*.

**42.19.6o** Esan dezagun, azkenik, diskurtso markatzailea perpaus amaieran ere agertzen ahal dela: *Baina... zuk ere egin behar duzu nik agintzen dizudana, nik egin ahal nezakeena bada behintzat* (B. Mokoroa); *Ondo ulertu du eskabidea? Gulangokoekin berorren burua bat egitea, Zeuek gura baduzue behintzat* (Agirre); *Etixerako zerbait inguratu behar. Eta onik al dira gizona ta semea? Oheak hozten ditugu, behintzat* (Etxaniz).

**42.19.6p** *Edo* koordinazio juntagailu hautakariarekin ere agertzen da noizean behin: *Bigarren dohaina: Apaizari dagozkion gauzen jakiundeia, edo behintzat hartarako gogotsua, eta arretaduna izatea* (Agirre Asteasukoa); *Bada sarritan egindako konfesioarekin oso paga zenezake bizitza honetan, edo behintzat atera zenezake zorren zati handi bat* (G. Arrue).

Oharño gisa esan dezagun, azkenekoz, DM hau aurreko sintagmari (edo dagozkion perpaus zatiari) loturik ematen dugula hizkera doinuan, etenik gabe gehienetan. Hori dela-eta arruntean ez darama komarik aurreko aldetik idazteko orduan, baina komadun adibideak ere aski ugari eta arruntak dira literaturan: *Israeldarrei, behintzat* (Lardizabal); *Afaria, behintzat* (A. M. Zabala).

**42.19.6q** Laburtzeko, hortaz, honela geratzen zaigu DM honen distribuzioa:

- a) *behintzat, bederen, behinik behin, gutxienez* (zenbatasuna), *segurik*
- b) *behintzat* (harriduretan): *segurki, jakina, noski*
- c) *behintzat*: *hasteko, lehenbizikorik, behin bederen, behinik behin*
- d) *bederen*: *kontzesio kutsua*

Hitz batean: *behintzat* diskurtso markatzaileak balio du beste lauak ageri diren tokian jartzeko ('bederen', 'behinik behin', 'gutxienez' eta 'segurik'); *behintzat* DMA, harridura berezi hori adierazten duenean, 'segurki', 'noski', 'jakina' eta halakoez ordezkia daiteke, euskalkien arabera; *behintzat* DMak beste esanahi bat ere biltzen du, 'hasteko' edo halako zerbait adierazi nahiko lukeena: literaturan 'behin bederen' eta 'behinik behin' ere ageri dira esanahi berarekin inoiz. Azkenekoz, *bederen* kontzesio kutsuarekin erabiltzen dugu maiz.

#### 42.19.7. *Bederen, bederik, behinik behin*

**42.19.7a** Formaz ez, baina esanahiaz (gehienetan segurik) ikusi dugun *behintzat* diskurtso markatzailearen pareko dituzkegu hiru diskurtso markatzaile hauek. Forma aldetik *bederen* (edo honen aldaera *bedere*) eta *bederik* haurrideak ditugu (bata genitiboaren markarekin eta bestea partitiboaren morfologiaz hornitua). Argi ikusten da, bestalde, *behinik behin* delako hori *behin* adberbioaren gainean eraikia dela.

Denek esanahi bera dute, neurri batean *behintzat*, eta euskalkien arabera dau-de sailkatuak, lehenago ere esan dugun gisan. Hortaz, "bai" / "ez" partikulen inguruan, harridurazko perpausetan, sintagmen artean, perpaus hasieran, perpaus amaieran... ondoko adibide hauek erakusten diguten gisan: *Haserre-go bortitzek, [...], osasunik hazkarrena maiz flakutzen dute, batzuetan laster ere bai, eta beti kasik berantxago bederen bai, sukar langita batek bezala* (Duhalde); *-Berantegi heldu zara; Marianne gaixoa Jainkoa baitan pausatu da! -Alo! Aldi honetan bederen ez dut galdu ene Pauerako bidaia!* (Lafitte); *Neskatxa kanporat orduko, bere hamar sosekoarekin doluz, urrikitzen zaio muthilari, eta bere khexuan, sakreka hasirik, erraiten du: deabruak eraman baleza bederen!* (Barbier); *Denborak denak kontsolatzen ditu! Bederen zurekin Europarat eraman nazazu...* (Larzabal); *Hortik zehar joan eta zer alderdi den itaunduko al dizut? —Bai, enetxo! inor bizi bada bederik* (Zaitegi); *Edo ez zuen uste ihes egin zezakeenik, edo berak utzi zion, erdizka bederik etsita* (Orixe).

**42.19.7b** Diskurtso markatzaile hauek guztiak oso loturik daude elkarren artean eta sarritan oso zaila da benetako bereizketak egitea. Hori dela-eta (alde batera utziko ditugu harridura perpausez eta “hasteko” bezalako itzuliei buruz aipatu ditugun ñabardurak), ez dirudi batere zaila denik DM hauek elkarren artean trukatzeari, erabilera arruntenetan behintzat: *Koldo eta Jone behintzat etorriko dira; Koldo eta Jone bederen etorriko dira; Koldo eta Jone behinik behin etorriko dira.*

Horretaz gain, lehen esan bezala, harridurazko zenbaitetan *behintzat* DMA *segurki*-rekin ordezkatzeko dugu eta beste batzuetan (egia esan, gehienetan) *segurik*-ekin, *bederen*-ekin edo *behinik behin*-ekin. Nolanahi ere, eta hemen legoke *bederen* eta beste DMen arteko desberdintasunik azpimarragarriena, *bederen* diskurtso markatzaileak badu besteek askoz ere nekezago eskuratzen duten (inoiz eskuratzen baldin badute) kontzesio kutsua: *Helduko da, zeharka bederen; Otxoa de Arin, esate baterako, ez da berebizikoa, baina nolabait ere, Bizkai kutsuari eskerrak agian, moldatzen da, trakeski bederen.* Argi dago hor ‘zeharka bada ere’ eta ‘trakeski bada ere’ esan nahi duela. Ezin dugu mul-tzo honetako beste DM batez ordezkatu hor.

### **42.19.8. Badere**

**42.19.8a** Bereiz utzi dugu hitz hau, gure ustez honek aparteko esanahia baitu bere erabilerarik arruntenean. Esan dugun bezala, *bederen* diskurtso markatzaileak badu zenbait kasutan kontzesio kutsua: *Euskaraz ez daki ongi, baina gaztaroan entzunari esker agian, moldatzeko gai da, trakeski bederen.* Hor ezin da *behintzat* esan, adierazi nahi dena ‘bada ere’ edo antzeko zerbait izango bailitzateke. Bada, *badere* diskurtso markatzailea hortik dator, hain zuzen: “bada+-ere” itzulitik.

Beraz, argi dago *bada ere* itzuliak baduela kontzesio kutsua. Gure idazleen artean antzeko kontzesibo moduan erabiltzen dute *bada ere* nahiz *badere* (*badare* bezala ere), mendeko perpaus arruntak sortuz horrela. Hori gertatzen da Leizarraga, Oihenart, Duvoisin, Bordel eta beste batzuekin. Berdin-berdin bertsolari askoren artean ere. Kasu hauetan guztietan, esaterako, ez da ailegatu diskurtso markatzaile-

le beregaina izatera eta mendeko perpausaren aditz arrunta dugu: *Mundu hone-tako bizitzea hainbat miseriatarata sujet badere, fidelarentzat Jainkoaren benedik-zione bat da* (Leizarraga); *Nauka ni, hotz badere, errerik bihotzean* (Oihenart); *Guziok nolerebait, eta nola ez dakizuela badere, Meditazio, Kontsiderazio eta Orazio mentala egin ohi duzue askotan* (Kardaberaz).

**42.19.8b** Askotan ez da, ordea, adizki oso bat, iharturik geratu den zerbait baizik: *Bi-hiru urte da pasatuxea / zintzotu zela gizona, / nekez badere sinetsi zuen / emaztearen esana; / lantoki ona harrapatu du, / entregatzen du kintze-na; / garai batean hori bezela / orain ni nago gizona* (Txirrita).

Hor adizkia balitz, badirudi “bazen ere” edo halakoren bat behar genukeela. Bere adizkitasun osoa galtzen duelarik, ordea, diskurtso markatzaile bihurtzen zaigu beharbada, emendiozko gainerakoen esanahia eskuratuz: *Beragatik asmo onekin egunean orritxo bat badere leitu behar duzu* (Beobide); *Nik este bakar bat dut tripan, eta bera zuzen-zuzena, eta hala, ahotik sartuahala, be-teahala dijoa bere bidez kanpora, eta apurtxo bat badere barruan geldituko bada, egarria hiltzeko, askotxo sartu behar izaten dut* (Urruzuno).

Jakina, hemen formak hain labainkorrak izanik, *bederen* eta *badere* bezala-koekin nahasbideak sor daitezke: *Bigarrena: urtean behin bedere konfesa-tzea, edo lehenago heriotzeko peligroan aurkitzen bada* (Baztango katixima).

Hor, noski, *bederen* da: euskalki batzuetan ongi bereizten dira *bedere* (*bederen* esan nahi duela) eta *badere* (*bada ere* esan nahi duelarik: *Hori badere eginen dugu = Hori baizik ez bada ere eginen dugu*). Kontua da, nolana ere, hitz hau (*badere*) argi eta garbi diskurtso markatzaile ez baldin bada ere, idaz-leek erabiltzen duten neurrian, diskurtso markatzaile izateko bidean den adizkia izan daitekeela.

#### 42.19.9. *Badarik (ere)*

Sail honetan sartu beharko genuke, halaber, *badarik ere* esapidea (eta horren aldaerak): *Eta debozionezko sentimendu haiek guziak merezi ez ditudalarik,*

*badarik ere presentatzen dizkizut ene bihotzeko afekzionaek (Pouvreau); Emazte baten senarra urrutitik heldu bada, emazte hark dakien bezain sarri bihurtu dela, eta haren hitza entzuten duenean, egitekotan amarratua delarik, eta zenbait kontsiderazione bortitzek hura bertzeren artean badauka ere, badarik haren bihotza ez dago loturik, aitzitik bertze gogoeta guziak largatzen ditu, bere baitan solas egiteko senar etorriarekin (Pouvreau).*

Zernahi dela, esapide hau ez da gaur egun ia-ia erabiltzen, orain arte ikusitako diskurtso markatzaileek jan baitiote tokia.

## 42.20. Hautakariak

### 42.20.1. Sarrera

**42.20.1a** Sail honetan biltzen diren diskurtso markatzaileak *hautakariak* deitu ditugu, hiztunak hautaketa bat adierazi nahi duenean erabiltzen baititu. Jakina, hautaketa hori egiteko erabiltzen diren partikularik ezagunenak *edo* eta *ala* dira, baina horiek ez dira diskurtso markatzaileak, juntagailuak baizik, nahiz sarritan, beste juntagailuekin gertatzen den moduan, DM bezala ere ageriko zaizkigun. Baina, dena dela, horien berri juntagailuekin batera emanen da.

Hautakariak agertzen diren perpausetan halako kontraesan bat aurkituko dugu, bi zatien arteko aukera bat egin behar baita eta biak batera ezin baitira bete: *Edan ura edo egarriak geldituko zara; Edan ura, bestela egarriak geldituko zara*. Perpaus horietan badirudi ura edatea eta egarriak gelditzea, biak aldi berean eta batera, ezin gertatukotzat jotzen dituela hiztunak eta, honen bestez, bietako baten aukera egin behar duela. Horra zergatik deitzen ditugun hautakari.

**42.20.1b** Hurren datozen diskurtso markatzaile hauek hautakariak baldin badira ere, sarri askotan mugak ez daude batere garbi eta esanahi bat baino gehiago eskuratzen dute, unean uneko elkarrizketa baldintzak nolakoak diren. Hortaz, ez da harritzekoa izaneren honako DM hau hautakaria dela bai, baina

aldi berean emendiozko kutsua edo aurkaritzako ñabardura duela esaten badugu. Betiere, DMen mundua oso labainkorra eta irristakorra baita. Solasaren barneko lotura segurtatzeko erabiltzen ditugunez, gure hizkera baldintzak aldakorrak dira guztiz, mugagabeak eta hainbat baldintzaren pean geratzen direnak. Ikus ditzagun, zernahi gisaz, zein diren DM hautakariak: *bestela/bertzenaz*, *osterantzean*, *gainerantzean*, *ezpere(n)*, *ezpabere* eta abar.

### 42.20.2. *Bestela, Bertzenaz*

**42.20.2a** Formaz eta sortzez, adberbio ditugu bi DM hauek. Ikusten ahal denez, *beste* eta *-la* modu atzizkiaz osaturikoa da *bestela* (*bestelan*, *bertzela*) eta *bertze*-ren forma gehi *-n* eta kasu instrumentalaren marka, *bertzenaz* (*bestenaz*).

Formaz ez ezik, balioaz ere adberbioa izan daiteke *bestela* eta, horrelakoetan, perpausaren barruan zuzenean aditzari lotua doa. ‘Beste modu batera’ esan nahi du, hain zuzen, ondoko adibide hauetan ikus daitekeenez: *Bestela ezin badut, oinez joango naiz*; *Ariketa hori bestela egin behar duzu*.

**42.20.2b** Beste batzuetan, ordea, esapide-DM bilakatzen zaigu, beste hainbat adberbiorekin gertatzen den gisan. Eta, orduan, inguratzen duten perpau-seko aditz sintagmatik eta gainerako elementuetatik aparte doa, eta normalean horietarik eten batek —idatzia denean, komak— bereizten du.

*Bertzenaz*, berriz, diskurtso markatzaile lexikalizatu bezala bakarrik erabiltzen da lapurteraz, ez da adberbio beregaina, hau da, *bestela* hitzak dituen bi esanahietatik batekin bakarrik (DM gisa) parekatzen da.

**42.20.2c** Diskurtso markatzaile diren aldetik, bi egiteko bete ditzakete hitzok. Gehienetan, aurreko perpausaren aditzari dagokion balizko esanahia dute, betiere halako baldintza bat edo dagoela ezkutuan seinalatuz. Honela: *Eguzkia bada, hondartzara joango gara. Bestela, etxean geldituko gara; Haurrek hamarretako joan behar dute ohera. Bestela, oso nekaturik jaikitzen din biharamunean*.

Adibide horietan ikusten denez, *bestela* DMA perpaus oso baten laburduratzat har genezake: “bestela gertatuko balitz”, “eguzkirik ez bada”, “hamarrak ondoren joaten badira”, etab. Beste modu batera esanda: “aurreko perpausak esaten duena betetzen ez bada” esapidearen laburdura litzateke, alegia. Euskal literaturan oso arrunta da erabilera hau eta idazleen artean behin eta berriz aurkitzen da: *Irten zaitetz bada errota horretatik. Bestela, zagi, eta irin usuraz kargaturik hondatuko zara su eta garren leize izugarrian* (Agirre Asteasu-koa); *Zorionez, ez nauk jaiotzez gorra, bestela mutua izango nindukek gainera!* (Jon Muñoz); *Eskerrak ez naizen horren marmartia, bestela garraztu egingo bainintzateke erabat, sarri-sarri joango nintzaioke bisita egin eta burua lasaitzera* (J. Zabaleta); *Bazter zaitetz, ihes egizu, ilki bekatutik, bertzenaz, Jainko haserreak harrapaturen zaitu* (Duvoisin); *Euskaldun etxeko jaunak, euskaldun lur gizenaren jabeak, ohart zaizkiote sator-lan izugarriari! -Edo, bertzenaz, betitik euskaldunik baizen ikusi ez den tokietan* (Barbier); *-Hik ba, hik eginen duk bide, osagarriak laguntzen bahu segurik... -Hemen bi... -Agian ba... -Ez luke balio, bertzenaz, hola urruntzea!* (Larzabal); *Etsaiak dituzue oro hemen. Gauden mantso, xahu gara, bertzenaz!* (Zerbitzari); *Edozein idazlani amaiera emateko orduan, hauxe esaten dut, bestela ez nuke sekula amaituko* (Urkiza).

**42.20.2d** Badu, dena den, *bestela* markatzaile honek beste esanahi bat ere, baldintzazko perpausaren kutsua guztiz galtzen ez duen arren: “gainerakoan”, “delakoa alde batera utzita”, “hori bazter utziz” eta antzeko esapideen baliokide izango litzateke bigarren esanahi honekin. Beraz, murriztea izango litzateke diskurtso markatzaile honen zeregitea, hurrengo adibideetan ikusten baita: *Los Angeles hiri zabala eta hedatua da. Gainera errepideek gain behera gurtzatzen dute. Bestela, ez dago gaizki.* (Hor esan nahi da Los Angeles hiriarren zabaltasuna eta bestelako eragozpenak alde batera utzirik, hori guztiori ahazten badugu, ez dagoela batere gaizki gure hiria). *Noiznahi hamabost bat egun edo hilabete egingo ditu han elurrak, eta kezka emateko da. Baina, bestela, nik uste baino herri politagoa* (Uztapide); *Hura ere bat, bere erratekoekin, hau bezala; egungo egunean nehor guti baita haren eta hunen kaskoko gizonik; batek ala bertzeak, ziren tokian, zilo bat ederra utzi baitute, nekez-nekez betetzekoa. Ez ziren, bertzenaz, batere elgar iduriak...* (Hiriart-Urruti);



*Franco hil zelako eta, askatasunaren izenean, dena bihurtu zelako lotsagabe, erasokor eta bortitz. Bestela ez zegoen moderno izaterik (Oñederra).*

**42.20.2e** Diskurtso markatzaile honen kokaguneari dagokionez, adibideetan hala ikusten da, batzuetan hasieran jartzen dugu: *Utzi nazan utzi, Madalen. Bestela, bihar goizean ugelduz josia jaikiko naun horrelako igortzearekin (Barrenso); Isiltzen naiz; bertzenaz nire lagunak samurtuko zaizkit, toki guziaz ebasten diedala (Hiriart-Urruti).*

**42.20.2f** Perpausaren barruan ere koka daiteke, bai aditzaren eta bai galdegai ez den beste osagaien baten ondoan: *Hobeto esan, aspaldi genbiltzan Nafarroan barrena, mugaz beste alderditik ere Nafarroa baita. Ikus, bestela, nonahi, etxe-aitzinetan nahiz pilota-tokietan (Lizardi); Baliatu zait; barnexko baitziren; Orain, bertzenaz, bizi ez nintzen izanen (J. B. Elizanburu).*

**42.20.2g** Eta, orobat, perpausaren azkenean: *-Baina uste al duk, nirekin etorri nahiko duela? -Usteko ez diat ba? -Asko aldatu beharko zian, bestela (Altzaga); Zer egingo nuke nik bestela! (Montoia).*

**42.20.2h** Diskurtso markatzaile gehienak bezala, hauek ere juntagailuen ondoan joan daitezke, haiek gauzatzen duten juntadurari bere balizko esanahia edo indar murriztailea erantsiz. *Eta*-rekin erabil daiteke, jakina, bai adiera batean, bai bestean: *Eta bestela dijoala zakurraren salara (Urruzuno); Ona delako gomendaturikoa bada, kontzientzia txarrarekin uzten dut; eta bestela, denbora galdu izanaren zapore txarrarekin (Urkiza); Baina egiak ez du bide bat baizik; eta, bertzenaz ere, izenak ez baitu usainik, salbu-eta zuen errespetua, xantre horrek, hor, ikusi zuen, keino bat zeriola, eta urrin bat gaitza (Lafitte); Arras zeure gogara mintzo zara; eta bertzenaz, ez dakizu zehatz-mehatz auzia zertan den (Jon Muñoz).*

*Baina* juntagailuarekin, berriz, bigarren adierarekin ageri da gehienetan: *Erderatik San Juan de la Cruz, edo holako zerbait itzul nezake, bai, baina, bestenaz, ez daukat idazteko lehengo eznahirik (Orixe); Los Angelesen bizi izan nintzenean nahiko gaizki, baina bestela arazorik gabe moldatu naiz (X. Mendiguren Elizegi); Gertatzen da: kanpoko umelak agertzen dira barruan lan-*

*tzean behin, hornei hezetasun orbanen lotsak ateraraziz. Itoginen bat, baina bestela ez dago hain gaizki (Cano).*

Nahiz ez beti eta ezinbestean: *Kostaldeko biztanleek itsasoz bidaiatu zezaketen, baina bestela behartuta zeuden beren bitartekoez lortu zitzaizketen baliabideetatik bizitzera (J. M. Mendizabal).*

**42.20.2i** *Aski maiz, azkenik, edo nahiz edota hautakariekin ikusiko dugu: Bere flakia aitortu behar. Bere plaua mugatu behar. Edo, bestela, irentsi nazala bere harrokeriak (Txillardegia); Aska nazazue, edota, bestela, egingo diat nik ezegitekoren bat gaur hemen (M. Lekuona); Frantzia beherean, herrausturik ematen da landetan. Hemen ere hala egin daiteke, edo bertzenaz gainerako ongarriekin nahasteka (Duvoisin); Sarrerako ateondoan jartzan dira, meza bitartean, gizonezkoak zutik, Edota, bestela, goiko korura igo (Barrenso).*

**42.20.2j** *Bada diskurtso markatzailearekin ere erabiltzen da inoiz bestela: Esplika beza argiro eta etsenpluekin, bada bestela ezin ondo adi nezake (Mogel); Geure barruko deseoa, eta antsiak, eta geure borondatea Jaungoikoari osoro ematea; bada, bestela, non dagoan gure deseoa eta amorioa, han dago gure bihotza (Gerriko); Nork bada bestela? Izan al zezakeen interesik beste inork? (Irizar); Nondik bada, bestela, holako faboreak (Perurena).*

**42.20.2k** *Ezi diskurtso markatzailearekin (= ezen) ere ez dugu adibiderik falta: Ez duzu ororen ehiztega lege zeren naturak behar baitu sostengatu izan; baina zure lege sainduak ez dizu onesten behar baino haboro, eta haboroenik plazer egiten dienen txerkatzea; ezi bestela haragia ezpirituairen kontra altxa litekezu (Maister).*

**42.20.2l** *Esan dezagun azkenik, bertzenaz DMak, balio murriztailea duenean, ere DMaren laguntza ere har dezakeela: Ezpeletar batek salatu dit hori belarri xulorat, eta orok badakigu auzoek ontsa badakitela elkarren berri, [...] Bertzenaz ere herriak, jendeak bezala dira (Lafitte); Ez dela beti goxo gau eskolako irakasle lan astelehenetan, bertzenaz ere (Bidegain); Aterabidea xinplea da, bertzenaz ere, alemaner errexki gogorat jiten zaiizkie deserrituen hilarazteko moldeak (Oronoz).*

### 42.20.3. *Osterantzean*

**42.20.3a** Diskurtso markatzaile honen formak ez du, bistan da, inolako zalantzarik eskaintzen: *oste* izena dago oinarrian, *-rantz* eta *-(e)an* kasu marken bidez osatua (ber gauza ‘osterontzean’ formarekin ere). Diskurtso markatzaile bilakaturik, *bestela*-ren kidekoa dugu, bizkaieraz maizago erabilia: *Eskerrak oiloak ematen zion arrautza hari! Osterantzean ez dakit nik bere ortuko porru-berakatzekin bizirik urteterik ote zuenik* (F. Bilbao); *Agudo ibili behar dugu, osterantzean, haurra ere galdu eginen da* (Aresti); *Borrokan egiteko, osterantzean, ondorio latzak etorriko zitzaizkidala* (P. Rekalde).

Kokalekuari dagokionez, hasieran joateko joera erakusten dute normalean adibideek.

**42.20.3b** Ondoko adibideetan ikusten den bezala, baina juntagailuaren ondoan ageri da batzuetan eta berriz diskurtso markatzailearen laguntasuna duela ere bai besteetan: [...] *eskolarako baino gogo handiago izango zuela Nika-norrek nahiz edonork, hantxe mendi bazterrean ibiltzeko eta egoteko. Etxera... bai, jaten eta lo-egiten. Baina osterantzean, hantxe ederto: gauzak hartu, gauzak utzi; eskuetan erabili, sakelan sartu; gero, atera* (Erkiaga); *Itsasaldean, bada portu-izkinetan, osterantzean berriz, estazioetan; pixka bat geldi badaude, laster pasaietan; horrela bizi dira egun guztietan* (K. Enbeita).

### 42.20.4. *Gainerantzean*

**42.20.4a** Aditzondoa da hau ere, formari dagokionez —*gain* izenak kasu marka bat baino gehiago hartuz sortua, hain zuzen ere—, baina diskurtso markatzaile gisa erabiltzen dena, *osterantzean*-en pare-pareko. *Gainerontzean* aldaera ere badu, gutxiago erabilia egun. Honen, eta orobat *bestela* diskurtso markatzailearen bi balioak bere ditu DM honek ere: baldintzari dagokiona eta murriztailea. Ondoko adibideetan ikus daiteke hori: *Obligazio askoren mende / bizi gara gurasoak, / prezisamente guk hazi behar / haur inozente gairxoak, / erakutsiaz nola diren / Jesukristoren pausoak, / gainerontzean gure-*

*tzat datoz / kastigu izugarrizkoak (P. Errota); Lagun bezala ona bazen, etsai bezela beldur izatekoa zenuten; gainerontzean, mesede egiteko eta laguntzeko beti prest zegoen (Etxaniz); Ez, ez daukat kexatzerik, gainerantzean aski ona atera zait orain arte (P. Lizarralde); Gainerantzean, egunak ez zuen deus interesgarririk ekarri (Jon Muñoz).*

**42.20.4b** Itxura bertsoak diren gainerakoan, gaineratikoan eta gainera kotz diskurtso markatzaileek, berriz, balio murriztailea baizik ez dute erakusten: *Zeren premiazko atseginak, erran nahi da, ezkontza sainduaren xedera eta intentzionera behatzen dutenak segitu behar direlarik, badarik bihotza eta gogoa ez dira inoiz ere haietan amarratu behar. Gainerakoan, nornahik bertute onen behar handia du (Pouvreau); *On da aitari dagokion bihotz baten egitekoa, [...] Gainerakoan, ene irakurle maitea, egia da eskiribatzen dudala bizitze debotaz, debot ez naizelarik (Pouvreau); Orduan denok pentsatu genuen lapurrek, gainerakoan hain isilik zegoen etxe hartan pauso hotsak entzutean, alde egingo zutela (J. Zabaleta); Gainerakoan, esan bezala, jatorra zen (J. A. Arrieta); Gaineratikoan, nahasixea izanagatik ere jabalduran naiz, ez dut sofrikariorik batere pairatzen, ez baita guti (J. A. Irigarai).**

**42.20.4c** Kokalekuari dagokionez, hasieran kokatzeko joera nabarmentzen da garbi, noraezekoa ez bada ere. Ikus, esaterako, honako hau: *Ez zait hau, gainerantzean, lehenengo aldiz gertatu (Txillardegi); Zalantzarik gabe, Biblia herri-hizkuntzetara itzultzeak eta jende xeheko belaunaldiek, gainerantzean ezer gutxi irakurtzen zutenek, etengabe irakurtzeak kultur onura handia ekarri zuen (I. Mendiguren).*

**42.20.4d** Juntagailuekin ere erabiltzen da, kideko markatzaileak balira bezala edo: *Aurreneko uneetako ikas-lanetan Elduaingo parrokiak zerbait lagundu izan behar zion; baina, gainerontzean, berak bazuen zerekin zuritu Seminarioko paga-beharra (Orixe); Haurrak elkarrekin euskaraz mintzo hauteman orduko, gaztigatzen gintuen; baina gainerakoan ez zen batere jaun erretorea baino garratzagoa (Xalbador); Infernuan daudenek ere minagatik, iragaiten dituzten presagatik, dute sentimentu, damu eta urriki. Baina bertze gainerakoan, itsutuak, ostinatuak, eta bere faltarik behar bezala ezagutzen ez dutela, [...] daude (Axular).*

**42.20.4e** Ere diskurtso markatzailearen arrimuan ere ez da falta: *Baina bertiere aldi bakoitzean azken aldikotzat errezibitzen banitu bezala, gainerakoan ere ahal dagidan ongi guzia eginez, [...] heriotze on baten egiteko grazia Jainkoari eskatzea* (Duhalde).

**42.20.4f** Kontura gaitzen hemen ezin ditugula nahasi *gainera* eta orain ikusten ari garen *gainerantzean* diskurtso markatzaileak, lehenbizikoa emendiozkoa baita (beraz, zerbait gaineratzen duena) eta bigarrena hautakaria. Adibide hauetan ikus daiteke ongi aski hau: *Los Angeles hiri zaratatsua da. Gainera, lurrikarak izaten dira*. Hor Los Angeles hiriari buruzko kalitate bat aipatu dugu lehenik (zaratatsua izatea) eta beste bat gaineratu diogu gero (lurrikara tokia izatea). Kalitate horiek bata bestearen kontra jartzen ez ditugun neurrian, beti erabil dezakegu *gainera*: *Los Angeles hiri zaratatsua da. Gainera, txikia; Los Angeles hiri zaratatsua da. Gainera, zikina; Los Angeles hiri zaratatsua da. Gainera, garbia*.

Zeini zer kalitate erants dakioken, perpausean adierazten dugunaren inguruko presuposizioek esanen digute: jo dezagun, esate baterako, pelikula bat egin behar dela eta hiri baten bila gabiltzala horretako. Hiri hori nolakoa nahi dugun, zaratatsua eta txikia, zaratatsua eta zikina, zaratatsua eta garbia, denak zuzen leudeke goiko esaldi bakoitzean. Hala ere, nekez aurkituko dugu inor leku zaratatsuak maite dituen. Hortaz, ondoko perpausa ez litzateke zuzena izanen, hor aipatzen diren bi kalitateak, hain zuzen, elkarren kontrakoak baititugu: *?\*Los Angeles hiri zaratatsua da. Gainera, oso atsegina*.

**42.20.4g** Balio murriztailea duen *gainerantzean* diskurtso markatzaile hautakariarekin, ordea, ez da halakorik gertatzen: *Los Angeles hiri zaratatsua da. Gainerantzean, oso atsegina*. Hor ez dago inolako arazorik: lehenik kalitatea aipatzen dugu eta gero markatzaile batez baliatzen gara ‘kontu hori alde batera utzita’ edo halako zerbait adierazteko. Beraz, ez ditugu bi baieztapen horiek bata bestearen gainean jartzen hor: lehena ahazten baldin badugu bakarrik eta ahazten dugun neurrian bakarrik, hau da, haren kontra jartzen garen neurrian, da egia bigarrena. Hori dela-eta bietako bat aukeratu behar dugu nahitaez.

Ikus dezagun, azkenik, nola hurrengo adibideak ez duen inolako zentzurik: ?\**Los Angeles hiri zaratatsua da. Gainerantzean, lurrikarak izaten dira*. Hiri bat “zaratatsua” izatea ala ez “atsegintasunarekin” erlazionaturik egon liteke, eta horrexegatik diogu gure gustukoa izan daitekeela nahiz zaratatsua den. Aldiz, zaratatsua izatea, eta, gainera, lurrikarak aurkitzea ez dago, gure munduan, bata bestearen kontra jartzerik. Horra hor zergatik ezin den *gainerantzean* jarri: diskurtso markatzaile honek halako aukera zerbait eskatzen du, hautaketa baten egin beharra alegia.

Laburtuz, hortaz, hona hemen paradigma osoa: *Los Angeles hiri zaratatsua da. Gainera, lurrikarak izaten dira*; ?\**Los Angeles hiri zaratatsua da. Gainerantzean, lurrikarak izaten dira*; ?\**Los Angeles hiri zaratatsua da. Gainera, oso atsegina*; *Los Angeles hiri zaratatsua da. Gainerantzean, oso atsegina*.

#### 42.20.5. *Ezpere(n) eta ezpabere*

**42.20.5a** *Ezpere(n)* diskurtso markatzaile zaharkitu hau ere (egun ez da ia ageri testuetan) *bestela*-ren parekoa dugu, neurri batean bederen. Izan ere, besteak beste, baldintza moduko hautaketa adierazteko ere balio baitu: ‘horrela ez bada, aurreko perpausak esaten duena betetzen ez bada’ edo adierazten du *ezperen*-ek adiera horretan. Eskema baten bidez, honela irudikatuko genuke *ezperen*-ez osatzen diren perpausen esanahia: A, ezperen B = A, eta A ez bada, B.

Hori ikusten da adibideetan: *Genobebak samurtasunik handienaz eskutik heldu zion, baina berak eskua atzeratu, eta izaturik esan zion: ai!, utzidazu; zure eskua hotza dago gela bezala. Eraman nazazu ezperen hilaren esku horrekin zere zulora; bada bizi hau niretzat astuna da eta ezin jaso dudana* (G. Arrue); *Juje hori zegoela ez jakinez zer egin, mehatxatu handiarekin hitza zioten egin: Pilatus, etsi ezazu Jesusen kondenatzera, edo ezperen zaudezen kargutik ilkitzera* (Etxeberri Ziburukoa); *Horien aurkez aurke entzun nahi baduzu, esateko gerturik nauzu. Ezperen, yauregi barnera goazen* (Zaitegi).

**42.20.5b** Balio murriztailea ere izan dezake, *bederen* eta *behintzat* diskurtso markatzaileen antzekoa, hain zuzen: *Eta baldin zure borondatea ezpada, Jau-*

na, hanbat grazia egin dakigun, non leku asignaturik dugun, ezpere permeti bekigu, otoi, ia gure artean jarria den ordenantza, empatxurik gabe kontinua ahal dezagun (Leizarraga); Josef hire semearen / urrikal bekik pena / edo ezperen Birjina / erdi beharrarena (Etxeberri Ziburukoa).

**42.20.5c** Hirugarren adiera ere badu, ordea, edo juntagailuaren baliokidetzat har daitekeena (juntagailu hautakaria litzateke hemen), edo baita diskurtso markatzaile horren oinarrian dagoen *ezpa* juntagailuarena ere: *Manual debozionala*, edo ezperen, oren oro eskuetan erabiltzeko liburutxo (Etxeberri Ziburukoa); *Raquel*, ezperen Jetro zeritzon apezaren zazpi alabek jo zuten leku bererat (Larregi).

Adibideetan ikusten denez, perpaus hasieran edo aditzaren ondoren ageri da gehienetan. Juntagailuaren segidan ere.

**42.20.5d** Ezpabere gaur egun batez ere hizketan bizirik dirauen bizkaierazko diskurtso markatzailea da. Testuetan oso gutxi ageri da. DM hau *ezperen*-en antzekoa da, lehenbiziko adierari dagokionez batez ere eta baldintza kutsuko hautaketa adierazten du ('hori betetzen edo gertatzen ez bada', eta 'bestela' edo halako zerbaiten esangura du): *Honek berbok emon behar dira oso-osoan? Bai, jauna, guztiak bat utzi baga; ezpabere, ez dago bautismorik* (De la Quadra); *Zer egin behar du deungaro ezkondata dagoanak? Bilatu defentsore jakituria handiko bat, eta egin honek esango diona. Ezpabere beti biziko da bekatuan* (Mogel); *Alemanek ez zuten Gernika txikitu, ezpabere ingelesek eta frantsesek* (Egia); *Senide eta osagileek esaten zidaten kontuz alkohola, sexu eta telebistarekin, ezpabere txarto ibiliko zara* (J. A. Irigarai).

**42.20.5e** *Baizik*-en pareko adieran ageri da hurrengo adibidean. Erabilera hori ez da, beharbada, zuzenegia, *ezpa* hitzak betetzen baitu normalean zeregin hori, eta ez *ezpabere* DMak. Eta, hain zuzen ere, liburu horren ondoko edizio batzuetan *ezpada* hitza ageri da, *ezpabere*-ren ordez (aurkaritza balioarekin, juntagailua litzateke hemen): *Bekatu mortalean komulgetan denak hartzen du Jesu Kristo? Bai, Jauna, baina ez bere onerako, ezpabere bere kaltean* (Laudioko katixima. Geroagoko edizio batzuetan: *ezpada bere kaltean*);

-*Josetxo, ez duzu zertan hartu nahibagerik, Maxima ta Ermokenen berbagatik.*  
-*Ez ama euragatik, ezpabere, Eladitori diodan errukiagatik baino* (Etxeita).

**42.20.5f** Esan daiteke, beraz, *bestela* diskurtso markatzaileak duen lehen adieran erabiltzen dela, batez ere, DM hau: A, *ezpabere* B = A, eta A ez bada, B.

DM honek ere perpausaren hasieran kokatzeko joera nabarmena erakusten du, noraezekoa ez izanik ere: *Zenbat sentituko zuen Jesukristok Judasen doilorkeria hau? Esan begie ezpabere bere berba bigunak: Judas neure adiskidea, esan zion...* (*Durangoko euskaraz lau sermoi*).

Goiko adibideak kontuan harturik, oso arrunta da *eta eta edo* juntagailuekin batera agertzea, ikusten denez.

## 42.21. Aurkaritzakoak

### 42.21.1. Zer diren aurkaritzako diskurtso markatzaileak

**42.21.1a** Izenak berak argiro erakusten duen bezala, bi perpausen artean gerta daitekeen kontraktotasuna edo aurkaritza aditzera emateko erabiltzen dira sail honetako DMak. Beraz, alde horretatik *baina*-ren pareko dira nolabait. Azken hau, jakina, juntagailua da berez eta perpaus elkartuak bideratzeko erabiltzen dugu gehienetan: *Nirea da liburua baina utziko dizut*. Eta horixe da, seguruenik, aurkaritza adierazteko euskarak duen biderik eman korrena. Beste batzuetan, ordea, diskurtso markatzaile gisa ere erabiltzen dugu *baina*, hau da, testuari berari (eta ez perpaus elkartuari) lotura ezarriz: *Zera esan nahiko zuen noski: banatan lo egiteko erabaki horrekin, betirako ari zirela atzera batzeko aukerari atea ixten: izan ere elkarganatze gehienak ohea konpartitzeak errazten zuen gorputzen adierazpenetatik etorri ohi zirenez hitzaren medioz baino sarriago. Baina berdin izan zitzaion orduan* (Saizarbitoria).

Horrelakoetan, bistan da, *baina*-k ez ditu perpausak elkartzen. Testu mailako lotura bideratzen du, hau da, ondoan duen perpausak aurrekoekin nolako erla-



zio semantikoa duen adierazi baizik ez du egiten, gramatika juntadurarik gauzatu gabe.

**42.21.1b** Aurkaritzako diskurtso markatzaileek ere horixe bera egiten dute, hots, perpausen arteko kontrastea aditzera eman. Aski luzea da DM hauen zerrenda: *ordea; berriz; ostera, aldiz; aitzitik; bizkitartean, bitartean, bien bitartean...* ditugu batetik; *alta, alabaina, alabadere; dena dela eta dena den; hala ere, haatik, horratik* eta hauen kideak bestetik; *barren...* ere aurkaritzako markatzailea izan daiteke. Azkenik, kontuan hartzekoak dira, orobat, kontraktotasuna adierazten duten esapideak ere: *guztiarekin ere, edozein modutan, zernahi gisa, nolnahi den, edozelan ere...*

Aurkaritza adierazten duten diskurtso markatzaileak dira denak, baina badi-tuzte, hala ere, diferentziak elkarren artean, bai esanahiaren aldetik, bai maiztasunaren aldetik eta bai euskalkiei dagokienez ere.

Perpauetan hartzen duten tokiari dagokionez ere bada alderik. Batzuek, inoiz perpausaren hasieran kokatzen badira ere, honen barnean joateko joera dutela dirudi, osagai baten edo zati luzeago baten ondoan (horrelakoak dira, esate baterako, *ordea, berriz, ostera eta aldiz*); beste batzuek, berriz, perpausaren hasieran joateko joera erakusten dute, nahiz eta perpaus barnean joateko debekurik ez duten (horrelakoak dira, adibidez, *aitzitik, bizkitartean, alta, dena dela eta hala ere*).

Inoiz, harridurazko perpausetan eta, perpausaren azken tokia hartzen dute berriaz markatzaile hauetako batzuek, hari enfasi berezia emanaz: *Munduko pastel guztiak gura nintuzke, ordea!* (Irigoien); *Beldur naitz dena koxka ez ote den, ordea!* (Goenkale); *Hara bestea, berriz!*

**42.21.1c** Ondoko ataletan saiatuko gara hori guztia zehatzago azaltzen. Aurrera baino lehen, *ordea*, beste puntu bat aipatu behar dugu. Aurkaritza diskurtso markatzaile hauetako asko adberbioak dira jatorriz, beste DM anitzekin gertatzen den gisan. Eta gainera, jatorria gorabehera, adberbio garbi bezala jokutzen dute sarri askotan: *Bihurtu nahi dut berriz, nire bekatuarekin irabazi nuen estadura* (Kardaberaz); *Zure iraupenak bigunduko du zerua; Jo atea, egin oles ostera ta ostera, ta irekiko zaizu* (Mogel); *Dena gutxi izango*

*da, bai, kakañera honekin (berriz ere usain, berriz ere nazka aurpegia), “dotis”ak ordaintzeko ere ez dugu irabazten eta (Goenkale).*

Zenbaitetan, egia da, ez dago argi non ezarri behar den muga, hauxe bera gertatzen baita beste markatzaileekin ere. Dena den, perpausen arteko benetako diskurtso markatzaile gisa agertzen diren kasuak interesatzen zaizkigu hemen eta horiek aztertzen saiatuko gara.

**42.21.1d** Berez, diskurtso markatzaile deitzen ditugun elementu hauen zerrenda biziki luzea da, eta amaigabea. Antzeko zerbait gertatzen da aurkaritzako hauekin ere. Baina bestetik, eta horretara dator ohar hau, aurkaritzako hauetako batzuk birformulatzailen sailekoak dira: hemen aipatuko ditugun *dena dela, dena den, hala ere...* eta gisakoak birformulatzaille urruntzailak dira eta, hortaz, hemen aipatu bai, baina azertu birformulatzailen atalean (43. kapituluaren) aztertuko dira.

### 42.21.2. Ordea

**42.21.2a** Forma aldetik *ordea* eta *ordean*, biak erabiltzen dira. Hedatuena, hala ere, lehenbizikoa dugu; *ordean* lapurteraz erabiltzen da. *Orde*-k, hain zuzen, beste zerbaiten edo norbaiten ordain esan nahi du; beraz, perpausen arteko nahiz perpausen osagaien arteko nola-halako aurkaritza edo kontrastea aditzera eman nahi denean guztiz aproposa gertatzen da diskurtso markatzaile hau: *Ni zurekin joango naiz, aita ordea etxean geldituko da.*

Perpau bi ditugu hor elkarren ondoan jarriak. *Ordea* diskurtso markatzaileak bi perpau horien arteko aurkaritza aditzera ematen du, horretarako bi perpau-sotako osagai bana hartuta eta biak elkarren kontraktzat aurkeztuz: ‘*nik zerbait egingo dut*’ eta ‘*aitak beste zerbait egingo du*’. Eta horixe da, funtsean, beti aurkituko duguna kutsu adbertsatiboa duten diskurtso markatzaile eta juntagailuetan. Alde horretatik, *baina* juntagailuaren baliokide hurbila da *ordea*: *Ni zurekin joango naiz, baina aita etxean geldituko da.*

**42.21.2b** *Baina* juntagailua arruntean bigarren perpausaren hasieran kokatzen bada ere, *ordea*-k normalean bigarren perpausaren barnean hartzen du

toki, perpaus horren osagairen baten ondoren. Horrela, bigarren perpauseko osagai hori hanpatua edo gelditzen dela esango genuke, aurreko beste osagai baten kontra jarriz, bien arteko oposizioa markatuz (*ni... aita, ordea...*). Ezkerrean duen osagai horrekin bereziki lotua joan ohi dela dirudi gainera, komak gorabehera, eta ez ondoren datorrenarekin: *Atzenekoak lehenengo, eta lehenengoak atzeneko izango dira: deituak asko dira, esleituak, ordea, gutxi* (Lardizabal); *Itsasaldera zuzentzen ditu begiak. Ez dakuse begiok, ordea, ezer* (Barrensorro); *Zer eginik banuen, ordea, eta logelako bidea hartu nuen* (Lertxundi).

**42.21.2c** Gogoan hartu behar da, hori bai, askatasun handia izaten dutela diskurtso markatzaile hauek perpausaren barnean kokatzeko: *Josebak emazteari txokolatinak ekarri dizkio, hark ordea nahiago zuen perfume on bat; Josebak emazteari txokolatinak ekarri dizkio, hark nahiago zuen, ordea, perfume on bat; Josebak emazteari txokolatinak ekarri dizkio, hark nahiago zuen perfume on bat, ordea.*

Bistan da, hala ere, ez dela nonahi eta nolana kokatzen ahal. Mintzagai-galdegai egituraren arabera kokatzeko joera duela dirudi, lege finkorik ezartzen erraza ez bada ere.

Hasteko esan behar da *ordea*-k ez duela nahitaez mintzagaia markatzen. Goino perpausaren bigarren atala hartzen badugu (§ 42.21.2b, Lardizabal), adibidez, *esleituak, ordea, gutxi* esan beharrean, berdin-berdin esan liteke *gutxi, ordea, esleituak*. Ondoko adibidean ere argi ikusten da hori: *Haiek ez zuten; guk, bai, ordea, bi mutilen ezagutza* (Orixe).

Bestalde, galdegaiaren eta aditzaren artean normalean kokatzen ez bada ere, ez du debeku handirik galde hitzen ondoren kokatzeko: *[...] ikusten zuen han egoterik ez zeukala. Nola, ordea, irten?* (Lardizabal).

Dena den, euskalkien arteko diferentziaren bat ere egon daiteke *ordea*-k perpaus barruan hartzen duen kokaguneari dagokionez.

**42.21.2d** Perpausaren azken muturrean ere joan ohi da inoiz: *Hiru bider jo nuen txirrina. Ez zidan inortxok ere erantzun ordea*. Kasu horietan badirudi

perpauz bien artean gertatzen dela aurkakotasuna, kontrastea zein osagaien artean dagoen bereziki markatu gabe.

Harridurazko perpauzen azken muturrean ere sarritan joan ohi da: *Zer oinaze ordea!* (Orixe). Aditzik gabeko esaldiak dira horiek. Ondorengoa, berriz, aditz eta guztiko esaldia dugu eta *ordea* azken muturrean doala kontsidera dezakegu, *seme* hori bokatibo edo baita; beraz, perpauzetik kanpo gelditzen den zerbait: *Zer duzu, ordea, seme?* (B. Mokoroa).

Perpauzaren hasiera-hasieran ere ageri da inoiz, hori maiztasunik handieneko kokalekua ez badu ere: *Ken ditzadala zугandik nire begiak? Ordea, noratuko ditut? Irauli ditzadala beste aldera? Ordea, zu izan nire alde guzi, zu nire aurre ta atze* (Larramendi).

Axularrek erruz darabil horrela, gaurko zenbait idazlek bezala: *Bat-batean etxe guztia isilik gelditu zen, eta gizona zerraldo erortzera zihoala ikusi nuen, belau-nak huts egiten ziotela. Ordea medikuak eta osabak eutsi egin zioten [...]* (Atxaga).

Nolanahi ere, bi kasu hauetan badirudi diskurtso markatzaileak berekin duen kontrakotasun balio hori nolabait gesaldua gelditzen dela.

**42.21.2e** Gehienetan inolako lagunik gabe agertzen da *ordea*. Ez da harritzekoa, halere, *baina* juntagailuari lagun egiten diola erabiltzea, *baina ordea* bikotea osatuz: *Aitzbitarte ospetsu hura [...] dihoakion santutegi eder jaierezko batean bihurtua aurkitzen da, kapilla eta jarduntza santuetarako etxea ere Jesusen Konpainiak han dituela. Baina ordea, hainbaterainoko damukizuna edo penitentzia neurrigabeak, bada hainlakotzat gero santu berak eduki zituen, aurki oso ahuldu zuten* (J. I. Arana).

Eta bai, are maiztasun handiagoz, perpauzaren osagai baten ondoren kokatua delarik ere: [...] *eta esan nuen nire kolkorako: Baina nola ordea, horrenbeste bertsolari aieratzen den herrian, olerkari horren gutxi?* (Jautarkol); *Gauzaren bat egin nuen... baina, zer ordea?* (Navarro); *Baina nondik atera dituzute, ordea, berri hauek?* (Azkue).

Hauetan *baina*-ri berez zor zaion aurkaritza indartzera bezala dator *ordea*. *Hala ere* diskurtso markatzailearekin batera ere erabil daiteke, aurkaritzaren

indargarri hemen ere: *Nahi izanez gero, erraz hautsiko zituzen hark danak edozertan. Hala ere, ordea, ez zuen egundo indarririk burugabe erabiliko* (Barrenso).

### 42.21.3. Berriz

**42.21.3a** Beste hainbat diskurtso markatzaile bezala, jatorriz adberbio da *berriz*, formak berak argiro erakusten duen bezala: *berri* + *z*. Eta erabili ere maiz erabiltzen dugu adberbio bezala, denbora adberbio bezala, hain zuzen. Bertso honetan ikusten da garbi hori: *Leitzan jaio ta Orion / bizi dana herriz / hoberentzat jotzen det / rimaz eta neurriz. / Kantatzeko ahosapai / eztizkoa, berriz, / zein eztu hark txoratzen / bere bertso berriz? / Holakorik eztakit / sortuko dan berriz* (Goiburu).

Hor ikusten denez, diskurtso markatzaile ez ezik adberbio eta adjektibo ere (bertso *berriz*) izan daiteke, besteak beste, *berriz*. Hemen, hala ere, DM gisa duen erabilera interesatzen zaigu eta hori aztertzen saiatuko gara.

**42.21.3b** Aurkaritza adierazten duen diskurtso markatzailea dugu hau ere eta oso erabilia, gainera. *Ordea, ostera, aldiz* eta *aitzitik*-en pareko da alde horretatik, nahiz eta esanahiari dagokionez erabat baliokide izan ez. Ez da erraz, dena den, elkarren arteko esanahi ñabarduraren berri ematea.

Badirudi, esate baterako, *berriz* eta *ordea* diskurtso markatzaileen artean erabateko kidesunak ez dagoela. Badirudi *ordea*-k nolabait aurreko perpausak baieztatua ezabatu edo ukatu egiten duela; lehenago esan edo presuposatu dena zuzendu egiten duela, alegia, haren kontrakoa baieztatuz. *Berriz*, aldiz, aurretik esandakoari zerbait berri eta diferente eransteko erabiltzen dela dirudi. Alde honetatik, ondoko bi perpaus hauek pittin bat desberdinak izango lirake: *Goizean paseatzera irten naiz. Arratsaldean, berriz, lanean geratu naiz; Goizean paseatzera irten naiz. Arratsaldean, ordea, lanean geratu naiz.*

Lehenbizikoan, goizekoaren eta arratsaldekoaren arteko aldea edo kontrastea ematen da aditzera; goizean gauza bat egin dudala, alegia, eta arratsaldean

beste bat. Bigarren perpauseko aurkaritza, berriz, beste nonbait dago: hor, izan ere, solaskideak uste izan dezakeen zerbait ukatu egiten dela dirudi. Goiz eta arratsalde kalean ibili naizela uste izan dezake hark beharbada, baina ez da horrela, arratsaldean lanean geratu naiz. Ikus dezagun beste hau: —*Gu mendira joan gara. —Nik ere mendira joan nahi nuen. Ez didate, ordea, ezer esan.*

Ikusten denez, adibide horretan *ordea* diskurtso markatzailea jarri dugu, *berriz*-ek ez baitu lekurik hor: —*\*Nik ere mendira joan nahi nuen. Ez didate, berriz, ezer esan.*

Hitz batez esateko, *ordea*-k kontrakotasuna adierazten du betiere eta horretan *baina*-ren baliokide hurbila da. *Berriz* ez da horren markatua: kontrakotasuna bezala kontraste soila edo aldea seinatzeko ere erabiltzen da eta horrelakoetan, jakina, ez da *baina*-ren guztiz parekoa. Zenbaitetan, gainera, badirudi topikoaren aldaketa seinatzeko baizik ez dela erabiltzen, goiko bertsoan bezala. Emendiozko kutsu bat ere badu horrelakoetan.

**42.21.3c** *Berriz* DMA ere bigarren perpauseko osagaien baten ondoren kokatzen da arruntean, osagai hori nolabait nabarmenduz. Sarritan perpaus bakoitzeko osagai bana hartuz bien arteko kontrastea markatzen dugu DM honekin: *Begira bada, zein mardo, gizen eta mamitsua nagoen. Hi berriz, zatar hori, burutik oinetara hago, edo hautsez josia, edo basatua* (B. Mogel).

Esaldi horretan, eta horixe da gehienetan gertatzen dena, bi perpaus funtsezko egitura bera dute eta *berriz*-ek bien arteko kontrastea markatzen da. Horrelakoetan, esan liteke diskurtso markatzailearen aurrean kokatzen den osagaia bigarren perpausaren mintzagaia dela. Alegia, DMaren zeregina horixe izango litzateke, osagai horren mintzagaitasuna markatzea edo, gorago esan dugun bezala, mintzagai berria nabarmentzea, mintzagai aldaketa seinatzeko: *Arrantzaleak ziren batzuk; besteak, berriz, han inguruan etxegintzan ari ziren langile eta arginak* (Barrenso); *Amak bere gauzatxoak eraman nahi; aita, berriz, beranduegi izango ote zen kezkarekin, biak haserretu ziren* (Ugalde).

**42.21.3d** Baldintzazko perpausa ere (hau da, baldintzaren protasia) berez mintzagai izan ohi delarik, diskurtso markatzaile honen ezkerretara ager dai-

teke: *Gaizki hitz egin badut, erakutsi iezadazu zertan hutsegin dudan; zuzen hitz egin badut berriz, zergatik jotzen nauzu?* (Iraizoz).

Dena dela, diskurtso markatzaileak ezkerretara eramanez ohi duena perpausaren atal luzeagoa ere izan daiteke, aditza bera ere barne delarik. Hau, batez ere kopula-aditz batez osatuetan gertatzen dela dirudi: *Ehun laurrealeko bota zituenu han bertan, egindako erronkaren eusbide. Mila ogerlekoa izan zan, berriz, apustuaren jaso* (Barrenso); *Katakumetxo bat bezain bigun eta zoli ondoratu zitzaion Balendini neska liluragarria, haren maite-hitzen egarri. Erdi toteldurik eta zorabildurik zegoen, berriz, mutila, Dorronso alaba ederraren aurrean* (Barrenso).

Adibide horietan mintzagaia perpausaren hasieran ezarri beharrenez, atzeratua bezala gertatu dela dirudi, *berriz* DMaren eskuinaldera pasa dela, alegia. Ez dirudi, hala ere, perpaus horien esanahia, ez komunikazio balioa asko aldatzen denik leku aldaketa horrekin. Horrela, goiko azken perpaus horren orde, beste honako hau ezar liteke, biak erabat baliokide direlarik: *Mutila, berriz, erdi toteldurik eta zorabildurik zegoen, Dorronso alaba ederraren aurrean*.

**42.21.3e** Bestelako perpausetan ere horren antzeko erdibitzearekin egin dezakegu topo. Galde perpausetan, esaterako: *Lehen hain zoragarri iruditut zitzaitzun udaberriko zerua, goibeldu eta lainotu zaigu: basoaldean hain eder agiri zen loreak, bidariaren oinazpian burua makurtu behar izan du. Nora joan dira, berriz, gure inguruan ohartzun genituen irri-barreak?* (Barrenso).

Edo aditza isilpean gorderik agertzen denetan ere: *Gure ama ernaiak berela ikusi zuen, ikaratu gabe hitz horiek nahasi zitezkeela, eta berehala berezituenu; nik ez, berriz, hark adierazi arte* (Orixe).

Gogoan hartu behar dena hau da: diskurtso markatzailea ez dela agertzen galdegai den sintagmaren eta aditzaren artean. Horrela, lehenbiziko adibideak zuzenak dira, baina ez bigarrena: (i) *Aitak amari gona gorria ekarri dio. Ilobak, berriz, osabari txapela ekarri dio / Ilobak osabari, berriz, txapela ekarri dio / Ilobak osabari txapela ekarri dio berriz*; (ii) *\*Aitak amari gona ekarri dio. Ilobak osabari txapela, berriz, ekarri dio*.

Bestelako osagai batzuk bai, ager daitezke diskurtso markatzailearen ezkerretara. Galde hitzak, esaterako: *Inora ez darama adimentuak, bere ezina adieraztera baizik. Nora, berriz, sentimentuak?* (Txillardegi).

Dena den, ohart gaitzen, hor galde hitzaren ondoren agertzen bada ere, ez dela aditzik ageri. Beraz, pentsa genezake aditza agerian balego haxe genukeela: *Nora darama, berriz, sentimentuak?* Baina hor ezin da jarri *ordea*.

Adberbioak ere ager daitezke diskurtso markatzaile honen ezkerrean: *Hala eginetz, [...] oro xuxen gertatzen dira; hala nola berriz, berant jaikitzen denean, oro makur gertatzen ohi baitira* (Duhalde).

**42.21.3f** Aurrean juntagailuren bat edo beste diskurtso markatzailearen bat baizik ez duela ere ager daiteke inoiz: *Kontzientzia batzuk dira erne, sentikor, minbera, hertsia: eta berriz bertze batzuk loti, hil, lazo, zabal, eta ez antsia* (Axular); *Bai horixe! Bestaldetik, berriz, nahiko eskasak ziren lehenago ere gariak-eta [...]* (Barrensorero).

Baita perpausaren hasiera-hasieran ere: *Zein ederki ta laster ikasten duten euskara gaztetxo euskara baino entzuten ez dutenek. Berriz badator Euskal Herrira erdaldun handi edo hazi bat, zein nekez, eta gaizki* (Mogel); *Arpegia garbitzean [...] igarotzen bada ezta... ur tanta bat edo beste, ez da baurra galduko, eta ez eragotziko komunioa. Berriz nornahik daki ahora etorri den txistu mehea, nahiz loditzarra berriz irentsiagatik, komulgatu daitekeela beldur gabe* (Mogel).

Horrelakoetan badirudi perpausen arteko kontrastea markatzen dela, mintzagaia gehiegi berezi gabe. Dena den, esan behar da erabilera hau zaharkitua dela eta ez gomendagarriena.

Gorago esan dugun bezala, emendiozko kutsua ere badu *berriz*-ek, topiko berria nabarmentzeko erabiltzen baita sarri askotan. Ez da harrizkoa, hortaz, *eta* juntagailuaren edo emendiozko beste diskurtso markatzailearen baten lagun agertzea maiz. Axularrek, esate baterako, erruz erabiltzen du *eta berriz* esapidea. *Berriz* perpaus barruko ohiko lekuetan doala ere erabil daiteke bikote hori: *[...] berorri gizon ezkongai eta ni berriz alarguna... Ai nire gizarajoa*



*bizi izan bazen!* (Soroa); *Liburu gutxi behar da sagardoa polita egiteko; sagar ona. Eta edaten berriz bazekiagu!* (Labaien).

**42.21.3g** *Gainera, bestaldetik, bestetik* eta horrelako diskurtso markatzaileekin batera ere erabiltzen da inoiz: *Bestetik, berriz, industriaren gorakada gertatu zen, eta horrek ere Bizkaian eta Gipuzkoan izan zuen eraginik biziena* (Zuazo). Aurkaritzako *baina* juntagailuarekin batera, berriz, askoz ere gutxiagotan erabiltzen da, esan dugun bezala.

#### 42.21.4. *Ostera*

**42.21.4a** Adberbioa dugu *ostera* ere: *Inori ezizena ostera kentzea neketsua-goa da* (Jimenez). Adberbioa *berriz*-en pareko da gehienetan eta *alderantziz*-en pareko inoiz. Diskurtso markatzailea ere bada, ordea, eta horixe da hemen aztertuko duguna.

Mendebaldeko euskalkietako DMA da *ostera*, bizkaierazkoa bereziki. *Berriz, aldiz* eta horrelakoen baliokidea da. Hauek bezala, osagai baten ondoan erabiltzen da maiz, osagai hori aurreko perpausoko beste bati kontrajarriz: *Oraindino, hi bizi aiz; ni, ostera, aspaldiz gero hil nindunan* (Zaitegi).

Perpaus osoa kontrajarriz ere erabiltzen da inoiz, ohikoena ez bada ere: —*Eta min handiak al ditu? —Minik? Esatekorik ez dauka eduki. Oso nekatua dago, ostera; jausia, makal, erkin-itxura gelditu da* (Erkiaga).

**42.21.4b** Esan dugunez, perpaus barnean hartzen du maiz kokagunea *ostera*-k —*berriz*-ek, *aldiz*-ek eta horrelakoek bezala—, mintzagaia izan daitekeen osagai baten ondoan, hain zuzen: *Berein edanago ta bizkorrago egoten dira; ni, ostera, edanago eta hilago, logureak erreten* (Azkue).

Zati handiago baten ondoan ere joan daiteke. Aditzaren ondoan askotan: *Bildots eder bat erosi zion. Zerekin ordaindu, ostera, txikirik ez zeukan-eta?* (F. Bilbao).

Hasieran ere erabiltzen da inoiz, gutxitan bada ere: *Ikusirik guztiak direla modu batekoak, doa galdubaga zeukan lotsa, eta doa gutxitubaga beldurra.*

*Ostera, bihurtzen bada eurengana galtzen du lehen geratu zaion lotsa eta beldur puska [...] (Astarloa).*

Aurkaritzako beste zenbait diskurtso markatzaile bezala, harridurazko perpausen amaieran erabiltzen da inoiz *ostera*, harridurari indarra emateko edo: *Markolbek goizean eginiko arto ta ogi guztiak eskuratuta, osinera bota zituen. Hau bakarrik balitz ostera!* (F. Bilbao).

Esan dezagun, azkenik, *ostera* eta *osterantzean* ez direla nahasi behar. Ikus azkeneko honetaz dioguna diskurtso markatzaile hautakarien atalean (§ 42.20.3).

#### **42.21.5. Aldiz**

**42.21.5a** Diskurtso markatzaile honen jatorrian ere adberbio bat dugula esan daiteke, zalantza handirik gabe. Hemen, ordea, *aldiz* DMA dugu aztergai, ez *aldiz* adberbioa. DM bezala ekialdeko euskalkietakoa dugu batik bat, gaur egun euskara idatzian erabat zabaldua bada ere. Kontrakotasuna edo kontrastea adierazten du *aldiz*-ek ere eta, aurkaritza saileko beste zenbait diskurtso markatzailek bezala, bigarren perpauseko osagaien baten ondo-ondoan kokatzen da maiz, osagai hori aurreko perpauseko beste bati kontrajarriz: *Aroztegia, aldiz, bidearen azpiko aldean, errekaen ondoan* (Aintziburu eta Etxarren); *Denbora hartan ohi nizun nik zugatik dolore, / orain aldiz zure faltaz mutatu naiz ni ere* (Etxepare).

Kontrajartzea aski argi dago bi adibide horietan, hala nola zeintzuk diren nabarmenduriko osagaiak: ‘zerbait nonbait dago / aroztegia’ eta ‘denbora hartan / orain’.

Ezkerreko osagai hori perpauseko mintzagaia izaten da askotan, beti ez bada ere, goiko adibide horietan ere ikus daitekeenez. Mintzagaia markatzeko balio du horrelakoetan *aldiz*-ek, *berri*-ek eta honen kideek bezala.

**42.21.5b** Beraz, esan bezala, perpauseko osagai baten ondoan izaten du askotan kokaleku *aldiz* DMak. Normalean, bistan da, osagai osoa izaten da diskurtso markatzailearen aurrean doana. Hala ere, osagai hori apurtuz ikusten dugu dis-

kurtso markatzailea adibide batzuetan: *Urguilutsua, eta abiriziosoa sekula ez dira pausuan jartzen: espirituz aldiz pobre eta umil direnak, bake handi batean daude (Maister); *Baina deboziona bihotzean, da Jainkua bere begien aitzinean ez duena gaizki egina erakusten duen hitz batek ehinera ofensatzen du. Nitan aldiz fidatzen dena [...] gizonen lotsarik batere gabe izanen da* (Maister).*

Osagai osoaren ondoren joan beharrean —*espirituz pobre eta umil direnak aldiz... eta nitan fidatzen dena aldiz...*—, osagaia apurtuz ageri da horietan DMA. Estilistika kontua da beharbada. Dena den, ez dirudi honek jokabiderik ohikoena. Badirudi adibideotan aplikatu den erregela bigarren perpausoko lehen hitzaren ondoren jartzekoa izan dela, kontuan hartu gabe hitz hori perpaus osagaia den ala —hemen bezala— perpaus osagai baten azpiosagaia.

Perpausaren zati handiago baten ondoren ere ager daiteke *aldiz* eta are perpaus baten ondoren ere, aditzaren ondo-ondoan maiz: *Usatu zara anitz minzatzan, hitz guztiaz juramentu egiten, usat zaitez bada orain, aldiz, iuramentuen uzten* (Axular); *Mintzo zara, zu, zure pentsuen arabera; ni mintzo naiz, aldiz, dudan ezin emaneko lekukotasunez seguratuak diren gauzen gainean finkatzen naizelarik* (Lapeire); *Jainko Aitari ematen zaion adin handiak aldiz gogoratzen digu haren probidentzia eta larderia handia* (Xarriton); *Handik alde egin genuelarik, aldiz, uste nuen ezinen nuela sekula idatzi, luma eskuan atxikitzerik ez nuela sekula izanen* (Montoia).

Aditza isilpean dagoelarik, *ez partikularen ondoren* ere ageri da: *Nafarrak faborito dira, ez aldiz, bizkaitarrak* (Berria); *Legearen helburua ura babestea eta kudeaketa zaintzea da, ez aldiz, negozio egitea* (Berria).

Perpausaren *hasiera-hasieran* ere ageri da anitzetan: *Ez nuen atsedeten Zu gozatuz; aldiz, zure edertasunak nindekarren, eta berehala nire haziak zuregandik ninderaman* (Orixe); *Aldiz, Pierre, Jean, François, Jacques, Dominique edo ni bezala Paxkal izendatuko balitz...* (Landart); *Aldiz hogei urteren buruan zubi berria ez zen oraino arras pagatua* (Oronoz).

**42.21.5c** Diskurtso markatzaileetan ohikoa denez, *juntagailuen* lagun ere joan daiteke *aldiz*. *Eta*-rekin batera maiz erabiltzen da, emendioari aurkaritza erantsiz: *Gazte nintzanean, hogei urtetan, / Ardura nenbilen neskatilakan; /*

*Eta orain aldiz, ostatueta, / diru guti poltsan behar ordueta, / nehork ez nau ikusi nahi konpantetan* (Etxahun); *Eta haiek, aldiz, beren galderak ezin isilduz: zergatik harrotu ote zen itsasoa?* (Xarriton); *Erraten da bozkarioa sortzen dela hor dagoen onetik, eta tristura, aldiz, hor dagoen gaitzetik* (Xarriton); *Eta aldiz, Hazparneko etxea erosi eta antolatuz geroz, bertze lanik ez zuen predikatzea eta konfesatzea baizik* (J. P. Arbelbide).

Aurkaritzako baina juntagailuarekin batera gutxiagotan ageri da: *Erran suman ukanen duzu. Baina aldiz zuk emadazu Aireari manatzea* (Goihetxe); *Batzuetan kondesatxo horrek eskale alderraia balitz bezala uxatzen zuen, baina bes-tetan, aldiz estaltze ederrak egiten zituzten autoko jesarleketan* (P. Lizarralde); *Baina orain, aldiz, bertaratu ondoren, sinesgaitza iruditzen zitzaion* (Uribarri).

#### 42.21.6. Aitzitik

**42.21.6a** *Formaz* adberbio bada ere, diskurtso markatzaile gisa erabiltzen da batez ere *aitzitik*. Aurkaritza adierazten duten diskurtso markatzaileetakoak dugu hau ere eta, hortaz, *berriz, ostera, aldiz* eta horrelakoen kidea.

**42.21.6b** Badu, hala ere, haiek ez bezalako erabilerarik: batzuetan, izan ere, lehenbiziko perpausa ezezka doa eta *aitzitik* bigarren perpausaren hasieran kokatzen da, honela bi perpausen arteko kontrakotasuna markatuz. Horretan, perpaus hasieran joaten den *baizik (eta)* juntagailuaren ordain egokia izan daiteke batzuetan. “Ez gaitzazu tentaldira eraman, baizik libra gaitzazu gaitzetik” perpausaren ordez *aitzitik* duenaz balia gaitzke: *Eta ez gaitzazula utzi tentazioan erortzera, aitzitik libra gaitzazu gaitzetik* (Beriain). Gainera, sarritan, DM honen ondoren eten bat gertatzen da. Horregatik, zenbaitetan koma ere agertuko da idatzian: *Ez gogor egin gaiztoari. Aitzitik, inork eskuineko masailan jotzen bazaitu, bestea ere eskain iezaiozu* (Iraizoz); *Sendagile irakurriak ez zekien hori guztia, baina ez du ahalketuko gazte amerikarrak bere hutsune kulturalak agerian jarri izanak. Aitzitik, poztu egin da ikastekoak dauzkan emakume kulturadun baten ondoan egoteaz* (Saizarbitoria).

Menderatuak diren perpausen artean ere gerta daiteke, nolabaiteko tartekatze modura, kontrakotasun hori. Adibide honetan, esate baterako, bi baldintzazko perpausen artean gertatzen da kontrajartzea: *Debozionerik ez baduzu, aitzitik sentitzen baduzu idorra zarela, jar zaitetz otoitzetan* (Pouvreau).

**42.21.6c** Batzuetan, lehendabiziko perpausa itxuraz baiezkoa izan arren, berez, ezezkoa balitz bezalaxe da, zeren ‘urrun izan’, ‘gibelatu’ eta horien antzekoak ezezkako predikatuak baititugu. Horietan ere gertatzen da, hortaz, ezezkoaren eta baiezkoaren arteko kontrakotasuna: *Urrun da beraz deus egin nahiko dudan haren kontra; aitzitik eginen ditut haren alde egin ahal guziak* (Hiribarren).

Nolanahi ere, lehenbiziko perpausa gehienetan ezezka joan ohi den arren, beste batzuetan baiezka doa: *Alabaina gizonei barkatzen badizkiezu beren hobenak, zuei ere zuen Aita zerukoak barkaturen dizkizue zuen bekatuak. Aitzitik gizonei ez badiezue barkatzen, zuen Aitak ere zuen bekatuak ez dizkizue barkaturen* (Duvoisin); *Jantziren batzuk jasotzera etorri da, aldian behin egiten du. Liburuak eta diskoak ere eramán ohi ditu, bereak batzuetan, baina ez zaio inporta, aitzitik* (Saizarbitoria).

Aipatzen ari garen kontrakotasun hori nolabait areagotzeko edo, *ez-bai* partikulak agerian jartzen dira zenbaitetan: *Giristinoak ez dira zure etsaiak, aitzitik bai zure zerbitzaririk hoberenak* (Joanategi); *Horrek ez du noski beraren ospea konponduko, baina Gregorrek, ulertu dugu ja, ez du diskrezioa bilatzen, aitzitik ez dio axola* (Markuleta).

**42.21.6d** Aurkaritza adierazten duten diskurtso markatzaile hauekin, guztiekin gertatu ohi den bezala, perpausaren hasieran joan beharrean, tartekatua ere joan daiteke inoiz *aitzitik*, nolabait ezkerretara jartzen den osagaiari hanpadura edo emanaz. Erabilera horretan *aldiz, berriz, oster*a eta horrelakoen pareko da. Ezkerretan daramana osagai soila izan daiteke —mintzagaia, zenbaitetan—: *Zaldizkoek esaten zien oinezkoei, haiak baino hobeto borrokatu zirela etsaiarekin; eta oinezkoek aitzitik beste hainbeste zaldizkoei* (Beobide); *Harrirengan, aitzitik, idazlearen ospea konpartitzeko desira sumatzen du* (Saizarbitoria).

Baina perpausaren zati handiagoa ere izan daiteke: *Ez dugu beraz zeren eman gure bihotza mundu iragankor honi: egon behar du aitzitik, zerura altxatua; han ediren behar du oraindanik bere egiazko egoitza* (Larregi); *Neska gazte batekin zegoen eta Juliani ez zitzaion axola izan, aitzitik, poztu egin zen gizon gazteak aipaturiko harremana berreskuratu zuelako* (Saizarbitoria).

**42.21.6e** *Aitzitik* eta *baina*, biak, esanahiaren aldetik berdintsuak dira. Hala ere, zenbaitetan biak batera aurkituko ditugu, aurkaritza nolabait indartzeko edo: *Egin iezaguk grazia hau, ez duan permetitu nahi gauza hauek sekulan ahantz dakizkigun: baina aitzitik gure bihotzetan inprimatuak ditugularik, abanza gaitezen [...]* (Leizarraga).

*Eta*-rekin ere ager daiteke *aitzitik*. *Eta*-k lotura adieraziko luke eta *aitzitik*-ek, bere aldetik, bi perpausen arteko aurkaritza: *Anitzetan badirudi karitatez ari garela, eta aitzitik sensuen oldez ari gara* (Pouvreau); *Kapitalaren atomizazioa dela medio, kapitalaren jabeek indarra galdu dute, eta aitzitik enpresaren goimailako zuzendarien indarra areagotu egin da* (Heras).

#### **42.21.7. Bizkitartean, bitartean, bien bitartean, artean**

**42.21.7a** *Bizkitartean* aurkaritzako diskurtso markatzailea da, ekialdeko euskalkietan erabiltzen dena. Adberbio esapidea da berez. (Jatorriari dagokionez, ikus Mitxelena 1977b: 534). Zenbait kasutan ez da erraza izaten *bizkitartean* adberbio hutsa den ala DM den erabakitzen, bi erabileren arteko muga ez baitago batere argi horrelakoetan: [...] *zeren gauza batzuk sori dira, zeinak bizkitartean ez baitira ohorezkoak* (Pouvreau).

Beste zenbait kasutan, berriz, nahiko argi antzeman daiteke DM gisa erabilia dela, *alabaina* eta horrelakoen pare: *Iduri zuen bortxazkoa; bizkitartean borrontatezkoa gertatu zen* (Larregi); *Erran dut hezerik hobe dela trefla; bizkitartean belar eskasa denean, hartarik begiratuko da* (Duvoisin).

Bi adibide horietan ikus daitekeenez, bigarren perpausaren hasieran agertzen da maiz *bizkitartean* DMA. Hona adibide gehiago: *Ez da zeren deus handirik*

*erran halakoei. Bizkitartean badira egia entzun dutenak leize itsuenen erdian (Hiribarren); Apartamendua giltzatu eta eskaileretan punpatu nintzen, bizkitartean, Jelineken nobelari idortzeko denbora zilegitzen niola kalkulatu (Borda).*

Inoiz, ordea, perpausaren barnean tartekatua ere ager daiteke, zati luze edo laburrago baten ondoren: *Honen araberalat haatik, badauzka barnean hiru egotegi luze, erdikoa gorenik, zabalenik ere ba, Baionakoarena baino zabala-goa. Jakintsuek kausitzen diote bizkitartean akats bat: aitzinaldea, bere ezkiladorre lau hegiekila apalskoekin bazterretan, eta, erdian, sarguiako bere aterbeinoarekin, hau harrizko zango batzuen gainean xut, anitzez berantago egina izan omen du aitzinalde hura, dena ere ez garaitikoari eman zen molde beretan (J. Etxepare).*

Zenbait juntagailurekin batera ere ager daiteke *bizkitartean* DMA. *Eta*-rekin batera maizenik eta inoiz *baina*-rekin ere: *Ezin sinetsizkoa da, eta bizkitartean egia* (Hiriart-Urruti); *Gurekin gure haur guztiek gloriako tronuetan adora zaitzatela beti sekulako mendeetan. Baina, otoi, bizkitartean egiguzu zure grazia* (Gazteluzar). Esan bezala, hala ere, ez da erraz atzematen hemen noiz amaitzen den adberbionasuna (denbora adberbioa litzateke) eta noiz hasten den diskurtso mailako marka.

**42.21.7b** Bitartean dugu sail honetako bigarren diskurtso markatzailea. Itxuraz, morfologiaz, *bizkitartean*-en pareko dugu. Hala ere, are ilunago gertatzen da, harenaren aldean, honen DMtasuna. *Bitartean*-en balio nagusia, izan ere, adberbio gisakoa dugu. Eta balio horrekin erlatiboazko egituretan agertuko zaigu sarritan. Zalantzak zalantza, ordea, badirudi batzuetan behintzat aurkaritza diskurtso markatzaile gisa ere erabiltzen dela: *Asko egoten dira [...] herriko gizonik sendoenak noiz itoko ote zaitzkien beldurrez eta ikaraz; eta eurak, bitartean, adiskideei edo ezezagun batzuei laguntasuna ematen dabiltzan umantkorrak [...] agertzen dira olatu guztiei euskaldun ausarditsuen aurpegia emanaz (Agirre).*

Beste DMen antzera, *baina* juntagailuarekin eta *berriz* diskurtso markatzailearekin batera erabiltzen da inoiz *bitartean*: *Zorion horrentzat egitzue bestak,*

*baina bitartean, baterarik biak, nahi nuke ukan hartua zure bakezko musua (Goihetxe); Irenek isiltzeko agindu dio, baina bitartean isiltasuna berriz etorri da etxera (Jon Muñoz).*

**42.21.7c** Aurreko bi diskurtso markatzaileez esan denak balio du *bien bitartean*, *(t)arte horretan*, eta *artean* DMentzat ere. Areagotuta, ordea. Izan ere, inon egia bada hauek guztiak berez adberbio direla, hemen da: [...] *egiñak egin eta / etxera bakean, / ondo bildu behar dugu / aurtengo urtean, / eta denbora badihoa / bien bitartean* (Uztapide); *Emakumeak bakarrik sartu zitezkeen hildegian. Gizonik ez zen ikusten eguerdiko hamabiak arte. Eta bitartean horretan hildegi-barrena zurizkoz betea* (Anabitarte); *Kaleetan ere ikusten dira palmerak tarteka. Etxeak, behea ta bizitza bakarra, nahiko itsusiak. Artean, kanpotarrentzat zer-ikusia badaukate* (Anabitarte); *Bukatzen zuenean, tresna guztiak arras ongi xukatu, oso garbi utzi, eta kontuz-kontuz gordetzen zituen, labainaz betetako kutxattoa besteen ondoan ipinirik. Artean Patxi aurrean egoten zen aitaren zereginak zaintzen* (Oskillaso).

Literaturan hain usu ageri ez diren arren, euskalkietan aurkitzen ahal dira *arte horretan* eta *tarte horretan* diskurtso markatzaileak ere: *Baina Afrikaraino ere hedatu du bere misionegoa, hiru urtez, Burundi herrian. Arte horretan Baionako hiru apezpikuk beretzat begiztatu dute, bere sekretariotzat harturik lehenak eta eliz-barruko bikario orokor beste biek* (Larre); *Arte horretan itzuli zaie Joanes semea, Herriko Etxerat joana baitzen mobilizazioari buruzko argibide eske* (M. Peruarena); *Etxearen aldamenean errementeria eta arotzeria atondu zituen. Tarte horretan Basokoen herria ezagutzeko aukera eduki nuen* (Zuazo).

#### **42.21.8. Alta, alabaina, alabadere**

**42.21.8a** *Alta, alabaina*, eta *alabadere* aurkaritza adierazteko erabiltzen diren diskurtso markatzaileak ditugu, eta elkarren artean duten kidetasunagatik sartu ditugu multzo berean: aurkaritza balioaz beste, balio esplikatiboa ere badute hirurek eta batez ere ekialdeko euskalkietan erabiltzen dira, *alabaina* mendebaldean ere ezaguna den arren.



Alta ekialdeko euskalkietan erabiltzen da, esan bezala, eta XIX. mendearen erditsutik honako testuetan ageri da. Balio bikoitza erakusten du. Gehienetan aurkaritza adierazten du inolako zalantzarik gabe: *Joan zen beraz... eta ez zuten hil. Alta egia ederrik entzun zuten* (Narbaitz); *Eta horra Beloken berean ikusten nuela; zer ari ote? pilota-plazaren erdian, galtza beltz eta atorra xurriekin, pirripitaz nola ibil ikusten iduri. Alta! Bazukeen orduan Aitzol-ek pirripitan ibiltzeaz bertze kezkarik...* (Iratzeder); *Argiago ikusi nuen hori eleberriak eta Diary idatzi ahala, eta are eta bistakoagoa egin zitzaidan irakasten hasi nintzenean. Alta, emakumeen eta gizonen sexuarekiko jarreraren arteko alde nabaria izan arren, oraindik ere ez genekien horri buruz nola idatzi* (Arrula).

Harridura perpausetan ere erabiltzen da maiz *alta*. Horrelakoetan enfasi edo indar berezia ematen dio perpausari: *Txantxetan ari zara beti, alta ez da momentua!* (Mestrot).

**42.21.8b** Aipatzekoa da, azkenik, *bada*-ren laguntza izaten duela sarritan, baita aurkaritza adierazten duenean ere, *alta bada* —edo *alta... bada*— forma hartzen duela: *Denei ohore zitzaaien josteta hortan baltsatzea. Alta bada bertso-alde luzeak bazituen gogoz ikasteko antzerkilari bakoitzak* (Lafitte); *Egia erran, lehen aldikoz entzuten nuen afera hartaz mintzatzen, alta bada, eztabaidak eta auziak zortzi urte lehenago hasiak omen ziren* (Landart).

Bigarren perpausaren hasiera-hasieran hartzen du toki gehienetan *alta*-k, aurreko adibideetan ikus daitekeen bezala. Ez du debekurik, hala ere, inoiz edo behin perpausaren barruan tartekatzeke, zati luze edo laburrago baten ondoren: *Bertze solasik nuen alta egungotzat gogoan* (Hiriart-Urruti).

Aurkaritza diskurtso markatzaile gehienak ez bezala, badirudi *alta* ez dela juntagailuekin batera erabiltzen. Aski bakanak dira lekukotasunak: *Eta alta, alabak berak erraten nau, hark hola egoten da, hartu liburu bat eta behar bada gau osoa pasatuko du hark hura irakurtu arte* (Oxandabaratx).

Zenbaitetan, aise gutxiagotan hala ere, bigarren perpausak aurrekoari nolabait teko azalpena ematen diola adierazteko balio du: *Beraz, ez naiz gure arrazan ni lehena bertsotarako gogoia izan dudana. Aita zena ere, alta, kantari gaitza*

*genuen* (Xalbador). Horrelakoetan, *izan ere*, *bada* edo horrelakoen kide dela esango genuke.

**42.21.8c** *Alabaina* diskurtso markatzaileak balio bikoitza du, baina ez guztiz berdin euskararen eremu osoan. Aurkaritza DM gisa Iparraldeko testu zaharragoetan ageri da batez ere; balio esplikatihoan, berriz, geroago ageri da Hegoaldeko testuetan eta Iparraldeko batzuetan. Holakoetan aurkaritza adierazten du: *O zein labur, zein gezurrezko, zein desordenatu eta itsusi diren plazer guziak! Alabaina gizonen haietatik horditurik eta itsuturik, ez dute hori ezagutzen* (Pouvreau. Aurkaritza balioan); *Ereile gaiztoetan dago azaro txarra, eta gero uzta soila eta hutsa. Alabaina gutxi daki bere jaioterriko Euskararen erdia [...]* (Larramendi. Balio esplikatihoan).

Batzuetan biziki zaila da, zernahi gisaz, aurkaritzako balioa eta balio esplikatihoaren artean zuzen bereiztea: *Oinazea nagusi nuen kopeta guztian, betazalean eta sudurrean. Orobat ezker belaunean, ezker eskuan eta ezker besoan. Oinazea ez zen makurrena, alabaina* (Epaltza); *Nork erranen zuen bizitzak horrelako ezustea eskainiko zidala? Etsaia etsaia zen alabaina eta gure kulturaren zurbirik ez zen zilegitzen* (Borda).

Inguruak adierazten du zein den markatzailearen balioa. Aurkaritza balio duenean, *bizkitartean* eta horrelakoen parekoa da: *Askotan arratsa erdiesten da goizeko otoitza egin gabe. Eta alabainan otoitza da zeruko laguntzen eta grazien erdiesteko bidea* (Duhalde); *Ez dakit emaztearen berririk eta alabaina ez naiz birjina* (Axular).

**42.21.8d** Perpausaren hasieran kokatzen da maizenik *alabaina* adbertsatiboa, adibide horietan ikusten den gisan. Dena den, ez dira gutxi diskurtso markatzaileak perpausaren barruan daramaten perpausak, *hala ere*-ren inguru bertuetan: *Nire otoitzek lagun egingo dizute. Hauxe da nire burubidea. Badituzu, alabaina, Euskal Herrian ni baino bereter jakintsuagoak, ugari* (Azkue).

Ez dirudi, azkenik, oso maiz erabiltzen den diskurtso markatzaile hau juntagailuekin batera. Dena den, *eta*-rekin erabiltzen da inoiz: *Inoiz ez nuen neure ama ezagutu, eta alabaina bararenganako nire maitasunak jarraitu egin zion betikotasunean* (Martínez de la Cuadra).

**42.21.8e** Aurrekoak baino askozaz maiztasun urriagokoa da alabadere diskurtso markatzailea. Aurkaritza balioan, *alabaina*, *bizkitartean* eta horrelakoen parekoa da: *Biblia ez da mintzo emazteen adinaz, salbu Sara, Judith ta Anarenetzaz; baina Evarenaz hitzik ez du aipatzen, alabadere dakigu guziak erausturik daudela, gu ere halakaturen garela* (Egiategi).

Balio esplikatihoan ere erabil daiteke DM hau, *izan ere*-ren pareko: *Heldu da ordua, eta orain da, non egiazko adoratzaileek izpirituz eta zintasunean baitute adoraturen Aita; alabadere Aitak holako adoratzaileak ditu galdatzen* (Duvoisin).

#### **42.21.9. Dena dela, dena den**

Diskurtso markatzaile hau birformulatzaile urruntzaileen atalean aztertzen da (§ 43.10.1).

#### **42.21.10. Hala ere, hala eta guztiz ere**

Diskurtso markatzaile hau birformulatzaile urruntzaileen atalean aztertzen da (§ 43.10.5-6).

#### **42.21.11. Haatik/hargatik, horratik/horregatik**

**42.21.11a** Forma eta balioa (*hargatik*, *horregatik*). Aurkaritza adierazteko erabil daitezkeen diskurtso markatzaileak ditugu hauek: jakina denez, *hargatik*-ek eta *horregatik*-ek kasu motibatiboari dagozkion balio arruntak dituzte berez eta horrela erabiltzen dira gainera sarri askotan.

Balio kausala ere badute anitzetan: *Sasoiak eta osasunak ez dute zentzurik behar, eta hargatik ez daukate zentzurik* (Seguroa); *Nire karrera unibertsitarioaren amaierak —aste batzuk behar izan nituen benetan jabetzeko— neska*

*ikasleekiko kontakturik batere gabe utzi ninduen eta zer egin? Izena eman behar al nuen hargatik Meetic-en, nire aurretik beste hainbestek egin bezala? (Markuleta); Horregatik bakarrik nahi luke idatz dezala (Saizarbitoria).*

Kausa adierazten duten erakusle direnean, bigarren perpauseko aditz sintagmaren osagai izan daitezke, baita are perpausaren galdegai ere, eta *bada, beraz, beragatik* eta horrelakoen laguntza har dezakete: *Hemen laborariak ez daki arbola tratatzen. Hargatik erranen dizut zer egiten den bertze tokietan (Duvoisin); Egiten den falta, txiki bat ezta? Bai; eta horregatik beragatik, hori egin gabe hain erraz [...] (Kardaberaz).*

**42.21.11b** Aurkaritza DM ere izan daitezke, ordea: *Bidasoa bazenetz ere ez naiz oroitu: ez gara beti Euskal Herri barnean? Hargatik, mugaz honaindiratu bezain laster gozatu zaidala [...] (J. Etxepare); Aita galdu genuen arte [...] artzantza izan zen ene lan nagusia, handik goiti, hargatik, denetarik zerbait egin behartu zitzaidan (Xalbador); Maianak ez zuen nitaz jeloskor izateko arrazoirik alabaina. Hotz nerrarikan. Hargatik beratzen zitzaidan bihotza (Borda); Behatzak kiskaltzeko beldurrik gabe, amuarraietariko bat harrapatu zuen eta ahora eraman. Ez zen hargatik isildu (Epaltza).*

Diskurtso markatzaile direnean ez daude perpausean txertatuak. *Baina* eta *ordea*-ren laguntza hartzen dute sarritan, baita *ere* partikularena ere aurkaritza esanahia sendotzeko edo: [...] *falta duenak ere uka ahal dezake, eta eman ez duela faltarik, baina hargatik, barren hartan, betiere konzientzia bere egian egonen da (Axular); Bada ordea su batetan, guztiak berdin eta elkarrekin egonen dira. Ordea hargatik bekatu gehiago duenak, pena gehiago izanen du (Axular).*

**42.21.11c** Ezezko perpaus zenbaitetan, egia da, zalantzak sortzen dira maiz esanahiari dagokionez, batera zein bestera uler baitaitezke: *Gizonak ezbadituzu zure alde, ez trista hargatik; baina duzun damu zeren ez zabiltzan ongi eta begiratuki aski (Pouvreau); Jesukristo zeruan atsedeten badago ere, ez da horregatik behin ere guzaz ahaztutzen (Ubillos).*

Ezezko perpaus horiek dira, beharbada, bi erabilera eta bi adieren arteko zubi edo egin dutenak. Beste zenbaitetan, berriz, ezezko perpausetan egon arren,

aurkaritza diskurtso markatzailetzat hartu behar dira, zalantza handirik gabe: *Lo egin nahi zuen. Ez hargatik ohean, haren aldamenean* (Mirande); *Ekanduta dauden begiak, ez dira horregaitino minberatutzen* (Mogel).

**42.21.11d** Diskurtso markatzaile direnean hiztegiko berbatzat hartu behar dira, bai *hargatik* eta bai *horregatik* ere, hau da, hiztegian berariazko sarrera zor zaiela. DM gisa ez dira, ordea, berdin erabiltzen euskalki guztietan: *hargatik* ekialdeko euskalkietan izan daiteke diskurtso markatzaile eta *horregatik*, berriz, mendebaldekoetan. Azken honen aldaeren artean bizkaierazko *horrega(i)ti(n)o* aipa daiteke berariaz, besteak baino sarriago erabiltzen baita diskurtso markatzaile gisa.

**42.21.11e** Forma eta balioa (*haatik* eta *horratik*). *Haatik* eta *horratik*, erakuslearen motibatibotik erakarritako DMak dira. Aurrekoak baino berriagoak dira, baina, haiek ez bezala, hauek diskurtso markatzaile dira beti. Erabilera hori zehazteko eratorriak direla esan liteke beharbada.

Ekialdeko euskalkietan erabiltzen den DMA da *haatik*, ez oso aspaldikoa (xix. mendearen hasierakoa): lekukorik zaharrenetan ez da ageri eta hiztegitik ere ez dute oraintsu arte aintzat hartu, *hargatik*-en aldaera hutsa zelakoan edo. Orain, ordea, bai hiztegitan lekua aitortzen zaio eta baita mendebaldean toki egiten ere, erabilera jasoan batez ere. Beti, hori bai, DM gisa eta inoiz ez erakusle soil gisa: *Bazekien botila barne hartan zela eta haatik ez zuen edireiten* (Constantin); *Bikario igorri zuten Uztaritzerat. Ez zuen haatik hezur zaharrik han egin behar* (Zerbitzari).

Bide bertsua egin du mendebaldeko *horratik* DMak ere: *horregatik* formatik eratorria, honen diskurtso markatzaile erabilera ordezkatzeko, are zehatzago. Aski berria da *horratik* ere eta zalantzak izan dituzte hiztegitik eta idazleek bere eskuko hitz gisa aintzat hartzeko. D. Agirrek, esate baterako, honela zuzendu zuen *Garoaren* ondoko testua, lehen ediziotik bigarrenera: *Au ezta orregatik oitura ona —esan zuan Josepak*. Eta bigarreanean: *Au ezta orratik oitura ona —esan zuan Josepak*. Badirudi, hortaz, bigarren edizioan aintzat hartu duela Agirrek *horratik* hitza.

Aurkaritza DM gisa erabiltzen da beti *horratik*, eta inoiz ez erakusle soil gisa: *Lastoa badugu ugari; galburuak, horratio, arintxoegi* (Barrenso). *Horrega-*

*tik*-ek bezala, *ere* partikula eraman dezake ondotik, aurkaritza balioa sendotzeko edo: *Aren amorroa eta narda! Azkenean, horratik ere, seme bat, Fortunato izenekoa, sortu zitzaien* (Etxaniz).

**42.21.11f** Hartzen duten tokiari dagokionez, DM hauek ez dute berezitasun aipagarrikerik erakusten. Bigarren perpausaren hasieran bezala barruan *ere* joan daitezke. Azkenean, ordea, nekezago. Hona hemen adibide batzuk: *Jainkoa leku guztietan, eta nonahi dago, horregatik ere Zeruetan zaudena esaten diogu* (Ubillos); *Festa hau bera zen, orduan ere! Haatik egungo egunak ordukoak ez bezalako begitarte du [...]* (Larzabal); *Albiste gutxi izaten zuten Zabaletakoeak. Horratik ere, noiz edo noiz etorri ohi zen eskutitz bate do beste* (Agirre); *Ni lotsarik gabe Zu ofenditzen: eta Zu horregatik ere, on gehiago niri egiten!* (Kardaberaz); *Ez dakit noiztik, baina aldi hartan Urepeleko ostatuan izaten ziren, bi trago eginez gero, bertsotan hasten zirenak karraskan. Ez dut nehor izendatuko, hainbertze baitzen entseatzen zenik. Gero ahatik denak isildu ziren* (Xalbador); *Guti balio luke hargatik urreak, ez balu bertuterik dirudun jendeak* (Hiribarren).

Baita zuzen-zuzenean juntagailu baten ondoan *ere*: *Tarragonako giristinoek bazekiten arras ongi martir sailduak zeruan zirela, eta hargatik triste ziren* (Joanategi); *Ez dago argirik, guztia da iluna; eta horregatik, ez dut aditzen zelan, baina ikusten dira, pena, eta tormentua ematen duten gauza guztiak* (J. J. Mogel). Gaur egungo idazleen artean holako erabilerak ia beti kausazko balioa du (edo azalpen balioa), ez aurkaritzakoa.

*Hala ere*-rekin gertatzen den bezala, perpaus kontzesiboen ondoan *ere* erabiltzen dira inoiz diskurtso markatzaile hauek, aurkaritza indarra areagotzeko edo: *Edan ez badu ere, jatez horregatik bapo egina da* (B. Mokoroa).

Aipatzekoa da, gorago *ere* adierazi duguna: *ere* partikularen laguntza hartzen dutela sarritan diskurtso markatzaile hauek, aurkaritza indarra sendotzeko.

Esan dezagun, azkenik, hauek *ere* erabiltzen direla inoiz harridura perpausetan —azken buruan maiz—, hauei enfasi berezia emanaz: *Hori handia zait hargatik!* (Duvoisin); *Bakarrik: zer den haatik bizia!* (Larzabal).

### 42.21.12. *Barren*

Leku batzuetan erabiltzen den aurkaritza DMtzat har daiteke hau ere. *Ba(da) arren* esapidearen laburdura izan liteke. Bigarren perpausaren azken muturrean kokatzen da beti, ez perpaus horretako ezein osagairen ondoan: *-Isil zaitez, mesedez! Esan dizut barren!* (P. Mujika); *Baina, norekin diarduk? Atzo etxetik kanpora ibilli ninduan barren* (San Martin). Holako perpausetan agertzen da, hortaz, *barren* hau: aldeztatik adierazitako zerbaiti erantzunez edo egiten direnetan; hauen azken buruan, hain zuzen. Perpausaren azken muturrean joan ohi den *baina* juntagailuaren ordezkia dela dirudi: *-Isil zaitez, mesedez! -Isilik nago, baina!*

### 42.21.13. *Badarik ere*

XVI. eta XVII. mendeetan hedadura izan zuen diskurtso markatzaile honek ere esanahi bat baino gehiago dauka. Batzuetan kontzesio kutsuarekin ageri da euskara idatzian, Pouvreuren adibide honetan ikusten den gisan: *Eta iduri dizu zure gaitzak ez direla xipienak, begirazazu horrela gerta ez dakizun zure pazientzia gabez. Badarik ere direla xipiak, direla handiak, zuk egizu zure ahala guzien jasaiteaz pazientziarekin* (Pouvreau). Ñabardura horiek direla eta, aurkaritzakotzat hartu beharko genuke sarri askotan. Ondoko adibide hauetan, esate baterako, juntagailu aurkaritzakoa litzateke: *Eta beheiturik ikus zitzan oihalak aldaratuak: badarik ere ez zedin sar* (Leizarraga); *Baina orain anitz dira menbroak, badarik-ere gorputz bat* (Leizarraga); *Eta gogo gaiztorik ez dugularik, badarik ere gaiztoak anitz gaizki pentsatzen du, eta beti hitz gaizto haietaz isilik baliatzen da norbaiten bihotzaren iragaiteko* (Pouvreau).

Gaurko idazleek *bada ere*-ren baliokide gisa erabiltzen dute maizago, eta ez aurkaritza zentzuarekin: *Enparan diputatuak badaki gustura botako lituzkeela pare bat tiro, kapela zikinen bat aireratzeko badarik ere* (Aranbarri); *Kuadroa ikusi nahi luke. Beste behin badarik ere, ez dio besterik eskatzen bizitzari* (Lertxundi); *Ikusten zintuen, ordea, urrutitik badarik ere* (Aranbarri).

#### 42.21.14. Aurkaritza adierazten duten esapideak

Aurretik aipatu direnez beste, lokuzio edo esapide mordoak dago aurkaritza adierazteko erabil daitekeena: *zernahi gisaz, nolanahi ere, edozelan bere, edozein modutan ere, edozein moduz, guztiarekin ere...* Horiek ere diskurtso markatzaileen pareko dira, alde batetik. Berez perpaus osoari —eta ez aditzari soilik— dagozkion adberbio esapideak badira ere, ezin da ukatu kate mintzatu-tuan edo idatzian perpausen arteko lotura adierazteko ere erabiltzen direla, diskurtso markatzaileen pare. Horietako batzuk (*nolanahi ere, nolanahi den...*) birformulatzailen atalean aztertzen dira (§ 43.10).

#### 42.22. Ondoriozkoak

##### 42.22.1. Sarrera

**42.22.1a** Diskurtso markatzaileek, solasaren zatiak elkarri lotu ez ezik, beren arteko erlazioa nolakoa den ere agerian jartzen dute. Erlazio hori perpaus bat aurreko solas zatiaren ondorioa dela seinalatzean datzanean, *ondoriozkoak* deitzen dira. Gramatiketan ‘ilatiboak’ deitu izan zaie, gutxi gorabehera gauza bera esan nahi duen latinetik hartu hitz batez baliatuz. Baita ‘kontsekutiboak’ ere arrazoi beragatik, aurreko solas zatiaren kontsekuentzia edo ondorioa markatzen baitute. [Azkuek “conjunciones continuativas” deitzen die (1923-1925: § 712); Villasantek “Conjunciones Consecutivas Coordinadas” (1976: 164-169); Lafittek “Conjonctions conclusives” (1944: § 400)]. Zernahi gisaz, kontsekutibo koordinatuak dira, eta ez graduatzailea aurrean duten subordinatuak, hauek mendeko perpausa osatzen baitute menderagailuen bidez.

**42.22.1b** Ondorioa diogunean zer esan nahi dugun, garbi ageri da honako perpaus bikote hauen arteko erlazioari begiratuz gero:

*Hil da* → *Ez du gehiago sufrituko*

*Etxeari kea dario* → *Erretzen ari da*

*Kaleak bustiak daude* → *Euria egin du bart*



Ondorioa adierazten badute, hein batean aurreko solasetik edo perpauseko edukitik ondorioztatzen dena diskurtso markatzaile hauek agerian jarri baizik ez dute egiten, perpausean gordea baitago. Halatan, norbait hila dagoela dioenak ez da dudarik gehiago sufrituko ez duela ere dioela. Inoiz gerta daiteke, ordea, norbaitek perpaus batetik ondorioztatua gezurra edo okerra izatea; hala nola, kaleak bustiak ikusten dituenak euria egin duela esaten duenean, agian ez baitu euririk egin, eta bai kale-garbitzaileak goizean kaleak garbitu izan. Gezurra nahiz egia, ordea, diskurtso markatzailea eta perpausa ondoriozkoak izango dira eta hori bakarrik da gramatikari axola zaiona.

**42.22.1c** Euskaraz ondoriozko diskurtso markatzaileak ezagunenak hauek dira: *beraz* (bizkaieraz, Frai Bartolomegan bederen *begaz* aldaera erabiltzen da), *bada*, *hortaz*, *orduan*. Hauen ondoan, nahiz hain sarri ez azaldu, *honenbestez*, *horrenbestez*, *hainbestez*, *halatan* eta *hala* ere ondoriozko DM gisa erabiltzen dira. Azkenik, literatura mailan beste hauek ere agertzen dira, lehengoan konposatuak: *orain bada*, *beraz hunelatan*, *beraz halatan*, *beraz horrela*, *hor(re)taz gero*. Lehen eta orain, eguneroko hizkeran eta liburuetan erabilienak *bada* eta *beraz* dira. Egia da, bestalde, eguneroko hizkeran *beraz*-i leku handia kentzen ari zaizkiola *hortaz* eta berriagoa dugun *orduan* DMak.

Aipatu DMak ez dira guztiz kide, bakoitzak bere erabilera eta balioa baitu ondoko orrialdeetan ikusiko denez. Hala ere, erabateko kidesunetik ez izan arren, zenbaitetan baliokide gertatzen direnez *beraz* eta *bada* diskurtso markatzaileak, kidesun hau aztertuko dugu lehenik. Bigarren pauso batean bakoitzaren erabilera propioa eta bereziak aztertuko ditugu.

### 42.22.2. *Beraz* eta *Bada* kide

**42.22.2a** Eguneroko hizkeran eta literaturan ezagunenak eta erabilienak izateaz gain, esan behar da zenbait esalditan *beraz* eta *bada* errankide direla, bata nahiz bestea berdinean agertzen baitira; esate baterako, *ea bada!* eta *ea beraz!* gauza bera esateko erabiltzen direnean. Hala, Oihenartek bigarren neurtitzean honela dio: *Eia bada / ordiia da / suretan has siteen / ene harzen* (Oihe-

nart). Eta hori bera diogu ‘Salbe’ deritzan otoitzean, OEHk dioenez: dozena bat doktrinatan halaxe agertzen da. Aldiz, Etxeberri Ziburukoak bere *Manual Devotionez*coan biak darabiltzan arren, askozaz gehiagotan *Ea beraz!* Hona lehen aldiz ageri den bertsoa: *Ea beraz ikas ezak salbatzeko artea, zeina baita gainerako zuhurtzen Andrea* (Etxeberri Ziburukoa). Halaber, bata nahiz bestea aurkitzen ditugu honako esapide hauetan: *Bihotz, beraz, bihotz!, eta gorputz...* (Duvoisin); *Animo, bada, ta fuerza: zeruko erreinuak* (Kardaberaz); *Ekin, beraz: lur gizena baldin bada...* (Ibinagabeitia); *Ekin, bada, ekin, Aita nerea, euskarari* (Larramendi); *Honat, beraz, o Maitea, altxa ezazu...* (Etxeberri Ziburukoa); *Hona, bada, a Jesus ona, zure miserikordian...* (Materre); *Horra, beraz, arima madarikatua...* (Duhalde); *Orai beraz behar diagu jakin* (Gazteluzar); *Orain bada, sinesten duk...* (Etxeberri Ziburukoa).

Horiek bezalako esapideetan ez ezik, guztiz elkarren antzeko diren perpaus luzeagoetan ere aise aurki daitezke *beraz* nahiz *bada*, ezertan bereizten ez direla: *Ene Aita zara; egidazu, beraz, otoi, zeruko ogi hura* (Baratziart); *Egizu, beraz, grazia dibinoaren ama...* (Baratziart); *Jakin behar da bada, emakumeek eduki behar dutela* (J. J. Mogel).

**42.22.2b** Eta ondorioa zeri deitzen diogun argitzeko, hasierako perpaus bikote haiek ere hain bat azaldu bestea elkarri lot dakizkiola badakigu: *Hil da, beraz/bada ez du gehiago sufrituko; Etxeari kea dario, beraz/bada erretzen ari da; Kaleak bustiak daude, beraz/bada euria egin du bart.*

Balio berekoak direla, batzuetan noski eta diakronian bederen, testu beraren itzulpena egiterakoan idazle batek bata eta besteak bestea darabilela ikusten dugunean ageri da ongien. Hona nola itzultzen dituzten Ebanjelioko zenbait pasarte hiru idazle lapurtarrek, hiru mende desberdinetakoek: *Ez da hau Iesus, Iosephen semea, zeinen aita eta ama guk ezagutzen baititugu? Nola dio bada honek, Zerutik jautsi naiz?* (Leizarraga); *Nolatan dio beraz horrek zerutik jautsia dela?* (Haraneder); *Nolaz dio beraz horrek: Zerutik jautsi naiz ni?* (Duvoisin); *Hona, nik igortzen zaituztet zuek, ardiak otsoen artera bezala: zaraten bada zuhur...* (Leizarraga); *Izan zaitetzte beraz prudent* (Haraneder); *Izan zaitetzte beraz zuhur* (Duvoisin).

**42.22.2c** Hori guztia horrela izanik ere, ezin uka *bada* eta *beraz* beste batzuetan desberdinak direla balioz eta erabileraz. Har dezagun, esate baterako, honako bikote hau: *Zergatik huts egin duzu bada trenan?*; *Zergatik huts egin duzu beraz trenan?*

Noiz erabiltzen da bata eta noiz bestea? Zertan datza bien arteko diferentzia, biak erabiltzen dituztenen artean, noski? Demagun trenan huts egin eta joan behar zuen bilerara iritsi ez denari nagusiak gero kontuak eskatzen dizkiola. Hark here burua zuritu eta benetako arrazoia ezkutatu nahirik, gezurretan esaten diola hasieran: “Bai, bai; garaiz atera naiz etxetik”. Eta nagusiak orduan, ez baitio sinesten, honela diotsala: *Bai? Eta zergatik huts egin duzu bada trenan?* Azkenerako, ordea, bere burua galdua ikusirik, aitortzen diola ezinbestean nagusiak susmatzen zuen egia, hots, ohetik berandu jaiki zela, eta nagusiak orduan: *A! Zergatik huts egin duzu beraz trenan?*

Hor garbi ageri da *beraz*-ek adostasuna bezala *bada*-k kontrakoa adierazten duela (edo gutxienez azalpen nahasia eman eta azken arrazoia ondo ulertu ez dela edo antzekoa). Adostasuna eta batez ere oraingoz orokorki kontrakoa deritzaguna zertan datzan ondoren ikusiko dugu.

**42.22.2d** Alde berbera dutela uste dugu hori bezalako beste bikote hauek ere: *Zergatik diozu bada, kristau zarela?*; *Zergatik diozu beraz, kristau zarela?*; *Nork esan zizun bada, etortzeko?*; *Nork esan zizun beraz, etortzeko?*

Testu guztietan hori horrela dela baieztatzea gehiegi litzateke, agian. Are, izango dira batoren orde bestea lasai erabiliko luketela esango dutenak, eta ez da harritzeko, bi DM horien arteko diferentzia oso meharra baita. Halaz ere, uste dugu oro har *bada* desadostasuna eta *beraz* adostasuna seinalatzeko erabiltzen direla.

**42.22.2e** *Beraz*-en forma eta balioa. Jatorriz *bera* erakusle indartuaz eta *-z* kasu markaz osatua dagoen DM honek badu, aipatu bezala, bere eremu propioa, *bada*-k (oraingoz bien arteko alderaketaz ari baikara) nekez bete lezakeena.

*Beraz* erabili ohi da ondorioa delakoa ia garbiro eta osoro aurreko perpausean esana dagoenean, eta deus berririk handik atera ez, baina ia gauza bera beste

hitz batzuekin esaten denean. Adibidez: *Lau senide hil eta hamar bizi gara. -Beraz, hamalau izan zarete.* Gehienetan dedukzio bat adierazten du, burua gehiegi nekatu gabe esanetik edonork aise atera dezakeena: *Konpondu didate autoa. -Beraz, etorriko zara.*

Literaturan maiz erabilia da: *-Hi Aresora eraman hindutela ta etxean hazi zutena hil egin zitzaiela [...]; hamaika ongi helduak eta bat heldugabe jaioa. -Beraz, anaia badugula linboan? (Orixe); Tanke itxura duen makina gaitza dabil maniobratan Harriren auto aurrean, irteera oztopatzen. Itxaron egin behar beraz (Saizarbitoria).*

Axularrengan halakoa da ia beti *beraz*: *Ezdugu oren baten segurantzarik: beraz lehen baino lehen behar dugu bide onean jarri (Axular); Miserikordios da Jainkoa [...]; beraz ez dugu zer lehiaturik obra onen egitera (Axular).*

**42.22.2f** Horregatik silogismo direlakoetan ondorio edo kontsekuentzia deritzana euskaraz *beraz*-en bidez adierazi ohi da: “*Bada* a un sens assez imprécis: en syllogisme on l’utilise pour traduire ‘or’, et c’est *beraz* qui traduit ‘donc’” dio Lafittek (1944: § 400). Esate baterako: *-Duela 51 urte bukatu zen Espainiako gerratea. -Bada gure andreak 50 urte ditu.*

*Orain bada* esan ohi du Axularrek maiz, ez *bada* soilik. Axularren *Gero* bezala ‘diskurtsozko estiloz’ onduriko liburu edo mintzaldietan arrazoibide luze baten edo argudio baten amaiera ere *beraz*-ek seinatu ohi du. Hona aldatuko dugun pasartean garbi agertzen da hori, bai eta *bada* diskurtso markatzaitetik zertan bereizten den ere: *Honelakoak ziren zure aita Jauna eta bai bertze aitzinekoak ere. Bada ez duzu zuk ere zeure arrazaz ukatu, ez zara zeure leinutik eta etorkitik hastandu, berezi eta ez aldaratu. Zeren [...] joan zinen Gorteera, eta [...] ekarri zenuen [...] ordenantza eta manamendua. Beraz ez zara zu ere zeure aitzinekoen giristinotasunaren gibelatzaile izan. Bada ez eta ohorearen iraungitzaile ere. Aitzitik badirudi ezen [...]* (Axular).

Modu berean Oihenartek *Argia* zeritzan emaztekiagana sentitzen duen jaidura zazpi ahapalditan kantatu ondoren, beste ahapaldi honezaz burutzen du bere jarduna: *Beras higanic / Eguin iadanic / Nois naquidina daquidan / Iin, eta noura, / Gorde lekura, / Eta hi han bat aquidan* (Oihenart).

Diogun, hala ere, B. Etxeparek ez darabilela *beraz* behin ere (agertzen diren biak *bera* izenordainaren instrumental kasuak dira).

Inoiz izan daiteke *beraz* batek bere buruan duen eta hasieran adierazten ez duen argudioaren ondorio, *beraz*-ek berak elkarrizketari abiada ematen diolarik, eta, hainbestez, zeren ondorio datekeen geroago arte agertzen ez delako. Adibidez: *-Beraz, bapo aberastu zara, e? -Nola "beraz"? -Bai, loteriak irten dizula esan didate.*

**42.22.2g** *Beraz*-ek ez du perpausean beti leku bera hartzen. Batzuetan perpausaren hasieran ageri da eta besteetan barnean, hau da, beste hitzen baten, mintzagaiaren atalen baten, ondoan. Dena den, diskurtso markatzaile honen kokaguneez legerik ezin eman badaiteke ere, badira haatik zenbait joera argi eta nabari, idazle zaharretan bederen, geroakoetan ez hainbeste.

Oro har, adierazpen perpausetan *beraz* DMaren kokagunea perpaus hasiera da, nahiz ez den ezinbestekoa, geroago ikusiko dugunez: *Beraz beirakia baino perilosago gara* (Axular); *Beraz asko negar egin duk, ene arima, munduan* (Gazteluzar); *Beraz, emazte baten ahoari begiratzten diozu* (Oxandabaratz); *Beraz, ez dago zer erranik* (Jon Muñoz).

Beste diskurtso markatzaile askorekin gertatzen den bezala, perpausaren barnean, aditzaren ondoan joan ohi da *beraz*. Kokagune hau agertzen da, batez ere, aginte perpausetan, galde perpausetan, adierazpen perpausetan zenbait kasutan (luzera, aditzaren argumentua beste perpaus bat denean...: holakoetan, egia, batzuetan amaieraraino ere eramaten da diskurtso markatzailea) eta abar. Esan dezagun, zernahi gisaz, askatasun handia duela DM honek perpausaren kokatzeko, eta ezin dela zehaztu erabilera arauturik, joera nagusiez gain bai baitira salbuespen asko: *Utza zu beraz burutik buruan dabilazun erokeria* (Axular); *Alegera bedi, beraz, berri hauek entzuteaz* (Etxeberri Ziburukoak); *Zer antsia zen beraz hargatik?* (Axular); *Zer egingen dut, beraz, ene Jainkoa...?* (Pouvreau); *Hik diok, beraz, ezen behar zela Iesus Krist gizon egin ledin...* (Leizarraga); *Erran nahi da, beraz, salbatzaileak [...] egin duela* (Larregi); *Ez duzu beraz horietaz zer loriaturik* (Axular); *Barkatuko diozu beraz intendentaren emaztearekiko abentura?* (Jon Muñoz); *Obrak, beraz,*

*esan ez ezik, irakurlearen gogoetamena estimulatu behar du (X. Amuriza); Berak, dio, lurretik da, lur beretikan beraz (Argainaratz); Ez da asmatzen erraz. Zertxobait badira beraz! (Iztueta); Okendo polizia etxera zeramazkiten beraz! (Ugalde); Eskola uzten duzu beraz? (Laphitz); Hedatzen dena disolbatu egiten baita, hil, beraz (X. Amuriza).*

Salbuespenak aipatu ditugu. Hona hemen adibide batzuk (aginte perpausetan hasieran, perpaus barruan bigarren lekuan, adberbioen ondotik... eta abar), itxuraz gutxiago erabiliak: *Beraz paira beza zuhurrak erhoa (Axular); Beraz, Jauna, aitzin bekik zure grazia (Pouvreau); Beraz, Etxebe gaixoa, errazu oioidi, zer da...? (Hiriart-Urruti); Arrazoinetz beraz [...] kondenatu zuen here ondoko guztiekin heriotzera (Axular); Haiak beraz behar dira handizetik begiratu (Axular); Orain, beraz, behar diagu jakin nor den... (Gazteluzar); Horrela beraz, nor da Jesu-Kristo? (Larramendi).*

Batzuetan, ikusten denez, eta beste diskurtso markatzaileekin ere gertatzen den gisan, DM hau mintzagairen segidan kokatzen da, galdegaiaren aurretik. Erabilera arrunta da hori. Galdegaiak eta aditzak osatzen duten multzoa ezin baitu beste elementu batek eten.

Hiru bider dio Axularrek *ez eta beraz...*, *ez*, ordea, inoiz ere *eta beraz*. Hau autore zaharretan ez da aurkitzen bakanka baizik. OEHko zerrendan lehen aldiz Haranederrek darabil, eta ondoren Duhalde: *Duen amodio soberaniazkoa, eta beraz izan al daitekeen ongi-egilerik frankoenarentzat (Haraneder); [...] gogoramendu gaiztoei jarraiki zaie. Eta beraz bere bizian deabruaren zerbitzari izan den bezala...* (Duhalde).

**42.22.2h** Batzuetan *beraz*, diskurtso markatzaile sinplea, ikusi batera adberbioa den beste elementu batez osaturik agertzen zaigu, eta, hala, *beraz honelatan, beraz halatan, beraz horrela* eta abar aurki daitezke liburuetan, nahiz egun ahozko hizkeran ia ezezagunak diren, Hegoaldeko euskalkietan behintzat: [...] *egin zenituzketela urte batez. Beraz honelatan galdu dituzu bertze urte guztiak (Axular); [...] eta bat bertzearen mienbro eta parte. Beraz honelatan elkar onetsi behar dugu (Axular); Ordea benturaz erranen du orain hemen zenbaitek. Beraz halatan, bekatutan negoenean, ez dut zer barurturik*

(Axular); -E. ... *zeinari gizon eginik deritza Jesu Kristo*. -G. *Beraz horrela, nor da Jesu Kristo?* (Irazusta).

Adibide horietan ikusten den bezala, diskurtso markatzaile konposatu hauek perpausaren hasieran doaz beti eta horretan bereizten dira *beraz*-ek perpausaren hartzen duen leku aldakorretik. Ez dira, hala ere, egungo testuetan erabiltzen, ez da lekukotasunik, salbu *beraz horrela* kenduta: *Aski eta gehiegi da beraz horrela berriz ere gaitezen has gai hori harrotzen* (Xarriton).

Merezi du beste puntu bat ere hemen argitzea. Aurrekoen parekoak dira *horrela beraz, hala beraz, halatan beraz, halakotz beraz* eta abar, bi osagaiak elkarrekin trukatuak dituztela.

**42.22.2i** *Bada*-ren forma eta balioa. Loturazko ondoriozko diskurtso markatzailea da hau ere. Mitxelenaren hitzez esateko: “Eso no es más que una manera de ligar una frase con la anterior” (Villasante 1976: 156). Bi perpaus lotzen ditu, hortaz, baina aldi berean lehenaren ondorioa ateratzen. Ikusi dugu zenbait esapidetan eta esalditan *beraz*-en pareko dela, bata nahiz bestea erabiltzen baitira aukeran. Itzultzaileak ere batzuek zein besteaz baliatzen direla ikusi dugu testu berberak euskaratzean.

Garbi dago, hortaz, errankideak direla batzuetan; zenbait esapidetan, *beraz* eta *bada* elkarren lehian agertzen direla. Ez beti, ordea, eta *beraz*-en erabilera propioak eta bereziak zein diren azaldu dugu. Orain *bada*-renak zein diren adieraziko dugu. Hasteko, zenbaitetan *bada* erabiltzen dugu beti, eta ez *beraz*. Honek erakusten digu beste gabe *bada*-ren eremua zabalagoa dela *beraz*-ena baino.

**42.22.2j** Oihu, auhen edo hasperenak dira batzuk: *Ai, ene bada!* (Kardaberaz); *Ene bada, Rachel gaixoa* (O. Arana); *Ene bada ta bada, Arantza laztan hori* (Erkiaga); *Horra bada nire abentura guztia* (J. Zabaleta); “*Tira bada, bizi egin gaituk*”, *esan zuen batek pentsakor* (K. Zabala); *Zer bada, jauna? Oso ongi geunden* (M. Etxebarria); *Aurrera bada!* (Goñi); *Kontuz, bada, kontuz irakurle* (F. Bilbao).

Beste batzuk esaldi eginak dira, gehienetan adizki laguntzailerik gabekoak: *Ez bada jakin!; Ez jakin bada!; Jakin ez bada!* (Apaolaza); *Nik al dakit bada!*;

*Nik zer dakit bada nor nun dabilen?* (Agirre); *Jakina bada...!* (Labaien); *Hor zegok bada!*; *Hor zegok bada koxka!*; *Hor zegok bada hiltzea!* (Lizardi); *Ezin bada...!* (Agirre); *Baietz bada, Martin, egia diotela!* (F. Bilbao); *Ezetz bada!*; *Horregatik bada!* (Labaien); *Banengoen bada!* (Labaien); *Zer egingo da bada!* (Soroa); *Hori zer duk bada!*; *Ni bai bada!*; *Ni ez bada!* (Labaien).

**42.22.2k** Formari dagokionez esan behar da, autore zaharretan —eta ez hain zaharretan— beti osorik idatzirik agertzen den arren, azken ehun urte hauetan gutxi gorabehera *ba* idazteko ohitura oso zabaldu dela, batez ere Hegoaldean eta konkretuki ipuinak edota elkarrizketaz josiriko testuak idatzi dituzten autoreetan, herriko hizkera kutsua hobeki gordetzearren edo; izan ere, eguneroko hizkera bizian hala ahoskatzen da ia beti.

Hedadurari dagokionez, *beraz* bezala, euskalki guztietan zabaldua dago *bada*, lehen eta orain. Zuberera klasikoan gutxiago ageri da. Egia da, hala ere, Iparraldeko euskalkietan ez bezalako hedadura eta bizitasuna ageri duela *bada*-k Hegoaldekoetan, eguneroko hizketan, elkarrizketan, batez ere. Noiznahi esaten da eta entzuten *Etorri ba, Noiz ba?, Ez dakit ba, Joan zaitez ba* eta abar. Areago, hiztun askorentzat isilgabeko errepika bihurtu da, bi hitz segidan ezin esateraino *ba* aldi oro eta une oro tartekatu gabe: *Ba... esango dizut, Ba... ez naiz gogoratzen, Ba... zeuk ikus, Ba... joan den astean*.

Adibide horiek argiro erakusten dute elkarrizketa giroan esanak direla perpaus horiek. Hor du bere bete-beteko lekua *bada*-k, izan ere. Hori sinesteko, aski da testu liburu bat edo zientziazko artikulua bat eskuetan hartzea, eta nekez aurkituko da *bada* bat. Hori gabe, hizkera arruntetik hurbilago dagoen saio antzeko edo ikerlanezko txosten bat hartzea, eta han ere doi-doi agertuko da *bada*. Aldiz, komedia edo antzerki edo ipuin bat hartuz gero, idazle gipuzkoar batek eginga bada batez ere, *bada*-z josia azalduko zaigu.

**42.22.2i** Zer esanik ez, gehienetan alferrikakoa dela edota betegarri hutsa bederen; alegia, testutik kenduta ez du ezer galtzen esanahiak, askoz gutxiago erabiltzen duten Iparraldeko testuek erakusten digutenez. Gehienez ere kaleko eta eguneroko hizkeraren kutsua galtzen du, kalean eta eguneroko hizkeran darabiltenentzat, noski.



Horientzat ere eta horien hizkeran ere *bada* ondoriozko diskurtso markatzailea dela jar lezakete dudan batek baino gehiagok, ezin ikusirik ondoriotasunik zenbait adibidetan. Esate baterako, zertan datza ondorioa honako perpaus hauetan? —*Ama, hemen aspertuta nago.* —*Joan bada kalera;* —*Nik hori badakit.* —*Esan bada!;* —*Hor dago.* —*Non bada?*

**42.22.2m** Eta horrelako beste milatan. Hori garbiro ikusteko, on da konpara dezagun elkarrekin perpaus bikote hau: *Etorri al da?* eta *Etorri al da bada?* Bigarren honetan *bada* darabilenak zerbait ikusi, entzun edo sumatu du bere inguruan etorri behar zuena agian etorri dela pentsarazten diona, eta ikusi, entzun edo sumatu duenetik ondorioztatzen du —dudatan, noski, eta horregatik galdetzen du— etorri dela, berak ikusi ez duen arren, eta horrexegatik darabil *bada*.

Diogun ere bidenabar, gero gehiagotan esan beharko dugun arren, doinuak edo azentuak edo intonazioak asko esan nahi duela *bada* dela eta ez dela, ez baita alferrik jitez eta beregainki elkarrizketako eta eguneroko hizketa biziko hizkia. Hori gertatzen zaio horko *Etorri al da bada?* horretako *bada*-ri. Bi balio eta bi doinu desberdin ditu. Bat: —*Zenbat zahartu den Peru!* —*Etorri al da bada?* Hemen galdera soila da, lehen esan dugun bezalakoa, eta edozein galderaren doinu berbera du. Aldiz, —*Berarekin bazkaldu dut* —*A ze gezurra! Oraindik etorri al da bada!* Hemen ez da galdera, benetakoa ez behintzat, erretorikoa edo baizik. Hor beste hiztun batzuek *Oraindik ez da etorri eta* edo *Oraindik ez baita etorri* esango lukete. Lehengoak ez bezalako doinua du, biak hitzetik hortzera darabiltzatenek ongi dakiten bezala, nahiz erabiltzen ez di-tuenari nolakoa den adierazten oso zaila den.

Ildo beretik, bi erabilera desberdin eta bi doinu dituzte *bai bada*-k eta *ez bada*-k ere. Adibidez: —*Gizendu egin da.* —*Bai bada, behi batek adina jaten baitu;* —*Ito egin da.* —*Bai bada; igerian jakin gabe tapako uretan ibiltzen zen eta;* —*Haitzetan irristatu eta burua hautsi du.* —*Bai bada; arriskua maite zuen eta;* —*Ez da garaiz iritsi.* —*Ez bada; oinez joan behar izan du eta;* —*Ez du aprobatu.* —*Ez bada; aurreko bi egunetan bakarrik ikasi du eta.*

Horrelakoetan lehen perpausaren ezezkoa edo baiezkkoa diskurtso markatzaileak ontzat ematen du eta berresten, bi hizkiak —*ez/bai* eta *bada*— erabat

elkarri loturik ahoskatuz eta lehenean azentua ezarriz. Entzuten dena hau da: *báiba, ézpa*, non *bada* enklitiko bihurtu baita. Eta, jakina, ezin truka daitezke bi hizkiak. Horietan *noski, jakina* edo esan nahi du.

**42.22.2n** Beste hauetan ez da hori gertatzen: —*Ez da berehalakoan gizenduko.* —*Bai bada; gizendu da; —Ez da horratik berriz etorriko.* —*Bai bada; etorri da; —Ez du inoiz ikasiko euskara.* —*Bai bada; ikasi du; —Berak bakarrik egin du.* —*Ez bada; nik ere egin dut; —Egingo nuke jaso duela harria.* —*Ez bada; ez du jaso, egin dituen ahaleginagatik.*

Horietan aurreko perpausaren baiezkoa edo ezezkoa ukatu egiten du DMak; horrexegatik aurkitzen dugu *bai bada* ezezko perpausaren ondoren, eta *ez bada* baiezkoaren ondoren. Ahoskatu ere, elkarrengandik bereiz samar ahoskatzen dira bi hizkiak: *bai-ba, ez-ba*, are gehiago zenbaitetan *eez-ba* ahoskatzen da bigarrena, *e* bituaz. Hau horrela izateak badu gainera zergatik: hor azken batean elisio bat gertatu bide da, eta esan zitekeen —eta esaten da batzuetan— *Etorri da bada, Ikasi du bada* edo *Ez du bada egin!*, *Ez du bada jaso!* Are, lehengoetan ez bezala, hauetan truka daitezke bi hizkiak eta esan: *Bada bai, bada ez.* Horrexegatik kasu honetan *bada* atonua da eta *bai* edo *ez*-ek bereganatzen dute azentua: *ba-bái, ba-éz*; bestean, berriz, *bai-bá, ez-bá* ahoskatzen da, eta, aldiz, azken adibideetan *báiba, ézpa* haietan ez bezala.

**42.22.2o** Hona azkenik beste modu bateko bikoiztasuna: —*Ez du sega apustua irabazi.* —*Nola bada! Ez eta makina balitz ere; —Ez du horrela egin.* —*Nola bada?*

Lehenean *Nola bada*-k apustua ez irabazi izana bidezkoztat jotzen du eta irabazi izanak, irabazi balu, emango ziokeen harridura agertzen. Honek ere elisioa ezkututzen du: *Nola irabaziko zuen bada!* Bigarreanean, aldiz, galdera soilak dugu eta azpian dagoen elisioa bestelakoa da, *Nola egin du bada?*, bataren eta bestearen partizipioek erakusten duten bezala.

Orain arte esandakotik erraz suma daiteke ez dela batere erraza *bada*-ren erabilerara mota guztiak biltzen eta sailkatzen. Hain da ugaria eta ñabarduraz betea. Dena den, zenbait multzotan biltzen saiatuko gara. Hasteko, badirudi sail handi bat egin daitekeela aurreko perpausaren kontrakoa adierazten duen *bada*-rekin.

**42.22.2p** Aurreko perpausaren kontrako bada. ‘Kontrako’ diogunean, *bada*-k bere-berea duela dirudien ñabardura bati gagozkio; alegia, inork esanarekiko mesfidantza, desadostasuna, sinesgogortasuna adierazten du ia beti, baita harridura, haserrea, erronka ere zenbaitetan. Hori horrela delarik, lehen perpausak berekin duen baieztapenak edo ukapenak (ezezkoa denean) sorrarazten du harridura edo mesfidantza. Baieztatu dena gehiegizkoa dela iruditzen zaionak, kontrako erronka egiten du ondoko adibideetan, *bada* erabiliz: —*Nik badakit haren berri*. —*Esan bada!*; —*Ordubetean joan naiteke*. —*Zoaz bada!*; —*Bakarrik egingo dut*. —*Egizu bada!*; —*Ezdiot beldurrik*. —*Emaiozu, bada, lehen muturrekoa*.

Baieztatu edo ukatu dena sinesgarri ez denean, galdera baten bidez ager daiteke duda. Galdera egiteko erabiltzen den galde-izenordainaren edo adberbioaren ondoren *bada* hartzen da diskurtso markatzaile gisa: —*Ez da Mikel joan*. —*Nor bada?*; —*Ni ez noa gaur*. —*Noiz bada?*; —*Ez da horregatik etorri*. —*Zergatik bada?*; —*Ez du hori esan*. —*Zer bada?*

Horietan eta ondokoetan *bada* ondoriozko diskurtso markatzaile dela bistanda. Hondarraren hondarrean galdera egiten duenak honako gogoeta baldintzazko hau egiten du: *Mikel ez bada, nor da?*, eta baldintzak berarekin darama ondorioa. *Nor da, hortaz?* ere esan lezake eta *hortaz* ere ondoriozko diskurtso markatzailea da. Bestalde, ezezko perpausak ukatu duen elementuari zuzen dagokion galde-izenordaina edo adberbioa erabili da lehenbiziko adibidean. Halakorik ezin egin daiteke, ordea, lehen perpausa baiezkkoa denean. Orduan, galdera itzulinguru baten bidez egin behar da, aditz sintagma ere isildu gabe. Esate baterako, —*Jakinaren gainean dago*. —*Zergatik ez digu, bada, kontatu?*; —*Han izan da*. —*Nolatan esan digu, bada, ezetz?*

Aukera bera izan dezakegu lehen perpausa ezezkoa denean ere: —*Ez dago hemen*. —*Nora joan da bada?*; —*Hori ez diot entzun*. —*Zertan pentsatzen ari zinen bada?*; —*Nik ez diot esan*. —*Nola daki bada?*; —*Ez zuen sinetsi*. —*Nolatan esan zion, bada, baietz?*

Galdera egiazkoa baino gehiago erretoriko deritzana izan daiteke, alegia erantzuna hartzeko asmoz egiten ez dena: —*Horrek irakatsiko dizue*. —*Horrek zer daki bada!*; —*Antton atzeman omen dute han*. —*Antton han izan al da bada!*

Diogun, bidenabar, sasi-galdera hauek, erretoriko hutsak direlakoxe, onartzen dutela adizkia forma alokutibo delakoan: *Nola etorriko duk bada, ama hil zaiok eta; Nola ez dik, bada, jakingo, beti ikasten ari duk eta.*

**42.22.2q** Baiezko perpausaren bidez agindua edo ezezkoaren bidez debekua ematen denean, aginterazko adizkiaz noski, kontrako iritzia edo desadostasuna honela agertu ohi da: *—Zoaz mezarara. —Zu ez zara, bada, joaten!; —Emaiozu dirua. —Zuk ez diozu, bada, eman!; —Ez ezazu jo. —Zuk jo duzu, bada!; —Ez zaiozu irri egin. —Zuk egin diozu, bada!*

Agintzen nahiz debekatzen denarekin ados egon edo ez egon, agindua edo baimena alferrik dela edo berandu emana dela ere modu berean adierazten da: *—Ordu erdi barru hemen egon dadila, gero! —Bada, oraindik ohean dago; —Ez dezala jakin, e! —Bada, esan diot; —Ez jan hori, Jainkoaren izenean! —Bada, nik jan dut.*

Errebelamendu, erronka kutsua ere izan dezake bigarren perpausak: *—Ez gero aitari esan. —Esango diot bada; —Ez ezazu anaia jo. —Joko dut bada; —Joan zaitetz ohera. —Ez naiz bada joango.*

**42.22.2r** Debekurik edo agindurik eman gabe ere modu bertsuan adierazten dugu inork esanarekiko desadostasuna, duda edo mesfidantza: *—Dena daki. —Bada, ez digu ezer esan; —Goizean etorri da. —Bada, inork ez du ikusi; —Lehengo astean bidali nizun. —Bada, oraindik ez dut hartu; —Nik ez diot esan. —Bada, norbaitek esan dio; —Nik hori ez dut nahi. —Bada, hori eskatu zenuen atzo.*

**42.22.2s** Harridura adierazten duenean *bada* markatzaileak, orain artekoe-tan ez bezala, baiezko perpausari formalki baiezkoa den beste perpaus batez erantzuten zaio; eta ezezkoari ezezkoaz, baina honek, harridura adierazten duelarik, esanahia baiezkoa du, *Nola ez bada!* esango balitz bezala. Seinالاتzekoak dira, gainera, ezezkoetan, bai hartzen duten aspektua (hots, hirugarren partizipioa), bai eta ‘partizipioa + ez + adizkia’ ordena: *—Kanpandorrraino igo zen. —Ausartu zen, bada, mukizu hura hori egitera!; —Oinez etorri zen Donostiara. —Ibili zen, bada, hainbat kilometro bakarrik!; —Ez zigun idatzi. —Idatziko ez zigun bada!; —Egingo nuke ez dela jaiki oraindik. —Jai-kiko ez zen bada!; —Ez zekien. —Jakingo ez zuen bada!*

Harridura ez ezik, zerbaiten nahitaez gertatu beharra ere adierazten da besteetan. Hauetan lehen perpausa baiezkoa izanik, ezezko perpausak ‘partizipioa + ez + adizkia’ egitura du (ikus berriaren pare-parekoa): —*Batek eman ahala jaten du.* —*Horrela gizenduko ez da bada!*; —*Bakarrik bizi da.* —*Aspertuko ez da, bada!*; —*Berrogei kilometro ibiltzen da egunero.* —*Horrela nekatuko ez da, bada!*

Hauetan, gainera, ‘gizena dagoela’, ‘aspertuta dagoela’... presuposizioa dago. Aldez aurretik horrelako usterik ez badago, ez da besterik gabe hotz-hotzean halako erantzunik ematen.

Gertatu beharra ez, baizik inoren lotsagabekeria eta ausardia azpimarratu nahi denean aditz sintagma taxu berean erabiltzen da: *Txerria deitu ez zidan, bada, kakati hark!*; *Gezurretan ari nintzela esan ez zidan, bada!*; *Aurpegira txistua bota ez zidan, bada!*; *Lehen ekarri nion zetazko txano bat polita gero bere koxkabilo batera eta bestera eroriaz, eguraldi ona edo txarra adierazten zuenarekin. Eta ez zuela hartuko ez zidan esan bada!* (Altzaga).

Hona, azkenik, beste elkarrizketa molde luzeago hauek, non lehen aipaturiko bi mota agertzen baitira: —*Eska ez aiozu berari.* —*Nola eskatuko diot, bada!* —*Eskatuko ez diozu bada, zure laguna izan eta!*; —*Har ezazu nere dirua.* —*Nola bada!* —*Hartuko ez duzu bada, behar baduzu!*; —*Berak esan omen dio.* —*Nola esango zion bada!* —*Zergatik ez zion bada, esango, baldin egia bada!*

**42.22.2t** Baditu diskurtso markatzaile honek lagunarteko hizkerako zenbait erabilera ere. Hala, badira beste bi solas mota, orain arte aipatuetarik aski desberdin direnak eta eguneroko hizkeran *bada* maiz daramatenak. Biek dute gauza bat erkide: alegia, inork eginiko galderari perpaus bakar batez erantzun beharrean, beste perpaus batez gehi *bada*-z erantzuten zaio. Hala nola: —*Nora eraman duzue autoa konpontzera?* —*Nola dagoen Igeldo bidean garaje bat... bada haraxe;* —*Nora eraman duzue autoa konpontzera?* —*Badago bada Igeldo bidean garaje bat... bada haraxe.*

Elkarrizketa gabe, prediku edo hitzaldi batean, entzuleak egin uste dion galdera hizlariak berak asmatzen du eta egiten bere buruari, eta lehengo modu bertsuan erantzuten: *Zergatik gertatzen den hori? Bada, askok ez dakitelako ongi bizitzea zer den ere; Nola jakin dudan hori? Bada, batari eta besteari behin*

*eta birritan galdeginez; Galdetuko duzue agian, ea zergatik atzerrikoen historia eskribitzen dudan, Euskal Herrikoak utzita; bada, bi arrazoigatik egin dut (Goñi).*

**42.22.2u** Orain arteko ia adibide guztiak eguneroko hizketa, elkarrizketa, bititik jalkiak dira. Esan dugu behin eta birritan hor duela bere leku aproposa *bada* diskurtso markatzaileak. Hor bakarrik ez, ordea, eta aipatu dugun azken adibidea liburu batetik eta liburuaren berri ematen ari den egileak dioenetik ateria da, ez elkarrizketa batetik.

Horrek bide ematen digu *bada*-k goi mailako literatura testuetan duen erabilera aztertzeko, batez ere ‘estilo diskurtsibo’ delakoaz ehotako liburuetan, hots, egileak zerbait kontatzeko edo frogatzeko solasaldi lauaz, lasaiaz eta soseguzkoaz ontzen dituenetan. Horietan ere agertzen baita *bada*, lehen eta orain, Hegoaldeko eta Iparraldeko testuetan. Zuberera izan liteke salbuespen bakarra, *beraz*-en kasuan bezalaxe, nahiz badiren adibide batzuk: *Dugun bada erran herioak gizonari grazia eta kortesia egiten diola* (Tartas); *Eia bada, ene anaia maiteak, goazen elkarrekin, Jesus gurekin dateke* (Maister).

Baina, bestela, *bada* lehenagokoen ere erabiltzen dute, Etxeparek, Leizarragak eta Axularrek, esate baterako, gehiago ez aipatzearren. *Beraz* baino askoz sarriago, gainera; Axularrek, adibidez, bi bider gehiagotan. Ez dirudi, hala ere, elkarrizketan adina ñabardura duenik; ezin izan ere, halako ñabardurak izatea elkarrizketari dagokion bereizgarria baita, aise aditzen den bezala, eta ‘estilo diskurtsibo’ delakoari, aldiz, berez zor baitzaio neutroagoa izatea, alegia usainik, kolorerik eta zaporerik gabea, gabeagoa behintzat. Horrenbestez, ezin espero dezakegu *bada*-k era horretako liburuetan besteetan bezainbat erabilera mota izan ditzan batetik, ez eta hauetakoetatik oso desberdin izan daitezen bestetik, azken batean ondoriozko diskurtso markatzailea baita hain batzuetan zein besteetan.

**42.22.2v** Bestalde, argudioz, arrazoinamenduz eta gogoetaz ehoa izatea baita honelako liburuen bereizgarri nagusia, bidezko dirudi *bada*-k horietan argudioak eta arrazoiak elkarri lotzea perpaus soilak baino gehiago. Nola lot, ordea? Ikus dezagun pare bat mota.

*Beraz-ek, ikusi dugunez, argudio, arrazoinamendu edo solasaldi bat burutzen eta azkentzen duen bezala, bada-k askotan argudio berriari, beraz-ek burutu duenarekin zerikusia duenari eta hura osatzen eta biribiltzen duenari, irekitzen dio atea eta ematen hasiera: Honelakoak ziren zure aita Jauna eta bai bertze aitzinekoak ere. Bada ez duzu zuk ere zeure arrazaz ukatu [...]. Zeren [...] joan zinen Gortera eta [...]. Beraz etzara zu ere [...]. Bada ez eta ohorearen iraungitzaile ere (Axular).*

Bertrand Etxauzen aitzinekoak nolakoak ziren kontatu ondoren, lehenbiziko bada-ren bitartez argudio berriari (*ez duzu zuk ere...ukatu*) ematen dio hasiera; Bertrand Etxauz bera ere aitzinekoen gisakoa dela frogatu nahirik. Eta argudio berri hori garatzean eta honen ondorioa beraz-en bidez adieraztean, berriz ere beste argudio berri bati (*ez eta ohorearen iraungitzaile ere*) ekiten dio, bada aurrean ezarririk.

Horrenbestez esan daiteke beraz-ek bere aurreko solas zatiari egiten diola erreferentzia, esana bildu eta hura burututzat eta frogatutzat ematen duela. Bada-k, aldiz, ondoko solas zatiari egiten dio, hura iragartzen du, hari begiratzen eta hartara igortzen du irakurlearen arreta. Beraz-en ondoren esaten dena lehen ere esana dago nolazpait, ezaguna du irakurleak gutxi gorabehera aurreko lerroetatik. Bada-ren ondokoa, aldiz, ezezaguna eta berria da, mintzagai berria.

Ikus, esate baterako, Leizarragaren pasarte hau. Testamentu Berriaren itzulpena erreginari eskaini diola eta, beldur da arinkeriaz eta harrokeriaz salatuko ote duten, baldin hartarako izan dituen arrazoiak agerian jartzen ez baditu. Eta bada-ren bidez ekiten dio arrazoiak azaltzeari: *Andrea, zeren [...] dedikatzera ausartu izan naizen, merezi onez arintasunez akusa ahal nendin, baldin [...] zerbait eskusa eman ez baneza. Bada, niri hau eragin didaten anitz bertze arrazoinen artean izan dira [...].* Eta ondoren bi arrazoi aipatzen ditu. Argudio berriari bidea zabaltzen ere dio, aurrekoa burutu dela beraz-en bidez aditzera eman gabe ere, honetarako aski baita argudio berria puntu eta aparte batean hastera, esate baterako, edota beste modu batera ere bai, orain ikusiko dugun bezala, eta maiz bietara batean. Hona Axularren pasarte hau, askoz gehiagoren artean hautatua: *Badakit halaber ezin heda naitekeela euskarazko mintzatze molde guztietara. Zeren [...] mintzatzen baitira Euskal Herrian:*

*Nafarroa garaian [...] Ez dituzte euskaldun guztiek [...] zeren erresumak baitituzte diferent. Bada eskribatzeaz denaz bezainbatean ere ez naiz egiteko gabe. Zeren [...]* (Axular).

Garbi dago hor Axularrek “euskarazko mintzatze molde” edo euskalkiez esan nahi zuena bukatzean, argudio berriaz, “eskribatzeaz”, hitz egitera pasatzean, honi ataka *bada*-ren bidez zabaltzen diola, puntu eta aparteaz baliatzeaz gainera, *ere*-ren bidez argudio berria dela seinalatuz edo azpimarratuz. Orobat egiten du beste pasarte askotan.

**42.22.2x** Aurreko ataletan aipatu ditugun adibideek ongi erakusten dute *bada* ere, *beraz* bezalaxe, oso mugikorra dela perpausean eta lehen burutik azkeneraino edozein leku har dezakeela. Hemen ere, haatik, *beraz*-en kasuan bezalaxe, seinala daitezke zenbait joera nagusi. Eta joera nagusi horiek ez dira *beraz*-en berberak baizik, biek baitute jokabide bertsua perpausaren barnean hartzen duten lekuari dagokionez.

Perpausaren hasieran agertzen da *bada*, baldin ondorioa adierazpen perpausaren bidez emana badago: *Bada, neure maitea, nik diotsut egia* (Etxepare); *Bada hau berori gertatzen da alfer dagoena baitan ere* (Axular).

Perpausaren barnean, aditzaren ondoan aurkitzen dugu maizenik aginte perpausetan: *Biz bada, otoi, zure Maiestatearen plazera...* (Leizarraga); *Errezibi ezazu bada, defenda ezazu, aide zakitza* (Axular). Aditzaren, sintetikoaren nahiz analitikoaren, ondo-ondoan doa *bada*, perpaus hasieran: *Bada, zareten bizi elkharrekin sailduki* (Leizarraga); *Bada biz hala, zuk diozun bezala eta...* (Axular). Galde perpausetan ere aditzaren atzean kokatu ohi da markatzaile hau: *Nolatan duzu bada uste hainbat denboraz?* (Axular); *Zer erokeria da bada hau...?* (Axular).

*Hala, horrela* bezalako zenbait adberbio galdegai denean, eta horrenbestez aditza jarraitzen zaionean ere perpausaren barnean eta aditzaren ondoan agertzen da *bada*: *Hala bihurtzen da bada bekatore nagia ere* (Axular); *Hala edireiten ditugu bada guk ere okasioak* (Axular). Hemen ere ez dira falta, ordea, diskurtso markatzaile hau bigarren posizioan eta galde hitzaren ondoren dararmaten adibideak: *Zeren bada ez zaie Betleena aitzindu?* (Etxeberri Ziburu-



koa). Eta *beraz*-ekin gertatzen den bezala, *bada* perpausaren barnean, aditzaren ondoan, kokaturik dugu ondoko adibideetan, nahiz adierazpen perpausak izan; aipatzekoa da, dena den, aditza dela lehen elementua, beraz, markatzailea bigarren posizioan doala: *Bekatu egin diagu bada, Jauna, eta anitz...* (Leizarraga); *Ez litzateke bada arrazoi zuk ere bitarte hartan...* (Axular).

**42.22.2y** Nolanahi ere, joera horiek, salbuespenak gorabehera, goi mailako literatur liburuetan betetzen dira batez ere, zaharrago eta gehiago. Mende honetako zenbait liburutan, aldiz, hauetako hizkera herrikora eta kaleko elkarrizketaren hizkerara gehiago hurbildu izan den neurrian, mugikorrago bilakatu da eta zenbait perpaus motatan leku bata nahiz bestea hartzera lerratu. Hala, honako perpaus honetan edozein lekutan aurki daiteke *bada*: *Bada, nik ez diot eskatuko. Nik ez diot bada, eskatuko. Nik ez diot eskatuko bada; Zertan, bada, ari zinen pentsatzen? Zertan ari zinen, bada, pentsatzen? Zertan ari zinen pentsatzen bada?*

Bi lehenak hirugarrena baino maizago erabiltzen direla dirudi. Baina horrelako ereduak oso gutxi dira, eta ezin esan daiteke herriko hizkeran berean *bada*-ren kokalekuak inolako araurik edo joerarik ez duela eta edozein lekutan ezartzea zilegi dela. Esan dezagun joera nagusiak hauek direla, lehenago esana laburtuz: *Nor bada?; Zergatik ez digu, bada, kontatu?; Nora joan da bada?; Horrek zer daki bada!; Nola etorriko duk bada, ama hil zaiok eta!; Zuk jo duzu bada! / zu ez zara bada, joaten!; Joango naiz bada!; Idatziko ez zigun bada! / ausartu zen, bada, mukizu hura hori egitera!; Horrela gizenduko ez da, bada!; Txerria deitu ez zidan, bada, kakati hark!; Nola eskatuko diot bada! / Eskatuko ez diozu bada, zure laguna izan eta!*

### 42.22.3. Hortaz

**42.22.3a** *Beraz*-ek bezala, *-z* kasu marka instrumentala darama izenordain honek, eta ondoriozko diskurtso markatzaile gisa erabiltzen dugu. Erroa, bestalde, bigarren pertsonako erakuslea da. Beste diskurtso markatzaileak baino gutxiago erabili izan da tradizioan, eta batzuetan zail da bereizten zinez dis-

kurtso markatzailea den edo, besterik gabe, instrumentalean doan erakuslea. Hala ere, badirudi zenbait kasutan bederen diskurtso markatzailea dela, beste batzuetan duda zerbait baldin bada ere. Gaurko idazkietan, aldiz, errazago egiten da bereizketa *hortaz* DMaren eta *horretaz* erakuslearen artean. Gaur asko erabiltzen da.

Perpausaren hasieran: *Leitzarrek hasi dira: ‘gurea gorago’; hortaz, sartu behar dik aizkora barnago* (Orixe); *Gurasuari ikasia da / ez degu ezer osturik / ortaz euskeraz ikasitzen guk / ez degu egin kasturik* (Uztapide); *Hasiera duk polita; hortaz, hasi gaitezen ahalik eta gehienetan* (Txillardegi); *Dantzan eta dantza ondoan beti galtza tartean ibiltzen omen duk eta [...] -Hortaz, ez zaio senargai aukerarik faltako, ekin zion maltzurki Allandek* (Etxaide).

Perpausaren barnean ere aurki daiteke: *Jainkotzat hartzen bide gaitu lehenengoak; sorkaritzat, ordea, bigarrenak. Hau dago, hortaz, bestea baino sus-traiuko egiatik bertago* (Txillardegi).

Eta perpausaren bukaeran —hobe litzateke esatea, beharbada, ez hasieran— *hortaz* dutenak ere ageri dira: *Horrenbesterekin esan dut ez dudala Oihenart poeta bezala gutxietsi nahi. Egiazko poeta dugu hortaz?* (Mitxelena); *Zertan da handi? Libururik gehienak nobelak ditu. Nobelagile handi dugu hortaz?* (Mitxelena).

**42.22.3b** Beste diskurtso markatzaile baten arrimuan ere ager dakiguke zenbaitetan. Hala sortzen da *hortaz bada*, elkar indartzen duten bi ondoriozko DM elkartzuz sortua: *Gainera, langileek hartu beharra zuten beren soldata eguberriko sari berexi batekin. Hortaz bada, goiz guzia igaro zuten lan horretan* (Izeta); *Hortaz bada, hemendik aurrera lan egingo duzu, zure kopetako izerdiz irabaziko duzu ogia* (Montorio).

#### **42.22.4. Orduan**

**42.22.4a** Formari eta jatorriari bagagozkie, izen arrunt bat dugu hori inesibo kasuan. Jakina da gero denborazko adberbioa izatera luzatu zela (*orduan(txe)*)

*ezagutu nuen*), eta gero, ez oso aspaldi literaturan bederen, diskurtso markatzaile eginbideetarako gaitu zuela eguneroko hizkerak, ahozkoak batez ere eta erro handiak egin, gainerako diskurtso markatzaileei lur handia jateraino.

Hitz horren hiru balio horiek zenbait perpausetan ez da batere erraza bereizten eta zeinetan ari den erabakitzen: sintagma arrunta da, ala denborazko adberbioa, ala diskurtso markatzailea? Honako honetan, adibidez: *Orduan bost kilometro ibili zen*.

Hiru balioak datozkio ongi: ‘Ordubetea bost kilometro...’; ‘Harako egun hartan...’; ‘Beraz bost kilometro...’.

Testuinguruak eta ahozko hizkeran gehien erabiltzen baita, horrek dituen lagungarri guztiek, hizkera doinuak, ahoskerak, imintzioek eta abarrek argitzen dute aldian-aldian zein den benetako esanahia.

**42.22.4b** Diskurtso markatzaile dena da guri hemen dagokiguna. Hegoaldean bezain zabaldua dago gutxi gorabehera Iparraldean. Han eta hemen, hala ere, literaturan baino eguneroko hizkeran eta hizkera horren ispilu izan nahi duten liburuetan gehiago. Baina han bezala hemen, ez oso aspaldidanik, literaturan bederen. Eguneroko hizkeran noiznahi entzuten dira honako hauek: *Orduan, zer?*; *Zer ari zara, orduan, marmarrean?*; *Ez esan orduan, zeuk egin duzula*; *Zuk ere ez dakizu, orduan?*; *Orduan, hobe duzu ohean jarraitu*.

**42.22.4c** Perpausean hartzen duen lekuari dagokionez, adibide horiek eta liburuetatik harturiko beste hauek garbiro erakusten digute DM mugikorra dela hau ere, leku bat zein bestea hartzen baitu. Hona lehenik zenbait adibide *orduan* hasieran dutenak: *-Mundakatik urreko baso-etxe batekoa. -Orduan jakingo dituzu baserriko arazoak?* (Etxeita); *-Derrigorrean dator. -Orduan ez dut hitz egin nahi* (Barriola).

Baina asko dira *orduan* perpaus barnean dutenak ere, eta ez nahitaez galdezkoak direlako, bestelakoek ere hantxe baitaramate. Adibidez: *-Menditarte baten sartu arren mendian beste aldetik ikusi; baita haitzulo baten sartuta ere, baita, ahal balitz, itsasorik sakonenaren hondarrean jarrita be, tramankuluak argiro ikusiko luke. -Berorrekin orduan, ez da gauza ezkuturik munduan*

*izango* (Kirikiño); -*Berez motela bada, eskola gora-behera, beti motela.* -*Zuk dinozunetik eskola jakiteak ez dauka orduan halako alde on handirik* (Kirikiño); -*Zuk badakizu ontsa bizkitartean.* -*Nik ba.* -*Ama da, orduan, ez dakikena* (J. Etxepare); -*Zer munta du gero, nik badezaket haiek ez dezaketena?* -*Zatoz orduan, da berehala; banoa erregeren bila* (Barbier).

**42.22.4d** Beste hainbat diskurtso markatzailearen azterketan ikusi dugun bezala, *orduan* ager daiteke juntagailu batek gauzatzen duen bi perpausen arteko lotura indartuaz, juntadura horri ñabarduraren bat erantsiz. Ondoko perpausetan *baina* juntagailuaren ondoan doa aztergai dugun DMA: -*Eta nola deitzen zinen munduan, ez banaiz ausartegi?* -*Haurmaite.* -*Baina orduan, euskalduna zara, eta ezagutzen zaitut segurki* (Barbier); *Nik soldaduzkari ihes egingo nioke, itsuak lagunduko lidake, baina, orduan, betiko aldendu beharko genuke* (Altzaga).

Egia da azken adibidean *orduan* anbigua dela, DMtzat nahiz adberbiotzat har daitekeela berez, ‘une hartan’ edo antzeko adieran alegia. Hala ere, diskurtso markatzaile balioa nagusitzen dela esango genuke.

*Bada* DMarekin batera ere aurkitu dugu, biek elkar indartzen dutela: -*Ez, ez, nire dirurik ez duk ikusiko.* -*Orduan zelan joango naiz bada?* (Kirikiño). Hor galde-razko perpausa da; holakoetan *orduan* hasieran nahiz bukaeran joan daiteke.

### 42.22.5. Honenbestez, Horrenbestez, Hainbestez

**42.22.5a** Diskurtso markatzaile hauen oinarrian, izenordain erakusle genitiboaren forma singularrak daude (*honen-*, *horren-*, (*haren* >) *hain-*). Horiei *beste-* izenordaina eransten zaie segidan, kasu instrumentalaren markarekin. Ager daiteke, hala ere, kasu soziatiboaren markaz ere, hots, *honenbesterekin*, *hainbestenarekin* eta abar: *Paganoek etsitu zuten noizbait martir sailduaren erretzen ikustea. Orduan burrego batek, iganik egur metaren gainera, sartu zion ezpata bihotzean. Eta hainbertzenarekin haren arima saildua hegaldakatu zen Jesus jaunaren besoetarat* (Joanategi); *Aldeko iturrian xurga xurga edanik, badut uste lo kuluxka bat ere egina nuela, noiz eta ere iruditu baitzi-*

*tzaidan, burrunba mutu ilun bat, urrun-urrundik heldu, entzuten nuela. Xutitu nintzen, eta, hainbertzenarekin, burrunba sumatu nuen nireganik hurbilago (Barbier); Egun berean bost mitin eman zituen eta hainbestenarekin ahotsik gabe geratu zen.*

**42.22.5b** Hori bakarrik ez, *-beste-* gabe joan daiteke bigarren osagaia. Iparraldean *-beste* baino gehiago erabiltzen da *-bat*: *honenbat* (*hunenbat*), *horrenbat*, *hanbat*. Azken hori da sozietate kasuan (*hanbateki*) Iparraldeko autore zaharrek gehiena erabiltzen zutena, zuberotarrek bederen. *Halatan* ere erabiltzen dute zubereraz (Tartasen hizkeraz, esate baterako): *Orok erraiten zioten [...] inmortal zela [...]; hanbateki, herioa baitzen bertze gizon ororen gehien eta jaun, bere armak haren kontra galtzen zituela, hura zela gizonen erregea eta herioaren nagusia eta jauna* (Tartas); *Ikuiluko zekorrik ez da zergatik hil; zerri hil berria neskak labean atzo opil: honenbestez badute gosea nola isil* (Orixe); *Horrenbestez, garrantzitsua da gauzak pixka bat argitzea* (Elberdin).

Ia gainerako diskurtso markatzaile guztiak bezala, jatorriz, adberbioak dira; baina, besteak legez, perpausean (mintzagaiaren atalen baten ondoren) hartzen duten lekuagatik, aurretik esanarekiko duten anafora balioagatik... DM bihurtu dira. Areago, hauek, DM bihurtzen diren beste adberbio asko ez bezala, ezin dira inoiz galdegai izan; ezinezkoa da *honenbat* (gaur gutxi erabilia) edo *horrenbestez* galdegaiaren lekuan ezartzea.

#### 42.22.6. *Halatan, Hala*

**42.22.6a** Jatorriz, *halatan* diskurtso markatzailea *hala* moduzko adberbioaren forma luzatua, indartua baizik ez da, *nolatan* galdezkoari zuzen-zuzen dagokiona. Horren kidea, lehen mailako erakusletik sortua, gorago ikusi dugu *beraz honelatan* (§ 42.22.2h) diskurtso markatzaile konposatu ondoriozkoa osatuz. Ez da harriztekoa, hortaz, orain *halatan* aurkitzea balio berarekin eta bi modutara, gainera: *beraz* DMA indartuz ez ezik, bakarrik ere bai. Honetan desberdintzen da *honelatan*-etik; honek ezin baitu berak bakarrik DMA osatu, *beraz*-i lagunduaz azaldu behar du.

*Halatan* bera bakarrik diskurtso markatzaile balioan batez ere zubereraz aurkitzen dugula dirudi, euskalki horretan *beraz* guti baita ageri, lehengo mendeetan bederen. Horren lekua edo hutsunea betetzen bide du *halatan*-ek: *Ontsa biziren denak eta ontsa hilen, behar du zuhur izan [...] eta jagoiti gizona ez emaztia ez dira zuhur [...] ez badute herioa gogoan. Halatan ontsa bizi eta ontsa hil nahi denak hauta beza [...] herio bere bihotzean...* (Tartas); *Plumak iskiribatzen dituen gauzak mendez mende diraute, eta beti dira mintzo [...]. Baina hitzak fite iragaiten, eta ahanziren dira [...]. Halatan predikaria mintzo deino, haren predikua ere bizi da* (Etxeberri Sarakoa).

Azken adibide horretan nabarmena da *beraz*-en pare-pareko balioa duela *halatan*-ek.

Eman ditugun adibideetan, bestalde, *halatan* DM balioan erabiltzen den ala jatorrizko adberbio balioa gordetzen duen zalantzak sor dakizkiguke; baina, oro har, guztietan DMtzat har daitekeela iruditu zaigu.

**42.22.6b** Juntagailua indartuz ere ager daiteke: *Gure bekatuak [...] garbi eta xuri gertatzen baitira [...]. Eta halatan deabruak ordu hartan ez du eskurik ez zuzenik bekatuak ez den lekuan. Hanbateki arima hura Jainkoaren da...* (Tartas); *Hala bada guk ere geure bekatuak konfesatzen ditugunean, behar dugu geure gogoa, eta bihotza, intentzione gaizto guztietarik alde guztiz hustu, xukatu, garbitu; eta halatan, ura egotu den ontzia bezala, bat ere hondarrik, kutsurik, eta bekatuaren usainik, eta urrinik gabe gelditu* (Axular); *-Baina, jaun erretoea, erranen didazu, zer duen ene senarrak holako afera polizia horrekin? -Hori berek dakite. -Hala, ene senarrak gorde dit zerbait?* (Larzabal).

## 42.23. Kausazkoak

### 42.23.1. Sarrera

**42.23.1a** Kausazko diskurtso markatzaileak aztertuko ditugu atal honetan. Harrigarri gerta lekiok norbaiti nolatan Hegoaldean eta literatura tradizioan bederen, oso erabiliak ziren batzuk —hala nola, *alabaina*, *bada*— egungo

egunean, zeinen gutxik ezagutzen dituen. Beste bat, berriz, *zergatik*, —bizkaieraz, *zegaitik* (*ze*)— bizi-bizirik dago oraindik Hegoaldeko hiztunen artean, baina idazleek muzin egin diote, *zeren*-i lehentasuna ez ezik ia bakartasuna emanik.

**42.23.1b** *Kausa* izen orokorraren pean filosofiarekin zer ikusi gutxi duten arrazoi, motibo, aitzakia, estakuru, esplikazio eta abar direnak sartu ohi dira. Hitz gutxitan esateko, nola edo hala *zergatik*, *nolatan*, *zer dela-eta* eta antzekoi erantzuten dieten perpausak sarritan DM batez hasten dira. Hauei deituko diegu kausazko diskurtso markatzaile. Zer esanik ez, menderakuntzaren saillean agertuko zaizkigula galdera horri erantzuteko molderik gehienak. Horiek ez dagozkigu hemen eta orain; horietan menderagailuak agertuko dira, eta gu hemen diskurtso markatzaileez ari gara.

Gero esango dugun bezala, bakoitzaz jardutean, *zeren* (edo *zerren*) euskalki guztietakoa izan zen, guztietan erabilia; besteak, aldiz, Hegoaldean bakarrik; *bada* eta *alabaina* ere bai, kausazko balioz.

### 42.23.2. *Zeren*

**42.23.2a** Jatorriari dagokionez ez da dudarik, *zer* galde hitzaren genitiboa da, eta hala da oraindik Etxeparegan: *Zeren bada ero gara gaixo bekatariak?* (Etxepare).

Ade horretatik ez du juntagailu nahiz DM izateko *zergatik*-ek baino eskubide gutxiago ez gehiago; bata bezain galde hitza da bestea ere jatorriz, alegia hitz azentuduna: *zerén*. Azentua galdurik, erlatibo bezala jokatzera pasa zen gero. Ikus Etxepareren bertso hauek: *Ez dut egin gaizkirik ukaiteko perilik / ez eta ere zeren gatik behar dudan auzirik* (Etxepare). DM eta juntagailu izatera ere iritsi da, atono gisa noski.

Iparraldean betidanik bizirik egon da, nolazpait esateko, eta orain ere hala dago literaturan nahiz ahozko hizkeran. Hegoaldeari gagozkiola ezin esan dezakegu gauza bera. Ehun urtez edo literaturan ia batere erabiltzen ez zelarik,

euskara batuarekin batera hasi zen berriz indarra hartzen. Berriz diogu, *zeren* Gipuzkoan eta Bizkaian bederen XVIII. eta XIX. mendeetan bizi-bizirik egon baitzen, ia idazle guztiek *zerren* forma erabiltzen zutela. Azken urteotan goral-di handia egin du eta Iparraldeko forma *zeren* noiznahi irakurtzen eta entzuten da, ia guztiz errankide diren *zergatik*, *bada*, *ezen*... bizkaierazko *ze* eta besteren baten kaltetan.

**42.23.2b** Gehienetan menderagailu gisa erabiltzen da, eta orduan *bait*-aurrizkia nahiz *-en* atzizkia hartzen ditu adizkiak. Hemen diskurtso markatzaile soila deneko erabilera aztertuko dugu.

Batzuetan, nahitaez gertatzen da *zeren* diskurtso markatzaile; hala nola *zeren* horrek gobernatzen duen adizkia —perpau nagusiaren zergatikoa adierazten duena— testuan aipamen gisa sartzen diren norbaiten hitzen artean aurkitzen denean eta, hainbestez, adizkian eraginik gabe gelditzen. Adibidez: *Hori horrela da, zeren aitak dioen bezala, “Nik dut beti arrazoia”*. Hor *zeren*-i dagokion aditza *dut* litzateke teorikoki, baina aipamen ezin aldatuzko batekoa baita, ez du harengan batere eraginik. Hor *zeren* perpausetik kanpo dagoen zerbait da.

Horren antzekoa da Axularren hau: *[...] peril du [...] arropa forraturik beharko ez duen. Zeren Klimako sainduak dioen bezala, balentia handia da egunean eguneko deskarguaren egitea* (Axular). Hori are garbiago ikusten da aipamena beste hizkuntza batean egina denean: *Zabiltza erne, zeren “No es oro todo lo que reluce”*; *Hori ez da harritzekoa, zeren “Quid prodest homini”*. Axularrek horrelako adibide asko ditu: *Zerbitzariak alfer egoiteaz beraz, gaizkirik ez eginagatik ere, merezi du gaztigu. Zeren San Krisostomok dioen bezala “Nihil boni...”* (Axular).

Gauza bertsua gertatzen da aipamena gabe galde perpausa txertatzen denean *zeren*-en ondoren: *Eroa deitzen du aberats hura eta arrazoinekin. Zeren, zer da erokeria handiagorik, geroko denboraz, bertzeren eskuan eta benturaz dagoenaz, bere eskuan eta segurean bailu bezala ordenatzea baino?* (Axular); *[...] nahi lukete bera ikusi eta berarekin ahoz-ahoz hitz egin, egia berari esateko, zeren zergatik hiltzen ditu haur gaixoak?* (Villasante); *[...] asko adierazi nahi du, gure ustez, egunkariaren hutsuneak, Leturia idazteko tankeran ez zegoela esan nahi badu noski, zeren, nork idazten du?* (Txillardeggi).



**42.23.2c** Besteetan, ordea, batere ageriko arrazoirik gabe, ez baitirudite *bait-* edo *-en* hartzen duten perpausetatik oso desberdin, *zeren*-ek gobernatzen duen adizkia biluzi agertzen da inongo aipamenik edo galde perpausik gabe. Ikus, beste askoren artean, Axularren pasarte luze hau, zeinek horrelako bi *zeren* baititu barnean: *Beldur naiz zerbaitetan huts egin dudan eta lehendanik gaiztotu naizen, zeren jende gaizto batzuek, lehen nitzaz gaizki erraiten zutenek, erraiten omen dute orain ongi, zein baita seinale gaiztoa, zeren halakoek ez ohi dute erraiten ongirik, gaiztoez eta gaiztakeriez baizen* (Axular).

Honelako adibideak nahi adina aurki daitezke: *Hirugarren ondorena izan ohi da heriotza gaiztoa; zeren, edo batetan hilko da honela bizi dena, edo prestara txarrarekin* (Agirre Asteasukoa); *Dohatsu dira pertsona emeak eta mantsoak, zeren halakoek lurra gozatuko dute* (Materre); *Mintza zaitetz, Jauna, zeren zure zerbitzaria dago entzun nahiz* (Pouvreau).

Inoiz balirudike hori gertatzen dela *zeren*-en eta hark gobernatzen duen adizkia aurkitzen den perpausaren artean beste mendeko perpausen bat txertatu delako; eta askotan hala da, baina ez beti, ez eta hurrik eman ere. Hona ezer tartekatu ez den zenbait adibide, non, halaz ere, adizkiak ez baitu aurrizkirik ez atzizkirik hartu: *Neure obligazio handiek ez didate uzten zutzaz oroitzapen egin gabe, liburutto honen, kanporat ateratzeko ausartziaren hartzera. Zeren iduritzen zait ezen oraino bizi zarela* (Axular); *Aitzitik badirudi ezen Etxausko etxearen arropa gorriaz beztitzeko bideetan izan zarela. Zeren ez da ez dakienik ezen erregek hartarokotzat hautatu eta izendatu zintuela* (Axular); *Zeren oraindikan ez dut bukatu kotxe berria ordaintzen* (Arretxe); *Zeren eta klitoria kanpoan da, bai, kanpoan, goiko aldean* (Elberdin).

**42.23.2d** Diskurtso markatzailea denean, aurrean eta ondoan dituen testu zatiek ez dute perpausa osatzen, hau da, *zeren*-ek bi perpaus zati baino gehiago, bi solas zati elkartzen ditu. Halakoetan, *zeren* puntu eta aparte ondoren ere ager liteke: [...] *Gureak dira faltak. Zeren San Augustinek dioen bezala: "Numquam prius..."* (Axular); [...] *Eta arrazoinekin dirudi hala. Zeren ez baita bertze munduan izanen gaiztoentzat miserikordiarik. Miserikordios da Jainkoa, baina...* (Axular); [...] *Justiziak ere gaiztoei infernua emaiten diela.*

*Zeren Jainkoa den bihotz bera eta miserikordios, ez da ez honetarik hartu behar okasinorik...* (Axular).

Lehen adibidean latinezko hitzei zabaltzen die bidea *zeren*-ek, eta adizkiak ez du menderagailurik erakusten. Hirugarrenean menderagailua ageri da, batetik, adizkiak *-en* hartu baitu. Bigarrenean ere menderagailua da, adizkiak *bait*-hartu duenez gero. Beraz, *zeren* beti bigarren perpausaren hasieran agertuko da, batzuetan diskurtso markatzaile eta besteetan menderagailu delarik.

**42.23.2e** Beste DMekin batera ere ageri da, normala denez. Gauza jakina da autore batzuek (ez Axularrek) *eta*-ren bidez indartzen dutela *zeren*. Bada, gutxitan baina inoiz bai, aurki daiteke *zeren eta* horren adizkia ere *bait-* eta *-en* gabe. Hala nola, honako hauetan: [...] *ageri da Donibane Garaziko auzokoa dela, zeren eta bere bertsoetan ibiltzen du, ez dizit, hartu nizin, ez dut, hartu nuen, orde* (Manezaundi); *Lana goiz-goizik hasirik, bazkal aitzineko... bukatzten dute, otordu berant eginikan ere, zeren eta arratsaldeko ez dute sekula utzi nahi lan hori...* (Manezaundi); *Ematen zaigun bizia oso goitarra... ez izatea, hori ez litzateke harritzekoa, zeren eta inork ez digu ezer zor* (Villasante); *Zeren eta hola berriz oroitzean ohartzen naiz ez ginela uros izatetik urrun* (M. Legorburu).

### 42.23.3. Zergatik

**42.23.3a** *Formari* dagokionez, *zer* galdetzaileari *-gatik* kasu marka itsatsiz sortzen da *zergatik* galde hitza. Beraz, jatorriz galderetan bakarrik erabiltzen zen, gaur oraindik erabiltzen dugun bezalaxe: *Zergatik ez zara etorri?*

Gero, ordea, *zeren* bezala, diskurtso markatzaile izateko gaitu zen, beste hizkuntza batzuetan gertatu zen bezala; galde hitzetatik datoz, izan ere, diskurtso markatzaile asko hizkuntza askotan.

**42.23.3b** *Zergatik* batez ere Hegoaldeko literaturan agertzen dela esan daiteke, ez horrenbeste Iparraldean, nahiz badiren adibide batzuk: *Eta populu guzia hura ukitu nahiz zebilen, zergatik harenganik ilkitzen baitzen bertute bat gu-*

*ziak sendatzen zituena (Haraneder); Eta hala, zaudete zuek ere prestatuak, zergatik zuek uste ez duzuen orduan etorriko baita Gizonaren Semea (Haraneder); Zatozte adoratzera Zeruko erregea. Zergatik haren eskutik baitugu bizitzea (Etxeberri Ziburukoa); Arren haren kunplitzeko egidazu grazia, zergatik gorputza baita janariaz betea (Etxeberri Ziburukoa); [...] zuri dagokizu guardia egitea kablei zergatik anitz lekutan baitira arropak (P. Etxeberri).*

Adibide horietan ez da diskurtso markatzaile, menderagailu arrunta da, adizkian ageri den *bait-* aurritzkiari lotua. Horrez gain, Hegoaldean berean ere —eta konkretuki Gipuzkoan— ez dirudi osoro zabaldua zegoenik eta nonahi erabiltzen zenik XVIII. mendearen hasieran; bada Otxoa Arin ordiziarrek (1713) ez darabil eta Juan Irazusta hernialdetarrak (1739) bai. Bizkaian XX. mende hasierako Etxeitaren testuetan aurkitu dugu. Nafarroan Elkanoko Lizarragak eta Frantzisko Elizaldekin usu darabilte. Hemen ageri dira adibide batzuk (konturatu adizkiak *bait-* edo *-en* erakusten duela, eta holakoetan *zergatik* ez dela diskurtso markatzailea): *Zergatik* egiten du negar? Errespondatu duzue: zergatik eraman baitute ene jauna, eta ez dakit non paratu duten (Lizarraga); *Zergatik* hainbertze aldiz? Zergatik denbora guzietan gure etsaiek pertsegitzen gaituzten (Elizalde); *Zergatik* erran da: konfesatu, komekatu behin bederen? Zergatik obligazio ez den gehiago (Elizalde); *Legoak zergatik* komekatzten dira solo hostiarekin? Zergatik hostia hartan, eta haren parte guzietan dagoen Kristo guzia (Elizalde).

**42.23.3c** Balioari doakionez, *zeren*-en arras errankide da, eta bata erabil daitekeen oro erabil daiteke bestea. Izan ere, biak dira DM izateaz gainera, menderagailu; badute, haatik, alde txiki bat: *zergatik* menderagailu denean, adizkiak *-en* atzizkia hartzen du *bait-* aurritzkia baino gehiagotan. Horren arrazoia euskalki kontua da: Hegoaldeko idazle askok, horien artean gipuzkoar klasi-koek, Larramendi eta Kardaberaz barne (bai eta Mendiburu, nahiz hizkeraz gipuzkoarra ez den), ez dute inoiz erabiltzen *bait-*, ez bakarrik (... *berandu etorri baita*) ez beste menderagailu bat indartuz. Hortaz, *zergatik*-ekin nekez agertuko da *bait-* aurritzkia idazle horien testuetan. Hona hemen, dena den, bateko eta besteko adibide bana: *Ez dut* escribitu *zergatik* dauden ongi ala, baizik zergatik *hobe* den, *nahiz hala, ezi baterez* (Lizarraga); *Zoaz eneganik,*

*Satan, eskandalu zaitut nik zu, zergatik ez baituzu gusturik Jainkoaren gauzatzat [...] (Haraneder).*

Nolanahi ere, DM den *zergatik* da guri hemen axola diguna: *Jaungoikoak badu gorputzaren figurarik [...]?* *Ez du Jaungoikoa dan partetik, zergatik da Espiritu purua [...] (Irazusta); Zaindu bezate euren etxea eta ez auzokoa, zergatik inoren buruko minak astoak hiltzen ditu (Apaolaza); Ai, noiz aurkituko naiz ni andre Joxepanean txokolatetxea hartzen; zergatik jakin behar du, ni ez banaiz ezkondu, ez da faltatu zaizkidalako (Soroa); [...] baina hartu behar duzu, zergatik laster ezkonduko zaizu etxean daukazu arreba [...] (Etxeita).*

**42.23.3d** Adibide guztiotan ikusten denez, *zergatik* beti perpausaren buruan doa, batere salbuespenik gabe, eta adizkia soilik eta hutsik ageri da, *bait-* ez *-en* hartu gabe, alegia. Aurrizki-atzizki horiek hartzen dituenean, menderagai-lua da; beraz, ez dugu hemen aztertuko (esan bezala, Hegoaldeko autoreek erabiltzen dute molde hori).

**42.23.3e** *Zeren-en* kasuan bezala, badira *zergatik ezen* erakusten duten adibide batzuk ere, non *zergatik* indarturik agertzen baita *eze* partikulaz: *Arimako arerioak bekaturako zirikatzen zaituenean, eman iezaiozu errosarioaren garauari, edo Mariaren irudi bati: zergatik eze, ez da erraz bekatuan jaustea. Mariaren irudi edo errosarijo santuari gogotik eman eginen zaion une hartan berean (Uriarte); Ez zara, bada, gaurgero Jakob deituko, ezpada Israel, aingeruak esan zion; zergatik, ze, baldin hain sendo eta irmo Jainkoaren kontra eraso baduzu, nola gizonak garaituko ez dituzu? (Lardizabal).*

#### **42.23.4. Alabaina**

**42.23.4a** Ikusi dugunez, *alabaina-k* aurkaritzako *balioa* har dezake, baina kausazkoa ere bai. Are gehiago, zenbait kasutan kausal-esplikatio esaten zaio DM honi. Hau da esan nahi dena: *alabaina-k* (eta kausazko diren DM guztiek) osatzen duen perpausak aurreko perpausaren esandakoa *zergatik* den hala ematen du aditzera, edo aurreko perpausaren esan dena esplikatu nahi du. Kausazko *alabaina-ren* (kausazko esplikatio) adibide zaharrenak Hegoaldekoak

dira. Hona hemen lehengo bera (§ 42.21.8c): *Ereile gaiztoetan dago azaro txarra, eta gero uzta soila eta hutsa. Alabaina gutxik daki bere jaioterriko Euskararen erdia [...] (Larramendi).*

“Azaro txarraren eta geroko uzta urriaren kausa” euskara behar bezala ez jakitean datza, Larramendiren ustez. Horregatik diogu hor *alabaina* kausazko esplikatioa dela. Lasai ipin zitekeen horren orde zeren, ezen, zergatik, bada, izan ere eta abar.

**42.23.4b** Tokiari dagokionez, baditu adibide horrek beste bi alderdi oso go-goan hartzekoak: (i) puntua ezarri zuen Larramendik *alabaina*-ren aurrean; ez zen beharrik, ez du hor belarriak horrenbesteko geldiuenearen beharrik sumatzen, eta, hala, puntu eta koma aurkituko dugu gero adibide askotan, eta are koma soila ere bai; (ii) kausazko perpaus zatiaren hasieran kokatu zuen diskurtso markatzailea. Ez da hori beti eta nahitaez horrela; maiz ikusiko dugu berran. Ikus ditzagun adibide batzuk: *Ez zen nehor atrebitu haren hartzerat: ez zen alabaina oraino etorria berak bere burua etsaien eskutarat largatu nahiko zuen muga (Larregi); Ikasi dutenek, apezpiku Jaunagana joan behar dute, ez du inork alabaina, hark baizik, Konfirmazioa emateko eskurik (Ubillos); Gaizki dirudien gauza da hau, batez ere emakume ezkonduetan; aditzera ematen due alabaina hego haizez beteak dauzkatela goiak (Agirre Asteasukoa); Beti atsegin berri batekin entzuten zaitut gauza horren gainean. Hori da alabaina laborantza guziko erroa (Duvoisin); Demagun oraino, berak ez bezala bertzeak bizi ezin ikusiz, poxoluz nahi lituzketela kendu. Gaizki bizi denak ez dezake alabaina aldean ikus, ez jasan, ongi eta zuzenki bizi dena (Hiriart-Urruti); Erakustuna baduzu, ulia bezala; aldiz, ikasterik nehor kasik ez, edo guti. Gizon gazteak alabaina [...] nahiago hiri handia (J. Etxepare); Baina ordu dugu apezaz mintzatzeko. Badut ustea, lenen-lehenik hortarik hastera nahiko ote zukeen berak. Apez zeukan alabaina oroz gainetik bere burua (Larre).*

Bigarren perpausaren buruan eta muturrean ere ager daiteke: *Eta zer egin du, horrela hiru hilabete preso iragaiteko? Alabaina gaiztaginak ezartzen dira preso (Hiriart-Urruti); Lehen egunetan, haur guziak harrituak zeuden, zer demontre zen mutiko itsusi hura; soinekoen artetik izugarritzko ile luzeak ageri zituen alabaina (Barbier).*

Beraz, adibide guztiok erakusten diguten bezala, kausazko balioa duen *alabaina* Iparraldeko idazleek ere badarabilte (Larregi, Duvoisin, Joanategi, Hiriart-Urruti...), nahiz Hegoaldekoek lehentxeago eta gehiago. Gutxitan ezartzen zaio puntua aurrean, baina beste puntuazio marka batzuk ageri dira, eta gehienetan perpausaren barnean dago kokatua.

Azkenetako utzi dugu nahita Mendiburu. Hau da, beharbada, kausazko *alabaina* gehien darabilen idazlea. Darabiltenen artean beharbada zaharrena dugu, eta DM horren erabilera idazlerik erregularrena. Izan ere, perpausaren barnean kokatzen du, aurrean puntu eta koma duela, eta kausa balioarekin erabiltzen du beti, ez aurkaritzakoarekin: *Hau egiten duena ongi aterako da beste munduko tribunalean; ez du alabaina hara eramanez beldurrik [...]* (Mendiburu); *[...] hemengo artzainak bere onagatik egiten ditu bere artzainzako gauzak; egiten ditu alabaina ardiaren esneagatik [...]* (Mendiburu); *[...] ikusi zuena zen bere etxea alde batetik eta bestetik su egina ta laster hauts eginik gelditzeko bidetan sartua; zen alabaina areaz, karez ta harriz ez, baizik oholez ta zurez egina* (Mendiburu).

#### 42.23.5. Bada

**42.23.5a** Honezaz aritu gara lehen, *ondoriozko* diskurtso markatzaileetako bat baita (§ 42.22.2). Bada, haatik, kausazkoa ere, eta horrela deitzean, badakigu zer esan nahi dugun: *bada*-ren aurrean esandakoa zergatik den hala adierazten duen partikula dela, alegia. Honako esaldi hauetan, esate baterako: *Aspertu egin naiz, bada bakarrik utzi naute; Ez dut agurtu, bada ez dut ezagutu; Lehorte handia dago, bada aspaldian ez du euririk egin.*

Horietan *bada*-k garbiro adierazten du zergatik bata aspertu den, zergatik besteak halakoa agurtu ez duen eta zergatik lehorte handia dagoen. Eta *bada* horien balioa eta honako beste hauena desberdina dela aski bistan dago, hauena ondoriozkoa baita: *Aspertu egin naiz, bada; zer nahi duzu!; Ez dut agurtu, bada; izorra dadila!; Lehorte handia dago, bada; zuk nahi duzuna esango duzu!*

Badira, hala ere, bi *bada* horiek bi diren dudan jartzen dutenak. Hala, OEhk aitortzen du, batetik “... actúa como relacionante entre frases (ilativa), como introductoria de explicativas...”, —guk *ondoriozko* eta *kausazko* edo *esplikaziozko* deitzen ditugunak, alegia—, baina bestetik dio: “En realidad, tanto el valor causal como el consecutivo que se le atribuyen carecen de base formal...”.

**42.23.5b** Mitxelenak berak kausazko *bada* denik ukatzen duela irudi dakioke norbaiti: “*bada* ¿puede ser causal? Desde el punto de vista vasco, parece claro que *bada*, *beraz* son partículas coordinativas como *baina*, *ordea*... Yo no veo que *bada hori zure eskuan dago* y *beraz hori zure eskuan dago* sean diferentes” (Villasante 1976: 156 oh.).

Azken hitz horiek argitzen digute Mitxelenaren hitzen zinezko esanahia: Villasantek zioenaren kontra Mitxelenak uste du, eta arrazoiz gainera, Axularren hitz horietan —*bada hori zure eskuan dago*— (horietan eta ez beti eta nonahi), *bada* ondoriozkoa dela, ez kausazkoa (Villasantek berak *Pues bien* ondoriozkoaz itzuli zuen pasarte hori, hain zuzen); horrenbestez, *bada* beste perpaus batzuetan kausazkoa izan daitekeela iradokitzen du. Baina pasarte horretan bakarrik ez, Axularren pasarte guztietan *bada* ondoriozkoa da, ez kausazkoa, gure ustez, aurrerago ikusiko dugunez.

Beste arrazoiak den bezainbatean, hots, *formazko oinarria* falta omen dela bata ondoriozkoa eta bestea kausazkoa dela esateko, aitortu behar da alde egia dela, ez baitio batak ez besteak *bait-* edo *-en* eransten adizkiari, baizik bietan biluzik agertzen baita; alde ez, *ordea*, horien ordeztan beste zerbait berretzen baitiote batak eta besteak. Ala ez da ezer —eta ezer formala, noski— bi hitz-andana desberdin osatzea eta bi ahoskera desberdin izatea, eta puntuazio markak ere desberdinak, hitz-andana eta ahoskera desberdinen arabera? Har dezagun, esate baterako, honako hitz multzo hau: *Eraman ezazu bada on egingo dizu*.

Bere hutsean eta soilean, puntu-komarik gabe eta ahoskera zein den jakin gabe, ondoriozko nahiz kausazko izateko gai da horko *bada* hori. Baina ondoko bi perpaus hauetako hitz-andanak, ahoskera eta puntuazio markak badira

zerbait: [*Eraman ezazu*], [*bada on egingo dizu*]; [*Eraman ezazu, bada*], [*on egingo dizu*].

Horra zergatik Mendiburuk, kausazko *bada* gehien (beharbada!) darabilen idazleak, idazten duen ia beti horren aurrean puntu eta koma; ondoriozkoarenean, aldiz, ia beti koma soila.

**42.23.5c** Hegoaldean kausazko *bada*-ren lekukotasunak bertako literatura-  
ren sorrera bezain zaharrak dira; Otxoa Arinek eta Irazustak maiz darabilte,  
gero Larramendik eta Kardaberazek ere bai; berebat XIX. mendeko gipuzkoa-  
rrek. Mendiburuk erruz, nahiz gipuzkera ez zen haren euskalkia. Bizkaitarrek  
ere bai, Frai Bartolomek eta bestek.

Iparraldeko autore zaharrek ere bai? Arazo handiagoak ditugu hor. Badira tes-  
tu batzuk, non guztiz zaila baita erabakitzea ondoriozkoa ala kausazkoa den.  
Hori lehen garbiro agertu da Axularren pasartean, zeinen *bada* Villasantek  
kausazkotzat hartu baitu —nahiz gero ondoriozko bezala itzuli— eta Mitxele-  
nak, berriz, ondoriozkotzat. Horrek erakusten du beti ez dela erraza *bada*-ren  
balioa zein den asmatzea. Har dezagun beste pasarte hau: *Baldin egiten ez  
baduzue penitentzia, guztiok fin gaitz elkarrekin eginen duzue. Bada peniten-  
ziaren partetarik bat da konfesatzea, beraz ez fin gaitz egitekotz, behar da  
konfesatu* (Axular).

Horko *bada* hori, begiratu batera besterik dirudien arren, ez da inola ere *ze-  
ren... bat da konfesatzea*-ren parekoa, ez du aurrean esanaren arrazoia adie-  
razten. Ez, silogismo baten *premissa* txikia da (latinez *atqui*, gaztelaniaz *es así  
que* esaten dena); horregatik dator gero *beraz*, ondorioa adieraziz ondoriozko  
diskurtso markatzaileez aritzean esan dugun bezala. *Bada*, ez da, beraz, kau-  
sazkoa, ondoriozkoa baizik.

Ikus beste hau ere: *Gaizki hiltzearen zara beldur, eta ez gaizki bizitzearen.  
Bada ezin hil daiteke gaizki, ongi bizi izatu dena* (Axular). Hor ere gauza bera,  
ongi begiratzen bada. *Bada* hori ez da *zeren*-en pareko, baizik Axularrek be-  
rak batzuetan erabiltzen duen *Orai bada*-rena. Bestela esan: *bada*-ri darraiona  
ez da aurrean esandakoaren arrazoia, esplikazioa edo kausa, beste honen an-  
tzeko zerbait baizik: "...ez gaizki bizitzearen. Ba(da) jakizu gauza bat: ezin hil



daiteke gaizki...”. Hemen, *bada*-z hasten den perpausak ondorioa adierazten du nolabait, baina aurkaritza kutsuren bat ere baduke agian.

Etxepareren honetan, esate baterako: *Ez dut egin gaizkirik ukheitako perilik / eztare zerengatik behar dudan auzirik. / Bada, neure maitia, nik diotsut egia.*

Gizasemearen egia esatea nola izan daiteke emaztekiak dioenaren arrazoia? Hortaz, *bada* hori ez da kausazkoa, baizik gaur horrela esango genukeena: *Ba(da) zuk nahi duzuna esan, baina...* Aitortu dugu, hala ere, zenbait arrazoi-namendu luzeren ondoko *bada* oso iluna gertatzen dela askotan, non ez baita-kizu idazleak zer esan nahi duen: *esandako hori egia da, bada* (= zeren, zer-gatik, ezen...) ala beste hau: *esandako hori guztia egia da. Bada* (= hortaz, beraz, orain bada).

**42.23.5d** Kausazko *bada*-ren lekua bigarren perpausaren —arrazoia ematen duenaren— hasiera edo lehen-lehena da. Eta horretan bereizten da —batzue-tan!— *bada* ondoriozkotik, hau maiz perpausaren barrentzen baita. Beraz, on-doriozkoa nahiz hasieran nahiz barnean ager daitekeenez gero eta kausazkoa beti hasieran, barnekoa beti ondoriozkoa dela badakigu; hasierakoa, aldiz, ba-tzuetan bata izango da eta besteetan bestea, eta testuinguruaren zentzuak ba-karrik erakuts liezaguke noiz den bata, noiz bestea.

Gaurko eta lehenagoko bizkaiera mintzatuan, hala ere, eta horren eraginez ida-tzian ere bai, apur bat, ezin uka *ba(da)* kausazkoa perpaus barnean ere erabiltzen dela: *Ene ustez, hau da arrazoia: Euskera zenbaki horren istilua konpondu arte ez zuen agertu nahi. Berak bere gain hartu zuen, ba, aldizkaria gerra ondoan argitaratzearen erantzunkizuna, baina uste ez bezalako oztupoak aurkitu zi-tuen, eta harik eta auzia konpondu arte, ez zuen agertu nahi* (Villasante); *He-men ere agertzen da literaturaren lehentasuna. Zurrusta meheko bildumak zi-ren ba eskuarteko bildumak, eta biltzeari ekin behar zion berea osatzeko* (Arana Martija).

Hori horrela izanik, perpaus barneko *bada* kausazkoa ere izan liteke; ez dugu uste, hala ere, xx. mendea baino lehenagoko idazle bizkaitarretan horrelakorik aurkituko denik.

**42.23.5e** Hona aurrean esandakoen sendogarri beste adibide batzuk. Irakurlea ohartuko da bi gauzaz: adibide guztiak Hegoaldeko idazleenak direla eta *bada* beti perpausaren hasieran doala. Kausazkoa den ala ez, berak igarriko dio ondoen; aski du horretarako *bada* dioen lekuan *zeren* edo *jartzea*, eta ea zentzu bete-betea duen ala ez ikustea: *Jaungoikoa Salbadorea da?* - *Bai jautana; bada ematen digu geure salbaziorako bere grazia* (Otxoa Arin); *Zoratasun handia izango litzate neuronek berari esatea [...], bada horrenbestez eman negike kausa edo motiboa...* (Otxoa Arin); *Zer gauza dirade oriek?* - *Ez diazadala hori galdetu niri, bada naiz ignorantea...* (Irazusta); [...] *eta orain ere hauxe bera esan dezakegu Euskal Herrientzat; bada Jainkoaren hitzaren ogia txikitu bageaz... hiltzen daude asko eta asko* (Larramendi); [...] *ezagutu nuen hau ere niri Loiolan eragiteko izandu zela aldi artan Jaungoikoak ni hara bidaltzea; bada hara ni joan ez banintz, ez nuen [...]* libururik eginen (Mendiburu); *Bitzuek uts egiten dute. Bada ez olgeeta guztiak dira onak, ez guztiak dira txarrak edo bekatuzkuak* (Frai Bartolome).

### 42.23.6. *Izan ere*

**42.23.6a** *Formak* ez du azalpen beharrik; esapide hori osatzen duten bi osagaiak egunero erabiltzen ditugu. Osagaiak, zein bere aldetik ez ezik, esapidea bera ere aski ezaguna dute Hegoaldeko euskaldunek, nahiz beti ez erabili. *Izan ere* sekuentzia guztiak ez dira berdinak, hala ere; guztiak ez dira diskurtso markatzaileak, ez eta, beraz, guk hemen aztertzeoak. Ez da beti hain erraza jakiten zeintzuk diren DM eta zeintzuk ez. Honako hau ez dela, aski garbi dago: *Eskuzabala izango zela agindu bakarrik ez; eta izan ere, hala izan da.*

Horiek *ere* emendiozkoa bere barnean dutenak dira eta han aztertu dira (§ 42.19.2). Han esan bezala, edozein aditzekin —eta ez *izan*-ekin bakarrik— hain maizkoak diren honako perpaus hauetakoaren kasu konkretu bat baizik ez da: *Etorri ere, berandu etorri da; Esan ere, bereak eta bi esan zizkion.* Horietan *ere* bakarrik da diskurtso markatzailea, eta *etorri*, *esan*, partizipio soilak dira eta partizipio bezala jokutzen dute. Orobat aurreko adibideetan

*izan* partizipioa da eta *ere* bakarrik da diskurtso markatzailea. Guk hemen aztergai dugun *izan ere*, aldiz, oso-osorik da DMA.

**42.23.6b** Ez da erraz *izan ere* DMA eta DM ez dena zenbait perpausetan bereiztea. Badira adibide batzuk, non esan baitaiteke *izan ere* partizipio gehi DM izatetik, bere osoan DM izatera iristeko erdibidean dagoela. Adibidez: *Astoa deitu zuen Manu; izan ere, halaxe zen*. Nekez uka daiteke bi irakurketak onartzen dituela: a) deitu bakarrik ez, *izan*; b) hala deitu zuen halakoxea zelako. Lehenean *izan ere*-ren *ere* emendiozkoa litzateke; bigarrenean DM osoa da kausazkoa. Erdibideko egoera —edota hobe litzateke bitarikoa izendatzea— argiago ikusten bide da *izan ere* atzean edo bukaeran dagoenean: [...] *seinale zen txendorren bat zegoala egosten. Eta hala zan izan ere* (Apaolaza). Hor ez dirudi *izan ere* osoa markatzaile izatera iritsi denik; *ere* bakarrik da markatzaile.

**42.23.6c** Noiz den bata, noiz bestea igartzeko gauza bat eduki behar da gogoan: lehenak mailaketa bat adierazi behar du. Lehengo adibide hartan, adibidez: *Esan bakarrik ez, izan ere bai*. Horretan datza mailaketa eta horregatik da emendiozkoa: zerbait emendatzen, berretzen, gehitzen du hor *ere*-k. Bigarrenak, aldiz, arrazoia, kausa adierazi behar du eta aurrekoaren esplikazioa eman: *Saldu du; izan ere, ez zuen ezertako balio*. Hor *izan ere* horren orde zeren, ezen, bada, zergatik ipintzen bada, oso ongi dator. Hortaz, kausazko balioa du hor.

Kausazko diskurtso markatzaile honen sorrera aski berria da. XIX. mendearan amaieran aurki daitezke duda-mudazko erabilera batzuk, markatzaile berri horren sortzeko bidean daudenak. Hortik aurrera adibide asko daude, Gipuzkoakoak eta Bizkaikoak ia guztiak.

**42.23.6d** Perpausean hartzen duen lekuari dagokionez, gehienetan hasieran eta barnean agertzen da, eta inoiz amaieran ere bai, perpausa laburra denean: *Zorigaitzez gainera [...] beren begiz egiaztatu ahal izan zituzten lehenengo egunetik. Izan ere, laster ohartu ziren [...] irteten zela...* (Etxaide); *Ardoak saldukeria beltza egin zion [...] Izan ere, ardoa [...] neurriz gainera samin [...] bihurtu ohi da* (Etxaide).

Horietan *izan*-ez beste aditz bat ageri da bigarren perpausean, baina ondorengo hauetan *izan* ageri da berriro ere: *-Adizu, kontuz gero Donostiaz gaitzesan. -A! Zu donostiarra zara, izan ere. Barka!; Izarpe, zeru txiki bat zela, esan zitezkeen. Izan ere, lurlean ez zen erraza halako zorion eta bakea aurkitzerik (Etxaniz); [...] amona bera joaten zitzaion aurrari atseginezko aurpegiz losinga; Izan ere, etxeko denak txoratzeko nahikoa zara zu [...] (Agirre); Hurrengo domekan izango zuten [...] emateko era. Eta izan be gero izaten zuten apas-kada [...] (F. Bilbao); Bizitzea gertatu zaigun egunon ezaugarri nabarmena da [...] Ezaugarri nabarmena eta, erabat, itxaropenez bete gaitzakeen ezaugarri osasungarria. Gehiegitan, izan ere, ibili izan gara elkarren berri ez genekiela [...] (Mitxelena); Erantzun honek, egia esan, badu bere pisua eta bertatik bertara begiratzeari merezi du. Zer da, izan ere, hitzen bizia? (Mitxelena).*

**42.23.6e** Batzuetan beste zenbait partikularekin ere ager daiteke, *bada* eta *eta*-rekin, esaterako: [...] Jainkoaganatu zituen, jaun berak lehengoa bere konfesatzaile izan zedin Erroman hautaturik; *bada* gizon jaieradun, txit zuzen, begiratsua, eta hartarako zen *izan ere* (J. I. Arana); Bai, hau ere harekin zegoen, *izan ere* galilearra da *eta* (Iraizoz); [...] orduan lotsaturik joango zinateke azken aulkian esertzera. *Eta izan ere, zer erantzungo zioten?* (Iraizoz); Orain, bai, badakit, esan zuen, *eta izan ere, horixe dela arlo bakoitzaren egi-tekoa deritzat* (Zaitegi).

## 43. Diskurtso markatzaileak (II): birformulatzaileak

---

- 43.1. Testuingurua
- 43.2. Metodologia: EUDIMA corpusa
- 43.3. Birformulatzaileak: aztergaiak
- 43.4. Diskurtso markatzaileak eta birformulatzaileak
- 43.5. Birformulazioa eta birformulatzaileak
- 43.6. Euskarazko birformulatzaileen sailkapena
- 43.7. Birformulatzaile esplikatibo nagusiak; 43.7.1. Birformulatzaile esplikatiboen balio oinarrizkoa: azalpena; 43.7.2. Birformulatzaile esplikatiboen balio nagusiak; 43.7.2.1. Erreferentziazko birformulazioa; 43.7.2.2. Azalpenezko birformulazioa; 43.7.2.3. Definiziozko birformulazioa; 43.7.2.4. Izendapenezko birformulazioa; 43.7.2.5. Inferentziazko birformulazioa; 43.7.2.6. Laburpen taula; 43.7.3. Birformulazio parafrastikoa; 43.7.4. Birformulazio partziala eta erabatekoa; 43.7.5. Sintaxia; 43.7.6. Birformulatzaileen kokagunea; 43.7.7. Puntuazioa birformulazioan; 43.7.8. Baliokidetzak birformulatzaileetan; 43.7.9. Tradizioa, testu mota, erregistroa...
- 43.8. Birformulazio zehaztaileak; 43.8.1. Birformulatzaile zehaztaileen funtzio aniztasuna; 43.8.2. Balioak; 43.8.3. Birformulatzaile zehaztaileen kokagunea; 43.8.4. Birformulakizunen sintaxia; 43.8.5. Puntuazioa; 43.8.6. Tradizioa, testu mota, erregistroa...
- 43.9. Birformulatzaile laburbiltzaileak; 43.9.1. Birformulatzaile laburbiltzaile hutsak: balioak, kokagunea, sintaxia...; 43.9.2. Birformulatzaile berraztertzaileak
- 43.10. Birformulatzaile urruntzaileak; 43.10.1. *Dena dela, dena den*; 43.10.2. *Edonola ere (edozelan ere)*; 43.10.3. *Edozein kasutan (ere)*; 43.10.4. *Edozein modutan (ere)*; 43.10.5. *Hala ere* esapidearen bi balioak; 43.10.6. *Hala eta*

*gutziz ere* esapidearen bi balioak; 43.10.7. Birformulatzaille urruntzailleak: kokagunea, sintaxia, puntuazioa...

- 43.11. Birformulatzaille zuzentzaileak: (*edo*) *hobeto/hobeki, are hobeto/hobeki, barkatu, hobeto esanda...*; 43.11.1. (*edo*) *hobeto/hobeki*; 43.11.2. *Are hobeto/hobeki*; 43.11.3. *Barkatu, barka*; 43.11.4. *Bestela esanda*; 43.11.5. *Egia esan (egia esanda...)*; 43.11.6. *Hobeto/hobeki esan*; 43.11.7. *Zer diot?*
- 

## 43.1. Testuingurua

**43.1a** Diskurtso markatzaileez dihardugu atal honetan. Zehatzago esanda, diskurtso markatzaile jakin batzuez: birformulatzailleez<sup>1</sup>.

Egia esan, diskurtso markatzaileen kategoria ez da gramatikan bereizten diren kategoria sintaktikoak (aditza, adberbioa, juntagailua...) bezalakoa<sup>2</sup> (Real Academia Española, Asociación de Academias de la Lengua Española 2010: 2355): diskurtsoaren azterketaren mailakoa da eta izaera funtzionala du (Martí 2011: 18-19). Izan ere, diskurtso markatzaileetako asko adberbioak edo adberbio-esapideak dira: *edozein modutan* esapideak, esaterako, markatzaile-zeregina betetzen du batzuetan (*Patxi gogoz ari da lanean. Edozein modutan, beti ez du asmatzen*), baina ez beste batzuetan (*Patxik edozein modutan egiten ditu lanak*). Beraz, diskurtso markatzaileen azterketak perpausaren maila gainditzen du eta horregatik geratu izan da gaia ohiko azterketa gramatikaletatik kanpo.

Nolanahi ere, euskararen kasuan oraindik lan asko dago eginkizun diskurtso markatzaileen azterketaren arloan. Gaztelaniari buruzko ikerketetan, esaterako, ia ez dago partikula bat bera ere azterketa monografikoren bat ez duenik

---

<sup>1</sup> Lan hau Xabier Alberdik (2014b) egin lanean oinarritzen da.

<sup>2</sup> Hala ere, Vázquez Veiga-k (2011) honako iruzkin hau egiten du *Nueva gramática de la lengua española* ematen den ikuspegiak: “Nos parece importante destacar el hecho de que se diga de ellos que son una “clase gramatical” (§ 30.2p), que es una manera de otorgarles el rango de miembros de pleno derecho de la gramática”.

(Vázquez Veiga 2011). Euskaraz, berriz, diskurtso markatzaile asko daude oraindik deskribatu gabe (Alberdi 2014b: 11).

**43.1b** Bestalde, begien bistakoak dira hiztegiek diskurtso markatzaileen berri emateko dituzten mugak, hala moduz eta zeharka baizik ezin baitituzte definitu edo azaldu halako partikulak. Horretaz konturatzeko aski da *Euskaltzaindiaren Hiztegiak alegia* birformulatzaileari buruz ematen duen azalpen egoki bezain mugatua aztertzea:

*alegia 1* lok. Zerbait azaldu ondoren, informazioa zehazteko, azaldutakoa argitzeko edo osatzeko erabiltzen den hitza, *hau da*-ren baliokidea. *Hemengo ipuin eta bertsoek iturri bera dute; Graziano Gesaltzako aitona, alegia. Eskutitz sail bat zen, karta sail bat, alegia. Gauza bat da arrantza, astoarena, alegia, eta bestea arrantza, itsaso-erreketakoa arrainena. Argiaren zalea da, alegia, ez duela beste zuhaitzen itzalik nahi.*

*2* lok. (Azaldu nahi denari sarrera emanaz). *Zera adierazi dio, alegia, ez dadila hemendik aurrera bere andregaiarekin joan. Esan dit, alegia, hauek gaztetxoak direla. Esan nahi dut, alegia, aukera izan banu bide horretatik joko nuela.*

*3* Ipar. *Balitz bezala*-ren (edo aditz pertsonaren arabera, *banintz bezala* eta abarren) edo *itxurak egiten*-en baliokidea den partikula. *Alegia ni ero. Batzuek, alegia otoi-tzean, zerbait marruskatzen badute ere. Alegia etxera doala. Lan hasia edo alegia hasia ezin utz. Gau guztia egon naiz alegia hila.*

*4* iz. Ipuina edo elezaharra, gehienez hitz neurtuetan moldatua, pertsona gisa jokatzen diren animaliak edo gauzak agertzen direna eta ondorioztat irakaspen morala ematen duena. *Otsoaren eta bildotsaren alegia. Oxobiren alegiak.*

**alegia egin** Ipar. Itxura egin. Ik. gorago 3. *Alegia egin zuen hura adoratu nahi zuela.*

Ondorioa da euskaraz guztiz beharrezkoak ditugula diskurtso markatzaileei buruzko azterketa monografikoak, eta, hain zuzen ere, hutsune hori nola edo hala betetzera dator azterlan hau. Azken batean, lan honen helburua zera da: deskribatzea eta azaltzea nola eta zer eginkizun diskurtsibotarako erabiltzen diren birformulatzaileak gaur egungo euskara zainduan. Izan ere, orain ari dira finkatzen —eta are sortzen eta eraberritzen ere— euskara estandarrean hizkuntza-usadio eta tradizio diskurtsiboak. Adierazgarriak dira, esate baterako, ipar-ekialdeko tradizioko *hots* birformulatzaile esplikatiboak eta Hegoal-

deko *hau da* birformulatzaileak egungo estandarrean izan duten harrera eta zabalkunde hain desberdinak.

**43.1c** Aurrera baino lehen, ideia bat azpimarratu nahi genuke. Euskarazko bibliografian biziki azpimarratu da aspaldi honetan (Esnal 2002a, 2002b; Corpus Batzordea 2008; Urrutia 2008) nola erabil daitezkeen “modu estrategikoan” diskurtso markatzaileak komunikazio eraginkorragoa lortzeko (atzera-kargaren arazoa konpontzeko, perpausen segmentazioa markatzeko...). Orobat azpimarratu da zer nolako garrantzia duten markatzaileek testuaren “arkitekturaturan”. Baina gure artean ez da behar beste azpimarratu diskurtso markatzaileei buruzko ikerketa teorikoez aspalditik nabarmendu duten ideia bat (Blakemore 2002; Martín Zorraquino eta Portolés 1999: 4057; Martí 2011: 18-19; Aschenberg eta Loureda 2011a: 13): alegia, diskurtso markatzaileek berez dutela funtzio komunikatibo “estrategikoa”; izan ere, hartzaileari diskurtsotik inferentziak ateratzen laguntzeko gida edo jarraibide moduko batzuk eskaintzea da diskurtso markatzaileek duten funtzio diskurtsibo berezkoa.

## 43.2. Metodologia: EUDIMA corpusa

**43.2a** Metodologiari dagokionez, EUDIMA ikerketa proiektuko corpus zabalaz baliatu gara testuak eta datuak aztertzeko, ikerketa hori baita orain arte kontu hauetaz egin den lanik osoen eta sistematikoena. Egungo euskara zaindua islatu nahi du EUDIMA corpusak<sup>3</sup> (Alberdi 2014b).

Azpicorpusa	Testu-hitz kopurua	Izen laburra
ZIO corpusa	1,0 milioi	ZIO
EHUko eskuliburu itzuliak	5,5 milioi	EHU
Zuzenbidea / lege testuak	4,1 milioi	Zuzen. LT

---

<sup>3</sup> URL helbidea: <http://www.ehu.es/ehg/eudima/corpusa/>



### 43. Diskurtso markatzaileak (II): birformulatzailak

Azpicorpusa	Testu-hitz kopurua	Izen laburra
Zuzenbidea / testu akademikoak	2,5 milioi	Zuzen. TA
Pentsamenduaren Klasikoak	10,7 milioi	PKC
EPD liburuak	10,2 milioi	EPD lib.
EPD prentsa	10,5 milioi	EPD pren.
ZT Corpusa	6,6 milioi	ZTC
ETBko dokumentalak	0,5 milioi	ETB doku.
Goenkale corpusa	11,0 milioi	Goenkale
<b>GUZTIRA</b>	<b>62,6 milioi</b>	

EUDIMA corpusaren osaera

Guztira 62,6 milioi testu-hitz ditu corpusak eta halako oreka bat lortu da testu itzulien eta jatorrizkoen artean.

Jatorrizkoak	35,7 milioi testu-hitz
Itzulpenak	26,9 milioi testu-hitz
<b>GUZTIRA</b>	<b>62,6 milioi testu-hitz</b>

**43.2b** Askotariko testu motak biltzen ditu EUDIMA corpusak: akademiakoak, lege testuak, prentsa eta saiakera. Eta, bereziki, ahozko hizkuntzara hurbiltzen diren bi azpicorpus ditu: alde batetik, *Goenkale*, zeinak hein batean lagunarteko erregistroa imitatzen baitu; eta, bestetik, ETBko dokumentalen corpusa, zeinak, entzunak izateko testuen bidez, erregistro zaindua islatzen baitu. Dena dela, argi dago erregistro jasorantz eta hizkuntza idatzirantz lerratuta dagoela corpusa, baina ez berariaz hautu hori egin dugulako, ezpada esku-ragarri genituen testuekin osatuko dugulako.

### 43.3. Birformulatzailerak: aztergaiak

**43.3a** Bi lan handi izan dira gidari atal honetan: Briz, Pons eta Portolés (2008) eta Fuentes (2009). Eta, hain zuzen ere, bi lan horietako fitxa lexikografikoen egiturak uztarturik osatu da atal honen egitura eredu.

Egia esan, zalantza ugari sortzen da lema eta aldaera batzuk bereizteko orduan. Azkenean, esapidearen lexema eta EUDIMAKo maiztasun datuak aintzat hartu dira, lema eta aldaerak bereizteko. Horrela, aparteko lematzat jotzen dira, esaterako, honelakoak:

Lema	Lema
<i>beste era batera esanda</i>	<i>beste modu batera esanda</i>
<i>azken batean</i>	<i>azken buruan</i>
<i>hala ere</i>	<i>hala eta guztiz ere</i>
<i>zehatzago esanda</i>	<i>zehazkiago</i>

Ildo beretik, honelako lema eta aldaerak bereizi dira:

Lema	Aldaerak
<i>erran nahi baita</i>	<i>erran nahi da</i> <i>esan nahi baita</i> <i>esan nahi da</i>
<i>bestela esanda</i>	<i>bestela esan</i> <i>bestela esateko</i> <i>bestela esanik...</i>

Bestalde, lema beraren aldaeratzat hartu dira, oro har, erro bera duten esapide flexiodun edo jokatu desberdinak: *labur esanda* eta *labur esateko*; *laburbilduz* eta *laburbilduta*; *azken batean*, *azken baten*, *azken batez*; *edozein modutan* eta *edozein moduz*; *hala ere* eta *halarik ere* eta abar.

**43.3b** Teorian, unitate aldagaitz eta gramatikalizatuak dira diskurtso markatzaileak (DMak). Praktikan, ordea, uste baino zailtasun handiagoak gertatzen dira birformulatzaileen zerrendak egiterakoan. Izan ere, sarri askotan lehia bezala agertzen baitira diskurtsoan esapide finkatuak eta ez hain finkatuak (*bestela esanda, bestela esan, bestela esateko, bestela esanik...*). Argi dago, beraz, aldagaiztasun- eta gramatikalizazio-mailak bereiz daitezkeela: esapide batzuk finkatuago eta gramatikalizatuago daude beste batzuk baino, eta oso zaila da bereizten noiz gauden syntaxian eta noiz lexikalizatzeko edo gramatikalizatzeko bidean dagoen esapide baten aurrean. Alde horretatik, eskuzabal jokatzen dugu hemen eta syntaxitik hurbilago dauden esapideak ere jaso ditugu birformulatzaileen artean.

Beste arazo bat ere bada hemen, diskurtso markatzaileen (DMen) esanahiari dagokiona (Garcés 2008: 27-32). Jakina denez, DMek ez dute esanahi denotatiborik, ez dute aditzera ematen kanpoko errealitatea. Aitzitik, enuntziatuen arteko loturaren bat, edota enuntziatuen eta kanpoko testuinguruaren edo solaskideek partekatzen dituzten ezagueren arteko loturaren bat adierazteko erabiltzen dira DMak. Beraz, DMen esanahiek jarraibide moduko batzuk —informazioa egituratzeko edo ordenatzekoak, esandakoak birformulatzeak, argumentatzekoak...— ematen dizkigute, enuntziatuak modu egokian interpretatzeko: *bestela esanda*, ez dute esanahi kontzeptualik, baizik ‘jarraibidezko’ edo ‘prozedurazkoa’, Egokitasunaren Teorian (*Relevance Theory*) esaten denez.

**43.3c** Esanak esan, gaur egun autore gehienak bat datoz DMen esanahi kontzeptualik ezaren “baldintza” erlatibizatzeak (Portolés 2007; Martín Zorraquino 2010a). Garai batean esaten zen diskurtso markatzaileek ez zutela esanahi kontzeptualik, baina azken hamarkadan jarrera malguagoa agertu dute autore batzuek diskurtso markatzaileen esanahiari buruz. Portolés-ek, esaterako, zera dio: “En suma, la clara diferencia entre unidades con un tipo de significado conceptual y otro de procesamiento que propone Blakemore debe ser tomada con algunas precauciones. Los marcadores tienen un significado de procesamiento, pero este significado frecuentemente posee una evidente relación con el significado conceptual de las unidades que los han originado (Murillo: 2000)” (Portolés 2007:

25). Eta ildo beretik doaz Martín Zorraquino-ren hitz hauek: “He destacado especialmente el giro que se ha producido en los últimos diez años en el marco de la Teoría de la Relevancia respecto a la caracterización del significado de los marcadores del discurso. Las propuestas de Blakemore (2002) van en la línea de reconocer que las partículas discursivas pueden codificar significado de procesamiento y significado conceptual, por lo que la autora considera que hay varios tipos o grupos de marcadores del discurso” (Martín Zorraquino 2010a: 170).

Izan ere, DMaren jarraibidezko esanahia oso estu loturik dago askotan esapi-dea osatzen duten elementuetako bakoitzaren esanahi kontzeptualarekin.

Nolanahi ere, esanahiari bagagozkio, kontua da nola eman DM bakoitzaren funtzio aniztasunaren berri. Eta alde horretatik atal honetan ontzat eman da Garcés-en proposamena:

Nuestra propuesta es que estas unidades presentan un significado básico, pero no en todos los casos es de carácter monosémico, dado que en el proceso de evolución pueden haber desarrollado otros valores que pasan a formar parte también de su significado, y una serie de sentidos contextuales surgidos por el enriquecimiento pragmático que esas unidades experimentan en su empleo discursivo en relación con el contexto en el que se insertan, con su alcance estructural y con el tipo de segmentos vinculados (Garcés 2008: 32).

Ildo horretatik, birformulatzaille bakoitzaren azterketan ‘balio oinarritzkoa’ eta bestelako ‘balioak eta erabilerak’ bereizi dira hemen, *esanahia/zentzua* bereizkuntza kontzeptualari jarraituz<sup>4</sup>. Izan ere, gure ustez birformulatzaille ba-

---

<sup>4</sup> Garcés-ek azaltzen duenez: “La frase se considera una unidad abstracta, un objeto teórico, opuesta al enunciado, resultado de la actividad enunciativa. La significación de la frase no es observable, dado que se trata de una construcción teórica, lo que es observable es el sentido asociado a cada enunciado particular. En relación con la distinción entre frase y enunciado, O. Ducrot define las nociones de significación y sentido: la significación se refiere al valor semántico de la frase, mientras que el sentido alude al valor semántico del enunciado (Ducrot 1984: 180). En el caso de los marcadores, la significación ha de consistir en una serie de instrucciones semánticas compartidas por los elementos que constituyen un grupo determinado y, [...]” (Garcés 2008: 28).

koitzak badu oinarrizko *esanahi* bat, eta gero hartzen ditu ere testuinguruaren araberako bestelako *zentzu* edo balioak, gehiago edo gutxiago garatuak eta finkatuak. Oinarrizko esanahiak edo balioak, beraz, birformulatzailearen funtzionamendua azaltzeko behar diren jarraibide zehatzak jaso behar ditu; eta gainerako *zentzuek* diskurtsotik eratorritakoak izango dira<sup>5</sup>.

#### 43.4. Diskurtso markatzaileak eta birformulatzaileak

**43.4a** Atal honetan saiaturako gara azaltzen zer diren diskurtso markatzaileak (DMak) eta zergatik jo daitezkeen birformulatzaileak DMen azpimultzo berezizat. ‘Diskurtso markatzaile’ deitura zabala erabili dugu, gaur nagusi den terminologiari jarraituz. Baina egia da arlo honetan terminoak eta kontzeptuak ez daudela nahi eta behar bezain garbi. Euskal ikasketetan, besteak beste, ‘lokailu’ (EGLU-III 1990), ‘testu-antolatzaile’ (Larringan 1996), ‘testu-markatzaile’ (Corpus Batzordea 2008) izenak proposatu izan dira. Eta gaztelaniaz ere termino ugari proposatu izan dira: “enlaces extraoracionales / supraoracionales / textuales”, “conectores”, “conectores pragmáticos”, “conectores discursivos”, “conectores textuales”, “conectores argumentativos”, “conectivos”, “operadores discursivos”, “partículas discursivas”, “ordenadores del discurso”...

Edozein modutan ere, autore askoren iritziz, ‘diskurtso markatzaile’, ‘lokailu’ (“conector”) eta ‘operadore’ kontzeptuak bereiztea komeni da (Fuentes 2003). Diskurtso markatzaileena kategoria zabalena da eta beraren barruan bi azpi-

---

<sup>5</sup> “Por tanto, sería conveniente considerar que los marcadores presentan una determinada instrucción general -ordenación, reformulación...- y en cada uno de esos tipos de instrucciones generales habría que establecer otras más específicas -como reformulación de tipo explicativo, rectificativo...-, que también forman parte de ese significado básico, y dependiendo del contexto en el que se utilicen, podrán tener diversos sentidos, determinados por el tipo de segmentos vinculados o por el enriquecimiento contextual. De este modo, marcadores que cumplen una determinada función, por ejemplo, los ordenadores de cierre discursivo, adquieren un sentido argumentativo si vinculan miembros que son argumentos de los que se deduce una determinada conclusión” (Garcés 2008: 39).

kategoria bereizten dira (Fuentes 2009: 12-13): ‘lokailuak’ (“conectores”), enuntziatuen arteko lotura semantiko-pragmatikoa ezartzen duten markatzaileak; eta ‘operadoreak’, beren zeregina enuntziatu baten barruan betetzen duten markatzaileak<sup>6</sup>.

Diskurtso markatzaileen kategoria, beraz, diskurtsoaren mailakoa da eta izae-ra funtzionala du.

**43.4b** Lan honetan egokitzat hartu da Martín Zorraquino-k eta Portolés-ek aspaldi (1999: 4057) eman zuten harako definizio hura:

Los marcadores del discurso son unidades lingüísticas invariables, no ejercen una función lingüística en el marco de la predicación oracional —son, pues, elementos marginales— y poseen un contenido coincidente en el discurso: el de guiar, de acuerdo con sus distintas propiedades morfosintácticas, semánticas y pragmáticas, las inferencias que se realizan en la comunicación.

Definizio horretan diskurtso markatzaileen bi ezaugarri bereizgarriak geratzen dira azpimarratuta (Martí 2011: 18-19): alde batetik, diskurtso markatzaileek duten jarraibide-, prozedura- edo prozesatze-esanahia<sup>7</sup> eta -balioa azpimarratzen da (hots, hiztunaren eta hartzailearen arteko elkarlana eta enuntziatuen

---

<sup>6</sup> “Los conectores enlazan su enunciado con algo expresado anteriormente o implícito en el contexto discursivo; esa función básica de conexión entre los segmentos concatenados podrá ser de tipo argumentativo, si el significado del conector proporciona una serie de instrucciones argumentativas que guía las inferencias que se han de obtener del conjunto de miembros relacionados (Ducrot 1983; Anscombe y Ducrot 1994; Portolés 2004a: 289); de tipo informativo, si las relaciones inferenciales permiten estructurar los diversos miembros del discurso como partes de un bloque informativo; de tipo reformulativo, si permiten una inferencia retroactiva en la que se vuelve sobre el segmento anterior para asignarle una nueva interpretación. [...] Los operadores limitan su ámbito al enunciado en el que se insertan sin relacionarlo por su significado con otro u otros anteriores, aunque condicionan las posibilidades discursivas del miembro en el que se incluyen; [...]” (Garcés 2008: 25).

<sup>7</sup> “El significado procedimental, también llamado de procesamiento, es la información sobre cómo procesar el significado conceptual, el cual se define a su vez como la información léxica sobre el contenido proposicional de los enunciados” (Loureda eta Acín 2010a: 35).

interpretazioa gidatu behar duen lankidetzan); beste alde batetik, perpausaren esparruan inolako funtzio sintaktikorik ez betetzea da diskurtso markatzaileen bigarren ezaugarri funtsezkoa. Ez da, beraz, gramatika-kategoria berri bat, ezpada kategoria funtzional, diskurtsibo edo pragmatiko “berri” bat.

**43.4c** Diskurtso markatzaileen beste ezaugarri batzuk hauek dira (Martín Zorraquino 2010a: 104-113): a) unitate aldagaitzak eta ongi finkatuak izatea; b) tarteki gisa agertzea aparteko enuntziatuetan (modifikatzaile, azalpen eta elementu parentetikoak agertu ohi diren kokagunean); c) izaera funtzional eta opakoa izatea (esapideen kasuan esanahi ez-konposizionala); d) aldaketa-prozesu baten emaitza izatea (gramatikalizazioa eta lexikalizazioa); e) diskurtso markatzaileen azpimultzoetako batean modu koherentean sailkatu ahal izatea (birformulatzaileak, egituratzaileak, emendiozkoak...).

Hurrengo atalean azalduko denez, diskurtso markatzailetzat jo behar ditugu birformulatzaileak (*alegia, hots, hau da, erran nahi baita, bestela esanda...; hurrenez hurren, zehatz-mehatz, zehatzago esanda...; azken batean, azken buruan, azken finean...; hitz gutxitan, labur esanda, laburbilduz...; dena dela, dena den, edonola ere, edozein kasutan, edozein modutan, hala ere, nolana ere...; are hobeki, barkatu, (edo) hobeto, egia esanda, hobeto esanda...*) kategoria funtzional horren bi ezaugarri bereizgarriak dituztelako: lehenengo eta behin, prozesatze-esanahia dutelako eta haien eginkizuna hartzaileari diskurtsoaren interpretazioan eta inferentzietan laguntzea delako; bigarrenik, agertzen diren perpausaren funtzio sintaktikorik betetzen ez dutelako. Zehatzago esanda, diskurtso markatzaileen artean bereizi ohi diren azpimultzoetako bat osatzen dute birformulatzaileak.

**43.4d** Egia esanda, autore guztiak bat datoz birformulatzaileak diskurtso markatzailetzat jotzean, baina ez da gauza bera gertatzen DMen barruan zer azpimultzo dagokien zehazteko orduan. Hala, autore batzuek (Martín Zorraquino eta Portolés 1999: 4139) bost DM mota bereizten dituzte (informazioaren egituratzaileak, lokailuak, birformulatzaileak, operadore argumentatiboak eta elkarrizketa markatzaileak), eta lokailuetatik aparte sailkatzen dituzte birformulatzaileak. Beste autore batzuek, berriz, bi multzo nagusitan banatzen

dituzte DMak (lokailuak eta operadoreak) eta lokailutzat jotzen dituzte birformulatzailerak (Garcés 2008; Fuentes 2009; Martí 2008, 2011).

### 43.5. Birformulazioa eta birformulatzailerak

**43.5a** Atal honetan azalduko da, labur bada ere, zertan den birformulazioan gauzatzen den eragiketa diskurtsiboa, zer egitura duen eta zehazki nola eta zer markatzailearen (birformulatzaileraren) bidez gauzatzen den.

Ikuspegi teoriko desberdinetatik aztertu izan da birformulazioa. Terminoa Gülich eta Kotschi-ren (1983, 1987, 1995) lanetatik dator; hots, ahozko hizkuntzaren azterketatik eta testuaren hizkuntzalaritzatik eta pragmatikatik (ikus Garcés 2009: 18). Autore horien ikuspuntutik, hiztunak uste duenean aurretik adierazitakoa ez datorrela guztiz bat adierazi nahi denarekin, lehengo ideia horretara itzultzen da, baina hura bestelako hitz batzuekin adieraziz; hots, ideia birformulatu.

**43.5b** Egokitasunaren (*relevance*. Gaztelaniazko itzulpenetan *relevancia* itzuli izan da, baina Portolés-en (2007: 19) irizpideari jarraituz egokiagoa litzateke *pertinencia* —fr. *pertinence*, it. *pertinenza*— itzultzea, ez baita garrantzi kontua, ezpada egokitasun kontua) teoriaren ikuspegitik, zeinak kontuan hartzen baititu enuntziatuak interpretatzeko behar diren prozesu kognitiboak, Blakemore-k (1993, 1996, 1997, 2002) dio aurretik adierazitakoa birformulatzeko erabakia honi zor zaiola: hiztuna konturatu da bere aurreko adierazpena ez dela behar bezain egokia bere helburu komunikatiboak betetzeko eta jakitun da aurretik adierazitakoa birformulatu beharra daukala bere helburu komunikatiboekiko egokitasunik beteena lortuko badu<sup>8</sup>.

---

<sup>8</sup> Portolés-ek honela azaltzen du Egokitasunaren Printzipioa: “El Principio de Pertinencia se resume en: «todo enunciado comunica a su destinatario la presunción de su pertinencia óptima». Las personas buscamos en la relación entre lo dicho y el contexto la pertinencia mayor; es decir, el efecto cognitivo mayor —la mayor información— en relación con el esfuerzo de tratamiento más pequeño” (Portolés 2007: 19).



Hartzaileari edo solaskideari aurreko diskurtso atala egokiro interpretatzen laguntzeko gauzatzen den diskurtso eragiketa bat da birformulazioa<sup>9</sup>. Alegia, diskurtsoa berrinterpretatzeko prozedura bat da birformulazioa: haren bidez hitzuna aurreko diskurtso atalera edota aurreko enuntziatio-ekintzara itzultzen da, hura berrinterpretatzeko edo bestelako ikuspegi batez aurkezteko (Garcés 2009: 17). Birformulazioa, beraz, diskurtsoan lehenago adierazitakoa bestelako hitzez berradieraztea edo birformulatzea da. Hitzunak bere diskurtsoaren kontzientzia hartzen du eta —egin duen formulazioa guztiz gogobetegarria iruditu ez zaiolako, edo nahita diskurtsoa hala antolatu nahi duelako eta efektu diskurtsibo jakin bat lortu nahi duelako— beste hitz batzuen bidez edo ustez argiagoa den formulazio baten bidez saiatzen da adierazten hartzaileari adierazi beharrekoa.

Alde horretatik, birformulazioak funtzio desberdina bete dezake (Blakemore 1993) diskurtso planifikatu gabe (ulertze-arazoak konpontzea) eta diskurtso planifikatuan (testuinguru-efektu berri batzuk sortzea).

**43.5c** Hitzunak berak jar dezake abian (Garcés 2008, 2009) birformulazio prozesua, *autobirformulazio* deritzo prozesu horri: [Duela bi urte, 2007ko otsailean], *Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa* «*transgenikorik gabeko eremu*» izen-

---

<sup>9</sup> “Desde nuestra perspectiva, el proceso de reformulación consiste en volver sobre el contenido de un miembro o de un enunciado anterior o sobre el acto de enunciación, para expresarlo de otra manera equivalente o distinta. Se trata de un procedimiento de reinterpretación discursiva que evidencia la intencionalidad del hablante de guiar al interlocutor para que interprete el mensaje de la manera adecuada” (Garcés 2008: 75). “Este fenómeno refleja la capacidad de los hablantes de elegir las formulaciones lingüísticas que consideran más adecuadas en cada momento para configurar el texto, según su intención comunicativa, y se muestra, además, como una guía que ayuda al interlocutor a obtener las inferencias apropiadas para interpretar adecuadamente el mensaje” (Garcés 2009: 17).

“Reformulation is to be interpreted as the process of reinterpretation, where the contents of an utterance are expressed in a different way through a re-elaboration. This is done to facilitate the understanding, and/or to narrow the specificity of an utterance. Reformulation ensures cohesion and facilitates discourse by reducing any possible communicative defects of a text” (Mykhaylenko 2009: 4).

*datu zituen Jaurlaritzak; alegia, pertsona edo abereentzako elikagai izan zitezkeen landaketa transgenikoen aurka agertu zen (Berria).*

Edo beste hiztun edo solaskide batek eraginda gerta daiteke birformulazioa (erabilera dialogikoa). Holakoetan, B solaskideak A solaskidearen adierazpena birformulatzen du, eta orduan ‘heterobirformulazioaz’ mintzatuko gara: [Laukizuzena, gero; bi informazio behar dira hura zehazteko. Gero, erronboa, paralelogramoa, trapezioa.] *Eta, hara, ia-ia ahaztu zaizkit, haiek izanik ugarrienak inondik ere: nolanhikoak! Ezer nabarmenik ez dutenak. -Alegia — sartu zen tartean Jonathan—, matematikan lanerako sekula erabiltzen ez direnak (Jon Muñoz).*

Adibide horietan ikus daitekeenez, zeregin horretarako, besteak beste, birformulatuzaileak baliatzen ditu hiztunak. Hona hemen zer atal bereizten diren ohiko birformulazioetan. *Birformulakizun* deitzen da hemen birformulagai den testu atalari (Larringanek —1996— *adierazpen birformulatu* deritzo gauza berari). Bestalde, *atal birformulatuzaile* erabili dugu birformulazioaren “bigarren zatia” izendatzeko (Larringanek —1996— *adierazpen birformulatuzaile* deritzo gauza berari). Berariaz *birformulakizun* eta *atal birformulatuzaile* terminoak erabiltzea erabaki genuen, beste formula batzuen anbiguotasuna saihesteko.

Birformulakizuna [p]	[...] Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa «transgenikorik gabeko eremu» izendatu zituen Jaurlaritzak;
Birformulatuzailea	<u>alegia</u> ,
Atal birformulatuzailea [q]	pertsona edo abereentzako elikagai izan zitezkeen landaketa transgenikoen aurka agertu zen [Jaurlaritzak].

Beraz, honelakoa da birformulazioen egitura (Garcés 2009: 23):

$$\begin{array}{ccccc}
 \text{A atala} & + & \text{(lokailua)} & + & \text{B atala} \\
 \text{[birformulakizuna]} & & \text{[birformulatuzailea]} & & \text{[atal birformulatuzailea]}
 \end{array}$$

**43.5d** Atal birformulatzailea, bestalde, enuntziatu zati bat zein enuntziatu oso bat izan daiteke, eta askotariko kategoria sintaktikoetako (perpaua, izen sintagma, aditz sintagma, izena, aditza, adberbioa...). Birformulakizuna, berebat, enuntziatu zati bat zein enuntziatu oso bat izan daiteke (eta are enuntziatu batzuk ere: esate baterako, laburbiltzaileen kasuan). Birformulazio esplikati-boetan, sarri egoten da kidetasun edo paralelismo funtzionala bi atalen artean. Bereziki, birformulazio partzialetan; hots, birformulakizuneko enuntziatuaren zati bat birformulatzen denean.

Gehienetan agerian daude diskurtsoan birformulazioaren bi atalak (birformulakizuna eta atal birformulatzailea), baina kasu batzuetan —bereziki, birformulatzaile urruntzaileekin— isilean geratzen da birformulakizuna. Hala eta guztiz ere, pentsa daiteke birformulatzaileek beti betetzen dutela lokailu zeregina (Garcés 2008: 25-26); izan ere, ageriko atalak lotzen dituzte gehienetan eta batzuetan isildutako enuntziatu batera bidaltzen gaituzte.

Egia esan, ez da beti ezinbestekoa birformulatzaileak erabiltzea birformulazioa gauzatu dadin, baina, edozein modutan, atal honetan ez dira aztertuko birformulazio ‘inplizituak’, hots, diskurtso markatzailearik gabe gauzatzen direnak. Birformulakizunaren eta atal birformulatzailearen artean dagoen erlazioaren arabera, errazagoa, zailagoa edo are ezinezkoa izan daiteke birformulatzailea ezabatzea (Garcés 2009: 24-25). Birformulatzaile esplikatiiboak, esaterako, errazago ken daitezke baldin eta bi atalen artean baliokidetasun semantikoa badago; ezin dira ezabatu, ordea, inferentzia-erlazioa egonez gero. Birformulazio parafrastikoa errazagoa da birformulatzailea ezabatzea. Hala, bada, birformulazioa birformulatzaileen bidez edo birformulatzailearik gabe gauzatzen den kontuan harturik, autore batzuek bi birformulazio parafrastiko mota bereizten dituzte: birformulatzailearik gabe gauzatzen den ‘*funtzio* diskurtsibo parafrastikoa’; eta birformulatzaileen bidez bideratzen den ‘*eragiketa* diskurtsibo parafrastikoa’ (Garcés 2009: 19). Bestelako birformulazio motak (laburbiltzailea, urruntzailea, zuzentzailea) adierazten dituzten birformulatzaileek, ostera, agerian egon behar dute eskuarki, osterantzean diskurtsoaren interpretazioa ez baita berdina.

Lehenbiziko adibidean, esate baterako, *alegia* birformulatzailea kenduta ere berdin-berdin ulertuko genuke bigarren enuntziatua: hots, ez genuke arazorik

izango konturatzeko bigarren enuntziatuan nolabaiteko azalpena datorrela, edo, bestela esanda, ez guke arazorik izango bigarren enuntziatua aurreko enuntziatuaren azalpen edo birformulaziotzat ulertzeko. Alde horretatik esan daiteke birformulatzailerak diskurtsoaren norabideaz edo orientazioaz hobeto jabetzeko bide-seinale moduko batzuk direla: gure adibidean, bigarren enuntziatuaren hasieran mugarri gisa agertzen den *alegia* birformulatzailerak —azalpenezko birformulatzailerak baita— argiro adierazten dio hartzaileari ondoren nolabaiteko azalpena edo berrinterpretazioa datorrela.

**43.5e** Bereizketa bat egin beharra dago birformulazioaren edukiaz. Gehiengintan birformulakizunaren edukiari edo adieraziari dagokio atal birformulatzaileran egiten den formulazio berria. Baina batzuetan enuntziatio-ekintza bera —esate bera— bihurtzen da birformulazioaren helburu: horixe gertatzen da, esate baterako, *hobeto esanda*, *hobeki esanda* eta antzerako birformulatzailerak zuzentzaileak edota *labur esanda* moduko birformulatzailerak erabiltzen direnean.

Azpimarratzekoak dira birformulatzailerak diskurtso markatzaileekin partekatzen dituzten ezaugarriak:

- a) prozesatze-esanahia izatea eta, beren ezaugarri semantiko eta pragmatikoen arabera, hartzailea inferentzietan gidatzeko funtzioa izatea;
- b) perpausean funtzio sintaktikorik ez betetzea;
- c) aldagaitzak izatea;
- d) agertzen diren diskurtso atala aurreko diskurtso atalarekin lotzea.

Baina zein dira birformulatzailerak bereizgarriak? Hona hemen bereizgarri nagusietako batzuk (Garcés 2008: 81-85):

- a) Aurreragoko diskurtso atal bat —agerikoa nahiz isilekoa— berrinterpretatzeko prozesu batean parte hartzea: kasuan kasuko erlazioaren arabera eta birformulatzailerak motaren arabera baliokidetzatik zuzenketaraino joan daitezke berrinterpretazioa.
- b) Gainerako diskurtso markatzaileekin alderatuta, izaera polifonikoa (hots, askotariko ahotsak agertzea) da birformulatzailerak parte hartzen

duten egituren bereizgarrietako bat (Garcés 2008: 82-83). Izan ere, zerbait birformulatzean atzera egiten dugu diskurtsoan lehenago adierazitakoa berrinterpretatzeko, eta atzera itzultze horretan ikuspuntu berri bat sartzen dugu, birformulakizunekoarekin bat etor daitekeena edo ez. Esaldi honetan, adibidez, esatari bat eta bi enuntziatzaile bereizten ditugu: *Berandu etorriko dela esan du. Alegia, ez da etorriko*. Polifoniari buruzko teorian (Ducrot 1984) hiru kontzeptu hauek bereizten dira (Garcés 2008: 82): a) *hiztuna* (gazt. “hablante”), enuntziatua ematen duena; b) *esataria* (gazt. “locutor”), esaten denaren erantzulea; c) *enuntziatzailea* (gazt. “enunciador”), enuntziatuetan agertzen diren ahots edo ikuspuntuaren erantzulea.

- c) Birformulakizunaren eta atal birformulatzailearen artean berdintasunezko erlazio hierarkikoa izatea edo menderakuntzazko erlazioa izatea. Menderakuntzazko erlazioa izango dugu, baldin birformulakizuna eta atal birformulatzailea alderantzikagarriak ez badira eta, beraz, diskurtsoaren jarraipenerako atal birformulatzailea jotzen bada baliozkotzat. Aldiz, bi segmentuen artean baliokidetzat semantikoa badago eta alderantzikagarriak badira esanahia aldatu gabe, berdintasunezko erlazio hierarkikoaz hitz egingo dugu (Garcés 2008: 83-84).
- d) Birformulatzaileen esanahi berezia. Alde batetik, aurreko enuntziatua edo diskurtso atala ikuspuntu berri batetik berrinterpretatzeko jarraibideak ematen dizkigute (birformulatzaile bakoitzak, alde batetik, esanahi jakin bat edo batzuk izan ditzake, eta, beste alde batetik, testuinguruaren arabera har ditzakeen askotariko zentzuak). Bestalde, informazio-egiturarekin zerikusia duten jarraibideak ematen dizkigute birformulatzaileek: mintzagaiaren jarraipena edo aldaketa (Portolés 2007: 122-123).
- e) Mugikortasuna da diskurtso markatzaileen beste ezaugarri bat, baina birformulatzaileen kasuan banan-banan aztertu behar da kokagunea. Dena dela, autore gehienek azpimarratzen dutenez, birformulazio mota guztietan informazioaren ikuspegitik diskurtsoan beti geratzen da nabarmenduta atal birformulatzailea.

## 43.6. Euskarazko birformulatzaileen sailkapena

**43.6a** Birformulakizunaren eta atal birformulatzailearen artean dagoen erlazio motaren arabera eta hizkuntzaren arabera, askotariko sailkapenak proposatu izan dira: gaztelaniazko, frantsesezko eta ingelesezko sailkapenei buruz, esaterako, Cortés eta Camacho (2005: 238-255) ikus daiteke. Gaztelaniari buruzko ikerlanetan (Martín Zorraquino eta Portolés 1999: 4121-4139; Portolés 2007: 71-72; Martí 2008: 60-65; Garcés 2008) lau birformulatzaile mota nagusi hauek bereizi izan dira:

- a) “explicativos”: *o sea, es decir, a saber, esto es...*
- b) “rectificativos”: *mejor dicho, mejor aún, más bien...*
- c) “de distanciamiento”: *en cualquier caso, en todo caso, de todos modos...*
- d) “recapitulativos”<sup>10</sup>: *en suma, en resumidas cuentas, en conclusión, en definitiva, en fin, total, al fin y al cabo, después de todo...*

Fuentes-ek (2009), berriz, honako hiru azpisail hauek baino ez ditu bereizten eta birformulatzaileetatik kanpo uzten ditu gainerakoak: kontzesiboen sailean sartzen ditu *en cualquier caso, en todo caso, de todos modos* eta antzekoak; eta aparteko sail batean sartzen ditu “recapitulativos” direlakoak (*en suma, en definitiva, en conclusión...*):

- a) “explicación”: *o sea, es decir, a saber, esto es, dicho de otra manera...*
- b) “corrección”: *mejor dicho, antes bien, por mejor decir, bueno 3, digo 1, en fin 2...*
- c) “concreción”: *concretamente, en concreto 1, en particular 1, específicamente, particularmente 4, sin ir más lejos 1...*

**43.6b** Gramatikaren atal honetan, aurreko sailkapenak uztarturik, euskarazko birformulatzaileak bost sailetan banatzea proposatzen da: a) esplikatiboak; b) zehaztaileak; c) laburbiltzaileak; d) urruntzaileak; e) zuzentzaileak.

---

<sup>10</sup> “De generalización” deitzen die Martí-k (2008).

### 43. Diskurtso markatzaileak (II): birformulatzaileak

Birformulazioa den atzera itzultze horretan modu askotara berrinterpretatzen da aurreko diskurtso atala: a) batzuetan, azalpenak ematen ditu hitzunak (birformulatzaile esplikatibo edo azalpenezkoak: *alegia, hau da, hots...*); b) beste batzuetan, zehaztu egiten da informazioa (zehaztaileak: *zehatz(ago) esanda, zehatz-mehatz, zehazkiago...*); c) laburbildu egiten da esandakoa edo balioespenez subjektibo bat —berrausnarketa— aurkezten da (laburbiltzaileak: *labur esanda, laburbilduz, hitz gutxitan...; azken batean...*); d) zenbaitetan, hitzuna urrundu egiten da esandakotik, edo, hobeto esanda, mugatu edo berrorientatu egiten du esandakotik atera daitekeen inferentzia (urruntzaileak: *dena dela, dena den, edozein modutan, nolana ere, esanak esan...*); e) edo zuzendu egiten du adierazitakoa (zuzentzaileak: *are hobeto/hobeki, barkatu, bestela esan(da), hobeto esanda...*).

Horiek horrela, birformulatzaileen eginkizuna hau da: enuntziatuen edo diskurtso atalen arteko lotura gauzatzea eta haien artean zer-nolako erlazio semantiko-pragmatikoa dagoen agerian uztea: azalpena, zehaztapena, laburbilketa eta berrausnarketa, urruntzea eta zuzenketa.

<b>Birformulatzaileak</b>	
a) Esplikatiboak	<i>alegia bestela esanda beste era batera esanda... beste modu batera esanda... beste hitz batzuetan (esanda)... beste hitzetan (esanda) erran nahi baita... hau da hots</i>
b) Zehaztaileak	<i>hurrenez hurren zehatz esanda/esateko... zehatz-mehatz zehatzago esanda/esateko... zehazkiago...</i>

<b>Birformulatzaileak</b>		
c) Laburbiltzaileak	c1) Laburbiltzaile hutsak	<i>labur esanda/esateko... laburbilduz, laburbilduta... hitz batean/batez hitz batean esateko hitz bitan esateko hitz gutxitan...</i>
	c2) Berrazterketa edo berrausnarketa adieraztekoak (“de reconsideración”)	<i>azken batean/baten/batez azken buruan azken finean</i>
d) Urruntzaileak		<i>dena dela dena den... edonola ere edozein kasutan (ere) edozein modutan (ere)... esanak esan hala ere hala eta guztiz ere nolanahi den nolanahi ere...</i>
e) Zuzentzaileak		<i>(edo) hobeto/hobeki are hobetolare hobeki... barkatu, barka bestela esanda egia esanda hobeto esanda... zer diot?</i>

Euskarazko diskurtso markatzaile birformulatzaileen sailkapena

## 43.7. Birformulatzaile esplikatibo nagusiak

**43.7a** Gaurko euskara estandarrean hiru hauek dira —alde handiz, gainera— birformulatzaile esplikatibo erabilienak: *alegia, hau da, hots*.



Askozaz ere erabilera-maiztasun apalagoa dute beste hauek:

- *erran nahi baita* (*erran nahi da, esan nahi baita, esan nahi da*)
- *bestela esanda* (*bestela esan, bestela esateko...*)
- *beste era batera esanda* (*beste era batera esateko...*)
- *beste modu batera esanda* (*beste modu batean esanda/esateko*)
- *beste hitz batzuetan/batzuekin* (*esanda...*)
- *beste hitzetan/hitzez* (*esanda...*)

**43.7b** Birformulatzaile horien guztien lexikalizazio-maila ez da berdina: erabili-  
lienak eta tradizio zabalena dutenak (*alegia, hau da, hots, erran nahi baita*), guz-  
tiz finkatuta daude hiztegian esapide diskurtsibo gisa; gainerakoak ez daude hain  
finkatuta, sintaxi-gorabeherak erakusten dutenez, eta horrek esan nahi du grama-  
tikalizatze- eta lexikalizatze-bidean daudela: *Eta biloa tente omen zegoen berna-  
ko azalean, bere besoetan bezala; alegia, izuak hartuta balego bezala hura ere*  
(Saizarbitoria); *Haurrek beraiek ere sumatzen dute ipuina konplexua, aberatsa*  
*edo nahasia dela, hau da, mezu diferenteak gordetzen dituela, eta horregatik*  
*interesatzen zaie* (Urkiza); *Horrelaxe iristen gara Jainkoaren, hots, Sortzailea-*  
*ren, existentzia frogatzera* (Kintana); *Eta ondorioz, ez da bata bestearen kausa*  
*izaten ahal; erran nahi baita, ez duela bata ekoizten ahal bestea* (Xarriton).

### 43.7.1. Birformulatzaile esplikatiboen balio oinarritzkoa: azalpena

**43.7.1a** Azalpenezko birformulazioak bideratzeko erabiltzen dira birformula-  
tzaile esplikatiboak: hots, aurreragoko diskurtso atal batean —eskuarki, aurreko  
enuntziatuan— adierazitakoa azaltzera, argitzera, osatzera edo zehaztera da-  
torren diskurtso atal bati bide egiteko. Birformulatzaile esplikatiboez baliatzen  
da esataria esan berri duena modu argiago batez birformulatzeko: haien bidez  
esatariak ohartarazten edo iragartzen dio hartzaileari —edo are bere buruari  
ere— lehenago adierazi duenari buruzko azalpen bat datorrela birformulatzaile  
esplikatiboak txertatzen duen diskurtso atalean. Ikus ditzagun adibide batzuk:

«*Katilinenak*» *nobelak misteriozko istorioa du kontagai, baina, intrigazko*  
*nobela honetan askatu behar den misterioa ez da ohikoa. Hau da, nobela*

*honetan misterioa edo intriga ez dago gertakari batzuk argitzearekin loturik (Berria).*

Birformulakizuna	[...] intrigazko nobela honetan askatu behar den misterioa ez da ohikoa.
Azalpena: atal birformulatzaila	Hau da, nobela honetan misterioa edo intriga ez dago gertakari batzuk argitzearekin loturik.

*Kasu honetan, gainera, birusak gizakien artean kutsatzeko ahalmena ere bazuela berehala ikusi zuten adituek, eta horrek kezkatu zituen, batez ere; izan ere, gaitza ohiko gripea hedatu ohi den gisan hedatuko zela ohartarazi zuten, oso bizkor, alegia (Berria).*

Birformulakizuna	(izan ere, gaitza) ohiko gripea hedatu ohi den gisan (hedatuko zela...);
Azalpena: atal birformulatzaila	oso bizkor, <u>alegia</u> .

Azpitarratzekoa da diskurtsoaren harian atal birformulatzaila geratzen dela indartuta edo nabarmenduta; beraz, hura hartu behar da aintzat eta ez birformulakizuna.

**43.7.1b** Aurreko adibideetan ikus daitekeenez, birformulatzaila esplikatiboen bidez lotzen edo kateatzen diren diskurtso atalak enuntziatu osoak (1) nahiz enuntziatu zatiak (2) izan daitezke, eta askotariko kategoria lexiko eta sintaktikoetakoak (perpausak, izen sintagmak, aditz sintagmak, izenak, aditzak...).

## **43.7.2. Birformulatzaila esplikatiboen balio nagusiak**

### **43.7.2.1. Erreferentziazko birformulazioa**

Birformulatzaila esplikatiboek, oro har, birformulazio prozesuetan betetzen dituzten funtzio nagusien artean identifikazio- eta zehaztapen-funtzioa aipatu

behar da lehenik: birformulakizunari erreferentzia jakin bat esleitzen dio, eta horregatik deitzen dugu erreferentziazko birformulazioa. Honetan datza birformulazio prozesua: birformulatzailearen bidez birformulakizunari erreferentzia jakin bat esleitzen zaio atal birformulatzailean; hots, identifikazio edo zehaztapen bati bide emateko erabiltzen da. Denborazko eta lekuzko esapideak argitzeko erabiltzen da, edota deiktikoen eta sintagma zehaztugabeen erreferentzia identifikatzeko edo zehazteko:

*Sortu zenetik –XIX. mende-hasieratik, alegia–, biologiak ez dio utzi egituretan barrentzeari eta funtzioetan sakontzeari (Juan Garzia).*

*Baina bideratutako dirua Europako batez bestekora hurbiltzen joateko eskatu zuten; hau da, Barne Produktu Gordinaren % 3 ingurura hurbiltzeko (Berria).*

Erreferentzia esleitu	Zehaztapena (“especificación”) zehaztugabea > zehaztua	Determinatzaile zehaztugabea: <i>bat, batzuk, zenbait...</i> ; mugatzaile generikoa: $-a(k) > \text{zehaztua}$ .
	Identifikazioa (denbora, lekua...) Itxuraz zehaztua > zehaztua...	sintagma mugatua: <i>hori (Azken ikuspuntu hori...)</i>

#### 43.7.2.2. Azalpenezko birformulazioa

Bigarren funtzioa birformulakizunaren esanahia edo zentzua argitzea da, eta azalpenezko birformulazioa deitzen dugu horregatik. Honetan datza birformulazio prozesua: birformulatzailearen bidez birformulakizunaren esanahia edo zentzua argitzen da atal birformulatzailean; hots, azalpen bati bide egiteko erabiltzen da. Alde batetik, hitzen esanahia argitzeko erabiltzen da (neologismoak, hitz ezezagun edo teknikoak, atzerriko hizkuntzetakoak, latinetikakoak eta abar): *Afghanistaneko 29 urteko emazte bat lapidatu dute, hots, harrika hil, hango araba lege edo ohiduren arabera (Herria).*

Bestetik, aurreragoko enuntziatu oso baten zentzua edo interpretazioa argitze-ko erabiltzen da. Gorago aipatu adibideak balio digu: «*Katilinarenak*» *nobelak misteriozko istorioa du kontagai, baina, intrigazko nobela honetan askatu behar den misterioa ez da ohikoa. Hau da, nobela honetan misterioa edo intriga ez dago gertakari batzuk argitzearekin loturik (Berria).*

#### 43.7.2.3. Definiziozko birformulazioa

Hirugarren funtzioa birformulakizunaren esanahia zabaltzea da. Horregatik deitzen dugu definiziozko birformulazioa. Honetan datza birformulazio prozesua: birformulatzailearen bidez birformulakizuna definitzen da atal birformulatzailean; hots, nolabaiteko definizio bati bide egiteko erabiltzen da. Batez ere, terminoak definitzeko erabiltzen da: *Inflazioaren kontrakoa da deflazioa, hau da, prezioek behera egitea (Berria); Uranio astunaren atomo baten diametroa elementu arinenaren -hots, hidrogenoaren- atomoaren diametroa baino bizpahiru aldiz handiagoa baino ez da. Atomo arrunt baten diametroa 0,3 nanometro inguru da; nanometroa (1 nm) metro baten milamiliorena da, edo, bestela esanda, milimetro baten milioirena; alegia, irudikatzen gai garen neurriaren muga-mugan (Juan Garzia).*

#### 43.7.2.4. Izendapenezko birformulazioa

Birformulakizunaren esanahia laburbiltzea da hirugarren funtzioa: izendapenezko birformulazioa deitzen dugu. Honetan datza birformulazio prozesua: birformulatzailea erabiliz termino bakar batera ekartzen da atal birformulatzailean birformulakizuneko formulazio luzea. Hots, birformulakizuna laburbiltzen duen deitura edo termino bati bide egiteko erabiltzen da birformulatzaile esplikatihoa: *Gizakiok entzuten ez ditugun maiztasun baxuko soinuak, hots, infrasoinuak nabaritzeko gai dira (EiTB).*

#### 43.7.2.5. Inferentziako birformulazioa

**43.7.2.5a** Badira, azkenik, beste balio batzuk ere: ondorioa, dedukzioa, konklusioa... Inferentziako birformulazioa deitu dugu hemen. Zenbaitetan —testuingurua lagun— aipatutakoez bestelako balioak bereganatu ditzakete birformulatzailak esplikatiboek. Izan ere, birformulatzailak esplikatiboek, birformulatzailen nolabaiteko hiperonimoak direnez (Robles 2012), gai dira bestelako birformulazio motak adierazteko (zuzenketa, laburbilketa, berrazterketa...).

Are gehiago, zenbaitetan, eragiketa testual argumentatiboek betetzeko erabiltzen dira birformulatzailak esplikatiboek: batez ere, ondorioa eta konklusioa adierazteko. Izatez, hori ez da birformulatzailak esplikatiboen funtzio prototipikoa, baina, testuingurua lagun, ondorioa eta bestelako funtzio argumentatiboek bereganatu ditzakete inferentzia-prozesuetan.

**43.7.2.5b** Inferentziako prozesua gertatzen denean ondorio edo dedukzio bati bide egiteko erabiltzen da birformulatzailak esplikatiboa: ondorio subjektiboa, emaitza, dedukzioa... Halakoetan, atal birformulatzailaren hasieran paratu ohi da markatzailea eta identifikaziotik edo baliokidetzatik harantzago doa bi atalen arteko lotura: birformulazioa ez da oinarritzen parafasian, inferentzian baizik. Informazioaren egituraren aldetik, iruzkin berriak ez du errepikatzen lehengo mintzagaia, baizik eta aurreko enuntziatutik ondoriozta daitekeen zerbait gaineratzen du: ondorengo testuetan, esaterako, birformulakizunean adierazten denez harantzago doa birformulazioa. Gehienetan, aurreko enuntziatutik ondoriozta daitekeen zerbait gaineratzen da atal birformulatzailan.

Hona hemen adibide batzuk: *Heien jokoa litake Charia delakoa hedatzea herri osoan, erran nahi baita islamisten lege dorpeenaren pean ezartzea herria eta jendea (Herria); -Kontu handiz, bai horixe! Nonbaitik hasi behar, hala ere -baieztatu zuen Léak -, ezta, Ruche jauna? Izan ere, esaldi hau aurkitu dut, Polibio deritzon batena: “Guztiaren bide erdia da hasiera”. Alegia, gaizki hasiz gero, okerra luzaroko! (Jon Muñoz); Adimena beldurrez makaldua duen gizon iaio batek bizimodu oparora eta diru pila eskaintzen dit bere ministro izan nadin; bihar, ordea, kalera bidaltzen banau, hortxe suertatuko naiz*

*zahar eta txiro; alegia, munduan den egoerarik arbuiagarrienean; horra, orduan, pertsona atsegina kondesari eskaintzeko!* (Jon Muñoz).

*Alegia*-k, bestalde, badu aipatutakoez bestelako balio bat: azaldu nahi denari sarrera ematea. Gehienetan agerian daude testuetan birformulazioaren bi atalak (birformulakizuna eta atal birformulatzaila). Hala ere, ahozko hizkeran batez ere, *alegia* sarritan erabiltzen da azaldu nahi denari sarrera emateko, hots, adierazi ez den formulazio inplizitu baten birformulazioari bide egiteko: *—Ta, zer esan dizu? —Esan dit, alegia, hauek gaztetxoak, txikitxoak direla oraindik eta urruti haietara iritsi gabeak direla* (G. Mujika).

#### 43.7.2.6. Laburpen taula

Ondorengo laburpen taulan ikus daitekeenez, birformulatzaila esplikatiboek funtzio metadiskurtsiboak betetzen dituzte batik bat: hiztunak bere jarduera diskurtsiboaren kontzientzia du eta diskurtsoarean interpretazio zuzena egin dadin kontrolatu eta gidatu nahi du diskurtsoa; aurreko diskurtso atalaren formulazio argiago edo egokiago bat lortzeko erabiltzen dituen “bide-seinale” modukoak dira birformulatzaila esplikatiboak.

Nolanahi ere, zenbaitetan eragiketa testual argumentatiboak betetzeko erabiltzen dira birformulatzaila esplikatiboak: batez ere, ondorioa eta konklusioa adierazteko. Hauek dira, orduan, birformulatzaila esplikatiboen funtzio nagusiak:

<b>Birformulatzaila esplikatiboak</b>	<b>Balio nagusiak</b>
Funtzio metadiskurtsiboak (erabilera ohikoa edo markatu gabea)	a. Erreferentzia esleitzea b. Esanahia edo zentzua argitzea c. Definizio bidez azaltzea d. Izendapen bidez azaltzea [...]

Birformulatzaile esplikatiboak	Balio nagusiak
Funtzio argumentatiboak (erabilera markatua edo ezohikoa)	Ondorioa/konklusioa (inferentziazko birformulazioa) [...]

### 43.7.3. Birformulazio parafrastikoa

**43.7.3a** Birformulazio prozesuetan bi erlazio mota berezi izan dira: birformulazio parafrastikoa eta ez-parafrastikoa. Birformulazio parafrastikoa, funtsean, hierarkia bereko bi diskurtso atalen artean ezartzen den baliokidetzak diskurtsiboan oinarritzen da. Gure ustez, erlazio parafrastikoa ezartzen da birformulakizunaren eta birformulatzailearen artean birformulazio esplikatibo gehienetan, adibideok erakusten duten gisa: *Enpresa txiki eta autonomoen kasuan, dirua aurrezki kutxen edo bankuen bidez emango da, baina berme sozietateak -Elkargi eta Oinarri- arduratuko dira bideratzeaz, hau da, abalak eskaintzeaz (Berria).*

**43.7.3b** Birformulatzaile esplikatiboen bidez bideratzen diren inferentziazko birformulazioetan, berriz, ez dago baliokidetzak diskurtsiborik bi atalen artean, atal birformulatzailean nolabaiteko ondorioa edo dedukzioa —zenbaitetan, guztiz subjektiboa— adierazten baita: *Hortaz, gauza jakina da orai European sartu berri diren hamarrek ez dutela beren mintzairan agertu ahal izan gain hartan beren dozierik. Hots, izanen da oraino zer asma denen egiazko errespetu batentzat (Herria).*

### 43.7.4. Birformulazio partziala eta erabatekoa

**43.7.4a** Birformulatzaile esplikatiboek perpausaren esparruan (birformulazio partziala) nahiz perpausetik gorako mailan (birformulazio erabatekoa) betetzen dute beren eginkizun diskurtsiboa.

**43.7.4b** Birformulazio partziala. Alde batetik, perpaus baten barruan erabiltzen dira, elementu baten (birformulakizuna) eta elementu hori azaltzera edo zabaltzera datorren iruzkin baten (atal birformulatzailerak) arteko lotura semantiko-pragmatikoa ezartzeko: atal birformulatzailerak aposaturik ematen denean aurreragoko sintagma bat —eskuarki, aurreko sintagma— izaten da birformulakizuna: *Tenpluaren barreneko azken hamar metroak, berriz, zedrozko oho-  
lez estali zituen, behetik hasi eta goiko habeetaraino, eta toki hori santutegia,  
hots, toki santu-santua izateko antolatu zuen (Elizen arteko Biblia)*.

Horrelakoei birformulazio *partzial* deritze (Garcés 2009: 23). Batez ere aposaturik (koma artean) edo tarteki gisa (gidoien edo parentesien artean) eman ohi da atal birformulatzailerak. Eta sarri askotan halako paralelismo funtzional bat (eta are sintaktikoa ere) egon ohi da birformulakizunaren eta birformulazioaren artean (*lapidatu dute / hots, harrika hil*): paralelismo funtzional horrek, bestalde, badu zerikusia informazio-egiturarekin, eskuarki birformulakizuneko mintzagai bera iruzkintzera baitator atal birformulatzailerak (gure testuan, adibidez, galdera berari erantzuten diote bi enuntziatuek: *Zer egin dute/diote?*). Gainera, gehienetan erlazio parafrastikoa dago bi enuntziatuen artean: hau da, nolabaiteko baliokidetzak diskurtsiboa egon ohi da birformulakizunaren eta atal birformulatzaileraren artean.

**43.7.4c** Birformulazio erabatekoa. Beste alde batetik, birformulazio erabatekoan (erabilera aposatu gabe) testu bateko perpaus biren (edo gehiagoren) arteko lotura semantiko-pragmatikoa (birformulazioa) ezartzeko erabiltzen dira birformulatzailerak esplikatiiboak, eta aurreragoko perpausa edo perpaussegida izaten da birformulakizuna: *Horrenbestez, datozen asteetan batez besteko hipoteka -160.000 euro, 30 urtean itzultzekoak eta % 0,5eko diferentzialarekin- berritu behar dutenek % 10,10eko beherapena izango dute kuotan. Bestela esanda, 63 euro gutxiago pagatu beharko dute hilean, edo 756 euro gutxiago urtean (Berria)*.

Horrelakoei birformulazio *erabatekoa* deritze (Garcés 2009: 23). Erabilera aposatu gabe, atal birformulatzailerak ez doa aposaturik (koma artean) edo tarteki gisa (gidoien edo parentesien artean), baizik eta perpaus berri bat osatzen du. Bestalde, ez da egoten paralelismo funtzionalik birformulakizunaren



eta birformulazioaren artean eta ez da iruzkintzen mintzagai bera atal birformulatzailean. Zenbaitetan, gainera, ez da parafrastikoa bi enuntziatuen arteko erlazioa (esate baterako, birformulakizunaren eta atal birformulatzailearen artean inferentziazko erlazioa agertzen denean).

### 43.7.5. Sintaxia

**43.7.5a** Azaldu denez, birformulatzaile esplikatiboek perpausaren esparruan (birformulazio partziala) nahiz perpausetik gorako mailan (birformulazio erabatekoa) betetzen dute beren eginkizun diskurtsiboa.

Birformulazio partzialetan atal birformulatzailea aposaturik eman ohi da eta aurreragoko sintagma bat —eskuarki, aurreko sintagma— izaten da birformulakizuna. Halakoetan, luzera eta maila guztietako kategoria lexikoak eta sintagmak txertatzen dituzte birformulatzaile esplikatiboek: izen sintagmak, adjektibo sintagmak, adberbio sintagmak, perpausak (osagarriak, helburuzkoak...). Eta, hain zuzen ere, diskurtso markatzaile hauen zeregin nagusietako bat zera da: tarteki gisa txertatzen edo gaineratzen duten iruzkin esplikagarriaren balio birformulatzailea agerian uztea.

Adibide batzuk: *Beste zentralak ere, Krutxagak alegia, ez dirudi presa askorik duenik Osasunaren eskaintzari erantzuteko (Berria); Ezin diat hitzez hitz, dialogo dramatiko modura alegia, transkribatu gure gonbertsazioa (J. A. Arrieta); Frankek iragarritakoa betetzen bada, alegia, urtearen amaieran Mepamsa ixten badute, Iruñeak eta, oro har, Nafarroak «kolpe gogorra» jasoko dutela iritzi dio LABek, «lanpostu asko desagertuko baitira» (Berria); Komeria franko izango ditu Interrek bi gol sartu, eta batez ere, Milango aurrelarien eraginkortasuna murrizteko, alegia, kontrarioak golen bat ez sartzeko (Berria); Egoera atmosferikoak erakusten du goiko geruzetan aire masa hotza jaun eta gabe dugula eta, gainera, ez dagoela egonkortuta, alegia, momentu batetik bestera izugarritzko aldaketak izan daitezkeela (Berria).*

**43.7.5b** Aurreko adibideetan ikus daitekeenez, birformulazio partzial askotan halako paralelismo edo baliokidetasun funtzionala (eta are sintaktikoa ere)

egon ohi da birformulakizunaren eta birformulazioaren artean (... *betetzen bada /... ixten badute; ... murrizteko /... ez sartzeko; ... ez dagoela /... izan daitezkeela*). Izan ere, gehienetan, atal birformulatzaile tartekatuak edo aposatuak eta birformulakizunak kasu marka eta numero bera izan ohi dute, baina, berez, ez dute zertan komunztadura sintaktikoa gorde. Aski da elkarrekin identifika daitezkeen elementuak izatea. Ondorengo testuan, adibidez, birformulakizuna singularra da (*matematika-adar guztien zerrenda*) eta atal birformulatzailea (*azpisailak*), berriz, plurala: *Matematikaren historiako aldi nagusiak erabaki. Horra sailak. Landutako matematika-adar guztien zerrenda osatu gero: azpisailak, alegia (Jon Muñoz); Hondakinek zabor izateari utz diezaiokeite gai organikoak naturaren ziklora itzultzen badira, hau da, konpostatzearen bidez (Berria).*

Aurreko adibideetan ikusi denez, eskuarki (Zabala 1996b), birformulakizunaren ondoren —haren ondo-ondoan— jarri ohi da iruzkina sartzen duen atal birformulatzaile aposatua (bereziki, birformulakizuna elementu nominala bada).

**43.7.5c** Zenbaitetan, berriz, aditzaren aurrean geratzen da birformulakizuna eta aditzaren ondoren birformulazioa: horixe gertatzen da gehienetan, esaterako, birformulakizuna perpausaren galdegaia bada: *Horretarako Espainiako Konstituzioaren 118. artikulua betetzea galdegin zion Mahaiari, alegia, ebazpen judizialak betetzea (Berria).*

**43.7.5d** Inoiz edo behin, birformulazio kateak ere gertatzen dira testuetan (birformulatzaile bera errepikatuz edo birformulatzaile baliokideak uztartuz). Halakoetan, birformulazio bakoitza aurrekoaren birformulaziotzat har daiteke: *Emazte hau historiak ahan-tzi du; hots, historia idazten dutenek dute ahan-tzi, hau da, gizonek (Berria).*

Birformulatzaile esplikatibo nagusiak balia daitezke heterobirformulazio bat gauzatzeko: aski da elkarrizketaren harian beste solaskide batek hitza hartzea eta aurreko esatariaren enuntziatua birformulatzea. Beraz, erabilera monologikoari edo dialogikoari bagagozkie, ez dirudi funtsezko desberdintasunik dagoenik.

**43.7.5e** Ez dirudi, ordea, birformulatzaile esplikatibo guztiek beregaintasun diskurtsiboa dutenik. Haietako bi (*alegia, erran nahi baita*), elkarrizketa batean ager daitezke txanda bat eta enuntziatu bat osatuz (beregaintasun diskurtsiboa). Elkarrizketa baten harian galderazko enuntziatu beregain bat osatzeko gauza dira *alegia* eta *erran nahi baita*, solaskideari azalpen zehatzago bat edo birformulazio argigarri bat eskatzeko erabiltzen dira, esaterako, testu hauetan:

– *Nik, berriz – sartu zen tartean Jonathan, goxo-goxo—, ez dut uste zuk esan bezala gertatu denik kontua. Zuk ez duzu ezertxoren erantzukizunik. Burua mugitu zuen Ruche jaunak, tristuraz.*

– *Dena antolatuta zeukan zure adiskideak –jarraitu zuen Jonathanek—. Bidalizun gutuna haren testamentua da. Bere heriotza aurreikusi, eta gauzatu egin du noski.*

– *Alegia?* (Jon Muñoz).

Aurreko testuetan ikusi denez, birformulazio partzialetan, oro har, ez da *-(e)la* menderagailua erabiltzen atal birformulatzailean, salbu eta perpau osagarri bat (*-la* menderagailuduna) birformulatzen denean (... *-la esan dute; bestela esanda, ... -la*).

**43.7.5f** Erabateko birformulazioetan, berriz, jokamolde desberdinak ageri dira. Birformulatzaile batzuk, salbuespenak salbuespen, ez dira konbinatzen *-(e)la* menderagailuarekin: *bestela esanda, beste era batera esanda, beste modu batera esanda, beste hitzetan esanda...* Beste birformulatzaile batzuk *-(e)la* menderagailuarekin agertzen dira batzuetan, baina sarriagotan erabiltzen dira gabe: *alegia, hau da, hots*. Eta, *erran nahi baita* birformulatzailea, azkenik, *-(e)la* menderagailuarekin agertu ohi da, salbuespenak salbuespen<sup>11</sup>.

Beste diskurtso markatzaile batzuk ez bezala (*baina, hala ere*), *alegia, hots* eta *hau da* normalean ez dira agertzen juntagailuekin batera birformulatzaile

---

<sup>11</sup> Alegia, perpau osagarria gobernatzen du ia beti. Hots, *alegia, hots* eta *hau da* birformulatzaileek ez bezala, funtzio sintaktiko argia betetzen du, atal birformulatzaileko predikatu nagusia baita.

eginkizunean (*?eta alegia*). *Erran nahi baita* ere nekez agertzen da juntagai-  
luekin batera. Eta *bestela esanda* eta haren kidekoak, aldiz, *edo* juntagailuare-  
kin agertzen dira batzuetan (*edo, bestela esanda...*).

### 43.7.6. Birformulatzailen kokagunea

**43.7.6a** Kokaguneari dagokionez, funtsezkoa da birformulazio partzialaren (aposatua-  
ren) eta erabatekoaren (aposatu gabearen) arteko bereizketa. Izan ere, erabateko birformulazioan atal birformulatzailaren hasieran jartzen dira ia beti birformulatzaila esplikati-  
boak: *Ikaratu egiten gaitu halako krudelkeriak, gupida ezak: azken finean, hurbila izan behar zitzaien mutila bi eguneko bahiketaren ondoren. Baina ikara gainditu eta hausnarketarekin jarraituz gero, egia azaltzen da, alegia, ziurtzat jo dezakegu kasu horietan ere, heriotza zentzumen guztietatik sartzan denean ere, urruntzaile bat dagoela, leungarri bat: ideologia* (Atxaga).

**43.7.6b** Esanak esan, *alegia* birformulatzaila atal birformulatzailaren amaie-  
ran ere joan daiteke birformulazio erabatekoetan, baldin eta bi enuntziatuak la-  
burrak badira: *Izan ere, bikotekideek hildako emakumeen erdiek ez zuten inola-  
ko salaketarik jarri aldez aurretik; alegia, oso kasu larrien erdia baino gehiago Justizia Administrazioaren esku-hartzetik kanpo gelditzen dira oraindik ere* (Berria); *Besterik gabe idatzi nuen. Ez zidan lan handirik eman, alegia.*

**43.7.6c** Bestalde, inoiz, ez hasieran, ez amaieran, baizik tartekatuta —sar-  
tzen duen perpauseko osagai baten (beheko adibidean, mintzagaiaren) eskui-  
nean— agertzen da birformulatzaila esplikati-  
boa: *Ingurugiroa ez da besteak bezain iharduera produktiboa. [...] Ingurugiroa, bestela esanda, herri txiki bat da: ezin da deus egin inguruko guztiok ohartu gabe* (ZTC).

**43.7.6d** Birformulazio partzialetan (aposatuetan), berriz, joera eta jokaera desberdinak antzematen dira. Gaur egungo euskara estandarrean, esaterako, atal birformulatzailaren hasieran jartzen dira ia beti *hau da, hots* (ikus § 43.7.6e) eta *erran nahi baita* birformulazio aposatuetan: *Nik neuk, nahi dut pentsatu zientzian a prioriko judizio sintetikoak komeni direlako hori printzi-*

*pio aurre- edo meta-zientifikoei dagokiela, hots, aurretiazkoak diren edo jada izadiaren oinarritzko legeetatik harago doazen printzipioei (Juan Garzia).*

*Alegia birformulatzaila, berriz, atal birformulatzailaren hasieran zein bukaeran agertzen da: Hain zuzen ere, bere helburuen artean jarri du botatzen eta errausten —alegia, deuseztatzen— *den zabor kopurua murriztea (Berria); -Guztiak joango gara Zaldiano jauregira, ados* —*esan zion Reginari bizpahiru hilabete lehenago*—, *baina ni Frantziara joango naiz lehendabizi, Anselmorekin ohi bezala, ibilgailu gurpildun horietako bat erostera: voiture bat, alegia (Irigoien).**

**43.7.6e** *Hots birformulatzailaren kasuan ere ez datoz guztiz bat Iparraldeko eta Hegoaldeko tradizioak. Iparraldean, zenbaitetan —iruzkin aposatua gainerraturaz agertzen denean, batik bat— birformulazioaren amaieran ere agertzen da kokaturik hots, bai lehen eta bai gaur (Alberdi 2014a): *Txetxenian Ramzan Kadyrov dute beren lehen ministro berria, aitzineko lehen ministro hilaren semea hots (Herria).**

**43.7.6f** *Gainerako birformulatzaila esplikati boei dagokienez (beste era batera esanda, beste modu batera esanda, bestela esanda, beste hitz batzuetan/batzuekin (esanda)), azpimarratzekoa da, alde batetik, gutxitan erabiltzen direla birformulazio partzialetan, eta, bestetik, halakoetan gehien-gehienetan atal birformulatzailaren hasieran kokatuta ageri direla: *Pailazoa ez den pailazoa, beraz, edo, bestela esanda, «normalitatearen zirkuko pailazoa», umeen aurrean normaltasuna, heldutasuna edo zuzentasuna ordezkatzeko baititu: gauza (edo «jaun») triste, zozo eta lerdo bat, horixe izan ohi baita pailazo zuria, umeen hezierarako asmatu den gauza baliozkoenetako bat baita nere gusturako (Seguro).**

### 43.7.7. Puntuazioa birformulazioan

**43.7.7a** *Birformulazio partzialetan, koma pareaz idazten dira, oro har, birformulatzaila esplikati boak eta ez daramate komarik barruan, gainerako lokailu gehienekin gertatu ohi denez: *Ainhoa Garmendiak (Donostia, 1974) Micaelaren papera egingo du, hau da, Don Josez maiteminduta dagoen emakumearena: «Aingeru baten moduko pertsonaia da Micaelarena (Berria); Adingabeen**

*eremu pertsonalari dagokionez, zenbait betebeharrak garrantzitsu dituzte gura-soek: (1) Haurrak zaindu, bestela esanda, haurren beharrei egoki erantzun (L. Imaz); Horretarako Espainiako Konstituzioaren 118. artikulua betetzea galdegin zion Mahaiari, alegia, ebazpen judizialak betetzea (Berria).*

**43.7.7b** Birformulatzaile esplikatibo batzuk (*hau da, hots*) atal birformulatzailearen hasieran kokatu ohi dira eta, beraz, ondoko atalari —atal birformulatzaileari— eragiten diote. Halakoak, birformulatzaile “noranzkodunak” dira, nolabait esateko, eta, koma pareaz emanda ere, ez da sortzen anbiguotasun arazorik: *Hurbilenekoa ere, hau da, Zumarragakoa, urruntxo geratzen zaie; Hurbilenekoa ere, hots, Zumarragakoa, urruntxo geratzen zaie.*

Era berean, ez da anbiguotasunik sortzen eskuarki *esan* aditzaz osatutako birformulatzaileak (*bestela esanda, beste era batera esanda, beste modu batera esanda, beste hitzetan esanda...*) koma pareaz ematen badira. Izan ere, halakoak ere atal birformulatzailearen hasieran jartzen dira gehienetan birformulazio partzialetan: *Hurbilenekoa ere, bestela esanda, Zumarragakoa, urruntxo geratzen zaie.*

**43.7.7c** Baina birformulazio partzialetan *alegia* koma artean ematen bada, anbiguotasuna sor daiteke. Izan ere, *alegia*-k atal birformulazioaren hasierako nahiz amaierako kokagunea onartzen dituzenez (*hots*, birformulatzaile noranzkoduna ez denez), ez dago jakiterik aurreko sintagmari ala ondokoari eragiten dion. Horrelakoetan puntuazio marka zorrotzagoz (puntu eta koma, puntua) komeni da bereiztea birformulakizuna eta atal birformulatzailea:

*Kapitalismoa zentzu hertsian ulertzen da, alegia, merkatuak erabat gidatzen duen gizarte gisa.*

*Kapitalismoa zentzu hertsian ulertzen da; alegia, merkatuak erabat gidatzen duen gizarte gisa.*

*Kapitalismoa zentzu hertsian ulertzen da. Alegia, merkatuak erabat gidatzen duen gizarte gisa.*

Atal birformulatzailea den tartekian beste tarteki bat (*alegia*) sartu nahi bada, birformulatzaileari dagokion koma ezabatzea izan daiteke beste aukera (lizenzia) bat: *Hurbilenekoa ere, Zumarragakoa(,) alegia, urruntxo geratzen zaie.*

Baina horrelakoetan egokiagoa da puntuazio zorrotzagoa erabiltzea (Petrirena 2011: 26). Horretarako, hain zuzen ere, badira beste marka batzuk, atal birformulatzailea mugarrizten dutenak: birformulazio partzialak tartekiak direnez, sarritan ematen dira parentesi edota marren artean. Beraz, komeni zaigun moduan konbina daitezke parentesiak, marra pareta edo koma pareta (Garzia 2014b: 72): *Hurbilenekoa ere —Zumarragakoa, alegia— urruntxo geratzen zaie; [...] Hori dela eta, Emilio konbentzitu ahal izateko, beharrezkoa izango da erabakitzea koefiziente zenbatetsiak balio fidagarria ematen duen (hau da, ezagutu nahi zen balio teorikotik hurbil dagoen)* [Alonso Antón, A. et al. 2010. *Ekonometria* (2. kapitulua). UPV/EHU].

**43.7.7d** *Erran nahi baita*, hala ere, salbuespena da koma pareari dagokionez: Iparraldeko tradizioan (*Herria* astekarian, adibidez) askozaz ere maizago idazten dute *erran nahi baita* ondoko komarik gabe, eta hori da, hain zuzen ere, estandarerako proposatu den puntuazio jarraibidea (Garzia 2014b: 74):

*Afrikan meningita eritasuna garaitzen hasia da emeki [...]. Badakite zorigaitzez gaitz horren berri toki horietan: hamar urtetarik itzultzen omen zaie eritasuna, erran nahi baita birus berezi hori (*Herria*).*

*Zerbait erran behar badugu, bestalde, arruntean Jainkoaren kontu ezartzen dugun adimenaz eta nahimenaz, hona ohar bat: Jainkoaren esentzia betierekoari baldin badagokio adimenaren eta nahimenaren jabe izatea, bi atributu horiez arruntean ulertu ohi denaz besterik aditu behar da zinez. Zeren, Jainkoaren esentzia osa lezaketen adimenak eta nahimenak gure adimenaz eta gure nahimenaz guztiz ezberdinak izan behar lukete eta izena baizik ez lukete elkarrekilakorik; erran nahi baita zakurra deitzen den zeruko zeinua eta zaunka egiten duen animalia bezala litezkeela elkarrekin (*Xarriton*).*

**43.7.7e** Birformulazio erabatekoetan, aldiz, birformulakizuna komatik gorako marka batez mugatzea komeni da (puntu eta koma, puntua), eta birformulatzailearen ondoan koma jartzea (ikus Petrirena 2011: 27):

*Izan ere, bikotekideek hildako emakumeen erdiek ez zuten inolako salaketarik jarri alde zurretik; alegia, oso kasu larrien erdia baino gehiago Justizia Administrazioaren esku-hartzetik kanpo gelditzen dira oraindik ere (*Berria*).*

*Horretarako, larreetarako dudan partzela sei zatitan banatuta daukat, eta horietan, errotazio sistema bat aplikatzen dut behiekin; hau da, zati bateko belarra jaten dutenean hurrengora pasatzen dira, seiak pasatu arte (Berria).*

*Independentzia printzipioa: Auzitegia ez da Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren egitura hierarkikoaren parte. Hots, administrazio autonomikotik independentea da, bere jarduerari eta eskumenen garapenari dagokienez. Halaber, lehiaren arloan legediak unean-unean seinatzen duenaren arabera soilik jokatuko du (Berria).*

### **43.7.8. Baliokidetzak birformulatzaillean**

**43.7.8a** Birformulatzailleen forma eta jatorria kontuan harturik, bi multzotan banatu ditzakegu euskarazko birformulatzaille esplikatioak. Alde batetik, birformulatzaille erabilienek osatzen duten multzoa dugu: *alegia, hau da, hots*. Hiru horien artean badira desberdintasun batzuk sintaxiari, kokaguneari eta funtzioei dagokienez (Alberdi 2014a), baina baliokidetzat jo ditzakegu hiruak, bideratzen duten diskurtso jarraibide nagusiarri dagokionez (azalpenezko birformulazioa).

**43.7.8b** Beste alde batetik, enuntziarioari loturiko esapide birformulatzailleak ditugu, *esan* aditzaren bidez gauzatuak: *erran nahi baita, bestela esanda, beste era batera esanda, beste modu batera esanda, beste hitz batzuetan/batzuekin (esanda), beste hitzetan/hitzez (esanda)*. Haien artean ere, noski, badira desberdintasun nabarmen batzuk (lexikalizazio maila, sintaxia, kokagunea...), baina guztiak bat datoz gauza batean: espresuki adierazten da —*esan* aditza erabiliz— modu egokiago batez —beste hitz batzuez— formulatuko dela aurreko enuntziatua edo aurreko enuntziatu-atala. Gehienetan, azalpenezko baliokidetzak hartzen du atal birformulatzailleak. Halako birformulatzailleak erabiltzean are agerikoagoa da, nolabait esateko, birformulazioaren izaera polifonikoa.

Funtzio semantiko-pragmatiko nagusiarri bagazokio (azalpenezko birformulazioa), berriz, badirudi nolabaiteko baliokidetzak dagoela multzo bateko eta besteko birformulatzailleen artean.



### 43.7.9. Tradizioa, testu mota, erregistroa...

**43.7.9a** Batez ere azalpenezko diskurtsoan erabiltzen dira birformulatzaile esplikatiboak. OEHren arabera, *alegia*, jatorriz, lagunarteko hizkerako birformulatzailea izan zen, baina XIX. mendearen bigarren zatian hasi zen zabalitzen testuetara, eta gaur egun erabat zabaldu da gipuzkeratik eta nafarreratik egungo euskara estandarreara. Hizkera lagunartekoan zein zainduan erabiltzen da, idatzian zein ahozkoan.

**43.7.9b** Azalpenezko diskurtsoari lotua dago *hau da* birformulatzailea eta maizago azaltzen da hizkuntza idatzi zainduan. Hegoaldeko tradiziokoa izanik, erabat zabaldu da egungo euskara estandarrean (nahiz eta Iparraldean gutxitxo erabiltzen den).

*Hots* birformulatzailea ere azalpenezko testuetan azaltzen da gehien, eta arrakasta handiz zabaldu da ipar-ekialdeko euskalkietatik euskara zaindura.

*Erran nahi baita* birformulatzaileari dagokionez, gaur bakan erabiltzen da Hegoaldeko euskara batuan. Iparraldean, ordea, erruz erabiltzen da: testu mota guztietan, lagunarteko erregistroan zein maila zainduan, hizkuntza idatzian zein ahozkoan.

Gainerako birformulatzaile esplikatiboek (*bestela esanda, beste era batera esanda...*) berriagoak dirudite, eta maizago azaltzen dira hizkera zainduan lagunartekoan baino; hizkera zainduari eta azalpenezko testuei lotuta daudenez, ahozko hizkuntzan agertzekotan erregistro edo testu mota horietan agertuko dira batik bat.

## 43.8. Birformulazio zehaztaileak

**43.8a** Birformulazio zehaztailea honetan datza: birformulatzaile zehaztaileen bidez, hiztunak zehaztu egiten du aurreko diskurtso unitatean adierazitakoa; birformulatzailearen bidez sartzen duen elementuak (dela enuntziatu osoa, dela enuntziatu zati bat) aurreko segmentu baten edukia zehazten du.

Zehaztapen-birformulazioan, zuzenketa-birformulazioan ez bezala, atal birformulatzaileak ez du baliogabetzen birformulakizunean emandako informazioa, egiazkoa eta zuzena baita informazio hori, baizik eta osatu egiten du, edo xeheki adierazten.

**43.8b** Ikus dezagun adibide hau: *GURE semeaz hitz egin aurretik, beharbada egokiago izango da neure buruaz zer edo zer kontaktzen badizut; edo, zehatzago esanda, neure eskuaz. Konturatu naiz zu ere nola gelditzen zaren nire eskuari begira, disimulatzen saiatu arren* (X. Mendiguren Elizegi).

Birformulakizuna	neure buruaz zer edo zer kontaktzen badizut
Atal birformulatzailea	<u>edo, zehatzago esanda</u> , neure eskuaz.

Adibide horretako birformulakizunean, norbaitek bere buruaz modu orokorrean hitz egin duela adierazten du, eta, atal birformulatzailean, bere gorputz parte jakin batez hitz egingo duela zehazten digu (osoa > zatia); beraz, bere buruaz arituko da. Del Saz-en (2007) sailkapenaren arabera, esandakoa birformulatzen da kasu horretan.

### 43.8.1. Birformulatzaile zehaztaileen funtzio aniztasuna

**43.8.1a** Euskaraz, beste hizkuntza batzuetan gertatzen den moduan, funtzio bat baino gehiago betetzen dituzte zenbait partikulak eta esapidek. Esapide bera adberbioa izan daiteke testuinguru batzuetan; operadorea, beste batzuetan, eta birformulatzailea, beste askotan.

Beheko testuan, adibidez, adberbioa da *zehazkiago*, bere funtzio sintaktikoari eusten diolako (*nola esan?* galderari erantzuten dio):

*Mogol Handia mendebaldeko erabiltzen dugun deitura da India iparraldeko eta Asia erdialdeko lurralde zabaletako agintaria izendatzeko. Zehazkiago esan beharko bagenu, Sha Jahan deitu beharko genioke Agustin Hiriarte gorteko bitxigile izendatu zuen agintari ahaltsuari* (Txiliku).

**43.8.1b** Beste batzuetan operadorea da zehazkiago: ondorengo testuan, markatzaile operadorea da zehazkiago, eta, beraz, ez du birformulatzaile gisa jotzen; izan ere, ez du erlazionatzen diskurtso segmentu bat aurreragoko beste diskurtso segmentu batekin:

*Lehenik eta behin, beraz, gizon orok jokabidearen deskribapen orokorraren ideal jakin batzuk ditu, abere arrazional batek bizitzan duen egoera bereziari egokitzen zaizkionak eta bere izaerarekin eta harreman guztiekin hoberen bateratzen direnak. Baietzapen hori oso nabarra dela pentsatzen baduzu, esango dizut, zehazkiago, arrunki hiru bide erabiltzen dituztela ideal horiek euren balioa erakusteko, eta arrazoi osoz egiten dute (Uribarri).*

**43.8.1c** Beste askotan, birformulatzaile da zehazkiago: ondorengo testuan, birformulakizunean, morfologiaren definizio bat ematen da, orokorra (*forma aztertzea*) eta anbigua (morfologia formen azterketa bada, forma ezberdin asko azter daitezke hizkuntzalaritzan); geroago, atal birformulatzailean emandako informazio zehatzagoaren bidez saihesten du hizlariak anbiguotasuna, dagokion hizkuntza-mailara ekarriz definizio orokorra (*hitzen forma aztertzea*). Halako markatzaileen bitartez hiztunak atzera egiten du diskurtsoan, eta lehenago esandako elementu bat zehazten du:

*Hitzaren barruan nahiz hitzen artean esanahiaren eta formaren arteko harremana aztertzen duen hizkuntzalaritzaren adarrari morfologia deritzo. Morfologiak, hitzez hitz, ‘forma aztertzea’ esan nahi du; zehazkiago, hitzen forma aztertzea (Fasold & Connor-Linton 2010).*

Birformulakizuna	Morfologiak, hitzez hitz, ‘forma aztertzea’ esan nahi du
Atal birformulatzailea	<u>zehazkiago</u> , hitzen forma aztertzea.

Are gehiago, birformulatzaile gisa ere, funtzio bat baino gehiago bete ditzake esapide berberak. Esate baterako, zehazkiago birformulatzaileak, gutxienez, hiru balio hauek har ditzake diskurtsoan: zehaztailea, zuzentzailea eta esplikatiboa. Dena dela, funtzio zehaztailea da birformulatzaile gisa betetzen duen funtzio nagusia.

**43.8.1d** Beraz, funtzio aniztasun horrek esplikatzen du, nolabait, esapide eta partikula batzuk sailkatzean autoreak bat ez etortzea. Sailkapenak sailkapen, lan honetan hitz edo esapide bat birformulatzaile zehaztailetzat jotzeak ez du esan nahi, inola ere, izan ditzakeen bestelako funtzioak ukatzen ari garenik (adberbioa, operadorea, birformulatzaile zuzentzailea...).

Honako hauek dira birformulatzaile zehaztaile gisa erabiltzen diren hitz eta esapide nagusiak: *hain zuzen (ere), hurrenez hurren, zehatz-mehatz, zehazkiago, zehatz esanda/esateko, zehatzago esanda/esan/esatearren/esateko, zehazkiago esanda/esateko.*

### 43.8.2. Balioak

**43.8.2a** Zehaztapena da birformulatzaile zehaztaileen balio nagusia —aurretik esandakoa, zehatzago emanaz, birformulatzea— eta modu askotara gerta daiteke. *Hain zuzen (ere)* birformulatzailearen kasuan, adibidez, modu hauetara gauzatzen da zehaztapena:

- a) Multzo zabal baten barruan multzo zehatzagoa ezartzen du atal birformulatzaileak (inklusio-erlazioa): *Algoritmo hau estatistikan oinarritzen da, Bernoulli-ren probabilitate banaketan hain zuzen ere* (Zelaia Jauregi).
- b) Modu orokorrean formulatua dagoen leku edo uneari edo erreferentzia zehatza ematen dio birformulazioak: *Atzo arratsean, seiak eta zazpi minutu gutxitan hain zuzen, aintziraren ertzean paseatzen ari ginen, zuk ondo dakizunez* (Jon Muñoz).
- c) Birformulakizunak gertakari, objektu, hipotesi, pertsona bat edo batzuk aipatzen ditu modu zehatzu gabean —enuntziatu-ataleko *bat* edo *batzuk* determinatzaileak dira horren erakusgarri—, eta atal birformulatzaileak zehatzu egiten du zein den gertakari, objektu, hipotesi edo pertsona hori. Pertsonak eta objektuak identifikatzeko balio du: *Produktu horien sorrera Estatu Batuetako mediku ospetsu bati zor diogu, John Harvey Kellogg jaunari, hain zuzen ere* (Lorenzo eta Uranga).

- d) Enumerazioa ere izan daiteke birformulakizunak adierazitakoa zehazteko bidea, aurreko atalaren edukia zein elementuk osatzen duen zerrendatzea: *Ondoren datoz Lyellen epokak -Pleistozenoa, Miozenoa eta abar-, azken 65 milioi urteei soilik aplikatzen zaizkienak (nahiz eta paleontologiari dagokionez jarduera handiko urteak diren), eta, azkenik, azpimultzo xehe-nak ditugu, hain zuzen, estaiak edo adinak* (Iza).
- e) Izendapen-funtzioa du batzuetan birformulazioak: *Temperatura baxuko konposatu kimikoen erregina, ura, hain zuzen, biak ere (eta bat bereziki) oso ugariak diren elementu jakin biren erreakziotik dator: oxigenoa eta hidrogenoa* (Juan Garzia).
- f) Birformulakizunak adierazitakoa zehatza izan daiteke eta, halakoetan, beste xehetasunen bat ematen du atal birformulatzaileak: alegia, kontakizunaren harirako garrantzitsua den daturen bat gehitzen du: *Hala ere, sarjentuak luzaz galdekatu zituen bi zerbitzari bakarrak (Rosannaren salbuespena eginda) etxekoandreairen neskamea eta etxeko neskame burua izan ziren, beren lankide dohakabea etxera iritsi zen egunetik bertatik hura zirikatzen jardun zuten bi emakume haiek, hain zuzen* (Olano).
- g) Bai birformulakizuna eta bai atal birformulatzailea perpaus beregainak direnean, lehen perpausean esandakoa berresten du, oro har, birformulazioak (argudioak emanaz, batzuetan): *Herri gogoak dinamikoak dira, zalantzarik gabe; hain zuzen, beraiek dira dinamismoaren iturriak historian, kultura* (Azurmendi).

**43.8.2b** Guztizko baliokide ez izan arren, *zehatz* hitzean oinarrituriko gainerako birformulatzaile zehaztaileek ere (*zehatz-mehatz, zehazkiago, zehatzago esanda, zehazkiago esanda...*) ordezkari dezakete *hain zuzen (ere)* diskurtso markatzailea, betiere aurretik esandakoa zehazten bada: *[...] distantziaren erdi aldean, lur-atmosferaren goi-geruzara, bi bat kaloria-gramo iristen da zentimetro karratu bakoitzeko; 1,94 kaloria-gramo, zehatz-mehatz / hain zuzen (ere)* (ZTC).

**43.8.2c** Bestelako zehaztapan balioa du *hurrenez hurren* markatzaile berriak<sup>12</sup>. Egungo euskaran, askotan, informazio kate bat osatuz agertzen da *hurrenez hurren* esapidea. Enumerazio bateko elementuei buruzko azalpen edo zehaztapanak emateko erabiltzen da. Nolabaiteko balio banakaria du eta segidako (eskuarki, aurreko eta ondorengo) enuntziatuetako datuen arteko korrelazioa adierazten du: enumerazio bateko elementuen hurrenkeran oinarritzen da ondorengo zehaztapan edo azalpen argigarri bakoitzaren interpretazioa edo erreferentzia; hots, korrelatiboak dira segidan datozen enuntziatuetako enumerazioetako datuak. Gehienetan “enumerazioa + enumerazio horretako elementuei buruzko zehaztapanak” hurrenkeran nagusitzen da, eta gorago aipatutakoari erreferentzia egiteko balio du: nolabaiteko balio anaforikoa du, alegia: [...]  
*Egia esan, elefante guztiak ez dira berdinak belarrien handitasunari dagokionez. Loxodonta africana-k bai, oso handiak ditu belarriak, 183 cm eta 114 cm baitira, hurrenez hurren, haien luzera eta zabalera* (Pérez Iglesias eta M. B. Urrutia).

Birformulakizuna (1. enumerazioa)	<i><u>183 cm</u> [A] eta <u>114 cm</u> [B] baitira</i>
Atal birformulatzailera (2. enumerazioa)	<i>hurrenez hurren, haien [belarrien] <u>luzera</u> [A'] eta <u>zabalera</u> [B']</i>

Birformulakizunean ageri diren datuak (*183 cm eta 114 cm*) interpretatzeko orduan hurrenkerari erreparatu behar zaio. Atal birformulatzailera lehen elementua birformulakizuneko lehen datuari dagokio; atal birformulatzailera bigarren elementua, birformulakizuneko bigarren datuari; eta horrela hurrenez hurren: A' zehaztapan (*luzera*) A datuarekin (*183 cm*) uztartzekoa da; eta B' zehaztapan (*zabalera*), B datuarekin (*114 cm*) uztartzekoa.

<sup>12</sup> *Hurrenez hurren* esapidearen lehen adibideak ‘bata bestearen ondotik’ (gazt. “sucesivamente”) adierari dagozkio soilik. Eta badirudi (Alberdi 2011b) adberbio erabilera horretatik (‘baten ondotik hurrengo doala’) eratorria dela birformulatzailera erabilera (gazt. “respectivamente”).

### 43.8.3. Birformulatzaile zehaztaileen kokagunea

**43.8.3a** Atal birformulatzailearen hasieran, tartekatuta zein amaieran koka daiteke *hain zuzen (ere)*. Eta, oro har, gauza bera gertatzen da *zehatz* hitzean oinarrituriko gainerako birformulatzaile zehaztaileekin ere (*zehatz-mehatz, zehazkiago, zehatzago esanda, zehazkiago esanda...*); alabaina, juntagailu baten ondotik, batez ere, atal birformulatzailearen hasieran eman ohi dira halakoak: *Basoan gerra amorratua dago. Ekologoak hau ikusiz, hausnarka eta buruari bueltaka hasten dira. Hipotesiak ere sortzen dira: lurrean edo, zehazkiago esan, lurzoruan gertatzen da lehia hori* (Lizeaga eta Zapirain).

**43.8.3b** *Hurrenez hurren* birformulatzailea ere atal birformulatzailearen hasieran zein amaieran agertzen da, baina betiere enumerazio baten —birformulakizunaren— ondoren agertu behar du: [...] *The normal and the Pathological eta Illness and Psychology dira liburu nagusiak; Canguilhemena eta Foucaultena, hurrenez hurren* (Olarra); *Fernando Lamikizek eta Miguel Fuentesek, hurrenez hurren Athletic eta Realeko presidentetek, istilurik ez dutela nahi adierazi zuten atzo, baina bakoitzak bereari eutsi zion* (Berria).

### 43.8.4. Birformulakizunen sintaxia

**43.8.4a** Beste birformulatzaile askorekin gertatzen denez, modu askotakoak izan daitezke birformulakizunak sintaxi-egiturari dagokionez: izen sintagma, adjektibo sintagma, postposizio sintagma, perpaus osoak, mendeko perpausak, sintagma zatiak... Atal birformulatzaileak ere askotariko egitura izan dezake, baina birformulakizuna eta atal birformulatzailea kategoria berekoak izan ohi dira askotan. Bestalde, gehienetan bakarrik erabili ohi badira ere, batzuetan juntagailuen ondotik azaltzen dira (*eta, edo, edota, baina...*) birformulatzaile zehaztaileak: *Baina ez da hori bakarrik; baizik eta, hobeto esanda, konbentzio natural bat, hots, gizakiaren izaieran oinarritzen den, edo, zehazkiago, gizakiaren natura sozialean oinarritzen den konbentzio bat da* (J. Zabaleta).

**43.8.4b** *Hurrenez hurren* birformulatzailaren kasuan ere, batzuetan, perpaus bereko sintagmetako elementuen artean ezartzen da korrelazioa (nolabaiteko erlazio anaforikoa), baina beste askotan, perpaus alboratu edo juntatueta-ko sintagmetako elementuen artean ezartzen da korrelazioa: *Adanen mitoan eta Faustorenean, ezaguerak ez dezake eraman gaizkira baino; sugea eta deabrua dira, hurrenez hurren, haren ikur* (Juan Garzia).

Aurreko adibideetan ikus daitekeenez, birformulakizunak eta birformulazioak kasu marka eta numero bera izaten dute maiz; baina, berez, ez dute zertan komuntadura sintaktikoa gorde: aski da elkarrekin identifika daitezkeen elementuak izatea.

### **43.8.5. Puntuazioa**

Atal birformulatzailaren hasieran doazenean, ondotik koma dutela eta aurretik koma edo puntuazio marka zorrotzago bat (puntu eta koma, puntua, bi puntu) eman ohi dira birformulatzaille zehaztaileak. Tartekatuta doazenean, koma artean, oro har. Eta atal birformulatzailaren bukaeran doazenean, aurretik koma jarri ohi da.

Aurretik puntua azaltzeak ez du esan nahi, nahitaez, perpaus beregainari sarrera ematen diola diskurtso markatzaileak; izan daiteke birformulakizunari erreferentzia zehatza emango dion perpausetik beherako osagaia ere, edo mendeko perpausa.

### **43.8.6. Tradizioa, testu mota, erregistroa...**

**43.8.6a** Gaur egungo euskara estandarrean, *hain zuzen (ere)* da —alde handiz, gainera— birformulatzaille erabilieta zehaztaileetan. Bereziki azalpeneko diskurtsoan erabiltzen da. Askozaz ere maizago erabiltzen da hizkera zainduan, lagunartekoan baino; eta askozaz ere maizago idatzian, ahozkoan baino. Dena dela, badirudi funtsezko bereizketa ez dela erregistroari dagokiona (zaindua/lagunartekoa), testu edo diskurtso motari dagokiona baizik.



**43.8.6b** *Zehazkiago* eta haren tankerako birformulatzaileek (*zehatz-mehatz*, *zehatzago esanda*, *zehatzago esatearren...*) askozaz ere maiztasun apalagoa dute egungo estandarrean, eta, *hain zuzen* birformulatzailea bezala, azalpeneko diskurtsoan erabiltzen dira batik bat. Haietako batzuek (*zehatzago esanda*, *zehatzago esateko*), gainera, tradizio laburra dute, ez daude guztiz finkatuta edo lexikalizatuta esapide birformulatzaile gisa (*zehatzago esanda/esateko/esatearren*), eta ez daude jasota hiztegi eta gramatiketan.

**43.8.6c** *Hurrenez hurren* birformulatzailea, berriz, maizago erabiltzen da egungo euskaran<sup>13</sup>; baina, eskatzen duen eragiketa anaforiko konplexuagatik, batez ere, diskurtso planifikatu idatzian erabiltzen da (hizkuntza akademikoan eta azalpeneko testuetan bereziki). Ahozko hizkuntzan ez da erabiltzen birformulatzaile gisa.

## 43.9. Birformulatzaile laburbiltzaileak

**43.9a** Birformulatzaile laburbiltzaileen bidez aurreko diskurtso atalean adierazitakoa laburbiltzen da atal birformulatzailean. Gaztelaniazko lanetan egin diren sailkapenak kontuan hartuta, euskarazko laburbiltzaileak sail bitan banatu ditugu: a) laburbiltzaile hutsak (“recapitulativos”); b) berraztertzaileak (berrausnarketa adieraztekoak, “de reconsideración”).

Laburbiltzaileak	
Laburbiltzaile hutsak	Berraztertzaileak
<i>hitz batean (hitz batez/baten)</i>	<i>azken batean (azken baten/batez)</i>
<i>hitz gutxitan</i>	
<i>labur esanda (labur esateko)</i>	<i>azken buruan</i>
<i>laburbilduz (laburbilduta)</i>	
<i>laburtuz (laburtuta, laburturik)</i>	<i>azken finean</i>
<i>hitz bitan esateko</i>	

### Birformulatzaile laburbiltzaileak

<sup>13</sup> Beste birformulatzaile batzuekin gertatu den moduan, badirudi itzulpengintzak eragina izan duela birformulatzaile honen sorreran eta erabileran.

**43.9b** Laburbiltzaile guztien balio nagusia laburpena edo sintesia egitea da eta laburbildu nahi den horri egiten diote bide: testu oso bati, testu zati bati, paragrafo bati, esaldi bati edota egitura laburrago bati. Bi multzoen arteko desberdintasuna honetan datza: birformulatzaile berraztertzaileen bidez sintetik harantzago doa esataria eta, hausnartu ondoren, beste ikuspuntu batetik aurkezten du lehenago (birformulakizunean) adierazitakoa.

Nolabaiteko baliokidetza orokorra dago sail bateko eta besteko birformulatzaileen artean. Alegia, alde batetik, baliokide dira, oro har, laburbiltzaile hutsak (*hitz batean, hitz gutxitan, labor esanda...*); eta, beste alde batetik, baliokide dira, oro har, berraztertzaileak (*azken batean, azken buruan, azken finean*).

### **43.9.1. Birformulatzaile laburbiltzaile hutsak: balioak, kokagunea, sintaxia...**

**43.9.1a** Oinarrizko balioa. Birformulatzaile laburbiltzaile hutsen bidez aurreko atalean (birformulakizunean) eman diren azalpenak kontuan hartzen dira, eta aurreko atal horretan esandakoaren ildoari jarraituz bideratzen dira inferentziak atal birformulatzailean. Oro har, bigarren zatian (hots, atal birformulatzailean) laburpen gisa aurkezten den informazioa nabarmentzen da laburbiltzaileen bidez:

*Aldaeretan ere mendebaleko eta erdialdeko euskalkiekin egiten dute bat sarri: ahaztu (Hondarribiko portuan ahantzi ere bada), belarri (ez beharri, begarri), bildur (ez beldur), bultzatu (ez bulkatu), esan (ez erran), gutxi (ez guti, gutti), hamaika (ez hameka), ikuttu (ez ukittu), itxi (ez hetsi, hertsi), izu (ez izi), jantzi eta erantzi (ez jauntzi/erauntzi), orain (ez orai, guai)... Laburbilduz, Oiartzun eta, batez ere, Hondarribia eta Irun “tarteko” eremuan sartu ditugu, eta erdialdeko euskalkiaren eta euskara nafarraren arteko lotura ez ezik, nafar-lapurttarrarekin ere egiten dute batasuna. Aldiz, Lezo eta Erreterria ia erabat lerratu dira erdialdeko euskalkira. Hondarribi aldera dagoen Lezoko Gaintxurizketa auzoan gorde dira ondoen ekialdeko ezau-garriak (Zuazo).*

Birformulakizuna	Aldaeretan ere mendebaleko eta erdialdeko euskalkiekin egiten dute bat sarri: <i>ahaztu</i> (Hondarribiko portuan <i>ahantzi</i> ere bada), <i>belarri</i> (ez <i>beharri</i> , <i>begarri</i> ), <i>bildur</i> (ez <i>beldur</i> ), <i>bultzatu</i> (ez <i>bulkatu</i> ), <i>esan</i> (ez <i>erran</i> ), <i>gutxi</i> (ez <i>guti</i> , <i>gutti</i> ), <i>hamaika</i> (ez <i>hameka</i> ), <i>ikuttu</i> (ez <i>ukittu</i> ), <i>itxi</i> (ez <i>hetsi</i> , <i>hertsi</i> ), <i>izu</i> (ez <i>izi</i> ), <i>jantzi</i> eta <i>erantzi</i> (ez <i>jauntzi/erauntzi</i> ), <i>orain</i> (ez <i>orai</i> , <i>guai</i> )...
Azalpena: atal birformulatzailea	<u>Laburbilduz</u> , Oiartzun eta, batez ere, Hondarribia eta Irun “tarteko” eremuan sartu ditugu, eta erdialdeko euskalkiaren eta euskara nafarraren arteko lotura ez ezik, nafar-lapurterra-ekin ere egiten dute batasuna.

**43.9.1b** Diskurtsoan lehenago —birformulakizunean— luzeegi edo xehetasun gehiegirekin aurkeztu den informazioa laburbiltzera dator atal birformulatzailea. Izan ere, atal birformulatzailean informazio ahalik eta funtsezkoena laburbiltzen da.

**43.9.1c** Bestalde, birformulazio prozesuetan beste balio batzuk bideratzeko erabiltzen dira sarri laburbiltzaileak (*laburbilduz*, *labur esanda*, *hitz batean*...): bereziki, informazio argigarria gaineratzeko (2), eta ondorioa bideratzeko (3):

*Nahiz eta Sky Blue Sky ez den Yankee Hotel Foxtrot oinarritzkoa bezain osoa, nahiz eta ez daukan rock disko batek izan dezakeen hasierarik onena —A Ghost Is Born laneko At least that’s what you said itzela— disko honek azalera ekarri du, beste behin, gaur egun ez dagoela iparramerikar musikaren eremuan Wilcok bezainbesteko pisu eta, orain bai, egonkortasun daukan talderik. Hitz gutxitan esateko, disko berria lasaia da, baketsua; ez dago bertan aurreko laneko Spiders/Kidsmoke haren moduko asaldatzerik (Berria).*

*Kostuak murrizteko neurriak proposatu, beren moduluetak materialak kudeatu, produktuaren kalitatea zaindu eta diseinu- eta garapen-ahalmena izango duten hornitzaileak arrakastatsu suertatuko dira. Hornitzaile nagusi hauek automobil fabrikatzailearen bazkide bihurtuko dira eta hauekin negoziatuko dituzte produktuaren lehiakortasunarekin lotuta dauden puntu guztiak, prezioetik osagaien diseinuraino. Horrelako neurriak hartuz, General Motors eta Volkswagen-ek bilioi erdi pezeta baino gehiago aurreztea lortu*

*dute eta noski, horrek, enpresa handien interesa ziurtatzen du. Laburbilduz, Moduluka Egindako Automobila planteamenduak fabrikatzailearen eta hornitzailearen arteko harreman-esparru berri bat definitzen du. [Harreman-esparru berri honek, aldi berean kontenplatu behar diren aparteko lau arlo biltzen ditu bere baitan; ondokoak dira: [...]] (ZTC, I. Aranburu).*

**43.9.1d** Aurreko adibideetan ikus daitekeenez, kokaguneari dagokionez, berztertzailleak, gehienbat, atal birformulatzailearen hasieran agertzen dira (4); batzuetan, tartekatuta (5); eta bakanago, atal birformulatzailearen amaieran (6):

*Bere merkantzien prezio merkea da Txinako harresi guztiak eraisteko, tribu barbaroen atzerritarrarenganako gorroto setatienea errendiarazteko erabiltzen duen artilleria astuna. Behartu egiten ditu nazio guztiak burgesiaren produkzio-modua berenganatzera, hondoa jo nahi ez badute; behartu egiten ditu beren baitan zibilizazioa onartzera, hau da, burges izatera. Hitz batean, mundu bat sortzen du bere irudi propiora (X. Mendiguren Bereziartu).*

*Kamerungo ipar-mendebaldeko nekazari txikiak teknika zaharrak ari dira erabiltzen izurrite eta gaixotasunei aurre egiteko. Pestizida kimikoak, labur esanda, eskuragaitzak dira urruneko lurralde haietan, garestiak ere badira eta gaur egun badakigu ingurugiro eta osasunerako zer-nolako arriskuak dituzten. Askotan, tokian-tokirako garatutako metodoak dira nekazari txikiek duten irtenbide bakarra, baina horretarako, nork sustatua behar dute eta metodoak zientifikoki frogatu beharra dago (ZTC).*

*Eta une gaizto batez esatekotan egon nintzaion, baietz, galdera hark bazuela erantzun zehatza; alegia, aitaren sena eta, oro har, gure izana, aitak berak oraindik estuki heltzen zion poltsa koloredun hartan bertan zegoela. Bai, poltsaren barrukoaren parekoa ginela, hitz gutxitan. Ez nion ezer esan, baina. Poltsa zabor-edukiontzia batean ezarri ondotik, isil-misilka itzuli ginen etxera; nork bere pentsakizunetan murgilduta, nork bere ezinegon pisutsua ahalik eta arinen bizkar gainean eramanez, senik gabeko gorputz haren beso banari helduta (EPD, Azkona).*

**43.9.1e** Sintaxiari dagokionez, gehienetan perpaus bat (lokabea, koordinatua, mendekoa...) sartzen dute laburbiltzaileek (*laburbilduz*, *labur esanda*,

*hitz batean...).* Dena dela, zenbaitetan sintagma bati ere laguntzen diote, hurrenez hurren ondoko adibideetan:

*Ez nuen, ordea, Angeloren etxera itzuli nahi, orduak eta orduak bertan bakarrik egiteko aukerak ez ninduen-eta asetzen. Hirira jaitsi eta kafesne bero bat hartuko nuen. Egunkariren bat erosiko nuen. Paper-dendaren batean sartu eta, postalen bat erosteko aitzakian, italiara praktikatuko nuen dendariarekin. Hitz gutxitan: orduak entretenituko nituen. Edozer gauza, etxera bildu eta han neure buruari galderak egiten eta neure barruko harren lardaskan egotea baino. Kanean alde batetik bestera, ez nuen lortzen kezka eta iluntasuna gainetik kendu eta kontu arruntagoak pentsatzea; baina etxe zuloan sartuta, zailagoa izango nuen (Lertxundi).*

*Haren kontserbazioak ondokoa du helburu: edo mehatxatzen duten gaitzei aurre egitea, edo dagoeneko kaltetzen dutenei sendabidea topatzea. Hori lortzen bi modutan saiatu behar da: gure aurkikuntza partikularren bidez, eta gainontzeko pertsonen ikerkuntzen bitartez, beraiekin dugun elkartrukatzeak ahalmentzen duelarik horien probetxu ateratzea. Hortik sortu dira nekazaritza, medikuntza eta, hitz batean, guztiz beharrezko diren arte guztiak (Monreal).*

Sarritan juntagailuekin eta beste diskurtso markatzaile batzuekin konbinatzen dira.

**43.9.1f** Aurreko adibideetan ikusi denez, diskurtso markatzaileekin ohikoa den puntuazio-eredua erabiltzen da laburbiltzaileekin ere (*laburbilduz, labor esanda, hitz batean...*). Atal birformulatzailearen hasieran doazenean, ondotik koma dutela eta aurretik koma edo puntuazio marka zorrotzago bat (puntu eta koma, puntua, bi puntu) eman ohi dira. Tartekatuta doazenean, koma artean, oro har. Eta atal birformulatzailearen bukaeran doazenean, aurretik koma jarri ohi da.

**43.9.1g** Batez ere hizkuntza idatzian erabiltzen dira birformulatzaile laburbiltzaileak (*laburbilduz, labor esanda, hitz batean...*), eta haren barruan erre-gistro zainduan eta bereziki azalpenetzko diskurtsoari lotuta.

Bestalde, laburbiltzaile guztiek ez dute tradizio bera, ezta lexikalizatze maila bera ere: *laburbilduz (laburbilduta)*, esaterako, ikaragarri zabaldu da egungo

euskararen birformulatzailerik gisa, baina ez du tradizio luzerik. *Hitz bitan esateko*-k ere esapide berria dirudi eta oso maiztasun apala du, are gaurko euskararen ere.

### 43.9.2. Birformulatzailerik berraztertzaileak

**43.9.2a** Berraztertzaileek, berriz, birformulakizunean emandako azalpena beste ikuspuntu batetik aurkezten dute, modu partzial edo osoan aurretik esandakoa baieztatuz, sendotuz edota aurrean esandakoari kontrajarriz. Alegia, formulazio berrira pasatu aurretik, aurreko formulazioko elementu guztiak (inplizituak edo esplizituak) aztertu edota ebaluatu dira. Hala ere, horrelakoe-tan ere ez dago urruntze handirik bi formulazioen artean.

**43.9.2b** Hau da berraztertzaileen (*azken batean*, *azken buruan*, *azken finean*) balio nagusia: diskurtso markatzailearen bidez aurretik esandakoa (birformulakizunean esandakoa) berraztertzen da eta hausnarketa edo azterketa horri bidea ematen zaio atal birformulatzailerik, azken hori behin betikotzat hartuz. Beste era batera esanda, diskurtso markatzailearen bidez diskurtsoan lehenago —birformulakizunean— adierazitakora itzultzen da esataria, baina ez bertatik funtsezkoena ateratzeko, baizik eta birformulakizunean adierazitako hori beste ikuspuntu berri batetik aurkezteko atal birformulatzailerik.

*Argiago mintzatu zen* Le verbe basque en tableaux *liburuan*: *Adibideak literaturako gipuzetik hartuko ditut gehienetan, hura delako ezagunena, mintzatuena, landuena, eta baita aberats eta erregularrenetakoa ere, eta hura delako, azken batean, euskararen benetako ordezkaria, gutxi gorabehera toscaniarra eta gaztelania italieran eta espainieran diren neurri berean* (Zuazo).

Birformulakizuna	Adibideak literaturako gipuzetik hartuko ditut gehienetan, hura delako ezagunena, mintzatuena, landuena, eta baita aberats eta erregularrenetakoa ere,
Azalpena: atal birformulatzailerik	eta hura delako, <u>azken batean</u> , euskararen benetako ordezkaria, gutxi gorabehera toscaniarra eta gaztelania italieran eta espainieran diren neurri berean.

*Marmolezko kaperako elkar ikustearen ondoren, arteraino ez bezalako alaitasun eta pozaldian bizi izan zen Fabrice. Bazirudien, egia esan, oztopo handiak zituela oraindik ere zoriontsu izateko, baina, azken batean, ezin handiagoa eta ustekabekoa zen gure presoaren poza, bere pentsamendu guzti-guztietan sartua zeukan izaki jainkozkoak bera maite zuelako. Elkarrizketa haren ondoko hirugarren egunean, lanpararen seinaleak oso goiz bukatu ziren: gauerdia aldera (Jon Muñoz).*

Birformulakizuna	Bazirudien, egia esan, oztopo handiak zituela oraindik ere zoriontsu izateko,
Azalpena: atal birformulatzailea	baina, <u>azken batean</u> , ezin handiagoa eta ustekabekoa zen gure presoaren poza,

Lehenbiziko adibideko birformulakizunean informazio-segida dago eta atal birformulatzailean *azken batean* diskurtso markatzaileak txertatzen duen enuntziatuaren ikuspuntua aurretik esandakoaren ildo beretik doa.

Bigarren adibidean, berriz, *azken batean* diskurtso markatzailea ageri den atal birformulatzaileak txertatzen duen ikuspuntua desberdina da birformulakizunean adierazitakoarekin alderatuta. Aurkaritza agertzen duten atalak, aurkaritza esplizitu egiten duen *baina* juntagailuaren bitartez loturik agertzen dira.

**43.9.2c** Birformulazio prozesuetan beste balio batzuk bideratzeko erabiltzen dira sarri berraztertzaileak (*azken batean*, *azken buruan*, *azken finean*): bereziki, azalpenak emateko, eta ondorioa adierazteko, bi adibideotan bezala:

*Herrian denek ezagutzen zuten elkar eta, bidean topatzean, elkar agurtzen zuten guztiek. Hamabi familia ziren osotara, eta denek zekiten gainerako guztien historia; bazekizkiten aitatxi-amatxiren izenak, arbasoenak, lehengusuenak, eta guztiek zuten besteen ondasunen berri zehatza. Herria, azken buruan, familia handi eta bakar bat bezalakoa zen. Zutoinen gaineko etxeetan antolatuta zegoen, eta etxe azpian kakaraka eta lurrari mokoka ibiltzen ziren oiloak eta ahateak. Agurea jabetzen da lehenaldia erabiltzen duela bere*

*artean herriaz mintzaten denean. Horrek minez ziztatu dio bihotza (EPD, Diaz de Ultzurrun).*

*Gogorra gertatzen zaio amari ordu horietan sukalderatzea, baina ohitzen hasia da. Xabi noiz esnatuko eta altxatuko den jakiteko araurik ez dago. Atzo, hamarretan jaiki zen; herenegun, zazpiak eta laurdenetan. Ez dago araurik, ez dago erregularitasunik, ez dago jakiterik hurrengo egunean zein ordutan esnatuko den, ez dago, azken buruan, ezer planifikatzerik. Alferrrik da; ebazpiderik ez duen hieroglifikoa. Hieroglifiko tranpatia. Dena dela, gauza bat ziurra da, esnatzeko orduari dagokionez, amaren ordutegia Xabiren ordutegi bera da (EPD, A. Arrieta).*

**43.9.2d** Hiru kokagune hauetan agertzen dira berraztertzaileak (*azken batean*, *azken buruan*, *azken finean*): atal birformulatzailearen hasieran eta tartekatuta agertzen dira maizenik; eta, bakanago, amaieran.

**43.9.2e** Sintaxiari dagokionez, gehienetan perpaus bat sartzen dute laburbiltzaile berraztertzaileek (*azken batean*, *azken buruan*, *azken finean*). Dena dela, zenbaitetan sintagma bati ere laguntzen diote. Ikus orain datozen bi adibideak:

*Lagapen ordaintzaile orok bezala, lagapen horrek bi forma hauetako bat har dezake: 1) Pro soluto: lagapen bidez, lagapen-hartzaileak kreditua ordainduztat jotzen du. Azken batean, kreditua ordainketan ematea da (L. Imaz).*

*Eta erabakitzeke moldeari buruz desadostasuna baldin badago, orain Espainiako Gorteen eta Eusko Legebiltzarren artean gertatuko den bezala, Estatuak koakzio mekanismoekin egiten du mehatxu. Indarkeriarekin, azken batean (Berria).*

Juntagailuekin eta lokailuekin batera ere agertzen dira maiz:

*Kasu horietan aditzoinak ez du kontsonanterik amaieran, eta, beraz, ezin dugu araurik ezarri. Ondorioz, entzuten dugunak atzizkiak hiztegi mentalean duen forma garbi eta aldagabea izan behar du, hau da, d hotsa. Hizkuntzalaritza modernoaren aurkikuntza nagusietariko baten froga ederra: alegia, az-*



*ken buruan ahoskatzean izango duenaz bestelako forma batean gorde daitekeela morfema bat buruko hiztegia* (ZIO, G. Knörr).

**43.9.2f** Atal birformulatzailearen hasieran doazenean, ondotik koma dutela eta aurretik koma edo puntuazio marka zorrotzago bat (puntu eta koma, puntua, bi puntu) eman ohi dira birformulatzaile berraztertzaileak (*azken batean*, *azken buruan*, *azken finean*). Tartekatuta doazenean, koma artean, oro har. Eta atal birformulatzailearen bukaeran doazenean, aurretik koma jarri ohi da.

**43.9.2g** Tradizio zabala dute egungo euskaran hiru birformulatzaile berraztertzaileak (*azken batean*, *azken buruan*, *azken finean*), eta adberbio (“al final”, ‘azkenean’) nahiz markatzaile (“a fin de cuentas”) funtzioarekin jasota daude OEHn. Egungo euskaran ere maiztasun handia dute: askotariko testuetan ageri dira, baina, bereziki, azalpenezko diskurtso zainduan (idatzian zein ahozkoan).

## 43.10. Birformulatzaile urruntzaileak

**43.10a** Birformulazioaren bidez aurreko diskurtso atal bat beste era batera adierazteko aukera dugu. Prozesu horretan, ordea, funtzio diskurtsibo nagusia mantentzen den arren, erabiltzen den markatzailearen arabera zentzu edo esanahi ezberdina esleiri dakioke esandakoari; birformulatzaile urruntzaileak erabiltzen direnean, adibidez, aurreko diskurtso atalarekiko nolabaiteko urrunketa geratzen da agerian eta, oro har, haren garrantzia apalduta geratzen da. Hiztunak, aurreko formulaziotik urrundu eta lehen esandakoa birbideratuko duen formulazio berria ekoizten du; horrela, birformulatzaile urruntzaileek aurreko enuntziatutik, hau da, birformulakizunetik atera daitezkeen inferentziak mugatzen edo berrorientatzen dituzte. Interpretazio egokia, beraz, bigarren atalak lehendabizikoarekin duen harremanean oinarrituta egin behar da. Ikus ditzagun adibide batzuk:

*Horrek Mundu Zaharreko makakoen (rhesus makakoen) eta Mundu Berrikoen (tamarinen) arteko desberdintasunen bat adierazten ote duen ez da oraingoz argitu, eta beste espezie adierazgarri batzuekin proba gehiago egin*

*arte itxaron beharko da. Azterketa horiek, nolanahi ere, agerian uzten dute muga garrantzitsu bat duela tamarinak problemak ebazteko (ZIO, Aldasoro).*

*Oraingoz ez dakigu nola eragiten dioten elkarri bi ezagutza-alor horiek, ez eboluzio-bidean, ez garapen-bidean. Gure zenbaki- eta hizkuntza-sistemen azpian dagoen lanabes kombinatorialak eragiten du elementu kopuru finitu baten birkombinaketatik esapide ugaritasun infinitua sortzea. Dena den, oraindik ez da argitu gaitasun horren jatorri ebolutiboa zein den (ZIO, Aldasoro).*

Hona hemen adibide horien zenbait interpretazio. Lehenengoaren kasuan, birformulazaila urruntzailearen bidez (*nolanahi ere*) garrantzia kentzen zaio aurretik esandakoari (oraindik proba gehiago egin beharko dira gauza batzuk argitzeko); bestalde, birformulatutako zatian esaten dena nabarmenduta gertzen da: alegia, gauza batzuk argitu gabe daude oraindik, baina gauza bat argi dago behintzat (*Azterketa horiek, nolanahi ere, agerian uzten dute muga garrantzitsu bat duela tamarinak problemak ebazteko*).

Bigarren adibidean, *dena den* elementuak birformulakizunaren garrantzia apaltzen du: asko ikasi da, baina oraindik gauza asko dago ezagutzeko; dena ez dagoela konponduta azpimarratzen du.

**43.10b** Adibide gisa hartu ditugun markatzaileek (*nolanahi ere, dena den*) hasieran esandakoarekiko nolabaiteko urrunketa adierazten dute. Irakurketa lehenengo enuntziatuan oinarrিতa eginez gero, ondorio okerra aterako genuke; horrenbestez, irakurketa zuzena bigarren enuntziatua kontuan hartuta egin behar da. Markatzaileok, bi enuntziatu artikulatuz, atera litezkeen ondorio oker edo desegoki horiek birbideratzen dituzte irakurketa zuzena egiten laguntzeko, eta esandakoari benetako zentzua har diezaiogun.

Ikusi bezala, aipatutako elementuen funtzioetako bat bi enuntziatu edo testu zati artikulatzea da. Baina birformulazaila urruntzaileek nolabaiteko izaera instrukzionala ere badute, lotu diren bi zatien artean ezarri den harremana nola interpretatu behar den adierazten baitute.

**43.10c** Dena dela, bestelako erabilera diskurtsiboak ere erakuts ditzakete: solasaldia berrorientatzea, garrantzizkoena azpimarratzea, zerbait argitzea, gaia

aldatzea, kontrastea nabarmentzea, adostasuna edo desadostasuna erakustea eta abar.

Alde horretatik, beraz, litekeena da, partekatzen dituzten ezaugarriekin batera desberdintasunak ere agertzea haien artean. Bestalde, litekeena da, gainera, portaera diskurtsibo zenbait bat etortzea birformulatzaile urruntzaileen sailetik kanpo sailkatuta agertzen diren beste markatzaile batzuekin (*dena dela*-k, esate baterako, laburbiltze-zentzua izan dezake testuinguru batzuetan).

Esandakoaz gain, badago azpimarratzeko beste alderdi bat. Zenbaitetan, hizpide ditugun elementu edo partikulok adberbio edo lokuzio soilak izan daitezke, eta ez diskurtso markatzaile. Eta markatzaile direnean ere funtzio anitz betetzen dituzte.

**43.10d** Askotariko erabilera horretatik datoz, hain zuzen, bi zalantza nagusi. Alde batetik, eman behar zaien izendapenaren gaineko zalantzak. Bestetik, sailkapenari dagokion zalantza; askotariko funtzioak bereganatzeko gaitasuna izanik, ez baita erraza sailaren edo multzoaren mugak ezartzea.

Erabaki bat hartu behar<sup>14</sup> eta gaztelaniaz Martín Zorraquino-k eta Portolés-ek (1999: 4082) diskurtso markatzaileentzat egiten duten sailkapenari jarraituta, birformulatzaileen multzoan kokatu ditugu, eta zehazkiago, birformulatzaile urruntzaileen sailean. Nolanahi ere, izendapen hori oso modu zabalean ulertu behar da.

Ahalik eta balizko birformulatzaile urruntzaile gehienak identifikatzeko, zerrenda hau osatu dugu: *dena dela*, *dena den*, *edonola*, *edonola ere*, *edozein kasutan*, *edozein modutan (ere)*, *edozelan (ere)*, *esanak esan*, *guztiarekin ere*, *hala (eta) ere*, *hala eta guztiz ere*, *hala izanik/lizanda ere*, *hitzak hitz*, *kontuak*

---

<sup>14</sup> Fuentes-ek bere hiztegian (2009) kontzesiozkoen barruan sailkatzen ditu hemen aztertzen ari garen birformulatzaileen gaztelaniazko ordainak. Eta Gramatika Batzordeak (EGLU-III 1990) aurkaritzako lokailuetan sailkatzen ditu hemen aztertzen ari garen birformulatzaileak.

*kontu, nolanahi (ere), nolanahi dela ere, susmoak susmo, usteak uste, izatekotan, IS + gorabehera, zernahi gisaz, horratik ere.*

Dena dela, EUDIMA corpuseko datuen arabera hauek dira birformulatzaileruntzaile erabilienak:

Birformulatzaileruntzaile nagusiak	EUDIMA corpusa	
	Agerraldi kopurua	Maiztasuna (100.000ko)
<i>DENA DEN (7.794), DENA DELA (4.754)</i>	12.548	20,0
<i>NOLANAHI ERE</i> [ <i>nolanahi ere den, nolanahi dela (ere), nolanahi den (ere)</i> ]	5.003	7,9
<i>EDONOLA ERE (1.950) / EDOZELAN ERE (497)</i>	2.447	3,9
<i>EDOZEIN KASUTAN (1.525), EDOZEIN KASUTAN ere (463)</i>	1.988	3,1
<i>EDOZEIN MODUTAN (ERE)</i> [ <i>edozein moduz (ere)</i> ]	714	1,1

### 43.10.1. *Dena dela, dena den*

**43.10.1a** Birformulatzaileruntzaile den aldetik, bere funtzio nagusia da solaskideen arteko elkar-ulertze arazoak gainditzea eta haien arteko harremana gidatzea. Diskurtso markatzaile honen erabilerak aurretik sortutako formulazio batetik urruntzea ahalbidetzen du; aurreko enuntziatutik atera daitezkeen inferentziak mugatzen edo berrorientatzen ditu<sup>15</sup>. Oro har, ikuspegi enuntziatiboaren aldaketa jartzen du agerian, eta alde horretatik, ez-parafrastikotzat hartzen da.

---

<sup>15</sup> Gramatika Batzordeak (EGLU-III 1990: 118) aurkaritzako lokailuen artean sailkatzen badu ere, *dena den* esapideak ez du adierazten aurreko ataletik inferi daitekeenaren kontrako ideia, baizik eta aurreko ataleko argudioaren garrantzia mugatzen du edo harekiko indiferentzia adierazten du.

Bigarren formulazioa nabarmenduta geratzen da, eta lehenengo formulazioaren garrantzia, apalduta. Bigarren enuntziatuak lehenengoaren argumentazio-indarra mugatzen du eta argudio berriei indarra ematen. Beraz, interpretazio egokia diskurtsoaren bigarren formulazioan oinarrituta egin behar dela adierazten du markatzaileak.

Haren zeregina ez da aurreko enuntziatua parafrasi baten bidez beste era batera esatea, baizik eta auzipean jartzea lehen atalean aurkeztu diren ideien pisu edo garrantzia. Eta urruntze-prozesu hori bi modutara gertatu ohi da, batez ere (Garcés 2008: 143).

**43.10.1b** Aurretik esandakoari garrantzia kentzea edo aurreko enuntziatutik atera daitezkeen inferentziak mugatzea edo berrorientatzea. Beheko testuan, adibidez, aurreko enuntziatuan esaten denaren garrantzia ezabatuta geratzen da: *dena dela*-k leundu egiten du lehenengo enuntziatutik atera genezakeen ondorioa, garrantzia kentzen die handik atera daitezkeen ondorioei eta arreta beste zerbaitetara bideratzen du (mutilak arazoak eragiten ditu, baina zorionez arazo horiek ez dira gaindiezinak):

—*Madarikazioa! —orro egin zuen disimulurik gabe—. Zer mila arraiio gertatu da? —Ohartuta zeunden —erantzun zion Luthek erbinudea lasaitu nahian ferekatuz—. Banengoen ba ni, mutil horrek arazoren bat ekarriko zigula. —Dena dela, hau oztopo txiki bat besterik ez da. Gure planak apur bat aldatu eta kitto* (Urkixo).

**43.10.1c** Aurretik esandakoarekiko indiferentzia adieraztea. Ondorengo adibidean, aurreko zatian azaltzen den egoerarekiko indiferentzia adierazten du birformulazioak:

*Ezkutatzeo ahalegina izan zitekeela pentsatu dut. Aurretik doazen lekunberritarrek zalantza egin dute tupustean bidera atera zaien hondartzako sarrerarekin topo egitean. Atzera so egin dute, amaren bisaiaren bila. Amak Mateori so egin dio laguntza bila. Mateok sorbaldak altxatu eta baietzkoa egin du. Ezezkoa egin zezakeen moduan. Dena dela, berdin du. Sekreturen bat baldin bazegoen, joana da* (Olasagarre).

Diskurtsoari dagokionez, askotariko erabilera edo balioak bereganatzen ditu tes-  
tuinguruaren arabera: hizketagaitza, zehaztapen bat gehitzea, ahots des-  
berdinak testuratzeko, konklusioa adierazteko, desadostasuna edo gaitzeste-kutsua  
erakusteko, esandakoa justifikatzeko, kontrastea nabarmentzeko, garrantzitsuena  
azpimarratzeko... Ondoko adibideak, hurrenez hurren, balio horiek adierazteko:

– *Euskal alaba, orain zenuke tragedia bat zer den egiaztatzeko aukera. Zure  
aitaren eta nire arteko aurrez aurreko bat, errua eta alegantzia, iragana eta  
oraina, techne eta tyche, ausa eta halabeharra anabasan, gatazkan, bizi-  
tzen... -Barrutia, alde hemendik. Dena dela, nork jo zaitu? Ahoskatzearekin  
bat, Barrutiaren amarruan erori naizela ohartu naiz. -Zure gurasoak bezala-  
ko batzuk, zu bezalako batzuk, beharbada. -Eta ez zaitu defendatu? -seinala-  
tu diot Kaskamotza (Olasagarre).*

*xvii. mendekotzat jotzen da, eta “Viva Jesus” izenez ezagutzen da (in Mitxele-  
na 1954: 92): -Birtute esperanzakoa zer da? Saio honetara ekarri ditudan iz-  
kribu zaharretako ortografia gaurko joeretara egokitu dut irakurlearen lana  
errazte aldera. Dena dela, kontuan eduki ditut euskalkietako eta garaian ga-  
raiko bereizgarriak (Zuazo).*

*Agoteren eta Amatriainen lorpena izan da munduari euskal kostaldeko olatu  
erraldioen berri ematea. Agote, Amatriainekin batera, aitzindari erabatekoa  
da Europako olatu erraldioen bilaketan. Olatu handi hitzak aipatu, eta erron-  
ka hitza datorkio Agoteri. «Olatu handiak hartzea niretzat erronka bat da,  
atsegin handia sentitzen dut momentu horietan, naturarekin bat eginez eta  
eskaintzen dizkidan fruituez gozatuz». Argi utzi du, dena dela, olatu mota  
guztiak dituela gustuko, eta ez handiak bakarrik (M. Diaz).*

*Bere motxila handi bakarra fakturatzeko bost lagun besterik ez du aurretik.  
Daramaten maleta kopurua aztertu eta azkar joango dela pentsatu du. Erren-  
kada bi daude Frankfurtera, eta aukeratzekoan betiko zalantzak: ni hemen,  
azkarrago han. Ez du ematen, dena dela, alde handirik dagoenik. Motxila  
behearen gainean utzi du. -Tira, ama, itzul zaitzake, eta eskerrik asko ekar-  
tzeagatik. Ama Amets baino txikixeagoa da, ez oso, ile labur ondulatua xerlo-  
ka horiz tindatua; neurrian, ez nabarmenegi (Luzarraga).*

**43.10.1d** Atal birformulatzailearen hasieran doanean sarritan erabiltzen da juntagailu baten ondoren (*baina, eta*), eta baita, noizbehinka, atzetik *ere* lokailua duela.

Era askotako testuetan agertzen da; erregistro zainduan zein lagunartekoan; hizkuntza idatzian zein ahozkoan.

Baliokideak dira: *dena den, edonola ere, nolanahi ere*.

### 43.10.2. *Edonola ere (edozelan ere)*

**43.10.2a** *Dena dela* eta *dena den* birformulatzaile urruntzaileen baliokidea da, eta, beraz, haien bali oinarrizko bera du: aurretik sortutako formulazio batetik urruntzea ahalbidetzen du. Bi modutara gauzatu ohi da urruntze-prozesua eta bietan atal birformulatzailea gailentzen da.

**43.10.2b** Aurreko formulazioaren garrantzia apaldu edo handik atera daitekeen inferentziari muga jarri, eta garrantzizkoena azpimarratzen da birformulazioan:

*Izan ere, artista profesionali begira laguntza programak martxan jarriko dira. Batez ere, proiektuak finantzatzeko ildoak izango dira, De la Horrak azaldu duenez. Kasu eta egitasmo bakoitza banan-bana aztertuko dute, erabakia hartu baino lehen. Orain arte, Araban kultura sustatzeko bideratzen ziren laguntza gehienak amateur edo erdi-profesionalentzat ziren. Edonola ere, diru-laguntza zuzenak ere emango dituzte (Berria).*

**43.10.2c** Aurreko enuntziatuarekiko indiferentzia adierazten du, eta hiztunak atal birformulatzailean esandakoa egiten du bere.

*Gure arazoa azaldu genien, baina, jakina, haiek ezin zuten ezer egin; gure aparatuak, behintzat, ez ziren interferentziarik egiten berenari. Edonola ere, ez ginen gehiago hartaz arduratu: soinuak deserosoak ziren, baina, Maddik negar egin ezker, ondo baino hobeto entzuten genuen, eta ohitu ginela esan daiteke. Asteburu batean, alabaina, aiton-amonenera abiatu ziren auzotarrak, eta interferentziak ez ziren haiekin joan (Zaldúa).*

Bestalde, *dena dela*-ren balio kontestual berberak hartzen ditu: tematizazioari laguntzea, zehaztapen bat gehitzea, konklusioa adieraztea, ahots desberdinak testuratzea, kontrastea, justifikazioa... Testu honetan, adibidez, hizketagaia aldatzea eta solasaldia gai berri batera berrorientatzea ahalbidetzen du.

*Andoni.*—*Bai. Koldorena ondo lotuta utzi duzue.*

*Eduardo.*—*(ase, ironia puntu batekin) Sekulako pena izan duk. Tipo jatorra zuan (“zen” hau azpimarratuz).*

*Isilunea.*

*Eduardo.*—*(gaiaz beste) Edonola ere, beste kontu bategatik deitu diat.*

*Andoni.*—*Bota.*

*Eduardo.*—*Dena jakin nahi diat Txerrenkori buruz. Baita berak gobernatzen duen Irinaren klubari buruz ere (Goenkale).*

Bere baliokideak diren *dena den* eta *dena dela* markatzaileak baino maiztasun txikiagoarekin agertzen da. Testu akademiko eta filosofikoetan agertzen da, eta, beste inon baino sarriago, zuzenbidekoetan. Ia beti erregistro zainduan eta hizkuntza idatzian.

### **43.10.3. Edozein kasutan (ere)**

**43.10.3a** *Edozein kasutan (ere)* birformulatzaile urruntzailea<sup>16</sup> atal birformulatzailean agertzen da eta birformulazio eragiketari bidea zabaltzen dio. Birformulatzaileak ahalbidetzen duen birformulazioaren lehenengo atalean esplizituki agertzen dira aukera batzuk, baina atal birformulatzaileko ideia gailentzen da haien gainera: birformulakizuneko aukeretako edozein hobes-  
tea hutsala da, ez baita erabakigarria atal birformulatzailean adierazten denerako edo diskurtsoaren jarraipenerako. Bestela esan, atal birformulatzailean adierazten dena ez dago birformulakizuneko aukeren menpe eta, gainera, ez-tabaidaezina da.

---

<sup>16</sup> Testuinguru askotan ez da diskurtso markatzaile, denborazko osagarria baizik (*edozein kasutan aplikatuko da, beste edozein kasutan...*).



Ondorengo testuan, adibidez, bi aukera aurkezten dira lehen atalean (egunean bertan egitea ekografia edo beste egun batean egitea), baina *edozein kasutan* birformulatzaileak aukera horien garrantzirik eza azpimarratzen du eta atal birformulatzaileko ideia nabarmentzen (aukeratzen dutena aukeratzen dutela, haiena izango da erabakia).

*Bulegotik altxatzen ez zela ikusirik, jarri egin ginen. “Ekografia egin aurretik jakinaren gainean ezarri behar zaituztet. Gero posible izango zaizue, benetan nahi baduzue, gaur bertan ekografia egitea. Bestela, beste egun baterako utzi-ko dugu. Edozein kasutan, erabakia beti zuena izango da”* (U. Apalategi).

**43.10.3b** Erabilerari dagokionez, bi hauek nabarmentzen dira. Batetik, birformulakizunak bi aukera adierazten ditu, bata zein bestea hauta daitezke, baina ez du horrek eraginik atal birformulatzailean gailentzen den ideian:

*[...] atestatu hori guardiako epaitegiari igorriko zaio, ustezko erantzulea atxilotu bezain laster edo aurreko paragrafoetan ezarritakoaren arabera hari zitazioa egin bezain laster, edozein kasutan ere, hurrengo bost egunetan. Kasu horietan, auziaren instrukzioa egin ahal izango du atestatua jaso duen guardia-epaitegiak bakarrik (Zuzenbide CorpUSA).*

Bestetik, hiztunak birformulakizunean gogoeta edo ideia gehiegi dagoela sumatzen duenean, jarduna mozteko formulatzat erabil dezake birformulazio eragiketa, birformulakizuneko ideien gaintik atal birformulatzaileko ideia jarrita:

*Euskal kultura benetan existitzen da ala ilusio politikoa da? Euskal kultura existitzen da, jakina, euskararen kultura existitzen delako. Galdetzen badidazu norainokoa den kultura hori, ea euskal kulturarik dagoen euskararik gabe, edo euskal kultura soilik den Euskal Herrian gauzatzen dena, orduan erantzuna zailagoa da. Edozein kasutan, ez da ilusio politikoa (Urkiza).*

Testu akademiko eta filosofikoetan agertzen da, eta, beste inon baino sarriago, zuzenbideko lege testuetan. Ia beti erregistro zainduan eta hizkuntza idatzian.

**43.10.3c** Baliokideak ditu: *edozein modutan (ere)*, *edozelan (ere)*, *edonola (ere)*, *dena dela...*

#### 43.10.4. *Edozein modutan (ere)*

**43.10.4a** *Edozein modutan* birformulatzaile urruntzailea ere atal birformulatzailean agertzen da eta birformulazio eragiketari bidea zabaltzen dio. Bi modutara gauzatu ohi da birformulazio urruntzailea, baina kasu batean zein bestean atal birformulatzailean adierazten da ideia garrantzitsua.

**43.10.4b** Batzuetan, atal birformulatzailean ez da aintzat hartzen birformulakizunaren edukia: nahiz eta eduki hori ez den zalantzan jartzen, ez zaio kasurik egiten; hots, indiferente zaio enuntziatzaileari birformulakizunean adierazten dena.

Beheko testuan, esaterako, ez dago zalantzan birformulakizunean azaltzen dena (hau da, espezie batzuetako emeek beren umeen sexu-proporzioa aldatzeko duten gaitasuna), baina ideia hori alde batera utzi eta bigarren ataleko baieztapenari ematen dio enuntziatzaileak garrantzia (ama-kontrol kasurik argiena himenopteroena da).

*Izan ere, espezie batzuetan, emeek beren umeen arteko sexu-proporzioa alda dezakete, inguruabar-aldaketa batzuen ondorioz. Ugaztunetan, eme batek kostu txiki samar batez alda dezake bere umeen arteko sexu-proporzioa: aski du aukeratzea ernalduriko blastozitoetatik zein ezarri eta hazi umetokian. Edozein modutan, sexu-proporzioari dagokionez, ama-kontrol kasurik argiena himenopteroetan gertatzen da (inurriak, erleak, liztorrak) (Morillo).*

**43.10.4c** Beste batzuetan, birformulakizunean adierazitakotik ondoriozta daitezkeen inferentziei balioa kentzen zaie.

Beheko testuan, adibidez, birformulakizunean adierazten den ideiatik (Einsteinen teoriarekiko jarrera kritikoetatik aldentzen da enuntziatzailea) ondoriozta liteke inferentzia hau: enuntziatzailea Einsteinen teoriaren jarraitzaile guztiz fidela da. Baina inferentzia horren aurka doa atal birformulatzailean baieztatzen dena (Einsteinen teoria ezin da azken hitza izan...).

*Hori guztia Einsteinen ekuazioa baliozkoa izatearen baitan dago (eta Tab gaiarekin zerikusia duten hipotesi fisikoki zentzuzko batzuen baitan). Zenbai-*

ten iritiz, Einsteinen erlatibitate orokorraren sakoneko gabezia baten seinale dira singularitasun-teoremok. Ni neu apur bat aldentzen naiz jarrera horretatik. Badakigu, *edozein modutan*, Einsteinen teoria ezin dela azken hitza izan espazio-denboraren eta grabitazioaren izaerari buruz (Morillo).

**43.10.4d** Askotariko testuetan erabiltzen da, baina batez ere testu akademiakoetan, filosofikoetan eta zuzenbideko lege testuetan agertzen da ugarien. Erregistro zainduan maizago agertzen da lagunartekoan baino, eta maizago hizkuntza idatzian ahozkoan baino.

**43.10.4e** Baliokideak ditu: *dena dela, dena den, edonola (ere), edozelan (ere)*...

#### 43.10.5. Hala ere esapidearen bi balioak

**43.10.5a** EUDIMA corpusean oso maiztasun altua dute *hala ere* eta *hala eta guztiz ere* markatzaileek:

Birformulatzaile urrun-tzaile / aurkaritzakoa	EUDIMA corpusa	
	Agerraldi kopurua	Maiztasuna (100.000ko)
<i>HALA ERE</i> (30.915) [ <i>halere, halarik ere, halaz ere</i> ]	37.969	60,6
<i>HALA ETA GUZTIZ ERE</i> [ <i>hala eta guzti ere, halaz guztiz ere</i> ]	2.869	4,5

*Hala ere, hala eta guztiz ere* markatzaileen maiztasuna

Dena dela, funtzio bat baino gehiago betetzen ditu *hala ere* diskurtso markatzaileak. Nolabait esan daiteke bi *hala ere* ditugula: a) aurkaritza adierazten duen lokailu kontraargumentatiboa (*hala ere* 1), eta b) birformulatzaile urrun-tzailea (*hala ere* 2).

Gramatika Batzordeak (EGLU-III 1990) aurkaritzako lokailuen artean sailkatu zuen *hala ere*, eta egia da funtzio hori betetzen duela gehienetan. Hau da, gehienetan ez da birformulatzailer urruntzailea, lokailu kontraargumentatiboa baizik (Martín Zorraquino eta Portolés 1999).

**43.10.5b** *Hala ere* [1]: lokailu kontraargumentatiboa. Gehienetan aurreko diskurtso ataletik atera daitekeen ondorioa baliogabetzen edo mugatzen du *hala ere* lokailua duen diskurtso atalak.

Beheko adibidean, lehen atalean esandakotik (*Zaharrenak 50 urte baino gehiago zituen*) inferi daitekeenaren kontrakoa adierazten da bigarren atalean (*eta hala ere beltz zituen oraino buruko ileak eta bizarra*). Espero zitekeen 50 urte baino gehiagoko edonork buruko ileak eta bizarra urdinduta edukitzea; hala ere, beltz zituen eta ideia hori nagusitzen da. Beraz, espero zitekeen ondorioaren aurkakoa adierazten da bigarren atalean. Bestela esanda, aurkaritzalokailua da *hala ere* halakoetan:

*Zaharrenak 50 urte baino gehiago zituen eta hala ere beltz zituen oraino buruko ileak eta bizarra* (Epaltza).

*Zikindurik zeukan lumaje berdea; hautsaren azpian, ezagun zuen, hala ere, gorri-gorriak zirela hegaletako luma muturrak* (Jon Muñoz).

*Laket izan zitzaidan ganbera hartakoak itzuli zidan irudia. Frantzia barna bidaiatzen ari ginela gelditu nintzen bizarra egitetik. Ministroren batek kargu hartua zidan horretakoz. Ez, ordea, nabalara makurrarazi. Henrikerenaren aldean soilgunez beteriko itzal murrizta baizik ez zen. Hala ere, harro nengoen ezpain inguruko itzalaz* (Epaltza).

**43.10.5c** *Hala ere* [2]: birformulatzailer urruntzailea. Bestalde, zenbaitetan birformulazio urruntzailea bideratzen da *hala ere*-ren bidez: diskurtso markatzailearen erabilera horrek aurretik sortutako formulazio batetik urruntzea ahalbidetzen du; eta haren zeregina ez da aurreko enuntziatuan adierazitakoaren kontrakoa esatea, baizik eta garrantzia kentzea aurreko atalean aurkeztu diren ideia edo argudioei.

Ez da esplizituki ukatzen edo baliogabetzen lehen atalean esandakoa, baizik eta bestelako orientazioa duen ideia bat azaltzen da atal birformulatzailean. Lehen atalean adierazitakoa alde batera uzten da: baliogabetu, ez da baliogabetzen, baina lehen atalekoa indiferentea da atal birformulatzailean aurkezten den konklusiora iristeko, eta, hain zuzen, bigarren atal horretan kokatzen du indargunea enuntziatzaileak.

Beheko adibidean, birformulakizunean hizkuntza deskribatzeko erabili diren termino batzuk aipatzen dira (*gaitasun psikologiko gisa, gogoko organo gisa, sistema neural gisa edota modulu konputazional gisa deskribatu izan dute hizkuntza*); aukera horien balioa zalantzan jarri gabe, idazleak gogokoago duen beste termino bat gehitzen du eta horixe egiten du bere (*Hala ere, aitor dut, nik nahiago dut deitura bitxiago bat: “sena”*).

*Gaitasun konplexu eta espezializatua da hizkuntza; haurrarengan berez garatzen da, oharkabean, irakaspen formalik gabe, azpian duen logika ulertu gabe, eta kualitatiboki berdina da gizabanako guztiongan, informazioa prozesatzeko edo bestelako gaitasun kognitibo orokorrangoetatik bereizia. Arrazoi horiek direla-eta, zientzialari kognitibo batzuek gaitasun psikologiko gisa, gogoko organo gisa, sistema neural gisa edota modulu konputazional gisa deskribatu izan dute hizkuntza. Hala ere, aitor dut, nik nahiago dut deitura bitxiago bat: “sena” (G. Knörr).*

Hona hemen beste adibide bat:

*Irratia eta telebista aipatu ditugunez, esan horietan ere antzera batean dagoela kontua: nazio osorako euskara hutsezko hedabideak oso-oso gutxi dira eta euren ikus-entzuleria ez da handia; ezin ahantzi, hala ere, euskaraz diharduten kate lokalak ugaltzen ari direla (erdaraz dihardutenak ere bai, bidenabar esanda) (Zuberogoitia).*

**43.10.5d** Aldaera nagusi hauek ditu *hala ere*-k: *halere, halarik ere, halaz ere*. Kokaguneari dagokionez, atal birformulatzailean agertzen da; batez ere hasieran eta tartean; gutxitan amaieran (ikus EGLU-III 1990: 123). Edozein testu motatan azaltzen da. Erregistro zainduan zein lagunartekoan. Hizkuntza idatzian zein ahozkoan.

### 43.10.6. *Hala eta guztiz ere* esapidearen bi balioak

**43.10.6a** Esapide honek, *hala ere*-k bezala, bi funtzio nagusi hauek betetzen ditu: a) lokailu kontraargumentatiboa; b) birformulatzailer urruntzailea.

**43.10.6b** *Hala eta guztiz ere* [1]: lokailu kontraargumentatiboa. Gehienetan aurreko diskurtso ataletik atera daitekeen ondorioa baliogabetzen edo mugatzen du *hala eta guztiz ere* lokailua duen diskurtso atalak. Aurkaritzako *hala ere* [1] lokailuaren baliokidea da, baina aurreko atalean ematen den argudioa —eragozpena— are pisu handiagokoa dela adierazteko erabiltzen da.

*ADELAREN BISITAK are gehiago bultzatu ninduen abiatua nuen bidetik. Egia da inoiz baino bakartiago ibili nintzela, ia misantropo bihurturik, ez nintzela asteburuetan lagunekin irteten, edozein tarte libre edo opor baliatzen nuela irakurtzeko eta ikasteko. Hala eta guztiz ere, hilean behin edo, beheko auzoko mendizale talde batekin joaten nintzen ibilaldiak egitera (Igerabide).*

*Ur azaletik gorakoari emaiozu gogo. Bai, ur azpikoa hor dago, hutsean zintzilik bezala gaude, baina zure irudimenean dago beldurraren kausa. -Bai, badakit hori dena, horixe esaten diot behin eta berriz neure buruari, eta hala ere, hala eta guztiz ere, ezin beldurrari ihes egin (Iñurrieta).*

**43.10.6c** *Hala eta guztiz ere* [2]: birformulatzailer urruntzailea. Zenbaitetan, birformulazio urruntzailea bideratzen da *hala ere*-ren bidez: haren zeregina ez da aurreko enuntziatuan adierazitakoaren kontrakoa esatea, baizik eta garrantzia kentzea aurreko atalean aurkeztu diren ideia edo argudioei. Ez da esplizituki ukatzen edo baliogabetzen lehen atalean esandakoa, baizik eta bestelako orientazioa duen ideia bat azaltzen da atal birformulatzaileran.

*Aitak hizketan jarraitu zuen, eta guk irribarrez entzuten genion; aprobetxatu beharra zegoen abagune hura, ez baikenekien zenbat denbora igaroko zen berriro halako joerak ematen zion arte. Hala eta guztiz ere, hark esan zizkigun istorio guztiak gerra aurrekoak ziren; hantxe zeukan muga aitak, gerran; handixe hedatzen zen amildegi ilun isila. Adela gauerdi aldera joan zen. Agurtzerakoan, estu besarkatu ninduen, ilobaz harro dagoen izeba batek be-*

*zala. Gorputza biguna zeukan artean, kanaberaren eitekoa, haragiak tenk, baina haren estutuan urteen zama nabari zen, edo urteak baino zama pisutsuago bat (Igerabide).*

**43.10.6d** *Hala ere eta hala eta guztiz ere* baliokideak izan arren, alde nabarrena dago bien artean bukaerako kokaguneari dagokionez: *hala eta guztiz ere* oso nekez erabiltzen da atal birformulatzailearen bukaeran.

Biak erabiltzen dira beste juntagailu batzuekin batera (*baina, eta*).

### **43.10.7. Birformulatzaile urruntzaileak: kokagunea, sintaxia, puntuazioa...**

**43.10.7a** Kokaguneari dagokionez, gehien-gehienetan, atal birformulatzailearen hasieran erabiltzen dira birformulatzaile urruntzaileak (*dena dela, edonola ere, edozein kasutan, edozein modutan...*); batzuetan, tartekatuta; eta, nekez, amaieran.

**43.10.7b** Sintaxia hartzen badugu kontuan, gehien-gehienetan perpaus bat sartzen dute urruntzaileek. Dena dela, zenbaitetan sintagma bati ere laguntzen diote. Ondoko adibide hauek erakusten dute hori:

*Zure aurretik gure ikasle izandakoei galdetu beharko litzaike emaitza nolakoa izan den eta, benetan, gure trebakuntzak hobera egin ote duen urte horien buruan. Edonola ere, uste dugu, badela garaia, urteotan landu eta orrazten saiatu garen “klaseko apunte” hauek euskarri txukun batean jarri eta zuri eskaintzeko (Zuzenbide Corpusha, Alkorta).*

*Baina eta eta* juntagailuekin batera ere agertzen dira maiz:

*Azkenean soinu edo hitz edo dena delako horiek grabatu eta Iñigo nire lagunari eramango nizkiola erabaki nuen: filologoa da, eta hizkuntza asko daki. Nire eskaerak harritu egin zuen (ez nion azalpen handirik eman), baina zinta entzungo zuela agindu zidan. Biharamunean deitu zidan: “Alemana dela esango nitek, baina oso aleman arraroa, edonola ere. Yiddisha, agian; bada-*

*kik: ekialdeko juduen dialektoa. Baina ez diat gauza handirik ulertu". Aparatura kaxa baten barruan eman zigutela gogoratu nuen orduan, eta, bizkor, argibideen papera eskuratu nuen (Zaldua).*

**43.10.7c** Puntuazioari dagokionez, atal birformulatzaileraren hasieran doazenean, ondotik koma dutela eta aurretik koma edo puntuazio marka zorrotzago bat (puntu eta koma, puntua, bi puntu) eman ohi dira birformulatzailer urruntzailerak (*dena dela, edonola ere, edozein modutan...*). Tartekatuta doazenean, koma artean, oro har. Eta atal birformulatzaileraren bukaeran doazenean, aurretik koma jarri ohi da.

### **43.11. Birformulatzailer zuzentzailerak: (*edo*) *hobeto/hobeki, are hobeto/hobeki, barkatu, hobeto esanda...***

**43.11a** Hauek dira birformulatzailer zuzentzailer nagusiak: (*edo*) *hobeto/hobeki, are hobeto/hobeki, barkatu/barka, bestela esanda, egia esanda, hobeto esanda...*

Birformulatzailer zuzentzailer bidez (ikusi Fuentes 2009; Martín Zorraquino eta Portolés 1999: 4126; Briz, Pons eta Portolés 2008: 212), hiztunak zuzendu, hobetu edo zehaztu egiten du aurreko diskurtso unitatean adierazitakoa (Del Saz 2003, 2007), aurreko formulazio hori desegokia delakoan edo aurreko formulazioak diskurtsoaren garapenean bere funtzioa bete delakoan eta ondoren bestelako formulazioa egokiagoa delakoan; beste batzuetan, aurreko enuntziatutik eratoritzen diren auresuposizio edo inplikaturak ezeztatzen edo aldatzen ditu (ikusi Garcés 2008: 105-108); enuntziatzaile berak esandakoa edota, el-karrizketetan, beste enuntziatzaile batek esandakoa zuzendu liteke birformulatzailer zuzentzailer bidez:

*Oraingoan bertsoak bildu dituzte berriro: "Bertso guztiak, edo hobeto esanda, eskuratu ahal izan ditugunak", azaldu du Auspoako arduradunak (Berria).*



Birformulakizuna	Bertso guztiak,
Azalpena: atal birformulatzailea	edo <u>hobeto esanda</u> , eskuratu ahal izan ditugunak

**43.11b** Beste birformulazioetan gertatzen den bezala, birformulatzaile zuzentzaileetan ere atal birformulatzailea da diskurtsoaren informazio-egituran nabarmendu nahi dena eta ez, beraz, birformulakizuna. Zuzenketari esker, ordea, birformulakizuna bera edo bertatik erator litezkeen aurreposizioak eze-gokitzat jotzen dira.

#### 43.11.1. (edo) hobeto/hobeki

**43.11.1a** Aurreko enuntziatuaren segmentu bat edo enuntziatua bera —osoa edo zati bat— desegokitzat jotzen du esatariak, edo ez da, haren ustez, behar bezain egokia, eta aldatu edo zuzendu egiten du. Zuzenketa horretan, lehen segmentu horren ordez, beste bat sartzen du, egokiagoa, hobea, zuzenago edo zehatzagoa: *Era berean, de Gomme Gosporten garai berean egindako lan garrantzitsuen arduraduna izan zen. Harresien (edo, hobeto, hiri “zaharrekoko” harresien) barruan zegoen Portsmouthen eremua nahikoa izan zen 1495era arte, Henrike VII.ak Mill Pondetik harago errege-ontziola independente bat eraikitzea agindu zuen arte; orduan, Portsmouthen bigarren nukleo historikoa sortu zuen* (Morris).

Markatzailearen bidez uztarturiko diskurtso atalak hala enuntziatu osoak nola enuntziatu zatiak izan daitezke. Atal horiek, kategoriari dagokionez, askotari-koak izan daitezke: izenak, adjektiboak, izenlagunak, aditzak...

**43.11.1b** Batzuetan, formari eragiten dio zuzenketak. Beste batzuetan, adiera zuzentzen da: edukia nahiz erreferentzia; partziala edo erabatekoa izan daiteke zuzenketa hori. Eta beste batzuetan, aurreko enuntziatutik segitzen diren inferentziak zuzentzen dira.

**43.11.1c** Formaren zuzenketaren adibidea:

*Hormen estradosa drainatzeko (eraikinaren oinarriko eraikuntza-elementu guztiak inguratu behar dira), lehenengo, kanpoaldea geotestilezko xafla batez iragazgaiatu, eta, xaflaren eta hormaren artean, hormari atxikirik, “arrautza-ontzi” deritzon xafla drainatzaile noduludun bat jarri ohi da. Sistema hori osatzeko, legar edo -hobeto- hartxintzar drainatzailez betetzen da hormaren kanpoaldea; ura, hala, behealdeko drain bateraino iragazten da (Arizmendi).*

Forma, hots, adierazlea zuzentzen da. Zuzenketa horrek ez dakar ez edukiaren zuzenketarik, ez erreferentearen aldaketarik. Elkarren sinonimotzat jo daitezke bi segmentuak; esatariak bigarrena hobesten du baina.

**43.11.1d** Edukiaren zuzenketa era askotakoa izan daiteke: 1) erreferentearen zuzenketa partziala; 2) erreferentearen zuzenketa osoa; 3) enuntziatuaren zuzenketa partziala, eta 4) enuntziatuaren zuzenketa osoa. Lau adibide, hurrenez hurren:

*Espainia da arima bat agonian dagoena (“agon” edo borroka unamunotarrean), kristautasuna bezalaxe; arima espainolaren esentzia, harentzat, kristautasunaren esentzia baino ez delako beharbada. Katolikotasunarena, hobeto. Katolikotasunean Unamuno faszinatzen duena irrazionaltasuna da -eromena- eta ideal baten infinitua. Hori da berak Cervantes-en obran ere irakurtzen duena. Unamuno-k Erdi Aroaren nostalgia sentitzen du; higuin ditu “los hidalgos de la Razón” - modernitate zientifikoa, kritikoa. Saio horretan bere asmoa da “xxxx” - eromenaren erreskatea (ez derrigor idealismoarena: fanatismoa eta intolerantzia ez da gutxiago ospatzen) (Azurmendi).*

Atal birformulatzailerak ez du erabat baliogabetzen lehen enuntziatuko erreferentea (*kristautasuna*), baizik eta erreferente zehatzago bat adierazten du. Hots, hiperonimia/hiponimia erlazioa dago bi unitate lexikoen artean: kontzeptu orokorretik zehatzera doa esataria.

*Aukeran dauden arauen artetik ebolutiboki egonkorra zein izango den, ereduaren helburua da hori aurkitzea. 4. Emeek askatasun bera dute beren arau propioak garatzeko. Haien kasuan, arrak propagandaren sendotasunaren arabera aukeratzeko dituztenez, aukeraketari buruzkoak dira arauak (gogora-*

*tu emeek, edo, hobeto, emeen geneek ezin dutela arren kalitatea arrek bezala zuzenean hauteman)* (PKC, Carton).

*Hegelek Rousseauarekin, Montesquieurekin (ikus The Spirit of the Laws, XIX, 4 eta hur.) eta Herderrekin bere Nazioaren Espirituan duen zorra begi-bistakoa da. Spinozarekin dituen harremanak beste era batekoak dira. Hegelek garrantzi handiko bi ideia hartzen ditu edo, hobeto, egokitzen ditu Spinoza deterministarengandik (J. Zabaleta).*

*Horrela, zaila da gizabanako bakoitzarentzat ia norbere natura bilakatu den heldugabetasun horretatik irtetea. Hartara ohituta, gustu hartu dio, eta ezinezkoa zaio jada bere ulermena erabiltzea, ez baitzaio inoiz laga hura erabiltzen. Dogmak eta formulak, bere dohain naturalen erabilpen —edo, hobeto, deserabilpen— arrazionalerako instrumentu mekanikoak, bere behin betiko heldugabetasunerako oin-bilurrak dira (Monreal).*

Erabat baliogabetzen da lehen enuntziatua aurreko adibidean. Antonimia-erlazio semantikoa dago erabilpen eta deserabilpen unitate lexikoen artean, eta erlazio hori dela bide baliogabetzen da lehen enuntziatua.

#### **43.11.1e** Inferentziaren zuzenketaren adibidea da honako hau:

*Duela hamabost edo hogeit hamar orri aipatu dizuedan enkontrua zen hau, eta kontu horren gainean hitz egiteko unea iritsi den honetan, lotsaz gaixotzen naiz gure artean gertatu zenaren oroitzapenarekin. Pertsona hura, edo, hobeto, arazo deitzea nahiago dudana gauza hura, batek daki nongo leize barrenetatik azaleratutako izaki amesgaiztozko hura, hogeita hamar urteko UPSko mandatarari baten mozorroarekin zebilen, eta gorputz gihartsu eta sasoikoa eta begirasun haserretua ageri zituen. Ez, ez da zuzena haserrea hitza nik haren aurpegian ikusi nuena azaltzeko (O. Arana).*

Adibidean, lehen enuntziatutik, egitura neutroa edo konnotaziorik gabea erabili baita (*pertsona hura*), ondoriozta daiteke esatariak ez duela inolako jarrearik (ez aldekorik ez kontrakorik) hizpide duen pertsonarengana. Atal birformulatzailean, ordea, hiztunak argiago erakusten du zer jarrera duen pertsona horrengana.

Birformulatzaila atal birformulatzailaren hasieran agertzen da gehienetan, aurrean *edo* juntagailua duelarik; nolana, bakanago bada ere, birformulatuaren atzean ere ager daiteke.

### **43.11.2. Are hobeto/hobeki**

**43.11.2a** Aurreko birformulatzailaren (*edo*) *hobeto/hobeki* baliokidea da. Haren bidez, informazio okerra daraman elementu baten orde, beste bat sartzen da. Elementu berri horrek, esatariaren iritziz, elementu ordezkatuaren edukia zuzentzen eta hobetzen du:

*Mitoaren mekanismo peto-petoa da hori noski, eta Eleberria, eta eleberriaren barnean iragan burutua, objektu mitologikoak dira, zeinek, beren intentzio ber-bertakoari, dogmatika batekin loturiko asmo lehenaz gainerako bat ere baitaramate beren baitan; dogmatika batekin, edo, are hobeki, pedagogia batekin, zeren kontua artifizio baten itxuran esentzia bat ematea baita* (Juan Garzia).

**43.11.2b** Batzuetan, formari eragiten dio zuzenketak. Beste batzuetan, edukia zuzentzen da; partziala edo erabatekoa izan daiteke zuzenketa hori. Eta beste batzuetan, aurreko enuntziatutik segitzen diren inferentziak zuzentzen dira.

Atal birformulatzailaren aurrean joaten da, etenaldien artean, eta, sarritan, *edo* (*edota*) juntagailuarekin batera. Hizkuntza idatzi zainduan erabiltzen da, eta ez oso maiz. Ez dago oso gramatikalizatua eta askoz ere maizago betetzen du adberbio funtzioa.

### **43.11.3. Barkatu, barka**

**43.11.3a** Oro har, ez da izaten diskurtso markatzailea. Birformulatzaila gisa erabiltzen denean, haren bidez, informazio okerra daraman elementu baten orde, beste bat sartzen da. Elementu berri horrek, esatariaren iritziz, elementu ordezkatuaren edukia zuzentzen eta hobetzen du.

**43.11.3b** Batzuetan, formari eragiten dio zuzenketak. Beste batzuetan, edukia zuzentzen da; partziala edo erabatekoa izan daiteke zuzenketa hori. Eta beste batzuetan, aurreko enuntziatutik segitzen diren inferentziak zuzentzen dira.

Formaren zuzenketa ikusten dugu hemen:

*Beatriz.—San Francisco ezagutzeko gogoia dut. Izan al zara sekula San Franciscon? Gorka.— Behin baino gehiagotan. Hango zubia, hango kaleak, hango ikuskizunak... Mikel.— Marikoi asko... Barkatu, homosexual asko omen dago san Franciscon (Goenkale).*

Edukiaren zuzenketari dagokionez, batzuetan 1) *erreferentearen zuzenketa partziala* gertatzen da, beste batzuetan 2) *enuntziatuaren zuzenketa partziala* eta, azkenik, 3) *enuntziatuaren zuzenketa erabatekoa*, ondoko hiru adibide hauek erakusten dutenez, hurrenez hurren:

*Julia.—Eta niri ere iruzurra egin balidate?*

*Agurtzane.—(irribarre tristez) Nola izan zintezke hain zinikoa? Ba al dakizu nor gogorarazten didazun? Nire senar maitea. Barkatu, senar ohia. Ez zarete ba elkar hartuta arituko berri ere? (Goenkale).*

*Maria Luisa.—Zer tokatzen zait, pagatzea ala ordaintzea? (Konturatu da nahastu egin dela) Barkatu, ordaintzea ala kobratzea esan nahi nuen (Goenkale).*

*Gazako kokagune guztiak bertan behera uzteko asmoa duela helarazi zion atzo Israelgo lehen ministro Ariel Sharonen Haaretz egunkariari. «Gazan dauden hamazazpi kokaguneak desegiteko plana prestatzeko agindua eman dut», adierazi zuen. «Nire asmoa da kokaguneak bertan behera uztea, barkatu, beste leku batean berrezartzea; arazoa dira guretzako eta behin betiko bake hitzarmena adosteko gauden leku horietatik joan beharko ginateke», zehaztu zuen lehen ministroak (Berria).*

Atal birformulatzailleak erabat baliogabetzen du birformulakizunean emandako informazioa. Aurreko adibidean, esaterako, esatariaren benetako asmoa kokalekuak lekuz aldatzea da, eta ez suntsitzea.

Inferentziaren zuzenketa:

*MINTZATU DA. Erregea mintzatu da astelehen arratsaldean. Barkatu, ez omen dugu erregerik. Presidentea da mintzatu, Nicolas Sarkozy (Herria).*

Lehen enuntziatutik (*erregea mintzatu da astelehen arratsaldean*), Frantzian errege bat badagoelako inferentzia segitzen da; baina atal birformulatzaileak zuzendu egiten du inferentzia hori.

**43.11.3c** Baditu esapide honek beste balio batzuk ere. Atal zuzentzailearen bidez, birformulakizunean zer eman nahi izan den aditzera azaltzen da:

*Eta 2008an euskal selekzioak urratsak egiten jarraituko du linborantz, bar-katu, ofizialtasunerantz (Berria).*

**43.11.3d** Markatzaile honen bidez, autobirformulazioak ez ezik (esatariak bere burua zuzentzen du) heterobirformulazioak ere gauza daitezke (entzuleak edo mezuaren hartzaileak zuzentzen du enuntziatua):

*Nekanez ez du erantzuten.*

*Koldo.—Naroarekin ondo zaudela esan didazu...*

*Nekane.—Inoiz eduki dudan bikotekiderik onena da. Zorte handia daukat berarekin.*

*Koldo.—Barkatu, “bigarren” bikotekiderik onena esan nahiko duzu... (Goenkale).*

#### **43.11.4. Bestela esanda**

Birformulatzaile esplikatiboa izaten da gehienetan, baina batzuetan zuzentzailatzat jo daiteke (nahiz eta halakoetan zaila den bi balioak —esplikatiboa eta zuzentzailea— guztiz bereiztea):

*Eta heldu zion Gerardok Nataliari gerritik; ahalegindu zen mutila Natalia eramaten, pausoz pauso, berak zekien bezala... baina alferrik, Gerardok emandako pauso bakoitzari Nataliak bere balazta ezartzen baitzion: hots, bere kontrapausoa; kontrapauso haiek, haatik, ez ziren guztiz kontrakoak -bai norabidean,*

*ez magnitudean-, edo, bestela esanda, mugimendu eta kontramugimendu haiek ez ziren, neurriaz denaz bezainbatean, simetrikoak [...] (Irigoien).*

*Atea zabaldu nionean irribarrea behartu zuen, indargea, bizi gabea. Besarkatu nuenean, oraindik senti dezaket, besoen artean eroriko zitzaidala pentsatu nuen, gorputz osoak dar-dar egin ziola begitandu zitzaidan. Ez zen Sofia. Edo, bestela esanda, ez zen hilabete batzuk lehenagokoa. Ez. Ezkon bizitzaz mintzatzzen hasi zitzaidan, poz antzera. Baina ez zidan begietara begiratzen. Ez zuen adorerik. Lotsa zen. Nire ahizpak ezin zidan begietara so egin, nire aurrean lotsa zelako! Berehala lotu nuen egoera senarrarekin, eta ez nuela gezurrik entzun gura esan nion: “Niri koplak gutxi, Sofia!” (EPD, Frieria).*

#### 43.11.5. Egia esan (egia esanda...)

**43.11.5a** Kontuan izan behar dugu markatzaile hau bibliografian ez dutela beti birformulatzailetzat hartu. Horren adibide dugu gaztelaniazko ordaintzat jo daitekeen *a decir verdad*, zeina Fuentes-en (2009: 25-26) arabera enuntziazio-operadorea baita, ez birformulatzailea.

*Gorroto ditu Patriciaren lagunenguz inguruko eztabaidak. Bere lagunak sakratuak dira. Patriciarekin dituen eztabaida guztiak gorroto ditu, egia esanda (K. Agirre).*

**43.11.5b** *Egia esanda* birformulatzailearekin —beraren eduki semantikoagatik espero izatekoa denez— ez dugu adierazleari (formari) eragiten dion zuzenketarik aurkitu; bai, ordea, adieraziari (edukiari edota erreferentziari) eta inferentzietan dagokiena. Zuzenketa hori, ordea, mota desberdinetakoa izan daiteke. Batzuetan, 1) adieraziaren edukiaren zuzenketa partziala da; beste batzuetan, 2) adieraziaren edukiaren zuzenketa erabatekoa. Eta, beste batzuetan, 3) adieraziaren erreferentziaren zuzenketa partziala. Hona hemen hiruen adibide bana:

*Gizona.—Zer moduz hanka hori, Eusebio?*

*Eusebiok bere herrena eta min aurpegia areagotu egingo ditu.*

*Eusebio.—Ondo ez. Egia esan, gero eta okerrago. Martxa honetan baja hartu beharko dut (Goenkale).*

*Txosnara joan eta tea ez eze, te ontzia ere eskatu die, geuk prestatzeko, erritual osoa betez: sua piztu, ura bota, te-belarra sartu, edalontzira tea isuri eta atzera ere ontzira, horrela behar beste, tea ondo nahastu arte. Herriko neska-mutikoek barrez begiratzten diote afrikarkerietan ari den zuriari. Durangoko Bakintharen lagunak ere ikusi ditugu, zain genituen egia esan (Urrutikoetxea).*

*Babiloniar eta greziarren artean, baita Zelanda Berriko maorien artean ere —egia esateko, mito kosmologikoak asmatzen dituzten herri guztien artean—, narrazioak aurkitzen ditugu, gauzen hasieraz ari direnak eta Unibertsoaren egitura beronen sorreraren historia azalduz ulertu edo esplikatuz nahi dutenak (PKC, Gabikagojeaskoa).*

**43.11.5c** Gure corpuseko adibiderik gehientsuenak ezin dira birformulatzailetzat hartu. Adibide gehientsuenetan enuntziatio-operadore da *egia esan*. Operadorea dagoen diskurtso atala bere egiazkotasunagatik nabarmentzen da aurretik esandakotik. Operadorea dagoen atalean adierazitakoaren benetakotasuna baieztatzen du esatariak. Baieztapen horrek, aurreko unitatearekin aurkakotasunean dagoenean, zuzenduz birformulatzen du aurreko atalean esandakoa:

*Lehenengo egunetik bertatik errezelak egin behar izan genituen; egia esan, ez dute izen hori merezi, trapu zati batzuk baizik ez baitira, ez formaz, ez kalitatez ez marrazkiz elkarren antzik ez dutenak (J. Zabaleta).*

### **43.11.6. Hobeto/hobeki esan**

**43.11.6a** Baliokideak dira *hobeto esan* eta (*edo*) *hobeto/hobeki*, eta arrazoizkoa da pentsatzea bigarrena lehenengotik eratorria dela (*hobeto esan* > (*edo*) *hobeto*). Haren bidez, informazio okerra daraman elementu baten ordeztu, beste bat sartzen da. Elementu berri horrek, esatariaren iritziz, elementu ordeztuaren edukia edo forma zuzentzen du:

*Euskadiko lehen sindikatuak Bizkaian sortu ziren, XIX. mendearen bukaeran; geroago hedatu ziren Gipuzkoara, eta geroxeago eta garrantzi gutxiagorekin, Arabara edo, hobeto esanda, Gasteiza (J. L. Granja).*



**43.11.6b** Batzuetan, formari eragiten dio zuzenketak. Beste batzuetan, adierazia zuzentzen da: edukia nahiz erreferentzia; partziala nahiz erabatekoa izan daiteke zuzenketa hori. Eta beste batzuetan, aurreko enuntziatutik segitzen diren inferentziak zuzentzen dira.

### 43.11.7. *Zer diot?*

Esatariak desegokitizat edo eskastzat jotzen du adierazpen edo enuntziatu bat, eta zuzendu egiten du, haren ordeztu egokiago bat jarritz.

Corpusean aurkitu ditugun adibide bakanetan adierazia zuzentzen da batik bat: edukia edo erreferentzia; partziala edo erabatekoa izan daiteke zuzenketa hori. Eta beste batzuetan, aurreko enuntziatutik segitzen diren inferentziak zuzentzen dira. Ondoko adibideetan, lehenbizikoan *erreferentea zuzentzen* da, eta bigarrean *edukiaren zuzenketa erabatekoa* gertatzen da:

*Eta arestian, berri, neurketa neguan egin zuela esan duzu. Ez zuen, ba, sei hilabete iraungo bidaiak! Ruche jauna hodeietatik jausi zen. Harrapatua! -Bidean nonbait geldituko zen agian, ba al dakit nik! Alexandria bisitatzeke, adibidez. Ez, zer diot, baina? Alexandrian, ez: geroago eraiki zuten hiria. Tebas bisitatzeke, Orduan (Jon Muñoz).*

*Hitz hori erabilia, ez didazu inoiz eraso egin, baina badakit hori dela hain juxtu nigatik sentitu duzuna inoiz, errukia, batez ere Club Atlético gertatu zena kontatu nizunean. Ez dakit zergatik biluztu nintzen horrela, Maite. Gezurra, zer diot, badakit zergatik kontatu nizkizun inoiz inori esan ez dizkiodanak. Erraza ikusi nuen, agidanean; gustuko duzu, zuk ere, gizona ume ikustea, kiribildua zure magalean, eta zu nire gainean etzanda, besarkadan osoro babesten, lasai zaitez, nirekin zaude orain Oscar, hona mundua eta aterpea, xukatu malkoak, amaitu da amesgaiztoa (EPD, Aranbarri).*



## Iturriak eta bibliografia

### 1. Iturriak

*Euskararen Gramatika* honetan ageri diren adibide gehienak egun sarean diren hiztegi eta corpusetatik bildu dira (§ 1.2). Gure tradizioko idazle nagusien testuak eta gaur egungo idazleenak eskura ditugunez, bada, adibideen iturriak era laburtuan eman dira: egilea nor den esaten da, lanaren izenburua eta gainerako datuak erantsi gabe, eta itzulpenen kasuan ere itzultzailearen izena bakarrik jarri da.

Egilea(k) zehazteko orduan, lehen deitura jaso da eta, zenbaitetan, izenaren lehen letra(k), deitura bereko egileak daudenean; inoiz edo behin, izen osoak idatzi dira, inisial eta deitura berekoak direnean. Lanak egile ezagunik ez badu, izenburua ipini da modu laburtuan. Batzuetan OEHko laburdurak erabili dira (AstLas, AzpPr, etab.), eta han bilduak diren egileen deiturak gaurko grafiara egokitu dira (Etxamendi = Etchamendy; Joanategi = Joannateguy eta abar). Testuan parentesi artean jarri diren erreferentzia laburtu horiek lehen lekuan eman dira zerrendan, egilearen izenaren inisiala(k) deituraren ondotik d(ir)ela, testuan ez bezala. Alboan izen-deitura eta izenburu osoak zehaztu dira, eta OEHko iturrietan badira, han ageri diren eran bildu dira. Sareko baliabideak —corpusak eta hiztegiak— § 1.2 atalean zerrendatu dira.

### 1.1. Adibideen iturriak

Abadia = Abbadie, Arnaud

Adéma, Gratien “Zalduby”: ikus Zaldubi

Agirre = Aguirre, Domingo de

Agirre, A. = Agirre, Alaine

Agirre, E. = Agirre, Edorta

Agirre, Jon

Agirre, Joxean

Agirre, Jose Maria “Xabier Lizardi”: ikus Lizardi

Agirre, K. = Agirre, Katixa

Agirre, Tomás “Barrenoso”: ikus Barrenoso

Agirre Asteasukoa = Aguirre, Juan Bautista

Aierbe = Ayerbe, Bartolo

Aiesta = Ayesta, Lino

Aiestaran = Aiestaran, Ignazio

Aintziart = Aintziart, Piarres

Aintziburu = Aintziburu, Angel

Aintziburu eta Etxarren = Aintziburu, Angel eta Etxarren, Jean Baptiste

Aire, Fernando “Xalbador”: ikus Xalbador

Aitzol = Ariztimuño, José de “Aitzol”

Akesolo = Akesolo, Lino

Akizeko katixima = *Catichima [...] Charles Auguste Le Quien de Laneufville, Aқиçeco Jaun Apezpicu ossoqui Illustre eta Ohoregarriaren manuz araimprimatia*. c. 1780. Akize

Albeniz = Albeniz, Leon “Iruntxiberri”

Alberdi = Alberdi, Pedro

Alcain, Juan José “Udarregi”: ikus Udarregi

Aldasoro = Aldasoro, Irene

Alf. Rodriguez = *Alphonsa Rodriguez Jesusen Compagnhaco Aitaren Guirishinho perfeccioniaren praticaren pparte bat Heuzcarala itçulia, Heuzcara beçic eztakitenen daco*. 1782. Aviñon

Alkain, I. eta Zavala, A. = Alkain, Iñaki eta Zavala, Antonio

Alkorta = Alkorta, Itziar

*Almanaka = Armanak [Almanak] Uskara edo Ziberouko egunaria. 1887-1914.*  
Paris, Maule, etab.

Alonso = Alonso, Jon

Alhabe = Alhabe, Jean Baptiste

Altuna, J. = Altuna, Joseba

Altuna, P. = Altuna, Patxi

Altzaga = Alzaga, Toribio

Alvarez Enparantza, Jose Luis “Txillardegi”: ikus Txillardegi

Alzola Guerediaga, Nicolás “Bitaño”: ikus Bitaño

Amundarain= Amundarain, Antonio

Amuriza, M. = Amuriza, Miren

Amuriza, X. = Amuriza, Xabier

Anabitarte = Anabitarte, Agustin

*Andre-dena = Andre-dena Mariaren ilhabethea. 1838. Baiona*

